gaixotasun infekziosean (4); gaixotasun jakin (5); gaixotasun jakin batzuk (3); gaixotasun kroniko (13); gaixotasun kroniko bat (4); gaixotasun kronikoa (7); gaixotasun kronikoa da (3); gaixotasun kronikoak (7); gaixotasun larri (45); gaixotasun larri bat (5); gaixotasun larri batek (6); gaixotasun larri baten (9); gaixotasun larri eta (22); gaixotasun larria (16); gaixotasun larria duela (3); gaixotasun larriagatik (4); gaixotasun larriak (20); gaixotasun larriak dituzten (4); gaixotasun larrien (4); gaixotasun larririk (4); gaixotasun luze (16); gaixotasun luze baten (14); gaixotasun mota (5); gaixotasun oso (4); gaixotasun oso (4); gaixotasun profesional (3); gaixotasun sendaezin (4); gaixotasun sendaezina (12); gaixotasun sendaezina duen (3); gaixotasun sendaezina zuelako (3); gaixotasun sendaezinak (6); gaixotasun sendaezinak dituzten (5); gaixotasun ugari (3); gaixotasun usaina (3)

hainbat gaixotasun (11); haurrak gaixotasun (3); haurrak gaixotasun genetiko (3); inolako gaixotasun (3); istripu edo gaixotasun (4); lanak eragindako gaixotasun (3); odoleko gaixotasun (4); oso gaixotasun (4); zen gaixotasun (6); zen gaixotasun gutziz (3); zenbait gaixotasun (11); zer gaixotasun (4); zuen gaixotasun (5)

azkarateren gaixotasuna (3); baina gaixotasuna (4); bere gaixotasuna (9); bere gaixotasuna zela (3); buruko gaixotasuna (4); da gaixotasuna (10); dago gaixotasuna (6); dela gaixotasuna (3); den gaixotasuna (4); dira gaixotasuna (3); du gaixotasuna (3); duen gaixotasuna (11); dute gaixotasuna (4); eta gaixotasuna (10); ez dago gaixotasuna (4)

gaixotasuna baino (4); gaixotasuna bera (4); gaixotasuna da (14); gaixotasuna dela (5); gaixotasuna dela eta (3); gaixotasuna diagnostikatzen (3); gaixotasuna duela (4); gaixotasuna eragiten (3); gaixotasuna eta (12); gaixotasuna ez (12); gaixotasuna ez dela (3); gaixotasuna garatuko (4); gaixotasuna garatzeko (5); gaixotasuna gehiago (5); gaixotasuna gehiago zabal (3); gaixotasuna hain (3); gaixotasuna izan (4); gaixotasuna kontrolatzeko (4); gaixotasuna kontrolpean (3); gaixotasuna larria (3); gaixotasuna oso (3); gaixotasuna sendaezina (3); gaixotasuna sendatzeko (5); gaixotasuna zela (7); gaixotasuna zela eta (7); gaixotasuna zuela (3)

begietako gaixotasunagatik (3); bere gaixotasunagatik (3); hansenen gaixotasuna (3); haren gaixotasuna (4); horrek gaixotasuna (3); nire gaixotasuna (3); nire gaixotasunagatik (3); zitzaion gaixotasuna (3); zuen gaixotasuna (7); zure gaixotasuna (3); zuten gaixotasuna (5)

amaren gaixotasunak (3); bestelako gaixotasunak (3); bezalako gaixotasunak (3); bihotzeko gaixotasunak (4); buruko gaixotasunak (7); dira gaixotasunak (6); dira gaixotasunak jota (3); diren gaixotasunak (4); ditu gaixotasunak (3); eragindako gaixotasunak (3); eta gaixotasunak (26); gaixotasunak dira (4); gaixotasunak direla (3); gaixotasunak ekiditeko (3); gaixotasunak eragiten (6); gaixotasunak ere (3); gaixotasunak eta (17); gaixotasunak ez (10); gaixotasunak jota (14); gaixotasunak saihesteko (5); gaixotasunak sendatzeko (6); gure amaren gaixotasunak (3); lotutako gaixotasunak (6)

alabaren gaixotasunaren (4); alabaren gaixotasunaren larritasunak (4); bere gaixotasunaren (4); bere gaixotasunaren (3); du gaixotasunaren (3); edo gaixotasunaz (3); eta gaixotasunaren (9); eta gaixotasunaren arteko (3); eta gaixotasunaz (6); gaixotasunaren arteko (3); gaixotasunaren aurka (3); gaixotasunaren aurkako (4); gaixotasunaren berri (6); gaixotasunaren eraginez (4); gaixotasunaren eta (5); gaixotasunaren eta heriotzaren (3); gaixotasunaren garapena (3); gaixotasunaren jatorria (3); gaixotasunaren larritasuna (4); gaixotasunaren larritasunak (4); gaixotasunaren lehen (6); gaixotasunaren lehen zantzuak (4); gaixotasunaren nondik (3); gaixotasunaren ondorioz (7); gaixotasunaren sintomak (3); gaixotasunari aurre (17); gaixotasunari aurre egiteko (12); gaixotasunari buruz (4); gaixotasunari buruzko (3); gaixotasunari eta (3); gaixotasunaz eta (4); gaixotasunaz geroztik (3); gaixotasunaz hitz (3); gaixotasunaz pentsatzeko (3); gaixotasunaz pentsatzeko gogoak (3); haren gaixotasunaren (3)

bere gaixotasunengatik (3); bihotzeko gaixotasunen (3); buruko gaixotasunen (3); diren gaixotasunen (3); duten gaixotasunen (3); endekapenezko gaixotasunen (4); endekapenezko gaixotasunen kontrako (3); eragindako gaixotasunek (3); eragindako gaixotasunen (4); eta gaixotasunei (3); eta gaixotasunek (6); eta gaixotasunen (9); gaixotasunei aurre (5); gaixotasunei aurre egiteko (4); gaixotasunei buruz (7); gaixotasunei buruzko (4); gaixotasunek eta (4); gaixotasunen aurkako (4); gaixotasunen bat (20); gaixotasunen baten (4); gaixotasunen eta (4); gaixotasunen jarraipena (3); gaixotasunen kontrako (3); gaixotasunen kontrako terapietan (3); gaixotasunen ondorioz (6); gaixotasunen taula (4); hainbat gaixotasunen (4); laneko gaixotasunen (5); laneko gaixotasunen taula (4); nire gaixotasunengatik (4); zen gaixotasunen (3)

eta gaixotasunez (3); gaixotasunez hil (3); gaixotasunik ez (4)

## gaixotegi iz erietxea.

Edozein **gaixotegik** sorrarazten dituen tristura eta alergi... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## gaixoti izond erikorra, eribera.

Ordea, Freud baino hurbilago du Woolf emakume judu **gaixotiak** Nietzsche. **Markos Zapiain**

Krafft-Ebingen arabera, erlijio eta kultura arauetatik amiñi bat aldentzen diren jokabide sexual guztiak "patologikoak" dira, **gaixotiak**, degenerazio mentalaren eta eromenaren adierazgarriak. Halako izaera **gaixoti** eta patologikoa eman dio zenbaitek sentimendu honi. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ez debozio **gaixotirik**, ez beldur traumatikorik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## gaixotu (ETCn 4.116 agerraldi), gaixo(tu), gaixotzen 1 da ad eritu, gaixo gelditu. ik gaizkitu.

2.000 milioi lagun **gaixotzen** dira urtean, egoera txarrean dauden jakiak jateagatik. **Berria - Gaiak**

Aerosolak egunero erabiltzeak %30 handitzen du **gaixotzeko** aukera. **Berria - Gaiak**

**Gaixotuko** zara, izotzean bizi diren mikrobioekin. **Joseba Sarrionandia**

Leku horietan gorputzak **gaixotu** egiten dira. **Santiago Iruretagoiena**

Emakumeak, ordea, ez zion erantzun ere egiten eta mutila maitemenez **gaixotu** zen. **Patxi Zubizarreta**

Jantz ezazu kapela, doktore jauna, hotz honekin **gaixotu** eginen zara. **Monika Etxebarria**

**Gaixotu** egingo naiz zuekin. **Koro Navarro**

Sendatu behar gaituen laguna **gaixotuko** zaigun beldurrez... **Joseba Sarrionandia**

Larriki **gaixotu** zen. **Berria - Kirola**

Semea tifusez **gaixotu** zitzaion honi, eta kanpoan medikurik onenekin ibiliagatik, ezin izan omen zioten asmatu. **Iñigo Aranbarri**

Badakik zer jazotzen den meatzetan dabilen alproja bat tuberkulosiak edo silikosiak jota **gaixotzen** denean? **Josu Landa**

Bazekien ardi-mozketa egiten, **gaixotutako** ardiak zaintzen, animaliak otsoetatik babesten. **Xabier Aranburu**

Baina ziria dantzan hasi orduko, ugaltzen dituk hitz-zomorroak, eta gaiztotzen ditek lan egiten zuen guztia, eta perlesiak jota bezala **gaixotzen** dituk. **Anjel Lertxundi**

### • 2 du ad eritu, gaixo utzi.

Zerk **gaixotu** ote du? **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Kezkak **gaixotuko** zaitu. **Lourdes Oñederra**

Gogoratze hutsak **gaixotu** egiten nau. **Patxi Iturritegi**

Hori nork **gaixotu** ote du? zahar eta arriskutsua baino. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Irakurtzeak **gaixotu** egin nau atzera ere. **Agurtzane Juanena**

Baina batez ere haren "barka, jauna" jakintsu-usteko hark **gaixotzen** ninduen. **Joxe Austin Arrieta**

Musika berez ez zela gaiztoa, baina azpimarratu zuen neurritz kanpo ez ezik, tokiz kanpo ere jota, kaltegarri zela, arima zintzo garbia **gaixotu** eta lizundu egiten zuelako.

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Hankabiko animalia **gaixotuari** gauza batzuk gustatzen zaizkio... **Iñaki Seguro**

Hondamena gehienbat baserrietatik hiriratu zen, alde kutsatu guztietatik zetorren baserriar alde **gaixotuak** ekarria. **Xabier Amuriza**

Greg itsu, buru-hustu eta **gaixotuari** bisita egitera etorri, eta inguruan pilatzen zitzaizkion. **Xabier Olarra**

Sendatzeko San Riquierengana jotzen zuen, Basamortuko San Gilenengana, eta zapi batez igurten zuen estatua, gero gorputz-atal **gaixotuetan** ipintzeko. **Joseba Urteaga**

Juduen irudimen **gaixotuak** asmatutako ergelkeria bat. **Anjel Lertxundi**

Garuneko gune **gaixotua**. **Irene Aldasoro**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko gaixotu (3); bat batean gaixotu (4); bat gaixotu (6); batean gaixotu (4); batek gaixotu (3); benetan gaixotu (3); eta gaixotu (6); gaixotu arte (3); gaixotu aurretik (5); gaixotu baino (4); gaixotu baino lehen (4); gaixotu dela (3); gaixotu dira (8); gaixotu edo (4); gaixotu egin (47); gaixotu egin zen (20); gaixotu egingo (14); gaixotu egiten (21); gaixotu egiten da (4); gaixotu egiten dira (3); gaixotu egiten ninduen (3); gaixotu egiten zen (3); gaixotu ere (7); gaixotu eta (28); gaixotu eta hil (7); gaixotu ondoren (3); gaixotu ote (3); gaixotu ote du (3); gaixotu zelarik (4); gaixotu zen (40); gaixotu zen arte (3); gaixotu zen eta (3); gaixotu zen ezekias (3); gaixotu zenean (5); gaixotu ziren (8); hura gaixotu (3); hutsak gaixotu (4); hutsak gaixotu egiten (3); jazarpenaren ondorioz gaixotu (3); jendea gaixotu (3); larri gaixotu (6); larriki gaixotu (9); larriki gaixotu zen (8); ondorioz gaixotu (5); ondorioz gaixotu eta (3); semea gaixotu (4); semea gaixotu egin (3)

asko gaixotzen (3); gaixotuz gero (5); gaixotzea eta (3); gaixotzeko arriskua (7); gaixotzen ari (4); gaixotzen bada (7); gaixotzen da (4); gaixotzen denean (3); gaixotzen direla (3); gaixotzen dituen (3); gaixotzen dituk (3); gaixotzen eta (5); gaixotzen hasi (11); gaixotzen hasi zen (4); gaixotzen hasi zenetik (4); gaixotzen naiz (4)

### gaixotze iz eritzea, gaixo gelditzea.

Arafaten **gaixotzeaz** zera esan omen zuen Bushek: «Jainkoa bere lana egiten ari da». **Berria - Mundua**

Ziur aski, urtetakoa izango zen Virgilen **gaixotze** -prozesua; 1985etik aurrera, etengabe gizendua zen. **Xabier Olarra**

### gaixozain iz erizaina.

**Gaixozainak** goiz-goizean pastilla batzuk eman zizkidan eta kito. **Gotzon Garate**

### gaixto ik gaizto.

### gaizerrenda ik gai 13.

### gaizgabe izond gaiztik edo kalterik sortzen ez duena.

Esan liteke zoriontasuna eromenaren aurpegi bat dela, eromen onetsi bakarra, zeren oso larria eta lotsagarria izanik ere, eromen txoraa baita eta **gaizgabea**. **Iñaki Seguro**

### gaizkata iz itsas arrain handia, kabierra egiteko hazten dena (Acipenser sturio).

Hantxe azaldu ziren aldameneko gelako mahaian izokinak, tamaina guztietako **gaizkatak**, kabiarrak, kabiarrak, sardinzar ketuak, gazta, mihi ketuak eta **gaizkata-bizkar** onduak, dendetatik ekarria hori guztia. **Jose Morales**

Arraina ere bazegoan salgai, **gaizkata** -bizkar gazitu ederrak. **Jose Morales**

**Gaizkata** -xerra onduak jan zituzten. **Jose Morales**

Mahaira esertzen dira eta **gaizkata-zopa** hartzen dute. **Jose Morales**

Diru mugimendu asko sortzen duten gero eta arrain espezie gehiago **gaizkata**, esaterako (kabierra ematen du) sartu dituzte CITESen zerrendan azken urteotan. **Berria - Gaiak**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta gaizkata (3); gaizkata handi (3)

### gaizkeria iz gaizkia, gaiztakeria.

F. Tom. Lorenzo Matteucci-k, Ankonatar Markako Inkisitore orokor, **Gaizkeria** Heretikoaren kontra bereziki Ordezkarri izendatuak. **Juan Garzia**

**Gaizkeria** nabarmenez, garaile atera naiz: helarazi dut Berlinera eraso behar dioten hiriaren izen isilpean gordea. **Juan Garzia**

Zuk tatxa arinok egoztean ene semeari, alegia gauza bat arian aritzez zikinduxe, begira ea zure solaskideak, zundatu gogo duzun horrek, inoiz kausitu duenentz aipaturiko **gaizkerietan** hala salatzen duzun gaztea, bat baitu egingo orduan noski zurekin honako ondorioan: "Jauna", edo beste, zuka nahiz berorika, tokian-tokiko jendeen ohitura eta usadioaren arabera. **Juan Garzia**

### gaizki (ETCn 40.187 agerraldi) 1 adlag behar edo nahi denaren edo egoki denaren kontra. ik txarto. ant ongi.

Zer den ongi eta zer **gaizki**. **Piarres Xarriton**

Ongi ala **gaizki** zer dagoen jakiteko. **Joxe Azurmendi**

Ez zegoen horren **gaizki**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez zela hori batere **gaizki** izanen! **Janbattitt Dirassar**

Verlaque jaunak ezin du gehiago itxaron, **gaizki** dago, oso **gaizki..** **Karlos Zabala**

**Gaizki** zagok, **gaizki** arrunt. **Aingeru Epaltza**

Arras **gaizki**. **Daniel Landart**

Oso **gaizki** pasatu zuen haiek hiltzean: "Negar eta negar aritu nintzen". **Xabier Olarra**

Hemen ez gaude ikaragarri **gaizki** ere. **Josu Zabaleta**

Salmentak **gaizki** zihoazela-eta solasean. **Karlos Zabala**

-Zer atera zitzaion **gaizki** bere buruaz beste egin zuenean? -esan nuen. **Koro Navarro**

**Gaizki** bukatuko du honek guztiak. **Karlos Zabala**

"Ez dakite meake hezten", esaten zuten gure aitak, **"gaizki"** ohitua daude, maina besterik ez dute".  Fernando Rey

Asko higiene ezaz eta **gaizki** janez hil egiten ziren.  Gotzon Garate

Gizaseme baten autoan sartzea oso-oso-oso **gaizki** ikusia zegoen.  Karlos Zabala

Paradoxa dirudi: lana ongi ikusia zegoen eta prestatze-lana **gaizki**.  Andoni Egaña

Ez dago **gaizki** pentsatua.  Iñaki Segurola

Gaizkileari ez bieziaote **gaizki** erantzun.  Askoren artean

Arrakastadunari **gaizki** begiratu behar zaio, eta **gaizki** begiratzin zaio.  Iñaki Segurola

Kant gutxi eta **gaizki** ezagutzen dutenek.  Joxe Azurmendi

**Gaizki** iruditzen ez bazaizu.  Koldo Biguri

Dussel jaunak oheak egiten ditu (**gaizki**, jakina).  Josu Zabaleta

**Gaizki** tratatzen dituzu lagunak, David.  Bernardo Atxaga

Bera izan dela **gaizki** jokatu duena.  Josu Zabaleta

Haietako batean, pausoa **gaizki eman** eta harri bat jo nuen belaunaz.  Anjel Lertxundi

Bizarra **gaizki** moztua zuen.  Juan Garzia

Ez ziren **gaizki** konpontzen elkarrekin.  Ramon Saizarbitoria

Nahiz eta Dong neskekin **gaizki** moldatzen zen, animatu zen.  Ramuntxo Etxeberri

Eta azkenean **gaizki** pentsatzen hasten baitzen, Sergiori zerbait gertatu ote zitzaion beldurrez.  Joan Mari Irigoien

**Gaizki** sentitzen nintzen, zinez.  Joan Mari Irigoien

Amarekin izandako liskarrak **gaizki** sentiarazten bazuen ere.  Joan Mari Irigoien

**Gaizki** lo egiten hasi zen.  Xabier Olarra

## 2 (izen sintagma batean, izenaren eskuinean)

Ate **gaizki** oloztatuaren kirrinkak.  Aingeru Epaltza

Paper multzo **gaizki** antolatu hori.  Aingeru Epaltza

Kopa **gaizki** garbitu bat barra gainean paratzeko.  Aingeru Epaltza

Erakusmahaiaren usaina nardagarria zen, baxera koipetsuari eta harraska **gaizki** garbituari dariena bezalakoa.  Karlos Zabala

Napoleonen seme **gaizki** hazi haiekin.  Anjel Lertxundi

Legeenganako atxikimendu **gaizki** ulertuen erruz.  Juan Martin Elexpuru

## 3 (izen sintagma batean, izenaren ezkerrean)

Hain **gaizki** jantzitako gizon horrek lapurtuko ote zion.  Karlos Zabala

**Gaizki** loturiko blusa mehe baten azpian.  Karlos Zabala

**Gaizki** harilkatutako eta gaizkiago ehundutako kezka hauekin.  Juan Martin Elexpuru

## • 4 iz lege moralaren, bertutearen, ongiaren aurkako dena. **ikgaitz. ant ongi.**

Niri iruditzen zait denok badugula barnean muga bat, ongiaren eta **gaizkiaren** nolabaiteko neurri den muga bat.  Ander Irizar

Gizakiek, beraz, deitu dute Ongia beren osasunaren alde eta Jainkoaren ohoretan doan edozein gauza; **Gaizkia**, berriz, kontrakoa dena.  Piarres Xarriton

Ongia eta **gaizkia**, kontrakoa izan arren, gauza berean eta aldi berean aurki daitezke.  Imanol Unzurrunzaga

Gizona ezein alorretan ez da betegina, ez ongian, ez **gaizkian** ere.  Jon Muñoz

Gogoratu behar du gizakiak bere izatez ez duela ezer, **gaizkia** eta itsuskeria ez bada; duen on guztia Jainkoak ordaintzekotan utzia duela eta ez beretzat emana.  Joan Mari Lekuona

Neurri bertsuan ageri dira ongia eta **gaizkia** gizonarengan.  Imanol Zurutuza

Kontuz, ordea, ongia eraikitzeko **gaizkia** baliatzen dutenekin: heroikotasunaren itxura ematen bazaio, gezurra errazago irensten da egia baino.  Anjel Lertxundi

Ongiaren eta **gaizkiaren** haraindi ez bada, ongia eta **gaizkia** baino lehen bizi baita, Estatua sortu aitzineko basagizona.  Joxe Azurmendi

Eta Ameriketako Estatu Batuetako presidentea euskaraz mintzatuko balitz **gaizkiaren** indarrak mundutik garbitu nahi dituenear?  Pello Salaburu

**Gaizkiari** eman diot leku ene bihotzean.  Joan Mari Lekuona

Nahi dudan ongia ez dut egiten, eta nahi ez dudan **gaizkia** egiten dut.  Elizen arteko biblia

Zergatik **gaizkiari** emana bizi?  Jon Muñoz

Eta, gainera, baratze erdian zuhaitz bi emearazi zituen: biziaren zuhaitza bat eta ongia eta **gaizkia** ezagutzeko ahalmena ematen zuena bestea.  Jose Antonio Mujika

**Gaizkiaren** piztia da hura, deabruaren sorkuntza bat.  J.M. Olaizola "Txiliku"

Ana agertu arte, **gaizkiaren** indar ezkutu nahiz ageriko guztiek elkar harturik ziruditen, nire kontra, abuztuko asteazken horretan.  Aingeru Epaltza

Nietzsche-n orrialde bat datorkit gogora, "Ongiaren eta **Gaizkiaren** haraindian" liburuan idatzia.  Piarres Aintziart

## 5 **gaizkiago** (42 agerraldi, 20 liburu eta 14 artikulutan; ETCn 237 agerraldi; cf **okerrago** 676 agerraldi, 173 liburu eta 204 artikulutan; ETCn 5.757 agerraldi) **okerrago**.

Neukan aise **gaizkiago** hartuko zenuela zuhaurek ere ene ixtorioa!  Janbattiti Dirassar

Dena ongi doa, gauzak gero-eta azkarrago, errazago eta **gaizkiago** egiten ditugu zuk alde eginez geroztik.  Iñaki Segurola

Euskaraz gero eta gehiagok jakin arren, zenbait tokitan gero eta gutxiago eta **gaizkiago** egiten dela.  Pello Salaburu

Itxura tristean zeuden, errusiar gaizoak, baina ohartzen bide ziren Joanesen taldekoak oraino **gaizkiago** bizi zirela.  Eneko Bidegain

Gaizki harilkatutako eta **gaizkiago** ehundutako kezka hauekin.  Juan Martin Elexpuru

## 6 **burutik gaizki** (egon, etab.)

Nik ez dut sinesten, ez, burutik **gaizki** zaudenik...  Gotzon Garate

**Burutik gaizki** jarri eta azken bost urteetan Bermeoko eroetxean omen zegoen.  Gotzon Garate

Neskatoak ondo zituela aho-kordak eta ez zirudiela **burutik gaizki** zegoenik ere.  Felipe Juaristi

Boxeolariak azkenean **burutik gaizki** bukatzen duzuela ere esaten da.  Berria - Kirola

## 7 **gaizki egin**<sup>1</sup>

Bestalde, besteri ongi egin dionarenganako Maitasuna Begikotasuna deituko dugu, eta besteri **gaizki egin** dionarenganako Gorrotoa, Haserre.  Piarres Xarriton

Eta anaia batek ez bieziaio beste bati **gaizki** egin edo esan.  Askoren artean

Hik, alabaina, **gaizki egin** duk esanez urkabea sendoago eraikia dela eliza baino.  Juan Garzia

**Gaizki egin** duenaren kontrako gaitzigua onartuz.  Itxaro Borda

Guk, aitamek zerbait **gaizki egin** bagenu bezala...?  Daniel Landart

Oso **gaizki egin** duzu horrela eteten.  Irene Aldasoro

**Gaizki egina** oso.  Iñaki Segurola

## 8 **gaizki egin**<sup>2</sup> iz

Anaiaren bekatua edo **gaizki** egina dela-eta.  Askoren artean

**Gaizki** egina zuritzeko amarruak erabiltzen dituenarekin.  Koldo Biguri

Hango emaztekiaren ongi eginari, **gaizki eginare** ordaina emana nion. Aingeru Epaltza

**Gaizki eginaz** nahigabetu direnak. Piarres Xarriton

## 9 gaizki eman (zerbaitek)

Baina **gaizki ematen** zion gauza batek: sandaliak zeuzkan jantzita. "Altzari hauek..." esaten zuen egunero. **"gaizki** ematen dute Pallamaglio kalean". Jon Muñoz

Eta oso **gaizki** ematen dik dentistek bezala hitz egiteak norbera dentista ez denean. Antton Olano

Edozein egunkariren estilo liburuko aurreneko orrian batera **gaizki** emango ez lukeen esaldia. Iñaki Segurola

## 10 gaizki errale izond/iz gaizki esalea.

**Gaizkierrale** zitalekin. Jon Muñoz

## 11 gaizki erranka adlag

Zuzendariordeaz **gaizki** erranka urratu nuen autorainoko tarte luzea. Aingeru Epaltza

Besteren min eta etsipenaz dirutzen zirenen kontra **gaizkierranka**. Alberto Ladrón Arana

## 12 gaizki esaka<sup>1</sup> (orobat gaizkiesaka g. er.) adlag

Zure kontra hasi zen **gaizki esaka**. Joxean Agirre

Israeldarrak marmarrean hasi ziren Moisesen aurka **gaizki esaka**: [...]. Jose Antonio Mujika

Irainka eta gezurrez **gaizki** esaka erabiltzen zaituztenei. Askoren artean

Nola ausartu zarete, ba, Moisesen aurka **gaizki esaka** aritzera? Jose Antonio Mujika

Fraideen gainean **gaizki esaka** aritzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Draco Malfoyk eta bere Slytheringo taldetxoak bakarrik jarduten zuten **gaizki-esaka** Lupin maisuaz. Iñaki Mendiguren

Eta eskerrak eman diezaizkioke Jainkoari beronek aldi hartan emaniko onura guztiengatik, bere zortiaz **gaizki esaka** ari gabe. Joan Mari Lekuona

Eta bere artean gogor samar hasi zen **gaizki esaka** etxeko jabeaz. Anton Garikano

Barrukoarekin gutxi ez zuela, kanpokoa besoak astinduz laguntza eske zetorkion, bere buruari **gaizki esaka**. Pako Aristi

Esanak esan, sindikatu guztiak ondorioztatu dute «elkarren lepotik **gaizkiesaka** ibiltzeak» patronala «pozten» duela. Berria - Ekonomia

Gizon gaztea gobernuagatik **gaizkiesaka**. Anton Garikano

Ezkontetxera bihurtu zenean, amaginarreba **gaizki esaka**, lepotik heldu eta burua hormaren kontra jotzen hasi zitzaion, haurdun nork daki zeinek eginik izango zela eta eritegiar berariaz haurra galdu egin zuela. Gotzon Garate

Gehienez ere kexuzko mandaturen bat bidaltzen dik **gaizki esaka**, helbidearen eskasez hala ere iristen ez zaiana. Juan Garzia

Elkarri **gaizki** esaka eta elkarren zelatan ibiltzea. Jon Muñoz

## 13 gaizki esaka<sup>2</sup> iz gaizki-esatea.

**Gaizki-esaka** barregarri batzuk eta beste horrenbeste laudorio negargarri. Xabier Mendiguren Elizegi

## 14 gaizki esale

Idatzia baitago: marmariak eta **gaizki esaleak** Jainkoaren etsai dira. Askoren artean

Maltzurra **gaizki-esaleei** dago adi, gezurtia mintzo gaiztokoari. Elizen arteko biblia

**Gaizki esaleek** mihian pozoia daramatela zioen. Askoren artean

Fedabideetako iritzi publiko ongi-erakutsi, ongi-hitzezin eta **gaizki-esalearekin**. Iñaki Segurola

## 15 gaizki esan<sup>1</sup> (zerbait)

Bertsolariak hitzen bat **gaizki esaten** badu, transkribatzerakoan zuzendu egin beharko da. **Gaizki esan** dut: azterketa haren emaitzarik ez genuen sekula jakin. Xabier Mendiguren Elizegi

**Gaizki** diot, haur haiek ez ziren etxe hartakoak, ondoko etxe txikiago batekoak baizik. Ez dago **gaizki esana**. Hasier Etxeberria

Oso gerora ikasi nuen **gaizki esanda** zegoela. Iñigo Aranbarri

Gurasoek ohitura baitzuten beti **gaizki esandako** esaldiak zuzentzeko. Pello Salaburu

Betiere murmuraziozko, **gaizki esandako**, haserreko, gezurrezko edo gehiegikeriazko esaldietan erabiltzen da. Patziku Perurena

## 16 gaizki esan<sup>2</sup> (objekturik gabe)

Ez inor epaitu, ez **gaizki esan**. Bada atsekabe ematen didan beste gauza bat, au da entzutea euskaldunak **gaizki esaten** ta auzitan bezela batzuek besteakin. Koldo Zuazo

Ezkondur berri baita Simón Kautzsh nazioarteko filantropoarekin, zeinarengatik haren maniobra desinteresatuen biktimak ai! atergabe **gaizkiesaten** ari baitira. Juan Garzia

## 17 gaizki esan<sup>3</sup> (zerbaitez, zerbaitegatik, zerbaiten aurka)

Bere senideaz **gaizki-esaten** edo hura epaitzen duenak, Jainkoaren legeaz esaten du gaizki eta legea epaitzen du. Ez inoiz **gaizki esan** gizarteaz, Algernon. Elizen arteko biblia

Eta Jainkoaren aurka **gaizki esaten** [...] entzuten dugunean. Askoren artean

## 18 gaizki esan<sup>4</sup> (orobat gaizkiesan g. er.) iz

Gezurrak eta **gaizkiesan** pertsonalak. Berria - Euskal Herria

Eta «aipatutako **gaizkiesanak** GBBko iturri ofizialen izenean plazaratzea» oso larria dela adierazi zuten. Berria - Euskal Herria

Oso gizon zintzo eta jakintsua da", gaineratu nuen azkar, **gaizki** esana zuzendu nahian. Bernardo Atxaga

Ondo esanak barkatu, eta **gaizki esanak** gogoan hartu. Joxerra Garzia

"Oso gizon zintzo eta jakintsua da", gaineratu nuen azkar, **gaizki esana** zuzendu nahian. Bernardo Atxaga

Ondo esanak barkatu, eta **gaizki esanak** gogoan hartu. Joxerra Garzia

Kaka egingo dugula, alegia, eta barkatu **gaizki esana**. Joxerra Garzia

## 19 gaizki esan<sup>5</sup> izond

Ezjakin eta **gaizki esanak** jaiotz gara eta halaxe hilko gara dagoeneko. Josu Zabaleta

## 20 gaizki esate

Bekaizkeriak, haserreak, norgehiagokeriak, **gaizki-esateak**, esamesak, handikeriak eta nahaspilak izango. Elizen arteko biblia

Gorde daitezela anaiak inolako harrokeria, handiuste, inbidia, diru-gose, mundu honetako ardura eta axolatik, eta **gaizki esate** eta marmarrean aritzetik. Askoren artean

Madarikatzea eta inori buruz **gaizki esatea**. Xabier Kintana

## 21 gaizki hartu

Nire keinua **gaizki** hartu du, nonbait. Pako Aristi

-Ez **gaizki har**, baina ene iritziz zure senarrak ergel samarra izan behar du. Miguel Angel Mintegi

Berdin dio nik zer egin, **gaizki** hartzen dute. Josu Zabaleta

Ezetz esaten badu, **gaizki** hartuko du, jo egingo du eta aldian behin hil ere bai. Gotzon Garate

Nik nituen haren solasak **gaizki** hartu. Daniel Landart



## 22 gaizki hazi izond

Napoleonen seme gaizki [hazi](#) haiekin. [Anjel Lertxundi](#)

Geroxeago jakin izan zuenez, mirotz malapartatuek eta arrano [gaizki haziak](#) jan zituzten uso guztiak. [Felipe Juaristi](#)

Gosetearekin [gaizki haziak](#) diren 90 miliun haurrak, eta 640 miliun behar bezalako egoitza gabeak. [Herria](#)

## 23 gaizki ikusi<sup>1</sup> (zerbait; irud)

Hastapenetan [gaizki ikusten](#) zuen ni mundu horretan sartzea, ile luzeekin eta... [Berria - Kultura](#)

Oso [gaizki ikusten](#) du guk ezerezkeria horiekin aski izatea. [Joan Mari Lekuona](#)

Batzuek eta bereziki sozialistek uste zuten Borotrak BAM hiri elkargoaren handitzea [gaizki ikusten](#) zuela. [Herria](#)

-Nik ez dut hain [gaizki ikusten](#). - ene alde atera zen hura. [Joan Mari Irigoien](#)

Pilotariak ginen, ene ahizpekin -duela aspaldi, ez dauzut erranen noiz...- eta biziki [gaizki ikusiak](#) ginen. [Menane Oxandabaratz](#)

Gure Erregea haserre dela enekin eta, hartaz [gaizki ikusia](#) nazela. [Piarres Xarriton](#)

## 24 gaizki ikusi<sup>2</sup> iz

Badira astebeteko [gaizki](#) ikusiak eta hilabeteko adiskidantzak. [Josu Zabaleta](#)

## 25 gaizki-ulertu (orobat gaizkiulertu) iz

Berehala sartu da Esther [gaizki ulertua](#) argitzera. [Patxi Zubizarreta](#)

[Gaizki-ulertu](#) bat izango zen tartean, kartzela oso hotz batera eraman baininduen. [Joxan Elozegi](#)

Beldur dio [gaizki ulertuen](#) mekanismoa aktibatu izanari. [Anjel Lertxundi](#)

Istripu baten edo [gaizki-ulertu](#) baten antzeko zerbait. [Xabier Olarra](#)

Albert Camusek [Gaizkiulertua](#) izeneko antzerkian. [Bernardo Atxaga](#)

Beharbada, aipatu egin beharko genuke, [gaizkiulerturik](#) ez gertatzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Hala behintzat ez zen [gaizkiulerturik](#) egongo. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Agiriak aurrerantzean sor litezkeen [gaizkiulertuak](#) saihestuko ditu. [Berria - Kirola](#)

[Gaizkiulertu](#) guztiak uxatuta, autora itzuli ginen. [Anjel Lertxundi](#)

Bien arteko [gaizkiulertua](#) bulego kontuek eragin zutela gogoratu zuen. [Berria - Kirola](#)

Lehen planoan ageri den liskarraren atzetik, elkarrekiko jakin-nahi bera eta [gaizki-ulertu](#) berberak daude, elkar aditzeko desira erreal bat ezkutaturik. [Joxan Elozegi](#)

Ez zegoen gure arteko engainurik ez [gaizkiulerturik](#). [Anjel Lertxundi](#)

[Gaizki ulertuen](#) beldur ginen, ez genuen hamasei urteko jendeak berezkoa duen xalotasun eta naturaltasuna erakusten gure iritzietan eta kritiketan. [Anjel Lertxundi](#)

Hura guztia [gaizkiulertu](#) erraldi eta ikaragarria zela. [Jon Alonso](#)

## 26 gaizki ulertze (orobat gaizkiulertze g. er.)

Eta tira, barkatzeko, [gaizki ulertze](#) bat izan zela. [Pako Aristi](#)

[Gaizki-ulertze](#) bat baino ez zen izan. [Mirentxu Larrañaga](#)

Eta gainerakoan ez baitut etsaminatzaile aditu eta inpartzialengan [gaizki-ulertzerik](#) aurkitu. [Ibon Uribarri](#)

[Gaizki-ulertzeak](#) saihestearren. [Ibon Uribarri](#)

Gaur egun aho batezko iritzia dago Eckhartren benetako doktrinaren [gaizkiulertzeetan](#) oinarritu zela haren kondena. [Joan Mari Lekuona](#)

Hasiera-hasieratik hemen [gaizki-ulertze](#) handi bat sor dezakeen bikoiztasun bat agertzen da. [Ibon Uribarri](#)

Zeren elkarren aurrean jartze honek azkenen teoria [gaizki-ulertze](#) orotatik askatzen baitu. [Ibon Uribarri](#)

Gure helburua ez da erlijio jakin baten kontra jotzea, komunitateen arteko gatazken testuinguruan sortzen diren ezinegon eta [gaizkiulertzeak](#) baretzea baizik. [Berria - Euskal Herria](#)

Ondoren sortutako ika-mika eta [gaizkiulertzeak](#) argitu. [Berria - Kirola](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**ala** gaizki (24); **arras** gaizki (23); **aruntz** gaizki (6); **aurka** gaizki (11); **aurka gaizki esaka** (8); **baina** gaizki (41); **baina oso** gaizki (11); **baita** batere gaizki (11); **bat** gaizki (27); **batean** gaizki (7); **batere** gaizki (99); **benetan** gaizki (6); **berandu** eta gaizki (6); **beti** gaizki (6); **bezain** gaizki (18); **biziki** gaizki (18); **burua** gaizki (6); **buruz** gaizki (12); **buruz gaizki esaka** (8); **da** batere gaizki (9); **da** gaizki (40); **da hain** gaizki (7); **dago** batere gaizki (11); **dago gaizki** (91); **dela** gaizki (9); **dena** gaizki (20); **dira** gaizki (10); **du** gaizki (15); **dugu** gaizki (9); **duz** gaizki (8); **edo** gaizki (75); **ere** gaizki (40); **eta** gaizki (210); **eta gaizki esaka** (9); **eta oso** gaizki (17); **eta zer** gaizki (7); **ez da** gaizki (30); **ez dago** gaizki (85); **ez du** gaizki (9); **ez** gaizki (27); **ez legoke** gaizki (29); **ez zaito** gaizki (8); **ez zait** gaizki (17); **ez zegoen** gaizki (12); **ez zegok** gaizki (16); **ez zen** gaizki (13); **ez zuen** gaizki (14); **ez zuten** gaizki (6); **ezen** gaizki (8)

**gaizki** al (9); **gaizki amaitu** (9); **gaizki ari** (48); **gaizki ari da** (7); **gaizki aritu** (79); **gaizki aritu zen** (21); **gaizki aritu ziren** (17); **gaizki atera** (46); **gaizki atera zen** (7); **gaizki atera zitzaion** (7); **gaizki aterako** (11); **gaizki ateratzen** (19); **gaizki begiratu** (7); **gaizki begiratzen** (9); **gaizki bizi** (25); **gaizki bukatu** (13); **gaizki bukatuko** (10); **gaizki bukatzen** (6); **gaizki da** (7); **gaizki dago** (34); **gaizki dagoela** (25); **gaizki daude** (7); **gaizki daudela** (7); **gaizki doala** (6); **gaizki doazenean** (8); **gaizki edo** (12); **gaizki egin** (117); **gaizki egin nuen** (6); **gaizki egina** (38); **gaizki eginak** (13); **gaizki eginda** (13); **gaizki egindako** (19); **gaizki egindakoak** (9); **gaizki eginen** (6); **gaizki egingo** (7); **gaizki egiten** (54); **gaizki egiten ari** (10); **gaizki egon** (19); **gaizki egongo** (12); **gaizki ekin** (7); **gaizki elikatzen** (6); **gaizki eman** (7); **gaizki emana** (6); **gaizki ematen** (15); **gaizki erabili** (14); **gaizki erabiltzen** (12); **gaizki erantzun** (6); **gaizki ere** (18); **gaizki esaka** (139); **gaizki esaka ari** (18); **gaizki esaka aritu** (7); **gaizki esaka aritzen** (11); **gaizki esaka hasi** (12); **gaizki esaka hasten** (6); **gaizki esan** (14); **gaizki esana** (7); **gaizki eta** (38); **gaizki etorriko** (37); **gaizki ez** (43); **gaizki ez banago** (10); **gaizki ezagutzen** (9); **gaizki gaude** (13); **gaizki geratu** (6)

**gaizki hartu** (87); **gaizki hartu zuen** (17); **gaizki hartu zuten** (8); **gaizki hartuko** (17); **gaizki hartzen** (19); **gaizki hasi** (62); **gaizki hasi da** (7); **gaizki hasi zen** (12); **gaizki hitz** (33); **gaizki hitz egin** (6); **gaizki hitz egiten** (17); **gaizki ibili** (27); **gaizki ibiliko** (9); **gaizki ibiltzen** (6); **gaizki idatzita** (6); **gaizki ikusi** (22); **gaizki ikusia** (27); **gaizki ikusiak** (16); **gaizki ikusita** (8); **gaizki ikusten** (37); **gaizki iruditu** (11); **gaizki irudituko** (12); **gaizki iruditzen** (68); **gaizki iruditzen ez** (9); **gaizki iruditzen zait** (9); **gaizki itzailtako** (6); **gaizki jarri** (10); **gaizki jaten** (7); **gaizki joan** (18); **gaizki jokatu** (91); **gaizki jokatu zuela** (7); **gaizki jokatu zuen** (8); **gaizki jokatuta** (9); **gaizki jokatzen** (15); **gaizki konpontzen** (15); **gaizki lo** (24); **gaizki lo egin** (18); **gaizki moldatu** (7); **gaizki moldatzen** (21); **gaizki nago** (12); **gaizki nengoen** (6); **gaizki ohitu** (13); **gaizki ohituta** (8); **gaizki pasa** (17); **gaizki pasatu** (53); **gaizki pasatu nuen** (17); **gaizki pasatu zuen** (7); **gaizki pasatzen** (23); **gaizki pasatzen ari** (6); **gaizki portatu** (11); **gaizki portatzen** (9); **gaizki sentitu** (20); **gaizki sentitu nintzen** (10); **gaizki sentitzen** (39); **gaizki sentitzen zen** (8); **gaizki tratatu** (17); **gaizki tratatua** (7); **gaizki tratatuak** (7); **gaizki tratatzen** (16); **gaizki ulertu** (67); **gaizki ulertu bat** (8); **gaizki ulertua** (28); **gaizki ulertua izan** (6); **gaizki ulertuak** (28); **gaizki ulertuko** (8); **gaizki ulerturik** (7); **gaizki ulertutako** (6); **gaizki ulertze** (18); **gaizki ulertzea** (10); **gaizki ulertzeak** (9); **gaizki ulertzen** (8); **gaizki zegoela** (14); **gaizki zegoen** (21)

**gauzak** gaizki (47); **gauzak gaizki egin** (8); **gauzak gaizki egiten** (6); **gu** gaizki (6); **gutxi** eta gaizki (8); **hain** gaizki (136); **hain gaizki ere** (7); **hau** gaizki (14); **hori** gaizki (11); **horiek** gaizki (10); **horren** gaizki (19); **hura** gaizki (8); **ikaragarri** gaizki (6); **jendea** gaizki (8); **kontra** gaizki (8); **legoke** gaizki (29); **nahiko** gaizki (27); **ni** gaizki (7); **nik** gaizki (6); **nitaz** gaizki (9); **nuen** gaizki (7); **ondo** edo gaizki (17); **ongi** ala gaizki (14); **ongi edo** gaizki (12); **ongi eta** gaizki (8); **oso** gaizki (352); **oso gaizki ari** (6); **oso gaizki aritu** (22); **oso gaizki dago** (10); **oso gaizki egin** (8); **oso gaizki hartu** (13); **oso gaizki hasi** (9); **oso gaizki ikusi** (6); **oso gaizki ikusten** (8); **oso gaizki jokatu** (17); **oso gaizki pasatu** (23); **oso gaizki pasatzen** (7); **oso gaizki sentitzen** (7); **oso gaizki (8)**; **sobera** gaizki (6); **taldea** gaizki (10); **zaik** gaizki (6); **zaito** gaizki (9); **zait** gaizki (19); **zait gaizki iruditzen** (12); **zegoen** gaizki (16); **zegok** gaizki (16); **zein** gaizki (19); **zen** gaizki (24); **zer** gaizki (20); **zerbait** gaizki (41); **zerbait gaizki egin** (14); **zitzaion** gaizki (7); **zuen** gaizki (27); **zuten** gaizki (9)

**eta** gaizkia (55); **eta gaizkiak** (8); **eta gaizkiaren** (84); **eta gaizkiaren arteko** (11); **eta gaizkiaren egiazko** (8); **eta gaizkiari** (8); **eta gaizkiaz** (10); **gaizkia egiten** (11); **gaizkia ez** (7); **gaizkiaren ardatza** (7); **gaizkiaren arteko** (11); **gaizkiaren eta** (7); **gaizkiaren ezagutza** (8); **ongia** eta gaizkia (40); **ongiaren** eta gaizkiaren (68); **ongiari** eta gaizkiari (8); **ongiaz** eta gaizkiaz (9)

**baino** gaizkiago (7); **batere** gaizkiago (4); **eta** gaizkiago (10); **gaizkiago izanen** (3); **gaizkiago joan** (3); **gero** eta gaizkiago (4); **gero ta** gaizkiago (4); **oraino** gaizkiago (3); **ta gaizkiago** (4)

## gaizkiagotu, gaizkiago(tu), gaizkiagotzen du ad gaizkiago, okerrago jarri.

Auzia [gaizkiagotuz](#) gero, gaizkileak polizia mila pezetako batzuez igurtzi eta kito. [Gotzon Garate](#)

Sonal arrebardearren jaiotzarekin gauzak [gaizkiagotu](#) egin ziren. [Gotzon Garate](#)

Egoera epe motzean aldatuko zelako segurtamena, baina [gaizkiagotuz](#). [Elena Touyarou](#)

## gaizkide iz besteren gaizki eginareen kide gertatzen dena.

Seguru asko zu lapurren baten **gaizkidea** zara. **Lopez de Arana**

Hamar bat urte lehenago hilketa baten **gaizkide** izana. **Josu Zabaleta**

-Ni ez naiz inoren **gaizkidea**. **Migel Angel Mintegi**

Sheila salatu zutela enpresa baten kontuen faltsutze, iruzur eta armaturik egindako lapurretan **gaizkide** izateaz. **Xabier Olarra**

-Bi hilketetan, gutxienez, zara **gaizkide**. **Migel Angel Mintegi**

Volanges andrearen hutsegiteak erakusten digunez, Valmontek, bertze gaizkileek ez bezala, ez zituen **gaizkideak** salatzen. **Jon Muñoz**

Ezin egingo luke hori **gaizkiderik** gabe. **Jose Morales**

Ondorioz, norbere gogoak eta aukeramenak izan ezik, beste deusek ez du adimena grinen **gaizkide** egiten. **Imanol Unzurrunzaga**

Ez zen hizkuntza-irakaslea [...] andre Virginiaren negozio higuigarrietako **gaizkide** bat baizik. **Josu Zabaleta**

## gaizkigile iz gaizkilea.

Baionarik Garazira jin beharko dū, holako jauntxo **gaizkigileen** heztera, Richard Coeur de Lion gazteak! **Herria**

## gaizkika adlag kargu hartuz, erantzuki eginez.

Maiz goguetan, hainbertzetaraino non bere arrebek **gaizkika** noiz nahi erraten baitzioten: utz zaitzik hire goguetak eta eman lanari! **Xipri Arbelbide**

## gaizkile (ETCn 4.898 agerraldi) 1 iz egintza gaitzesgarrietan aritzen den pertsona.

**Gaizkileak** zigortzeko eta ongileak laudatzeko. **Patziku Perurena**

Zaldi gainean doa ihesi beti **gaizkilea** (heriotz egilea jeneralean). **Patziku Perurena**

Epaileak edo haren ministroak **gaizkilea** heriotzara daramanean. **Imanol Unzurrunzaga**

Gauza jakina da Sartine **gaizkile** maltzurak prestatzen zizkiola Luis XV.ari lizunkeria tresnak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Horrela, bitiko suaren izaera guztiz goresgarria da, zalantzarik gabe, noizbait **gaizkile** kondenatuen zigorra izango bada ere. **Imanol Unzurrunzaga**

Horra hor alproja hau, azkenengo **gaizkilearen** gisa tratatua, haien buruzagi izateko meritua egin nahi balitu bezala. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Gaizkileren** bat harrapatu izan balute. **Josu Zabaleta**

**Gaizkile** aberatsek negar berriz ere. **Xabier Olarra**

Guk laguntzen diegun **gaizkile** gazteetarik %30 bakarrik itzultzen dira gaizpidera; AEBetan, ordea, guztira %83 itzultzen dira. **Gotzon Garate**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Marie **gaizkile** talde baten biktima izan zela zen nonbait jendearen susmoa. **Koro Navarro**

Yonkers **gaizkile** -taldekoek hilda zegoelakoan utzi zuten parkeko jarleku batean. **Lopez de Arana**

Ai jende bekataria, gaiztakeriaz jositako herria, **gaizkile** -arraza, ume galduak! **Elizen arteko biblia**

**-Gaizkile** -familia! -bota zuen, bizkarra jiraturaz eta elizara itzuliz. **Koldo Biguri**

Galaad **gaizkile** -hiria da, odolez josia. **Elizen arteko biblia**

Bi-bien **gaizkile** -bihotz harrizkoak ez ziren erditik puskatu haur jaioberria Aldekaitz baserriko labean utzi zutenean. **Anjel Lertxundi**

**Gaizkile** itxurako tximaluze handi hark. **Jon Arretxe**

### • 3 izond egintza gaitzesgarrietan aritzen dena.

Piztia odoltzalea eta ikaragarria izateaz gain, perbertsitatez betetakoa da, inozentzia eta on-izatea gorrotatzen dituen izaki **gaizkilea**. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gazte **gaizkile** zentzagaitzentzako San Brutus segurtasun-zentrora. **Iñaki Mendiguren**

Bere bezero **gaizkilea** errudun dela jakinik hura defendatzen duen abokatua. **Xabier Olarra**

Aitoren seme eta handizki **gaizkileei** nobleziaren ikur zen sableaz jota lepo egiten zieten. **Felipe Juaristi**

Eta handik ekarria dut nire adiskide **gaizkile** handi bat, baimena ematen badidazue, oraintxe erakutsiko dizuedana. **Josu Zabaleta**

**-Gaizkileak** ! -egin zien garrasi, eta berriro itxi zuen leihoa. **Josu Zabaleta**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antolatutako gaizkile (3); baina gaizkile (5); berauei gaizkile (3); berauei gaizkile bat (3); beste gaizkile (6); beste gaizkile bat (3); bi gaizkile (3); da gaizkile (3); duen gaizkile (3); edo gaizkile (7); eta gaizkile (23)

gaizkile arrunt (7); gaizkile arruntak (3); gaizkile arruntek (3); gaizkile arrunten (5); gaizkile asko (3); gaizkile banda (3); gaizkile bat (21); gaizkile bat bezala (3); gaizkile bat desagertarazita (3); gaizkile bat harrapatu (4); gaizkile batek (4); gaizkile baten (11); gaizkile bihurtu (3); gaizkile bihurtzen (3); gaizkile edo (5); gaizkile elkarte (7); gaizkile elkarte bateko (5); gaizkile elkarte (3); gaizkile elkarteko (12); gaizkile elkarteko kide (11); gaizkile eta (12); gaizkile gisa (4); gaizkile guztiak (10); gaizkile haien (5); gaizkile hori (4); gaizkile horiek (5); gaizkile sare (3); gaizkile sare batzuen (3); gaizkile talde (22); gaizkile talde bat (5); gaizkile talde batek (5); gaizkile talde baten (4); gaizkile taldea (3); gaizkile taldeak (4); gaizkile taldearen (5); gaizkile taldeko (8); gaizkile taldeko kide (4)

gazte gaizkile (3); genien berauei gaizkile (3); izeneko gaizkile (3); nahi zuen gaizkile (3); nahiz gaizkile (3); nazioarteko gaizkile (3); nazioarteko gaizkile sare (3); ustezko gaizkile (4); ziezaleketen nazioarteko gaizkile (3); zuen gaizkile (6)

dituen gaizkilea (3); eta gaizkilea (7); eta gaizkileak (10); eta gaizkileek (4); eta gaizkileen (6); gaizkilea edo (3); gaizkilea eta (3); gaizkilea ez (5); gaizkilea izan (3); gaizkileak bagina (3); gaizkileak bagina bezala (3); gaizkileak balira (4); gaizkileak dira (3); gaizkileak eta (7); gaizkileak zigortzeko (5); gaizkileek ez (4); gaizkileen artean (4); gaizkileen aurkako (5); gaizkileen faktoria (4); gaizkileren bat (4); ziren gaizkileak (4)

## gaizkiletza iz gaizkileen jarduna. ik gaitzagintza.

Ustelkeria, **gaizkiletza** eta azpiegituren gaurkotzea dira erronkak, bere ustez. **Berria - Mundua**

Ludmila Fyodorovak kezka adierazi du, EBn sartzeak **gaizkiletza** handituko duelakoan. **Berria - Mundua**

**Gaizkiletzarako** bidera itzul dadin erruduna zigorra bete gabe libre uztea. **Xabier Olarra**

Fiskalitate **gaizkiletzako** ikerketetan espezializatutako Parisko Philippe Corroye epaileari Nouvelle Frontiere opor antolaketa enpresako buruzagi batek egindako salaketekin hasi da auzia. **Berria - Mundua**

## gaizkin iz/izond gaizkilea.

Interesgarria zen egokiera, baina baita atipikoa ere: aldez bakarrik zuen antza **gaizkina** epailearen aurrean gertatzen denekoarekin. **Juan Garzia**

Badirudi Amsterdameko karraketan ohoin edo pikaro talde bat dabilela, putez eta **gaizkinez** osatua. **Joan Mari Irigoien**

Zeina baitzen spiritu **gaizkinen gaizkina**, indiar haien sinesteen arabera. **Joan Mari Irigoien**  
Honetan, beldur naiz ez ote duzun usteko zientziaren elementu inpioetan abiatu eta **gaizkintza** bidean sartzen ari zarela. **Xabier Amuriza**

## gaizkinahi iz inorenganako nahi edo gogo okerra.

Mikel Strogoffek ez zuen uste Ivan Ogareff ordu arte gorrotatzen zuena baino gehiago gorrota zezakeenik, eta, hala ere, **gaizkinahizko** olatu bat igo zitzaion bihotzeraino. **Karlos Zabala**

Sugar hark gibebeko eritasun bat iragartzen zuen, haren **gaizkinahizko** jelosian inkubatzen ari zena. **Karlos Zabala**

## gaizkintza iz gaizkiletza.

Aitzitik, ordea, erlijioa bera da sarritan **gaizkintzak** eta inpioerriak eragin dituena. **Xabier Amuriza**

Honetan, beldur naiz ez ote duzun usteko zientziaren elementu inpioetan abiatu eta **gaizkintza** bidean sartzen ari zarela. **Xabier Amuriza**

Baina bizitza honetan **gaizkintza** larriei penen beldur larria dagokie. **Xabier Amuriza**

Erakutsi ahal izateko nire garunen kitzikadura anormalek eroan nautela **gaizkintza** politikora. **Koldo Izagirre**

## gaizkitu (ETCn 308 agerraldi), gaizki(tu), gaizkitzen 1 da/du ad alditxartu, gaixotu.

Eta gero behera joan ginen, abailetan, irristatuz eta murgilduz, eta, zorabioak hartuta, arrunt **gaizkitu** nintzen, mendi tontor handiren batetik behera ametsetan ereriko banintz bezala. **Koro Navarro**

Karlos Ohando **gaizkitu** egin zen amorruaren amorruz. **Koro Navarro**

Itsasartea gurutzatzeko bidaia laburrean, hainbestearaino **gaizkitu** zen Walden doktorea, non Doverra iritsi zirenean andetan atera behar izan baitzuten itsasontzitik. **Koro Navarro**

Kanpinean bat-batean **gaizkitu**, eta hona zitzuan ekartzera deliberatu ninduan, badaezpada ere. **Aingeru Epaltza**

Hauetakoren bat **gaizkitzen** bada, bakartegira joan eta etzan egiten da, eta inor ez da hartaz arduratzen, ez hil ondoren ez aurretik. **Patziku Perurena**

Baina hanka **gaizkitu** zitzaion gurditik erori ondoren. **Anton Garikano**

Alboko gelan, nire aitak, tumor batek zeharo **gaizkitua**, bere azken hilabeteak bizi zituen. **Juan Garzia**

Nik aurrena baiezkoa egin diot buruaz, ongi nengoela adierazteko; baina, egia esatera, ongi **gaizkitua** nengoan. **Patxi Zubizarreta**

Ez duk horregatik txorabiatzen, Lubis, erretzen dituen zigarro nazkante horiek **gaizkitzen** ditek. **Bernardo Atxaga**

Hilabete osoan horrela jardun beharko dudala pentsatze hutsak **gaizkitu** egiten nau. **Patxi Zubizarreta**

Pentsatu zuen ezen ez zuela zertan **gaizkitu** besteren besoetan zetzan emakume zirtzil batengatik. **Patxi Zubizarreta**

### 2 okerrera egin.

Maite duzun norbait etxean gaixorik utzi eta **gaizkitu** ote den bihozkada duzunean berriro hara itzultzeko behartzen zaituen premia atsekabetsu horixe sentitzen nuen.

**Josu Zabaleta**

Gerla horiek guztiek larriagotu eta **gaizkitu** baizik ez zituzten euskaldunen eta espainolen arteko gaizki hartzeak. **Piarres Xarriton**

Senditzen bainuen, txakurra eta gata bezala ariko ginela betiko erran-merranetan, eta hain segur gauzak **gaizkituz** joanen zirela, gasnarik jan gabe zutitu nintzen eta logelara joan. **Daniel Landart**

Jabea ez bada etxetik ateratzen, adibidez, zakurraren psikismoa **gaizkitu** liteke. **Gotzon Garate**

### • 3 du ad ipar gaizki erabili, erantzuki egin.

Eta hiru abiatu angles gorde zinituelakotz zure apezpikuak (Grente, kardinale izan beharrak) **gaizkitu** baitzintuen, ikusiko duzu zer ongietorria egingen dautzun. **Marzel Etxehandi**

Frantzian ere frantsesak **gaizkitu** ditut, espainolak higuintzen baitituzte soil-soilik espainolak direlakotz. **Piarres Xarriton**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta gaizkitu (5); eta gaizkitu (5); gaizkitu egin (4); gaizkitu egin (4); gaizkitu egin zen (3); gaizkitu egin zen (3); gaizkitu egiten (4); gaizkitu egiten (4); gaizkitu eta (4); gaizkitu eta (4); gaizkitu zen (4); gaizkitu zen (4); gaizkitzen ari (8); gaizkitzen ari da (4); gaizkitzen hasi (3); hutsak gaizkitu (3); hutsak gaizkitu (3)

## gaizkitze iz alditxartzea, gaixotzea.

Aloña, bere **gaizkitze** eta nekatze haiekin guztiekin, sekula ez zegoen aldarte egokian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bihotzaren hoztasun bat, hondoratze bat, **gaizkitze** bat zen hura: gogoaren goibeltasun irtenbide gabea, irudimenaren ezein ernegarrik bikaintasunaren aldera egin desbideratu zuena. **Koro Navarro**

### gaizkiulertu ik gaizki 25.

### gaizkiulertze ik gaizki 26.

## gaizkoadura iz gaizkoatzea.

Zeren, ote dakizu zenbat sufritu zuen anaiak, hark bere buruari egin zizkion zaurien **gaizkoaduraren** ondorez? **Joan Mari Irigoien**

## gaizkoatu, gaizkoa(tu), gaizkoatzen 1 da/du ad gaizkiagotu.

Sentitu nuen ametsgaiztozko zer bat zela, errealitatea **gaizkoatzen** eta usteltzen zuena. **Juan Garzia**

Heriotzaren eguneroko presentziak **gaizkoaturiko** eta aldi berean errusiar liberatzaileen hurbilketak aztoraturiko giro batean. **Juan Garzia**

Errotik **gaizkoatuak** daudelako faltsukeria maleziazkoak bilatzen. **Joan Mari Lekuona**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Beren barrenean bihotz-zimikoa sentitzen zuten... Egunak pasa ahala, amorrazioa eta lotsa handiagotzen zihoazkien, arimako zauri **gaizkoatu** bat balitz bezala. **Fernando Rey**

Zisternetako ur **gaizkoatuan** bertze batzuek eromena eta heriotza edan zuten. **Juan Garzia**

## gaizkoatzaile izond gaizkoatzen duena.

Eragin **gaizkoatzailea**. **Iñaki Mendiguren**

## gaizkondu, gaizkon, gaizkontzen da ad gaizkotu.

Zango-eri batean kolpatua, zauria **gaizkontzen** ari zait. **Marzel Etxehandi**

## gaizo 1 izond ipar errukarria. ik gaixo.

Ostatuko steward **gaizo** hiru aldiz bederen izan zitzaigun ikusten noiz hasiko ginen bada bazkaltzen. **Daniel Landart**

Tiresias da perpaus harrigarriaz gehien eta hobekien gogoratzen [...] horrelako gauzak ahoskatzeko ohitura handia zuelako, jendea zorionera bideratzeko ala tragediara desbideratzeko Oidipous **gaizo** nola. **Itxaro Borda**

Hik, **gaizo**, deus ez dakik amodio gauzetan...! **Janbattitt Dirassar**

Eta gose haiz **gaizo!** **Piarres Aintziart**

Ikusiz jende famatuak baizik ez direla han, ni horren erdian, lparraldeko **gaizo** bat... **Berria - Kultura**

### 2 (izenaren ezkerrean)

**Gaizo** mutikoa! **Daniel Landart**

Eta ni, **gaizo** zozoa, amorostu nintzela ene koinata alargundu berriaz! **Daniel Landart**

**Gaizo** mutikoak burua bat-batean inarosten du. **Eneko Bidegain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**du gaizoak** (3); **gaizo gizona** (5); **gaizo mutikoa** (3); **gaizo neska** (3); **gaizo raffarin** (3); **gaizo zozoa** (3); **gaizoak bere** (3); **neska gaizo** (3); **raffarin gaizoak** (3)

## gaizpentsu iz gogoeta txar.

Eta ez **gaizpentsurik** niri: laurogeitik goiti doan aita bera baitut nik ikazkin mixerable izandua! **Patziku Perurena**

## gaizpide (orobat gaizbide g.er.) iz galbidea.

Mundu honetako aberatsak etortzen zitzaizkienean, pozik eta bihotz onez hartzen zituzten, eta **gaizpidetik** urrutiratzera egiten zieten dei eta penitentziara erakartzen ahalegintzen ziren. **Askoren artean**

Arren eta arren egin nion profita zezala etxea bota beharrak ematen zion aukera, **gaizpidea** baizik ez zekarren eta inor ere -inortxo ere, gero!- barkatzen ez zuen hiritzar hartatik alde egiteko. **Juan Garzia**

Nola anai Konradok beste anaiei **gaizpide** ematen zien anaia gazte bat zentzarazi zuen eta nola jokaera aldarazi zion. **Askoren artean**

**Gaizpidetan** eta biziotan erortzea. **Piarres Xarriton**

Guk laguntzen diegun gaizkile gazteetarik %30 bakarrik itzultzen dira **gaizpidera**; AEBetan, ordea, guztira %83 itzultzen dira. **Gotzon Garate**

## **galaitsu** izond galaitasunez betea.

Jende txantxati eta **galaitsuz** inguratutik bizi zen. **Juan Garzia**

Aurrena lotsagorritu egin zen taula gainera igotzean; gero txera-imintzioz erantzuten zien hitz **galaitsuei**. **Juan Garzia**

Ilarrak aletzen baitzituzten zilarrezko plater batean, landetxeen sarrerako mosaiko **galaitsuen** aurrean. **Juan Garzia**

## **galaktiko 1** izond galaxiei dagokiena.

Bizitzeko egokia den eremu **galaktiko** bat idenifikatu dugu. **Berria - Gaiak**

Ama bazihoan baina umea semaforo batek geldiarazi du: izen **galaktikodun** patata eta txiski-miskien zorro koloretsuen deiak. **Pako Aristi**

### 2 (futbolean)

Real Madril **galaktikoa** da Liga irabazteko hautagai nagusia. **Berria - Kirola**

Lurtarrak mendean hartu ezin direnean, **galaktikoei** irabazi behar. **Berria - Kirola**

Carlos Queiroz portugaladarrek zuzendutako **galaktiko** koadrilari. **Berria - Kirola**

## **galania** iz oieskeria.

Baina okerrean Alfa Romeo hura zen, [...] haren iskanbila etxe artetik zitzuka, hiru minutu eskas ere ez zuen irauten lasaitasunak, tarteka eliza erromatar baten ezkila-joaldiak, eta berriro han ziren klaxonak, pneumatiko kirrinkarien galgatzea, loka-gunean egindako azelerazioak, zentzugabekeria, gaztetxoek **galania** hutsa, eta han zen berriro latorrizko durundi bera: bai, Alfa Romeo berbera zela zirudien, gau osoan barrena, itzulinguruka ibili zitzaiguna. **Joxe Austin Arrieta**

## **galaniatsu** izond galaiari dagokion eran.

Mahaian elkartu zirenetik afaria bukatu zuten arte, beharrezkoetan bakarrik arduratu zen Willem Noraz, beti ere guztiz **galaniatsu** (ura zerbitzatu, oso gutxi jaten zuela esan...), haren ardura osoa Mathilderengan jarria baitzegoen **Anjel Lertxundi**

## **galanki** adlag erruz, ederki.

Eta elurra ari zuen, esan bezala, **galanki**, zeru urdinetik mara-mara. **Joxe Austin Arrieta**

Poztu nintzen **galanki**, eskala egin genuenean. **Joxe Austin Arrieta**

Miserableak nobelako Cosette edo Rougon Maquartarrak, Marilynren aldean ontsa **galanki** bizi ziren. **Itxaro Borda**

"Faccioaren" alde agertutako guztien kontra, egurra banatu ditek **galanki**. **Txillardegi**

Buila eta ardaila **galanki** zebilen-eta tabernan. **Felipe Juaristi**

Lanordu estra **galanki** pagatuak. **Patziku Perurena**

Izardia **galanki** bota behar haiei irabazteko. **Gotzon Garate**

## **galanperna** iz perretxiko-mota baten izena (*Lepiota procera*).

Barraskiloa, **galanperna**, arratoia, itsas trikua, txerria, saguzarra (...) toki batzuetan onartu dira eta bestetan ez. **Edorta Agirre**

## **galant 1** izond itxura on edo ederrekoa; bikaina.

Berehala itsasoa zakartu egin zen eta handik mutil **galant** bat irten zen, ilargi betearen parekoa, bibote sarriekikoa eta masail gorriduna. **Patxi Zubizarreta**

Itxura ederreko emakume **galanta** zelako. **Ramon Saizarbitoria**

A zer emakume **galanta!** **Migel Angel Mintegi**

Haren esanetan, eder **galanta** da, baina zorrotzeziak omen ditu belarri-puntak. **Mirentxu Larrañaga**

### 2 handia, eskerga. (gauzei buruz)

Gasna xerra **galanta** irentsi nuen. **Itxaro Borda**

Zama-hegazkin errusiar **galant** bat ari da hurbiltzen lur hartzeko asmotan. **Xabier Olarra**

Zirri bartzuk egiteko, zirri **galantak**, baina zirriak besterik ez. **Karlos Zabala**

Esku-zarta **galantak** jotzen eta "Bravo! Bravo!" oihukatzen hasi zen. **Xabier Olarra**

Ostko **galanta** emanda bidali zuen handik kanpora. **Koldo Biguri**

Baina jipoi **galanta** ere jasan nuen batera. **Txillardegi**

Datari buruzkoan huts **galanta** dago, apirila dioen lekuan martxoa jarri beharko baitzukeen. **Edorta Jimenez**



Nahaste-borraste **galanta**. Joanes Urkixo  
Gezur **galantak**. Gotzon Garate  
Gezurra **galanta**! Jose Morales  
Beldur **galanta** pasatu dut. Koldo Biguri  
Baina bigarrengoan ezusteko **galanta** eman zenidan, Justo. Joxemari Urteaga  
Txalo zaparrada **galanta** entzun da. Txillardegi  
Istilu **galantean** sartu nauzu! Txillardegi  
Bere alabaren antza bai, orduan, **galanta**. Joxe Austin Arrieta  
Itsas orroa, **galanta**. Txillardegi  
Nabarmenkeria **galanta** omen da emakumea horrelako tresna baten gainean harat-honat ibiltzea! Gotzon Garate  
· **Galantean** sartu duk Dionisia! Unai Iturriaga

### 3 (izaki bizidunei buruz)

Esklabo abisiniar **galant** bat zetorren. Patxi Zubizarreta  
Ez baitze goen Badr baino hautagai ahaltsu eta **galantagorik**. Patxi Zubizarreta  
Bi gizon puska **galantekin** hasten da bera hizketan. Xabier Olarra  
Bakardadearen mamu **galanta** zegoen kizkurturik eta irentsi egin ninduen, zurp, urreburuak zizarea bezala. Hasier Etxeberria  
Hor, jakitegi horretan, badagoela gordea amuarra bat **galanta**. Koro Navarro

### 4 (irainetan)

Alproja **galantak** guztiak. Karlos Zabala  
Lapur **galanta**, Berlino. Bernardo Atxaga  
Gezurtero **galanta**! Patxi Zubizarreta  
Lapurtzulo dotore **galanta**, hi! Txillardegi  
-Putakume **galanta** zara, Iturbide. Migel Angel Mintegi  
Esker txarreko lotsagabe **galanta** zara zu... Iñaki Mendiguren  
Urde **galantak** zuek, mutilak! Antton Olano

### 5 (irainetan, izen mugatuaz)

Senarra alua **galanta** zela erantsi zion. Josu Zabaleta  
Alua **galanta**! Jon Muñoz  
Zentzapena gorrotatzen duena, inozoa **galanta**! Elizen arteko biblia  
Hik ere horretarako aukera eduki, eta egiten ez baduk, ergela **galanta**. Josu Zabaleta  
Majaderoa **galanta**! Kostako zaik gitarra-soinuz printzesa esnaraztea. Felipe Juaristi  
Zerria **galanta** hi, zerrikumea **galanta** ez etortzeagatik! Jose Morales

### • 6 (predikatu gisa)

Bi mutilak eder eta **galant**, jakintsu eta xarmant hazi ziren. Patxi Zubizarreta  
Aladin hain itxuraldatu, hain dotore eta **galant** ikustean. Patxi Zubizarreta

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alproja galanta (7); alua galanta (3); alukeria galanta (3); arduragabekeria galanta (3); astakeria galanta (3); asto galanta (3); bai galanta (4); beldur galanta (4); bero galanta (3); bidegabekeria galanta (4); borraste galanta (3); burugabekeria galanta (3); eder galant (7); eder galant hori (5); eder galanta (3); egia galanta (9); ergela galanta (3); ergelkeria galanta (7); erokeria galanta (4); eta galant (3); eta galanta (7); ezusteko galanta (13); ezusteko galanta eman (4); galant askoak (3); galant bat (8); galant eta (6); galant hori (12); zoaz eder galant (3)  
galanta behar (3); galanta bota (5); galanta da (39); galanta da hori (3); galanta dela (8); galanta duk (5); galanta egin (20); galanta egin zuen (4); galanta eginda (3); galanta egingo (5); galanta eman (22); galanta eman zion (5); galanta ere (5); galanta eta (8); galanta ez (3); galanta gainera (3); galanta haiz (3); galanta hartu (12); galanta hartu nuen (4); galanta hartu zuen (3); galanta hartuko (3); galanta hi (4); galanta iruditu (3); galanta iruditzen (4); galanta izan (24); galanta izan da (4); galanta izan zen (7); galanta izango (5); galanta izango litzateke (3); galanta jaso (4); galanta litzateke (9); galanta sortu (4); galanta zara (3); galanta zara zu (3); galanta zela (7); galanta zen (17)  
gezur galanta (9); gezur galanta da (4); gezur sorta galanta (3); gezurra galanta (3); gizatxar galanta (3); gizon galanta (4); huts galanta (7); jipoi galanta (6); kolpe galanta (4); mesede galanta (9); mesede galanta egin (3); mesede galanta egingo (3); mozkor galanta (3); muturreko galanta (3); nahaste borraste galanta (3); pila galanta (3); puta galanta (3); putakume galanta (7); sorta galanta (3); susto galanta (4); txalo zaparrada galanta (3); txorakeria galanta (10); txorakeria galanta da (3); ustekabe galanta (8); ustekabeko galanta (5); zalaparta galanta (3); zaparrada galanta (3); zentzugabekeria galanta (5); zerri galanta (3)  
alproja galantak (4); galantak dira (7); galantak egin (8); galantak ematen (3); galantak ere (5); puska galantak (3)

## galantasun iz galanta denaren nolakotasuna.

Beraz, haziaren baitan zeuden lehenik gauza hauek denak, ez gorputzeko multzoaren tamainan, bai, ordea, dohain eta ahalmen kausalez hornituta, oraingo **galantasun** hau hezetasunaren eta luraren emankortasunari esker garatu baita. Imanol Unzurrunzaga  
Etxean agintzen duenak erabakitzen eta aukeratzen duenean, **galantasunak** isilpean eteten ditu lokarriak, moral arruntari muzin eginez, honen jokabidea ondorioen kontra oihu egitea izaten delarik, zergatiel barkamena emanez. Juan Martin Elexpuru

## galapan adlag lauhazka.

Eta zaldia niregandik hamar urratsetara ikusirik, haren gainera jauzi egin eta **galapan** alde egin nuen handik. Josu Zabaleta  
Lepoa tinko, bere aurrean zuzen zuela, zihoan **galapan**, zelan trabes jarria zuen hildakoaren buruak zuhaitzak, haizak jotzen zituela. Josu Zabaleta  
Indiarren zaldi gainean **galapan** ibili naizenean. Patxi Zubizarreta  
Zamariarekin gero eta konfiantza handiagoa hartu, eta **galapan** abiatu naiz. Patxi Zubizarreta  
Bi zakur alsaziarr heldu dira aldatas behera **galapan**. Joseba Sarrionandia  
Pertsonak oso ederrak ziren, eta denek ziruditen egiteko asko zutela, denek gauza garrantzitsuren bat, denak presaka, denak **galapan**, nonbaitera arineketan, bultzaka, alde guztietarantz. Urtzi Urrutikoetxea

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta galapan (3)

## galarazi (ETCn 623 agerraldi), galaraz, galarazten 1 du ad galtzera behartu.

Izena ez aipatzeak izana **galaraziko** balio bezala. Imanol Zurutuza  
Nire goiz-beiletan loa **galarazten** didaten mamuen artean. Aingeru Epaltza  
Zernahi zela ere gertatutakoa, berriro gertatuko zitzaioela, eta erabat **galaraziko** ziola ikusmena. Xabier Olarra

Gaixoei konortea **galarazten** zaie kolpe batez. **Xabier Olarra**

Pazientzia **galarazteko** moduko moteltasunez. **Xabier Olarra**

**Burua galarazi** zion neskaren izena. **Bego Montorio**

Arimako bakea **galarazten** dute. **Joan Mari Lekuona**

Eta nola denek badakiten bizikletak **kiloak galarazten** dituela ihizkiak baino gehiago. **Herría**

## 2 (orobat **galerazi g.er**) eragotzi. ik **debekatu**.

**Galarazita** genuen institutu barruan erretzea. **Anjel Lertxundi**

Ametsak eta ilusioak **galarazten** dituen laborria. **Imanol Zurutuza**

Mukiak itxi egiten zizkiola birrikak arnasa **galarazteraino**. **Bernardo Atxaga**

**Galarazi** egiten du erlijioak hori edatea. **Xabier Aranburu**

Scheherazaderi kontakizunak bukatzea **galarazten** dion beldurra. **Imanol Zurutuza**

Han, polizia errukigaberen batek ontzira igotzea **galaraziko** zion indarrez. **Karlos Zabala**

Baina nagitasunak **galarazten** zion berarentzat interesa aspaldi galdua zuen gai bati berriz ere heltzea. **Koro Navarro**

Zein diren eragozpenak, hara iristea **galarazten** dutenak. **Joan Mari Lekuona**

Lotsa faltso batek **galarazten** dit berrito irakurtzea. **Monika Etxebarria**

Nahikoa lan bazutela Donostiarako bidea faxistei **galarazten**. **Inazio Mujika Iraola**

Tabernaria ez zen ausartzen Marrori sarrera **galaraztera**. **Juan Kruz Igerabide**

Nire hobe beharrak eraman zuen Zuzendari txit agurgarria niri walkmana **galaraztera**. **Anjel Lertxundi**

**Galarazi** nizu arbolako fruitua jan al duzu? **Esteban Antxustegi**

Bere semeari ilusioa **galarazteko**. **Anton Garikano**

la oharkabeen areagotu zitzaion min sor hura, min-arrasto bat baino ez zena, luzaro eserita egotea **galarazten** baitzion azkenerako. **Imanol Zurutuza**

Emakumeek eta gizonek kultur eta gizarte ekimenetan «askatasunez eta berdintasunez» parte hartzeko aukera **galarazten** edo zailtzen duten eragozpenez arduratu behar dute agintariak.

Bezperakoa baino itsaso zakarragoak ikuskatze lanak **galarazi** zituen atzo, Zierbenan. **Berría - Euskal Herria**

Eguraldiak, baina, **galarazi** egin zien bertara joatea. **Berría - Euskal Herria**

Erantzun bortitzen beldurrak GIBaren inguruan informazio bitlzea **galarazten** die emakume askori. **Berría - Gaiak**

Obulazioa **galarazten** duelako. **Luis Elberdin**

Transmisio sexualeko gaitzak eta hiesa **galarazteko** modurik onena da kondoia erabiltzea. **Luis Elberdin**

Erakunde publikoei dei egin zien, tortura eta tratu txarrak **galarazteko** neurriak har ditzaten. **Berría - Euskal Herria**

## 3 eragotzi, molestatu. (tradizioan dio aditza da adiera honetan)

-Barkatu, mesedez, **galarazi** bahaut -esan zuen-. **Anton Garikano**

Ez **galarazi**, jaten ari naizela! **Anton Garikano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko galarazi (3); ateratzea galarazi (3); aukera galarazi (4); bat galarazi (6); batek galarazi (3); berak galarazi (4); bidea galarazi (5); burua galarazi (4); da galarazi (3); denbora galarazi (3); die galarazi (3); du galarazi (6); egitea galarazi (20); egitea galarazi egin (4); ekitaldia galarazi (12); ematea galarazi (6); erabiltzea galarazi (3); eramatea galarazi (3); ere galarazi (9); ere galarazi egin (3); erretzea galarazi (5); ertzaintzak galarazi (6); ertzaintzak galarazi egin (5); eta galarazi (12); eta galarazi egiten (4); eta loa galarazi (3); eta zaharzteak galarazi (3); ez die galarazi (3); ez du galarazi (4); ez galarazi (8); ez zuen galarazi (5); galaraz dezake (4); galaraz dezan (3)

galarazi ahal (5); galarazi behar (12); galarazi die (3); galarazi diete (5); galarazi dio (9); galarazi diote (3); galarazi ditu (3); galarazi du (5); galarazi dute (6); galarazi edo (4); galarazi egin (59); galarazi egin behar (3); galarazi egin die (3); galarazi egin du (3); galarazi egin dute (3); galarazi egin zien (5); galarazi egin zion (7); galarazi egiten (13); galarazi egingo (7); galarazi egiten (36); galarazi egiten diete (3); galarazi egiten dio (3); galarazi egiten duela (3); galarazi egiten dute (5); galarazi ere (4); galarazi eta (16); galarazi ez (3); galarazi ezean (3); galarazi gabe (9); galarazi izan (6); galarazi nahi (37); galarazi nahi du (6); galarazi nahi dute (3); galarazi nahi izan (3); galarazi nahi zion (3); galarazi nahian (3); galarazi nizu (5); galarazi nizun arbolako (3); galarazi ondoren (5); galarazi zidan (7); galarazi zien (16); galarazi zieten (13); galarazi zion (35); galarazi zion atzo (3); galarazi ziotela (5); galarazi ziotela salatu (3); galarazi zituen (7); galarazi zituen (8); galarazi zituzten (4); galarazi zizkion (4); galarazi zuela (4); galarazi zuen (29); galarazi zuen ertzaintzak (4); galarazi zuten (10)

hartzea galarazi (8); hori galarazi (3); horiek galarazi (3); ikustea galarazi (3); indarrez galarazi (6); indarrez galarazi zuen (4); izatea galarazi (5); jainkoak galarazi (3); joatea galarazi (3); konortea galarazi (3); lehiatea galarazi (5); loa galarazi (11); loa galarazi ziotela (3); lortzea galarazi (3); nik galarazi (3); oreka galarazi (6); oro galarazi (3); otoitza galarazi (3); parte hartzea galarazi (5); sarrera galarazi (4); sartzea galarazi (10); tabakoa erretzea galarazi (3); zaharzteak galarazi (3); zaharzteak galarazi egiten (3); zentzua galarazi (3); zergatik galarazi (5); zion galarazi (3); zuen galarazi (6)

aditza ere galaraziko (4); egitea galaraziko (6); ekitaldia galaraziko (3); ere galaraziko (6); ere galaraziko lukeen (3); galaraziko al (3); galaraziko baliote (3); galaraziko dio (4); galaraziko du (6); galaraziko duela (6); galaraziko duela esan (3); galaraziko duen (3); galaraziko dutela (3); galaraziko lioke (3); galaraziko lukeen (3); galaraziko zion (5); galaraziko zuen (4); hartzea galaraziko (3)

bat galaraztea (3); ekitaldia galaraztea (5); erabat galarazita (3); ere galarazita (3); erretzea galarazita (4); erretzea galaraztea (6); erretzea galaraztea nagusien (3); eta galaraztea (3); galarazita dago (8); galarazita daude (3); galarazita zegoen (3); galaraztea da (5); galaraztea dela (4); galaraztea egotzi (3); galaraztea erabaki (5); galaraztea eta (3); galaraztea izan (3); galaraztea lortu (3); galaraztea nagusien (3); galaraztea nagusien esku (3); hartzea galaraztea (5); hori galaraztea (4); loa galaraztea (4); parte hartzea galaraztea (5)

batasunaren ekitaldia galarazteko (3); egitea galarazteko (5); ekitaldia galarazteko (17); ekitaldia galarazteko eskatu (3); erasoak galarazteko (3); erasoak galarazteko etxe (3); ere galarazteko (4); ez galarazteko (4); galarazteko asmoa (5); galarazteko eskaera (3); galarazteko eskatu (10); galarazteko eskatu dio (4); galarazteko eta (4); galarazteko etxe (3); galarazteko etxe zuriak (3); galarazteko gai (3); galarazteko neurri (3); galarazteko neurriak (8); hartzea galarazteko (10); hauek galarazteko (3); hori galarazteko (9); horiek galarazteko (3); irteera galarazteko (3); manifestazioa galarazteko (3); parte hartzea galarazteko (8); saltzea galarazteko (3); sartzea galarazteko (4); tortura galarazteko (4)

arreta galarazten (7); ateratzea galarazten (5); aukera galarazten (3); bakarrik galarazten (3); batek galarazten (6); bizimodu normala galarazten (3); bizitza galarazten (3); denbora galarazten (4); du galarazten (4); egitea galarazten (13); egitea galarazten du (3); ere galarazten (8); erretzea galarazten (3); eta galarazten (3); eta ilusioak galarazten (5); ez du galarazten (4); ez zion galarazten (6)

galarazten ari (8); galarazten baitu (4); galarazten baitzion (3); galarazten die (4); galarazten dien (3); galarazten diete (5); galarazten dieten (3); galarazten digu (9); galarazten dio (11); galarazten dion (7); galarazten dit (8); galarazten ditu (3); galarazten dizkit (3); galarazten du (39); galarazten duela (9); galarazten duen (15); galarazten duena (6); galarazten duenean (3); galarazten dute (12); galarazten dutela (4); galarazten duten (5); galarazten dutenak (5); galarazten ere (3); galarazten ez (10); galarazten saliatuko (3); galarazten zidan (5); galarazten zien (6); galarazten ziola (4); galarazten zion (13); galarazten zitoten (4); galarazten zuen (7); galarazten zuten (3)

garapena galarazten (3); guttiz galarazten (3); hartzea galarazten (7); hori galarazten (4); horiek galarazten (5); horrek galarazten (7); horrek galarazten dio (3); ikustea galarazten (6); ilusioak galarazten (5); izatea galarazten (4); loa galarazten (11); lotsak galarazten (3); normala galarazten (4); obulazioa galarazten (5); obulazioa galarazten du (3); oreka galarazten (3); sartzea galarazten (5); sortzea galarazten (4); zerk galarazten (6); zerk galarazten digu (3); zion galarazten (6)

## galarazle (orobat **galarazle**) izond galarazten duena.

Kausa, etiologia [...] beti edo gehienez da kausa eragozlea, zapuztaila, **galarazlea** eta ixilarazlea, hitzaren eta arrazoiketa garbiaren etsaia. **Iñaki Segurola**

Elkarte honetako bazkideak heriotzaren beldur ez direlako, horregatik egoten gara gustura hemen, hura baita lur honetan pozen **galarazlerik** handiena. **Josu Zabaleta**

Gurekin zegoen, orobat, eskolakide izan genuen Les James Txiki; Bob James zuen aita, herrixkako arratoi-harrapatzailea eta garatxo-**galarazlea**. **Mirentxu Larrañaga**

## galarazpen iz galaraztea.

Kirolariak Kirol Batzorde Gorenak dopin eragile gisa izendaturiko sustantzien **galarazpena** onartu zuten. **Berría - Kirola**

Jaun frantziarrek beste ezein dinastiatako inor ez hautatzeko hitza eman zuten, **galarazpen-** eta eskomikatze-zigorraren mendeen. **Iñaki Iñurrieta**

## galardoe iz merezimenduen ondoriozko ohorezko saria.

Armada bereko gudari ziren biak, **galardoe** beraren irrikan zeuden, Etsai beraren aurka ziharduten borrokan, baina Aureliano ez zuen hitz bat idatzi, itxurak itxura, Juani nagusitzeko xedera lerratua ez zenik. **Juan Garzia**

## galarren iz galerna.

**Galarrena** igarota, herrian Indalexio galdutzat jo zuten. **Edorta Jimenez**

## galarrots iz pl toberak.

Semantika ugaria eta sorburu iluna du tobera hitzak, baina hemen batez ere, ezkontzak aitzaki, **galarrots** edo zintzarrots gisara edota tobera-mustra modura herriak antolatzen zuen festagiari hartara mugatuko dizut. **Patziku Perurena**

## galartzu iz xingola.

Lutitzean, orpo batez jantziaren **galartzu** bat zapaldu zuen. **Lopez de Arana**

## galaxia 1 iz unibertsoan bakarturik dagoen izarren eta hauts kosmikoaren pilaketa.

**Galaxia** berriak sortzen ari da unibertso zaharra. **Berria - Gaiak**

Hubblek frogatu zuen unibertsoan badirela beste **galaxia** batzuk Esne Bideaz gain, gugandik eta gure **galaxiatik** oso urrun direnak. **Berria - Gaiak**

Gure **galaxiako** izarren inguruan biraka ari diren 130 planeta inguru. **Berria - Gaiak**

Lurretik 13.000 milioi argi urtera dauden **galaxiak**. **Berria - Gaiak**

**Galaxia** zaharrak baino askoz argi ultramore gehiago irradiatzen dute **galaxia** gazteek, gasetik izarrek sortzen ari direlako, etengabe. **Berria - Gaiak**

Big Banga gertatu zenean **galaxia** eliptikoak uste baino bizkorrago pilatu zirela frogatzen du aurkikuntza honek. **Berria - Gaiak**

Gure **galaxia** kiribilean. **Patxi Iturritegi**

**Galaxia** urrun mordo bat. **Txillardeggi**

### 2 irud/hed

007 agentea edo estralurtarrak ez dira inoiz hain bakartia, intimoa eta larrutua daukadan bihotz antzeko **galaxia** mehatxatu honen salbatzera etorriko. **Itxaro Borda**

Sofan jarrita, egunkaria magalean, soa telebistaren 634 marra horietakoren batean galduta, bere **galaxia** partikularrean. **Unai Iturriaga**

Euren jokoak lur honetakoa baino beste **galaxia** batekoa zirudien. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste galaxia** (4); **eta galaxia** (3); **galaxia berriak** (3); **galaxien argia** (3); **galaxien arteko** (3); **gure galaxia** (4); **sortutako galaxien** (3)

## galaziar izlag/iz Galaziakoa, Galaziari dagokiona; Galaziako herritarra.

**Galaziar** zentzugabeok, nork liluratu zaituzte? **Elizen arteko biblia**

## galbahe 1 iz aleak eta kidekoak bahetzeko bahe xedea.

Lehen zereal-garauak **galbahetik** pasatzen jardun du, gero afaria prestatzen. **Jon Arretxe**

Izbetako enborrak ilunak eta zaharrak ziren, teilatu askok **galbaheak** baino zulo gehiago zituzten. **Jose Morales**

Eta kapitainaren hitz haiek hitz handi batzuk bezala sartu ziren ene baitan, hain handiak, non ez baitzaizkit geroztik memoriaren eta endelegamenduaren saretik iragan, nola ura **galbahetik**. **Joan Mari Irigoien**

Oroimena **galbahearen** gisakoa dela diote, legarra atxikitzen duela gogoan, baina pasatzen uzten hondarra. **Imanol Zurutuza**

### 2 irud/hed

Atmosferako **galbahe** iragazleak igaro eta gero. Egia da denboraren **galbaheak** ez duela sarritan guk nahi genukeen bezain zehatz irazten. **Pello Zabala**

Arrazoiaren **galbahetik** pasatu gabeko iruzurra. **Anjel Lertxundi**

Artistak zalantzaren **galbahean** iragazten ditu bere arreta artistikoa bereganatu duten gorabeherak. **Anjel Lertxundi**

Irakurleok, jatorrizko hizkuntzarik ez dakigunean, itzultzailearen **galbahea** onartzen dugu. **Anjel Lertxundi**

Honezkerok, lehen **galbahe** gainditu du Ibarretxeren Planak. **Berria - Euskal Herria**

Kanporaketa saio bat jokatu da lehenengo, joaneko eta itzuliko partidekin, eta lehen **galbahe** hori pasatuta, 40 talderekin egingo du aurrera lehiaketak. **Berria - Kirola**

Errepidea gorantz hasten den unean iristen da txapeldunen eta tropelaren arteko **galbahea**. **Berria - Kirola**

Idazlearen **galbahe** etiko edo, nahi bada, autozentsuratik iragazita. **Karlos Linazasoro**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure Ama-lur ludi honetara iristeko, ordea, **galbahe-sare** edo aduana dezente pasa behar du. **Pello Zabala**

**Galbahe** -sare edo aduana iragazi eta, halere, energia hau bera ere asko da. **Pello Zabala**

Irakasleak ikasleari **galbahe** lana egiten lagundu behar dio. **Berria - Euskal Herria**

### 4 galbahea egin bahetu.

Azpirozek dezenteko **galbahea** egin zuen atzo. Ibilbide gorabeheratsuak **galbahe** handia egin zuen. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**galbahe bat** (6); **galbahe lana** (3); **galbahea gainditu** (3); **galbahea pasatu** (5); **galbaherik gabe** (3); **galbahetik pasatu** (6); **lehen galbahea** (6)

## galbaheketa iz galbahetzea.

Herri-ipiinetako pertsonaia berak dira Mogelenak ere, baina autoreak, ideologiaren galbahetik pasaturik, distira eta ospe berriz duindu ditu: **galbaheketa** horretan osatu nahi litzatekeen gizon euskaldun berriak behar ez dituen osagarriak kendu dira (alferkeria, zurruta, hizkera baldarra...), eta berriak erantsi (fedea, oreka, euskara garbia...). **Anjel Lertxundi**

# galbahetu

Goiztiriak hauts fin grisa **galbahetzen** zuen burdinazko hiri beltzaren gainera. **Lopez de Arana**

Kristal beltza zentzuen sinboloa da; gero arrazoa dator zentzuzkoa **galbahetzen** duena eta intelektu-produktua eskaintzen. **Joan Mari Lekuona**

Dohain hauetako bik zuzentzen dute gure eginkizuna: pietatearena, honek gizakia errukitsu bihurtzen baitu, eta jakintzarena, honek **galbahetzen** baitu zer den ongariena arimarentzat. **Joan Mari Lekuona**

## galbahetxo

iz galbahe txikia.

Lehenbiziko **galbahetxo** hori pasatu dutenetatik. **Pello Zabala**

## galbahetze

iz bahetzea.

Gogoeta egin zuten giza burmuinaren informazio-jasotze eta **galbahetze** prozesuei buruz. **Berria - Kultura**

## galbana

iz nagia, gogorik eza.

Hitz abstraktuak dira edota bigarren zentzu batean erabil daitezkeenak: iragana, andana, labana, buztana, **galbana** ... **Andoni Egaña**

## galbaniko

ik **galvaniko**.

## galbanizatu

ik **galvanizatu**.

## galbide

(ETCn 1.450 agerraldi) **1** iz galtzeko, hondatzeko bidea.

**Galbide** beldurgarriari. **Herria**

Ez da inor berarentzat soilik galtzen, besteen **galbide** eta galtzaile gara bidenabar. **Patziku Perurena**

Jakina baitzuten, urtetako eskarmentuagatik, ihes zoroa iheslarien **galbide** dela. **Felipe Juaristi**

Eskuineko eskua **galbide** bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti. **Elizen arteko biblia**

Ezagutzen dutena **galbide** gertatzen zaie. **Elizen arteko biblia**

Ez izan haien cupidarik, ez gurtu haien jainkorik, **galbide** gertatuko bailitzaizueke. **Elizen arteko biblia**

Zeren eta atsedena baita esklaboen **galbidea**. **Joan Mari Irigoien**

Konturatzan al zara onbidearen aldean **galbidea** hobesten duzula? **Patxi Zubizarreta**

Albany **galbidea** izan duk gizon on askorentzat. **Lopez de Arana**

Baina, guztiok dakigun bezala, Zuk Dakizunak Harry Potter txikiarengan aurkitu zuen **galbidea**. **Iñaki Mendiguren**

Anfinomo burumakur joan zen, **galbidea** zetorkiola jakinik. **Juan Kruz Igerabide**

2.000 urtean etengabe esan digute gorputza **galbidea** dela, tentazio, bekatu eta grina txarretarako bidea. **Luis Elberdin**

Loa bidali didazue, **galbidera** eramateko, bitartean lagunek ekintza gaiztoa egin zezaten. **Juan Kruz Igerabide**

Apurka-apurka **galbidera** lerratzen. **Oskar Arana**

lloba tolesgabea lizunkeriaren **galbidera** bultzatu zuena. **Karlos Zabala**

Esku hark **galbidetik** atera ninduela. **Joan Mari Irigoien**

Zeren nik ez bainuen anaia, bekatutik eta **galbidetik** salbatzeko asmotan, salatu. **Joan Mari Irigoien**

**Galbidetik** ikasbidea ateratzeko metodoa. **Berria - Kultura**

Gaur egun **galbidezkotzat** hartzen diren hainbat harreman. **Karlos Zabala**

Beren zilar eta urrez jainko-irudiak egin dituzte, beren buruaren **galbide**. **Elizen arteko biblia**

### 2 (esaeretan)

Horrek ez dau sekula amaituko; hamar lanbide eta hamaika **galbide** daukez-eta. **Koldo Zuazo**

### 3 (hitz elkartuetan)

**Galbide** -zulo batean xahutzeko? **Fernando Rey**

### 4 galbidean, galtzeko, hondatzeko bidean.

**Galbidean** erortzeko zorian bizi dira. **Joan Mari Lekuona**

Bizia **galbidean** jartzea. **Karlos Zabala**

Merkataritzak **galbidean** jartzen ditu ohitura garbiak. **Iñaki Iñurrieta**

Terrorismoa da, Bigarren Mundu Gerratik, mundu askea **galbidean** jartzen duen mehatxu handiena. **Berria - Mundua**

Larruzko dortokak igerilari indartsuak dira, baina horrek ez du galarazi egun espeziea **galbidean** egotea. **Berria - Gaiak**

Gaur egungo euskararen galduta edo **galbidean** dauden hitzak eta esapideak. **Koldo Zuazo**

Berria larri-larria eta inperioa **galbidean** ipintzeko modukoa bazen ere. **Karlos Zabala**

Ivan Ogareffek **galbidean** ikusi du bere burua. **Karlos Zabala**

Zure ikasle horrek irakaslearen ahaleginari erantzuten badio, laster duzu **galbidean**. **Juan Martin Elempuru / Bego Montorio**

**Galbidean** erratu "emazteki" baten biografia. **Itxaro Borda**

Engainabide guztiak erabiliko ditu **galbidean** daudenak hondatzeko. **Elizen arteko biblia**

Zuhurrekin ibiltzen dena zuhur bihurtzen da, zentzugabeekin elkartzen dena **galbidean** jartzen. **Elizen arteko biblia**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere galbidea (4); eta galbide (3); eta galbidean (5); eta galbidera (3); galbide bazaizu (3); galbide izan (3); galbidea ekarri (3); galbidea izan (4); galbidean jar (3); galbidean jarritz (3); galbidean jartzeko (3); galbidean jartzen (20); galbidean jartzen bazaitu (5); galbidean jartzen dutenak (3); galbidera eraman (6); galbidera eramango (8); galbidera eramateko (4); sinesmena galbidean (7); sinesmena galbidean jartzen (6)

## galbideratu

galbidera(tu), galbideratzen **1** da ad galbidera joan.

Harena ez da bizirako bidea, konturatu gabe **galbideratzen** da. **Elizen arteko biblia**



Eta apurka-apurka herri hori berori **galbideratuko** balitz ongi pribatua publikoa baino nahiago izateraino, eta gehien eskaintzen dionari botoa salduko balio. **Imanol Unzurrunzaga**

Ateratako araua da ezen, zenbat eta gehiago urritu egin litezkeen ezkontzen kopurua, gehiago **galbideratzen** direla egiten direnak. **Iñaki Iñurrieta**

## • 2 du ad galdibera eraman.

Grina txarrak jabea **galbideratzen** du, etsaien irrigarri bihurtzen. **Elizen arteko biblia**

1949ko udazkenean mutil gazteak harreman homosexualez **galbideratzen** ahalegindu izana leporatu zioten. **Josu Zabaleta**

Ez dut ezer bazter utziko neska **galbideratzeko**, barneraturik izan ditzakeen irizpide moral faltsu guztiak ateratzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Deabruak [...] lortzen du, bere tentazioen bidez, Eternoak bere-berea duen artaldea **galbideratzea**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Zibilizazio **galbideratuen** arnegatuak. **Iñaki Mendiguren**

Orduko ederki ezagutzen bainuen Deere jaunaren egarri **galbideratua** **Karlos Linazasoro**

## galbideratzaile izond galbideratzen duena.

Bizkarkin trakets harekek ekarri baitzuen mazzuchelitarren bihotzera bere iloba desorekatu eta **galbideratzailea**, zeinak, ondoren, trikimailuekin, lesbiana suhar madarikatu bat bihurtu baitzuen Nancy. **Oskar Arana**

## galbizardun iz gari bizarduna.

Beste gari-orratz batzuei, jaiio eta erne orduko antzemango zien, berriz, **galbizardunarenak** zirela, garilakarrenak, edo baita garagar eta oloarenak ere. **Pello Zabala**

## galburu 1 iz gariaren buruxka.

Eskuaz har ditzakezue **galburuak**, baina igitaiaz moztu ez. **Elizen arteko biblia**

Su beraren eraginez, urreak distira egiten du eta kea dario lastoari, trailu berak jotzen du **galburua** eta barreiatzen du lastoa. Azken gosetean, **galburuak** hustuta azaldu zirela, deabruak janda. **Imanol Unzurrunzaga**

Zazpi **galburu** mehar hauek irentsi egin zituzten aurreko zazpi **galburu** mardulak. **Elizen arteko biblia**

Alerik gabeko **galburuak** irinik ez, eta, izango balu ere, atzerritarrek irentsiko lukete. **Elizen arteko biblia**

Valladolideko zinema jaialdiaren Urrezko **Galburua**. **Berria - Kultura**

## 2 irud/hed

Gainetik bai tesera handiekin edo bai baldosak **galburu** moduan jarriz zolatuko da. **Santiago Iruretagoiena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste zazpi galburu** (5); **galburu mehar** (5); **galburu mehar hauek** (3); **galburu sortu** (4); **galburu sortu ziren** (3); **zazpi galburu** (18); **zazpi galburu mehar** (5); **zazpi galburu sortu** (4)

## galda (orobat kalda g.er.) 1 iz garra.

Mahaiko kandelaren **galdak** suge dantza geldian zirudien. **Iñaki Zabaleta**

Eta **galdazko** berogailu ttipi bat erakutsi zien. **Aurelia Arkotxa**

Ogeta pilotalekua kokorerraino betea eta zer **kalda**! **Herria**

Bazterrak, landa eta pentze, ezfitasun batean lo daude, baina lo emankor batean, gaurko hezetasun eta eguzki honen artean natura ari baita bere barneko **kalda** isilean udako uzten apailatzen. **Piarres Aintziart**

## 2 burdin gorria.

Errementariak, esaterako, jarrita hauspoari eragin, jarrita **galda** atera, jarrita mailuketan egin. **Patziku Perurena**

· Bi langileei fundizioan urtzen ari ziren **galda** gainera erori zitzairen eta horrek erredura larriak eragin zizkien gorputzean. **Berria - Ekonomia**

## 3 galdan (9 agerraldi, 8 liburutan; ETCn 18 agerraldi; kaldan 10 agerraldi, 3 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 45 agerraldi) gori-gori

Burua sukarrez **galdan** zeukaten. **Xabier Amuriza**

Bai bestak, bete betean ditugu Lekorne, labe beroan, gazteria sutan eta adinekoak ere doi bat **kaldan**. **Herria**

Azken egun hautan, herri guzía **kaldan** da, igandeko gertakaria gogoan. **Herria**

Bere suhartasunak kikildu egin ninduen, eta irudipena nuen hain zuzen ere nire geldotasunak jartzen zuela **galdan**. **Ramon Saizarbitoria**

## 4 galdatan (40 agerraldi, 30 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 174 agerraldi) galdan.

Orratzeko belaze bat zeharkatzen ariko balira bezala ibiltzen dira, [...] gogoia hila, **galdatan** jarritako burdinaren biharamuna. **Eider Rodriguez**

Ehun eta berrogeita hamar versta eguzki **galdatan**, amaiezina iruditu behar, ahalik lasterrena eginda ere! **Karlos Zabala**

30 gradu eguzki **galdatan**. **Berria - Kirola**

Berastegi guzía su **galdatan** utzi dute. **Patziku Perurena**

Eguzkiak bero **galdatan** zeukan lautada. **Juan Garzia**

Pikazaren gizonek ez sartzeko agindu zioten arren, bero- **galdatan** barneratu zen. **Lutxo Egia**

## 5 eguzki galda bero kiskalgarria.

Uztaileko eguzki kiskalgarria da nagusi kanpoan, Mediterraneoko eguzki **galda**, Italiako ferragostoa balitz bezala Kanpoan zutik, eguzki- **galda** kiskalgarri hartan. **Mikel Hernandez Abaitua**

Itzalgune zabalak eguzki **galdatik** babesteko. **Karlos Zabala**

Eguzki **galdaren** azpian itzalik ez zuen menditxo harrizu baten maldan. **Josu Zabaleta**

## 6 galda-galdatan

Beti lanean, sekula ez dira nekatzen, euritan dela, edo udan bazkal osteko eguzki **galda-galdatan**. **Josu Zabaleta**

## 7 su-galda lore

Bi su- **galda** lore sorten arteko hutsunera heldu ziren. **Anton Garikano**

Surtako ikatz txingarren antzeko su- **galda** loreek zaindua. **Anton Garikano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bero galdatan** (3); **eguzki galda** (5); **eguzki galdaren** (4); **eguzki galdaren azpian** (3); **eguzki galdatan** (28); **eta galda** (4); **ez eni galda** (3); **ez galda** (5); **galda baleza** (3); **galda gainera erori** (3); **galda lezake** (3); **galdaren azpian** (3); **su galda** (7); **su galda lore** (3)

**galdakaotar** izlag/iz Galdakaokoa, Galdakaori dagokiona; Galdakaoko herritarra. ik**galdakoztar**.

**Galdakaotarraren** aurkako partida. **Berria - Kirola**

Arkaitz Estiballes **galdakaotarra**. **Herria**

**galdaketa**<sup>1</sup> iz galdan jartzea. ik **galdapen**.

**Galdaketako** hondakinak tratatzeko ituna. **Berria - Euskal Herria**

**Galdaketa** eta autogintza uztartzeko moduak ikergai. **Berria - Ekonomia**

**Galdaketa** sektorea da egun Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin geldoen % 14ren sortzailea. **Berria - Euskal Herria**

**Galdaketa** enpresek eta Eusko Jauriaritzak. **Berria - Euskal Herria**

Dominontzako burdina Eraulgo kanoi famatuaren **galdaketaz** lortuko zelarik. **Txillardegi**

**2 galdan jarrikoa.**

Galdategian ziharduten beharrean, eta gainera jausi zitzaizen **galdaketa**. **Berria - Ekonomia**

galdaketa<sup>2</sup> ik **galdeketa**.

**galdakoztar** izlag/iz Galdakaokoa, Galdakaori dagokiona; Galdakaoko herritarra aldatzea. ik**galdakaotar**.

**Galdakoztarra** bertan entrenatzen da normalean, eta pilotalekuaren berezitasunak ondo ezagutzen ditu. **Berria - Kirola**

**galdapen** iz galdatzea. ik **galdaketa**<sup>1</sup>.

Erreferentzia horrekin edo besteren batzuekin, beti berriro berritatu da "katolikotasun" edo monoteismo **galdapen** hori gure mendean zehar. **Joxe Azurmendi**

**galdara** 1 iz pertza.

Brontzeko hiru **galdara** jarriko dira labearen gainean: bata ur beroarena, bestea ur epelarena eta hirugarrena ur hotzarena. **Santiago Iruretagoiena**

Estalkia kentzea **galdarari**. **Juan Garzia**

Gurpilez mugitzen ziren bi edo hiru kintaleko **galdara** xumetan, sutara jarririk zuzenean. **Juan Garzia**

**2 lurrin makinetan, berotze sistemetan eta kidekoetan, ura irakinarazten den ontzi itxia.**

Florida hoteleko ur beroaren **galdaran** granada batek leher egin du. **Edorta Jimenez**

Leherketa handi bat izan zen barruan; itxuraz beroketa **galdaretako** batean.

Berokuntzako **galdarak** mantentzeko lanetan. **Fernando Rey**

Gasezko **galdarak**. **Berria - Ekonomia**

**Galdara** presiopean ziharduen. **Juan Garzia**

Termosifoiaren **galdararen** ondoan. **Juan Garzia**

Pinu egurra erre eta erre ari ziren **galdarak**. **Karlos Zabala**

**Galdararen** gelara sartzeko eskatu omen zion Johnnek. **Xabier Montoia**

**3 (hitz elkartuetan)**

**Galdara** -gelara eraman gintuen, zeina kedarrez belzturik baitzegoen. **Juan Garzia**

**4 irud/hed**

Pietatearen eskua Mikelen hankarteko **galdara** geroz eta indar handiagoarekin berotzen ari zen. **Unai Iturriaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **galdara** (3); **galdara bat** (3)

**galdaragile** iz galdarak egiten dituen langilea.

Pozez zorutzen koinatu **galdaragileari** edo trenbideetako langileari oparotasunaren ikuskizuna eskaintzeaz. **Joseba Urteaga**

**galdaragintza** iz galdarak egiteko jarduera.

Seguruenik, **galdaragintza** bizkorra izango zen Brooklyn auzoan. **Iñaki Zabaleta**

Pieza handitzeak eta erreplikak Sarem **galdaragintza** lantegian egiten zituzten, Angelun. **Berria - Kultura**

Argizari galdua deiturikotik, **galdaragintzara**. **Berria - Kultura**

**galdarazi**, galdaraz, galdarazten du ad galdatzera behartu.

Goialdean burdina goriaren antzeko eguzkiak etxeak etengabe **galdarazten** ditu eta etxeetatik ibairaino, harrizko mailadietan behera, haize kiskalgarriak uhinetan bezala galarazten digu arnasa. **Gotzon Garate**

**galdarraztatu** izond ur irakinetan pasatua.

Hark gehien maite zuena pepinoak eta arrautza **galdarraztatuak** ziren. **Jose Morales**

Zakurra ez da aurrera egiten ausartzen, beldurra jasanezina egin zaio, behialako izu bat etorri zaio, katu **galdarraztatuak** ez du urik maite, zakurrak ere ez. **Isabel Arrigain**

## galdatu<sup>1</sup>, galdatu<sup>1</sup> (orobat kaldategi) iz burdina-eta ertze-lantegia.

Hiri hura izan zen errusiarrek Siberian sorturiko lehen industrigunea, eta kanpaien **galdategia** eta metalgintzako fabrika ederrak nabarmentzen ziren inguruetan. **Karlos**

**Zabala**

Safam **kaldategiko** labe nagusia geldirik dago joan den urtarrilaren hamarraz gerotik. **Herria**

**Galdategiko** langile batek. **Karlos Zabala**

**Galdategiek** eta autogintzaren alorreko enpresek. **Berria - Ekonomia**

**Galdategian** ziharduten beharrean, eta gainera jausi zitzaizen galdaketa. **Berria - Ekonomia**

**Kaldategiko** ekoizpen buruzagiak. **Herria**

## galdatu<sup>1</sup>, galdatu<sup>1</sup>, galdatu<sup>1</sup> du ad galdegin.

Ikusi duzue Bittor? **-galdatu** zuen Anitak. **Daniel Landart**

-Egun ez duzu laguntzailerik?, **galdatu** zion ene amak. **Janbattitt Dirassar**

Autotik jaistean Luixak **galdatu** zidan ganbara non nuen. **Janbattitt Dirassar**

Nik **galdaturik** esposatua zinenetz, "ba eta ez" ihardetsi zenuenean. **Janbattitt Dirassar**

Hala nola, Zizeronek bere buruari **galdatzen** ziolarik zer zen bada Res Publica edo Politika, honela ihardesten zuen: Est Igitur res publica, res populi. **Piarres Xarriton**

## 2 galdekatu.

Carlton Hotelera hurbildua nintzen, gure indarrak harrapatzen ari ziren faxistak **galdatzeko** zereginetan bainenbilen. **Edorta Jimenez**

## 3 (orobat galdatu g.er.) eskatu.

Amak **galdatu** zion Anitari kafesnea prepara zezan. **Daniel Landart**

Hamar aldiz bederen kontseilu **galdatua** nion anaiari. **Daniel Landart**

Ez genioan hainbeste **galdatzen** ! **Daniel Landart**

Ez **galda** amodioa deitzen duten horri ematen ahal duen baino gehiago! **Janbattitt Dirassar**

Hainbeste euriren ondotik, lurra, lohi bilakaturik zen eta saltsa hartan ziloaren egiteak, penaren gainera, nik uste nuen baino indar gehiago **galdatu** zidan. **Daniel Landart**

Berari muzin eginez, bera esnatuz, arreta **galdatu** eta azkenean lortuz. **Anton Garikano**

Eta mahatsondoek arta anitz **galdatzen**.. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ez dizu ele bat baizik **galdatzen**, eta zuk ukatzen diozu! **Jon Muñoz**

Beraz, nagoen bezala gelditzea baizik ez nuke **galdatuko**. Bihar arratseko zazpi orenetan nire etxean egon zaitezten fermuki dizut **galdatzen** Descartes, metodoak

**galdatzen** duen guzti-guztiaren zalantza sistematikotik hasita, sisteman aurreneko ziurtasuna den cogitora iristen da. **Jon Muñoz**

Ama, Marisantz, badoa lasterka Lakarri Bützanobira, hanko anai gazteari lagüngoia baten **galdatzera**, bena horrek ezin dü lagüntü. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**amak galdatu** (3); **baimenik galdatu** (4); **bat galdatu** (6); **berak galdatu** (3); **eta galdatu** (4); **fermuki galdatu** (3); **galdatu behar** (8); **galdatu bezala** (4); **galdatu dio** (13); **galdatu diogu** (3); **galdatu ditu** (4); **galdatu dizkio** (4); **galdatu dizu** (3); **galdatu dizue** (3); **galdatu du** (20); **galdatu dute** (12); **galdatu ere** (3); **galdatu eta** (8); **galdatu eta nik** (3); **galdatu gabe** (5); **galdatu gabe eta** (3); **galdatu nion** (7); **galdatu ondoan** (3); **galdatu zidan** (15); **galdatu zion** (24); **galdatu zuen** (12); **galdatu zuten** (3); **gehiago galdatu** (3); **kontseilu galdatu** (3); **xehetasunak galdatu** (3); **zuk galdatu** (5)

**bat galdatua** (3); **baten galdatzeko** (3); **egitea galdatua** (3); **emaitea galdatua** (4); **emaitea galdatua da** (3); **eta galdatua** (3); **ez galdaturik** (3); **galdatua da** (22); **galdatua dio** (4); **galdatua izan** (8); **galdatua izanen** (6); **galdatua zaie** (3); **galdatua zaiote** (4); **galdatua zauku** (4); **galdatua zen** (3); **galdatua zioten** (3); **galdatuko dute** (4); **guzier galdatua** (5); **guzier galdatua da** (4)

**arrenka galdatzen** (3); **bat galdatzen** (8); **bestarik galdatzen** (3); **dizut galdatzen** (3); **dut galdatzen** (7); **dute galdatzen** (3); **eta galdatzen** (5); **ez dut galdatzen** (6); **fermuki galdatzen** (4); **galdatzen baitu** (4); **galdatzen dauku** (3); **galdatzen die** (5); **galdatzen diete** (3); **galdatzen dio** (8); **galdatzen diote** (6); **galdatzen ditu** (4); **galdatzen dizut** (8); **galdatzen du** (27); **galdatzen duela** (3); **galdatzen duen** (6); **galdatzen dugu** (4); **galdatzen dute** (25); **galdatzen dute ere** (4); **galdatzen dutela** (4); **galdatzen duten** (3); **galdatzen dutenak** (3); **galdatzen zidan** (3); **galdatzen zuen** (5); **galdatzen zuten** (9); **hori galdatzen** (4); **soilik galdatzen** (3); **soilik galdatzen dizut** (3); **zer galdatzen** (4)

## galdatu<sup>2</sup>, galdatu<sup>2</sup>, galdatu<sup>2</sup> du ad galdan jarri.

Orduan ere txirula Araraten suminaz mintzo zen, baina haren ahotsak mendia eta haizak zutiarazten zituen, mendia eta haizak **galdatzen**. **Fernando Rey**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Erretinaren eta begiko nerbioaren sentsibilitatea, ordea, errotik suntsitu zituen altzairu **galdatuaren** beroak. **Karlos Zabala**

Jende horiek burdina **galdatuez** eginak daude! **Karlos Zabala**

## galdatzaile iz galdatzen duena.

Ihardetsi dutenen %40 aholku **galdatzaile** dira dela informatikaz eta teknologia berriez, dela administratzaile eta finantza sailetan. **Herria**

## galde (ETCn 2.235 agerraldi) 1 iz galdera.

Berriz **galde** bera egiten dizut haatik: G ala E? **Janbattitt Dirassar**

**Galde** bat eta bakarra: zu ez ote zara libre? **Itxaro Borda**

Neska gaztearen **galde** horiei ihardesteko partez, nihaur ere galdeka hasi nintzen. **Janbattitt Dirassar**

Elenak **galde** hori egin zidan kasik ahapeka. **Janbattitt Dirassar**

**Galde** asko egiten nihaur buruari eta **galde** horien puntan zer ihardespen ezar nezakeen ezin zilatuz aski harrapatua... **Janbattitt Dirassar**

Justiziak eta Askatasunak zenbait **galde** garrantzitsu eginarazten dizkigute gaurko munduan... **Piarres Xarriton**

Hau zen liburuko lehen **galdea**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Orenak egoten garela solasean, **galdeak** eta arrapostuak nihaurek ditut egiten. **Janbattitt Dirassar**

Amak holako zernahi **galde** egin zizkion eta ni loriatua amari esker ikasiz jakin nahiak nituen asko gauza. **Janbattitt Dirassar**

Azken **galde** bat nahi genioke hala ere egin geure buruari: zer ote den gure herriak bakean izateko eskatzen duen justizia? **Piarres Xarriton**

Neure gurasoen **galde** egiten dut: ama, aita... **Agurtzane Juanena**

Pierre Lafitte-k katiximako **galde** bat egin zautan, ez dakit zer kapitulutan, eta nik arrapostu: -Jauna, ez naiz ni hortik hasten... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Nik beti **galde** -ikurra jarri ohi diet antzekotasunari buruzko iritzi-miritziei. **Joxe Austin Arrieta**

Eta bere mandoari eraginez, ez zen gehiago **galde** -erantzunka gelditu. Dena **galde** hasi zitzaidan, zer lan nuen, bakarrik bizi nintzenetz eta holako... **Patxi Ezkiaga**

Bere kabuz jartzen dela erromesen ondoan, dena **galde** eta, bere bizia kondatuz. **Piarres Aintziart**

Gizon hura **galde** eta **galde** aritu zitzaigun, gutaz eta gure etxekoez: "Bizi al duzue oraindik aita? **Jose Antonio Mujika**

## 2 eskabidea.

Arrazoi bikoitz behar zenuen nau zuri solas labor baten **galdea** egitera. Jon Muñoz  
Baditu egun gutxi batzuk, adiskide xarmanta, zuk egin zenidala kontsolamendu eta kontseilu **galdea**: egungo egunean, nire txanda da; eta zuk niri egin zenidan galde berbera dagizut nik zuri. Jon Muñoz  
Konfiantza **galdea** aurkeztu dio osoko bilkurari Odon Elorzak. Berria - Euskal Herria  
Rabaneraren aurkako konfiantza **galdea** eta zentsura mozioa aurkezteko aukera.  
Eta laborariak **laguntza galdez**. Herria

### 3 galde egin<sup>1</sup>

-Noizkoa? **-galde** egin nion. Edorta Jimenez  
"Ashgrove?", **galde** egin nien nasan zebiltzan mutiko batzuei. Juan Garzia  
-Telesforo Monzon? **-galde** egin zidan, nortaz ari nintzen ziur zegoen arren. Edorta Jimenez  
Nora nindoan egin zidan **galde**. Jon Muñoz  
-Dena ondo? **-galde** egin nion atezaintzako mutilari. Edorta Jimenez  
**-Galde** egiozu orduan metrailatu gintuen hegazkinari! Edorta Jimenez  
Neure **galde** egiteko. Patziku Perurena  
Edozein huskeriari buruz **galde** egiten ikasi baduzu. Patziku Perurena  
Begiez egiten dit **galde**; nire oniritzia ematen diot, buruari eraginez. Monika Etxebarria  
Noiztik hemen? **galde** eginen balio norbaitek, betidanik, ihardetsiko lioke. Xabier Montoia  
Gizon bat etorri zen Agnès de Espinosaz **galde** egiten. Felipe Juaristi  
**Galde** egiezu nitaz zer pentsatzen duten, denek gizon jatorra naizela esango dizute. Juan Martin Elepuru / Bego Montorio

### 3a (egin ezabaturik)

–Orain arte bezalatsu? –nik **galde**. Txillardegia  
Ea zehazki zer ordu zuen, nik **galde**. Joxe Austin Arrieta  
–Aizu, ez zara, ba, kasualitatez –nik **galde**–, garai batean Zürichen estudiatzen egondako Joachim Hencke delako baten senitartekoa izango? Joxe Austin Arrieta  
Nik berriro **galde**: zer esan nahi duzu? Joxe Austin Arrieta  
Herbert esnatu egin zen maquis hitza entzun orduko, ezaguna baitzuen, eta niri **galde**: zer dio? Joxe Austin Arrieta  
Ea zertan ari nintzen pentsatzen denbora hartan guztian, neskak niri **galde**. Joxe Austin Arrieta  
Deere jauna zutik zegoen, eskuak sorbalda atzean ezkutaturik, **galde** eta **galde**, herraren suak hartuta... Karlos Linazasoro

### 4 -en galdea egin

Ezagun guztien **galdea** egin nuen eta, azkenik, "Funes kronometriko" harena. Juan Garzia  
Jaun batek egiten du hemen zure **galdea**. Txillardegia  
Baina are zehaztasun handiagoz eta interes bizi erakutsiz egin zuen lurjabe garrantzitsu guztien **galdea**. Jose Morales  
Obispoak ere barre egin zuen nire ateraldiarekin, eta izenaren **galdea** egin zion auzoari. Inazio Mujika Iraola  
Euskal prentsan, ohiko bihurtu dira azken urteotan udako narrazioak, halako moldez non falta direnean haien **galdea** egin ohi dute irakurle batzuek. Berria - Kultura

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ainitz galde (7); bada galde (4); baina galde (4); bat galde (7); batek galde (6); batek galde egin (4); bati galde (5); berak galde (24); berriro galde (4); beste galde (12); beti galde (8); beti galde bera (5); bi galde (7); buruari galde (4); da galde (8); den galde (8); dena galde (5); diot galde (5); dira galde (4); diren galde (5); don kijotek galde (5); du galde (4); dut galde (12); dute galde (6); duzu galde (6); egin galde (4); egin nion galde (5); egin dut galde (8); ere galde (12); eta galde (69); eta galde egin (13); eta galde egiten (8); eta galde gehiago (6)  
alferrik galtzea (45); bat galtzea (26); denbora alferrik galtzea (18); denbora galtzea (27); ere galtzea (14); eta galtzea (10); eta galtzea (64); galtzea baino (25); galtzea da (34); galtzea dela (10); galtzea ere (24); galtzea eta (27); galtzea ez (30); galtzea ez da (11); galtzea izan (12); galtzea izango (9); galtzea litzateke (12); galtzeak ez (11); galtzeak min (13); hori galtzea (10); maila galtzea (9); partida galtzea (13)

alferrik ez galtzeko (12); alferrik galtzeko (22); bat galtzeko (9); bizia galtzeko (13); burua galtzeko (13); denbora galtzeko (15); deus galtzeko (16); eta galtzeko (17); ez galtzeko (185); ezer galtzeko (14); galtzeko arrisku (18); galtzeko arriskua (59); galtzeko arriskuan (56); galtzeko aukera (13); galtzeko beldur (29); galtzeko beldurra (19); galtzeko beldurrez (22); galtzeko bidean (11); galtzeko deus (12); galtzeko eskatu (9); galtzeko eta (24); galtzeko ezer (9); galtzeko prest (16); galtzeko zorian (78); galtzeko zorian egon (9); konortea galtzeko (10); kordea galtzeko (9); kordea galtzeko zorian (9); maila galtzeko (17)

alferrik galtzen (122); alferrik galtzen ari (22); alferrik galtzen utzi (13); arima galtzen (9); artean galtzen (16); asko galtzen (41); asko galtzen ari (9); aukera galtzen (9); aukerarik galtzen (11); aurka galtzen (10); balioa galtzen (9); bat galtzen (67); beti galtzen (14); betiko galtzen (9); bidean galtzen (12); bistatik galtzen (13); bizia galtzen (28); burua galtzen (51); burua galtzen ari (11); da galtzen (30); dena galtzen (13); denbora alferrik galtzen (24); denbora galtzen (46); denbora galtzen ari (16); denborarik galtzen (12); dira galtzen (9); dirua galtzen (21); du galtzen (13); edo galtzen (15); ere galtzen (42); erraz galtzen (17); eta galtzen (55); ez da galtzen (14); ez du galtzen (11); ez galtzen (19); ezer galtzen (16); gaitasuna galtzen (12)

galtzen ahal (15); galtzen ari (356); galtzen ari da (55); galtzen ari dela (27); galtzen ari den (11); galtzen ari dira (29); galtzen ari direla (16); galtzen ari gara (13); galtzen ari zela (16); galtzen ari zen (41); galtzen ari ziren (15); galtzen bada (17); galtzen badu (48); galtzen badugu (25); galtzen badute (11); galtzen baitu (10); galtzen baitute (10); galtzen bazuen (9); galtzen da (100); galtzen dela (13); galtzen den (46); galtzen dena (13); galtzen denean (14); galtzen dira (40); galtzen diren (24); galtzen ditu (29); galtzen dituen (11); galtzen dituzte (19); galtzen du (163); galtzen duela (25); galtzen duen (39); galtzen duena (19); galtzen duenak (24); galtzen duenean (17); galtzen dugu (22); galtzen duguean (9); galtzen dut (12); galtzen dute (94); galtzen dutela (17); galtzen duten (22); galtzen duzu (16); galtzen eta (40); galtzen ez (52); galtzen hasi (58); galtzen hasi zen (19); galtzen hasia (18); galtzen hasita (13); galtzen hasten (10); galtzen joan (30); galtzen utzi (25); galtzen utziko (10); galtzen uzten (13); galtzen zen (37); galtzen ziren (26); galtzen zituen (10); galtzen zuela (9); galtzen zuen (54); galtzen zutela (9); galtzen zuten (25)

ez galtzera (9); gehiago galtzen (12); guztia galtzen (22); guztiak galtzen (14); hori galtzen (22); hori galtzen ari (10); indarra galtzen (48); indarra galtzen ari (12);



## galdu-gorde 1 iz garrantzia.

Gauza serioa delako eta ez delako serioa aldi berean, joko bat delako, baina batik bat jolas bat, solas bat (biak gauza bera dira etorkiz). **galdu**-gorde handiko jolas bat, errealitatearen [...] garaipen zeharokoa eta osotarokoa etengabe auzitan jartzen ari dena. **Iñaki Seguro**

## 2 galdu-gordean<sup>1</sup> (ETCn 31 agerraldi; orobat **galdugordean** ETCn 2 agerraldi) galtzeko zorian. ik **galzori 2**.

Negozia **galdugordean** zegoela eta hondoa jotzerat zihoala. **Joan Mari Irigoien**

Koroaren bila abiatu bezain fite geratu ginen bidean trabaturik eta gibelaturik, ez koroarik eta ez biktoria loriosik, esperantza guztiak pipizaturik eta geure biziak ere **galdugordean**. **Joan Mari Irigoien**

Beste batzuek, ordea, **galdugordean** bezala edukitzen dute beren emetasuna, eta askoz ere beranduago, [...] hasten dira luzatzen eta liraintzen, ia molde transparenteak hartzeraino. **Joxean Agirre**

**Galdugordean** zeukan hitzen bat mihiratu zaiolako berak ere uste ez zuela. **Andoni Egaña**

## 3 galdugordean<sup>2</sup> nora ezean.

Hegaztiak eta piztiak **galdugordean** aldentzen ziren, kirats bortitzari ihesi. **Xabier Amuriza**

Jakitun zen ez zela berezko ezintasuna eta sakonean bazekien **galdugordean** zebilen tigrea zela, eta eraso egiteko abagune egokia noiz etorriko zain zegoela. **Patxi Zubizarreta**

## galduezin izond ezin galduzkoa.

**Galduezina** da gainera, ez dagoelako berezko joerarik, ez beste tentaldirik norberaren eginbidea galaraz dezakeenik. **Joan Mari Lekuona**

Zinez dauka gorputz horrek ustelezintasunaren nolakotasun **galduezina**. **Imanol Unzurrunzaga**

## galdugordean ik **galdugorde 2**; **galdugorde 3**.

## galdukeria 1 iz pertsona galduari dagokion ekintza.

Turkoak [...] **galdukeria** honen oso zaleak dira, eta diote neska birjina oso gazte batek ederki asko ordeza dezakeela mutil gazte bat, eta han neskak oso nekez egiten dira emakume, froga honetatik pasatu baino lehen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nik beti esan izan dut kirola gizartearen ispilua dela, eta egungo gizartearen orain 30 urte baino astakeria eta **galdukeria** gehiago badago, ziklistak eta kirolariak [...] ere bide berean doaz. **Berria - Kirola**

Ez dituzte babesten **galdukeriaren** fruitu lotsagarriak: bide bazterretan lagatzen dira emaitza itsusi horiek, digestio baten ondorioak bailiran. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Galdukeria** hutsa da, munduan izan daitekeen gizon maltzur eta dongeena. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

**Galdukeriaren** hondoa jo dute. **Elizen arteko biblia**

Orduan, gogoak ematen dien guztia egitea zilegi baitzaie, **galdukeria** mota orotan murgildurik. "Irakurgai nazkagarriak, lizunzeria, birao eta **galdukeria** sorta kalifikaezinak", poliziaren esanetan. **Askoren artean**

Ingalaterran, ohituretan berebiziko askatasuna izanik, debekatuta zeudela **galdukeria**-susmorik apurrena zeukaten liburuak. **Josu Zabaleta**

## 2 galdukerian

Lamelak maitasunean eta jainkoagan sinesten zuen; horrek ez zion eragozten, hala ere, maiz mozkortzea eta **galdukerian** ibiltzea. **Josu Zabaleta**

Urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, **galdukerian** bizitz, ondasun guztiak jan. **Elizen arteko biblia**

**Galdukerian** bizi denak entzuten badu, ez du atsegin izaten eta mesprezatu egiten du. **Elizen arteko biblia**

Denak okertu dira, bat egin dute **galdukerian**. **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

egin dute **galdukerian** (3)

## galdur 1 iz gailurra.

Handik goiti, katagorriak bezala kasik, adarrez adar **galdurreraino**. **Patziku Perurena**

Etxe berriari estalia emandakoan ere lizar adaska paratzen zen **galdurrean**. **Patziku Perurena**

Ikuskizun libertigarria izanen dela dirudi zirko demokratiko honen **galdurrak**. **Patziku Perurena**

## 2 galdur festa etxeari teitatu ematen zaionean egiten den festa.

**Galdur** festako lizar adaskena. **Patziku Perurena**

· Hasia dela ematen baitu dagoeneko diktadoreen **galdurfesta**, Garzon buru dela. **Patziku Perurena**

## galduxe adlag galdu xamar.

Horra gizadiak **galduxe** duen eskola klasikorik zuhurrena. **Patziku Perurena**

Lirismo erotiko fin hura **galduxea** izanik [...]. **Patziku Perurena**

Euskal sena **galduxe** duenaren lagungarri. **Patziku Perurena**

Guk tamalez **galduxea** dugun senaz. **Joxerra Garzia**

Hiruzpalau urtez begibistatik **galduxe**, baina ez ahanztzia, berriz hasi zen ikusten. **Jose Angel Irigaray**

Rudolf maingua, 14ko gerran eskuarekin batera burua ere **galduxea** zuena. **Alberto Ladron Arana**

**Galduxea** nuen kordea kolpeen ondorioz eta biziak ere luze gabe eginen zidan eskapo. **Aingeru Epaltza**

## gale iz nahi bizia edo grinatsua.

Amodio izeneko hori ere ez da, honako, konparaburu txarra: eza, gabea eta gogoa, gura eta **galea**, ukanarekin eta edukitzearekin, "daukagunaren gogoa" izatera pasatzen da. **Iñaki Seguro**

Amodio eraikian ere, zure zale izango naiz, txit asko nahi dizut, baina ez naiz gaurago zure gura edo **gale**. [Iñaki Seguro](#)

Eta lizunkeriazko bizioa da eta deitzen da lizun gose edo **gale** izatea. [Piarres Xarriton](#)

Zeren jana eta edana gorputz barruan absorbatuak dira, eta, han toki jakinak betetzen dituztenez gero, aisa asetzen da ur edo ogi **galea**. [Xabier Amuriza](#)

**Galea** ere galdua dugu aspaldi horrena. [Juan Garzia](#)

Arimako lau pasio mota nagusi badirela: **gale** joerako bi, erran nahi da, bozkariora eta tristura, eta jauskor joerako beste bi, erran nahi da, itxaropena eta beldurra. [Piarres Xarriton](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**edo gale** (3)

**galegismo** (corpusean **gailegismo** soilik) iz Galiziar nortasunaren aldeko higikunde politikoa.

**Galegismo** kulturalistaren eskolako kideztat jotzen dute Xocas. [Berria - Kultura](#)

**galegista** (orobat **gailegista**) izond galegismoaren aldekoa.

Militar matxinoek hil zuten, Alderdi **Galegista**ko dozenaka buruzagi bezala. [Berria - Mundua](#)

Denok sentimendu **galegista** edota nazionalista dugu, baina gutako inor ez dago BNGri lotua. [Berria - Mundua](#)

Gerra ostean, **galegista** militante izaki, Francoren Gobernuaren errepresioa nozitzea egokitu zitzaion behin baino gehiagotan. [Berria - Kultura](#)

Ez dira BNGko militanteak, ingurune **galegista** -nazionalistan egon arren. [Berria - Mundua](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi galegista**ko (5); **pg alderdi galegista**ko (3)

**galego** (136 agerraldi, 22 liburu eta 46 artikulutan; ETCn 1.685 agerraldi; orobat **gailego** 24 agerraldi, 11 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 179 agerraldi) 1 iz Galiziako hiritarra. ik **gallego**.

**Galegoa** dun, Granadara ezkondua, bertako emakume batekin. [Joan Mari Irigoien](#)

Trenbidean lan egiten zuen **gailego** baten semea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Nonbait irakurri dut **gailego** jendea mistikoa dela edo (eta) idorra. [Piarres Aintziart](#)

2 Galiziako hizkuntza. ik **galiziera**.

Erantzunak beti **galegoz** emango dizkiot. [Berria - Kultura](#)

Euskarak, katalanak eta **galegoak** gure artean merezi duten tokia aldarrikatzeko. [Berria - Kultura](#)

Horietatik 49 lan katalanezkoak dira, 181 gaztelaniazkoak, 8 euskarazkoak eta 12 **gailegozkoak**. [Berria - Kultura](#)

• 3 izond Galiziakoa.

Idazle **gailegoek** zein zuhaitz duten kuttun, huraxe landatzen diete euren jaioterrian. [Berria - Kultura](#)

Ama oldartu egin zitzaidan nire neskalaguna **galegoa** zela jakin zuenean. [Iban Zaldua](#)

Gero, katedrala ingurura heldu aitzin (ez adiorik bat igortzeko elizari) liburu azoka batean gertatu naiz, liburu **gailegoen** azoka. [Piarres Aintziart](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bloque nacionalista galego** (7); **bloque nacionalista galegoko** (3); **bloque nacionalista galegoko** (3); **eta galego** (3); **eta galegoa** (5); **eta galegoak** (3); **galego alderdiko** (3); **galegoa eta** (5); **katalana eta galegoa** (5); **letra galegoen** (3); **nacionalista galego** (7); **nacionalista galegoko** (3); **nacionalista galegoko** (3)

**galena** iz belun sulfuroa.

Jende apalak mendebaldeko belarra esaten diola, eta nobleek **galena**, eta beste izen batzuk ere badituela hizkuntza landuagoetan. [Agustin Otsoa](#)

**galeoi** iz 1 gutxienez hiru masta zituen itsasontzi mota, garraioan eta gerran erabiltzen zena.

Zazpi **galeoi** dotore haiek porturatu zitzaizkigun. [Joan Mari Irigoien](#)

**Galeoiaren** brankan, lema eskuan, emakume bat zegoen. [Felipe Juaristi](#)

Gure **galeoiko** kapitainak bandera zuria mastaratzen zuela. [Joan Mari Irigoien](#)

14 **galeoi** eta ontzi handi, Diego Flores Valdeskoaren agindupean. [Edorta Jimenez](#)

Gaztelako bandera zeraman hiru mastako **galeoia**. [Felipe Juaristi](#)

Zeren eta, **galeoien** hornitzeko, batzuek garbantzu, lenteja edo indaba zakuak garraiatzen baitzituzten. [Joan Mari Irigoien](#)

Piano ere baitzen, eta mitxoleta-landan barrena lauhazka zebilen zaldi, ekaitz erdian oihalak zabalik zihoan **galeoi**. [Felipe Juaristi](#)

Frantsesaren kanoikada batek jo zuen **galeoia** handik pixka batera. [Felipe Juaristi](#)

Ez dute garai bateko **galeoietan** Europara zekarten urrea eta zilarra bilatzen; egungo piratek itsas hondoko mikroorganismoak nahi dituzte. [Berria - Gaiak](#)

2 (hitz elkartuean)

Eta handik Mundu Berrirantz, **galeoi** -flota batean. [Joan Mari Irigoien](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta galeoi** (3); **galeoi bat** (6); **galeoi batean** (4); **galeoi espainiar** (4); **galeoi flota** (3); **galeoiko hainbat** (3)galeoiko hainbat (3); **hamar galeoi** (4); **zazpi galeoi** (3)

**galeote** iz galerianoa.

Musikaren **galeote**, musikaren esklabo, doinua nagusi eta jotzailea morroi bihurturik. [Felipe Juaristi](#)

**galeper** 1 iz faisaiaren familiako hegaztia, eperra baino txikiagoa, sukaldaritzan oso aintzat hartua(Coturnix coturnix).

Sasoi honetan ez zen nahi **galeperrik** auzoan. [Pello Zabala](#)

Eta mahai gainean, elkarren ondoz ondo, zilarrezko orratz batek loturik, dozena erdi **galeper**, beren usain gozagarria airean zabaltzen ari. [Josu Zabaleta](#)

Egun eta gau osoa eta bihamar osoa eman zuen herriak **galeperrak** biltzen **Elizen arteko biblia**

## 2 (hitz elkartuetan)

Ahora eramatear zen **galeper** hego ondo koipetsu eta ondo usaintsu bat. **Josu Zabaleta**

**Galeper** txitxiburduntzien zale amorratua zen. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **galeperrak** (3)

## galera<sup>1</sup> 1 iz galtzea.

Baina hori galdu egin dugu, **galera** bat dago hor. **Berria - Kultura**

**Galera**, zapuzte eta etsi-behar baten umeak gara. **Iñaki Seguro**

EBko arrantza politika, hein handi batean, Afrikako basa animalien **galerearen** erantzule dela esan dute Afrikako fauna basatia ikertzen duten biologoek. **Berria - Gaiak**

Euskararen **galera**. **Berria - Euskal Herria**

Foruen **galera** haragian sufritu zuen aberrizale haietakoa, foruzale amorratua. **Berria - Kultura**

Gizakiaren jaiotzara, paradisuaren **galerala**, Adanen mitora egingo dute itzulia Goazekoek. **Berria - Kultura**

Aseguru etxeak ez du alabaren **galera** ordainduko. **Berria - Euskal Herria**

Gizon lodi atsegina zen, gerraren irabaziak baino bakearen **galerak** nahiago zituen. **Felipe Juaristi**

Irabaziak eta **galera** izan behar dira kontuan proiektua bideragarria den ikusteko. **Berria - Euskal Herria**

Itsas ibilaldi honek kalte eta **galera** handiak ekarriko ditu. **Elizen arteko biblia**

Zaharragoa eta jakintsuagoa baina ez hartatik hobea, ispilura begiratu zuen aurkikuntza eta **galera** hark aurpegian arrastorik utzi ote zion ikusteko. **Koro Navarro**

Ematen zuen ez zela gai ezeren **galera**z jabetzeko: ez bere baitako funtzioaren baten, ez gauza baten, ez pertsona baten **galera**z. **Xabier Olarra**

Meningitisa, funtsean, nerbio sisteman dauden defentsen **galera** da. **Berria - Euskal Herria**

Oinarrizko giza balioen **galerearen** inguruan mamiturik dago poemarioa. **Berria - Kultura**

Baina, lobulu frontalen **galera** eta amnesia eragindako axalekotasunaren gainetik, ba ote zen Greg sakonagoko bat gaixotasunaren aspian? **Xabier Olarra**

Puxkanaka, txoko honetan hizkuntza eta nortasuna galtzen ari dela, gure gain hartu nahi izan dugu egun horren antolakuntza, ahal den bezainbat **galera** tipitzeko. **Berria - Kultura**

Ez dut uste haserrea edo jeloskortasuna zenik, areago zen **galera** baten zimikoa. **Mirentxu Larrañaga**

Uholdeek eragindako **galera**z zehazteko. **Berria - Euskal Herria**

Lanaldiaren murrizketak lan-kostuen areagotzea ekar baitezake, baina ez, nahitaez, lehiakortasunaren **galera**. **Iñaki Heras**

## 2 (ekonomiaren ingurukoak)

Unerik latzena 2001ean bizi izan zuen, **galera** 45.208 eurokoa baitzen. **Berria - Euskal Herria**

250 hildako eta 2,4 bilioi dolarreko **galera**z eragin zituen duela zazpi urte pairatu zuten Winnie tifoia. **Berria - Mundua**

Gizarte Segurantzaren **galera**z kitatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Meteorologoek iragarri dutenez, 15-17 milioi herritarrek **galera**z izango dituzte. **Berria - Mundua**

%40ko **galera**z diru laguntzak jasotzeko eskubidea emango lukete? **Berria - Ekonomia**

New Yorkeko burtsan ere **galera**z nagusitu ziren hasieratik. **Berria - Ekonomia**

Mitsubishi Tokyok UFJren **galera**z ordainduko ditu. **Berria - Ekonomia**

Ibex-35eko akzio guztiek izan zituzten **galera**z. **Berria - Ekonomia**

Bezperan Wall Streeten izandako **galera**z segika hasi ziren indizeak. **Berria - Ekonomia**

Erostea ahalmenaren **galera**z 2.000 eta 3.000 euro artekoa azken bi urteotan. **Berria - Ekonomia**

Argazki kamera arrunten salmentaren beherakadak eragin dizkion **galera**z aurre egin ahal izateko. **Berria - Ekonomia**

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Oxigenoa eta elikagaiak **galera**z handirik gabe igarotzen dira airetik odolera. **Irene Aldasoro**

Laudiok eta Amurriok biztanleak galdu dituzte 1996. urteaz geroztik, baina **galera**z txikia izan da. hil izan balute, **galera**z ikaragarria gertatuko zen. **Berria - Euskal Herria**

**Galera**z izugarria jasan zuten erasotzaileek, eta gelditu egin behar izan zuten. **Juan Kruz Igerabide**

Gure belaunaldiak **galera**z neurgaitzak ikusi ditu. **Joseba Zulaika**

Manex Goihenetxe galtzea mingarri zaigu, jakina, baina **galera**z eramangarriago egiten digu jakiteak berak utzitako lanak eta eraikitakoak gurean bizirik dirauela. **Berria - Kultura**

Jasser Arafaten heriotza **galera**z handia dela esan du Tahboub diputatuak. **Berria - Mundua**

Historiako [...] **galera**z, sarraski, garbiketa edo hondamendi lazgarrienez mintzatzeko. **Iñaki Seguro**

**Galera**z sentorial-neuralen ondorio sotilak anatomikoki adierazteko. **Xabier Olarra**

Haurtzaroko paradisuaren eta aitaren bat-bateko **galera**z. **Xabier Olarra**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Galera**z sentimendu hori hainbat poematan agertzen zaigu. **Berria - Kultura**

Istripu ondoko **galera**z-sentsazioa, kolorea ikusi ezinik gelditzen den beste edonori gertatuko litzaiokeen bezala, jasangaitz zitzaion Jonathan I.ri. **Xabier Olarra**

Erbesteratze- eta **galera**z-sentipenek eta oriminak mundu mota bat, berak galdutako benetako munduaren ordeko bat eskatzen bazuen ere, [...]. **Xabier Olarra**

**Galera**z kontu horiek denak gezurrak dira. **Iñaki Seguro**

Beraz, **galera**z-banaketa bat izango da merkataritza frantsesaren eta holandarraren artean. **Iñaki Iñurrieta**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hondamendi naturalek giza **galera**z handiagoak eragiten dituzte herrialde pobreetan herrialde aberatsetan baino.

Entzumen-**galera**z partziala. **Irene Aldasoro**

Odol-**galera**z geratzen zitzaionean, gorputz osoa puzten zitzaion. **Askoren artean**

Baina konfiantza **galera**z etorri zen bat-batean. **Iñaki Heras**

Emakume heldu batek gizon gazte batengandik duintasun **galera**z gabe har zezakeena. **Anton Garikano**

Inolako hobekuntzarik gabe egin zen hobekuntza izan zen, eskumen eta burujabetza **galera**z ekarri zuen. **Berria - Euskal Herria**

Askoz larriagoa da ur izoztuan murgilduriko gorputz baten bero-**galera**z. **Irene Aldasoro**

Mineral-**galera**z nabarmena izan zuten hezurretan. **Irene Aldasoro**

Azken hiru urtetako lanpostu **galera**z ondorioz. **Berria - Mundua**

Bi arrazoi nagusik eragin zuten boto **galera**z. **Berria - Mundua**

Orain arteko diru **galera**z metatzea gelditzea eta orekatzea izan da aurtengo lorpenik garrantzitsuenetarikoa. **Berria - Euskal Herria**

1.000 milioi dolarreko diru **galera**z eragingo ditu. **Berria - Mundua**

Diru-**galera**z handiak. **Berria - Ekonomia**







Egundoko **galernak** jo omen zuten Kantauriko itsas-bazterrean. Pello Zabala  
Itsasoa olliotu egiten denean bezalako isiltasun hori plazan, **galerna** zeterren. Koldo Izagirre  
16 txalupa hondoratu omen zituen **galerna** zorigaiztoko hark. Pello Zabala

## 2 irud/hed

Ereboluzioneko **kalerna** gaixto hori iragan zenean, aita Zarrote itzuli zen bakarrik Hazparnerat. Xipri Arbelbide

## 3 (hitz elkartuetan)

**Kalerna** gau batez. Ramuntxo Etxeberri

**Galerna-hotsak** ere, enbata-zantzuak zabaldu ohi dira batzuetan. Pello Zabala

**Galerna** aurreko goibelduran. Koldo Izagirre

Jondoni Joaneko belarrak ere [...] bildu dira gau hortan, gero etxe- sartze gainetan ezartzeko edo **kalerna** egunetan erretzeko. Herría

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **galerna** (6)

## galernatsu 1 izond galernez betea.

Bat-batean Calgrac'h bahia **galernatsutik** norbait zanpa-zanpa ateratzen begiztatu nuen. Itxaro Borda

## 2 irud/hed

Zirta misteriotsua zeru sakonaren bihotz **galernatsuan** desagertu zen. Itxaro Borda

Lorian nengoen ni, ordea, edertasun **galernatsu** hura miresteko horrenbeste aukera nituelako, guretzat antolatua ematen zuen ginezeo hartan. Joxan Elozegi

Bekain beltz joriek bi zeru **galernatsu** babesten dituzte. Eider Rodríguez

Norberaren idatziriko balizko suntsiketa itsaso **galernatsu** bilakatzen ziren malkoak. Itxaro Borda

## gales izlag/iz 1 galestarra.

Nazionalista **gales** independentziazalea. Koro Navarro

'Yr Herald' astekari **galesa** ixteko zorian du Mirror talde ingelesak. Berria - Mundua

Roberts jauna, alai, fama txarreko gizon heldua, aseguru konpainia bateko diru kobratzailea zen; lankideek hilobi profanatzaile esaten zioten, eta "Burke eta Hare, **gales** nazionalista", deitzen zioten adiskideek. Koro Navarro

## 2 galesera.

Geografia, ingelesa eta frantsesa kontuan hartuko zidatela esan zidaten, ez, ordea, **galesa**. Berria - Mundua

Ikea enpresa handiak **galesa** erabiltzea bultzada handia da hizkuntzarentzat. Berria - Mundua

**Galesez** hizketan entzun nuen. Koro Navarro

**Galesez** madarikatzen zuen behorra. Koro Navarro

Irlandesezko eta **galesezko** egunkariak. Berria - Euskal Herria

**Galesezko** telebista eta irratia. Berria - Mundua

Gales **hutsean** idatziriko agerkeririk zaharrena. Berria - Mundua

Hizkuntza eskubideak zaintzen dituen **Galesaren** Batzordeko buru John Walter Jonesek. Berria - Mundua

## 3 (hitz elkartuetan)

Gaur egun, herritarren %20 bakarrik da **gales** hiztuna. Berria - Mundua

Alderdi Laboristaren zati handi bat beti egon da **gales** hizkuntzaren eta autogobernuaren aurka. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **galesaren** (4); **gales hizkuntzaren** (11); **galesaren aldeko** (5)

## galesdun iz gales hiztuna.

**Galesdunak** diskriminatzea egotzi diote Ingalaterrako Unibertsitateari. Berria - Mundua

Legearen helburua **galesdunen** ehunekoa %5 areagotzea zen 2010erako. Berria - Mundua

**Galesdunen** kopurua %20 ingurutik %30era belaunaldi batean handitzea zen legearen asmoa. Berria - Mundua

Tomos Dafydd eta Cemyln Davies 17 urteko ikasle **galesdunei**. Berria - Mundua

**Galesdun** talde batek Linux sistema librearen galeserako itzulpena bukatzeaz zuelako. Berria - Mundua

## galesera iz galesko hizkuntza zeltikoa. ik gales 2.

**Galesera** biziaren dagoen lekuetan. Berria - Mundua

Abestalde zerutiarrek, bardoz jantzita eta latorrizko botoiekin txalekoekin, **galesera** bitxi batez abesten zieten marinelei. Koro Navarro

Hizlari trebea **galeseraz** zein ingelesez. Berria - Mundua

Egun derrigorrezkoa da **galesaren** irakaskuntza 16 urte arte. Berria - Mundua

## galeseradun izond galesduna.

Herri **galeseradunak**. Berria - Mundua

## galestar izlag/iz Galeskoa, Galesi dagokiona; Galesko herritarra. ik gales.

**Galestar** paisaje ia mitikoen orde. Koro Navarro

Poema haiek [...] gehiago zor zioten **galestar** jatorriari bere garaiko poesia sozialaren aldeko gustuari baino. Koro Navarro

Gurasoen Lurra, **galestar** izaeraren ikerketa alderdi guztietatik egina. Koro Navarro

Eskoziarrak, **galestarrek** eta ipar irlandarrak beti kexu Erresuma Batuan. Berria - Kultura

Herritarren %67k beren burua «lehenbizi **galestar**» jotzen dute. Berria - Mundua

## galetu, gale(tu), galetzen da ad galea hartu.

Inor ez da, noski, bere buruaz edo biaziaz **galetzen**, gorputz-arimek elkarrekin lotan atseden hartzen dutenean. **Xabier Amuriza**

## galga (148 agerraldi, 45 liburu eta 48 artikulutan; ETCn 1.141 agerraldi) 1 iz balazta. ik freno.

Iskin egiten diote oztupoari edo azken-azken uanean zapaltzen dute **galga**, beste irtenbiderik ez badago. **Jon Arretxe**

Beraz, segurtasun-**galga** / maiz gantzutzea hobe da. **Xabier Olarra**

Gero eta martxa txikiagoak sartuz, motorea **galga** gisa erabiliz. **Mikel Hernandez Abaitua**

Bat-batean **galga-hots** izugarria entzun zen eta auto baten edo auto batzuen kraskatekoa beste batzuen kontra. **Joxemari Iturralde**

Berrito atera zituzten gurpilok, aurrean pistarik egon ez arren, eta **galga-zapatak** ere bai. **Joxe Austin Arrieta**

Baluke borreroak irriño harro bat egiteko aitzakia, tornuari ezarri dion **galgak** eragotzi egiten du lepoaren presioak manibela atzeraka eroan dezan, arin ekartzen du heriotza. **Koldo Izagirre**

Bide batez, Sutximistak **galga** aumatikoa du eta... **Iñaki Mendiguren**

### 2 irud

Haren gidari bakarra bertutea dela, haren **galga** bakarra kontzientzia txarra den bezalaxe. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Bere kemen guztiak bildurik egin zuen aukera eta bere patuari buruz zihoan hartxintzar bakan batzuk beste **galgarik** gabe, zeinek, esan gabe doa, ezin, bada, geldiarazi leize-zuloan amiltzen ari dena. **Patxi Zubizarreta**

Nire amodioak izutzen zaitu, bortxazkoa, **galgarik** gabea iruditzen zaizu? **Jon Muñoz**

Teknologiaren aurrerapen ordu arte **galgarik** gabea. **Iñaki Mendiguren**

**Galgarik** gabeko individualismo horrek. **Iñaki Mendiguren**

Gaizkitik hurbilago dago alabaina **galga** ahaltzu horrek bararazi ez duena. **Jon Muñoz**

Eta Dabidek [...] nire bizitzan poliziarena egin izan duela iruditzen zait, eta harekin **galga** sakatzen bizi izan naizela. **Patxi Zubizarreta**

Baina bi urte pasatu eta gero, jeloskortasunak beste batena dirudi eta malenkonia dut bihotz-**galga** bakar. **Anjel Lertxundi**

### 3 geldigailua.

Korrika eta aho-**galgarik** gabe doazen zaldi-zurdak. **Felipe Juaristi**

Ez izan zaldi eta mando adimengabeen antzeko: **galgaz** eta ahokoz eutsi behar zaio haien indarrari; bestela, ezin zara hurbildu. **Elizen arteko biblia**

### 4 maila.

Kopistek, inprenta deabrutuz, demokratizazio horren kontra altxa eta,aldi berean, beren lanpostuak eta beren **galga** soziala gorde nahi zituzten. **Anjel Lertxundi**

Antozianinekin glukosaren oxidazioa ostera bere **galga** zuzenera ekartzeko saioa egin zitekeen. **Juan Garzia**

Galzte nintzen, susmagarria nintzen, **galga** berean zeuden biak. **Anjel Lertxundi**

### 5 neurria.

Merkatuak arrakasta eskaintzen dio kalitatearen **galga** bakartzat: zenbat saldu, hainbat balio. **Anjel Lertxundi**

Gogor salatzen zuen telebistaren gorabehera serioak eta arinak arrunkeiaren **galgarekin** berdintzeko joera ia naturala. **Anjel Lertxundi**

### 6 oreka.

Erdibide horretan eta **galga** malenkoniatsu hori lortu ezinik gelditzen nintzen Schumannen pieza batzuekin **Anjel Lertxundi**

### 7 galda.

Eguzki **galgatan**, laino eta hodeirik gabe, erre eta kiskali den lur azalean **Pello Zabala**

### 8 galgan adlag garaiera edo maila berean. ik sestra<sup>1</sup> 3.

Gaineko maila dena berdin eta **galgan** jartzearaino harriarekin leunduz, zoladura beltz baten itxura ematen zaio. **Santiago Iruretagoiena**

### 9 galga jarri galgatu.

Berrehun metroz berrehun metro **galga jarri**, gelditu, enbragea kendu, enbragea sartu, martxa aldatu beharra izango da. **Josu Zabaleta**

Modu horretara iritziak, agian gizartearen zutabe bakarra denak, indarrari eta grinei **galga jar** diezaien. **Juan Martin Elexpuru**

Burutik mihira zetozkigun hitzei **galgarik** jarri gabe. **Joan Mari Irigoien**

Makinaren oldar hiltzaileari **galga** jartzeko. **Iñaki Mendiguren**

Malkoei **galga jarriz**. **Askoren artean**

Guk ez baitugu ez begi zehatzik, ez begi ilunik, ez distantziari **galga** jar diezaiokeen begirik. **Felipe Juaristi**

· PSOE eta PP alderdiek «eskuko **galga» jarrita** zutela adierazi zuen ERCKo Joan Puigek. **Berria - Mundua**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguzki galgatan (3); eta galga (9); galga arbuaiatz (3); galga bakarra (3); galga da (3); galga direla (3); galga jarri (8); galga jartzeko (3); galga jartzen (8); galgarik gabe (6); galgarik gabe gelditu (3); galgarik gabeko (3); galgarik jarri (3); obediendiaren galga (3); obediendiaren galga arbuaiatz (3)

## galgaldi iz galgatzea, galga sakatzea.

Gelditu egin zen; Alberten ustekabeko **galgaldi** hark eragindako koskorra igurtzi, eta tira egin zion Jonathani besotik. **Jon Muñoz**

## galgarri 1 izond galtzen, hondatzen duena, galbidera daramana.

Pozoinik **galgarrienaz**. **Patziku Perurena**

Antza denez, irakurgai **galgarriak** lerratu dira testuan. **Antton Olano**

Monika ere sosegurik aurkitu ezinik ibiltzen baitzen etxean barrena, sukar antzu eta **galgarri** baten mendeko. **Joxean Agirre**

Gaitz **galgarritz**, sukarrez eta hanpaduraz joko zaituzte. **Elizen arteko biblia**

Berak libratuko zaitu ehiztariaren saretik eta izurri **galgarritik**. **Elizen arteko biblia**

Indar **galgarriek** ezin dute erabat nagusitu ez bizia betiko ehortzi. **Xabier Amuriza**

Poliziak eta mediku ustel batzuek, onartu ez ezik, suspertu egiten dute ohitura **galgarri** hori. **Gotzon Garate**

Mojek nire gurasoei esan zieten oso ideia **galgarriak** hedatzen ari nintzela eta kaltegarria nintzela nire ikaskideentzako. **Ana Urkiza**

Ahantztura aktiboak birrindu egiten omen ditu oroitzapen **galgarrienak**. **Fernando Morillo**

Obsesio **galgarria**. **Luis Elberdin**

Erlatibismo arras **galgarria** horixe. Joxe Azurmendi

Harkaitz, ganbera, arkupe, zulo eta leize labirinto **galgarri** baten erdian, Nik okerrarazi nuen bere egiazko sinestetik [...] gezurrezko sineskeria **galgarrietara**. izpiritu frantsesaren menpetasun **galgarritik** askatu eta izpiritu alemanera hurbildu nahi du. Koldo Izagirre

Horrekin ez dut esan nahi bizimodu **galgarria** zenik. Ander Irizar

Bizibidea ateratzeko eguneroko borroka, batzuen mesedegarri eta besteen **galgarri** dena. Lopez de Arana

Neurri haiek kaltegarriak ziren eta are **galgarriak** ere interes pribatuentzat, baina behar-beharrezkoak egoera larri hartan. Karlos Zabala

Aidez aurretik asmatutako gezurrak babesgarri eta etsaientzat **galgarri** gerta zitezkeen eskutitzak sakeletan. Ander Irizar

Bergara baketsutik Eibar **galgarria** eramango zutela. Koldo Izagirre

Gizon hau guztiz **galgarria** dela ikusi dugu. Elízen arteko biblia

## 2 (hitz elkartuetan)

Barabako eguraldi osasun- **galgarriaren** ihesi. Karlos Zabala

Hango istil, urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak jario osasun **galgarriak** sortzen dituen. Karlos Zabala

Etorkizuna eta segurantzia bezalako fantasma bizi- **galgarrien** mendean ez errenditzea. Iñaki Segurola

Hilketa arrunt, itsusi eta nardagarri bat zela, eta ez liburu eta nobeletan agertzen diren amodio-istorio irudimen **galgarria**. J.M. Olaizola "Txiliku"

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **galgarria** (3); **gaitz galgarria** (3)

## galgarritasun iz galgarria denaren nolakotasuna.

Bost inporta, **galgarritasun** horrek ere: Urrian ehiztaria, goizean goiz atzarria. Pello Zabala

## galgatu, galga(tu), galgatzen (46 agerraldi, 20 liburu eta 12 artikulutan; ETCn 254 agerraldi) 1 du ad galgaz geldiarazi. ik balaztatu; frenatu.

Keinu lasaiak egin ditu autoa **galgatzean**. Pello Lizarralde

Autobusa bat-batean **galgatu** eta aginduak emanez ahots bat entzun dut kanpoan, eta kobratzaileak eta gainontzeko bidaiariek jakinarazi didate: ibilgailuan bidaiari judurik balego, jaitsi egin behar du. Urtzi Urrutikoetxea

Ziplo **galgatu** eta gurpil gorri distiratsuek karranka egin zuten harri-kozkorren gainean. Lopez de Arana

Gurpila **galgatzen** ikusi zuen senarra. Anton Garikano

Gasolindegian argi zuri biziagotik ehunen bat metrora dagoelarik motorra **galgatzen** hasi da. Pello Lizarralde

## 2 irud/hed

Hitzok ordura artean munduaren ardatza **galgaturik** ukana zuen ziria askatu izan balute bezala. Edorta Jimenez

Kezkak nire urratsak **galgatzen**, ordea: non deabru zebilen Kristina? Aingeru Epaltza

Mingaina **galgatze**. Xabier Olarra

Ni iritsi nintzenez, dezentez **galgatu** zen ordurako egoera. Juan Garzia

Hemen gauza guztien biziak geratu egin behar du, hemen naturak bere indarrez hazkundera **galgatu** egiten du. Xabier Amuriza

Materia kopuruak batzuetan gorputzean eta gorputzadarretan zehar biratu egin behar izaten du eta, aurrera jaurtia izan bada, **galgatu** eta atzerantz lasaitu. Xabier Amuriza

Antionkogeenek, berriz, hura **galgatzen**. Juan Garzia

## 3 galgaren bidez orekatu.

Gila **galgatu** zegoen, hau da, ontziaren gaina paralelo zegoen uraren planoari buruz. Koro Navarro

## 4 irud

Aita jaikitzerakoan konturatzen da gertatuaz, zigorgailuak prestatzen ditu eta gogor zigortzen, edarian hartutako gehiegizko plazerra neurri batean tristurak **galgatu** arte.

Joan Mari Lekuona

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**galgatu** eta (4); **galgatu zuen** (5)

## galgatze iz galgaz geldiaraztea.

Erorikoa bat-bateko **galgatze** baten ondoren izan zuen. Berria - Kirola

Eta berriro han ziren klaxonak, pneumatiko kirrinkarien **galgatzea**, loka-gunean egindako azelerazioak. Joxe Austin Arrieta

## galgo 1 iz erbi-zakurra.

Zakurrotan bi **galgoak** ziren, biak ar haziak; galgokume bat, emea. Gotzon Garate

Ateak ireki eta korrika dorpean irten zara, karreretarako **galgo** hankamotzek egingo luketen moduan. Eider Rodriguez

## 2 irud

Horra hor Mauretania, ozeanoko **galgorik** azkarrena, hogeita lau ordu berandu. Lopez de Arana

## galgokume iz galgoaren kumea.

Zakurrotan bi galgoak ziren, biak ar haziak; **galgokume** bat, emea. Gotzon Garate

## galiar 1 izlag/iz Galiakoa, Galiari dagokiona; Galiako herritarra.

Rutilio Namaziano **galiar** poeta. Iñaki Mendiguren

Karolinjiar Inperioaren bihotz **galiarrean**. Iñaki Mendiguren

**Galiarrek** Erroma hartu zutenean. Iñaki Iñurrieta

**Galiarren** jainko horren izena. Berria - Gaiak

Gelditu ginen, prestuki, azken akitaniarrak oro bezala, **Galiarrei** loturik eta, geroztik, erlijioaren eta politikaren arteko zalantzek burzoraturik. Piarres Xarriton



## 2 frantsesa.

Charpentier **galiarraren** monografiko batekin. **Berria - Kultura**

## 3 galiar-erromatar izlag erromatarren garaiko Galiakoa.

Teila-etxe **galiar-erromatar** bat aurkitu zuen atzo arkeologo talde batek Belgika ekialdean. **Berria - Gaiak**

## galikanismo iz frantziar eliza katolikoaren Aita Santuarekiko beregaintasuna aldarrikatzen zuen doktrina.

Oroit gaitezen, lehengo **Galikanismoaren** edo Josefismoaren arazoez; oroit atzoko ala gaurko nazional-katolizismoek egin desmasiez, bai eta Pio VII.ak, Pio XI.ak edo Pio XII.ak, Napoleonekin, Mussolinirekin, Hitlerrekin, Pétainekin, Duplessisekin, Salazarrekin eta Francorekin egin konkordatuetakoko hautsi-mautsi gazi-gozoez! **Piarres Xarriton**

## galikur iz galtze ikurra. cf garaikur.

Ez etsi, gazteak, geurea da-ta, geurea denez, herio-saria: txapela beltza, hogeimila hogeerleko beltz, eta **galikurra**. **Joxerra Garzia**

## galilear izlag/iz Galileakoa, Galileari dagokiona; Galileako herritarra.

Zorigaiztoko **galilear** fariseuaren irakaspenaren aurka. **Iñaki Mendiguren**

Juduek ez zuten beren arteko jotzen Jesus, **galilearra** zela esanez, eta lurralde honetako jendeak bakarrik zutela zerikusi Jesusekin. **Joan Mari Lekuona**

## galio iz metal baten izena.

**Galio** metalaren tantatxoak siliziozko gainazal baten gainean jartzean hazitako egiturak dira. **Berria - Gaiak**

## galipot (60 agerraldi, 24 liburu eta 15 artikulutan; ETCn 653 agerraldi) 1 iz bikearen antzeko gai ilun likatsua. ik brea; alkaterna; gudroi; mundrun.

'Prestige'-ren **galipota** garbitzeko lanetan aritua. **Berria - Mundua**

Harresia erretako adreiluekin egiteko aukera, karearen eta harearen orde **galipot** urtua erabiliz. **Santiago Iruretagoiena**

Langileek errepeidea zabaltzen dihardute, eta **galipota** isurtzeko makinak hara-hona dabilta bafadaka. **Javi Cillero**

Goiek lata bat **galipot** bero ekarri zuen eta Juan Bautista gilaren gainean arrelepo jarrita hasi zen, espatula erabiliz, zulo txikiak eta zirrikituak betetzen. **Joseba Sarrionandia**

21.100 tona **galipot** atera dituzte uretatik. **Berria - Euskal Herria**

Kea, **galipota** bezain trinkoa, bosgarren pisuko leihotik irteten zen. **Lopez de Arana**

Harrezkero, **galipota** oinpean bezala itsatsi zitzaidan nire buruaz beste egiteko burutapen hura sabelean. **Hasier Etxeberria**

Itsasoan agertu da orain, baina aspaldi ditugu bihotzak txapapote beltzez, **galipotez** estaliak. **Joxerra Garzia**

Oinak ere **galipotez** zikinduak. **Joxe Austin Arrieta**

Zumitzeko saski bat hartu, haren zirrikituak **galipotez** eta bikez estali, eta han sartu zuen haurra. **Jose Antonio Mujika**

Hala kontatu zion, adibidez, nola torturatzen zituzten bekatariak, gizonak eta emakumeak, **galipotezko** upeletan eta ikatz gorizko pertzetan. **Koro Navarro**

**Galipotaren** usaina, koipearena, erradiadore elektrikoarena, [...]. **Jesus Mari Mendizabal**

Ilun asko eta argi bat: altxorra, orain, estaltzen duen **galipotaren** distirarena. **Berria - Kultura**

Udatiarrak uzkur, bederen uztailean **galipotak** direla-eta... **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

**Galipot** zatiak agertzen dira, oraindik, hondartzetan. **Berria - Euskal Herria**

**Galipot** kamioren inguruan sortzen zen hodei gris iluna. **Josu Landa**

Aurrera jarraitu nuen hartxintzar-**galipotezko** errepeide hartan barrena. **Joxe Austin Arrieta**

## galiziano izlag/iz galiziarra.

Hala ere, taberna bakarrik gelditzeak ito egiten ninduen, eta azken **galiziano** moxkortzioari aldeal ematen nion edaten bere penak eta morriñak konta ziezazkidan.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

## galiziar (329 agerraldi, 21 liburu eta 208 artikulutan; ETCn 3.491 agerraldi) izlag/iz Galiziakoa, Galiziarri dagokiona; Galiziako herritarra.

**Galiziar** mintzairaren oihartzuna. **Berria - Kultura**

Margarita Ledo **galiziar** idazle eta irakasleak.

Felipe Senen **galiziar** etnografo, museologo eta kazetariak. **Berria - Kultura**

Dultzaineroak, txalapartariak, adar jotzaileak eta **galiziar** gaiteroak. **Berria - Kultura**

Hiriaren irudi literarioa euskal, **galiziar** eta kataluniar literaturan. **Berria - Kultura**

Guraso **galiziarren** seme-alabak izan arren, zeharo ondarrutarrak diren gazteak. **Koldo Zuazo**

Live in Montreux da musikari **galiziarren** azken diskoa. **Berria - Kultura**

Egoera latza pairatzen ari da Bloke Nazionalista **Galiziarra**. **Berria - Mundua**

Beste alboan, milaka **galiziarrek** Dia da Patria ospatzen dute debozioz. **Berria - Mundua**

**Galiziarrei** buruzko astakeriak esaten jarraitu zuen amak tarte batean. **Iban Zaldúa**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina galiziarrek (3); bloke nazionalista galiziarra (5); bloke nazionalista galiziarrek (8); carlos casares galiziarrek (3); eta galiziarrek (3); eta galiziarrek (7); galiziar bat (6); galiziar eta (5); galiziar idazle (5); galiziar idazle eta (3); galiziarra eta (4); galiziarrek bere (3); galiziarrek eta (4); galiziarrek ez (3); galiziarrek ez (4); idazle galiziarrek (4); ledo galiziar (3); ledo galiziar idazle (3); margarita ledo galiziar (3); nazionalista galiziarrek (8); talde galiziarrek (4); zuten galiziarrek (4)

## galiziera (133 agerraldi, 5 liburu eta 71 artikulutan; ETCn 1.845 agerraldi) iz galegoa (hizkuntza).

Euskara, katalana eta **galiziera** erabiltzeko eskubidea eskatu dute. **Berria - Euskal Herria**

Inoiz ez nuen planteatu **galiziera** literatur hizkuntza gisa erabiltzeko aukera. Berria - Kultura

**Galiziera** arautuan idazten eta irakurtzen ikasi duen lehen belaunaldia. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **galiziera** (13); eta **galiziera** erabiltzeko (3); eta **galizieraren** (5); eta **galizieraren ofizialtasuna** (3); eta **galizieraz** (3); eta **galizierazko** (4); **galiziera eta** (18); **galiziera eta euskara** (4); **galiziera eta katalana** (8); **galizieraz eta** (3); **galizieraz idazten** (3); **galizierazko eta** (5); **galizierazko idazleen** (5); **galizierazko idazleen elkarteko** (3); **galizierazko letren** (5); **katalana eta galiziera** (12); **katalanak eta galizierak** (3); **katalanaren eta galizieraren** (4); **mendeko galizierazko** (3)

## galka egin bultzatu.

Heriok eskua eraman zuen Adaren garondora, eta pixkana-pixkana, **galka** eginez, Adaren burua bere sorbaldan pausatzea lortu zuen. Anjel Lertxundi

## galkadura iz buxadura, auto ilara.

Ikaragarriko auto **galkadurak** gertatzen dira zenbait egun honetan Aturri hegian, Baiona eta Mugerre artean. Herria

Bizpahiru egunez, **galkadura** handiak izan dira Kostaldeko autobide hortan, eguraldi txarraren gatik, kamiunak metatu baitira mugaz haindirat ezin segituz. Herria

Gaitzeko **galkadura** izan da mugaren bazter hortan, Biriatu aldeko autobidean, Biriatuko zubitik eta Urruñako ondo hortaraino. Herria

Bizpahiru egunez segidan **galkadura** gaitzak izan dira kostaldeko autobide hortan. Herria

Gaitzeko **galkadura** bestalde, zenbait oren iraun duena, autobidea berriz libratu arte. Herria

Biriatuko mugan, frango usu badira **galkadurak**, bereziki kamiunen trafikarekin. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gaitzeko galkadura** (3); **galkadura gaitzak** (3); **galkadura gutiago** (4); **galkadura gutiago izaiteko** (3); **galkadura handiak** (3); **galkadurak autobidean** (3); **zernahi galkadura** (3)

## galkategi iz galkatzeko lantegia.

SAFAM **galkategia** puskaka salduko. Herria

Geroztik Jean Bernard Malo, ADA altzairutegiko zuzendariak gibelera egin zuen **galkategiaren** osoki arrahartzeko xedean. Herria

Bere aldetik, Xavier Etcheverry **galkategi** horretako kuadro ohiak lantegiaren parte erosteko proposamena egin du komertsua auzitegiaren aitzinean. Herria

**Galkategi** horretan ari ziren 120 langileak oro lizentziatuak izan dira, azkenak otsailaren hogeitalauean. Herria

## galkatu, galka, galkatzen 1 du zapaldu, zapalduz trinkotu.

Zeren, heriotzan piztien hagin-sari izatea okerra bada, ez dut ikusten gozoago denik [...] gaineke lurraren pisuak zapal eta **galka** zaitzan. Xabier Amuriza

Emakumetxoak txabusinaren sakelatik tabako-poltsatxo bat atera eta pipa **galkatzen** hasi zen. Alberto Ladron Arana

### 2 hed

Eroetxean zegoen ohe zuriari estekaturik, erremedioz **galkatua** eta atorra zurbailaren azpian biluz. Itxaro Borda

Piano bat zegoen, argazkiez **galkatua**. Lopez de Arana

Moja zeharo **galkatuta** zegoen eserleku hartan, alde batera eta bestera zeuzkan besoak pausatzeko egurrezko euskarriek kaxa itxi batean bezala itotzen baitzioten bere gorputz lodikotea. Joxemari Iturralde

### 3 irud

Airea bero zegoen, txilínez, perfumez eta kez **galkaturik**. Lopez de Arana

### 4 ezin gehiago bete.

Norbait pozoiez eta janari hilgarri **galkatu** nahi balitz. Piarres Xarriton

Eta ondoko zerragian, hurrengo abenduan **galkatuko** edo engisatuko ziren antzara kalapitatsuak. Itxaro Borda

Hiriko kontseiluak xedea du hango ostatu eta jatetxe guzietan gibelkiaren debeketzea, alimale horien **galkatzeak** kabala gaixoeri egiten dien torturagatik. Herria

### 5 (era burutua izenondo gisa)

Erretako oilanda **galkatua**. Jose Morales

## galkor izond erraz galtzen edo suntsitzen dena.

Eta honen argitan nahiago ditugu bizidunak bizigabeak baino, sentiberak sentitzen ez dutenak baino [...] ustelezinak **galkorrak** baino. Imanol Unzurrunzaga

Produktu **galkorren** garraioan oso garrantzitsu da Gasteizko aireportua. Berria - Ekonomia

Sorkariaren edo Sortzailearen maitasunak emaltzen du hitz hau, hots, izadi **galkorrenen**, edo egia aldaezinaren maitasunak. Imanol Unzurrunzaga

Gure gorputz **galkorra** arimarentzat zama baita. Imanol Unzurrunzaga

Perfekziozko idazkia, idazki hura zeinetik ezain hitz ez baitaiteke kalterik gabe alda, huraxe da **galkorrena**. Juan Garzia

–Hosto **galkorreko** zuhaitza da bizitza –dio gizonak–. Imanol Zurutuza

Dena erromako zubia bezain **galkorra** zela. Anton Garikano

Karea eta harea ugari jartzen badira, paretak ur asko izango du eta ez da hain **galkorra** izango, eta ondo sendotuta, iraun egingo du. Santiago Iruretagoiena

Eskultura **Galkorren** Habanako Jaialdi Nazionala egin zen atzo. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eskultura galkorren** (3); **eta galkor** (4); **eta galkorra** (7); **galkorra da** (3); **gauza galkor** (3)

## galkortasun iz galkorra denaren nolakotasuna.

Literaturan, are nabariagoa da azken fineko **galkortasun** hori. Juan Garzia

## gallartar izlag/iz Gallartakoa, Gallartari dagokiona; Galkartako herritarra.

Asier del Horno hegaleko **gallartarrak** bere 100. partida jokatu du bihar. Berria - Kirola

**Gallartarra** sasoi hasiera oso txarra egiten ari da. Berria - Kirola

## gallego interj (irain hitza) ik **gallego**.

**Gallego** ! desafio oihua zen, ez dakit ulertzen didazuen, mutilen arteko nolabaiteko kode tribala. **Gallego** ! oihu egiten genion umetan lagunari, bestela egingo ez zukeen zerbaitegitera bultzatzeko. **Iñigo Aranbarri**

**Gallego** ! esanda xaxatzen genuen adiskidea portuko ur oliotsuetara, arropa eta guzti, salto egin zezan. **Gallego** ! esanda akuilatzen genuen, udaltzainari kapela ken ziezaion. **Iñigo Aranbarri**

## **galleta** (113 agerraldi, 31 liburu eta 14 artikulua; ETCn 689 agerraldi; edo **gaileta** 86 agerraldi, 34 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 960 agerraldi) 1 iz irinez, arrautzez eta abarrez eginiko oreka, labean erretzen dena.

**Galletak** kakao-esnetan beratzen utzita. **Xabier Mendiguren Elizegi**

–Nik esnea **galletekin** besterik ez diat hartuko. **Lopez de Arana**

Kafesnea **galletekin** zutik gosaltzeko leihotik begira. **Joseba Sarrionandia**

Basokada bat colacao hartzen du pastekin edo **galletekin** eta zukua. **Berria - Kirola**

Gosaritarako, zukua, **gaileta** pare bat, eta segurantziazko hitzak. **Joxe Austin Arrieta**

Goizero hartzen ditut kafea eta gurinezko **gaileta** danimarkarrak. **Harkaitz Cano**

**Galletak** txikitu eta zopak egiten hasi zen. **Berria - Euskal Herria**

**Galletak** esnetan busti ondoren astiro ahoratuz, dastatuz eta irentsiz. **Jon Arretxe**

Opil eta azukredun krakaden kopurua %84 emendatu da, azukredun **galletak** %24 eta sodak %17. **Berria - Euskal Herria**

Hain garrantzitsuak al dira jendearen iritzia, dirua, arrakasta, hoteletako atondoak, osasuna, aterkiak edo Uneeda **galletak...?** **Lopez de Arana**

Gaztarik finena eta **galletak**, txokolatetzakoak. **Unai Elorriaga**

Manyak, zerbitzariak, tea eta **galletak** ekarri zizkigun. **Koro Navarro**

Esnegainezko **gaileta** batzuk. **Irene Aldasoro**

Kaxakada bat **gaileta** lehor. **Iñaki Mendiguren**

Jateko, gelatik atera eta gaztazko **galletak** hartu genituen makinan. **Koro Navarro**

Janari-dendetako erakusleihatoko **gaileta** lizunduak hantxe zeuden, koloregabetzen. **Irene Aldasoro**

Bertze zigarro bat piztu nuen hark azpila **galletaz** husten zuen bitartean. **Aingeru Epaltza**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Olibet **gaileta** lantegiko neskek errepidea iragan zuten. **Koldo Izagirre**

Botila bat garagardo hori eta erretilu txiki bat bete arrowroot **gaileta**. **Irene Aldasoro**

Koilarak katapultatzen harturik **gaileta** -zopa beratuak jaurtitzen. Sinbolikoa da altxorra: **gaileta** -kaxa bat, barruan goxo batzuk eta zorion txartela besterik ez duena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gaileta** fabrika batek babesturiko zinema lehiaketarako H gidoia prestatzen ari da. **Berria - Kultura**

Guk **gaileta** lata batekin antolatua genuen brinkel bat Burgosen berrogeita hamabian. **Koldo Izagirre**

Gurasoenetik Nescafea, esne kontzentratua eta hainbat **gaileta** -pakete neramatzan. **Joseba Urteaga**

Alboan **gaileta** paketetxoak zabalik duela. **Patxi Iturrategi**

**Gaileta** -poltsa huts baten bila. **Joseba Urteaga**

Izenburuak **gaileta** -markak balira bezala aipatzeko Txokolatea eta **gaileta** klase guztiak. **Joseba Urteaga**

### 3 bizkotxo lehorra, itsasontzietan janari gisa eramaten zena.

Hainbat bertute, sei **gaileta** eta ur pitxer batekin itsaso zakarraren menpe dagoen eskifaia salbatuko zuketena. **Anton Garikano**

Arraio! –esan zuen McAvoy kapitainak, bere **gaileta** -puska lurrera bota eta lema bueltara zerabilelarik. **Lopez de Arana**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **galletak** (8); **gaileta bat** (10); **gaileta bat hartu** (4); **gaileta batzuk** (6); **gaileta kaxa** (3); **gaileta puska** (3); **galletak eta** (3); **katilua koilara galletak** (3); **koilara galletak** (3) eta **gaileta** (6); eta **galletak** (13); **gaileta batzuk** (3); **gaileta kaxa** (3); **galletak eta** (3); **kafesnea eta galletak** (4)

## **galletatxo** iz gaileta txikia.

Ardoa, hoberenetik izanen omen duzu, eta tea ere bero beroa, eta **galletatxoak**, eta muskuilu erreak, bero beroak, jateko jada prestatuak. **Joseba Sarrionandia**

## **galletazale** (corpusean **galletazale** soilik) izond galleten zale dena.

Mutila **galletazale** amorratua da. **Berria - Euskal Herria**

## **galmen** iz galtzea, hondatzea.

Tebasko gerratearen eta Troiako **galmenaren** aurretik. **Xabier Amuriza**

**Galmenak** eta heriotzak itxaroten zion. **Xabier Amuriza**

Eta han joan zen, bere mandarraren gainean, aurpegia gogor, atzera begiratzeke, **galmenaren** irudia utzi bailuen hemen. **Juan Garzia**

## **galmendi** iz Galmena, hondamendia.

Emakumea da gizonon musa, geriza, talaia, amasa, argia, jomuga eta **galmendia**. **Karlos Linazasoro**

Ez bada urrutiratzen eta jarraitzen badu PPren barne politika egiten, hori izanen da PSOEren **galmendia** eta amildegia. **Berria - Euskal Herria**

Ez zen hortik etorriko **galmendirik**, ezustearen bidetik baizik. **Karlos Linazasoro**

## **galo** iz Galiako hizkuntza.

«Bretaniako hizkuntzak dira bretoiara eta **galoa** ere, frantsesaren ondoan», onartu zuen ofizialki Bretaniako Eskualde Kontseilua. **Berria - Mundua**

**Galoak** izendatzen dizkiote, erakutsi nahirik ezen, amaren jainkotasuna iraindu dutenek eta gurasoentzat esker txarreko agertu direnek ez dutela merezi seme-alaba bizirik argitara eramaterik. **Xabier Amuriza**

## **galoerromatar** iz Galiar-erromatarra.

**Galoerromatarra**, aldiz, bizia zen, eta handiustea; batera mintzatzen zen ezpainez, begiez eta eskuez. Karlos Zabala

## **galoi**<sup>1</sup> iz isurkarietzako edukiera neurria.

Gasolina **galoi**a 1,42 dolarreraino jaitsi zen. Berría - Ekonomia

## **galoi**<sup>2</sup> (orobat **galon** g.er.) 1 iz xingola modukoa, armadako graduen ezaugarria.

Panazko uniforme zeraman, primeran doitu, Rainbow Division izenekoaren intsigniez apaindua eta xingolez eta **galoi**z hornitua. alkandoran zituen **galoi** urri eta estreinatu berriak bezain gorri. Lopez de Arana

Atzealdean lekaioa zeramatela, zanbuluka, urrezko **galoi**ekiko librez jantzirik. Jose Morales

Lekaio bat zihoan damarekin, lepo ugari longain dotorea soinean eta urrezko **galoi** batez apainduriko kapelu biribil distiratsua buruan. Jose Morales

Eskumuturreko **galoi**etan igarri bainion graduazioa. Edorta Jimenez

Bistan da, preso bat zen, alemana, 4/5 **galonetako** ofiziera. Marzel Etxehandi

Amaturrekaldiz beren xapelgoko bigarren astea zuten eta horra hor berezko ohi batzu soldado **xinple** mailerat itzuli direla beren **galonak** utzirik. Herria

Ni Europan sarjentu izatera iritsi nintzen **galoiak** kendu zizkidaten arte. Lopez de Arana

**Galoiak** dituen da suhiltzaile zaharrena eta isilik eta otzan jarraitu dio gazteak. Harkaitz Cano

Oso lepo luzeko gizon bat ikusi nuen, feltrozko kapela bat zeramana, xingola ordez **galoi** txirikordatz inguratua. Xabier Olarra

### 2 (hitz elkartuetan)

Horretan kapitain **galoiak** janzten zituen De Gaulle artean gaztea izan zen. Edorta Jimenez

Uniforme-sorbaldetan sarjentu-**galoiak** zeramatzen batek. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **galoi** (5); **galoi txirikordatu** (8); **galoi txirikordatu bat** (4); **galoi txirikordatu** (3)

## **galoidun** 1 izlag galoia edo galoiak dituen.

Buruan txapel **galoiduna** janzten zuen. Karlos Zabala

**Galoidun** gabardina azulmarinoari. Harkaitz Cano

[Suhiltzaile] **galoidunak** hatz luzea eta erakuslea elkarri itsatsi eta agur keinu bat egin digu bi hatzak kaskora eramanez, begia keinatuz. Harkaitz Cano

### 2 (izen sintagmari dagokiola)

Eskuineko eskuaz bere kepi beltz zilarrezko **galoiduna** ukituz. Josu Zabaleta

## **galoitu** (orobat **galonatu**) izond galoiez hornitua.

Jendarme saila ere, kaskoa buruan eta uniforme urdina soinean, zilarrez **galoi**tua. Karlos Zabala

SS-ak berriketa izanik, enpleatu bat, gain-gainetik **galonatu**a, heldu zaigu. Marzel Etxehandi

## **galon** ik **galoi**<sup>1</sup>.

## **galop** iz dantza mota.

**Galop** baten lehen notak entzun ziren. Jose Morales

## **galopa** 1 lauhazka.

Eta **galoparako** soropila bezain biguna zen ordeka urdin baten erdian agertzen zitzaion azkenean gaztelua. Josu Zabaleta

### 2 **galopan** adlag lauhazkan.

Azken **galopan** den zaldiaren moduan. Edorta Jimenez

**Galopan**, hain urduri ze, zauritua ni neu nintzela pentsa zitekeen. Edorta Jimenez

Hanka egin zuen gizonak, eta **galopan** aurreratu ziren erretiradan zetozen gudarietako batzuk. Edorta Jimenez

## **galox** iz elurretan, uretan edo lokatzetan ibiltzeko eskalapoia.

Geltokiko burua ere noiz edo noiz gaueko itzalez eta iluntasunez baliatzen zen, gomazko **galoxak** jantzi eta gauaz geltokian buelta bat ematen zuen zelatan maniobrariek zer egiten zuten ikasteko. Fernando Rey

Gomazko **galoxekin**. Fernando Rey

## **galpar** ik **kalpar**.

## **galsoro** iz gari soroa.

Bidean barrera zihoazela, udaberriko goiz-argian, orein bat ikusi zuen urrutiko **galsoro** bat zeharkatzen, eta anaiari seinalatu zion, hatzaz. Imanol Zurutuza

Hango lugorriak eta areaz urraturiko **galsoroak** zeharkatu behar izan zituzten. Jose Morales

Gau batez gizonari burua moztu eta gorpua **galsorora** jaurti zuen. Gotzon Garate

Hartz jao hintzen ala bazter-herri honetako bizimoduak, **galsoroek** eta nekazarietako harremanek bihurtu haute hartz? Jose Morales

**Galsoro** sailak jo nituen begiz, inguraezinak eta biluziak, leihatilatik barrera: inor ez zen sekula handik pasatu. Karlos Linazasoro



## galtatu ik galdatu<sup>1</sup> 3.

### galto iz galdera.

**Galto** astun bat liburuan: Zer egin dezake beste planeta bateko sentitzen den gizaki galdu batek besteen artean arrotz egokitzen bada? [Berria - Kultura](#)

### galtxagorri iz deabruari ematen zaion izena.

Baina munduko **galtxagorri** alfer bakarra harrapatuko du... [Berria - Kultura](#)

Aurten Gargantua topatu du, **galtxagorrien** nolabaiteko ordezkoa. [Berria - Kultura](#)

Tarttalo, lamiak eta **galtxagorriak** ere agertzen dira. [Berria - Kultura](#)

### galtxoin iz zangoa orkatilatik belauneraino estaltzen duen jantzia, larruzkoa edo oihalezkoa.

Kopa-kapela itxurazko bat eta **galtxoin** pare bat gabe ez zuten hura hiri erdian inoiz ikusiko. [Irene Aldasoro](#)

### galtza (2066 agerraldi, 217 liburu eta 618 artikulutan –soilik galtza\* formena) 1 iz pl gorputza gerritik behera eta bi zangoak banaka estaltzen dituen jantzia. ik **praka**.

**Galtza** luzeak jantzen nituenez geroztik, nire plan guztietan, kazetari bilakatzea izan zen gauzatu nuen ia-ia bakarra. [Aingeru Epaltza](#)

Jaka handia eta larru koloreko kotoi-belusezko **galtza** zabalak. [Koldo Izagirre](#)

Ehun soldadu bibote-mehe [...] gerritik behera zetazko **galtza** gorriminduak jantzita. [Felipe Juaristi](#)

Alabaina, **galtza** estu-estuetan eta top gaitzean haragi ugari eroriak ageriago, errealtatea bere gordinean azaltzen zen: hogeita bi urteko neska mozorroturiko berrogeitakaduna. [Aingeru Epaltza](#)

Bere **galtzetako** zerrailua apalduz jauki zitzaion zakila buru gorrixka. [Itxaro Borda](#)

Ahaztuta zetorren **galtzetako** brageta lotzeaz. ik galtzazulo. [Koro Navarro](#)

Gero askatu zuen **galtzetako** uhala, eta hiru edo lau zulo estutu zuen. [Josu Zabaleta](#)

Ilde, **galtzetako** gerrikora ere iristen ez zitzaionarekin dantzan ikusiz. [Josu Zabaleta](#)

Gorputza jiratu eta **galtzetako** botoiak askatzen dizkio. [Antton Olano](#)

Khabul Khanek eraztun bat atera zuen bere **galtza** zabaletako poltsiko batetik. [Felipe Juaristi](#)

Bertze eskua nire **galtzetako** gibelaldeko patrikara neramala. [Aingeru Epaltza](#)

Orain **galtzetako** arraia ongi lisatutako bikotea noiz azalduko zain zegoen. [Anton Garikano](#)

Gero, **galtzen** berna jaitsi eta zutitu egin zen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Kaka **galtzetan** egiteko heinean izuturik. [Eneko Bidegain](#)

Beldurren beldurrez, **galtzetara** kaka egin nian. [Daniel Landart](#)

Gorri-gorri jantzeraino kakazten nintzen, totalka hasteraino, **galtzetan** pixa egiteraino. [Josu Zabaleta](#)

· Neure bi esku zuriak **galtzaren** eskuineko belaunaren gainean pausaturik... [Joxe Austin Arrieta](#)

· Kapela batez, begiak, ezpainak eta azkazalak pintatuta eta ohiko **galtza** gorria praken gainean. [Berria - Kultura](#)

### 2 (mota adieraziz)

Hantxe zegoen gizon argal, aurpegi baztanga-pikatu hura, kiroletako **galtza** eta jakaz jantzia. [Koro Navarro](#)

Koronela beharbada, zalditarako **galtzaz** jantzita, ukabilak gerrian, eta denbora alferrik galtzea batere gustatzen ez zitzaiolako itxurarekin. [Josu Zabaleta](#)

**Galtza** bakeroen metalezko botoiak askatuz trebetasun handiz. [Pako Aristi](#)

**Galtza** marradunak zeramatzen. [Fernando Rey](#)

Batak bestearen alkandorak eta jertseak eta **galtza** alozduak erabiltzen zituzten. [Koro Navarro](#)

Baziren **galtza** arraiadunak eta idun gogorak, eta baita onddo kapela ausart bat ere. [Koro Navarro](#)

**Galtza** bularrekodunak, lebita tabako-kolorea. [Josu Zabaleta](#)

### 3 (modua adieraziz)

Sarrerako zerbitzariak, **galtza** laburretan, ataurre batean zeuden eserita. [Josu Zabaleta](#)

**Galtza** hutsetan nengoen ohe gainean. [Anjel Lertxundi](#)

Baina Pauline hain eder eta garbi ikusteak galtzada zeharkatzera bultzatu zuen, txapelik ez buruan, brusa urratua, **galtza jario** eta alkandora bistan, zazpi urteko barrabas baten narraskerian. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

### 4 sing

Uste gabetarik eskua sartu nuen **galtzaren** ezkerreko sakelan. [Daniel Landart](#)

**Galtzaren** zirritua ireki zion eta zakilak salto egin zuen kanpora. [Karlos Zabala](#)

Uste gabetarik eskua sartu nuen **galtzaren** ezkerreko sakelan. [Daniel Landart](#)

### 5 azpiko galtza pl ik galtzazpi.

Ehizako berokia, zorroa, botak, galtzerdiak, ehizako kapa, azpiko **galtza** luzeak, errepikaziozko eskopeta. [Koro Navarro](#)

Zera esan nuen, gona gora eta **azpiko galtzak** behera neramatzala: [...]. [Karlos Zabala](#)

Soinekoak azpiko **galtzetan** sartuta emakume ile-nahasiak, gizon oin-hutsak mahuka hutsean, galtzazpiez eta elastikoez jantzitako ume mordo bat. [Koro Navarro](#)

### 6 barruko galtza pl

Orbainak odol sakratua isurtzen zuen maiz, tunika eta **barruko galtzak** busti-busti eginda utziz. [Askoren artean](#)

**Barruko galtzak** ere kendu egin zituen, denen aurrean erabat biluzik geldituz. [Askoren artean](#)

Gora eta behera dabil gelan, **barruko galtzak** eta bularretakoa soinean, edaria eskuan. [Koro Navarro](#)

### 7 galtza barren pl

Bizkar-zorroa soineratu eta **galtza** barrenak jaso zituen Lauaxetak. [Juan Luis Zabala](#)

Galtzerdiak erantzi eta **galtza** barrenak bildu zituzten. [Koldo Biguri](#)

Haize fin-fina, eta lokaztutako oinetakoak eta **galtza** barrenak nonahi. [Berria - Euskal Herria](#)

Gizona beltzez jantzita zegoen, beltzak zituen **galtza** barren zabalak, beltzak atorra eta kapela. [Felipe Juaristi](#)

Bada mutil bat **galtza** barren-zabalez eta alkandora mahuka-motzez jantzita. [Koro Navarro](#)

· Alkandora **galtza** barrenera sartuz hurbildu nintzen sukaldera. [Inazio Mujika Iraola](#)

### 8 galtzak (orobat galtza g.er.) bete lan lan asko.

Sailkataleek **galtzak bete lan** zuten; pilen gainetik saltoka, saskiak hartu, kopalte lastoa kendu, hustu eta bota egiten zituzten bizi. **Karlos Zabala**

Nagorek **galtzak bete lan** izan zuen Goñi II.aren erasoer eusteko.

Jakina baita, ilargi betearen denean, **galtzak bete lan** izaten duela Heriotzak. **Xabier Etxabe**

Merkatuek, **galtzak bete lan**, ohiko dantza egin zuten: gora goizean, behera gerora. **Galtza bete lan** izango du Bilbao indizeak 2000ra itzultzen, baita Belokik Tourreko podiumera itzultzen ere. **Berria - Ekonomia**

Bai Guzmanen taldeak bai Praderarenak ere **galtza bete lan** izan zuten hautagai izateko behar adina sinadura biltzeko. **Berria - Kirola**

## 9 galtza bonbatxo pl galtza-nasaiak.

Soinean zituen **galtza bonbatxoek**, gomazko zapata zuriek eta zira arduragabeki zintzilikatu hark gaztetasuna adierazten zuten. **Irene Aldasoro**

Hirukote sotil batek (celloa, txirula eta fagota), **galtza bonbatxotan**, pausaldien arteko tarteak betetzen ditu edo iruzkin neurritsuak egiten ahalpaldien artean. **Oskar Arana**

· Kapela beltz hegala luzea, maripuluis beltza, galtza gorri **bonbatxoak**, eta laruzko zapata beltzak. **Felipe Juaristi**

## 10 galtza-gorri ik galtzagorri.

## 11 galtza-mantal ik galtzamantal.

## 12 galtza-nasai pl

Belusezko **galtza**-nasai belauetarainokoz jantzirik etortzen zen eskolara. **Juan Garzia**

Galtza **nasaiak**, bonbatxoak. **Juan Kruz Igerabide**

## 13 galtza motz (49 agerraldi, 27 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 357 agerraldi; orobat galtza motx 10 agerraldi, 6 liburutan; ETCn 18 agerraldi; galtzamotz 8 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean, ETCn 48 agerraldi;) pl belauetarainoko galtzak.

Elastikoak eta **galtza motzak** zeramatzen mutil guztiek. **Koro Navarro**

Bere alkandora ingelesaren paparra zabalik, eta nekazari **galtza motzekin**. **Josu Zabaleta**

Guk **galtza motzetan** genbiltzanetik ezagutzen haugu. **Aingeru Epaltza**

Belauniko zegoen baldosa gainean, **galtza motx** hutsetan, eta gurutzetara jarrita zeuzkan besoak. **Bernardo Atxaga**

Halakoa izaten zen frankismoaren propaganda: landugabea eta **galtza motzekoa**. **Pello Salaburu**

## 14 galtza pare

Nafarroa Oinez 95eko kirol **galtza** pareak. **Itxaro Borda**

Bi alkandora, hiru **galtza** pare, eta jaka beltz bat. **Harkaitz Cano**

Bi jertse, **galtza** pare bat, bizpahiru liburu... **Joxemari Iturralde**

## 15 (norbaiten) galtzetan egon

Spillimbergo kondearen **galtzetan** banengo, ez nintzateke oraintxe oso gustura egongo -esan zuen Eligiok. **Josu Zabaleta**

Ez nukeen koitadu horren **galtzetan** egon nahi, are gutiago delako "saiok" Zamaketariaren partaidetza berezia bazuen. **Aingeru Epaltza**

## 16 (besteren) galtzetan (muturra) sartu

Ez zian, bada, nonzeberri alu horrek sobera behar bertzeen **galtzetan** sartzeko. **Aingeru Epaltza**

Erabateko ukozaleak gauza guztiei egiten die uko, uko egiteari izan ezik, eta bereziki besteren **galtzetan** muturra ez sartzeari. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren galtza (3); alkandora eta galtza (5); atorra eta galtza (3); bat eta galtza (4); bere galtza (8); egindako galtza (3); eta galtza (67); eta galtza barrenak (5); eta galtza beltzez (3); eta galtza grisak (3); eta galtza motzak (4); eta panazko galtza (3); galtza argiak (3); galtza bakero (6); galtza bakeroak (9); galtza bakeroak eta (3); galtza bakeroekin (3); galtza bakeroen (3); galtza barren (3); galtza barrenak (11); galtza barrenak jaso (3); galtza batzuk (6); galtza beltz (5); galtza beltz estuak (3); galtza beltzak (10); galtza beltzak eta (3); galtza beltzez (3); galtza bete (6); galtza bete lan (5); galtza estu (4); galtza eta (26); galtza gorriak (6); galtza grisak (8); galtza haiek (3); galtza horiek (5); galtza hutsetan (4); galtza laburrekin (8); galtza luze (7); galtza luzeak (15); galtza mantalak (4); galtza marroiak (3); galtza motx (5); galtza motz (16); galtza motzak (13); galtza motzak eta (5); galtza motzetan (14); galtza pare (11); galtza urdin (4); galtza zabal (3); galtza zabalak (6); galtza zahar (4); galtza zorroa (3); galtza zuriak (8); galtza zuriak eta (3); gure galtza (3); gure galtza laburrekin (3); hiru galtza (3); hiru galtza pare (3); jaka eta galtza (6); kotoizko galtza (3); nire galtza (7); panazko galtza (6); zituen galtza (5); zuen galtza (3); zuriz eta galtza (3)

azpiko galtzak (10); azpiko galtzak besterik (4); baina galtzak (6); barruko galtzak (21); barruko galtzak ere (4); botak eta galtzak (3); ditut galtzak (3); eta azpiko galtzak (7); eta barruko galtzak (7); eta galtzak (47); eta galtzak erantzen (4); galtzak belauetaraino (5); galtzak berde (3); galtzak besterik (5); galtzak besterik eduki (4); galtzak bete (32); galtzak bete lan (31); galtzak erantzi (5); galtzak erantzi eta (3); galtzak erantzen (4); galtzak ere (7); galtzak erretzen (3); galtzak eta (38); galtzak eta alkandora (6); galtzak eta atorra (4); galtzak goratu (3); galtzak gorri (3); galtzak hartu (3); galtzak jaisten (3); galtzak jaltsi (4); galtzak jantzi (5); galtzak jantzita (3); galtzak janzen (9); galtzak janzen ari (3); galtzak kendu (4); galtzak soinean (4); galtzak ttikiegi (3); galtzak urdin (3); galtzak ziren (3); gorri eta galtzak (3); haren galtzak (3); jaka eta galtzak (3); kaki koloreko galtzak (3); koloreko galtzak (4); lihozko galtzak (6); panazko galtzak (3); ziren galtzak (3); zituen galtzak (3)

## galtzada (ETCn 1.634 agerraldi; orobat galtzara ETCn 6 agerraldi, eta kaltzada ETCn 23 agerraldi) iz 1 harbidea.

Erromatarren **galtzada** zenbait bertatik igarotzen zirelako. **Berria - Kultura**

Via Appia, Kristo aurreko 312.ean Appius Claudius Caecus zensoreak eraiki eta **Galtzaden** Erregina deitua. **Joxe Austin Arrieta**

**Galtzadaren** zatirik interesgarriena, zeinaren harri-zoladura gehientsuenak gaur egun ere osorik baitirau, Aqua Marcia-ren utzai-erreskada berebizikoaren ezkerretara hasten da. **Joxe Austin Arrieta**

Baionatik, Gasteizen gaindi, Burgosera doan ohiko **galtzada** arabarra. **Piarres Aintziart**

**Galtzada** kaskarra zen leku guztietan. **Jose Morales**

Goizeko freskura goxo honetan, **galtzada** arboleztatuan ibiltzeak ez du gogortasunik. **Piarres Aintziart**

Pasaia jaisten den **galtzada** pattarraren sarreran. **Koldo Izagirre**

Zaldia behin eta berriro erortzen ziren aurreko belaunen gainean, ferratu gabe zeudelako batetik eta hiriko **galtzada** erosora ohiturik ez zeudelako bestetik. **Jose Morales**

Baina bidezidorek zuzenago eta azkarrago eraman ohi dute **galtzadek** baino. **Joan Mari Lekuona**

Espaloiko **galtzada** zapaltzean berriro gizonen mundura itzuli dela ohartuko da. **Joxean Agirre**

Ongi zolarituko **galtzada** da bekatiariaren bidea, baina azkenean Herio Leizera darama. **Elizen arteko biblia**

## 2 (kalearena) bidea.

Kaleko **galtzadatik** begiratu nuen Monikaren etxeko leihoetara. **Joxean Agirre**

**Galtzada** gurutzatu dut. **Monika Etxebarria**

Taxiren bat pasatzen zen aldiñ behin **galtzadako** putzuak zapalduz. **Bernardo Atxaga**

· Kamino berria egiteke, Marielexako baserri askoren bidea, irteera, Aginetara jaisten zen, eta hor, **galtzadaren** erdian, gizon bat aurkitu zuen, odoldua eta bere onetik aterata. **Pako Aristi**

## 3 errege galtzada

Errege **galtzadak** eta Erdi Aroko zubiak. **Berria - Euskal Herria**

## 4 galtzada harri (ETCn 212 agerraldi; orobat galtzadarri ETCn 163 agerraldi)

**Galtzada**-harri arrosaz zolarituko plaza da. **Monika Etxebarria**

Korroan hasi eta nola joan ziren nire hezurak **galtzada** harrietara. **Joxean Sagatzizabal**

Ezker-eskuin muinoan gora hedatzen diren **galtzadarrizko** kaleekin. **Urtzi Urrutikoetxea**

**Galtzada**-harrizko kale pikoan gora goazela. **Xabier Olarra**

**Galtzada**-harrien tamainako [...] sorginkeria-liburuen erakusketaren ordez. **Iñaki Mendiguren**

**Galtzarrietan** irrist egin zuen eta ziplo erori zen astunki. **Mirentxu Larrañaga**

Han ikasleek soldaduei **galtzarriak** bota zizkieten. **Fernando Rey**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **galtzada** (5); **galtzada bazterreko** (3); **galtzada harriak** (4); **galtzada harrien** (3); **galtzada harrizko** (3); **galtzada harrizko kale** (3); **galtzada zeharkatzen** (4); **galtzadaren erdian** (4)

## galtzarri ik galtzada 4.

## galtzadatu (orobat galtzaratu) izond lauzatua.

Kale luze **galtzadatu** hura munduko azti-dendarik liluragarrienez bete zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Gezur esentziaz **galtzaratutako** arterik eta bitarterik gabe. **Iñaki Segurola**

## galtzadun izond galtzak dituen.

Traje **galtzadun** beltza, urdin argiz zipriztindua. **Ramon Saizarbitoria**

Sotanadun nahiz **galtzadun**. **Aingeru Epaltza**

## galtzagorri (orobat galtza-gorri g.er.) 1 iz deabrua.

Edonork erakutsiko dizu Bargotan aziak gau bakar batean, orratzontzi batean gordeta zituen **galtzagorrien** laguntzarekin, eraiki omen zuen etxea. **Martin Anso**

**Galtzagorri** horiek, Sanmigelen azpikoa baino deabruagoak! **Joseba Sarrionandia**

## 2 uniformeetan galtza gorriak dituen.

Ez zen mugazaina, **galtza-gorria** baizik. **Pablo Sastre**

**Galtzagorri** horiek, Sanmigelen azpikoa baino deabruagoak! **Joseba Sarrionandia**

## 3 (izenondo gisa)

Nafarrak gurutzeekin eta eskapularioekin zetozela denak, txapel gorriekin eta arma pilo batekin, eta gainera Jaungoikoagan sinesten zutela, ez horko gudari **galtzagorrien** moduan. **Joseba Sarrionandia**

## galtzaile (orobat galtzale) izond 1 galtzen duena.

Pertsona inozoa, suerte txarra izaten duena, **galtzailea**, ergela. **Koro Navarro**

Gogorregia gertatzen zait irudi hori, boxeolari **galtzailearena**: bere gorputz sendo eta gihartsuak trapuzkoa dirudiela, konorterik gabe jada, [...]. **Ramon Saizarbitoria**

Borrokek luze irauten zuten sarritan [...] eta askotan hilda bukatzen zuen zakur **galtzaileak**. **Harkaitz Cano**

Ekialdeko inperio **galtzaileen** eremuetan. **Piarres Xarriton**

Liburuan gizakiaren alde **galtzailea** agertzen da. **Berria - Kultura**

## 2 (hitz elkartuetan)

Antezlan batetik ihes egindako aktore bat omen zirudien, beste garai edo lekuren batekoa, **galtzaile** paperean ia beti. **Joxean Agirre**

Anker portatu izan da beti **galtzaile** jendearekin. **Patxi Iturritegi**

Virgil bera ere etsiz zihoan eta **galtzaile-egoeran** hondoratuz. **Xabier Olarra**

## 3 (izen gisa)

Garailearen bozkariora dela **galtzailearen** pena eta nigarra. **Joan Mari Irigoien**

Garaipena hilotz eta samin pilaketaren sinonimo baizik ez denean, hobe **galtzaileen** arteko izatea, garaileen arteko baino. **Hasier Etxeberria**

**Galtzaile** baten historia. **Berria - Kultura**

**Galtzaile** duinen taldera. **Ramon Saizarbitoria**

Ni baino helduago batekin ikusi zutela goizeko ordu txikietan hiriburuan **galtzaile** sentimental eta gautxorientzat dauden ibiltokietan. **Joxean Agirre**

## 4 (izan aditzarekin)

**Galtzailea** ez da nahitaz koldarra; alderantziz, adoresua izan daiteke oso. **Ramon Saizarbitoria**

Andres Untzain 36ko gerratean **galtzaile** izan zirenetakoa zen. **Edorta Jimenez**

Zeren garaile izan nahi bainuen nik ere, ez **galtzaile**! **Joan Mari Irigoien**

## 5 (predikatu gisa)

Lance Armstrong **galtzaile**, behingoz. **Berria - Kirola**

Errusiarrek **galtzaile**. **Karlos Zabala**

Nahiago **galtzaile** bizi eta hil, zapaltzaile eta hiltzaile baino, Patri. **Hasier Etxeberria**

Jokoan **galtzaile** atera dadin. **Xabier Olarra**

Martxoan egindako kantonamendu hauteskundeetan ere **galtzaile** atera zen. **Berria - Euskal Herria**

Bere burua **galtzaile** eta deseroso senditzen duela aitortu nahi ez duen baina, irri horrekin, hala erakusten duen gizona. **Eneko Bidegain**

Koloreak **galtzaile** irten ziren antzina, gauzen kontra izan zuten borrokan. **Joxerra Garzia**

Estatu Batuek Bigarren Gerra irabazi zutela eta, ondorioz, Japonia eta Alemaniak **galtzaile** suertatu zirela. **Iban Zaldúa**

Munstroak hezur eta haragi egiten dira gauaren kontrako trabesean **galtzaile** gertatu direnen garunetan. **Aingeru Epaltza**

## 6 norbait galtzen duena.

Ez da inor berarentzat soilik galtzen, besteen galbide eta **galtzaile** gara bidenabar. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baina galtzaile** (4); **beti galtzaile** (4); **dira galtzaile** (3); **ere galtzaile** (5); **eta galtzaile** (11); **ez galtzaile** (4); **galtzaile atera** (12); **galtzaile atera zen** (4); **galtzaile aterako** (7); **galtzaile bakarra** (3); **galtzaile bat** (4); **galtzaile baten** (4); **galtzaile da** (3); **galtzaile eta** (5); **galtzaile irten** (5); **galtzaile izan** (14); **galtzaile izan zen** (4); **galtzaile izatea** (4); **galtzaile nagusia** (5); **galtzaile nagusiak** (3); **gu galtzaile** (3); **gutxietan galtzaile** (3); **lehian galtzaile** (3); **zuen galtzaile** (3)

**arbola petalo galtzailea** (3); **bi galtzaileak** (3); **da galtzailea** (3); **eta galtzaileak** (13); **eta galtzaileak** (6); **eta galtzaileen** (4); **eta galtzaileak** (7); **eta galtzaileak gabeko** (3); **ez galtzaileak** (3); **galtzaile izan** (3); **galtzaileen artean** (5); **galtzaileen arteko** (5); **galtzaileak gabeko** (3); **galtzaileak izan** (4); **galtzaileak izaten** (3); **irabazle eta galtzaileak** (4); **irabazlerik eta galtzaileak** (3); **kamelia petalo galtzailea** (3); **petalo galtzailea** (6); **zuten galtzaileak** (4)

**ala galtzale** (3); **aldiz galtzale** (4); **bi galtzale** (6); **bi galtzale hauk** (3); **bi galtzaleak** (5); **bi galtzaleak** (7); **bi galtzaileen** (3); **da galtzale** (3); **dira galtzaleak** (6); **dute galtzaleak** (9); **ere galtzale** (6); **eta galtzale** (8); **eta galtzaleak** (12); **eta galtzaleak** (7); **galtzale bat** (4); **galtzale bat behar** (4); **galtzale eta** (5); **galtzale hauk** (13); **galtzale izan** (4); **galtzale kanpo** (4); **galtzaleak aintzinean** (6); **galtzaleak aintzinean** (4); **galtzaleak baina** (3); **galtzaleak dira** (3); **galtzaleak ere** (9); **galtzaleak eta** (3); **galtzaleak ziren**

## **galtzaitza** iz **galtzailearen** egoera.

Zuenaren antzekoa, azken batean, gure **galtzaitza**. **Juan Luis Zabala**

## **galtzale** ik **galtzaile**.

## **galtzamantal** (orobat **galtza-mantal**) iz **lanjantzi bularrekoduna**.

Poza ematen zuen horrelako emakume eder bat kalera **galtza-mantal** zuri batekin eta flanelazko alkandora marradun batekin jantzita ateratzen zela ikusteak. Eta kalean **galtza-mantalekin** jantzita ikusi zaitudanean, pentsatu dut artista zinela beharbada. **Oskar Arana**

Margolariei beti gustatzen zaie **galtza-mantalak** janzteak. **Oskar Arana**

Alegia, feltrozko kapela, laneko alkandora kaki-kolorea, oihal bakerozko jaka eta **galtzamantala** erabiltzen zituen beti. **Koro Navarro**

Trizikloa hartu, eta laneko **galtzamantal** grisez bezeroei gure nekeetako kloruroa banatzen ibiltzeko. **Juan Garzia**

Dummyk behera begiratu eta inurri bat kendu zuen **galtzamantaletik**. **Koro Navarro**

## **galtzamotoz** ik **galtza 12**.

## **galtzaño** iz **galtzatxoa**.

Ikusten ez nuen Garaziren **galtzañoa** ezinago leuna iruditu zait, labaina; eta beroa, oso beroa. **Txillardegi**

## **galtzapen** iz **galmena, hondamena**.

Garaipenerako irrika handirik gabe, **galtzapenerako** beldur handirik gabe, eszeptizismo epeleko giro kutsatu batean. **Joseba Sarrionandia**

Ordea, badira biktoriak, galtzetik eta **galtzapenetik** gehiago dutenak eta ondore gaixtoak baizik ez dituztenak. **Joan Mari Irigoien**

## **galtzar** iz **altzoa**.

Eta guk ere, aitamen ganik, hekien **galtzarrean**, altzoan eta besoetan, Euskaraz ikasi ditugu gure otoitzak. **Xipri Arbelbide**

## **galtzarbe** (ETCn **416** agerraldi; orobat **galtzarpe** ETCn **16** agerraldi) iz **1** besoa gorputzari lotzen zaion alderdiaren azpialdea.

**Galtzarbea** makuluan bermaturik, eskua luzatu zidan. **Joan Mari Irigoien**

Urrutiko agintea baliatuz, sabaiko ibilgailua ohe gainera ekartzen du, izterrak eta **galtzarpeak** tinkatuz. **Berria - Euskal Herria**

New York Times **galtzarbean** jarriz, geltokiko berotasunera sartu zen. **Iñaki Zabaleta**

Joseba, poltsa **galtzarbean**, horien atzean geratu zen... **Iñaki Zabaleta**

Iztapeko eta **galtzARBeko** ilea erretzen genuen. **Koldo Izagirre**

Charlyk Ximurra zutiarazi zuen, esku bakar batez **galtzarbetik** atxikia. **Aingeru Epaltza**

Gutunazala jakaren **galtzarbe** ondoko patrikan gorde, eta hanka-puntetan egin nuen sarrerarainoko bidea. **Anjel Lertxundi**

Polizia bat ume bati heltzen ari zitzaion **galtzarbeetatik**. **Lopez de Arana**

Gaszte bik heldu naute orduan, sendo, **galtzarbeetatik**, lurretik altxatuz. **Txillardegi**

### **2** (jantzi batena)

Izerdi-putzu zabalak gelditu ziren agerian haren alkandoraren **galtzarbeetan**. **Joxan Elosegí**

### **3** **galtzarbe** **uhale**

Sable kaketua [...] harri biziz jositako **galtzarbe-uhale** liluragarri batetik zintzilik. **Karlos Zabala**

Aldamenean poltsa gorri bat, larruzkoa, **galtzarbe** -uhale gisakoa. **Joxemari Iturralde**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **galtzarbeetan** (3); **galtzarbe uhale** (3)

## **galtzari 1** iz **ligeta, galtzerdiei eusteko zerrenda elastikoa**.

Mutilek, barraren gainean jarrita ia, **galtzariak** ikusten uzteko eskatzen zioten eta ginebra eta lima hartzera gonbidatzen zuten. **Koro Navarro**

**Galtzari** berriak etxera eraman eta bertan egokitu beren zangoen neurria. **Koro Navarro**

Jostura paretik bide zetorkion, **galtzaritik** hasi ziurrenik eta zango-sagar erdialderaino. **Mirentxu Larrañaga**

Ezin sailkatuzko zerbait zeraman lepo inguruan loturik: galtzerdia izan zitekeen, edo **galtzaria**, edo gerrikoa, baina gorbataren antzik batere ez zuen. **Jose Morales**

**Galtzarian** aurkitu zen lokarria lekuz aldatuta zegoela, zankoa estutzearren. **Koro Navarro**

### **2** **galtzari-eusteko** **ligeta-eustekoa**.

Lehen, **galtzari** eustekoek-eta min handia egiten zuten, baina gaur egun ez dago halakorik ia. **Berria - Gaiak**

## **galtzarpa** iz **artzainen gatz zorroa**.

**Galtzarpa** sorbaldan zintzilik daramaten artzainen inmaterialitate hurbilak. **Itxaro Borda**

Plomuki hartan Balantsun agertzen zen, bildotsa bizkarrean zeramala, labrit xakurra saihetsean eta **galtzarpa** hutsalak sorbaldan. **Itxaro Borda**



# galtza, galtza, galtzatzen du ad

Gurdi batean bildurik, kostata darama zelaira, eta han ildotan zabalzen du edo mahatsondoak **galtzatzeo** erabiltzen. Joan Mari Lekuona

## galtzazpi (11 agerraldi, 7 liburutan; ETCn 49 agerraldi) iz pl azpiko jantzia, gerritik izterretarainoko galtza modukoa. ik **galtzazpiko; galtzoin; galtzontzillo; kulero; braga.**

Gizon oin-hutsak mahuka hutsean, **galtzazpiez** eta elastikoez jantzitako ume mordo bat. Koro Navarro

"Jantzi azkar", esan zidan; eta nik hankartera eraman nituen eskuak, hankartea **galtzazpiz** ongi estalia banuen ere. Inazio Mujika Iraola

**Galtzazpi** hutsetan nengoen eserita. Inazio Mujika Iraola

Gogorraz dezadan, bidenabar, antisemitismoa bezain aspaldidanikoa dela otoitz-janzkiaren laidoztapena: deportatuei soingainekook bahitu, eta haietatik **galtzazpiak** egiten zituzten SSek, eta gero Lageretan preso zeuden juduen artean banatzen. Juan Garzia

## galtzazpiko (5 agerraldi, liburu 2 eta artikulu 1ean) iz pl galtzazpiak.

**Galtzazpikoak** jartzen ari zen bitartean. Josu Zabaleta

Egin zuen jauzi hondarretara, sastraka artera, eta minutura gabe **galtzazpikotan** zegoen. Josu Zabaleta

## galtzazulo (ETCn 7 agerraldi) iz galtzen aurrealdeko irekidura. ik **brageta.**

Lasai-lasai belaunikatu eta arte-tratulariaren **galtzazuloa** ireki zuen. Oskar Arana

Gainerako begiraleek Koipemari deitzen dioten begiralea Beñat Mardori **galtzazuloko** botoiak askatzen hasi zitzaion behin. Anjel Lertxundi

Neure aurre-aurrean zegoen zutik, eta **galtzazulo** irekia ez zegoen nire aurpegitik berrogeita hamar zentimetrora. Oskar Arana

Dryer-en lanen erakusketak izandako harrera txepelaren ostean, **galtzazulo** -irekitzeak ugaritu egin ziren. Oskar Arana

## galtze iz 1 zerbaitez gabetua gertatzea; garaitua izatea.

**Galtze** guztiak irabaztea zirela. Itxaro Borda

Bere boterearen **galtze** eta errekupeateak. Joseba Zulaika

Badira biktoriak, **galtzetik** eta galtzapezetik gehiago dutenak eta ondore gaixtoak baizik ez dituztenak. Joan Mari Irigoien

Neure buruaren ezin ulertuzko **galtze** horren nahasmenduan. Jon Muñoz

Enetzat bederen ez zen **galtze** handia: arnoaren gustua galdua genuen! Marzel Etxehandi

Diru laguntzak ez die **galtze** guztia itzuliko. Berria - Ekonomia

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iparorratz ahul batekin zebilela ilunpean, itsumustuan, bide-**galtze** luzeak eginez. Joxean Agirre

Baina gizon **galtze** haundiak izan ziren ene erresimenduan, oinezko 16.ean, soldado eta ofizier. Michel Oronoz

Gorputzaren ahulezia, eritasun, izpirituaeren etsimendu, herio izurrite xahar eta haur ttipietan, kabala **galtze**, herriak ez zekien gehiago noiz arte iraunen zuen. Michel Oronoz

Fermin Eguren ez zidan sekula barkatu beraren adore-**galtze** haren lekuko gertatu izana. Juan Garzia

Lotsa **galtze** horretan ez zen Urkiolako erromeria bera ere salbatu. Koldo Izagirre

Baina bazen harengan arreta-**galtze**, sorraldi, destaina, zinezko krudelkeriarik. Juan Garzia

Ba ote da, ordea, duintasuna galtzea baino buru-**galtze** handiagorik...? Joan Mari Irigoien

Emazte bat, oro andeatua dago hamabi urte hetan odol **galtze** batekin. Xipri Arbelbide

Jende masa handi bat ikusten zuenean ezin zuen ekidin haien barrura sartzea, eguna zertan alferrik galtzen zuten imajinatzea, alferrik **galtze** horren kontzientzia edo kontzientzia ezari buruzko hipotesiak asmatzea. Harkaitz Cano

· AHTren proiektuak ekonomia lokalen, ingurumenari lotutako nekazaritzaren eta abarren **galtze** prozesua azkartuko duela. Berria - Euskal Herria

· Konortea erdi-**galtze** horiek mendeak erantsi dizkirate: agureen soseguan murgildurik nago. Josu Zabaleta

### 3 denbora galtze iz

Gainerako guztiak adabaki eta **denbora galtze** soil zirela. Hasier Etxeberria

Julian ez zen intelektual horietakoa, inondik ere; **denbora galtze** alferrikakoak iruditzen zitzaizkion nobela eta antzekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Segi ezazu, Morales, segi eta utz itzazu alde batera itzulinguruak eta alferrikako **denbora galtzeak**. Joxemari Iturralde

Guk karakol haiek irensten genituen abiada ikusita, neure buruari esan ohi nion sarritan ea ez ote zen **denbora galtze** izugarria Isidoraren lan hura guztia minutu urri batzuk besterik irauten ez zuen otordu goxo hura egiteko. Pako Aristi

-Tira, ez da izan erabateko **denbora galtzea**. Iñaki Mendiguren

### 4 galtzetan (izan...) galdutan (izan...).

Beti aipu baita hor gaindi burdin-bide zerbitzu batzuen kentzea edo ttipitzea, **galtzetan** direlako estakuruan... Berrikitzen agertu konduen arabera alabainan, jaz kasik 30 miliun euroren **galtzetan** izana da. Herria

Sokoaren kondu dago ere Eurosit lantegia, Nevers hirian, eta han, zombait urtez irabazian ateraturik, jaz **galtzetan** jalgi dira. Herria

Tratulantaren eraso bakoitzean prezioak oxka batez apaltzen zituzten, frankotan bildotsak **galtzetan** eskaintzeko. Itxaro Borda

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

buru **galtze** (3); denbora **galtze** (5); diru **galtzea** (4); diru **galtzeak** (4); eta **galtze** (3); **galtze aldera** (3); **galtze bat** (4); **galtze handia** (6); **galtze hori** (6); **galtze horren** (4); **galtze horretan** (3); **galtzeak eta** (7)

## galtzeaz adlag galtzeko zorian.

Utzikeria dela medio eta politika egokien faltan, **galtzeaz** dauden eta gure sukaldaritzaren betiko funtsa diren espezie eta produktu naturalak berreskuratzea. Ramon Saizarbitoria

San Franciscoko autobusa **galtzeaz** zegoen bikote urduri batek oparizat eman zizkigun txartelei esker. Javi Cillero

Laertesi belauak ahuldu zitzaizkion; semea besoez inguratu, eta Ulisesek eutsi egin zion, konortea **galtzeaz** baitzegoen. Juan Kruz Igerabide

Burua **galtzeaz** nago, larriaren larriz. hau hain zen harrigarria hainbat eta hain ongi mintzatu zen batengan, non batzuk larritu ziren, agian mintzamina **galtzeaz** edo are ahalmen hori arraso galdurik egongo ote zen. Elizen arteko biblia

**Galtzeaz** dauden espezieak. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**burua galtze** (5); **galtze dago** (4); **galtze daude** (3); **galtze dauden** (9); **galtze dauden espezieak** (3); **galtze den** (4); **galtze egon** (5); **galtze egon zen** (4); **galtze nago** (4); **galtze zegoen** (4); **konortea galtze** (6)

## galtzearren adlag galtzeko.

Orraztu ere egin nintzen, denbora **galtzearren** hain zuzen. **Joxe Austin Arrieta**

Dirua irabaztearren zatozte, ni dirua **galtzearren** nator. **Pablo Sastre**

Gorputza ahal zuen gogorren paretara zamatzu eta, berehala, besoarekin kasik moko egiten zuela uztaiaren euskarria ez **galtzearren**, ezkerreko zangoa ekarri zuen bestearen aurretik eskuinerantz. **Koldo Izagirre**

Kontzertu arina eta sendoa eskaini zuten bostek, ia atsedenek gabe kantuen artean, emozioaren bultzada ez **galtzearren**. **Berria - Kultura**

Europako Estatu-nazio ahulduak ere, Ameriketako Estatu Batuen eta Japoniaren aurrean lehiakortasuna ez **galtzearren**, behartuak aurkitu ziren proiektu komun bat osatzera. **Joseba Zulaika**

Telemakok, ordea, ezekoa eman zion, Laertes zaharraren bila denborarik ez **galtzearren**. **Juan Kruz Igerabide**

Nik, ordea, bizia emango nuke koaderno horiek ez **galtzearren**. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ez galtzearren** (23)

## galtzerdi 1 iz oina eta zangoa belauneraino estaltzen dituen jantzia.

Barruko arropa, eta **galtzerdi** zuri luzeak. **Koro Navarro**

Tenisak eta zure betiko **galtzerdi** zuriak kendu zenituen lehenik. **Patziku Perurena**

Ligeta-eustekoa eta **galtzerdi** beltzak jantzita. **Oskar Arana**

Zapatak kendu eta hankak goian jarri zituen une batez, **galtzerdi** haragi-kolore finak eta izter biribilen iturburua erakutsiz. **Felipe Juaristi**

Pasaratu behar omen zituen **galtzerdi** maiztuekin atera zen gelatik. **Anjel Lertxundi**

**Galtzerdiak** eta slipa erantzi nituen. **Joseba Urteaga**

Andrewk eta berak oinetako eta **galtzerdiak** isl isilik jantzi zituzten. **Anton Garikano**

Beste **galtzerdia** kendu eta jaurti egin zidan. **Juan Martin Elexpuru**

Ez neraman **galtzerdirik**. **Juan Martin Elexpuru**

Bera atzetik William Bankesekin, eta aurretik Minta, **galtzerdi** zulatuarekin. **Anton Garikano**

Artilezko **galtzerdiak**. **Felipe Juaristi**

Urratu bat ageri zuen zetazko **galtzerdi** finetan. **Mirentxu Larrañaga**

Zeta kaskarreko **galtzerdi** ziztrinak. **Mirentxu Larrañaga**

Emakume-**galtzerdi** batekin urkatu zuen bere burua. **Fernando Rey**

Gerrirainoko **galtzerdiak** eta titi-zorroak. **Oskar Arana**

Hanna eskolumea zen oraindik, belaunetarainoko **galtzerdidun** neskatoa. **Joxe Austin Arrieta**

Etxeoandreek ikasleen **galtzerdiak** pasaratzen zituzten. **Koro Navarro**

Puntuan ari zen, **galtzerdi** bat egiten. **Koro Navarro**

Puntu egiteari ere ez zion utzi: batzuetan **galtzerdi** pare bat, jaka bat hurrengoan; brodaturen bat egiten zuen bestela sarean. **Koro Navarro**

Galtzeta-burdinak **galtzerdian** sartuz. **Anton Garikano**

Tabakoaren, sardexka-labanen, izaren eta **galtzerdi**-oinetakoen estraperloan. **Patxi Zubizarreta**

## 2 galtzerdi luze oina eta zangoa belaunetik gora estaltzen dituen jantzia.

**Galtzerdi luze** zuri marradunak zeramatzan, ia-ia belaunerainoko gona tolesduna. **Fernando Rey**

Wendyk [...] hariak gordetzeko erabiltzen zuen saskiaren ondoan jarri zen; beti bezala, **galtzerdi luze** piloa, eta bakoitzaren belaunean zulo bat. **Julen Gabiria**

## 3 galtzerdi motz oina eta zangoaren behealdea estaltzen dituen jantzia.

Ezpainak pintatuta eramaten zituen eta kortxoak takoi altuak, brusa eta belauna agerian uzten zuen gona, eta oinetan **galtzerdi motzak**, nireak bezalakoak. **Pello Lizarralde**

Gure amak eta Veronikak **galtzerdi motzak** eramaten zituzten edo, batzuetan, haiek ere gomak. **Pello Lizarralde**

Artilezko galtza batzuk pijamaren gainean jartzeko, jertse gorria eta gona beltza, **galtzerdi motz** zuriak eta galtzerdi zulatu batzuk. **Josu Zabaleta**

**Galtzerdi motzak** zangoetan biribiltzen zitzaizkidan, oinetako ginetik itsuskiro ageriz, **Joxan Elozegi**

## 4 gerrirainoko galtzerdi ik kulero 3; leotardo.

Harri gorritzako etxearen barruko aldea emakumezkoen gailuen museo bizia zen, eta galeria anitz zeuzkan orotarik erakusteko: **gerrirainoko galtzerdiak** eta titi-zorroak, ile-lehorgailuak eta tanpoiak, makillaje-potoak eta expain-margoen hoditxoak, [...]. **Oskar Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artilezko galtzerdi** (3); **emakume galtzerdi** (3); **galtzerdi bat** (18); **galtzerdi beltzak** (6); **galtzerdi lodiak** (3); **galtzerdi marroi** (5); **galtzerdi marroi gorritza** (3); **galtzerdi motzak** (3); **galtzerdi pare** (16); **galtzerdi suizida** (3); **galtzerdi zuri** (6); **galtzerdi zuriak** (8); **osaba vernonen galtzerdi** (4)

**galtzerdia kendu** (4)

**artilezko galtzerdiak** (7); **eta galtzerdien** (3); **galtzerdiak erantzi** (4); **galtzerdiak eta prakak** (3); **galtzerdirik gabe** (6); **oinetakoak eta galtzerdiak** (6)

## galtzerditxo iz galtzerdi txikia.

Panpinari eskuineko **galtzerditxo** urdina erori zaio. **Iban Zaldúa**

## galtzeta iz 1 galtzerdia.

Hondoan, lepokoz, eskularruz, xalez, **galtzetaz** eta kutxiatila gardenetan babesturiko oihal-lorez pilaturiko tontor baten atzean gorderik, poltsa handi bat azaldu zen, nire amonarena. **Joxan Elozegi**

## 2 galtzeta burdina pl galtzeta egiteko galtzorratzak.

Hantxe eserita, besaulkian, **galtzeta**-burdinei batera eta bestera eragiten, galtzerdi marroi gorritzat egiten. **Anton Garikano**

**Galtzeta**-burdinak galtzerdian sartuz. **Anton Garikano**

## 3 galtzeta egin

Setheren ondoan eseri eta kotoi grisarekin **galtzeta** egiten hasi zen. **Anton Garikano**

Farre egin zuen, **galtzeta** eginez. **Anton Garikano**

## 4 galtzeta lan

Lanpararen pantaila egokituz argiak **galtzeta** -lanean jo zezan. Isilik eserita egon arren, **galtzeta** -lanei berrekinda. **Anton Garikano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**galtzeta burdinei** (4); **galtzeta egiten** (4)

## galtzetin iz galtzerdia, galtzerdi motza.

**Galtzetin** pareta bola eginda. **Joseba Sarrionandia**

Hirugarren apaleko **galtzetinen** artean arakatu eta hantxe izter erdira bitarteko galtzerdiak ikusi zituen, gorriak. **Jasone Osoro**

Oinetakoak jantzi, lehenik **galtzetinak** eta gero oinetakoak, noski. **Joxe Austin Arrieta**

## galtzoin (35 agerraldi, 5 liburutan; ETCn 56 agerraldi; orobat kaltzoin g.er.) iz pl galtzazpiak.

Eta orain, jaits **galtzoinak**, mon petit... **Joan Mari Irigoien**

**Galtzoinetako** zinta laxatu, atorra goratu, eta **galtzoinak** jaisten hasten nintzen bitartean. **Joan Mari Irigoien**

Gero, damaren gelan sartu, **galtzoinak** kendu, eta ohaburuan utzi zituen. **Joan Mari Irigoien**

Holandako oihal hobereenez egin **galtzoinak** soinean. **Elena Touyarou**

Gizona agertu zen, **galtzoinetan**, atorra estekatu. **Elena Touyarou**

Beren oihal etxoletarik **kaltzoinez** ateratzen ziren, ziztuan. **Itxaro Borda**

· Erdi biluzirik, **galtzoina** bakarrik soinean. **Eneko Bidegain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **galtzoinak** (4); **galtzoin halek** (3); **zituen galtzoinak** (3)

## galtzontzillo (corpusean ez dago; ETCn 126 agerraldi, horietatik 94 azken sei urteetan; orobat galtzontzilo ETCn 884 agerraldi, horietatik 171 azken sei urteetan; Euskaltzaindiaren Hiztegian galtzontzillo agertzen da) iz pl galtzazpiak. ik galtzontzilo.

·Oso ondo, Eugenio, erantzi prakak eta **galtzontzilloak**. **ETC-literatura, saiakera**

Bizpahiru alditan, **galtzontzillotan** ikusi nuen neure burua dendatik kanpo, erdi lo, hura guztia zer demontre zen itaunka. **ETC-literatura, saiakera**

Txirriken bidez mugitzen dituzte sokak, eta mutilaren **galtzontzilloak** neskaren kuloeroen parean geratzen dira. **ETC-literatura, saiakera**

Josebak Iratik baino lehenago lortu zuen nikia, galtzak eta **galtzontzilloak** erantzeta, eta ohe ondoko gau-mahaixoko kajoitik kondoi bat hartu zuen. **ETC-literatura, saiakera**

Aitak -durduzaturik eta **galtzontzillotan** - eta anaiarrebekek eginahalak egin zituzten ulertzeko zein ote zen nire erruz beren gain hartu behar zuten fardel hori, eta ama lasaitzen saiatu ziren, baina alferrik. **ETC-literatura, saiakera**

Eta hori ez zen okerrena: konturatu zen amets egin bitartean hazia isuri zuela, eta arropa kendu gabe zegoenez, **galtzontzilloetan** ontzi bat esne trinkotu bota izan balioet bezala sentitzen zuen hankarte. **ETC-literatura, saiakera**

[...] etxean nire ondoan ikusteak gizon kankailu motel hura, keinurik txikiena eginez gero obeditzeko prest zegoena beti, eta abaildua halere, beti esanekoa salbu eta arau funtsezko batzuk errespetatu behar zirenean, hala nola komuneko tapa altxatzea pixa egin baino lehen, bainuontzia garbi uztea edo galtzerdi eta **galtzontzillo** zikinak lurrean andalapuntaka botata ez izatea. **ETC-literatura, saiakera**

Pixontzi zahar bat, hainbat botila huts, erabilitako bizpahiru galtzerdi eta **galtzontzillo** zikin, mukiz eta haziz lohitutako kleenex lehor zenbait, eta, bestelako objektu txiki batzuen artean, hauts, tabako xehe, ogi-birrin, eta pubis-ile geruza gotor baten azpian, hantxe azaldu zen, azkenean, zorioneko gure/zure koaderno. **ETC-literatura, saiakera**

Ni **galtzontzillo** kakaztuak garbitzen, urde halakoa, eta bera hari etxebizitza txukuntzen. **ETC-literatura, saiakera**

## galtzontzilo (ETCn 884 agerraldi, horietatik 171 azken sei urteetan; orobat gantzontzilo ETCn 126 agerraldi, horietatik 94 azken sei urteetan; orobat gantzontzilo g.er., kaltzontzilo g.er. kaltzontzillo g.er. eta kantzontzilo g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian galtzontzillo agertzen da) iz pl galtzazpiak. ik galtzontzillo.

Arestiko galtza kirastuen orde, **galtzontzilo** luze batzuk jantzi nituen. **Aingeru Epaltza**

Prakak eta **galtzontzilo** urdin argiak erantzi nizkion hantxe. **Aitor Arana**

Fresko... horixe! **kaltzontzillo** luzeak ibili behar... **Pablo Sastre**

**Galtzontziloen** oihal finaren atzean. **Juan Martin Elexpuru**

**Galtzontzillotan** irten zaitezke oholtzara. **Unai Iturriaga**

Irudi erridikulu samarra zeukan, han gela erdian zutik kieta, **kantzontzillotan** eta kamiseta erdi jantzita. **Joxemari Iturralde**

Aski barregerria sentitzen nintzen Edurneren aitzinean **galtzontzilo** hutsetan. **Aingeru Epaltza**

Gizon errespetagarriak **galtzontzilo** hutsetan dagoela ere jarrai zezakek errespetagarria izaten. **Koldo Biguri**

Xaharra eskaileretara atera zen laster, atorra eta **kaltzontzilo** hutsean, aztoraturik. **Fernando Rey**

Karrajohan zeuden laurak, **galtzontzilo** hutsik. **Unai Iturriaga**

**Galtzontziloen** zirrikituan labaindu zuen eskua, eta zakila igurtzi zidan behatzekin. **Aritz Gorrotxategi**

Agerikoa zen **galtzontziloepen** biok zakila gogorturik geneukala. **Aitor Arana**

Monjaburuak agindu zuen ezetz, pikondoak kendu beharrik ez zegoela, baina pikoei banan bana **gantzontziloak** jantzeko. **Patziku Perurena**

· Baimena eskatu gabe, **galtzontzilotik** tiratu zuen, beheiti. **Aingeru Epaltza**

· **Galtzontzilo pare** guztiak jarri zituen [ordenagailuaren] botoien gainean, kotoizko galtzontziloak, botoiak babesteko. **Unai Elorriaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **galtzontzilo** (6); eta **galtzontziloak** (13); **galtzontzilo hutsean** (6); **galtzontzilo hutsetan** (8); **galtzontzilo hutsik** (3); **galtzontziloak erantzi** (7); **galtzontziloak ere** (4); **galtzontziloak eta** (3); **galtzontziloak jantzita** (3); **galtzontziloak kendu** (3); **galtzontzilorik gabe** (3)

## galtzorratz iz galtzeta burdina, puntua egiteko orratza.

Ero bat: ezin zitzaion beste modu batean deitu egun osoa **galtzorratzei** eragin eta eragin aritzen zen atso zahar bati. **Anjel Lertxundi**

## galtzu iz ahotza, lastoa.

Suak lastoa irensten eta sugarrak **galtzua** kiskaltzen duen bezala, halaxe ihartuko dira zuen sustraiak. Elízen arteko biblia

Lurrak goldatzen ari dira egunotan kartzela inguruko sailetan, batzuetan artzain bat ikusten da, ardiak **galtzu** zaharretan bazkatzen. Jokin Urain

## galtzuri (orobat galtzuri) iz gari zuria, irin zuria ematen duena.

Garagar, **galtzuri**, garagar gordin eta artatxikiz egindako ogi ugari izan zuten, edateko ur garbia, eta ahul zeudenentzat sagardoa urarekin, eta gainera babak eta barazkiak. Askoren artean

Uzta uztaeren atzetik: zekalearen ondotik **galtzuria**, garagararen ondotik oloa, eta kalamua ere badugu. Jose Morales

## galvaniko (ETCn 81 agerraldi; corpusean galbaniko soilik) izond elektrikoa.

Eta gorputzeko zuntz oro sentitu nuen ikara egiten batería **galbanikozko** hari bat ukitu banu bezala. Koro Navarro

## galvanizatu, galvaniza(tu), galvanizatzen (orobat galbanizatu) 1 du ad adoretu, bizkortu.

Gizarte bat gainbehera doanean ere, bere aurkako erasoak **galvanizatu** egin dezake ekintzara eta beste bizigarri bat gehiago eman. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio Egiptziakoa jada osatua zuen bizialdi baten luzapen ez-naturalera hikosoen inbasioaren astinduak **galvanizatu** baino lehenagoko garaira. Iñaki Mendiguren

Eta noizbait ezizuten bazuen etxalde batean arazo txiki edo handi bat sortua zela langile eta jabeen artean, hara joango zen korrika "masa **galbanizatzer**". Koldo Biguri

## 2 (era burutua izen gisa) elektrizitatearen bidez metal bat beste metal baten geruza mehe batez estaltzea.

Atzo goizean **galbanizatu** enpresa batek gai toxikoak isuri zituen Zumaiako Narrondo ubidera. Berria - Euskal Herria

## galzori 1 iz hondamendia.

–Gure **galzoria** nahi ditek [...] horregatik ez ditek sekula ezagutuko nire errukirik. Hasier Etxeberria

## 2 galzorian galtzeko zorian. ik galdu-gorde 2.

**Galzorian** dago Bizkaiko nekazaritza? Berria - Ekonomia

Euskal Herriko kulturaren alde garrantzitsu bat dago **galzorian**. Berria - Ekonomia

Bangkokoko bilerak konponbideak eratu ditu **galzorian** diren espezieen beharrei erantzuteko. Berria - Gaiak

Herri xumea da, noiznahi bere bizia **galzorian** duen herria. Piarres Xarriton

Gure herria zapaldua eta **galzorian** ikusten baldin badugu. Piarres Xarriton

Lupia, berdela, legatza, hegaluzea eta txitxarroa arrantzatzeke erabiltzen diren sareek **galzorian** utzi ditute delfin arruntaren espeziea. Berria - Gaiak

Ez bainuekan batere gogorik gure zuzendariari atsekabe sentimental bat emateko, are gutxiago haren tratu eta mesedeak **galzorian** jartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**galzorian diren** (3)

## gama 1 iz kolore eskala hurrenez hurrenekoa.

Beti **gama** baten barruan ibiltzen naiz, bata bestetik oso urrun ez dauden koloreekin. Berria - Kultura

Gauza guztiak grisaren **gamako** koloreetakoak baitziren. Xabier Olarra

Grisaren **gamako** koloreetan. Xabier Olarra

Orain hauek erabiltzen dira asko, **gama** honetan, edo honetan, hauek denak gaztainedukoak. Pablo Sastre

Nik badakit errealitatea ez dela gehienetan zuria edo beltza izaten [...] grisa baizik, bere **gama** osoan... Joan Mari Irigoien

## 2 sail bereko gauzen aukera.

Bien artean, kafesneen **gama** osoa; hori bai, hipertxarrak omen dituk urdailerako. Jon Muñoz

Produktu **gama** desfasatua, [...] eta Asiako zein Europako beste autogileen lehia gero eta gogorragoa dira Opelen egoera kaskarraren eragile nagusiak. Berria - Ekonomia

Gure [automobil] **gama** oso extensoa da. Karlos Linazasoro

## gamadun izlag gamatua.

Aleman soldaduek bazuten bandera gorri luze bat, "**gama**"-**dun** gurutzearekilakoa, alimaleko haga batetik dilindan, preseski Herriko Etxearen ondoan, han baitzuten beren "Komandantur"-a. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## gamartear izlag/iz Gamartekoa, Gamarteri dagokiona; Gamarteko herritarra.

Jenofa Berhokoirigoin **gamartearra** Roazhonen ekonomia ikasketak egiten ditu. Berria - Ekonomia

## gamatu izond gurutzeez mintzatuz, lau besoak ukondotuak dituen.

Hindu tenpluetan gurutze **gamatuak** harritu egingo zaitu pittin bat. Gotzon Garate

Nik ezabagaitz matrikulatzen ditiat Espainiako oxtabena guztietako nazi guztien besoak gurutze **gamatuarekin..!** Koldo Izagirre

Gurutze **gamatuak** nonahi, soldadu armatuak portuan barreiaturik. Harkaitz Cano

## gambiar izlag/iz Gambiakoa, Gambiari dagokiona; Gambiako herritarra.

Hondoratutako ontzietako batean 38 maliar, hiru **gambiar**, nigeriar bat eta bolikostar bat zihoazen. Berria - Mundua



# gamelu (orobat ganbelu g.er. eta kamelu g.er.) 1 iz basamortuko abere konkorduna (Gamelus bactrianus).

Hirira iritsi zenean, haren atean gelditu eta **gameluak** ur-putzu baten ondoan etzanarazi zituen. Jose Antonio Mujika

**Gamelu** gainean zegoen eseria. Jose Antonio Mujika

Jaiki ziren Rebeka eta haren mirabeak, **gameluetara** igo ziren eta morroiari jarraitu zioten. Jose Antonio Mujika

Jaiki zen, bada, Jakob, eta **gamelu** gainera igoarazi zituen seme-alabak eta emazteak. Jose Antonio Mujika

**Gamelu** baten urrats orekaturan kulunkatua, beste erritmo batean murgildu zen. Jon Muñoz

Harea finegia baldin bazen **gameluen** apoetarako. Xabier Aranburu

Hartu liburuak eta **gameluaren** bizkarrean esekitako zakueta gorde zituen. Xabier Aranburu

Harribitxiz zamaturiko **gameluak**. Elizen arteko biblia

**Gameluren** baten irrintzia entzute hutsak [...] izutu egiten baitzuten denak. Xabier Aranburu

**Gamelu** baktrinoak bi konkor dituzten **gameluak** dira. Berria - Gaiak

Hogeita hamar **gamelu** esnedun beren umeekin. ik gamelukume. Jose Antonio Mujika

Baina Rakelek orduko jainko-kuttunak hartu eta **gameluaren** txalman ezkutatuak zituen. Jose Antonio Mujika

**Gameluarentzako** bazka, ur-putzua edo datil-palmondoak zeuden inguruneetan. Jon Arretxe

Zaldia edo behia baino, **gamelua** haztea askoz merkeago omen da. Gotzon Garate

Basabere exotikoekin: zimino, lehoin, **kamelu**, ostruka eta bertze. Michel Oronoz

## 2 (hitz elkartuetan)

**Gamelu** -taldeen arduraduna Obil, israeldarra. Elizen arteko biblia

Buruko oihala jantzi zuen, eta **gamelu** -ilez eginiko uztai batekin tinkatu zuen. Xabier Aranburu

Joanek **gamelu** -ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko. Elizen arteko biblia

**Gamelu** zurdez ehunduriko jaka eta zamarra. Karlos Zabala

Tipoak **gamelu** -larruzko beroki bat zeraman jantzirik. Monika Etxebarria

**Gamelu** esnez egindako edari bat. Karlos Zabala

## 3 droga-trafikatzaile txikia.

Eguneko trafiko istripuen laburpenaren eta polizia hiriko Alde Zaharreko **gamelu** tikien kontra egindako azken sarekadaren kronikaren artean. Aingeru Epaltza

Zenbat **gamelu** ez ote ziren sarean erori, Montrolek burubide gaiztoa hartu zuelako? Javi Cillero

## 4 ganbelua.

Liskar bat izan nian dendako nagusiarekin, **gamelu** zahar hori... Lopez de Arana

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begitik gamelua igarotzea (3); bi gamelu (4); eta gamelu (8); eta gameluak (6); eta gameluaren (3); gamelu bat (5); gamelu eta (10); gamelu eta astoak (3); gamelu gainean (5); gamelu gainera (4); gameluak eta (5); gameluei ere (6); gameluentzat ere (5); hamar gamelu (3); mila gamelu (3); orratzaren begitik gamelua (4); zure gameluei ere (4); zure gameluentzat ere (4)

## gamelukume iz gameluaren umea.

Ikus zeure urratsak haranean eta aitortu zeure jokabidea; harat-honat dabilen **gamelukume** kaxkarinaren antzeko zara. Elizen arteko biblia

## gameluno iz droga-trafikatzaile txikia.

Hogei pilula flipagarri omen zeuzkan **gameluno** baten atxilotetari capo arriskutsu batenaren tratamendua eman behar izan nion. Aingeru Epaltza

## gameluzain iz gameluak zaintzen dituen pertsona.

Ulertu zuen mutilak **gameluzainak** adierazi nahi zuena. Xabier Aranburu

Beti bere alboan joan ohi zen **gameluzainaren** lagun egin zen. Xabier Aranburu

**Gameluzaina** naiz gaur egun. Xabier Aranburu

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esan zion gameluzainak (3); zen gameluzaina (3); zion gameluzainak (5); zuen gameluzainak (4)

## gameto iz sexu zelula, arra edo emea izan deitekeena.

Organoez gain bada, ordea, medikuntzan erabiltzen hasi garen bestelako balabide biologiko ugari: ehunak, zelulak, **gametoak** eta DNA laginak, nagusienak aipatzearren.

Berria - Gaiak

## gamma 1 iz greziar alfabetoko letra, g-ren kidekoa.

Alpha hizkia ezabatu zion lehen kantuari, beta bigarrenari, **gamma** hirugarrenari... eta horrela alfabetoko hogeita bost hizkiei akabua eman zion arte. Iñigo Aranbarri

## 2 izpi mota.

Zulo beltzak **gamma** izpien flash laburra sortzen du eta izpiok inguruko materiala jotzean X-izpiak sortzen dira. Berria - Gaiak

Astronomoen esanetan, supernoba baten **gamma** izpiek ozono geruza suntsitu eta erradiazio ultramoreen eragina handitu egin zen. Berria - Gaiak

X eta **gamma** izpien uhin luzera. Berria - Gaiak

Konpara dituzgun **gamma** izpiak espektroaren beste erradiazio motekin. Berria - Gaiak

**Gamma** izpiak, pentsatu zuen, bai inbentu itzela. Harkaitz Cano

X eta **gamma** izpien erradiazioak, ordea, ez du atomoaren energia aldatzen, baina elektroiekin topatu bezain laster, atomoa ionizaturik (elektroi gutxiagorekin) utziko du.

Berria - Gaiak

Iturri isotopiko batek bidalitako **gamma** erradiazioa hezurreen zehar igaroarazi eta distira-neurgailu baten bidez detektatzea. Irene Aldasoro

## 3 gamma funtzio

Lehen motako funtzio Euleriarra, edo beta funtzioa; eta bigarren motakoa, **gamma** funtzioa. Jon Muñoz

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta gamma (4); gamma izpiak (6); gamma izpien (6)

# gammagrafia iz gamma izpizko erradiografia.

Domínguez doktoreak gaixoa **gammagrafia** egitera bidali zuela gogoratzen du alargunak, eta emaitza negatiboa izan zela; alegia, hezurrak ongi zituela. **Imanol Zurutuza**

# gamuza iz eskularruak eta jantziak egiteko erabiltzen den larru fina eta ondua, berez sarrioarena.

Maitea makurtuta zegoen, bi eskuakin laztantzen zuela azal bustia, ukituta **gamuza** zirudiena eta ikusita tafeta zirudiena. **Anton Garikano**

# ganadu 1 iz abere multzoa. ik azienda.

**Ganadua** kanpoan bazegoen, kortan gordetzeko lana hartuz. **Ramon Saizarbitoria**

Danimarkatik 2.500 tona belar ekarriko dituzte bihar, **ganaduak** bazkatzeko. **Berria - Ekonomia**

**Ganadua** gizentzeko produktuak saltzea. **Berria - Euskal Herria**

Haurrek **ganadua** askan edatera eramateko prestatzen direla. **Josu Zabaleta**

Janari kutsatuekin elikatutako **ganaduak** gai kutsakorak pilatuko ditu. **Berria - Euskal Herria**

**Ganadua** ferian saltzera. **Koldo Izagirre**

**Ganadua** kamionetatik jaitzarazi, eta pabiloi handi batera eraman du. **Patxi Iturritegi**

Bazekien **ganadua** ongi gobernatzen. **Gotzon Garate**

Eskortak harrizkoak ziren; **ganadua** ugarria, argala eta adar-luzea zen. **Juan Garzia**

**Ganadua** perraten bere behar handia egiten eban. **Xabier Amuriza**

**Ganaduarentzako** belarra eta lastoa edukitzen du hor. **Bernardo Atxaga**

**Ganaduentzako** bedarrak egin, esate baterako. **Edorta Jimenez**

**Ganaduarentzako** bagoiak zeudean han zain. **Josu Zabaleta**

## 2 (mota adieraziz)

Baita **ganadu** xehean eta larrian ere. **Santiago Iruretagoiena**

Gehiegizko beroak erre egiten ditu landa guztiak; oso **ganadu** gorri gutxi haz liteke; beti daude laborantzarako aski **ganadu** ez izateko arriskuan. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (hitz elkartuetan)

Gauaz ateratzen ginen **ganadu** -jatekoak egitera. **Pako Aristi**

**Ganadu** putzuetako ur zikina besterik ez zegoen edateko sarritan. **Iñigo Aranbarri**

## 4 abelburua.

Eta ehiza ondoko gau bakoitzean, mendekuz bezala, bidaztiren bati erasotzen edo **ganaduren** bat hiltzen zuen piztia hark. **Josu Zabaleta**

Ukuiuko **ganaduren** baten ezinegona sumatu zuten. **Joxemari Urteaga**

Heliosen txahal eta **ganadu** gizenak ikusiko dituzue] **Juan Kruz Igerabide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

edo **ganadua** (3); eta **ganadu** (3); eta **ganadua** (5); eta **ganaduaren** (3); **ganadu eta** (3); **ganadu guztia** (3)

# ganadutegi 1 iz ganadua gordetzeko tegia.

**Ganadutegiek**, berriz, zabaleran ez dute hamar oin baino txikiagoak izan behar. **Santiago Iruretagoiena**

## 2 jabe jakin baten zezen multzoa.

Los Majadales **ganadutegiko** bost zezenek ez zutelako zezen plazan sartzerik gura. **Berria - Euskal Herria**

# ganaduzale iz ganadua hazteko ogibidea duen pertsona.

**Ganaduzale**, nekazari, eskulangile, arotz, zurgin eta tenpluetako zerbitzari dira. **Gotzon Garate**

Lan talde hori artzain eta **ganaduzaleen** eskariz sortu zen. **Berria - Euskal Herria**

Administrazioak **ganaduzaleei** eskaintzen dizkien dirulaguntzen datuak. **Berria - Ekonomia**

Salaketa horrekin, gainera diru-laguntza errazago eskuratuko dutela badakite **ganaduzaleek**. **Gotzon Garate**

Familia **ganaduzalea** zuen. **Joseba Sarrionandia**

## ganar ik ganer.

# ganba iz izkira.

Batzuetan, egunak eta egunak arituko ginen **ganba** jaten. **Ander Irizar**

# ganbara iz 1 baserrietan, teilatupeko solairua, batez ere aletegi gisa erabiltzen dena. ik txapitula.

**Ganbara** lekaz eta artoz betetzen. **Pello Zabala**

Ordurako ezkutatuak ziztitean, bakoitzak bereak, **ganbara** -ukuiuletan ezkutalekuren faltarik ez zuan izango-eta; bestela, berriz, gaztainondo zuztarren artean. **Pako Aristi**

## 2 etxeetan, teilatupeko solairuko gela, gordelekutzat erabiltzen dena.

Jontxuk esan zidan **ganbarako** kutxa zahar batean topatuko nituela aitonaren paperak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Ganbara** beti izan zen traste zaharrak gordetzeko erabilgia. **Joxemari Urteaga**

Ez dago sotorik, ez dago gelagoi, botika-atze, **ganbara** edo sabai ezkuturik. **Anjel Lertxundi**

## 3 bestelako eraikuntzetan, teilatupeko solairua.

Hotelak **ganbara** dauka hor goian, neronek ere ezagutzen ez nuena. **Bernardo Atxaga**

Hotelaren goiko solairua, "**ganbara**", oso sabai baxukoa zen, eta burua makurtuta joan behar izan nuen pasabide estu batean aurrera. **Bernardo Atxaga**

Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneke **ganbara** aretoan.

**Ganbarako** gela hura miazteko gogo biziz jaiki zen. **Joxemari Urteaga**



**Ganbera** musikako hitza bat da. **Ganbera** - Euskal Herria

Senatua **ganbera** autonomikoa bilakatzeko. **Berria** - Mundua

1877an gehiengoa bildua zuten gorriek diputatu **ganberan**. 1879an berriz, senaduan. **Xipri Arbelbide**

Uruguako Diputatuen **Ganberako** nazioarteko kontuen batzordean. **Berria** - Euskal Herria

Duela urte bat abiatu zuten Batzorde Federala Bundestagek (Behoko **Ganbera** edo Kongresua) eta Bundesratek (Goiko **Ganbera** edo Senatua). **Berria** - Mundua

Senatuak eta ordezkarien **ganberak** osatzen duten erakundeak aho batez onartu zuen ebazpena. **Berria** - Mundua

## 2 orkestrez, musikaz eta kidekoez mintzatuz, instrumentu multzo txiki bati dagokiona.

Suediako **Ganbera** Orkestra ariko da bihar Donostiako Kurasaalean. **Berria** - Kultura

BOSeko irakasleek osaturiko **ganbera** taldeek. **Berria** - Kultura

Iruñeko **Ganbera** abesbatza ere ariko da ziklo honetan. **Berria** - Kultura

**Ganbera** musikako zikloari hasiera emango dio gaur Jordi Savall da gamba viola jotzaileak. **Berria** - Kultura

Lekua: Kurasaaleko **Ganbera** aretoa. **Berria** - Kultura

Musika Hamabostaldiko **ganbera** zikloan. **Berria** - Kultura

Bilboko Orkestra Sinfonikoaren 2004-2005 **ganbera** denboraldia. **Berria** - Harian

Amodioaren eta heriotzaren gaineko **ganbera** -obra baten moduan, emakume gazte pasionatu batekin eta pasioa galdu duen gizon zaharrago batekin. **Oskar Arana**

Olga Clavel Madrilgo **Ganberako** Ballet Gaztearen lehen dantzaria da. **Berria** - Kultura

Euskara hutsezko **ganbera** opera. **Berria** - Kultura

**Ganberako** pop lasaia eta gardena gauzatzen du laukoteak. **Berria** - Kultura

## 3 gela.

Etetzar hartan nahi adina **ganbera** eta ohe genuen, ordea, inolako esturarik gabe, familiako guztiak ez ezik bertze hamar lagun gehiago bere hartan egokitzeko. **Aingeru Epaltza**

Oinazeagatik ere, betaurrekoen okerdura nabarmenagoa egin zitzaidan, jaiki eta berehala **ganberako** ispilu arrailduan neure burua ikustean. **Aingeru Epaltza**

Baina hotelean daukat **ganbara**, bero eta eroso. **Piarres Aintziart**

Motel likitsetako **ganbara** ilunetan. **Itxaro Borda**

Bizkitartean, Kogatra, Zardandaneke errege krudelaren haremeko **ganbara** gordeenean, leihotik kanpora so dago. **Aurelia Arkotxa**

Urrezko hariz apaindua zen **ganbara** batean ohean erdi-etzanik, gorputza urre perleria eta zilarrezko telaz eginak ziren bururdiko eta kuzinetan lizunki pausatua. **Aurelia Arkotxa**

Etxe-buruan **ganbara** bat kaperatu genuen, eta han meza egun guziez eman genezakeen. **Marzel Etxehandi**

Kapitainaren **ganbarako** luxua. **Edorta Jimenez**

Ikusi ditugu **ganbara** nagusiak (suite frantsesez), jateko salak, sukaldeak han lanean ari diren jendeak. **Herria**

## 4 (hitz elkartuetan)

Pariseko bosgarren estaietako neska **ganbaretan**, ezer ez da sobera. **Janbattitt Dirassar**

Ikastetxeetako lo **ganbarek** hoguei pertsona hartzen dituzte gehienez ere, eta begirale batek zorrotz zaintzen ditu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 5 apartamendua.

**Ganbara** txar bat banuen hartua Baionan, ez bainuen arrats guziz etxerat itzultzeko molderik. **Janbattitt Dirassar**

**Ganbara** txar bat, ohearen tokia doi-doi, eta beste bame bat, hau izanki sukalde, jantoki eta bulego. **Janbattitt Dirassar**

**Ganbara** hemen dut, laugarren estaian, erran zidan noizbait... **Janbattitt Dirassar**

## 6 gela modukoa.

Pentsatzen ari nintzen zerbait esan ote diezagukezun Sekretuen **Ganberaz**. **Iñaki Mendiguren**

Slytherinek **ganbera** ezkutu bat eraiki zuen gazteluan. **Iñaki Mendiguren**

Hilobi **ganbera** umel haiek erakusten zizkigun Palenqueko indio zahar hura. **Joxe Austin Arrieta**

## 7 gas ganbera ik kamera 5.

**Gas-ganberari** itzuri eginda ere, nekeak, ahuldadeak edo gaixotasunek hiltzea zen gauza arruntena. **Urtzi Urrutikoetxea**

Konboietatik jaitsi eta **gas-ganberetaraino** abian jartzen zirenen begitartea. **Felipe Juaristi**

Irudi horietan, errausteko labeetatik ateratzen den keaz gain, **gas ganberetan** sartzeko zain dauden presoak ageri dira. **Berria** - Kultura

Kontzentrazio eremuetan naziek **gas ganberak** erabili izana zalantzan jarri zuen atzo Bruno Gollnisch Fronte Nazionalako eurodiputatuak. **Berria** - Mundua

## 8 Kasazio Ganbera

Belgikako Justizia Epaitetik **Kasazio** Ganberak Raket Garcia eta Luis Moreno Espainiara ez estraditatzeko joan den hilean Akusazio Ganberak hartutako erabakia atzera bota eta eskaera berriz aztertzeke agindu du.

Hain zuzen, **Kasazio** Ganberaren azpitik dauden epaitetik Espainiak estradizio eskaera egiteko argudiatutako delituak zaharkituak geratu zirela ondorioztatu eta biak aske utzi zituzten joan den hilean. **Berria** - Euskal Herria

## 9 Komunen Ganbera Britania Handian eta britaniar erkidegoko herrialde batzuetan, herriak hautatzen duen ganbera.

lazko martxoaren 18an **Komunen Ganberak** «beharrezko baliabide guztiekin» gerra abiatzearen aldeko boza eman zuen. **Berria** - Mundua

Legebiltzarrak agindutako txostenaren inguruko eztabaida egin zen atzo **Komunen Ganberan**. **Berria** - Mundua

Lehen ministroa arrunt lasaituta azaldu zen **Komunen Ganberan** eginiako agerraldian. **Berria** - Mundua

Erresuma Batuko **Komunen Ganberako** buru eta Alderdi Laboristako diputatu Peter Hainek Beraz, erregea bakar-bakarrik sartu zen **Komunen Ganberan**, hango lehendakariari eskatzeko saldukeriaz akusatutik zeuden bost diputatuak atxilotzeko entrega ziezazkien.

## 10 Lorden Ganbera

Parlamentua bera ere itxuraldatu egin zuen erabat: **Lorden Ganbera** (jauntxo eta aristokraziarena) desegin, erregetza sekulako baztertu; errepublika izendatu... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Lorden Ganberak** Terrorismoaren Kontrako Legea arbuia du. **Berria** - Mundua

Londresko **Lorden Ganbera** aurka agertu arren, [...]. **Berria** - Mundua

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**auzitigiko ganbera** (5); **bigarren ganbera** (6); **daxa ganbera** (3); **donostiako kurasaaleko ganbera** (11); **du laborantza ganbera** (3); **dute ganbera** (4); **dute laborantza ganbera** (3); **eskubideen auzitigiko ganbera** (3); **eta ganbera** (6); **eta laborantza ganbera** (5)

**ganbera abesbatza** (4); **ganbera alternatibo** (3); **ganbera alternatibo** (3); **ganbera aretoa** (5); **ganbera aretoan** (16); **ganbera bakar** (3); **ganbera bat** (11); **ganbera batean** (7); **ganbera batek** (4); **ganbera baten** (9); **ganbera berezi** (4); **ganbera berezi bat** (3); **ganbera berrito** (3); **ganbera edo** (3); **ganbera eraikitzen** (3); **ganbera ere** (3); **ganbera eta** (11); **ganbera gehiago** (3); **ganbera hau** (3); **ganbera hori** (4); **ganbera horretan** (3); **ganbera horretan** (3); **ganbera ireki** (11); **ganbera ireki egin** (3); **ganbera kontzertu** (3); **ganbera kontzertuak** (3); **ganbera musika** (22); **ganbera musika eta** (3); **ganbera musikako** (6); **ganbera musikaren** (7); **ganbera nagusiak** (4); **ganbera nagusian** (3); **ganbera nagusiaren** (6); **ganbera nagusiko** (3); **ganbera opera** (3); **ganbera orkestra** (7); **ganbera orkestrak** (5); **ganbera sortu** (3); **ganbera sortzea** (4); **ganbera sortzeko** (3)

**atiko ganbera** (4); **eko ganbera** (6); **gas ganbera** (3); **herriko laborantza ganbera** (25); **iruñ kurasaaleko ganbera** (17); **kurasaaleko ganbera aretoan** (15); **laborantza ganbera** (6); **laborantza ganbera** (115); **laborantza ganbera batek** (4); **laborantza ganbera baten** (6); **laborantza ganbera berezi** (3); **laborantza ganbera eraikitzen** (3); **laborantza ganbera eta** (4); **laborantza ganbera sortu** (3); **laborantza ganbera sortzea** (3); **laborantza ganbera sortzeko** (3); **laborantza ganbera** (4); **merkataritza ganbera** (7); **oñ sekretuen ganbera** (21); **sekretuen ganbera ireki** (4); **suediako ganbera** (5); **suediako ganbera orkestra** (3); **zuen ganbera** (7)

**akusazio ganberak** (11); **apelazio ganberak** (4); **auzitigiko ganberak** (3); **comptos ganberak** (4); **departamenduko laborantza ganberak** (3); **du ganberak** (8); **du laborantza ganberak** (3); **du merkataritza ganberak** (3); **eta ganberak** (3); **eta industria ganberak** (4); **eta laborantza ganberak** (3); **eta merkataritza ganberak** (4); **ganberak bere**



(3); **ganberak eta** (16); **ganberak eta senatuak** (5); **ganberak ez** (7); **gas ganberak** (9); **gasteizko ganberak** (6); **gipuzkoako ganberak** (8); **gipuzkoako merkataritza ganberak** (13); **herriko laborantza ganberak** (7); **hiri jabetzaren ganberak** (10); **idahoako ordezkarien ganberak** (3); **industria ganberak** (4); **instrukzio ganberak** (10); **jabetzaren ganberak** (10); **kasazio ganberak** (3); **komunen ganberak** (4); **laborantza ganberak** (32); **laborantza ganberak ez** (4); **lorden ganberak** (6); **merkatal ganberak** (3); **merkataritza ganberak** (34); **merkataritza ganberak eta** (6); **monseko instrukzio ganberak** (3); **ordezkarien ganberak** (7); **ordezkarien ganberak eta** (5)

**arabako ganberako** (3); **atzo ganberako** (3); **baionako ganberako** (3); **departamenduko laborantza ganberako** (3); **diputatuen ganberako** (6); **eta ganberako** (4); **eta industria ganberako** (7); **etxarri ganberako** (3); **etxarri ganberako presidentek** (3); **ganberako burua** (4); **ganberako buruak** (4); **ganberako eta** (3); **ganberako kidea** (3); **ganberako lehendakari** (4); **ganberako lehendakaria** (3); **ganberako lehendakariak** (7); **ganberako presidente** (8); **ganberako presidentek** (13); **ganberako sarrera** (4); **ganberako zuzendari** (3); **ganberako zuzendari nagusiak** (3); **ganberako zuzendaria** (4); **ganberako zuzendariak** (4); **gasteizko ganberako** (3); **gipuzkoako ganberako** (4); **gipuzkoako merkataritza ganberako** (8); **industria ganberako** (7); **laborantza ganberako** (8); **maria etxarri ganberako** (3); **merkataritza ganberako** (31); **merkataritza ganberako presidente** (4); **merkataritza ganberako presidentek** (6); **merkataritza ganberako zuzendaria** (4); **ordezkarien ganberako** (4); **sekretuen ganberako** (4); **sekretuen ganberako sarrera** (3)

**atzo komunen ganberan** (3); **baionako merkatal ganberan** (3); **baionako merkataritza ganberan** (3); **bere ganberan** (9); **beren ganberan** (3); **diputatuen ganberan** (3); **eta ganberan** (3); **ganberan dago** (3); **ganberan eta** (3); **ganberan ez** (3); **ganberan sartu** (3); **gas ganberan** (4); **kasazio ganberan** (3); **komunen ganberan** (12); **merkatal ganberan** (7); **merkataritza ganberan** (8); **sekretuen ganberan** (5)

**eta laborantza ganberaren** (7); **ganberaren aldeko** (4); **ganberaren aurka** (4); **ganberaren egoitza** (4); **ganberaren eta** (4); **ganberaren gaia** (3); **ganberaren sorrera** (7); **ganberari buruz** (3); **ganberatik ateratzen** (3); **gipuzkoako ganberaren** (3); **gipuzkoako merkataritza ganberaren** (8); **herriko laborantza ganberaren** (15); **herriko laborantza ganberari** (3); **kontuen ganberari** (4); **laborantza ganberara** (3); **laborantza ganberarekin** (6); **laborantza ganberaren** (79); **laborantza ganberaren aldeko** (4); **laborantza ganberaren aurka** (3); **laborantza ganberaren gaia** (3); **laborantza ganberaren sorrera** (7); **laborantza ganberari** (11); **laborantza ganberarik** (4); **laborantza ganberaz** (3); **merkataritza ganberaren** (18); **merkataritza ganberaren egoitza** (3); **paueko laborantza ganberaren** (4); **sekretuen ganberara** (3); **sekretuen ganberari** (4); **sekretuen ganberaz** (4)

**bi ganberen** (3); **bi ganberetako** (4); **bi ganberetan** (6); **eta ganberetako** (3); **eusko ganberak** (8); **gas ganberetara** (3); **hiri jabetzaren ganberak** (4); **jabetzaren ganberak** (4); **merkataritza ganberak** (8); **merkataritza ganberen** (4)

## ganberaburu iz erregimen zaharreko kargua.

Hurrena, gobernadoreordea agurtzera joan zen, eta gero, prokuradorea, **ganberaburua**, poliziarburua, zerga-biltzailea, Estatuaren fabriken zuzendaria... **Jose Morales**

Kontuak kontu, gauzak azkartzeari dagokionez, Ivan Grigorievitx, **ganberaburua**, nire lagun mina da... **Jose Morales**

Horrek gidatuko zaituzte **ganberaburuaren** bulegora! **Jose Morales**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**esan zion ganberaburuak** (3); **esan zuen ganberaburuak** (10); **eta ganberaburuak** (4); **zion ganberaburuak** (4); **zuen ganberaburuak** (11)

## ganberazain iz gelazaina.

Bosgarren egunean, goizean goiz, Bertrand igorri genuen, amaren **ganberazaina**, afixa ikustera. **Koldo Izagirre**

## ganberro 1 izond oiesa, gaizki-ikasía.

Aitzakia gisa baino ez baititu hartu Shakespearek idatziak ikuskizun bikain, eder, alai eta **ganberro** hau sortzeko. **Beria - Kultura**

Hitzezko umorea lantzen dugu, sarkasmoa, ironia... eta batzuetan umore **ganberroa ganberroa** zentzu onean erabiltzen dugu. **Beria - Kultura**

Espazioko filmei barre eginez eta denok gogoratzen ditugun eszena batzuk era **ganberroan** parodiatuz. **Beria - Kultura**

Baina, Natxoren erantzunari aurrea hartuta, Koiote neskaengana hurbildu da korrika txikian, esku **ganberro** bat aurrera luzatuta. **Patxi Iturritegi**

### 2 (izen gisa)

Kalean noala **ganberroren** batek "batetikan korrozka, bestetik herrena..." edo "zuen txaloak beretzat dira, nire txapela ere bai" kantatzeak baino ondotox gehiago. **Andoni Egaña**

## ganbil 1 izond ikuslearen ikuspuntutik erdialdea ertzak baino urutiago dituena. ik konbexu.

Hamaika ispilu **ganbil**. **Beria - Kultura**

### 2 (izen gisa)

Barru-erditik **ganbillaren** une baterañoiko tartea arrerdia da. **Joxerra Garzia**

Tesi honen aldaera bat proposatzen du Eisensteinek [...] baita espazioarekiko harreman ororen historiari dagokionez ere, historia hori ahurretik **ganbilera**, barnetik kanpora (ukimenetik ikusmenera), egoera psikologiko "huts" batetik "betetasunaren" atzematerako pasabide gisa harturik. **Josu Zabaleta**

## ganbilbiko izlag bi aldeak ganbilak dituena.

Kristalinoa, optikaren ikuspegitik, konbergentzia aldagarria duen leiar **ganbilbiko** bat da. **Josu Zabaleta**

## ganbito iz xake jokoko jokaldia.

–Ah... –esan zuen, eta pentsakor jarraitu nire **ganbito** -irekierari nola aurre egin. **Joxe Austin Arrieta**

Zertan zetzan **ganbitoaren** estrategia bikaina. **Alberto Ladrón Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ganbitoaren estrategia** (3)

## ganboar (orobat ganboatar) izond/iz Ahaide Nagusien borroketan, Ganboako leinuaren aldekoa.

Oinaztar eta **ganboarren** zina. **Joxerra Garzia**

Erdi Aroko bandoen arteko liskarretan, Deban, Bustinagatarrak eta Iturzatarrak ziren **Ganboatar** eta Oinaztarren ordezkioak. **Martin Anso**

## ganboatar ik ganboar.

## ganden ik joan 25.

# ganderailu<sup>1</sup> (orobat kanderailu, gander) iz argimutilla.

Erretxin-suzi bat sutua zeukan burdinazko **ganderailu** handi bati eusten zion eskuan buru gainetik. **Koldo Izagirre**

San Pedro jaunaren Kofradiak» eman eta zur landu, polikromatu eta pirograbatuan egindako **kanderailu** erraldoia gordetzen duen erakuslehoaren ondoan. **Berria - Kultura**

Doi-doia ikusten nituen, bi **gandeler** haundi ekartzen zituzten. **Michel Oronoz**

## Ganderailu<sup>2</sup> ik Kanderailu<sup>2</sup>.

## gandhitar izlag Gandhiri dagokiona.

India gobernatzeko ardura zuten hindu-estatugizonak, mendebaldartzen ari zen munduko giro moralagatik, konponbide gizatiarrago bat hartzera behartuta aurkituko ziren, eta ez **gandhitar-malthusiar** konponbidea. **Iñaki Mendiguren**

## gandor 1 iz oilarraren buru gaineko konkor haragitsu gorria.

Oilar **gandorrez** eta giltzurrunez betetako opil bat atera zuten lehendabizi. **Josu Zabaleta**

Indioilarra batera eta bestera zebilen haien artean [...] noizean behin **gandorrari** leunki eraginka eta burua alde batera jiratur. **Jose Morales**

Oilategian oilartuta sumatu zuten **gandor** gorri eta harroko oilarra. **Joxemari Urteaga**

Oilategiak oilar gaztea behar du, **gandorra** berriz ere tentetuko duena. **Berria - Kirola**

Oilarraren **gandor** itxura duen mendiaren azken ertzaren gainean. **Koldo Izagirre**

Sartzen du eskua patrikan, eta kaskabilozko txano bat ateratzen du; buruan jartzen du, **gandorra** bezain gorri, eta lasterka alde egiten du. **Josu Zabaleta**

## 2 hed/hed

Haien kasko puntadunen **gandorrek** sugarrezkoak ziruditen, jauregiari zerizkion argi izpien dirdaiepean. **Karlos Zabala**

Diamantez jositako **gandorra** kaskoan ñir-ñir. **Karlos Zabala**

Foefar Khan bere zaldi kuttunaren gainean zetorren, aberearen burua diamantezko **gandorrez** apaindurik. **Karlos Zabala**

Ez gaitezen harritu, beraz, beroaldi eta trumoi-laino **gandor** biribildun horiekin batera, ekaitz purrustak sortzen badira arratsalde eta iluntzeotan. **Pello Zabala**

Gau hartan olatuak harro zebiltzan itsas pasabide honetan, taigabe **gandor** zuriak zakarki dantzatzu. **Pako Aristi**

[Kraterraren] ipar ertza, berriz, zeina mendiaren gailurra den, **gandor** biribildu bat da orain, eta lehen baino askoz garaiagoa dirudi. **Juan Garzia**

Kaminoan aurrera doala bi punky, buruan **gandor** izugarriekin, **gandor** gorri-gorriak. **Pako Aristi**

Ilea atzeraka orraztuta eramaten zuen, kizkurtuta buru gainean, gominaz basitua lokieta eta atzean **gandor** moduko bat eginez. **Koldo Biguri**

Eta ez ditut gustuko **gandorra** ematen duten horiek ere, bi izterrondoetako ileak moztu-moztuak eta erdikoak hantxe, indio seminola baten burua balitz bezala. **Karlos Zabala**

Eta olatuei, zaldi zuri ilara oldarkor, apar **gandorra** eransten zitzairen. **Txillardegi**

Momentu batez gelditu eta begira jarriz leiho luze eta distiratsuei eta ke urdineko **gandorrari**. **Anton Garikano**

Zeren bafada bat amastuz gero ke zurizko laino-**gandor** labur bi irteten baitzaizkizu sudurretik. **Juan Garzia**

Aurrera... -eta sukaldeko leihoa zabaldu nuen, **gandorra** gorri, oilartuta erabat-. **Inazio Mujika Iraola**

Fructuoso gero eta **gandor** -gorriago ageri zen. **Inazio Mujika Iraola**

**Gandorra** zuritu zitzaidan bet-betan. **Inazio Mujika Iraola**

Irakaspena, ez da **gandorra** behar baino gorago ibili behar. **Joseba Urteaga**

Frantziak ez zuen jadanik Deschampsik (Frantziako kapitain handia) edo Blancik (lapurtarraren eskuin eskua), eta Zidane gabe, inork ez zuen izan **gandorra** tentetzeko adorerik. **Berria - Kirola**

## 3 gandorra jantzi, jarri oilartu.

**Gandorra** jantzeko tentazioak ziztatu ninduen. **Aingeru Epaltza**

Atzokoan, ordea, **gandorra** Valeronek jarri zuen. **Berria - Kirola**

## 4 gandorra tentetu oilartu.

Frantziak ez zuen jadanik Deschampsik [...] eta Zidane gabe, inork ez zuen izan **gandorra** tentetzeko adorerik. **Berria - Kirola**

Oilategiak oilar gaztea behar du, **gandorra** berriz ere tentetuko duena, beste selekzio guztiak esnaraziko dituena. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gandor gorri** (5)

## gandortu, gandor(tu), gandortzen da ad gandor itxura hartu.

Eta hartarakoxe proportzio egokiak ditueneko, hodei puska hori, goialdetik **gandortzen** joango da, beroak gero eta torre-laino eta hodei motroilo lotsagabeagoak puzten eta gorakutzen dituela. **Pello Zabala**

## gandu 1 iz behe laino mehea.

Eguerdi inguruan, han hasten da **gandu** fin baten antzeko mintz xare bat. **Pello Zabala**

Lurretik **gandu** beroa altxatzen zela irudi zuen. **Karlos Zabala**

Baina etxera joan eta, Aturri gaineko **gandu** luzakorretako bakardade hartan, ezin etsi. **Txillardegi**

Berez, sartu ez, han urtu egiten zen eguzkia, **gandu** artean. **Joxe Austin Arrieta**

Eguerdia da, zeru erreari **gandu** lausoa dario. **Anjel Lertxundi**

Jimmyk jendez gainezka zeuden mahai batzuei behatu zien non aurpegiak **gandu** berdexka batean lausotzen baitziren. **Lopez de Arana**

Gero, Lexington Avenue-tik igaro ziren; han lasaitasuna zen nagusi, arrastiriaren ardo gorriaren koloreko **ganduan** murgildua. **Lopez de Arana**

Urdin koloreko **gandu** suntsikor bat. **Koldo Izagirre**

Hitz haixen zain egon balitz bezala, Steffiren irudia goitik behera erori zen, **gandu** bihurtu zen, lurrundu eta ezerezean desegin zen. **Anton Garikano**

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egun asko izango direla, bateko sirimirri eta besteko trumoi-erauntsi, euri **gandutan** pasatu beharko direnak. **Pello Zabala**

Inguru haiek estaltzen zituen hondar hodei eta itsas **gandua** zabalduxa egoteagatik, jakin zuen Almak ganbaratik erraz asko ikus zitekeela Westerborkeko patioa. **Felipe Juaristi**

Ahotik hats **gandua** botaz 110. kaleko geltokian sartu ziren. **Iñaki Zabaleta**

Uda-arratseko argi-**gandutan**. **Irene Aldasoro**

### 3 hed ik lauso.

Bi edo hiru minuturo **gandua** egiten zitzaion beturrekoetan. **Irene Aldasoro**

**Ganduaz** estaliriko kristal handietatik bestaldera luzatu dut begia. **Monika Etxebarria**

Sai baten begia zuen: begi urdin argi bat, **ganduak** lausotua. **Koro Navarro**

### 4 irud

Lozorrotik esnatzera doan bide lauso horretan, **gandu** artean sumatu nuen ate joka ari zen itzal bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zer egin pentsatu nahi zuen, baina buruak ez zion erantzunik eskaintzen, **ganduak** hartu balio bezala. **Joxemari Urteaga**

Bazekien paisaia beraren ikuspegi berri bat erakutsiko ziola oroimenak aldi oro, heriotzaren **ganduak** guztietan azkena lausotzen zion arte. **Imanol Zurutuza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gandu** (4); **gandu artean** (7); **gandu bat** (3)

## gandutsu izond ganduz betea.

Egun lasai, **gandutsua** zen; faroak izugarri urrun ematen zuen goiz honetan. **Anton Garikano**

Gero, ilargia, ilargi likatsua, baina izarrik ageri ez, egurats **gandutsuegi** hartan... **Joxe Austin Arrieta**

Irudi **gandutsu** bat besterik ez da. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bere baitan nagusi zen logalearen hesi **gandutsua** zeharkatuz. **Lopez de Arana**

Eta Aturriko hegietako bake **gandutsua**, gero eta pisuago. **Txillardegi**

## gandutu, gandu(tu), gandutzen 1 da/du ad (ganduz) lausotu.

Suei darien ke urdinak harana **gandutu** du. **Pello Lizarralde**

Eta berriro eguzkia hantxe, kristal esnetsu baten atzean bezala **gandutua**, lurrinezko sargoria, ikusi ere egiten zena. **Joxe Austin Arrieta**

Eguzkia, kotoizkoa irudi, likits eta beroa, ortzadar-inguru batez **gandutua**. **Joxe Austin Arrieta**

Farolxo haiek, zigarreten eta zigarroen lurrinetan **gandutuak**. **Joxe Austin Arrieta**

Bulego itxurako gela estu hura betetzen zuen zigarro-ke grisaxkak **gandututa**, Schenker doktorea ikusi nuen. **Alberto Ladron Arana**

### 2 hed/irud

Eskaileretan beherakoan beturrekoak oso **gandutu** zitzaizkion lurrunez eta kendu eta garbitu egin behar izan zituen. **Irene Aldasoro**

Une batez urduritasunak **gandutu** zion burua, baina laster jarraitu zuen berriaren haria. **Joxemari Urteaga**

Lajos heldu aurreko arratsaldea eta gaua **gandututa** agertzen zaizkit gogoan. **Ander Irizar**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Gaztetan Mediterranioko argiak luzaz gozatu izanak areagotu egiten zion egurats **gandutuaren** zama. **Josu Landa**

Haren irudiaren ertzak lausoturik zeuden eta Harryk leiho **gandutu** batetik zehar bezala ikusten zuen. **Iñaki Mendiguren**

Orduan hark onez onean begiratu zion beti bezala, begi berde axial **gandutuekin**. **Anton Garikano**

## ganer (orobat ganar) iz teilapeko ganbara.

**Ganerreko** gibebeko leihotik begira egon zen erne, ea gizon taldea noiz hurbiltzen zen. **Eneko Bidegain**

Burneteneako **ganarrean** (Nafarroa Beherean, **ganarrea** "ganbara da), 1920, 1930eko aldizkari pilak baziren, L'Illustrationenak bereziki **Ana Urkiza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**da ganer** (4); **da ganer huste** (3); **ganer huste** (14); **ganer huste bat** (4); **ganer huste helduden** (3); **ganer hustea** (5); **izanen da ganer** (4)

## ganga 1 iz luzetara edo zeharretara biribildua den sabaia. ik bobeda.

[Pilastren] gainean bermatzen dira galerietako gapiarioak eta teilatuak eusten dituzten habeak, **ganga** baino beherago geratzen direnak. **Santiago Iruretagoiena**

**Gangaren** erdian argia sartzeko irekidura bat utzi behar da. **Santiago Iruretagoiena**

Erromatarren **ganga** bidezko eraikuntza handi horren garapen zoragarria. **Santiago Iruretagoiena**

Hilobiko **gangaren** harri zapalak. **Patxi Zubizarreta**

Denen gainean, piramide gisako **ganga** harro bat. **Txillardegi**

Oraingoan, kandelaren argiari esker, koridoreetako horma biluziak eta harri beltzezko **gangak** ikusten ahal nituen. **Alberto Ladron Arana**

Bazen han [meatze-zuloan] nire eskuko hatzen luzerako estalaktitarik **gangatik** zintzilik. **Juan Garzia**

Puntu batean **ganga** abaildurik zegoen. **Juan Garzia**

**Gangako** giltzarri izateko balio izango lioke Frantziak munduari. **Josu Zabaleta**

Bigarren patioan barrena abiatu zen, ezkerretara, **gangaz** estalitako pasabidea zeharkatu ondoren. **Jon Muñoz**

Berriz argitu zen **ganga** esferikoa. **Jon Muñoz**

### 2 (hitz elkartuetan)

Gero bazarra bisitatu dugu, Irango handiena eta munduko zaharrena **ganga**-egitura dutenen artean. **Jon Arretxe**

Elisa pabiloiko **ganga**-formako korridore luzean barrena joan nintzen. **Joseba Urteaga**

Mirarik, Alex imitatuz, gurutzeria **ganga** miatu zuen, zer ikusiko. **Fernando Morillo**

### 3 hed

Izarrik gabeko zerua, hodeietako zeru-**ganga** gorrixka, hiriko argiak islatzen. **Jon Muñoz**

Nik ere ikusi nuen nola etzaten zen luze zeru **gangan** gure telegrafista, Zdeni?cka. **Fernando Rey**

### 4 irud/hed

Telebistan ikusiak ditut surfariak olatu **ganga** baten azpian segundo amaiezinak pasatzen, kamera geldoan. **Pako Aristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta ganga** (4); **ganga bat** (4); **ganga formako** (3); **gangen azpian** (3); **kanoi ganga** (3); **zeru ganga** (4)

## gangadun izond ganga duena.

Gela **gangaduneko** luze-zabalean. **Patxi Zubizarreta**

Harrera-gela huts baten antzekoa zen areto **gangadun** hotz eta handi batean bildu zituzten bostak. **Jose Morales**

## gangadura iz gangatzea.

Ebakidura hori geratzen den lekuan koka bitez pasabideen inpostak; horrekin behar adinako altuera izango du **gangadurak**. **Santiago Iruretagoiena**

## gangaila iz gingila.

Bat, bat, zart, zart, **gangailak** nituen bart, **gangailak** dabilzkit zart eta zart! **Anjel Lertxundi**

## gangape iz ganga azpia.

Ezta teilatupeek eta gaztainondoan **gangapeak** ere. **Anjel Lertxundi**

## gangar<sup>1</sup> izond ergela, harroa.

Barre algara **gangarretan** lehortuko dira Sabeth deitu nion hasieratik, Elisabeth izen osoa **gangarra** iruditzen zitzaidan-eta. **Xabier Amuriza**

Azkenik, Atenasko aldiriak, baina gure martxa ere gero eta motelagoa; semaforoak, betiko butxadurak, eta gure kamioia, bere hodi luze haiek dindilzka, beste ibilgailu guztiak baino **gangarrago**, noski, nahiz eta haiek serumik behar ez izan. **Joxe Austin Arrieta**

Hik zer uste dun, **gangar** horrek, Intermon-ekoak garela, ala? hemen norian ibili nahi duenak ordaindu egin behar din sarrera. **Patxi Iturritegi**

## gangar<sup>2</sup> iz gandorra.

Oilar beltza, luma horixka batzuk ere bazituena; isatsa, berriz, berdexka, eta **gangarra** benetan harroa. **Joan Mari Irigoien**

Galeoi frantsesa zen, haren aburuz, Frantziako oilarra, **gangarra** bere lekuan zuena -mastak eta belak, alegia-, eta galeoi espainiarra zen Espainiako oilarra, gangargabeturik zegoena. **Joan Mari Irigoien**

## gangar<sup>3</sup> iz \*\* eztarria.

Porruen antzera herrokan, denak hausten, pastilla urdin-zuri-gorritz edo konbikzioen arabera, berde-zuri-gorritz, **gangarra** kilikatzeraino asetzen. **Itxaro Borda**

## gangargabetu, gangargabe(tu), gangargabetzen da ad gangarra galdu.

Galeoi frantsesa zen, haren aburuz, Frantziako oilarra, gangarra bere lekuan zuena -mastak eta belak, alegia-, eta galeoi espainiarra zen Espainiako oilarra, **gangargabeturik** zegoena. **Joan Mari Irigoien**

## gangarkeria iz ergelkeria.

USAko amerikarrak zirela **gangarkerietan**, aldarrietan eta garagardo latei eusteko moduan igartzen zitzairen. **Edorta Jimenez**

## gangatu, ganga(tu), gangatzen 1 du ad ganga forma eman.

Kolomen arteko tartea **gangatu** egingo da. **Santiago Iruretagoiena**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Iparraldean, hortaz, komeni da eraikinak **gangatuak** egitea. **Santiago Iruretagoiena**

Dorreetako estalki **gangatuak**. **Santiago Iruretagoiena**

Bainu-askak dauden tokiko sabai **gangatuak**. **Santiago Iruretagoiena**

Hura gizon txikia zen, ahate baten modura zebilen eta ile beltz bakan batzuk zeuzkan, garezur **gangatuari** irmo atxikiak. **Lopez de Arana**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**sabai gangatuak** (6)

## gangatxo iz ganga txikia.

Barkatu, Zuzendari jauna, **gangatxoarekin** babesten utziko didazu? Haizetxo bat badabil! **Josu Zabaleta**

## gangor iz gandorra.

Dantzan eta jauzian erritmoz dihardutenean, **gangor** beldurgarriak buruetan astinduz. **Xabier Amuriza**

## gangrena iz gorputzeko ehunen usteltze eta hiltzea.

**Gangrena** sendatzeko bideak. **Harkaitz Cano**

Senarrari izurria opa zion, baztanga eta **gangrena**. **Koro Navarro**

Begia **gangrenak** jota bezala izango nuelako itxaropenaz. **Koro Navarro**



## gangrena(tu), gangrena(tu), gangrenatu (orobat **kangrenatu**) 1 da/du ad gangrenak jo.

Pitbull kume batek bi belarriak moztuak zituen eta ia **gangrenatuak**. Gotzon Garate

Iskemia bat zeukan eta atzamarra **gangrenatzeko** arriskua zegoelako egin zion ebakuntza Ander Letamendia doktoreak. Berria - Kirola

Ondoena zeudenak orrela, eta beste asko eta asko illak; eta beste mordo bat, berriz, otzarekin **kangrenatu** eta anakak moztuta, betirako ondatuta gelditu ziranak. Xabier Etxabe

## 2 (era burutua izenondo gisa) irud/hed

Azterantz erori zen dardaraka bere enbarkazioaren eskailera **gangrenatuan** behera. Joseba Sarrionandia

## gangster (ETCn 395 agerraldi; orobat **ganster** ETCn 22 agerraldi) iz Estatu Batuetan eta, mafiako edo gaizkile talde bateko kidea.

**Gangsterrek** burukipean gordetzen ditek beti trastea. Koldo Izagirre

Talamoni diputatu bat da, abokatu bat, eta **gangster** baten moduan tratatu dute. Berria - Mundua

Pépé le Moko-ko **gangsterraren** rol horrekin nazioarteko onespena jaso zuen kritikaren eta publikoaren aldetik. Berria - Kultura

**Gangsterren** generoa landu du (The funeral), eta Madonna izarrarekin lan egin du. Berria - Harian

Teresak, Dabid bihotzera tiro egin zidan **gansterra** dela oroitarazi dit. Patxi Zubizarreta

Berrikuntza, moderno izan nahia da ZPren bandera: musikatik hasita [...] hautagaiaren jantzira heldu arte (Siziliako **gangsterren** beltz iluna). Berria - Euskal Herria

Non-nahi **gangsterren** hierarkia, zurbil jarrazten eta aurpegia zein erraiki bihurtzen dizkizun injustizia zikina. Fernando Rey

## 2 (hitz elkartuetan)

**Gangster** giroan kokaturiko narrazio bat. Harkaitz Cano

Christopher Walken protagonista duen **gangster** istorio honekin lehenengo sariak jaso zituen. Berria - Harian

Ez dago hainbeste ezberdintasunik **gangster** filmekiko. Berria - Kultura

**Gangster** film gehiegi ikusi zituen neska hark. Harkaitz Cano

Aktoreren batek **gangster**-industriako filmean lanik egin nahi ez badu, berehalaxe entzungo du mehatxua: "Kontuz, zure aurpegi eder horretan azidoa eror liteke". Gotzon Garate

## gangsterismo iz gangsterren jarduera.

ETAren jarduera fanatismoarekin lotu, gatazkari izaera etniko eta arrazista erantsi, **gangsterismo** eta trafikante hitzak erabili... Berria - Euskal Herria

## ganibet (ETCn 412 agerraldi; orobat **ganit** g. er., **kanibet** g.er. **kanit** g.er. eta **kanibit** g.er.) 1 iz aiztoa.

Begia emanik zein armairutan ziren sukaldeko gauzak, katilu, koilara, sardexka, **ganibeten** ateratzen hasi ziren. Aurelia Arkotxa

**Ganibet** txar bat badut, gauza handirik mozten ez duena. Marzel Etxehandi

Baina gerrikoaren azpian errebolber bat zeukan ezkutaturik eta sakelara **ganibeta** luze bat, bai labanarekin bai jataganarekin antza duten horietakoa. Karlos Zabala

Inoiz erabili gabeko errebolber herdoildua magalean eta ontziko labana eta **ganibet** guztien aho zorrotz biluziak eskura. Xabier Mendiguren Elizegi

Aho zabaleko **ganibet** baten muturrez. Karlos Zabala

Alimaleko **kanibet** batekin pikatu du xorizo zerra. Piarres Aintziart

Baina neska gaztea, **ganibeta** eskuan, bizkarra paretaren kontra jarri eta defendatzeko prest agertu zaio. Karlos Zabala

Paulhac herriko serorak bularrean **ganibeta** sartu dio, herioan piztiari aurre egin dionean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Albertok esan zuen **ganibet** batez karrakatuz gastatu behar zirela zilindroak. Juan Garzia

Lurra zulatu zuen **ganibetarekin** izaki bizi hura hobitik ateratzeko. Karlos Zabala

Merkatari soila izateko, Korpanoff jauna, ederki dantzatzen duzu ehizako **ganibeta**! Karlos Zabala

Gure Gure kideak lo zeudela, guk **ganibetari** eragiten genion, gaua joan gaua etorri, beti lanean. **Ganibetak** haragia bezala tratatzen zituen hark arazo moralak. Juan Garzia

-Laburbilduz -Ttipik, **ganibeta** bezain zorrotz-: ez hion amore eman ahal izan izeba maitearekin azken bidaia egiteko gogoari. Aingeru Epaltza

## 2 ganibet ukaldi

**Ganibet** ukaldi garbi-garbia. Karlos Zabala

Pariseko udalbatuekoak erran du Delanoé jaunari **ganibet** ukaldia eman diola ez baititu maite ez politikariak, are gutiago gizon gizakioiak. Herria

Italiar anarkista batek zauritu zuen **ganibet** ukaldi batez eta hortarik hil zen. Herria

## 3 ganibet ukaldika adlag

Eta judu bat hil du ere palestinar batek Jerusalemen **ganibet** ukaldika. Herria

Nola burua galdua zukeen emazte batek **ganibet** ukaldika hil duen anai Roger, hango buruzagia. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **ganibeta** (4); eta **ganibetak** (3); **ganibet bat** (3); **ganibet handi** (4); **ganibet handi bat** (3); **ganibet ukaldi** (3); **ganibet ukaldika** (4); **ganibetaz ebaki** (3)

## ganibetazo iz adkor ganibet ukaldia.

Metrotik atera garenean **ganibetazoka** zebilen haize hotza. Harkaitz Cano

## gano iz gogoia, funtsa, ahalmena.

Ikusten da odol berritzen ari zaigüla hau, indüstriar ere, zorbaiten **gano** eta agoñuari esker. Sijet izateko **ganoak** oro badütü, erran nahi beita botz eder bat, taulada gainean ebiltako planta ederra eta eüskararen menperatze osoa. Herria

## ganora 1 iz zereginetarako arreta, funtsa, era egokia.

Egokorra zela eta **ganora** gutxiko gizona. Koro Navarro

Aski izango da esatea iritsi berriak egundainoko **ganora** erakutsi zuela bisitak egiteko orduan. Jose Morales

Orain **ganora** gehiagoz eragin behar diozu, kemen handiagoz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta, egia esan, diodan kanpaina honek badu taxurik eta **ganorarik**. Joxerra Garzia

Gutariko bakoitzak egunez egun han ziharduen bere lanean, **ganora** eskasez [...] beren egoaren alde ari ez direla dakitenez gertatzen zaenez. **Juan Garzia**  
Pitxerrei oharkabeki begiratu zien, gobadarako zerrendaz itaundu zion neskaleari **ganora** gabe. ik ganoragabe. **Mirentxu Larrañaga**  
Gutunazalaren zuria urratzen zuten letra ñimiñoek oso tankera bihurria zuten, **ganorarik** gabe egindako zirriborro beltzak bailiran. **Javi Cillero**  
**Ganorarik** gabeko ama denik inork pentsa ez dezan inguruko guztiei argibideak ematera behartua sentitzen den amaberriak. **Arantxa Iturbe**  
Egia da inolako **ganorarik** gabeko kontuak mintzagai nagusi bihurtu direla egungo gizartearen hedabideetan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 2 ganoraz adlag

Ez dut berarekin **ganoraz** mintzatzeko astirik izan. **Hasier Etxeberria**  
Jo egiten zuten eta jaten ere ez zioten **ganoraz** ematen. **Gotzon Garate**  
Buruko errotaria atzera eta aurrera dabilkio Agirreri, eta horrek egunkariak **ganoraz** irakurtzea eragozten dio. **Edorta Jimenez**  
Bazekien leku guztietan **ganoraz** jokutzen. **Jose Morales**  
Hauxe da bizarra **ganoraz** kentzen dudan lehenengo aldia. **Lopez de Arana**  
Afaldu bi tartean ez zuen plater bakarra **ganoraz** bukatu eta neu ere larri ibili nintzen eskatutakoa amaitzeko. **Hasier Etxeberria**

## 3 ganorazko izlag

Txantxa giroan, **ganorazko** ezer esan gabe. **Jon Arretxe**  
Gau osoan ez dut ezer **ganorazkorik** jan. **Lopez de Arana**  
**Ganorazko** zerbait egin izan banu, gaitz erdi; baina hor egon nauk buru-buztanik gabeko zozokeriak esaten eta pentsatzen. **Jose Morales**  
**Ganorazko** lana bilatzeari ekin beharrean, nola edo hala moldatu ziren eskolan bertan bekadun lana lortzeko. **Jon Arretxe**  
Aurreko garai horietatik bertso solteak baino ez ditugu ezagutzen, eta hori ez da aski **ganorazko** azterketarik egiteko. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**  
–Eta **ganorazko** arrazoirik baduzue Ogareff koronela Siberian dela pentsatzeko? **Karlos Zabala**  
Sekula ez zioten **ganorazko** oparirik egin, ezta pastelxo bat ere... **Iñaki Mendiguren**  
Itsaspekoak hantxe ziren, gaeuz atzera eta aurrera irratiz hizketan aditzen genituen eta, alemanez, baina gutariko inork **ganorazko** alemanik jakin ez. **Edorta Jimenez**  
Oso zaila da, baina kezkabako planta egitea zenuke **ganorazkoena**. **Josu Landa**

## 4 ganora eza mug

Itto egingo nintzen Ritarik gabe, neure **ganora** ezaren saldatan, une batetik bestera. Toki ikusgarri batera heltzen zirenean bakarrik uzten zion aitak bere ohiko **ganora** ezari, eta, kalesatik jaitsirik, talaiarik egokienera igotzen ziren biak. **Hasier Etxeberria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**du ganorazko** (4); **eta ganora** (6); **eta ganoraz** (10); **eta ganorazko** (8); **ez zuen ganorazko** (3); **ezer ganorazkorik** (6); **ganora barik** (3); **ganora gabe** (6); **ganorarik ez** (4); **ganorarik gabe** (10); **ganorarik gabeko** (4); **ganoraz egin** (5); **ganoraz egiteko** (6); **ganoraz eta** (7); **ganoraz jan** (4); **ganoraz ulertzeko** (3); **ganorazko arrazoirik** (3); **ganorazko ezer** (15); **ganorazko ezer esan** (3); **ganorazko zerbait** (4); **ganorazkorik eta** (3); **gauzak ganoraz** (6); **zuen ganorazko** (4); **zuen ganorazko ezer** (3)

## ganorabako izond ganoragabea.

Jimmyren aita apur bat **ganorabakoa** zuan, kirolaria zuan... Ez naiz atera aita bezain **ganorabakoa**, eta ederki dakit bakarrik moldatzen, ama gajoak besterik uste duen arren. **Lopez de Arana**  
Ikasle bizimodu **ganorabakoa**. **Jon Arretxe**  
Zuen askatasun purtzil **ganorabako** horrek? **Juan Luis Zabala**  
Artikulutxo bat egiten ari naiz astekari **ganorabako** batentzat. **Unai Iturriaga**  
Hitzontzirik **ganorabakoena** gauza baita bururik sakonenarekin nor baino nor lasai aritzeko eta bereari gogor eusteko. **Patziku Perurena**  
Lehen **ganorabako** koadrila ederra juntetan zan karrera horretan, baina orain nota onenak daukezanak bakarrik sartzen dira. **Jon Arretxe**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ganorabako bat** (3)

## ganorabakokeria iz ganoragabekeria.

Norberaren tentelkeria, nartzizismoa, **ganorabakokeria**, kontzientziaren ausikia. **Markos Zapiain**  
Neure **ganoragabekeriak** badaki noizbait bizitzaz. **Patziku Perurena**

## ganoradun izond ganoratsua, ganoraz betea.

Hona hemen gure arteko etxeoandre klasiko **ganoradun** batek, oro har, familiaren elikadura dela eta, izan dituen zereginak. **Edorta Agirre**

## ganoragabe izond ganorarik ez duena.

Bihotz-gogorrek ziren, zakarrak, traketsak, moldakaitzak, **ganoragabeak**, ezdeusak, zarpailak, makurrak. **Jose Morales**  
Hantxe zebiltzan atzera eta aurrera dozena bat neska nabarmen, **ganoragabe**, liikits eta ikusgarriro makilatu. **Juan Garzia**  
Behar nuena bezalako aterpea zen hura: berria, garbia, modukoa eta munduko beste edozein hotel bezain **ganoragabea**. **Hasier Etxeberria**

## ganoragabekeria iz ganoragabearen nolakotasuna; ganorarik gabeko egitea.

Eguerdi aldera, hainbat eta hainbat langabetu irtenen ziren kalera, [...] urtetako lanezak **ganoragabekeria** mozkortzen ziela. "Ahatekume itsusi baten gogoetak" izango da **ganoragabekeria** hauen izenburua. **Iñaki Zabaleta**

## ganoratsu izond ganoraz betea, ganoraduna.

Rafa gu baino askoz ere **ganoratsuagoa** duzu, eta seguru aski ez zaio gizalegezkoa irudituko arrazionamenduaren kontura txantxetan ibiltzea. **Josu Landa**  
Eguraldia sargori, aterako niela freskagarriren bat; berotuko niela otordu **ganoratsua**, zabalduko nizkiela bi ohe... **Anjel Lertxundi**

## gante ik guante.

# gantxorren

Komunera jo nuen lasterka, oka egitera, baina **gantxorren** usainak are nahasiagotu zuen nire urdaila. **Joxan Elozegi**

## gantxo 1 iz kakoa.

Ekonomika gainean eltzeta lurruna dariola, kako batean txapa irekitzeko **gantxo**, paretan Arantzazuko egutegia... Pareta guzian **gantxoak** baziren, harategietan behikia dilindan ezartzeko bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Makila ukaldika hiltzat ekartzen zituzten gizagaizoak **gantxoetan** lotu eta igogailu batetik goiti igortzen zituzten. **Eneko Bidegain**

Sutako **gantxo** goritu. **Pello Zabala**

Eta atzamarrak! eskumako erpurua soinu hegalarren azpira ezkutetan zala, beste laurak ez eitekean pentsau burdinazko **gantxoak** ez ziranik, botoietan gora eta behera hain bizkor mogitzen ikusi ezean. **Xabier Amuriza**

## 2 irud erakargarria.

Hasi ginenean dantzariak berehala atera ziren dantzara eta jendearentzako hori komodin bat bezala izan zen, **gantxo** bat, haien anparoan jendea dantzan hasi zen, euskal dantzak, zortzikoak, bultzada bat behar zuten. **Berría - Kultura**

## 3 arropa bustia eskegitzeko eta abarrerako gailua. ikpintza 2.

Harrika egin nion olio-lata huts bati Grigorescu andrearen **arropa** gantxoekin. **Berría - Kultura**

**Gantxoak** sokan, adibidez. **Koro Navarro**

Bizikletak karterrik ez zuenez [...] **gantxoak** jartzen zituen goizean galtza barrenetan, eta ez zituen gehiago kentzen egun guztian. **Juan Garzia**

Alargunak ileko **gantxoarekin** mehatxatu eta eskulotu egin du. **Koldo Izagirre**

## 4 pilota jokoetan, pilota besagain jotzea.

Olaizola II.aren **gantxoari** aurre egitea, dena den, zaila zen atzo Labriten. **Berría - Kirola**

Titinen zabaleko **gantxoak** jasotzera joateaz gain. **Berría - Kirola**

Tanto batzu xoragarriak egin ditu ezker **gantxo**. **Herria**

**Gantxoak**, boleak, txokoan dejadak. **Berría - Kirola**

Gaitzean zen Capellan, sekulako kintze andana trenkatu du berak, airez eta **gantxo** alde guzietara. **Herria**

Handik irten, eta sake erretoan lortu zuen **gantxo** Aimarrek 22.ena. **Berría - Kirola**

Denetara ari zen, paretarat, xokorat ala **gantxorat**. **Herria**

## 5 (boxeoan) kakoa. ik krotzet.

Hara hor eskumako masailean krotzeta, to oraingoan ezker **gantxo** birikaren azpiko saihetsean, eta bat-biko azkarra gibelean, batez ere sabelean, ezker-eskuma andana. **Josu Landa**

–"Emaio, pulga, emaiok!" esaten zidan entrenatzaileak behin eta berriz borrokaldietan, ikusleen orroez inguratutik, "sartu ezker **gantxo**, pulga, horrela, emaiok!". **Jon Arretxe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **gantxo** (3); **ezker gantxo** (6); **ezker gantxo** (3); **gantxo bat** (3)

## gantz 1 iz gai koipetsua, erraz urtzen dena, animalien gorputzeko hainbat ehunetan eratzen dena.

**Gantza**, gai biguna izaki, berehala urtzen da. **Jose Morales**

-Zure gorputzak beharko lituzke zapatila ukaldi horiek, **gantza** urtu dakizun. **Patxi Zubizarreta**

Eta gero bero bolada ikaragarri hura, gizakiak **gantz** urtzeko baltsa bilakatzen zituena. **Monika Etxebarria**

Ezpain lodiak eta masail biribilak zituen, dena zuen koipe eta **gantz**. **Anjel Lertxundi**

Koipe fin hori, nola ez, umeen **gantzetik** bakarrik atera zitekeela. **Bernardo Atxaga**

Gehienetan etxean ez zen eta **gantzik** edo oliorik izaten, eta esnegain edo segoarekin moldatu behar izaten zuten etxeoandreek janaria maneatzeko. **Pako Aristi**

Bihotza zanpatzen dizun **gantzak** hilko zaitu. **Patxi Zubizarreta**

Hasieran **gantza** edo xaboia ematen zioten sokari. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Lagun faltsu urrikalkorrek galduak ditudala jada eta mundua neure begiz haztatzea eta onartzea dagokidala, gogoaren urrakoa **gantza** beroz josten saiatuz. **Itxaro Borda**

Gela atsegina eta epel batean, **gantzezko** kandela xume baten argitan. **Jose Morales**

Gezuratu egin dute **gantz** gehiegiko jakiak jateak bularreko minbizia sortzen duela. **Berría - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gantz** apurrik ez gorputzean. **Aingeru Epaltza**

Animalien **gantz** ehunetan. **Berría - Gaiak**

Dermisaren azpian, **gantz** -geruza bat dago. **Irene Aldasoro**

**Gantz** parrastada ugaltzen ari zen gaualdiaren hasieratik. **Karlos Zabala**

**Gantz** sunda zerion, haragi onaren urrin geza. **Karlos Zabala**

· Txerri **gantz** ontzia eta okela errearen koipearena ondo lerrokatu zituen. **Karlos Zabala**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txerri **gantza** eta garbantzu batzuk ekarriko ditut. **Jon Maia**

Kainek lurreko fruituen eskaintza egin zion Jaunari eta Abelek, bere aldetik, artaldeko lehen bildotsak eta ardi-**gantzak** eskaini zituen. **Jose Antonio Mujika**

Akerren odolez eta aharien giltzurrun-**gantzez**. **Elizen arteko biblia**

Emakumea kastore-**gantz** astunaren pean loguraturik etzaten da. **Xabier Amuriza**

Bi eltze txerri **gantz** abian jarri ondoren. **Karlos Zabala**

## 4 (testuinguru teknikoetan)

**Gantzak** eta karbohidratoak ez dira hain zailak prozesatzen. **Irene Aldasoro**

**Gantzen** hausturatik sortua izanik glizerina, metabolizatzeko eta kaloriak hornitzeko modukoa izan behar zuela. **Juan Garzia**

Esteatosisa, labur esanda, gibelean **gantza** pilatzeari deitzen zaio. **Berría - Gaiak**

Etxean ditugun garbitzeko xaboi-hautsek bezala, elikagaietako olioak eta **gantzak** emultsionatu egiten dituzte behazun-gatzek. **Irene Aldasoro**

**Gantza** gutxitzeko gene terapia aztertzen ari dira AEBetako eta Suitzako zientzialariak. **Berría - Gaiak**

Normaliki jaten ditugun lipidoak jatorria animalietan daukaten **gantz** saturatuak dira. **Berría - Euskal Herria**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enhunka gramo batzuk **gantz**-azido lapurtuak nituen, barrikadaren beste aldeko nire lankideren batek parafinaren oxidaziotik neke handiz lortuak. **Juan Garzia**

Omega-3 izeneko **gantz**-azidoek alzheimerria saihets dezaketela iragarri zuten atzo Kaliforniako Unibertsitateko ikertzaileek. **Berría - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat txerri gantz (3); bere gantza (4); dagoen gantza (6); dagoen gantza eta (5); dute gantz (3); eta gaineko gantza (4); eta gantz (9); eta gantza (7); eta gantzak (6); eta gantzen (3); gaineko gantza (6); gaineko gantzarekin (5); gantz asko (4); gantz azido (5); gantz eta (3); gantz gehiegi (6); gantz gutzia (3); gantz guztiak (5); gantz horiek (3); gantza eta (8); gantza eta gibela (5); gantza urtzen (3); gantzak erre (3); gantzak eta (4); gantzaren poto (3); giltzurrunak gaineko gantzarekin (5); itsatsia dagoen gantza (5); oparietako gantzak (3); oparigaien gantzak (3); txerri gantz (8); txerri gantza (4); zen gantz (3); zerri gantza (3)

## gantzadun izond gantza duena.

alkandora garestia ezin zuen urteetan zehar hazitako urdail **gantzaduna** ezkutatu. **Sonia Gonzalez**  
Eskua, armaren gisa, bizkar **gantzadunean** pausatu nion. **Itxaro Borda**

## gantzaki iz gantzazko zerrenda.

Eta Imanol [...] gizenegia zegoen begibistan zeukan udan txirringalak eta **gantzakiak** lotsarik gabe erakusten ibili ahal izateko. **Berria - Kultura**

## gantzatsu izond gantza asko duena.

Irriak dardarazten ninduela, eskuak izter **gantzatsu** horien gainean ezarri nituen. **Aingeru Epaltza**  
Masaila **gantzatsu** eta erriak. **Lopez de Arana**  
Haren sabelalde **gantzatsua** gelatinaren antzera inarosten da. **Itziar Otegi**  
Gero eta gehiago gizentzen ehun pezetako menu **gantzatsuen** eraginez. **Bernardo Atxaga**  
Ekografia bat egiten zaio, eta, gibel **gantzatsua** badu eta organoa handituta badu, esteatohepatitisa du. **Berria - Gaiak**  
Besikula txikien zelula-paretak arrautza zuringoaren molekula **gantzatsuekin** egin dituzte. **Berria - Gaiak**

## gantzu iz ukendua.

**Gantzu** eta usain goxo merkez igurtzen dituzte beren buruak. harri guztiak harribitxi eta ur guztiak **gantzu** gozo balira ere. **Gotzon Garate**  
Zirze zerritegira joan zen; banan-banan **gantzu** igurtzi, eta bizarrak erori zitzaizkien nire lagunei, berriro gizaki bihurturik. **Juan Kruz Igerabide**  
Arbola horietarik heltzen diren fruituak janez eta fruitu horiekin egiten den **gantzuari** esker, bortzehun urtez bizi daitezkeela. **Aurelia Arkotxa**  
Partalier guztiak, seme zaharrena buru dutela, bekokia **gantzu** gorritz tindaturik daramate. Espiritu berria isuri da aukeratu bion bion bion eta salbamen **gantzu** izan dira igurtziak, Kristoren zerbitzari santuak. **Gotzon Garate**

## gantzudura 1 iz ukendua.

Zer da nahi duzuna? / Zauriontzat ukendu edo **gantzudura**. **Xabier Olarra**  
Jainko-graziaren **gantzudura** zetorkiola sumatu zuen. **Askoren artean**  
Irakasten zioten pertsona beneragarriek gozotasun handi bat eta **gantzudura** xarmagari bat nabarmendu zuten harengan. **Juan Garzia**

### 2 gantzutzea

Eta isuri gainera olioia, Aaronen gainera bezala, nire apaiz izan daitezzen; **gantzudura** honen bidez, betiko izango dira apaiz belaunez belaun. **Elizen arteko biblia**

## gantzuketa iz gantzutzea.

Orduan, hain zuzen, bat-batean iritsi zitzaion Jainkoaren mendekua edo, hobeto esanda, Jaunaren **gantzuketa**. **Askoren artean**  
Zelanok hitz-jokoa egiten du ultio (mendekua) eta unctio (**gantzuketa**, igurtzia) hitzen artean. **Askoren artean**  
Urrezko aldarea, **gantzuketa** -olioa, intsentsu usainsua, etxolaren sarrerako oihala. **Elizen arteko biblia**  
Gorpu-**gantzuketei** buruzko tratatuaren egilea. **Anjel Lertxundi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gantzuketa olioia** (15); **gantzuketa olioia eta** (6); **sagarapenatarako gantzuketa olioia** (3)

## gantzuki iz gantzia, ukendua.

Ez lelo guztien doinu leunak, ez lore, **gantzuki** eta lurrinen usain gozoa. **Imanol Unzurrunzaga**

## gantzutsu izond gantzuz betea.

Nork ezagutzen du, nik ez bada, samurtasun horien gozotasun, eromen, estasi ikarati, haragizko, ideal, gizonarena baino gehiagokoa; eta nork lore miresgarrien haragi arrosa, haragi gorri, haragi zuri miragarriro desberdin, hauskor, bakan, fin, **gantzutsuetan** emandako musu horiek? **Josu Zabaleta**

## gantzutu (ETCn 261 agerraldi), gantzu(tu), gantzutzen 1 du/da ad zernahi gai koipetsu edo oliotsuz igurtzi.

Zerri-koipez **gantzutu** dut. **Jose Morales**  
Gizon ile-zuri batek bizkarreko zauriak olioaz eta ukenduz **gantzutzen** zizkidala. **Joan Mari Irigoien**  
Ezaxola, gurinaz **gantzutu** nuen croissantik hurbilena. **Aingeru Epaltza**  
Eta haren bular oparoak ere **gantzutu** nituen nire ontziko ukenduarekin. **Anjel Lertxundi**  
Orduan, lurretik jaiki zen Dabid, bainatu eta usain gozoz **gantzutu** zen, eta jantziak aldatu zituen. **Jose Antonio Mujika**  
Ez dadila nire ahoa izan, neure burua **gantzutuko** duen gaiztoen olioia. **Imanol Unzurrunzaga**  
Emakume batzuk erantzi egiten zituen gerritik gora, **gantzutzen** zizkien eztiarekin bularra eta bizkarra eta lumak jartzen zizkien; besteei ilea moztzen zien edo breaz **gantzutu**, eta gero bizkarrean itsasten zien. **Koro Navarro**

### 2 hed

Medikuek ere, haurrei asentsio belar higuigarria eman nahi dietenean, edontzi ertzak ezti likore gozoz eta beilegiz **gantzutzen** dituzten bezala. **Xabier Amuriza**



Berdin ezpainak, gorri apal ene iduriko z berri batez **gantzutuak**. Aingeru Epaltza

### 3 irud

Gure doktrina Pierideen hizkuntza ahogozagarrian azaldu eta Musen ezti gozoz **gantzutu** bezala egin nahi izan dizut. Xabier Amuriza  
Lanpostua lortzeko, goian daudenak diruz ongi **gantzutu** behar dituzu. Gotzon Garate

### 4 (norbaít, errege bihurtzeko)

Tzadok apaizak eta Natan profetak **gantzutu** dezatela han Salomon Israelgo errege. Iñaki Mendiguren  
Nik **gantzutu** zintudan Israelgo errege, eta Saulen eskuetatik askatu. Jose Antonio Mujika  
Hara heltzean, **gantzutu** Hazael Siriako erregetzat. Elizen arteko biblia  
Hartu zuen Samuelek oloz beteriko adarra, eta **gantzutu** zuen bere anaien aurrean. Jose Antonio Mujika  
Apaizek erregeak **gantzutzen** dituzten bezala, / jendailaren gidari diren zerriak ere hala. Xabier Olarra  
Joax, errege izateko **gantzutua**. Elizen arteko biblia  
Moisesek eman zion apaizgoa Aaroni, olio sakratuz **gantzutuz**. Elizen arteko biblia  
Horiek **gantzutu** eta sagaratu zituzten apaiz-zerbitzurako. Elizen arteko biblia

### 5 (zerbait, sagaratzeko)

Bet El-go Jainkoa naiz ni, non harria **gantzutu** baitzenuen eta niri boto egin. Xabier Kintana  
Gauza desiragarrienen aldarean betiko santutuak, **gantzutuak** eta edertuak. Iñaki Segurola

### 6 (era burutua izenondo gisa)

Biguna naiz, errege **gantzutua** izan arren. Elizen arteko biblia  
Salomon Israelgo errege **gantzutua**. Elizen arteko biblia  
Zalantzarik gabe, aurrean du Jaunak bere **gantzutua**. Elizen arteko biblia  
Jaunak du epaituko lur osoa, bere erregeari emango dio agintea, jasoko du bere **gantzutuaren** kopeta. Elizen arteko biblia

### 7 ile-gantzutu

Perfumaturik eta ile-**gantzuturik** zegoen. Juan Garzia  
Espainian legionario ibilitako tipo ile-**gantzutu** eta andrezaile batekin. Juan Garzia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ere **gantzutu** (3); errege **gantzutu** (9); eta **gantzutu** (5); **gantzutu behar** (3); **gantzutu egin** (3); **gantzutu eta** (7); **gantzutu zuen** (5); **gantzutu zutela** (3); **gantzutu zuten** (5); **gantzutzen dituzten** (3); **gantzutzen dituzten bezala** (3); **gantzutzen zaitu** (3); **gozoz gantzutu** (3); **israelgo errege gantzutu** (4); **jaunaren gantzutua** (6); **jaunaren gantzutuari** (4)

## gantzutze iz zernahi gai koipetsu edo oliotsuz igurztea.

Baina ez aita jesuitaren otoiitzek, ez haren **gantzutze** suerte haiek guztiek [...] erdietsi zuten Mattin bere onerat ekartzea. Joan Mari Irigoien

## gapirio (orobat kapirio g.er.) iz teiltuaren zurajejan, gailurretik alboetara doazen hagetako bakoitza.

Zutabeak eta **gapirioak** marroi ilunez margotuak dauzka, eta sabai txurian ageri. Txillardegí  
Eta eliza osoki inguratuz, **gapirioak**, habeak eta latak ageri, egurrezko aterpearen euskarri. Txillardegí  
Gailurreko habea eta –saihets hezurren irudiko– albo banatako **gapirioak** besterik ez zen geratzen [teiltatu] haietako batzuetan. Jose Morales  
Plasta-plasta erortzen zen igeltsua; agerian zeuden **kapirioak**. Anton Garikano  
Teiltuaren azpian, espazioa handia bada, tiranteak eta **gapirioak**; tamaina ertainekoa bada, gailurra jartzen da, eta teiltatu-hegaleraino ateratzen diren astazaldiak; astazaldien gainean, petralak; hauen gainean, eta teilen azpian, **gapirioak**, kanpora ateratzen direnak eta paretak estali eta babesten dituztenak. Santiago Iruretagoiena  
[Pilastra] horien gainean bermatzen dira galerietako **gapirioak** eta teiltatuak eusten dituzten habeak, ganga baino behegero geratzen direnak. Santiago Iruretagoiena  
Han hemenka itaitzurak, **gapirio** batzu mutzituak edo irinduak, paretak tokika arrailduak... Herria  
Eta ikusten zuen, halaber, bere nortasunari eusten zioten habeak eta **gapirioak** ahulegiak zirela urakanari aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **gapirioak** (9); **habeak eta gapirioak** (3)

## gar (ETCn 8.034 agerraldi) 1 iz erretzen ari den zerbaitetik altxatzen den eta sutan dagoen gas masa argitsua. iksugar.

Rosak txiskeroaren **garra** hurbildu zuen ezpainetara eta zigarroak su hartu zuen astiro. Aritz Gorrotxategi  
Sutegiko **gar** gorriak. Juan Garzia  
Su orok izaten duela gora igotzen den **garra**. Santiago Iruretagoiena  
Ke hutsa zen, **gar** bakoa. Koldo Izagirre  
Kandelaren **garrak** dardar egin du, eta harekin batera aretoko itzal-argiek. Pello Lizarralde  
Atean bertan gelditu zen orduan ere, **garra** dardarka zuen kandela bat eskuan. Ander Irizar  
Albertok, zenbait astez soldadore-talde batekin aritua baitzen lanean, esplikatu zidan oxiazetileno-hodien puntan muntaturik joaten direla, **garra** pizteko. Juan Garzia  
Etxeko su itzalgailuarekin **garrak** amatatzen saiatu zen. Berria - Euskal Herria  
**Garrak** ikaragarritzko ziztuan hedatu ziren, haurrak ihes egin ezinean harrapatuta. Berria - Mundua  
Ikaskideak infernuko **garretatik** salbatzeko. Joxean Sagatzizabal  
Baina bat-batean, **garra** zurbildu, eta oso bestelako usain bat aditu zen. Juan Garzia  
Eskuan beroa sentitu ohi duzu **garra** ikusi gabe ere. Joan Mari Lekuona  
Suak etxe sapaletaraino jauzi egiten eta **gar** bizkorrez zurak eta zutabeak mihizkatzen dituenean. Xabier Amuriza  
Mingain gorri **garrezkoak**. Pello Zabala  
Su eta **gar** da maitasuna, Jaunarengandiko sugar. Elizen arteko biblia  
ik behegero 7. Askoren artean  
Erran gabe doa bigarren etxe horretan ere ohea prest zegoela aspaldian, supazter eder bat lagun, dena **gar** eta pindar. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### 2 (izenondoekin)

Ba al dago, izan ere, deus ederragorik suaren **gar** bizia baino? Imanol Unzurrunzaga  
Sutan **gar** goriek xigor zaitzaten. Xabier Amuriza  
**Gar** dardarati haiek. Alberto Ladron Arana  
Poxpolaoren **gar** txiki horri. Xabier Mendiguren Elizegi

Su ahulak **gar** handi batez orbanen zion aurpegia. Karlos Zabala

Ahotik **gar** izugarriak ok eginez. Xabier Amuriza

**Gar** ikaragarrizko sua ikusi zuen. Askoren artean

Kandelen **gar** luzeak dardarka ari dira. Xabier Olarra

Sarritan oinaztuak etxe sabaiak sutzen ditu eta **gar** bizkorrek etxe osoa menperatzen dute. Xabier Amuriza

**Gar** kedartsuaren gainean. Juan Garzia

Eta haragizko desiraren su motelduak **gar** haserreak harrotu zizkion zainetan. Irene Aldasoro

Zura moztean, kea eta hautsa ikusi behar lirateke, eta bertan ezkutaturiko **gar** niminoak. Xabier Amuriza

### 3 (irudietan)

Bizirik nengoen oraindik, eta nigan, makal eta erdi itzalita baina horratik izekita zegoen zerbait, bizitzako **garra** esan ohi denez. Urtzi Urrutikoetxea

Maitasunezko txoria **gar** bat da, bere hegalez ukitzen dituen bihotzak sutzen dituena. Fernando Rey

Itxaropenaren **gar** ahula gerizatuko duen amets baten premia gorrian. Xabier Montoia

Etz dago errusiarrarena bezain hitz esanguratsu eta adierazgarriak, bihotzean hain sakon erroturik, hain **gar** bizia darionik. Jose Morales

**Gar** zalantziati gisa agertzen ziren musu hartan gorritzeak. Juan Garzia

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gar** ildo luzeak. Xabier Amuriza

Su baten **gar** -dantzari begira. Juan Garzia

Suaren **gar** -dirdiraz eta itsasoaren ñabardura higikorrez. Juan Garzia

Zeru-lurrak **gar** -itsaso. Fernando Rey

Harrizko hormak Gringottsekoak bezalako **gar** -zuziek argitzen zituzten. Iñaki Mendiguren

### 4a (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziskoren arima maitasun-**gar** harrigarriz beterik gelditu zen. Askoren artean

Egungentia iristean, espiritu-**gar** eta kezka harekin, hitz horiek errepikatuz sartu zen elizan. Askoren artean

Bere senera etorri zen eta bihotz-**gar** handiz esaten hasi zen: [...]. Askoren artean

### 5 karra. ik kar<sup>1</sup>.

Burua altxatu zuelarik, **gar** berezi batekin hasi zen: [...]. Daniel Landart

Orain berebiziko kemenez ari zen jotzen, zeukan **gar** guztiarekin, harexentzat jotzen ariko balitz bezala edo. Josu Zabaleta

Errebeldiaren **garra** odolean bertan piztua banu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazeukan Lilyk zerbaiten ukitua; zerbaiten **garra**. Anton Garikano

Amorruaren **garrak** sututa, hiltzeko sekulako tirriak menpean hartuta. Fernando Rey

Egungentia iristean, espiritu-**gar** eta kezka harekin, hitz horiek errepikatuz sartu zen elizan. Askoren artean

Bere senera etorri zen eta bihotz-**gar** handiz esaten hasi zen: [...]. Askoren artean

### 6 garretan adlag garra dariola.

Pinuz egindako etxeak **garretan** zeuden. Karlos Zabala

Hegazkina **garretan** zegoen. Josu Zabaleta

Egurtean sua pizten denean, eta egurra **garretan** jartzen, ilinti bizi bihurtzen du, suak egurra urritu egiten du. Joan Mari Lekuona

Itsasoz bestaldea, mendiaz harandia ere suz estali eta kiskali zituen... Loreak **garretan** ireki ziren. Fernando Rey

Eguzkia sartu berria zen, eta oraindik ere **garretan** zegoen odoiartzaren kontra bere gailurrean guztiz monumentu bikain bat duen harkaitz harrigarri haren isla marrazten zen. Josu Zabaleta

Fernando aragoiar azpi-sugearen ordeez -infernuko **garretan** kiskaliko da agian!- Karlos Habsburgokoa flandestarra zegoen espainolen buru. Aingeru Epaltza

Suz eta sufrez **garretan** dagoen aintzira. Elizen arteko biblia

### 7 su eta gar adlag

Nabarmenkeria hutsa zen Parisko hiriguneko etxe batean **su eta gar** sartu eta bi agente harrapatzen saiatzea. Alberto Ladrón Arana

Hans **su eta gar** aritu zen bere giltza eta ziri bildumarekin, izerditan blai eta ahapeko madarikazio ulertezinak botaz. Alberto Ladrón Arana

Galdera mordo egin zidatek hitaz, baina nik **su eta gar** defendatu haut. Jose Morales

Hala ematen genuen aditzera Eusko Gudariak, ukabila gora, **su eta gar** kantatzean. Xabier Montoia

Nire zakila gehiago handitu zen, goizeko eszena etortzen zitzaidan, eta **su eta gar** jartzen ari nintzen, berak zupa eta zupa jarraitzen zuen. Juan Martín Elexpuru

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten **gar** (3); bere **gar** (4); eta **gar** (37); eta **garra** (12); eta **garrak** (5); eta **garrez** (4); eta **garrezko** (3); **gar bat** (5); **gar bizi** (3); **gar eta** (11); **gar handi** (3); **gar hura** (4); **gar taldeak** (3); **gar urdin** (3); **garra eta** (7); **garra itzali** (4); **garra itzali eta** (3); **garrak eta** (5); **garren artean** (5); **garretan suturik** (3); **garretan zegoen** (5); **garretan zen** (3); **garretan zeuden** (4); **haren garra** (3); **haren garrak** (3); **kandelaren garra** (3); **kandelaren garrak** (3); **maitasun garretan** (3); **su eta gar** (26); **su garrak** (3); **su garretan** (4); **su ta gar** (48); **suaren gar** (3); **ta gar** (48); **ta gar eta** (6); **ta gar taldeak** (3); **zen gar** (4); **ziren garrak** (4); **zuen gar** (3); **zuen garrak** (4)

## gara<sup>1</sup> iz belar landareetan, loreari eusten, erdian ateratzen den zurtoina.

Arbiaren **garak** dira arbigarak, eta zinez dira jaki ederra.Ez deskuidatu, beraz, lizar-**gara** eta garañoei punttak traskailtzen. Joxerra Garzia

## gara<sup>2</sup> iz ipar geltokia.

Bat **garako** xefa-ordea zen, beste bat erretegiko hilkien disekatzaile. Marzel Etxehandi

**Garako** enpleatuak. Marzel Etxehandi

## garabi iz 1 garabi astunak altxatuz higitzeko erabiltzen den den tresna.

Suhiltzailteariko batek keinu egin zion zubi gainean zegoen bere lankideari, eta honek **garabia** abiarazi zuen. Aingeru Epaltza

Kablea bildu ez ezik, **garabiak** bere besoa ere birarazi zuen eta gorpua guregana ekarri zuen, airez aire. Aingeru Epaltza

Daukazuen irtenbide bakarra **garabi** guztiak matxuratzea duk. Koldo Izagirre

Zazpigarren **garabiko** kabinan. Koldo Izagirre

Istripua dela eta, Eibarrerako bidea itxita izan zen **garabiek** bi kamioiak errepidetik atera zituzten bitartean. Berria - Ekonomia

Hogei minutu geroxeago kontainer eta **garabi** erraldoien artean zeuden. Paddy Rekalde

**Garabi** bat erabili zuten, Ramala hiririk gertu hutsik zeuden kokaguneetatik edukiontzia garraiatzeko. Berria - Mundua

**Garabiak** muntatzen lan egiten zuen aitak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hirurogei tonako **garabi** flotantea zeraman atolian Facal bigarrenak ontziola aldera. Koldo Izagirre

**Garabien** grebaren ondorioz. Berria - Ekonomia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **garabi** zerbitzuek bederatzigarren eguna beteko dute gaur greba mugagabeen. Berria - Ekonomia

Tarifak «duindu» arte, lanuzteari eutsiko diote **garabi** enpresek. Berria - Ekonomia

**Garabi** gidariak, ordea, «tinko» eutsiko diote protestari. Berria - Ekonomia

Filmaren amaieran eraikuntza lanetan erabiltzen den **garabi** -bola batek orkestraren entseiu-lokalaren pareta behera bota, eta ordena berrezartzen zen. Iban Zaldúa

Ez dut aipatuko azkenean Cutlass-a bideaz bestaldeko garaje hartara bertara eraman zuen **garabi** -kamioiarena. Oskar Arana

Zubiaren erdian **garabi** -ibilgailu handi bat ari zen, gorri mina; haren besotik behera, kable gotorra ugalderean erdira zintzilikatzen zen, kanabera erraldoi bateko hariak eginen lukeen gisa berean. Aingeru Epaltza

**Garabi** -plataforma baten gainean nengoan zutik, atoiointzi beltzek gureari txopatik heldu eta kanpora ginderamatzatela. Joxe Austin Arrieta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abeac **garabi** enpresen (6); aseguru etxeek **garabi** (3); baina **garabi** (3); bat **garabi** (3); bizkaiko **garabi** enpresen (3); dira **garabi** (3); dute **garabi** (5); duten **garabi** (3); eta bizkaiko **garabi** (6); eta **garabi** (19); eta **garabi** enpresen (4); eta **garabi** enpresetako (3); eta **garabiak** (3); eta **gipuzkoako garabi** (7); etxeek **garabi** (3); **garabi bat** (10); **garabi baten** (4); **garabi berriak** (3); **garabi enpresa** (3); **garabi enpresak** (19); **garabi enpresak ez** (4); **garabi enpresei** (5); **garabi enpresek** (39); **garabi enpresekin** (4); **garabi enpresen** (27); **garabi enpresen elkarrekin** (4); **garabi enpresen elkarteko** (5); **garabi enpresen eta** (3); **garabi enpresetako** (6); **garabi enpresetako ordezkariak** (3); **garabi eta** (5); **garabi gidariak** (8); **garabi gidariei** (4); **garabi gidariak** (18); **garabi gidarien** (9); **garabi handi** (3); **garabi horiek** (3); **garabiak eta** (3); **garabien greba** (3); **gipuzkoako garabi** (7); **kabuz garabi** (3); **nafarroako garabi** (8); **nafarroako garabi enpresek** (3); **ziren garabi** (3); **zuten garabi** (4); **zuten garabi enpresek** (3)

## garabide (orobat garapide) iz garatzeko bidea.

Ez zen garbi ikusten, haatik, nola taxutu ziitzaketen geneek **garabidean** den organismoaren formak. Juan Garzia

Heldutasunera iritsi baino lehen, hainbat fase igarotzen ditu globulu gorriak bere **garabidean**. Irene Aldasoro

Komunikazio hizkuntza eraginkorra izateko behar dituen **garabideak**. Pello Salaburu

Gako eta jokamodu hauek badute nolabaiteko lotura bertsolaritzaren oraina eta etorkizuna ulertzeko moduarekin eta, oro har, euskararen **garabideak** bizitzeko moduarekin.

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ene ustea da, azken batean Euskal Herria lur kiskalia bihurtu nahi dutela, edonolako **garapide** oro moztu bere ideologiaren linean ez badao. Berria - Euskal Herria

Zibilizazioaren **garapide** harroa, hasieratik bertatik, boterearen eta indarraren basakeriaren kontzientzia saminarekin batera ibili da aurrera. Joxe Azurmendi

Historiaren lege fundamental bat, Spengler-entzat, **garapideen** homologia baita. Joxe Azurmendi

Giza mintzamenaren **garapideko** estadio primitibo bati. Joxe Azurmendi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskararen **garabideak** (4)

## garabilari iz garabi bat darabilen pertsona.

**Garabilariak** «oso malguak» izaten ari direla aipatu zuen. Berria - Ekonomia

**Garabilarien** zerbitzuen prezioak. Berria - Ekonomia

**Garabilariak** konpainia horietako bezeroei zerbitzua zuzenean kobratzen hasiko direla gaineratu zuen. Berria - Ekonomia

## garabitzar iz adkor garabi handia.

**Garabitzarrak** bazterretan, kamioiak eta hondeamakina handien burrunbak, txatarra, herdoila eta kraka dira nagusi. Hasier Etxeberria

## garabizale iz garabilaria.

Estibadoreen eta **garabizaleen** greba. Harkaitz Cano

## garadi iz garo saila.

Akainok belardietan eta **garadietan** izaten dira erruz. Gotzon Garate

Harik eta tontor baten barrenean, **garadi** baten muga, garo zapalduaren arrastoa aurkitu genuen arte. Inazio Mujika Iraola

## garagar iz 1 gariaren antzeko belar landarea (Hordeum distichon).

-Non aritu zara gaur **garagar** biltzen? Elizen arteko biblia

Garia eta **garagarra** ebakitzen eta biltzen ziharduen. Pello Zabala

Gero, **garagarra** jo eta hogeita hamar bat kilo atera zituen. Jose Antonio Mujika

Germania aldean, **garagar** eta gariaren ugalkortasuna zaindu nahi zuten sasoi honetan. Pello Zabala

**Garagarra** edo gisa hartako labore itxurako batek kolore poxi bat, kasik zikin aire bat, emaiten zion ur bero hari. Eneko Bidegain

## 2 delako landarearen alea.

Ahate bat haragi xehatu eta garratzuez bete, krema lodi baten gainean, **garagarrezko** ogia, esne gatzatua. Karlos Zabala

Hurrena, **garagar** eskukada bat zabaldu zuen errekaostaren bazterretan, eta **garagarra** berehala erne zen, eta hazi, eta, alea bildurik, hura eho, eta ohe ondoan ipini zuen, jateko prest. Patxi Zubizarreta

Zazpi kilo irin garbi nahiz hamalau kilo **garagar**. Elizen arteko biblia

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Liho- eta **garagar** -alorrak galdu egin ziren, burutua baitzegoen garagarra eta loratua lihoa. Elizen arteko biblia

**Garagar** bala bat hartu. Pello Zabala

-Utziozue **garagar** -sortetatik ere biltzen, eragozpenik jarri gabe. Jose Antonio Mujika

Lau kilo **garagar** -irin eskainiko ditu oparitzat. Elizen arteko biblia

Bide-zorroan **garagar** -irina, piku-opilak, ogia eta gazta. Elizen arteko biblia

**Garagar** -taloaren antzeko opilak. Elizen arteko biblia

Bada hemen bost **garagar** -ogi eta bi arrain txiki dituen mutiko bat. Elizen arteko biblia

Hogei **garagar** -opil eta gari berria bide-zorroan. Elizen arteko biblia

#### 4 garagarrak irabazi abereez mintzatuz, iraulkatu.

Elurra denean, zakurrak iraulka ibiltzen dira elur piletan, gozamen handitan, **garagarrak** irabazten. Gotzon Garate

#### 5 garagar jotze

Larrinean ere, garijotze eta **garagarjotzeen** ostekoak burutzeke egoten ziren askotan. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta garagar** (6); **eta garagarra** (15); **garagar eta** (6); **garagarra eta** (3); **garagarra garbitzen** (3); **garia eta garagarra** (9); **hamalau kilo garagar** (3); **kilo garagar** (8)

### garagarburu iz garagarraren buru edo buruxka.

Nitaz errukitu eta **garagarburu** batzuk biltzen uzten didanaren ondotik joango naiz. Jose Antonio Mujika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**garagarburuak biltzen** (3); **garagarburuak biltzera** (5)

### garagardi iz garagar-soroa.

Galsoro, **garagardi** eta zekale-alor igitatu gabeak alde batean, eta bestean, berriz, Tentetnikovek hainbestetan ibilitako lekuak. Jose Morales

### garagardo (976 agerraldi, 134 liburu eta 56 artikulutan; ETCn 9.224 agerraldi; orobat garagarno g.er.) 1 iz edari alkoholduna, garagar ale hozituz egina eta otsaihenz urrineztatua. ik zerbeza.

**Garagardo** bat hartu zuten elkarrekin. Unai Iturriaga

Hozkailutik **garagardoa** atera eta irekitzeaz batera zabaldu zen lupuluaren garraztasuna. Joxemari Urteaga

**Garagardoa** debalde da gaur. Koro Navarro

Whiski gehiago zerbitzatu eta **garagardo** bat ireki zuen. Koro Navarro

Pragako **garagardoa** hesteetan gainezka zebilkionean. Felipe Juaristi

Iep xoil batekin agurtu du eta besoarekin **garagarno** presioaren keinua eginez ulertarazi dio zer nahi duen. Eneko Bidegain

Pare bat pub kurritu zituzten zerbeza guinness beltz batzuk hartuz, baina berehalaxe aldatu zuten **garagardoz**. Joxemari Iturralde

Edateko, berriz, **garagardoa** limoi freskagarriarekin. Berria - Kirola

**Garagardoa** edan eta hanburgerra jan, hantxe ni, gizonen artean gizon, hanburgerra ziape askorekin, gosetua bainintzen bakarrik gelditu bezain laster. Joxe Austin Arrieta

Lumek soinak altxatzen ditu **garagardoari** azkeneko zurrutada eman bitartean. Antton Olano

Ilar guztiak jan zituenean, **garagardoa** hurrupatu eta Corleyren abenturan pentsatzen egon zen tarte batean. Irene Aldasoro

Joan eta Llum tabernako barran daude, **garagardo** bana eskuan. Antton Olano

-Mariette, txikitxo, **garagardoa** aparrik gabe eta plater bat txukrut. Monika Etxebarria

Jaiki orduko, **garagardotik** ari omen zen... Daniel Landart

Gustatzen zitzaidan **garagardoaren** zaporea, apar zuri bizia, sakontasun latoi-kolorea. Koro Navarro

Badirudi eguratsa bera ere **garagardoz** eta speedez belarrietaraino bete dela. Unai Iturriaga

#### 2 (neurria adieraziz)

Han gelditzen zen gauerdira arte, besteei aditzen, lau orduan **pitxer garagardo** bakarra hustuz. Karlos Zabala

Begirada pitxer **garagardoaren** urrezko erraietan galduta. Alberto Ladrón Arana

Gusek bere edontzi **garagardoa** irentsi eta eskua, ahoa garbitzeko erabili aurretik, bekokiraino jaso zuen. Lopez de Arana

-Aterako al didazu edontzi bat **garagardo**, mesedez? Koro Navarro

Tabernariak baso bat **garagardo** zerbitzatu zuen, edan, eta beste bat atera zuen. Koro Navarro

Baso bat **garagardoren** truke. Koro Navarro

Eskuan katxi bete **garagardo** zuela. Sonia Gonzalez

Begirada pitxer **garagardoaren** urrezko erraietan galduta. Alberto Ladrón Arana

Litro erdi **garagardo** edaten zuen gosaldutik aurretik. Koro Navarro

Aldian zeramatzan lau **litro garagardo** eta speed dosia. Unai Iturriaga

#### 3 botila edo edalontzi bat garagardo.

**Garagardo** bana eskatzen dute eta zerbitzariak edaria ekarri bitartean elkar besarkatu eta barre egiten dute. Antton Olano

Plazako ostatuan, **garagardo** bat bi hurrupaz edan nuen. Daniel Landart

Dagoeneko gonbidatu gaitik bi **garagardotara**. Koro Navarro

Jerryk **garagardoa** bukatu eta potoa zanpatu zuen. Koro Navarro

Kamareroak bandexa bete **garagardo** zekarren. Bernardo Atxaga

"Doala halaber lau haizetara" txiritean idatzia zeraman bati **garagardo** erraldoia manatu nion. Itxaro Borda

#### 4 (izenondoekin)

**Garagardo** garratz bat edan nuen. Koro Navarro

Aitonak **garagardo** fuertea edan zuen, eta nik limonada. Koro Navarro

Gastonek bere **garagardo** epelaren hondar geza amaitu zuen. Josu Zabaleta

Erromes ameslari batek, beroa oraino tzar dagoela, **garagardo** fresko bati ekinen dio. Piarres Aintziart

Taberna-mutilak baso bat **garagardo** beltz ekarri zion. Irene Aldasoro

-Ekarri plater bat ilar -esan zuen-, eta botila bat **garagardo** gorri. Irene Aldasoro

Botila bat **garagardo** hori eta erretilu txiki bat bete arrowroot galleta. Irene Aldasoro

Arrautza eta berrozko otarekoak eta **garagardo** epela eskaini zizkieten mutilari. Koro Navarro

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Miazkatu nuen neure ezpainetako **garagardo** -aparra. Joxe Austin Arrieta

Sotoan bildutako botila-kutxak eta **garagardo** -upelak. Jon Muñoz

**Garagardo** latak eta hautsontziak lurrera erori ziren. Unai Iturriaga

Ardo goztoa etxean egina **garagardo** botila zahar batean sarturik. Koro Navarro



Eskuetan **garagardo** botiletan egindako molotek koktelak zeramatzaten. Berria - Euskal Herria

**Garagardo** bidoi huts batzuen gainean jesarri ziren biak. Sonia Gonzalez

**Garagardo** pitxer batzuk zeuzkaten han-hemen, tabako paketeak, eta erretzeko papera nonahi. Unai Iturriaga

**Garagardo** edontziari heltzeko modu mehatxuzkoa. Koro Navarro

Eloyk **garagardo** trago luzez xamurtu zuen eztarriaren lehorra. Unai Iturriaga

Gogoko zuen han **garagardo** -tragotxoak jotzea eta bolo-jokoan ibiltzea. Mirentxu Larrañaga

**Garagardo** kaxa huts baten gainean eseri zen. Unai Iturriaga

Lanpostu on bat izandakoa zen, **garagardo** fabrika bateko bulegoan. Koro Navarro

**Garagardo** ponparen heldulekuari tiratu zion. Koro Navarro

Brooklyn Brewery **garagardo** enpresak babesturiko zirko underground batean lanean. Harkaitz Cano

**Garagardo** -lantegi bat egon behar din inguruan, kale guztian zegoen-eta malta-kirats desatsegina. Anton Garikano

Giputz kalamidade hau beti dabil finantza-brokerrarena egiten eta nik dakidala **garagardo**-banatzailea baino ez da. Patxi Iturritegi

30 **garagardo** mota desberdin jastatzeko parada ukan dute azoka hortara hurbildu diren guziek. Herria

**Garagardo** Festa iragan da joan den asteburu guzian, Tolosan. Herria

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekarri honentzat olo- **garagardoa** eta arrautza pastela. Koro Navarro

Hiru Erratzak ostatura gurin- **garagardo** bero ketsua hartzera. Triniti Colege Oxfordekoan huntz- **garagardoa** egiten omen dute. Iñaki Mendiguren

Urki-ardoa eta urki- **garagardoa** prestatzen dituzte. Pello Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

*baso bat garagardo* (8); *bat garagardo* (26); *batean garagardo* (5); *bere garagardo* (6); *bertze garagardo* (5); *bertze garagardo bat* (3); *beste bi garagardo* (3); *beste garagardo* (23); *beste garagardo bat* (13); *beste garagardo pare* (3); *bete garagardo* (9); *bi garagardo* (13); *bizpahiru garagardo* (3); *botila bat garagardo* (5); *eta beste garagardo* (4); *eta garagardo* (44); *eta garagardo bat* (10); *eta garagardo botila* (3)

*garagardo bana* (14); *garagardo basoa* (3); *garagardo bat* (84); *garagardo bat atera* (5); *garagardo bat edaten* (4); *garagardo bat edatera* (3); *garagardo bat eskatu* (10); *garagardo bat hartu* (3); *garagardo bat hartzeko* (4); *garagardo bat hartzen* (3); *garagardo bat hartzera* (5); *garagardo baten* (3); *garagardo batzuk* (13); *garagardo beltz* (10); *garagardo bi* (4); *garagardo botila* (31); *garagardo botila bat* (5); *garagardo botila batzuk* (4); *garagardo botilak* (4); *garagardo botilari* (4); *garagardo edan* (3); *garagardo edaten* (3); *garagardo eta* (14); *garagardo fresko* (4); *garagardo gehiago* (7); *garagardo hartu* (3); *garagardo hori* (3); *garagardo joan* (3); *garagardo joan ziren* (3); *garagardo lata* (12); *garagardo lata bat* (3); *garagardo latak* (7); *garagardo pare* (7); *garagardo pare bat* (6); *garagardo pitxer* (3); *garagardo pitxerra* (3); *garagardo poteak* (3); *garagardo trago* (4); *garagardo trago luze* (3); *garagardo upel* (3)

*gurin garagardo* (7); *hiru garagardo* (4); *hozkailetik garagardo* (4); *lau garagardo* (6); *lehen garagardo* (3); *pitxer bat garagardo* (3); *zuen garagardo* (6)

*bere garagardoa* (6); *du garagardoa* (3); *edo garagardoa* (3); *ere garagardoa* (3); *eta garagardoa* (27); *eta garagardoa ere* (4); *garagardoa amaitu* (3); *garagardoa atera* (5); *garagardoa bukatu* (4); *garagardoa edan* (11); *garagardoa edatea* (3); *garagardoa edaten* (21); *garagardoa edaten eta* (4); *garagardoa edo* (5); *garagardoa ekarri* (5); *garagardoa ekartzen* (3); *garagardoa ere* (6); *garagardoa eskatu* (4); *garagardoa eta* (14); *garagardoa ez* (3); *garagardoa ona* (3); *gurin garagardoa* (6); *hango garagardoa* (3); *nire garagardoa* (4); *zuen garagardoa* (4)

*eta garagardoak* (6); *eta garagardoaren* (3); *eta garagardoaz* (3); *garagardoak edaten* (6); *garagardoak eta* (4); *garagardoak gure* (3); *garagardoak gure aurrean* (3); *garagardoari tragoxka* (3); *garagardoren bat* (3); *garagardorik ez* (6); *zion garagardoari* (4)

## garagardogile iz garagardoa egiteko lanbidea duen pertsona.

Botila hutsak batzen genituen etxex etxe **garagardogile** eta dendariei saltzeko. Anjel Lertxundi

Hirian zuen edari-etxearen negozioak porrot egin zion, bigarren mailako destilategi eta **garagardogileetara** mugatu baitzuen bere finantzen egoerak. Irene Aldasoro

Janaria ez digu eskuratzen harakinaren onberatasunak, ez **garagardogilearenak**, ez okinarenak, baizik eta haiek beren ondasunak aintzat izateak. Iñaki Heras

## garagardotegi iz garagardoa saltzen edo zerbitzatzen den etxea edo denda.

Garbi neukan hertsiki debekatuko zidala **garagardotegi** hartara berriro hurbiltzea. Alberto Ladron Arana

Bavaria **garagardotegian**. Alberto Ladron Arana

Harexen erruz galdu zituen Roberts jaunak ospea eta **garagardoteg** Koro Navarro

**Garagardotegiko** terrazan asaldura zen nagusi. Alberto Ladron Arana

Baina gero Danek burutazio ezin hobeia izan du: **garagardotegi** batean afaltzea. Patxi Zubizarreta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

*bavaria garagardotegian* (3); *bavaria garagardotegiaren* (3); *eta garagardotegi* (4); *eta garagardotegiko* (3); *garagardotegi bat* (3); *garagardotegi batean* (3); *garagardotegi batera* (4); *zegoen garagardotegi* (3)

## garagardoziale izond garagardoaren zale dena.

**-Garagardozalea** zara beraz -entzun nuen nire atzean. Koro Navarro

## garagarno ik garagardo.

## garagarril 1 iz ekaina.

Honela zioen 1996ko **garagarrilaren** 5ean, Nafarroako Museoa zabaldu berritako erakusketan: [...]. Patziku Perurena

Nazioarteko polizia indar hori 1999ko **garagarrilean** Kosovon zabaldu zenetik, eraso batean hil den UNMIKeko bigarren kidea da. Berria - Mundua

Antzina [...] **garagarrilla** eguzkiari eskainia omen zegoen. Pello Zabala

## 2 (esaerak)

Maiatzean kuku, **garagarrilean** mutu. Pello Zabala

Maiatz luze gosea, **garagarrilak** ekarriko du ase! Pello Zabala

## garagarzaro iz ekaina.

Maiatza pardo, **garagarzaroa** klaro, orduan izain da ogi eta ardo. Pello Zabala

# garai<sup>1</sup> iz nolabal mugatu denbora bitartea.

Edozein leku, **garai** eta egoeratan maitasuna oso gauza simplea izan daiteke. **Pako Aristi**

Beste **garai** eta egoera batean, beharbada, horrelako zurrumuru batek ez zuen inoren jakinmina piztuko. **Jose Morales**

**Garaiak** aldatzen dira, belaunak mudatzen, baina itxuraz bakarrik; lehengoan dirau gizonak: bizitzaren eta heriotzaren misterioak harrapatuta. **Imanol Zurutuza**

**Garai** hartan 25 urte zituen Van Goghek. **Berria - Kultura**

Zeren **garai** haiek, 1933, 1934, tuberkulosiaren itzalagatik, ez baitzuten preseski argaltasuna famatzen. **Bernardo Atxaga**

Aita Donostiaren pianorako obran bi **garai** bereizten dira: bata folklorean inspiratua, eta bestea, 36tik aurrera, exiliatua egon zeneko **garaikoa**. **Berria - Kultura**

Gelatxok **garai** bat bete egin du bere musikarekin, 56 urte iraun dituen **garai** luzea. **Pako Aristi**

Bukatu da, ordea, **garai** hura. **Anjel Lertxundi**

Eta ez gara oraindik iritsi animaliek eta landareek hitz egiten omen zekiten **garai** aspaldikoetara... **Anjel Lertxundi**

Antzina-antzinako **garai** batetik zetorren, izebez eta lehengusinez osatutako tribu-egitura konplexu batetik. **Ander Irizar**

Hasiera batean beste **garai** batzuetako gizakia izan zitekeela zabaldu zen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Literaturak, ordea, bera jadanik mutu egongo den **garai** hura iragartzen daki. **Juan Garzia**

Auschwitz izenak, **garai** hartan, ez zuen inolako esanahirik, ez berarentzat, ez eta bere ezagunentzat. **Juan Garzia**

Louise ezagutu nuen **garai** hartan Donostian egiten nuen lan. **Hasier Etxeberria**

Bularretako amerikanoa zen, Norma Lúciak oparitutakoa, azken teknologia **garai** hartan, hatzez pixka bat sakatu eta ireki egiten zen. **Karlos Zabala**

**Garai** hartan posible ziren laztan-keinu guztiak egin nituen, baina kontuan izanda beti ere inuxente maiteminduaren irudia agertu nahi nuela. **Karlos Zabala**

Ageri da oraingo jendeek baino bihotz hobea zutela **garai** hartakoek. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Alkimistek fosforoa gernutik ateratzen zuten **garai** haietara itzuliko banintz bezala. **Juan Garzia**

**Garai** horretarako erabaki sendoa zuen literatura idazten jarduteko. **Josu Zabaleta**

Nor bere iraganeko denbora batera eramana sentitzen zen, beti **garai** berera, eszena berera. **Xabier Olarra**

Clerk Maxwell, Helmholtzen **garai** bereko ikertzaile handia, liluraturik zeukan, ikasle garaietatik, koloretan ikustearen misterioak. **Xabier Olarra**

Ez dute **garai** berekoak, herri berekoak, tradizio literario berekoak ematen. **Berria - Kultura**

Gure aita ere **garai** bertsuan hil zen. **Xabier Olarra**

**Garai** bakoitzak bere jarrera estetikoak izaten ditu, bere zoroari jarraitzen dio. **Patxi Iturritegi**

Ez al daude arau desberdinak **garai** bakoitzean? **Monika Etxebarria**

Eta aurrean, **garaia** hosto gabetua, zuhaitz sendo bat. **Txillardegi**

## 2 (izenondoekin)

Urtearen barnean bi **garai** nagusi bereizten zituzten gure aurrekoek. **Pello Salaburu**

Baina, zoritxarrez, **garai** latzak bizi ditugu orain, iazko uzta oso txarra izan zen eta. **Jose Morales**

**Garai** zailak ziren benetan. **Karlos Zabala**

Gurutzetako **garai** nahasietan. **Xabier Olarra**

Erdi Aroko **garai** ilunen ondoren **garai** argiagotara irteteko bidea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Garai** iraultzaileak haiek Holandan. **Berria - Kultura**

Baina **garai** eszeptiko eta -esaldia erabiltzea zilegi bazait- pentsamenduek oinazetu batean bizi gara. **Irene Aldasoro**

Ez dago **garai** onik, garaia daude, garaia, besterik ez. **Karlos Zabala**

Denok izan baititugu, nik uste, **garai** hobek. Gauza eta **garai** urrunez mintzo denean. **Pako Aristi**

Gure **garai** postmodernoan. **Berria - Kultura**

Jainkoaren **garai** bedekatuak haiek! -esan zuen gizon zaharrak. **Irene Aldasoro**

**Garai** madalenienseko gizakiak. **Berria - Kultura**

**Garai** oso bat da hemen dagoena! **Monika Etxebarria**

· A, hura bai nire **garairik** ederrena! **Joxe Austin Arrieta**

## 3 (aditzaren nor osagai gisa)

Pragmatikoak izateko **garaia** heldu da. **Berria - Euskal Herria**

Semeari Estatuaren zerbitzuan jartzeko **garaia** iritsi zitzaioa eta, etxetik bidali zuen maisu frantziarra. **Jose Morales**

Fenixek su hartzen dute hiltzeko **garaia** iristen zaienean eta berriro jaiotzen dira beren errautsetatik. **Iñaki Mendiguren**

Nahasmentu handiko **garaia** ziren Iparraldean. **Itxaro Borda**

Feminismoa jo du bortizkeriaren kontrako arma nagusitzat, eta, ildo horretan, ekintza politikoaren **garaia** dela dio. **Berria - Euskal Herria**

Baina halako **garaia** bukatu zirela sumatzen zuen. **Felipe Juaristi**

"Times are changing" kantatzen nuen garrasika, **"garaia** aldatzen ari dira". **Joxerra Garzia**

Ez ote nuen bada **garaia**, neure biziera neronek moldatzeko? **Txillardegi**

## 4 (denbora atzizkiekin edo -ko atzikiarekin)

Agureak mahukaburu gorriekiko uniformeak zeukan soinean, Pavel Petrovitx-en **garaian** erabiltzen zituztenen tankerakoa. **Jose Morales**

Gerra Hotzaren **garaian**. **Berria - Gaiak**

Okupazioaren **garaian** eman zuen argitara bere lan filosofiko ezagunena. **Monika Etxebarria**

Zortzi urte nituen **garaian**, Luxenburgoko lorategietan jolasten aritzen nintzenean. **Monika Etxebarria**

Baina gizaki izan nintzen aspaldi, denborak zentzurik zeukan **garaian**; gizakien artean bizi izan nintzen, espazioaren neurria har zitekeen **garaian**; gizakien artean hil nintzen, oroimenak gizartea eraikitzen zuen **garaian**, Norbaitek frogatzen bazuen bera ezin zitekeela egon gaztetxo haiek aipatutako lekuan esandako **garaian**. **Felipe Juaristi**

Gizaldirik gizaldirako lotura tinko sendoa zen **garaian**. **Felipe Juaristi**

Ez duzula guk gure **garaian** irakurtzen genuen adina irakurtzen. **Pello Salaburu**

Espainiako gerra zibilaren aurreko **garaian**. **Bernardo Atxaga**

Bide hau egin zuten, ezin da ukatu, Erromatar Inperioaren **garaiko** gertaerek. **Iñaki Mendiguren**

Gurutze Gorriari boluntario ibili zen **garaiko** ikastaroak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Garaiko** modak agintzen zuenez, kalesan ibiltzen ziren hirian barrena. **Jose Morales**

Zaharrak dira baratze-mailak, etruskoen **garaikoak**. **Xabier Olarra**

Antzinako **garaietatik** hasita. **Koldo Zuazo**

Hauxe dugu lehenagoko **garaietatik** geratzen zaigun gauza bakarra. **Josu Zabaleta**

Adiskidea zuen Goihenetxe, Burgoseko auziko **garaitik**. **Berria - Kultura**

[Neska haiek] nire gaztaro hileria itzuliko ninduten, High Streeteko gau desagertuetara, denden erakusleihoek distira egiten zuten **garaira**. **Koro Navarro**

**Garaitik garaira** egiak aldatzen dira. **Joxerra Garzia**

Belaunaldi bakoitzak klasikoak bere modura itzuli behar omen ditu, **garaian garaiko** ekandu eta joeren arabera. **Berria - Kultura**

-Kontua da -esan diot Winstonon dastatuz- inork ez duela garaian **garaikoa** konprenitzen. **Koldo Izagirre**

· Asian, **Pleistozeno** garaian. **Berria** - Gaiak

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aukera **garai** hau konponbide **garai** bilakatzeko. **Berria** - Euskal Herria

Augustoren egonkortasun- **garaiaren** ondoren. **Santiago Iruretagoiena**

Gerra **garai** hartan bide guztiak ziren arriskutsuak. **Felipe Juaristi**

Esan bezala bake **garaia**k baitziren haiek itsasoan, klase askotako negoziotarako onak beraz. **Felipe Juaristi**

Nahas-mahas **garaia**k dira. **Iñigo Aranbarri**

Jolas **garaiaren** ondoko lehen klasean. **Joan Mari Irigoien**

Sermoi **garaian** denen aurrean igual salatuko hinduten. **Pako Aristi**

Setio- **garaian**, izan ere, errazagoa izaten da beste edozer gauzaz hornitzea egurrez hornitzea baino. **Santiago Iruretagoiena**

Inkisizio **garaian** gure alderdian epaitutako sorginik gehienak. **Patziku Perurena**

Uzta **garaia** bukatu ondoan. **Patziku Perurena**

Azterketa **garaian** gaude: bolada gogorra, gogorrik bada, nola irakaslearentzat hala ikaslearentzat ere. **Joxerra Garzia**

Gure ikasle **garaian** bezala hago, motel. **Iban Zaldua**

Gure gazte- **garaian** elkarrekin egindako ibilerengatik. **Inazio Mujika Iraola**

Oxfordera joanen gara unibertsitate **garaiko** adiskideak bisitatzen. **Xabier Montoia**

XX. mende hasierako etxe dotorea zen, hiriarren zabaltze **garaikoa**. **Patxi Iturritegi**

## 6 (bada eta kidekoekin)

Bada **garaia** hau garbi ikusteko eta are garbikiago esateko. **Txillardegi**

Bazen **garaia**! **Txillardegi**

Bazuan **garaia**, ezta? **Bernardo Atxaga**

-Pataki, baduk hik ere esnatzeko **garaia**, ala? **Harkaitz Cano**

Badugu **garaia** ezta? **Pako Aristi**

Baduk **garaia** ez inor hiltzeko dioen bosgarren aginduaren kontu hori pikutara bidaltzeko. **Koldo Biguri**

Putek eta kamareroek kalean egunargiz diosal egiten dizutenean, **garaia** da hiriz aldatzeko. **Harkaitz Cano**

## 7 garaiz adlag

"Atzera egin nahi baduzu, **garaiz** zaude", esan zuen. **Bernardo Atxaga**

-**Garaiz** da oraindik, neskak -hots egin zien-. **Josu Zabaleta**

**Garaiz** zebilen. **Iñaki Zabaleta**

Poliziaburua **garaiz** agertu ez balitz, sekula ez nian berriro ikusiko mundu honetako argia. **Jose Morales**

Hura izan zen, erabaki egokiak **garaiz** hartuz, bizia salbatu ziona. **Ramon Saizarbitoria**

Eugeniarekin nuen hitzordura **garaiz** iristeko. **Ramon Saizarbitoria**

Nahiz eta dena **garaiz** kanpo. **Joxe Austin Arrieta**

Beharrik, aski **garaiz** ikusi nuen kamioia, errepideraino lasterka bizian joan ahal izateko bezainbat. **Joxe Austin Arrieta**

Igarpeneko eskola **garaiz** baino lehen bukatu, oso luze egin zitzaizen beste ikasgela aurkitzea eta ozta-ozta iritsi ziren ordurako. **Iñaki Mendiguren**

Ez zinen iritsi entzuteko **garaiz**.. **Iñaki Mendiguren**

Damua **garaiz**, Putzu! **Txillardegi**

· **Garaiz** kanpoko berriketa hura ez zen amaitzen. **Iñaki Mendiguren**

## 8 garai batean adlag

**Garai batean**, aspaldi, nire gaztaroan, haur-denbora ezinbestez bizkor joanean, pozgarri zitzaidan edozein leku ezezagunetara lehenbiziko aldiz iritea. **Jose Morales**

Baziren **garai batean** hiru txokolateria. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Garai batean** drogak hartu nituelako. **Xabier Olarra**

Zeus jainkoak asko sufritu omen zuen, **garai batean** behintzat, buruko minak zirela eta. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Antzinako **garai batean**. **Isabel Arrigain**

Betiko eta inoizko **garai batean**. **Anjel Lertxundi**

Inguruko indiarrek ere antzekoak erabili ohi zituzten **garai batean**, zaldien atzetik erantsi eta zaharrak edo gaixoak garraiatzeko. **Joxemari Urteaga**

Errekartetik Ori ibairainoko tarte guztia zelaia zen **garai batean**, nik neuk horren akordu oso lanbrotsua badut ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta hori enperadoreak handiak eta aita santuak txikiak ziren **garai batean** egin zen, Otondarrak Italiara inperioaren duintasuna berrezartzera etorri ziren garaian. **Iñaki Iñurrieta**

Gotorlekuak urri ziren **garai batean**, eta autoritatearen lehen harresia agindutako fedea eta hartutako fedea ziren **garai batean**. **Iñaki Iñurrieta**

## 9 garai bateko izlag

**Garai** bateko jendearentzat ere, haizeak zeukan, eguraldiari zegokionez, azken hitza: iparretik gosea, hego haizetik ase, esango zituzten. **Pako Aristi**

Ikus dezagun, ez dituzu gogoratzen zure **garai bateko** okerrak? **Monika Etxebarria**

Berriro irakurri nituen haren **garai bateko** eskutitzak. **Ander Irizar**

Itxura ere halakoxea du, **garai** bateko ikertzaila dotorearena."Gelatxo" esatea **garai** bateko erromerien hotsa entzutea da. **Hasier Etxebarria**

Gaur egun hutsik eta hilzorian dago **garai bateko** herri bizkorra. **Xabier Olarra**

Egungo emakumeak ez direla **garai** batekoak bezalakoak. **Ramon Saizarbitoria**

Eleberriak idazteko artea, **garai** batekoa, aspaldi hila da, Errusian salbu, han berria baita. **Xabier Olarra**

## 10 garai batez garai batean.

Luzaiden baziren **garai** batez ezkila egileak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Luteziaren aita, egiaz, **garai batez** modan xamar egondako jostuna zen. **Matías Múgica**

Han gaindi minak edo mehatzeak izan zirelaketz **garai batez**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Garai batez** Donostian lan egiten zuen. **Gotzon Garate**

## 11 garai onean

**Garai onean** jakin behar, ordea! **Txillardegi**

**Garai onean** nengoela konprenitu nuen orduan. **Joxan Elozegi**

## 12 garaian garaiko izlag

Gure herrien sorreran eta egituran, begi bistako izan da **garaian** garaiko merkatuen eragina. **Patziku Perurena**

**Garaian** garaiko teknologiak liluratzen du gizakia: liburuak lehen, Sareak orain. **Joxerra Garzia**

**Garaian garaiko** idazmoldea landu eta erabili beharraz. **Berria** - Kultura

Hortik aurrera, hasten dira lekuan lekuko eta **garaian garaiko** mila moda eta orrazkera exotiko. **Patziku Perurena**





# garaiera 1 iz maila zerotik gorainoko neurria.

Mendiek halako **garaiera** altuak dituzte, non gizakia, bertan sarturik, ahul eta tipi sentitzen den. **Koldo Izagirre**

Baziren uzbekak, **garaiera** txikikoak, bizar-gorriak, Mikel Strogoffen atzetik oldartu zirenen antzekoak. **Karlos Zabala**

Hurbilago, belar sailetan sakabanatuta, **garaiera** askotako zuhaitzak ikus zitezkeen, denak ere pago-lizarrak. **Bernardo Atxaga**

Baikal aintzira mila eta zazpiehun oineko **garaieran** dago itsas mailatik gora. **Karlos Zabala**

Virgil tartekoa zen **garaieraz**, baina oso lodia. **Xabier Olarra**

## 2 (neurri banakoekin)

Belarra bospasei oineko **garaierara** iristen zen. **Karlos Zabala**

Etzari-Aranatzen sortua, 35 urte, 91 kilo eta 1,84 metroko **garaiera**. **Berria - Euskal Herria**

97 kilo ditu eta 1,76 metroko **garaiera**. **Josu Zabaleta**

50 metroko **garaiera** duela. **Ramon Saizarbitoria**

Harrizko monumentuak apalak ziren, gehienetan metroa baino **garaiera** gutxiagokoak. **Iñaki Zabaleta**

12 metroko **garaieratik** behera. **Berria - Euskal Herria**

## 3 irud/hed

**Pertsona** bakan batzuek -musikari profesionalak izan ohi dira sarritan- garaiera absolutuaren dohain harrigarria dute. **Irene Aldasoro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere garaierarekin** (3); **den garaiera** (3); **duen garaiera** (3); **eta garaiera** (5); **garaiera du** (15); **garaiera edo** (3); **garaiera eta** (18); **garaiera handiko** (8); **garaiera hartatik** (3); **garaiera pisua** (4); **garaiera pisua jatorria** (3); **garaiera zuen** (4); **jaioteguna jaioterra garaiera** (3); **jaioterra garaiera pisua** (3); **metroko garaiera** (41); **metroko garaiera du** (9); **metroko garaiera eta** (4); **metroko garaieratik** (3); **piramidearen garaiera** (7); **zure garaiera** (3)

# garaiezin (ETCn 687 agerraldi; orobat garaitezin ETCn 167 agerraldi ) izond ezin garaituzkoa.

Gehien desiratzen duzuna erdiesteko behaztopa **garaiezin** bat zuk zeure buruari ezarri izana. **Jon Muñoz**

Baina gaixoaren lubakitik ikusten den etsaia **garaiezina** da, gau iluna bezain beltza. **Imanol Zurutuza**

Gotorleku sendo baten bizi den herensuge beldurgarri eta **garaitezina** hiltzea. **Jon Arretxe**

Herioaren zerbitzura bizi ziren erraldoi **garaiezinak** baitziren. **Joan Mari Irigoien**

Armada **garaiezin** bateko mamu grisak. **Mirentxu Larrañaga**

Eta, zenbaitetan, adar lodiren bat askatu eta erori egiten zen, izozte **garaiezinak** barneko izerdia harri bihurturik eta hariak etenik. **Josu Zabaleta**

Gaztelu **garaiezin** eta are gotorleku bihurtutako barkutik mugitzeke. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arraza askotako jendea bizi da han, tartariarrak batez ere, aspaldi ia Europa osoa mendean hartu zuen Gengis Khan **garaiezinaren** ondorengoak. **Felipe Juaristi**

Ezpata handia hartu eta zaldi gainean sumendirako bidea hartu zuen Antonio Diaz de Heredia **garaiezinak**. **Felipe Juaristi**

Lau t'erdiko txapeliduna ia **garaitezina** da kaiolan, eta bere aurkaria ez bezala oso ohituta dago laburrean jokatzera. **Berria - Kirola**

**Garaiezin** zirenak garaitzen ikasi du Ermukoak. **Berria - Kirola**

**Garaiezinako** urruntasuna. **Xabier Arregi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da garaiezina** (4); **ez da garaiezina** (4); **garaiezina da** (4); **garaiezinak dira** (3); **ia garaiezinak** (4)

# garaiezintasun 1 iz garaiezina denaren nolakotasuna.

Ez zuen Petacchiren porrota irudikatu nahi, haren **garaiezintasuna** aldarrikatzen jarraitu nahi zuen. **Berria - Kirola**

Beren **garaiezintasunean** zuten sinesmen okerrak. **Iñaki Mendiguren**

**garaiezintasunezko** seinale erregetiarra. **Itxaro Borda**

# garaikide 1 izond garai berekoa.

Europako mugimendu nazionalista **garaikideak**. **Anjel Lertxundi**

Joanes III. Erregeri eskainia, errege **garaikideen** artean ezagunak baitira haren fedea, limosnak, apaindura, bakezko ala gerlako arteetan duen jakinduria, urrikalmenduaren argiak ezitzen duen justizia eta ferekarik gabe goraiatzeko den haren bihotz zabala. **Piarres Xarriton**

Filosofo alemaniar **garaikideen** obrak ikasi eta ikasi aritu zen. **Ander Irizar**

Zibilizazio Helenikoak Mundu Zaharrean zibilizazio **garaikide** guztiak izan zituen harremanak. **Iñaki Mendiguren**

Harreman hauek ez dira zabaltzen inguruko eremuetara eta ezin dira poliki-poliki transferitu diskurtso **garaikideen** multzora. **Xabier Arregi**

Diseinu **garaikideari** men egitearren. **Mirentxu Larrañaga**

Menard-ek bere bizitza Kixote **garaikide** bat idazteari eskaini ziola. **Juan Garzia**

## 2 (-en atzikiaren ondoren)

Erroman anatomia-irakasle zen Mead-en **garaikide** batek, Giorgio Baglivi-k. **Irene Aldasoro**

Zu beste gizon zuzenik ez baitut ikusi zure **garaikideen** artean. **Elizen arteko biblia**

Zu beste gizon zuzenik ez baitut ikusi zure **garaikideen** artean. **Elizen arteko biblia**

Har dezagun adibide modura XVIII. mendean ezarri zen medikuntza klinikoa, zenbait gertaera politikoren, fenomeno ekonomikoren eta erakunde aldaketan **garaikidea** dena. **Xabier Arregi**

Bere **garaikideen** irizpideak ez baitu onartzen eguzkiari begiratzeko erabiltzen den kristala bezain eder dela intsektu hautemanezinen mugimenduak ikusteko baliatzen dena. **Jose Morales**

Haren **garaikideen** testigantzak argi uzten du [...] metafisika eta mistika alderako zuen joera. **Juan Garzia**

Gizarte Helenikoak bere ekialdeko **garaikideengan** izandako eraginari. **Iñaki Mendiguren**

Elkarren **garaikide** izan behar duten zibilizazioen arteko harremanak. **Iñaki Mendiguren**

Zuen mendearen izena belztuko baitu, eta gorrotoa eramango zuen **garaikide** guztiaren gainera. **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (izan aditzarekin)

**Garaikide** ez diren bi zibilizazioen artean. **Iñaki Mendiguren**

**Garaikide** izan ziren Quevedo eta Axular, ezen ez adinkide. **Imanol Zurutuza**

Zentzu batean bi datak, K.o. 1914 eta K.a. 431 filosofikoki **garaikideak** ziren. **Iñaki Mendiguren**

Zenbait transformazio **garaikide** izateak ez dakar euren aldiberekotasuna. **Xabier Arregi**

## 4 gaur egungoa.



**Garailea** abstentzioa izan dela diote EAKo gazteek. Berria - Euskal Herria

### 3 (izan aditzarekin: lehiaketetan edo kidekoetan)

Gure Artea sarietan **garaile** izandako artisten obrak biltzen dituen erakusketa zabaldu zuten atzo Berlingo Kreuzberg auzoko Kunstlerhaus Bethanien erakustokian.

Baina aurtengo irabazleak nortzuk izan ziren jakiteaz gain,urtero bezala, iazko **garaileei** garaikurrak eman zizkieten. Berria - Kultura

Ohi bezala, Eusko Jauriltzarak aurtengo **garaileen** lanak argitara eman ditu. Berria - Kultura

Eguzkiaren argia Ararateko mendi-hegitik Beyaziteko hiriaren eta jauregiaren gainera zabaltzen zen, zuriko eta goibel, baina baita **garaile** ere, irabazle. Fernando Rey

### 4 (predikatu gisa)

Gaixotasunaren aurkako borrokan **garaile** atera ahal izateko. Berria - Gaiak

Aimar eta Beloki **garaile** atera dira jokaturako partidetan. Berria - Kirola

Azken inkestean arabera, Bush **garaile** aterako da Kerryren kontra. Berria - Mundua

Inozoren batek baino ez zezakeen pentsa Alemania **garaile** irtengo ez zenik; ingeles burugabeak "ez ziren konturatzen jokoa galdua zutela". Juan Garzia

Kanboko Txikito edo Billabonako Besamotza banintz moduan, partida alimale baten ondotik **garaile** herriratzen. Koldo Izagirre

**Garaile** sentitzen zen, eta harrotasunez kontaktatzen zuen nola FALKoen esku utzi zituen bi apaizak, nahi zutena egin zezaten haiekin. Inazio Mujika Iraola

Txapelketako finalean lau taldeetako ordezkariak aritu ziren, eta azken emaitzaren arabera, Lasarte gertatu zen **garaile**. Berria - Kultura

Harik eta ni borrokatik **garaile** itzuli arte. Elizen arteko biblia

Azkenik metepsikiosiaren portuan **garaile** eta argiturik sartu zenean. Josu Zabaleta

Gero, bi kargalari, kaiola ikaragarri haren aspian makur-makur eginda, aurretik zituela, bere etxerantz abiatu zen doktorea, **garaile**. Josu Zabaleta

Robert Bartok eta Jaan Kirsipuu **garaile**. Berria - Kirola

McLaren **garaile** Montoyarekin. Berria - Kirola

Azkenean, hormonak **garaile** beti. Arantxa Iturbe

Mikhail Saakashvili Georgiako bozetan **garaile**.

Alderdi Sozialistan, Hollande **garaile** eta Fabius galtzaile. Berria - Mundua

Alaitz Olaizola **garaile**, Donostia Hiria sariko antzerki sailean. Berria - Kultura

Azkenean, 20-27 **garaile** ingelesak, eta lehen txapela jantzi zuten. Berria - Kirola

Baturik **garaile**, banaturik kale. Berria - Ekonomia

Venezuelako Gobernuak atzo adierazi zuenez, oposizioak agindutako inkestek ere Chavez hilaren 15eko erreferendumeko **garaitzat** jotzen dute. Berria - Mundua

### • 5 (izenondo oso gisa)

Hor gaindi ibiliko dira, laster, Aliatuen armada **garaileak**. Michel Oronoz

Zeren eta erlijio **garaile** batek normalean lehiakideen ezaugarri nagusietako batzuk bereganatuz lortzen baitzuen garaipena. Iñaki Mendiguren

Barbaro **garaileen** hordak. Iñaki Mendiguren

Parsien komunitatea, juduena bezala, estatua eta herrialdea galdu arren bizirik irauteko borondate **garailearen** oroitarria zen. Iñaki Mendiguren

### 6 (izen gisa)

**Garaileak** Arrotxapeko atletik sartzan ari ziren. Aingeru Epaltza

Garaipena hilotz eta samin pilaketaren sinonimo baizik ez denean, hobe galtzaileen arteko izatea, **garaileen** arteko baino. Hasier Etxeberria

**Garaileak** ez ei zuten gehiegikeriarik egin, ez eta garaituek erregurik. Edorta Jimenez

Azken proban, 26 segundoko aldea atera zuten **garaileek** lehen kanaerdikoan, eta hori erabakigarria gertatu zen. Berria - Kirola

9. postuan sailkatu zen, **garailearengandik** 42 segundora. Berria - Kirola

Eta jeneral **garaile** bat bailitzan, sarraskia egindako eremuan bertan hartu zuen loak. Josu Zabaleta

Denek saldu zioten beren burua **garaile** berriari, denek uko egin erregeri eta erresumari. Aingeru Epaltza

Maiz egin izan dut topo **garaile** bikain horrekin; ez nion kasik behatu! emakume eskergabe horrek alde zure aurretik ezarri eta emaniko egunean, haren etxean aurkeztu nintzen esklabo herabeti eta damutuaren gisara, **garaile** koroadun gisara jalgitzeko handik. Jon Muñoz

Izan ere, ematen du gerlak **garaile** bakarra duela: ondoren zer kontaktua izango duen idazlea. Markos Zapiain

**Garaileen** podiuma. Berria - Kirola

Bozketa bat, bi **garaile**. Berria - Kirola

### 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dira **garaile** oihuak, ez eta garaituenak; festa-kantak dira nik entzuten ditudanak. Jose Antonio Mujika

-**Garaile** ixura zeukatean jadanik batzuek. Koldo Izagirre

Ongi baino hobeki ulertu dut ez zarela une batez baizik etxeratuko, okasioari egoki dagozkion beztidurak janzteko, eta berehala joanen zarela zeure **garaile** ibileretan berriz ibiltzera. Jon Muñoz

-Bai, oso ongi -esan dut **garaile** -plantan-, Keweko lorategietan izan zen, Tamesisen ertzean. Monika Etxebarria

Eta bere azken erabakia da -eta kontuz gero, bera egiazko aditua da- faltsu autentikoak direla, bukatu zuen dendariak, **garaile** -airez. Jon Alonso

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

atera da garaile (6); atera zen garaile (14); atera ziren garaile (4); azkenean garaile (5); baina garaile (7); baita garaile (4); besoak garaile (7); beti garaile (8); bi garaile (4); borrokan garaile (4); bozetan garaile (13); bozetan garaile atera (6); da garaile (21); den garaile (7); dira garaile (9); ditu eskuak garaile (4); dute garaile (4); ere garaile (8); eskuak garaile (9); eta garaile (37); eta garaile atera (6); eta garaile ateratzen (4); eta garaile eta (4)

garaile atera (62); garaile atera da (5); garaile atera zen (17); garaile aterako (22); garaile aterako da (7); garaile ateratzea (7); garaile ateratzeko (10); garaile ateratzen (17); garaile ateratzen den (5); garaile bat (8); garaile eta (34); garaile eta garaiturik (12); garaile irten (18); garaile irten da (4); garaile irten zen (4); garaile irtengo (6); garaile irtetan (4); garaile itzuli (13); garaile itzuli zen (5); garaile izan (33); garaile izan zen (6); garaile izango (11); garaile izango da (5); garaile izatea (7); garaile izateko (4); garaile nagusia (7); garaile petoa (9); garaile sentitzen (5)

hauteskundeetan garaile (6); iazko garaile (4); irten zen garaile (5); izan da garaile (7); izan dira garaile (5); izan zen garaile (25); izan ziren garaile (8); zen garaile (53); ziren garaile (18); zuten garaile (6)

azken garailea (7); azken garaileak (10); bi garaileak (4); da garailea (18); da jardunaldiko garailea (9); du garailea (8); dute garaitzat (4); erabakiko du garailea (7); eta garailea (9); eta garaileak (7); eta garaileen (5); etapako garaileari (4); etapako garailea (11); garailea da (8); garailea ere (5); garailea eta (9); garailea ez (5); garailea izan (6); garailea izango (8); garailea nor (7); garaileak eta (7); garailearen aurka (6); garaileen eta (4); garaitzat jo (9); garaitzat jotzen (4); iazko garailea (13); iazko garailea da (4); iazko garaileak (6); itzuliko garailea (10); izan da garailea (4); izan zen garailea (8); izango da garailea (7); jardunaldiko garailea (10); jarduneko garailea (7); lortu zuten garaileak (4); txirridulari garailea (4); urteetako garailea (4); zen etapako garailea (4); zen garailea (13); zuten garaileak (8)

## garaipen (5370 agerraldi, 173 liburu eta 2399 artikulutan; ETCn 50.267 agerraldi) 1 iz garaitzea. ik garaitzapen; garaitza; garaitia.

Horixe bera esan zion itsuari, galerak ospatzeko modu bitxia zutela, galerak **garaipenak** balira bezala hartzen zituztela. Felipe Juaristi

Sindikatuak urte hartan **garaipen** partziala lortu zuen epaiketean. Berria - Mundua

Torneo mota bat, zeinean, galtzailea derrotaz jabetzen ez denez, irabazleari **garaipenaren** saria ukatzen zaion. Xabier Olarra

Bere Lider Loriatsuari jarraitzen dio **garaipena** arte. Ramon Etxezarreta

Juduen **garaipena**. Elizen arteko biblia

Indarraren eta indartsuenaren **garaipena**. Piarres Xarriton

Gaur, atzo, eta beti, beti-beti, katoliktotasunarekin **garaipen** osoa bilatu dut Espainiarentzat... Txillardegi

Horiek guztiak zientzia eta teknologiaren garapen eta **garaipenaren** ispilu dira. Pello Salaburu

Izan ere, **garaipen** larria baita beti askonahiaren eta gutizien gainetik izatea; eta jende zintzoak baizik ez du lortzen halako **garaipenik**. Iñaki Iñurieta

Latinak ere ez zituen bere **garaipen** baketsuak lortu inoiz idatzi ez ziren hizkuntzen bizkar bakarrik. Iñaki Mendiguren

Izan ere, irabazlearen **garaipena** ezin oso-osoa izan garaituak plaza agerian makurrarazi gabe. Karlos Zabala

Kristautasunak paganismoaren gain izandako **garaipenak**. Iñaki Mendiguren

Ikuspegi honetatik, zientziak erlijioaren gain erabateko **garaipena** izatea tamalgarria izango litzateke bi aldeentzat. Iñaki Mendiguren

Harry Potterrek ez du hitz egiten Izendatu Behar Ez Denaren aurka izandako **garaipenaz**. Iñaki Mendiguren

**-Garaipen** handi hau eman didazu, bai, eta orain zer, egarriak hil behar ote dut eta erdaingabe horien eskuetan erori? Jose Antonio Mujika

Eta ez zaude dagoeneko **garaipena** erdiesteaz ziur? Jon Muñoz

**Garaipenak**, burutzeaz at gero jendeak gogoratzeke moduan lortu behar baitira. Pako Aristi

Beren **garaipena** baino grina biziagoz inoren hondamena bilatzen duten gizakalte itsuok bezala. Juan Garzia

Argi eta garbi bainuen bezperako **garaipenak** on baino kalte gehiago ekarri behar zidala. Alberto Ladron Arana

**Garaipenaren** ereinotza lortu duen idazle batek. Anjel Lertxundi

Ez **garaipen** hauek emozioz gogoratzen dira gaur egun ere. Joseba Zulaika

## 2 (gerretan eta kidekoetan)

Errusiak Bigarren Mundu Gerran izaniko **garaipena** ospatzeko. Berría - Mundua

Borroka nahiago duzunez geroztik **garaipena** baino, ez dut jada zer erranik. Jon Muñoz

Eta gutarteko anitzek ziurtzat emaiten baldin bazuten Hitler-en **garaipena**, beste zenbaitek pentsu zuten amerikarrek eta ingelesek irabaziko zutela. Piarres Xarriton

Boztu ginen, ustez eta 45eko amerikarren eta sobietarren **garaipena** nolazpait gure **garaipena** ere zen. Piarres Xarriton

Baina gerrak eta neguak segitu zuten Stalingradoko **garaipenaren** ondoren ere. Felipe Juaristi

Media eta Pertsiko Kronika-liburuan irakur daitezke haren **garaipen** handien berriak. Jose Antonio Mujika

Ordu arte, Ivan Ogareffek egia baizik ez zuen esan; baina, Irkutskeko defendatzaileen adorea ahultzeko asmotan, emirraren tropen **garaipenak** puzten eta harrotzen hasi zen. Karlos Zabala

Haren emaztea gerra **garaipen** ikur balitz bezala gizonen artean eramana izan zena. Felipe Juaristi

Torneo mota bat, zeinean, galtzailea derrotaz jabetzen ez denez, irabazleari **garaipenaren** saria ukatzen zaion. Xabier Olarra

Sindikatuak urte hartan **garaipen** partziala lortu zuen epaketan. Berría - Mundua

Champs Elysées-en zehar **Garaipenaren** Arkurantz gindoazela. ik beherago 8. Ramon Saizarbitoria

## 3 (kiroletan)

Paris-Nizako **garaipenari** esker. Berría - Kirola

Kolpeak Olaizolaren **garaipena** erraztu zuen. Berría - Kirola

Erdialdeko dibisioan, hirugarren postuan dago Hornets, 30 **garaipen** eta 26 partida galduta. Berría - Kirola

Bi taldeak berdinduta daude sailkapenean: 52 **garaipen** eta 23 porrot. Berría - Kirola

Orain arte jokaturako hiru partidetan bi **garaipen** eta berdinketa bat lortu dituzte eibartarrek.

Magnus Kopako bigarren **garaipena** erdietsi dute angeluarrek. Berría - Kirola

Ruben Navarrok partida amaiteko zazpi minutu falta zirela egin zuen Alavesen **garaipenaren** gola.

Pierre Aquile Webok sartu zuen **garaipenaren** gola 60. minutuan. Berría - Kirola

Lapurarrak aukera baliatu zuen Mindimba atezain bikainari **garaipeneko** gola sartu zion (6-5). Berría - Kirola

Asko sufritutako **garaipena** izan zen. Berría - Kirola

Merezitako **garaipena** lortu zuten. Berría - Kirola

24 **garaipen** lortu dituzte euskal txirindulariek 2004an. Berría - Kirola

**Garaipenak** lortzeko aukera baliatu ahal izan duen txirindulari langilea. Berría - Kirola

Hamahiru partida ofizial zeramatzan **garaipenik** erdietsi gabe. Berría - Kirola

Terrassa aurrera joan zen **garaipenaren** bila. Berría - Kirola

**Garaipen** bakarra falta zaio Detroit Pistonsi txapelaldun izateko. Berría - Kirola

Ostiral goizeko etapa ere aproposa izan daiteke **garaipena** eskuratzeko. Berría - Kirola

Bi **garaipenera** dago Minnesota, eta hirura azken aldiari panggalari den Lakers. Berría - Kirola

Vila-realen ostiraleko **garaipenak** gehiago behartuko du Athletic. Berría - Kirola

Etxeko **garaipenak** bultzada handia eman diezaguke. Berría - Kirola

**Garaipenerako** lehian. Berría - Kirola

Urtero irabazten genuen dominatxoa, eta atxikimendu maitekorra genion gure kirol-**garaipen** xume eta herrikoi hari. Juan Luis Zabala

-Txapelaldun batek ibilgailu elegantea beharko dik bere **garaipenak** ospatzeko! Josu Landa

**Garaipen** zerrrenda handitzeko. Berría - Kirola

Etapa **garaipen** ederra, etapa ikusgarrian, non eta bere idoloa izan zenaren jaioterrian. Berría - Kirola

## 4 (hauteskundeetan)

Horregatik, Chavezen **garaipena** oso garrantzitsua da, herriaren **garaipena** delako. Berría - Mundua

Eskualdetako bozetan **garaipena** egiaztatzea espero du ezkerrek. Berría - Mundua

Bir Zeit Unibertsitateak egindako inkesta batek Bargutiri ematen dio **garaipena**, botoen %46rekin. Berría - Mundua

Diputatu horren bozak eman zion **garaipena** Flosseri. Berría - Mundua

Botoen %99,14 zenbatuta, **garaipena** lehen ministro Viktor Janukovitxentzat zen. Berría - Mundua

Gloria Macapagal Arroyok lortu zuen **garaipena**. Berría - Mundua

Viktor Jushenkoren **garaipena** aldarrikatu zuten. Berría - Mundua

Astelehenean Iowan ustekabeko **garaipena** lortu zuen John Kerry Massachusettsko senadoreak. Berría - Mundua

**Garaipena** iragartzeko hitzaldian agertu zen Kerry, lehen aldiz, estatu gizon gisa, presidente bezala. Berría - Mundua

**Garaipen** giroa lagun, lehen txandan lehian izan ziren zerrenden bateratzea errazagoa izan da ezkerrearen aldetik. Berría - Mundua

Era berean, abstentzioa horren altua izatea **garaipentzat** jo zuen Marokok. Berría - Mundua

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Jaunaren **garaipen**-gezia! Elizen arteko biblia

Izan zaitezte leial heriotzaraino eta **garaipen**-koroa, betiko bizia, emango dizuet. Elizen arteko biblia

Zu nagusi **garaipen**-egunean. Elizen arteko biblia

**Garaipen** seinalerik ageriena. Aingeru Epaltza

Baina aurpegian **garaipen**-sentimendu kontrolatua nabari zitzaion. Iñaki Mendiguren

**Garaipen** aireko halako irribarrearekin. Patxi Zubizarreta





Urtebete gabe legioek **garaitiare** berri eman zuten. [Juan Garzia](#)

Seme edo alabaren baten **garaitia** eta lorpenak kontatzen dizkit. [Joxean Agirre](#)

Erdietsi dituzun **garaitia** berriak. [Jon Muñoz](#)

Baina enea zen **garaitia...** [Joan Mari Irigoien](#)

Urbiaingo hainbat herritarrek ere parte hartu ahal izan zezan deabruaren kontrako **garaitian**. [Joan Mari Irigoien](#)

**Garaitiarik** ederrena eragozteko ez da behar izaten beltzuri une bat edo susmo jeloskor bat baizik. [Jon Muñoz](#)

## garaitiko izlag goi gainerako.

Bihotz-bihotzez eskualdun izan gatik, **garaitiko** nizan guzia frantsesa duketalakotz ez othe? [Berria - Kultura](#)

Haien non, nola, zertan edo **garaitiko** zerei ohartuta. [Aingeru Epaltza](#)

Baina Euskal Herria, bere ñimiñoan, eratikia izan denaz geroz, eta aspalditik, Frantziari, gure aberria hedatzen da Euskal Herriko zedarrietarik harat, hartzen duela Frantzia **garaitikoaren** eremua. [Piarres Xarriton](#)

## garaitu<sup>1</sup> iz garai bera, gutxi gorabehera.

**Garaitu** hauxe hartuko zuen nekazariak sasi iharrak, kontuz-kontuz, garbitzen hasteko ere. [Pello Zabala](#)

Pentsatu beharra dago, beraz, **garaitu** hartan bai bere obrak bai bere bizitzak ez zutela jasaten kutsadura politikoa nabarmenik. [Berria - Kultura](#)

Gure aitak kontatuta dakit hori; izan ere, aita Salbatoreko barmetegan ikasle izana zen, osabaren arrimura, eta, kontatzen ari naizen **garaitu** hartan ezkontzekotan zen arren, joaten zitzaion oraindik ere noizean behin bisitan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Marielexako jende nagusia asko ikaratu ohi zelako irriti edo **garaitu** haietan ezagutu zen fonografoaren soinua haiekin. [Pako Aristi](#)

Behin batean, Caffara, Krimeako hirira, etorri zen, sufre bainuak hartzera, aspaldidanik, erromatarren **garaitutik**, baitute osasuntsu eta mirarigile fama. [Felipe Juaristi](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina garaitu** (3); **eta garaitu** (4); **garaitu hartan** (40); **garaitu honetan** (13); **garaitu horretan** (6)

## garaitu<sup>2</sup> izond garaia.

Bertako eta inguruko mendigoizaleak Euskal Herriko gailur **garaituenetarako** bidean jartzeko. [Joan Mari Irigoien](#)

## garaitu , garai(tu), garaitzen (ETCn 8.947 agerraldi; orobat garraitu) du ad 1 lehiakidea, etsaia edo aurkaria gaudititu.

Lehia agerian **garaitu** ditut arerio nituenak. [Juan Garzia](#)

Agirre'tar Nikola **garaitzeko** modu bakarra absolbitzea zela. [Koldo Izagirre](#)

Materia **garaitzea** hura ulertzea dela. [Juan Garzia](#)

Basahuntzak bere erasotzaileak **garaitu** dituela ikustean. [Joan Mari Lekuona](#)

**Garaitua** izan nintzen, osoki **garaitua**. Prévan geldiarazteko edo neure burua defendatzeko hitzik erran ahal izan baino lehen. [Jon Muñoz](#)

Haien buru egiten zuena Bizargorri ospetsua zen, gizon erraldoi eta odol gaiztokoa bera, sekula **garaitu** gabea. [Felipe Juaristi](#)

### 2 (gerretan)

Josuek amalektarrak **garaitu** zituen eta ezpataz garbitu. Baina, aleman armadak frantses armada berehala gauditzen du, **garaitzen** du. [Elizen arteko biblia](#)

Borroka ezin neketsuago batzuen ondorez **garaitu** zituztela holandarrek. [Joan Mari Irigoien](#)

Funtsean, erromatarrek errazki **garaitu** omen zituzten galiarrak. [Piarres Xarriton](#)

Austrasiak bi aldiz **garaitu** zituen Neustria eta Borgonia. [Iñaki Iñurrieta](#)

Italiako hiriak **garaitu** ondoren. [Iñaki Iñurrieta](#)

Irakeko erresistentzia **garaitzeko** gutxienez 10 urte beharko dituzte. [Berria - Mundua](#)

### 3 (kiroletan)

Iragan sasoiaren Real Madrid liderra zen bere etxean 0-3 **garaitu** genuenean. [Berria - Kirola](#)

Briveko taldeak, Lehen Mailako Auxerre taldea **garaitu** zuen, eta Frantziako Kopako final-laurdenera sailkatu. [Berria - Kirola](#)

Erlojupekoan ere espezialistak direnak bakarrik **garaitu** zuten Mentxov, Bobby Julichек eta Tyler Hamiltonek. [Berria - Kirola](#)

Bidasoak defentsan **garaitu** du Granollers. [Berria - Kirola](#)

Petacchi **garaitzen** saiatuko da Cipollini, baina bi horiek **garaitzen** saiatuko direnak ere ez dira hankamotzak. [Berria - Kirola](#)

83-80 **garaitu** zuen Minnesotak Sacramento lehia erabakigarrian. [Berria - Kirola](#)

Kubako pilotariak aise **garaitu** zuen finalean Frantziako ordezkari Mark Berasategi (40-25). [Berria - Kirola](#)

Neskato gazteen lehen taldeak loroski bururatu du bere sasoina Bordele aldeko talde gotor bat **garraituz**. [Herria](#)

### 4 (hauteskundeetan)

«Eskuina **garaitu**» nahi duela esan du Carlos Chivite PSNko buruak.

Berlini begira da CDU, Hanburgon sozialdemokratik **garaitu** ondoren. [Berria - Mundua](#)

Jendea irakutsi diogu Bush presidentea **garaitzeko** dugun erabakitasuna. [Berria - Mundua](#)

Joseph Lieberman senataria ez da aurkeztu lowan, **garaitzeko** aukerarik ez duelako. [Berria - Mundua](#)

lazko uztailaren 6ko erreferendumean ezetzak **garaitu** ondoren. [Berria - Mundua](#)

Minixtro batzu lehen bozaldian berean **garraituak** izanak ziren. [Herria](#)

### 5 (bestelakoetan)

Eta hala **garaitu** zitian aitak trabak eta behaztopak, legeari zetxezkionak. [Joan Mari Irigoien](#)

Nola irabazi nuen Tourra minbizia **garaitu** ondoren. [Imanol Zurutuza](#)

Noiz eta baitzirudien ezen ausartziaren zaldiak beldurrarena **garaitu** zuela. [Joan Mari Irigoien](#)

Izpirituak, haatik, ez dira armaz **garaitzen**. [Piarres Xarriton](#)

Ez baitzuen bere jakinmina **garaitzeko** indarrak. [Jon Muñoz](#)

Tentaldiarekin batera indarra ere emango dizue, tentaldia **garaitu** ahal izateko. [Elizen arteko biblia](#)

Anitz emakume dituzu seduzitu, baita galdu ere: baina zer zailtasun **garaitu** behar izan dituzu? [Jon Muñoz](#)

Tourvel andreak ezingo du amodioaren indarra **garaitu**, erlijioak ematen dion segurantzari oso atxikia egon arren. [Jon Muñoz](#)

Amultsua izan da bien arteko begirada, bizitzak elkarri emandako jipoiak ezagun dituzten eta haiek **garaitu** izanaren merituak elkarri onartzen dizkieten konplize zaharrena.

[Pako Aristi](#)

Gizaki libreare bertutea, arriskuak **garaitzen** bezain handi agertzen diren. **Piarres Xarriton**

· Ez zuen loak **garaitu**. **Gotzon Garate**

Sekula ez du ohiturak natura **garaituko**, guk ordea gogoa kutsatu dugu, uste makurrez eta aztura gaitzez. **Patziku Perurena**

Maitasunak eta Bihotz zabaltasunak behar dutela Herra **garaitu**, eta ez beste Herra mota batez hura ordaindu. **Piarres Xarriton**

Eritasunak **garaitua** sentitzen zen eta aldarte gaixtoak bentzutua. **Joan Mari Irigoien**

## • 6 zaio ad

Anaia nagusiei **garaitzen** zaien seme gaztearena. **Jose Antonio Mujika**

Primu-eskubidea ezarri zen, eta lege feudalaren arrazoia lege politiko edo zibilar **garaitu** zitzaion. **Iñaki Iñurrieta**

## 7 (era burutua izenondo gisa)

"Baietz esango nuke!" erantzun zuen jeneral **garaituak**. **Xabier Olarra**

Ateetako arkuez haruntzik polizia eta soldadu **garaituen** itzalak ikusten ziren. **Josu Zabaleta**

Garailleek gauza handi hauek ez zuten dizkiete herri **garaituei**: bizia, libertatea, legeak, ondasunak, eta erlijioa beti, norbera itsutzen ez denean. **Iñaki Iñurrieta**

Bere DC-3a hartu, eta hainbat aldiz zeharkatu zuen Berlin suntsitu, **garaitu**, gosetuaren zerua. **Joxerra Garzia**

Geroago azalduko zaie Frantzia **garaituaren** aurpegia, isil orduetan. **Josu Zabaleta**

**Garaituei** barkatu eta harroak menderatu. **Imanol Unzurrunzaga**

Behokoak goikoen mende erortzen direnean, garaileak **garaituen** apaingarriez janzen direnean, orduan konplizen da gauza iragankorren ordena. **Imanol Unzurrunzaga**

Ez dira garaile oihuak, ez eta **garaituenak**; festa-kantak dira nik entzuten ditudanak. **Jose Antonio Mujika**

Izan ere, irabazlearen garaipena ezin oso-oso izan **garaituak** plaza agerian makurrarazi gabe. **Karlos Zabala**

## 8 ezin garaitua mug

Herri batua, ezin **garaitua**! **Piarres Xarriton**

Ezin **garaitua** da Eskualduna. **Txillardegi**

## 9 ezin garaituzko

Ezin **garaituzkoa** nintzelako omena neureganatzea izan zen nire lehen ardura. **Jon Muñoz**

Men egina naukan ezin **garaituzko** ahal hori. **Jon Muñoz**

Indibidualismo ezin **garaituzko** bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 10 garaitu ezin izond ezin garaituzkoa, garaiezina.

Denen artean kasik **garaitu ezina** egiten dute lurraldea. **Karlos Zabala**

**Garaitu** ezin itxura zeukan gizon puskak mundu hau utzi behar zuen. **Itxaro Borda**

## 11 garaitu ezintasun

Gorpuzkeran belaunaldi baten **garaitu** ezintasuna oraino. **Itxaro Borda**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aise garaitu** (12); **aise garaitu du** (3); **aldiz garaitu** (3); **amalektarrak garaitu** (3); **batez garaitu** (3); **batez garaitu du** (3); **edomdarrak garaitu** (3); **ere garaitu** (5); **erregeak garaitu** (4); **eta garaitu** (30); **eta garaitu egin** (10); **eta garaitu nahi** (3); **garaitu ahal** (5); **garaitu ahal izateko** (3); **garaitu arte** (4); **garaitu baitituzte** (5); **garaitu behar** (7); **garaitu beharreko** (4); **garaitu dituzte** (30); **garaitu dituztela** (4); **garaitu du** (27); **garaitu duela** (6); **garaitu duen** (7); **garaitu dut** (3); **garaitu dute** (9); **garaitu egin** (31); **garaitu egin zituen** (6); **garaitu egin zituzten** (4); **garaitu egin zuen** (5); **garaitu egin zuten** (5); **garaitu egingo** (8); **garaitu eta** (24); **garaitu ezin** (3); **garaitu ezinik** (3); **garaitu genuen** (3); **garaitu nahi** (11); **garaitu nahi duela** (3); **garaitu ondoan** (5); **garaitu ondoren** (12); **garaitu ostean** (9); **garaitu zituen** (12); **garaitu zituztela** (5); **garaitu zituzten** (16); **garaitu zuela** (4); **garaitu zuen** (26); **garaitu zuten** (6); **guztiak garaitu** (3); **israeldarrek garaitu** (3); **mundua garaitu** (3); **nola garaitu** (4); **taldea garaitu** (3); **terrorismoa garaitu** (3); **xapeldunak garaitu** (3)

**da garaitua** (4); **eta garaitua** (6); **eta garaituak** (6); **eta garaituen** (5); **eta garaiturik** (17); **eta garaiturik gabeko** (10); **ezin garaitua** (3); **ezin garaituak** (3); **ezin garaituzko** (4); **garaile eta garaituen** (3); **garaile eta garaiturik** (12); **garaileak eta garaituak** (3); **garailerik eta garaiturik** (3); **garaitua bazen** (3); **garaitua eta** (4); **garaitua izan** (8); **garaitua izatea** (3); **garaitua zen** (3); **garaituak eta** (5); **garaituak izan** (10); **garaituak izan ziren** (3); **garaituak izango** (4); **garaituak zituzten** (3); **garaituko ez** (3); **garaiturik gabeko** (10); **garaiturik gabeko bake** (4); **garaituz gero** (7); **guztiak garaituko** (3); **herri garaituaren** (3)

**edozein garaitzeko** (3); **eta garaitzea** (4); **eta garaitzeko** (7); **eta garaitzen** (6); **garaitzea da** (4); **garaitzea eta** (3); **garaitzea lortu** (5); **garaitzeko aukera** (5); **garaitzeko gai** (3); **garaitzen ditu** (6); **garaitzen du** (3); **haiek garaitzea** (3); **hura garaitzeko** (3); **santuak garaitzen** (6); **santuak garaitzen ditu** (5); **terrorismoa garaitzeko** (4)

## garaituezin ik garaitu 10.

## garaitza (31 agerraldi, 13 liburutan; ETCn 160 agerraldi;) iz garaipena.

**Garaitzak** porrot partzialak behar dituela. **Koldo Izagirre**

Ez dago ikusi besterik zer ziren Italia eta Grezia erromatarren **garaitzen** aurretik eta ondoren. **Iñaki Iñurrieta**

Pontzio Pilatok ere ez zekien Kristoren **garaitzaren** alde jokatzeko ari zela. **Joxan Elozegi**

**Garaitza** ederra izan da Guadalajarakoa. **Edorta Jimenez**

Iraultzaren **garaitzaren** lehenengo orduetan. **Edorta Jimenez**

Bigarren Mundu Gerrako **garaitza** ospatzeko desfilea. **Edorta Jimenez**

Eibarren Errepublikaren **garaitza** beste inon baino egun bat lehenago aldarrikatu zela. **Edorta Jimenez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**garaitzaren osteko** (3); **iraultzaren garaitzaren** (3)

## garaitzaile (3 agerraldi, 3 liburutan; ETCn 33 agerraldi) izond garailea.

Gudu-zelaia uzten nuen ondoren, leherrak egin dituenarenak eginez, gerlari **garaitzailearen** firtasun zuhurra erakutsiz. **Joxan Elozegi**

Helduta baldin badu, makilaz jota ere, ez dio zakur **garaitzaileak** kontrarioari jaregingo. **Gotzon Garate**

## garaitzapen (15 agerraldi, 2 liburutan; ETCn 10 agerraldi) iz garaipena.

Gerrate honetan lortu dugun **garaitzapenik** handiena izan omen duk. **Txillardegi**

Don Carlosen **garaitzapena** gero eta nabarmenago agertzen zen. **Txillardegi**

Santa Maria eliza aldera abiatu da segizioa Kale Nagusitik, han, aurreko hilabeteetan lortutako **garaitzapenak** eskertzekotan, Te Deum ospetsu bat burutuko zelarrik.

**Txillardegi**

Bi **garaitzapen** -arku eraiki omen zituzten beltzek. **Txillardegi**

## garaitze iz lehiakidea, etsaia edo aurkaria gainditzea.

Eskualdunen **garaitze** bat! **Michel Oronoz**

## garaje 1 iz autoak zaintzeko eta konpontzeko lantegia.

Eta egiazko **garaje** bat, bere mekanikari eta igogailu eta guzti. **Koro Navarro**

**Garaje** erabat hondatu bat zen, bi hornigailuduna. **Oskar Arana**

Autoa **garajera** eraman nuen ostera eta begiratu bat eman nion. **Oskar Arana**

**Garaje** hartaz arduratzen ziren bi tipoetako inork [...] ezin izan zuela asmatu zer gertatzen zitzaien autoari. **Oskar Arana**

Rita Zabaleta deitzen zen eta idazkari lanak egiten zituen herriko **garaje** batean. **Hasier Etxeberria**

## 2 ibilgailuak edukitzeko eraikina edo tokia.

Autoa PSNko idazkari ohiak Iruñeko **garaje** batean duen aparkalekuan zegoen. **Berria - Euskal Herria**

Orain arte, **garajeentzako** solairuak eta erdisotoa eraiki dituzte. **Berria - Kultura**

Jerryk arroparen sokari begiratzen zion, edo **garaje**an zegoen 68ko Chevy deskaptableari. **Koro Navarro**

**Garaje** barruko eskaileretan gora etxeraino egin genuen. **Edorta Jimenez**

Urak **garajeak** eta etxabeak hartu zituelako. **Berria - Euskal Herria**

Urriaren 29an atxilotu zuten, **garaje** batean neska bati ukitu lizunak egin zizkielakoan. **Berria - Euskal Herria**

**Garaje** itxura duen tabernazulo bat dago ertz batean. **Iban Zaldua**

**Garajea** estudio bihurtua zuen. **Xabier Olarra**

**Garaje**-gelatik irten aurretik, zamarra jantzi zuen Ruche jaunak. **Jon Muñoz**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aitaren garaje**an (5); **eta garaje** (5); **eta garajea** (5); **eta garaje**an (3); **eta garaje**aren (3); **garaje** batean (14); **garaje** gelako (5); **garaje** gelan (6); **garaje** gelara (5); **garaje** gelatik (4); **garaje**an eta (3); **garaje**an sartu (3); **garaje**ko atea (6); **lanthemman garajea** (3)

## garamond iz letra-mota baten izena.

Eskuetan hartu zenuen bukinistaren apaletik, ongi eginiko lana zen, **Garamond** molde barrietan, lerroarteko zabalakaz. **Koldo Izagirre**

## garandu, garan(du), garantzen du ad aletu.

Halere, beste lanik ezean, sukalde eta mandio, egun hauetarako apartatzen zen apropos lan berezi bat: artoa **garandutzekoa**. **Pello Zabala**

## garangorri iz gurbitzaren fruitua.

Atzeritar-itxurako bonetaren azpian ile-xerlo hori eta leun batzuk ageri zituen mutil ihar batek **garangorriak** eskaintzen zizkion saski batean. **Lopez de Arana**

**Garangorrien** usainaren despit, mutilaren gorputz garbitu gabeari antzeman zion, hots, Ellis Island-eko emigratzaileek eta etxe jendetsuek isuritako usainari. **Lopez de Arana**

## garaño<sup>1</sup> iz ernaltzeko zaldia. ik almazari.

Lehenengo eta behin, zalditegira joan ziren, non bi behor ikusi baitzituzten, bata zuri-grisa eta bestea gaztainkara argia; **garaño** uher bat ere bazegoen, zatar samarra.

**Jose Morales**

**Garañoa** erosten badidak, hiretzat nekazari hilak. **Jose Morales**

**Garaño** bizkor baten gainean itziorik agertu duk orduan Karlos Setimo gazte-gaztea, txapel zuri zabala bere urrezko borlaz hornitua. **Txillardegí**

## garaño<sup>2</sup> iz gara, zurtoin txikia.

Ez deskuidatu, beraz, lizar-gara eta **garaño**ei punttak traskaitzen. **Pello Zabala**

## garantia iz 1 bermea.

Nire **garantia** guztiak dauzkazu. **Koldo Izagirre**

Kapitain jaunak **garantia** guztiak eman dizkizu! **Koldo Izagirre**

Baina gure buruari galdetu beharko genioke presaka ibiltzeak, eta batez ere **garantia** eskasekin ibiltzeak **-garantia** eskasekin ibiltzea baita, esaterako, behar denean ikaslibururik ez izatea-, bide zuzenetik eramaten gaituen. **Pello Salaburu**

Presoek «oraingo prozesuan parte hartzeko **garantiak**» nahi dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Zenbaitek ondoan, eta geroari buruz **garantia** baten ukaiteagatik, josteko mekanikaren erabiltzen ikasi zidaten. **Marzel Etxehandi**

Buruzagi-ordea gizona da, kaskoduna, horrek derama lan guzia, eta ezagutzen duzunaz geroz, **garantia** ona duzu. **Marzel Etxehandi**

Epaietek anitzetan ez dutela inolako **garantiarik**, giza eskubideen aldeko elkarte askok behin eta berriz salatu izan duten gisa. **Pello Salaburu**

Zein den erabil daitekeen metodologia eta zer sailkapen motak eskaintzen dituen **garantiarik** handienak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Espiritu da hartuko dugun ondarearen **garantia**. **Elizen arteko biblia**

## 2 (tresnena)

-[Telefonoak] **garantia** dauka! **Antton Olano**

Etika, **garantiak** edo segurtasuna nahi bazenuen, epeka ordaindu beharreko mikrouhin-labe bat erosi besterik ez zenuen. **Harkaitz Cano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**garantia** bat (4); **garantia** bat da (3); **garantia** guztiak (5); **garantiarik** gabe (4); **zer** **garantia** (3)

## garantizatu, garantiza(tu), garantizatzen du ad bermatu.

Lan zientifiko guztietan **garantizatu** behar diren arauak, hots, emaitzekiko errespetua eta aztertutakoa egiazkotasunez publiko egitea. **Berria - Gaiak**



# garapen (ETCn 54.486 ageraldi) 1 iz garatzea.

Garunaren **garapenean**. **Berria - Gaiak**

Unibertsitateak duen zeregin handia, ezinbestekoa eta bazter ezina, gizartearen **garapenean**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Herrien **garapena** eta herrien garaipena, biak, Internetekin loturik daude oraingoz. **Pello Salaburu**

Bi gene aurkitzen dira kakalardoaren hanken **garapena** kontrolatzen dutenak. **Pello Salaburu**

Giza zientzia modernoan sorrera eta **garapena**. **Joxe Azurmendi**

Eskerrik asko zuei, liburu honen **garapenean** eskaini didazuen laguntzagatik. **Joan Mari Irigoien**

**Garapen** gutxiko literaturetan gabiltzanok ere badugu Leopardik aipatzen zuen antzeko pagotxa, tradizio urri batek ematen digun sortzeko aukerarena alegia. **Anjel Lertxundi**

Autista askok erakusten duten **garapen** motela. **Xabier Olarra**

**Garapen** jarraiki batean eta epe luzera begiratu nahi duen aurrerakuntzarako. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

**Garapen** soziala bultzatzeko. **Berria - Kultura**

Teknologia transferentzia eginez edota hezkuntzaren **garapena** sustatuz. **Iñaki Heras**

Oztopoak baitaude euskararen erabileraren **garapenean**. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Azpigarapenaren eta **garapenaren** artean dago euskal kultura, krisi gorrian. **Markos Zapiain**

Ikerketa zientifiko eta **garapen** teknologikoari buruzko estatistikak. **Berria - Kultura**

**Garapen** ekonomikoaren bizkortzailea da gerla. **Piarres Xarriton**

**Garapen** demografikoak eta enpleguaren bilakaerak gastua nabarmenki handituko dutela. **Iñaki Heras**

Gure zientzia eta teknologia **garapenerako** sistema. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 2 (ekonomian)

"Ikerketa eta **Garapenerako**" (I+G) erabiltzen diren inbestimenduak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Giza **Garapenaren** Indizea. **Pello Salaburu**

Nazio Batuen Merkataritza eta **Garapenerako** Konferentziaren (UNCTAD) arabera. **Iñaki Heras**

Munduko Bankuak **garapen** bidean diren herrialdeak ditu helburu. **Iñaki Heras**

Zenbait erakundez dago osaturik gaur egun MB: Berreraikitze eta **Garapenerako** Nazioarteko Bankua, **Garapenerako** Nazioarteko Elkarte, Nazioarteko finantza Korporazioa eta Inbertsioen Bermerako Agentzia Multilateral. **Iñaki Heras**

## 3 (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Gizarte zientzien arloetako ikerkuntza jardueraren **garapen** maila, apalagoa da beste arlokoen **garapena** baino. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

**Garapen** -arazoak zituzten haurrentzako eskola berezi batera. **Xabier Olarra**

Sistemaren **garapen** ereduaren parte da kooperatibismoa. **Iñaki Heras**

**Garapen** politikan akatsak sufrimendu eta bizitzekin ordaintzen direnez. **Iñaki Heras**

Noiz arte jarraitu dezake mendebaldeko gizarteak edo mundu ustez garatuak **garapen** sistema horretan? **Iñaki Heras**

Planifikatu gabeko **garapen** prozesu luze baten ondorioz. **Iñaki Heras**

**Garapen** bidean diren herrialdeen lan egoera eskasak. **Iñaki Heras**

Turismoa ezin da izan gure herriaren **garapen** sail bakarra! **Itxaro Borda**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gorputz- **garapen** orekatua eta edertasun fisikoa balio gorenak zirela. **Bernardo Atxaga**

Oso gutxi dakite azken fase hori, artista- **garapenaren** adierazpen hori, hondamendizko galera batek eragina dela. **Xabier Olarra**

Giza **garapenari** buruzko aipatu azken txostenean. **Iñaki Heras**

Haien enbrioi- **garapena** gobernatzen duten geneak. **Juan Garzia**

Eta ekonomia hazkundea ez da ekonomia **garapena**, baina bada zerbait. **Iñaki Heras**

Epe luzeko ekonomia- **garapenerako**. **Koro Navarro**

Gure zientzia eta teknologia **garapenerako** sistema. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Kuhnen iritzi, zientzia- **garapenak** (hots, teoriaren edo, hobeto esan, paradigmen hautaketa-prozesuak) ez dio zientziaren razionaltasun algoritmikoari jarraitzen, irizpide psiko-soziologikoei baizik. **Askoren artean**

Industria- **garapenaren** garrantziak oharturik. **Koro Navarro**

Ikerketa- **garapenean** (IG) inbertsiorik handienak egiten dituzten herrialdeetako enpresek. **Koro Navarro**

Nazio- **garapenaren** funtsezko hiru osagai. **Koro Navarro**

Ekonomi eta gizarte- **garapenagatik**. **Iñaki Mendiguren**

Barne- **garapen** atzeratu baten zantzuak. **Xabier Olarra**

## 5 (jasangarri, iraunazgarri izenondoekin)

Haren arabera, **garapen** jasangarria guztion ahotan dago gaur egun, eta hiru ardatz nagusiren gainean egiten da horri buruzko eztabaida: biodibertsitatea eta **garapen jasangarri** ekonomikoa eta soziala. kulturen eta hizkuntzen **garapen** jasangarria. **Berria - Euskal Herria**

Plana ingurumena babestu eta **garapen jasangarriari** eusteko asmoz egin dute. **Berria - Euskal Herria**

Hiru logela, bi **garbigela** . Berria - Euskal Herria

**Garbigeletan** «komunak». Berria - Kultura

Haren inguruan ohetik **garbigelaraino** doan burdinbide hertsia bat dago zintzilik. Berria - Euskal Herria

Txakurrak lotzeko gelatxo bat ukanen dute eta baita ere **garbigela** gisako bat. Berria - Euskal Herria

## garbigune 1 iz gune garbia.

Eseri ziren **garbigune** batean, eta patriketan zuten ogia eta salamia jaten hasi ziren. Josu Zabaleta

Neskak zeraman iletia eguzki bilakatu zela, eta mutila gau, eta bere aurpegi beltzaren **garbigune** apur haietatik sortu zela ilargiaren distira apala, zikindua bezala. Pako Aristi

## 2 altzari eta elektrotresna zaharrak uzteko prestaturiko gunea.

Datuen arabera, iaz birziklatzeko etxeetan bereiztu zen zabor kopuruak gorantz egin zuen, aurreko urtean baino %5,9 gehiago birziklatu zen eta: poltsa eta edukiontzitan bereizitutakoak, **Garbiguneetara** eramandakoak eta ontziak eta tamaina handiko zaborrak batzeko etxerik etxeko zerbitzu espezializatuen esku utzitakoak batuz gero, 2003 urtean, herrialdean, 92.751 tona hondakin birziklatzea lortu zen. Zabalgarbi errauskailua martxan ipintzea eta beste hiru **Garbigune** gehiago egitea baino ez da behar.

Berria - Euskal Herria

Falta diren **Garbiguneak** Bakion, Ondarroan eta Arratian egingo dituzte. Berria - Euskal Herria

## garbijale izond/iz garbi jaten duena.

Garbijale eta **garbijale** amorratuenak naziak izan dira hemen. Iñaki Segurola

## garbikari (ETCn 72 agerraldi) iz garbigarria, detergentea.

Haren gibelean ezagun zen moketa gaineko arrasto iluna, atezain solasturiaren **garbikariak** ezabatu ahal izan ez zuena. Arropa eta **garbikaria** makinan sartu, hogeita bost zentaboko txanpona zirrikitura bota eta botoia sakatu zuen. Aingeru Epaltza

Makinetako olioak beltzuta zekartzan eskuak; gogoan dut, lanetik bueltan, sukaldeko harraskan *Vim* **garbikariarekin** garbitzen zituela eskuak, xaboa nahikoa ez eta.

Xabier Mendiguren Elizegi

Grasa kentzeko amoniakoa duen **garbikari** bat erabiltzen dugun bakoitzean. J.M. Olaiola "Txiliku"

Charly izugarri muturtzen zitzaion, porruak **garbikari** zaporea uzten baitzioten gero eztarrian. Aingeru Epaltza

Ez zen lehengo denboretan oraingo **garbikari** errautsik, baina gure aitzinekoek bazekiten nola egin, etxeko etxeko, gauzen garbitzeko, nolana hika andeatu gabe. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## garbikeria iz garbitasun gaitzesgarria.

Bestetik, "edo dena aldatu edo ezin da ezer aldatu" lemapean, **garbikeriaz**, maximalismoaz eta topikoz blai dirauen balizko progresismo anjelikal ezaguna. Iñaki Heras

## garbiketa (549 agerraldi, 126 liburu eta 195 artikulutan; ETCn 9.196 agerraldi) 1 iz garbitzea. ik **garbikuntza**.

Hala nola edalontzi, pitxer eta suilen **garbiketa** . Zoruaren **garbiketa** kirten bati lotutako molto umelarekin. Urtzi Urrutikoetxea

**Garbiketarako** gauzak erosi eta hautsa kentzen hasi naiz. Harkaitz Cano

**Garbiketarako** ontzia. Elizen arteko biblia

Ur hotza erabiltzen nuen neure **garbiketarako** . Anjel Lertxundi

Prestige ontzia ondoratzeak sortutako kalteen **garbiketak** eragindako gastuak. Berria - Euskal Herria

**Garbiketako** emakumea saskiarekin. Anton Garikano

Zeregin franko zegoen beti, gonbidatuak etxean, batzuetan mahai inguruan hogei lagun, eta gauerdia ongi aurreratu arte **garbiketan** . Anton Garikano

**Garbiketan** laguntzeko, gauerdia pasatu arte edo. Anton Garikano

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Israel Armadak **garbiketa** etnikoa egiten al du? Berria - Mundua

Ez dut maiz **garbiketa** orokorrik egiten. **Garbiketa** lehorreko dendaren ondotik. Aingeru Epaltza

Galdindoko araztegian **garbiketa** biologikoa egiten hasi zirenetik. Berria - Euskal Herria

**Garbiketa** on baten beharrean zegoen. Karlos Zabala

Sofisten eskola aztertzen hasi baino lehenago, irakurleak **garbiketa** kritiko bikoitza egin behar du. Askoren artean

Otoitz egitera deitu baino lehenagoko **garbiketa** erritualak egin. Jon Alonso

Etxez etxeko **garbiketa**. Berria - Euskal Herria

Wendy berarekin joango zen udaberriko **garbiketa** egiteko. Julen Gabiria

### 3 hed

Munduan juduen aurka izandako **garbiketak**. Berria - Mundua

Berriro 1936ko **"garbiketa"** zabala zetorren Euskal Herrira. Txillardegi

Giza eskubideen aldeko abokatuek lapurreta, diru **garbiketa**, zerga iruzurra eta fondo publikoak bidegabe erabiltzea leporatu diote. Berria - Mundua

Destierroak, nola esan?, **garbiketa** sozial funtzioa ere bazuen. Jokin Urain

Falujan «azken **garbiketetan**» ari dela esan du AEBetako Armadak.

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ospitale bateko **garbiketa** -saio arrunt bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Den-denaz egingo zuen errieta: **garbiketa** ontziez, arropa zabaltzeko sokez, ur ponpaz. Koro Navarro

Gosariarekin batera **garbiketa** tresnak, lanbasa eta lejia ekartzen dizkidate egunero. Koldo Izagirre

**Garbiketa** -tunel batetik zuzenean etorria bezainbat distirutzen zen. Aingeru Epaltza

**Garbiketa** greba. Berria - Euskal Herria

Zigilua segidan Credencialean daukat, ohea non dudan badakit, eta ere **garbiketa** tokia. Piarres Aintziart

Han egiten al ditu orain **garbiketa** lanak zure neskameak? Koro Navarro

**Garbiketa** lanetan parte hartu zuten gehienak gurasoak ziren. Berria - Euskal Herria

Hemen, lehen graduko moduluan, ea destinorik, **garbiketa** lanik alegia, ez al zuen nahi galdetu zion kartzeleroak. Jokin Urain

Basauriko udal eraikinetako **garbiketa** langileek. Berria - Ekonomia

Bizkaiko **garbiketa** sektoreko 400 langilek. Berria - Ekonomia

Eibarko jangela eta **garbiketa** zerbitzuetan mugarik gabeko greban diraute. Berria - Euskal Herria

Kostaldeko hondakinen **garbiketa** -programek. Berria - Euskal Herria

**Garbiketa** -txandena ere gogorarazteko. Iñaki Iñurrieta

Judutarrek **garbiketa** -egun solemnean aitortzen zituzten beren bekatuak. Juan Martin Elexpuru

- Auto **garbiketa** enpresek ere lehen bezala erabiltzen ahalko dute ura. Berria - Euskal Herria

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inspektorearen ustez, klanen arteko kontu- **garbiketa** argia. Patxi Iturritegi

Negoioak ditu auto **garbiketaren** arloan ere. Berria - Euskal Herria

Langileek gogor salatu dute arropa **garbiketa** zerbitzua azpikontratatzeko asmoa. Berria - Ekonomia

Umekeria uste baino larriagoa gertatu zen eta azkenean ospitalera eraman behar izan ninduten, eta han, sabel **garbiketa** egin. Patxi Zubizarreta

Gizarte **garbiketaren** politika dago honen atzean, eta ondo prestatutako jendea hilketen atzean. Berria - Gaiak

### 6 garbiketa(k) egin

**Garbiketa egin** beharko luke: atzoko soberakinak plateretan gogortzen, harria gainezka; disko konpaktu piloa lurretik sakabanatuta; ohea egin barik; dutxa ilez eta xaboi orbanez beteta... Sonia Gonzalez

Egunero etxeetan **garbiketak egiten** ditugunean erabiltzen dugun tresna bat: zurgagailua. Pello Salaburu

Hilabete da **garbiketa egin** genuela -esan zuen inudeak-. Xabier Olarra

Nik janaria prestatu eta **garbiketa egiten** dut. Anton Garikano

**Garbiketa egiteko** ordua, gero arropak lehortuko baitziren. Pako Aristi

Errekan **garbiketa egitea**. Itziar Otegi

**Garbiketa** egiten ari zen edozein gelatan izaten zen. Koro Navarro

Beraz, egunerokotasunean finkatuko du biziraupen estrategia: eguneroko **garbiketak egin**, arropa apaindu, ikasi, irakurri... Filipe Bidart

**Garbiketak** egin behar eta, banoa komunetara. Piarres Aintziart

Egunero etxeetan **garbiketak** egiten ditugunean. Pello Salaburu

Gizona seropositiboa denean eta emakumea kutsatu gabe dagoenean, haziaren **garbiketa** egin behar zaio gizonezkoari. Berria - Euskal Herria

- (*erritualak*) Arratsalde erditsuan esnatu zelarik, **garbiketak** egin, eta otoitzean hasi zen. Patxi Zubizarreta

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arropa garbiketa (3); beharrezko garbiketa (3); bere garbiketa (3); edo garbiketa (3); enpresetako garbiketa (3); enpresetako garbiketa zerbitzuko (3); eta garbiketa (34); eta garbiketa eta (5); eta garbiketa etnikoa (4); eta garbiketa lanak (3); etxeko garbiketa (3)

garbiketa bat (5); garbiketa edo (3); garbiketa egin (18); garbiketa egin behar (4); garbiketa egiteko (10); garbiketa egiten (8); garbiketa egitera (3); garbiketa egun (3); garbiketa eguna (4); garbiketa enpresak (3); garbiketa enpresek (3); garbiketa eta (16); garbiketa eta azkenik (3); garbiketa etniko (4); garbiketa etnikoa (25); garbiketa etnikoa egin (3); garbiketa etnikoa egitea (4); garbiketa etnikoa egiten (3); garbiketa izan (3); garbiketa lan (5); garbiketa lanak (20); garbiketa lanak bukatu (3); garbiketa lanak egiteko (4); garbiketa lanen (3); garbiketa lanetan (12); garbiketa lanetan parte (3); garbiketa lanetarako (4); garbiketa on (3); garbiketa orokorra (4); garbiketa sakona (4); garbiketa zerbitzu (3); garbiketa zerbitzua (14); garbiketa zerbitzuak (3); garbiketa zerbitzuko (3)

eta garbiketan (4); eta garbiketarako (4); eta garbiketari (3); garbiketak egin (7); garbiketak egiten (8); garbiketak eta (4); garbiketan ari (3); garbiketarako tresnak (3); kontu garbiketa (3); valoriza enpresetako garbiketa (3); zaindegi eta garbiketa (3); zuen garbiketa (3); zuten garbiketa (3)

## garbiketari iz adkor garbitzailea.

-Xelebre zabilek gure **"garbiketaria"** ez zakiat zer mirari edo deabrukeriaren bidez gaztetu zaigunetik. Aingeru Epaltza

## garbiketatxo iz adkor garbiketa.

Padrek bere burua zoriontzen zuen, oporretara abiatu aurretik **garbiketatxo** bat egin izanagatik. Jon Maia

## garbiki (*295 agerraldi, 39 liburu eta 161 artikulutan; ETCn 1.062 agerraldi*) 1 adlag argi eta garbi, iluntasun edo zalantzarik gabe. ik garbiro.

Banan entzun dut norbait gaztelaniaz hoin ederki, **garbiki**, emeki, sentsualki mintzo, hitzez gozatuz. Piarres Aintziart

Motorraren zaratotsa **garbiki** heltzen zitzaion. Iñaki Zabaleta

Nafarren mintzaira denaz geroz, **garbiki** ageri da Nafarroa Euskal Herria dela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bestalde, eta **garbiki** mintzatzeko, berrikitan kontatua zidan emazte ixtorio hura ez zitzaidan batere gustatzen. Daniel Landart

Nehor gutik zuen indarkeriaren bidea **garbiki** gaitzesten. Piarres Xarriton

Esan dezadan **garbiki**: gaizki samar taxututako suspentse nobela da, pertsonaia sinesgarririk gabea, beste ahulezia askoren artean. Berria - Kultura

Iduritzen baldin bazaie batzuei ez naizela Espainiaren aldera aski isuria, ez ditudalakatotz deplauki eta **garbiki** Espainiako hiri nagusien ondotik jartzen, [...]. Piarres Xarriton

Eta hurrengoan polikiago azalduko dizudala dena **garbikiago**. Txillardegi

Bada garaia hau garbi ikusteko eta are **garbikiago** esateko. Txillardegi

## 2 garbitasunez.

Jainkoa **garbiki** bilatzen duen gizakiak estura eta tristura moduko bat nabarituko duela behin baino gehiagotan. Joan Mari Lekuona

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aski garbiki** (9); **berak garbiki** (4); **buruak garbiki** (3); **da garbiki** (7); **du garbiki** (15); **du garbiki ez** (4); **dugu garbiki** (3); **ere garbiki** (12); **ere garbiki erran** (3); **erran du garbiki** (6); **eta garbiki** (15); **garbiki adierazten** (3); **garbiki agertu** (3); **garbiki atxikitzeko** (4); **garbiki diona** (3); **garbiki erakusten** (5); **garbiki erakutsi** (3); **garbiki erraiteko** (5); **garbiki erraiten** (5); **garbiki erran** (34); **garbiki erran du** (17); **garbiki erran dute** (4); **garbiki errana** (8); **garbiki erranez** (5); **garbiki eta** (8); **garbiki ez** (5); **garbiki jakin** (4); **garbiki mintzatu** (9); **garbiki mintzatu da** (4); **garbiki mintzatua** (3); **giten garbiki** (4); **hori ere garbiki** (3); **hori garbiki** (4); **mintza giten garbiki** (4); **nuen garbiki** (3); **zuen garbiki** (3)

## garbikoi *izond* garbizalea.

Hexagonoetara oldarrean sartu, baimen-agiri ez beti faltsuak erakutsi, gogo txarrez liburuki bat orri-pasa eskuartearen erabili, eta apal osoak kondentatzen zituzten: haien suhartasun **garbikoi**, aszetikoari, zor zaio milioika liburu hain zoroki galdu izana. Juan Garzia

## garbikuntza *(152 agerraldi, 8 liburutan; ETCn 205 agerraldi) 1 iz* garbiketa.

Ez pertsonentzako bakarrik, aziendentzako ere bazen **garbikuntzako** ohiturarik. Pello Zabala

Legendun pobreaken **garbikuntza**. Elizen arteko biblia

Egin dugu Jaunaren etxe osoaren **garbikuntza**, bai eta erre-oparietarako aldarearena. Elizen arteko biblia

Ekarri zuten, eta Dabid emakumearekin etzan zen, hura hilekoaren **garbikuntza** egin berri zenean. Jose Antonio Mujika

Yhwh-gana hurbiltzen diren apaizek bere ere egin dezatela **garbikuntza**, haien artean sarraskirik egin ez dezan. Xabier Kintana

Egin **garbikuntzak** eta zatozte nirekin oparia eskaintzera. Elizen arteko biblia

Inoiz galtzen bada arimako garbitasuna erabateko **garbikuntzaz** berreskuratu egin beharko da. Joan Mari Lekuona

Apaizek Jaunaren etxe barruaren **garbikuntza** egitera sartu eta kanpora atera zituzten, tenpluko atarira, barruan aurkitutako gauza kutsatu guztiak Elizen arteko biblia

## 2 irud/hed

Inoiz galtzen bada arimako garbitasuna, erabateko **garbikuntzaz** berreskuratu egin beharko da. Joan Mari Lekuona

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagagi gisa)

Lehen hilaren lehen egunean hasi zuten **garbikuntza** -lana eta zortzigarren egunean heldu ziren tenpluko atalondora. Elizen arteko biblia

Apaizek eta lebitarrek, guztiak batera, **garbikuntza** -ohikunek beteak zituzten. Elizen arteko biblia

Zertarako du **garbikuntza** -bainu hori? Elizen arteko biblia

Tenpluaren **Garbikuntza** Jaia ospatzeko deia. Elizen arteko biblia

## 3a (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sukaldaritzan, txofertzan, komun- **garbikuntzan** eta beste hainbatetan. Josetxo Azkona

## 4 (G larriz) otsailaren 2ko festa. ik **Kanderailu**<sup>1</sup>.

**Garbikuntza** -egunean Jesus Salbatzaile bedeinkatua besoetan jasotzean. Askoren artean

Ama Maria Birjinaren **Garbikuntza** festa. Pello Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aldarearen garbikuntza** (8); **aldarearen garbikuntza ohikunea** (5); **aldeko garbikuntza** (7); **aldeko garbikuntza ohikunea** (7); **beren buruaren garbikuntza** (4); **buruaren garbikuntza** (5); **buruaren garbikuntza egin** (3); **egin garbikuntza** (4); **eta aldarearen garbikuntza** (3); **eta garbikuntza** (5); **etxearen garbikuntza** (4); **garbikuntza egin** (28); **garbikuntza egin arte** (3); **garbikuntza egin eta** (6); **garbikuntza egin gabe** (3); **garbikuntza egin ondoren** (7); **garbikuntza egin zuten** (3); **garbikuntza egingo** (4); **garbikuntza eginik** (3); **garbikuntza egiteko** (8); **garbikuntza egiten** (3); **garbikuntza egitera** (4); **garbikuntza egunak** (3); **garbikuntza jaia** (3); **garbikuntza ohikunea** (21); **garbikuntza ohikunea egingo** (13); **garbikuntza ohikunek** (3); **garbikuntzako urez** (5); **santutegiaren garbikuntza** (5); **tenpluaren garbikuntza** (6)

## garbileku *iz* garbitzeko lekua. ik **garbigune** 2.

**Garbilekuak** zerupean daude, zehatzago esanda, zenbait zuhaitzen estalpean: eskuarki Auschwitzekoaren eraikuntza berdina da, baina harraska harrizkoa du. Urtzi Urrutikoetxea

Joanesez, gaztetasuna lagun, eta indarrak bere alde zituenean, ez zuen denborarik galtzen, lanetik landa **garbilekura** ematzeko. Eneko Bidegain

## garbimin *iz* garbizaletasun bizia.

Jakina da behar bezalako emakume gaixoa **garbimin** eta zikin-beldur paranoiko batek harrapatua bizi dela. Iñaki Segurola

## garbiontzi *(orobat garbi-ontzi) iz* garbiketak egiteko ontzia.

Ekarri pitxer bat ur eta **garbiontzia** honati, eraman etxeko jaunaren zaldia harat! Joan Mari Irigoien

Yinek **garbiontzia** laga zuen seigarrenaren atzean. Pablo Sastre

Burkoa bustia eta bihurtutako zegoen, **garbi** -ontzitik atera berria balitz bezala. Koro Navarro

## garbiro *(30 agerraldi, 18 liburutan; ETCn 206 agerraldi) adlag* garbiki. ik **garbiki**.

Segundo batean isilik gelditu da, bere idi gisatuaren erdia eta ogi xerra oso bat **garbiro** eta atzerabiderik gabe desagerrarazteko denbora. Monika Etxebarria

Ez bahaiz (gr.: *ékstasis*) heure baitatik eta gauza guztietatik **garbiro** irteten [...] ez haiz iritsiko ilunpe jainkozkoaren izpi supernaturalera. Joan Mari Lekuona





## garbitoki *(ETCn 143 agerraldi)* 1 iz ibaian edo, arropa eskuz garbitzen den tokia. ik [garbitegi 2](#).

Debako Artzabal auzoko [garbitokia](#) 1851ean eraikia da. [Berria - Kultura](#)

Errepidearen bihurgune batean bazen zubitxo bat, adarpe lehorrean [garbitoki](#) bat zuena. [Josu Zabaleta](#)

Euria ari zuela-eta egitekorik batere gabe, ez bazen akuriak [garbitokian](#) banku gainean lasterketak egiten ibilaraztea. [Koro Navarro](#)

## 2 aipatzen dena garbitzen den tokia. ik [garbitegi 3](#).

Tuterako auto [garbitoki](#) batean. [Berria - Euskal Herria](#)

## 3 purgatorioa.

Jaiera sutsuz bildu behar du mundu guztia bere otoitzean: bekatarik tristeak, zintzoak, eta [Garbitokiko](#) atxilotuak. [Joan Mari Lekuona](#)

Deliberatuki barruan eutsitako irudirik txikiak urratua behar du izan eramangaitza den [garbi](#)-toki baten bidez, Jainkoaren aurpegraino iritsi arte. [Joan Mari Lekuona](#)

## garbitu *(ETCn 25.892 agerraldi)*, garbi(tu), garbitzen 1 du ad zikintasuna edo lohitasuna kendu; kendu. ik [xahutu](#); [ikuzi](#); [araztu](#); [txukundu](#). ant [zikindu](#). (gorputzeko atalak)

[Garbitu](#), orraztu, eta janaria ahora ematen zion. [Xabier Montoia](#)

Baina atera beharra zegoen ohetik, eta ur izoztuan [garbitu](#), eta bizarra moztu, eta jantzi, gero, dotore, burdin urtuzko metrailari eskaintzeko. Ura ekarri zien, oinak [garbi](#) zizaten. [Josu Zabaleta](#)

Gelako konketan aurpegia [garbitu](#) zuen. [Felipe Juaristi](#)

Horrela, ezkerre beti libre, ipurdia [garbitu](#) ahal izateko. [Koldo Izagirre](#)

Berak erakutsi zion hortzak [garbitzen](#), irakurtzen eta idazten. [Jasone Osoro](#)

Aho inguru olioztatutak [garbitu](#) zituen paperezko ezpain-zapiak. [Aingeru Epaltza](#)

Ez dago etxerik egiteko tokirik, ez dago jendeak bere burua [garbitzeko](#) edo edateko urik. [Gotzon Garate](#)

Malko faltuak [garbitu](#) zituen. [Koro Navarro](#)

Mutil gazteak gizon zaurituaren ahoko odola [garbitu](#) zuen. [Irene Aldasoro](#)

Dutxatu egin naiz, ilea [garbitu](#), ondo orraztu. [Joseba Sarrionandia](#)

## 2 (gauzakiak eta gauzak)

Porruak [garbitu](#), azenarioa zuritu eta txikitu. [Unai Iturriaga](#)

Mahukan [garbitu](#) zuen labanaren ahoa. [Koro Navarro](#)

Zapatak [garbitzeko](#) eskuila bat esku artean zuela. [Harkaitz Cano](#)

Platerak [garbituz](#) ez da diru askorik irabazten. [Lopez de Arana](#)

Platera ogi-apur batez [garbitu](#) ondoren zotz bat hartu eta alde egin zuen. [Lopez de Arana](#)

Bi edo hiru minuturo gandua egiten zitzaion betaurrekoetan, eta betaurrekoak kendu eta sakelako eskuzapiarekin [garbitu](#) behar zituen. [Irene Aldasoro](#)

Zuk garaikurren gelan zilarra [garbituko](#) duzu Filch jaunarekin. [Iñaki Mendiguren](#)

West aldeko Berrogeita Zortzigarren Kalean dudan etxea erratzaz [garbitzeko](#). [Lopez de Arana](#)

Beharbada bizitza osoa etxe [garbitzen](#) eman beharko dut. [Gotzon Garate](#)

Domingo ikusi du zoruko terrazoa lanbasaz [garbitzen](#). [Iban Zaldúa](#)

Nora zoaz zapata handi horiekin, [garbitu](#) berri dudan lurra zapalduz? [Ramon Saizarbitoria](#)

Bi mutiko ziren, askan zaldi bat [garbitzen](#) ari. [Josu Zabaleta](#)

Hantxe gelditzen dira zutik, nik motorra [garbitzen](#) dihardudan bitartean. [Joxe Austin Arrieta](#)

Inoiz baino zehatzago ikusi nuen dena, haizeak atmosfera [garbitu](#) izan balu bezala. [Bernardo Atxaga](#)

Ura [garbitu](#) ondoren gelditzen den lokatza ez dute erretzen Nafarroan, ez baitago errauste plantarik. [Berria - Euskal Herria](#)

Kopa gaizki [garbitu bat](#) barra gainean paratzeko. [Aingeru Epaltza](#)

Eta une hartan oso zeru bitxi eta ederra ikusten zen goiko leiho hautsezatatu, aurreko udaz geroztik [garbitu gabean](#). [Jose Morales](#)

Eta gogotik [garbituagatik](#) ere ezabatzen ez ziren alkaterna arrastoak ageri zituela eskuetan. [Koro Navarro](#)

## 3 irud /hed

Ez baita sortu inguru hauetan, sorotik bertatik garia edo beste ale eta bihiak, jota, [garbituta](#), ganbarako apaletan kokatzen dakien makinariarik. [Pello Zabala](#)

Portalean sartu eta propagandaz betetako buzoia [garbitu](#) zuen. [Joxemari Urteaga](#)

## 4 (bestelakoak)

Gatzezko paretetik doinuaren zikinkeria guztiak [garbitu](#) eta doinua bera araztu egiten baitzuten, soinu huts bihurturik. [Felipe Juaristi](#)

Nire izena [garbitu](#) nahi dut guztiaren gainetik. [Berria - Kirola](#)

Del Olmori eskatu diote Martin Ugaldere irudia [garbitzeko](#). [Berria - Euskal Herria](#)

Alzibiadesi egindako iraina [garbitu](#) beharra dugu. [Karlos Zabala](#)

Belarrondokoa irain bihurtu zen, eta odolez [garbitu](#) behar zen, belarrondokoa hartutako gizona bilau gisa tratatua zelako. [Iñaki Iñurrieta](#)

Chiracen alderdiko bi goi kargu dirua [garbitzeagatik](#) zigortu dituzte. [Berria - Mundua](#)

Herexek erre egiten zituzten, suak [garbi](#) zitzan haien bekatu gorriak. [Felipe Juaristi](#)

Ordu gutxiren buruan berri eta gaitasun berriz beterik sentitu nintzen, gaitz luzetik [garbitu](#) eta sendaturik azkenean. [Juan Garzia](#)

Bekatuaz [garbitzeko](#) indar berezia dute Ganga ibai sailduaren urek. [Gotzon Garate](#)

Gaizkiaren indarrak mundutik [garbitu](#) nahi dituenen. [Pello Salaburu](#)

Alboan igarotzean norbaitek uki baleza, berehalaxe, kutsutik [garbitzeko](#), bere arropekin sartu ohi da uretan. [Patziku Perurena](#)

Eliza militante bakar bat ezartzeak ez luke gizakia jatorrizko bekatutik [garbituko](#). [Iñaki Mendiguren](#)

Jainkozko eguzkiak blai egiten ditu honelako gizakiak, irudi eta figura guztiatik [garbituak](#) eta aske direnak. [Joan Mari Lekuona](#)

Behin edo bitan egin zuen euria, baina horrek ez zuen herriko gizon-emakumeen oroimenetik gertatutakoa [garbitu](#) erabat. [Felipe Juaristi](#)

## 5 argitu.

Argindarrarekin gaua [garbitu](#) zutenean, belarrientzat gozagarri baina giza adimenarentzat harrigarri ziren beste aurrerapenak iritsi ziren. [Pako Aristi](#)

Egunaren argi gero eta zuriagoak ia [garbitu](#) du zeru osoa. [Pako Aristi](#)

## 6 eztarriaz eta mintzatuz, lakarra kendu.

Eztarria [garbitu](#) eta farol baten oinera txistua bota zuen. [Lopez de Arana](#)

Bere larri hartan, eztarria [garbitu](#) nahian, eztulka hasi zen. [Patxi Zubizarreta](#)

Pauso bat eman zuen aurrera, eztarria [garbitu](#) eta begiak itxi zituen, esatera zihoana bere barruan balu bezala, eta hura kanpora ateratzeak min emango balio bezala.

[Felipe Juaristi](#)

Marranta baitzuken, mutilak ahotza **garbitu** zuen, kantariei kantuari ekin aurretik ikusirik bezala. **Felipe Juaristi**

## 7 eragozpenak kendu, konpondu.

Auzirik korapilatsuenak **garbitu** zituzten, asko eta denetariakoak. **Jose Morales**  
Droga saltzaileek tiroz **garbitzen** zituzten beren arteko eztabaidak. **Gotzon Garate**  
Baina kontu hori datorren hilabetekoan **garbituko** dugu. **Pello Zabala**  
Beharbada zorrak **garbitzera** etorriko da. **Ander Irizar**  
Gaur bertzelako aferak **garbitu** beharrea nagok eta hi haiz horietariko bat. **Aingeru Epaltza**  
Don Manuelek esan omen zion Jaungoikoarekin kontuak **garbitu** beharrea zegoela. **Ramon Saizarbitoria**  
Ane, ardoak eta liburuak, gogartean **garbitu** beharrekoak **garbitu** zituen. **Unai Iturriaga**  
Ez zegoen zertan ezer **garbiturik**. **Xabier Aranburu**  
Ikusten baduzu, esaiouz aitarekikoak **garbitu** ditudala, ez duela merezi gauzak gehiago nahastea. **Javi Cillero**

## 8 ezer gabe utzi.

Orain bazekien nor izan zen ganbara **"garbitu"** zuena. **Joxemari Urteaga**

## 9 adkor hil.

Sambalpur-en gizon batek bere etxeko sei lagun **garbitu** zituen: emaztea, aita, ama, arreba eta bi anaia. **Gotzon Garate**  
Hurrengo baten bi tiroz **garbituko** dot zure txakur hori". **Gotzon Garate**  
Bi urtean Alemaniako, Frantziako, Ingalaterrako, Holandako... biztanleriaren herena **garbitu** zuen. **Gotzon Garate**  
Josuek, bada, amalektarrak garaitu eta ezpataz **garbitu** zituen. **Jose Antonio Mujika**  
Kontzientzia kezka izpirik gabe, basa ihizi bat bezala **garbituko** zuen, metraileta ukaldi batez. **Eneko Bidegain**  
Jan dena edota Pomfrey andreak **garbitu** egingo nau. **Iñaki Mendiguren**  
1675an, Campoy herrian, kanpai jotzen ari zen sakristaia jo eta **garbitu** zuen tximistak. **Pello Zabala**  
**Garbitu** dute noblezia; gailendu da gixatxar arruntaren morala munduan. **Patziku Perurena**  
Udazkenean sekulako meteoritoak guztiz **garbituko** gaituela. **Berria - Gaiak**

## 10

Eseri baino lehen egin nuen azterketa azkar bat, jateketa osoa begiratu arin batez **garbituz**, eta ikusi nuen Libertinak ezkerrean zegoen mahai batean ari zirela afaltzen, zutabe batek erdi-estaltzen zuelarik. **Joxemari Iturralde**

## • 11 da ad (nork bere burua.)

Jaiki eta errekan **garbitu** ginen. **Aitor Arana**  
**Garbitu** hadi. **Fernando Morillo**  
Neska komunean **garbitzen** zen artean, Goio jantzi egin zen. **Joseba Sarrionandia**  
Denborarekin ez nintzen gehiago biluzi, ez nintzen gehiago **garbitu**, nire baitan horrelako eginahal alferrikakoen aurkako higuina garatu baitzen. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Itzul zaitez herriagana, **garbi** daitezela gaur eta bihar, **garbi** ditatzela arropak eta egon daitezela prest etziko, etzi jaitsiko bainaiz ni, Jauna, Sinai mendira, herri osoaren aurrean. **Jose Antonio Mujika**

## 12 (era burutua izenlagun gisa)

Harraskan xuriketak egiten ari da erromes bat, eta beste bat piruan dilindan ezartzen jantzi **garbituak**. **Piarres Aintziart**  
Burdinazko uztaian itsatsirik gelditu diren urkatuaren lepoko haragi eta azal zatiak kentzen ditu zaku zahar bati eskaturiko zati **garbituagaz**. **Koldo Izagirre**  
Hitzaren betiko sorkuntza, erditze sekretua arima **garbituaren** [...] "irudi" batena. **Joan Mari Lekuona**

## 13 (era burutua izen gisa) ik garbitualdi.

Amak onartu egin zuen semearen proposamena, baina argiontzari **garbitu** bat ematen hasi zelarik, animaleko jeinu muturbeltz bat agertu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**  
**Garbitu bat** eman ondoren lizuna joaten zaion jantzi, ehun, larru nahiz larrukia, berrito garbitu eta gero, garbi geldituko da. **Elizen arteko biblia**

## 14 ezin garbituzko

Gure protagonistaren masaila eder eta marduletako bat ezin **garbituzko** laidoak orbandurik geratzea. **Jose Morales**

## 15 garbitu-pasada iz garbitualdi arina.

**Garbitu** pasada eman zion aurpegiari eta jantzi, alkatearentzat lan egiten zuenetan bezala, galtzak gorri eta atorra berde, edota atorra gorri eta galtzak berde. **Felipe Juaristi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ahoa garbitu (5); arropa garbitu (6); arropak garbitu (13); arropak garbitu eta (7); aurpegia garbitu (31); aurpegia garbitu eta (4); aurpegia garbitu nahi (4); aurpegia garbitu zuen (5); bat garbitu (29); batekin garbitu (7); batez garbitu (14); batez garbitu zituen (4); batzuk garbitu (6); berak garbitu (6); bere burua garbitu (5); berrito garbitu (4); bertan garbitu (10); betaurrekoak garbitu (6); bezala garbitu (9); bezala garbitu eta (5); burua garbitu (10); dena garbitu (9); denak garbitu (5); dira garbitu (4); dute garbitu (4); edo garbitu (7); erabat garbitu (7); ere garbitu (20); eskuak garbitu (44); eskuak garbitu eta (10); eskuak garbitu gabe (4); eskuak garbitu nahi (4); eskuak garbitu zituen (4); eskuz garbitu (6); eta aurpegia garbitu (6); eta eskuak garbitu (9); eta garbitu (64); eta garbitu egin (10); eta garbitu egingo (6); eta garbitu ondoren (4); etxea garbitu (5); ez garbitu (4); ezpainak garbitu (6); eztarria garbitu (54); eztarria garbitu eta (19); eztarria garbitu zuen (21); gabe garbitu (5)  
garbitu ahal (7); garbitu ahal izateko (5); garbitu arte (12); garbitu aurretik (4); garbitu baino (4); garbitu bat (4); garbitu behar (90); garbitu behar dira (4); garbitu behar ditugu (4); garbitu behar duenaren (8); garbitu behar izan (4); garbitu behar izaten (5); garbitu beharko (18); garbitu beharra (17); garbitu beharrea (5); garbitu berri (8); garbitu berria (8); garbitu berriak (5); garbitu bezain (4); garbitu bitartean (10); garbitu ditu (17); garbitu ditut (4); garbitu dituzte (13); garbitu du (20); garbitu dut (4); garbitu dute (6); garbitu edo (5); garbitu egin (43); garbitu egin behar (5); garbitu egin nahi (4); garbitu egin zuen (6); garbitu egingo (23); garbitu egingo ditu (5); garbitu egiten (18); garbitu egiten du (4); garbitu ere (6); garbitu eta (211); garbitu eta bere (4); garbitu eta gero (7); garbitu ez (7); garbitu ezinik (4); garbitu gabe (25); garbitu gabeko (9); garbitu genuen (4); garbitu izan (10); garbitu izan balu (4); garbitu nahi (43); garbitu nahi izan (11); garbitu nintzen (4); garbitu nituen (9); garbitu nuen (17); garbitu oinak (4); garbitu omen (5); garbitu ondoren (37); garbitu ostean (7); garbitu zidan (4); garbitu zion (10); garbitu ziren (6); garbitu zituen (65); garbitu zituzten (31); garbitu zizkion (7); garbitu zuen (82); garbitu zuen eta (5); garbitu zuenean (5); garbitu zuten (29)  
garbitua eta (6); garbituak izan (4); gehiago garbitu (4); guztia garbitu (5); guztiak garbitu (11); guztiak garbitu eta (4); hantxe bertan garbitu (4); hartu eta garbitu (6); hondakinak garbitu (4); hori garbitu (4); hortzak garbitu (13); hura garbitu (6); ilea garbitu (4); jo eta garbitu (6); lagun garbitu (5); lurra garbitu (5); odola garbitu (6); oinak garbitu (13); oinak garbitu eta (4); ondo garbitu (14); ongi garbitu (10); ongi garbitu eta (4); ontziak garbitu (12); pixka bat garbitu (4); tiroz garbitu (12); ura garbitu (5); uretan garbitu (8); zapatak garbitu (5); zorua garbitu (4)  
arropak garbituko (9); arropak garbituko ditu (8); ere garbituko (6); eta garbituko (5); eta gorputza garbituko (12); garbituko da (6); garbituko ditu (26); garbituko ditu eta (16); garbituko ditut (13); garbituko dituzte (10); garbituko du (11); garbituko dugu (5); garbituko dut (7); garbituko zuela (5); garbiturik eta (4); gorputza garbituko (12); gorputza garbituko ditu (12); guztiak garbituko (6); nork garbituko (4); uretan garbituko (6)

## garbitualdi iz garbialdia.

Filotti etxeko oilategian **garbitualdi** bat egiteko burutazioa Meharraren ekimen personala izan zen. **Koldo Biguri**

## garbitugabe 1 izond garbiturik ez dagoena.

Lipar batez, garangorrien usainaren despit, mutilaren gorputz **garbitu** gabeari antzeman zion. **Lopez de Arana**

## 2 garbitugabeko izlag garbitugabea.

Bat-bateko zartadak ematen edo keinadak egiten hasi zen eskuineko eskuaz [...] ezker besoko alde biluzi, **garbitu gabeko**, "zikin"erantz. **Xabier Olarra**

## garbitzaile *(orobat garbitzale g.er.)* 1 iz garbitzen duen pertsona.

Lincolnen estatua erraldoia garbitzen hasi da **garbitzailea** eskuilarekin eta xaboiarekin. **Harkaitz Cano**

**Garbitzaile** batzuk eta karabineroen emazteak atera ziren segizio bitxi hura ikustera. **Koro Navarro**

Presidente batek, **garbitzaileak**, taxistek edo irakasleek ez dituzten pribilegioak gozatzeko dituzte. **Patxi Zubizarreta**

Sanjoan suko piltzar errausturen bat, **garbitzaileen** erratzetako itemo ihes egindakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gipuzkoako **garbitzaileak**, beren sindikatuak aintzineko, kexu eta greban dabilta. **Herria**

"**Garbitzaileak**" ezabatu eta horren ordez "garbiketa lanen arduradunak" idatzi nuen. **Aingeru Epaltza**

Nik ezagutu nuen urteetan **garbitzaile** gisa aritzen zen. **Koro Navarro**

-Beleak, Indiako **garbitzaileak**. **Gotzon Garate**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Monaren sukaldari nagusia nintzen eta bere plater-**garbitzailea**. **Fernando Rey**

Pertsonaia bibliokoak zapata-**garbitzaileak**. **Harkaitz Cano**

Argazkian, oinetako-**garbitzaile** bat, taberna bateko erakuslehoaren aurrean eta basokada bat ardo eskutik hurbil. **Anjel Lertxundi**

Ubide ondoan gelditu ziren, oihal-**garbitzailearen** sororako bidean. **Elizen arteko biblia**

Hanburgoko arropa-**garbitzaile** baten eta trenbideko langile baten alaba zen. **Koro Navarro**

Goizaldeko seiak ziren eta kale-**garbitzaileak** azaltzen hasiak ziren. **Harkaitz Cano**

Orain urte batzuk, Milango kale-**garbitzaile** batek emakume baten gorpua aurkitu zian Duomotik hurbil. **Anjel Lertxundi**

Etxeorraztetako leiho **garbitzaileak**. **Iñigo Aranbarri**

Semaforoetako haizetako-**garbitzaile** batek ez zituen nireak bezain begi urrikariak paratuko. **Aingeru Epaltza**

Lana bukatutako bulego-**garbitzaileak**. **Iñaki Zabaleta**

Gizonak kedarrez estalia zuen aurpegia, tximinia-**garbitzaile** batek bezala. **Koro Navarro**

Goxotegia, agenteak, auto-**garbitzaileak**, plater-garbitzaileak. Irabazi ikasten duzun bitartean. **Lopez de Arana**

Tren-**garbitzaileekin** aritzen zen hizketan. **Unai Elorriaga**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Monsieur Cresson -gau hartan **garbitzaile**-buru egiten zuena, alegia- ez zen gobernu ordezkariaren azalpenarekin konforme gelditu. **Patxi Iturritegi**

## 3a (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Emakume komun-**garbitzaileak**, bere aldetik, etsipenaren arruntasun itogarria ezagutzen du. **Joxan Elozegi**

Aingeru zapata-**garbitzaile** bat emango dut, zilarrezko paperaz estaltzen nautenean. **Harkaitz Cano**

## 4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Roberto Goaza komisarioak onaren eta gaizkiaren gainetik dagoenaren begirada zuzendu zion Cesarri, zure etorkizunaz dena dakitela eta etorkizun hori geratzen zaizkizun urte guztietan zapata-**garbitzaile** lanetan pasatzean datzala dakikenaren begirada. **Harkaitz Cano**

## • 5 izond garbitzen duena.

Torturatu den deiadarrak entzuten ziren oso sarri, baina etxe hartako emakume **garbitzaileak** sorbaldak goratzen zituen. **Anjel Lertxundi**

Ohera aurretik, krema **garbitzailea** ematen ari zela, erregaliak nork bidaltzen ote zizkion hasi zen pentsatzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zenbat homosexual erre ote dituzte "su **garbitzaileen**". **Luis Elberdin**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

basauriko garbitzaile (3); basauriko garbitzaileak (8); enpresako garbitzaileak (3); eraikinetako garbitzaileak (3); fcc enpresako garbitzaileak (3); garbitzaile bat (12); garbitzaile batek (7); garbitzaile batzuk (4); garbitzaile eta (5); garbitzaile gisa (3); garbitzaileak alde (4); garbitzaileak eta (3); garbitzaileak greban (4); garbitzailearen sororako (3); garbitzailearen sororako bidean (3); horma garbitzaile (3); kale garbitzaile (11); kale garbitzaile bat (4); kale garbitzaile (4); oihal garbitzailearen (3); oihal garbitzailearen sororako (3); oinetako garbitzaile (3); tximinia garbitzaile (3); udal eraikinetako garbitzaileak (3); zapata garbitzaile (6); zapata garbitzaile (3); zapata garbitzailearen (3); zortzi garbitzaile (3)

basauriko garbitzaileak (7); basauriko garbitzaileen (12); basauriko garbitzaileen greba (5); dute garbitzaileak (3); enpresako garbitzaileak (3); eraikin publikoetako garbitzaileak (3); eraikinetako garbitzaileak (6); fcc enpresako garbitzaileak (3); garbitzaileak beste (11); garbitzaileak beste kobratu (7); garbitzaileak eta (3); garbitzaileak greba (5); garbitzaileen greba (20); garbitzaileen grebak (4); irungo garbitzaileen (6); irungo garbitzaileen greba (5); kale garbitzaileak (6); publikoetako garbitzaileak (5); publikoetako garbitzaileen (3); udal eraikinetako garbitzaileak (6); udal garbitzaileak (10); udal garbitzaileak beste (10)

## garbitze 1 iz zikintasuna edo lohitasuna kentzea.

Orduan toki bereziki apartatua bilatu zuen, Senaren ezpondan, gutxienez lepo-buruak garbitzeko, baina iruditu zitzaion bere **garbitze** lana non-nahitiki ikus zezakeela jendeak. **Matias Mujika**

Neskame azal-ilun bat etortzen zitzaion eguneroko **garbitze**-lanak eta kafea egitera. **Mirentxu Larrañaga**

Etxean sartu ondoren, **garbitze** lanetan hasi ziren. **Berria - Euskal Herria**

Bidean **garbitze** lanak oroitzapen mingarriak utzi zizkion. **Eneko Bidegain**

**Garbitze**, urritze, bakantze lana da idaztea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Iztuetak bere ideologia bereko funtzionarioak nahi ditu, eta hau, ideologia **garbitze** prozesu baten barruan kokatu behar dugu. **Berria - Euskal Herria**

**Garbitze** zerbitzuen lan eskaintza publikoaren deialdia. **Berria - Ekonomia**

## 2 kontu garbitze

Poliziak uste du kontu **garbitze** bat izan zela. **Berria - Mundua**

Gerrillariei babes ematen dieten muturreko talde arabiarren **kontu-garbitzea** izan zen eraso. **Berria - Mundua**

Bertako mafien arteko ika-mikekin lotutako **kontu-garbitzea**. **Berria - Mundua**

Askoz modu zabalagoan hartu du amaren aldeko kontu **garbitze** hori. **Berria - Kultura**

Senideekiko zatiketa giroari edo **kontu garbitzeei** ekinez. **Joxan Elozegi**

Lapurren arteko kontu **garbitze** batek ematen ez diena. **Migel Angel Mintegi**

Beste kontu **garbitze** bat Diaz-ekin egiten duena da, Zestoako medikuarekin. **Josu Zabaleta**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

basauriko garbitzaileen (12); basauriko garbitzaileen greba (5); garbitzaileen greba (20); garbitzaileen grebak (4); irungo garbitzaileen (6); irungo garbitzaileen greba (5); publikoetako garbitzaileen (3)

## garbizale izond/iz 1 garbitasuna maite duena.

dozelen ere, usaimenare ondoko frogatu ahal nuzenez, Marrubi bera ere ez zen **garbizale** amorratua. Iban Zaldúa

Athleticen elastikoan publizitatea jartzearen kontrako jarrera dute batzuek, **garbizaleek**. Berria - Kirola

Iritzi orokorraren kontra mintzatzea bada ere, **garbizaleek** egindako sarraskien ondorioak berez diren baino larriagotzat eduki ditugulakoan nago, fanatiko horiek sorrarazi zuten izuaren kariaz. Juan Garzia

## • 2 izond/iz (hizkuntzan) hitz arrotzen aurkako joeraren aldekoa.

Euskarari aldatzeko askatasuna mugatzen eta jarrera **garbizaleak** bultzatzen dihardudala. Koldo Zuazo

Liburuan ageri diren beste ipuinek ez bezalako euskara jasoa du, [...] **garbizalea**. Anjel Lertxundi

Ezin dio asmakeria **garbizalearen** neologismo-eitea nabarmendu txadona hitzari. Anjel Lertxundi

Ez da batere museo modernoa, oso konbentzionala eta **garbizalea** da, hertsia. Berria - Kultura

Flamenko eskola **garbizalearen** partaide arrakastatsua. Berria - Kultura

**Garbizaleek** XIX. mende hondarrean asmatu eta geroztik iraupenik izan ez duten hitzekin ere jolas egin daiteke. Iñaki Arranz

## garbizalekeria iz hitzunez mintzatuz, hitz arrotzen aurkako joera gaitzesgarria.

«Nik ikusi dut aurren-aurrena, idazten ari nintzen bezala, erresistentzia proba honetan, Euskal Herrian hizkuntzaren inguruan aspalditik dabilen mamua: mamu hori da

**garbizalekeria** edo beste modura esanda, purismoa». Berria - Euskal Herria

Garai hartan euskalgintza zertan zegoen ikusteko «baliagarria» da artikulua: «Alde batetik, **garbizalekeria** amorratua zegoen, bide hartatik ez gindoazen inora; bestetik, gramatika aldetik oso modan zegoen gauzak aldatzea». Berria - Kultura

Bestalde, **garbizalekeria** moralak eta, batez ere, hizkuntza **garbizalekeriak** areagotu baino ez zuten egin herri-poesiaren gaitzespen hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Latinaren zaporea ez zitzaion **garbizalekeriaraino** heltzen eta san Tomasen latin hizkera latza, liraina zeukan. Piarres Xarriton

## garbizaletasun 1 iz garbizalea denaren nolakotasuna.

Arantxa maitatzen nuela sinesten jarraitzen ahalegintzen banintzen ere, haren gauzak geroz eta gehiago gertatzen zitzaizkidan gorrotagarri; **garbizaletasunaz** gain, jakina.

Iban Zaldúa

## 2 hitzunez mintzatuz hitz arrotzen aurkako joera.

**Garbizaletasunari** dagokionez, zeharo bat nator -nola ez?- Euskaltzaindiak 1959an plazaratutako agirian esan zenarekin. Koldo Zuazo

Bere baitan itxi eta euskal **garbizaletasunaren** defentsa. Pako Aristi

**Garbizaletasunaren** ildotik asmatutako hitz berriak. Iñaki Arranz

## garbo 1 iz lotutasunik gabeko adorea.

Bere tinbre biziak, altuak, latz puntu deigarri bategaz eta ezarten deusan **garboagaz**, eskegita zaroazala emoten dau. Xabier Amuriza

## 2 garbozko izlag irud

Zuhaitz airosa da sahasa; arin hazten da, ez agudo bakarrik, baita arinkeriarik gabeko airosidade lirain eta **garbozkoan** ere. Pello Zabala

## garboso adlag garboz.

**Garboso** asko sartu nintzen arropa zikina nekarrela, galtzontziloak aitzindari. Joxean Sagartzizabal

Irudikatzen al duzue Egaña saio bat hasten, **garboso**, arranke izu-garriz, sinetsita...? Andoni Egaña

Emaztea duk, beharbada, “**garbosoegi**”, nolazpait esateko. Txillardeggi

## garbots 1 iz gaztainaren morkotsa.

Eguzkiaren joan hostoak dardaran ari direla, gaztainondoetatik **garbotsak** lurrean punpatuz. Piarres Aintziart

Artetan **garbots** malindu batzuen ohean zango malinak tratatzen zaizkit, goroldioak bereganatu nahi balitu bezala. Piarres Aintziart

## 2 pl irud barrabilak.

Errain-ukaldika goiti eta beheiti mugitzen hasi zen, uhinka, neskaren uzkia eta bere **garbots** pare hantua elkarren kontra kuskaka sentitzen zituela. Itxaro Borda

## garbura iz eltzekoa, lapikokoa.

Jateko: xamango **garbura**, xingarra piperradarekin, ahatekia lekekin, ardi gasna, izozkia xokoletarekin, arnoa, kafea, ondokoa. Herria

## garden (ETCn 6.266 agerraldi) izond 1 argia igarotzen eta atzean dauden gauzakiak garbi ikusten uzten duena.

Aire **gardenean** eskegita geratu zen. Josu Zabaleta

Airea ezin da aldi berean iluna eta **gardena** izan. Imanol Unzurrunzaga

Giro oskarbi **gardenak**, eguzkia pizten du indartsu. Pello Zabala

Begiak argiz zipriztindutako gau **gardenean** noragabeturik. Lopez de Arana

Goi-mendietako ur **gardenei** beha. Joan Mari Irigoien

Ibai sakon, hotz, **gardena**. Josu Zabaleta

Azala oso du zuria, **gardena**, tindu gorrixkaz ukitua, emakume britainari askoren antzera. Ramon Saizarbitoria

Begi urdinak eta **gardenak** zituen eta ile beltza. Jasone Osoro

Bularra biribila du blusa **gardenaren** azpian. Josu Zabaleta

Zetazko soineko zuri **garden** batez jantzia. Juan Martin Elexpuru

Lihozko alkandora zeukan soinean, **gardena** ia. Jon Muñoz

Plastikozko orri **gardenetan** sartuta. Joxemari Urteaga

Beira **gardenaren** aurrean. Josu Zabaleta

Kristal **gardenetatik** haren bisaia ozpina ikusten ahal zen. Aingeru Epaltza

Atsegin dut ur **gardenetan** biluzik bainatzea. Migel Angel Mintegi

Ageri-agerian utzi zuen azal **gardeneko** bular samur arrosa bat. Jose Morales



## 2 irud/hed

Argazki **garden** samar bat nahikoa izango zen txostena osatzeko. **Migel Angel Mintegi**

Eguzkiaren izpiek edo egunaren gezi **gardenek**. **Xabier Amuriza**

Inoiz giza eztaerriak sortu duen ahotsik **gardenena** zuen, nik uste. **Irene Aldasoro**

Hegazti nabarrek, baso apartatuetan hegan, bazterrak aire samurrean zehar euren txorrotzio **gardenez** betetzen dituztenez. **Xabier Amuriza**

Eta hegaztiak gauez, Helikonen baratze izoztuetatik, ahots goibelez auhen **gardena** jasotzen dutenez. **Xabier Amuriza**

Ahotsa **gardena** zuen. **Anjel Lertxundi**

Txilin-hots **garden** batek bere etorreraren berri eman zion emakumeari; urrats batzuen hotsak, berriz, berari. **Migel Angel Mintegi**

Zitararen kantu **gardena**. **Xabier Amuriza**

Bere ustez, kritikariak ilunak ziren, kriptikoak; artista onak, berriz, **gardenak**, ulerterrazak. **Ramon Saizarbitoria**

Estiloa, zehatza bezain **gardena**. **Anjel Lertxundi**

Haren gorputzaren epela sumatzeko bezain hurbil, gizaseme eta emakumeen arteko harreman ez beti **gardenen** alderdi zabalez xuxurlaka. **Aingeru Epaltza**

Haren aurpegiaren obaloo polit-polita zen, eta biribila, arrautza errun berria bezala, eta halako zurtasun **garden** bat erakusten zuen. **Jose Morales**

Uraren mehetasun **garden** hori dela-eta. **Santiago Iruretagoiena**

Nahiko polita zen, haurtxo hura, agerpen baten edertasun **gardenekoa**. **Josu Zabaleta**

Oroitzapen argia, kutuna, **gardena**. **Josu Zabaleta**

Gozamen **gardenezko** olatuek zeharkatu zuten bere gogoaren zola. **Anton Garikano**

Niri, ingeles barbaro honi, eman zait misterio **garden** hori agerian jartzea. **Juan Garzia**

Lan garbi **gardena**. **Pello Zabala**

## 3 (erkaketetan)

Eguraldia oso hotza zen, airea bezain **gardena**. **Anjel Lertxundi**

Kristala bezain **gardena**. **Elizen arteko biblia**

Gogoeta abstraktu eta ura bezain **gardenekin**. **Monika Etxebarria**

Neskak bi begi ura bezain **garden** zabaldu zituen, inoiz ikusi ez bezalako begiak. **Koldo Biguri**

Jaspe harria bezain **gardena**. oinazpian zafirozko solairua bezalakoa zuen, zeru-sabaia bezain **gardena**. **Elizen arteko biblia**

Eta hiriko plaza urre hutsezkoa, beira **gardena** bezalakoa. **Elizen arteko biblia**

## • 4 (predikatu gisa)

Zerua **garden** zegoen eta haize epela zebilen. **Migel Angel Mintegi**

Antartidan, uda partean ere, laino eta hodei alerik gabe, dena garbi eta **garden** dagoela ere, ez elurrik ez izotzik ez da urtuko. **Pello Zabala**

Airea garbi-garbi zegoen, alde guztietan **garden**. **Josu Zabaleta**

Belarritxo meheak ere **garden** ageri ziren, errainu epelek gorrixkatuak. **Jose Morales**

Nola liteke bestela nire pentsamenduaren orriak duela hain ordu gutxi ezagutu nauenarentzat horren **garden** eta argiro zabaltzea? **Pako Aristi**

Tira gazteak, mintza gaitezen **garden** eta gordin! **Koldo Izagirre**

Zoofitoak eta moluskuak igerian eta ur-azalean daude, uhinen **gardenean garden**. **Koldo Izagirre**

Eta beraren atzean, zerua urdin, dirdaitsu, **garden**. **Txillardegi**

Oso **garden** gogora dezaket euskaraz bakarrik dakien haur hura. **Anjel Lertxundi**

**Garden-garden** ikusten ziren mendirik urrutienek islak ere. **Anjel Lertxundi**

## 5 (izen gisa) ik **gardentasun**.

Aireak duen **garden** zeharrargiarengatik. **Pello Zabala**

Dioniso pozik geratu zen, liluraturik, entzundakoak emazte zenaren ahotsa ekarri baitzion gogora, zazpi bider areagoturik, bai ederrean bai **gardenean**. **Felipe Juaristi**

Eta berdin mimetizatuko da zuhaitzaren adarrek, eta hosto berdeekin, eta ortziaren **gardenarekin**. **Joseba Sarrionandia**

Hura itsasoaren **gardena**! **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 6 ez-garden izond

Sentimenen pertzepzioetik ihes egiten baitu gorputz ez- **garden** orenen barnekoak eta izatea galtzen du erabat. **Imanol Unzurrunzaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain garden (6); erdi garden (3); eta garden (31); garbi eta garden (7); garbi garden (3); garden ageri (4); garden agertzen (3); garden bat (17); garden batean (4); garden batek (3); garden baten (6); garden batez (6); garden bihurtzen (3); garden eta (37); garden garden (5); garden gardena (5); garden hori (4); gau garden (3); gardin eta garden (3); hain garden (3); horren garden (3); irudi garden (3); madison square garden (8); oso garden (4); ozen eta garden (3); square garden (8); the garden (3); ur garden (8); zuri garden (3)

ahots gardena (5); bezain gardena (9); eta gardena (31); eta gardena izan (4); eta gardena izatea (3); garden gardena (5); gardena behar (3); gardena behar du (3); gardena da (20); gardena dela (4); gardena egin (3); gardena eta (24); gardena izan (20); gardena izan behar (6); gardena izatea (10); gardena zuen (3); guztiz gardena (3); irudi gardena (3); ispilu gardena (3); prozesuak gardena (3); prozesuak gardena izan (3); soinu gardena (3); ur gardena (6); xafla gardena (4); zuzena eta gardena (3)

aire gardenean (5); azal gardeneko (3); baino gardenago (3); eta gardenago (9); eta gardenagoa (3); eta gardenak (9); gardenago ageri (3); gardenago eta (3); gardenago ikusten (3); gardenagoa eta (4); gardenak dira (7); gardenak ere (4); gardenak eta (11); gardenak izan (5); gardenaren azpian (3); gero eta gardenago (3); ur gardenak (4); ur gardeneko (3); ur gardenetan (6)

## gardenagotu, gardenago(tu), gardenagotzen du *ad* gardenago bihurtu.

Ezin da irudia **gardenagotu**, jauna... sentitzen dut. **Joxe Austin Arrieta**

## gardendu, garden(du), gardentzen da/du *ad* garden bihurtu.

Kontua da jakitea, esate baterako, nola kontzeptu bat -metaforaz eta irudimenezko edukiz beteak oraindik- **gardendu** den eta hartu ahal izan duen kontzeptu zientifikoaren estatusa eta funtzioa. **Xabier Arregi**

Lehen matematikariaren lehen keinuan ikusi zela idealtasun baten osaketa, historia osoan zehar hedatu dena eta ez dena auzitan jarri ez bada izan bera errepikatzeke eta **gardentzeko**. **Xabier Arregi**

## gardenia iz landare apaingarria, txinatarra jatorriz, lore zuri oso usaintsuak dituena(*Gardenia jasminoides*).

Estatuaren parez pare, **gardenia** bat zegoen, emakumeak hantxe utzia. **Fernando Rey**

**Gardenia** bat nahi dut -esan zuen Jakek. **Lopez de Arana**

Wilmart andereñoak kaxa zabaldu zuen eta lau **gardenia** aurkitu zituen barruan. **Mirentxu Larrañaga**

Gure "Zaldi-musu"rentzako **gardeniak** erostera. **Mirentxu Larrañaga**

# gardenki *adlag* garden, gardentasunez.

Begien aurrean neukanak, gaueko ametsean hain **gardenki** ikusitakoa ez zuela beti osoki estaltzen. **Txillardegi**

Eta bere haurtzaroko eszena bat ikusten du arestian pinudiak edo zerua ikusi dituen bezain **gardenki**. **Bernardo Atxaga**

Koroa kendu burutik, eta sutara botako zuen, **gardenki** esanez: Zoritzar guztiak uxatuak daitezela eta sutan erre daitezela denak. **Pello Zabala**

Eta neure gela parean umetan izandako txapitulak, tximiniak, teilatuak, denak berrikusten nituen, **gardenki**. **Txillardegi**

Atoiontzi baten kea **gardenki** ebakita irtetzen zen, paper baten modura. **Lopez de Arana**

Merkataritza **gardenki** librea den sistema batean. **Iñaki Heras**

Gauzak hain **gardenki** erakusteak bertute horixe dauka, nor bere lekuan jartzen duela. **Hasier Etxeberria**

Zuek zuen bidea hartu nahi duzue, normala denez, zuen arazoak lehenago baino **gardenkiago** azaleratzen dituzue, askatasun handiagoarekin. **Pello Salaburu**

Arazoi berberengatik pentsa dezakegu azidoen bitartez, zukuaren **garratzasunagatik**, berdin senda daitezkeela modu naturalean harriak dituzten gaixoak ere. Santiago Iruretagoiena

Ahotsaren **garratzasuna** printzipioen **garratzasunetik** dator eta leuntasuna ere haien leuntasunetik. Xabier Amuriza

Eta Jainkoa ez den guztiak bere baitan daramatzala oinarrizko **garratzasuna**, nahigabea eta oinazea. Hori baino hoberik ez dago egoeraren **garratzasuna** unetxo komiko batez eteteko. Joan Mari Lekuona

Harekiko harremanetan ez baita **garratzasunik**. Elizen arteko biblia

Kideen arteko barne-eztabaida eta liskarren **garratzasunagatik**. Xabier Olarra

"Hura hil ondoren", esan zuen, sekula ahaztuko ez dudana **garratzasunaz**, "bera [...] izango zen Ushertarren leinu zaharreko azkena". Koro Navarro

Nirekin topo egiten zuenean izutu egiten zen batzuetan, edo **garratzasunez** begiratzen zidan beste batzuetan. Joxean Agirre

Bada, ordea, jenderik besteren hutsegiteak zuzentzeko prest dagoenik, baina honekin hutsegite astunagoetan erortzen dira, herraz eta **garratzasunez** jokatzeko dutelako. Joan Mari Lekuona

«Emakume judu arrunta», esan zuen bere artean **garratzasunez**. Lopez de Arana

Begirakunea gogortu egin zitzaion eta, **garratzasunez**, erantzun zion: [...]. Patxi Zubizarreta

## 2 (izenondoekin)

Ez balitzaio bezala mintzatu arren, **garratzasun** handia antzematen zitzaion aurpegian. Iñaki Mendiguren

Sarritan, kaleko biraoak botatzen zituzten, baina ez zituzten axolagabeki esaten, gizonezkoek bezala, ezpada halako **garratzasun** berezi batekin beti, nolabaiteko erronka-doinu batekin. Jose Morales

Zirimirian gaindi ontziraleku grisak eta urbazterreko eraikinak ikus zitzaieken, **garratzasun** pentsaezinezko zeruaren kontra. Lopez de Arana

Baina ukatzen du, hala ere, euskal eliteak beren hizkuntzaz lotsatzen zirela, azken buruan **garratzasun** nabarmenez gaineratuz: [...]. Berria - Kultura

· Ozenki mintzatu zen, **garratzasun** ez itxuratiz. Xabier Olarra

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garagardo botila hark **garraztasun** puntu bat bazuela. Iñaki Zabaleta

Gerezi beltzek ematen dioten aldiribereko **garraztasun** eta gozotasun puntu hori estimatzen diote silesiarrek. Anjel Lertxundi

Halako **garraztasun** zantzu bat, halako etsimen bat, luzarora baizik ezin ken dezakeguna. Josu Zabaleta

**Garraztasun** izpi bat ageri zuela bere ahots gozoan. Ramon Saizarbitoria

-Gure kasuan -esan zuen Julenek, **garraztasun** apur batez-, gure kasuan gu sakabanatu ginen, Mirari. Fernando Morillo

Halakoetan, esan ohi dugu halakoxea dela bizitza, baina kontsolatzeko ahalegin horrek ez dio **garraztasun** poxi bat ere kentzen irentsi beharreko ozpinari. Juan Kruz Igerabide

Ezagutu berritan halako **garraztasun-** eta irmotasun-irudipena ematen zuen. Josu Zabaleta

Bere arimaren bi muturrak ziren, batetik, mingostasun-, lehortasun-, **garraztasun** -egoera bat, eta, bestetik, depresio- eta tristura-sentipen bat ziren. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **garraztasuna** (3); **garraztasunik gabe** (3); **halako garraztasun** (3)

## garraztu, garratz/garraztu, garrazten 1 da/du ad garratz bihurtu.

Eta, eritasunarekin batean, ene bularretako esnea mintzen eta **garrazten** hasi zitzaidan, eta, hondarrean, galtzen. Joan Mari Irigoien

Niri ere sentipen beraren ozpinak **garraztu** baitzidan ahosabaia. Aingeru Epaltza

Berehala **garraztu** zitzaidan, ordea, ezta: kalean aurrera gindoazela, Klaus elkartu zitzaigun atzetik oihuka etorrita. Anjel Lertxundi

### 2 irud (zerbait)

Abotsak sarritan eztarria mintzen eta, oihuak kanporatzean, zintzurrestea **garrazten** du. Xabier Amuriza

Bakearen ardiestea hauteskunde estrategiapean ezartzeak giroa **garraztu** egiten du, eta gizarte hausturaren irriskua azkartzen. Herria

Hautzaroa **garraztu** zidan Line demonio hura. Eskarne Mujika

Nire izaera **garraztu** eta gozakaiztu egin dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oso gogoan zuen nola tumore bat aurkitu zioten buruan, nola bi bider ere egin zioten ebakuntza, nola umorea erabat **garraztu** zitzaion. Imanol Zurutuza

Baina gehiegi edaten bada, barrua **garrazten** du, eta erronkak eta borroak sortarazten. Elizen arteko biblia

Hainbestearino **garraztu** zen gure arteko harremana, iruditu baitzitzaidan oso zitekeena zela berriro ere telefonoa pausatzea. Oskar Arana

Odol-berotasuna ez da zuzentzen odol hori gehiago **garraztuz**, ezta espetxearekin garunak iziotuz, edota bakardadearekin irudimena hauspotuz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beiztegi kapitainak, bihotza **garrazturik**, erretiradako agindua jo zuen. Edorta Jimenez

Neskatila berriro autoan sartu zenerako, oso berandu zebiltzan, eta umorea **garraztuta** zuten. Iñaki Mendiguren

### 3 irud (norbait)

Laster **garraztuko** da gizona, eta zuen gobernuaren aurka jarriko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

La Sarrietteren esker gaiztoak Leccœur andrea **garraztu** zuen azkenean, eta, suak harturik, berba lohiak baino ez zitzaizkion irteten ahotik, aipatzen zuenean. Karlos Zabala

Lacaillek, **garrazturik**, [...] burgesen baretasun gozoari begiratzen zion begi uherrez. Karlos Zabala

**Garrazturik** eta barneminduta joan nintzen. Elizen arteko biblia

Baina bazirudien haien pailazokeriek are gehiago amorrarazten zutela Draco Malfoy, gero eta **garraztuago** agertzen baitzen bi anaiak hala ikusten zituen bakoitzean.— Zergatik etorri ziren partidara? Iñaki Mendiguren

—galdetu zion Harryk **garraztuta**. Oskar Arana

### • 4 (era burutua izenondo gisa)

Ogi idorra, txorizo **garraztuaren** estalki. Aingeru Epaltza

Ahate bat haragi xehatu eta **garraztuez** betea, krema lodi baten gainean. Karlos Zabala

Gozokiekin, kanape **garraztuekin** eta limonada gezarekin. Josu Zabaleta

Haren begi **garraztueto** gorritasunetik. Juan Garzia

Izuak hartuta, milioika errefuxiatuak ihes egin zuen, etxeak eta jabegoak utzita, beren ibilaldi luze eta beldurgarrian arerio **garraztuek** presatuak. Iñaki Mendiguren

Hartzak pentsatzen saiatzen naiz melodiaren bitartez, saxofoiaren soinu zuri eta **garraztuetan** zehar. Monika Etxebarria

Gogoeta **garraztuen** bele beltzari aurka eginez. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**garraztu egiten** (3)

## garreztatu, garrezta(tu), garreztatzen (orobat garraztatu) 1 du ad garrez bete.

Etnan sua gainezkatzeko eta zerua **garreztatzeko**. Xabier Amuriza

Sugarrek **garreztatu** egon arren, Grosrouvrenen lehen eskutitzarenaren antzekoa zen gutun-azala, eta Ruche jaunaren izena eta helbidea zekartzan. Jon Muñoz

- Muinak biguntzeko moduko eguzkipean **garreztatu** arte zain egon eta gero Xabier Olarra

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Gau batez, herritarrek izututa ihes egin zuten, saguzar **garreztatuak** hegan ikusten ari zirelakoan. Jon Muñoz

Txabolari su eman genionean, beheiti-goiti egin zuten garrek -lasto-su, laster-su-, baita ene arimak ere haien hauts **garreztatuekin** batean, garrekin gar, amorioarekin amorio. Joan Mari Irigoien

## garro 1 iz olagarroek eta beste zenbait ornogabek dituzten luzakin malguetako bakoitza.

Poliki-poliki atera da olagarroa arrokaren azpitik, **garroak** baldarki luzatuz. Imanol Zurutuza

Ito beharrean estutzen diote burua olagarroaren **garroek**. Imanol Zurutuza

Aintzira ondoan eserita, txipiroi erraldoiak bere **garroak** nagibagi uretatik kanpora ateratzen zituela ikusi zuten. Iñaki Mendiguren

Polipo baten **garroak** bezala. Anton Garikano

**Garro** likatsu haiek, hidraren buruak bezala, berriro sortzen zirela zirudien. Imanol Zurutuza

Izan ere, tumoreak **garroak** zituela irudi zuen, erresonantzia magnetikoetan. Imanol Zurutuza

Koralaren oinarritzko unitatea polipoa da, tutu itxurako gorputz bat, **garroz** inguratutako aho bat eta bere beheko muturrean substratuari atxikitzeko disko basal bat dituen. Berria - Gañak

Badute habia baten nolabaiteko antza, eta baita **garro** erresumingarriak (urtikanteak) ere. J.M. Olazola "Txiliku"

### 2 irud



## hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere garro** (3)

## garrotatu, garrota, garrotatzen du *ad* garrotea eman.

Espainiak **garrotatu** zuen azken iraultzailea, anarkista bat. **Koldo Izagirre**

Gudariak ez ziren **garrotatuak** izan. **Koldo Izagirre**

Hila zarela adierazi dio medikuak eskua ezker-eskuin mugituz lekukoa den gerra kontseiluko lehendakariari, **garrotatuak** ez du pultsurik. **Koldo Izagirre**

## garrotatze *iz* garrotea ematea.

Pozik dago bere lanaz, **garrotatze** txukun bat egina da, eta pena du hurrengo egunean deus aurkitu ezin izana bere trebeziak egunkarietan. **Koldo Izagirre**

**Garrotatze** batek Espainiaren basatia erakutsiko zuen, gillotina kamutsa urkabilur pikaduna Erdi Aroko aulki elektrikoa Inkisizioaren zeremonia. **Koldo Izagirre**

## garrote 1 *iz* makila lodia. ik *estaka*.

Herri guzia kurritu zuen **garrote** edo makila lodi bat airean, ber denboran gomitatuz nor ere baitzuen etsaia, han berean berarekin borrokatzera. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ezkerreko sorbalda estali zuen lehoi-larru batekin, eta eskuineko eskuan **garrotea** hartuz, han joan zen Erregea justizia egiten ari zen epaitegira. **Santiago Iruretagoiena**

Ilea motza, zapi bat lepoan, botoi guztiak lotuta zituen jaka beltz bat eta **garrote** bat hanken artean. **Koro Navarro**

Ez zuen ezertarako astirik izan, Martinek sorbaldan jo baitzuen **garrotearekin**, eta fusila lurrera botarazi zion. **Koro Navarro**

## 2 (*orobat garrote bilau*) burdinazko lepoko modukoa, torlojuduna, heriotzara kondenatuak itotzeko Espainian erabiltzen zena.

**Garrotea** zen, bere garaian jendea hiltzeko erabiltzen zutena, eta gure garaian ile-apaindegiko eserleku bihurtu zuten. **Jokin Urain**

Laidozko pikota urkabe zitala haga lotsagarria **garrote bilaua** daukat zain. **Koldo Izagirre**

**Garrote bilauan** lotuko nindutela. **Koldo Izagirre**

Ez zekiten fusilamenduarena ez lako agonia izango nuela, urkabe zitala haga lotsagarria pikota laidozkoa **garrote bilaua**, huraxe emon behar zidatela, Angiolillori legez. **Koldo Izagirre**

Euskal Gobernuko iturrien arabera, Santoñako errendizioan atxilotuetako 321 hil egin zituzten, fusilatuta edo **garrotean**. **Jokin Urain**

Lepoa **garrotean** legez hautsi zen wolframezko haria, eta argia eten egin zen bere burutik. **Koldo Izagirre**

Angiolilloz oroiturik, Cánovas del Castillo hiltzeagatik **garrotez** exekutatu zuten anarkistaz. **Juan Luis Zabala**

Fusilatuta eta **garrotez** hildako euskal herritarrei gagozkiela. **Jokin Urain**

· Badaki bere burua engainatzen diharduela, gaurkoa ez dela gaueroko ekintza, eta sarrailari ematen dion buelta bakoitza **garroteari** emandako sakada dela. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## 3 *garrotea eman* garrotea erabiliaz heriotza eman. ik *garrotatu*.

Gerta zaitez hurrengo hogeita hamar urtetan Santutxuko presondegira kaxuelak eta otartekoak eroatera, beno, baldin eta lehenago **garrotea** ematen ez badiote. **Josu Landa**

## hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**garrote bilaua** (3)

## garta *iz pl*

Buruileko **gartak** eta kanbioa beste astean. **Herria**

## gartsu *izond* 1 garrez betea.

Su **gartsuak** bere zarata beldurgarrian oihanak sustraien hondoraino irensten zituenean. **Xabier Amuriza**

Su **gartsuak** itzali. **Elizen arteko biblia**

Zuzi **gartsu** bat zeukan bularraldean sutan. **Patxi Zubizarreta**

Zerua gori-gori ageri zen hiriaren gainaldean, eguzki sarrera **gartsu** bat bailitzan. **Mirentxu Larrañaga**

Argi zuri bat da, baina egun berriko eguzkia bezain **gartsua**. **Ramon Etxezarreta**

Eskualde menditsu horren azpian lur beroak eta iturri ugari aurkitzen dira; eta horrelakorik ez litzateke sortuko barru-barruan ez balira su handi **gartsuak** izango, sufrez edo alunbrez edo betunez egindakoak. **Santiago Iruretagoiena**

Argi zuri bat da, baina egun berriko eguzkia bezain **gartsua**. **Ramon Etxezarreta**

Euren gorputz **gartsuak** ortzian zehar bazkatuz. **Xabier Amuriza**

Hala, haren gogoaren oldar bizia garaile izan zen, eta urrun jo zuen, munduko eremu **gartsuaz** harago. **Xabier Amuriza**

· Xanpainaren ondorioz, begirada distiratsua eta **gartsua** zeukan. **Lopez de Arana**

## 2 kartsua.

Suak bezala erretzen duen grina **gartsua** du. **Elizen arteko biblia**

Elkar maite zutela esan zitekeen; begiradaxo **gartsuak** gurutzatzen zituzten eta inoiz musuka elkar jan beharrean harrapatu nituen. **Juan Martin Elexpuru**

Neska hitz **gartsuetan** kulunkatua sentitu zen. **Patxi Zubizarreta**

Ireneri maitemin **gartsuz** dedikatuak. **Patxiku Perurena**

Haren jarraitzaile eta fededun **gartsu** bihurtu zen ia berehala. **Xabier Olarra**

Haren fede **gartsua**, haren heretikoei buruzko aihergoa. **Piarres Xarriton**

Edozein epaimahai aspaldi hasiko zen negar-zotinka halako alegatu **gartsua** entzunda. **Lopez de Arana**

Hain baitzen **gartsua** gure gogoak. **Elizen arteko biblia**

Erreformaren misiolari **gartsuak**. **Aingeru Epaltza**

Parlamentuan txepelkerietan ibilitakoak kaleratu eta puritano **gartsuez** osatu zuen Parlamentu berria. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## • 3 (predikatu edo adizlagun gisa)

Ni beti xakean gogoz eta **gartsu** aritu naiz, eta oso desafio ezberdinak dauzkat aurrean oraindik. **Berria - Kirola**

Lipar batez, bere burua ikusi zuen eta, behinolako urteetan bezala, **gartsu** eta arin sentitu zen. **Lopez de Arana**

Aldian berriak xeblebreinak azaltzen zizkidan, **gartsu** eta bero beti, gizakiaren eboluzioaz, hil osteko berrargitzeaz edo zernahitaz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

—O, bai —esan zion Hermionek **gartsu**. **Iñaki Mendiguren**

Gogoz **gartsu** izan arren, ahula baita gizakia. **Elizen arteko biblia**

Idazlearen hainbat albiste eman zidan Öchlerrek, erdi ahapeka baina **gartsu**. **Anjel Lertxundi**

Heroi baten antzera aterata da Jauna, borrokarako **gartsu**. **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotz gartsuz** (3); **eta gartsu** (7); **eta gartsua** (5); **eta gartsuago** (4); **gartsu bat** (6); **gartsu batez** (3); **gartsu eta** (12); **gartsua eta** (5); **gartsua zen** (3); **gogoz gartsu** (3); **hain gartsu** (6)

## gartsuki *(36 agerraldi, 17 liburu eta 4 artikulutan; ETCn 101 agerraldi)* adlag kartsuki. ik **kartsuki**.

Ezpatak dena suntsitu du **gartsuki**. **Elizen arteko biblia**

John Hullek, *Touching the Rock* autobiografia aipagarrian, bere buruaz hitz egitean, **gartsuki** ematen digu aditzera ia erabat "denboran bizi dela" itsua. **Xabier Olarra**

Uztaritzeko ostatura heltzen ari nintzen; kontuarreraino hurbiltzen saiatzean, jendarte **gartsuki** bilduan barna "Barkatu"ka zulatu nuen bidea. **Itxaro Borda**

**Gartsuki** hitz egiten zuen. **Elizen arteko biblia**

Eta zeinen sutsuki eta **gartsuki** mintzatu zintzaizkidan hartaz, jaun André! **Joan Mari Irigoien**

Zertarako **gartsuki** lan egin eta dirua aurreratu? **Patxi Zubizarreta**

Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkartea Jainkoari oitotzean ari zitzaien **gartsuki** haren alde. **Elizen arteko biblia**

Eta hango jendearekin, **gartsuki** hasten zen eleketa, betiko adiskideak balira bezala. **Daniel Landart**

Zure musuak hartu berria nintzen, zure musu orduan ere **gartsuki** emanak. **Eduardo Matauko**

## gartsutasun *(13 agerraldi, 6 liburutan; ETCn 15 agerraldi)* iz kartsutasuna.

**Gartsutasuna** itzaltzen hasi zitzaien, sentimenduak hozten. **Patxi Zubizarreta**

Bere lehengo **gartsutasun** iraultzailetik oroitzen lauso baten aztarrena besterik ez zitzaien geratzen. **Patxi Zubizarreta**

Azken lau urteotan oso sarrera gutxi idatzi ditut neure egunkarian, **gartsutasunaren** parte handi bat kendu baitit depresio-kontrakoa. **Xabier Olarra**

Muturreko galanta hartu aurreko **gartsutasuna**. **Xabier Olarra**

Berekin Jesukristo gure Jaunaren odol aintzagarría eramanez jaierazko suarekin batera, eta karitatezko **gartsutasunez**. **Joan Mari Lekuona**

## gartu, gar(tu), gartzen da/du ad garretan jarri; bat-batean su hartu. ik **sugartu**.

Atalok ez batera loratzen dira, ez batera sendotasuna hartzen, ez zahartzean batera uzten, ez Venus berarekin **gartzen** dira, ez ohituretan bat datoz, ez lohadarretan atsegin berdinak dituzte. **Xabier Amuriza**

Bet-betan **gartu** zitzaidan, ordea, broma baten susmoa. **Anjel Lertxundi**

Itxaropen horrexek **gartzen** gaitu. **Iñaki Iñurrieta**

## gartxo iz gar txikia.

Kristau-herrian ere ez dago egintzarik, denik eta txikiena denik, hala nola txilin baten hotsa edota argi-mutil baten **gartxoa**, barne-bizitzara atxikita ez dagoenik. **Joan Mari Lekuona**

Bat-batean **gartxo** bat piztu zitzaien ninietan. **Matías Múgica**

Txingarrak bizitu egiten dira, biktimari engietorria egiten diote, koadernoaren materia pixkana irensten dute, eta **gartxo** batzuk goratzen dira errauts ilunen artean. **Xabier Olarra**

## gartxu izond jan-edanean neurritsua.

Pitioiak **gartxuak** dira, hilean birritan jaten dute eta batekoz beste: ariketa gutxi egiten dutenean bereziki. **Juan Garzia**

Beste inor ez bezalakoa sentitu zela langile edan-**gartxu** pila baten erdian, kriseilu motel batek argituriko ganbara batean. **Irene Aldasoro**

## gartxutasun iz gartxua denaren nolakotasuna.

Herritarrak aberasteko bi gauza dira beharrezkoak: lana eta **gartxutasuna**. **Esteban Antxustegi**

Kontu hauek denak, jakina, **gartxutasun** eta mikakeria alternatibo edo terapeutikoak sartu baino lehenagokoak dira. **Iñaki Segurola**

## gartzela ik **kartzela**.

## garun *(871 agerraldi, 109 liburu eta 102 artikulutan; ETCn 9.391 agerraldi)* 1 iz burmuina. (singularrean)

Almendra oskol barruan nola, halaxe hasi zitzaien **garuna** burezurraren barruan danbateko joka. **Koro Navarro**

Halako amorru olde bat igo zitzaien **garunera** doktoareari. **Josu Zabaleta**

Belarria sutan neukan, eta soinu mehe batek zulatzen zidan **garuna**. **Koldo Izagirre**

Hori da jaio eta gero gehien hazten eta garatzen den **garunaren** alde. **Xabier Olarra**

Gauza asko hautsirik, barneko zauriak, hemorragia, ubelak, urratuak, denetik, eta biek zuten **garuneko** xoka. **Koro Navarro**

1946an hil zela, **garuneko** minbizi batez. **Juan Garzia**

Konbultsiboki behartua ote zegoen iraganeko segmentu izoztuak, **garuneko** artxiboko "argazkiak" ikustera? **Xabier Olarra**

Lo gutxi eta asko irakurri, **garuna** lehortu zitzaien; eta zentzua galtzeraino jauzi zen. **Patxi Ezkiaga**

## 2 (singularrean, testuinguru teknikoetan)

**Garuna**, gorputzaren jarduera guztiak kontrolatu eta zaintzen dituen organoa, gizakiak egindako edozein sistema elektronikorenak baino ahalmen handiagoak dituen konputagailua da. **Irene Aldasoro**

**Garunak** eta nerbio-sistemak osatzen duten kontrol-sistema. **Irene Aldasoro**

**Garunak** baditu 10.000 milioi neurona, eta neurona bakoitza beste 10.000 konektaturik egon daiteke. Irene Aldasoro

Kono bakoitza zuntz bakar baten bidez konektatzen baita gehienetan ikusmen-nerbiora, hots, seinaleak **garuneko** ikusmen-konputagailura igortzen dituen nerbiora. Irene Aldasoro

Konexio konplikatuak dituzte **garuneko** usaimen-eskualdearekin lotura duten 50.000 nerbio-zuntz ingururekin. Irene Aldasoro

Zentral telefoniko batekin konparatzen zen **garuna**. Irene Aldasoro

**Garun** primitiboa oso erlazionaturik zegoen usaimenarekin; ikusmena eta entzumena geroago garatuak dira. Irene Aldasoro

Descartesek errana egia bada, badirudi ezen gorputz osoa dela arimaren egoitza, eta **garuna** -edo **garunaren** -erdiko guruina, zehatzago- egoitza horren gelarik inportantena. Joan Mari Irigoien

Gibelari behazuna bezalaxe dario **garunari** pentsamendua. Xabier Olarra

Ez dago jakin beharrik **garunak** nola funtzionatzen duen: erreflexu baldintzatuen kontu bat besterik ez da. Xabier Olarra

Belarritik **garunera** doan entzumenaren nerbioak. Josu Zabaleta

Hala ere, arazo nagusia **garunekoa** zen, argi eta garbi. Xabier Olarra

**Garunaren** gainazalaren zati bakoitzean. Xabier Olarra

Pickwick sindromean, arnasaren depresio larria eta odol guztia oxigenatzeko gutxiegitasuna gertatzen dira, **garuneko** arnasmunaren depresioari lotuak. Xabier Olarra

Erretinatik **garuneko** ikusmen-alde primarioa igortzen ziren "zentzumen-datu" edo "inpresio"ekin parekatzen zen ikusmen-pertzepzioa. Xabier Olarra

**Garuneko** lesioren batek eragindako koloreekiko itsutasun erabatekoa, **garuneko** akromatopsia deritzona. Xabier Olarra

Lesioa **garunaren** ezkerreko aldean du; bekokiko hirugarren zirkunboluzioa, hizkuntzaren gune bat dela uste dena, kolpatuta egongo da, seguru asko. Josu Zabaleta

**Garuneko** konmozioa eta burezurren haustura izan zituen. Josu Zabaleta

### 3 (pluralean)

Egun osoan abandonatu ez ninduen buruko mina biiziagoturik, **garunak** urratu beharrean nituen orain. Aingeru Epaltza

Telebistak gure etxeak eta **garunak** inbaditu baino lehen. Joxerra Garzia

Huraxe izan zela nik ikusitako emakumezko lehen pubisa, beltz-beltza, begi-ninian eta **garunetan** iltzaturik geratu zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Georgek, txalupako horrek, arraun batez ia-ia **garunak** txikitu zizkion bati. Lopez de Arana

Hortxe etorri zaio ideiaaren hazia **garunetako** ildoren batera. Edorta Jimenez

Usain hori **garunetan** sartu zitzaidan. Juan Martin Elexpuru

Denboraren iragaiteak isilaraziz doan oihartzuna, egia esan, akordurik bizienez ere, **garunetako** oroitze-mekanismo neurobiologiko hutsak ez diren beste euskarrien bat behar izaten baitute. Edorta Jimenez

**Garunak** lehertzeko zorian nituen. Juan Martin Elexpuru

**Garunak** urtuko zitzaizkion. Patxi Ezkiaga

Bi ahari adar-oker topeka zebiltzan elkarren aurka, nork noren **garunak** kanpora aterako. Aingeru Epaltza

### 4 (jaki gisa)

Ostatuetan zerbitzatu ohi dituzten jakiak ekartzen hasi ziren: aza-zopa eta hostorezko pasteltxoak [...]. **garunak** ilarrekin. Jose Morales

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik zerebral.

**Garun** -isurketa bat. Aingeru Epaltza

Halako ahalegina egin zuen, ordea, non **garun** -kongestio batek jo baitzuen Euler. Jon Muñoz

Ez daukat artikulugile horrek baino **garun** -nahasmen handiagorik, edo gizartean erudugarri diren arloetek baino pertzeptzio irrealagorik. Pako Aristi

Animalia guztien **garun** -sistemak deblauki itxiz erantzun liezaiokoe gehiegizko puntu kritiko batez haraindiko estimulazioari. Xabier Olarra

Atzeko zatia, **garun** -enbor deritzona, bizkar-muinetik garatzen da. Irene Aldasoro

**Garun** -transplanteak. Irene Aldasoro

Kaltea alde horietako lesioak eragin zuela Mondrianen testen bidez frogaturik, **garun** -azterketen bidez saiatu ginen hura ikusten. Xabier Olarra

**Garun** -azalak mintzamenaren kontrolatzen du, eta gorputzaren zentzumen-organoeetatik datozen seinaleak jaso eta prozesatzen ditu. Irene Aldasoro

Sentimen jakin batzuekin loturiko **garun** -azalaren atalak. Irene Aldasoro

Ezinezkoa zen kolorearen pertzeptzio eta irudikapenerako halako gunerik existitzea eta **garun** -azalaren edozein eremu eginkizun horretarako bereizi ahal izatea. Xabier Olarra

Meningitis edo meningoentzefalitis (garunaren eta **garun** -mintzen handitzea). Xabier Olarra

**Garun** -irudiztapen teknika berriak (TAK, EMI, PJT, SQUID, etab.). Xabier Olarra

Gure Maddi [...] zer eta zabor UPN zale bilakatzeko bidean alu ustel ile-gorri batek **garun** -lixiba eginda! Aingeru Epaltza

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **garunaren** berezitasun harrigarrietako bat lobulu frontalen handitasuna da. Xabier Olarra

la ezinezkoa da giza **garunak** ematen duen zalutasun eta konfiantzaz eskailerak lasterka jaitsiko dituen makinarik diseinatzea. Irene Aldasoro

Buruan talka ikaragarria sumatzea, narrasti-**garunean** edo nonbait han. Jose Angel Irigaray

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurreko garuna (3); baina garuna (3); baina garunak (3); da garun (5); da garuna (5); ditu garunak (3); du garunak (6); eta garun (16); eta garun apoplexien (4); eta garuna (13); eta garunak (17); eta garunak inbaditu (3); etxeak eta garunak (3); garun azala (6); garun azalaren (7); garun azalean (6); garun azaleko (5); garun isuria izan (3); garun zati (3); garuna eta (6); garuna ez (3); haren garuna (3); kardiopaten eta garun (3)

garunak eta (5); garunak ez (4); garunak ez du (3); garunak inbaditu baino (3); garunak nola (3)

da garunaren (4); da garuneko (4); dira garunean (3); duten garuneko (4); edo garuneko (3); eta garunaren (9); eta garunean (8); eta garuneko (7); garunaren barruan (4); garunaren beste (4); garunaren bi (5); garunaren bi erdiak (3); garunaren egitura (3); garunaren egoera (3); garunaren erdian (5); garunaren eta (6); garunaren garapenean (3); garuneko akromatopsia (5); garuneko alde (3); garuneko beste (5); garuneko bi (3); garuneko hodieta (6); garuneko hodieta arazoak (3); garuneko ikusmen (8); garuneko isuria (3); garuneko isuria izan (3); garuneko lesio (3); garuneko lesioren (3); garuneko lobulu (3); garuneko zein (3); garunera iristen (3); gure garunak (3); gure garunean (4); haren garunak (3); horiek garunean (3)

## garundegi iz burmuina.

Jakin nahizko hidropesiaren tokian, dena dakienaren **garundegi** lehertuak ditugu gaur, hazi-hazi egin eta barrurantz lehertuak. Iñaki Segurola

## garungabetu, garungabe(tu), garungabetzen da ad garunak kendu, garunez gabetu.

Guti faltan ez duk arraso **garungabetu**. Aingeru Epaltza

## garuntxo iz garunaren atzeko eta beheko zatia. ikzerebelo.

Gorputzaren pilotu automatikoa **garuntxoa** da, garun-enborra atzetik inguratzen duen hanpadura bat. Irene Aldasoro

# gas (orobat gaz g.er.) 1 iz ohiho egoeran etengabe hedatzeko hedatzeko edo gaia.

Boyle eta Mariotte **gas** berotzak gora egiten duela ohartu ziren. [Pello Zabala](#)

Usteltzearen ondorioz gasa sortzen da, **gas** horrek zelula ehunak eta barrunbe guztiak zabaltzen ditu, eta horrexek ematen dio gorpuari buiatu itxura hain ikaragarri hori. [Koro Navarro](#)

Zaborrak eta **gas** karbonikoak. [Lopez de Arana](#)

Argindarra sortu dute banana ustelek sortzen duten **gas** metanoarekin. [Berria - Gaiak](#)

Zaramaren pilaketarekin sortzen den **gasen** metano edukia oso handia da. [Berria - Euskal Herria](#)

Iberdrolak «baditu» **gas** kutsakorren isuria murrizteko baliabide teknologikoak. [Berria - Ekonomia](#)

PVCzko hondakin gehienak erraustu egiten dira eta errausketa horretan **gas** azidoak askatzen dira. [Berria - Gaiak](#)

Berotegi efektuko **gasen** emisioa. [Berria - Euskal Herria](#)

Poliziek **gas** negar-eragilea bota zuten orduan. *ik beherago* 10. [Berria - Mundua](#)

Iraken menpeko Kurdistanen, bost bat mila kurdu **gasez** hiltzea agindu izana egotzen diote. [Berria - Mundua](#)

Taimana kontuan hartuta, **gasezkoa** barik harrizko planeta izan daitekeela esan dute zientzialariek.

Kometaren **gasezko** lainotik gertu. [Berria - Gaiak](#)

Bazekien han aurrean genituen militarrek Afrikan **gasak** erabili izan zituztela. [Edorta Jimenez](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik gaseoso.

**Gas** egoera, materiaren egoera gaseosoa. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

**Gas** -kanpaia, zabalik utzia, jaitirik zegoen. [Juan Garzia](#)

**Gas** turbinen alorrean sinatutako hitzarmenak. [Berria - Ekonomia](#)

Gutxienez 31 meatzari hil dira **gas** eztanda batean. [Berria - Mundua](#)

**Gas** isurtzeak. [Berria - Ekonomia](#)

9 lagun hil eta milaka ebakuatu dituzte **gas** isuri baten ondorioz. [Berria - Mundua](#)

**Gas** igorpenak mozteaz. [Berria - Mundua](#)

Kanpinerako gailuen denda batean berogailu elektriko bat, **gas** -sukalde txiki bat eta aluminiozko eltze bat erosten ditu. [Oskar Arana](#)

Ez kamioi honek, ez errepide honek, ez **gas** palanka zikin honek ere. *ik beherago* 9. [Josu Zabaleta](#)

Saturno hidrogenozko eta heliozko **gas** bola delako. [Berria - Gaiak](#)

Infragorrien bidezko behaketek galaxia guneak erakusten dizkigute, **gas** hodei beroak. [Berria - Gaiak](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amoniako- **gasa** txorroteko uretan disolbatu, eta saski-ontzitan salduz eta auzo guztia kutsatuz ateratzen baitzuen bizimodua. [Juan Garzia](#)

Adituen arabera, 2,5 miligramo kloro **gas** aski dira heriotza eragiteko. [Berria - Mundua](#)

## 4 argi egiteko edo berotzeko erabiltzen den gasa, batez ere harrikatza destilatetik ateratzen dena.

Arratsa sartzen ari zen eta berehalaxe piztuko zuten **gasa**: orduan idatziko zuen. [Irene Aldasoro](#)

Vera suaren ondoan zegoen, eltzearen azpiko **gasa** pizteko ahaleginetan. [Koro Navarro](#)

**Gas** sutuaren sugar urdinari atxikiak. [Harkaitz Cano](#)

Ahalik eta **gas** gutxien gastatzeko. **Gasezko** lanpararen argitan. [Anjel Lertxundi](#)

Ziklo konbinatuko zentralak **gas** likidoaz hornitzen dira, eta **gas** naturala eta elektrizitatea sortzen dute. [Berria - Ekonomia](#)

5,5 mila milioi metro kubiko **gas** erosiko ditu guztira. [Berria - Ekonomia](#)

Hona etortzen zen emakume gazteren batek **gasa** ireki eta bere buruaz beste egin zuen. [Koro Navarro](#)

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bulebar asaldatu, **gas** -argiz izartu, zurrumurrutsuari begira. [Josu Zabaleta](#)

**Gasezko** kale-argi baten kontra jarrita. [Anton Garikano](#)

Petrolio, **gaz** edo elektrika salerospenetan. [Herria](#)

**Gas** -lanparen argi zakarraren azpiko ohe-ilarak. [Lopez de Arana](#)

Hotzaren hotzez moretutako kaleetan **gas** -lanparek dar-dar egin zuten. [Lopez de Arana](#)

Jendarme pare batek **gas** -kriseluekin argitu omen zuten denda barrena, elektrizitatearekin arazoak izan zituztelako. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bere gelara heldu zen, **gas** -berogailua piztu zuen eta haren gainean makurtu zen. [Lopez de Arana](#)

**Gas** -pizgailuari heldu zion. [Lopez de Arana](#)

**Gas-erregailu** baten garrera. [Juan Garzia](#)

Ama zutik **gas** -sukaldearen ondoan. [Joseba Urteaga](#)

Ettxeko atea ireki zuenean ustel usain halako bat samatu nuen, eta adierazi ere hala egin nion "a zer **gas** usaina". [Aritz Gorrotxategi](#)

**Gas** leherketa bat izan dela otutzen zaio. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

48 hildako eragin zituen etxebizitza bloke batean izandako **gas** ihes batek. [Berria - Mundua](#)

**Gas** -fabrikan lan egiten zuen mutil bat. [Irene Aldasoro](#)

Gizonak **gas** -bonbona ikuskatzen zuen bitartean emakumeak plantzarekin jarraitu zuen. [Jasone Osoro](#)

**Gas** galdara zegoen gelan ez zegoen behar adina oxigeno. [Berria - Euskal Herria](#)

Itzelezko **gas** -tangak. [Lopez de Arana](#)

Hurrengo 30 urteetan erregai **eta** gas kontsumoak gora egingo du nabarmen. [Berria - Gaiak](#)

Iberdrolak kontratuak sinatu ditu Noruega, Aljeria eta Italiako **gas** enpresa banarekin, zentralen hornidura bermatzeko. [Berria - Ekonomia](#)

Petrolio eta **gas** erreserben kontrolaren aldeko borroka. [Berria - Mundua](#)

**Gas** eta argindar merkatuak nahikoa ez liberalizatzea leporatu die Batzordeak. [Berria - Ekonomia](#)

Aire sur Adour (Landak, Frantzia) eta Bilboko **gas** sareak lotu behar dituen egitasmoa gelditu behar izan dute. [Berria - Euskal Herria](#)

Errusiako Jukos petrolio taldeak **gas** erauzgailu bateko partaidetza saldu du. [Berria - Ekonomia](#)

## 6 gas ganbera ik kamera 5.

**Gas-ganberari** itzuri eginda ere, nekeak, ahuldadeak edo gaixotasunek hiltzea zen gauza arruntena. [Urtzi Urrutikoetxea](#)

Konboietatik jaitsi eta **gas-ganberetarraino** abian jartzen zirenen begitartea. [Felipe Juaristi](#)

Irudi horietan, errausteko labeetatik ateratzen den keaz gain, **gas ganberetan** sartzeko zain dauden presoak ageri dira. [Berria - Kultura](#)

Kontzentrazio eremuetan naziek **gas ganberak** erabili izana zalantzan jarri zuen atzo Bruno Gollnisch Fronte Nazionaleko eurodiputatuak. [Berria - Mundua](#)

## 7 gas geldo

Badira, arnasten dugun airean, **gas** geldo direlakoak; gas noble esaten zaie, orobat, eta eztabaidatzekoa litzateke ea benetan noble guztiak diren geldo eta geldo guztiak diren noble. [Juan Garzia](#)

Barbaricōri bete-betean dagokio orri hauen abiaburu izan den **gas geldoekiko** konparazio hori. [Juan Garzia](#)

## 8 gas hodi



**Gas** hodiaren banaketan erabiltzen diren gasen kolektiboa da. Berria - Euskal Herria

Gutxienez 15 hildako eragin zituen lur azpiko **gas hodi** baten ez-tandak Belgikako hegoaldeko Ath hirian. Berria - Mundua

Lurpean iragaiten diren sare guztiak berritzen hasiak dituzte: edateko ura, ondarrin likidoak, elektrika, telefono eta **gas hodiak**. Herria

## 9 gas maskara

Su-lerorantz, **gas maskarak** jantzita, baionetak irmo finkatuta. erne nago zelatan, nire **gas maskara** burutik behera sartuta. Mirentxu Larrañaga

Txilioka ari naiz nire **gas maskara** barruan. Mirentxu Larrañaga

Hurrengo egunean **gas** maskarak eskatu nituen. Edorta Jimenez

## 10 gas (pedal) azeleragailua.

Belt Parkway inguruan zoazela **gas-pedala** sakatzea orratza hirurogeita hamarretik gora igoaraziz, doi-doia egunsentia baino lehentxeago. Oskar Arana

Gidariak gogoz zapaldu zuen **gas** pedala, zelaiez betetako tarte bat zeharkatzen ari zirela. autoan eseri, atea itxi, giltzatxoa kontaktuan sartu, irratia sintonizatu, zigarrata pizgailuarekin piztu, eta segidan abioari eman, **gasari** sakatuz. Javi Cillero

## 11 gas negargarri negar gasa, gas negarrarazlea.

Hainbat gaztek botilak, harriak eta galtzada-harriak jaurti zizkieten segurtasun indarrei eta horiek gas **negargarriarekin** erantzun zieten. Berria - Ekonomia

Bertzalde Poliziak gas **negargarria** igorri zion aurpegira Bob Edme argazkilaria, auzitegiaren atarian. Berria - Euskal Herria

## 12 negar gas negar eginaratzen duen gasa.

Gutxienez 15 lagun zauritu zituzten, balez eta **negar-gasez**. Berria - Mundua

Israelgo Armadak zauritutako Hamaseko ekintzaile bat eta manifestari gazte bat hil zirela, baita Hebronen herenegun izandako borrokaldietan **negar gasa** irentsi zuen 65 urteko gizonetzko bat ere. Berria - Mundua

**Negar gasak** jaurti zizkieten ikasleei. Manifestariak molotov koktelak eta harriak jaurti zituzten Turkiako polizien aurka eta hauek erantzun zuten **negar gasa** botata. Berria - Mundua

Goizeko laurak inguruan iritsi zen Polizia eta, **negar gasak** eta borrak erabiliz, ordu laurdenean bota zituzten ikasleak kanpora. Berria - Ekonomia

Soldaduek **negar gasak** erabili zituzten ehunka manifestari palestinar zein ezkerreko israeldar sakabanatzeko. Berria - Mundua

Poliziak manifestariak **negar gasarekin** sakabanatu eta dozenaka lagun atxilotu zituen. Berria - Mundua

Soldaduek **negar gasak** eta balak erabili zituzten, eta, gutxienez, bost palestinar zauritu zituzten. Berria - Mundua

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aire ratzen zuten gas (4); argindar eta gas (6); baino gas (4); bi gas (5); boliviako gas (4); da gas (4); dauden gas (5); de gas (7); de gas aretoan (5); den gas (7); dira gas (4); diren gas (4); donostia gas (4); du gas (7); duen gas (11); dute gas (4); duten gas (11); edo gas (4); eragiten duten gas (5); eta gas (70); eta gas natural (6); eta gas naturalek (7); eta gas naturalen (4); g gas (14); g gas natural (5); g gas naturalek (6)

gas aretoan (5); gas argiak (5); gas argiontzi (4); gas bonbona (9); gas de (4); gas edo (4); gas enpresa (4); gas erreserba (5); gas erreserbak (7); gas eta (28); gas eta petrolio (8); gas fabrikako (5); gas fabrika (4); gas ganberak (9); gas ganberan (4); gas gutxiago (8); gas hori (8); gas horiek (4); gas hornidura (5); gas hornikuntza (4); gas horrek (4); gas ihes (5); gas isuri (9); gas isuri baten (5); gas isurketak (7); gas konpainia (5); gas kopuru (4); gas kopurua (6); gas kutsagarrien (5); gas kutsakor (10); gas kutsakor gehiago (4); gas kutsakor gutxiago (5); gas kutsakorrak (4); gas kutsakorren (9); gas leherketa (16); gas leherketa baten (7); gas maskara (5); gas maskarak (4); gas natural (65); gas natural enpresak (6); gas natural eta (5); gas naturala (29); gas naturala eta (4); gas naturalaren (18); gas naturalek (78); gas naturalek endesaren (4); gas naturalekin (5); gas naturaleko (8); gas naturalen (52); gas naturalen eskaintza (5); gas naturalen eta (6); gas naturali (8); gas toxikoa (4)

gazprom gas (5); gertatutako gas (5); izandako gas (4); kanpin gas (5); kubiko gas (5); kubo gas (7); luz de gas (5); metro kubo gas (7); osaka gas (4); petrolio eta gas (8); ziren gas (6); zuen gas (7); zuen gas naturalek (4); zuten gas (6); zuten gas kopurua (4)

batek gasa (4); berotegi efektuko gasen (15); duten gasak (5); duten gasak (5); duten gasen (30); duten gasen isurketa (8); edo gasa (5); efektuko gasen (15); efektuko gasen emisioa (9); eragiten duten gasak (5); eragiten duten gasak (5); eragiten duten gasen (23); eta gasa (30); eta gasa erretzeak (4); eta gasak (7); eta gasak (7); eta gazez (3); gasa erabiliz (4); gasa erretzeak (4); gasa erretzeak sortzen (4); gasa eta (16); gasa eta petrolio (4); gasa garraiatzeko (4); gasa jaurti (5); gasa jaurti zuen (4); gasak eta (8); gasak eta (8); gasen emisio (4); gasen emisioa (12); gasen emisioak (4); gasen isurketa (10); gasen kopurua (5); hiriko gasa (6); ikatza eta gasa (4); metano gasa (10); negar gasa (9); negar gasak (11); negar gasak (11); petrolio eta gasa (8); poliziak negar gasa (4); zuen gasa (4)

## gasa ik gaza.

## gasaldi iz azeleragailuaren jarduera.

Ez nion izena ulertu: motorren burrunbadak uzten ez, banan-banan probatzen ari baitziren **gasaldi** osoan. Joxe Austin Arrieta

## gasbide iz gasa garraiatzeko hoditeria.

Gutxienez 15 pertsona hil eta 112 zauritu dira **gasbide** baten ez-tandan. Berria - Mundua

**Gasbide** honen kudeatzaile den Fluxys elkarteko segurtasun zerbitzuak. Berria - Mundua

Aljeriako **gas bideko** matxura batek. Berria - Ekonomia

Bideak idekitzen dituzte **gazbidearen** ezartzeko eta bixtan dena berriz hesten arauka. Herria

## gasdun izond gasa duena.

Edari **gasdun** baten ontzia zabaltzerakoan sortzen den borbor jostaria bezain apartsu. Anjel Lertxundi

Eseña hartzituz lortzen den edari garratza eta **gasduna** da kefirra. Berria - Gaiak

## gaseosa iz soda, limonada

Saski erraldoi batean **gaseosak** eta litxarkeriak saltzen zituen andre bat. Josu Landa

Garagardo beltz eta gorria eramaten zieten gizonetzkoiei eta **gaseosa** emakumezkoiei. Irene Aldasoro

**Gaseosa** basokada bat. Josu Landa

Mutila burbuilatsu sentitu zen **gaseosa** botila ireki berriaren gisara. Lopez de Arana

*El León* garagardoak eta *Gorbea* **gaseosak** banatzen dituzten kamioiek. Javi Cillero

Lokalak **gaseosa**-fabrika izandakoa zirudien. Josu Landa

Dianneren begiak **gaseosa**-burbuilen antzera mugitzen ziren, arin eta iheskor. Fernando Morillo

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta gaseosa (3)

## gaseoso 1 *izond*. gasari dagokiona. ik **gas 2**.

Gas egoera, materiaren egoera **gaseosoa** . J.M. Olaizola "Txiliku"

## 2 gas egoeran dagoena.

Jupiter bezalako tamaina handiko planeta **gaseosoak** asko aurkitu dira espazioan. **Berria - Gaiak**

Erregai solidoaren lekuan, erregai likido edo **gaseosoak** erabiliko balira. **Berria - Gaiak**

## gaseztatu, gasezta, gaseztatzen du *ad* gas kaltegarri baten eraginpean jarri.

Halako batean **gaseztatuko** diote ziega, eta bizkarrean margotuko diote ikurrina. **Koldo Izagirre**

Mediku naziek ere bata zuria janzen zuten, hala egoten ziren *Krematorium*-eko **gaseztatze**ko dutxen aretoko leihatilatik beha. **Koldo Izagirre**

Noiz edo noiz ikusiak ginen **gaseztaturiko** dohakabeak gurdian ateratzen. **Koldo Izagirre**

## gasifikatu, gasifika, gasifikatzen da/du *ad* gas bihurtu.

Kanpotarraren gaineko gauza gehiago esan zituzten, deskripzio estrukturalista moduko bat osotu arte; baina esandako batzuk **gasifikatu** egin ziren Matiasen memorian eta beste batzuk entzun ere ez zituen egin. **Unai Elorriaga**

## gasifikatzaile *izond* gasifikatzen duena.

Iberdrolaren arabera, BBGko zentral **gasifikatzailearen** balioa 400 milioi eurokoa da. **Berria - Ekonomia**

## gasifikazio *iz* gasifikatzea.

Babcockek **gasifikazio** planta bat hornitzeko kontratua lortu du Txinan. **Berria - Ekonomia**

Horretarako, Gernika, Bermeo eta Mundakako **gasifikazio** prozesuak egingo dituzte. **Berria - Euskal Herria**

## gaskoi (*ETCn 1.017 agerraldi; orobat gaskoin ETCn 173 agerraldi, eta kaskoin ETCn 202 agerraldi*) 1 *izlag/iz* Gaskoiniakoa, Gaskoiniari dagokiona; Gaskoiniako herritarra.

Ez dela hainbeste **kaskoin** kanturik entzunen nola euskaldun kantua Baionan. **Herria**

Joan, Roman eta Mateu Baudoin musikari **gaskoiek** . **Berria - Kultura**

Gieure Baionako apezpiku **gaskoinak** . **Piarres Xarriton**

Mosketariaren kapitain **gaskoin** batek, d'Orthez kapitainak hain zuzen. **Felipe Juaristi**

Euskaldunok eta **gaskoiek** musika tresna antzekoak erabiltzen ditugu. **Berria - Kultura**

Euskaldunen, bretainiarren, flandriarren eta **gaskoinen** frantseseko lehen oztopoa haien hizkuntza bereziak zirela. **Piarres Xarriton**

Lehen, Baiona **kaskoina** zela, omen, orai euskalduntzen ari. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan)

Euskal tradizioko doinuak [...] parez pare daude **gaskoi** jatorrikoekin. **Berria - Kultura**

- Euskal tradizioa eta **gaskoia** uztartzen ditu. **Berria - Kultura**

## • 3 *izond* gaskoierazkoa.

Baina hitza **gaskoia** da. **Berria - Kultura**

## • 4 *iz* gaskoinen hizkuntza. ik **gaskoiera**.

Informazio orrietan euskara eta **gaskoia** sartzeko. **Berria - Euskal Herria**

**Gaskoiera** baizik ez zekitenen artean. **Piarres Xarriton**

Euskaraz, frantsesez eta **gaskoinez** . **Berria - Euskal Herria**

Eta... erexa da hori, euskaraz bihurtzea **kaskoinez** egina dena. **Menane Oxandabaratx**

## 5 (hitz elkartuetan)

Elizbarrutiko ikastegi guztietan euskal (edo **gaskoin**) irakaskuntza programa zedin Euskal Herrian. **Piarres Xarriton**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gaskoi** (3); **eta gaskoia** (3); **eta gaskoiez** (3); **eta gaskoina** (3); **gaskoi batzuk** (3); **gaskoi eta** (3); **gaskoinen plazan** (4); **zuen gaskoiek** (5)

## gaskoidun *izond* gaskoi hitzuna dena.

Angelu barneko bide seinaleak euskaraz, gaskoinez eta frantsesez emaita aipagai zelarik, Guy Mondorge sozialista eta **gaskoinduna**, bai eta Daubagna berdea, kontra agertu dira. **Herria**

## gaskoiera (*orobat kaskoinera*) *iz* gaskoien hizkuntza. ik **gaskoi 4**.

Euskaraz eta **gaskoieraz** abesten dute. **Berria - Kultura**

**Gaskoieraren** inguruko aipamenak daude. **Berria - Kultura**

**Gaskoiera** eta okzitanieraren aldeko neurriak bultzatzea.

**Kaskoinera** eta Lengadokera dira gehien bat erabiliak kaseta hortan. **Herria**

## gaskoikeria (*corpusean kaskoinkeria soilik*) *iz*

Baionako **kaskoinkeriez** aspertuta, oso pozik joaten nintzen ni Errobi arroko baserritarren arteko bazkari haietara. **Txillardeg**

## gaskoitasun *iz* gaskoia izateko nolakotasuna.

Talde eragile bat bildu zen BAM-eko hautetsien inguruan, nahiz eta, puntu bat egin euskaltasuna eta **gaskoitasuna** zertan ziren, 120 000 jende biltzen dituen hirigune

## gaskoitu *(ETCn 2 agerraldi; corpusean **kaskoindu** soilik)*, gaskoi(tu), gazkoitzen da *ad* gaskoi bihurtu.

Agian euskaldun joko hori ez da [kaskoinduko](#). [Herria](#)

## gasna *(orobat **gazna** g.er.) 1 iz ipar gazta.*

Kasualitatez, Gipuzkoako Idiazabal herriarekin parezkatūrik da Muskildiko herria, [gazna](#) ekoizten dūan herri batekin. [Herria](#)

Menuan amuarraina, txuleta, [gasna](#) eta ondokoa dastatu ahal izango dira. [Berria - Euskal Herria](#)

Bi [gasna](#) borobil berde. [Itxaro Borda](#)

Arte hartan bizi izan ziren azindetatik, esnetik eta [gasnatik](#), bai eta gaztainetatik eta fruituetatik. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

### 2 (hitz elkartuetan)

Bi [gasna](#) zerra eder jan genituen ixil-ixila. [Janbattitt Dirassar](#)

Otorduan bospasei [gasna](#) xerra mehe. [Itxaro Borda](#)

[Gasna](#) -jale aristokratikoentzat. [Itxaro Borda](#)

-ELBko ardi [gasna](#) ekoizleek. [Berria - Ekonomia](#)

Ekoizle gehienek ardi [gasna](#) ekoizten dute. [Berria - Ekonomia](#)

Hiru ekoizlek behi [gasna](#) egiten dute. [Berria - Ekonomia](#)

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[ahuntz gasna](#) (5); [ardi gasna](#) (76); [ardi gasna eta](#) (9); [ardi gasnak](#) (4); [ardi gasnaren](#) (10); [behi gasna](#) (4); [bere gasna](#) (3); [bi gasna](#) (3); [da gasna](#) (3); [edo gasna](#) (3); [eta ahuntz gasna](#) (3); [eta ardi gasna](#) (7); [eta gasna](#) (23); [etxe gasna](#) (3); [gasna bat](#) (4); [gasna edo](#) (4); [gasna egiten](#) (5); [gasna ekoizten](#) (3); [gasna erdi](#) (6); [gasna erdi bat](#) (4); [gasna eta](#) (27); [gasna eta beste](#) (3); [gasna eta bixkotxa](#) (3); [gasna feria](#) (5); [gasna hoberenaren](#) (3); [gasna mota](#) (4); [gasna nola](#) (5); [gasna nola egiten](#) (4); [gasna ontzen](#) (3); [gasna puska](#) (13); [gasna puska bat](#) (3); [gasna xerra](#) (11); [gasna xerra bat](#) (4); [gasna zati](#) (4); [gasna zerra](#) (3); [gasnak ez](#) (3); [gasnaren bidea](#) (5); [gasnaren bidea segitu](#) (3); [gasnaren bideak](#) (3); [gruyere gasna](#) (3); [irati gasnaren](#) (3); [ogi eta gasna](#) (4); [onetik gasna](#) (3); [ossau irati gasnaren](#) (3); [ta gasna](#) (5); [talo eta gasna](#) (4); [zen gasna](#) (3); [zen gasnaren](#) (3)

## gasnagintza *iz ipar gaztagintza.*

Ekonomian oinarritu merkatuaren legeen mekanismoak barneratuak genituen ordukoz, [gasnagintzan](#) bistakoa zenez. [Itxaro Borda](#)

## gasnategi *iz ipar gaztategia.*

Jadanik aipatua dugu Etxexuri edo Aguirre jaunak bazuela [gasnategi](#) bat egina lur azpian, zeintan kontserbatzen baitziren gasnak. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Oraino ere hor dago [gasnategi](#) natural hori. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Muskildiko Oskaxe [gasnategia](#). [Berria - Ekonomia](#)

Supermerkatuko [gasnategian](#) nengoen zerbitzari anderearen aiduru. [Itxaro Borda](#)

Xiberotar 17 laborari gogozkatzen ari dira [gasnategi](#) baten eraikitzeko Muskildin. [Herria](#)

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[onetik gasnategiak](#) (3)

## gasnatu, gasna, gasnatzen da/du *ad* gasna bihurtu.

Zenbat esne gelditzen zaio [gasnatzeko](#)? [Itxaro Borda](#)

Eta [gasnatzeko](#) hartzen zuten esnea, merkatuaren legearen arabera ordaintzea tokatzen zitzaien enpresei: nola egin bestela? [Itxaro Borda](#)

Neure memoria ez da ordea, usain eta harreman onez betetzen, ardi kakailaz hanpatu [gasnatzeko](#) esnez eta hezur-klaska ozenez osatu artalde mehakoilez baino. [Itxaro Borda](#)

## gasogeno *iz gas bat sortzeko tresna; bereziki, karbono dioxidoa sortzeko tresna.*

Denborarekin, *gas* hitzetik eratorri ugari sortu ziren: *gasolina*, *gasolio*, [gasogeno...](#) besteak beste. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

Baina autoak betikoak ziren -ez zegoen [gasogenozkorik-](#), eta dendetako erakusleihoak salgaiez mukurru ageri ziren, eta zerua urdin-urdin zegoen. [Iban Zaldua](#)

## gasoil *(ETCn 148 agerraldi) iz gasolioa. ik gasolio.*

[Gasoil](#) usaina. [Harkaitz Cano](#)

Orain ez dago "bideko"rik, [gasoil](#)ez dabilzan traktoreek ordezkatu dituztelako. [Koldo Biguri](#)

## gasoilki *iz gasoilaren gaia.*

Donibane Lohizunen, gauaz eta gaixtakeriaz, hamar mila pinga [gasoilki](#) nunbait han ixuri dira portuan, urean kotsadura asko hedatuz. [Herria](#)

## gasolina *iz 1 petroliotik ateratako hidrokarbuero nahasketa, batez ere ibilgailuen erregai gisa erabiltzen dena.*

Autoak-eta [gasolinaz](#) hornitzeko. [Inazio Mujika Iraola](#)

[Gasolina](#) petroliotik ateratzen da. [Patziku Perurena](#)

[Gasolina](#) hartu eta beste auto baten bolantean, beste emakume baten ondoan eseri ninduan behin. [Joxean Agirre](#)

Lehenbizi jan eta gero [gasolina](#) hartu. [Oskar Arana](#)

Bazkaltzeko gelditu naizenean [gasolina](#) jartzea ahaztu zait. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Bilbotik Donostiara errepidea igarotzeko baimena, zigilu guztietekin; kamioia neurekin eramatekoa, eta tankea [gasolinaz](#) betetzeko txartel batzuk. [Inazio Mujika Iraola](#)

Paperak eta **gasolina** eskuratu behar genituela aurrena. [Inazio Mujika Iraola](#)

95 oktanoko **gasolina**. [Berria - Ekonomia](#)

Urtebetean, %14,5 garestitu da **gasolina** eta %10,7 gasolioa. [Paddy Rekalde](#)

**Gasolina** agortu arte. [Josu Landa](#)

-Etxetik gutunik ailegatu zaizu gaur? -galdetu zuten, **gasolinaren** adierazlea seinalatu, deposituaren hiru laurden markatzen baitzuen. [Fernando Rey](#)

**Gasolinaren** prezioak gora egin duen arren, salmentek bere hartan jarraitzen dute. [Berria - Ekonomia](#)

**Gasolinaz** urri nabilela dioen argixkaren antzera. [Pako Aristi](#)

Hegazkinen kontrako kanoi bat ere (Vofors markakoa) erre genuen garai hartan **gasolinarekin** su emanda. [Rafa Egiguren](#)

**Gasolina** erreak, trafikokoak eta hautsez beteriko kaleek isuritako usainarekin nahasita. [Lopez de Arana](#)

Hautsa eta **gasolina** errea nahasirik zituen bafada bat bota zion taxiak. [Lopez de Arana](#)

## 2 (neurriekin)

10.000 **litro gasolina** isuri dituzte Donibane Lohizunen. [Berria - Euskal Herria](#)

Alde batera utziko dut, hortaz, Tomek bidearen beste aldean zegoen gasolindegitik latontzi bete **gasolina** oktano-zenbaki handiko nekez ekarri zuelako kontua. [Oskar Arana](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gasolina**-tankea hutsik zegoen ia. [Oskar Arana](#)

**Gasolina** galoia 1,42 dolarreraino jaitsi zen. [Berria - Ekonomia](#)

Urte hasieran baino 0,13 euro gehiago ordaindu behar da berunik gabeko **gasolioa** litroko. [Berria - Ekonomia](#)

Giltzapean zeudela zigiluak eta **gasolina**-txartelak. [Inazio Mujika Iraola](#)

**Gasolina** isurgailu baten parean gelditzen naiz. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Itziarko **gasolina** zerbitzugunearen inguruan. [Berria - Ekonomia](#)

Lau egunez halaber polizia judizialaren egoitzetan **gatibu** egon zen, bere aitaren etxean arma gordagi bat atzeman ziotelako. **Itxaro Borda**  
Berarekin batera **gatibu** ziren hiru pertsonen exekuzioaren lekuko izan zela. **Berria - Mundua**  
1939an mobilizatu eta Alsaziara eraman zuten, baina naziek handik gutxira **gatibu** hartu zuten. **Monika Etxebarria**  
Handik hegoaldeko tribukoek herrietan sartu, gizon zein emazte **gatibu** hartu, eta zuriei saltzen zizkieten. **Iñigo Aranbarri**  
Baina beren bidaia harrigarri horietakoren batean planeta ahaltsu baten hurbiletik igaro baldin badira, [...] nagusi berri horrengana itzultzen dira orduan, eta handik aurrera **gatibu** edukitzen ditu. **Josu Zabaleta**  
Pentsuak **gatibu** dauzkagunean Egari bizkarrez gagozkio: antzian behera goaz. **Itxaro Borda**  
Angelo de La Cruz filipinarra **gatibu** dutenek iragarri zuten atzo ez dutela hura aske utziko Filipinetako azken soldaduak Iraketik alde egin baino lehen.  
1.200 lagun inguru **gatibu** atxikitzen zituzten 26 bahitzaile hil dituztela segurtasun indarrekin. **Berria - Mundua**  
Danielek, Judatik **gatibu** ekarritako horrek. **Jose Antonio Mujika**  
Begara ezazue ea **gatibu** bizi direnak libreak bezala ugaltzen diren. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Psikiatra baten edo sendagile baten atzaparretan **gatibu** bizi beharra. **Markos Zapiain**  
Oraindik ere haien **gatibu** sentitzen nintzen. **Imanol Unzurrunzaga**  
Itsas ainarak, kormoranak eta plastikazko ziruditen alga petrolio likitsean **gatibu** geratu ziren, bizia hausten baitiztan. **Itxaro Borda**  
Frantziako eta Espainiako kartzeletan **gatibu** hemeretzi urte egin ostean. **Iñigo Aranbarri**  
Jainkozko izaeran partaide zarenez, zer dela eta egiten zara sorkarien **gatibu**? **Joan Mari Lekuona**  
Eta konturatuko zara, nik erranik batez ere, hainbat urte sineste horien **gatibu** higatu dituzula. **Itxaro Borda**  
Gogoeta horri amaren oroitzak elkartzen zitzaion, bai eta Nadiarena ere, bata Omsken atxikia, bestea Irifisheko txalupetan bahitua, eta **gatibu**, inondik ere. **Karlos Zabala**  
Ez dut inolako gogorik tatariarren **gatibu** behin betiko izateko. **Karlos Zabala**  
Lili eta biok, ohean, bata bestearen besoetan **gatibu**, elkarri musuka. **Itxaro Borda**  
Menperatu behar luketen sexuaren **gatibu**. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

## 6 -en gatibu izan da ad

Azken batean, gertaeren **gatibu** zen bera ere. **Harkaitz Cano**  
UPNren ustez, Zapateroren gobernuak «abertzaleen **gatibu**» da. **Berria - Euskal Herria**  
Denak hemerrotekaren **gatibu** gara. **Berria - Euskal Herria**  
Nahi bainuke nik amodio-jostetetan zure **gatibu** izan, degidazula nahi duzuna. **Aurelia Arkotxa**  
Horra idazlearen patua: badaki dena esanda dagoela, badaki, halaber, topikoen **gatibu** dela, baina barrero har aseezinak idaztera behartzen du, inoiz ezer berririk esatera helduko den bihotzerrez (eta esperantzaz). **Anjel Lertxundi**  
Gatibutasun handiegia da norbere maitakeriaren **gatibu** izatea. **Joan Mari Lekuona**  
Jon Juaristiren kiribil malenkoniatsua **gatibu** garenoi, baina, askoz iradokitzaileagoa zaigu *Zéro de conduite*. **Berria - Kultura**

## 7 gatibu lan preso dagoenak kondenaen parte gisa egin behar duen lana.

**Gatibu-lanaren** aurkako Askapenerako Fronteko buru izan zen. **Berria - Gaiak**

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alabak gatibu (8); alabak gatibu eraman (4); alemanian gatibu (3); artean gatibu (3); babiloniara gatibu (5); babiloniara gatibu eraman (3); bat gatibu hartu (3); baten gatibu (5); batera gatibu (4); beste gatibu (5); bi gatibu (4); emakume gatibu (3); eta gatibu (14); gatibu bat (4); gatibu baten (5); gatibu bati (3); gatibu bizi (4); gatibu dago (3); gatibu egon (6); gatibu eraman (16); gatibu eramango (4); gatibu eta (9); gatibu geratu (3); gatibu guztiak (4); gatibu haiek (4); gatibu hartu (22); gatibu hartu zituen (4); gatibu hartu zituzten (5); gatibu hartu zuten (5); gatibu hartuak (7); gatibu hartuak izan (6); gatibu hartuko (3); gatibu hartutako (8); gatibu hil (3); gatibu izan (8); gatibu jantzia (4); gatibu taldeko (3); gatibu zenbakia (3); hartu zituzten gatibu (3); haurrak gatibu (3); jordanian baten gatibu (3); judatik gatibu (3); seme alabak gatibu (7); zituzten gatibu (4); zuten gatibu (5)

beste gatibuen (3); erantzun zuen gatibuak (4); eta gatibuak (8); eta gatibuen (5); gatibuen artean (4); zuen gatibuak (4)

## gatibualdi (21 agerraldi, 8 liburutan; ETCn 67 agerraldi) 1 iz gatibutasuna; gatibu ematen den denbora.

Gero, bagoi estaligabetan kargaturik, **gatibualdi** berri baterantz eraman zituzten, Buchenwald-era eta Mauthausen-era. **Juan Garzia**  
Babiloniako **gatibualditik** itzultzen eta beren arbasoen hiria zen Jerusalem inguruan garrantzi politikorik gabeko tenplu-estatuak eraikitzen utzi zien. **Iñaki Mendiguren**  
Judatik Nabukodonosorrek deserriutakoan babiloniar **gatibualdian**, sortzen ari zen erlijio nagusi batentzat inkubagailua izan zen hiriburua. **Iñaki Mendiguren**  
Avignongo aitasantuen babiloniar **gatibualdi** (1309tik 1377ra) deitu izan den horretan. **Joan Mari Lekuona**  
**Gatibualdia** eramangarriago egitearren. **Patxi Zubizarreta**  
Bi urteko **gatibualdian**. **Joan Mari Irigoien**

## 2 irud

Lehenengo **gatibualdia** honetan datza: gizakia sorkariekiko maitakeriaz atxiloturik geratzen da [...]. Egilea ahaztuz maitatzen ditugunean. **Joan Mari Lekuona**

## gatibutasun (14 agerraldi, 8 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 91 agerraldi) iz gatibutasuna; gatibu dagoenaren egoera.

Zeitzera arte ez naiz jabetu **gatibutasunak** ere bere egunerokotasuna daukala, eta are egunerokotasun gris batek osatzen duela funtsean egiazko **gatibutasuna**. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Gogoeta horietan murgildurik, ulertzeko da Nadia sorgor agertzea **gatibutasunaren** ezbeharrekiko. **Karlos Zabala**  
**Gatibutasun** handiegia da norbere maitakeriaren **gatibu** izatea. **Joan Mari Lekuona**  
Legatzari **gatibutasunean** bizirik iraunaraztea. **Berria - Gaiak**  
Horiek gauza ezkuak baitira, gure erlijioek **gatibutasunezko** aldi honetan behin ere liburu batean ezarri ez dituztenak. **Xabier Kintana**

## gatibutza (27 agerraldi, 10 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 96 agerraldi) iz gatibutasuna.

Cadizko **gatibutzan**, soinu txikiaren hutsa du Elgetak. **Iñigo Aranbarri**  
Helburua, **gatibutza** soilaz gain, Alemaniako ekonomiari doako lan-eskua ematea ere bazen, presoak lehertu arte behartuz lanera. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Inon ez da **gatibutzan** bezalako bizimodu ordenaturik, halako eredu garrantzirik, are bertuterik ere. **Urtzi Urrutikoetxea**

## gato iz ipar gozopila.

Eta **gatoa** ekarri zuen kafearekin. Joseba Sarrionandia

## gatulili iz lore baten izena.

Eta bazkari edo afari denboran, amatxik, maiz aipatzen zituen bere arrosa, julufria, hortentsia, **gatulili**, dalia eta bereziki maite zituen aromak. Daniel Landart

## gatx izond gaitza, zaila.

Ba ez, oso **gatxa** ez, ezinezkoa da! Jon Arretxe

Euforia horrerri eustea oso **gatxa** da. Xabier Amuriza

## gatx 1 iz gai zuria, xehakorra, urkorra, ahogozo minekoa, janariak ontzeko edo usteldu gabe atxikitzeo erabiltzen dena.

**Gatzak** odola garbitzen du. Felipe Juaristi

Itsasoa ikusi nahi nuen, ez nire arbaso hortz-urinduna zetorreneko ekaiztsu hura, baizik itsaso epela, **gatza** datorrenekoa. Juan Garzia

Bi libra arroz, piper batzuk, **gatx** inar bat. Pablo Sastre

Itsasoko **gatzarekin** nahastuz. Santiago Iruretagoiena

Dendan salgai zituen janari askok eta askok, **gatx** artean dizidzka, itsasoa ekartzen baitzioten gogora. Felipe Juaristi

Eskukada bat **gatx** hartu zuen. Felipe Juaristi

Ez al diok **gatza** bota? Juan Garzia

**Gatz** iodatua ere neurrian hartu behar da, osterantzean, hipertentsioa eragin baitezake. Berria - Gaiak

**Gatz** iodatua ere neurrian hartu behar da, osterantzean, hipertentsioa eragin baitezake. Berria - Gaiak

Haitzek, itsasoa zintzilik, uneoro zer galtzen duten, **gatx** hozkariak janda. Xabier Amuriza

Platerean txorten berde mordoxka bat eta **gatx** busti pixka bat baizik ez zaio geratzen. Monika Etxebarria

Bai **gatzaren**, bai koroaren zerga kentzen dizuet judu guztioi. Elizen arteko biblia

Eta haren etxea desegin, eta haren lurra **gatzaz** idortuko zituztela. Joan Mari Irigoien

Atzera hainbesteko begiratzen baduzu, **gatzeko** estatua bihurtuko zara. Patxi Zubizarreta

**Gatzeko** paretetik doinuaren zikinkeria guztiak garbitu eta doinua bera araztu egiten baitzuten. Felipe Juaristi

**Gatz** eta hondarrezko basamortu hura. Patxi Zubizarreta

Lurralde guztia sufreak eta **gatzak** erreta dago. Elizen arteko biblia

## 2 (neurriekin)

Aski zela 20 gramo **gatx** litro bat uretan nahastea. Hasier Etxeberria

150 tona **gatx** bota dituzte Gasteizko kaleetan. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ontzi bat urez bete, **gatx** pittin bat disolbatu bertan. Paduren **gatx**-usaina nabaria zen. Juan Garzia

Loten emazteak atzera begiratu zuen, eta **gatx**-irudi bihurtu zen. Elizen arteko biblia

Salzburgon **gatx**-meategi baten jabe zena. Felipe Juaristi

Krakovian-edo, **gatx** meategi batzuk bazirela jakitea ez zen agian osa baliagarria izango, baina **gatx** mean bertan induskatuz eliza edo katedrala egin zutela jakitea oso garrantzitsua zen. J.M. Olaiola "Txiliku"

Augilatik beste hamar eguneko bidean beste **gatx** muino bat dago. Patziku Perurena

Kozkor handiko **gatx** mordoak daude muinoetan. Patziku Perurena

Eta **gatx** haitz honetatik abiatuz Atlas izena duen mendia dago. Patziku Perurena

Hirian **Gatz** Etxe deitu zioten Saltzen eraikinari. Felipe Juaristi

## 3a (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lur honetan non palmondoak hazten baitira eta kresala **gatx**-trinkotzen. Juan Garzia

## 4 ohiko gatzaren antzeko gai urkorra.

Bainugelara joan nintzen berarentzako amonio-**gatzak** hartzera. Lopez de Arana

Hor apalaren gainean dauden **gatzak** bota itzazu. Juan Martin Elexpuru

## 5 (kimikan) gai elkartua, azido baten hidrogenoa, osorik edo partez, metal atomoek ordezkatzan dutenean eratzen dena.

Grisa da [zinka], eta bera osagai duten **gatzak**, berriz, koloregabeak. Juan Garzia

Kloruroak oro har jendaila dira, gehienez azpi produktu doilor, higroskopiko eta ezer gutxitarako onak: **gatx** arrunta izaki salbuespen bakarra, oso bestelako kontua baita horrena. Juan Garzia

Antzinako alkimian Ammonen tenpluko **Gatz** Amoniako zeritzona. Juan Garzia

**Gatz** mineral batzuen kontzentrazioa doitzeko. Irene Aldasoro

**Gatz** hori, bada, erreduzitzaile gogorra da, erran nahi baita irrikan dagoela bere elektroji jakin bi jaregiteko. Juan Garzia

Lorpen handia izan zen jadanik kimikariak (Scheidekünstler) **gatx** guztiak bi genero nagusietara murriztu ahal izatea, azidoak eta alkalinoak. Ibon Urbarri

**Gatz**-soluzioetan substantzia usaintsuak erabilita. Irene Aldasoro

Giza giltzurruna ez da gai % 2 baino gehiagoko **gatx**-kontzentrazioa duen gernurik sortzeko. Irene Aldasoro

Elikagaietako olioak eta gatzak emulsionatu egiten dituzte behazun-**gatzek**. Irene Aldasoro

## 6 irud bizitasuna ematen duen zera.

Baserritar ilustratuak izan nahi baitzuten biek ala biek, ume-umetatik: bi uharte, nekazarien ezjakintasanaren itsaso **gatzik** gabea. Joan Mari Irigoien

**Gatzik** gabea, bizitasunik gabea, guretzat oraindik. Patziku Perurena

Kontakizunari **gatx**-ozpin pizar bat erantsi nahirik, ehorzketaren inguruko xehetasun makabro-barregarrietan luzatu nintzen. Aingeru Epaltza

Italiako idazleek berebiziko **gatx**, ozpin eta piperra ateratzen jakin dute dialektoen erabilera literarioari. Anjel Lertxundi

Bere esaldietan **gatx** eta azukre ziprztinak zeuden beti. Jasone Osoro

Solasaldi inuxente eta itxuraz tekniko bati **gatx** eta piper pixka bat jartzeko. Karlos Zabala

Baina niri iruditzen zait olgeta hauek hotzak eta **gatzik** gabeak bihurtzen direla, geure burua jantzi ahala deboziogai horien ezereaz jabetzen garenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haiekin konparatuz, gaur egungo hauteskunde-kanpainak **gatzik** gabekoak iruditzen zaizkit. Iban Zaldua

Edo konplimenduren bat esaten dute, ez **gatzik** gabea baina liburu-usain nabarmenagokoa. Jose Morales

Gu askoz ere sentiberagoak gara, askoz hobeto egokitzen gara egoera batera edo bestera, **gatzik** gabeko alproja mugatu bat besterik ez da, batere erakargarritasunik ez duena. Karlos Zabala

Ez, nire lurra erakutsi nahi dizut, nire gaua! -diot nik bere pikardiari **gatza** kenduz. Pako Aristi

Elsbethek, ordea, ironia eta **gatza** goratu zituen nik erantzun hutsal bat ikusten nuen tokian. Anjel Lertxundi

Baina bizitzak ez du **gatzik** arriskatu gabe... Pako Aristi

Gutxiengo sortzailea, historiaren aro guztietan munduko **gatza** izan dena. Iñaki Mendiguren

Debekuaren **gatzak** ematen zion bere gustua festa kokkor hari. Xabier Mendiguren Elizegi

Grisa da gainera Eskolapioetako nire hasierako magma horren kolorea: triste, **gatzik** bako, udazkeneko putzuen kolore mugagaitz horretakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Saunier Duval taldea izan zen atzoko etapari **gatza** eta piperra jarri ziona. Berria - Kirola

**Gatzik** gabeko pilotak dira, haienak baino motelagoak, ez hain politak. Berria - Kirola

## 7 gatz ale (orobat gatzale g.er.)

Hankamuka egin ditut urrats batzuk **gatz ale** zaharrak zanpatuz, mareaje luze baten ondoren lehorreratu banintz bezala. Koldo Izagirre

Beharrezko dira desadostasuna, desberdintasuna, **gatz alea** eta ziape garaua. Juan Garzia

Abandonatua zegoen txirla bat hondarrezko muino baten gainean bezala, bizitzak bazterrean utzia **gatzale** lehorrez bete zedin. Anton Garikano

## 8 gatz harri ik gatzarri.

### 9 gatz lore

Harginak Italiatik ekarri zituzten, Torino aldetik, aurrealde jantzita utz zezaten eta haiak **gatz** loreak landu zituzten han, goitik beheraino, han, ezker-eskuin. Felipe Juaristi

Frantsesekin ere bazituen harremanak, hauek Kamargako gatz usaintsua eta Guérandeko **gatz** -loreak ekartzen baitzizkioten. Felipe Juaristi

Hondarra birrintzen da **gatz** -lorearekin fin-fin, irinaren pareko egin arte. Santiago Iruretagoiena

## 10 gatz-ozpindu ik (orobat gatzozpindu.

### 11 gatz-pipertu gatz eta piperrez prestatu.

Tomate berde frijituentzat, Sipseyn errezeta: Moztu tomateak zentimetro bateko xerretan, **gatz-pipertu**, arto-irinetan pasa. Pablo Sastre

Gurinak urrin ezin txarra goa zabaltzen zuen, arrainak, aldiz, freskura **gatz-pipertua**. Karlos Zabala

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baino gatz** (3); **baino gatz gehiago** (3); **bat gatz** (3); **beste gatz** (5); **beste gatz muino** (4); **bidean beste gatz** (3); **eta gatz** (23); **gatz apur** (3); **gatz artean** (3); **gatz bota** (4); **gatz eta** (38); **gatz eta biper** (5); **gatz eta piper** (12); **gatz gabeak** (4); **gatz gehiago** (4); **gatz gehiegi** (3); **gatz gema** (4); **gatz gutxi** (5); **gatz harri** (4); **gatz hori** (3); **gatz iodatua** (3); **gatz iodatuaren** (5); **gatz iodatuaren aldeko** (4); **gatz kopurua** (4); **gatz mineral** (3); **gatz muino** (4); **gatz muino bat** (4); **gatz ozpin** (4); **gatz pittin** (3); **gatz pittin bat** (3); **gatz pixka** (9); **gatz pixka bat** (7); **gramo gatz** (5); **lurraren gatz** (4); **tona gatz** (10); **tona gatz bota** (4); **zuen gatz** (3)

**baina gatz** (4); **bere gatz** (3); **da gatz** (4); **duen gatz** (5); **eta gatz** (34); **eta gatz behar** (3); **gatz behar** (3); **gatz bota** (9); **gatz botatzen** (6); **gatz eman** (3); **gatz eta** (48); **gatz eta biperra** (3); **gatz eta piperra** (18); **gatz euskal** (3); **gatz ez** (3); **gatz gezatzen** (3); **gatz gezatzen bada** (3); **lurraren gatz** (5); **lurraren gatz eta** (4); **lurreko gatz** (4); **mari sagardui gatz** (5); **ogia eta gatz** (5); **sagardui gatz** (6)

**eta gatzak** (4); **eta gatzez** (10); **eta gatzik** (4); **ez gatzik** (8); **ez gatzik ez** (3); **gatzaren atzetik** (4); **gatzeko estatua** (5); **gatzik ez** (7); **gatzik falta** (3); **gatzik gabe** (8); **gatzik gabea** (6); **gatzik gabeko** (5)

## gatzaga iz gatzarria dagoen tokia.

Horrela aterako da baratzak ureztatzeko edo **gatzagetan** gatzaz urtzeko behar den ur guztia. Santiago Iruretagoiena

Marmol harrobiak, **gatzagak**, platino eta urre erauztokiak, ikatz meatzeak. Karlos Zabala

Añanako **gatzagak** berreskuratzeke. Berria - Kultura

Baina aintzira eta padurak ez dira gezatuko, **gatzaga** izaten jarraituko dute. Elizen arteko biblia

Lur joriak **gatzaga**, tokiko jendearen gaitzakeria bide. Elizen arteko biblia

Inoiz lurra lehortzen zenean **gatzagetan** legezko buztin gogortu txuria geratzen zen. Jokin Urain

Hamarrenak, zergak eta **gatzagei** eta koroari dagozkienak. Elizen arteko biblia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gatzaga eta** (3)

## gatzagi 1 iz esnea gatzatzen duen gaia.

**Gatzagia** botatzen zitzaien, koilaratara bat eskas, eta uzten zen, haurrek eskolako lanak egin bitartean, kailatzera, burburaka eta ketan. Itxaro Borda

Gazura, berriz irakinarazten zen, **gatzagiz** hornitzen, bigarren gasnaren moldatzeko. Itxaro Borda

**Gatzagi** transgenikoarekin egindako gatzaz. Berria - Euskal Herria

Baina ez daukagu **gatzagirik**, eta esnea mamitu ezearn alferrik gabiltza. Jokin Urain

### 2 irud

Pertsona bat, hots, boterearen eta beldurraren **gatzagiz** mamitutako gixaixobanako bat, boterearen eta beldurraren kontrako elementu bat izan litekeela uste izatea. Iñaki Segurola

## gatzale ik gatz 7.

## gatzarazi, gatzaraz, gatzarazten du ad gatzatzera behartu.

Zainetan odola **gatzarazi**. Mirentxu Larrañaga

## gatzarri (orobat gatz harri g.er.) iz lur gaineko edo lurpeko hobietan aurkitzen den gatzaz.

Hirian Gatz Etxe deitu zioten Saltzen eraikinari, jabeak, atsegin zuena bestalde, **gatz-harriari** zor baitzion haren fortuna. Felipe Juaristi

Sardiniako **gatz-harritz** landuriko biolin batzuen erdian. Felipe Juaristi

Bibliako Loten emaztearena izan zitekeen irudia [...] **gatz-harri** bihurtua. Felipe Juaristi

Planoak egiteko aukeratu zuen arkitektoak, ordea, ezin irudika zezakeen **gatz-harritzko** aurrealdea, batez ere Pragako eguraldi heze eta bustian. Felipe Juaristi

Laraldeko **gatzarrietan**, behearen, langile xume batzuk lanean. Txillardegia

## gatzatu<sup>1</sup>, gatza, gatzatzen 1 da/du ad isurkari organiko bat masa trinko bihurtu.

Fibrina, ordea, ezin da egon odol-zirkulazioan, gorputz osoko odola **gatzatuko** bailuke bestela. Irene Aldasoro

Aurpegia odol **gatzatuaz** zikindua zuen, eta ahotik ere bazerion odol pixka bat. Koro Navarro

Gure zain izoztuen barruan odolak **gatzatu** gabe dirauela, bizirik, bero, ero. Markos Zapiain

Beldurrak odola **gatzatzen** ziola. Iñaki Mendiguren

Odol **gatzatuz** belzturiko pareta artean. Juan Garzia

Hildakoen odola guztiz **gatzatu** gabe zegoen oraindik. Karlos Zabala

Hantxe, odol tanta **gatzatu** batzuk. Aingeru Epaltza

Amaiturik, esnearen erdia **gatzatzen** hasi zen saskietan; beste erdia ontzietan utzi zuen, edateko. Juan Kruz Igerabide

Garagarrezko ogia, esne **gatzatua**, azukre hautsa kanelarekin nahasia, eta pitxer bat kwass. Karlos Zabala

Ez al ninduzun isuri esnea bezala eta gero gazta bezala **gatzatu**? Elizen arteko biblia

Mami likatsua **gatzatzen** ari zitzaidan izterrrondoan. Aingeru Epaltza

## 2 gazitu.

Ulisesek azaldu zion ezen arraun bat harturik joan behar zuela hiriz hiri, itsasoa ezagutzen ez zuten eta itsaski **gatzaturik** jaten ez zuten jendeak aurkitu arte. Juan Kruz Igerabide

Txerriki **gatzatua**, berriz, zapi zuri batean bildu zuen. Anjel Lertxundi

Barazkiak eta txerriki **gatzatua**. Anjel Lertxundi

*irud* Zalantza horixe zerabilen gogoan don Serapiok, horrek eragotzi zion marinela **gatzatua** bedeinkatzea, eta ez harekiko begiramenak. Koldo Izagirre

## 3 mamitu.

Nire buru geldoan pentsamendu bakarra **gatzatu** zen: "gorria daukak, Eduardo". Aingeru Epaltza

Charlyren komiki maiteenetako istorio bat, paper margotuan gabe, hezur-haragitan **gatzatua**. Aingeru Epaltza

Izerdiz eta odolez ari nintzen **gatzatu** nahirik, Togasek "Azken orduko" orrialdean niretzat utzitako lekua beteko zuen bukaera. bakardadearen itzala alboan etzan zitzaigun eta konkordantzia, kredo, genitibo, gorrigualda, ekuazio eta halako hitzek ematen ziguten tristurarekin **gatzatuko** zen gure jakituria. Aingeru Epaltza

Geuri ere eragiten zigun eromena garai gazteago baten oroitzapen maitagarrian zaigu **gatzatu**. Koldo Izagirre

Beren sinesmen eta usteak Vedak liburuetan **gatzatu** zituzten. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gatzatua** eta (3); **txerriki gatzatua** (3)

## gatzatu<sup>2</sup> iz mamia, esne gatzatua.

Ondoren, **gatzatua**, esnea eta atonduriko zekorra hartu eta bisitarien aurrean ipini zituen. Jose Antonio Mujika

Arkume eta **gatzatua** sueto jan eta gero. Pello Zabala

Balak eskuetan neukan potean jo eta **gatzatu** pasteurizatuaz blai eginda utzi ninduen. Iban Zaldúa

**Gatzatua** eta ezlia jango ditu haurrak, gaitza baztertzeko eta ona aukeratzeko gauza izan arte. Elizen arteko biblia

Ur horiek sortzen diren lur horretan, **gatzatuaren** antzeko zuku bat aurkitzen baita azpian. Santiago Iruretagoiena

## gatzatze iz isurkari organiko bat masa trinko bihurtzea.

**Gatzatzea** da, hain zuzen, ebaki batetik edo bestelako zauri batetik odol gehiegi galtzearen aurkako babes nagusia. Irene Aldasoro

Plaketek oso eginkizun garrantzitsua dute **gatzatze**-prozesuan. Irene Aldasoro

Konplikatua da **gatzatze**-mekanismoa, baina irtenbide eraginkor bat ematen dio arazo zail bati. Irene Aldasoro

VIII. **gatzatze**-faktorearen gabeziak A hemofilia eragiten du. Irene Aldasoro

Gibelean eta biriketean dagoen substantzia bat da heparina, barne-**gatzatzearen** aurkako babesetarikoa bat. Irene Aldasoro

## gatzdun izond gatza duena.

Artiko aldean dagoen Itsas Jelatuan, ibaietako ur gatzbakorik ezean, itsas hartako azpiko ur **gatzduna** igoko litzateke ur gainera. Pello Zabala

Atsegina izango zen, losintxa **gatzdunak** esango zizkien neska gazteei. Anton Garikano

Barre karkailaka aupatzen genituen txistekok, ez onak edo **gatzdunak** zirelako, juduen bizkar ari ginelako baizik. Anjel Lertxundi

## gatzemaile iz sukaldaria, sukaldeko laguntzailea.

Langabeziara amildutako **gatzemaileek** indemnizazioak elkartu, gauza batzuk antolatu eta, ia bat-batean irekitako establezimendu hauetan ere denetik topatuko duzue. Erdorta Agirre

## gatzgabe (ETCn 102 agerraldi; orobat gatzgabe ETCn 3 agerraldi) 1 izond gatzik ez duena.

Ipuin **gatz-gabeak** direla. Anjel Lertxundi

Herri-ipuin **gatz** gabeak baztertu, bada, eta, ordainetan, fabula sasi klasiko bat kontatzen jartzen du bere seme Txomintxo. Anjel Lertxundi

Akaso horregatik gogoratzen dut hain ondo igelaren kontu **gatzgabe** hura ipuin harrigarri bat bailitzan. Iban Zaldúa

Han deskribatzen diren pertsonaia eta egoera azalean **gatzgabei**. Iban Zaldúa

Ez zitzaion batere gozoa gertatuko nirekikoak eta aitarekikoak egin beharra, baina erreakzio bortitzak eta behazuna lekuz kanpo zeuden haren portaeran, askotan **gatzgabea** zela emateraino. Anjel Lertxundi

## 2 gatzgabeko izlag gatzgabea.

Artiko aldean dagoen Itsas Jelatuan, ibaietako ur **gatzbakorik** ezean, itsas hartako azpiko ur **gatzduna** igoko litzateke ur gainera. Pello Zabala

Une hartan berriro ere mintzatu zen bere ohiko hizketa molde **gatzgabekoan**: [...]. Patxi Zubizarreta

## gatzgabetasun iz gatzgabea denaren nolakotasuna.

Nagusiak horrela deitzen zien izengoitirik ezarri ezean dena gatzgabea iruditzen zitzaiolako, eta berak ez zuen batere gogoko **gatzgabetasuna**. Jose Morales



# gatzgabetu, gatzgabe(tu), gatzgabetzen du *ad* gatz kendu.

Cnosa industria taldeak **gatzgabetzeko** ontziak egiteko bost eskari ditu . **Berria - Ekonomia**

# gatzil *izond* gatzik ez duena.

Zeren jaun haiek eta kasik beste guztiek pentsatzen baitzuten hil bihirik edo kolpaturik gabeko zezen ikusgarri delakoak, hotzak direla **gatzilak** eta eskasak. **Piarres Xarriton**

# gatzitu 1 *izond* gatz bihurtua.

Charlyk, ordea, estatua bat zirudien, Jainko gupidagabe batek bekatu ezezagun batengatik **gatzitua** . **Aingeru Epaltza**

## 2 gatzitua.

Lisboa inguruan garesti zagok haragia, eta **gatzitua** baino ez ditek saltzen, gainera. **Edorta Jimenez**

# gatzontzi *iz* sukaldean eta mahaian erabiltzen den gatzaren ontzia.

Bi hortzeko sardexka bat eta, azkenik, **gatzontzia**, zeina ez baitzegoen mahai gainean tente jartzerik. **Jose Morales**

**Gatzontzia** hartu eta manteleko lore-irudi baten gainean ipini zuen. **Anton Garikano**

Kontzientzia hertsia **gatzontzian** ere harrak sor baitaitezke. **Joan Mari Irigoien**

Azalpen bat edo **gatzontzia** eskatu orduko. **Jon Alonso**

**Gatzontzia** zakarrontzian husten zuen bitartean, [...]. **Jon Muñoz**

# gatzozpindu, gatzozpin, gatzozpintzen 1 du *ad* gatz eta ozpinez prestatu.

Arrazoiak, purrustadaz eta parrastadaz **gatzozpinduak** . **Iñaki Arranz**

## 2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Askotan irakurri duzu promesa hori liburuen kontrazalean, egundoko kontakizun **gatz-ozpinduak** iragarritz ehun ogerlekoko argitalpen merkeetan. **Javi Cillero**

Haatik, Juanek beste pipermin bat ematen dio legendaren **gatz-ozpinduari** ; itsasadarra igaro baino lehen abadeek sotanei su eman eta su horretan txuletak erre ei zituzten.

**Edorta Jimenez**

# gatzu *iz* potasio nitratoaren izen zaharra. ik **nitro**.

**Gatzuz** estalita daude [sotoak]. **Koro Navarro**

**Gatzua** sentitu beste erremediorik ez duzu. **Koro Navarro**

# gatzun *iz* ur guztiz gazia janariak kontserbak egiteko erabiltzen dena.

Horri esker antzeman zion luzokerrak kontserbatzeko erabilitako **gatzunaz** garbitu zituela eskuak. **Jose Morales**

Honelakoxea da **gatzunaren** eta inularen zaporea. **Xabier Amuriza**

Gorputza ustelduratik babesten duen **gatzun** izpirituala. **Xabier Olarra**

# gau 1 *iz* eguzkiaren sarreratik irteerara hedatzen den denbora bitartea; egunaren zati iluna.

Orain **gaua** duk, gaueko ordu biak inguru. Ilargi gabeko **gau** bat zen. **Josu Zabaleta**

Egun bat eta bi **gau** egon nintzen beilan. **Josu Zabaleta**

Handik **gau** batzuetara. **Josu Zabaleta**

Louis R...-k, bere ikaskide batzuk bildu zituen **gau** batean. **Josu Zabaleta**

Ezin izango nikek gaur **gauean** hirekin afaldu Savoy-n. **Antton Olano**

Atxilo hartu zuten herenegun **gauean** . **Inazio Mujika Iraola**

Asteazkenetik ostegunerako **gauean** . **Berria - Kirola**

Gaizki egin nuen lo hurrengo **gauean** . **Josu Zabaleta**

**Gau** hartan, aitaren xake liburuan ikasi izan banu bezain argi ikusi nuen egin behar nuen jokaldia. **Alberto Ladron Arana**

**Gaueko** hamarrak aldera. **Berria - Euskal Herria**

**Gaueko** ordu txikietan. **Berria - Kultura**

**Gaueko** amesgaizto lizun haietan. **Joan Mari Irigoien**

**Gaueko** txandan egondako seguritate guarda bat. **Iñaki Zabaleta**

Sarritan gelditu ohi ziren han, **gaueko** ilunean, elkarri musuka aritzeko. **Josu Zabaleta**

**Gau** hartako ordu txikiak arte lanpeturik. **Alberto Ladron Arana**

Bi bikoteak **gau** berean oheratu ziren, bi emazteak **gau** berean geratu ziren haurdun. **Patxi Zubizarreta**

Lau karabineroak **gauean** itzuli ziren. **Koldo Biguri**

**Gauean** balkoian jartzen da ukondo aire triste batean. **Koldo Izagirre**

Goizetik **gauera**, etengabe dutxatzen nintzen: gorroto dut izerdia, gaixorik zaudela ematen baitu. **Joxe Austin Arrieta**

Eta hain segur, Mathias, **gauerako** bederen etxeratuko zen. **Daniel Landart**

Eta berrogei **gauez** euria egin zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Gau** batez Dekano jaunarekin filosofatzen ari zela, esan zion: [...]. **Josu Zabaleta**

Eta emakume gogaikarri hori hitz eta pitz **gau** osoan, umeak gora, umeak behera. **Lopez de Arana**

**Gau** osoa lotan egin ondoren. **Lopez de Arana**

Itsasoan galdu eta itsaso zabalean, baltsa hauskor baten gainean galdurik, ez mastarik, ez oihalik, ez iparrorraztik ez itzaropenik, dena galduta, **gau** eta egun luzez ibili eta bat-batean horrenbeste desiratzen zuen itsasertza ikusten duenaren poza. *ik beherago* 9. **Josu Zabaleta**

Hark urduri eta berebiziko asaldutan eman zuen **gau** guztia. **Josu Zabaleta**

**Gauak** aurrera egiten zuen heinean. **Joxemari Iturralde**

**Gaua** arte itxarongu dut. Mirentxu Larrañaga  
Hobe zen **gaua** arte itxaron, eta gero ezkutuan aldegitia. Josu Zabaleta  
**Gauaren** besoetan itzali hurran den eguzkia horizontean. Joan Mari Irigoien  
**Gauak** oraindik sekretuak babesten dituen ordu horietan gaude... ordu txikitian, denbora gure alde dugu! Pako Aristi  
Ez da nire **gaua** -esan zuen Jamesek. Koro Navarro  
**Gaue**tik egunera aldatzen dute iritzia. Berria - Kultura  
Atzo **gaua** arte ez nekien zuen bion artekoa. Anton Garikano  
**Gaue**tik goizera sortu zen ETB, gure telebista, euskaraz. Pello Salaburu  
Ez direla ohiturak aldatzen **gaue**tik biharrera. Piarres Xarriton

## 2 (izenondoekin)

Ilunabar hartan **gau** izarratua ikus zitekeen. Unai Iturriaga  
Gaua zen, mendietako **gau** zurbila, mendi ostein erortzear dagoen ilargi laurden hori mehe batek odoiartzaren ertzetik argitzen duen **gau** hits zuhaila. Josu Zabaleta  
Eta etorri ziren, **gau** beltzean, euriak euriari. Daniel Landart  
Mugileen polizia iriari esplikatu beharko zion zergatik zegoen han **gau** minean erratz batekin eta sorginkeria-liburuz beteriko kutxa batekin. Iñaki Mendiguren  
Hil bezperan, **gau** itxian, **gau** etsian, **gau** kabugabeen, biolinak entzun ziren zelaiko alde batetik bestera. Felipe Juaristi  
**Gau** amaiezinetan korridorean sentitzen diren jaberik gabeko pauso-hots etengabeen anonimotasuna. Anjel Lertxundi  
Udako **gau** epel bat zelako. Joan Mari Irigoien  
Gaur bere **gau** librea du. Fernando Rey  
Arimaren **gau** iluna ezin da hitzen ilunetik baizik argitu. Joan Mari Irigoien

## 3 (aditzaren zer osagai gisa)

Egunak luzatuz eta **gauak** laburtuz doaz eta **gaua** handitu ahala argia gutxituz. Xabier Amuriza  
**Gaua** iritsi zenean. Juan Kruz Igerabide  
Etxe bat atondu zioten, bertan **gaua** igarotzeko. Karlos Zabala  
Baina **gaua** igaro, eta Humirzah ez zen azaldu. Koro Navarro  
Ontsia berotua zen etxazpian **gaua** pasaturik gure xukadorraren barnean. Marzel Etxehandi  
Mikel Strogoffek, Nadiak eta Nikolasek ez zuten luzaro bilatu behar izan, **gaua** emateko leku bat aurkitu arte. Karlos Zabala  
Ilargi berria zen, eta haren argiak ez zuen **gaua** urratuko. Karlos Zabala  
Aurretik Take 6 taldeak girotuko du **gaua**. Berria - Kultura  
Garrasi batek zulatzen du **gaua**, estuasunak eragindako garrasi batek. Antton Olano  
Atzean utzi genuen etxe zuria, eta **gauak** irentsi zituen argia eta mendia. Koro Navarro

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gau** -ibiltari bakartia nintzen, zokoetan gustura egoten den horietakoa. Koro Navarro  
Frontón hotelean izan zen **gau** -jaja. Edorta Jimenez  
Bi ordu pasatxo eman zituen **gau** -jairako prestatzen. Jose Morales  
Atzoko **gau** -festan, berriz, artifiziozko suak ere izan genituen. Joan Mari Irigoien  
Neronek erakutsi nahi dizut Hollywoodeko **gau** -bizitza. Fernando Rey  
Jainkoak **gau** -ikusari batean dei egin zion Israeli. Jose Antonio Mujika  
Gerraosteko britainiar literaturari buruzko **gau** -ikastaro bateko eskoletara joan zen. Iban Zaldúa  
Gogoratzen al haiz materialismo historikoari buruzko batzokiko **gau** eskolez? Iban Zaldúa  
Ezkontide tristeon arteko **gau** -borroka horiek. Juan Garzia  
Baina halako batean **gau** -bonbardaketa bat izan zen. Juan Garzia  
Henneren **gau** -atorra sutan zegoen. Koro Navarro  
Emakume gazte bat ikusi nuen, hanka-hutsik, **gau-atorraren** gainean martazko beroki bat jantzita. Koro Navarro  
**Gau** kanpaiak. Koldo Biguri  
Udaltzain eta **gau** -jagole andana bat. Iban Zaldúa  
Irujo ministroak Galindez **gau** -ehiztaria bidali du Madrilera. Edorta Jimenez  
**Gau** hontz mutuak bezalakoak ziren. Fernando Morillo  
Besta goxo / Ezti / Errondan **gau** xoriak / **Gau** soinekotan. Michel Oronoz  
Erran liteke hontzak eta **gau** enarak ez daudela erneago. Aingeru Epaltza  
**Gau** -ainhara badoa hegalez firrindan. Pello Zabala  
**Gau** -giro isilean. Xabier Mendiguren Elizegi  
Gero, hotzak ozendutako airean, **gau** orduko kanpai hotsak entzun ziren. Josu Zabaleta  
Bus geltoki, **gau** -klub, zinema areto, metro estazio eta aireportuetan. Harkaitz Cano  
Liburutegiko **gau** isiltasunean. Koro Navarro  
Nire egunoroko jardunaren **gau** -alderdi hura. Joxan Elozegi  
Are izugarriagoa zen isiltasuna **gau** partean. Xabier Aranburu  
· Gero, **gau** aldean, Peppone gabardina jantzi eta aterantz abiatu zen. Koldo Biguri  
Eskerrak ikatz-ontzi ingeles batek ikusi eta **gau** aldera handik jaso gintuen. Josu Zabaleta

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ortzirale **gau** hartaz bere bizi guzian orroitu zen. Eneko Bidegain  
Larunbat **gaueko** ospakizuna. Pello Zabala  
Inoiz, jai **gauak** eta zirenean. Josu Zabaleta  
Ilargi-**gaua** zen. Juan Garzia  
Lehenbiziko krisialdi-**gau** haietan. Xabier Olarra  
Bustirik itzuli zen, euri **gau** batez. Josu Zabaleta  
Uda-**gau** oskarbi bat zen. Irene Aldasoro  
Elurte-**gau** batekoa bezain oparoa zen isiltasuna. Anjel Lertxundi  
Ekaitz **gau** hartan bezalaxe. Jon Muñoz  
Izar-**gau** zoragarria zegoen. Anton Garikano  
Ezkontza-**gaua** bezalakoak izango zen. Jasone Osoro  
Ezin dut, ez dut itxarongo, erailtzen ari dira gure eztei **gaua**. Koro Navarro

## 6 gauaz (365 agerraldi, 67 liburu eta 88 artikulutan; ETCn 1.338 agerraldi) gaeuz. ik beherago 7.

Egunaz nerabiltzan gogoetak, **gauaz** oraindik beltzagoak ziren. Daniel Landart

**Gauaz** ibiltzearen berriz, anitzetan Sigur Rosen musika lagun, luraren erreallitateki sentitzen nuen. Itxaro Borda

Apirilaren 20an, **gauaz**, ez-usaiki tirokaldi bat entzuten dugu. Michel Oronoz

Herenegun **gauaz** Ximurra Josurenera deitu zuen, aski berandu, nitaz galdezka. Aingeru Epaltza

Gerlara ez ziren joan gizon ezkonduak, baina horiek **gauaz** herrian berean egiten zuten beren zerbitzua, etxeetan zeuden armak eskuetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· **Gauazko** tren hartan, ez zen deusik jateko. Janbattitt Dirassar

## 7 gauaz (1417 agerraldi, 196 liburu eta 160 artikulutan; ETCn 4.374 agerraldi) ik gorago 6.

**Gauaz** parke batean. Joxerra Garzia

**Gauaz** nahiz egunez, kuxkuxean ibiltzeko. Pello Zabala

**Gauaz** mamu bat ikusten duela iruditzen bazaió. Josu Zabaleta

Militarrek **gauaz** hartu zuten mendean hiria. Mikel Hernandez Abaitua

**Gauaz** ailegatu naiz Andoniren etxera. Joseba Sarrionandia

Neronek ere hotzikarak sentitzen nituen soineko horrekin **gauaz** atera zitekeela pentsatze hutsarekin. Joxean Agirre

· Eguna egunezkoarentzat; gaua **gauazkoarentzat**. Pello Salaburu

## 8 gau berandu

Ez naiz **gau** berandua arte lokartu. Jon Muñoz

**Gau** beranduan naiz goizaldean, orduiak baino lenago jo ezker, Purgatorioko animak otoitz-eske... Galdetzea ahaztu zitzaidan atzo... Pello Zabala

**gau** beranduan heldu nintzen eta... Jose Morales

Zeren auskalo nondik etorria zen, eta **gau** beranduan gainera. Jose Morales

**Gau** beranduan, zerbitzariak lasterka atera ziren. Elizen arteko biblia

## 9 gau eskola

Ez dela beti goxo **gau** eskolako irakasle lana Asteleheneretan. Altzako **gau**-eskolan klaseak ematen ibiliak. Eneko Bidegain

Bestalde **gau** eskolan ikasiek lagundu gaituzte gure bizitza guzian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Helduentzako **gau** eskolak eta posta bidezko ikastaroak dira ikasteko gehien erabiltzen diren bideak. Berria - Mundua

Ikastola sortzeak **gaueskola** sortzea ekarri zuen. Koldo Zuazo

## 10 gau eta egun

**Gau** eta egun lan eginez. Koro Navarro

Hezur eta larru, mortuko abereak lagun, **gau** eta egun deabruak ondolik zituztela. Michel Oronoz

Guztiz asaldaturik nindukan **gau** eta egun. Josu Zabaleta

Eta edan, edan eta edan, arnasarik hartu gabe, **gau** eta egun! Horixe duzue kapitalismoa, odola **gau** eta egun zuputzen dizuen banpiroa. Lopez de Arana

Zalmaveth-en uluak **gau** eta egun entzuten ziren lekura. Koro Navarro

· Bagoi itogarrietan pilatuta, **gau** eta egunez garraiatuak. Imanol Zurutuza

Harrezkero aita memoria galtzen hasi zen eta ama **gau**-eta-eguneko erizain bilakatu zitzaion. Patxi Zubizarreta

## 11 gau hegazti

Kanta haren hitzak, **gau**-hegazti ikustezin batzuk bezala sartzen zitzaizkidan leihoan barrena. Joan Mari Irigoien

## 12 gau giro (orobat gaugiro) ik gauaro.

**Gaugiro** ederra genuen. Koldo Izagirre

Udako **gau giro** epelaz gozatua nintzen. Aingeru Epaltza

**Gau**-giro isilean. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik ikusmira baino gehiago **gaugiroa** gozatu dut, **gaugiroa** eta lagunartea. Patxi Zubizarreta

Aldi berean atzeko oihalaren atzeko argia itzaliko da, eta lehengo **gau giro** urdina piztuko da berrito agertokian. Josu Zabaleta

## 13 gau-jantzi

Parisko **gau**-jantzi bat izan nahi nuke neuretzat eta etiketa-jantzi bat zuretzat... **Gau**-jantziak, udako muselina eta jantzi arinak biratu ziren Elleni so egiteko. Lopez de Arana

## 14 gau mahai (orobat gaumahai)

Bi kandela zeuden piztuta **gau**-mahaian. Josu Zabaleta

Bi lanpara oparitu zizkiguten logelako **gaumahaietarako**. Patxi Zubizarreta

Arrosak askatu eta **gau**-mahai gainean ezarri zituen. Lopez de Arana

**Gaumahaiaren** gainean zeukan liburu batean. Anjel Lertxundi

Betaurrekoak **gau**-mahaitik hartu nituen. Aingeru Epaltza

**Gau** mahaiko tiraderan gorde nuen. Aritz Gorrotxategi

**Gaumahaiko** edalontzia. Harkaitz Cano

· Telekomando bat dago ezkerreko **gau-mahaitxoan**. Mikel Hernandez Abaitua

**Gaumahaitxoetako** rutinaren lekukotza ematen duten erretratu gogaikarriak. Harkaitz Cano

## 15 gau min (orobat gaumin)

**Gau** minaren sargorian ene albora egin duzu maindirepean, laztana. Javi Cillero

Oraindik ez ziren zazpiak, baina ia **gaumina** ematen zuen: oso laino beltzak zebiltzan. Fernando Morillo

Muggleen polizia esprikatu beharko zion zergatik zegoen han **gau** minean erratz batekin eta sorginkeria-liburuz beteriko kutxa batekin. Iñaki Mendiguren

**Gauminean**, ordea, lorik egin ezinik ibili nintzen. Patxi Zubizarreta

**Gau** minean gurutzatzen diren bi itsasontziren antzera. Alberto Ladron Arana

Bestetik, irrikaz egoten zen eskolako lanak etxean egiteko, baina ezkutuan egin behar izaten zituen, **gauminean**. Iñaki Mendiguren

· **Gauaren** minean inarrosi eta tanpez iratzarritako maitea sugearen pare gaiztotzen ari zitzaidan. Itxaro Borda

## 16 gau on

Kapela hartu eta «**gau on**» esan zuen Jimmyk. Lopez de Arana

**Gau on**, Mrs. Merivale. Lopez de Arana

**Gau on** denoi!... Lopez de Arana

**Gau on** elkarri esateko ordua. Lopez de Arana

-**Gau on** entzule guzietan: "Ez da musik"emankizuna. Menane Oxandabaratx

**Gau on** entzuleak. Menane Oxandabaratx

-**Gau on** Bernadette eta Irulegiko Irratiko entzule guzietan. Menane Oxandabaratx

· Zerbitzari uniformatu batek **gabonka** hartu eta mahai bateraino lagundu zigun. Xabier Montoia

## 16a gau poluzio ik poluzio 4.

## 17 gau soineko

Smoking, frak eta trajeak zeramatzaten gizonezko askok eta **gau** -soineko luzeak, larruzko gainekoan azpitik, emakumezkoek. **Iñaki Zabaleta**

Elsak belusezko **gau** soineko berria dauka. **Ramon Etxezarreta**

Sabeth, bere **gau** -soinekotxo urdinarekin. **Joxe Austin Arrieta**

**Gau** soineko bat erosi behar izan zion festarako propio. **Koro Navarro**

## 18 gau tximeleta (ETCn 17 agerraldi; orobat gautximeleta ETCn 2 agerraldi)

**Gautximeletak** edo egunezko beltzak, oro har, arima erratua, deabrua, infernukoa, zori gaiztoa, heriotza adierazi izan du. **Patziku Perurena**

Lertxun baten milaka hostoak **gau-tximeleta** zaurituak bezala ikaraz haizea abarren artean lerratzen delarik. **Oskar Arana**

Berpiztu baitzitezkeen **gautximeleta** itxuran. **Patziku Perurena**

Alfer-gurpil behin eta berrirokoan itzulika gabilta, horra, ostera ere, temati, **gau-tximeleta** argiak liluratu nola. **Juan Garzia**

## 19 gauaren erdi ik gauerdi.

Udan erraza izaten zen Taibele **gauaren** erdian bisitatzea. **Koro Navarro**

**Gauaren** erdian jotzen zuen etxeko telefonoak. **Koro Navarro**

## 20 gauazko lan (ETCn 19 agerraldi; orobat gauazko lan ETCn 5 agerraldi) ik kontrabando.

Hiru hilabete baizik ez ziren iragan Alemaniatik itzuli zenetik eta zenbait aste haietan **gauazko lanean** abiatua zen. Aste batzuek, lanetik itzultzean, errusiar preso talde bat gurutzatzen zuen, haiek **gauazko lana** baitzuten. **Eneko Bidegain**

Erran behar da orduan ere **gauazko lanak** bazuela arrakasta handia, eta Etxalartar talde zintzoarekin baziren harreman frango. **Herria**

Eta pantailan agertu zaizkigu hiru aldiz aspaldiko auriztar batzu, beren etxean filmatuak, zernahi oroitzen lerrotatuz, herriko bestetarik haste, mendietako **gauazko lanetaraino**. **Herria**

Ibiliko ziren elkarrekin kontrabandoan, **gauazko lanean**, mendian gora eta behera. **Hasier Etxeberria**

## 21 gauaz gau (ETCn 44 agerraldi)

**Gauaz gauako** ilunpe etengabea. **Itxaro Borda**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

azken gau (9); baina gau (50); baina gau hartan (23); baitzuen gau (10); bat gau (14); bere gau (11); berrogei gau (19); berrogei gau egin (8); beste gau (33); bi gau (32); bigarren gau (9); da gau (40); dela gau (8); den gau (14); dira gau (27); du gau (18); duen gau (11); dut gau (20); edo gau (22); egin gau (11); egin zuen gau (12); egiten zuen gau (8); egun eta gau (30); eguna gau (8); ere gau (20); eta berrogei gau (14); eta bi gau (8); eta gau (329); eta gau batean (11); eta gau batez (16); eta gau eta (14); eta gau hartan (46); eta gau osoa (17); eta gau osoan (30); eta hiru gau (21); ez gau (18); gabeko gau (20)

gau argi (14); gau asko (10); gau askotan (12); gau bakar (40); gau bakar bat (16); gau bakar batean (11); gau bakarra (8); gau bat (107); gau batean (279); gau bateko (28); gau baten (19); gau baterako (15); gau batez (257); gau batzuetan (13); gau beila (86); gau beilan (9); gau beltz (12); gau beltza (26); gau beltzean (15); gau beranduan (13); gau berean (33); gau bero (8); gau eder (8); gau ederra (14); gau egin (13); gau eman (8); gau epel (8); gau erdian (23); gau ero (8); gau eskola (48); gau eskolak (29); gau eskolako (20); gau eskolan (18); gau eskolaren (8); gau eskolek (17); gau eskoletan (18); gau eta (387); gau eta bat (23)

gau eta egun (317); gau eta egunez (10); gau giro (18); gau guzia (14); gau guzian (20); gau guziz (15); gau guztia (23); gau guztian (56); gau haietako (8); gau haietan (9); gau hartako (68); gau hartakoa (9); gau hartan (849); gau hartan berean (11); gau hartan bertan (81); gau hartan ere (19); gau hartan eta (10); gau hartan ez (35); gau hartantxe (10); gau hartarako (10); gau hartatik (13); gau hartaz (15); gau hau (14); gau honetako (11); gau honetan (46); gau hori (13); gau horretan (76); gau horretan bertan (15); gau hortan (16); gau hotz (14); gau hotza (8); gau hura (62); gau ikuskari (9)

gau ilun (14); gau iluna (33); gau ilunean (27); gau luze (23); gau luzea (18); gau mahaian (12); gau mahaiaren (14); gau mahaiaren gainean (10); gau mahaiko (19); gau mahaitik (11); gau misionen (21); gau on (115); gau ona (14); gau oso (20); gau oso bat (8); gau osoa (168); gau osoa eman (20); gau osoak (8); gau osoan (229); gau osoan ez (9); gau osoan zehar (14); gau partean (9); gau pasa (19); gau ta (8); gau ta egun (8); gau txarra (15); gau xoriak (15)

gauak gau (11); gauaz gau (11); genuen gau (10); gure gau (9); hainbat gau (8); halako gau (10); halako gau batean (8); hazparneko gau (8); hiru gau (44); hiru gau eta (10); ia gau (8); itsasuko gau (15); izan zen gau (11); larunbat gau (17); lehen gau (9); lehengo gau (9); mila gau (25); mila gau eta (25); neguko gau (21); nintzen gau (21); nintzen gau hartan (8); nire gau (15); nuen gau (38); nuen gau hartan (15); oso gau (9); udako gau (25); zazpi gau (9); zegoen gau (17); zegoen gau hartan (9); zela gau (8); zen eta gau (9); zen gau (89); zen gau hartan (25); zion gau (13); ziren gau (29); zituen gau (15); zituzten gau (9); zuela gau (13); zuen gau (75); zuen gau hartan (21); zuen gau osoa (13); zuten gau (24)

aurreko gaua (11); azken gaua (32); baina gaua (16); da gaua (17); du gaua (24); dugu gaua (10); dut gaua (11); dute gaua (14); eguna eta gaua (27); eman zuen gaua (9); eta gaua (128); gabon gaua (11); gaua arte (29); gaua aurrera (9); gaua baino (16); gaua baino lehen (9); gaua bere (10); gaua bertan (16); gaua bidean (10); gaua bidean emanik (10); gaua da (27); gaua dela (9); gaua eman (8); gaua ere (22); gaua eta (60); gaua eta eguna (12); gaua etorri (21); gaua ez (16); gaua han (22); gaua heldu (18); gaua hemen (11); gaua igaro (11); gaua igarotzeko (19); gaua iluna (8); gaua iritsi (29); gaua iritsi zen (8); gaua iritsi zenean (8); gaua izan (20); gaua izango (10); gaua pasa (9); gaua pasatu (9); gaua pasatzeko (35); gaua pasatzera (12); gaua zela (11); gaua zen (99); gaua zen eta (13); gaurko gaua (20); genuen gaua (11); hemen gaua (9); igaro zuen gaua (13); larunbat gaua (13); lehen gaua (15); nuen gaua (12); ostiral gaua (8); sagarona gaua (10); sorgin gaua (10); zen gaua (33); zuen gaua (45); zuten gaua (28)

baina gauaz (8); bat gauak (8); egunak eta gauak (21); egunaren eta gauaren (9); egunaz eta gauaz (8); eta gauak (63); eta gauaren (46); eta gauaz (30); gauak aurrera (12); gauak aurrera egin (8); gauak bere (10); gauak ere (13); gauak eta (32); gauak eta egunak (11); gauak ez (15); gauak gau (11); gauaren erdian (102); gauaren eta (10); gauaren iluna (10); gauaren ilunean (10); gauaren iluntasunean (8); gauaren ondoren (8); gauaz ere (8); gauaz eta (16); gauaz ez (9); gauaz geroztik (11); zituen gauak (9); zuen gauaren (11)

arteko gaua (8); astearte gaua (43); asteazken gaua (45); astelehen gaua (55); atzo gaua (178); aurreko gaua (94); baina gaua (11); baina gaur gaua (8); bart gaua (122); bezpera gaua (13); bihar gaua (26); da gaua (8); da gaur gaua (10); den larunbat gaua (11); dira gaur gaua (9); eta atzo gaua (8); eta gaua (130); eta gaur gaua (15); eta herenegun gaua (9); eztei gaua (8); gabon gaua (21)

gauaen atxilotu (9); gauaen barrena (8); gauaen berandu (14); gauaen berriro (14); gauaen bertan (42); gauaen beste (9); gauaen bi (11); gauaen edo (8); gauaen egin (25); gauaen egin zuen (8); gauaen egindako (8); gauaen eman (9); gauaen ere (47); gauaen esan (12); gauaen eta (31); gauaen eta atzo (10); gauaen ez (39); gauaen ezin (9); gauaen gertatu (15); gauaen gertatu zen (10); gauaen hasi (10); gauaen hil (16); gauaen hil zen (9); gauaen ikusi (13); gauaen iritsi (9); gauaen izan (20); gauaen izan zen (13); gauaen jokatu (10); gauaen jokatu (12); gauaen lo (9); gauaen nire (8); gauaen zehar (14)

gaur gaua (360); gaur gaua bertan (16); gaur gaua ez (14); herenegun gaua (304); hurrengo gaua (44); igande gaua (69); iganderako gaua (10); larunbat gaua (79); larunbatetik iganderako gaua (9); lehen gaua (22); lehengo gaua (14); lehengo gaua (13); ondoko gaua (12); ostegun gaua (63); ostiral gaua (86); urteazhar gaua (9); zen gaua (32); zen herenegun gaua (12); ziren gaua (15); ziren herenegun gaua (14); zituen herenegun gaua (10); zituzten herenegun gaua (9); zuen atzo gaua (15); zuen gaua (17); zuen herenegun gaua (49); zuten atzo gaua (15); zuten gaua (8); zuten herenegun gaua (25)

atzo gauako (16); aurreko gauako (22); baina gauako (10); bart gauako (40); da gauako (9); dira gauako (10); edo gauako (10); eta bart gauako (8); eta gauako (87); gauako azken (12); gauako bederatzia (16); gauako bederatzietan (8); gauako haize (11); gauako hamabiak (13); gauako hamaika (12); gauako hamaikak (27); gauako hamaiketan (20); gauako hamarrek (35); gauako hamarretan (22); gauako lehen (11); gauako ordu (66); gauako ordu txikietan (24); gauako txanda (9); gaur gauako (16); herenegun gauako (13); larunbat gauako (13); nahiz gauako (8); ostiral gauako (19); zen gauako (18)

baina gauaz (16); berrogei gauaz (8); da gauaz (13); egunez eta gauaz (19); ere gauaz (9); eta berrogei gauaz (8); eta gauera (8); eta gauetan (13); eta gauaz (130); eta gauaz ere (9); eta hiru gauaz (11); ez gauaz (9); gauera arte (49); gautetik goizera (22); gauaz atera (8); gauaz ateratzen (8); gauaz baino (8); gauaz bakarrik (13); gauaz egin (13); gauaz egiten (10); gauaz ere (43); gauaz eta (31); gauaz ez (14); gauaz gau (11); gauaz lan (9); gaur gauera (14); gaur gauera (14); gaur gauaz (9); goizetik gauera (58); goizetik gauera arte (8); hiru gauaz (17); larunbat gauetako (8); nahiz gauaz (8); zen gauaz (24); ziren gauaz (8); zuen gauaz (11); zuten gauaz (9)

## gaualdi iz gaua, gau denbora.

**Gaualdia** dela uste dut. **Iñaki Zabaleta**

Lehen **gaualdia**. **Michel Ornoz**

Egia esatera, denek igarotzen zuten **gaualdia** proposamen atsegin hori egiteko ausardia nork izango. **Josu Zabaleta**

**Gaualdia** eta hemen-honetako isiltasuna lagungarri on zaizkio izpirituari, laguntza handia bihotz-berritze hauentzat. **Joan Mari Lekuona**

Jaialdia irekitze **gaualdiarekin** hasiko da bihar, Gare du Midi aretoan. **Berria - Kultura**

**Gaualdia** Tui Mamaki Zeelanda Berritik ekarri bozarekin abiatuko da. **Berria - Kultura**

Manex Goihenetxe historialaria omentzeko baliatuko dute **gaualdia**. **Berria - Kultura**

Joan den asteburuan hamasei urteko neska bat bortxatua izan zen, Baiona Tipian, opporrak aitzin ikasleek izaten duten **gaualdian**. **Berria - Euskal Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

Emakumearen **gelan** gauzez eta ezkutuan sartzen den gizona. [Jon Muñoz](#)

Nire **gelako** giltza bat eduki nahi izan du. [Jon Muñoz](#)

Logelara iristeko, jarlekuak baino ez zituen **gela** jantzi gabe bat zeharkatu beharra zegoen aurrena. [Karlos Zabala](#)

-Goiko solairuan atondu dizut **gela**. [Joxemari Urteaga](#)

Ganbarako **gela** hura miatzeko gogo biziz jaiki zen. [Joxemari Urteaga](#)

Frantziskok dorre bakarti bat aukeratu zuen: barrualdea gangaz estalia zen eta bederatz **gela** zituen. [Askoren artean](#)

Frantzisko zegoen **gelako** ate ondoraino joan zen. [Askoren artean](#)

Jeneralaren **gelara** joan eta atea jo zuen. [Askoren artean](#)

**Gelako** zolaren zati bat kenduta zegoen, eta hormaren aurka jarria. [Bernardo Atxaga](#)

Lagunen bat aurkituko duk **gela** partekatzeko. [Lopez de Arana](#)

Norbait egona zen han **gela** txukuntzen. [Iñaki Mendiguren](#)

Egun batean, amandrea hil zen, eta lehenengo solairuan hark zuen **gela** hartu zuen Nunuk, eta haren eginkizunak ere bai. [Ander Irizar](#)

Jauregiaren hegala hura eta bere **gelak** beste **gela** handiekin, aretoarekin, musika-gelarekin eta beste egongelekin lotzen zituen korridorean barrena. [Xabier Olarra](#)

### 2 (bestelako eraikuntzetan)

Atzeko aldean, **gela** txiki pribatu bat zegoen, trenkada beiradun batek tabernatik bereizten zuena. [Karlos Zabala](#)

Herriko etxeko **gela** nagusian. [Herria](#)

Peter, hanka-puntetan, itsasontziko **gelan** desagertu zen. [Julen Gabiria](#)

Armategiko **gela** luzeak durundi egin zuen txaloekin. [Lopez de Arana](#)

Belorus hoteleko 13. solairuko **gela** honetatik hiriaren ikuspegi bikaina. [Edorta Jimenez](#)

Lurrun-bainuen **gelako** temperatura doitzeko. [Santiago Iruretagoiena](#)

Vega Baja erietxeko Zainketa Berezien **Gelan**. [Berria - Kultura](#)

Klinikako **gelara** heldu zenean, aita hariz eta monitore argitsuz setiatua ikusi zuen. [Itxaro Borda](#)

Ateetako plakatxoetan X izpien **gela** adieraziko duenaren bila. [Harkaitz Cano](#)

Erizainak **gela** handi, bero eta lehor bateko atea ireki zuenean. [Lopez de Arana](#)

Panelaz apaindutako **gela** zabalean zehar. [Lopez de Arana](#)

**Gela** txiki beiradunetan sartu aurretik. [Karlos Zabala](#)

geldi geratu nintzen, inor bizi ez den **gela** kandenatuek, **gela** hilek, ohi duten lizun geza horrek atxikirik. **Josu Zabaleta**

Erretzaileen **gelatik** irteetan. **Lopez de Arana**

Bezeroentzako **gelak** ere berdinak dira, baina altzariz soilago jantziak. **Josu Zabaleta**

Tenientea da, hamaseigarren **gelan** dago. **Jose Morales**

### 3 ikasgela.

Buruu ateratzen zidan, eta **gelako** liderra zen. **Joan Mari Irigoien**

Egun batean, partida bat antolatu zuen, oilo-oilarren artean: **gelako** neska-mutilen artean, alegia. **Joan Mari Irigoien**

Bertze 73 ikasle daude egun seigarren mailan, hiru **gelatan**. **Berria - Euskal Herria**

Erabilera anitzeko **gela** bat, eskolako lanetan laguntzeko beste **gela** bat. **Berria - Kirola**

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 2.1 **gelan**. **Berria - Euskal Herria**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gela** sail bat igaro zuen gero. **Josu Zabaleta**

**Gela** -zokoetako koltxoien gainean. **Lopez de Arana**

Eta *Stubendienst*-ak -hau da, alemanik ez dakien Bandi Citromi zelan edo halan itzuli nionez, **gela** -zerbitzua. **Urtzi Urrutikoetxea**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jatetxea, sauna, "VIP" **gelak**. **Ramuntxo Etxeberri**

Sostengu taldeak «lan bilera irekia» eginen du etzi Uztaritzeko Latsa **gelan**, 21:00etan. **Berria - Euskal Herria**

6etan Lapurdi **gelan** mintzaldia. **Herria**

Irakasle- **gelako** ate ondoan bertan geratu zen. **Iñaki Mendiguren**

Sekretupean dago, ospitale **gela** batean gaketurik. **Ramuntxo Etxeberri**

Gregek orduak ematen zituen eri- **gelan** bere kabuz ezer egin gabe. **Xabier Olarra**

Komun **gela** etxeari zegokion bezalakoa zen. **Iñaki Iñurrieta**

Telebista piztuta egon daiteke, zarataka, telebista- **gelan**, baina gaixo gehienek ez diote jaramonik egiten. **Xabier Olarra**

Agatak kasko-zokoko zinema **gelako** pantaila zurbaila ireki zuen eta betiko filma berriz pasatu. **Itxaro Borda**

Itsas piano bat zegoen ontzi- **gelan**. **Irene Aldasoro**

Jaki- **gelatik** bi botila Bass besoetan hartuta gora zihola. **Irene Aldasoro**

Piano- **gelako** bazter batean jarririk. **Anjel Lertxundi**

Hiru kanpaikada entzun ziren makina- **gelan**. **Lopez de Arana**

Turbina **gelako** hodian lodiera. **Berria - Gaiak**

Galdara- **gelara** eraman gintuen. **Juan Garzia**

Barrutik, berriz, oso funtzionala zen: hiru zaldi- **gela** zeuzkan alde batean, eta beste horrenbeste bestean. **Bernardo Atxaga**

Zoko-usaineko traste- **gela** heze bat. **Jose Morales**

Benetako ardo italiarra edan dugu, billar- **gela** huts batean. **Lopez de Arana**

Informatika- **gelako** ordenagailuetan. **Xabier Etxabe**

Lisatzeko **gelari** "armairuen **gela**" ere deitzen zitzaion. **Fernando Rey**

Haren bulegoak bi aurre- **gela** zituen, alde banatara atxikiak buru bati belarriak bezala. **Matías Múgica**

Gure nagusiaren aurre- **gela** horietako batean ginen. **Matías Múgica**

Libertate mikatzaren aitzin- **gela** gelberetan sartua. **Itxaro Borda**

Te-etxe bateko atze- **gelan** arakatu nituen dokumentuak. **Matías Múgica**

Integrazio **gela** digitala inauguratu dute Easo Lanbide Heziketako Institutu Politeknikoan. **Berria - Euskal Herria**

Adolfek estrategia- **gelara** deitu ditu bere laguntzaileak. **Harkaitz Cano**

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehen osagaia ekintza izenei loturik)

Perfekzio honengatik hartuko zaitu berretzat Erregeak berak zeruko ezkon- **gelan**. **Askoren artean**

Ez zuen inola ere ezkontza- **gelara** itzuli nahi. **Joxe Austin Arrieta**

Herriko Etxeko eztei- **gelaren** zoko batetik. **Itxaro Borda**

Dolu- **gelan** bildutako jendearen errezo-marmarrek. **Anjel Lertxundi**

Epaiketa **gela** bete zuten pertsonak ere, bereziak. **Berria - Harian**

Artatze- **gelan** joan-etorri handia egoten dela batzuetan. **Urtzi Urrutikoetxea**

Anai Monaldok bilera- **gelako** aterantz begiratu zuen. **Askoren artean**

Kapitulu- **gelako** atean azaldu zen. **Askoren artean**

Autopsia- **gelan** sartzeko. **Gotzon Garate**

Igande goizean han nago ni, Alfa hoteleko harrera **gelan**. **Edorta Jimenez**

Beherean aurkitzen dira ongi-etorri **gela** eta mediateka. **Herria**

Egun batean, nire jantzi- **gelan** ezin urduriago aurkitu nuen. **Lopez de Arana**

Ehiza- **gela** itxurako hartan bilduriko afaltiar urri eta erdi ezagunei. **Anjel Lertxundi**

Plateretz estalirik zegoen gosari- **gelako** mahai. **Irene Aldasoro**

McAvoy kapitaina, Prudence atoiotziko, aginte- **gelan** zegoen, zutik, esku bat leman pausaturik. **Lopez de Arana**

Ziegaren gainean zegoen antzinako guardia- **gela** abandonatuan. **Fernando Rey**

Auzoko erietxeko larrialdi- **gelan**, kommozio zerebrala nuela esan zidaten. **Xabier Olarra**

Poliziaren galdeketa- **gela** batean nengoen. **Alberto Ladrón Arana**

Beste hiru portiko horietan exhedra zabalak egingo dira, solas- **gela** jarlekudunak. **Santiago Iruretagoiena**

Jolas- **gelako** atea kristal zehar-argitsuak ditu. **Xabier Olarra**

Denok ados geunden atsedean **gelan** erretzen jarraitzeko. **Berria - Harian**

Amodio sensual bat, fisikoa, ia lizuna, uholdea nola, musika- **gela** osoan barreiatu zen. **Eskarne Mujika**

Kontsulta- **gelaren** baten bila zebiltzan, ni bezala. **Iban Zaldúa**

### 7 ebakuntza gela (102 agerraldi, 15 liburu eta 14 artikulutan; ETCn 500 agerraldi) erietxe batean, ebakuntzak egiten diren gela. ik beherago 12.

Ebakuntza- **gelan** biluzik nengoen argi bortitz baten pean, hankak zabaldua eta oinak uhalez lotuta. **Joseba Urteaga**

Ebakuntza- **gelan** emango du arratsalde osoa, ahal duen neurrian laguntzen. **Oskar Arana**

Ebakuntza- **gelako** lurra garbitzen ari da. **Oskar Arana**

Nekatuta eta ahulduz atera berri zen ebakuntza- **gelatik**, hil edo biziko dematik. **Hasier Etxeberria**

### 8 gela elebidun bi hizkuntzatan ikasten den ikasgela.

Haien haurrak edota bilobak ikastolan edo **gela** elebidunetan dituztenak. **Berria - Euskal Herria**



## gelaitzin iz gelaurrea.

**Gelaitzinekoa** karez zurututako korridorea da. **Koldo Izagirre**

## gelakide iz gela berean bizi den pertsona.

Mikschen loa galarazi izanaren erruduna ez zen hura, baizik normalean hain isila zen **gelakidea**, Stanislaus Demba. **Anton Garikano**

Margaret, **gelakidea**, sukaldean zegoen bientzat gosaria prestatzen. **Iñaki Zabaleta**

**Gelakideak** -Adela eta Esther- iluntzean itzuli bezain laster, galdezka hasi zaizkit. **Patxi Zubizarreta**

Bere **gelakideak** esan dit. **Lopez de Arana**

Nire **gelakidearen** ohea hutsik zegoela ikusi nuen. **Oskar Arana**

Orain nire **gelakide** maiteari gauz ere uneoro "ixo"-ka hastea bururatu zaio. **Josu Zabaleta**

Arroyo Clintonen unibertsitateko **gelakidea** izan zen Georgetownen. **Berria - Mundua**

Sexu bereko **gelakide** batekin maitemindu zela. **Fernando Morillo**

**Gelakideak** bi taldetan banatzen gintuzten, eta diru gehien ematen zuen taldeak irabazten zuen lehia. **Joxerra Garzia**

Bandi Citromek eta beste **gelakide** batek eraman ninduten, eskuekin aukia osatuz. **Urtzi Urrutikoetxea**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gelakide batekin** (3); **nire gelakidea** (3)

## gelaño iz gelatxoa.

Etxeko kanpo aldetik sarrera zuen berogailuaren **gelañoa**. **Xabier Montoia**

**Gelaño** hura ez zen komunak baino handiagoa. **Eneko Bidegain**

## gelaratu, gelara(tu), gelaratzen 1 da ad gelara joan.

Arratsean, **gelaratu** nintzelarik, arrunt eroria nuen bihotza; eta laster eta fite oheratu nintzen. **Jon Muñoz**

Gutunak idatzi behar nituelako estakuruan **gelaratu** nintzen. **Jon Muñoz**

Auguste, Florenti **gelaritzen** utzi ez, eta Quenu andrearen laudoriotan hasi zen. **Karlos Zabala**

Eskerrak eman nizkien denei, eta **gelaratzeko** erran nien, haietariko bati manaturik haatik joan zedila berehala nire medikuaren bila. **Jon Muñoz**

Harik eta ama, jaikitzeo tenorea genuela eta, **gelaritzen** zitzaigun arte. **Aingeru Epaltza**

Pertsianan barrena **gelaritzen** den argiarengatik. **Joxe Austin Arrieta**

- Azkenean Maiana trinkili-trankalaka egon- **gelaratu** zen, biloak barreiatuak. **Itxaro Borda**

### • 2 du ad gelara eraman.

Clinic hartan, sarrera eta izena emateko lanak burutu ondoren **gelaratu** zutenean, beste bi neskarekin batera jarri zuten. **Joxemari Iturralde**

## gelari (ETCn 76 agerraldi) iz gela-zerbitzaria. ik gelazain.

Badut **gelari** bat neure zerbitzuko. **Jon Muñoz**

Galdetu diot **gelariari** ea bazekien nor zegoen amaren gelan. **Jon Muñoz**

**Gelaria** sekretuaren jakitun dago. **Jon Muñoz**

Horra **gelari** fidela nire isiltasunaren truk adosturiko saria ekartzera etorria. **Jon Muñoz**

Hura morroiz mozorrotzen den bitartean, nik **gelari** soineko bat janzen dut! **Jon Muñoz**

**Gelariak** sukaldariari egotzi zion errua, eta hark garbitzaileari. **Josu Zabaleta**

Ordezko **gelariak** erran didanez. **Jon Muñoz**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gelaratu nintzen** (4)

## gelarte iz etxe batean, gelen arteko gunea.

**Gelartean** Guido eta Aldorekin topo egin genuen. **Juan Garzia**

## gelatina (ETCn 422 agerraldi; orobat jelatina ETCn 38 agerraldi) 1 iz animalien hezurretatik ateratzen den gai gardena, biguna, malgua eta dastagabea.

Makur-makur egin eta goma antzeko itsas anemona leunak ukitu zituen, harkaitz saiheatsari erantsiak **gelatina** puskek bezala. **Anton Garikano**

**Gelatinak** babestu egiten duela insulina, harik eta hesteetara iristen den arte. **Berria - Gaiak**

Bizkotxoz, **jelatinaz**, fruituz eta esnekiz egindako postre gozoa. **Iñaki Mendiguren**

**Gelatinaz** dirdiratsu dauden lau saltxitxari begira dago. **Monika Etxebarria**

**Jelatinatan** bilduriko txerri buru bat. **Karlos Zabala**

Biluzik bainatzen **gelatinazkoa** ematen zuen itsaso barean. **Iban Zaldúa**

Erakusleihoko haragi egosiak lotan zeuden koipe horixketan, **jelatina** uherrezko aintziretan. **Karlos Zabala**

Zeruraino igotzen zen, nonahi barreiatzen zen, dena betetzen zuen **gelatinazko** erortze harekin. **Monika Etxebarria**

-O, Jones jauna -esan zuen ahots ozen eta alaiaz, eta dardar egin zuen, **jelatinazkoa** balitz bezala. **Koro Navarro**

Haragiak marrubizko **jelatina** bezala mugitzen zitzaizkion. **Juan Martin Elexpuru**

### 2 gelatinaz eta beste zenbait osagaiz prestatutako jakia.

Zerbitzari batek zilarrezko plater txo batean **gelatina** moduko jaki bat ekarri zuen. **Martin Anso**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gelatina eta** (3)



## gelatarazgarri *iz* gelatarazten duen gaia.

Aitaren negozioia ez zait oso-oso gustagarria iruditzen; **gelatarazgarriak** eta piperbeltza baizik ez du saltzen. **Josu Zabaleta**

## gelatinatsu *(ETCn 127 agerraldi; corpusean jelinatsu solik) izond* gelatinaren itxurakoa.

Akizteko esan zidan: **gelatinatsu** eta berak ziren, errai txikituen biguntasun higuigarri hori zuten. **Juan Garzia**

Eihera [...] ia gogoz kontra hasi zen higitzen, susmo txarreko isiltasun batean, paletan itsasten zen ore **gelatinatsuak** trabaturik. **Juan Garzia**

gorputz **gelatinatsu** haren gainera igota, hankalatraba jarri nintzen. **Juan Martin Elexpuru**

## gelatxo 1 *iz* gela txikia.

Gauetz **gelatxo** batera erretiratu zen atseden hartzeko. **Askoren artean**

**Gelatxoaren** hormak zurezkoak ziren, ez harrizkoak. **Askoren artean**

Denda atzeko **gelatxo** ilunera joango nintzen, eta bere besaulkian eserita aurkituko nuen sutondoan, soingainekoan ia erabat ezkutaturik. **Irene Aldasoro**

**Gelatxo** gris hura arropaz eta artisten argazkiz mukuratu beteta. **Lopez de Arana**

Leiho txikiakiko **gelatxo** bat goiko solairuan. **Jose Morales**

**Gelatxo** batzuk egingo dira teatroko eserlekuen tartean, eta ontziak leku horietan jarriko dira. **Santiago Iruetagoiena**

Hantxe, pabiloi hartan, bederatziehun kilometro luze jasan ondoren (Senideek asteburuetan antolatutako autobusetan eginak), ezkerreko bisita: **gelatxoko** afoinuan egoten zen txaskun leiala; ni nintzen neba minberatuari abegi ona bederen eskaini zain. **Txillardegi**

## 2 (abaraskan)

Erleek abaraskaren **gelatxoak** eraikitzen ari ziren trebezia harrigarri ontzitzen. **Askoren artean**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere gelatxoan** (5); **bigarren gelatxoetan** (3); **duen gelatxo** (3); **eta gelatxo** (7); **gelatxo bat** (16); **gelatxo batean** (16); **gelatxo batzuk** (4); **gelatxo esatea** (15); **gelatxo eta** (3); **gelatxo ilun** (5); **gelatxo zaharra** (3); **gelatxo zaharrak** (4); **gelatxoan sartu** (3)

## gelatar *iz* adkor gela handia.

Astebete zen Kristinak etxeko atea erakutsi zidanetik, eta bertze hainbertze denbora nire ezkonbizitzaren naufragiotik salbaturiko puskak Zabalguneko pentsiotzar bateko **gelatarrean** metaturik zeutzala. **Aingeru Epaltza**

## gelaurre 1 *iz* gela aurreko gunea.

Harrizko zorua zeukan **gelaurre** batera sartu gara. **Urtzi Urrutikoetxea**

Irtetear nintzela, amaordeak ere isilpean berba pare bat esan dit **gelaurrean**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Egun batean Terni eta gure ama zutik zeuden **gelaurrean**, eta ama negarrez. **Fernando Rey**

**Gela**-aurrearen ondoko bainugelara sartu nintzen. **Fernando Rey**

## 2 irud

Azkeneko bi aldietan kafetegia logelaren **gelaurre** bilakatu zen bera eta Julioentzat. **Joxemari Iturralde**

## gelaxka *(ETCn 195 agerraldi; orobat gelaska g.er.) iz* 1 gelatxoa.

Hiru **gela** zeuzkan [apartamentuak], eta **gelaxka** bat. Gela handia hiru **gelaxkatan** banaturik dago. **Patxi Zubizarreta**

Atzealdera eramanez zuen, osabak lo egiteko erabiltzen zuen **gelaxka** batera. **Karlos Zabala**

Bulegoa zirudien **gelaxkatik** irten zirelarik. **Josu Landa**

Garbigailuaren **gelaxkara**. **Javi Cillero**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hango komun- **gelaska** baten ate kisketaz itxiaren atzean. **Joxe Austin Arrieta**

Artemisen altxorren gordailu- **gelaxka** piramidal zarratuan. **Juan Garzia**

Gero Septimaren esklabo- **gelaxkara** jo zuen, eta eskutik heldu zion. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eta gelaxka** (4); **eta gelaxka bat** (3); **gelaxka bat** (4); **gelaxka baten** (3); **gelaxka hartan** (4); **gelaxka ziztrin** (3)

## gelazain *(ETCn 121 agerraldi) iz* gela-zerbitzaria. ik **gelari**.

Emakumea sukaldaria eta **gelazaina** zen, eta gizona, berriz, mekanikoa eta lorazaina. **Juan Martin Elexpuru**

**Gelazaina** pitxerrarekin alde egina zela ikusirik. **Jose Morales**

Zu begi garbikoa eta gorputz garbiagokoa zarenez, izan zaitez nire **gelazain**! **Askoren artean**

Ez naiz zeregin hori Joséphineri fidatzera ausarten, eta are gutxiago neure **gelazainari**. **Jon Muñoz**

Enperadorea Asisa etorriko balitz eta hiritarren bat bere zaldun eta **gelazain** egin nahi izango balu. **Askoren artean**

Bitartean, **gelazain** herabekeriez bete hura hanbatenez gehiago ahalketu zen, non [...]. **Jon Muñoz**

Bulegoburua **-gelazain** ohia bera- herrixkako aferetarako batzorde sortu berrira aldatua zuten. **Jose Morales**

Han zegoen idatzia, nola salatu zituen Mardocheok Bigtan eta Terex, Asuero erregea hiltzeko asmotan ibili ziren bi **gelazain** laguntzaile haiek. **Elizen arteko biblia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**nire gelazaina** (3)

## gelazulo *iz* adkor maila apaleko gela, erosotasun eta txukuntasunik gabea.

Alkimisten **gelazuloak**. **Juan Garzia**

Azkenean ostatu hartu zuen oskigile baten **gelazuloan**. **Juan Garzia**

Beheko solairuko **gelazuloan** hartu ninduen, zeina askotariko aparatu desberdin, zoragarri eta ezezagunez mukurua baitzegoen. **Juan Garzia**

Egunean ordu asko pasatzen zituen **gelazulo** higuigarri batean, hantxe, odol gatzatuz belzuriko pareta artean, zorua likiskeria ustelez blai eginaren gainean, utxi halako arratoin pasealeku sarrian; ordainagiriak eta kontu-liburua bera ere odolzettaturik zeuden. **Juan Garzia**

Madriden, **gelazuloetan** bizi ziren gazte pobre eta gaizki elikatuen garaiera nabarmen apalagoa zen kanpora ematen zuten pisuetan bizi ziren familia dirudunetako mutil aberatsena baino. **Josu Zabaleta**

**Gelazulo** haietako maizterrek esan ziotenez [...]. **Josu Zabaleta**

## gelbera 1 izond ahula.

Moral **gelbera**, ahul, melengan. **Joxe Azurmendi**

### 2 irud

Tabernako gela **gelberetan** itzal, arratoi soarekiko gizona gurutzatzen zuen, plazerekin. **Itxaro Borda**

Libertate mikatzaren aitzin-gela **gelberetan** sartua. **Itxaro Borda**

## geldi 1 izond higidurarik gabea.

Aire **geldi** astunak. **Josu Zabaleta**

Ke **geldi** bat baizik ez baitago, izotz zurixka bat bezalakoa. **Josu Zabaleta**

Ur **geldiaren** usaina dario. **Monika Etxebarria**

Ontzia, txori arin baten antzera, ziztu bizian zihohan aurrera ispilu-antzeko ur-azal **geldian**. **Jose Morales**

Apar izoztuzko uhin **geldi** sakonen gainetik. **Josu Zabaleta**

Urumea inguruko ibar **geldi** leuna ertzetik berrikustera abiatu nintzen. **Txillardegi**

Ez al du arkeologiak pentsamendu **geldi** baten balioa izango? **Xabier Arregi**

Dabiltzan hitzetan aditzen du mundua, ez putzuko hitz **geldietan** ikusten. **Iñaki Seguro**

### 2 astitsua.

Urrats **geldi** eta berdinak eginez joan zen. **Xabier Olarra**

Zurrumbilo koloretsu **geldi** batek inguratu nau eta heldu dit. **Monika Etxebarria**

Poliziaren azterketa **geldi** eta hotz hark. **Karlos Zabala**

Gau hartan jakin baitzuen Sarak maitasuna loratze **geldia** eta betiereko udaberria dela. **Felipe Juaristi**

Haren urrats sobera **geldia** gogaikarria zaizu. **Jon Muñoz**

Hirugarren bidea, bide **geldia**, Konstituzioaren 143. artikulua markatzen du. **Pello Salaburu**

Gantz sortu berriak mila kilima egiten zizkion larruazalean, haren izate osoaren inbasio **geldia** zen. **Karlos Zabala**

Trena gero eta **geldi** zihohan. **Iñaki Mendiguren**

Minutuak ezin **geldi** igaro ziren. **Iñaki Mendiguren**

Pauso **geldian** hurbildu zen lagunarengana. **Koldo Izagirre**

Baina isilik egon nahi zuen Adelak, besarkaturik, negar **geldian**. **Juan Kruz Igerabide**

Espaloietan pauso **geldi-geldian** doazen erretiratu zahartuak. **Oskar Arana**

### • 3 (predikatu gisa: ik geldirik.)

Baina Hagrid bere lekuan **geldi** zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Zaldiak putinka ari ziren, **geldi** egon ezinik. **Agustin Otsoa**

On Camillo haren zain zegoen, **geldi** baino **geldi**ago, bataiarri aurrean. **Koldo Biguri**

Neska **geldi** geratu da, erruki eske. **Juan Martin Elexpuru**

Eta hantxe ikusten ninduen **geldi**, serio eta bakarrik, beragan josiak begiak. **Koro Navarro**

Inguruan eme bat agertu orduko, berotu egiten zen eta ez zegoen hura **geldi** edukiko zuenik. **Oskar Arana**

Hantxe jarraitzen du, **geldi**, burua eskuetan bermaturik. **Xabier Olarra**

Egunak daramatza lasai eta **geldi**. **Jokin Muñoz**

Eta ortzean kasik **geldi**, eguzkia. **Edorta Jimenez**

Nik neuk, gabian **geldi**, halaxe zela nabaritu nuen. **Edorta Jimenez**

### 4 (predikatu gisa: poliki)

Hurbildu egin zen, **geldi**, zakarkeriarik gabe. **Joxemari Urteaga**

**Geldi** mugitzen hasi barrutik kanpora eta biribilean. **Juan Martin Elexpuru**

Trena oso **geldi** omen zihohan. **Irene Aldasoro**

### 5 (erkaketetan)

Aita ikusi nuen, harria baino **geldi**ago. **Patxi Zubizarreta**

Abas, harria **baino geldiago**, ez zerurako ez lurrerako geratu zen. **Patxi Zubizarreta**

Baina bera haitza baino **geldi**ago egon da. **Patxi Zubizarreta**

Hor sarritan irudituko zaizue haitza **baino geldiago** dagoela baina... **Jokin Urain**

Harria **bezain geldi**, besoak bularrean gurutzatu eta haiek egon behar zuten alderantz jiratu zituen begiak. **Jose Morales**

Aldareko santuak baino **geldi**ago. **Andoni Egaña**

Katu batenak bezain desafiagarri eta **geldiak** ziren bere begiak. **Harkaitz Cano**

Hantxe zegoen, eseria, estatua bat **bezain geldi**, hildako bat bezain isil. **Patxi Zubizarreta**

### 6 (izen gisa)

Arintasuna darie gorputz horiei, [...], betikotasunaren segurantzak eman dien pozak beterik baleude bezala, denborari bere **geldian** eusten baitote eta beren handitasuna erakusten baitute harrokeriaz. **Felipe Juaristi**

### 7 (aginte hitz gisa)

**-Geldi**! -agindu zuen orduan Mateok. **Edorta Jimenez**

**-Geldi** -entzuten da zorrotz Maribelen ahotsa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**"Geldi**, zaldia!", agindu zuen osaba Juanek. **Bernardo Atxaga**

**Geldi**! -oihu egin zuen saltzaileak. **Iñaki Mendiguren**

**-Geldi**! -xuxurlatu zion Hermioneri. **Iñaki Mendiguren**

-Charles, **geldi**, kilikatu egiten nauzu, maitea. **Monika Etxebarria**

-Ea, **geldi** hor, neska txepel hori... **Iñaki Mendiguren**  
**geldi** hor... **Iñaki Mendiguren**  
- **Geldi** gizona! **Lopez de Arana**  
**Geldi, geldi!**, deabruak eramango ahal zaituzte! **Jose Morales**

## 8 *geldian adlag* geldirik.

Egunak eta egunak **geldian** iragan zituzten. **Felipe Juaristi**  
Ez da **geldian** ere marinelentzat sosegurik izango, motorra desmuntatu eta konponduko da. **Joseba Sarrionandia**  
**Geldian**, lurra leku bakoitzean duen zaporea dasta daiteke, pentze samurren gozotasuna, arantzadien mikatza. **Pako Aristi**  
Gerra ontzia bi astez portuan **geldian** egotera behartzea. **Berria - Mundua**  
Pilotariak **geldian**. **Herria**

## 9 *geldi-geldi*<sup>1</sup>

Uzkur-uzkur eginda dago oheko beste muturrean, **geldi-geldi**. **Jokin Muñoz**  
Bizirik daude, **geldi-geldi**, norbaitek ukitzen dituen arte. **Joxe Austin Arrieta**  
**Geldi-geldi** geratu zen Harry, hura nola behar izan zen ikusten. **Iñaki Mendiguren**  
**Geldi-geldi** egiten zuen lo habian. **Julen Gabiria**  
Ontzia orekan lotu zen, **geldi-geldi**. **Edorta Jimenez**  
Aitak han jarraitzen zuen, **geldi-geldi**, hanka-zabal, eskopeta besapean. **Koldo Biguri**  
Zenbait barku zain zeuden portuan, **geldi-geldi** balantzan. **Matias Múgica**

## 10 *geldi-geldi*<sup>2</sup> poliki-poliki.

Koloreak nire inguruan **geldi-geldi** biraka ikusten nituen, goitika egiteko gogoia nuen. **Monika Etxebarria**  
Eguzkia beheraka zihoan **geldi-geldi**, itsasorantz. **Monika Etxebarria**  
Hiriko erdialderantz doazela **geldi-geldi**. **Monika Etxebarria**  
**Geldi-geldi** jarraitu nuen, arrazoitzeko ahaleginetan. **Koro Navarro**  
Lainoa atariaren azpitik iragazten zen, **geldi-geldi** igotzen joanen zen eta dena itoko zuen. **Monika Etxebarria**  
**Geldi-geldi** itzuli zen autora. **Pablo Sastre**  
Eurria hasi zuen, **geldi-geldi**, indartsu. **Juan Garzia**  
**Geldi-geldi** mugitzen hasi da. **Juan Martin Elexpuru**  
Aizkorarekin hasi naiz **geldi-geldi** eta horrela egiten dut beroketa. **Berria - Kirola**  
-Hau duk motxinberoa! -esan du emakumearen begi aurrean kanpaia **geldi-geldi** jotzen ari den besteak. **Juan Martin Elexpuru**

## 11 *geldi-geldia*<sup>1</sup> *adlag ipar* geldi-geldi.

Zenbait minutuz egon zen zutik, besoak dilindan, **geldi** geldia, begitartea galdurik, zuzulaturik, gertatzen zitzaionaz ezin jabetuz. **Eneko Bidegain**  
**Geldi** geldia jarri da eta argazkigailuko leihotik tente potente, ardi xurien erdian, agertu zait. **Piarres Aintziart**  
Zenbat aldiz egon ote naiz Heletako elizan, Santiagoren harriduri urrezatuari **geldi** geldia so eta so. **Piarres Aintziart**  
Eguzkia adoratzen zuen, begiak hetsirik, **geldi** -geldia, besoak zabalik. **Aurelia Arkotxa**

## 12 *geldi-geldia*<sup>2</sup> *adlag ipar* poliki-poliki.

Herio zelaietako tutu luze haietatik beti kea ateratzen ikusi zuen, **geldi** -geldia... **Eneko Bidegain**  
Bai badakigu ezohiko hondamendi baten aintzinean gure nasaitasunaren erakusten, partikulazki telebixtak desmasia, hiltze eta suntsitze irudi harrigarri eta hungigarriak **geldi** geldia eskaintzen dauzkigularik. **Herria**  
Betidanik taldeak bere hautetsien inguruan **geldi** geldia eramana duen lanaren emaitza. **Herria**

## 13 *geldi-geldirik adlag*

Goiz batean, eguzkia geldi- **geldirik** eta ezin gorriago Ararat mendiaren mazelari itsatsia egoten den orduan. **Fernando Rey**  
**Geldi** -geldirik egoteko, baita Durruti bera kontrakoa esaten agertzen bazen ere. **Inazio Mujika Iraola**  
Bazekien **geldi** -geldirik irauten. **Karlos Zabala**  
Hark jotzen zuenean bere iturburura iristen zen musika, hegan bezala, eta han **geldi** -geldirik betiko bihurtzen. **Felipe Juaristi**  
Baten bat oraindik besoa edo hankak mugitzeko gauza bazen ere, gehienak **geldi** -geldirik zeutzan. **Jokin Muñoz**  
Eta gero hilda imajinatzen dut, geldi- **geldirik**. **Bernardo Atxaga**  
**Geldi** -geldirik, burua eskuen artean, zer zerabilen buruan? **Karlos Zabala**

## 14 *geldi-nahi adlag*

Begia eman zien itsasontziaren tripan eserita, **geldi** -nahi, buru-makur eta esku lakarrak elkarturik zeuden zamaketariei. **Felipe Juaristi**

## 15 *kamera geldian (3 esaldi; 3 liburutan; ETCn 42 agerraldi)* ik *geldo 7*.

Soineko zuri hegalariz niregana zatoz beso zabalik, **kamera geldian**. **Iñaki Zabaleta**  
Arnasa hartu ere **kamera geldian** bezala egiten zuen. **Joxe Austin Arrieta**  
**Kamera geldiko** irudietan. **Joseba Sarrionandia**

## 16 *ur geldi (ETCn 168 agerraldi)*

Lakuaren **ur geldietan**. **Joan Mari Irigoien**  
Urak dituen edo ez dituen mineralek, uraren sakontasuna txiki ala handiak, **ur geldia** ala dabilena izateak. **Koro Navarro**  
Leku zoragarria, **ur geldiak**, hondartza zabalak. **Jon Muñoz**  
Bihurgune baten **ur geldian** errotua dagoen ihi flokari so egon naiz aski luzaz. **Piarres Aintziart**  
Uhin zirkular mugagabek mugitzen da, **ur geldian** harri bat botatzen denean gertatzen denaren antzera. **Santiago Iruretagoiena**  
Metro eskaseko **ur gelditan** itoa. **Hasier Etxebarria**  
Zirrikitu bat, eraikinaren aurrealdeko teilatutik abiatzen eta horman behera sigi-saga jarraituz urmaeleko **ur geldietan** galtzen zena. **Koro Navarro**  
**Ur geldizko** osin batean hantxe itotzeko eroriko banintz bezala. **Josu Zabaleta**  
Bazen leku hartan kirats gozo melenga bat, lokatzak eta **ur geldiak** baino areagoko zerbaitek eragindakoa behar zuena. **Mirentxu Larrañaga**  
Zainetako odola **ur geldi** bihurtu zaiola ematen du. **Berria - Kultura**  
- Memoriaren **ur geldi** baldarreko irudi urrunak joan zitzaizkion pixkanaka aktibatuz. **Aritz Gorrotxategi**  
- Beheraxago ikusia dut erreka, urte osoan ura dariola, guneka harri lauzak moteldurik **urgelditxo** bilakatzen delarik xirripa, xoriak mokoa sar dezan egarri. **Piarres Aintziart**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agerian **geldi** (4); airean **geldi** (8); artean **geldi** (5); aurrean **geldi** (4); baina **geldi** (11); baina hortan **geldi** (9); bat bezain **geldi** (4); bat **geldi** (5); batean **geldi** (10); batez **geldi** (7); batzuk **geldi** (4); begira **geldi** (5); behera **geldi** (6); berean **geldi** (4); bertan behera **geldi** (6); bertan **geldi** (5); beti **geldi** (4); bezain **geldi** (18); da **geldi** (4); dago **geldi** (4); dena **geldi** (5); denak **geldi** (4); edo **geldi** (4); egon **geldi** (15); egon zen **geldi** (4); egunez **geldi** (4); eguzkia **geldi** (4); erabat **geldi** (6); ere **geldi** (17); esku **geldi** (5); eta **geldi** (90); eta **geldi** egon (5); eta **geldi** egoteko (4); eta **geldi** **geldi** (20); eta **geldi** **geldirik** (12); eta **geldi** geratu (7); eta hortan **geldi** (4); etxean **geldi**

(4); ez **geldi** (6); ezin **geldi** (4); gabe **geldi** (8); garbi **geldi** (6)

**geldi bat** (14); **geldi baten** (4); **geldi dago** (16); **geldi dagoen** (13); **geldi egon** (69); **geldi egon behar** (5); **geldi egon beharko** (4); **geldi egon ezin** (4); **geldi egon ezinik** (5); **geldi egon nintzen** (4); **geldi egon zen** (6); **geldi egon ziren** (6); **geldi egongo** (5); **geldi egotea** (4); **geldi egoteko** (17); **geldi egoteko agindu** (4); **geldi egoten** (7); **geldi esku** (5); **geldi eta** (55); **geldi eta isilik** (7); **geldi eta mutu** (4); **geldi geldi** (188); **geldi geldi dago** (7); **geldi geldi egon** (9); **geldi geldi eta** (8); **geldi geldi geratu** (42); **geldi geldi geratzen** (5); **geldi geldi zegoen** (13); **geldi geldia** (20); **geldi geldirik** (104); **geldi geldirik egon** (5); **geldi geldirik geratu** (15); **geldi geldirik zegoen** (10); **geldi geratu** (115); **geldi geratu da** (4); **geldi geratu nintzen** (12); **geldi geratu zen** (70); **geldi geratu ziren** (14); **geldi geratzen** (17); **geldi geratzen zen** (5); **geldi hadi** (14); **geldi hemen** (4); **geldi hor** (33); **geldi lotu** (8); **geldi zegoela** (6); **geldi zegoen** (31); **geldi zeuden** (6); **hago geldi** (4); **hain geldi** (4); **han geldi** (10); **hantxe geldi** (13); **harry geldi** (6); **hor geldi** (6); **hori geldi** (4); **hortan geldi** (26); **hortxe geldi** (7); **hura geldi** (5); **isilik eta geldi** (5); **kanpo geldi** (5); **naiz geldi** (6); **ondoan geldi** (4); **proiektua geldi** (4); **zaude geldi** (5); **zegoen geldi** (7); **zen geldi** (14); **ziren geldi** (4); **zutik eta geldi** (5)

**airean geldia** (5); **baino geldiago** (13); **eta geldia** (5); **geldi geldia** (20); **geldia eta** (4); **geldia zen** (4); **haria baino geldiago** (5); **ur geldia** (5); **ur geldiak** (5); **ur geldietan** (7)

## geldiagotu, geldiago(tu), geldiagotzen du *ad* geldiago bihurtu.

Hura zeraman mandoraino iritsi zenean, eskua mandoaren bizkarrean jarri eta pausoa **geldiagotu** zuen. Josu Zabaleta

Hamar mila metroko eskalan denbora **geldiagotu** bezala egiten da, ez baitago mugimendurik. Josu Zabaleta

[Autoa] **geldiagotu** eta leku bat aurkitzen dut. Koro Navarro

Hurbilagotu ahala, moteldu egin zitzaion urratsa; monumentuak, bere masaren poderioz, ibilia **geldiagotuko** balio bezala. Jon Muñoz

## geldialdi 1 iz zerbaiz gelditzen den aldia. (ibilaldietan eta kidekoetan)

Beharturiko **geldialdi** horiek ez zuten Mikel Strogoff biziki poztzen. Karlos Zabala

**Geldialdia:** 20 minutu. Joxe Austin Arrieta

**Geldialdia** hamaika ordukoa da eta hemen gaude Gorria eta biok, ukondoa karelean jarrita. Joseba Sarrionandia

Bost minutuko **geldialdi** bat, bide bazterrean. Piarres Aintziart

Bost metrotik bost metrora **geldialdiak** eginez. Iñaki Iñurrieta

Zer dela eta ez den Donostiako **geldialdia** egin. Edorta Jimenez

Lehen **geldialdia**, Louren etxea. Koro Navarro

Hurrengo **geldialdia**, berriz, Bergaran egin zuen, bazkaltzeko. Bernardo Atxaga

Autobusaren **geldialdi** bakoitzak. Urtzi Urrutikoeetxea

Bi kazetariel, aldiz, egokia iruditu zitzaion Ixinen **geldialdia** egitea, eta beren ibilgailua posta etxean gordearazi zuten. Karlos Zabala

Ibilaldian zehar oso ondo hartu gaituzte, batez ere egin ditugun **geldialdietan**. Berria - Euskal Herria

Indarrak berritzeko **geldialdi** luze bat egin ondoren. Karlos Zabala

Gerxeago, baina, **geldialdia** luzatzen zela ikusita, trenetik jaitsi eta familia alai harekin bildu nintzen. Alberto Ladron Arana

Hura ere gehiago izutzen zuen **geldialdiak** ekaitzaldiak baino. Felipe Juaristi

Uztailaren erditik eta abotzuaren erditsuraino, izerdia **geldi**-aldian izaten da. Pello Zabala

## 2 (lanean, jardueran)

Hainbat langilek lan **geldialdiak** eskatu dituzte osasun arazoak argudiatuta. Berria - Euskal Herria

Borroka Eguna dela eta, **geldialdiak** izango dira ikastetxeetan. Berria - Euskal Herria

Donostiako Usandizaga institutuan 15 minutuko **geldialdia**. Berria - Euskal Herria

Azaroaren 24tik aurrera egunero bi orduko **geldialdiak** egiten hasi ginen [Ambulancias de Gipuzkoako langileek]. Berria - Ekonomia

**Geldialdia** egin duten ikastetxeen artean, Getxo, Eibar, Elgoibar, [...]. Berria - Euskal Herria

**Tabernarien** geldialdia. Berria - Euskal Herria

Legebiltzarrak, berriz, udan **geldialdia** egiten du. Berria - Euskal Herria

Halaber, udako **geldialdiaren** ostean, datozen hilabeteak Euskal Herriaren etorkizunean «erabakigarriak» izango direla aurreratu zuen. Berria - Euskal Herria

Ulertezina litzateke **geldialdi** biologikoa egitea eta beita bizia ez debekatzea. Berria - Harian

Hilaren 12a eta 14a artean, urteroko **geldialdia** egin zuten seigarren erreaktorean. Berria - Gaiak

Irailean, ETAK su-etena iragarri zuenean, nolabaiteko **geldialdia** izan zuten polizia operazioek. Berria - Harian

Azken hiruhilekoan **geldialdi** nabarmena izan dute guztiek, eta bereziki bi motorrek: Frantzia eta Alemania %0,1 baizik ez dira hazi uztailetik irailera. Berria - Ekonomia

Hiru urtez atzeraldian edo **geldialdian** izan ondoren, 2004an bizkortzen ari da Alemaniako ekonomiaren hazkuntza. Berria - Ekonomia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken geldialdia (4); bi geldialdi (3); dezadan geldialdi bat (3); egin dezadan geldialdi (3); eta geldialdi (6); eta geldialdiak (5); geldialdi bakoitzean (5); geldialdi bat (54); geldialdi bat egin (25); geldialdi bat egingo (3); geldialdi bat egiten (4); geldialdi biologikoa (3); geldialdi egin (4); geldialdi eta (3); geldialdi labor (3); geldialdi luze (3); geldialdi luzea (4); geldialdi politikoa (3); geldialdi txiki (3); geldialdia egin (27); geldialdia egin zuten (7); geldialdia egingo (5); geldialdia egitea (5); geldialdia egiten (4); geldialdia egiten du (3); geldialdia izan (3); geldialdiak deitu (3); geldialdiak egin (5); geldialdiak eginez (3); geldialdiak egiten (6); geldialdiak eta (3); geldialdiaren ondoren (5); geldialdiaren ostean (3); geldialdirik egin (7); geldialdirik egin gabe (5); hiru geldialdi (5); lehen geldialdia (5); minutuko geldialdia (3); zuen geldialdia (3)

## geldialdiño iz geldialditxo.

Gito eta gisa hortako ibiltari frango arduraren aldean gaitzen dira baina artetan behar dute nunbait **geldialdiño** bat egin bixtan da. Herria

**Geldialdiño** bat egiten zutela Donibanen. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

geldialdiñ geldialdiñ o bat (5); o bat egin (3)

## geldialditxo iz geldialdi laburra.

Artean aztoraturik, **geldialditxo** bat egitea erabaki nuen arkupeetan zigarro bat erretzen nuen bitartean. Joxemari Iturralde

Zuzenean joaten baikin baserrira, meza entzun bezain laster, Martilunen **geldialditxo** bat eginez betiere. Joan Mari Irigoien

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

geldialditxo bat (6); geldialditxoa egin (3)

## geldiarazi, geldiaraz, geldiarazten (*orobat geldi arazi g.er.*) 1 du *ad* gelditzera behartu. (higitzen ari dena)

**Geldiarazi** egin gaitu bera pasatzeko. Urtzi Urrutikoeetxea

Kalea lurpeko igaribide arabiliz igaro beharrenean gurutzatu zutela eta, poliziak **geldi** arazi zituen. **Edorta Jimenez**

Zerbaitek **geldiarazten** dit eskua. **Julen Gabiria**

Taxi bat **geldiarazi** zuten beraz eta alde zaharrera joan ziren. **Ramuntxo Etxeberri**

Biek elgarrekin geldiarazi dutela Cerebere-tik Parisera zoan treina eta **geldirik** atxiki oren erdi bat. **Herria**

Kamiunak zituzten denak **geldi**- arazten, gero batzu uzten aintzina joaierat. **Herria**

Josuek eguzkia **geldiarazi** zueneko. **Elizen arteko biblia**

Aurpegia zikintzen zion odol jarioa **geldiarazi** ondoren. **Karlos Zabala**

## 2 (aritzen dena)

Police Station delakoaren aparkalekuan motorra **geldiarazi** zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Emilek jauzi egin zuen iratzargailua **geldiarazteko**. **Lopez de Arana**

Baionako poliziak **geldi arazten** du prentsaurrekoa eta 7 militante arrastatzen ditu. **Herria**

Bat-batean, bozen kondaketa **geldi**- arazi du gobernua. **Herria**

Eta hola ziren, euriak partida **geldiarazi** duelarik senpertarrak eta zuraidarrak. **Herria**

Baina herritarrek ezin izan zituzten obrak betiko **geldiarazi**. **Edurne Elizondo**

Operazioak ez du lortu kohete erasoak **geldiaraztea**. **Berria - Mundua**

Jasaiten zuten mesprezioa eta bazterketa **geldiarazteko**. **Herria**

Aurrerantzean pribatizazio politika **geldiarazten** saiatuko dira. **Berria - Ekonomia**

Ez zirudien inbasioa berehalako batean **geldiaraz** zitekeenik. **Karlos Zabala**

Protesta **geldiarazi** nahian. **Berria - Mundua**

Nork **geldiaraziko** gaitu, monopolioaz baliatzen bagara? **Iñaki Iñurrieta**

Eta gobernua kritikatu zituen, kapitalismoaren eromen suntsitzaille hori **geldiarazteko** gai ez zirelako. **Karlos Zabala**

Ez haiz, bada, mundua **geldiarazi** nahi lukeen horietako bat izango? **Anjel Lertxundi**

Ekolaliak hotsak izozten ditu, denbora **geldiarazten** du. **Xabier Olarra**

Izan ere, egia baita bizia **geldiarazi** daitekeela, baina ez, ordea, heriotza. **Pello Salaburu**

Mihia askatuz gero ez zegoen hura **geldiaraziko** zuenik. **Edorta Jimenez**

## 3 -tik geldiarazi -ri utziarazi.

Egun gutiren buruan lanetik **geldiarazi** zituzten, SSeK baitzuten bertze jostetarik eta gainera, lanteri gehienak xehatuak baitziren. **Eneko Bidegain**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

autoa geldiarazi (9); autoa geldiarazi nuen (3); autobus bat geldiarazi (3); bat geldiarazi (30); bat geldiarazi eta (8); bat geldiarazi zuen (11); bat geldiarazi zuten (5); batek geldiarazi (16); batek geldiarazi du (3); batek geldiarazi zuen (4); batez geldiarazi (4); bertan geldiarazi (14); bertan geldiarazi zuen (6); burua geldiarazi (3); denbora geldiarazi (3); eguzkia geldiarazi (3); erabat geldiarazi (3); ere geldiarazi (3); eta geldiarazi (11); ez nau geldiaraziko (3); ez zuen geldiarazi (4); ezin geldiarazi (3); gehiago geldiaraziko (3); geldiaraz daiteke (3); geldiaraz dezan (3); geldiarazi ahal (3); geldiarazi arte (3); geldiarazi behar (23); geldiarazi behar izan (5); geldiarazi beharra (3); geldiarazi ditu (6); geldiarazi du (20); geldiarazi dute (5); geldiarazi egin (32); geldiarazi egin ninduen (3); geldiarazi egin zituen (3); geldiarazi egin zuen (14); geldiarazi egiten (6); geldiarazi ere (4); geldiarazi eta (47); geldiarazi ez (9); geldiarazi gabe (3); geldiarazi nahi (25); geldiarazi nahi izan (6); geldiarazi nahian (3); geldiarazi ninduen (16); geldiarazi nuen (8); geldiarazi ondoren (3); geldiarazi zituen (12); geldiarazi zituzten (23); geldiarazi zuela (3); geldiarazi zuen (75); geldiarazi zuen eta (3); geldiarazi zuten (30); geldiarazia izan (4); geldiarazia izan zen (3); geldiaraziko dituen (3); geldiaraziko duen (4); geldiaraziko zuen (3); geldiaraziko zuenik (3); gerra geldiarazi (3); hantxe geldiarazi (3); hurre geldiarazi (3); hura geldiaraziko (4); ia urtebetez geldiarazi (3); kalean geldiarazi (3); lanak geldiarazi (7); martxa geldiarazi (3); nau geldiaraziko (3); obra geldiarazi (3); parean geldiarazi (5); prozesua geldiarazi (3); taxi bat geldiarazi (5); urtebetez geldiarazi (3); urtebetez geldiarazi zituzten (3); urtegia geldiarazi (3); zerbaitek geldiarazi (4); zuen geldiarazi (4)

bat geldiaraztea (4); batek geldiarazten (4); batek geldiarazten zuen (3); denbora geldiarazten (4); egitasmoa geldiarazteko (3); ekintzak geldiarazteko (3); erasoak geldiarazteko (6); ere geldiarazten (3); ezkontzak geldiarazteko (3); garapena geldiarazteko (3); geldiaraztea da (5); geldiaraztea eskatu (3); geldiaraztea eta (5); geldiaraztea lortu (12); geldiaraztea lortu zuen (3); geldiarazteko agindu (4); geldiarazteko asmoz (6); geldiarazteko eskaera (3); geldiarazteko eskatu (11); geldiarazteko eskatu dio (4); geldiarazteko eta (8); geldiarazteko ezer (3); geldiarazteko gai (8); geldiarazteko gai ez (3); geldiarazteko prest (4); geldiarazten du (8); geldiarazten duen (4); geldiarazten dute (3); geldiarazten eta (5); geldiarazten ez (6); geldiarazten saiatu (7); geldiarazten saiatu ziren (5); geldiarazten saiatuko (3); geldiarazten zuen (7); geldiarazterik ez (5); hau geldiarazteko (3); hori geldiarazteko (10); hura geldiarazteko (3); hura geldiarazten (3); indarkeria geldiaraztea (3); indarkeria geldiarazteko (5); izurria geldiarazteko (4); obrak geldiarazteko (5); proiektua geldiaraztea (3); prozesua geldiarazteko (5); sarraskia geldiarazteko (3)

## geldiezin 1 izond ezin geldituzkoa.

Seiak gertu ziren paretako pendulu **geldiezin**. **Joxemari Urteaga**

Gezi **geldi** ezina, aurretik atzera doana ahapaldi soinudun eta hots handikoetan. **Felipe Juaristi**

Asperduraren gupil **geldiezinak** irentsiko ez bagaitu. **Karlos Linazasoro**

Oihartzun **geldiezinaren** burrunba. **Eneko Bidegain**

Olatu **geldiezin** baten gisan. **Ramon Etxezarreta**

Ke-laino itzelak goratzen ziren handik zurrumbilo **geldiezinetan**. **Agustin Otsoa**

Ibaldia **geldiezin**. **Fernando Morillo**

Gizon txikia, baina bizia, **geldiezina**. **Felipe Juaristi**

Pertsona **geldiezina** izaki. **Joxemari Iturralde**

Aldaketa lasaia baina **geldiezina** da Ipar Euskal Herrian. **Berria - Euskal Herria**

Lurraren berotze **geldiezinaren** aurrean. **Berria - Gaiak**

Salneurrien igoera **geldiezina**. **Berria - Harian**

Armada frantziarra gainbehera **geldiezin** batean amildurik dago. **Berria - Kultura**

Orainaldi menperaezin eta **geldiezin** honetan. **Joseba Sarrionandia**

## • 2 (predikatu gisa)

Gu, **geldiezin**, lauhazka gindoazen ertzeraino, ihesean joandako etsaien artean, eta orbela balitz bezala eraman genituen aurretik. **Agustin Otsoa**

Bizitzaren gauzarik behinenek beren bidetari jarraitzen ziotela, **geldiezin**, gure ahaleginen gainerik. **Juan Kruz Igerabide**

Birgharen distira areagotzen hasi eta izpiak aurrera egin zuen, sua bultzatuz eta gaindituz, **geldiezin**. **Joanes Urkixo**

## 3 geldiezinako izlag

Nolabaiteko **geldi** ezineko abiadaz eta zurruntasunez. **Xabier Olarra**

Sobiet Batasuneko Armadak, bere **geldiezin**ko ibilaldian berreskuratutako herrietan [...]. **Felipe Juaristi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina geldiezina (4); baina geldiezina da (3); eta geldiezin (3); eta geldiezina (4); geldiezin baten (3); geldiezin hori (3); geldiezina da (19); geldiezina dela (10); geldiezina den (3); geldiezina eta (6); geldiezina izango (3); ia geldiezina (3); lasaia baina geldiezina (3); prozesua geldiezina (5); prozesua geldiezina dela (3)

## geldiezinki adlag gelditu ezinik.



Izan ere, giza arrazoimena **geldiezinki** doa bere premia propioak bultzatuta. **Ibon Uribarri**

## geldigabe 1 *adlag* gelditu gabe.

Atergabe eta **geldigabe** erretzen zuen, tximinia bat iduri, edo tabako-hautsa sudurreratzten zuen, bertzerik ezean. **Joan Mari Irigoien**

Telebistan **geldigabe** agertzen zen lehendakariaren anderearen kolore bereko jantzira. **Itxaro Borda**

### • 2 *izond*

Neke **geldigabea**, neke bukaezina, neke infinitua. **Lourdes Oñederra**

### 3 *geldigabeko izlag*

Auto baten alarma [...] **geldigabeko** uluan ari zen. **Iñaki Zabaleta**

## geldigaitz *izond* 1 ia geldiezina.

Teilatuen artekin hegalaldi **geldigaitzean** zebiltzan kalatxori, kurloi eta enarei. itsasoko ur **geldigaitz**, erasokor, olatuen hazilaria. **Joseba Sarrionandia**

Denboraren ihes **geldigaitz** eta gupidagabearen aurrean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Trumilka datozkizu oroitzenak, gertakizun tamalgarrien segida **geldigaitza**. **Xabier Montoia**

Alferrekoa eta hutsa da Egiptoren laguntza; horregatik, izen hau jarri diot: "**Geldigaitza** mugiezin". **Elizen arteko biblia**

### 2 (adizlagun gisa)

Hala ibili nahi izaiten nuen nik harat eta honat, itsasotik itsasorat eta portu batetik bertzerat, **geldigaitz** eta ekurugaitz. **Joan Mari Irigoien**

**Geldigaitz** ziharduen bere egiteko txikitzailean. **Xabier Montoia**

Gizakien egitekoen aurrean soraio, unibertsoaren makina gaitzak berean jarraitzen du, xuxen-xuxen, **geldigaitz**. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**geldigaitz** eta (3)

## geldigarri *adlag* geldiarazten duena.

Itxaron-min **geldigarri** halako bat jabetu zen nitaz, eta beldur nintzen bihotzaren mailukadek ez ote ninduten bertan gelditzera behartuko. **Eduardo Matauko**

Nahigabe ontologiko eta **geldigarrietara** lerratzen hasia zenean. **Jon Alonso**

## geldigor *izond* geldigaitza.

Izan ere, kartzelak edozein gizaki samintzen du, eta are gehiago Sade bezalako pertsonaia **geldigor**, ekintzaile, sutsu eta matxino bat. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Etxe hutseko tristura parabolikoa, erorkorra [...] **geldigorra**. **Iñaki Segurola**

## geldigune (*ETCn 25 agerraldi; orobat geldi gune ETCn 5 agerraldi*) iz gelditzeko gunea.

Genoak orduan Sevilla aldera egin zuen, bi Mediterraneoen arteko **geldigunea** baitzen hura ere, italiarrek merkataritza eta finantzagune bihurtua. **Koro Navarro**

Hori bera izan zela Baionatik Donibane Garazirako erromano bidearen **geldiguneetarik** bat. **Herria**

Prezioaz gain ardietsi ditu ere hiru **geldi** gune berri Angelun eta bat Hiriburun. **Herria**

Ametsezko **geldiguneetarantz** doaz bide eginez, **Josu Zabaleta**

## geldika

### 1 *geldikako izlag*

Recreativoren arriskua **geldikako** jokaldietan. **Berria - Kirola**

Hamar baloi galdu zituen **geldikako** jokaldietan. **Berria - Kirola**

**Geldikako** erasoan zer moduz ari garen ez dakigu oraindik, ordea. **Berria - Kirola**

Eta gola, nola ez? **geldikako** jaurtiketa baten ondorioz iritsi zen. **Berria - Kirola**

### 2 *geldika-geldika adlag*

**Geldika-geldika** ahultzen. **Markos Zapiain**

Txikitan ulergaitza zitzaidan gizaki mota baten berri eman dit **geldika-geldika** eskarmentuak. **Markos Zapiain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **geldikako** (8); eta **geldikako jokaldietan** (4); **geldikako jokaldi** (10); **geldikako jokaldi batean** (5); **geldikako jokaldiak** (3); **geldikako jokaldietan** (36); **geldikako jokaldietan ere** (3); **geldikako jokoan** (7)

## geldikeria iz gelditasun gaitzesgarria.

NBEren **geldikeria** ere salatu zuen Kabilak. **Berria - Mundua**

Eta **geldikeria** berbera orotan. **Txillardegi**

Herri batzordeen bidez jendea mobilizatu eta **geldikeriatik** atera zuen. **Berria - Mundua**

**Geldikeria** da nagusi agintarien artean. **Berria - Gaiak**

## geldiketa (*87 agerraldi, liburu 1 eta 69 artikulutan; ETCn 911 agerraldi*) 1 iz gelditzea.

**Geldiketa** hauek ekitaldiaren dinamika apurtu zuten, nire ustez. **Berria - Kultura**

Bihotz-**geldiketa** diagnostikatu zioan. **Aingeru Epaltza**

### 2 (atezainak futbolearen eta kidekoetan) ik gelditu 7.

**Geldiketa** zailak egin zituen Realeko atezainak. **Berria - Kirola**

Riverok sekulako **geldiketak** egin zituelako lehen zati horretan. Berria - Kirola

**Hirugarrenean** geldiketa ona egin zuen Aranzubiak. Berria - Kirola

Zaleak **geldiketa** ikusgarriak txalotzen ditu, baina ez ordea erdiraketak gelditzea. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**atezainak geldiketa** (4); **eta geldiketa** (3); **geldiketa bikaina egin** (3); **geldiketa egin** (12); **geldiketa egin zioten** (8); **geldiketa ona egin** (3); **geldiketa onak egin** (4); **geldiketak egin** (5); **geldiketei esker** (5); **sekulako geldiketak egin** (3)

## geldikor *izond* gelditzeko joera duena.

Denborari, beraz, iragangaitza eta **geldikorra** izaki, izatean iragangaitza dena dagokio agerpenean. Ibon Uribarri

Aldatzen den guztia, beraz, **geldikorra** da, bere egoera besterik ez da aldatzen. Ibon Uribarri

Begiespen egonkorra eta **geldikorra**. Ibon Uribarri

Dena jariakorra dela eta munduan iraunkorra eta **geldikorra** den ezer ez dagoela. Ibon Uribarri

Erlijio nagusi bat, aldi baterako kultur giroaren markarekin gehiegi identifikatzen uzten badio bere buruari, **geldikor** eta lurrari lotua geratuko da seguru. Iñaki Mendiguren

**Geldikorrago**, hau bai, bainu-arropa arinetan agertzen ziren modeloen edo artisten orrialdeetan. Txillardegi

Itun zaharreko **Genesis**-eko hiru pasarteak. [Berria - Kultura](#)

TAMAR alargunaren narrazio liburra **Genesi** liburuan txertatua dago. [Jose Antonio Mujika](#)

## genesiako *izond* genesiari dagokiona.

Liburuaren indar **genesiakoak** hainbat lagunen gogoia, ekin nahia, jarri zuen arian. [Iñaki Iñurrieta](#)

## genetika *iz* 1 biologiaren adarra, geneak eta ondoretasunaren legeak aztertzen dituen.

Urte batzuetan, ondoretasunaren ezaugarri nagusiak argiratu ziren, **genetikaren** "legeak" izango zirenak. [Juan Garzia](#)

Apurka-apurka joan ziren ondut **genetika** klasikoaren eta mekanika kromosomatikoaren legeak. [Juan Garzia](#)

Darwinen teoria eta Mendelen **genetikaren** elkartzea ez zen inola ere gozoa izan. [Askoren artean](#)

Konturaturik mundu biziaren bihotz-bihotzean **genetikari** zegozkion auziak zeudela, biologia berri bat asmatu zuten. [Juan Garzia](#)

**Genetika** molekularren bidezko azterketa. [Juan Garzia](#)

Orainsuago, eredu kimiko hori zabaldu egin da fisika eta **genetikako** ideiak bereganaturik, eta biologia molekularra deritzon zientzia berria sortu da. [Irene Aldasoro](#)

Beste inork erabiltzen ez zituen **genetikako** liburu haietakoren bat. [Ramon Saizarbitoria](#)

**Genetikaren** loteria eskuzabalegia izan zen berarekin, eta zenbaki irabazle guztiak egokitu zitzaizkion. [Oskar Arana](#)

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **genetiko**.

Eredutzat balia zitezkeen **genetika**-, fisiologia-, patologia-azterketak egiteko. [Juan Garzia](#)

**Genetika**-ezaguera handi samar bat. [Juan Garzia](#)

Mundu osoko **genetika** -laborategi guztiak itxeko. [Juan Garzia](#)

Setio eta eraso latzean oldartu zen Lyssenko sobietar **genetika** -eskola ordura arte bikain askoaren aurka. [Juan Garzia](#)

Ez ginela txanpon beraren bi aldeak, baizik eta **genetika** -zientzia oroahaldunaren anaia bikiak. [Eider Rodriguez](#)

Ruben Lisker **genetika** adituaren arabera arazoa zera da: [...]. [Berria - Gaiak](#)

**Genetika** aldetik desberdinak gara, inguru kultural desberdina daukagu. [Luis Elberdin](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Miodrag Stojkovic Newscastleko Unibertsitateko Giza **Genetikaren** Institutuko irakaslea. [Berria - Gaiak](#)

Harrezkero, zabalik zeukan bidea giza **genetikak** . [Juan Garzia](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da **genetika** (3); **ehuko genetika** (6); **ehuko genetika irakaslea** (3); **eta genetika** (7); **eta genetikaren** (6); **genetika adituaren** (3); **genetika aldetik** (5); **genetika ez** (3); **genetika irakaslea** (8); **genetika irakasleak** (7); **genetika irakasleak ere** (3); **genetika molekularren** (3); **genetikaren alorrean** (4); **giza genetikaren** (6); **herriko unibertsitateko genetika** (5); **unibertsitateko genetika** (5); **zuen genetika** (3)

## genetikalari (*orobat genetikari*) *iz* genetikan aritzen den biologilaria.

Haien artean Beñat Oihartzabal eta Jon Landaburu, euskaldunak, **genetikalari** bat eta antropologo bat. [Herria](#)

Alec Jeffreys **genetikalariak** esan zuenean kriminalak eta delinkuenteak gene egituraren bidez identifika litezkeela. [Pello Salaburu](#)

Bertze gaietan, Ana Maria Cobo **genetikariarekin** elkarrizketa. [Herria](#)

## genetiko 1 *izond* ondoretasunari edo genei dagokiena. ik **gene 2; genetika 2**.

Biologia molekularrak agerian jarri zuen zelularen funtzionamendua gobernatzen duten sistema **genetikoan** eta oinarriko mekanismoen batasuna. [Juan Garzia](#)

Organismoaren funtzio nagusien oinarri **genetikoak** aztertzeko. [Juan Garzia](#)

Ingeniaritza **genetikoak** gaitu gintuenean edozein organismoren material **genetikora** iristeko. [Juan Garzia](#)

Ezagutza zientifikoaren ezaugarri **genetikoan** eta eboluziozkoen ulerkuntza egokiagoa. [Askoren artean](#)

Euskaldunen berezitasun **genetikoak** : aplikazioak eta hizkuntzarekiko balizko loturak. [Herria](#)

Analisi **genetiko** erabiliz giza baten DNAren informazioa aztertzen da. **Juan Garzia**

Animalien eta landareen ondoretasunari buruz analisi **genetikoak**. **Juan Garzia**

Drosofilaren azterketa **genetikoak**. **Juan Garzia**

Autismoan eragile **genetikoak**. **Xabier Olarra**

Urte berean hasi ziren identifikazio **genetikoak** egiten. **Pello Salaburu**

Delitugileen profil **genetikoak**. **Berria - Gaiak**

Informazio **genetikoak** organismo batzuetatik besteetara pasatzeko ahalaginak egiten ari ziren. **Pello Salaburu**

Marka **genetikoak** duela 20 urte aurkitu zituzten. **Berria - Gaiak**

Mukobisidosa eritasun **genetiko** bat da eta Frantzia bi milioi jendeke jone hori dakarte. **Herria**

Aldaera **genetikoak** ikertzen ari ziren, era horretan gaixotasun **genetikoak** jarraipena egin ahal izateko. **Berria - Gaiak**

Hierarkia **genetikoaren** mailaren batean. **Juan Garzia**

Ez dakigu oraindik zer eragin zehatz duen matxura **genetikoak**. **Juan Garzia**

Hasiak gara joeron osagai **genetikoak** zehazten. **Juan Garzia**

Zenbait bikoteri ugaltzeko ideia burutik kentzeko, "aholku **genetiko**" delakoa. **Juan Garzia**

Banakoari bere balio **genetikoak** ematen diona. **Juan Garzia**

Gaitz **genetiko** larriak saihesteko. **Berria - Gaiak**

Eritasun **genetiko** bat tratatzeko, gene akastunaren lekuan haren bertsio funtzionala ipintzea gaixoari. **Juan Garzia**

Determinismo **genetikoaren** alderdi sistematikoak liluraturik. **Karlos Zabala**

Gizadiaren ondare **genetikoarekin** ari gara hor. **Juan Garzia**

Kode **genetikoak** dezifratzea. **Juan Garzia**

Kate **genetikoaren** deskribapenak osasun ikerketen ekarriko dien onuraz. **Anjel Lertxundi**

Gizakiok beti egin izan dugu aukeraketa **genetikoak** abereekin. **Berria - Gaiak**

Elementu **genetikoak** hierarkia batek gobernatzen du, bada, eularen garapena. **Juan Garzia**

Guraso **genetikoak** nor diren jakiteko aukera izango dute 18 urtez gorakoek. **Berria - Gaiak**

## 2 geniari dagokiona.

Ezagutza zientifikoaren ezaugarri **genetikoak** eta eboluziozkoen ulerkuntza egokiagoa. **Askoren artean**

## 3 *terapia genetiko* gene terapia.

Etorkizun batean kirolariak gen aldaketa horretan oinarritutako **terapia genetiko** bat egin ahal izango dutela uste dute zientzialariek. **Berria - Gaiak**

**Terapia genetiko** bat baliatuz, tximinoen bizimodua aldatzea lortu du Estatu Batuetako zientzialari talde batek. **Berria - Gaiak**

Lodi dauden edo ariketak egiteko arazoak dituzten pertsonen **terapia genetiko** horren onuraz baliatu ahal izango dira. **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aldaera genetiko** (12); **aldaera genetiko bat** (3); **aldaketa genetiko** (6); **bi aldaera genetiko** (3); **eritasun genetiko** (6); **ezaugarri genetiko** (6); **gaitz genetiko** (4); **gaixotasun genetiko** (11); **gaixotasun genetiko larriren** (3); **genetiko bat** (21); **genetiko batek** (4); **genetiko baten** (3); **genetiko batzuk** (3); **genetiko gehiago** (3); **genetiko hori** (9); **genetiko horrek** (4); **genetiko horren** (4); **genetiko larriren** (3); **genetiko larriren bat** (3); **haurrak gaixotasun genetiko** (3); **mutazio genetiko** (7); **mutazio genetiko hori** (3); **osagai genetiko** (4); **osagai genetiko bat** (3); **terapia genetiko** (4)

**analisi genetikoak** (4); **aukeraketa genetikoak** (3); **aurreko diagnostiko genetikoak** (5); **aurretiko diagnostiko genetikoak** (3); **azterketa genetikoak** (8); **azterketa genetikoak egiten** (3); **diagnostiko genetikoak** (9); **diagnostiko genetikoak egiteko** (3); **eta informazio genetikoak** (3); **gaixotasun genetikoak** (3); **genetikoak aztertu** (3); **genetikoak dela** (4); **genetikoak egitea** (4); **genetikoak egiteko** (5); **genetikoak egiten** (3); **genetikoak ere** (3); **genetikoak eta** (4); **herentzia genetikoak** (3); **informazio genetikoak** (13); **ingeniaritza genetikoak** (9); **jatorri genetikoak** (4); **karga genetikoak** (3); **kode genetikoak** (6); **mapa genetikoak** (3); **material genetikoak** (11)

**aldaketa genetikoak** (3); **analisi genetikoak** (5); **analisi genetikoak egin** (3); **azterketa genetikoak** (3); **baliabide genetikoak** (3); **datu genetikoak** (6); **diagnostiko genetikoak** (3); **ezaugarri genetikoak** (18); **faktore genetikoak** (6); **gaixotasun genetikoak** (3); **genetikoak aurkitu** (4); **genetikoak egin** (4); **genetikoak ere** (3); **genetikoak eta** (4); **genetikoak ez** (3); **genetikoak ezagutzeko** (4); **guraso genetikoak** (4); **ikerketa genetikoak** (4); **ingeniaritza genetikoak** (9); **marka genetikoak** (7); **mutazio genetikoak** (4)

**akats genetikoak** (3); **akats genetikoak bat** (3); **azterketa genetikoak** (3); **baliabide genetikoak** (4); **ezaugarri genetikoak** (4); **ezaugarri genetikoak oinarritutako** (3); **genetikoak eta** (3); **genetikoak oinarritutako** (3); **genetikoak bat** (5); **informazio genetikoak** (4); **ingeniaritza genetikoak** (8); **ingeniaritza genetikoak** (3); **kode genetikoak** (4); **material genetikoarekin** (3)

## genetikoki *adlag* ondoretasunaren edo geneen arabera.

**Genetikoki** oso antzeko diren banakoz osaturiko populazio bat. **Juan Garzia**

Gizaki bakoitzak **genetikoki** bere baitan darama giza espeziea, eta **genetikoki** moldatzen du bere singularitasun anatomiko eta fisiologikoa. **Askoren artean**

Gure jatorria **genetikoki** beti bitan banatzen bada. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Genetikoki**, heterogeneoa da autismoa: batzuetan menderatzailea, beste batzuetan errezesiboa. **Xabier Olarra**

Artoa **genetikoki** eraldatzea galaraztea. **Berria - Gaiak**

Begira edo hunkira besteak bezalako produktuak dira, ez dira ekoizpen **genetikoki** aldatuak. **Herria**

Lagunduriko ernalkuntza, giza klonazioa, **genetikoki** eraldatutako elikagaiak. **Berria - Gaiak**

**Genetikoki** moldatutako lehen produktua 1983an sortu zuten. **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da genetikoak moldatutako** (3); **eta genetikoak** (3); **genetikoak aldatutako** (7); **genetikoki eraldatuta** (3); **genetikoki eraldatutako** (47); **genetikoki eraldatutako arto** (3); **genetikoki eraldatutako organismoak** (3); **genetikoki eraldatutako produktuak** (5); **genetikoki eraldatutako produktuen** (3); **genetikoki moldatutako** (32); **genetikoki moldatutako landareak** (4); **genetikoki moldatutako produktuak** (4); **genetikoki moldatutako produktuek** (4); **genetikoki moldatutako produktuen** (3)

## genetista *iz* genetikalaria.

**Genetistek** bizitza-forma berriak kontrolatzen dituzte. **Txema Ramirez de la Piscina**

"Euli batek nola funtzionatzen duen ulertu", horixe izan da **genetisten** irrika mende honetan guztian zehar. **Juan Garzia**

Txekiar Akademiak mundu guztiko **genetista** -jendea gonbidatu du elkarretaratze batera. **Juan Garzia**

Ehun bat iparramerikar **genetista**. **Juan Garzia**

Maltzurtasunik eta pazientziarik ez dute inoiz falta izan euli-**genetistek**. **Juan Garzia**

Alemaniko giza **genetistak** hoberena. **Juan Garzia**

## genetialogia *iz*

Haiak sortutakoa baita **genetialogiaren** zientzia, zeinaren bitartez gai izaten baitira, astroetan oinarritutako kalkuluak erabiliz, iraganeko eta etorkizuneko gertakizunak esplikatzeko. **Santiago Iruretagoiena**

Zeinak [Atenodorok] jaiotzako datan ez baizik eta sortze-datan oinarritutako **genetialogiaren** metodoak utzi baitzizkigun esplikatuta. **Santiago Iruretagoiena**

## geniko 1 *izond* geneari edo geneei dagokiena. ik **gene 2**.

Aldiz, posible da, teknika horren bitartez, karaktere **geniko** berri bat gehitzea. Juan Garzia

Bizitza aldatzeko gai izango gara, ingeniariatza **genikoari** esker. Pello Salaburu

## 2 *terapia geniko* ik **gene 5**.

Neurozientzien eta **terapia genikoan** eta hepatologiaren arloetan. Berria - Euskal Herria

**Terapia genikoaren** eskutik etortzekoa da, noski, zenbait ondoretasun-gaitz nahiz minbiziren konponbidea. Juan Garzia

Ea posible izango den, **terapia genikoz**, Duchesne-ren miopatiak edo mukobiszidosiak jota dagoen gaixoa sendatzea. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**terapia genikoa** (3); **terapia genikoaren** (3)

## genio ik **jenio**.

## genital 1 *izond* ernalkinena, ernalkinei dagokiena.

Gorputzaren alde **genitalak**. Xabier Amuriza

Gero lohadar lasatuetaatik gorputzean zehar hazi **genitala** nondik erion eduki behar da. Xabier Amuriza

Erraboilek, ezpain **genitalek**, baginako sarrerak eta klitoriaren glandeak, zurtoinak eta zuztarrek "banatu ezinezko osotasun funtzionala" osatzen zutela. Luis Elberdin

Gihar **genitalak**. Luis Elberdin

Are milioika neskatok jasan behar izatea erdaintza feminino edo mozketak **genitala**. **Joxe Azurmendi**

Sadek anatomia eta fisiologia **genitala** azaltzen ditu, eta beti plazerarekin lotuz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Anatomia **genitalak** berak behartzen gaitu. Luis Elberdin

### • 2 *iz pl* ernalkinak.

Biluzik ibiliz gero, abere batek **genitalak** jango zizkiela esaten zien Baumerek umeei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Genitaletatik** burmuinera eta burmuinetik **genitaletara**. Luis Elberdin

Alaba gelara eraman, biluzarazi eta «ukituak» egiten zizkion **genitaleetan**. Berria - Euskal Herria

Lagunaren **genitalak** miatzatzea. Luis Elberdin

Besapeetan eta **genitalen** aldean. Irene Aldasoro

Emakumearen **Genitalen** mutilazioaren Kontrako Protokoloa aplikatu zaio. Berria - Gaiak

**Genitalik** erakutsi nahi ez bada horrela ere egin daitekeela. Xabier Mendiguren Elizegi

**Genitaletako** feromonak oso azkar aktibatzen dira eta berehala erreakzionatzen dute. Luis Elberdin

Txinpantze emeek, adibidez, **genitalak** igurzten dizkiote elkarri, batez ere klitoria, harik eta orgasmora iritsi arte. Luis Elberdin

**Genital** maskulinoak dituzten pertsonak, baina emakume sentitzen direnak. Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**anatomia genitala** (10); **emakumearen anatomia genitala** (4); **emakumearen genitalen** (3); **eta genitalak** (3); **genitalak aldatu** (3); **genitalak miatzatzea** (3); **genitalen mutilazioaren** (3)

## genitalitate *iz* sexualitatea.

Freuden teoriaren arabera, hark **genitalitatezko** zentzupean jartzen duen antolamendu psikiko baten mende jartzen dira irrika partzial horiek. Josu Zabaleta

## genitibo *iz* izenaren morfologiaren era edo kasuetako bat, batez ere jabetasuna adierazten duena.

Nominatiboa *qui* **genitiboa** *cuius*, datiboa *cui*. [...]k, berez, "menditik nator" esan nahi du, **genitiboak** ablatiboaren balioa duela. Isabel Arrigain

Nominatibo pluraleraz [...] **genitibo** pluraleraz [...]b da eta abar. Isabel Arrigain

Hemen **genitiboaren** berretzailea zero da. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**genitibo plurala** (3)

## genoar (*ETCn 41 agerraldi; orobat genoatar ETCn 3 agerraldi*) *izlag/iz* Genoakoa, Genoari dagokiona; Genoako herritarra.

Kristobal Kolon **genoatarraren** espedizioa. Koro Navarro

Krimeako **genoar** koloniak. Iñaki Mendiguren

Europaren integrazioak, azkenik, urrats erabakigarria izan zuen gaztelar-**genoar** ontzidiak 1292an Gibraltarko itsasartea hartu zuenean. Koro Navarro

Eta zeina baitzen **genoarra** sortzez. XIV. mende bukaeran, garraiolari ibili zen bere ontziekin, normalean **genoarren** zerbitzuan. Joan Mari Irigoien

Indartu egin zuten Henrike printzearen monarkia, zeina **genoatarrengandik** aldentzen hasia baitzen. Koro Navarro

## genoma *iz* 1 zelula baten kromosoma bikoteen kopurua, espezie bakoitzaren ezaugarria dena.

**Genoman** dago gizaki bakoitzaren gene multzoa. Pello Salaburu

Gene guztiak deskribatu ondoren gizakiaren **genoma** osoa deskribatua geratuko litzatekeelako. Pello Salaburu

Oiloaren **genoma** deskodetu dute. Berria - Gaiak

Nazioarteko zientzialari talde batek *Rhodococcus equi* bakterio patogemoaren **genomaren** sekuentzia aztertuko du. Berria - Gaiak

Artoaren **genoma** erabat aldatzeko. Berria - Kultura

Jakin nahi dugu, adibidez, zer diren **genoma** eraldatua duten landareak eta bere kontsumoak kalteak ekar ote ditzakeen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **genomiko**.

Gizakiaren **genoma** mapa. Pello Salaburu

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zakurrak zakur egiten dituen, hain zuzen ere, zakur- **genoma** delakoa. Askoren artean

Aditzera eman zuenean giza **genoma** atalka identifikatua zuela. Pello Salaburu

Garbi dago giza **genoma** dezifratzeak hainbat arriskualdi ekar ditzakeela ondotik. Juan Garzia

Giza **genoma** aletu edo sekuentziatu zutenetik. Berria - Gaiak

Giza **genomaren** ADN-sekuentziak finkatzeko. Juan Garzia

Gizaki **genomaren** kopia bat. Pello Salaburu

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baten genoma** (6); **eta genoma** (4); **genoma deskodetu** (5); **genoma eta** (4); **genoma osoa** (3); **genomaren mapa** (6); **genomaren partzuergo** (4); **genomaren partzuergo publikoak** (3); **genomari buruzko** (7); **giza genoma** (14); **giza genoma eta** (3); **giza genomak** (10); **giza genomaren** (23); **giza genomaren mapa** (4); **giza genomaren partzuergo** (4); **giza genomari** (5); **giza genomari buruzko** (3); **oilloaren genoma** (3)

## genomiko *izond* genomarena, genomari dagokiona. ik **genoma 2**.

Gero eta nabariago agertzen da prentsan eta komunikabideetan medikuntza **genomikoa** panazea berri gisa. Askoren artean

Farmazia-enpresak informazio **genomikoaren** lehen saltzaile bihurtu nahian. Askoren artean

Bartzelonako [...] Arautze **Genomikoa** Zentroko ikertzailea. Berria - Gaiak

## genoterapia *iz*

Armada eta armamenduarentzat xahutzen den diru parte bat **genoterapietan** baliatuz. Herria

## genotipo *iz* banako bakoitzaren zelula nukleoan dauden geneen multzoa.

Adibidez, espondilartritis ankilosanteak [...] ehun bider inguru aukera gehiago ditu agertzeko **genotipo** jakin bat daukaten subjektuetan besteetan baino. Juan Garzia

Zenbait gertakari aurreikusteko ezina, hala nola gas molekula baten portaera edo sortzeko den bizidun alearen **genotipoa**. Juan Garzia

**Genotipo** jakin batek hainbat ingurutan zer fenotipo-mota emango duen azal daiteke. Askoren artean

Kutsaduraren eragilea 1 **genotipoa** izan beharrean, 2 edo 3koa bada, tratamenduarekin lortzen diren emaitzak ikusgarriak dira. Berria - Euskal Herria

## genozida 1 *izond* genozidioa egiten duena.

Jendea desagerraraztea, bonbardaketak eta taldekako fusilamenduak egitea agindu zituzten jeneral **genozida** haietako gehienak. Berria - Euskal Herria

Zehatzago esanda, Hitlerren aberrazio **genozidak** izan arte inongo kutsurik gabeko hitza zen arraza. Xabier Mendiguren Elizegi

### 2 genozidioari dagokiona. ik **genozidio 2**.

Nafarroako Gobernuak daraman euskararen kontrako "politika **genozida**" salatuz. Herria

Euskararekiko, «politika **genozida**» egitea egotzi zion Gobernuari. Berria - Euskal Herria

### 3 (izen gisa)

Bortxatzaileak, tiranoak, parrizidak, pedofiloak, pederastak, **genozidak**. urtarrila arte Legebiltzarreko kide eta **genozida** handiena izan den Efrain Rios Montten prozesuan.

Karlos Linazasoro

## genozidio 1 *iz* gizarte talde baten suntsiketa sistematiko eta berarizakoa, erlijio, arraza edo politika arrazoiengatik.

Txetxeniako **genozidioaren** aurkako agiriaz eztabaida izango baita. Edorta Jimenez

Nazien **genozidioa** bizi eta idazten jarraitzea erabaki zuen Primo Leviren kasuak. Joxean Agirre

Herri kurduaren **genozidioan** laguntzen. Fernando Rey

**Genozidio** orok hausten du belaunaldien segidaren gaineko egitasuna. Joxan Elosegi

Mende hau izan baita, ez dezagun ahaztu, **genozidioen** mendea. Pello Salaburu

XX. mendeko **genozidio** izigarriak. Piarres Xarriton

Serbiak jazarri zuela Bosnia eta indar serbiarrek **genozidioa** egin zutela Srebrenican. Berria - Harian

Inoiz baino jende gehiago hil da goseak, inoiz baino **genozidio** handiagoak egin dira. Pello Salaburu

Estaturik gabeko herrioi askatasuna ukatzeko estakuru tentelak, erantzukizun larria du azken **genozidioetan**. Markos Zapiain

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **genozida 2**.

**Genozidio** ekintzak aurreikusi eta saihestuko dituen batzorde bat. Berria - Mundua

Eta gogoan erabili dituzte Afrikako herri batzuetan izanek dituzten **genozidio**-hilketak eta ere hango eritasun izurriteak (sida edo hiesa). Herria

Preskribitzen ez duen **genozidio** delitua, berriz, 1992. urtean onartu zela. Berria - Mundua

**Genozidio** krimenik ez dago, legez, jazarritako herriak ez badu bizirauteko eskubide kolektiborik. Berria - Gaiak

Burundiko Armadaren bozeramailearen iritzi, ordea, «gertatutakoa Aintzira Handien eskualdeko tutsien aurkako **genozidio** egitasmoaren jarraipena» da. Berria - Mundua

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskara indarrez desagerraraztea kultur **genozidioa** da. Berria - Harian

Euskaldunok asko dakizue hezkuntzako hizkuntz **genozidioari** buruz, Francoren diktadura garaian eta beste hainbat urtetan jasan duzuelako. Berria - Euskal Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**armeniarren genozidioa** (3); **aurkako genozidioa** (3); **eta genozidioa** (8); **genozidio armeniarra** (4); **genozidio armeniarren** (4); **genozidioa da** (4); **genozidioa egin** (11); **genozidioa egin zuten** (3); **genozidioa egitea** (5); **genozidioa egiten** (4); **genozidioa egiten ari** (3); **genozidioa eta** (8); **genozidioa eta gerra** (3); **genozidioa gertatzen ari** (6); **genozidioa leporatzen** (4); **genozidioak eta** (3); **genozidioan parte** (5); **genozidioen mendea** (4); **krimenak eta genozidioa** (3); **ruandako genozidioaren** (6)

## genozidioka *adlag* "genozidio" esaka.

Ekologistak ordea, ikusi orduko **genozidioka** nituzke. Patziku Perurena

## gentziana *iz* errosta.

## geobiografia *iz* alde geografikoei begiratzan dien biografia.

Geografia historikoa, eta historiaren geografia, politikaren geografia, geografia politikoa, Europaren **geobiografia** eta biogeografia. [Edorta Jimenez](#)

## geodesia *iz* luraren forma eta neurriei buruzko zientzia.

Hori betetzeko, geometria hutsetik atera, eta astronomian, **geodesian** eta geografian sartu beharra dago. [Jon Muñoz](#)

## geodesiko *izond* geodesiari dagokiona.

Erpin **geodesikoaren** gainean eserita, Otsabioko hiru gurutzeen eta bi buzoien ondoan egin genuen mokadu bat. [Juan Luis Zabala](#)

## geodinamika *iz* geologiaren atala, lurrazala aldatzen duten prozesuak aztertzen dituena.

Don Patriciok gure borrokari erreparatu zion eta, **geodinamika** hitza ahoan zintzilik utzirik, bota egin gintuen kasetik. [Joseba Sarrionandia](#)

EHU-ko **geodinamika** saileko irakaslea. [Berria - Harian](#)

Antonio Casas **geodinamika** irakasleak. [Berria - Euskal Herria](#)

**Geodinamikako** katedraduna da. [Berria - Euskal Herria](#)

## geoestazionario *izond* sateliteez eta kideez mintzatuz, Lurrarekin sinkronikoki higitzen dena.

Lurraren inguruan, orbita **geoestazionarioan**, biraka ari diren sateliteek Lurreko puntu finko batekiko posizioa mantentzen dute beti. [Berria - Gaiak](#)

## geoestrategia *iz* arazo geopolitikoei aplikaturiko estrategia.

Blokeen **geoestrategiaren** eta bi sistema politikoen analisi neure kasako bat eginez. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## geoestrategiko *izond* geoestrategiarena, geoestrategiari dagokiona.

Gatazka kolonial bat baino gehiago botere borroka baita India eta Pakistanen artekoa, mapa **geoestrategikoan** nagusitzeko. [Berria - Mundua](#)

Plataforma **geoestrategikoa**. [Berria - Euskal Herria](#)

## geofisika 1 *iz* geologiaren atala, Lurraren alde fisikoa aztertzen duena.

Astronomia, **geofisika**, medikuntza, eta biologia arloko 40tik gora esperimentu egin dituzte. [Berria - Gaiak](#)

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **geofisiko**.

Amerikako **Geofisika** Elkarteko urteroko bilkuran. [Berria - Gaiak](#)

Marokoko **Geofisika** Laborategiak atzo esan zuenez, dagoeneko lurrikararen 70 erreplika inguru izan dira. [Berria - Mundua](#)

Teheran hiriburuko **geofisika** behatokiak Richterren eskala irekian 3,6ko indarra zeukan lur astintze bat hauteman zuen ordu horretan bertan. [Berria - Mundua](#)

Jaume Almera Institutuko **Geofisika** eta Tektonika arloko ikertzaile Josep Gallartek. [Berria - Harian](#)

## geofisikari *iz* geofisikan aditua den pertsona.

**Geofisikari** nuklearra da ogibidez gizona. [Berria - Gaiak](#)

## geofisiko 1 *izond* geofisikari dagokiona.

Eskala handiko esperimentu **geofisiko**. [Berria - Harian](#)

Ia lau urtez, Estudios Guadiana enpresak airetik argazkiak hartu, froga **geofisikoak** enkargatu, eta lau zundaketa egin ditu mendian. [Berria - Kultura](#)

### 2 geofisikaria.

Ustekabe on gutxi emango ditugu hurrengo urteotan geologo eta **geofisikook**. [Berria - Gaiak](#)

## geografia (*orobat jeografia g.er.*) *iz* 1 Lurraren azalean gertatzen diren izadi, biologia eta giza gertakariak aztertzen dituen jakintza.

**Geografia** historikoa, eta historiaren **geografia**, politikaren **geografia, geografia** politikoa. [Edorta Jimenez](#)

**Geografia** personal bat osatzeko asmotan nator. [Edorta Jimenez](#)

**Geografiako** irakasle dugun batek. [Bernardo Atxaga](#)

**Geografiako** klasearen erdian. [Oskar Arana](#)

**Geografiako** azterketan. [Joxerra Garzia](#)

**Geografiako** mapa baten neutraltasuna izatea. [Josu Zabaleta](#)

**Geografia** -Historia lizentzia bat lortu nuen UNEDen bitartez. [Txillardeggi](#)

Frantziako ixtoria, **jeografia**, jakitate naturala. [Herria](#)

Bizkaiko **geografiari** buruzko doktorego tesia amaitzea. [Txillardeggi](#)

### 2 lurraldea.

Harat-honat korritzeko gure **geografia** txikia. [Aingeru Epaltza](#)

Anitz **geografia** ditut nire bizitzan; haurtzaroen bertan, sortzetik, lau eskualdetan hazia izan naiz: Nafarroa Beherea, Baztan, Iruñea, Erribera. [Ana Urkiza](#)

Bihotza mila **geografiatan** zatitu zitzaidan biriken artean. Non duzu **geografia**? [Lander Garro](#)



### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **geografiko**.

**Geografi** esplorazioetan eta zientzi aurkikuntzetan adierazia. **Iñaki Mendiguren**  
Espazio eta **geografia** kokapenen eremu bat izango da. **Xabier Arregi**  
"Ez dute begiek ikusten, buruak ikusten du", irakurri nuen behin Herodote **geografia** aldizkarian. **Bernardo Atxaga**  
**Geografia** liburua ireki genuen. **Joseba Sarrionandia**  
**Geografia** klase haietako batean. **Joseba Sarrionandia**  
Filologia, **Geografia** eta Historia Fakultateko katedraduna. **Berria - Euskal Herria**  
**Espainiako** Geografia Institutuak Itoizko sismikotasuna neurtzeko ikerketa bultzatuko du. **Berria - Euskal Herria**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **geografiak** populazioa aztertzen zuen. eta, zentzu zabalean, geografia historikoa, ekonomikoa, politikoa eta abar hartzen zituen barruan. **Joseba Sarrionandia**  
Hego Amerikari dagokion giza **geografia** eta **geografia** fisikoa islatzen ditu lanak. **Berria - Kultura**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

denbora eta geografia (5); edo geografia (3); espainiako geografia (29); espainiako geografia institutuak (18); espainiako geografia institutuaren (7); eta geografia (24); eta geografia baten (3); eta geografian (4); galduaren geografia (4); gatazkaren geografia (3); geografia baten (4); geografia baten akordu (3); geografia eta (32); geografia eta historia (6); geografia eta historiako (3); geografia historia (3); geografia institutuak (19); geografia institutuak jaso (4); geografia institutuaren (7); geografia institutuaren arabera (4); geografia mallako (3); geografia mailako hizkuntza (3); geografian aldetik (3); geografari buruzko (5); giza geografia (3); gure geografia (5); historia eta geografia (4); historia geografia (6); lagun galduaren geografia (4)

## geografialari iz geografoa.

Ura hain zegoen iluna non Nubiako **geografialariaren** Mare Tenebrarumen kontakizun hura gogorazi baitzidan. **Koro Navarro**

## geografiko izond geografari dagokiona. ik geografia 2.

Europako erdigune **geografikoa** Rigan dagoela. **Edorta Jimenez**  
Determinismo **geografiko** itsu bategatik. **Joxe Azurmendi**  
Eremu **geografikoa**. **Jon Muñoz**  
Baldinkizun **geografiko** eta materialen arabera. **Joxe Azurmendi**  
Hizkuntza bera inguru **geografikoaren** efektua kontsideratzen da; berdin arraza. **Joxe Azurmendi**  
Goera **geografiko**-politikoa. **Iñaki Mendiguren**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

banaketa geografikoa (3); eremu geografiko (3); eremu geografikoa (3); espainiako institutu geografikoak (8); geografiko eta (9); geografikoa da (3); geografikoaren arabera (3); institutu geografikoak (9); polo geografikora (3)

## geografikoki adlag geografian aldetik.

Unibertsalak ziren ez **geografikoki**, psikologikoki baizik. **Iñaki Mendiguren**  
**Geografikoki** nahastutako komunitateak. **Iñaki Mendiguren**  
**Geografikoki** elkarren ondoan ez dauden bi lurraldetan. **Isabel Arrigain**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta geografikoki (4); geografikoki eta (3)

## geografo 1 iz geografian aditua den pertsona.

David Hume sonatua izan zen giza arrazoimenaren **geografo** hauetako bat. **Ibon Uribarri**  
**Geografoarekin** ari da eztabaidan. **Joseba Sarrionandia**  
Klaudio Ptolomeo, **geografoa** eta astronomoa. **Jon Muñoz**

### 2 (izenondo gisa)

Reclus jaun **geografo** hori anarkista seinalatua izan zen. **Iñaki Segurola**

## geologia iz 1 Lurraren historiaz, eraketaz eta egituraz aritzen den jakintza.

Nolanahi ere, olibondoa eta mahatsondoa eguraldiarekin eta **geologiarekin** lotzen ditugu. **Edorta Jimenez**  
Linguistika ebolutiboa **geologiarekin** erka dezakegu. **Isabel Arrigain**  
Zientzia eta Teknologia Fakultateko **Geologiako** katedraduna. **Berria - Euskal Herria**  
Txostenak agerian utzitako arazoak konponbiderik ez duela erran zuen **geologian** doktoreak 1999. urteko irailean. **Eduarne Elizondo**  
**Geologiaz** ez dakit ezertxo ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Bidaian bildutako **geologiako** eta botanikako bildumak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Ameriketako Estatu Batuetako **Geologiako** Jarraipen Zentroaren arabera. **Berria - Mundua**

### 2 hed

Ilargiaren **geologia**: Satelitea nola eratu zen, sumendiak, tektonika eta osaketa kimikoa. **Berria - Gaiak**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **geologiko**.

**Geologia-jardueren** arrastoak. **Berria - Gaiak**  
Ministerio horretako **Geologia** Zerbitzuak. **Eduarne Elizondo**  
Zaragozako Unibertsitateko **Geologia** sailak. **Berria - Euskal Herria**  
Espainiako **Geologia** eta Meatzaritza Institutuak. **Berria - Euskal Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

geologia eta (4); geologia zerbitzuak (3); geologia zerbitzuko (3); gobernuko geologia (4); gobernuko geologia zerbitzuko (3); nafarroako gobernuko geologia (4); unibertsitateko geologia (3)

## geologialari iz geologia.

Tontor baten gainetik paisaia begiratzen ari baldin bagara, ikusmenezko bilaketa ez da berdina izango [...] **geologialariak** bagara, erromatarren garaiko hondakinen zaleak bagara edota nekazariak bagara. **Josu Zabaleta**

## geologiko izond geologiari dagokiona. ik geologia 3.

Tolestura **geologikoak**, sumendien erupzioak, glaziazioak, denetik gertatu da ordutik honako denbora bitartean. **Joseba Sarrionandia**

Kanoiaren ezaugarri **geologikoak**. **Xabier Olarra**

Lurraren historia **geologikoan** garai berri bat izendatu dute: **Ediakariko**. **Berria - Gaiak**

Indar tektoniko izugarriek sortutako lurralde **geologiko** eta historiko baztergabe bihurtu zitzaizkidan. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aro geologikoen bereizketa** (3); **ezaugarri geologikoak** (3)

## geologikoki adlag geologiaren aldetik.

Ikusten ez badugu ere, **geologikoki** mendia geruzapen planoz osatuta dago eta jarraitasunik gabekoa da. Argitara agertu ziren hainbat gauzaki familiar, urteetan alferrik bilatuak, eta beste exotiko batzuk, etxebizitzako bazter-zokoetan **geologikoki** lurperatuak. **Juan Garzia**

## geologo iz geologian aditua den pertsona.

Egunero, Karol Schulz **geologoak** emandako harriez askatasunaren irudia egiten zuen, dorre zut bat. **Felipe Juaristi**

**Geologo** frantses eta ingelesak, soldadu alemanak. **Xabier Aranburu**

Wulff (botanikari suediarra) eta Koch (**geologo** daniarra). **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aginduz madrilgo geologo** (4); **antonio casasa geologoak** (5); **espainiako geologo** (3); **eta geologoak** (4); **geologo antonio casasek** (4); **geologo** (3); **geologok** (5); **geologok eta ingeniariak** (4); **geologo** (9); **geologo** (6); **madrilgo geologo** (7); **madrilgo geologo** (4); **zaragozako unibertsitateko geologo** (3)

## geomantiko izond geomantziari dagokiona.

Burdinazko atea kanka zarratu zen ostera porfirizko pasabidean, eta zakur suzkoak **geomantiko** hilezkorra zaintzen hasi ziren. **Juan Garzia**

Sama FloÛd nazkagarriaz erretzen didala **geomantiko** zaharrak esaten duena bat dator, guti goiti-beheiti, A.k bere gerraondoko egunkarian apuntatu zuenarekin. **Koldo Izagirre**

**Geomantiko** eta astrologo talde batek aholkatuta. **Alberto Ladron Arana**

## geomantzia iz lurrean eginiko lerro edo irudiak interpretatuz asmatzeko antzea.

Harreman estua du **geomantzia** eta erradiestesiarekin. **Alberto Ladron Arana**

Baina hildakoaren arnasa sumatzeko **geomantziaren** legeak bezainbeste behar dituzu zeure ikarak ezagutu, pultsioen kodea interpretatzen jakin. **Koldo Izagirre**

Orduan bururatu zitzaion harearen gainean **geomantziako** figura bat marraztea. **Juan Garzia**

Berehala bete zen **geomantziako** iragarpen iluna. **Juan Garzia**

## geometra iz geometrian aditua den pertsona.

**Geometrek** esan bezala, definizioak existiarazten du zirkulua, ez marrazkiak. **Askoren artean**

**Geometrak** figuren beharra dauka matematikako erlazioen eskemak egiteko. **Askoren artean**

## geometria 1 iz matematikaren adarra, puntuen, lerroen eta gainaldeen tasun, erlazio eta neurketez aritzen dena.

**Geometriaren** perfekzioa eta artearen edertasuna bat eginik daude. **Piarres Aintziart**

Bolumenen **geometriaz** baliatzen. **Josu Zabaleta**

**Geometria** eta astronomia irakatsiz. Irudikapen-espazioa **geometria** kartesiar objektiboaren arabera ez baina koordenatu polarrezko **geometria** subjektibo baten arabera definitu beharko litzatekeela. **Josu Zabaleta**

"Kultura modernoan perspektibak pairatu duen krisiak badu zerikusirik **geometria** ez-euklidierrek [...] ekarri duten espazioaren ikusmolde berriarekin. **Josu Zabaleta**

Gure aurrean dauden horizontalak **geometria** esferikoaren arabera behar dira ikusi. **Josu Zabaleta**

**Geometria** analitiko (aljebraren bitartez lotura bat ezartzen baitu zenbakien eta espazio geometrikoaren artean): Fermat, Descartes. **Jon Muñoz**

**Geometria** lauarekin egin zuen bezala, espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesez. **Jon Muñoz**

Egonarri ari naiz nire **geometriako** problema ebazten. **Josu Zabaleta**

Konposizioaren **geometriaren** ideia nahiko berria dela ematen du. **Josu Zabaleta**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik geometriko.

**Geometria** proiektioei buruzko ideia. **Isabel Arrigain**

Lurraren eta eguzkiaren arteko **geometria** -aldaketak. **Pello Zabala**

Eta ez da **geometria** kontu soil bat. **Hasier Etxeberria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da geometria** (4); **edo geometria** (3); **eta geometria** (11); **eta geometria** (3); **eta geometriaren** (6); **eta geometriaz** (3); **geometria analitiko** (5); **geometria analitikoaren** (3); **geometria** (5); **geometria ez** (3); **geometriaren ikuspegitik** (3); **hiriaren geometria** (3)

## geometrialari iz geometra.

**Geometrialarien** eta izadiaren ikertzaileen arabera. **Ibon Uribarri**

## geometriko *izond* geometriari dagokiona. ik geometria 2.

Irudi **geometrikoak** zirriborratzeko, hiriak margotzeko, mapak marrazteko. arrautza formako objektu **geometriko** bat.  Josu Landa  
Aljibraren bitartez lotura bat ezartzen baitu zenbakien eta espazio **geometrikoaren** artean.  Jon Muñoz  
Perspektiba eraldaketa **geometriko** bat da.  Josu Zabaleta  
Pinturan, eta geroago argazkilaritzan, aplikatzen den perspektiba **geometrikoa**.  Josu Zabaleta  
Plazaren erdigune **geometrikoa** markatzen zuen lauza.  Iñaki Iñurrieta  
Zentro **geometrikoa**, ikusmeneko "grabititate-zentroa", konposizioaren bigarren mailako zentroak, diegesi-narraziozko zentroak.  Josu Zabaleta  
Puntu horien leku **geometrikoari** horoptero deitzen zaio.  Josu Zabaleta  
Fabriken konposizio **geometrikoa** horizontean.  Eider Rodriguez  
Haluzinazio **geometriko** koloretakoak izaten zituen.  Xabier Olarra  
Objektu baten eta haren "irudiaren" arteko erlazioa optika **geometrikoaren** legeak aplikatuz kalkula daiteke.  Josu Zabaleta  
Progresio **geometriko** bizian egindako hazkundea.  Iñaki Mendiguren  
Baldin eta, Mariaren oinak txikiak izanik, gorpurenak ere txikiak balira, gorpua Mariarena zelako probabilitateak ez ziren proportzio aritmetikoa ugalduko, proportzio **geometriko** edo metatzailean ugalduko ziren.  Koro Navarro  
**Geometria** lauarekin egin zuen bezala, espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek.  Jon Muñoz  
Zatiezinen **geometriaren** egia.  Jon Muñoz  
Lege horietan oinarrituta aise ulertzen da transformazio optiko-**geometriko** honek informazio ugari ematen duela ikusten den eszenaren sakontasunaz.  Josu Zabaleta  
- Marks & Spencer-en erositako bainujantzi urdin bizi eta motibo **geometrikoduna** mailetan sartuz.  Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**forma geometriko** (5); **geometriko bat** (4); **geometriko batean** (3); **geometriko batzuk** (4); **geometrikoak eta** (3); **irudi geometriko** (6); **irudi geometrikoak** (5); **irudi geometrikoen** (4); **optika geometrikoaren** (3); **ordena geometriko** (3)

## geometrikoki *izond* geometriaren arabera.

Hona mahats ondoen zerrrendak, **geometrikoki** lerrotatuak. Puntu batetik plano batera egindako proiektzio bat balitz bezala deskriba daiteke **geometrikoki** aldakuntza hau.  Josu Zabaleta  
"Ikusmeneko munduan", "ekologikoki" ikusten dena ezin daiteke **geometrikoki** itzuli sakontasunaren ilusioari uko egin ezean.  Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**daiteke geometrikoki** (3)

## geometrizarazio *iz* geometria-forma ematea.

Giza irudien **geometrizarazioak**.  Berria - Kultura

## geopoetika *iz* alde geografikoei begiraten dien poetika.

**Geopoetikaren** teoria-pratika eta praktika-teoria moldatzen ari nintzen.  Aurelia Arkotxa

## geopolitika *iz* alde geografikoei begiraten dien politika.

**Geopolitikaren** itzal luzea, Bashkim Sehuk ez du trenean segitzen.  Edorta Jimenez

**Geopolitikaren** ikuspuntutik non kokatzen den bakoitza.  Pello Salaburu

Lizeoko ikasleek, adibidez, munduko **geopolitika** beren ikasketen programan dute.  Berria - Kultura

Literatur **geopolitika**.  Edorta Jimenez

Mundu-mailan misiolari-ekintzen akulizatze honek planteaturiko arazoak ez ziren, hain zuzen, eliz **geopolitikazkoak**.  Iñaki Mendiguren

## geopolitiko *izond* geopolitikari dagokiona.

Egoera **geopolitiko** berrira moldatzeko gaitasuna.  Berria - Mundua

Baita esparru **geopolitikoan** ere.  Iñaki Heras

Errusiako Zientzia **Geopolitikoan** Akademiako presidenteorde Leonid Ivashov jeneralaren ustez.  Berria - Mundua

## georgiano *izond* XVII. mendean Ingalaterran eta AEBetan erabili zen arkitektura estilo batekoa. ikgeorgiar<sup>2</sup>.

Noizbehinka etxe victoriano edo **georgianoaren** baten aurretik igarotzen ginelarik.  Ramon Saizarbitoria

## georgiar<sup>1</sup> 1 *izond*/iz Georgiako, Georgiari dagokiona; Georgiako herritarra.

Chevarnadze **georgiar** lehendakariaren alaba ttipi baten gozama.  Herria

Nino Kirtadze **georgiarrak** jaso du Urrezko FIPA.  Berria - Kultura

Txipkhaikhilidzev printze **georgiarra**, Petersburgeko funtzionarioa.  Jose Morales

Haren soldadu **georgiar**, kosako eta lesghiarrek.  Karlos Zabala

Bost artistez osatua da Urmuli **georgiar** taldea.  Herria

Haran hauetako eliza **georgiar** ugariak goitik behera aztertzen ibiltzen omen dira.  Jon Arretxe

Carston deituriko **georgiar** galanta.  Fernando Rey

Osetiarren eta **georgiarren** arteko gatazka.  Berria - Mundua

Albo herrietan hartutako langileek, armeniarrek, turkoak eta **georgiarrak** ia denak, zazpi urtegi eraiki zituzten.  Felipe Juaristi

## 2 georgiera.

Kantu gehienak euskaraz emanak dira, baina badira ere **georgiarrez**, ketxuaz, kaskoinez, italianoz, errusoz eta abar...  Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**georgiar eta** (4); **georgiar hil** (4); **soldadu georgiar** (4); **urmul georgiar** (4)

## georgiar<sup>2</sup> iz georgianoa, arkitektura estiloa.

Bath Erresuma Batuan dagoen **georgiar** estiloko hiririk zoragarriena dela dio turismo-informazio orok. **Berria - Kirola**

## georgiera iz Georgiako hizkuntza.

Euskararen jatorriaz hitz egitean maiz aipatu izan da hizkuntza honek [...] **georgierarekin** dukeen ahaidetasuna. **Edorta Jimenez**

## geoteknia iz geologiaren atala, Lurraren azalaren eraikuntzen euskarri gisa aztertzen dituen.

**Geoteknia** azterketak horretarako egiten dira, horrelakoak saihesteko. **Berria - Harian**

## geotekniko izond geotekniari dagokiona. ik **geoteknia**.

Lurraren ikerketa **geoteknikoa**. **Berria - Euskal Herria**

Azterketa **geoteknikoa** eta eraikuntza eta egitura analisia. **Berria - Kultura**

2002an Andoainen egiten ari ziren zundatze **geoteknikoak** geldiarazi zituzten sei lagun horiek. **Berria - Euskal Herria**

AHTren proiektuko zundatze lan **geoteknikoak**. **Berria - Euskal Herria**

Zundaketa kanpaina **geoteknikoa** egiteko asmoz. **Berria - Euskal Herria**

Itoizko urtegiaren arazo **geologiko, geotekniko** eta egiturako larriak daudela egiaztatu dugu. **Berria - Euskal Herria**

## geotermiko izond geotermiari dagokiona.

Berotasuna askatzen duten tximinia **geotermikoak** daudelako. **Berria - Gaiak**

Energia **geotermikoa**, eolikoa edo biomasan oinarritutakoa, berriz, ez dira ingurumenarekiko kaltegarriak. **Berria - Gaiak**

## geozentriko izond Lurra erdigunetzat duena.

Astronomiaren teoria **geozentrikoa**. **Iñaki Mendiguren**

## geozentrismo iz Lurra unibertsoaren erdigunea zela, eta planetak eta izarrak haren inguruan biratzen zirela zioen teoria.

Liburu bat bi partetan, gureko galdetzaileen **geozentristotik** aparte. **Berria - Kultura**

**Geozentrismoa** eta beste zentristmoak dira oraindik ere mendebaldeko pentsamenduaren oinarriak. **Berria - Kultura**

## gepardo iz ugaztun haragijalea, felidoen familiakoa, lastertasunagatik nabarmentzen dena.

Ez zuten aurkitu inongo kreaturaren arrastorik ere: ez txoririk, ez hartzik, ez azeririk, ez **gepardorik**. **Fernando Rey**

## gera iz antzinako Greziako zilarrezko dirua, drakmaren seirena balio zuena.

Zilarrezko siklo batek hogeit **gera** balioko ditu. **Elizen arteko biblia**

## gera-hots ik **geratu 8**.

## geraezin 1 izond geldiezina.

Idatzi ahala, barre **geraezin** batek hartzen zuen. **Fernando Morillo**

Gainezka egiten ari den fenomeno **geraezina** da immigrazioarena. **Berria - Euskal Herria**

Diru-ekonomia Japonian sartzeak... iraultza geldo baina **geraezina** eragin zuen. **Iñaki Mendiguren**

Une horretatik aurrera gertakarien kateamendu **geraezin** eta krudela etorriko da. **Berria - Kultura**

## 2 **geraezinezko** izlag ezin geratzuko.

**Geraezinezko** dardara etengabe batez mugitzen zitaion hanka. **Anjel Lertxundi**

## gerakin iz zerbaitetik geratzen dena.

K.o. 1952. urterako zientzia eta erlijioaren arteko gerra honek hirurehun urte zeramatzan, eta eliz agintarien jarrera 1939ko martxoan Hitlerrek Txekoslovakiaren **gerakina** suntsitu zuenean Britainia Handi eta Frantziako gobernuak izandako bertsua izan zen. **Iñaki Mendiguren**

Alexandro-aurreko helenismoaren bi lehiakideak senide zen Gizarte Siriakoa eta garaiz lehen suntsituriko Gizarte Hititaren **gerakin** fosildua ziren, azken honek Taurus-ko gotorlekuan iraun zuelarik bizirik. **Iñaki Mendiguren**

Hunoak ezohiko basatasunezko barbaroak izan arren, eta haien agintea Erromatar Inperioko europar limes-ean iragankorra izan arren, hiru senidetze-kasu ohargarriren berriz gorde da pasadizo labur honen garaiko kontaketen **gerakin** zatikatuen artean. **Iñaki Mendiguren**

**Nahiz** eta sortu izan ditugun [...] Atila neobarbaroak, zibilizazio galbideratuen arnegatuak, Hitler eta bera bezalako formen, mundu-mailako gure sistemak ez die zertan beldur izan mugaz harantzagoko barbaro benetako **gerakin** errukarrei. **Iñaki Mendiguren**

## geraldi iz geldialdia.

Dutxa azkarra hartu eta zuzenean jo zuen Auzitegira, kutzazain batean **geraldi** labur bat egin ondoren. Fernando Morillo

Azken **geraldia** egin zuten. Agustin Otsoa

Ahaleginak egin behar izan dituzten irudien **geralditik** ihes egiteko eta legea ulertzeko, oroitzen dituzten kanpo dagoen errealitate ikusezin eta abstraktu hori. Joseba Urteaga

## geralditxo iz geldialditxo.

Ibai berean beste aldeko ertzean zegoelarik **geralditxo** bat egiten. Iñaki Mendiguren

Bikoitzgaine pasa eta otartekoa jateko **geralditxo** bat egin dugunean. Berria - Kirola

## geraleku (ETCn 1.093 agerraldi) 1 iz geldilekua.

Kreazio-lan estatikoki perfektu horietako bat da, Egilearen **geraleku** diren horietakoa. Iñaki Mendiguren

Hemengo tren geltokiak, Auschwitzeakoaren ostean gutxienez, herri bateko **geraleku** atsegina zirudien. Urtzi Urrutikoetxea

### 2 (autobus, tranbia eta taxi) ik geltoki.

Semaforoetan eta beste **geralekuetan** lotu da autobusa. Urtzi Urrutikoetxea

Azken **geralekua** behar duenera iritsi da autobusa eta azkar jaitsi da andre argal eta luze bat, bidaikide bakarra. Urtzi Urrutikoetxea

Aterpetxera ailegatu bitarteko azken **geralekua**. **Aingeru Epaltza**

Autobusaren **geralekuan**, Hamed aurkitu nuen goizero bezala. Xabier Montoia

Bidaiari gehien hartu dituen [tranbia] **geralekua** San Mames izan da. Berria - Euskal Herria

Bere taxiari egokitu zitzaizkion tren-estazio ondoko **geralekuaren** nolabaiteko ardura. Iban Zaldua

### 3 bigarren mailako tren geltokia.

Trenak ez dira geldituko Zarauzko San Pelaio auzoko **geralekuan**. Berria - Euskal Herria

## geranio (orobat jeranio g.er.) iz basa landare kotiledoibikoa, lore arrosak, gorriak edo zuriak dituena.

Eta bakoiko **geranioak** ureztatzen ditu lore berri bila. Hasier Etxeberria

Zer: **jeranioak** erregariatzera? Berria - Kultura

**Geranioz** beteriko balkoixotik. patioko **jeranioen** kolore biziak. Joan bedi berorren **geranioei** ura botatzera. Koldo Biguri

Hilobi batean, **geranio** lore naturala ikusi nuen. Iñaki Zabaleta

Barkatzen diot **geranio** potoa apurtu izana. Koldo Biguri

Etxaldea, aurretik, alanbrezko hesi batek eta kaputxina- eta **geranio**-sailek ixten dute. Oskar Arana

Gogoetak eta asperraldiak hainbeste aldiz apaindu zituzten **geranio** gorri dilindakorrekin bitartez. Anton Garikano

Andre gajoa **geranioen** gainean geratu zen gorpu. Jokin Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **geranio** (3)

## gerarazi, geraraz, gerarazten 1 du ad geratzera behartu. (higitzen ari dena)

Makilak jaso genituen autobusa **gerarazteko**. Koro Navarro

Motorra **gerarazi** nuen. Joxe Austin Arrieta

Banekien besteen aurrean **geraraziko** nindueta eta esango zidala "azkar etxeratu tea hartzera". Koro Navarro

"Iso" xuxurlatu batez **gerarazi** zuen osabak animalia. Koro Navarro

Altzairuzkoa dik azala liburuak eta hark **gerarazi** zioan bala! Harkaitz Cano

### 2 (bestelakoetan)

Baina eskandalua **gerarazi** nahi baduzu, ez al zenuke zeure alde egin behar? Oskar Arana

Halaxe **geraraz** daiteke likore baten hartzidura ere, beste baten tanta bakar batez. Iñaki Iñurrieta

Baina ezin izan zuen gizarte-aldaketaren bidea **gerarazi** Japoniar Inperio bakartuaren barruan. Iñaki Mendiguren

AEBetako gerra hegazkinen erasoak **gerarazteko** urratsak egin ditzala. Berria - Mundua

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Buruzagiak kutsatuta gerta daitezke jarraitzaileen mekanikotasunak, eta emaitza zibilizazio **gerarazia** izango da. Iñaki Mendiguren

Gizarte **gerarazi** hauek erle eta inurrien sozietateen antza dute, bere horretan geldi egon direlarik giza bizitza lurrean agertzen hasi aurretik. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bat **gerarazi** (4); **gerarazi ahal** (4); **gerarazi ahal izan** (3); **gerarazi behar** (3); **gerarazi du** (3); **gerarazi egin** (10); **gerarazi eta** (8); **gerarazi nahi** (7); **gerarazi nuen** (3); **gerarazi zuen** (13); **gerarazi zuten** (6); **hura gerarazi** (4)

## geratu, gera, geratzen (19076 agerraldi, 263 liburu eta 4519 artikulutan; ETCn 197.594 agerraldi) 1 da/du ad gelditu. (higitzen ari dena)

Auto bat **geratu** zen Prinsengracht 263.eko etxearen aurrean. Josu Zabaleta

Tren-gidariak doi-doi lortu zuen lokomotora **geratu** eta metal zati hura saihestea. Harkaitz Cano

Kale nagusiko semaforoan **geratu** da. Iban Zaldua

Errepideko ertz batean autoa **geratu** eta dirua zenbatu zuen. Harkaitz Cano

Balio zezakeen paragrafo baten hasieran **geratu** zen luma. Iñaki Mendiguren

Angiozarren **geratu** gabe, zuzenean egin nuen behera, Bergara aldera. Juan Luis Zabala

Segundo batzuk **geratu** nintzen arnasa hartzeko. Josu Zabaleta

Ron **geratu** egin zen berriro. Iñaki Mendiguren

### 2 (aritzen dena)

Nik neuk martxan jarria nuen heriotzaren gupil eroa **geratu** nahirik. Joxean Agirre

Abiadura itzelean zihokion bihotza **geratu** egin zen bat-batean. Unai Iturriaga



Baina aspaldi hartan ezin izan zuen **geratu** umetoki lehortuaren emana. Anton Garikano  
Egik dantza **geratu** barik. Unai Iturriaga

### • 3 da *ad* dagoen tokian edo egoeran jarraitu. ik **gelditu 3.**

Egia esango dizut, ez nekien joan ala **geratu**. Josu Zabaleta  
Harry ikastetxean **geratu** behar du. Iñaki Mendiguren  
Bazkalordua arte **geratu** nintzen ohean. Koro Navarro  
Hemen **geratu** beste irtenbiderik ez dugu. Josu Zabaleta  
Berehala sartu orde zatean **geratu** zen, erdi gordeta. Anton Garikano  
Eskuetan **geratu** zitzaion ur-hegaztia. Askoren artean  
Eguna argitu arte **geratu** ginen, mugitu ezinik. Josu Zabaleta  
Ez nintzen luze **geratu**, asperduraz hiltzekoa zen hura-eta. Koro Navarro  
Han **geratu** zen olatuen artean geldi. Askoren artean  
Eta leihu atzean **geratu** nintzen, zeru beltzaren zamapean zitalduta ageri zen itsaso gris, zuriz pitzatuari begira. Ramon Saizarbitoria  
Bihotzekoa eman eta bertan **geratu** da. Joxemari Urteaga  
Patrikan **geratu** zitzaion bala. Harkaitz Cano  
Otordua amaitu eta gero, Pippin han **geratu** zen aldi batean. Agustin Otsoa  
Hi **geratu** hemen kamioia zaintzen. Koldo Biguri  
Haraino iritsiak eta hantxe **geratuak** azken bidaia egin ondoren. Felipe Juaristi  
Irentsi egin zituen salako airean **geratutako** azken doinuak. Felipe Juaristi  
Eta etxean **geratzen** naiz, burua nahasirik, dardaraz, eserita naukan besaulkian. Josu Zabaleta

### 4 aipatzen den egoeran gertatu. ik **gelditu 4.**

Osaba Vernon geldi **geratu** zen. Iñaki Mendiguren  
Blasen presentzia ohartzean geldirik **geratu** zen. Xabier Mendiguren Elizegi  
Gero, eskua lurretik jasota, geldi-geldi **geratu** nintzen, arnasari eutsiz. Koro Navarro  
Isilik **geratu** ziren guztiak. Iñaki Mendiguren  
Etxea isil-isilik **geratu** zenean. Aitor Arana  
Denbora baten ostean lo **geratu** zen. Julen Gabiria  
-Barkatu? -begira **geratu** zitzaion. Koro Navarro  
Ezkondu eta handik gutxira, Hadass haurdun **geratu** zen. Koro Navarro  
Liluraturik **geratu** nintzen lau esku haiei so, zer esan ez nekiela. Ramon Saizarbitoria  
Nahastuta **geratu** nintzen, zer pentsatu ez nekiela. Bernardo Atxaga  
Hankak agerian **geratu** zitzaizkion izterretaraino. Bernardo Atxaga  
Eztarria erabat ezindu zitzaidanean, entzuten **geratu** nintzen. Josu Zabaleta  
Harri eta zur **geratu** zen aita, begiak zabal. Joan Mari Irigoien  
Eta ni neu zauriturik **geratu** nintzen, ezki-basoan galdu baino lehen. Felipe Juaristi  
Emakumea besoak gurutze eta zer suma **geratu** zen. Patxi Zubizarreta  
Mael duda-mudatan **geratu** zen. Joanes Urkixo  
Eskua sagu-arte batean harrapatuta **geratu** zen. Iñaki Mendiguren  
Kardinala erabat txunditurik **geratu** zen. Askoren artean  
Kartzelatik aske **geratu** ondoren Asisa itzuli zenean. Askoren artean  
Eta elkarri begira **geratu** ziren berriro. Josu Zabaleta  
Etxeak elurpean **geratu** ziren. Koro Navarro  
Hasitako kantua amaitu barik **geratu** zen, bat-batean beste soinu bat entzun baitzuten, piratak isilarazi zituena. Julen Gabiria  
Handik hara, bertan behera **geratu** ziren estropadak. Juan Kruz Igerabide  
Eta Kugler jauna sendagilearen ziurtagiriari esker lan behartuetatik libre **geratu** da. Josu Zabaleta  
Halako gertakariak Historian ongi jasoa **geratu** behar du! Patxi Zubizarreta  
Gure ahaleginak hutsean **geratu** dira. Felipe Juaristi  
Stendhalek ezin zuen jakin musikagilea bakarrik **geratua** zenik ezezagunak alde egindakoan. Imanol Zurutuza  
Eta Mardoqueo honek lehengusina bat zeukan etxean, umezurtz **geratua** eta berak jasotakoa. Jose Antonio Mujika  
Langileak begira **geratzen** zitzaizkigun. Josu Zabaleta  
Une batez gorputza airean **geratzen** zitzaidala ere iruditu zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

### 5 (zati bat-edo kendu ondoren) ik **gelditu 5.**

Iraganekorik ez zitzaion ezer **geratu**. Koro Navarro  
Langileak begira **geratzen** zitzaizkigun. Josu Zabaleta  
Bere herrian **geratzen** ziren indar guztiak bildurik zituen. Agustin Otsoa  
Benetan ur gutxi **geratzen** zitzairen. Agustin Otsoa  
Artean ordubete **geratzen** zen eskolak amaitzeko. Juan Kruz Igerabide  
Bat besterik ez zitzaion **geratu**. Juan Kruz Igerabide  
Edalontzian **geratu** zitzaion ardo urria edan eta [...]. Unai Iturriaga  
Bizitzeko adinako pentsioa **geratu** ez bazitzaion ere. Joxemari Urteaga  
Eta iduri hori **geratu** zaik gogoan. Joan Mari Irigoien  
'Ea hondarren bat **geratu** den... Joseba Sarrionandia

### 6 zerbait hitzartu; hitzordu bat berbatu. ik **gelditu 6.**

Friedel eta hirurak kaperaren sarreran elkartzekoan **geratu** ginen. Koro Navarro  
Denok hurrengo egunean ertzainen kuartelera joatekotan **geratu** ginen. Juan Kruz Igerabide  
Riccardo's edo Cesare edo dena delako jatetxean afaltzekotan **geratu** ginenez, bere auzoan bilatzea erabaki nuela. Ramon Saizarbitoria  
Behean elkartzeko **geratu** ginen. Josu Zabaleta  
Klararekin **geratu** zen hondartzan paseatzeko. Iñaki Iñurrieta  
Gosalduta elkartzekotan **geratuak** ginen, baina niri ez zidan astirik eman. Ramon Saizarbitoria  
· Atzo **geratu** ginen bezala [...] gaur goizean Danek furgonetan eraman gaitu hiriaren lehen inpresioa har genezan. Patxi Zubizarreta  
· Gizon txiki baten gainean **geratu** zen eginkizuna. Koro Navarro  
Oso olerki polita **geratu** zen. Josu Zabaleta

### 7 (era burutua izenondo gisa)



Angel Bizkai Osasunako **gerenteak**. Berria - Kirola

Esteban Oiz, Itoa, ekonomia ikasi ondoren, kontserba fabrikako **gerentea** da Bermeon. Ospitaleko **gerente** berria. Joseba Sarrionandia

Gainera, EHUko errektorea, **gerentea** eta idazkari nagusia ere erakundeko kideak dira. Berria - Euskal Herria

Araujo Lda. enpresako **gerente** bakar. Bego Montorio

Aarón Loewenthal, lehenago lantegiko **gerente** izana eta orain jabeetako bat. Juan Garzia

Frantziako Albertville herriko alkateari eta mankomunitateko **jerenteari** espetze zigorra ezarri diete, herrian zegoen errauste plantan isuri arazoak izan zirelako. Berria - Euskal Herria

Konpainiako **gerentearen** etxera. Joseba Sarrionandia

Banku bateko **gerentearen** laguntzaile. Oskar Arana

Orain **gerentearen** laguntzailea naiz True Value Hardware Store burdindegian. Oskar Arana

**Gerentea** zen gasolindegi batean, eta huskeria ordaintzen zioten. Karlos Zabala

Ezcurra enpresako **gerente** Elisa Ezkurak. Berria - Ekonomia

**Gerentearen** jokabidea salatu dute sindikatuek. Berria - Ekonomia

Demako Enpresa Garapenerako zuzendari **gerenteak**. Berria - Ekonomia

## 2 (hitz elkartuetan)

Isabel Clyde-ren senarra, Ralph Nolton, **gerente** -lanak egiten zituen. Lopez de Arana

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bateko gerentea** (3); **bizkai osasunako gerenteak** (3); **du oppaoko gerenteak** (4); **enpresako gerente** (3); **enpresako gerenteak** (4); **eta gerenteak** (4); **gerente eta** (3); **gerente gisa** (3); **gerentea izan** (3); **gerenteak atzo** (3); **gerenteak ez** (4); **oppaoko gerenteak** (4); **osasunako gerenteak** (4); **zuzendari gerenteak** (3)

## gerenteorde *iz* gerentearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Hainbat urte egin zituen fabrikako sindikatu ofizialaren ordezkari, eta hiru urte **gerenteorde**. Garai hartan, J. Iban Zaldúa

Baptista Lda-n **gerenteorde** gisa aritzen zen. Bego Montorio

**Gerenteorde** postua utzi zuenean. Bego Montorio

## gerentzia *iz* kudeatzailetza.

Lana topatu zuen Gasteizko hotel batean, baina **gerentziak** jakin zuenean gauzez presondegira joan beharra zeukala, lana galdu zuen. Berria - Euskal Herria

ikasleen Errektoreordearen albokoa eta **Gerentziaren** alboko AZPren arduraduna. Berria - Euskal Herria

## geresitxo *iz* adkor gerezia.

**Geresitxo batzuk** gara amildegitik zintzilik. Karlos Linazasoro

Nire **geresitxoak** zarete, barka, nire anai-arrebak amildegitik zintzilik. Karlos Linazasoro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**geresitxo batzuk** (3)

## gereta ik kereta.

## gerezi 1 *iz* gereziendoaren fruitua.

**Gerezi** gozoak gorriak dira/eta garratzak horiskak. Bidearen bazterrean **gereziak** onduxeak dira. Marzel Etxehandi

Urtero, **gerezi** beltz lodi-lodiak ematen zituen. Daniel Landart

**Gereziak** jaten etortzen zen. Fernando Rey

**Gerezi** baten hezurra ezterrian trabatu izan balitzait bezalaxe sentitu naiz. Patxi Zubizarreta

Auzoko **gereziak** lapurtzen. Patziku Perurena

**Gereziak** jateko sasoi iritsi da / Baina ez da **gerezirik** inon ikusten. Bernardo Atxaga

Bi saski bete **gereziri** hezurrak kendu behar izan genien bulegorako. Josu Zabaleta

Eskutada bat **gerezi**. Karlos Zabala

Kilo bat **gerezi** jaso nituen bulegoan. Patxi Zubizarreta

Beltzak zituen begiak, bi **gerezi** ilun eta mingots, ikusitakoa airez aire aireari lotzen ziotenak. Felipe Juaristi

Kultura ez da bixkotxaren gaineko **gerezia**. Berria - Kultura

**Gerezia** bixkotxaren gainean. Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adar mutur batzuk hautsi eta beren **gerezi** mordoekin botatzen nizkien goitik. Patziku Perurena

Poltsikotik **gerezi** ale pare atera zuen. Jasone Osoro

**Gerezi** sasoi gaudenez gero. Bernardo Atxaga

**Gerezi** denbora ia bertan mizpira ustelena bihurtu zitzaigula. Inazio Mujika Iraola

**Gerezi** hexurra falta! Patziku Perurena

Antoniok mingaina atera zuen nire ahotik, eta **gerezi** -txortenak bi korapilo zituela erakutsi zidan. Jasone Osoro

Ator xuriaren kolkoa **gerezi** mantxaz moretua genuela. Patziku Perurena

Almendra lehorrak, **gerezi** -konpota. Felipe Juaristi

**Gerezi**-tartak, arbendol opil kurruskatsuak. Karlos Zabala

**Gerezi** konfitura ontzian deblauki sartuz. Itxaro Borda

**Gerezi** ardoa egiteko. Felipe Juaristi

**Gerezi** koloreko xal bat. Karlos Zabala

Tresnaren zurak distira egin zuen eta da Ruari harritu zitzaion azalera atera zitzaion **gerezi** -kolorea; ez gutxiago, gelan barrena zabaldu zen **gerezi** usaina. Felipe Juaristi

Ontsa iragan da igandean **gerezi** bestako eguna. Herria

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goiz-**gereziak** gustatzen zitzaizkion. **Fernando Rey**

### 4 gereziondoa.

**Gerezitik** eroriz geroz ez zuen hitz bat erran. **Michel Oronoz**

**Gerezi** -loreetara abiatu zen. **Anton Garikano**

Tximinia piztuta zegoen, **gerezi** egurra erretzen. **Felipe Juaristi**

Kajoiz betetako **gerezizko** altzari baten gainean. **Xabier Olarra**

Ez zeukan tinta-usainik, ezta **gerezi** -erretxinaren eta haritz-azalaren usainik ere. **Anton Garikano**

### 5 gerezi-kolore izond

Artilezko kapela beltza buruan, amila bat **gerezi** -kolorea. **Felipe Juaristi**

Biolin **gerezi** -koloreak, biolin gerezi-usainekoak. **Felipe Juaristi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat **gerezi** (4); bi **gerezi** (3); du **gerezi** (3); edo **gerezi** (3); ere **gerezi** (3); eta **gerezi** (9); eta **gereziak** (3); eta **gereziaren** (3); eta **gereziondo** (3); **gerezi bat** (7); **gerezi beltzez** (6); **gerezi beltzez egindako** (5); **gerezi besta** (22); **gerezi bestako** (4); **gerezi bestan** (3); **gerezi bestaren** (3); **gerezi bestari** (3); **gerezi denbora** (13); **gerezi eta** (3); **gerezi gozoak** (3); **gerezi koloreko** (4); **gerezi konpota** (3); **gerezi ondo** (3); **gerezi ondoaren** (10); **gerezi ondoaren azpian** (3); **gerezi ondoaren azpira** (3); **gereziak ere** (3); **gereziak eta** (3); **gereziak jaten** (4); **gereziaren hezurra** (5); **gerezien sasoia** (3); **gereziondo bat** (4); **igandean gerezieta** (4); **zen gerezi** (3)

### gerezidun izond gereziak dituena.

Muturrean gora lotsagabe igotako appara miatzatu eta pasta **gerezidun** bat ahoratu zuen. **Joxemari Urteaga**

### gereziondo iz arrosaren familiako landarea, lorak sortetan dituena eta gereziak ematen dituena (*Prunus avium*).

**Gereziondo** garratzak berandu / loratzen dira, gozoak goizago. **Bernardo Atxaga**

**Gereziondo** baten azpian zegoen eserita. **Felipe Juaristi**

Kennet ibai bazterreko **gereziondo** loratuak ageri ziren. **Anton Garikano**

**Gereziondoz** inguratutako elizan jotzen zuen biolin eder hura, **gereziondo** zurez egindakoa. kristal landuz eta **gereziondo** -lorez egindako apartamentu batean. **Felipe Juaristi**

**Gereziondo** -zurezko pipa luze bat harturik. **Jose Morales**

**Gereziondozko** pipa luze bat. **Karlos Zabala**

**Gereziondozko** oholari baino ez zion kolorea eman. **Juan Kruz Igerabide**

Horra **gereziondo** goiz loratua, nexka maitemindua iduri. **Patziku Perurena**

Erabat ihartuta zegoen **gereziondo** bat. **Askoren artean**

Mende batzuk lehenago erromatarrek mundu parte hartan ezagutzen ez ziren **gereziondoak** ekarri zituztelako. **Felipe Juaristi**

### gerezitegi iz

Xapata elkartekoak 2003an erakutsi zuen nola nahiko zuen **gerezitegi** bat moldatu, galde eginez herriko lur bat. **Herria**

### gerezitze iz gereziondoa.

Argi zirrinta hartan sukaldeko leihotik **gerezitzeak** dena lili zuri miretsi nituen, maitekiro, luzaz. **Itxaro Borda**

### geriatra iz geriatrian espezialista den medikua.

Zahardadearen sintometako bat da, ez larriena, **geriatrak** esaten didanez. **Anjel Lertxundi**

**Geriatrak**, profesional onaren itxurak egiten baititu, arreta berezia jartzen du guk idazten duguna ezagutzeko. **Anjel Lertxundi**

**Geriatraren** bulegotik irten naizenean. **Anjel Lertxundi**

**Geriatra**, psikologoa, neurologoa... elkarrekin aritu dira. **Berria - Harian**

**Geriatrak** baliabide berriak erabiltzeko aholkatu zigun egun berean, zaharrok teknifikatzeko kanpaina baten berri eman zuen gure gobernuak. **Anjel Lertxundi**

Isidoro Ruiperez **geriatra** da ofizioz eta Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkargoko presidente bokazioz. **Berria - Euskal Herria**

### geriatria 1 iz medikuntzaren adarra, zahartzaroko eritasunak eta sendabideak aztertzen dituena.

Zorioneko **geriatria**, zahar-etxeak haurtzaindegi bihurtu baititu! **Anjel Lertxundi**

Zorioneko **geriatria**, zahar-etxeak haurtzaindegi bihurtu baititu! **Anjel Lertxundi**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik geriatriko.

Ospitale horretako **Geriatria** Zerbitzuak. **Berria - Harian**

Espainiako **geriatria** elkargoko presidentea. **Berria - Euskal Herria**

### geriatriko 1 izond geriatriari dagokiona. ik geriatria 2.

Euskadiko ospitaletan ematen den sorospen **geriatrikoa** desegokia da. **Berria - Euskal Herria**

### 2 iz adineko pertsonak zaintzeko eritetxe-egoitza.

**Geriatrikoko** ate nagusiaren aurreko bi lorontzi handiak. **Anjel Lertxundi**

**Geriatrikoko** gernu-usainak berehala berdintzen ditu gainerako guztiak. **Anjel Lertxundi**

**Geriatriko** barruan ez dute, geletan edo otorduetan ez bada, alkohola edaten uzten. **Anjel Lertxundi**

**Geriatrikoko** arduradunak ere etorri dira bi auto handitan. **Anjel Lertxundi**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sorospen **geriatrikoa** (3)

## gerita ik gerita.

### geriza 1 iz babesa.

Baina funtsean, familia baten maitasuna eta **geriza** gutziazten zituen. **Elena Touyarou**

Etzolaria etorri zen, **geriza** eske, beste toki bat aurkitu artean. **Elena Touyarou**

Etsaiek ilunpearen **geriza** baliatu zuketean mendian haratago ihes joateko. **Itxaro Borda**

Noiztenka, besterik ezinean, zeru-betean pausatzen zen, izarrak **geriza** eta ilargia beilari. **Itxaro Borda**

Artzainak bazekien hobe zuela arroila sakon baten **gerizan** geratzea. **Itxaro Borda**

Ezpainek ezpainen bahiak xerkatzen eta atzematen zituzten, intziri, irri eta so geldoen **gerizan**. **Itxaro Borda**

Tasmaniako otsoaren pareko sentitzen nintzen: legezko **geriza** helduko zitzaidanerako aspaldian hila eta desagertua nintzatekeen. **Itxaro Borda**

Egunaren indarrak harpe baten **gerizara** bultzatu ninduen. **Juan Garzia**

Barthélémy Aguerre kontseilariak aise ardietsi du departamenduko gehiengoaren **geriza**. **Herría**

**Geriza** sozialeko lau erakundek, prentsarekin kafea partekatuz markatu nahi izan dute seguritate sozialaren hirurogeigarren urtemuga Baionan. **Herría**

### 2 gerizatokia.

Beinat bat-batean **gerizara** itzuli zen. **Itxaro Borda**

Ez ziren **geriza** ofizialean aterpetzera atrebitu. **Itxaro Borda**

Lasterka tipian zoazte, **gerizaz geriza**. **Xabier Montoia**

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dute gehiago beren **geriza** lana egiten. **Michel Oronoz**

Uhain alimale batek zilo haundi bat eginik **geriza**-ezpondan urpean ezarri dituela karrika guziak. **Herría**

ONU-ko **geriza** kontseiluan. **Herría**

ONU-ko **Geriza** Kontseiluak onartu du Estatu Batuek Irakiarentzat galdegiten zakotena. **Herría**

Saddam Hussein-ek onartu du **Geriza** Kontseiluaren erabakia. **Herría**

Ez zuhaitz berri **geriza**-emailerik egongo denik sinesteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

"Adour" **geriza** untziairen estreinaldia. **Herría**

Zoin aise bazterrerat uzten den delako **geriza**-legea, ingurumenaz eta jendeaz aski axolatu gabe... **Herría**

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dio erantzuten, haize-**gerizako** garbigailuei begira dago. **Oskar Arana**

Biseradunak eskua burura eraman eta biseraren begi-**geriza** erdi jasotzen. du, diosala moduan. **Anjel Lertxundi**

Eritasan **geriza** unibertsalaren (CMU) barne ekarriak dira hemen gaindi bost mila lagun. **Herría**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten geriza (6); bere geriza (3); eta geriza (7); geriza berezi (3); geriza berezi bat (3); geriza eta (8); geriza hori (3); geriza kontseiluak (6); geriza kontseiluan (6); geriza kontseiluaren (3); geriza kontseiluari (3); geriza pean (4); gerizarik gabe (5); gerizarik gabeko (3); ko geriza (6); ko geriza kontseiluak (4); nazioarteko geriza (4); onu ko geriza (6)

## gerizagabe izond babesgabea.

Halabehararren esku bakar-bakarrik utzi zuen haurño **gerizagabe** hari. **Elena Touyarou**

## gerizagailu iz babesgailua.

Holako gaitzetik begiratzekotan, ez daiteke **gerizagailua** bezalakorik. **Janbattitt Dirassar**

Ez dizut beraz galdatu ere **gerizagailurik** ezartzen zenuen ala ez. **Janbattitt Dirassar**

## gerizaleku iz babeslekua.

Beraz, Senara joan eta etxe-gabeen **gerizalekura** daramaten eskailerak jaitsi zituen. **Matías Mujika**

Gizon prehistorikoen aterbe edo **geriza** lekuak. **Herría**

## gerizape ik gerizpe.

### 1 gerizapean babespean.

lurramendi mendiarren **gerizapean** egiten ditut lehen urratsak. **Piarres Aintziart**

Herría San Martinen **gerizapean** jarria da. **Piarres Aintziart**

Katedralaren **gerizapean** eta kirol zelaietako mezetan dagoeno jendea, "Pax Castellana" Espainia osoan hedaturik egonen da. **Piarres Aintziart**

Abere edo kabala baten **gerizapean** jartzen da urtea Txinan : ohoratzen dute garratoinaren urtea, zakurraren urtea, leoinaren urtea... **Herría**

Hazparneko herriaren **gerizapean** den haur zaindegia. **Herría**

Ibilaldi, bertsu-saio, hitzaldi, denetarik egiten da Begiraleak elkartearen **gerizapean**. **Herría**

Legearen **gerizapean** hetsiko dituzte zalukara Aldude eta Iholdiko bulegoak. **Herría**

Pantxoa Belin Basusarriar gaztea presentatzen da AB-ren **gerizapean**. **Herría**

Duela sei urte %-eko 9 egun zuen Panpi Brisset berriz berotzen da AB-ren **gerizapean**. **Herría**

### 2 gerizapeko izlag

Elizaren **gerizapeko** elkarte eta zerbitzuez. **Herría**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten gerizapean (3); bere gerizapean (3); elkartearen gerizapean (9); etxearen gerizapean (3); herriko etxearen gerizapean (3); ren gerizapean (3)

## gerizapen iz



Legebiltzarreko bilera ez zen lasai igaro, gutxienez 7 mordero bertan inguruetan, nahiz eta bilera gunea **gerizapen** handiko gunean den. **Berria - Mundua**  
Protestaldiaren antolatzaileek lehenik eta behin exijitu zuten giza eskubideen **gerizapenerako** erakundeek ahala izan dezaten Abu Ghraibeko presoeekin elkartzeko. **Berria**  
- Mundua

## gerizapetu, gerizape(tu), gerizapetzen da *ad* babestu, gerizatu.

Kontraeraso bati ekin diote Assinovskoieko arroieta, han **gerizapetuta** liratekeelarik gerrillari independentista txetxeniari batzuk. **Berria - Mundua**

## gerizatoki *iz* babestokia.

Benentzat hobe **geriza** toki bat lehen bai lehen aurkitzen bazioten. **Elena Touyarou**

Hire **gerizatokia** ezezaguna zela. **Elena Touyarou**

Hortaratuak gira espainiol ministro batek ukatu baitio unti bati **geriza** -tokia portu batetan, Galiziatik urrun bota zezan bere zikinkeria. **Herria**

## gerizatu, geriza(tu), gerizatzen 1 da/du *ad* babestu.

Zaharrak, eriak eta haurrak elizan **gerizatu** ziren. **Elena Touyarou**

Hiri arrotz bateko motel merke batean **gerizatu** ziren. **Itxaro Borda**

Zalgurdi batean **gerizatu** nintzen eta hotelera itzuli. **Matías Múgica**

Lanbroak **gerizatu** zituen ibilbide zati nagusienean. **Elena Touyarou**

Ikasteko zuen gaitasunaz oharturik, San Klemente parrokiako erretoreak, aita Mathieuk, ttipi-ttipitik **gerizatu** zuen eta Joantok erretorearekin ikasi zuen leitzen eta kontatzen.

**Elena Touyarou**

Joanto xoko batean jartzera behartu zuen, soetarik **gerizatuz** . **Elena Touyarou**

Bero pairaezinetik **gerizatu** beharrez. **Aingeru Epaltza**

Inolako babesik ez beheko kasernatik etor zitezkeen tiroetatik **gerizatze**ko . **Txillardegi**

Jakin behar da nork bere buruaren **gerizatzen** ! **Itxaro Borda**

Garat anaiek ez bazuten lortu beren egitasmoa, euskaldunen eskubideen **gerizatzea**, beste nehork ez zuen lortuko. **Elena Touyarou**

Herri hizkuntzak **gerizatuko** dituen lege baten proposamena frantses Gobernuak bere gain har dezan. **Herria**

Basoilar bat ez da hain ardura ikusten orain gure mendietan, legez **gerizatua** izanik ere. **Michel Oronoz**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Toki eder bezain **gerizatu** batean. **Elena Touyarou**

Eta soldaduentzat berdin zen hiltzen baldin baziren ere, **gerizatuak** eta presoak edozein gisaz exekutatuak zirelako. **Itxaro Borda**

Azterketa zientifikoaren mundu **gerizatuan** geratu zen. **Itxaro Borda**

Bagdaden, gune berdea deitutako eremu **gerizatutik** hurbil. **Berria - Mundua**

"Gune **gerizatu**" horrek eman erraztasunei esker, batetik diru laguntzak, bestetik erraztasun fiskalak, sei urte barne 550 bizitegi berri ahal izan ditugu Baiona xaharrean.

**Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batean **gerizatu** (3); eta **gerizatzen** (3); **gerizatu nahirik** (3); **gerizatu zen** (4); **gerizatu ziren** (3); **gerizatu zuen** (4); **gerizatzen dituzten** (4); **gerizatzen du** (3); **gerizatzen duen** (3); **gerizatzen zituzten** (3); **gerizatzen zuela** (3); **gerizatzen zuen** (3); **gune gerizatu** (3); **ongi gerizatutik** (3)

## gerizatzaile *iz* gerizatzen duen pertsona.

Intelektualen **gerizatzailea** da Etxauzkoa. **Michel Oronoz**

Anderea zaurituz eta haren **gerizatzaile** italiar bat hilez tirokadan. **Herria**

## gerizpe (*ETCn 2.170 agerraldi*) 1 *iz* itzalpea. ik **gerizape**.

Txillarrak soropiltzen duen **gerizpe** erraldoi baten harresi erraldoiaren itxura eta angelua dauka. **Koldo Izagirre**

**Gerizpea** bilatu eta jarri zara, ukalondoak belaunetan eta burua eskuetan. **Xabier Montoia**

Pinu baten **gerizpean** etzan ginen eta zigarreta bat erre. **Joxe Austin Arrieta**

Batzuetan **gerizpean** 45 gradutan egongo zara. **Gotzon Garate**

Adela nire **gerizpea** bilakatu da. **Patxi Zubizarreta**

Mihise eta estalkien **gerizpearen** segurtasunean. **Itxaro Borda**

Pago **gerizpeko** gelara joan zen. **Askoren artean**

Ekaitzean aterpe, sargorian **gerizpe** . **Elizen arteko biblia**

### 2 *adkor* kartzela.

Zer moduz erabili zaituzte **gerizpean** ? **Josu Landa**

Gogoan izango duk zelan esmuglatu nituen iraultzaile bi, eta hori dela eta gau bi "**gerizpetan**" igaro behar izan nituen. **Edorta Jimenez**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten **gerizpean** (19); eta **gerizpe** (3); eta haren **gerizpean** (3); **gerizpea bilatu** (3); **gerizpean babesten** (3); **gerizpean bizi** (3); **gerizpean eseri** (3); **gerizpean zegoen** (3); haren **gerizpean** (9); **zuhaitzen gerizpean** (4)

## gerizpetu, gerizpe(tu), gerizpetzen 1 du *ad* itzalpetu.

Haren lagunen mendekutik ihesi, zapategian **gerizpetu** zen Migel. **Aingeru Epaltza**

Ordu erdi gerago, olana batek **gerizpetutako** terrazako mahaira jarri berria nintzela, auto handi batetik jausten ikusi nuen. **Aingeru Epaltza**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Bihotz punpaka jartzen didaten plaza arkupetuak, uharrizko mosaikoz eginiko zoladurak, balkoi **gerizpetuak**, girgileriaz margoturiko etxeak ikusten ditut. **Koldo Izagirre**

Belarra hazi da hilobi **gerizpetu** hauen teilatuan. **Koldo Izagirre**

# gerkera

Nola greziarrek **gerkera** ez beste hizkera guziari "barbaro" deitu zioten. Patziku Perurena

**Gerkeratik** dator onomatopeia. Patziku Perurena

## gerla (2395 agerraldi, 72 liburu eta 650 artikulutan; ETCn 10.393 agerraldi) 1 iz gerra. ik guda.

**Gerlaz** eta Bakeaz. Piarres Xarriton

**Gerlara** doazenak eta **gerlan** hiltzen direnak. Itxaro Borda

Ez dezagun arren has berriz Troiako **gerlarik** ! Piarres Xarriton

Aljeriako **gerlak** izan zuen hala ere itxurarik gogorrena eta odoltsuena. Piarres Xarriton

Ez gara mintzo bakarrik 1914-18ko **gerlako** gure 5.000 hilez. Piarres Xarriton

Frantziak **gerla** deklaratzeko dako ofizialki Espainiari 1793ko martxoaren 8an. Michel Oronoz

Frantsesek **gerla** galdu eta berehala. Eneko Bidegain

Preso langile bilakatu ziren, Hitler **gerlaren** irabazten laguntzeko. Marzel Etxehandi

Ez da aski **gerlaren** irabaztea, behar da ere bakea irabazi. Herria

Denbora hartan, 1914an, Frantzia eta Alemania **gerlan** ari ziren. Michel Oronoz

**Gerlan** ibili euskaldun mariñel batzuen bertutea laudatuz. Herria

Baina **gerlari** uko egin zion. Itxaro Borda

Haatik, kanpora botatuei, 1914an **gerlarako** deia igorri zitzaion. Marzel Etxehandi

Espainiako **gerla** zibila hasi zenean nik artean ez nituen bi urte. Gotzon Garate

Amerikarren eta sobietarren arteko **Gerla** Hotzaren ondorioz. Piarres Xarriton

**Gerla** garbi edo zikinen bitartez. Piarres Xarriton

Ez dut uste baden **gerla** saindurik, ez **gerla** justorik, are gutiago **gerla** garbirik. Herria

Artetan halere, nork edo nork oroitarazten dauku biziki **gerla** itsusialki segitzen duela Angola hortan. Herria

**Gerlan** hilak aipatzean. Herria

**Gerlako** hilen oroitarria. Piarres Aintziart

**Gerlako** galtzaileek ezin zutelakotz jasan bizkarreratu zitzaion zama astuna. Piarres Xarriton

**Gerlako** ministro biarnes handiari. Herria

**Gerlako** desertore, errefuxiatu edo ihesliar mota guztien aztarnak bil bagenitza. Piarres Xarriton

Nafarroan Ikurriñen **gerla** berpiztu. Herria

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gerla** jokoak. Itxaro Borda

**Gerla** solas ari baikara, iruditzen zait etsaia balioztatuago eta gerla hobestenago dela. Itxaro Borda

**Gerla** ekintza heroikoen lerroan. Itxaro Borda

1942an, **gerla** denboran, maiatzaren 25ean. Michel Oronoz

**Gerla** giro zail horretan. Itxaro Borda

**Gerla** gizona izana nizalaketan. Michel Oronoz

**Gerla** frontierat joan ginelarik. Michel Oronoz

Sekulako aitzinamenduak **gerla** teknikan eskuraturik ere. Michel Oronoz

## 3 (hitz elkartuetan bigarren soa gisa)

Erlisioan **gerlak** odoloztatzen duelarik Biarnoa, Xuberoa eta Baxenabarre, Etxauzko Antoine-k bere burua agertzen du. Michel Oronoz

Bigarren mundu-**gerlaren** ostean ohi zen bezala. Joxe Austin Arrieta

Horren gibelean ikusten dute biologia-**gerla** eta Oussame Ben Laden-en eskua. Herria

Azken hauen aintzindariak (Guillaume Soro) erran du ez dela oraino presarik jazar-**gerla** baten arrapizteko. Herria

Mahmoud Abbas-ek galdetzen du garbiki Hamas eta Jihad Islamikakoeri eten-aldi bat errespetatzea beren sasi-**gerlan**. Herria

## 4 gerla piztu (ETCn 52 agerraldi; cf gerla lehertu ETCn 11 agerraldi) ik gerra 7.

1636-an bazterrak berriz ere nahasi ziren, **gerla** piztu baitzen Frantzia eta Espainiaren artean. Herria

Holanda eta Frantziaren arteko **gerla piztu** aitzin. Joan Mari Irigoien

Afrikako Sudanalde hortan berriz ere **gerla piztua** dute herri horren libratzea helburu duen armadak eta beste talde batzuek. Herria

1936an, Sanjurjo, Mola, Queipo de Llano, Franco eta beste bizpalau jeneral errebelatuk Espainiako **gerla piztu** zutelarik, Nazioen Batasun Demokratikoak ez ikusiarena egin zuen. Piarres Xarriton

**Gerla** pizten du etsai andana baten kontra, horiek baitira Frantziaren gaindi mintzatzen diren "patois" edo hizkerak. Herria

## 4a gerla zibila

Hemen berean, hostope honen barnean, 36-ko **gerla zibilean**, kukulauka hilgarri batean, gizonak gizonak tirokatu zituztela. Piarres Aintziart

Gisa berean, Santamariaren solasek irakusten dute Euskal Herriak jasan berri zuen **gerla zibilaren** irakaspenak atera zituela pentasari donostiarrak. Piarres Xarriton

Espainiako **Gerla Zibila** bukatu zen hegoaldeko euskaldunen ametsak odolean eta errepresioan ezabatuz. Itxaro Borda

**Gerla zibila** beitzen ordüan Agaramontesen eta Beaumontesen artean. Herria

Duela sei urte **gerla zibila** zen Gipuzkoan eta Nafarroan. Koldo Izagirre

Memento zailak ziren, **gerla zibila** bururatu berria baitzen. Eneko Bidegain

Espainiako **gerla zibila** hasi zenean nik artean ez nituen bi urte. Gotzon Garate

Semea aitaren orde, zer gertatu da Congo-ko errepublika berrian? Nork hil du? Zergatik? Dirudianez ez da gerlarik sortu, nahiz badakiten han zer diren **gerla zibilak**.

Herria

## 5 mundu gerla ik gerra 8.

II. mundu **gerla** ondoan. Piarres Xarriton

Bigarren mundu **gerla** denboran. Michel Oronoz

Mundu **Gerla** arma atomiko berriei esker irabazi berri zelarik. Piarres Xarriton

Uste gabetarik bezala piztu zuten **Mendebaldeko** gerlarik handiena, 1914ko I. Piarres Xarriton

**Mundu** Gerla, XX. mende hasieran. Piarres Xarriton

Bai 1914-1918ko Lehen **Mundu Gerlakoa**, amaxi Marie-ren anaia bat hil baitzen frentean, eta bai 1939-1945eko Bigarren **Mundu Gerlakoa** ere, aitaren familia nazien kontrakoa zenez. Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

algeriako gerla (12); algeriako gerla eta (4); aljeriako gerla (13); aljeriako gerla denboran (4); arteko gerla (23); aurkako gerla (4); azken gerla (6); baina gerla (9); baita

**gerla** (5); **berriz ere gerla** (6); **beste gerla** (9); **beste gerla bat** (4); **bi gerla** (13); **bigarren gerla** (25); **bigarren gerla denboran** (5); **da gerla** (18); **dela gerla** (4); **den gerla** (12); **diren gerla** (7); **ditu gerla** (4); **du gerla** (5); **duen gerla** (6); **dute gerla** (5); **edo gerla** (5); **eko gerla** (36); **ere gerla** (14); **espainiako gerla** (14); **espainiako gerla denboran** (6); **eta gerla** (43); **ez gerla** (8)

**gerla aintzin** (5); **gerla aintzineko** (4); **gerla aitzin** (4); **gerla baino** (4); **gerla bat** (18); **gerla batean** (7); **gerla baten** (19); **gerla bera** (5); **gerla berriz** (5); **gerla beti** (4); **gerla bururatu** (23); **gerla bururatu eta** (4); **gerla bururatu zelarik** (5); **gerla bururaturua** (4); **gerla deklaratu** (4); **gerla dela** (4); **gerla denbora** (8); **gerla denborako** (9); **gerla denboran** (93); **gerla denboran eta** (4); **gerla egin** (14); **gerla egina** (6); **gerla eta** (48); **gerla eta euskal** (5); **gerla ez** (15); **gerla ez da** (5); **gerla ez zen** (5); **gerla ezagutu** (4); **gerla galdu** (4); **gerla garaian** (5); **gerla gelditu** (4); **gerla gorria** (9); **gerla guzietako** (6); **gerla guzietako hilentzat** (4); **gerla guzietan** (8); **gerla handia** (4); **gerla handian** (6); **gerla handiaren** (6); **gerla handiko** (5); **gerla hartan** (12); **gerla hartaz** (5); **gerla hasi** (11); **gerla hau** (11); **gerla hori** (26); **gerla horrek** (7); **gerla horren** (13); **gerla hortan** (10); **gerla hotzaren** (4); **gerla hura** (13); **gerla irabazi** (5); **gerla izan** (8); **gerla izigarri** (6); **gerla izigarria** (4); **gerla jin** (4); **gerla mota** (6); **gerla ondoa** (5); **gerla ondoan** (11); **gerla ondoko** (13); **gerla piztu** (9); **gerla saildua** (6); **gerla solas** (6); **gerla tzar** (4); **gerla zen** (5); **gerla zer** (4); **gerla zer den** (4); **gerla zibil** (7); **gerla zibila** (31); **gerla zibilak** (5); **gerla zibilaren** (6)

**golkoko gerla** (5); **hamalauko gerla** (5); **hango gerla** (4); **holako gerla** (6); **irak eko gerla** (7); **irakeko gerla** (13); **irakiako gerla** (19); **irakiaren kontrako gerla** (6); **irakiari gerla** (4); **ko gerla** (9); **kontrako gerla** (17); **mundu gerla** (21); **mundu gerla denboran** (5); **nafarroako gerla** (6); **urte gerla** (6); **urteko gerla** (4); **zen gerla** (17); **ziren gerla** (4); **zuen gerla** (7); **zuten gerla** (11)

**algeriako gerlan** (4); **aljeriako gerlako** (4); **aljeriako gerlan** (7); **aljeriako gerlaren** (5); **aljeriako gerlatik** (5); **aljeriako gerlatik landa** (4); **aljeriako gerlaz** (6); **arteko gerlak** (5); **bere gerlako** (4); **bi gerlen** (5); **bigarren gerlaren** (4); **dira gerlaren** (4); **eko gerlan** (7); **eko gerlaren** (5); **eko gerlatik** (9); **eko gerlatik landa** (8); **espainiako gerlaren** (5); **eta gerlak** (9); **eta gerlako** (10); **eta gerlaren** (9); **eta gerlarik** (4); **gerlak eta** (6); **gerlako hilen** (10); **gerlako tresna** (7); **gerlan ari** (10); **gerlan eta** (6); **gerlan ez** (4); **gerlan hil** (8); **gerlan hilen** (9); **gerlan izan** (5); **gerlara joan** (5); **gerlaren berri** (5); **gerlaren bururatzea** (4); **gerlaren gatik** (10); **gerlaren kontra** (21); **gerlaren kontrako** (7); **gerlaren ondorioz** (5); **gerlaren ondotik** (17); **gerlari buruz** (6); **gerlari ez** (4); **gerlarik ez** (17); **gerlarik ez dadin** (3); **gerlarik gabe** (4); **gerlatik landa** (28); **gerlaz eta** (4); **gerlen ondotik** (4); **gerletan hil** (6); **irakiako gerlaren** (6); **mundu gerlako** (5); **mundu gerlaren** (8)

## gerlabide *(orobat gerla(-)bide)* iz gerraz baliatzen den bidea.

Irakeko diktadoreari amore emanarazi beharrez, beren populuen iritzia enganatuz, **gerla**-bideari fidatu zaizkion Ameriketako eta Europako zenbait estatuburu.  **Piarres**

 **Xarriton**

Miseria handia edo **gerla** bideak jasaiten dituztenek.  **Herria**

Hango gerla eta **gerlabideekin**, ez duela gehiago herri "saindu" horrek beilari eta bisitari miseria bat baizik.  **Herria**

Maleruski 1512an **gerla** bidez hartu zūan Fernando Errege Katolikoak, eta 1515ean Gaztelari [...] lotu.  **Herria**

Ezin du nehork zaindu bere burua **gerlabidez**; atzoko etsaiekin bakea behar da eraiki.  **Piarres Xarriton**

### gerlaño iz gerratxoa.

Kontrabandak **gerlaño** bat iduri baitu.  **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## gerlaontzi *(orobat gerlauntzi)* iz gerraontzia.

Donostiako golkoan ainguratutako **gerlaontziek** eta Damen Bateriakoek hogei kanoikada bota omen zituzten.  **Txillardegi**

Eta zamauntzi eta **gerlauntzi** bat baino gehiago hondatu eta hondoratu izan zela.  **Joan Mari Irigoien**

## gerlari 1 iz gerraria, gudaria.

Ez beraz, otoi, guri aipa berriz **gerlaren** osperik ez **gerlarien** adorerik.  **Piarres Xarriton**

Brasidas Spartako **gerlari** zuhurra.  **Itxaro Borda**

**Gerlari** ospetsuenek, hala nola Montgomery ingeles jeneralak.  **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ostrogodoen ondotik, IX. mendean iritsi ziren sortaldetik magiar **gerlariak**, gero Hungaria izendatuko zen lurraldera.  **Patziku Perurena**

Irlandar **gerlari** guztien aurrean.  **Joanes Urkixo**

Breifne klanetako **gerlariak**.  **Joanes Urkixo**

Berrogeita hamar mila **gerlari** zalditeriakoak ziren.  **Karlos Zabala**

Hansek hautaturiko **gerlari**-bizitzak.  **Hasier Etxeberria**

Migel Goiaingerua **gerlari** jantzian eta ezpata eskuinean duela.  **Pello Zabala**

### • 2 izond

Pederastia herri **gerlarien** bizioa izan da beti.  **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Oso gizon arriskutsua dela, eta, beraz, oso preziatua gobernu **gerlari** edo errepublikar batean.  **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Heroi **gerlariak** su ematen dio behiala bizia arriskatuz salbatu zuen hiriri...  **Bernardo Atxaga**

Harro mintzatu zen neska **gerlariez**.  **Xabier Aranburu**

Baina, ez al naiz menturaz Eorlen Etxekoa, birjina **gerlaria**, eta ez inude hutsa?  **Agustin Otxoa**

Heriotza jolas gisa ikustearen poderioz bihurtu zen herri hura **gerlari**.  **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 3 gerlari ohi

Astelehena 19, 10.30etan herriko **gerlari** ohien meza.  **Herria**

Bazen bulta bat bera baino hamabost urte zaharrago zen Bettan **gerlari**-ohia gibeletik zuela neskatzak.  **Itxaro Borda**

Jean Etxepare medikuaren eta 1914-18ko **"gerlari** ohi" gehienen arabera.  **Piarres Xarriton**

**Gerlari** ohi medailadunen prozesioekin.  **Piarres Xarriton**

Oxobik sumatzen zuela, bere **gerlari** ohi lagun anitzek ez bezala, goiz edo berant, politikak gaina hartzen ahal ziola **gerlari** eta indarkeriari.  **Piarres Xarriton**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aljeriako gerlari** (9); **aljeriako gerlari ohi** (3); **aurkitu dire gerlari** (3); **bakezale gerlari** (5); **bakezale gerlari horiek** (4); **behasteguy gerlarien** (5); **behasteguy gerlarien lendakariak** (4); **bere gerlari** (4); **bere gerlarien** (3); **beste gerlari** (4); **bi gerlari** (3); **dire gerlari** (3); **dontzeila gerlaria** (3); **dozenaka gerlari** (3); **eta gerlari** (19); **eta gerlari ohien** (5); **eta gerlariak** (3); **gerlari ausarta** (3); **gerlari batek** (6); **gerlari baten** (4); **gerlari batzuk** (3); **gerlari guztiak** (5); **gerlari guztien** (4); **gerlari guztien hilobiez** (3); **gerlari haiek** (3); **gerlari handiak** (4); **gerlari horiek** (5); **gerlari ohi** (32); **gerlari ohi eta** (4); **gerlari ohi multxo** (7); **gerlari ohia** (7); **gerlari ohiak** (17); **gerlari ohiak beren** (3); **gerlari ohiak** (13); **gerlari ohien** (44); **gerlari ohien biltzarra** (3); **gerlari ohien meza** (5); **gerlari ohien ohoretan** (3); **gerlari zuria** (3); **gerlarien artean** (5); **gerlarien lendakariak** (4); **gerlarien lendakariak irakurtu** (3); **gerlarietako batek** (4); **heike gerlari** (4); **herriko gerlari** (6); **herriko gerlari ohien** (5); **hiru gerlari** (3); **irlandar gerlari** (3); **jantzitako gerlariak** (3); **mila gerlari** (3); **ondotik gerlari** (3); **pierre behasteguy gerlarien** (4); **presoner eta gerlari** (3); **zeuden gerlari** (3); **ziren gerlari** (4); **zuen gerlariak** (4)

## gerlati *izond* gerlazalea, liskartia.

Gizon gaitzak eta ondikozkoak, **gerlatiak** eta maliziatik, okasinotsuak eta inkontru gaixtokoak.  **Joan Mari Irigoien**

## gerlatoki iz gerra egin den tokia.

Beldur hori Balkaneko **gerlatokietarik** etorria zen.  **Herria**

**Gerla** -tokietarik bidaltzen zituzten artikulua. Piarres Xarriton

**Gerlatoki** izanak Osijek inguru horiek, serbo-kroatan bonbardamendu eta hilketek 1.100 zibil ere hil zituztelarik 1991an auzo-hiri Vukovar delakoan. Herria

## gerlatxo iz gerratxoa.

Aspaldian hasia den Chirac eta Jospin-en arteko **gerlatxoa**, mindu da pixka bat joan den astean. Herria

Telebixtak: hain zuzen, bertze **gerlatxo** bat bizi dugu egun hauetan. Herria

## gerlazale izond gerrazalea, gerlaren zale dena.

**Gerlazaleen** artean president-ordea, Dick Cheney. Herria

Azkenean Colin Powell agertzen da gehienik, baina ez da denen artean **gerlazale** amorratuena. Herria

Aipatzen zuten Bush-ek eta haren inguruan diren **gerlazaleek** arma ikaragarriak. Herria

## germaniar 1 izlag Germaniakoa, Germaniari dagokiona.

Horren jatorria **germaniar** herrien ohituretan ikusten dut. Iñaki Iñurrieta

Uztailaren 1erako judu guztiek **germaniar** herrialdeetatik alde egin beharko dutela esan du hitzaldi batean. Josu Zabaleta

Arraza **germaniarren** garaitasunaz eta arraza latindarren endekapen eta gainbeheraz. Joxe Azurmendi

Nazio **germaniarrek** erromatar inperioa konkistatu zutenean. Iñaki Iñurrieta

SS-Ahnenerbeko **germaniar** musika ataleko arduraduna. Alberto Ladron Arana

Mendebaldeko **germaniar** hitz batetik dator. Iñaki Mendiguren

**Germaniar** Inperio Santua etxe handi hondatu bat baizik ez da segituan izango. Koro Navarro

### • 2 iz Germaniako herritarra.

Zesarrek, **germaniarrekin** gerran ari zelarik, **germaniarren** ohiturak deskribatu zituen. Iñaki Iñurrieta

**Germaniarren** legeen espiritua diru-zigorretan ageri da. Iñaki Iñurrieta

**Germaniarren** idazkera zaharrenaren zeinu edo karaktereak. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**germaniar** bat (3); **germaniar eta** (5); **germaniar kutsu** (3); **germaniarren artean** (4); **germaniarren legeen** (3)

## germaniartasun iz germaniar denaren nolakotasuna.

Lapouge-ri segituan atxiki zaio Alemanian zenbait "antropologo" eta hainbat literatura "völkisch" sutsu, **germaniartasunerako** erreklamatu inoiz Europan egon den figura inportante oro. Joxe Azurmendi

## germaniartu, germaniar(tu), germaniartzen da/du ad germaniar bihurtu.

Bitxia da, esate baterako, *La leyenda de Jaun de Alzate*-n, adibidez, euskal arima eta mitologia nola **germaniartzen** duen, Orti eta Thor berdinduz, bertute nietzschearez adalatu, etab., etnografikoki itxuragabekoa, baina erakusleihu polita Baroja-ren beraren arimarentzat. Joxe Azurmendi

Naziek ere, arraza garbiaren paranoia hartan, Polonian-eta bahitzen zituzten haurrak, **germaniartzeko**. Jokin Urain

## germaniera iz germaniar hizkuntza.

Sanskritoak **germanierarekin**, grezierarekin, latinarekin eta abarrekin zituen erlazioak aztertu zituen. Isabel Arrigain

Merkatari judutarrek pertsieraz, grekeraz, arabieraz, **germaniera** ugaritan, espainieraz, eta eslaboz ere hitzegiten omen zuten garai hartan. Patziku Perurena

## germaniko 1 izond germaniarra.

Jacob Grimm, ikasketa **germanikoen** sortzailea. Isabel Arrigain

Hizkuntza **germanikoen** kasuan. Isabel Arrigain

Hitz **germaniko** asko. Isabel Arrigain

Gauza berbera herrialde **germanikoetan**. Patziku Perurena

Esku fin eta trebeak zeuzkan, ahots lakarra eta elkarrizketa azkarra, matrailezur **germanikoa**. Eider Rodriguez

### • 2 iz germaniera.

**Germanikoa**, eslabieraren eta zeltikoaren artean dagoen eraztuntzat har dezakegu. Isabel Arrigain

Orainaldiaren balioa desberdina baita **germanikoan**. Isabel Arrigain

Horrelako zerbait gertatu zen halaber antzinako **germanikoan**. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hizkuntza germanikoen** (3)

## germanista 1 izond Germaniaren aldekoa.

Alemanian eskutik helduta ibili ohi dira halako para-zientziak mugimendu **germanista** eta arrazistekin. Alberto Ladron Arana

Hasieran Hermann Wirth historialari **germanistaren** eta, geroago, Wolfram Sievers doktoarearen agindupean. Alberto Ladron Arana

### 2 iz germaniar hizkuntzetan aditua den hizkuntzalaria.

Eta **germanistak**, errealitateari atxikiagoak zeudenak, lehen indoeuropeistak heldu ez ziren ikusmoldeetaraino heldu ziren. Isabel Arrigain

Berehala eskola berri bat sortu zen, Neogramatikariena hain zuzen; horren buru guztiak Alemaniakoak izan ziren: K. Brugmann, H. Osthoff, W. Braune eta E. Sievers **germanistak**, Leskien eslabista eta abar. Isabel Arrigain

## germano 1 *izondg.* Germaniari dagokiona.

Bi hizkuntza multzoen arteko muga **-germano** -eslaboa, esaterako- hartzen dugunean aintzakotzat. [Isabel Arrigain](#)

## • 2 *iz* germaniarra, Germaniako herritarra.

Eslabiarrek ez **germanoak** ez dira mugitu gabe egon; migratu dute, eta batzuek besteen lurraldeak konkistatuz ibili dira. [Isabel Arrigain](#)

## germanofilia *iz* Alemaniaren eta alemanen aldeko begikotasuna.

Madriren sekulako moda ei zen **germanofilia**. [Joxe Azurmendi](#)

## germanofilo *izond* Alemania eta alemanak begiko dituen.

Aliatuen propagandaren akatsez eta jarrera **germanofiloaren** zergatiak. [Edorta Jimenez](#)

Beti esaten da, Ortega arras **germanofiloa** zela. [Joxe Azurmendi](#)

Gurago dudala **germanofilo** izaerako banakoak eta horien jarduerak zaindu, komunistak eta komunistenak baino. [Edorta Jimenez](#)

## germanofono *izond* germaniar hizkuntza batean mintzaten dena.

Herri **germanofonoen** lorpen artistikoak eta intelektualak. [Askoren artean](#)

## germen *iz* eritasunak sortzen edo hedatzen dituen mikroorganismoa. **ikernamuin**.

Txertoaren bidez gaixoak **germen** jakin bati aurre egiteko bidea izaten du. [Berria - Euskal Herria](#)

Humoreen eta **germenen** fisiologian. [Xabier Arregi](#)

**Germenen** teoria. [Xabier Arregi](#)

Nork esango zuen 1850ean, Pasteur-en eta Koch-en aurretik, eritasun kutsakorrek, azken batean, **germen** espezifikoko batzuen erasotik zetozela? [Juan Garzia](#)

Heriotz-hozi edo **germenak**. [Berria - Kultura](#)

## germinal *iz* ernamuinarena, ernamuinari dagokiona.

Genetikak organismoen planoan aztertzen du; leinu **germinalak** transmitituriko gene sorta batek dauka bere baitan plano hori. [Juan Garzia](#)

Are zelula **germinaletan**. [Juan Garzia](#)

Aldaketa hori barrabil barruan sortzen da, zelula **germinala** (46 kromosoma dauzka) ugaltu eta bi zelula sortzen direnean. [Berria - Gaiak](#)

## gernikar *izlag/iz* Gernikakoa, Gernikari dagokiona; Gernikako herritarra.

Mugarra mendian (Bizkaian) zendu da 32 urteko **gernikar** gazte bat, eroriko bat eginik. [Herria](#)

Gazte **gernikarrak**, izan ere, ez du oraindik deklaraziorik sinatu. [Berria - Euskal Herria](#)

Oskillaso **gernikar** idazleak 60ko hamarkadan idatzi zuen nobela berreskuratu du Arejitak. [Berria - Kultura](#)

Virginia Berasategi triatleta **gernikarra** pozez gainezka dago. [Berria - Kirola](#)

Luis Iriondo **gernikarrari** egokitu zaio anfitrioi lanak egitea. **Gernikarrentzat** eguzkia santu eta bedeinkatua da; ondarrutarrentzat, "Santa Klara". [Pello Salaburu](#)

Gogora dezagun **gernikarrak** esana: "Eta orduan zer gertatu zen?" [Itxaro Borda](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gernikarrak irabazi** (3)

## gernu 1 *iz* giltzurrunei darien isurkari horixka, maskurira biltzen dena eta gernubidetik kanporatzen dena.

**Gernua** da urea gorputzetik ateratzeko garraibidea, giltzurrunek sortzen duten jariakin bat. [Irene Aldasoro](#)

**Gernuarekin** nahasitako giza gorotz ustelaren kirats higuigarria. [Harkaitz Cano](#)

Kiratsa zetorren arrotik, paperolaren **gernu** karmina fonderiaren berotasun itogarriari gain hartuz. alkimistek fosforoa **gernutik** ateratzen zuten garai haietara itzuliko banintz bezala. [Koldo Izagirre](#)

**Gernua** belzteia ezaugarri nabarmen duen gaixotasuna. [Juan Garzia](#)

80 mililitro **gernu** eman behar izan zituzten analisiak egin ahal izateko. [Berria - Kirola](#)

Oso erraz detektatzen da glukosa **gernuan**. [Irene Aldasoro](#)

Edandako hogeita hamar gramo alkoholeko, hirurehun gramo **gernu** gehiago produzitzen da. [Irene Aldasoro](#)

## 2 (hitz elkartuetan)

Animaliak artega mugitu dira **gernu** usaineko ilunpe epelean. [Patxi Iturritegi](#)

**Gernu** -kirats larria darion giroan. [Oskar Arana](#)

Etsaiaren **gernu** eta gorotz sunda nazkagarriari. [Harkaitz Cano](#)

Zure **gernu** isuria. [Aingeru Epaltza](#)

Marihuana erre zezakeen, Jai Alaiako odol eta **gernu** azterketek salatuko ote zuten beldurrik gabe. [Xabier Montoia](#)

**Gernu** analisiak egiteko laginak. [Berria - Kirola](#)

**Gernu** -ekoizpena murrizten du. [Irene Aldasoro](#)

Nire **gernu** -aparatuari. [Aingeru Epaltza](#)

**Gernu** -inkontinentzia edo maskuriaren hustea kontrolatzeko ezintasuna. [Irene Aldasoro](#)

**Gernu** tantak, urratuko eta sakailako odola. [Pello Lizzaralde](#)

-Katu-**gernuaren** urrin mina. [Aingeru Epaltza](#)

## 3 *gernu debeku* gernua kanporatzeko eragozpena.

Errotariaren alaba gaixo zegoen; sabela handituta zuen, eta sabeleko handitu hori **gernu-debeku** batez okerragotu zen. [Josu Zabaleta](#)

-Gibeleko gaixotasun bat du, kronikoa, larria -erantzun zion Andresek, ohetik urrunduz, neskak entzun ez zezan -; hidropesia **gernu-debekuarekin** okertu da orain. [Josu Zabaleta](#)



**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gernu** (3); **eta gernua** (5); **eta gernua sortzeko** (3); **gernu analisi** (3); **gernu analisiak** (5); **gernua eta** (7); **gernua sortzeko** (3); **gernua sortzeko gai** (3); **iragazi eta gernua** (3)

## gernubide *iz* gernua kanporatzen den hodia.

Han hankarteko zerak dantzatu behar dira, **gernubideak** eta unibertso ezkutuetaکو zulo beltzak, eta begia eta hizpidea hankartean jarri ezker, ez dago bi sexuak berdintzeko modurik. **Iñaki Seguro**

## gernuki *iz* urea.

Honen ganik entzuna du Piarresek nola, **gernukia** edo urea bazuela jakitearekin oroitzen **urearekin** uremia biltzen zela eta uremiarekin burua galtzen. **Xipri Arbelbide**

## gernuontzi *iz* gernu ixurketa jasotzeko ontzia. ik **pixontzi**.

Bagenituela gazteluan, geure sabel-maskuri larrien sosegatzeko, portzelanazko bi kakontzi -edo pixontzi, edo **gernuontzi**.. edo bazina, nola deitzen baitzion amak-. **Joan Mari Irigoien**

## gero *adlag* (ik. *beheko konbinatoriangero adizlagunaren agerraldi maizkoenak*)

### 1 (izen gisa) etorkizuna.

Akademikoen **gezurtapena**, zeregin horretan etengabe aritzea beti, eta **gezurtapenak** jasan ezinik indarkeriarako joera izatea, gainera. **Jon Muñoz**

Hortik heldu diren zalantzak argitzeko eta egiten zaien **gezurtapenaren** nabarmentasuna saihesteko ere **Xabier Kintana**

## gezurtaratu, gezurtara(tu), gezurtaritzen du *ad* engainatu.

Oraindik ez zekiat... -ume bat bera ez **gezurtaratzeko** moduan. **Txillardegi**

## gezurтари 1 *izond* gezurtia.



Jokollari onak baino gehiago: Jean Pierre Marielle (jenerala) eta Carole Bouquet (maztea) ederra bezain **gezuraria**. **Herria**  
Bush presidentak aste hontan behar zituen agertu eskutan dituen frogak Saddam Hussein **gezurari** tzar bat dela. **Herria**

## 2 (adizlagun gisa)

Ez baitzuen karabineruen eretzian semia **gezurari** agertarazi nahi. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## gezuratu, gezurta, gezurtatzen 1 du *ad* zer bait gezurra adierazi edo frogatu.

Avellanadak dioena **gezuratzeko**. **Patxi Ezkiaga**  
PSE-EE eta PPko zinegotziek esandakoak **gezuratzeko**.  
Irribarre zuriak zion **gezuratzaren** mintza-doinuak adierazten zuen ustekabea. **Aingeru Epaltza**  
Kontra daudenen irakatsiak **gezuratzeko** gai izan dadin. **Elizen arteko biblia**  
Maitasun berriak adiskidetasun zaharren kalte direlako topikoa **gezuratzeko** egokiera genuen eskura. **Aingeru Epaltza**  
Europar barna egindako balentriak **gezuraturik** ziren. **Edorta Jimenez**  
Teoria hauek oraindik egiaztatu edo **gezuratu** ez direlarik, biek dituzte zeinek beren alde onak eta baliagarritasuna. **Josu Zabaleta**  
Batean baieztatzen zutena bestean **gezuratzaren** zuten. **Lutxo Egia**  
Errealitateak, ordea, haien errana **gezuratzaren** zuen. **Elena Touyarou**  
Zizeronen beste hainbat irizpide **gezuratu** beharko dituzu. **Imanol Unzurrunzaga**  
Begira zeinen erraz **gezuratzaren** den zure definizioa. **Imanol Unzurrunzaga**  
Baina uko egiten zieten geometrek haien ebazpenak **gezuratzeko** erabilitako arazoiei. **Jon Muñoz**  
Zinez behar nituen haien argumentazioak **gezuratu**, egia aurkituaren etsipena indartu nahi baitzuten nigan. **Imanol Unzurrunzaga**

## 2 ezin gezurtatuzko

Eta ezin **gezuratzuzko** frogak aurkeztuko ditut. **Jose Morales**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adierazpenak gezuratu (4); akusazioak gezurtatu (3); albistea gezurtatu (3); berehala gezurtatu (3); bertsioa gezurtatu (4); bertsioa gezurtatu dute (3); edo gezuratu (3); egiaztatu edo gezurtatu (3); erabat gezurtatu (12); erabat gezurtatu zuten (6); ere gezurtatu (3); esandakoa gezurtatu (3); ez gezurtatu (4); ez zuten gezurtatu (3)  
gezuratu behar (3); gezurtatu behar izan (3); gezurtatu ditu (6); gezurtatu dituzte (4); gezurtatu du (12); gezurtatu dute (12); gezurtatu egin (96); gezurtatu egin ditu (6); gezurtatu egin du (29); gezurtatu egin dute (11); gezurtatu egin zituen (8); gezurtatu egin zuten (33); gezurtatu egin zuten (4); gezurtatu egiten (9); gezurtatu egiten dute (3); gezurtatu eta (10); gezurtatu nahi (7); gezurtatu nahi izan (4); gezurtatu zituen (15); gezurtatu zituzten (5); gezurtatu zuten (40); gezurtatu zuten (11)  
guztiak gezurtatu (6); guztiak gezurtatu zituen (4); hitzak gezurtatu (3); hori gezurtatu (20); hori gezurtatu egin (5); hori gezurtatu du (3); hori gezurtatu zuten (4); horiek gezurtatu (4); informazio hori gezurtatu (5); izana gezurtatu (4); izatea gezurtatu (3); ordezkariak gezurtatu (3); ordezkariak gezurtatu egin (3); salaketak gezurtatu (3); zuten gezurtatu (3)  
gezuratzaren du (7); gezuratzaren dute (4); gezuratzaren duten (3); hori gezuratzeko (4); hori gezuratzaren (3)

## gezuratzeko iz zer bait gezurra adieraztea edo frogatzea.

Berdin zitzaizkien Al Kaedaren errebindikazioa, ETAren **gezuratzeko** -agiria, erabilitako lehergai mota. **Txema Ramirez de la Piscina**  
Hala, asteetako baieztatze eta **gezuratzeko** kateari amaiera eman zion ospitaleko zuzendariak. **Berria - Mundua**

## gezurtegia iz gezurtegiak biltzen diren tokia.

Paradoxikoki Aristofanesen kritikak ez ditu sofistak bakarrik hartzen jomugatzat, Sokrates baita irakasle sofista eta **Gezurtegia** Sokratesen eskola. **Askoren artean**

## gezurterria iz gezurterriaren jarduna.

Trebetasunen artean **gezurterria** sinesgarria nagusitzen zaio, ia-ia enbaxadorearena adinako izan ohi dena. **Xabier Olarra**

## gezurtero (ETCn 121 agerraldi) iz adkor gezurterria.

Robert Graves handia, eta **gezurtero** galanta ere bai. **Karlos Zabala**  
Artista behar du izan **gezurteroak**. **Hasier Etxeberria**  
Doazela pikutara hipokrita eta santujale horiek guztiak, **gezurteroak, gezurtero** hutsak besterik ez dira. **Karlos Zabala**  
**Gezurtero** portatu nahi ez badugu. **Pello Zabala**

## gezurterotza iz adkor gezurterroaren jarduna.

Aurreko hori dena, eguraldiaz mintzatzean, **gezurterotzan** ez baina datu zehaztuta ere jardun gaitzkeela baieztatzen. **Pello Zabala**

## gezurtegi (ETCn 1.637 agerraldi) 1 izond/iz gezurtegiak esaten dituen, gezurrez mintzo dena. (pertsonei buruz) ik gezurtegiak; gezurtero; faltsu; ik gezur 15.

Sasikume **gezurtegi** bat sentitu nintzen. **Aingeru Epaltza**  
Zeren beldur bainaiz pikaro **gezurtegi** hutsa ez ote zaren. **Joan Mari Irigoien**  
Gizon guztiak, **gezurtegi** hutsak. **Xabier Olarra**  
Lajos **gezurtegiaren** bidez. **Ander Irizar**  
**Gezurtegiak** ez dute inolako sinesgarritasunik. **Eduardo Elizondo**  
**Gezurtegi** guztiak bezala, memoria laburra zuten. **Koro Navarro**  
Beraz, **gezurtegi** naizela uste duzu. **Ramon Saizarbitoria**  
Mundu guztiak zekien Nozdriov **gezurtegi** porrokatua zela. **Jose Morales**  
Inork halakorik kontatuko balit, **gezurtegi** zikin bat dela esango nioke! **Koro Navarro**  
**Gezurtegiaren** paradoxa famatua. **Iñaki Seguro**  
Espiritu zital eta **gezurtegiaren** eraginpean. **Imanol Unzurrunzaga**

## • 3 izond (gauzei buruz)

Zeren, bihotz gogorrek mingain **gezurtegi** baitu. **Xabier Olarra**

Entzun ere omen nuen hain aho **gezurti** hartarik jalgitako ezer. Koldo Izagirre  
Ehizatzen zituen animaliak oro negar **gezurtien** artean irensten baitzituen. Karlos Linazasoro  
Itxurakeria **gezurteie** erreparatu gabe. Imanol Unzurrunzaga  
Nazioan eurrez zabalduta dauden argien aurrean, isildu egiten da ezjakintasun **gezurtia**. Juan Martin Elexpuru  
Betiko topiko **gezurteikin** aurrera eta atzera. Ramon Saizarbitoria  
Sentimen **gezurrietatik** sortua. Xabier Amuriza  
Zentzumen **gezurtia** zein zen galdetzen hasi zen, ukimena ala ikusmena. Xabier Olarra  
Nola etxegintzan, hasierako erregela okerra bada, eta eskuaira **gezurtiak** elkarzuta zaintzen ez badu [...]. Xabier Amuriza

## 2 (adizlagun gisa)

"Akats tipografikoarena" kontatu nion, **gezurti** gelditzeko beldurrik gabe. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bezain gezurtia** (3); **eta gezurti** (9); **eta gezurtia** (4); **eta gezurtitza** (3); **gezurti bat** (13); **gezurti deitu** (4); **gezurti eta** (10); **gezurti halakoa** (3); **gezurti handia** (3); **gezurti hutsa** (6); **gezurti hutsak** (3); **gezurtia eta** (5); **gezurzia halakoa** (3); **gezurzia naizela** (3); **iragarpen gezurtiak** (3)

## gezurtu, gezur(tu), gezurtzen du *ad* gezurra esan. ik **gezurtau**.

-Saraqueta Armendaritz **-gezurtu** nuen berriz-. Aingeru Epaltza

## gezurtxo *iz* gezur txikia.

Aski nuen horretarako **gezurtxoren** bat asmatzea. Hasier Etxeberria  
Biziko bagara, derrigorrez sinetsi beharreko **gezurtxoa**. Joxerra Garzia  
Baina beste era bateko **gezurtxoez** mintzatu nahi nuke gaur. Harkaitz Cano

## ghanatar (*ETCn 35 agerraldi; orobat ghaniar ETCn 2 agerraldi*) *izlag* Ghanakoa, Ghanari dagokiona; Ghanako herritarra.

Jatorri **ghanatarra** zuen ikuskatzailearen hilketa. Berria - Mundua  
Liburuko ataletako batek Pita izeneko **ghanatarra** du pertsonaia nagusi. Berria - Kultura  
37 etorkinetatik 27, **ghaniarrek** denak, herriratu zituzten atzo. Berria - Mundua  
Yaw **ghaniarra** eta Pürk austriarra. Berria - Kirola

## ghettizazio *iz* ghetto bihurtzea.

**Ghettizazioa** eta bakartzea eragiten ari da Apartheid hesia; palestinarrek beren komunitateetatik bereizten ari da. Berria - Harian  
Nazioarte eta Munduko Bankua palestinarren **ghettizazioa** laguntzen ari dira. Horrela jokatu ezean, hainbat eta hainbat etorkinen **ghettizazioa** sustatzen ari da. Berria - Harian

## ghetto (*ETCn 1.219 agerraldi; orobat ghetto ETCn 12 agerraldi*) **1** *iz* Europako zenbait hiritan, juduak bizi behar zuten auzoa.

Pragako **ghettoa** duk. Urtzi Urrutikoetxea  
Venezia iparraldean, judutarren **ghettotik** nahiko hurbil. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Herri hau eraiki genuen eta gero, atzeritar askori, Europako kakari, Poloniako **ghettoetako** zaborrari, ez diogu inolako trabarik jarri hona etortzeko. Lopez de Arana  
**Ghettoko** judu ikaratu bezain gosez makalduak. Imanol Zurutuza  
Janovski **ghettoan** hil zutela entzun zuen, 1943 an. Iban Zaldua  
**Ghettoetako** jende bera aurkitzen zen ostera ere Manhattan behereko Orchard Street edota Hester Street-eko denda eta arropa lantegietan. Koro Navarro

## 2 bazterkeria guneetan bizi den jende multzoa; bazterkeriako egoera.

Guardia zibilen eta beren familien komunitatea -kuartela- benetako **ghettoa** zen. Agurtzane Juanena  
Gay eta lesbianak izanik, bikote hauek **ghettoan** bizitzeko joera dute? Berria - Euskal Herria  
Eta eguna **ghettoko** ostatueta finitzen zuten, mozkor arrailak, edozein uniforme bezititu bi zangodun karrikan gurutzatzean "putakumeak" leitmotiva ezpaineratuz. Itxaro Borda  
Gipuzkoan jatorriaren arabera biltzen dituzte umeak eskoletan, **ghetto** berriak sortuz. Berria - Euskal Herria  
Ikastetxe asko ijitoentzat **ghetto** bilakatzen dira. Berria - Euskal Herria  
Euskararekin **ghettoak** sortu ditugu, konturatu zara honetaz? Pello Salaburu  
Protesta egitekotan egon nintzen hasiera batean, gizarte-saileko euskarazko **ghettotik** atera gaitzaten. Joxerra Garzia

## 3 (hitz elkartuean)

Langile-**ghetto** bat oihal-fabrika baten inguruan eraikia. Joseba Urteaga  
Merkatarien elkarteek «lurraldea basamortu bihurtu eta hiri-**ghettoak**» sortzeko arriskua dagoela salatu dute. Berria - Ekonomia

## ghettotar *adlag* gethokoa.

Marjinazioko lagunarte kultural txiroagoan kausituko da, estuago, erkinago, irtenbidegabekoago, zailagoan, eta -gura baduzu- baita oro har humanoki ziztrinagoan ere beharbada, **ghettotarragoan** alegia, Joxe Azurmendi

## GIB *iz* Giza immuno-eskasiaren birusaren sigla.

**GIB** Giza Immuno-eskasiaren Birusa ez kontrolatzeak sortzen dituen gizarte arazoak.  
**GIB** birusa dutenei. Berria - Gaiak  
**GIB** birusaz kutsatu zirenen %5,5 sexu harremanen bidez kutsatu ziren. Berria - Gaiak  
Haien seme-alabak **GIB** birusaz jaiotzeko arriskua dutela. Berria - Gaiak  
**GIB** eta hiesdun askok. Berria - Harian  
Gure auzoko arrantzale-herriaz ere berdin esaten da, bera dela **GIB** birusdun gehien dituen. Edorta Jimenez

# GIBdun iz Giza immuno-eskasiaren birusa duen pertsona.

Lan munduan murgiltzeko, esaterako, arazoak dituzte **GIBdun** askok. **Berria - Harian**

Nafarroan **GIBdunak** Nafarroako Hiesaren Aurkako Batzordean eta Sare elkarteetan batzen dira. **Berria - Harian**

**GIBdunentzat** eguneroko ogia dira birusak eragiten dituen arazoak. **Berria - Harian**

Gero eta emakume **GIBdun** gehiago dagoela azaldu du Gabriel Inclinek. **Berria - Euskal Herria**

**GIB** eta hiesdun askok. **Berria - Harian**

## gibel<sup>1</sup> 1 iz atzea, atzeko aldea.

EHuneko honen **gibelak** aski gauza desberdinak estaltzen ditu. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Haren bi behatz lodiek lepo **gibela** ferekatu zidaten. **Aingeru Epaltza**

Kopetako izerdia esku-**gibelaz** lehortu zuen. **Itxaro Borda**

Esku-**gibelez** halako kolpea eman zion, non lurrera bota baitzuen trapu bat bailitzan. **Koldo Biguri**

## 2 (leku atzizkiekin)

Eta hala zituela jauregiak, aitzinaldeko erdialdean, ate printzipal bat, eta bertze bi, alboetan; **gibelean**, berriz, ate bakarra zuen. **Joan Mari Irigoien**

Argazkilaria **gibelean** neraman, hatsangaka. **Aingeru Epaltza**

Serge Isteque ere **gibelean** gelditu da 116 bozekin. **Herria**

Besotik herrestan eraman zuen **gibeleko** barneraino, eta gortina tiratu. **Elena Touyrou**

Goaitatu zuen bere etxean zegoen soldadua lokar zedin, eta **gibeleko** leiho batetik atera zen. **Elena Touyrou**

**Gibeleko** masta arrakalatu egin zen. *ik beherago* 17. **Felipe Juaristi**

Atsegin dugu **gibeleko** pilotari on baten mentura hor ikustea. **Herria**

Askotan gertatzen den bezala, **gibelekoak** dio irabazi aurrelariari, bigarren maileko xapelgo huntan. **Herria**

Behako bat **gibelera**, Auritz eta Aurizperriko haranei. **Piarres Aintziart**

Urrats bat aitzina eta bi **gibelerat**. **Filipe Bidart**

Lehenik itzultzen zarete berriz **gibelera** joateko, eta gero, han, laugarren karrikan, ezkerrera hartu. **Aurelia Arkotxa**

Aintzinatzen ez dena **gibelerat** doa. **Herria**

1365eko azaroren 28an uzten ditu ere pasatzera hiru lagun, Konpostelatik **gibelera** heldu direnak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Haren izenean galdegiten dizut mezulariak berehala igor ditzazun **gibelera**. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Zepoan sartutako azeri sotil eta akituen pare ziren, aitzina ezin, **gibelera** ezin eta infernua bera etsai. **Itxaro Borda**

**Gibelerako** bidea Elur-ek gau hartan berean egin zuen akitu gabe. **Michel Oronoz**

"**Gibelerako** bidea" edo *Repli stratégique* delakoa gogoratzen zait eta beste karrika bat hartzea erabakitzen dut. **Piarres Aintziart**

Pantxok, **gibelerako** ispilutik begiztatu ditu lagunaren harat. **Aingeru Epaltza**

Polizia **gibele** dugu. **Itxaro Borda**

Ateko maratilaria kontzen ari nintzela hurbildu zitzaidan Klara **gibele**. **Aingeru Epaltza**

- **Gibele** gustatzen zaidak... **Itxaro Borda**

Niri behin baino gehiagotan eman dit **gibele** eta zinez neurri gabe gozatu dut beti. **Aitor Arana**

Agentziako bulegariaren mahaia **gibel-gibele** nuen; horrexek eragotzi zidan lurrera ziplo erortzea. **Aingeru Epaltza**

## 3 (leku atzizkiekin, -en atzizkiaren eskuinean)

Mendixka horren **gibele** daukat hiria. **Piarres Aintziart**

Hautetsi batzuek proiektu horren **gibele** abertzaleen helburua ikusten dute. **Berria - Harian**

Xuriketak egin ditut eta aterpearen **gibele** hesian dilindan ezarri. **Piarres Aintziart**

-Joder, Edu -aditu nuen neure **gibele**-. **Aingeru Epaltza**

Gu ere haien **gibele**. **Aurelia Arkotxa**

Eusebio, pasabideko jalgigunearen **gibele** barrandan zegoen. **Eneko Bidegain**

Aldare ttipitto baten **gibele** mintzo da erretorea hogei bat emazte bilo xuriei. **Piarres Aintziart**

Émilek betaurreko beltzen **gibele** behatzen zien, serio. **Aurelia Arkotxa**

## 4 (hitz elkartuetan leku atzizkiekin bigarren osagai gisa)

Baratze **gibele** den sotoko ate tipia irekirik utziko digula. **Aurelia Arkotxa**

Bentaren jabea sukaldeko ate **gibele** desagertu zelarik. **Elena Touyrou**

Haatik, buru **gibele** frangok darabilaten galdeak kanore hartzen du aurten. **Herria**

Galdera bat ba dut beti buru **gibele**: ba ote da hemengo jendea, kanpora joana eta itzultzen dena? **Herria**

Jauregi **gibele** paretari atxikirik. **Joan Mari Irigoien**

Barra **gibele** ispilutik, Tomasen hortz tiki zorrotek irriño egin zidaten, haren hatzak pistola. **Aingeru Epaltza**

Filma eder baten ikusteko parada ukanen dugu Herriko Etxe **gibele** salan. **Herria**

Noragabeen, etxe **gibele** jo du. **Aingeru Epaltza**

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zigorrek galtzaren **gibel** patrikan sartu dio eskua. **Eider Rodriguez**

Mendi zut batzuen **gibel** -muga zeukaten bi muinoren artean nintzen. **Koldo Izagirre**

Ezen errotaren kanala jauregiko **gibel** -hormari itsatsia eta eratzikia iragaiten zela. **Joan Mari Irigoien**

-Nire pinpirina! -jarraitu zuen Amatik, berbilaren **gibel** -mirailari begira. **Ramuntxo Etxeberri**

## • 6 *adlag* atzean.

Hiritik kanpora ginen jadanik, haiek aitzin eta ni **gibel**. **Aingeru Epaltza**

Bai aitzin eta bai **gibel** debekurik gabeko leku franko izan arren. **Aingeru Epaltza**

Nagorek ere, luzaz **gibel** egonik, bote batzu sartu ditu harrigarriak. **Herria**

## 7 atzera.

Ttatiit zegoen tabernako atean dudan, aitzin ala **gibel**? **Itxaro Borda**

Jo aintzin, jo **gibel**, eskuin eta ezker eta nehork amor ez eman nahi. **Herria**

Baina beranduegi zen **gibel** egiteko. **Itxaro Borda**

Hazparneko herriak **gibel** egin ondoan, jakiten da Euskal herria Zuzenean festibala Xiberoan egingen dela Mendiko Landan. **Herria**

## 8 *gibelago* atzerago.

**Gibelago** heltzeko. **Herria**

Hamar bat metro **gibelago** beste gizon bat, gazteagoa, handiagoa, azkarra. Marzel Etxehandi

Heluduen igandean, lau pondu **gibelago** den Perigueux-rekin lehiatuko da. Herria

Baina itzul gaitezen doi bat **gibelago**. Marzel Etxehandi

Horiek baino **gibelagotik** heldu ginen gu, adinez ere ikasleetan. Herria

- Elixabet eta Mattin **gibeltxago** geldituak ziren. Janbattitt Dirassar

## 9 aitzin-gibel<sup>1</sup> iz pl

Aristotelesen teoria hilemorfikoaren aitzin-**gibelak** buruz nekizkien orduko. Joan Mari Irigoien

Hiruzpalau gertakiren aitzin-**gibelak**, gure joan-etorri haren berri eman diezazuketenak. Joan Mari Irigoien

## 10 aitzin-gibel<sup>2</sup> adlag

Tripa kanpoan, zilkoa agerian, aitzin-**gibel** balantzaka, kikara eskuetan. Itxaro Borda

- Zuzeko zaldi bi, aitzin-**gibeleatarat** balantzaka ibiltzen zirenak. Joan Mari Irigoien

## 11 ez aitzin ez gibel ez aurrera ez atzera.

Baina mementu hartan ez aitzin ez **gibel** geratu zen apezka, burua hutsik. Joan Mari Irigoien

## 12 gibel asmo (orobat gibelasmo) azpikeria.

Autobusak Iruñen utzi nau eta han, **gibelasmoak** bultzaturik, huts egina nuen Magdalena zubira noa, Galbarioa ikusiz. Piarres Aintziart

**Gibelasmorik** gabeko aipua zen erabat. Aingeru Epaltza

Zuzenean ez bada, zirtoka; **gibel** -asmoz, ironia baliatuz. Anjel Lertxundi

Lehen erreazioan, **gibel** -asmoz ari ote zitzaidan pentsatu nuen, baina ez, aitzintzintzo ziharduen, irri abegikor bat ezpainetan. Joan Mari Irigoien

Irri zuri batez eman zion azkenburu esaldiaren nabarrari, **gibelasmoaz** inolako dudarik geldi ez zekidan. Aingeru Epaltza

Eta gaitz-erranka aritu zituan, aitaren asmoak **gibelasmoak** ez ote ziren... Joan Mari Irigoien

## 13 gibel-beldurti izond fidagaitza, mesfidatia.

Eta hartatik agertzen zituan herritarrek mesfidati eta **gibel-beldurti**, ez baitzuten sinesten balizko olaren balizko irabaziak lurraren jabetasunetik jaso izan zituztenak baino handiagoak izan zitezkeenik. Joan Mari Irigoien

Axularrek ere ugari darabil gibel kontua, baina, guzietan politena semantika zaharreko **gibel beldurti** hori iruditu zait. Patziku Perurena

## 14 gibel karga

Frantses parlamentuak **gibelkargarekin** ezarri du beraz Europaren afera. Herria

Europaren xutik ezartze horrek **gibel-** karga hartzen ari du asko lekutan. Beti gibelkari izana den Ingalaterraren **gibel-karga** hura bai oraino pisutzerat arizan dira. Herria

## 15 gibel masta

Mesanako edo **gibel** -masta deritzona, txopako gaztelauaren aurrean. Edorta Jimenez

**Gibel** -mastari garabia atontzeko behar ziren beste haga, taket, gurpil eta sokak erantsiz, iltzeak ontziratzeko prestatu ginen. Edorta Jimenez

## 16 gibel-solas hitz-atzea.

Liburuaren **gibelsolasean**. Berria - Kultura

## 17 gibela egin gibelera egin, atzera egin.

Osabak ere, Galileok bezala, **gibela egin** baitzuen. Joan Mari Irigoien

**Gibela egin** nuen, eta itzuli nintzen, ez haserretik gabe, joko eternal hartan berriz leku hartzera. Jon Muñoz

Urrats bat **gibela egin** nuen. Joan Mari Irigoien

Hamaika pena eta sufrimendu iragana nintzen ni orduko, baina ez nuen nehoiz **gibela egin**. Joan Mari Irigoien

## 18 gibelesko gibelesko eritasuna.

Batzuetan bihotzeko gaixotasuna duela uste dute, hurrengoan **gibeleskoa** duela, hurrengoan bizkar muinekoa duela. Josu Zabaleta

## 19 gibeleskoz aitzin atzekoz aurrera.

Sotana bera zinta **gibeleskotz** aintzin erdi trebeska ezarria. Herria

Batzuk zuzen, besteak **gibeleskotz** aitzin. Herria

Hots, **gibeleskoz** aintzin itzuli zaizko holako gauzak, atzoko aldean. Herria

Eskuak ortzira zuzenduz, otoizlari eta eske, besoak **gibeleskoz** aitzin kulunkatuz. Itxaro Borda

## 20 gibelera egin atzera egin.

**Gibelera** egiten zuten ihes egin gabe, beldurturiko otso gazteek bezala. Koldo Izagirre

Leblanc-ek **gibelera** egiten du: dio engainatua izan dela eta hitzarmena hausten du. Herria

Duela ordu erdi bat, **gibelera** egitekotan nintzen eta orain aise nabil, arin. Piarres Aintziart

Eskuak **gibelera** egin zuen. Jon Muñoz

Kataluñan, lurralde hori luzaz kudeatu duten eskuinaldeko abertzaleek **gibelerat** egin dute, ezkerrekoek aldiz azkarki aintzinerat. Herria

**Gibela** egin nuen, eta itzuli nintzen, ez haserretik gabe, joko eternal hartan berriz leku hartzera. Jon Muñoz

## 21 gibelera itzuli

Emazte xahar hura niri ari zait, oihera ta keinu, bidez tronpatu naizela, behar dudala pixka bat **gibelera** itzuli, Terradilloserako landen erdiko bidea hartuz. Piarres Aintziart

Baionatik abiatzea (San Andres plaza) goizeko 8etan, Donibane Lohizunetik 8.30tan, **gibelera** itzultzea 8etan Baionan. Herria

"Bultzatza" k mailegatu diruaren **gibelera** itzultzeko bost urteko epea dute enpresa berriek. Herria

Gutiz gehienetan ez baitute behinere diru hori **gibelera** itzultzekorik, salgaiak azkenean inkantean emaiten ditu kreditu municipalak. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aise gibelago** (3); **aitzin eta gibel** (3); **aitzin ez gibel** (4); **aitzin gibel** (4); **aitzin gibelak** (6); **baina gibela** (4); **baino gibelago** (3); **bat gibel** (3); **bat gibela** (4); **bat gibelago** (3); **edo gibel** (5); **esku gibelaz** (9); **eta gibel** (12); **eta gibelaz itzuli** (3); **ez gibel** (6); **gibel aldean** (6); **gibel aldera** (4); **gibel asmoz** (3); **gibel egin** (6); **gibel eta** (7); **gibel hartan** (6); **gibel urratsa** (3); **gibela egin** (19); **gibela egin nuen** (4); **gibela egiteko** (4); **gibela egiteko puntuan** (3); **gibela egiten** (4); **gibela ere** (3); **gibela estaltzen** (10); **gibela estaltzen duena** (6); **gibela estaltzen zuena** (3); **gibelago da** (3); **gibelat bihurtu** (5); **gibelat egin** (7); **urrats bat gibela** (3)

**aitzinean eta gibelean** (3); **bai gibelean** (3); **banderolaren gibelean** (8); **bat gibelean** (4); **baten gibelean** (23); **batzuen gibelean** (3); **bere gibelean** (10); **buru gibelean** (5); **du gibelean** (7); **du gibelean** (7); **eliza gibelean** (3); **elizaren gibelean** (3); **ere gibelean** (6); **eta gibelean** (25); **etxearen gibelean** (6); **ezker paretaren gibelean** (3); **gibelean ageri** (9); **gibelean bada** (3); **gibelean dagoen** (6); **gibelean dauden** (3); **gibelean daukat** (5); **gibelean den** (8); **gibelean ere** (3); **gibelean errealtate** (3); **gibelean eta** (15); **gibelean ez** (8); **gibelean gelditu** (6); **gibelean gorde** (3); **gibelean gordetzerik** (3); **gibelean gordetzen** (5); **gibelean jarri** (3); **gibelean utzi** (13); **gibelean utzirik** (3); **gibelean utziz** (5); **gibelean uzten** (6); **gibelean zegoen** (4); **gibelean zer** (7); **gibelean zer gordetzen** (4); **gibelean zeukan** (3); **gibelean zuen** (3); **gure gibelean** (6); **haien gibelean** (7); **handien gibelean** (3); **haren gibelean** (12); **herriko etxearen gibelean** (5); **honen gibelean** (4); **horien gibelean** (10); **horren gibelean** (4); **horren gibelean zer** (3); **hunuen gibelean** (3); **mahaiaren gibelean** (6); **nire gibelean** (20); **nuen nire gibelean** (4); **pankartaren gibelean** (4); **paretaren gibelean** (3); **zioen banderolaren gibelean** (4); **zuen bere gibelean** (3); **zuen gibelean** (10)

**baten gibelesko** (3); **bere gibelesko** (4); **bi gibeleskoak** (10); **bi gibeleskoek** (4); **dira gibelesko** (3); **edo gibelesko** (3); **eta gibelesko** (21); **eta gibeleskoek** (5); **etxe gibelesko** (14); **gibelesko aldean** (3); **gibelesko arazoak** (3); **gibelesko atea** (3); **gibelesko atetik** (5); **gibelesko aukian** (3); **gibelesko bi** (3); **gibelesko eta** (4); **gibelesko gaitzak** (3); **gibelesko gaitzak jota** (3); **gibelesko gelan** (4); **gibelesko jokalarik** (5); **gibelesko jokalaririk** (5); **gibelesko laguna** (3); **gibelesko lerro** (3); **gibelesko lerroa** (6); **gibelesko lerroan** (6); **gibelesko minbizia** (4); **gibelesko pilotari** (4); **gibeleskoen entrenatzaileak** (4); **herriko etxe gibelesko** (5); **jauregi gibelesko** (3); **plaza gibelesko** (3); **zuen gibelesko** (3)

**bat gibelera** (4); **bere gibelera** (6); **berriz gibelera** (3); **du gibelera** (3); **dugu gibelera** (3); **eta gibelera** (14); **etxe gibelera** (3); **ez dugu gibelera** (3); **ez gibelera** (4); **gibelera begiratu** (4); **gibelera behatu** (4); **gibelera bota** (4); **gibelera egin** (36); **gibelera egin du** (5); **gibelera egin duela** (4); **gibelera egin zuen** (5); **gibelera egiten** (4); **gibelera egiten** (10); **gibelera heldu** (5); **gibelera itzuli** (13); **gibelera itzuliko** (3); **gibelera itzuli dira** (3); **gibelera itzuliko** (3); **gibelera joan** (5); **gibelera so** (8); **gibelera utzi** (11); **gibelera utzita** (3); **gibeleraingo heltzen** (3); **urrats gibelera** (4); **zuen gibelera** (4)





## **gibelamendu** iz gibelatzea, atzeratzea.

Ez dute onartuko administrazioaren manamenduak eta **gibelamenduak** izaitea, IKASen talde profesionalen eta lau sareetako ekimen eta laguntzan oinarritu dinamikaren orde. **Herria**

Ni, ordea, ez horrenbetez, alderdi onik aurkitzen baitiot **gibelamenduri**. **Xabier Montoia**

Geroko luzamendutan eta **gibelamendutan** ibili gabe. **Joan Mari Irigoien**

## gibelandi ik **gibel**<sup>2</sup> 4.

## **gibelapen** iz gibelatzea, atzeratzea.

Ez da SNCFen euskara sartuz, euskararen **gibelapena** geldituko. **Berria - Euskal Herria**

Hiru edo lau asteren **gibelapenarekin**. **Herria**

Zahar etxeetan eta kolegioetan **gibelapen** handia dagoela salatu zuten hautagaiek. **Berria - Euskal Herria**

Azken hilabeteetan Frantzian hainbat **gibelapen** izan dira sozial mailan eta erantzun behar dugunez karrikatzen gira. **Berria - Ekonomia**

## **gibelaratze** iz atzeratzea, gibelatzea.

**Gibelaratze** hau erabaki zuten epaileek «auzia egiteko aginpiderik» ez zeukatela argudiatuta. **Berria - Mundua**

## **gibelarazi**, gibelaraz, gibelarazten du *ad* gibelatzera behartu.

Azpiko palanka tikiari eraginez, jarlekua **gibelarazi** zuen. **Aingeru Epaltza**

Gauzak eginen direla behar den bezala, bertze sasoina etorriko dela bere denboran; gizonak ez du ez **gibelaraziko** ez eta aintzinaraziko. **Herria**

Eta haren azal beltzari so egiten nion eta azal hark ez ninduen **gibelarazten**, baina gero eta gehiago erakartzen. **Joan Mari Irigoien**

Apezpikuak dogma teologiko-politikoak finkatu zuen: geroko gertakizunak aitzindu nahiz eta beraz **gibelarazteko**, teoria asmatu zuen mugimendua geldiarazteko. **Piarres Aintziart**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gibelarazi nahi** (3)

## **gibelari** iz atzelaria (pilotan).

Imaz Segurarra iraupen haundiko **gibelaria**. **Herria**

Horra beraz lau terdiko hortan Elkoro haundiari nausitu zaiola Gonzalez azkaindarraren kontra bigarren maileko finala galdu zuen Segurako **gibelaria**. **Herria**

Ruiz gaztea **gibelari** zuela, bertze bi gazte bipilen kontra ari izan da. **Herria**

## **gibelarraio** iz

Ez al gara aski fotogeniko ala zer **gibelarraio**? **Harkaitz Cano**

Zer **gibelarraiotarako** ote nengoen han? **Harkaitz Cano**

Bortxalaria zela zabalduko zenutela besteen artean, eta patio erdian aterako zizkiotela **gibelarraioak** eguzkitara. **Koldo Izagirre**

## gibelasmo ik **gibel**<sup>1</sup> 12.

## **gibelatekoan** iz *ipar* itzultzean. ik **gibeleratekoan**.

Orroitzapen onak baizik ez zituzten aipu **gibelatekoan**, eta ondoko egunetan ... **Herria**

**Gibelatekoan** Donibane Garazin oren bat baktotxa libro zela nahi zuena egin (multxoa ehun bat), guziak omore onean eta denbora iduzkitsu batekin. **Herria**

## **gibelatu** (*ETCn 1.042 agerraldi*), gibela, gibelatzen **1** da/du *ad* atzeratu. ik **gibeleratu**.

Gizonak baso arnoa eman zion eta urrats zenbaitez **gibelatu** zen. **Elena Touyarou**

Eta behin erabakia hartuz gero, aita ez zen, ez, **gibelatuko**. **Joan Mari Irigoien**

Bidaia **gibelatu** denez, egitura dagoen bezala eta erabat zehazteke aurkeztea deliberatu dute partaideek. **Berria - Euskal Herria**

Euskal presoen alderako manifestaldia zortzi egunetz **gibelatua** da. **Herria**

Akordioa zenbait hilabetez **gibelatzen** bada, gizarte segurantzaren zorraren apaltzea ere **gibelatuko** da. **Berria - Ekonomia**

Ordulariak beharko ditugu ordu batez **gibelatu**. **Herria**

Zerk **gibelatzen** gaitu ETA gabeko Euskal Herri baten itxuratzetik? **Itxaro Borda**

Gisa berean **gibelatu** dute Irlandaren eta Eskosiaren artean egin beharra zen rugbia partida. **Herria**

Akizeko haurren epaileak apirilaren 16a arte **gibelatu** du Iñaki Esparazaren alaba noren esku utzi erabakiko duen auzia. **Berria - Euskal Herria**

Eta honetan **gibelaturik** egoteak esan nahi du beste gauza askotan ere atzeraturik egongo garela euskaldunak. **Pello Salaburu**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

50 miliar dolar dute, doi-doi emaiten orain artean herri **gibelatu** gaixoen alde. **Herria**

Chavezek aldiz hobeki menezan dauzka karrika pobre eta **gibelatuetak**o jendeak. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batez gibelatu** (7); **batez gibelatu beharko** (3); **ere gibelatu** (5); **eta gibelatu** (4); **gibelatu behar** (4); **gibelatu beharko** (5); **gibelatu du** (4); **gibelatu zuten** (5); **gibelatua da** (3); **gibelatua izan** (11); **gibelatua izan da** (5); **gibelatua izan zen** (5); **gibelatzen ari** (6); **gibelatzen ari da** (3); **oren batez gibelatu** (3)

## **gibelatzapen** *iz ipar* gibelapena.

Urte baten **gibelatzapenarekin** egiten dira ondarrean hauteskunde horiek asko arrazoinez beranduak. Herria

131 000 euro soldat **gibelatzapen** eta damu domaia galdatu ditu. Herria

## **gibelatze** *iz atzeratzea.*

Zeren eta kontzientziaren **gibelatze** bakoitzak bere aitzakia baitu. Joan Mari Irigoien

**Gibelatze** poxi bat hartu baitute lan horietan. Herria

Eta hura izan zen, halatan, ene **gibelatzearen** hobenduna, ez ni. Joan Mari Irigoien

**Gibelatze** hori seinale ona den ala txarra horko hogoi langileentzat, hori geroak erranen du... Herria

## **gibelaundi** ik **gibel**<sup>2</sup> 4.

## **gibelaxko** *adlag* atzera samar.

Eta nunbaitik ere baztertzen edo **gibelaxko** uzten euskal-departamenduaren alde mintzatuak diren batzu...! Herria

## **gibeleratekoan** *adlag ipar* itzultzean. ik **gibelatekoan**.

**Gibeleratekoan**, Luzaide eta Ondarrolaren artean muga egiten duen erreka pasatu eta, gertatu zitzaion briu-brau karabinero bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Han pasatua nintzen 1920an, Jerusalemetik **gibelerakoan**. **Marzel Etxehandi**

Beljikan eta Alemanian gaindi, Estrasburgen geldituz **gibeleratekoan**. Herria

Nagusiarri galdatzen dio ongi arta zezan erranez, **gibeleratekoan**, gastu guziak pagatuko diozkala. Herria

· Orroitzapen bikainak baizik ez zituzten aipu **gibelerateko** bidean, eta ondoko egunetan ere... Herria

## **gibeleratu**, gibelera(tu), gibeleratzen da *ad* atzeratu, gibelatu.

Begoñak badaki Fernan nahita **gibeleratu** dela, bera bakarrik ez uzteagatik. Aingeru Epaltza

**Gibeleratu** da, behaztopa egin du, ihesari eman dio. Koldo Izagirre

Amak eta biek isiltasun osoan egiten zuten **gibeleratzeko** bidea. Elena Touyarou

Matiasen autobusean joaiten ziren neska batzuk Donibanera, **gibeleratekoan** zaretraka arroltzeak ekarriz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## **gibelino** *iz Erdi Aroko Italian, alemaniar enperadoreen aldekoa eta aita santuen kontrakoa.*

Bizkitartean, **gibelinoak** amor emanak ziren. Juan Garzia

Artean ere Zuriak gobernatzen zuten han, **gibelinoak** uxatu ondoren ere. Juan Garzia

Guelfoen eta **Gibelinoen** arteko eskatima famatu hura. Josu Zabaleta

## **gibelka** *adlag* atzeraka.

Espainolak hurbiltzen ari ziren, eta eskualde hartan kokatu armada errepublikarra **gibelka** ari zen, ezinbertzean. Elena Touyarou

Europa **gibelka** abiatua da, Frantzia eta Herri beheretako erreferendumetan eza nagusituz geroztik. Herria

Ezustean harrapatua, **gibelka** egin behar izan nuen, Ximurra eta Kristinak hautatutako bidegurutzeraino. Aingeru Epaltza

Ni -urrats bat **gibelka**, Tipik emandako paperean leitu nuen berriz- Amagoia Mendigatxaren bila nembilen. Aingeru Epaltza

Andre dena Mariaren litaniak kantatzen dituzte, baina **gibelka** bezala, azken agurretik hasirik. Michel Oronoz

Europa **gibelka** ari. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**europa gibelka** (3); **gibelka ari** (6)

## **gibelkada** *iz atzerakada.*

Iduri bai, eta ageri ere **gibelkada** baten seinaleak badauzkala kasik denetan. Herria

Ordutik hasi omen zen Moroen **gibelkada**, 1492an denak kasatuak ziren. Herria

## **gibelkarga** ik **gibel**<sup>1</sup> 14.

## **gibelkari** *izond* atzerakoa.

Egin duen filma Bush presidentaren eta harekin diren agintarien kontra da, salatzen dituela, omen, haien harrokeria, haien ideologia osoki **gibelkaria**. Herria

Ainitz protesta bazituen ukanak hautatze horren kontra, bere ideia kontserbadore eta **gibelkarien** gatik. Herria

Beti **gibelkari** izana den Ingalaterraren gibel-karga hura bai oraino pisutzerat arizan dira. Herria

Beti bazterkari edo **gibelkari** dagon Ingalaterra batean (Europari buruz bixtan da, Ingalaterra beti ugarte berex dagon herri hartan). Herria

## **gibelki** *iz* abere gibela, janarizat hartua.

Estatu Batuetan oihestuak dira berriz ere amerikanoak Frantziatik heldu zaizkien mozkinen kontra, hala-nola ahate edo antzara **gibelkiak**. Herria

## **gibelkor** *izond* uzkurra.

Nolaz ziren **gibelkor** izanen, Jainkoaren mezua adimenaren menean hain ongi ezartzen ziotenari? **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## **gibelmin** ik **gibel**<sup>2</sup> 6.

## **gibelondo** *iz* ondorioa.

Lau hilabete A.D.N.E. estrategiari hertsiki lotua, are gehiago hondarreko bi asteetan, eta porrotik zalapartatsuen nuen ororen **gibelondo**. **Aingeru Epaltza**

Eta ez dut hemen ahanztekoa zer **gibelondo** zuen ere besterik Lafittek bere Baionako astearte egunean. **Herria**

Hola, bizpahiru **gibelondo** betetzen zituen batean, presaka: bere ixter-oinen zalutzea, bularren airestatzea, gu ginen putiko kozkorreri begi atxikitzea, eta gogoeta-otoitzak ororen artetik. **Herria**

## **gibelurdin** *iz* gaina urdina duen perretxiko mota, jateko ona (*Russula virescens*).

Baina aita onttoekin hasi, **gibelurdinekin** jarraitu, eta amanitekin bukatu zuen. **Joan Mari Irigoien**

Bazkalordurako iritsi zen, ontto eta **gibelurdin** batzuekin. **Joan Mari Irigoien**

Primerako **gibelurdin** arraro horietako bat, iragan igande arratsalde jokaturiko finala izan zen. **Berria - Kirola**

## **giboi** *iz* tximino klase bat (*Hylobates sp.*).

Primate talde bat gara, eta gu gatozen eboluzio lerrotik **giboiak** duela 25 milioi urte banandu ziren. **Luis Elberdin**

## **gibraltardar** *izond/iz* Gibraltarrekoa, Gibraltari dagokiona; Gibraltarreko herritarra.

**Gibraltardarre** kolonia izateari utzi nahi diote, Londresekiko loturei eutsi arren. **Berria - Mundua**

**Gibraltardarren** arma hitza da, erabakia. **Berria - Mundua**

Hala, Madrilék **gibraltardarren** hitza kontuan hartzea onartu zuen herenegun. **Berria - Mundua**

## **gida** 1 *iz* gidatzailea.

Erealtateari zuzenean aurre egin aurretik derrigor kontsultatu beharreko **gida** iruditzen baitzitzaion paper mordoska hura. **Juan Luis Zabala**

Nik ere banuela ondo gogoratzeko premia, behar nuela **gida** bat zirriborroetako hitzak zein bere lerro egokian jartzeko. **Bernardo Atxaga**

Liburuaren bigarren atala filosofian aritzeko **gida** metodologikoa da. **Askoren artean**

Batzuetan nahia edo desioa izaten da **gida** hori, eta "nahi duguna" ikusten dugu, ez agian dagoena. **Bernardo Atxaga**

Irizpide horixe izan dut, orobat, itzulpenerako **gida** eta helburu. **Josu Zabaleta**

Itzul bedi eserlekura, gurdia jabetza eta briden **gida** hartu eta eraman bitza arduratsua piztia mendeko eta mantsotuak. **Imanol Unzurrunzaga**

Cannabisa eta nerabeak: Gurasoentzako **gida**. **Pako Aristi**

Nire txapin erraldoiak **gidako** palankaren gainean ditut jarrita. **Josu Zabaleta**

## 2 (txango batean)

Giulia [...] **gida** turistiko eta interprete bikaina izan zen niretzat. **Juan Garzia**

**Gida** turistikoek bezala hitz egiten zuen. **Unai Elorriaga**

-Geldituko gara? -errepikatu du **gidak**, galdezka oraingoan. **Aingeru Epaltza**

**Gida** bertezengana doa eta Alfonsok mapetara bihurtu du berriz lepoa. **Aingeru Epaltza**

**Gida** lanetan hasi zenetik du, neke guztiaren gainetik, loaren garaipena gibelatzeko ohitura. **Aingeru Epaltza**

## 3 gidaliburua.

**Gida** zakuan altxatuz, joan zen urrunago bere aitaren gana. **Ramuntxo Etxeberri**

**Gida** turistikoaren maparen arabera. **Ramuntxo Etxeberri**

Nola Mikel Strogoffen eskuak zaldiaren **gidak** bilatzen zituen. **Karlos Zabala**

**Gidak** seinalatzen zizkigun beste herri batzuk bisitatzera abiatu ginen. **Iban Zaldúa**

Hinterhaus deritzote hemen, Margaren **gida** batean irakurri dudanez. **Xabier Montoia**

Lockharten liburu dotoreen artetik, ale zahar eta oso higatu bat atera zuen: Antzaldaketarako **Gida** Hasberrientzat. **Iñaki Mendiguren**

'Euskal Herriko Udal Hautetsien **Gida**' plazaratuko du Udalbiltzak Durangon. **Berria - Euskal Herria**

**Gidako** ariketa praktikoak lau DVD-liburutan. **Berria - Harian**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) cf **gidatu** 7.

Bildua izanen den diruak lagunduko du Unadev elkartea **gida**-xakur bat hezten. **Herria**

Lemaren ondoko zirga lodi bati eragiten zion, zeinak bela-soka guztien **gida**-lana egiten baitzuen, belak lasaitzeko. **Anjel Lertxundi**

Argia luzatuko didan faroa behar dinat, eta nire bizitzan **gida** lanak egingo dizkidana. **Joxemari Iturralde**

Masta nagusiaren oinean zegoen **gida**-kabina txikiaren aurrera lagundu zion. **Anjel Lertxundi**

**Gida**-aulkiaren azpitik oihaltze grisezko soingaineko zirtzil bat atera, gainetik jantzi, hedeei eragin, eta garrasika hasi zitzaion troikari, zaldiak ia geldirik baitzeuden. **Jose Morales**

Selifanek **gida**-aulkira igotzen lagundu zion neskatilari. **Jose Morales**

Itsu bat ere ohartuko zen Edurneren begietatik ateratzen diren txinpartez, **gida**-laguntzaile inguruan usaindu orduko. **Aingeru Epaltza**

-Hementxe, eskuin aldera -agindu du Kixok, **gida**-lagunaren jarlekutik. **Aingeru Epaltza**

**Gida**-uhalaria eraginez, harantz zuzendu zuen Rozinante. **Patxi Ezkiaga**

Heldu zion bata muturrekotik bere astoari eta **gida**-hedetik besteak bere zaldiari. **Patxi Ezkiaga**

Ez dio kolerari **gida**-hedea utzi behar, ez eta grinen menean erabilia izan behar ere, grina oro txarra delako. **Xabier Kintana**

**Gida**-kolpe haietako batean ozta-ozta kontrolatu zuen autoa. **Anjel Lertxundi**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erabilera- **gida** baten gisan. **Josu Zabaleta**  
Telefono **gida** batez atxilotuaren burua kolpatzen denean. **Harkaitz Cano**  
Ez telefono- **gidan** ageri den lehenengoa, bigarrena baizik. **Iban Zaldúa**  
Mitxelín **gida** aldean eraman arren. **Patxi Zubizarreta**  
Liburu- **gida** honetan barrena jorratu diren mito eta eztabaidaz jositako ekonomiari arazo zaharrak. **Iñaki Heras**  
Zer erranik ez dago, Ickok Casparrek ezin izan zuela mendi- **gida** baimena jaso deialdi hartan. **Josetxo Azkona**  
Arrazoimenaren adigaien jatorri- **gida** . **Ibon Urbarri**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitatasunaren **gida** (3); aurkikuntzaren **gida** (4); aurkikuntzaren **gida** hariaren (3); bere **gida** (5); bere **gida** liburua (3); beren **gida** (3); bidean **gida** (3); buruzko **gida** (5); da **gida** (4); dituen **gida** (3); edo **gida** (3); eta aitatasunaren **gida** (3); eta **gida** (19); filosofiako **gida** (6); **gida** ahal (3); **gida** aukian (9); **gida** aukian atzerantz (4); **gida** aukian eseririk (4); **gida** aukitik (3); **gida** aurkeztu (4); **gida** baimena (12); **gida** bat (14); **gida** batean (3); **gida** baten (4); **gida** bezala (3); **gida** da (5); **gida** dezan (3); **gida** edo (3); **gida** egin (3); **gida** eta (6); **gida** gaitzan (3); **gida** gisa (4); **gida** hari (4); **gida** haria (6); **gida** hariaren (6); **gida** hori (4); **gida** horretan (3); **gida** izeneko (3); **gida** kaleratu (5); **gida** kaleratu du (4); **gida** liburu (11); **gida** liburu bat (3); **gida** liburua (9); **gida** liburua (3); **gida** liburuan (8); **gida** liburuaren (3); **gida** metodologiko (3); **gida** nazazu (4); **gida** turistiko (4); **gida** zaitzala (3); **gida** zaitzan (3); **gida** zaitzatela (3); **gida** zezan (3); gurasoentzako **gida** (3); guztien aurkikuntzaren **gida** (4); hautetsien **gida** (4); historiaren **gida** (3); horretarako **gida** (3); jainkoak **gida** (3); lantzeko **gida** (3); lau **gida** (3); ninak bere **gida** (3); telefono **gida** (5); telefono **gidan** (4); udal hautetsien **gida** (4); zuen **gida** (3)

## gidabaimen *(62 agerraldi, 9 liburu eta 12 artikulutan; ETCn 1.504 agerraldi; orobat gida(-)baimen 15 agerraldi, 3 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 297 agerraldi) iz gidadzeko baimena. ik gidatu 3.*

Gidari berriek sei puntuko **gidabaimena** dute Iparraldean atzodanik. **Berria - Euskal Herria**  
Uhalik gabe semaforoa gorri pasatzen duenak **gidabaimena** bertan galduko du. **Berria - Euskal Herria**  
Puntu bidezko **gidabaimenaren** lege aurreproiektua. **Berria - Euskal Herria**  
Laurek **gidabaimena** izanda, errazagoa egin zaie bidaia. **Berria - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gidabaimenik gabe** (3)

## gidaerakusle iz gidaria.

Carlo **gidaerakuslea** mutil katxarra da, zoragarria iruditua zaie bisita, azalpenak oso garbiak, eta mamuaren latina hain ongi ulertzeagatik zorianak ematen dizkiete elkarri turista guztiek. **Iban Zaldúa**

## gidagailu iz gidadzeko gailua.

Horratx, beribila zuzentzen, **gidagailuari** bi besoez eusten ziola, katu eder handia ikusi zuten. **Gotzon Garate**  
Jainkoak zigortu egingo nauela sentitzen dut, **gidagailua** hautsi egingo dela aireportura bidean. **Xabier Olarra**  
Nortasunaren **gidagailua** okertuta badu, pertsona batek nahi eta ez, goiz edo berandu, bazterra joko du. Williams autoaren **gidagailu** edo direkzio barra hautsi zen. **Gotzon Garate**

## gidagarri izond gida daitekeena.

Globo **gidagarri** bat itsaso gainean doan bezala aurrera eginez. **Lopez de Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**globo gidagarri bat** (3)

## gidail iz zangoa.

Koadroak, lehen planoan, sutan zegoen or zuri bat erakusten zuen, zutik zegoena bere **gidailen** gainean, eta su-metaren erdiko makilari katez lotua **Joan Mari Irigoien**

## gidaketa iz gidadzea.

**Gidaketa** huts batez. **Berria - Kirola**

## gidakide iz gidariaren laguna. ik gidalagun.

Tipi punttaka, **gidakidearen** jarlekutik. **Aingeru Epaltza**  
Afalondoko goraldian, izarretara jauritako espaziontziko **gidakide** sentitzen nintzen. **Aingeru Epaltza**  
Aire egokitua izorrotuta dago -esan dio autopostipitari **gidakidearen** eserlekuan eseri denerako. **Iban Zaldúa**  
Auto **gidakidearen** eserlekuan zegoen jarrita. **Joxemari Iturralde**

## gidalagun iz gidariaren laguna. ik gidakide.

**Gidalagunaren** atea itxi din, suabe. **Iban Zaldúa**

## gidaliburu *(109 agerraldi, 24 liburu eta 20 artikulutan; ETCn 728 agerraldi; orobat gida(-)liburu 29 agerraldi, 10 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 236 agerraldi) 1 iz gairen bati buduzko argibideak ematen dituen liburua.*

Bizkar zakua eta **gidaliburu** pausatzen ditut bazterrean. **Piarres Aintziart**  
**Gidaliburuko** argazkiaren medioz asmatuko dut, bidenabar. **Piarres Aintziart**  
**Gidaliburu** batzuek argi eta garbi azpimarratzen zuten Makao "Lisboa" asiaticko hiri xarmanta besterik ez zela. **Ramuntxo Etxeberri**

"Lonely Planet" **gidaliburuan** idatzia zenaren arabera. **Ramuntxo Etxeberri**

**Gidaliburua** irakurri ondoren. **Xabier Paya**

Ingeleseko **gidaliburu** horietako bat gainbegiratzeko astia. **Edorta Jimenez**

Literaturaren historiako **gidaliburuetan** . **Ana Urkiza**

Borrokalari onaren **gida** liburuaren 17. orrialdean. **Josetxo Azkona**

Posta Bulegoko **Gidaliburua** bezain liburu lodiak. **Irene Aldasoro**

## 2 (hitz elkartuetan)

Pentsa ezazu esku artean duzuna ikuskizunaren argibide-**gidaliburua** baino ez dela. **Xabier Paya**

Düsseldorfeko bidai **gidaliburuak** halaxe baitzioen. **Joxe Austin Arrieta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gidaliburua argitaratu** (3)

## gidaliburuxka iz orri gutxiko gidaliburua.

Hiri planoak, posta-txartelak, bisitarako **gida** -liburuxkak. **Joxan Elozegi**

## gidapen iz gidatzea.

Gaineratekoan herri hau zinez maite, eta are maiteagotu dute Lafitte ezagutu eta segituz, gure "Arbaso" miresgarriaren ganik izan dituzten argitasun eta **gidapena** dela medio. **Herria**

Senar-emazteen berdintsunaren alde familiaren **gidapenean** . **Herria**

## gidarazi, gidaraz, gidarazten du ad gidatzera behartu.

Alboko gela baterantz **gidarazi** ninduen. **Joxan Elozegi**

## gidari 1 iz gidatzen duen pertsona. (ibilgailu batena)

Beste autoko **gidaria** ez zen kontent. **Ramuntxo Etxeberri**

Volvoaren **gidariaren** purrustada. **Aingeru Epaltza**

Rally honek **gidariari** gehiago eskatzen dio, autoari baino. **Berría - Kirola**

1 Formulako **gidarien** artean. **Berría - Kirola**

Errepide bazterretan gelditzen ziren autoak erretiratzten hasi ziren garabi **gidariak** . **Berría - Ekonomia**

Motor **gidari** bat hil da Orkoienean, kamioi bat jota.

Kaskoa jarlekuaren azpiko kofretxoan sartzen ari zen motorraren **gidaria** . **Aingeru Epaltza**

Gazteak jakin nahi zuen ea **gidaririk** behar nuen, edo ea "karro" bat alokatu nahi nuen. **Jon Muñoz**

**Gidariak** klaxona jotzen hasi baitira, abiatzeko momentua heldua zela adieraziz. **Jon Arretxe**

**Gidariak** zigorraz jo arren, zaldiak ez zirela lekutik mugitzen, lurrari josirik baleude bezala. **Jose Morales**

## 2 (nor baitena)

Halako etxe-zulo batera eraman gintuen Mahmud **gidariak**, pasillo luze, bukaezinetan barrena. **Bernardo Atxaga**

Morfeo matxinatuén **gidaria** zen, Matrixen kontra borrokan ari zirenen **gidaria** . Ni ikusirik, **gidari** navajoari bozkario oihu bat atera zaio. **Antton Olano**

Zure **gidaria** izango naiz Londresen. **Ramon Saizarbitoria**

Berpizturik legez ibili ginen **gidari** nekazezinaren atzetik. **Xabier Montoia**

**-Gidari** bihozgogorra zara gero! **Askoren artean**

**Gari** erakustun batekin egiten baitute turismoa. **Patziku Perurena**

Erregeek edo apezpikuek bere leialetakoko bat aukeratzten zuten haien **gidaritarako** . **Iñaki Iñurrieta**

## 3 (zer baitena)

-Bai? -garabiko **gidariaren** ahotsa. **Aingeru Epaltza**

Bertuteen **gidari** bakarra den zuhurtasuna. **Askoren artean**

Mendeko iraultzarik ederrenaren **gidari** izan zen gizonarengan. **Jon Muñoz**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ni aurrean, **gidari** lana egiteko. **Karlos Zabala**

Aspaldiko ezaguna balu bezala hitz egiten baitzion **gidari** funtzioa betetzen zuenari. **Ramon Saizarbitoria**

Gabin-oraindik-plaza-hartan-berri-samarrarentzat **gidari** zereginetan. **Iñaki Iñurrieta**

Estatuak, merkatuaren lekua hartzen saiatu gabe, haren **gidari** -eginkizunak betetzen ditu. **Koro Navarro**

Bi gizon, zalgurdiko **gidari** -eserlekuan eserita joango zirenak. **Felipe Juaristi**

Santosen atzetik jo zuen **gidari** -postura. **Josu Landa**

40 urteko **gidari** bizitzan ez zuela izan istripu bakar bat ere. **Bego Montorio**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi auto-**gidariren** arteko auzia. **Anjel Lertxundi**

Prokuradorearen kotxe-**gidaria**, bidean antzeman zionez, eskarmentu handiko mutila zen. **Jose Morales**

Nire erlojuari buruz mintzatu nintzaion, kamioi-**gidariari** nola oinordetzan utzi behar izana nion. **Joxe Austin Arrieta**

Autobus **gidaria** lanbidez. **Xabier Montoia**

Hopkins izeneko tranbia **gidari** bat. **Koro Navarro**

Tren-**gidariak** doi-doi lortu zuen lokomotora geratu eta metal zati hura saihestea. **Harkaitz Cano**

Aita gurdi-**gidari** mozkorra eta ama marilasaka axolagabea zituela eredu... **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Hegazkin **gidari** ala ezer ez, erabaki zuen. **Josu Zabaleta**

Zaharregandik sortu da gaiztakeria Babilonian, herri-**gidariarena** egin ohi duten epaileengandik. **Jose Antonio Mujika**

Ez da izango herri-agintarientzat babesik, ez artalde-**gidarientzat** ihesbiderik. **Elizen arteko biblia**

Bide-**gidarien** maltzurkeriak, ibilaldiak, klimak, goseak, egarriak, [...] armada desegin zioten. **Iñaki Iñurrieta**

Posta **gidari** bat, iemstxik bat, hango hizkuntzaz esanda, arduratu zen zaldiak lotzeaz. **Karlos Zabala**



Lehenbizikoa Banifeko Banifeko bat zen, oso mendealdekoko tankeraz: alkandraz, jeans estuak eta cowboy kapela. **Xabier Olarra**

Anaiartearen buru eta espiritu- **gidari** bezala. **Askoren artean**

Arima- **gidariak** begiak jaso zituen idazkitik. **Anjel Lertxundi**

**Gindax** eta lurrin-zulagailuetarako estalgune txiki bat. Lopez de Arana

## ginea iz ingeles diru zaharra.

**Ginea**, berriz, 21 txelin ziren, hau da, libera bat eta txelin bat. Julen Gabiria

Alabak zortzi **gineako** kontratu bat sinatu zuela eta ordaindu egin behar zitzaiola. Irene Aldasoro

Batzordearen hurrengo astearteko bileraren ondoren ordainduko zitzaizkiola beste lau **gineak**. Irene Aldasoro

## ginear izlag Gineakoa, Gineari dagokiona; Gineako herritarra.

Kora izeneko musika tresna jotzen du Nino Galissa **ginear** kantautoreak. Berria - Kultura

Eta azkenean, Hadja Kouyate **ginearra**, janzki gorri dotore batez. Berria - Kultura

Ondo hornitutako neska **ginearra**. Juan Martin Elexpuru

Karan Diaby **Ginear** paper gabea auzitan pasa da Baionan, joan den ostegunean. Herria

## ginebra (ETCn 524 agerraldi; orobat jinebra; ETCn 10 agerraldi) iz gina, edari bizia. ik gin.

**Ginebra** edan behar izaten diat. Aingeru Epaltza

Kankarreko bat **ginebra**, nik. Aingeru Epaltza

Kopatto bete **jinebra** huts. Patziku Perurena

Bada, hantxe geratzen naizela, basoa bete **ginebra**, gogoko ez dudan arren, eta edan. Joxe Austin Arrieta

**Ginebrara** ohitutako nire begiei malkoak isurarazi zizkien whiskyaren erasoak. Aingeru Epaltza

Basokoa bukatu eta besoa luzatu zuen, **ginebra** botila hartzeko. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ginebra botila** (3); **ginebra edaten** (3); **ginebra eta** (6)

## ginebrakada iz gin basokada.

Sei **ginebrakada** edan eta hamalau bat zigarro erre ondotik. Aingeru Epaltza

# ginekologia 1 *iz* medikuntzaren adarra, emakumeari dagozkion eritasunen dena.

Zientzia asko aitzinatu dela **ginekologiaren** alorrean. **Hasier Etxeberria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **ginekologiko**.

Osakidetzak doako **ginekologia** zerbitzua kendu duelako. sintomarik ez duten emakumeentzako **ginekologia** kontsultak kendu ditu Osakidetzak. **Berria - Euskal Herria**

Bi aste pasata, **ginekologia** azterketa egiten da umetokiko hormak garbi dauden ikusteko. **Berria - Euskal Herria**

**Ginekologia** tratamendurik eza, elikadura eskasia eta beste. **Berria - Euskal Herria**

**Ginekologia** Unitatean. **Berria - Harian**

**Ginekologia** prozesuak: ur sulfuratua. **Berria - Euskal Herria**

**Ginekologia** Zentroko medikuek. **Berria - Gaiak**

Osloko **Ginekologia** Kongresuan. **Hasier Etxeberria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ginekologia zerbitzua** (3)

## ginekologiko *izond* ginekologiari dagokiona. ik **ginekologia 2**.

Azterketa **ginekologikoa** eta zitologia egingo ditu. **Luis Elberdin**

Sei hilabetean behin azterketa **ginekologikoa** egitera behartu ditu epaileak. **Berria - Gaiak**

Bestela, hurrengo kontsulta **ginekologikoan** eska dezakezu. **Luis Elberdin**

Londresko Lagunduriko Ernaketarako Zentro **Ginekologikoko** zuzendaria. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azterketa ginekologiko** (4); **azterketa ginekologikoa** (7); **azterketa ginekologikoa eta** (3); **azterketa ginekologikoak** (8)

## ginekologilari *iz* ginekologoa.

Aspaldi ez duzu hilekoaren lehen eguna apuntatzen ere, **ginekologilariaren** urteroko bisitarako ez bada, hori izaten baita urteroko bisitan **ginekologilariak** galdetzen dizun lehen gauza, ea noiz izan zenuen azkenekoz hilekoa. **Lourdes Oñederra**

## ginekologo *iz* ginekologian espezialista den medikua.

**Ginekologoak** haundun nengoela esan zidan. **Joseba Urteaga**

Vori abortua eragin zion Frantziako **ginekologo** batek, oker baten ondorioz. **Berria - Gaiak**

Azkue **ginekologoak** lortu du estreinakoz haurrak laborategian egiteko metodo ziurra. **Hasier Etxeberria**

Elizondoko Emakumeak Artatzeko Zentroko **ginekologoak** ez diela Umetoki Barneko Gailua jartzen hara joan eta antisorgailu hori erabili nahi duten emakumeei. **Berria - Euskal Herria**

Madriren, Nazioarteko **Ginekologoen** Simposiuma zela eta. **Hasier Etxeberria**

Zer gerta ere, odolaren jori oparoeziaren zergatiaz **ginekologoaren** kontsultatzera zuzenduko dela aitortzen dit. **Itxaro Borda**

**Ginekologoarenean** txanda eskatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

**Ginekologoarenera** lehenengoz joan nintzenean. **Joseba Urteaga**

**Ginekologoarenganako** bisitak aipatu gabe. **Arantxa Iturbe**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ginekologoa da** (4); **ginekologoarengana joan** (3); **zentroko ginekologoak** (3)

## ginesia *iz*

**Ginesiantzat**, emakumeen literatur korrontea, emakumea ez da enpirikoki erakusgarria, baizik eta, narrazio nagusia desorekatzera datorren hutsunea da. **Ginesiar** ez ezik, psikoanalisiari ere kasu egingo diogu pertsonaiak aztertzerakoan; izan ere, fikzioa egilearen kontzietziatik eta barruan bizi zaizkion pertsonaietatik elikatzen dela baitio psikoanalisiak. **Berria - Kultura**

## ginezeo *iz* emakumeen gela.

Lorian nengoen ni, ordea, edertasun galernatsu hura miresteko horrenbeste aukera nituelako, guretzat antolatua ematen zuen **ginezeo** hartan. **Joxan Elozegi**

## ginga (*ETCn 200 agerraldi: orobat ginda; ETCn 84 agerraldi*) 1 *iz* gerezi mota garratza.

Hostape berdean nonahi ageri ziren **ginga** mordo zurigorriei. **Patziku Perurena**

**Ginga** batzuk jarriak zituen belarrietan zintzilik umeen antzera, **ginga** beltzak, masailetan saltoka zebilzkionak. **Karlos Zabala**

Historik gabeko basotxo artean, zanga ondoan **ginda**, elorri, eta alkazi adarrak pilatzen zirela. **Josu Zabaleta**

### 2 *ginga falta izan* (zerbaiti)

**Ginga** falta izan zaio, txapelketa irabaztea, baina harro egoteko moduko lana egin du. **Berria - Kirola**

Dusan Ivkovic osolana ongin egin zuen CSKAn azken denboraldietan, baina **ginga** falta izan zitzaion. **Berria - Kirola**

Riazor festa bat zen, **ginga** falta zen bakarrik. **Berria - Kirola**

### 3 *ginga jarri/ezarri* (zerbaiti)

Neurri hori bizkotxa baten gainean ezarritako **ginga** baizik ez da. **Berria - Euskal Herria**

Franeke, etxeko jokalaririk batek, jarri zion **ginga** festari, 75. minutuan lasaitasunaren gola eginda. **Berria - Kirola**

Houstongo Mastersa irabazi zuen eta **ginga** bikaina jarri denboraldiari. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ginga falta** (4); **ginga jarri** (3)

# gingaondo *iz* gingak ematen dituen gereziozko mota (*Prunus cerasus*).

Zanga ondoko **gingaondo** buruak bezain altu. **Josu Zabaleta**

## gingatxo *iz* adkor ginga.

Horixe baizik ez nuen eskas, urteko nire lanik beteenari **gingatxo** gainean ezartzeko. **Aingeru Epaltza**

## gingenbra (*ETCn 2 agerraldi: orobat gingembre ETCn 3 agerraldi*) *iz* jengibre.

Toki horretan, **gingenbra**, piperra, Indietako eltzaur anitz eta kotoina atxematen da. **Aurelia Arkotxa**

Espezia anitz bada han: kanela, **gingenbra**, hitze, [...]. **Aurelia Arkotxa**

Zintzur bustitzea: **gingembre** jusa, bissap, samousas eta accras. **Herria**

## ginger ale *iz* gingenbra-dastako edari alkoholgabe eta pindartsua.

Gailetak egin ditut eta botila batzuk **ginger** ale aterako ditugu. **Lopez de Arana**

Abieri bi botila bourbon eta sei botila **ginger** ale nahi nituela esan nionean aho zabalik gelditu zen, harrituta. nJimmy besaulkira eraman zuten eta edontzi bat gin eta **ginger** ale ipini zioten eskuan. **Fernando Rey**

## gingil 1 *iz* luzakin haragitsua.

Azpian ikusten duzun **gingil** horri kitoria esaten zaio. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

### 2 (belarrikoa)

Urrezko uzta txiki-txiki bat belarri **gingilean**. Zain urdin txikiz beteta ditu matrailak, burua soil, belarri-**gingilak** luze. **Koro Navarro**

Belarri-**gingila** horzkatu zidan, eta zera xuxurlatu: [...]. **Juan Martin Elexpuru**

Belarriko **gingiletik** tira egiten zion, maitasunezko koskak egiten zizkion sorbaldan. **Koro Navarro**

Belarriko **gingila** miatzatzen zidala ulertzen ez nituen hitzak esan zizkidan. **Joxean Agirre**

. Bere belarrietako **gingila** lodi dilindarietan eta sudur-hegal zabaletan. **Irene Aldasoro**

Aireportuan behinola emakume arrotz batek besarkatu ninduen, bere senarrarekin nahasten ninduela, eta ulertzen ez nion hitz bakar bat errepikatzen zidan belarrira, **gingila** musukatuz, barkazioa eskatuz edo. **Joxean Agirre**

Ile bilduak belarren handia erakusten du, **gingilaren** gorria perlatxo beltzek. **Koldo Izagirre**

### 3 (ahokoa)

Erraza zen bere txilibituxoa goxatzea ahoan inolako trabarik ez zuelako topatzen, ez baitzen aho **gingilera** ere iristen. Aho-**gingila** edo ubula. **Aitor Arana**

Aho-**gingilak** oztopa dezake airea igarotzea [...] organo hau zabaldua edo itxia egon daitekeen ate bat da. **Isabel Arrigain**

Izan ere, aho-**gingila** jaitsi egiten da hots sudurkarietan eta igo egiten da ahokarietan. **Lourdes Oñederra**

Sudurretik (sudurkariet) edo ahoaren alboetatik (albokariet) edo mihi puntta edo **gingilaren** errebotean (dardarkariet) edo hersketaren ahultasunagatik (ttakek), nahikoa irekitasun ematen diote aireari. **Lourdes Oñederra**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aho gingila** (9); **aho gingila edo** (3); **aho gingilak** (3); **belarri gingila** (4)

## gingildu, gingil(du), gingiltzen da *ad* gingil itxura hartu.

Motorra euri-zaparraden eraginez erabat lohitua aurkitzen dut, dena garbitu beharra dago, dena dago ilaundua eta **gingildua**. **Joxe Austin Arrieta**

## gingko (*orobat ginkgo eta jingo g.er.*) *iz* zuhaitz hosto-erorkorra, handia, jatorriz txinarra (*Gingko biloba*).

Hautzaroko baso japoniarrak etorri zitzaizkidan gogora, astigarrak, kriptomerak eta **gingkoak**, ipurdiz gora moztuak ni bezalako izaki ezdeusa zigortzeagatik. **Joxan Elosegi**

Jar dezagun, beraz, egun euritsu bat zela, eta haizeak ere gogor astindu zituela hiriko tamarizak eta platanondoak, baina ez **gingko** bilobak, hiri hartan ez zegoelako **gingko** bilobarik. **Karlos Linazasoro**

Argazia zapata kaxa baten hondoan dago, egunkari txatal eta **ginkgo** hostoen artean. **Harkaitz Cano**

Zernahi zuhaitz mota aurkitzen da hor, Japoniako **jingoa**, Txinako banbua, Kaliforniako sekuoiak eta bertze. **Herria**

## ginoan (erlatibozko atzizkiaren eskuinean) heinean, neurrian.

Arrazoiak berak, gizaki guztiak bereizketarik gabe gobernatzen dituen **ginoan**, zuzenbide natural du izena. **Hementxe, mundura jaioen ginoan**. **Andres Urrutia**

## ginseng *iz* belar landarea, sustraitik ateratzen den estraktu suspergarriagatik hazarazten dena (*Panax ginseng*).

A, B, C edo D bitaminak, burdina, selenioa, manganesoa edo **ginsenga** dira osagarri horietako batzuk. **Berria - Gaiak**

Bitamina pilula miragarriak aipatuko zizkion batek, aloe landarearen mirakulu sinesgaitzak goraiatuko beste batek, **ginseng** eta erregina-jele anpuluak oparitutako hirugarren batek... **Imanol Zurutuza**

## gintonik ik gin 4.

## giputx (*orobat giputxi*) 1 *izond* adkor gipuzkoarra. ik giputz.

**Giputxok** ez ditugu mendebaldeko bizkaitar paraje horiek batere ezagutzen. **Txillardegia**

**Giputxiak** eta naparrak bakarrik, esan dutenez, bizkaitarrak eta arabarrak oraindik ez baitira Lizarrara ailegatu. **Txillardegia**



Martiartukoak, ehienak ziren Txorierrikoak, eta **"giputzak"** esaten zirenak, Amianori gustatzen ez zitzaizena, mespretxuzkoa egiten zitzaiolako berarrira. **Ramon Saizarbitoria**

## 2 gipuzkeraz mintzatzen dena.

Euskalkietan ere sakonduz joan nintzen neure kabuz eta **-giputxa** izaki- bizkaieraz eta zubereraz era duinean hitz egiteko gai nintzen. **Aitor Arana**

## giputz *(191 agerraldi, 12 liburu eta 1 artikulutan; ETCn 338 agerraldi) 1 izond* Gipuzkoari edo gipuzkerari dagokiona.

Beno, beharbada **giputz** estiloa eta bizkaitar estiloa esan beharko geunke. **Xabier Amuriza**

Bizkaiera, ostera, laster iritsi zen euskara **gipuzaren** ospea. **Koldo Zuazo**

Bizkaiko apaiz askok euren euskara baino nahiago zutela **giputza**, eta euskara **giputzean** predikatzen ohituta zeudela. **Koldo Zuazo**

Joanis Nafarroa Behereko baigorriarra eta Txorgori **giputza**. **Koldo Zuazo**

## 2 gipuzkeraz mintzatzen dena.

Zalantzarik gabe, gipuzkoarrago egiteaz batera, **giputzago** ere egin da, harrezkero, Deba arroa. **Koldo Zuazo**

## • 3 iz gipuzkoarra.

**Giputz** zenbaiten jokabidea ez zen izan batere jatorra. **Koldo Zuazo**

**Giputzak** gogorrek, baina maltzurak zirala esaten eban. **Xabier Amuriza**

Hirugarren eskuadra, era berean, 30 **giputzek**. **Txillardegi**

Ez fidatu **giputzekin**. **Unai Iturriaga**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta euskara **giputzean** (3); eta **giputza** (4); euskara **giputza** (27); euskara **giputza eta** (3); euskara **giputzak** (7); euskara **gipuzaren** (27); euskara **gipuzaren nagusitasuna** (5); euskara **gipuzarenganako** (3); euskara **giputzari** (5); euskara **giputzean** (12); **giputza eta** (4); **giputza izan** (3); **giputzean ikusi** (3); **zen euskara gipuzaren** (3)

## gipuzkera iz Gipuzkoan, mendebaldean izan ezik, mintzatzen den euskalkia.

Baztan, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko hizkerak euskalkizat hartzen dira, eta Nafarroako **Gipuzkera** barietatearen barnean, esaterako, Sakanako eta Etxarri-Aranazkoak sartzen dira. **Berria - Kultura**

**Gipuzkeraz** mintzo dira. **Piarres Aintziart**

Azkueren **"gipuzkera** osotua". **Koldo Zuazo**

Euskal Herria Gipuzkoarekin, eta euskara **gipuzkerarekin**, berdindu nahia. **Koldo Zuazo**

Jakina da aspalditik dela galdua bereizkuntza hori bizkaieretan eta baita zenbait **gipuzkeratan** ere. **Lourdes Oñederra**

Mutil zarauztar hippy bat azaldu zitzaigun, hippya eta **gipuzkeraren** aldekoa, bitxia bada ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkueren **gipuzkera** (5); azkueren **gipuzkera osotua** (4); **gipuzkera osotua** (15); **gipuzkera osotuaren** (12); **gipuzkera osotuaren gainbehera** (4); **zen gipuzkera** (3)

## gipuzkerazale izond gipuzkeraren zale dena.

Zarauzko hippy koxkor **gipuzkerazale** bati. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## gipuzkoar 1 izlag Gipuzkoakoa, Gipuzkoari dagokiona.

**Gipuzkoar**, arabar eta bizkaitar batailoiek. **Txillardegi**

Santakrutzek erakarri egiten zituen **gipuzkoar** mutilak. **Txillardegi**

Enpresa-gizon **gipuzkoar** bat Magreb aldean zen esne fabrika bat muntatzen. **Hasier Etxeberria**

20 **Gipuzkoar** enpresa izan dira joan den astean Madrilén egin diren erakusketara ferietan. **Herria**

Mikel Markez **gipuzkoar** kantariak. **Herria**

El Diario Vasco egunkari **gipuzkoarrak** atzo kaleratutako elkarrizketan. **Berria - Euskal Herria**

Biarnes eta menturaz **gipuzkoar** odola darigu zainetan. **Itxaro Borda**

Biak **gipuzkoar** herri hartara aldaratu zirela. **Elena Touyrou**

Aita Larramendi **gipuzkoarraren** idazkiak eta asmoak. **Piarres Xarriton**

Alida eta Migel **gipuzkoarrak** ziren. **Martin Anso**

Administrazioz **gipuzkoarra** den Deba arroan. **Koldo Zuazo**

Zalantzarik gabe, **gipuzkoarrago** egiteaz batera, giputzago ere egin da, harrezkero, Deba arroa. **Koldo Zuazo**

## • 2 iz Gipuzkoako herritarra.

Oso parrandazalea omen zen, **gipuzkoar** gehienak bezala esaten zuen berak. **Mikel Hernandez Abaitua**

**Gipuzkoar** askorentzat soinu txikia baseritarren kontua zen artean. **Iñigo Aranbarri**

**Gipuzkoarrek** ez genekien "ortu" zer zen. **Andoni Egaña**

**Gipuzkoarren** %40,2k EAJ-EA koalizioari botoa emango diotela diote. **Berria - Euskal Herria**

Preso dauden **gipuzkoarren** laurdena baino ez dago Martutenen. **Berria - Harian**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitor gonzalez gipuzkoarra (4); antonio ibarbia gipuzkoarra (3); antonio ibarbia gipuzkoarrak (4); artista gipuzkoarrak (3); artista gipuzkoarraren (4); baina gipuzkoarrak (4); bi gipuzkoar (3); bikote gipuzkoarrak (4); da gipuzkoarra (4); dira gipuzkoarrak (6); du gipuzkoarrak (4); eta gipuzkoar (5); eta gipuzkoarra (6); eta gipuzkoarrak (17); euskadiko gipuzkoar aurreku (3); gipuzkoar aurreku (4); gipuzkoar bat (8); gipuzkoar batek (3); gipuzkoar erako (5); gipuzkoar eta (5); gipuzkoar gazte (3); gipuzkoar guztien (3); gipuzkoar herri (3); gipuzkoar kantari (3); gipuzkoar peto (3); gipuzkoar peto petoa (3); gipuzkoarra da (4); gipuzkoarra eta (8); gipuzkoarra ez (3); gipuzkoarra izan (5); gipuzkoarra zen (6); gipuzkoarrak dira (15); gipuzkoarrak eta (12); gipuzkoarrak ez (5); gipuzkoarrak gailendu ziren (3); gipuzkoarrak izan (5); gipuzkoarrak izan dira (3); gipuzkoarrak izango dira (3); gipuzkoarrak ziren (4); idazle gipuzkoarrak (5); jokalaria gipuzkoar (4); lau gipuzkoar (3); ziren gipuzkoarrak (8); zuen gipuzkoarrak (4)

baina gipuzkoarrek (3); bizkaitarrek eta gipuzkoarrek (5); da gipuzkoarren (4); da gipuzkoarrentzat (3); dute gipuzkoarrek (13); eta gipuzkoarrek (15); eta gipuzkoarren (13); gipuzkoarrek eta (4); gipuzkoarrek ez (5); gipuzkoarrek ez dute (3); gipuzkoarrek irabazi (3); gipuzkoarren artean (3); gipuzkoarren arteko (10); gipuzkoarren bigarren etxebizitzan (3); gipuzkoarren eta (5); zuten gipuzkoarrek (7)

## gipuzkoarzentrisismo iz

**Gipuzkoarzentrisismoa** gainditzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## girgil 1 *iz* xingola, apaingarri merkea.

Lepoko **girgilak**, urre eta zilar batera, zaratatsu erakusten zituztenen estralurtar aurpegietara so. Itxaro Borda  
Mezaren emateko, apezpikuaren inguruan hogeita hamazazpi apez juntatu ziren, handizki, dena **girgila** eta urre kolore. Itxaro Borda  
Politikariek zein kulturaren zedarritzaileek medailak, oroit taulak, kopak eta zinezko baliorik gabeko mila **girgilak** oparitzen zizkioten. Itxaro Borda  
Baionako karriketan zebiltzan **girgila** saltzaileak. Itxaro Borda

## 2 (izenondo gisa)

Haien aldean Melinda, gauza **girgil** inutil mota bat zen. Itxaro Borda  
Gaizkile kiskil, xapikari **girgil** eta nahastekari xirtxil batzuk. Markos Zapiain

## girgileria *(orobat kirkileria g.er.) iz* girgil multzoa.

Lehen lerroko emazte panpox batek, urre eta zilarrezko bere **girgileria** ozenki inarrosiz, arrosa zimel bat aurtiki zion aurpegira. Itxaro Borda  
Leiho batean etxekanderea bere **girgileria** guziekin, jestuka eta keinuka. Michel Oronoz  
Gizonezko sabelandi bat azaldu zela amaren etxean, **girgileria** espantagarritz hornitua eta italiara murduskatzen. Koldo Izagirre  
Uharritzko mosaikoak eginiko zoladurak, balkoi gerizpetuak, **girgileriaz** margoturiko etxeak ikusten ditut. Koldo Izagirre  
Errege-erreginen ezkontza hartan ikusi zuen luxua eta **kirkileria**. Joan Mari Irigoien  
Ikaragarriko burrunba badela hor gaindi Eguberri bestarekin, hirietan dena argi eta **girgileria**, dena musika, kantu eta merkatu berezi. Herria

## girgileztatu, girgilezta, girgileztatzen du *ad* girgilez hornitu.

Exe bat ageri da, harrizko etxe handi balkoiduna, ikusi batean Espainiaren armarrizat hartu dudan blasoi batekin, hain arranditsu eta inperialki **girgileztatua** izaki. Koldo Izagirre

## girgilo *iz* Haragizko tolesa.

Anthony oso lodia zegoen eta **girgiloak** kokotsa ezkututzen zion. Iñaki Zabaleta  
Saman bertan hasten zitzaion tripontzia, **girgiloa** idun gainetik. Urtzi Urrutikoetxea

## girgilu 1 *iz* Presoen estekagailua.

Libra asko pisatzen zuten burdinazko **girgiluz** lotu zizkion oinak. Askoren artean  
Haien arteko arriskutsuenak katea bati **girgiluz** loturik zihoazen. Karlos Zabala  
Orkatiletan **girgiluak** estekatu eta eskumuturrak ere katigatu zizkiotenean. Anton Garikano  
**Girgiluak** ipinita. Anton Garikano  
Espetxea irekiz eta oinetako **girgiluak** hautsiz. Askoren artean  
Lehenbizikoak puntari heldu eta bere **girgiluaren** eraztunetik sartu zuen. Anton Garikano  
Nahiago izan zuen bere eskuak blaitu seme-alaben odolaz, haiei esklabotzaren **girgiluak** jantzi baino. Anton Garikano  
Lotiez azkizioe eskuak gizon honi, lepo-**girgilua** jarri eta leotz batera eraman. Fernando Rey

## 2 irud

Nik, hala ere, irten nahi nuen, geriatrikoko **girgilu** astunetatik askatu. Anjel Lertxundi  
Wolffen irakaspideta eta aldi berean arrazoimen hutsaren jardunbidea bera ere arbuatzen dituztenek zientziaren **girgiluetatik** askatzeko asmoa besterik ez dute, eta lana jolas, ziurtasuna iritzi eta Filosofia filodoxia bihurtzeko asmoa. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **girgiluak** (3); **girgiluz eta katez** (3); **oinetako girgiluak** (3)

## giri 1 *izond/iz* karlistaldien garaian, liberala.

Exague jeneral **giria**. Txillardegi  
Eta are gutxiago herri errepublikano **"giri"** ustel honetan. Txillardegi  
Komentuaren barruan, berriz, bizirik irteteko batera esperantzarik gabe, 600 **giri** zeuden. Txillardegi  
Euskal karlismoaren itoketa burutzeko, Madrilke azpitik dena ausarki koipeztaturik, giputz **"giri"** mordoska bat topatu nuen. Txillardegi  
"El Diario de San Sebastián" egunkari **giri**-zalea. Txillardegi

## 2 atzerritarra.

Jende koloreduna aurkitu zuten eta jende grisa; gazteen algara eta zaharren patxada; **giri** despistatuak edo gazte mugidazaleak. Fernando Morillo  
Dotore etorri zen Ane, beltzez goitik behera, larruzko praka beltzak eta jakanarru beltza, talde **giri** baten skipy beltza barruan. Unai Iturriaga  
Lanzaroten geunden, Europako bazter guztietako **giri** artean. Berria - Kirola

## giristino *(282 agerraldi, 21 liburu eta 116 artikulutan; ETCn 1.192 agerraldi; orobat girixtino; 428 agerraldi, 6 liburu eta 268 artikulutan –ia guztiak Herria aldizkarian-; ETCn 1.348 agerraldi –horietako 1.067 Herria aldizkariako-)* 1 izond kristaua.

Erakaskuntza **giristinoko** zuzendariarekin. Herria  
Eskola **giristinoetako** fraide hori. Marzel Etxehandi  
Ikasteaz besterik galdegiten baitu haatik hezkuntza **girixtinoak**. Herria  
Asiako herrialde **giristino** bakarra baita. Ramuntxo Etxeberri  
Printzea, zaldizko **giristino** bat lagun, Egiptoko eliza batean sartu zen. Aurelia Arkotxa  
Frantziako Eliza **Girixtinoen** Kontseiluak. Herria

## 2 (izenaren ezkerretara)

Bazekiten zer izanzen zen **giristino** fedea Hitler nausitu balitz. Marzel Etxehandi  
Berekin zituzten Biblia, kurutze eta bertze **girixtino** seinale batzu. Herria  
Orain bederen **giristino** itxura badik... Daniel Landart

Jerusalemen ondoan diren **giristino** lurrak. Herria  
Sakramendu hortaz **giristino** familia emendatu da. Herria  
Gure **girixtino** iturriak behar ditugu zaindu eta ez galtzerat utzi. Herria

### • 3 (predikatu gisa)

Mintzatu zauku leku heietako **giristino** izaiteko manerez. Herria  
Europear batasunak behar duela **giristino** agertu. Herria

### 4 (izen gisa)

Juduen eta lehen **giristinoen** arteko haustura. Herria  
Indian 24 milioi **giristino** daude. Gotzon Garate  
Eta **giristino** katolikoak oroitazaziko digu Espainia kristauaren hiriburua izan dela Leon. Piarres Aintziart  
**Giristino** ortodoxoak. Herria  
Hemen hil zen Errolan dohakabea, berrogoi mila **Giristinok** eta Maurok elkar suntsitzen zutela. Piarres Aintziart  
**Giristinoen** formakuntza jarraikia. Herria  
66 urte ditu, eta 35 000 **giristino** kudeatzen. Herria  
Emakumea oso **giristino** zintzoa zen. Gotzon Garate  
Oitoiz bat Marie-Jeanne **girixtino** jarraikiarentzat. Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**elizan giristino** (4); **elizan giristino berriari** (3); **eskola giristinoek** (5); **eskola giristinoen** (6); **eskola giristinoetako** (4); **eskola giristinoetan** (14); **eta giristino** (7); **etorri elizan giristino** (4); **etorri giristino** (25); **etorri giristino berriari** (21); **etorri giristino berriari** (4); **giristino berriari** (24); **giristino berriari eta** (22); **giristino berriari** (7); **giristino berriari eta** (4); **giristino eta** (5); **giristino guztien** (4); **giristino zaharra** (3); **giristinoen arteko** (3); **giristinoen batasuna** (3); **giristinoen kontra** (3); **lehen giristinoak** (4); **ongi etorri giristino** (25)

## giristinoki *(orobat girixtinoki) adlag* kristauki.

Nola beraz musean jokatu, **giristinoki** eta gezurra erranez. Piarres Aintziart  
Hiru haur hazi ditu eta **girixtinoki** altxatu... Herria

## giristinotasun *(orobat girixtinotasun) iz* kristautasuna.

**Giristinotasunaren** bizitzeko eta bizitzera emaiteko zer ametsak ez genituen egiten. Marzel Etxehandi  
Buhame saldoak ez zuela arras segitzen **giristinotasun** trinkoaren ildoa. Itxaro Borda  
**Giristinotasunaren**, Frantziaren eta askatasunaren alde ari zaretela, erran ohi dizu. Xabier Montoia  
Kristau fede eta **girixtinotasun** horrek. Herria

## giristinotu, giristino(tu), giristinotzen *(orobat girixtinotu) da/du ad* kristautu.

Zer erran nahi du horrek? Europa sortzen ari dela? ez dela bakarrik merkatu bat? giristinoa izana nahi duela berriz **giristinotu**? Herria  
Orduko Euskal Herrian orai baino aise jende gutiago zen, oihan beltzez estalia zen, zubirik ez zen eta Euskaldunak ez ziren **girixtinotuak**, barneko alde hortan segurik. Herria

## girlanda *(orobat girkald g.er.) iz*

Bat hauteman zuen irriz, burua **girlanda** batez inguratua. Juan Garzia  
**Girlanda** bat zegoen patioko atean. Koro Navarro  
Burdinorizko sandaliak oinetan, eta artile eta ereinotzez txirikordaturiko **girlandak** zeuzkan lepotik. Juan Garzia  
Eguberriko **girlandak** eta argiztadurak desegiten hasiak dira gure karriketan. Herria  
Paperezko **girkalden** artetik. Lopez de Arana  
**Girlanda** urre-kolorez apaindutako pianoforte zahar bat. Koro Navarro  
Mahatsondoaren adar, mordo eta hostoz egindako **girlandak** apaingarri ageri ziren, berde leun baten gainean margoturik. Karlos Zabala  
Atalburua lorez eta **girlandaz** jazen du. Xabier Amuriza  
Lorez eta hostoz ehotako **girlandaz**. Xabier Amuriza

### 2 (hitz elkartuetan)

Buruan, satinezko pipil-**girlanda** bat zeraman. Lopez de Arana  
Bihotz-bihotzeko elkar-hartze ona palmondoa bezala loraturik, bakeak aurrera ere jantz zezan bere buruxka **girlanda**. Juan Garzia  
Urtero osterera ere zintzo-zintzo agertzen diren hosto-**girlanda** horien aurrean. Juan Garzia  
Masail guriko kupido txiki batzuk ageri ziren jolasean, animala buruak, txerri saiheskiak, saltxitxoi **girlandak** inguruan zituztela. Karlos Zabala  
Odolki **girlanda** haiek. Karlos Zabala

## girlandatu *izond* girlandaz hornitua.

Ontzi **girlandatua** urrun gelditu zen. Aurelia Arkotxa

## girkalda ik girlanda.

## giro<sup>1</sup> iz eguratsaren egoera.

**Giro** lehor eta beroa ohi da. Pello Zabala  
**Giroa**, ordea, arras goibel zegoen ordurako. Karlos Zabala  
Kanpoaldean jesarrita, **giroz** gozatzen. Edorta Jimenez  
Jantoki zikinean, hezueriak jotako haizegailu batek **giroa** freskatzeko itxurak egiten zituen. Aingeru Epaltza

Zerua urdin zegoen, **giroa** inoiz baino garbiago. Bernardo Atxaga

## 2 norbaitengan eragina duten zertzeladen multzoa.

Baina Gregoryk gogoan gordeko duena frontoiko **giroa** da. Edorta Jimenez

Lagun arteko **giroan** konpon dezakegula... Lopez de Arana

Ez nengoen eroso ordu txikietako **giro** hartan. Anjel Lertxundi

Sartu naiz ezin erranezko **giro** batean, euforian hondatua naiz. Piarres Aintziart

Hiriko gizona izan da beti, bere **giroan** sentitzen da hiriko gorputz-jarioaren erdian. Oskar Arana

Grezian mazedoniarren aurkako **giroak** Aristoteles ihes egitera behartu zuen. Askoren artean

Lankideen arteko afari-ondoko **giroak** bultzatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Poliziak gero eta ugariago ziren; **giroa** gero eta estuago zegoen. Juan Kruz Igerabide

Poliki-poliki **giroa** baretu zen; azkenean jendetza zein bere aldetik barreiatu zen. Josu Zabaleta

Zapuztu zen **giroa**: umore onak betirako alde egina zirudien. Harkaitz Cano

Erran zitekeen **giroa** gaiztotua zela haien artean. Aingeru Epaltza

**Giroa** ikusita, ez nintzela sobera luzatuko agindu nion neure buruari. Bernardo Atxaga

Horra, jadanik **giroan** sartuak ginen. Herria

Sartu naiz ezin erranezko **giro** batean, euforian hondatua naiz. Piarres Aintziart

Urduritasuna zegoen **giroan**, guztiak irakasleari begira jarraitzen baitzuten, gehiagoren esperoan. Iñaki Mendiguren

Pilotarien **giroko** Habanan. Edorta Jimenez

## 3 (izenondoekin)

Eguraldi hotza, **giro** beroa. Berria - Harian

Argazkiek erakusten dutenez, **giro** onean egin zen elkarrizketa. Edorta Jimenez

Atzeguardian bizi dira, bizi, ze fronteetan ez da **giro** onik. Edorta Jimenez

Jantokian **giro** polita zegoen. Edorta Jimenez

Zintzur bustitzea **giro** alegera baten iragan da. Herria

Sozialixtek arras **giro** baketsuan berritu dute beren alderdiaren buruzagitza. Herria

Eibarko **giro** kosmopolitak sakon eragin zion musikari gazteari. Koldo Izagirre

New Yorkeko Euskal Etxeak nahikoa itxura eta **giro** penagarria du. Harkaitz Cano

Haren kemen eta adore izugarriak bere inguruan sortzen zuen **giro** zurrunbilotsua. Xabier Olarra

**Giro** zakar hark ere sufriarazten zuen. Karlos Zabala

**Giro** latza sortu zen herrian berriok hedatu zirenean. Gotzon Garate

Barruan **giro** itogarria, kanpoan esespena eta heriotza. Josu Zabaleta

**Giro** ustel horrek bultzatzen ditu pertsonak gaiztakeriaren bideetan barna. Gotzon Garate

Gauean kalera atera gara, eta **giro** basatia iruditu zaigu hangoa. Pako Aristi

Lantegi askotan, sendi da holako **giro** mintu aire bat. Herria

Hango **giro** jada pisutsua erabat loditzen zutela. Karlos Zabala

**Giroa** benetan dekadentea da. Edorta Jimenez

## 4 (zerbaitetarako)

Azaro ona, esan ohi da, ereiteko **giro** egokia dagoanean. Pello Zabala

Ondotik, orgatilarri bulkak, hilerriko langileak, besoak galtzarbeetaraino bildurik, **giroa** horretarako aproposena ez izanik ere. Aingeru Epaltza

Elkar ulertzeko **giroa**. Berria - Euskal Herria

Urduri eta barre egiteko **giorik** desegokienean. Ramon Saizarbitoria

-Quidditcherako **giro** aparta! -esan zuen Woodek. Iñaki Mendiguren

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berotasuna eta hezetasuna, biak gehitu behar zaizkio **giro** -tenperatura normalean arnasturiko aireari, biriketara bidali aurretik. Irene Aldasoro

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Uda-**giro** bare eta argitsu hartan. Txillardeggi

Udako gau **giro** epelaz gozatua nintzen. Aingeru Epaltza

Goiz-**giro** freskoa, ezta? Lopez de Arana

Izotz-**giro** zorrotza dugu. Juan Garzia

Itsas **girokoa** zen bata, eta baserri **girokoa** bestea, bestela eredu baten arabera biak. Edorta Jimenez

Kostatar huts honek, kresal **giroa** ezagutzen nuen. Udaberriaren sartzean-eta ekaitz-**giroa** izaten zenez. Pello Zabala

Ezerk ez du adierazten baserri-**giro** horretatik merkatari-klase bat sortu ahal izan zenik. Koro Navarro

Gabonetako sendi **giro** beroarekin. Pello Zabala

Amodiozko grina Mexikoko goi-mailako gizarte-**giroetan**. Joxe Austin Arrieta

Lan **giro** ezin hobean aritzen ginen. Joxerra Garzia

Adiskide **giroko** elkarrizketan. Askoren artean

Elkarren ondoan eta konfiantza **giroan**, ardoz betetako basoak eskuetan. Koro Navarro

Euforia **giroa** dago gaur, eta ilargi bete gainera. Xabier Etxabe

Bohemia-**giroko** idazleen eta artisten artean. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Politika-**giroan** mugitzen zen jendeak. Juan Kruz Igerabide

Gure izen aldaketa Franco hil baino lehenxeagoko bor-bor **giroak** eragin zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta esaldia eten zuen, misterio-**giroa** hauspotzeko. Anjel Lertxundi

Oroitzapen **giroko** obrak idatzi zituen, guztiz autobiografikoak batzuetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako apokalipsi **giro** bat sortzen zutela- Gangster **giroan** kokaturiko narrazio bat. Daniel Landart

Tonu-**giroz** ezin hobeto zetorkidana, testua halako tremendismo batez janzteko... Anjel Lertxundi

Italiatik zetorren Berpizkunde **giroak**. Martin Anso

## 7 giro ez izan

Gutxitan joaten nintzen ldoiaren etxera; amaren eta bigarren senarraren arteko harremana ez zegoen unerik gozoenean, inondik ere, eta etxe hartan ez zen **giro**. Juan Kruz Igerabide

Ez zuten lo handirik egingo marinel haiek, ez zen **giro** izango 1837ko urriaren 8tik 9ra bitarteko gau hartan. Bernardo Atxaga

Ez da **giro** Gipuzkoako eraikuntzako langileen artean. Berria - Ekonomia

Bero eta hotz, hotz umel eta bero, han ez da **giro**! Pello Zabala

Kanpoan **giro** ez bada, hobe etxera bildu. Aingeru Epaltza





# girotu, giro(tu), girotzen 1 du *ad* giroa ondu edo egokitu, giro egokia eman.

Atertu egin du, haizea goxoa da, zeruan irudi beltz ederrak pasatzen dira, geldiro: une perfektua **girotzeko** behar dena baino gehiago da. **Monika Etxebarria**

Guda zibilean **girotuko** duen eleberriko pertsonaia nagusietako batzuk ezagutu dituela. **Edorta Jimenez**

Gaztelu horretan **girotu** zuen Juan Iturralde y Suiten "Salkindaria" (saltzailea), 1878an idatzirikoa elezahar patriotikoa. **Martin Anso**

1950eko hamarkadan **girotutako** detektibe eta pozoiketa istorio bat harilkatu nuen. **Iban Zaldúa**

Bat baino gehiago dira Euskal Herrian **girotutako** elezahar honen bertsoiak. **Martin Anso**

Hernandezen lana itsasoan **girotutako** abenturazko nobela da. **Berria - Kultura**

Robert Wisek boxeoen munduan **girotutako** lehenengo filma izan zen The set-up. **Berria - Harian**

Hego Amerikako musikaz **giroturik**. **Edorta Jimenez**

Zikiri besta eta dantzaldia Ximista orkestrak **giroturik**. **Herria**

Ikuskizuna monasterio eta elizekin **girotuko** da, kaleketa eta merkatuekin, jauregiatiko dantzekin eta leinuen arteko estiluekin. **Berria - Kultura**

Argi ilun eta biziak eszenatokia **girotzen**. **Unai Iturriaga**

Aurretik Take 6 taldeak **girotuko** du gaua. **Berria - Kultura**

Ez da hosto idor horiek bezalakorik taldea **girotzeko**. **Aingeru Epaltza**

## 2 lurrindu.

Etxeak **girotzeko** erabiltzen diren lurrinen inguruko azterketa. **Berria - Gaiak**

## 3 (era burutua izenondo gisa) aire girotua duena.

Igerileku **girotua**, hidromasaje eta aquaerobic igerilekuak. **Berria - Euskal Herria**

Gela **girotuan** sartu zirelarik, ohartu ziren mahai gehienak hartuak zirela. **Ramuntxo Etxeberri**

## 4 aire girotu (ETCn 642 agerraldi)

Aire **girotuaren** zurrinbiloarekin. **Aingeru Epaltza**

Argizari urtuaren eta intsentsuaren usaina irtetzen hasi zen aire **girotuaren** hodietaatik. **Anjel Lertxundi**

Tomasen autoko aire **girotuak** Josurenean baino freskoago sentiarazten ninduen. **Aingeru Epaltza**

Gimnasia aretoak aire **girotua** du, eta ez dut uste eragin handia izango duenik. **Berria - Kirola**

Aire **girotua** ez zebilela ongi. **Karlos Linazasoro**

Hoteleko aire **girotuaren** sistema hondatu egin da, eta gela bakoitzean jarri dituzten haizagailu zaharrek ez dute lortzen umeltasunaren partikulak apur bat dantzaraztea baino. **Pako Aristi**

## 5 haize girotu (ETCn 20 agerraldi) aire girotua.

Leku jendetsu eta builatsua, haize **girotuaren** arrimora funtzionarioz, etxeoandrez eta saltzailez mukurua bete. **Aingeru Epaltza**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aire girotua (13); aire girotuaren (7); dago girotua (9); gerran girotutako (4); girotu du (15); girotu zuen (8); girotu zuten (4); girotua dago (5); girotua eta (3); girotuko du (4); giroturik dago (3); girotutako drama (3); girotutako filma (4); girotutako ipuin (4); girotutako istorio (3); girotutako nobela (3); haize girotuaren (4); hamarkadan girotutako (4); mendearen girotutako (3); munduan girotutako (4); ondo girotu (3)

# girotzaile *izond* girotzen duena.

Hor ziren etorriak **girotzaile** Kornelio batasuneko soinulari gazteak. **Herria**

## • 2 iz aire-lurrintzailea.

Haurretako gozo urrin zorabiagarria ere modernitateak eramana zuen, **girotzaile** aseptikoaren mesede. **Aingeru Epaltza**

# girotze *iz* giroa ontzea edo egokitzea, giro egokia ematea.

Klase horretako aferetan dabiltzanen deskripzio bat, halako **girotze** bat... **Aingeru Epaltza**

Zinema klasikoaren estetikatik edaten duen **girotze** ongi dokumentatu, sinesgarri eta bikainak. **Berria - Kultura**

Batean, *Misioa* filmari keinu eginez, **girotze** musika eta guzti, oihan muskerrean barrera, itxura guztien arabera Amazoniakoak diruditen indigenak. **Iñigo Aranbarri**

## girten ik kirten.

# girtoin *iz ipar* txortena.

Loreen **girtoinak**. **Herria**

Loreak motz ditazke, **girtoinak** ito, bainan nehork ez dezake primadera etortzetik poxula. **Herria**

# gisa 1 *iz* era, modua, moldea.

Zilegi zaigu guk erabiltzeko hartzea eta, edozein **gisatan**, hartaz baliatzea. **Piarres Xarriton**

Gauza bat eta bera da baina bi **gisatara** adierazia. **Piarres Xarriton**

Bainan denek ere, eskuin ala ezker, badakite bi **gisatarat** mintzatzen Anitz **gisatara** gerta baitaiteke hori. **Piarres Xarriton**

"Eskualduna" kasetak zuen preseski orduan xahartto itxura hartua ainitz **gisatara**. **Herria**

Ainitz **gisatarat** ospa ditazke beraz egun horiek. **Herria**

Mendiek bi **gisatako** bideak sortzen dituzte: sugerriak bezala bihurka narrasten direnak eta boak bezala uhinka narrasten direnak. **Koldo Izagirre**

Gure munduko grinak hiru **gisatakoak** zirela esan zuen Epikurok. **Patziku Perurena**

Hiriak baditu ainitz parke eder eta horietarik ez hain urrun beste **gisako** zoko batzu. **Herria**

Beste **gisako** trabak ere bazituen Pekin-ek. **Herria**

Raffarin gobernuburuak arrunt beste **gisako** solas batzu erabiliak ditu. **Herria**

Huna zer **gisako** galdeak egiten ahalko diren eztabadatuak izan ditezten. **Herria**

## 2 *gisako*<sup>1</sup> izlag bezalakoa. ik **gisako**.

Gotzon, txadona, orlegi, Kepa eta Miren **gisako** hitz berri ugariak zabaltzeko grina. **Koldo Zuazo**

"a=b" **gisako** baieztapen batek. **Askoren artean**

"Kaixo, zer moduz, ni Mocham naiz, eta zu?" **gisako** zer bait. Jon Arretxe  
Deskribapen zehaztuak "Frantziako erregea" edota "Gipuzkoako hiriburua" **gisako** izen sintagmak dira. Askoren artean

### 3 gisako<sup>2</sup> izlag horrelakoa.

Etzagun bati **gisako** zer bait gertatu zitzaioan, guri bezala oporretan zegoela. Aingeru Epaltza  
**Gisako** atestatueta gertatu ohi denez, ñabardura morbidoak erantsi dituzte lekukoek. Joxean Agirre  
Etxean bizi nintzelarik debekatua genuen **gisako** munstrokeriak erostea. Aingeru Epaltza  
Inprimatzaile, inprimaki eta **gisakoak**. Patziku Perurena  
Urteak nituen egunkarian **gisakorik** aditu gabe. Aingeru Epaltza  
Antxoak, pâtés de foie-gras-ak eta **gisako** kutixi kristauak eskatzen zituztenek. Xabier Olarra  
Ez zen **gisakorik** gertatu. Aingeru Epaltza  
"Ez daukat datu hori orain esku artean" edo **gisako** zer bait botako dizu. Iñaki Segurola  
"Gure kabi" eta **gisako** purtzikleria melengak. Joxerra Garzia

### 4 gisako<sup>3</sup> (izen soil baten eskuinetara) modukoa.

Labirinto **gisako** horretatik irten garenean. Patxi Zubizarreta  
Bazela garuneko neurona-mailan, entzumenezko espazioaren "mapa" **gisako** bat. Josu Zabaleta  
Eta laino **gisako** batek estaltzen du poliki-poliki irudia. Josu Zabaleta  
Gorputz guzitik pasa zaion atsegin **gisako** dardarizo hura. Patziku Perurena  
Irudi mentala ez da, beraz, errealitatearen halako barne "argazki" **gisako** bat, errealitatearen irudikapen kodetu bat baizik. Josu Zabaleta  
Hautsezko tunel **gisako** batean sartu gara. Xabier Montoia  
Oinetan plastikozko abarka **gisako** batzuk baizik ez zituztela. Xabier Montoia  
Sortu zen bion artean halako konfiantza **gisako** bat. Agurtzane Juanena  
Laburtzeko, artelan **gisako** zer bait zen. Monika Etxebarria

### 5 gisako<sup>4</sup> (-en atzikiaren eskuinean) modukoa, antzekoa.

Orobat esan nezakeen "gure moduko tontoek", gizabanako orok baitarama bere baitan bere **gisako** tonto bat. Iñaki Segurola  
Hontzaren **gisako** uluak egiten zituen. Xabier Olarra  
Printzeen **gisako** lansariak eta Jainkoaren adiskidetasunak gozatzen du. Xabier Olarra  
Amona zaharrenaren **gisako** eskuak goxoki gorde zuen zibilizazioaren ilunabarreko eguzkia. Xabier Olarra  
Ekonomia eta biologiaren **gisako** "zientzietan". Xabier Arregi  
Charcot jauna, berriz, [...] Edgar Poeren **gisako** kontu kontalaria iruditzen zait. Josu Zabaleta  
Mamu baten **gisako** zer bait. Josu Zabaleta  
Niretzat hilen **gisakoak** dira, nolabait, eleberriko heraien **gisakoak**. Monika Etxebarria  
Alkoholaren **gisakoa** da, neurritz pizgarria eta, neurritz gain, are hilgarria. Xabier Montoia  
Tristezia lanbroaren **gisakoa** dela begitانتzen zaio orain. Imanol Zurutuza  
Beraren **gisakoentzako** kafetegian. Patxi Zubizarreta  
Kidetasun berezi bat da, okerrean dabilzan bi lagunaren artean sortzen denaren **gisakoa**. Ander Irizar

### 6 gisako<sup>6</sup> (-ko atzikiaren eskuinean) modukoa.

Tximistak eta trumoiak edonor ikartzeko **gisakoak** dira. Berria - Kultura  
Ilea lazteko **gisako** mehatxuekin. Patxi Zubizarreta  
Erregeak historia hari urrezko letraz idazteko **gisakoa** iritzi zion. Patxi Zubizarreta  
Hasieran, Capdevielle eta Maitia ez ziren hautetsi bihurtzeko **gisako** postu batean. Berria - Euskal Herria

### 7 gisako<sup>5</sup> (bere eta kidekoen eskuinean) kasakoa.

Buruargia, tematia, eta ernea, bere **gisako** ernetasun triste batez. Juan Garzia  
Ezerezetik hasi beharra zegoen, gure **gisako** antifaxismo bat "asmatu", kimutik sortu, sustraietatik, gure sustraietatik. Juan Garzia  
-Bai zozo originala eta bere **gisakoa** !-erran nion. Joan Mari Irigoien  
-Gure anaiak gorriak ditik, denak hire **gisakoak** badira Nabarrenkoxen -eman zidan bizkarrekoa. Aingeru Epaltza  
Asmatzen zituzten horretarako beren **gisako** molde batzuk. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Ahalgabetasuna ere bere **gisako** zorion bat dela. Matías Múgica

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

abiapuntu gisa (23); abokatu gisa (19); adibide gisa (160); adibide gisa jarri (9); adierazle gisa (9); adigai gisa (9); adiskide gisa (19); agerpen gisa (38); agur gisa (26); aholkulari gisa (12); aitzakia gisa (34); aktore gisa (14); akusazio partikular gisa (17); aldaketa gisa (12); alderdi gisa (20); alternatiba gisa (24); alternatibo gisa (9); amaiera gisa (12); antolatzaile gisa (9); antzoki gisa (9); apaingarri gisa (9); apez gisa (9); arazo gisa (12); ardatz gisa (12); arduradun gisa (16); argudio gisa (18); ariketa gisa (10); arma gisa (32); aroa ere gisa (13); arrazoi gisa (17); artista gisa (15); atzelari gisa (9); atzerritar gisa (26); aukera gisa (16); aurrelari gisa (14); autonomo gisa (12)  
badaezpadako neurri gisa (10); bainan gisa (13); bakar gisa (29); bakarlari gisa (20); baldintza gisa (74); baliabide gisa (18); bat gisa (13); batasun gisa (10); baten gisa (266); begirale gisa (12); behatzaile gisa (16); berbaitango gauza gisa (17); bere gisa (81); beren gisa (17); berezi gisa (15); berme gisa (24); berri gisa (18); beste gisa (19); bide gisa (22); biktima gisa (18); bitartekari gisa (13); bitarteko gisa (11); bitxikeria gisa (15); bozeramaile gisa (13); buru gisa (33); buruzagi gisa (12)  
da gisa (54); da gisa guziz (14); da gisa horretako (14); dela gisa (17); den gisa (51); determinazio gisa (13); dira gisa (20); diren gisa (10); ditu gisa (10); du gisa (15); duen gisa (15); dugun gisa (11); dute gisa (18); duten gisa (17); edo gisa (12)  
efektu gisa (11); egile gisa (16); elementu gisa (11); elkarte gisa (11); emaile gisa (14); emaitza gisa (28); emakume gisa (17); emazte gisa (10); entrenatzaile gisa (18); eragile gisa (17); erakasle gisa (9); erakunde gisa (19); erantzun gisa (68); ere gisa (76); ere gisa berean (11); ere gisa bereko (17); ere gisa hartakoa (23); eredu gisa (17); eta gisa (226); eta gisa berean (16); eta gisa bereko (31); eta gisa guziz (26); eta gisa hartako (11); eta gisa horretako (22); eta gisa horretan (18); eta gisa hortako (20); eta gisa hortan (19); eta herri gisa (21); eta pertsona gisa (9); etsai gisa (10); euskal herritar gisa (17); euskaldun gisa (27); euskarri gisa (10); ez da gisa (17); ez gisa (11); ezaugarri gisa (13); ezkutu gisa (11)  
faborito gisa (10); froga gisa (72); gai gisa (13); gauza gisa (29); genero gisa (9); gertatzen den gisa (14); gidari gisa (14)  
gisa ageri (20); gisa agertu (47); gisa agertu nahi (11); gisa agertuko (12); gisa agertzea (10); gisa agertzeko (18); gisa agertzen (52); gisa agertzen da (17); gisa aipatu (13); gisa aipatzen (10); gisa antolatu (14); gisa ari (23); gisa ariko (11); gisa aritu (35); gisa aritu zen (15); gisa aritzea (13); gisa aritzeko (12); gisa aritzen (14); gisa atera (9); gisa aurkeztea (12); gisa aurkezten (52); gisa aurkeztu (110); gisa aurkeztu dute (12); gisa aurkeztu zen (10); gisa aurkeztu zuen (19); gisa aurkeztu zuten (10); gisa aurkezten (16); gisa azaldu (13); gisa azaltzen (14); gisa bai (9); gisa baino (44); gisa baino ez (19); gisa baizik (42); gisa bakarrik (12); gisa ballatu (17); gisa ballatzen (10); gisa ballio (29); gisa bat (51); gisa bat edo (42); gisa batera (10); gisa batez (109); gisa behin (9); gisa bere (33); gisa berean (306); gisa bereko (185); gisa bereko beste (31); gisa bertsuan (13); gisa bertsuko (12); gisa beste (12); gisa besterik (19); gisa besterik ez (17); gisa bizi (40); gisa bizi izan (11); gisa definitu (41); gisa definitu zuen (11); gisa definitzen (22); gisa deklaratu (35); gisa deklaratu zuen (11); gisa deklaraturiko (9); gisa deklaratzera (22); gisa deklaratzera deltu (13); gisa den (10); gisa deskribatu (23); gisa deskribatu zuen (10); gisa dituen (13); gisa duen (22); gisa duten (9)  
gisa edo (54); gisa egin (31); gisa egindako (20); gisa eginiko (10); gisa egiten (29); gisa ekarria (12); gisa eman (14); gisa ematen (20); gisa erabil (22); gisa erabili (76); gisa erabili nahi (12); gisa erabili zuen (9); gisa erabiliko (14); gisa erabiliz (20); gisa erabiltzea (29); gisa erabiltzeko (47); gisa erabiltzen (97); gisa erakusten (9); gisa erantzun (12); gisa ere (113); gisa erreprezentatzen (13); gisa eta (128); gisa ez (77); gisa ez ezik (11); gisa ezaguna (13); gisa ezagutu (11); gisa ezagutzen (24); gisa ezin (9); gisa funtzionatzen (16); gisa guziz (327); gisa guziz ez (21); gisa har (20); gisa hartako (201); gisa hartako deia (12); gisa hartakoa (53); gisa hartakoa (12); gisa hartan (47); gisa hartara (15); gisa hartarat (78); gisa hartu (121); gisa hartu behar (24); gisa hartu zuen (13); gisa hartu zuten (14); gisa hartua (12); gisa hartuko (22); gisa harturik (10); gisa hartuta (22); gisa hartuz (11); gisa hartzea (23); gisa hartzeko (12); gisa hartzen (79); gisa hasi (28); gisa hasi zen (13); gisa hitz (15); gisa honetako (54); gisa honetan (23); gisa horretako (220); gisa horretan (151); gisa horretara (19); gisa hortako (180); gisa hortan (229); gisa huntako (11)  
gisa ibili (11); gisa ikusi (39); gisa ikusten (103); gisa ikusten du (15); gisa ikusten dute (9); gisa izan (16); gisa izendatu (13); gisa jardun (22); gisa jarduteko (11); gisa

**jarri** (31); **gisa jo** (11); **gisa joan** (9); **gisa jokatu** (40); **gisa jokatzeko** (22); **gisa jokatzeko** (39); **gisa kontsideratzen** (15); **gisa lan** (24); **gisa lanean** (14); **gisa onartu** (30); **gisa onartuak** (9); **gisa onartzea** (13); **gisa onartzeko** (11); **gisa onartzen** (29); **gisa oroz** (17); **gisa parte** (20); **gisa pentsatzen** (10); **gisa sailkatu** (9); **gisa saltzen** (9); **gisa sartu** (19); **gisa soilik** (44); **gisa sortu** (30); **gisa sortu zen** (13); **gisa tratatu** (12); **gisa tratatzen** (11); **gisa uler** (11); **gisa ulertu** (29); **gisa ulertu behar** (16); **gisa ulertzen** (49); **gisa ulertzen du** (13); **gisa utzi** (11); **gisa zein** (13); **gisa zer** (10)

**gizaki gisa** (13); **gizon gisa** (18); **gonbidatu gisa** (41); **goren gisa** (17); **gune gisa** (13); **harrapakin gisa** (9); **hautagai gisa** (27); **hautetsi gisa** (9); **helburu gisa** (30); **herri gisa** (167); **herri gisa agertzeko** (9); **herri gisa erantzun** (9); **herri gisa jokatzeko** (10); **herria herri gisa** (9); **herritar gisa** (46); **hipotesi gisa** (11); **historiko gisa** (9); **hizkuntza gisa** (15); **horren adibide gisa** (25); **huts gisa** (19)

**idazkari gisa** (13); **idazle gisa** (31); **ikasle gisa** (16); **ikur gisa** (17); **independente gisa** (29); **inputatu gisa** (69); **inputatu gisa deklaratu** (21); **inputatu gisa deklaratzera** (14); **irakasle gisa** (25); **irakurle gisa** (9); **irudi gisa** (9); **ispilu gisa** (9); **iturri gisa** (20); **izen gisa** (11); **jende gisa** (9); **jokalari gisa** (21); **kafe antzoki gisa** (9); **kalte ordain gisa** (10); **kantari gisa** (9); **katalunia nazio gisa** (17); **kausa gisa** (17); **kazetari gisa** (10); **keinu gisa** (12); **kide gisa** (53); **kolektibo gisa** (24); **lagun gisa** (31); **laguntza gisa** (14); **laguntzaile gisa** (43); **lan gisa** (10); **langile gisa** (18); **lege gisa** (9); **lehen urrats gisa** (12); **lehendakari gisa** (34); **leku gisa** (9); **lekuko gisa** (97); **lekuko gisa deklaratu** (13); **liburu gisa** (12); **material gisa** (10); **mendeku gisa** (20); **metafora gisa** (16); **militar gisa** (10); **ministro gisa** (13); **multzo gisa** (10); **musikari gisa** (12); **nagusi gisa** (57); **nazio gisa** (66); **neurri gisa** (45)

da **gizabanako**aren (3); den **gizabanako**a (3); eta **gizabanako**a (3); eta **gizabanako**ak (9); eta **gizabanako**aren (8); eta **gizabanako**en (8); eta **gizabanako**en arteko (3); **gizabanako**ak bere (6); **gizabanako**aren eta (3); **gizabanako**en arazo (4); **gizabanako**en artean (5); **gizabanako**en arteko (7); **gizabanako**en eta (3)

## gizabanakotasun iz gizabanako izateko nolakotasuna. ik norbanakotasun; indibidualismo.

**Gizabanakotasunaren** sentimendua garai modernoetan garatu da areago. **Juan Garzia**

## gizabanakotze iz gizabanako bihurtzea.

Baina, horretan ere, ezin esan **gizabanakotze** -prozedurarik zegoenik. **Askoren artean**

Horrela, bada, **gizabanakotzearen** bide modernoa irekitzearekin batera Erdi Aroko gizarte estamental eta mailakatuari zegokion ikasleria, eta ildo horretatik gizakia bera ulertzeko eredu hauitsi zuen. **Askoren artean**

## gizabasa iz gizaki basatia.

Harpe zolatik so zegoikidan troglodita **gizabasa** hori ene zain egona zela. **Juan Garzia**

## gizabazter iz bazterreko gizakia.

Ez dago eraspenik, jainera edo katigamendurik izen jakinik gabe, nonbait; [...]: izen batek bakarrik segurta lezake maitakizunaren bat-beratasuna, eta ez dugu begiz jotako



gizabere ik **giza 8**.

gizabestia ik **giza 9**.

**gizabete** iz gizakiaren neurria.

-Zulo beltz honetan behera, hamabi-hamalau **gizabete** behera jaitsita, eskuineko aldean zoko-une bat dago, gurdi handi bat, mando eta guzti hartan sartzeko adina badena. **Patxi Ezkiaga**

Garia lodi zetorren, eta garaia, **gizabete** . **Felipe Juaristi**

**gizabide 1** iz gizalegea.

Bere **gizabide** eta eskuzabaltasunagatik "txanpon bakar bat ematen didanari, ehun ontzako zilar emango dizkiot, eta mila bider gehiago ere bai" esanez doan eroslea baino gogotsuago eta alaiago joan behar duela Jainkoaren zerbitzariak, Jainko Jaunaren maitasunagatik limosna eskatzera. **Askoren artean**

Egoista hutsa omen bainintzen, zakarra, gustu-kontuan barbaroa, eta emakumeekin **gizabiderik** gabea. **Joxe Austin Arrieta**

**2 gizabidez** *adlag* gizalegez

-Jauna, arren eskatzen dizut **gizabidez** jokatzeko -esan zuen Autodidaktak duintasunez. **Monika Etxebarria**

Ziur nagok sekula ez duela labana eskuan erabili, **gizabidez** jokatzeko dik lapurtzeko orduan ere. **Jose Morales**

-**Gizabidez** ? Urdea! Pentsatuko duzu, agian, ez zaitudala ikusi. **Monika Etxebarria**

**3 gizabidezko** *izlag*

Eta "ja" hitza esanez **gizabidezko** tratua ematen zitzaie la oharturik, edozein galderari "ja" erantzutea erabaki zuten. **Askoren artean**

Jende xehea **gizabidezko** orden naturalaren kontra jartzea baita aberatsei lapurtutakoa pobreei itzultzea. **Anjel Lertxundi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **gizabidez** (4); **gizabide handiz** (3); **gizabidez hartu** (4); **gizabidez hartu zuen** (3); **gizabidezkoak ez diren** (3)

**gizabideratu**, gizabidera, gizabideratzen du *ad* gizabidera ekarri.

Merkataritzak galbidean jartzen ditu ohitura garbiak: horra Platonen kexen gaia; baina **gizabideratu** eta leundu egiten ditu ohitura barbaroak, egunero ikusi ohi dugunez. **Iñaki Iñurrieta**

**gizabidetasun** iz gizabidea.

Bere jendetasun mindua berreskuratzea eta betiko **gizabidetasuna** erakustea. **Joxemari Iturralde**

Denda txikietak jabeen **gizabidetasun** gogaikarri eta faltsutik urrun, benetako aukera-askatasunaren esparru bihurtu dira saltokiok. **Iban Zaldúa**

**gizabidetsu 1** *izond* gizabidez betea.

Oso pertsona **gizabidetsua** zen, amore emalea eta guztiz atsegina, bere kalterako bazen ere. **Askoren artean**

Gezurri bezain **gizabidetsuak** zarete zuek. **Patxi Zubizarreta**

Hantxe ezagutu zituen Manilov -lurjabe guztiz jator eta **gizabidetsua** bera- eta Sobakevitx -gizaseme moldakaitz samarra itxuraz-. **Jose Morales**

Halako adaitasun eta adiskidetasun **gizabidetsuegia** erakusten zuen bere maneretan. **Jose Morales**

Mundutarron gorabeherak ordenatzeko modurik justuena -zuzen eta **gizabidetsuena**- da errepublika. **Anjel Lertxundi**

Nire jokaera ez zen, beharbada, oso **gizabidetsua** izan. **Joxe Austin Arrieta**

Oso pentsamendu **gizabidetsua** . **Koldo Biguri**

Ahots neutro **gizabidetsu** batez. **Joxan Elozegi**

Irlandar adaitasun **gizabidetsu**, bihotzeko eta benetakoa, gure aurrekoengandik jasoa eta guk gure ondorengoei utzi behar dieguna. **Irene Aldasoro**

Oso gauza noble, duin eta **gizabidetsutzat** zeukan Frantziskok [...] Jainko Jaunaren maitasunagatik limosna eskatzea. **Askoren artean**

**2** (predikatu gisa)

Mehatxu handi bat dago hiriaren gainean -esan nion **gizabidetsu**, ondotik pasatzean. **Monika Etxebarria**

Berrogeita hamar urte inguruko gizon potolo batek irribarre polit bat itzuli zidan, **gizabidetsu**. **Monika Etxebarria**

Ordu arte **gizabidetsua** agertu zen bere boza idorra bihurtu zitzaion. **Elena Touyarou**

Azmalek ederki asko ezagutzen zituen Ishmirren gurari eta zaletasunak, eta honen begien aurrean atsegin, xalo eta **gizabidetsu** agertzen ederki asmatu zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **gizabidetsu** (3); eta **gizabidetsua** (3); oso **gizabidetsua** (3)

**gizaburu** iz *adkor* gizabanakoa.

Horri deritzot nik **gizaburu** eder bat. **Monika Etxebarria**

**gizadi** (**368** agerraldi, **66** liburu eta **23** artikulutan; *ETCn* **2.776** agerraldi) **1** iz gizaki guztien multzoa. ik **gizateria**.

**Gizadiaren** lehen arbaso komunak Adan eta Eba izan zirela. Izadia nahiz **gizadia** gobernatzen zituen Logos unibertsal objektiboa. **Joxe Azurmendi**

**Gizadiaren** eta naturaren arteko itun inplizitua nolabait berreskuratzea. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Gizadiaren** eta munduaren etorkizuna dago jokoan. **Askoren artean**

Gizakiarentzat urrats txikia da hau eta **gizadiarentzat**, berriz, jauzi erraldoia. **Berria - Gaiak**

Britainiar industrializazioa **gizadi** osoarentzat da onuragarria, edo bai ingeleseko produktuak erosteko lana hartzen duten nazioentzat behintzat. Koro Navarro

**Gizadiak** izan dituen gizon handi guztiak. Josu Zabaleta

Ameskeria liberalak eztanda egin eta **gizadia**, 1914an, Lehen Mundu Gerraren sarraskira bideratu zuenean. Iñaki Heras

**Gizadiaren** kontrako krimenak. Josu Zabaleta

Sexu erasoak, bortxaketak, emakumeen sexu organoen erazuketak, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu trafikoa pertsonaren eta **gizadiaren** aurkako krimenak dira.

Berria - Harian

**Gizadiaren** kontzientzia historikoak. Berria - Kultura

Hildakoen belaunaldi guztientzat, gureganaino jaitsi den **gizadiaren** mailadi osoarentzat. Josu Zabaleta

**Gizadiaren** parterik zerutarrenak bestearen katepean bizi behar ote du ba? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Gizadiaren** atal hautatu bat salbatu. Iñaki Heras

PPk ez du ulertzen euskal kultura, Kataluniakoa eta Galiziakoa **gizadiaren** ondare direla. Berria - Euskal Herria

**Gizadiaren** historia unibertsalaren kroniketarik. Jose Morales

Emakumeek **Gizadiarentzat** idatzitako Mundu Gutuna. Berria - Harian

**Gizadiaren** arrisku nagusia ez da ezagueraren garapena, ezjakintasuna baizik. Juan Garzia

Jakituria guztia, **gizadiaren** zerbitzuan ipini zuen Prometeok. Juan Garzia

**Gizadiaren** jakinduria biltzen duten mito handien ikerketak. Iñaki Mendiguren

Gizon handien ideiak **gizadiaren** ondare erkidea dira. Juan Garzia

Ez da egia zientziak beti kaltegarriak direla **gizadiarentzat**; eta izango balira ere, ezinbesteko gaitza izango luke gizakiak. Juan Martin Elexpuru

**Gizadiaren** bihotz-zabaltasunaren alde mintzatzen da jarrera hau. Juan Martin Elexpuru

**Gizadiarenganako** maitasuna. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren maitasuna ekintza bihurtu bada mundu honetan Kristoren bidez **gizadia** berrerosiz. Iñaki Mendiguren

## 2 (izenondoekin)

Gizarte-eredu berri baten premia zegoela, **gizadi** berri batena. Juan Luis Zabala

Absolutuaren gose-egarria, **gizadi** berri baten amets utziezina. Askoren artean

Gizon-emakume konkretuen **gizadi** erreala eta horien historia erreala. Joxe Azurmendi

Jainkoa **gizadi** osoaren salbatzaile. Elizen arteko biblia

Honelakoak izaten dira ezjakintasun garaietan irauten duten gauza bakarrak, eta hauek bereganatzen ditu beti **gizadi** otzanak. Juan Martin Elexpuru

Grinak irakiten hasten direnean, kalte ikaragarriak etortzen dira **gizadi** errukariarentzat. Juan Martin Elexpuru

Monoteismoak, erraz ulertzen da, **gizadi** bateratuaren kontzeptura eraman behar zuena Askoren artean

## 3 (hitz elkartuetan)

Gaizki ulertutako **gizadi**-maitasun mota bat. Juan Martin Elexpuru

## 4 gizartea.

Zer zuzenagorik alabainan, holako etxe baten ukaitea baino **gizadi** batentzat, **gizadi** hau bere etorkiaz bertze **gizadietarik** berexa delarik, halaber bere mintzaiaz, halaber oraino bere ohidurez! Piarres Xarriton

Euskaldun **gizadiarentzat**. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina gizadiaren** (4); **da gizadiak bidera** (3); **da gizadiaren** (7); **eta gizadi** (8); **eta gizadiak** (3); **eta gizadiaren** (16); **gizadi berri** (4); **gizadi osoa** (14); **gizadi osoak** (4); **gizadi osoaren** (8); **gizadi osoarentzako** (3); **gizadi osoarentzat** (6); **gizadi osoari** (8); **gizadia eta** (5); **gizadiak bidera dezakeen** (3); **gizadiaren alde** (3); **gizadiaren aurkako** (4); **gizadiaren eta** (5); **gizadiaren historia** (6); **gizadiaren historian** (9); **gizadiaren jatorria** (3); **gizadiaren ondare** (4); **gizadiari ekarri** (3); **gizadiko belaunaldi** (3)+; **munduaren eta gizadiaren** (3)

## gizaera *(orobat gizakera)* iz giza izaera.

**Gizaera**, nortasuna, nor bere baitan daraman demonioak moldetzen baitu. Patziku Perurena

Deusek erakusten al du, ba, gure **gizaeraren** errepresioa, puzker batek bezain ederki? Patziku Perurena

Herriko jendeak, **gizaera** konkretuak nabarien diren lekukoak, alegia, giza eskema jenerikoak nahiago ditu, betiko arketipoak. Patziku Perurena

Ez litzake ergelkeria haundiagoa izanen, akaso, oinak ongi aztertuz munduko **gizaera** desberdinen sailkapen zahatz batzuk egitea. Patziku Perurena

Bidasoaz bi aldetako zoko ilunotan errotutako euskaldunon **gizaerak**, kulturak, odolak, asko zor diola, besteak beste, Santiobide inguruko merkatu beltz hari. Patziku Perurena

Kristautasun integrala, zinezko jesuitismoa alegia, ez zela ongi uztartzen **gizaera** europarrarekin. Patziku Perurena

## gizagabe *izond* gizatasunik gabea.

Uleritu egin nahi du nola bihur daitekeen gizakia hain **gizagabe**. Juan Garzia

Hantxe neuzkan ordurako, ni iritsi zain, lanaulki bat, aire kanpai, idazmahai bat, beirazko ontziz beteriko armairu bat eta isiltasun eta ordena **gizagabe** bat. Juan Garzia

Nekez jaiki naiz; ispiluan, albaiariaren burezurraren gainean, aurpegi **gizagabe** bat ikusi dut labaintzen. Monika Etxebarria

Haren hitzak ez baitziren **gizagabezko** gauza eta uneen itzal bat, bestela baizik, bere bitzta osoa ari zitzaidan zabaltzen. Josu Zabaleta

## gizagabekeria iz ekintza gizagabe gaitzesgarria.

Hala dute jaunok izango aditzea haragi, odol eta bortxazko **gizagabekeria** anitzena: halabeharrezko epaitze, ezbeharrezko hilketa, bidegabeko maltzurkeriak eraginiko heriotzarik. Juan Garzia

## gizagabetasun iz gizagabea denaren nolakotasuna.

**Gizagabetasunaren** adierazpen guztiek, ordea, ez dute higuingarrikeria bera. Iñaki Mendiguren

Ankerkeria gutxieneko **gizagabetasun**-forma. Iñaki Mendiguren

Kapitalismoaren **gizagabetasunaren** erdi-erdi dagoen jokabidea da. Iñaki Heras

## gizagabetu, gizagabe(tu), gizagabetzen du *ad* gizagabe bihurtu.

Eskuliburuko faxista bat, ergela eta adoretua, zeina armen lanbideak [...] ezjakintasun sendoz eta zozokeria larriz egoki apaindu baitzuen, baina ez baitzuen lortu, hala ere, usteltzerik ez **gizagabetzerik**. Juan Garzia

## **gizagaindiko** 1 *izlag* gizakiaren ahalmenen gainetik dagoena. ik **gizagaine**ko.

**Gizagaindiko** eginahalak egin arren. **Xabier Olarra**

Ezin eraman halako tentazio **gizagaindikoa**. **Karlos Zabala**

Antzinako kimikariek kemen eta pazientzia **gizagaindikoak** izan behar zituzten, edo hein berean zen, bestela, neurrigabea organikoetara buruzko nire esperientziarik eza. **Juan Garzia**

Gorputz indartsua zuen, **gizagaindikoa** zirudiena. **Fernando Rey**

### 2 (izen gisa)

Izadia nahiz gizadia gobernatzen zituen Logos unibertsal objektiboa, lehen **gizagaindikoa** ("jainkoakoa", kosmikoa), Erdi Aroak problema handi gabe Jainkoarekin parekatu ahal izan duena. **Joxe Azurmendi**

Arau absolutuak onartzea, **gizagaindikoa** onartzea da, transzendentzia onartzea. **Joxe Azurmendi**

## **gizagaine**ko *izlag* gizakiaren ahalmenen gainetik dagoena. ik **gizagaindiko**.

**Gizagaine**ko indar hari amore eman gabe. **Joanes Urkixo**

Gizakiaren patua **gizagaine**ko lege batek gobernatzen bazuen, lege hori aurrerapenaren legea zen. **Iñaki Mendiguren**

Beira-puztailen pazientzia eta abilitate **gizagaine**koaren eskutikoa. **Juan Garzia**

Hilezkorrak ikusteko eta Hiri **gizagaine**koa ukitzeko gutuziak doi-doi uzten zidan lo egiten. **Juan Garzia**

Sortu zuen herri-administrazioa ez zen anaidi profesional hutsa, baizik eta erlijio-ordena baten baliokide sekularra, hain zehatz berezia, hain zorrotz diziplinatua eta hain indartsu "baldintzatua", ezen **gizagaine**ko, edo gizapiko, arraza izateraino itxuraldatzen baitzuen, ohiko gizakiagandik oso bestelakoa. **Iñaki Mendiguren**

Indar **gizagaine**ko eta suprakosmikoz hornitua. **Xabier Amuriza**

## **gizagaixo** (*283 agerraldi, 87 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 992 agerraldi*) 1 *izond/iz* pertsonen mintzatuz, gaixoa, errukarria. ik **gizajo**; **gizagajo**; **gizarajo**.

Lotsa pixka bat ematen ziola bere ahizpa langile **gizagaixo** batekin ezkondu izanak. **Karlos Zabala**

Ero begiak zituen nire aita **gizagaixo** honek, eta ezin zuen ezkutatu. **Pello Lizarralde**

Mingarria zaizu gazte **gizagaixo** horri gehiago itxaronaraztea, ala? **Patxi Zubizarreta**

Gure familia guztia hondatua zuela ezjakin **gizagaixo** bat zelako. **Pello Lizarralde**

Haren aldamenean, patuak haraino bultzaturiko arlote **gizagaixo** batzuk zeuden, eguzkiak noiz berotuko zain. **Karlos Zabala**

Mutil gazte **gizagaixo** haren alde zerbait egin behar zuela. **Karlos Zabala**

Lisak kezka bakarra zuen abentura horretan: Quenu **gizagaixoak** nolako kolpea hartuko zuen. **Karlos Zabala**

Neskata pollit eta munstro **gizagaixo** haren arteko adiskidetasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

### • 2 *iz* gaixoa, errukarria den pertsona.

Emadazu, horregatik, niri, **gizagaixo** honi, orain zuri zintzo jarraitzea. **Askoren artean**

Buruari eragiten zion, "Zer espero daiteke horrelako **gizagaixoengandik?**" esanez bezala. **Koro Navarro**

Gupida izango die **gizagaixo** eta pobreei, bizia salbatuko behartsuei. **Elizen arteko biblia**

Patu idatziaren kontra borrokatzen den **gizagaixo**. **Karlos Linazasoro**

Eta lankideek burutik egindako **gizagaixo** bati bezala egiten zidaten so begiaren ertzetik. **Juan Garzia**

Gurutzearen izenean **gizagaixoak** sutara kondentatzeko gai dena. **Edorta Jimenez**

Ez nekien zer egiten nuen **gizagaixo** honek! **Iñaki Seguro**

**Gizagaixo** afari batetik omen zetorren une horretan. **Xabier Olarra**

Hiru **gizagaixoak** hondarretan geratzeko zorian egon ziren. **Karlos Zabala**

### 3 (izenondoekin)

Ni, berriz, **gizagaixo** atsekabetu hau, indarberri nazala, oi Jainko, zure salbazioak. **Elizen arteko biblia**

Tamalez, **gizagaixo** errukarri hutsak gara. **Patxi Zubizarreta**

**Gizagaixo** zarpailtsuak, merkatu nagusiko goizean esnaturiko gosetiak. **Karlos Zabala**

Barren-barrenean **gizagaixo** histeriko bat zen, eria, bere eginkizuna probidentziala zela zeharo sinetsia. **Koro Navarro**

Hi bezalako anarkista **gizagaixo** batez axolatzeko. **Berría - Kultura**

Irakaslea **gizagaixo** handiusteko, barregarri bat zen. **Josu Zabaleta**

Alboan nuen **gizagaixo** onanista gortzen hacia. **Karlos Linazasoro**

Ni, txikia, izerditua, **gizagaixo** hutsa. **Matías Múgica**

### 4 (hitz elkartuetan)

**Gizagaixo** itxurako estudiantek. **Jon Arretxe**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaia **gizagaixo**a (10); anaia **gizagaixo**ak (9); beste **gizagaixo** (3); eta **gizagaixo** (3); eta **gizagaixo**a (3); gazte **gizagaixo** (3); **gizagaixo bat** (23); **gizagaixo baten** (3); **gizagaixo batzuk** (3); **gizagaixo errukarriak** (3); **gizagaixo eta** (6); **gizagaixo haren** (5); **gizagaixo hori** (3); **gizagaixo hura** (6); **gizagaixo hutsa** (5); **gizagaixo izan** (3); **gizagaixoak bere** (4); **gizagaixoak bere zoria** (3); nire anaia **gizagaixo**a (8); nire anaia **gizagaixo**ak (7)

## **gizagaizo** *izond/iz* gizagaixo.

Lau aleman **gizagaizo** haiek ez zuten kar handirik barrandan ibiltzeko. **Eneko Bidegain**

Pentsa, kanpoan, biluz gorrian, zer hotzak pasatzen zituen Joanes **gizagaizoak**. **Eneko Bidegain**

Pena emaiten zuen, **gizagaizoak**, zango bat bertzearen aitzinean ezin ezarri, balantzaka, ezin aitzinatuz, buruan zituen xoradurak inguruko presoek ederkisko asmatzen baitzituzten. **Eneko Bidegain**

## **gizagaizto** *izond* gizaki gaiztoa.

Bide handian nagusi jaunari lepoa mozteko asmoa huen, ezta, **gizagaizto** horrek? **Jose Morales**

## **gizagajo** (*2 agerraldi, 2 liburutan; ETCn 17 agerraldi*) gizagaixo. ik **gizagaixo**.

Bibliakoak bezala, **gizagajo** fidakorregi haren ilea moztu bazuen ere, ez zuela beste horrenbestez bestelako apaindurarik gabe utzi haren kopeta. Josu Zabaleta  
Koilararekin aza-bola bat aterata eta gelan zehar bidaltzen omen du, airean, eta **gizagajo** horiek beren platerean harrapatu behar omen dute Irene Aldasoro

## gizagaldu *iz* gizon galdua, bizio eta gaiztakerietara erabat emana. ikemagaldu.

**Gizagaldu** triste honek Lutezia emagaldua besterik ez nuen gogoan. Matias Múgica

Eta denok gara ema- eta **gizagalduak**, giza- eta emasalduak. Iñaki Segurola

-Beraz **gizagaldu** baten ama nauk? Itxaro Borda

## gizagauza *iz* adkor gizakia; giza jarduera.

Baina ba al da hirietan -gero eta inguru zabalagora hedatzen diren hirietan- jende dei daitekeen **gizagauzarik?**, ba al da gizabanako birtualen multzoaz bestelakorik? Iñaki Segurola

Giza joera naturala da, "beti" egiten dena edo egin beharrekoa, zorrieta Txiritaren andregaiaren arkakusoei "bizia kentzea", eta hartatik sar liteke arkakuso- edo zorri-hiltzea **gizagauza** arautu, jakin, arrazoitu edo zertarakodunen zakuan. Iñaki Segurola

Bestalde, gaitzen bategatik edo, animalari bizia kendu beharra dagoenean, gizakiak akabatu egiten du animalia hura, ez hil: **gizagauza** arrazoitua eta nahi dena izango da, baina ez zertarakoduna, animalia hura ez baita ezertarako. Iñaki Segurola

## gizagauzatasun *iz* gizagauza izateko nolakotasuna.

Badirudi, beraz, hiltzeak, inork inor hiltzeak, baduela **gizagauzatasun** bat, arautua, jakina, arrazoitua edo zertarakoduna, akabatzeak ez duena. Iñaki Segurola

## gizagazte *iz* gizon gaztea.

Marra zuri-urdineko korbata eta lastozko kapela zeramatzan ondoko **gizagazte** bati. Lopez de Arana

## gizagihar ik giza 11.

## gizaginkode *iz*

Materia bizikode eta gero **gizaginkode** bilakatu dela hautespen naturalaz kosmosaren baitan. Jenaro Garate

Eboluzioaren arazoa - **gizaginkodearen** sorrera, adibidez- zientziaren barru-barruan kokatuta dago, adimenaren azter-sailean. Jenaro Garate

Izaki bizidun bakoitza izakikoderik gabe ezinezkotzat ematen dute, baina izaki bizidun bakoitzaren eta guztien izakikode **-gizaginkodea** barru- koderik gabekotzat, bai. Jenaro Garate

## gizagintza *iz*

Historia **gizagintza** historia da. Joxe Azurmendi

## gizagirotu, gizagiro(tu), gizagirotzen da *ad*

Jendeak mendeetan barrena **gizagirototako** bazter edo parajeei. Iñaki Segurola

## gizahilketa ik giza 12.

## gizahiltzaile ik giza 13.

## gizajale *izond/iz* giza haragia jaten duena.

Afrikar **gizajale** baten tripan. Ramuntxo Etxeberri

**Gizajale** haien bisaje basatiak eta hagin zorrotzak ikustea nahikoa irudikatzeko hurrengo eszenak nolakoak izango ziren. Jon Alonso

Soldadu errusiar presoak **gizajale** bihurtuak. Felipe Juaristi

Eta hitzaldiak egiten zituen brasildarrak kirtenak zirela esanez, buruargi bakarrak **gizajaleak** zirela adieraziz. Karlos Zabala

**Gizajale** beltz gaizto batzuek jan zituztelakotz! Ramuntxo Etxeberri

Lope de Vegak ospetsu egindako serrana **gizajalearekin**. Bernardo Atxaga

## gizaje *iz* adkor gizakia.

Bigarrena ingeles bat izan zen, **gizaje** xelebre bat. Josu Zabaleta

Etxejabea zen, **gizaje** oihes eta mutiria oso. Josu Zabaleta

**Gizaje** bikainak alemaniar hauek; ni ere herri horretakoa naizela pentsatzea ere! Josu Zabaleta

## gizajende *iz* gizakia.

Aitortu beharra dago beste leku batzuetan ere badagozela lurbirak eta **gizajende** eta piztieria ezberdinak. Xabier Amuriza

Oso urrundik begiratura, inurri berdinak dira **gizajende** guztiak: diferentziarik ez dago. Joxe Azurmendi

Adituek diotenez, Mesopotamian sortu omen zen **gizajendea**. Joxerra Garzia

Onar daitekek **gizajendea** baraurik uztea, baina zaldiei jaten eman behar zaiek derrigorrez. Jose Morales

**Gizajendea** geroago eta hutsago dabil, kontsumoagiez beterik, antzinako panpina lastoz beteak bezala. Patziku Perurena

**Gizajendeak** ere berdin, Jainkoak emandako asturua behar du gu konplitu. Joseba Sarrionandia

Naturarik maiteena, **gizajendearekiko** dialektika antzinakoaz urterik urte moldatu eta ongarritu den hura baitu. Patziku Perurena

## gizajo *(640 agerraldi, 134 liburu eta 19 artikulutan; ETCn 3.110 agerraldi)* 1 izond pertonez mintzatuz, gaixoa, errukarria. ik gizagaixo.

-Ez, gizona naiz, gizon **gizajo** bat, nahiago baduzu. Koro Navarro

Zertako balio izan digute beren gezurra iraultzen ez dakiten iraultzale **gizajo** horiek? Patziku Perurena

Tuberkuloso **gizajo** batek. Koldo Izagirre

Kanta honetan ere, Bartolok amorante **gizajo** pobrearen irudia bereganatzen du. Patziku Perurena

Ni ezjakin **gizajo** bat besterik ez naiz. Koro Navarro

Idazle gazte **gizajo** batez ari denean. Ramon Saizarbitoria

Kanta honetan ere, Bartolok amorante **gizajo** pobrearen irudia bereganatzen du. Patziku Perurena

Nola du izena agure **gizajo** tximino-aurpegi horrek? Lopez de Arana

Orin more bat marraztu zion mateko irakasle geroz eta **gizajoagoari**. Joxemari Urteaga

Gauza asko esan da gure Orentzero **gizajoaz**. Arnold **gizajoa**! Patziku Perurena

**-Gizajoa**, Artola! -esan zuen etxeko nagusiak. Inazio Mujika Iraola

Eta guk kolorezkoa eta koloretsua zela uste, bai baiezkoan eta bai ezezkoan: **gizajoak** gu! Iñaki Segurola

-Oraindik lo hartu gabe, **gizajo** hori? Juan Kruz Igerabide

Non da, **gizajo** hori, zure biziera santu eta ondradu hura? Joseba Sarrionandia

Hoa kanpora, **gizajo** hori, ez baduk zuzi batez atzetik jarraitzea nahi. Juan Kruz Igerabide

Nik, euskalgiro hipokritak gero eta jitoagotzen nauen **gizajo** honek. Patziku Perurena

### 1a (abereez mintzatuz)

Zenbat zakur eta katu **gizajo** ez ote zituen harrikatu berak! Jon Maia

Egun haietan ez zen hegaztien lorratzik ere ageri eta basapiztia **gizajoak** ez ziren oihanetik inoratzen. Xabier Amuriza

### • 2 iz gaixoa, errukarria den pertsona.

**Gizajo** hura benetan urduri zegoen. Harkaitz Cano

Ba, atzo ere erori zuan **gizajo** bat aldambio batetik. Pablo Sastre

Zelaiaren erdi-erdian han harrapatu du **gizajoa**, gorpuzkondo guzia ostikoka odoldua daukala. Patziku Perurena

Ez zidan sinesten, ez zidan ulertzen, eta kezkatan gelditu zen **gizajoa**. Iñaki Segurola

Ixilik egongo al haiz faborez, **gizajo** ostia hori! Iñaki Segurola

Ez zen, antza, **gizajo** peto-petoa; areago dirudi, Piamontean esaera denez, "gatz hondarrak ez ordaintzeagatik zoroarena egiten" dutenen klasea ote zen. Juan Garzia

Gorpu ateratzeko aitzurretan egin zuten hiru **gizajoak** ahaztu barik. Edorta Jimenez

Louisianako **gizajo** bat 1.900 bolioen zain, burua bizkarrekoaren kontra tentetua. Koldo Izagirre

### 3 (izenondoekin)

Egiozu argi **gizajo** ezjakin honi. Patziku Perurena

Kaltetutzat dauka bere burua, **gizajo** errukarria! Anjel Lertxundi

**Gizajo** hutsa, behartutakoren bat. Koldo Izagirre

### 4 (hitz elkartuetan)

Frantzi aldetik, erromes bidea aitzaki, sartutako **gizajo** itxurako jende talde alderrai, alproja, engainadore haien kutsu negartia. Patziku Perurena

Eta ni, parre axial bat ezpainetan, nere **gizajo** paperean nago ixil-ixila. Patziku Perurena

Apustugileak berriz, **gizajo** jendea ziren, gutxik zuten esperientzia hura errepikatzeo itxura. Harkaitz Cano

· Izan, geure modu samarreko gajo-**gizajo** batzuk izango ziren, ez askoz gehiago eta ez askoz gutxiago. Iñaki Segurola

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agure gizajoa (4); aita gizajoa (5); baina gizajoak (3); cesare gizajoa (3); da gizajoa (4); du gizajoak (4); eta gizajoa (6); eta gizajoak (5); gizajo bat (18); gizajo batek (3); gizajo hari (3); gizajo hark (7); gizajo hau (10); gizajo hauek (3); gizajo honek (3); gizajo hori (25); gizajo horiek (3); gizajo horrek (19); gizajo horri (4); gizajo hura (8); gizajoa ere (3); gizajoa ez (4); gizajoa itsu (3); gizajoa ni (3); gizajoa oso (4); gizajoak bere (3); gizajoak ez (6); gizon gizajoa (4); james gizajoa (5); jaulier gizajoa (3); stanie gizajoa (3); zakur gizajoa (3); zen gizajoa (12); zuen gizajoak (7)

## gizajobanako iz ik gizabanako.

Baina badakigu pertsona bere bakarrean zeinen gauzaea den, eta zenbatetaraino den gizabanakoa **gizajobanako** hutsa. Iñaki Segurola

## gizajotasun iz gizajoa denaren nolakotasuna.

Beharbada hiru tasun horiek ez dira gajo-**gizajotasunaren** gaitzizenak baizik. Iñaki Segurola

## gizajotu, gizajo(tu), gizajotzen 1 du ad gizajo bihurtu.

Zeren, hau ere ez dago ukatzerik, heriotzak gajo-**gizajotu** egiten baitu pertsona. Iñaki Segurola

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Eta askotan, harrapatzen gaitu gainera larrugorritan, abere **gizajotuak** bagina bezala. Patziku Perurena

Lekutan dabilzki gazte jator **gizajotuok**! Patziku Perurena

## gizakera ik gizaera.

## gizakeria iz

Beren lizunkeriarri eta haragikeriarri eta **gizakeriari** ere gogor eginik. Patxi Altuna



# **gizaki** (ETCn 64.658 agerraldi) 1 iz giza arrazako banakoa, arra nahiz emea. **ikgizon**. (generiko gisa)

**Gizakia** mintzo den animalia da. **Askoren artean**

Hirian bizi diren guztiak zaurituko ditut, **gizaki** nahiz abere. **Elizen arteko biblia**

Egin dezagun **gizakia**, gure antzeko eta gure irudiko. **Jose Antonio Mujika**

**Gizakiaren** eta Pertsonaren arteko bereizketaz. **Piarres Xarriton**

Sexu makina baino gehiago da, emakumea **gizakia** da. **Pako Aristi**

Ez da **gizakiaren** osasuna bilatzen ari, izaki batena baizik. **Askoren artean**

**Gizakiaren** aurrekoa da mundua. **Askoren artean**

Eta noiz utzi zion, ba, **gizakiak** tximu izateari? **Joxerra Garzia**

Eta **gizakiaren** goren gradua, jakina, **gizaki** modernoa da. **Joxerra Garzia**

Robotak **gizakiak** baino zehatzago ezagutzen duela, guk baino gehiago dakiela etorkizunari buruz, kalkulatu egiten baitu, eta ez hartaz espekulaziorik edo ametsik egiten.

**Joxe Austin Arrieta**

Abere lagunkina dela **gizakia**. **Piarres Xarriton**

Batzuen ustez, **gizakia** ona da berez, baina gizarteak egiten du gaizto. **Joxerra Garzia**

**Gizakiak** duen izaera razionalak. **Askoren artean**

**Gizakia** ustekabekoa da, saiata, neurrigabea. **Karlos Linazasoro**

**Gizakia** ezin da bakarrik bizi; baina ezta beste **gizakiekin** batera ere, arau eta zigorrik gabe. **Markos Zapaiain**

Gero, **gizakian**, izainean, nematodoan, anfibioan, hidran; hots, aztertutako animalia guztietan aurkitzen da gene multzo bat euliaren HOM geneenaren oso antzeko egitura duena. **Juan Garzia**

Legamiatik hasi eta **gizakiraino**, badira zenbait molekula talde beren horretan dirautenak. **Juan Garzia**

Minotaurorak gorputza **gizakiarena** zuen eta burua zezenarena. **Juan Garzia**

Erdi **gizakia**, erdi muntroa zara. **Joanes Urkixo**

Konputagailuen adimen artifizialaren[ eta **gizakiaren** adimen naturala. **Askoren artean**

**Gizakiaren** begian eratzten den perspektiba naturala. **Josu Zabaleta**

Zer da, izan ere, urte bat, zer mende bat eta are zer mila urte **gizakiaren** historian? **Joxerra Garzia**

Ederki kostatu zitzaion **gizakiari** mundua biribila dela sinestea. **Joxerra Garzia**

Berezkoa dute, bai, munduak gaitza eta **gizakiak** gaiztakeria. **Joxerra Garzia**

Giza haziari **gizakiaren** indarrak bakarrik eragiten dio. **Xabier Amuriza**

Iritsiko da **gizakia** Martera, eta Jupiterren jarriko du esperantza. **Joxerra Garzia**

Munduko bazter guztietan ia **gizakia gizaki** denetik ezagun diren animalien bidezko narrazio didaktikoak. **Berria - Kultura**

Baduk lotsa modu bat, **gizakiak** senti dezakeen latzena: hiltzaileari aurpegira begiratzera behartua den biktimaren lotsa. **Xabier Olarra**

Existenzialismoaren, **gizakiaren** askatasuna aldarrikatzen zuen filosofia haren gailurra. **Monika Etxebarria**

**Gizakiaren** premiak mugaezinak omen dira. **Iñaki Heras**

Ulertu egin nahi du nola bihur daitekeen **gizakia** hain gizagabe. **Juan Garzia**

**Gizakiaren** defendatzaile izan nahi dut, martiri izan gabe. **Juan Martin Elexpuru**

Estrasburgok berretsi du fetuak ez dituela **gizakiaren** eskubideak. **Berria - Gaiak**

Dutxa bero baten ondoren **gizaki** sentitzen zen berriz ere. **Unai Iturriaga**

**Gizaki** ote dira, bada, arbolak, setiatutzat hartzeko? **Elizen arteko biblia**

- Utopiaren abenturak **gizakiago** egiten gaituen aldi berean, El Doradokoak aberetu egiten gaitu. **Anjel Lertxundi**

## 2 (banako gisa)

Lurrak zeruko eurien haziarekin ernalduta munduan bizi diren **gizaki** eta animalia guztiak sortu zituela. **Santiago Iruretagoiena**

**Gizakiak**, animaliak, landareak, onddoak, mikrobioak -hots, nola edo halako bizidunok. **Juan Garzia**

**Gizakirik** klonatzeko asmorik ez dutela. **Berria - Gaiak**

Animalietatik **gizakietara** igarotzen diren gaixotasunei buruz. **Berria - Gaiak**

Europako lehen **gizakiak**. **Joxerra Garzia**

Beste lekuetan abereak egiten duten lana, han **gizakiek** egiten dute. **Iñaki Iñurrieta**

**Gizakien** bihotzek ere bai baitituzte zirraraz betetako gauak. **Xabier Olarra**

Ke liluragarri batez lausotu ditu **gizakien** begiak. **Jose Morales**

Denborak ez du, izatez, barne-mugarik, eta guk, **gizakiok**, ezin eraman dezakegu mugagabetasun hori. **Joxerra Garzia**

Zenbat **gizaki** elikatzen ditu Lurrak? **Joxe Austin Arrieta**

Konradek liburu ingelesak irakurtzen zituen batik bat, **gizakien** elkarbizitzaren historiari eta gizarte garapenari buruzkoak. **Xabier Olarra**

Ez da sekula gobernu perfekturik ezagutu, **gizakiak** pasiodunak baitira; eta pasiorik ez balute, ez lukete gobernu baten premiarik. **Anjel Lertxundi**

**Gizaki** batek beste **gizaki** bat hiltzea. **Xabier Olarra**

**Gizakiengan** konfiantza izaten ikasteko. zein gutxi behar genuen **gizakiok** zoriontsu izateko. **Karlos Linazasoro**

**Gizakienganako** maitasuna. **Monika Etxebarria**

**Gizakien** arteko harremanak errazten dituen guztia ezabatzeko. **Monika Etxebarria**

**Gizakien** trafikoan aritzen zen nazioarteko sare bat. **Berria - Gaiak**

Dozenaka **gizakiren** biziak salbatu zituzten, gehienak Francoren espetxeetan hiltzera kondenaturiko presoak. **Alberto Ladron Arana**

Munduan ez da ez **gizakirik** ez hegaztirik bikoterik gabe bizi daitekeenik. **Jose Morales**

**Gizakiak** gaituk, bizi-lege duk guretat bestea hiltzea. **Xabier Olarra**

Ez gara **gizakiak** bezala ibiltzen, ez gara **gizakiak** bezalakoak. **Felipe Juaristi**

Sentiberatasun aparteko **gizakia** zen. **Alberto Ladron Arana**

Baditugu ahuluneak, gu guztiok, baina **gizakiak** baino ez gara. **Oskar Arana**

Baina **gizaki** izan nintzen aspaldi, denborak zentzurik zeukan garaian; **gizakien** artean bizi izan nintzen, espazioaren neurria har zitekeen garaian; **gizakien** artean hil nintzen, oroimenak gizarteak eraikitzen zuen garaian. **Felipe Juaristi**

Gerotik, 1948an, onartu zen, **Gizakien** eskubideak goraki iragartzen dituen Deklarazio Unibertsala. **Piarres Xarriton**

## 3 (izenondoekin)

**Gizaki** berri bat munduratzearen miraria. **Juan Garzia**

**Gizaki** modernoaren moralari. **Askoren artean**

**Gizaki** hilkorri, belarra bezain igarokor den gizakiari. **Elizen arteko biblia**

Altxa zaitze, **gizaki** hutsa naiz ni ere. **Elizen arteko biblia**

Oihaneko jendearengan ere bai, naturatik askoz ere hurbilago bizi direlako **gizaki** zibilizatua baino. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

- Margolan haietan **gizaki** indartsuak bakarrik ikus zitezkeen, Greziako armadaburuak denak. **Jose Morales**



# gizakitxo *iz adkor* gizakia.

Gozamen hau laburra diagu **gizakitxook**. Xabier Amuriza

**Gizakitxo** durduzatuaren neurosi individual jasanezina gainditzeko. Joxe Azurmendi

## gizakoi 1 *izond* gizatiarra.

Hori da gizatasuna, eta klaseen arteko halako ezberdintasunik izango ez duen herri bat desiratzea **gizakioa** da. Pako Aristi

Baina eskerrak ematekoa, askoz ere ekintza **gizakoiagoa** ei da, keinu garatu eta konplexua. Harkaitz Cano

Jainkoaz bete zegoen gizon honek jarrera guztiz **gizakoi** eta errukitsua erakusten zuen adimengabeko sorkarientzat. Askoren artean

Zure jainkotasunik gabe, ez da ezer **gizakoirik**, ez argirik, ez errugabekorik. Joan Mari Lekuona

Nik uste dut gizaki bakoitzak bi alderdi ditugula: bata **gizakioa** eta bestea animaliazkoa. Berria - Kultura

Azkenean, Byronek adierazi nahiko digu ezin izango dugula izaki hori maitatu, ez hitz horrek duen adierarik sakonenean, **gizakoienean**, bederen. Oskar Arana

Gure maisuek lege **gizakoi** hau eman ziguten arren, gaur egun banasta baten arrastaka eramaten dugu eta makila batez zeharkatzen bere burua hil duen gizona. Juan Martin Elexpuru

-Politika **gizakioa** da gurea. Pako Aristi

Erromeriak oso **gizakoiak**, samurrak eta politak iruditzen zaizkit, antigoaleko gauzen xarma hori dute, eta gaurko pubak, tabernak, dantzalekuak eta neuronak dispartuta daramatzaten gaztez betetako kaleak, aldiz, basatiak iruditzen zaizkit, batere samurrak ez, gizatasuna ezezagun duten leku amorragarriak. Pako Aristi

## 2 gizonzalea.

Gizon emakioen eta emazteki **gizakioen** jokamoldea gaitzesten zuela. Joan Mari Irigoien

Delanoé jaunari ganibet ukaldia eman diola ez baititu maite ez politikariak, are gutiago gizon **gizakoiak**. Herria

*Avocats* eta *associés*, deritzan filmetan ikus daitezke saltsa guziak, bat bertzearekin etzaten dena, gizon **gizakioa**, emazte emakioa ere bainan, hain zuzen bi horiek juntatzen direla gizona gizon ala emazteekin doala, emaztea emazte eta gizonekin. Herria

## gizakoitu, gizakoi(tu), gizakoitzen 1 du *ad* gizakoi bihurtu.

Hitzik samurrenak, sekula inoiz errepikatuko ez dituzun hitz goxo sekretuak, heriotzaren mututasun beldurgarria hausteko esaten direnak, heriotza **gizakoitzeko** jaulkitzen direnak. Karlos Linazasoro

## 2 (era bururua izenondo gisa)

Oihartzunez leher datorkigun historia **gizakoitu**. Berria - Harian

## gizakor *izond* gizakioa, gizatiarra.

Otsotzarmendi jaunak hartu nahi izan zuen hitza, itaunketari ukitu **gizakorrago** bat eman nahian. Karlos Linazasoro

## gizakortu, gizakor(tu), gizakortzen da/du *ad* gizakoitu.

[Ezkon-legeak] ezagutu zituztenean, eta seme-alabak eurengandik sortuta ikusi zituztenean, giza enda orduantxe hasi zen lehenengoz **gizakortzen**. Xabier Amuriza

**Gizakortu** natura. Karlos Linazasoro

## gizakote *iz* gizonkotea.

Adin jakinik gabeko **gizakote** bat neukan parez pare. Anjel Lertxundi

Irri-karkarak antzaldatu egin zion aurpegiara, ordu arteko **gizakote** baten itxura basalasaiaz mozorro batek eman izan balio bezala. Anjel Lertxundi

Nire kabiltzarrari lotutako arrantzontziak batbatean marro egin zuen, lotan dagoen **gizakoteak** ametsen batek asaldaturik eta esnatzeke egingo lukeen bezala. Joseba Sarrionandia

Artistak mahaitik altxatu eta banan-banan irten dira lokaletik, **gizakote** hari kontra egiten ausartu gabe. Jon Arretxe

## gizakume 1 *iz* gizakia.

Zerua da guztion aita eta ama lur elikatzaila, handik isuritako ur tantak hartzean ernaldia, uzta gardenez, zuhaitz mardulez eta **gizakumez** erditzen da, piztien enda guztiez erditzen da. Xabier Amuriza

Gainontzeko animalia guztiek auria egiten ditek, ulua, marrua, baina hori **gizakumearen** oihuaren parekoa duk, minak edo beste sentimen bortitzen batek eraginda nahigabe botatakoa. Pako Aristi

Minak **gizakumeari** intimitate guztia kentzen diola pentsatu zuen, min hori pasatzeko besteen beharra daukagun piztia bakarrak garelako. Pako Aristi

Zerbait ezberdina, harrigarria egin ezinda gelditu garen **gizakume** saldoak tarteka "hori" norbaitek egin duela esaten du, benetan geu ere gai izan ginela sinets dezagun. Pako Aristi

Kantentzat **gizakume** oro da zuzen jokatzeko gai. Askoren artean

Zer kezka ziztariek eta nolako beldurrek ez ote dute urratzen irritsaren mende dagoen **gizakumea** ! Xabier Amuriza

## 2 gizasemea.

Eta nola, zahar, adineko, sasoiko eta gazte, **gizakume** eta emakume, suaren inguruan pasatzen duten. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gizakume bat** (3); **gizakume eta** (3)

## gizakunde *iz* Jainkoa Ama Birjinaren sabelean gizon egitea.

Jesukristo Gure Jaunak bere **Gizakundearen** bidez munduari emaniko grazia guztiak. Joan Mari Lekuona

Jesu Kristo gure Jaun eta Salbatzailearen **Gizakundearen** 1227. urtean. Elizen arteko biblia

Jaunaren **Gizakunde** ondoko 1226. urtean.

Jauna, zure **gizakunde**an gizadiari agertu zenion maitasun neurrigabeagatik eskatzen dizut, erruki zakizkiola su hartan erretzen ari den nire anaiaren arimari. Askoren artean

Bilboko **Gizakunde** eliza bete egin zen beste behin. Berria - Kultura

## gizalaba iz emakumea.

Orobat, eskuari eragitea gizasemeen eta **gizalaben** gauza da, biena, bikotekidea eduki nahiz ez. **Luis Elberdin**  
Ez zioten etkeko emakumeari begiratzen, hura katua balitz bezala eta ez **gizalaba**. **Felipe Juaristi**

## gizalaguntza ik giza 14.

## gizalan ik giza 15.

## gizalarru iz adkor jendea.

Baroja "ez zen batere berezia", oso zabaldutako **gizalarru** mota baitzen eta baita hori lumazaleen artean. **Patziku Perurena**  
Hori ez duk egia, **gizalarrua** ezin duk horrela mantendu... **Koldo Izagirre**

## gizalde (7 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan) iz giza taldea. ik giza 18.

Europa Zaharreko **gizalde** hartaz garbiro hitz egitea, ordea, zailsko egiten da. **Patziku Perurena**  
**Gizalde** hark, ez zigon, egia esan, gizonaren munduko izateaz filosofia eta pentsamendu sakon handirik utzi. **Patziku Perurena**  
Jakintza guziaren erroan dago analogia zaharra gorde, menderik mende, **gizaldean** harat honatak nahastu eta edertua, oraino gure irudimen ahula harritzera datorkiguna. **Patziku Perurena**

## gizaldi (ETCn 1.386 agerraldi) 1 iz mendea.

Hasieran zen bezala, orain eta beti, **gizaldi** eta **gizaldietan**. **Matías Múgica**  
**Gizaldi** eta **gizaldietan** erroak eginiko hierarkia hori. **Gotzon Garate**  
Oinak garbitzeko, oinetakoak jantzi edo erantzeko usuario **gizaldien gizalditan** gorde izanak. **Patziku Perurena**  
Gure herrian **gizaldiz gizaldi** gogoratuko den ekintza bat egitera noa. **Jose Antonio Mujika**  
**Gizaldiz gizaldiko** transmisio hori. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Hura eta bera da, **gizaldiak** joan eta **gizaldiak** etorri, giza muinetan itsatsirik gelditu zaigun sexologia. **Iñaki Segurola**  
Estatuaren **gizaldi** askotako antolamendu-tradizioa. **Koro Navarro**  
Zenbait **gizalditan** zehar. **Askoren artean**  
Alkate hitzak semantika zabala izandu du **gizaldietan** barrena. **Patziku Perurena**  
Hona hamabosgarren **gizaldiko** izpirituak esan didana: [...]. **Iban Zaldua**  
Beraz, **gizaldi** honetan ia laukoiztu egin da biztanleria. **Gotzon Garate**  
**Gizaldi** berriko kazetaritza. **Berria - Gaiak**  
Gauza askotan India ez da bizi XXI **gizaldian**. **Gotzon Garate**  
**Gizaldiaren** bigarren erdialdean. **Iñaki Heras**  
Orain urte asko, orain **gizaldi** asko. **Gotzon Garate**  
Duela **gizaldi** askotako euskaldunek. **Berria - Euskal Herria**  
Mende hau izan baita aurrerapen izugarriak ahogozatzeko mendea baina, aldi berean, paradoxen **gizaldia** ere. **Pello Salaburu**

## 2 ipar belaunaldia.

Erakaspen baitezpadakoa oraiko **gizaldiarentzat**, dena tripa joko. **Herria**  
Familia guzia, orotar bat **gizaldi**, elgarretaratu da omenaldi bat eskaintzeko bere arbasoari. **Herria**  
Oraiko **gizaldi** berrieri doakie aiten ganik hartu lore ta argien pitz eta biazaraztea. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ari da **gizaldi** (3); auzi egunean **gizaldi** (4); da **gizaldi** (4); egunean **gizaldi honen** (3); eta **gizaldi** (9); eta **gizaldi guztietan** (4); eta **gizaldiak** (3); eta **gizaldietan** (18); eta **gizaldiz gizaldi** (3); eta **gizaldiz gizaldi** (3); **gizaldi bat** (5); **gizaldi eta** (25); **gizaldi eta gizaldi** (3); **gizaldi eta gizaldietan** (17); **gizaldi eta gizaldietan** (17); **gizaldi gaizto** (3); **gizaldi guztietan** (5); **gizaldi hau** (5); **gizaldi honen** (6); **gizaldi honen kontra** (3); **gizaldi honetako** (5); **gizaldi honetakoak** (3); **gizaldi honetakoak hil** (3); **gizaldi honetan** (6); **gizaldi honi** (5); **gizaldiaren bigarren** (3); **gizaldiko izpirituak** (4); **gizaldiz gizaldi** (29); **gizaldiz gizaldi** (29); **gure gizaldi** (4); **hamabosgarren gizaldiko** (5); **hamabosgarren gizaldiko izpirituak** (4); **hau gizaldi** (3); **lehengo gizaldian** (3)

## gizalege 1 iz gizartean bititzeak ezartzen dituen jokabide arauen begirunea. ik gizabide; jendetasun.

Oihaneko legea **gizalege** bihurtu dugu. **Miguel Angel Mintegi**  
Larrua joz betetzen ditugu bakarrik naturaren legeak; eta hauek eragozten dituzten **gizalege** guztiek mesprezia baino ez dute merzei. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Bestela, **gizalegeak** agintzen duena betez, apur batean egon, eta gero joan. **Jose Morales**  
Zarata pixka bat egin ez ari dira jaten, gogotsu, serio, arretatsu: ez dute denborarik **gizalegeak** agintzen duen bezala jateko. **Xabier Olarra**  
Horren eraginez, ahaztu egin zitzaion aurrena etkeoandrea agurtzera joatea, **gizalegearen** arauak agintzen zuten bezala. **Jose Morales**  
**Gizalegeak** agindutako gutzia ez da, ordea, hipokresia. **Anjel Lertxundi**  
Tropikoak collegean ikasitako **gizalegea** hondatzen ziek, legenak azala bezala. **Xabier Olarra**  
Bere ezkon-nebaren aurrean **gizalegea** urratu gabe nola joka zezakeen jakin nahi zuen. **Karlos Zabala**  
Egoerak, dena dela, Kristinarekin begiz begi egitea eskatzen zuen eta horrela konplitu genuen **gizalegea**. **Aingeru Epaltza**  
Arduradun politikoak gizarte zibilizatu batek berezkoa behar lukeen neurriaren zentzurik gabe aritu ziren; eguneroko jokabidea ez zen **gizalegea** eta forma demokratikoak zaintzea, ezpada zakarkeria, mehatxua eta gezurra. **Berria - Harian**  
Manera onak eta **gizalegea** alde batera utzirik, txanoa hartu eta etxetik irten zen. **Jose Morales**  
Ni baino zaharragoa izan haiz beti, eta zaharrei obeditzea duk **gizalegea**. **Pedro Alberdi**





asmatzeko grazia izateagatik. **Patziku Perurena**  
Nik neronek ikasi behar izandu dut: **gizaminez** eta eskarmentuz. **Patziku Perurena**

## gizamodu 1 iz gizakiaren bizimodua.

**Gizamodu** berriotan gailentzen ari diren jateko ohiturei begiratuta. **Patziku Perurena**

## 2 *pei* gizakia.

Liburuzaina **gizamodu** takar ezertarakoez bat zen, lotsagabe nabarmena eta lizunkiro itsusia. **Juan Garzia**

## gizamolde iz *adkor* gizakia.

I. jaunak nekez jasaten zuen jendearen itxuraren aldaketa ("**gizamolde** gris bizidunak dirudite"), eta hain gutxi ispiluan berak zuen itxura ere: gizarte-harremanei muzin egiten hasi zen, eta sexu-harremana ere ezinezko egin zitzaion. **Xabier Olarra**

-Hori esan al zuen? -galdetzen du gonbidatuak, eta mugitu giten da: **gizamolde** -postura aldatu eta eztarria argitzen du. **Xabier Olarra**

## gizamordo ik giza 13.

## gizamunstro ik giza 14.

## gizandi (*orobat gizaundi*) 1 iz erraldoia.

Heroe lapurren batek galasi guziak bere zakuratu, dama lirainen batek **gizandiak** umetu, txingurri urdinen batek Euskal Herri osoa salbatu... **Patziku Perurena**

## 2 irud

Kultura unibertsalaren **gizandia** izango zinen, figura erraldoia mendebaldeko pentsaeran. **Xabier Montoia**

Lenin han Errusiak eman dituen **gizandien** artekotzat dute. **Edorta Jimenez**

Abrahan lehen aita, **gizaundi** gisa ageri da, bere gurasoen etxea utzi eta 'bidean' jartzen dena, sakrifizio guztietarako prest. **Jose Antonio Mujika**

## 2 (izenondo gisa)

Hiru lagunei ez zaie ezabatu arrantzale **gizandiaren** itzala. **Edorta Jimenez**

## gizanditu, gizandi(tu), gizanditzen du *ad* gizandi bihurtu.

Don Buclé dela, ez txoroflauta bat, ez txoropanderoa ere, baizik-eta guk teknikoki "txorogaixtoa" esan ohi diogun klaseko giza aletto bat, Egiaren Ministerioak **gizanditua** eta gizurendua. **Iñaki Segurola**

## gizarajo (*54 agerraldi, 21 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 309 agerraldi*) iz gizagaixoa.

Mutiko **gizarajo** bat zegoen kaderako tuberkulosiarekin, argizainaren semea. **Anton Garikano**

Mucklebackit etxolako **gizarajo** erdiero zaharrak. **Anton Garikano**

Bada Augustus zahar **gizarajoak** beste platerkada zopa eskatu zuela -hori zen dena. **Anton Garikano**

Tsarren inperioko txakur salatari guztien artean **gizarajoena** nintzela. **Matías Múgica**

**Gizarajo** samarra zen, sindromeak jota daudenen antzera. **Berria - Euskal Herria**

Paul **gizarajoak** baretu behar izan zuen. **Anton Garikano**

Nik, **gizarajo** halakoa, benetan zioela pentsatu nuen. **Edorta Jimenez**

Eta **gizarajoek** antzinako erlijioetara eta dena dezaketela uste duten jaun ankerretara jotzen dute. **Xabier Amuriza**

Eskuak erre zitzaizkion **gizarajoari**. **Pako Aristi**

Zuk ez zenuen **gizarajo** haren aurpegia ikusi. **Harkaitz Cano**

## gizarte (*ETCn 178.782 agerraldi*) 1 iz giza lagunartea, gizadia erkidegotzat hartua; lege eta erakunde beren azpian bizi den gizaki multzo iraunkorra.

**Gizarteari** edo izadiari atxiki ezinezko gaitzak. **Askoren artean**

Kohesio moralik egongo bada, **gizarte** moralik alegia. **Joxe Azurmendi**

Europar **gizarteak** ez du, oro har, begi onez ikusten nekazaritzan aplikatutako transgenikoen bioteknologia. **Askoren artean**

Bigarren Mundu Gerraren hasieran [...] frantses **gizartean** eta gudarostean gertatutako hondamendia. **Josu Zabaleta**

Mendebaldeko **gizarte** ustez aurreratuetan. **Joxerra Garzia**

**Gizarte** Siriakoak **Gizarte** Helenikoaren erasoari eman zion erantzunean. **Iñaki Mendiguren**

Ekintza programen eragimena hobetzeko gobernuek, enpresek eta **gizarte** zibilak elkarrekin eginiko aliantzak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Gizarte** "alternatiboak" hedabide alternatiboak ekoizten ditu? **Txema Ramirez de la Piscina**

**Gizarte** kapitalistan guztientzako eskubide horren defentsa askatasun ekonomikoaren mende jarri zen. **Askoren artean**

Jainkoaren **Gizarte** industrialetan XX. mendean egin diren lorpenak (**gizarte** -babesa, gutxieneko soldata, itun kolektiboak, etab.). **Koro Navarro**

Emakumea bazterten duen **gizarte** matxista dago indarkeriaren atzean. **Berria - Euskal Herria**

Hori da **gizarte** elebidun baten alde egiteko arrazoi bat. **Pello Salaburu**

Erkidegoko **gizarte** irekiaren eta zibilizazio guztietan azaltzen den **gizarte** itxiaren artean dagoen leize handia. **Iñaki Mendiguren**

Nafarroakoa bezalako **gizarte** txiki batean. **Berria - Euskal Herria**

Bizi ziren **gizartea** ukatzen zuten matxinatuak. **Koldo Izagirre**

**Gizartea** estu-estu lotzen zuen "betiko" ordena zahar hura. **Joxe Azurmendi**

Krisiak ikaratu egiten du **gizartea**. **Joxe Azurmendi**

Datorkigun **gizartea**, ezagueraren **gizartea** izango da. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hizkuntza bat irakasterakoan, **gizartean** bertakotzea izan behar luke lehen helburua. **Koldo Zuazo**

Gaur egungo informazioaren **gizarte** giza harremanak aldatu egin baitira. **Askoren artean**  
Kublai Khan mongolak [...] Ekialde Urruneko Garapenak ekonomiaren eta **gizartearen** eraldaketa progresibo bat dakar berekin. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Gure **gizartearen** feminizazioaz asko hitz egiten den arren. **Berria - Kultura**  
Eta gizakiak berak dira **gizartearen** aurrerabidea sustatzen, **gizartearen** aberastasuna sortzen [...] dutenak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
**Gizartearen** eremu kontinental osoaren konkista lortu zuenean. **Iñaki Mendiguren**  
**Gizartearen** onerako zerbitzua izanik, izaera pribatu nahiz publikoa duten erakundeek osatzen dute sistema osoa. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
**Gizarteko** norbanakoek bere beharrak ase ahal izan dituzten. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
**Gizarteko** elkarte eta erakunde adierazgarriekin kultura ekimenak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**  
Indibiduala dena, eta **gizartekoa** dena. **Isabel Arrigain**  
Ez dago **gizarterik**, ez arkaikorik ez modernorik, kulturarik gabe. **Askoren artean**  
Ikusten ote dugu amodioa? Ez! Baina rriño, keinu, hitz goxo, fereka, elkartasun urrats edo eskulolpe batean sentitzen; bizi bizirik agertzen zauku, **gizarte** (eta emarte edo gize-marte) harremanetan sumatzen dugu. **Herria**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik sozial.

Antitetikoak eta elkarren etsai ote dira espiritu- eta **gizarte**-balioak? **Iñaki Mendiguren**  
Balioren baliagarritasuna [...] **gizarte** bizitza eratzen duen gizatasuna edo giza esperientzia da. **Joxe Azurmendi**  
Hilketa horren egilea hurkoari bere aurkikuntza ostu nahi dion gaixkin hortik horrako bat da, **gizatxartxo** bat, maltzurkeriaz erasotzen duena, atzetik. **Juan Garzia**

## gizatxar *izond/iz* pertsoez mintzatuz, handia, kankailua.

**Gizatxar** ile-gorri bat zen, bizar-gorria, oso handia, halako Herkules baketsu, eratsu bat. **Josu Zabaleta**

## gizaundi ik **gizandi**.

## gizaurreko *izlag* gizakiaren aurrekoa.

Gizakiaren adimenak sekula ez zukeen gizakia kreazioaren jaun bihurtzeko aukerarik izango, gizakiaren **gizaurreko** arbasoa animalia sozial bilakatzeko gaitasunaz hornitua izan ez balitz. **Iñaki Mendiguren**

## gizazpiko *izlag/iz* gizakiaren ahalmenen azpitik dagoena.

Sortu zuen herri-administrazioa ez zen anaidi profesional hutsa, baizik eta erlijio-ordena baten baliokide sekularra, hain zehatz berezia, hain zorrotz diziplinatua eta hain indartsu "baldintzatua", ezen gizagaineko, edo **gizazpiko**, arraza izateraino itxuraldatzen baitzuen, ohiko gizakiagandik oso bestelakoa. **Iñaki Mendiguren**

## gizemarte *iz* cf **gizarte**.

Ikusten ote dugu amodioa? Ez! Baina rriño, keinu, hitz goxo, fereka, elkartasun urrats edo eskukolpe batean sentitzen; bizi bizirik agertzen zauku, **gizarte** (eta emarte edo gizemarte) harremanetan sumatzen dugu. **Herria**

## gizen 1 *izond* haragi eta gantza ugari duena; joria, oparoa. (gizakiak)

Gizon **gizen** alai da, bizar zaindua du. **Monika Etxebarria**

Ume izateari oraindik utzi ez dion neskatxa **gizen** baten usaina zen hangoa. **Karlos Zabala**

Montmorency gereziak, andre **gizenaren** ezpain potoloak. **Karlos Zabala**

Beti hain sasoiko, ama Chantemesse **gizen** hori... **Karlos Zabala**

Errege **gizena** eta eskale argala. **Juan Garzia**

· Estutu nion esku **gizen** beratza; gurinezkoa zirudien. **Matias Múgica**

Bere beso **gizena** emakume ikusezin bati eskainiz. **Iñaki Mendiguren**

Bere zango **gizen** eta beso mardulek. **Pako Aristi**

Mammy gerri-**gizena**, Mammy kantaria, Billieren ama, Mammy. **Pablo Sastre**

Izua bere aurpegi **gizenean** agerian zuela. **Iñaki Mendiguren**

Ipurdimasail **gizen**, zuri eta bigun batzuk agerian utziz. **Juan Martin Elexpuru**

Halako malgutasun koipetsu bat gordetzen zuten hatz **gizenetatik** falangeetaraino. **Karlos Zabala**

Belarri txiki **gizen** eta zizelkatuetan. **Monika Etxebarria**

Gorpuzkera apur bat **gizena** zuen, bizimodua eguzkipean ateratzen dutenen itxura ederra eta gogorra. **Karlos Zabala**

### 2 (animaliak)

Zekor guri eta **gizen** bat aukeraturik, morroi bati eman zion berehala aton zezan. **Jose Antonio Mujika**

Baditut oilasko **gizen** ederrak... **Karlos Zabala**

Masailak gorri-gorri, pixka bat lelotua, erretzen ari ziren animalia **gizenei** barre txikiak eginez. **Karlos Zabala**

Neskatxak katu **gizen** arre argia hartu zuen besoetan. **Karlos Zabala**

Balthazar, François andrearen zaldia, abere **gizenegia**, ilararen buru zihoan. **Karlos Zabala**

Pony gris tantotu **gizen** bat etorri zen presarik gabe zelaira. **Iñaki Mendiguren**

Barbo txiki **gizenak**, elurra bezain zuriak. **Karlos Zabala**

Evak ez zuten sagarra jateko inolako asmorik, baina horretara behatu zuten suge **gizen** batek. Joxan Elozegi  
- Ahatekiak, ahate gibel **gizenak** eta antzarak ekoizten dituzten etxalde ugari dago. Berria - Ekonomia

### 3 (landareak etab.)

Uraren hondoan dagoen landare **gizen** eta zuri horrek. Monika Etxebarria  
Gaitzaren espirituaren lurralde guztiak bete-beterik zeuden gari lodiz, ezkila dorreak ziruditen olo **gizenez**, lihoz. Josu Zabaleta  
Amak konpota egiten du azokan aurkitzen dituen anpolai **gizenenekin** eta, gero, potetan sartzen. Anjel Lertxundi  
Lur beltz eta **gizena**. Eskarne Mujika  
Bakearen soroan gerraren haziak usu barreatuak direla eta erne eta hazteko lur **gizena** dutela. Xabier Olarra

### 4 (gainerakoak)

Euri motela, **gizena**, zaharra, asfalto-xingarrei usaina eragiten dien horietakoa. Jokin Muñoz  
Naturaren hezetasun **gizenak**. Jende tropel **gizen** eta zurbil horren gainean, tente dago Sainte-Cécile elizaren masa zuri ikaragarria. Monika Etxebarria  
"Amelie-san" orro egin eta barre **gizen** zikin batez lehertuko zitzaidala uste nuen. Joxan Elozegi  
Motorren etengabeko doinu **gizenak** "briu-brau" zartatzen ziren ke buhada beltzetan. Ramuntxo Etxeberri  
Orduak aurrera joan ahala, elkarretaratzeak **gizenduz** joan ziren. Txema Ramirez de la Piscina  
Pertsona helduaren kasuan, idealak izan ohi dira eskuarki bere biziko etsigarri **gizenak**, etsigarri esistentzialak. Iñaki Segurola  
Izen baten jabe eta diru baten jabe egitea da arrakasta; hau da: letra eta numero **gizenez** idaztea pertsona baten izana, balioa eta prezioa. Iñaki Segurola  
Guraso zintzoez, maisu-andereñoek eta kazetariak beren haur edo bezero umetuen aurrean, zer dioten jakin gabe, bota ohi dituzten jakineko ideia **gizen** eta berbaila elbarriak. Iñaki Segurola  
Minutu batean gertatua bi minututan zabaldu zuten, eta Samuelen ero-fama **gizendu** zen. Anjel Lertxundi  
Askatasuna edo ideologia edo erantzukizuna bezalako hitz ezin **gizenagoek**. Anjel Lertxundi  
Zergatik edo nola gertatzen dira gauzak (eskuarki bizimoduko gauza **gizen**, potolo edo esanguratsuak)? Iñaki Segurola  
*Village Voice* egunkari paperean inprimaturiko agenda **gizen** bat da. Harkaitz Cano

### • 5 (predikatu gisa)

Lodia baino gehiago, **gizena** zen, borobila, guria. Bernardo Atxaga  
Ziur egon hadi -esan zuen-, Kain **gizena** zuan eta Abel argala. Karlos Zabala  
**Gizena** eta aurpegi-zurbila zen. Fernando Rey  
Marro ikusi nuen plazan sartzen, zeri baten moduan ibiliz, gero eta **gizenago** baitzegoen. Juan Kruz Igerabide  
**Gizena** zegoen, egon ere; **gizenegia**, hogeita hamar urte besterik ez izateko. Karlos Zabala  
Garai batean hain **gizena** zena, orain hezur eta azal baitzegoen. Iñaki Mendiguren  
Orreagako ordokia dena pentze berde eta **gizen** da. Michel Oronoz  
Gari-oloak ez baziren ere, belarra bai, bete eta **gizen** etorriko zen, euri gozoa eta eguzkia lagun. Pello Zabala  
Drina ibaia zeharkatzea zihoala, konturatu zen, uholdeak izanagatik, urak handi eta **gizen** zetozela. Felipe Juaristi  
Bouvillen dena da **gizena** eta zuria, zerutik erortzen den ur hori guztia dela medio. Monika Etxebarria  
Albertok ere asko jaten du eta ez nuke nahi Cesare gizajoa bezain **gizen** jartzea. Fernando Rey  
Lajoson gonbidapena sakelan zuela heldu zen Endre, eta han zen lorategiaren erdian, **gizen** eta lasai. Ander Irizar

### 6 (izen gisa)

**Gizen** hori ezagutzen duzu? Xabier Olarra  
Baina honela oldartu zitzaion **gizena** halako batean: [...]. Joxan Elozegi  
Dardarka hasi ziren **gizenaren** ezpain lodiak. Joxan Elozegi  
**Gizenekin** bazian hark zeozer. Xabier Etxabe

### • 7 iz haragiaren gantza, giharra ez den zatia.

Saiheski ogi-arrautzeztatua nahi nuen, baina gelditzen zaizun horrek **gizen** gehiegi du... Karlos Zabala  
Urdai **gizena** ezezik, zeri odolkiak, saiheskiak. Patziku Perurena  
Atximur egiten zion hanken **gizenean**, inork ikusi gabe, eta neskameak ontzat hartzen zion. Karlos Zabala  
Haragi-puska handiak sartuz banan-banan burdinazko barra luzean, gihar eta **gizen** zatiak tartekatuz. Jon Arretxe  
Dieta: **gizenik** gabe. Josu Zabaleta  
Izenak motz gelditzen dira, eta izen sustantiboak, sasia eta **gizena** besterik ez dakarten horiek, motzago eta putzago. Iñaki Segurola  
Ene estomakak ez zuten **gizenik** jasaiten ahal. Marzel Etxehandi  
Beti egoten zen patataren bat edo **gizenen** bat. Anjel Lertxundi  
Espilikatu zidanez, bizimodu sedentarioa eginez, **gizen**-deposito bat formatzen da begietan barrena, osasunaren kaltean. Juan Garzia

### 8 Astearte Gizen

Gaurtik haste, heldu den Astearte **Gizena** arte, zortzigarren aldikotz, aurtien ere, soinu eta dantza berriak taularatuko dituzte inauterien karietara Errobiko Kaskarotek. Berria  
- Kultura  
Asteart **Gizen** martxoaren 4an. Herría  
Astearte **Gizena** dela, Zanpantzar erreko dute.. Berria - Kultura

### 9 gizenaren gizenez

Dudleyk, **gizenaren gizenez** ipurdia sukaldeko aulkiaren bi aldeetatik erortzen zitzaiola, irri bortxatua egin eta Harryrengana jiratuta, esan zuen: [...]. Iñaki Mendiguren

### 10 gizen-gizen

Madama Paz azalduko da, sorgin zahar **gizen-gizena**. Josu Zabaleta  
Zazpi behi itxura ederrekoak eta **gizen-gizenak**, ibaiertzeko larrean bazkatzen hasi zirenak. Jose Antonio Mujika  
Udaberriaren bihotzeko apirilak, berriz, larreak **gizen-gizen** ipini ohi dituela. Pello Zabala  
Euria **gizen-gizena** da dagoeneko, ase gabe ari du, zeruak hustu egin behar duela ematen du. Anjel Lertxundi  
**Gizen-gizen** eta trumilka zetozen Charles ibaiko urak. Anjel Lertxundi

### 11 Ostegun Gizen inauteri aurreko osteguna.

**Ostegun Gizena**: garai hartan, goizeko hamabiak arte, klaseak normal izaten ziren, eta, hamabietan puntuan, festaren leherketa, erokeria kolektiboa, jaiaren orgasmoa. Inauteri aurreko ostegunean, **ostegun gizen** delakoan, Ataun aldean eskean ibiltzeko ohitura zuten mutiko gazteek. Xabier Mendiguren Elizegi  
Baina, batez ere, **ostegun gizen** haren berezitasuna tabernetan sartzea zen, guk ordura arte ia inoiz egiten ez genuena, eta tabernetan ardoa eskatzea. Xabier Mendiguren Elizegi  
Bera aldean Nafarroan, eta Haltsun Lapurdin, **ostegun gizen** egunez, eskolameak etxez etxe ibiltzen dira kantuan eta eskean. Pello Zabala

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**andre gizen** (4); **andre gizena** (7); **andre gizenak** (5); **andre gizenaren** (12); **andre gizenaren erretratura** (3); **andre gizenari** (3); **asteart gizen** (3); **astearte gizen** (3); **baino gizenago** (3); **behi gizen eta** (3); **bezain gizen** (3); **emakume gizen** (3); **eta gizen** (12); **eta gizena** (10); **eta gizena zen** (4); **eta gizenago** (5); **eta gizenak** (3); **ez gizena** (3); **gibel gizen** (3); **gizen bat** (17); **gizen batek** (3); **gizen batekin** (3); **gizen baten** (7); **gizen dauden** (4); **gizen eta** (26); **gizen gizen** (6); **gizen gizena** (5); **gizen gizena** (5);

## gizenarazi, gizenaraz, gizenarazten du *ad* gizentzera behartu.

Uso haiek, aiez eta ur gaziz **gizenarazita**, kolpatuta, lepoa ebakita, Tuilerietako pagausoak ekarri zizkioten gogora. **Karlos Zabala**

## gizendu (*ETCn 1.948 agerraldi*), gizen(du), gizentzen **1** da *ad* gizen edo gizenago bihurtu. ik **loditu**. ant **argaldu**.

Helena, **gizendu** egin zara, eder-ederra zaude. **Lopez de Arana**

Eta azken bi urteetan hamasei kilo **gizendu** zen. **Berria - Kultura**

Orain ez duzu gaizki jaten, eta, hala ere, ez zara **gizentzen...** **Karlos Zabala**

Eta ni, berriz, **gizendu** egin nauk, aizak! **Karlos Zabala**

[Azienda] haragitarako, hots, dirutarako hazia eta **gizendua**. **Iñaki Seguro**

Zezeila euritsu, bedartzak ederto **gizendu**. **Pello Zabala**

Hor azaltzen da berriro laino mehar ttatar bat, bertan formatzen eta gorpuzten doana, loditzen eta giharretzen, betetzen eta **gizentzen**... **Pello Zabala**

Unean-unean zirriparra **gizentzen** ari da. **Anjel Lertxundi**

Aritzakun eta Urritzateko urekin **gizentzen** eta Bidarrain Errobi izenekoari juntatzen zaion ibaiari. **Iñaki Seguro**

Kalitatea eta kantitatea urritzen joan ahala, gure haserrea **gizentzen** hasi zen. **Anjel Lertxundi**

Hein bat **gizendua**, bizarra utzia pusatzerat eta ileak luzatzerat, arrunt beste itxura bat omen zuen. **Herria**

### • 2 du *ad*

Usoak **gizentzen** ari nintzen. **Karlos Zabala**

Besterentzako zerriak **gizentzen** aritu behar. **Juan Kruz Igerabide**

Izaki guztiak **gizentzen** ditugu **gizen** gaitzaten, eta geure burua dugu **gizentzen** mamorroentzat. **Juan Garzia**

Ez dut nahi integra nazaten, ez eta nire odol gorri ederra piztia linfatiko hori **gizentzera** joan dadin. **Monika Etxebarria**

Poltsa **gizentzeko**. **Joan Mari Irigoien**

Urteak nire soldataz haren poltsikoa **gizentzen**, eta horra ordaina. **Aingeru Epaltza**

Inork ez die etorri berriei begiratu giza multzoa **gizentzera** jarri direnean. **Aingeru Epaltza**

Ikasleen onespak ez dio curriculumara **gizenduko**, horrelakorik ez baita aintzat hartzen. **Joxerra Garzia**

Jeronimok ere bizitza araukoaren itxura egin behar izan du, eta aurre-juzku bat **gizendu**, bere intimitatea gordetzeko. **Anjel Lertxundi**

Horrek Ibarlako jaunari buruzko susmo beltz asko **gizendu** zituen saratarren artean. **Anjel Lertxundi**

Ahotsa **gizendurik**, deklamatzeko hasi zen. **Anjel Lertxundi**

Ez du borrokaren folklorea **gizendu** nahi. **Agurtzane Juanena**

Jendearen ulertezintasuna **gizentzeko**. **Anjel Lertxundi**

Agustin izeneko agure armairutxoarena, baserria tremendismoaren agertokitatzat daukatenean morboa aitzakiarik gabe **gizenduko** duena. **Anjel Lertxundi**

Erretorika hutsa da, haizeak alferrik **gizendutako** orbela. **Anjel Lertxundi**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Behinola, ardi, idi eta zekor **gizenduak** hil zituen Adoniasek opari bezala. **Eiizen arteko biblia**

Hortik aurrera erreka **gizendua** izan dute lagun eskuin aldean. **Pello Lizarralde**

Errekako ur **gizenduari** begira jarri dira. **Pello Lizarralde**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bapo gizendu** (3); **bat gizendu** (3); **eta gizendu** (7); **eta gizentzen** (5); **eta zekor gizenduak** (3); **gizendu egin** (9); **gizendu egingo** (3); **gizendu egiten** (6); **gizendu eta** (10); **gizendu ote** (4); **gizendu ote da** (4); **gizendu zen** (4); **gizendua zen** (3); **gizentzen ari** (10); **gizentzen da** (3); **gizentzen eta** (5); **gizentzen hasten** (3); **kilo gizendu** (4); **zekor gizendua** (5)

## gizenegitu *izond* gizenegi bihurtua.

Gainerat ez prestatua, **gizenegitua**, gaixo pagatzaileak. **Herria**

## gizengarri *iz* gizentzen duen zera.

Irakurketa konpultsiboak, hausnartzaileak, zerbitzuzkoak, plazer hutsekoak, buru eragozgarriak, autoestimua **gizengarriak**. **Anjel Lertxundi**

## gizenketa *iz* gizentzea.

Dagoen-dagoenean, beraiek egindako plangintzak ondorio bakarra izango du, foka eta mortsen **gizenketa**. **Bernardo Atxaga**

## gizenki *iz* gizena, haragiaren gantza.

Gure diskurtso eskolastiko lojizaz apaindu eta itxuraz nobleto honek baino **gizenki** zuri gutxiago eta gihar gorri gehiago erakusten duela letratu gabeko edozein hiztun inozentek. **Patziku Perurena**

Beste aintzetan baino **gizenki** gutiago jaten da hor. **Herria**

Uztaritzeko Zantzarrek ez du deus ikustekorik kostaldeko San Pantzar edale, **gizenki** jalearekin. **Herria**

Ortziralean Donapaleun, antzara eta ahate **gizenki** merkatua eta sariketa. **Herria**

## gizenkor *izond* gizentzeko joera duena.

Alferrak arabiarrenak bezalako almendra-begiak zituen, ile-kiribil beltz eta leunak, **gizenkorra** zen eta zintzilarioak eta belarritakoak eraman zalea oso. **Fernando Rey**

Izenak asko behar du eta asko jaten du; **gizenkorra** da. **Iñaki Seguro**



## gizentze izond adkor gizona.

-Horko **gizentze** hori. **Harkaitz Cano**

Gelako aire guztia xurgatzen zuen **gizentze** haren erruz. **Harkaitz Cano**

Metro eta erdi baino askoz gehiago ez zen emakume **gizentzeak** ez zuen galderarik egiten. **Harkaitz Cano**

## gizentasun iz gizona denaren nolakotasuna.

Gorrotoa ziolako, bere **gizentasunari** ez ezik, bere ahizpak zeta ikusgarriekin janzteko zuen joerari ere. **Fernando Rey**

N hiriko dama guztiak lodi samarrak zirela, baina hain trebetasun handiz estutzen zuten gerria eta hain zuten liraina ibilera, ezen ez baitzegoen haien **gizentasuna** nabaritzarik. **Jose Morales**

**Gizentasunaren** gaixotasunari aurre egiteko. **Berria - Euskal Herria**

Egun **gizentasuna** oso zabaldua dago, elikadura txarra eta bititza sedentarioa dela eta. **Berria - Gaiak**

**Gizentasuna** eta eritasun kardiobaskullarrak etengabe hazten ari direla Eguzki Berriaren herrian. **Joxan Elosegi**

**Gizentasun** arazoak izango dituzte britainiarren herenek 2020an. **Berria - Gaiak**

Estatu Batuetako biztanle lodikorrek beren **gizentasun** itsusiaren kontra egiteko. **Pello Salaburu**

**Gizentasunaren** aurkako tratamendu berriak sortzeko. **Berria - Gaiak**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da gizentasuna** (4); **gizentasun arazoak** (18); **gizentasun arazoak dituztenen** (3); **gizentasun arazoek** (3); **gizentasun arazoek** (3); **gizentasun kasuak** (3); **gizentasunaren aurkako** (7); **haurren gizentasun** (3)

## gizentegi iz abereak gizentzeko tokia.

Aratxe **gizentegia** haratxago eta beste deiztegi bat ere badauzka. **Herria**

Milaka behi **gizentegi**. **Herria**

## gizentxo izond gizen samarra.

Bazen edade ertaineko mulata bat, **gizentxo**, bekokian ebakiondo bat zuena. **Juan Garzia**

Sabel **gizentxo** birjintasunez eta amodioz bete-betean. **Josu Zabaleta**

Zerri **gizentxoren** bat gazikutxan ondo doblatzekoa ere. **Pello Zabala**

## gizentzaile (corpusean gizentzale soilik) iz abereak gizentzen dituen pertsona.

Hiru etxalde horietan xerrikumeak beren bi hilabete eterdiak arte hazi ondoan (25 kilo arte nunbeitan), **gizentzale** batzuren etxetara igorriak dira hiruzpalau hilabeterentzat, 100 kilotara heldu arte. **Herria**

## gizentze iz gizen edo gizenago bihurtzea.

Izaki delikatu haiei bititzen lagundu, zurtoinen freskura hatzetan ukan, muskilen **gizentze** gertutik ikusi. **Eider Rodriguez**

Eta seguru, baita ere, neskato honek ez duela **gizentze** arazorik. **Joxemari Iturralde**

## gizeraile iz giza hiltzailea.

Nehor ez baillitzake ausart erratera zuzena dela, **gizeraileak**, ohoinak eta lapurrak ez gaztigatzea erabaki lezakeen bakea. **Piarres Xarriton**

## gizon 1 iz gizaki arra. ik gizoneko 2.

Gurera etortzeko bideak jendez gainezka zeuden, zahar eta gazte, neska eta mutil, **gizon** eta emakume, elkarren ondoan batzuk, banaka besteak, igo eta igo. **Felipe Juaristi**

**Gizon** eta emakumeen arteko berdintasuna. **Berria - Kirola**

Bazen lurralde hartan Joan izeneko **gizon** bat. **Askoren artean**

Izen bereko beste **gizon** batekin ezkondata dago. **Lopez de Arana**

Zaldizko **gizon** asko lagun zituela. **Askoren artean**

Aurrean garaiera handiko **gizon** baten hezurak zeuden. **Agustin Otsoa**

**Gizonak** urde galantak dira neska gajookin. **Lopez de Arana**

Eskarmentu handiko **gizon** asko ikusia zela. **Jose Morales**

Eta SSetako **gizonak** ere ikusi nituen, beren uniforme beltzak jantzita. **Alberto Ladrón Arana**

Portuko zamaketariak, bizitzak zaildutako **gizonak**, gogortasunera ohitutako **gizonak**, beren gorputzen ahalmena ezagutzen ez zuten **gizonak**, indarrean eta indar-erakustaldian, zentzua zuten **gizonak**, bai, greba egitera ausartu ziren. **Felipe Juaristi**

Buru argiko **gizon**, jaingo-zaletasunaz eta bizi-ohiturez ospetsuak. **Askoren artean**

**Gizon** bat hil zuela, gudarosteko kapitain bat. **Jon Muñoz**

Bi **gizon**, aita-semeak, atxilotu zituen Ertzaintzak Sestaon. **Berria - Euskal Herria**

Alde guztietatik etorri zen jendea, **gizon** eta emakume, santua ikustera. **Askoren artean**

Gizonak **gizon** behar du, ezer izango bada. **Hasier Etxeberria**

**Gizon** arteko adiskidetasunaren zentzu sakona altruismoa duk. **Xabier Olarra**

Zure bizitzako **gizon** guztiak. **Lourdes Oñederra**

Nolako **gizona** zen? **Bego Montorio**

Andreak itaundu ei utsan: "Zer pasaten jatzu, **gizon?**" -Baina, Tom, **gizona!** **Xabier Amuriza**

Bai zera, **gizona!**, sumindu zen Napumoceno jauna. **Bego Montorio**

Umetokiaren ahoak **gizonaren** zakila estutu egiten du, eta bertan biltzen dira haziak. **Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio**

Solasaldi hutsala izan dute, eta lurperatutako neska **gizonaganako** sexu-grina sentitzen hasi da... **Fernando Rey**

-Elurrezko **gizonaren** hondakinetan arkatzairen bila zebilen haurra. **Koro Navarro**

## 2 (izenondoekin)

Tomas **gizon** eskolatua zen. **Askoren artean**

**Gizon** ederra izango haiz, ezbairek gabe. **Aitor Arana**

**Gizon** goxoa zen Kaiet, jendekina, bat eta bertzearekin solas egitea maite zuena. **Herria**

Ni oso **gizon** gaiztoa naiz. **Askoren artean**

**Gizon** gaiztoak beti gustukoagoak, betiko kontua. **Sonia Gonzalez**

Jaka batez jantziriko **gizon** bibotedun bat. **Jose Morales**

**Gizon** uniformedunak zeuden bi txalupetan. **Koro Navarro**

**Gizon** anker baino ankerragoa izanik, bortxaz ezartzen zuen bere legea. **Martin Anso**

Gure oroimena **gizon** ezjakinena da, denboraren poderioz moteldua. **Askoren artean**

Sasoi horretan itzultzen baitziren Madrildik herriko **gizon** prestu eta erregimenaren txit adiskideak. **Josu Landa**

**Gizon** lodi, burusoil eta begi urdin bat. **Lopez de Arana**

O'Connor jauna, **gizon** gazte ile-gris bat. **Irene Aldasoro**

Probintziatiko **gizon** dotore-usteko horietako bat hiri erdian. **Jose Morales**

Lehen lerroko gizonak, **gizon** puskak inondik inora. **Felipe Juaristi**

**Gizon** ezin miserableagoa nintzelako. **Joan Mari Irigoien**

Horren ostean **gizon** goiz aguretu hura [...] txanelean igo zen. **Edorta Jimenez**

Ez zegoen **gizon** beltzez jantziaren inolako arrastorik. **Anjel Lertxundi**

Zergatik zegoen **gizon** umore-txar batekin eta nirekin hemen kuzkurtuta. **Koro Navarro**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik giza)

Distira iluneko larruazal hura zuen neskatoak sentiarazi zion ziurrenik, harrigarriro biziki, ez zitzaiola **gizon** -bizitza luzerik geratzen. **Ibon Uribarri**

**Gizon** -aurpegi bizarra kenduak eta ezpain gorriko eta sudur hautsezatutako emakume-aurpegiak. **Lopez de Arana**

**Gizon** -ahotsak entzun ziren nahasi-mahasian. **Iñaki Mendiguren**

**Gizon** usaina, airean zebilen izerdi usain gozoa. **Aritz Gorrotxategi**

Ez zen harropuzten bere kirol-gaitasun eta **gizon** -kemenez. **Juan Garzia**

Izaba Augusta, gai honetan zure **gizon** -sena balia dezazun erregutzen dizut. **Antton Olano**

Azkengabeko **gizon** -bakartasun tristera kondenturik ikusten nuen garai hartan neure burua. **Juan Garzia**

Denbora joan ahala eusten zion **gizon** -ereduarekin. **Fernando Rey**

Atzera bere **gizon** -arropak jantziak zituela. **Juan Garzia**

**Gizon** -zapata sendoak. **Fernando Rey**

**Gizon** -itzalak borrokan ikusi zituen ontzirelekuan. **Lopez de Arana**

Baranda bernizatuak **gizon** -ilarari eusten zion. **Lopez de Arana**

**Gizon** talde bat ikusi zuen han jokoan. **Askoren artean**

Atea zabaldu eta arrapataka sartu zen **gizon** -oste hura. **Jose Morales**

**Gizon** -karga mardul hura iristen zenean. **Karlos Zabala**

Gazteegiak dira **gizon** -lanerako. **Anton Garikano**

Nik esan gabe ere badakizu, Martin, zer **gizon** -klase den hori. **Irene Aldasoro**

Baina **gizon** galtze haundiak izan ziren ene erresimenduan, oinezko 16.ean, soldado eta ofizier. **Michel Oronoz**

Beren artean miseriarengatik edo bakartasunarengatik ardura bazen jokotzar, ebasketa, zanpatze, berdin kabala edo **gizon** hiltze. **Michel Oronoz**

Bidea moztuko zieagu puta **gizon** -gose horiei. **Koro Navarro**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Era askotako ezbeharrak zituen beste andre-**gizon** multzo handi batek. Joan zen korrika obedientzi **gizon** zen Silvestre aitaren agindua betetzera. **Askoren artean**

Lehergailu bat zartaturik, bi poliza-**gizon** hil dira, beste bat handizki kolpatua altxatu dute. **Herria**

Polizia-**gizon** bati galdegin diot beribila plazan uzten ahal dudanez. **Piarres Aintziart**

Landetxeen administrazioa "mamsér" (sasikume) baten esku utzi zuelako, zeinak ogi-koxkor baten truke saldu baitzizkion [kupoiak] bere lasto **gizon** bati. **Juan Garzia**

Harriague-Morroxko, Pradet eta Labat diputatuak, de Saint Jayme, d'Andurain, d'Elissagaray, Etcheverry eta beste herri-**gizon** batzuk higitzen hasi ziren. **Piarres Xarriton**

Ekintza-**gizon** zaildu bat espero nuen, ez atso zarpail hura. **Alberto Ladron Arana**

Arma-**gizon** sendoak. **Agustin Otsoa**

Propio kontraturiko launa eskolta-**gizon** armaturekin. **Patxi Iturritegi**

Frantziar funtzionario edo letra-**gizon** bilakatzen arrakasta izandakoan espero zezakeena baino. **Iñaki Mendiguren**

Haren bizitokia: jakintza-**gizon** batena iduri [...] paretu guztiak liburuz beteak. **Joxe Austin Arrieta**

Agian enpresa-**gizon** bihurtuta bukatuko zituen bere egunak. **Alberto Ladron Arana**

Negozio-**gizon** argia zen, antza. **Askoren artean**

Lanak izango lirateke gure artean finantza-**gizon** bat zer den haiei ulertarazteko. **Iñaki Iñurrieta**

Zuzenbidean aditua eta lege-**gizon** zen Pedro Cattanirekin. **Askoren artean**

Osrik, gorte-**gizon** maneratua. **Juan Garzia**

Ea matematikari batez diharduen, estatu-**gizon** batez, poeta batez ala erlojugile batez. **Juan Garzia**

Garraio **gizonak** pianoa bere tokian utzi eta gero. **Lander Garro**

Entzun zituen istorioak beste bufalo-**gizon** batzuenak: haietako hiru osasuntsuen kanpamenduan zeuden, handik milia batzuetara. orain berak, bere SSetako zaldun beltzen buru, egotziko ditu ekialdeko azpi-**gizonak** Alemaniak behar dituen lurraldeetatik. **Anton Garikano**

Hala nola erdi arrain erdi txakur direnak, edo erdi arratoi erdi intsektu, edo erdi **gizon** erdi txori. **Juan Garzia**

## 4a (elkarketa kopulatiboetan)

Guztietako eta edonongo **gizon** -emakumeen ondarea. **Askoren artean**

**Gizon** -emakumeen arteko aginpidezko harremanetan. **Jon Muñoz**

Milaka **gizon** -emakumeen aurrean. **Askoren artean**

## 5 gizakia.

Da gizakiak [ " **gizonak** " ezabatu eta gainean idatzia] maitasunez egiten duen ekintza bat. **Iñaki Segurola**

Nire herri honetan zibilizazioa, **gizonaren** zoria, adiskidetasunaren atsegina gogora ditzadan. **Josu Zabaleta**

**Gizona** ez da harreman korapilo bat baizik. **Josu Zabaleta**

Humanismoak **Gizona** predikatu du. **Josu Zabaleta**

Zakurra **gizonaren** lagun zintzoa da. **Gotzon Garate**

Gizonarengandik urrunen dauden **ugaztunetariakoak** dira, beharbada gizateria baldarki endekatuaren ezaugarriak dituztelako. **Juan Garzia**

## 6 senarra.

-Etxean? **Gizonarekin** bakarrik bizi da. **Fernando Morillo**

Hurrengo egunetan **bere gizonaren** joan-etorriak aztertzeko detektibe bati enkargua eman zion. **Gotzon Garate**

**Bere gizonarenean** ez zuen egun bat zoriontsurik igaro. **Gotzon Garate**

## 7 (adizlagun gisa) gizontasunez. ik **gizonki**<sup>1</sup>.

**Gizon** jokatu behar nuela eta ezin jar nezakeela neure gizontasuna kolokan eta kordokan. **Joan Mari Irigoien**

-Osabak **gizon** jokatu ez duelako. **Joan Mari Irigoien**

Nire begien aurrean biluzten zelarik, berarekin **gizon** jokatzeko eskatu zidan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ezin negar egitetik egoera izugarrirei aurre egiteraino, eta hori dena beti **gizon** agertu behar dutelako, beste arrazoirik gabe. **Karlos Zabala**

Behingoagatik besterik ez bada ere, **gizon** porta zaitez. **Martin Anso**

Argi zegoen hura hiltzera joanak zirela dendara, eta lehengusuak **gizon** portatuz hil nahi izan zuela. **Juan Kruz Igerabide**

Atzo **gizon** etorri ninduan ni, ordea, galtzak bere lekuan. **Joan Mari Irigoien**

## 8 gizonago

Hernando ez zen ni baino **gizonago**; ene iritzian, behintzat. **Edorta Jimenez**

Pasteur ez da inoiz begira dagoenean baino **gizonago**. **Josu Zabaleta**

Edo bestela, zergatik uste izaten dugu gizajook, egiak **gizonago** egiten gaituela? **Patziku Perurena**

Frantses banderak **gizonago** bihurtu balitu bezala... **Eneko Bidegain**

Inoiz baino **gizonago** ikusi nuen harkaitz haren gainean eserita. **Inazio Mujika Iraola**

Atso maingu bat izutzeak ez gaitik **gizonago** egingo. **Anjel Lertxundi**

Zure emaztea kementsua da, eta gizon askok baino **gizonago** jokatu ohi du. **Patxi Zubizarreta**

## 9 gizon bihurtu

Tira, seme, **gizon** bihurtu zara jadanik, eta egun batean biscaynetarren buruzagia ere izango zara. **Joanes Urkixo**

Berarentzat ez zen aita bat, baizik eta **gizon** bihurtutako ikara. **Fernando Rey**

## 10 gizon egin

Ahaleginak eta bi egingo ditut zu **gizon** egiteko. **Lopez de Arana**

**Gizon** egin zara... potroekin! **Gizon** egin nauen emaztekiaren besoetan. **Joan Mari Irigoien**

Kristo gure Jaunaren **gizon** egitea adierazi ziola. **Patxi Altuna**

## 10a gizon ez gizon

Eraman onez, makurtu, eskua berriz ere bixkar gainean pausatu eta **gizon ez gizon** arazoitzera saiatu nintzen. **Aingeru Epaltza**

## 11 gizon-gizon

Ez bibote kaxkar barregarri horietakoa, ez, bibote sarria, **gizon-gizon** baten bibotea. **Karlos Zabala**

Azkeneraino joan zitezten, izan zitezten **gizon**-gizonak. **Karlos Zabala**

Eta gero haren ipurdiaren kontra igurtzitzen nintzen, gogotik gustatzen zitzaion, nahiz gizon-**gizona** zen, portugez guztiak bezala, atzelariak barne. **Karlos Zabala**

## 12 gizon-nahi (corpusean gizonahi soilik) izond gizon izan nahi duena.

Eskola tikian genbiltzala, eliz ondoko askara ekartzen zituzten ura edanaraztera eguerdiro, eta gu, mutiko **gizonahi** haiek, mandoei begira egoten ginen liluraz, gehiegi ondoratu gabe; elkarki hozka eta ostikoka hasten baitziren mandoak tarteka, eta orduan... **Patziku Perurena**

## 13 gizon proba

idi probetako bezalako harriekin gizonen artean egiten den proba.

Proben artean harri jasotzea, **gizon** proba, lokotx biltzea, lasto fardel botatzea, trontza eta ingude altxaketa egongo dira. **Berria - Kirola**

Nabarmen jokatuko da Euskadiko **Gizon** Proba Txapelketa azaroaren 20an eta 21ean, eta, Basaibar, Satxibar, Urionaguena, Alzola, Lopez eta Goenaga lehiatuko dira.

**Berria - Kirola**

Euskadiko **gizon** proba txapelketa da Mikel Alzola gernikarra. **Berria - Kirola**

## 14 gizon probalari gizon probetan aritzen dena.

Mikel Altzola gernikarrak oso garbi utzi zuen herenegun **gizon** probalaririk onena dela. **Berria - Kirola**

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

adineko gizon (33); adineko gizon bat (10); aita gizon (9); ala gizon (14); ari zen gizon (26); artean gizon (16); aski gizon (10); aurkako indarkeria gizon (28); aurrean gizon (10); bada gizon (9); bai gizon (26); baina gizon (100); baino gizon (26); baita gizon (26); baitzen gizon (9); baizik eta gizon (11); bat batean gizon (10); bat eta gizon (9); bat gizon (66); bat urteko gizon (20); batean gizon (33); batek gizon (14); bazen gizon (15); bazen gizon bat (9); behin gizon (9); beltzeko gizon (10); benetan gizon (9); bere gizon (21); berrogeita hamar gizon (9); bertze gizon (13); beste bi gizon (17); beste gizon (253); beste gizon bat (95); beste gizon batek (16); beste gizon batekin (35); beste gizon baten (10); beste gizon bati (10); beste gizon batzuk (14); beti gizon (9); bezain gizon (21); bezalako gizon (77); bezalako gizon bat (14); bi gizon (387); bi gizon atxilotu (64); bi gizon eta (14); bi gizon gazte (9); bi gizon haiek (13); bi gizon ikusi (10); bi mila gizon (14); bizi den gizon (11); bizi zen gizon (9); bost gizon (36); bost mila gizon (9); da gizon (124); da gizon bat (16); da gizon hori (9); dago gizon (11); dagoen gizon (33); dauden gizon (9); dela gizon (16); den gizon (100); den gizon bat (15); dio gizon (19); dion gizon (13); diote gizon (13); diote gizon bati (10); dira gizon (30); diren gizon (44); ditu gizon (11); dituen gizon (35); dituzten gizon (11); du gizon (69); du gizon horrek (9); duen gizon (92); duen gizon bat (19); dugu gizon (13); dugun gizon (10); duk gizon (10); dut gizon (26); dute gizon (34); duten gizon (40); duzu gizon (15)

edo gizon (45); edozein gizon (19); egin zuen gizon (9); egindako gizon (9); ekintza gizon (11); emakume eta gizon (17); emazte eta gizon (17); enpresa gizon (20); erdi gizon (9); ere gizon (65); errepideak gizon (9); ertzaiztza gizon (10); ertzaiztza gizon bat (9); esan zuen gizon (35); eta beste gizon (24); eta bi gizon (15); eta gizon (545); eta gizon bat (49); eta gizon batek (16); eta gizon baten (9); eta gizon emakume (10); eta gizon emakumeen (9); eta gizon eta (10); eta gizon gazte (9); eta gizon hura (12); eta hiru gizon (9); ez da gizon (19); ez den gizon (10); ez duen gizon (9); ez gizon (29); ez nuen gizon (9); ez zen gizon (18); ez zuen gizon (21); ezen gizon (15); frantzisko gizon (11); gabeko gizon (33); gabeko gizon bat (9); genero indarkeria gizon (22); gero gizon (16); gertakaria gizon (23); gertakaria gizon bat (21); gertakariak gizon (18); gertakariak gizon bat (17)

gizon aberats (22); gizon aberatsa (10); gizon adeitsua (9); gizon adoretzu (11); gizon agertu (11); gizon ahots (9); gizon ala (19); gizon ala emazte (12); gizon alai (9); gizon altu (11); gizon apala (11); gizon argal (14); gizon argala (9); gizon argi (12); gizon argia (31); gizon argia eta (10); gizon ari (9); gizon armatu (23); gizon armatuak (13); gizon arrunta (14); gizon asko (43); gizon askok (24); gizon askoren (9); gizon atsegina (21); gizon atxilotu (105); gizon atxilotu ditu (16); gizon atxilotu dituzte (63); gizon atxilotu zituen (13); gizon atxilotu zituzten (11); gizon ausart (9); gizon ausarta (18); gizon azkar (13); gizon azkarra (19); gizon baino (10); gizon bakar (71); gizon bakar bat (18); gizon bakar batek (19); gizon bakar baten (12); gizon bakarra (42); gizon bakarraren (9); gizon bakoitza (13); gizon bezala (17); gizon bat (1678); gizon bat agertu (21); gizon bat atera (9); gizon bat atxilotu (262); gizon bat aurkitu (15); gizon bat bere (14); gizon bat bezala (9); gizon bat da (14); gizon bat dago (16); gizon bat ere (20); gizon bat espetxeratu (9); gizon bat eta (39); gizon bat etorri (16); gizon bat hil (102); gizon bat ikusi (54); gizon bat izan (10); gizon bat larri (9); gizon bat sartu (22); gizon bat zegoen (18); gizon bat zen (16); gizon batek (485); gizon batek bere (19); gizon batek esan (9); gizon batekin (147); gizon baten (320); gizon baten eta (9); gizon baten gorpua (21); gizon batena (12); gizon batentzat (37); gizon bati (173); gizon batzu (12); gizon batzuek (32); gizon batzuen (18); gizon batzuk (94); gizon beltz (19); gizon beltzaranak (10); gizon beltze (14); gizon bera (16); gizon berri (11); gizon berria (17); gizon bezala (17); gizon bi (14); gizon biak (12); gizon bien (9); gizon bihurtu (9); gizon bikaina (15); gizon bitxia (10); gizon bizar (9); gizon bizardun (15); gizon dituelarik (12); gizon dotore (21); gizon dotorea (16); gizon ederra (24); gizon edo (55); gizon edo emakume (20); gizon edo emazte (9); gizon egin (34); gizon egina (11); gizon emakume (181); gizon emakume asko (9); gizon emakume guztiak (10); gizon emakume guztiei (11); gizon emakume guztien (12); gizon emakumeak (114); gizon emakumeek (40); gizon emakumeek (66); gizon emakumeen (121); gizon emakumeen arteko (15); gizon emakumeok (10); gizon emazteak (11); gizon emazteen (9); gizon ere (9); gizon eta (510); gizon eta bi (10); gizon eta emakume (105); gizon eta emakumeak (30); gizon eta emakumeek (15); gizon eta emakumeen (58); gizon eta emakume (9); gizon eta emazte (85); gizon eta emazteak (14); gizon eta emazteen (11); gizon ez (13); gizon ezezagun (12); gizon ezin (16); gizon ezkontua (11); gizon gaizto (10); gizon gaiztoa (11); gizon galdu (12); gizon gara (27); gizon garaia (20); gizon gazte (204); gizon gazte bat (77); gizon gazte batek (16); gizon gazte baten (10); gizon gaztea (82); gizon gazteak (63); gizon gaztearen (9); gizon gazteari (9); gizon gehiago (15); gizon gehienak (11); gizon gehienek (15); gizon gisa (18); gizon gogorra (11); gizon goxoa (12); gizon guzien (10); gizon guztiak (103); gizon guztiak (36); gizon guztiekin (11); gizon guztien (25); gizon guztiz (17); gizon haiei (12); gizon haiek (108); gizon haien (24); gizon haietako (14); gizon handi (93); gizon handi bat (14); gizon handi eta (12); gizon handia (63); gizon handiak (25); gizon handiaren (11); gizon handien (10); gizon harekin (18); gizon haren (113); gizon harengan (9); gizon hari (43); gizon hark (169); gizon hau (117); gizon hauek (47); gizon haundi (9); gizon heldu (29); gizon heldua (21); gizon helduak (15); gizon hil (30); gizon honek (94); gizon honek ez (9); gizon honekin (9); gizon honen (38); gizon honi (22); gizon hori (249); gizon hori eta (17); gizon hori ez (14); gizon horiek (86); gizon horien (30); gizon horrek (140); gizon horrekin (15); gizon horren (45); gizon horri (42); gizon hura (279); gizon hura ez (14); gizon ikasia (13); gizon ikusi (18); gizon ile (9); gizon indartsu (12); gizon indartsua (17); gizon inguru (10); gizon isila (11); gizon ixil (13); gizon ixil eta (10); gizon ixila (11); gizon izan (24); gizon jakintsu (26); gizon jakintsua (9); gizon jakintsua (15); gizon jator (15); gizon jatorra (33); gizon langile (17); gizon langilea (15); gizon lasaia (16); gizon lerdin (9); gizon libre (25); gizon libre (12); gizon libreak (30); gizon libreen (9); gizon lodi (25); gizon lodia





# gizonerdi *izond pei*

Gainera, putak ordaintzen dizkizu, **gizonerdi** gizajoak! **Karlos Linazasoro**

## gizonezko 1 *izlag* gizona dena, gizonari dagokiona.

Blusa loreduna eta **gizonezko** txanoa zeramatzan emakume mutur-luze bati. **Koro Navarro**

Portugalgo **gizonezko** idazle bakarrak, Paulo Teixeira, kafearen bidez bereizten du Europa. **Edorta Jimenez**

Mujik: antzinako **Errusian**, gizonezko nekazariei deitzeko herri xeheak erabiltzen zuen hitz arrunta. **Jose Morales**

Ezbeharrak izan zuten **gizonezko** gidarien %73 45 urtetik beharreak izan ziren. **Berria - Euskal Herria**

Bigarren mailako **gizonezko** aktore onenaren saria.

Salvador Diez galerian bi **gizonezko** biluzi daude. **Berria - Kultura**

Neu nintzen **gizonezko** protagonista. **Koro Navarro**

Esaldi bat alemanez idatzia azpian, *ich lebe dich* eta data bat, 11-09-38; **gizonezko** izen bat, Franck hain zuten bihotzaren eskuin aldean. **Felipe Juaristi**

Begietsi nuen berriro argazkiko Joachimena aurpegia, **gizonezko**-aurpegi sinpatikoa. **Joxe Austin Arrieta**

Driss Lakhouaja marokarra eta Kamel Ziani euskalduna izango dira **gizonezko** proban beste protagonistak. **Berria - Kirola**

## • 2 iz gizona.

**Gizonezko** garaia zen, sendoa. **Joxemari Urteaga**

**Gizonezko** gazte bat zuen aldamenean. **Joxemari Iturralde**

**Gizonezko** gorbatadunak batzuk, gona motzeko emakumeak besteak. **Juan Luis Zabala**

Bada beste **gizonezko** bat ere, kankailua. **Edorta Jimenez**

Ertzaintzak 29 urteko **gizonezko** bat atxilotu zuen atzo.

Herriko **gizonezko** guztiak ibiliko dira handik sartu eta atera ezinik. **Berria - Harian**

Sistemaren oinarriak mugitzen ari dira, eta, horrek, urduri jartzen ditu **gizonezko** asko eta asko. **Berria - Euskal Herria**

Biok ezagutzen genuen **gizonezko** banandu baten kasua ekarri zuen harira. **Anjel Lertxundi**

Erromatar inperioko **gizonezko** aske guztiak. **Iñaki Mendiguren**

Hamahiru urtetik gorako **gizonezko** judu guztiak. **Koro Navarro**

**Gizonezko** gehienek bibotea dute, bai hinduek eta bai musulmanek. **Gotzon Garate**

Hainbat **gizonezko** komisarian tiro eginez sartu eta gero gertatu zen ihesaldia.

Ekainaren 5ean bi **gizonezko** ezkonduko dituela iragarri zuen atzo Begles herriko alkateak. **Berria - Gaiak**

Bi **gizonezko** ari ziren elkarri hitz egiten. **Harkaitz Cano**

Giza maila guztietako pertsonek, **gizonezko** eta emakumezko, zahar eta gazte. **Askoren artean**

Hamabi ziren, sei **gizonezko** eta sei emakume. **Felipe Juaristi**

Laiko **gizonezko** eta emakume, haur, gaztetxo, gazte eta zahar guztiak. **Askoren artean**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteak **gizonezko** (5); aurkako indarkeria **gizonezko** (8); bat eta **gizonezko** (5); batean **gizonezko** (5); bederatzi **gizonezko** (5); bederatzi **gizonezko** eta (4); beste **gizonezko** (29); beste **gizonezko** bat (12); beste **gizonezko** batekin (4); bi **gizonezko** (59); bi **gizonezko** atxilotu (19); bi **gizonezko** eta (7); bigarren mailako **gizonezko** (4); bost **gizonezko** (4); den **gizonezko** (4); dira **gizonezko** (4); du **gizonezko** (5); duen **gizonezko** (4); edo **gizonezko** (7); emakumezko eta **gizonezko** (4); ertzaintzak **gizonezko** (7); ertzaintzak **gizonezko** bat (7); eta bi **gizonezko** (5); eta **gizonezko** (50); eta **gizonezko** aktore (4); eta **gizonezko** bat (9); eta **gizonezko** baten (5); eta **gizonezko** guztiak (4); gertakaria **gizonezko** (5); gertakaria **gizonezko** bat (4); gertakariak **gizonezko** (11); gertakariak **gizonezko** bat (7); gertakariak **gizonezko** baten (4)

**gizonezko** ahots (8); **gizonezko** aktore (25); **gizonezko** aktore onenaren (11); **gizonezko** armatu (4); **gizonezko** asko (8); **gizonezko** askok (6); **gizonezko** atxilotu (31); **gizonezko** atxilotu ditu (4); **gizonezko** atxilotu dituzte (17); **gizonezko** atxilotu zituen (6); **gizonezko** atxilotu zituzten (4); **gizonezko** bakarra (5); **gizonezko** bat (297); **gizonezko** bat atxilotu (125); **gizonezko** bat aurkitu (4); **gizonezko** bat bere (5); **gizonezko** bat ere (7); **gizonezko** bat eta (10); **gizonezko** bat hil (41); **gizonezko** bat larri (4); **gizonezko** bat sartu (4); **gizonezko** bat zauritu (6); **gizonezko** batek (41); **gizonezko** batekin (9); **gizonezko** baten (42); **gizonezko** baten ahotsa (5); **gizonezko** baten gorpua (11); **gizonezko** batentzat (4); **gizonezko** bati (32); **gizonezko** batzuek (5); **gizonezko** batzuk (4); **gizonezko** dira (4); **gizonezko** edo (4); **gizonezko** eta (58); **gizonezko** eta emakume (5); **gizonezko** eta emakumezko (12); **gizonezko** eta emakumezkoen (6); **gizonezko** gazte (10); **gizonezko** gazte bat (5); **gizonezko** gehiago (7); **gizonezko** gehienak (5); **gizonezko** guztiak (18); **gizonezko** guztiak hil (4); **gizonezko** guztira (11); **gizonezko** hori (4); **gizonezko** lagun (5); **gizonezko** nahiz (21); **gizonezko** nahiz emakumezko (13); **gizonezko** talde (4); **gizonezko** zein (4); **gizonezko** zeuden (4)

hiru **gizonezko** (21); hiru **gizonezko** atxilotu (6); hiru **gizonezko** eta (4); indarkeria **gizonezko** (9); indarkeria **gizonezko** bat (9); lau **gizonezko** (7); mailako **gizonezko** (4); mailako **gizonezko** aktore (4); urteko **gizonezko** (151); urteko **gizonezko** bat (131); urteko **gizonezko** batek (5); urteko **gizonezko** bati (6); zegoen **gizonezko** (4); zen **gizonezko** (14); zen **gizonezko** bat (4); zuen **gizonezko** (13); zuen **gizonezko** baten (4); zuten **gizonezko** (4)

antzezle gazte **gizonezko** (12); antzezle **gizonezko** (31); atxilotu zuten **gizonezko** (4); ertzainek **gizonezko** (4); ertzaintzak **gizonezko** (4); ertzaintzak **gizonezko** atxilotu (4); eta **gizonezko** (12); gazte **gizonezko** (12); **gizonezko** ala (5); **gizonezko** ala emakumezko (4); **gizonezko** atxilotu (54); **gizonezko** atxilotu egin (5); **gizonezko** atxilotu zuen (35); **gizonezko** atxilotu zuten (12); **gizonezko** bere (4); **gizonezko** da (18); **gizonezko** dela (5); **gizonezko** eta (12); **gizonezko** ez (4); **gizonezko** harrapatu (5); **gizonezko** harrapatu zuen (5); **gizonezko** hil (18); **gizonezko** hil zen (14); **gizonezko** izan (6); **gizonezko** zen (6); lehen antzezle **gizonezko** (31); urteko **gizonezko** (46); urteko **gizonezko** atxilotu (10); urteko **gizonezko** hil (6); zen **gizonezko** (7); zuen **gizonezko** (4); zuten **gizonezko** (8)

antzezle **gizonezko**ari (6); banakakoa **gizonezko**ak (6); bi **gizonezko**ak (4); denak **gizonezko**ak (7); dira **gizonezko**ak (6); diren **gizonezko**ak (5); duten **gizonezko**ak (4); emakumezkoak eta **gizonezko**ak (6); erraldoia **gizonezko**ak (5); esprinta **gizonezko**ak (6); eta **gizonezko**ak (30); gehienak **gizonezko**ak (6); **gizonezko**ak ariko (6); **gizonezko**ak ariko dira (6); **gizonezko**ak baino (15); **gizonezko**ak bakarrik (4); **gizonezko**ak dira (25); **gizonezko**ak dira nagusi (4); **gizonezko**ak ere (12); **gizonezko**ak errotatuz (4); **gizonezko**ak eta (18); **gizonezko**ak eta emakumezkoak (9); **gizonezko**ak ez (12); **gizonezko**ak izan (4); **gizonezko**ak ziren (12); **gizonezko**ak ziren eta (4); gorako **gizonezko**ak (13); gorako **gizonezko**ak errotatuz (4); guztiak **gizonezko**ak (4); hilabetez gorako **gizonezko**ak (7); hiru **gizonezko**ak (5); kilo **gizonezko**ak (15); kilometrokoa **gizonezko**ak (5); konbinatua **gizonezko**ak (4); lehen antzezle **gizonezko**ari (6); metrokoa **gizonezko**ak (9); sailkapenak **gizonezko**ak (5); taldekako esprinta **gizonezko**ak (4); urteko **gizonezko**ak (6); urtetik gorako **gizonezko**ak (4); z sailkapenak **gizonezko**ak (4); ziren **gizonezko**ak (5); zituen **gizonezko**ak (4); zuen **gizonezko**ak (9)

bi **gizonezko**ak (4); da **gizonezko**en (16); dira **gizonezko**en (4); donostia **gizonezko**en (17); donostia **gizonezko**en sei (11); du **gizonezko**en (14); du **gizonezko**en sei (4); dute **gizonezko**ak (6); duten **gizonezko**en (5); emakume eta **gizonezko**en (5); emakumeek **gizonezko**ak (4); emakumeen eta **gizonezko**en (9); emakumezkoen (9); emakumezkoen eta **gizonezko**en (20); eta **gizonezko**ak (20); eta **gizonezko**en (76); eta **gizonezko**en artean (9); eta **gizonezko**en arteko (14); garroko **gizonezko**en (5); gaur **gizonezko**en (4); **gizonezko**ei eta (5); **gizonezko**ek baino (11); **gizonezko**ek bakarrik (5); **gizonezko**ek bakarrik jan (4); **gizonezko**ek egiten (4); **gizonezko**ek ere (6); **gizonezko**ek eta (5); **gizonezko**ek eta emakumezkoek (4); **gizonezko**ek ez (6); zuten **gizonezko**ak (5)

eta **gizonezko**ena (6); **gizonezko**en arloan (4); **gizonezko**en artean (33); **gizonezko**en arteko (18); **gizonezko**en b (7); **gizonezko**en batez (4); **gizonezko**en eta (28); **gizonezko**en eta emakumezkoen (25); **gizonezko**en euskadiko (4); **gizonezko**en finala (5); **gizonezko**en komunean (6); **gizonezko**en komunera (5); **gizonezko**en kros (5); **gizonezko**en langabezia (7); **gizonezko**en langabezia tasa (4); **gizonezko**en maila (7); **gizonezko**en mailako (6); **gizonezko**en mailan (6); **gizonezko**en proba (6); **gizonezko**en sei (34); **gizonezko**en sei nazioen (12); **gizonezko**en sei nazioetako (19); **gizonezko**en talde (4); **gizonezko**en titiak (4); **gizonezko**ena baino (12); puntu **gizonezko**en (7); roland garroko **gizonezko**en (5)

bai **gizonezko**etan (6); bi **gizonezko**ak (5); bi **gizonezko**en (7); eta **gizonezko**etan (8); **gizonezko**etan ere (6); **gizonezko**etan eta (10); **gizonezko**etan ez (5); **gizonezko**etan zein (6); **gizonezko**etan zein emakumezkoetan (6); **gizonezko**erik ez (4)

## gizonezkotasun iz gizonezkoa denaren nolakotasuna.

Bere **gizonezkotasun** kontzientziaren ohartasun puntu bat samatu nion. **Josu Zabaleta**

Iduri lizun haieatarik bakoitzak iratzartzen zizkidan apur bat nerbioak, sutzen zidan apur bat odola [...] berretzen eta emendatzen zizkidan neure **gizonezkotasun** ustezkoari zegozkion humoreak. **Joan Mari Irigoien**



## gizongai iz senargaia.

Maddalenek ez zuen alta bere **"gizongaia"** ikusteko gogo handirik. Ramuntxo Etxeberri

-Eta zuk, Kattalin maitea, baduzia **gizongairik**. Eneko Bidegain

Lady Diren **gizongai** berriaz artikulu sakon bat bada... Itxaro Borda

-Ba, ni orain ontsa naun, lana, **gizongaia** eta laster sorterriko soro peza batean gure amodiozko habia eraikiko dinagu. Itxaro Borda

## gizonkeria iz gizon itxurak egin nahi dituenaren egitea. ik **gizontasun**.

Ez zen **gizonkerietan** ari. Aingeru Epaltza

-Ez duzue erdibiderik: beti negarka matxismoa dela eta ez dela, baina gero, **gizonkerietan** aritzen ez zaizuen, to, homosexuala! Aingeru Epaltza

Lau gizonen artean, **gizonkeriaz** baino mintzatzen ez diren eta **gizonkeriaz** jokatzten duten lau gizontxoren artean. Sonia Gonzalez

## gizonki<sup>1</sup> *adlag* gizontasunez. ik **gizon 7**.

Guztia **gizonki** eramaten zuten, inoren babesik bilatu gabe. Askoren artean

-Arlote ergela! -ez zara emakume batekin **gizonki** jokatzeko gai. Iñaki Zabaleta

Joka ezazu **gizonki**; ez izan beldurrik, bera izango baituzu laguntzaile. Askoren artean

Gizonezkoak ordurako baztertuxeago zegoen Aitorren izkuntz zarran bezala **gizonki** azaldu eta gizon jokatu behar zutenak. Iñigo Aranbarri

Euskal mintzaira ederra eta herri-ohidura onak **gizonki** eta fermuki zaintzea Euskal Herria altxatzeko. Herria

Berasategui azkaindarra biziki zuhurki eta **gizonki** plantatu da horren aintzinean, trinketean nola jokatzten den erakutsiz beste basaka horri. Herria

**Gizonki** gidatzen zuen, oso, eta ez zuen hizketa gehiegirik egiten bolantean zihoala. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **gizonki** (3); **gizonki** eta (3)

## gizonki<sup>2</sup> <sup>1</sup> iz gizonezkoa.

Boneta nagusi **gizonkietan**, neskatxa anitzek buruko gorria iletan estekaturik. Herria

Paleta jokoan, gomazko pilotekin, **gizonkietan**, Ramuntxo Amestoy kostatarra eta Sebastian Martinez, hau arjentinarra, emaztekietan, Sylvie Halsouet eta Maritxu Housset. Herria

Hemen saltzen dituzte **gizonki** ala emazteki arropak. Herria

Hilak : 50 urteko **gizonki** bat eta sei urteko haur bat, guarda zibil baten alaba. Herria

Liu Peigi joan da **gizonki** aktore hoberenaren sariarekin. Herria

**Gizonkia**, G. Emaztekoa, E. Janbattitt Dirassar

## 2 *adkor* (multzokari gisa)

**Gizonkia** zuten garraiatzen, bagoietan koka ahala jende sartuz, tinke tinkea. Eneko Bidegain

## 3 gizakia.

Enbalditu batek beste **gizonki** batek baino hamabost aldiz mentura gutiago duela lan proposamen baten ukaiteko, batak ala besteak laneko gaitasun berak izanik ere.

Herria

Duela bi milium urte, **gizonki** batek bazuen hiruetan orai baino gutiago neurona buruan. Herria

Orai duela bi aste hor genuen Jean- Louis Davant, honek aipatu zigun Euskal Herriaren historia luzea, **gizonki** kromañonetik hasiz, 1945 arte. Herria

## gizonkilo iz *pei* gizona.

Itxura integro eta dotore horren atzean gizagaixo bat ezkutatzen da, lar sofritzen duen **gizonkilo** bat. Lanak izan baitzituen gizonak aurrean zuen **gizonkiloari** burutik behera ukabilkada bat emateko gogoari eusten. Karlos Linazasoro

Ez dago lehengo kemenik, **gizonkilo** potrogabeak dira gaurko heroi guztiak. Karlos Linazasoro

## gizonkiro *adlag* gizonki, gizontasunez.

Emiliok saminez baina **gizonkiro** onartu zuen bion porrota eta nire desertzioa. Juan Garzia

## gizonkote iz gizon handixkoa.

Orduko hartan 22 urteko Louisvilleko **gizonkoteak** munduko txapelduna menperatu zuen, Sonny Liston. Berria - Kirola

Bi gizonen artean jaitsi behar izan zuten **gizonkotea**. Harkaitz Cano

Zure **gizonkote** horrek, Linok, hiltzailea zimino bat dela dio. Harkaitz Cano

## gizontasun iz gizon denaren, gizon jokatzten denaren nolakotasuna.

Nola Afrikako sabanetako tribuetako nerabeek, beren **gizontasuna** frogatzeko, lehoi ehizan bildutako ebatondoak erakutsi behar dituzten, hala [...].Bikotekidearen **gizontasuna** ez mintzearren. Aingeru Epaltza

Nerabeek euren emetasuna edo **gizontasuna** azpimarratzeko sentitzen duten premia. Berria - Harian

Ez bada bere izaitea errespetatua, ez bada **gizontasunari**, emaztetasunari lehentasuna emana. Herria

**Gizontasunaren** indarra kentzen zien senargaiei. Koro Navarro

Identitate krisi larria du, eta, hala, bere **gizontasuna** zentimetroetan neurtzen du. Luis Elberdin

Esaten zuen emakumeari **"gizontasunaren"** azken aztarnak kendu behar zitzaizkiola haren libidoak geratuko zitzaion bide bakarra erabil zezan, hau da, bagina. Luis Elberdin

Emaztearen aldean eta, bere **gizontasun** nabarmenari esker, emazteak aseterik ez zuen gaztetxo aseezina zirudien. Patxi Zubizarreta

Seme hori izan da aitaren **gizontasunaren** lehen emaitza. Eiizen arteko biblia

Filmetako heroiak gogorarazten zizkidaten **gizontasun** eta gogortasunezko ezaugarriak zituen. Urtzi Urrutikoetxea

Bi malko isurtzeko adina **gizontasunik** atera nuen nonbaitetik eta, inoiz ez bezala, errukitu egin nintzen nire buruaz. Hasier Etxeberria

Gizon jokatu behar nuela eta ezin jar nezakeela neure **gizotasuna** kolokan eta kordokan. **Joan Mari Irigoien**  
Kezka sortzen zion, bere **gizotasuna** zela eta, segurtasunik ez edukitzeak. **Anton Garikano**  
Euren iritziz **gizotasunaren** ezaugarria den patxadarekin. **Julen Gabiria**  
Zapaburu bipil batek obuluaren epela utzi du eta Falopioren tronpetatik barna **gizotasunaren** erreinu bakartira itzuli da betilun. **Eider Rodriguez**  
Arranean zebiltzanak gizon askeak ziren ordurako, eta **gizotasunez** aritu ziren. **Agustin Otsoa**  
Ugaldek bere bitzitza osoan egindako ibilbidean azaldu zuen «gizatasun eta **gizotasuna**, [...] euskaltzaleatasuna eta andoaindertasuna» nabarmendu ditu adierazpen ofizialean. **Berria - Kultura**  
Enezat ere lagun haundi bat zen Manex, **gizotasun** haundikoa, militante zintzoa eta langile porrokatua. **Berria - Kultura**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere gizotasuna** (8); **eta gizotasuna** (4); **eta gizotasunez** (3); **gizotasun eta** (3); **gizotasuna ez** (3); **gizotasuna frogatzeko** (3); **gizotasunaren lehen** (3)

## gizontsu *izond* gizotasunez betea.

Ehortzeta egunean hor zituen Suhuskundarrak, **gizontsu**, bainan ama familiako eta beste emazteak ere leialki etorriak. **Herria**

## gizontto *iz* gizontxoak.

Tomas eta bion artean azken-putz, forentsea zetorren, Gomez de Segura, jubilaziotik hurbil zegokeen **gizontto** ttaparra. Ordea, hantxe nindoan ni, ehun aldiz gizon izan zitekeena **gizontto** bat eginik... **Aingeru Epaltza**

"Hou Pitxu hou"ka zebilen **gizontto** aguretuari begira geunden. **Jon Alonso**

Juanito Barberena, Vietnamen urtebete eman zuena, ta-ta-ta-ta **"gizonttoak"** akabatzen. **Pablo Sastre**

Jainko guztien Jainkoa, Klitoria hatzaz eragitetik harantz joan ez den **gizontto** ezdeusa naiz! **Jon Alonso**

## gizontxo *iz* gizon txikia.

Eta hara non treña iritsi eta **gizontxo** argal bat baino ez zen jaitsi, oihalezko maletatxo batekin. **Koldo Biguri**

**Gizontxo** mozkortari arlote bizkar-makur bat zen Mooney jauna. **Irene Aldasoro**

Allen Street-en gora, onddo-kapelarekiko **gizontxo** bizardun eta hankoker bat zihoan. **Lopez de Arana**

Bonino **gizontxo** potolo, zarpailtxo, lausoki txakurkara bat zen; bizarra gaizki moztua zuen eta irribarra horzgaletua. **Juan Garzia**

Mediterranean **gizontxo** beltzaranak. **Lopez de Arana**

**Gizontxo** txiki-txikia zen, metro eta hogei zentimetroira iristen ez zena. **Matías Múgica**

Bizpahiru urteko **gizontxoa** zen ordurako, lodi-lodia, txit zorionsua bizirik egoteagatik. **Karlos Zabala**

Orain **gizontxoarena** egiten saiatzen da denbora guztian. **Josu Landa**

## gizontzar *iz* adkor gizon handia.

Ez dakit zenbat ordu daramadan lo egin barik, alboko **gizontzarraren** erruz, batik bat. **Jon Arretxe**

Ematen du, ikusita, egundoko **gizontzarra**; baina, larruzko kapa eranzten duenean, gixon kakanarru bat ageri da. **Jesus Mari Mendizabal**

Berrogeita hamarren bat urteko **gizontzarra** da, umea. **Joseba Sarrionandia**

Halako emakume puska haiek bezalako **gizontzar** iletsu eta indartsuren batekin. **Sonia Gonzalez**

## gizontze *iz* gizon bihurtzea.

Irribarra ezpainetaratut zitzaien Joseluren **gizontzeaz** isilean ironizatuz. **Josu Landa**

Egiaz, niri **gizontzetik** gehien gustatzen zitzaidana hura zen, edatekoak, erretzekoak eta beste edozer baino gehiago: emakumeei begiratzea, fantasiak egitea, eta zakila urratu arte masturbatzea. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## gizonzale *izond* gizonen zale dena.

Benetan bitxia da zurea, Onan -esan zidan Imanolek-: **gizonzale** guztiok nahi izaten dugu gure ohekideek buztan handia edukitzea eta zamalkari trebeak izatea. **Aitor Arana**

Evaren iloba, Hannah **gizonzalearen** alaba. **Pablo Sastre**

## gizonzentrismo *iz* gizona gauza guztien erdigunetzat hartzen duen ikusmoldea.

Antropozentrismo hori **gizonzentrismoa** bihurtzen da. **Joxerra Garzia**

## gizoste *iz* giza ostea.

Kalera azaldu dira **gizoste** izutuak, buru-besoei eraginez. **Javi Cillero**

## gizotso *iz* giza otsoa. ik otso 8.

-Zuetako nork esan diezadake nola bereizten diren **gizotsoa** eta benetako otsoa? -galdetu zien Snapek. **Iñaki Mendiguren**

**Gizotsoa** gizakientzat bakarrik da arriskutsua. **Iñaki Mendiguren**

**Gizotso** otzandua... **Iñaki Mendiguren**

Likantropoek, eta batik bat **gizotsoek**, beren atzapar-markak antzina-antzinatik utzi dituzte herri askotako tradizioan. **Martin Anso**

Emakumea berehala abiatu zen etxera; ez, ordea, behar bezain bizkor, **gizotsoak** harrapatu eta "bularrak erauzi baitzizkion". **Martin Anso**

**Gizotsoaren** hileroako eraso beldurgarritik libratu nuen. **Iñaki Mendiguren**

Eta une hartan hauts bihurtu zen nire errugabetasun guztia, nire haur-xalotasuna; **gizotso** baten eskuek harrapatutako txorimaloa banintz bezala sentitu nintzen; **gizotsoak** nire hanka hortz artean sartu, eta bi, hiru eta mila zatitan kraskatuko balit bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Gauerdiairen ondoren Alchonon **gizotso** bihurtzen zelako zurrumurrua zabaldu zuten. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **gizotso** (3); **gizotso bat** (5); **gizotso batekin** (3); **gizotso baten** (3)

## gizotsokume *iz* gizotsoaren kumea.

Hagrid handi eta trauskila, astero-astero istilutan sartua, bere ohe azpian **gizotso**-kumeak hazi nahian, isil-misilka oihan debekatura joan eta gnomoeekin borrokan egiten zuena. **Iñaki Mendiguren**

## gizurendu, gizuren(du), gizurentzen da/du *ad* heroi bihurtu.

Ezin nagoke esan gabe ezen Don Bucle dela, ez txorrolla bat, ez txoropanderoa ere, baizik-eta guk teknikoki "txorogaixtoa" esan ohi diogun klaseko giza aletto bat, Egiaren Ministerioak gizanditua eta **gizurendua**. **Iñaki Segurola**

## gladiadore ik **gladiatore**.

## gladiatore *(ETCn 112 agerraldi; orobat gladiadore ETCn 334 agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegiaren gladiatore agertzen da)* *iz* Erromako jendaurreko jokoetan beste gizon baten edo basapiztia baten aurka heriotzarainoko borrokan aritzen zen gizona, maiz esklaboa.

Erroman **gladiadoreen** ikuskizunak antolatzeko ohitura dagoelako. **Santiago Iruretagoiena**

Bai **gladiadoreen** foroan eta bai jokoan ospakizunetan ere. **Santiago Iruretagoiena**

Ezagutu zuen, bada, **gladiadore** barbarorik eta bidegurutzeetako hitzontzirik. **Juan Garzia**

Dueloa **gladiadore** esklabo doilortuek herriari ematen zioten ikuskizun arrunta zelako. **Juan Martin Elempuru**

Gure arbasoengandik jaso baitugu foroan **gladiadoreen** arteko ikuskizunak eskaintzeko ohitura. **Santiago Iruretagoiena**

## gladiolo *iz* ezpata-lorea.

**Gladiolo** gorrixkak, hosto berde izutuen artetik gora zetozenak, sugar gandorrek iduri. **Karlos Zabala**

Eta gudari presoek zahutu egin zitzaizkien **gladioloek** ekarritako zorian hura. **Bernardo Atxaga**

Gero, ez bat eta ez bi, burdin sarearen zirrikitu batetik sartu, eta bide pribatuan gora egin du tximistaren pare, **gladioloen** alorreraino. **Patxi Iturritegi**

## glamour *iz* pertsona edo gauza baten xarma edo erakargarritasuna, batez ere ez-fisikoa.

Dena xarma, luxu eta **glamourra**. **Patxi Iturritegi**

**Glamour** handiko argazkiz betea. **Joxean Agirre**

Hori da zimaurrea eta **glamourra** nahastu nahia! **Bernardo Atxaga**

Arriskuaren lilura maite zuten, eta bazekiten psikopatiaren **glamourra** estimatzen. **Patxi Iturritegi**

Jateko finak eta ardo ezin hobekak, **glamourrak** gainez egiten dion herriko etxean. **Edorta Jimenez**

Drag-queenen **glamourraren** zati bat haiekin leku guztietara eramaten dituzten nerabeek osatzen dute. **Harkaitz Cano**

Berlinaleko zuzendari Dieter Kosslickek aurtengo ekitaldia xarmaz eta **glamour**-ez beteriko lehiaketa izatea nahi zuen. **Berria - Kultura**

Ilusioz beteta etorria zen Europara, zinemaren munduan tokitxo bat egiteko asmoz ustez **"glamour"** zerion Parisera, eta, ni bezala, bera ere konturatu zen geroak zer zekarkion ilusio faltsuzko paradisuan. **Migel Angel Mintegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **glamourra** (3); **glamour a** (3)

## glamouroso *(orobat glamuroso) izond* glamoura duena.

Eta ez naiz harritzen, ze berak ez du inondik ere amatasunaren alde **glamourosoa** ikusten. **Patxi Iturritegi**

Energia gazte eta **glamurosa** zen garai hartan. **Harkaitz Cano**

## glande *iz* zakil mokoia. ik **moko 7**.

Odoletan zuen **glandea**, eta prepuzioa puskaka erortzen zitzaion oso modu itsusian. **Patxi Iturritegi**

Ikuslearentzat, zulutoxoz beteriko planetak izan daitezke; egilearentzat, giza gorputzaren zuloak: uzkiak, maginak, **glandek**. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **glandea** (3); **glandea estaltzen duen** (4); **klitoriaren glandeak** (3); **zakilaren glandean** (3)

## glandula *iz* guruina.

Zakurrek ipurtzulo inguruan **glandula** usaintsuak dituzte. **Gotzon Garate**

## glasnost *iz* SESBean Perestroikaren barruan eragin zen informazio gardentasuna.

Mikhail Gorbachoven **glasnost** politikak nortasun islamikoa sendotzeko bidea ireki zuen. **Berria - Harian**

## glaukoma *iz* begiko gaitza, batez ere begi globoaren gehiegizko presioan datzana, ikusmena murritzea dakarrena.

**Glaukoma** dauka aspaldi, gizajoak. Josetxo Azkona

Kalamuak begi presio intraokularra jaisten du eta **glaukoma** saihesteko egokia izan daiteke horregatik. Berria - Harian

Gaixotasunaren sintomak begietan irakurtzeko ohitura dut, **glaukomak**, begi-lausoak. Felipe Juaristi

AEBetako **Glaukomaren** Fundazioak EHUKo proiektu bat saritu du. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glaukomaren fundazioak** (3)

## glazial iz guztiz hotza.

Ikastetxeko logela goibel eta **glazial** haietan. Joseba Sarrionandia

Eta pitzaduraren gainertetik begiratzean, barru sakonetik igotzen den bufada **glaziala** sentituko duzu. Joseba Sarrionandia

Ez dut heriotza maite, ezta haren pauso **glaziala** ere. Berria - Kultura

## glaziar iz hormagunea.

Uhartera heldu eta lehorra harri bel beltza izango da agerian denean, elurraren zuritasunak eta **glaziarren** urdinak estaltzen ez duten guneeetan. Joseba Sarrionandia

Zure harremanak ikasleekin Artikoko **glaziarrak** bezain hotzak izango dira. Gotzon Garate

Banff aldera, **glaziarrak** ikusten dira mendietan. Xabier Olarra

Oso eskualde epel eta emankorra da, baina mendiz, **glaziarrez** eta aintziraz inguratua. Xabier Olarra

Gure hegazkinaren itzala morrena eta **glaziarren** gainean. Joxe Austin Arrieta

Po ibaiaren adar nagusia, Dora Baltea, bete-betea dator, sasoi honetan gertatzen baita **glaziarretako** elurren lurmentze nagusia. Anjel Lertxundi

Vatnajokull **glaziarren** azpian dagoen aintzira bateko urak eginiko presioak eragin du sumendiaren erupzioa. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glaziarrak urtzen** (4); **glaziarrak urtzen ari** (3); **glaziarrak uste baino** (4); **groenlandiako glaziarrak** (4); **groenlandiako glaziarrak uste** (3)

## glaziazio iz (*geologian*) hotz gogorreko periodoa, noiz ere hormaguneak kontinenteen zati handi bat estaltzen baitute.

Tolestura geologikoak, sumendien erupzioak, **glaziazioak**, denetik gertatu da ordutik honako denbora bitartean. Joseba Sarrionandia

Bigarren eta hirugarren **glaziazioen** artean. Anton Garikano

Klima aldaketa nabarmena izan zen garai hartan, eta **glaziazioarekin** amaitu zen. Berria - Gaiak

## glazis iz gotorleku bateko ezponda.

Ivan Ogareffek erabakia hartu zuen, eta, gau hartan, **glazisetik** behera txartel bat erori zen Sangararren eskuetaraino. Karlos Zabala

Bi aldiz joan zen ate hartako **glazisera** arratsean. Karlos Zabala

## gleba 1 iz laborantza lurra.

Gizon libre, batetik onura edo feudorik ez izan, eta bestetik **glebaren** mendekotasunari lotu gabe zeudenei esaten zitzaien. Iñaki Iñurrieta

### 2 **glebako jopu** feudalismoan, lantzen duen lurrari lotuta dagoen jopua.

Zer egingo, eta, besteri agindua eman aitzur zezaten, beste horiek **glebako jopuak** izango ziren, noski, garai haietan jada bazen halako klase-diferentziarik. Jon Alonso

### 3 **glebako joputza** feudalismoan, lantzen duen lurrari lotuta dagoenaren joputza.

**Glebako joputza**, beraz, ezarrita zegoen jadanik Galiako parte hartan burgundiarrek sartu aurretik. Iñaki Iñurrieta

## glikoproteina iz proteina batek eta gluzido batek osaturiko gai elkartua.

E **Glikoproteina** izeneko proteina zati baten egitura kristalizatua zehaztu dute ikertzaileek. Berria - Gaiak

Zientzialariek ikusi dute E **glikoproteinaren** egitura hori aldakorra dela. Berria - Gaiak

## glioblastoma iz glioma.

Buruko minbizi motetan, ohikoena eta gaiztoena da **glioblastoma** multiformea, adituen arabera. Berria - Gaiak

Minbiziaren kontrako Ameriketako Estatu Batuetako Elkartearen arabera, esate baterako, **glioblastoma** multiformea duten hamar lagunetik seik bakarrik lortzen dute hiru urte baino gehiago bizitzea. Berria - Gaiak

**Glioblastoma** multiformearen aurkako tratamendu eraginkorra terapia ezberdinak konbinatuz etorriko dela iragarri zuen Guzmanek. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glioblastoma multiformea** (3)

## glioma iz neurogliako zelulek osaturiko tumorra.

Zientzialariek cannabinoideak injektatu zizkieten **gliomak** zituzten arratoiei. Berria - Gaiak

## glissando iz musikan, osagarri adierazkor baten gauzatze berariaz atzeratua.

**Glissando** batzuk egin zituen gero hatzak teklelara ohitzeko. Anjel Lertxundi

Emakumeak *ad libitum* jostari bati ekin zion **glissando** eginez teklekin. Anjel Lertxundi

Gogo biziz ekiten diet digitazioei, arpegio eta **glissando** batzuk egiten ditut, pieza erraz bat jotzen dut segidan. Anjel Lertxundi

# glizerina

iz alkohol koloregabea eta ezitia, koipeak xaboi bihurtzean lortzen dena. **ikglizerol**.

Erreakzio horretatik bi osagai lortzen dira: bata organikoa (biodiesela) eta, bestea, **glizerina**, likidu likatsua. **Berria - Gaiak**

Azkenik, biodiesela eta **glizerina** banatu behar dira, eta biodiesela lehortzen utzi. **Berria - Gaiak**

**Glizerina** irensten eta liseritzen ere ahalegindu nintzen, arrazoibide sinplista batean oinarriturik: alegia, gantzen hausturatik sortua izanik **glizerina**, metabolizatzeo eta kaloriak hornitzeko modukoa izan behar zuela, alde edo molde, hark ere. **Juan Garzia**

## glizerofosfato

*iz* azido glizerofosforikoaren gatzak.

**Glizerofosfatoak** haur anemikoentzat. **Juan Garzia**

## glizerol

*iz* glizerina.

Sagarraren heltzean, alkohola eta **glizerola** sortzen dituzten azukre ugari izatea izan du ezaugarri aurten sagarrak, beroaren eraginez. **Berria - Euskal Herria**

## glizinia

(egokiagoa dirudi **glizina** formak) *iz* zuhaixka apaingarría, lore urdin-moreak edo zuriak mordo zintzilikaríetan dituenak.

Doneztebeko gurutzean, **glizinia** ezin ederragoa aurkitu du loraturik, malba kolorekoa. **Hasier Etxeberria**

**Gliziniak** lorea galdua dute eta erreago daude bazterrak. **Hasier Etxeberria**

## global 1

*izond* mundu mailakoa dena, mundu osoari dagokiona.

Askoren aburua da egungo ekonomía ireki eta **globalak** zaharkituta utzi dituela idea eta neurri keynesianoak. **Iñaki Heras**

Arrazoimena ez dela gai jainkozko ordena **globala** ulertzeko. **Imanol Unzurrunzaga**

Nazioz gaindikoa kapitalen interesa da demokrazia **globala** arautzen duena. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Justiziaren aldeko mugimenduak inoiz baino handiagoak dira, baina errepresioa ere inoiz baino **globalago** eta bortitzagoa izan daiteke. **Pello Salaburu**

Politika **global** eta lokalak abian jartzeko. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

XIX. mendeko merkatu **globalaren** oinarri teknologikoak. **Iñaki Heras**

Estrategía multinazionaletatik estrategia **globaletara**. **Koro Navarro**

Politika makroekonomiko **globaletan**. **Koro Navarro**

Lurra "planeta" zela eta ez besterik, den-denok senidetzen gaituen bitzoki **globala**. **Iñaki Seguro**

Informazioaren gizartean bizi omen gara, herrixka **globalean**. **Txema Ramirez de la Piscina**

## 2 multzo osoari dagokiona.

Ahalmen **global** edo integratzaile horrek ahalbidetzen dizkigu generalizatzea eta gogoeta egitea eta, orobat, subjektibitatea eta bere buruaz jabetzen den ni bat garatzea.

**Xabier Olarra**

Gatazka Euskal Herri osoak bizi du, eta gatazkari era **globalean** eman behar zaio konponbidea. **Berria - Euskal Herria**

Analisi **global** baten arabera. **Koldo Izagirre**

Israelek «gerra **globala**» agindu du Hamas «zapaltzeko». **Berria - Mundua**

Europar ekonomiaren hazkunde **globalaren** ahalmena gehitzea. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo global (3); aro globalean (3); aurkako gerra globala (3); berotze globala (3); ekonomía global (3); ekonomía globalak (3); estrategia globala (4); gerra globala (6); gizarte global (3); global bat (18); global batean (3); global baten (12); global eta (7); global honetan (7); globala da (5); globala eta (7); globala ez (3); historia global (3); ikuspegi global (3); maila globalean (4); merkatu global (4); merkatu global bat (3); merkatu globalaren (4); mundu global (7); mundu global honetan (4); politikak global (3); sistema global (3)

## globalismo

*iz* munduko erresuma guztien arteko lankidetzarako joera.

Mugimenduak **globalismoa** nabarmendu zuen AEBen partikularismoaren orde; kultur eta erlijio aniztasuna, Mendebaldeko judu-kristautasunaren orde; eta espiritualismoa monoteismo etikoaren orde. **Berria - Gaiak**

## globalitate

*iz* globaltasuna.

Izan ere, garapen iraunkorrak bere baitan hartzen dituen oinarritzko eta funtsezko ideiak iraunkortasuna eta **globalitatea** dira. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## globalizante

*izond* globalizatzailea.

Herriarentzat jaioitk garapen **globala** eta **globalizantearen** premia proposatzen zuten. **Itxaro Borda**

## globalizatu

globaliza(tu), globalizatzen **1** du *ad* (Zerbaiti) *izaera globala eman. ik mundializatu.*

Gazteriaren ohiturak **globalizatzen** ari diren neurrian. **Mikel Hernandez Abaitua**

Egoera ekonomikoki egonkor batean, Estatu Batuen indar hegemonikoaren babespean, **globalizatu** egin zen mundu ekonomía kapitalista. **Koro Navarro**

Petrolio, gasa, ura eta beste zenbait natur baliabide kontrolatzeko gerrak **globalizatzeak**. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

**Globalizatzen** gaituen kontsumo gizartearen aurka doa irudiz tribua. **Itxaro Borda**

Baina izua **globalizatu** egin da, Hollywoodeko efektu berezietako filmak bezala. **Berria - Harian**

**Globalizaturiko** gizartearen hezkuntzak derrigorrezkoak dituen erronkei aurre egiteko proposamenak **Berria - Kultura**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Mundu **globalizatu** honetan nagusi den sistema sozio-ekonomiko eta politikoa. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Finantza merkatu **globalizatuaren** garai hauetan. **Iñaki Heras**

Gizarte **globalizatu** honetan. **Berria - Kultura**

Inposatzen zaigun kultur eredu kontsumista **globalizatuaren** gainetik.

Eta pentsatu ninan Euskal Herrian aspaldidanik garelak **globalizatuena** eta modernoena. **Iban Zaldúa**



### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gero eta globalizatuagoa (3); **globalizatu batean** (7); **globalizatu batean bizi** (3); **globalizatu egin** (3); **globalizatu honetan** (3); **mundu globalizatu** (8); **mundu globalizatu batean** (5); **mundu globalizatuaren** (4); **mundu globalizatuaren** (3)

## globalizatzaile izond/iz globalizatzen duena.

Ez ote gaitu gu, zinezko euskaldunok, halatsu jotzen, orduko greziar litzakener inperio **globalizatzaile** judumasoi honek? **Patziku Perurena**

Droga kontsumoan ere berezkoak diren kultura erreferenteak galduta eta nagusia den mendebaldeko eredu **globalizatzailea** inposatuta. **Berria - Harian**

Euskal Herriko eta Europako ongizate gizartea politika **globalizatzaileen** menpe geldituko ote den. **Berria - Euskal Herria**

## globalizazio 1 iz globalizazea. ik mundializazio.

**Globalizazioa** kapitalismoaren zabalkunde espazialaren adierazpen da. **Koro Navarro**

**Globalizazioak** oinarrian dakarren, hain zuzen ere, horixe baita: urruneko kilometroetan gertatzen dena gure eguneroko bizitzan sartzen da itzal txar baten gisa. **Pello Salaburu**

**Globalizazioaren** bidez estatu batzuen boterea handitu egin da, beste batzuen murrizten den heinean. **Berria - Gaiak**

Ekonomiaren **globalizazioa**, nazioartekotzea edo mundializazioa, 90eko urteetan arreta handia bereganatu duen gaia izan da. **Iñaki Heras**

«**Bidezko** globalizazioa» bultzatu nahi dute euskal kooperatibek. **Berria - Ekonomia**

**Globalizazioaren** fenomenoak, nazioartekotze-prozesu horretan, aldaketa da jarraipena baino areago. **Koro Navarro**

**Globalizazioaren** inguruan burujabetza ekonomikoa «ezinbesteko tresna» dela aintzat hartzea. **Berria - Ekonomia**

Ekonomiaren **globalizazioak** dakartzan arazoez. **Koro Navarro**

**Globalizazio** ekonomikoaren sorrera. **Koro Navarro**

**Globalizazioaren** kontrako mugimenduaren ordezkariek. **Berria - Kultura**

**Globalizazioaren** fenomenoak bere izatean bertan dauka enpresen naziotasunaren desagerepenaren ernamuina. **Koro Navarro**

Ekonomia pribatuaren **globalizazioaren** eta araudi publikoen izaera nazional soilaren artean dagoen kontraesan agerikoa. **Koro Navarro**

Trukeen **globalizazioari** trabarik jarri gabe. **Koro Navarro**

**Globalizazioaren** atzaparretatik ihes egin nahi du Kusturicak, hala zinemaren arkitekturan. **Berria - Kultura**

Hiru M-ak dira **globalizazioaren** ardatz nagusiak: Mc Donals, Microsoft eta MTV. **Berria - Euskal Herria**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ekonomiaren **globalizazio** prozesuaren hedapen eta ondorioei buruzko eztabaida. **Iñaki Heras**

**Globalizazio** mundu honetan. **Pello Salaburu**

**Globalizazio** -garaiko ekonomia eta kulturaren arteko harremanaz. **Joxerra Garzia**

Ortodoxia liberalak 1970eko hamarraldiaren amaieratik aurrera izandako garaipenak ekonomia-**globalizazioaren** prozesuak atzerabiderik ez zuela berretsi zuen. **Koro Navarro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da **globalizazioa** (12); **dira globalizazio** (4); **dira globalizazio prozesuaren** (3); **du globalizazioak** (6); **egungo globalizazio** (4); **ekonomiaren globalizazio** (3); **ekonomiaren globalizazioa** (5); **eta globalizazio** (7); **eta globalizazioa** (5); **eta globalizazioak** (4); **globalizazio eredu** (3); **globalizazio garaian** (5); **globalizazio garaietan** (3); **globalizazio hori** (3); **globalizazio neoliberala** (7); **globalizazio neoliberalaren** (7); **globalizazio neoliberalari** (3); **globalizazio prozesu** (5); **globalizazio prozesua** (4); **globalizazio prozesuak** (3); **globalizazio prozesuaren** (19); **globalizazio prozesuaren ondorioz** (3); **globalizazio prozesuari** (3); **globalizazioa da** (5); **globalizazioa deitzen** (3); **globalizazioa dela** (3); **globalizazioa dela eta** (3); **globalizazioa edo** (4); **globalizazioa eta** (17); **globalizazioa ez** (3); **globalizazioak eta** (9)

da **globalizazioaren** (8); **dago globalizazioaren** (3); **dira globalizazioaren** (8); **ekonomiaren globalizazioaren** (3); **ere globalizazioaren** (4); **eta globalizazioaren** (18); **eta globalizazioaren kontrako** (3); **eta globalizazioari** (5); **finantza globalizazioaren** (4); **globalizazioaren alde** (3); **globalizazioaren aldeko** (3); **globalizazioaren aroan** (4); **globalizazioaren aurka** (4); **globalizazioaren aurkako** (30); **globalizazioaren aurkako mugimenduaren** (3); **globalizazioaren aurrean** (7); **globalizazioaren eragina** (6); **globalizazioaren eraginez** (3); **globalizazioaren eta** (16); **globalizazioaren fenomenoak** (3); **globalizazioaren garaian** (11); **globalizazioaren inguruan** (3); **globalizazioaren kontra** (4); **globalizazioaren kontrako** (35); **globalizazioaren kontrako mugimendua** (3); **globalizazioaren kontrako mugimenduaren** (6); **globalizazioaren ondorio** (7); **globalizazioaren ondorioz** (6); **globalizazioari aurre** (6); **globalizazioari aurre egiteko** (3); **globalizazioari buruz** (3); **globalizazioari buruzko** (6); **globalizazioari eta** (6)

## globalki adlag era globalean.

**Globalki** pentsatu, lokalki jardun. **Txema Ramirez de la Piscina**

Komiki bat, adibidez, irudiz irudi irakurtzen da, alde batetik, baina aldi berean (eta batzuetan kontraesanez, gainera) **globalki** ere irakurtzen da. **Josu Zabaleta**

Nola **globalki** pentsatu eta eroki jokatu. **Berria - Kultura**

## globaltasun iz globala denaren nolakotasuna.

Desiragarritzat eta posibletzat aldarrikatu izan da **globaltasunaren** tokian tokiko erabilera eta, aldi berean, tokian tokikoaren erabilera globala. **Iñaki Heras**

Tokian Tokiko Agenda-21 delakoa izan liteke, gure ustez, ezinbesteko dugun gizarte antolamendu berri horren lehen hazia, agenda horrek batera begiratzen baitie tokian tokikoari eta **globaltasunari**. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

## globo 1 iz esfera formako gauzakia.

Eta nola materiaren pilatze hark funtsatu zuen lurra, zerua, itsasoa, izarrak, eguzkia eta ilargiaren **globo**. **Xabier Amuriza**

Ispiluetan suzko **globoak** daude bueltaka. **Monika Etxebarria**

Gurdi gainean eguzkiaren antzeko **globo** handi bat zegoen, gaua argitu zuena. **Askoren artean**

Gure sistemako munduak, gure familia txiki honetakoak, eguzki nebulosatik banan-banan askatuz joan ziren gasezko eraztun primitiboak **globotan** kondentsatzez sortuak direla. **Josu Zabaleta**

Ez baita [ilargia] ageri, ohi bezala, disko didzitari soil gisa, esfera, **globo**, gorputz, izar gisa baizik, hots, laranja koloreko masa erraldoi bat bezala unibertso hutsaren erdian.

**Joxe Austin Arrieta**

Begia **globo** bat da, ia esferikoa. **Josu Zabaleta**

Begiaren **globo** osoa apurtzen. **Xabier Amuriza**

Begi-**globoak** zanpatuz kolorea sorrarazi nahi izaten zuen batzuetan. **Xabier Olarra**

Munduko **globo** eskuetan zuela segitzeko zituela tropen aurreratze eta atzeratzeak. **Bego Montorio**

Return of the King filmak, hiru Urrezko **Globo** jaso ditu. **Berria - Kultura**

-1783ko iraileko egunetan, bere liburutegia sutan kiskali eta handik bi urtera, zorabialdiak izan zituen Euler-ek, baina, hala eta guztiz ere, **globo** aerost.. aerostatikoen mugimendua kalkulatzeko aritu zen. **Jon Muñoz**

## 2 Lur planeta.

1492koa den Martin Belhaimen **globoaren** kartaren arabera egina den kopia dena. **Aurelia Arkotxa**

Globalizazioa kapitalismoaren zabalkunde espazialaren adierazpen da, **globoko** muga guztiak gainditurik. **Koro Navarro**

## 3 baloia, aireontzia.

Eta helikoptero edo **globo** bat alokatzea. **Xabier Olarra**

Fergusson Afrikan barrena ibili zen **globoan** bost astez. **Karlos Zabala**

Zeruan **globo** gidagarri bat noraezean. **Lopez de Arana**

Libidoa zunda **globo** baten moduan igo zait, braust!, estratosferaraino. **Patxi Iturritegi**

## 4 puztokia.

**Globo** asko eta kolore guztietakoak, marrazki politekin, puztu-puztu egin eta haiexei begira egoteko. **Iñaki Segurola**

Iluntzean etortzen da hona, espaloian **globoak** saltzera. **Gotzon Garate**

**Globo** sorta bat zegoen lanparatik zintzilik. **Koro Navarro**

Sabela **globo** baten antzera puztua. **Joxe Austin Arrieta**

Azkenik, helioz beteriko **globoekin** pankarta erraldoi bat aireratu ahal izan zuten. **Berria - Euskal Herria**

## 5 tenis jokoan, goitik doan pilotak egiten duen zirkuluerdia.

33 urteko beteranoa saiatu zen lehen setean kontrarioa bolea eta **globoekin** amorrarazten. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eguzkiaren antzeko globo** (3); **eta globoak** (3); **globo bat** (6); **globo baten** (8); **globo baten antzera** (3); **globo gidagarri bat** (3); **globo handi** (4); **globo handi bat** (3); **globo zuri** (3); **urrezko globoak** (5); **urrezko globoak** (4); **urrezko globoen** (4); **urrezko globoetan** (5)

## globomundi iz mundu bola.

Aurre aurrean oholta, oholtzaren ezkerrean mahaia eta mahaiaren gainean **globomundia**. **Joseba Sarrionandia**

**Globomundiaren** marmolezko oina. **Joseba Sarrionandia**

## globular izond globuluz osatua.

Lehenera itzultzekoa, alegia, halaxe baikeunden antzina, etsaitasunak hautsi duen jainko **globularraren** altzoan. **Juan Garzia**

## globulu iz zelula aske esferakara, odolean eta beste isurkari organiko batzuetan aurkitzen dena.

Zure odola, **globuluak**, osagai kimiko guztiak. **Lander Garro**

Zelula ametatik **globulu** gorri, zuri eta plaketak lortu nahi dituzte. **Berria - Gaiak**

**Globulu** gorriak kopuru handitan sortzeko era bat garatu du Frantziako zientzialari talde batek. **Berria - Gaiak**

Retikulozitoak **globulu** gorri berriak dira. **Berria - Kirola**

**Globulu** zuriak neurritz behera zituen, baina ez beheregi. **Joan Mari Irigoien**

Minbizia tratatzeko erabiltzen dugun ekaia kontzentratuak dira, eta zelulak hil ditzakete, **globulu** zuriak desagerraraziz. **Berria - Euskal Herria**

Neutrofilo **globulu** zuriak minbizia garatzeko mekanismoa ezerezteko gai izan daitezkeela. **Berria - Gaiak**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**globulu gorri** (12); **globulu gorriak** (18); **globulu gorriei** (3); **globulu gorriek** (4); **globulu gorrien** (5); **globulu zuriak** (10); **milioi globulu gorri** (4); **odoleko globulu** (3)

## glomerulonefritis iz giltzurritan hantura, batez ere glomeruluei erasaten diena.

Richardek **glomerulonefritis** kronikoa zuen, giltzurruneko glomeruluen hantura kronikoa, eta giltzurrun bat behar zuen nahitaez, aurrera egiteko. **Berria - Gaiak**

## glomerulu iz (anatomian) guruinen edo hodien metaketa txikia.

Richardek glomerulonefritis kronikoa zuen, giltzurruneko **glomerulu**en hantura kronikoa, eta giltzurrun bat behar zuen nahitaez, aurrera egiteko. **Berria - Gaiak**

## gloria iz aintza.

Ospea eta **gloria** hiri, gizon balent eta ausart horri. **Joan Mari Irigoien**

Gertaera hutsalak, handitasun eta **gloriarik** gabekoa. herritarrek zure garaipenaren **gloriarekin** bat egiten zuten bitartean. **Santiago Iruretagoiena**

Urtebete ez da oraindik zure senarra, Jainkoak gorde beza bere **glorian**, zure senarra hil zenetik. **Joxemari Urteaga**

O, aintza eta **gloria**! **Agustin Otsoa**

## glorieta iz lorategi bateko plazatxo modukoa.

Bestela ez zatekeen inolaz ere ausartuko piszinaren aldameneko **glorietan** biluztera, oraindik etengabe igarotzen ari ziren gonbidatu horditu eta zerbitzari lizunen begiradapean. **Patxi Iturritegi**

## glosa 1 iz testu batean egiten den ohar argigarria.

Goizean Gemara eta Komentarioak ikasten zituzten, Lege Kodeak eta haien **glosak** arratsaldeetan. **Koro Navarro**

Donemiliagako **glosetan**. **Iñigo Aranbarri**

Ez da zehazki ipuina ere: gehiago da oroitze bat, **glosa** moduko bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Antologiak Lauaxetaren hogeita hamarretik gora poema eta hamabost idazleren **glosak** bilduko ditu. **Glosa** hauek ulertzen zaila den munduari erreparatuz egindako oharra baitira. **Berria - Harian**

## 2 Menorca uharteko bertso modukoa.

Dela décima, dela trova, dela **glosa**. . bertsoaren modu berera egiten dutela jabetu ginen. Andoni Egaña

## glosadore iz Menorca uharteko bertsolari modukoa.

1996.eko Bertso Egunaren kariaz, Alpujarrako trobadoreak, Menorkako **glosadoreak** eta Kubako dezimistak ekarri genituen. Andoni Egaña

Menorkako **glosadoreen** doinuak. Berria - Kultura

## glosagai iz glosatzeko gaia.

Lehen parteak Hebrearrei egindako Gutunaren bederatzigarren kapituluaren akaberako bertsetak zituen **glosagai**. Juan Garzia

## glosario iz glosategia.

Ragueauren Zuzenbide frantsesaren **glosarioa** -n. Iñaki Iñurrieta

## glosategi iz glosa bilduma.

Gida azkar baten funtzioa beteko lukeen **glosategi** antzeko baten modura. Askoren artean

## glosatu, glosa(tu), glosatzen du ad glosa egin.

Idazlea [Lauaxeta] antologatu eta **glosatu** dute. Berria - Harian

Idazle bakoitzari Lauaxetaren bost bat poema aukeratzeko eskatu diote eta horietatik bat aukeratu dute Igerabidek eta Lertxundik idazleak **glosa** dezan. Berria - Harian

## glosema iz

**Glosema** terminoak "mintzo ezaugarria" esanahia duela onartzen badugu, zuzenago hitz egin ahaliko dugu marra isoglosematikoez, horrelako terminoa erabiltzerik izango balitz. Isabel Arrigain

## glosolalia iz hizkuntzak ikasi gabe mintzatzeko dohaina.

Han bildua zegoen jende gehienak ez zekien **glosolalia** zer zen; nola edo hala, dekanok eta biok azaldu genuen zertan zetzan hitzezko nahasmendu harrigarria. Karlos Linazasoro

Niretzat **glosolalia** edo heterofasia edo buru-nahasmendu edo eldarnio itxura gaiztoko hura maldan behera zetorren. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glosolalia** edo (3); **glosolaliak** eta (5); **glosolaliak** eta **beste** (5)

## glotal izond glotisarena, glotisari dagokiona. ik glotis 2.

Glotis hitzaren da eta herskari **glotal** baten bidez eteten da bokala. Lourdes Oñederra

Ahokuneaz ari garela, glotisean egindako trabaz ekoizten diren hotsak dira **glotalak**. Lourdes Oñederra

## glotalaurreko izlag glotis aurrean gauzatzen dena.

Leherkari **glotalaurreko** irekigabe batez. Itziar Laka

## glotis 1 iz laringeko goi irekidura, ahots harien artekoa.

Laringean dauden ahoskorden arteko tarte edo zuloa da **glotisa**. Lourdes Oñederra

Hitz egitean, biriketarik kanporantz datorren aireak **glotisa** igarotzen duenean. Lourdes Oñederra

**Glotisetik** ahora bitarteko hodian. Lourdes Oñederra

Aho soken hurbiltasuna dela eta dardaritzen bada **glotisa**. Isabel Arrigain

Ondoren irekiko da **glotiseko** hersketa. Lourdes Oñederra

Kontsonante eiekthibo eta inplosiboak, aire-etorriari dagokiola, **glotis**-mekanismoaz (glottic airstream mechanism) sortzen direla esan ohi da. Lourdes Oñederra

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik glotal.

Kontsonante eiekthibo eta inplosiboak, aire-etorriari dagokiola, **glotis**-mekanismoaz [...] sortzen direla esan ohi da. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glotisa atalak** (3); **glotisa igo** (3); **glotisa itxi** (3); **glotisetik gorako** (3)

## glotodidaktika iz hizkuntzalaritzan oinarritzen den hizkuntzen irakaskuntza.

Zerbait handi ipini behar eta, "**Glodidaktikako** Ikastaroa" ipini zituela uste dut izena. Patziku Perurena

**Glodidaktika** ikastaroan lantzen ari nintzen euskarazko metodoa erori zitzaidan. Koldo Izagirre

Oihartzabalen esanetan, **glodidaktika** lan asko dago egiteko. Berria - Euskal Herria

## glukogeno (ETCn 217 agerraldi; ETCn orobat glikogeno 4 agerraldi) iz destrinarean antzeko gaia, giblean ugari aurkitzen dena.

Fosfokreatina erreserbak berritzeko behar den energia **glukogenoa** oxidatetik lortzen da. Berria - Aldasoro  
Kontua da giharretako zuntzetan gordetzen den **glukogenoa** ur asko erakartzen duela. Berria - Kirola  
Salto edo beste edozein ariketa fisiko egitean, erregai (**glukogeno**) gehiago erabiltzen dugu eta baita erregai hori erretzeko oxigeno (aire) gehiago ere. J.M. Olaizola  
"Txiliku"

## glukokortikoide

iz **glukosaren** metabolismoan eragina duen kortikoidea.

Txostenaren arabera **Glukokortikoideak** izan ziren dopin sustantzia erabilienak. Berria - Kirola

## glukosa 1

iz **fruitu heldu askotan eta odolean aurkitzen den azukrea**.

Badira bi **glukosa** mota: landareena eta animaliena. Juan Garzia

**Glukosa** da garunarentzako eta muskuluentzako energia-iturri nagusia. Irene Aldasoro

Proteinak, aminoazidoak, bitaminak eta **glukosa**, oso erraz detektatzen dira odolean. Irene Aldasoro

Intsulinarik gabe ez dago odoleko **glukosa** metabolizatzerik. Berria - Gaiak

**Glukosaren** oxidazioaren okerbide bat baino ez da diabetesa. Juan Garzia

Odoleko **glukosaz** arduratzen den mekanismoa. Irene Aldasoro

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Odoleko **glukosa** kantitatea txikiagotzen denean agertzen da hipogluzemia. Berria - Gaiak

Gorputzeko **glukosa** eta lipido maila kontrolatzea. Berria - Gaiak

Garrantzizkoa da **glukosa** -kontzentrazioa nahiko egonkor mantentzea odolean. Irene Aldasoro

Otordu baten ondoren, asko igotzen da odoleko **glukosa** maila. Irene Aldasoro

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1977. urtean, beste bi produkturi buruz hitz egiten hasi ziren: difenilhidantoina eta 5-tiodextro- **glukosari** buruz. Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

da **glukosa** (3); eta **glukosa** (4); **glukosa maila** (4); **odoleko glukosa** (3)

## glup

iz (onomatopeia)

Gorputzeko hezur eta haragi malatsak klaska eta **glup** ozenkari, gerlari ohia txiki-txiki egin zen Sebasen aurrean. Itxaro Borda

## glutamato

iz Azido glutamikoaren gatz.

Sodio- **glutamatoa**, gesala (potasio-nitratoa), gatz urdin edo grisa, itsas gatz, etc. Edorta Agirre

## glutaminiko

izond glutamikoa.

Bromoari edo propilenoari -NCO taldeari edo azido **glutaminikoari** loturik. Juan Garzia

## gluten

iz gariaren eta beste lastodunen hazietan aurkitzen den proteinazko gaia, irinari malgutasuna ematen diona.

**Glutenak** kalte egiten dietenen gaitza da zeliakia. Berria - Gaiak

**Glutenik** gabeko dieta jakin bat. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**glutenik gabeko** (4); **glutenik gabeko dieta** (3); **udaberri glutentsua** (3)

## glutentsu

izond gluten asko duena.

Gozotasun urreztatuz itoa, atsegina mokadu guztien baitan, the daddy of them all, udaberri **glutentsua**. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**udaberri glutentsua** (3)

## gluteo

iz ipurmasaila.

Han egin zizkioten azterketa medikoetan ez diote arazo larririk atzeman bere eskuin **gluteoan** edo ipurmasailean. Berria - Kirola

## gluzemia

iz odoleko glukosa maila.

Gero **gluzemia** neurtu behar da. Juan Garzia

Intxietako batek baino ez zuen izan **gluzemia** -jaisierarik zaran-belar erauzkinezko tratamenduarekin. Juan Garzia

## gluzido

iz karbono hidratoa.

Lipido, protido eta **gluzido** sintetiko osatu janariak. Itxaro Borda

## gnomo 1

iz ipotx bizartsu baten itxurako alegiazko izaki ongilea.

**Gnomo** bat patriarka-bizar zurikoa. Anton Garikano

Ezbairik gabe, Panen leinukoa da bera ere, **gnomo** eta beste izaki asko bezalaxe. Airean laster bete zen **gnomo** hegalariez. **Bernardo Atxaga**

Beraren baitako sakonguneetan, milaka **gnomo** dorre garaiak eraikitzen ari zirenean, dorre hauskorak, distiratsiak. **Lopez de Arana**

**Gnomo** egitekotsuen habia bailitzan. **Juan Garzia**

**Gnomo** batena bezalako begiratu azeria. **Iñaki Mendiguren**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zuk behar hainbat zorabiatu behar dituzu, **gnomo** -zuloetara itzultzeko biderik aurki ez dezaten. **Iñaki Mendiguren**

Landan, urrutian, **gnomo** -talde bat ikusi zuen, banan-banan, Weasleyren heskaitik barrura itzultzen. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**da gnomoaren** (3); **eta gnomoaren** (4); **gnomo bat** (6); **gnomoaren ekinokzio** (3); **gnomoen ondotik** (3); **segurtasuneko gnomoen** (4); **segurtasuneko gnomoen ondotik** (3)

## gnomotzar iz adkor bnomo handia.

Badira gauza batzuk bizi ezin direnak azkenean adiskidetu gabe, eta hiru metroko **gnomotzar** handi bat eraitea da horietako bat. **Iñaki Mendiguren**

Harryk eta Ronek **gnomotzar** beldurgarriagandik salbatu zutenetik, Hermione pixka bat eskuzabalkeago bihurtu zen arauak hausteari buruz, eta askoz atseginagoa zen orain. **Iñaki Mendiguren**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gnomotzar handi** (3)

## gnoseologia iz ezagueraren teoria.

Hortaz, (1) epistemologiaren eta (2) ezagutzaren teoria (baita (3) **gnoseologiarena** ere zenbait tokitan) sinonimoak bailiran ulertuko ditugu, Modernitatean subjektu irudikatzailearen ezagutza-teoria, edo **gnoseologia** / epistemologia. **Askoren artean**

## gnoseologiko izond gnoseologiarena, gnoseologiari dagiokiona.

Zenbat eta haiek gero eta gehiago pasatu, Eskolastika berantiarreko Filosofian eta Teologian, determinatze eta zarpaitze kontzeptual eta **gnoseologikoaren** (teoriko-ezagutzazko) objektu izatera. **Joan Mari Lekuona**

## gnosi iz erlijioaren misterioen goren ezaguera.

Ulertzen zailagoak, asaldagarriagoak, eta aieru txarrekoak, apika, "lausotasun"aldi luzeak zirenean; lausotasun horrek, bai ikusmenari, bai **gnosiar** erasaten zion, eta, inolako arazoi bistakorik gabe, berez agertu, eta ordutan irauten zion, edo are egunetan. **Xabier Olarra**

Ezagutu aurretik dira ezagugarriak eta bere buruaren **gnosia** sortarazten dute ikaslearengan. **Imanol Unzurrunzaga**

## gnostiko izond/iz gnostizismoarena, gnostizismoari dagiokiona.

Basilidesen ebanjelio **gnostikoa**. **Juan Garzia**

Antirrazionalismo **gnostikoa**. **Askoren artean**

To, honen izenak soinu polita dik: "Maitasun **gnostikoaren** habia". **Aingeru Epaltza**

Xaho **gnostiko** masoia eta errepublikazale laikoa zen. **Askoren artean**

**Gnostikoek** erabiltzen duten hitz kabalistikoa da abraxas delakoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## goait 1 adlag zain.

Hiruzpalau morroik zaindurik eta begiraturik, aitzo eta labanen orenaren **goait**. **Joan Mari Irigoien**

## 2 goait egon zain egon.

Kurioski munduko berrien **goait** nengoen, Elizaren etorkizunaz kezkatu nintzen eta ez nintzen ohartzen ene ingurumenean gertatzen ari zirenean gizare-aldaketei: gazteen ikara eta nahikeriak, emakumeen eskakizunak, langileen arrangurak eta beste. **Piarres Aintziart**

Baina gehiengo Gehexan Jaurenea eta haren ilobaren artean gertatuko bide zen buruz-burukakoaren **goait** zegoen. **Elena Touyrou**

Desfilean zetozenak alde batetik, eta plazan **goait** eta begira zeudenak bertetik, aise izanzen ginen milaz goiti han juntatuak. **Joan Mari Irigoien**

Mementu haren **goait** balego bezala. **Joan Mari Irigoien**

Gehiengo Gehexan Jaurenea eta haren ilobaren artean gertatuko bide zen buruz-burukakoaren **goait** zegoen **Elena Touyrou**

## 3 goaitan zelatan.

Sagarroia bezain trinko eta ziztadun zegoela argi zen, lanjerra berriz nondik jaukiko zitzaion **goaitan**. **Itxaro Borda**

Horren **goaitan**, har itzazu nire doluminak zure oinordekoaren galeragatik. **Jon Muñoz**

Eta gü heben **goaitan** eliz(a) aitzinean. **Herria**

## 4 goaitan egon, izan zelatan egon, izan.

Joantto etorri ondoko egunetan, herritar guziak haren joan-jinen **goaitan** egon ziren. **Elena Touyrou**

Handik laster, bide ertzeko zuhaitz batzuen gibelean gorderik **goaitan** zeuden. **Elena Touyrou**

Ohoinak joan dira gero iheska, laugarren lagun bat **goaitan** zagon auto batean sartu eta berehala desagertu! **Herria**

Beraz ez egon azken mementoaren **goaitan**, oraindik prestatzen ahal delarik. **Herria**

Gure txaloen **goaitan** direla irabazdunak. **Herria**

Hiru oreneko erautsi bortitza meza nagusiaren **goaitan** ginelarik. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**horren goaitan** (4)

## goaitari izond goaitan dagoena.

Sarrilotapean hasirik Lextarrekoalano, prefosta Oihergi eta Ainharbe hegietan **goaitari**, Lanbare bere aska ederrean ospetsü. **Herria**



## goaitatu, goaita(tu), goaitatzen (orobat **guaitatu** g.er.) 1 du ad zain egon.

Mezu bat utziko diot, erranez ahaide batzuen ikustera joana naizela eta **goaita** nazala. **Elena Touyarou**

Aspaldi hontan **goaitatzen** ginuen gertakaria gauzatuko da. **Michel Oronoz**

Ez nian egunsentia **goaitatzen** ahal. **Elena Touyarou**

**Goaitatu** zuen bere etxean zegoen soldadua lokar zedin, eta gibealeko leiho batetik atera zen. **Elena Touyarou**

Baina ene arrapostua **goaitatu** ere gabe, aitzina segitu zuen, bat-batean grina handi pisu batek hartua balu bezala. **Janbattitt Dirassar**

Ez **goaita** azken mementoa izenen emaitako. **Herria**

Bertze guziek azken finalerdia **guaitatu** behar dute. **Herria**

Erran gabe doa, hautetsiek ere **goaitatzen** dituzte aipatzen dugun inkestaren emaitzak. **Herria**

Zaharragoek gaztetu arte beharko duzue **goaitatu..** **Berria - Kultura**

## 2 espero izan.

Tupustez hil zen Ben Barka, ez baitzuen nehorik holakorik **goaitatzen**. **Herria**

Amerikanoeri mintzatu delarik, erabili ditu denek **goaitatzen** zituzten solasak. **Herria**

Laborari ainitz **goaitatzen** ditugu mahaininguru hortara. **Herria**

Ainitz **goaitatzen** zuten herri hortan errege gaztearen ganik, Hassan II-ek hain hertsiki atxiki gobernu giderrak poxi bat laxatuko zituela haren semeak. **Herria**

Deusik **goaitatzen**, ez irriskatzen ordainik. **Herria**

Aurten ere kopuru bera **goaitatzen** da eta behar bada gehiago. **Herria**

Joanden urtean 6000 ikusliar pasatu ziren, aurten 7000 **goaitatuak** dira. **Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**goaitatu** zuen (4); **goaitatzen** dituzte (3); **goaitatzen** zuten (3)

## goante ik guante.

## goapo ik guapo.

## goardia ik guardia.

## goardiano iz (frantziskotarren artean).

**Goardianoa**, anaidi jakin bateko arduraduna, beranduko deitura da. **Askoren artean**

Zenbait kasutan, kustodio eta **goardiano** ere parekatuak ematen dira. **Askoren artean**

Test-an, ordea, gradazio moduko bat aurkitzen dugu hiru deituren artean: **goardiano** -kustodio-ministro. **Askoren artean**

Gure Elkarte osoko Ministro jeneralari eta ondorengo Ministro jeneral guztiei, eta anaien gainerako kustodio eta **goardianoei**, oraingo eta gerokoei, idazki hau berekin eduki, obratu eta axolaz gorde dezatela. **Askoren artean**

Alemaniano kustodio, predikari eta **goardianoak** bildu eta kapitulua egin zuen Maguntzian. **Askoren artean**

Lanaren irabazia edo saria, berriz, ez zuen langilearen beraren gogara uzten, **goardianoaren** edo anaiartearen esku baizik. **Askoren artean**

Anaiaren batek, etsaiak zirikaturik, bekatu larria egiten badu, obedienciaz behartua bego **goardianoagana** jotzera. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**anaia goardianoa** (4); **eta goardianoak** (4); **goardianoa zen** (4); **goardianoak erantzun** (7); **goardianoak erantzun zion** (6); **goardianoetat emango balidate** (3); **zion goardianoari** (4)

## goarnizio (73 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 366 agerraldi; orobat **guarnizio** 5 agerraldi, 3 liburutan, ETCn 37 agerraldi, eta goarnizino g.er.) 1 iz leku bat babesten duten osteak. ik **garnizoi**.

Zazpi lagun hartu zituen **goarniziorako**, hiru zaldizko eta lau oinezko. **Aingeru Epaltza**

Nabarrenkoxeko **goarnizioa** 30 bat soldaduk hornitzen zuten bake garaian. **Aingeru Epaltza**

Donostiako **goarnizioko** ofizialek. **Koldo Izagirre**

Baigorri, eskualdez, Donibaneko **goarnizioari** zegokion. **Aingeru Epaltza**

Gazteluan zegoen **guarnizioari**. **Koldo Izagirre**

Mugetan jarritako **goarnizio** militar iraunkorrak. **Iñaki Mendiguren**

**Goarnizio** finkoko soldaduak defendatzen saiatu ziren, baina zaldirik gabeko kosako batailo gutxi haiek ezin inola ere aurre egin emirraren soldadu sailen erasoari. **Karlos Zabala**

Tronpeta eta platilozko txaranga batek egiten du zapart plaza nagusian; **guarnizioko** musikariak dira hiriri serenata ematen. **Koldo Izagirre**

**Guarnizino** hura dorretxearen aitzinean genuela. **Joan Mari Irigoien**

Oroimenik bako burua **goarniziorik** bako gotorlekuren parekoa da. **Berria - Gaiak**

## 2 (hitz elkartuetan)

Urdurie eta **gogaikarriei** terapia elektrokonbultsiboa ematen diegu. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bezain gogaikarria** (3); **bizitza gogaikarria** (3); **eginkizun gogaikarria** (3); **ere gogaikarria** (3); **eta gogaikarri** (12); **eta gogaikarria** (9); **eta gogaikarriagoa** (3); **gogaikarri bat** (20); **gogaikarri egiten** (5); **gogaikarri ere** (3); **gogaikarri eta** (12); **gogaikarri gertatzen** (6); **gogaikarri hari** (3); **gogaikarri hori** (3); **gogaikarri hura** (3); **gogaikarri hutsa** (3); **gogaikarri samarra** (5); **gogaikarri zitzaion** (6); **gogaikarria da** (16); **gogaikarria ere** (3); **gogaikarria gertatzen** (6); **gogaikarria iruditzen** (6); **gogaikarria izan** (6); **gogaikarria izango** (5); **gogaikarria izaten** (3); **gogaikarria zen** (12); **gogaikarriagoa zen** (5); **gogaikarriak ziren** (3); **hain gogaikarria** (7); **jarduera gogaikarri** (3); **oso gogaikarria** (3)

## **gogaikarriro** adlag era gogaikarrian.

Dela beheko geruza gogor, latz, hits eta nazkagarriro lizunduetan, dela goiko geruza beti hotz eta **gogaikarriro** aratzetan. Jose Morales

Hasieran, ez zieten ezer erantzun, baina **gogaikarriro** beti gauza bera esaten jarraitu zieten ezkaratzeraino. Inazio Mujika Iraola

Gihar masa gorri astun haietako batek sorbaldatik heldu eta **gogaikarriro** astindu ninduen. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gogaikarriro** (3)

## **gogaikarritasun** iz gogaikarria izateko nolakotasuna.

Literaturan, etxe-etxeko intsektua dugu eulia, irrigarritasunaren eta **gogaikarritasunaren** ikur. Juan Garzia

Gorputzarekin eta zentzumenekin hartzen diete haiek gauzei neurria, abegikortasuna edo **gogaikarritasuna**. Pako Aristi

## **gogaikeria** iz

Gizaseme eta emakume apainak ilaran hurbiltzen ziren beren **gogaikeria** hilgarria handi-mandikeriatan estaltzen alferrik saiatzera. Txillardegia

## **gogait**

### **1 gogait egin gogaitu.**

**Gogait** eginek zeuden, beren lehenbiziko bertsioa alde batera utzi beharraz. Karlos Zabala

Zeharo **gogait** eginik, hatzaz zapaltzen du kristalera burrunbaka hurbildu den euli bat. Jose Morales

· Eta ez haut gehiago jasaiten, zeren **gogait** gaixto egina bainago. Joan Mari Irigoien

### **2 gogait eragin asperrarazi, gogaitu. ik gogaitarazi.**

Hotzak, hezetasunak, haizeak edo euriak ez zidaten **gogait** eragiten jadanik: ez ziren niganaino heltzen, ez nituen sentitzen. Urtzi Urrutikoetxea

·Ez zidak deusek ere horren **gogait** eragiten, nola oilo batzuek bezala alde egin behar izateak... Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gogait** (4); **gogait eginda** (8); **gogait eginik** (5); **gogait eragin** (5); **gogait eragitea** (3); **gogait eragiten** (9)

## **gogaitaldi** iz asperraldia.

Nondik eta nola jakiteke, neure buruaz neukan **gogaitaldia** finitzeko beste erarik asmatzen ez eta halako gogoeta ilunak nagusitu zitzaizkidan. Hasier Etxeberria

## **gogaitarazi**, gogaitaraz, gogaitarazten du ad gogait eragin, asperrarazi.

Aurrerantzean ez nuen borroka gehiago egin, ez nituen gehiago **gogaitarazi**. Urtzi Urrutikoetxea

Egia esateko, zentsura ez da batera gogorra, eta ia dena uzten didate irakurtzen, baina **gogaitarazi** egiten gaituzte beren komentario eta ohar guztiekin. Josu Zabaleta

Aurpegi hezurtsua zuen gizon handi bat eta ile beltz eta luzeko emakume bat elkarren aurka estutzen ziren, aurpegiaz, ezpaineekin, gorputz osoarekin, denak **gogaitaraziz**. Urtzi Urrutikoetxea

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gogaitarazi nahi** (4)

## **gogaitasun** iz asperkizuna.

Baina berehala espiritua larritu zitzaion eta beldur-ikara eta **gogaitasuna** sentitzen hasi zen, gorputz osoa dardarka zuelarik. Askoren artean

## **gogaitu**, gogait, gogaitzen **1 da/du ad aspertu**, gogoa galdu edo galarazi. **ik nazkatu; nekatu 4.**

Behar dugun guztia baldin badaukagu, zergatik **gogaitzen** gara? Berria - Gaiak

Plazerraren plazerrez nardatu eta **gogaitu** bainintzen. Joan Mari Irigoien

**Gogaitu** egin nintzela uste duzue? Anjel Lertxundi

Zerbaitek **gogaitzen** nauenean, isildu egiten naiz gehienetan. Josu Zabaleta

Hain amets higuigarriek **gogaitu** naitek gau osoan, non kontatzeak berak ere nazka ematen didan. Jose Morales

Arte eszenikoan euskal zentroari buruz hitz egiteaz **gogaituta** dagoela onartu du Lazkanok. Berria - Kultura

Eta hi ez al hago **gogaiturik** lelo berbera hainbeste aldiz errepikatzeaz? Jose Morales



Burua biratu zuen, **gogaiturik**, non zegoen zuek zeki-elako, larriturik, ikuskizun paregabe eta haskor haren kariaz. **Karlos Zabala**

Arunt **gogaitua** bainauka aspaldi haundiko mintzuri ugalkor honen burrunbak. **Patziku Perurena**

Xaraman zen, semeari ixarroteaz **gogaitua**, bere armadarekin Kamar Al-Samanen bila han-hemenka zebilena. **Patxi Zubizarreta**

Erosotasunaz **gogaitua**. **Berria - Gaiak**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Haien aurpegietan Jainko **gogaituaren** keinua islatzen zela sumatu zuen. **Joseba Sarrionandia**

-Utz dezagun -esan zuen Tiborrek ahots **gogaituaz-**. **Ander Irizar**

Aski duenaren jestu **gogaitua** egin zion neskak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gogaitu** aurpegiarekin lurrera begira jarri zen. **Harkaitz Cano**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**apur bat gogaitu** (3); **bat gogaitu** (3); **bat gogaitzen** (3); **batek gogaitzen** (3); **eta gogaitu** (10); **eta gogaitu ere** (3); **eta gogaiturik** (5); **eta gogaitzen** (4); **gogaitu arte** (4); **gogaitu behar** (3); **gogaitu egin** (12); **gogaitu egiten** (29); **gogaitu egiten du** (4); **gogaitu egiten nau** (5); **gogaitu egiten zuen** (6); **gogaitu ere** (3); **gogaitu eta** (6); **gogaitu gabe** (4); **gogaitu nahi** (12); **gogaitu ninduen** (4); **gogaitu samar** (5); **gogaiturik eta** (4); **gogaiturik zegoen** (4); **gogaituta dago** (5); **gogaituta dagoela** (3); **gogaituta daude** (3); **gogaituta nago** (5); **gogaitzen dira** (3); **gogaitzen hasi** (4); **gogaitzen nau** (9); **gogaitzen ninduen** (3); **gogaitzen zuen** (6); **gogaitzen zuten** (4); **horrek gogaitzen** (6); **zu gogaitzeko** (3)

## gogaitze aspertzea, gogoa galtzea.

Desoreka geldoa izan zen, **gogaitze** nagi bat, gerora neurritz gaineko asaldura bizia bihurtu zitzaiona. **Karlos Zabala**

## gogaldi iz umorea, gogo aldartea.

Mably kafetegian idatzi nuena irakurri dut berriz eta haren lotsa izan naiz; ez dut sekreturik nahi, ez **gogaldirik**, ez esanezinik; ez naiz ez birjina ez apaiz, barne bizitzaren jolasean aritzeko. **Monika Etxebarria**

## gogalmen iz gogoaren ahalmena.

Arimak **gogalmenen** bidez egiten du bere lana: adimenaren bidez ulertu du, oroimenaren bidez amesten eta nahimenaren bidez dabil maitasuna. **Joan Mari Lekuona**

Arimaren **gogalmenak** dira sorkariak ukitzen dituztenak eta antzirudiak ateratzen dituzte, eta hauetan, barruan hartutakoan, ezagutzen dituzte sorkariak. **Joan Mari Lekuona**

Gizaki perfektuak guztia ahaztu behar luke, ez luke zentzuen morroi izan behar, eta **gogalmenak** bere baitan bildu behar lituzke. **Joan Mari Lekuona**

## gogamen (ETCn 1.865 agerraldi) 1 iz pentsatzeko erabiltzen den ahalmena. ik gogo; adimen.

Badirudi "gogoa" edo **"gogamena"** kontzeptuak (ingeleseaz, mind; gaztelaniaz, mente; frantsesez, esprit) mundu berezi eta aparteko bat seinaltatzeko erabiltzen direla filosofian, materiazkoa ez den mundu bat, alegia. Horien iturriak **gogamenaren** hiru ahalmenak dira: "Gure ezagutza oro (A) sentimenetatik abiatzen da, hortik (B) adimenera doa eta (C) arrazoimenera iristen da". **Askoren artean**

Zuzenean hautematen duguna ez dela sekula objektu materiala izaten [...], **gogamenaren** mende dagoen zerbait baizik (errepresentazioak, ideiak). **Askoren artean**

Horrenbestez, **gogamena** (adimena, kontzientzia, sentsazioak...) ote luke ordenagailu horrek? **Askoren artean**

Freudek, esate baterako, **gogamena** aztarnategi arkeologikotzat irudikatzea zuen gogokoan. **Xabier Olarra**

Bazekien zeintzuk ziren beraren margolan kuttunenetako kolore guztiak, baina orain ezin ikusi: ez zuzenean begiratuz, ez bere **gogameneko** begiaz ere. **Xabier Olarra**

Istripua izan eta berehala, eta handik aurrera urtebetez edo, koloreak "ezagutzen" zituela esaten tematzen zen oraindik Jonathan I., bazekiela zein ziren zuzenak, egokiak, ederrak, nahiz eta gai ez izan haiek **gogamenean** ikusteko. **Xabier Olarra**

Geldotasun egoera hori, hasieran, "hausnarketa"tzat deskribatu zuten erizainek; [...] nire ustez, **gogamenaren** "nagitasun" patologiko larria zen, pentsamenduz edo atxikimenduz hustua. **Xabier Olarra**

Lobulu frontaletako tumorrek modu askotako sintomak eman zitzaizkela: nahiz ernetasun eza, zozotzea eta **gogamenaren** moteltasuna, inoiz izaera-aldaketa nabarmena eta autokontrola galtzea, nahiz (Gowersen arabera) "erotasun kronikoa". **Xabier Olarra**

Sentimendu pila bat nahasten zitzaizkidan **gogamenean**. **Pedro Alberdi**

Baina berehala baztertu zuen irudi hura **gogamenetik**. **Unai Iturriaga**

Konradek beldurra zion musikari, lotura ezkutukoz hari baitzegoen estekaturik, ez bakarrik **gogamen** aldetik, baizik eta baita gorputz aldetik ere. **Xabier Olarra**

## 2 (izenondoekin)

Pentsa daiteke giza **gogamena** bikain doitutako konputagailu sail bat dela. **Xabier Olarra**

Alemaniarren **gogamen** zorrotzak hitz korapilatsuak sortzen ditu, ulergaitzak askorentzat. **Jose Morales**

Bere-berekoak ditu Touretteren sindromedunaren **gogamen** urduri eta zorrotzak. **Xabier Olarra**

Gero, **gogamen** itzalza berpiztu zitzaion, eta odolberriturik esan zion gerta zitekeela bera, Vashka Kashirin, bere ziegan zorrotza, izenik ere ez zuten torturak nozitzea, [...]. **Jose Morales**

Uste osoa, beraz, ezin da limurtzetik ezberdindu subjektiboki, baldin eta subjektuak ustea begi-bistan badu, bere **gogamen** propioaren agerpena baino ez den aldetik. **Ibon Uribarri**

## 3 (hitz elkartuetan)

Autismoaren ezaugarri nagusiztat "bakardadea" azpimarratzen zuten biek, **gogamen** -bakardadea; horregatik deitu zioten, hain zuzen, autismo. **Xabier Olarra**

Azkenean, kolorearen oroimena ere galdua zuela zirudien; beraz, kolorea ez zen gehiago haren **gogamen** -ezagupenaren eta haren gogamenaren osagai. **Xabier Olarra**

**Gogamen** -zabaltasunaren eta adorearen sentipenak. **Xabier Olarra**

Baina badira, kontzeptualtasunetik at, beste osasun- eta **gogamen** -forma batzuk ere. **Xabier Olarra**

· Euskal **gogamenaz** aritzerakoan burura datorkigun lehenengo galdera, zaharra bezain oinarrizkoa da: zer da euskal pentsamendua? **Askoren artean**

Oso bestelako ekintza modu batean ari zitzaizkiola lanean garun- **gogamenak**. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**a priori gogamenean** (3); **bere gogamenean** (3); **dute gogamenaren** (3); **eta gogamen** (5); **eta gogamena** (4); **eta gogamenaren** (5); **gogamen eta** (6); **gogamena eta** (3); **gogamenaren eta** (3); **gogamenaren gaitasun** (3); **gure gogamenarekiko** (3); **gure gogamenaren** (8); **priori gogamenean** (3)

## goganbehar iz susmoa; zerbait arriskutsu edo kaltegarri gerta daitekeelako susmoak eragiten duen beldurrezko jarrera.

Andrei Ivanovitz beldurrak egon zen aurreneko egunetan, uste baitzuen burujabetasuna galduko zuela, gonbidatuak nola edo hala lotuko zuela, ohiko bizimodua eragotziko ziola edonolako aldaketak ekarri, eta goitik behera irauliko ziola bere egunerokotasun hain ondo antolatua, baina funsgabeak gertatu ziren **goganbehar** haiek guztiak.

Jose Morales

Ibiltariaren edo baserritarren keinu jator hura nire irudimenaren iruzurra baino ez zelako **goganbehar** absurdua izaten nuen, ibiltariak edo baserritarrak benetan diosalik egin ez zidalako susmo deserosoa, ez hark nire aurka ezer zuelako, ikusi ere egin ez ninduelako baizik, haren mundutik eta haren pertzepzioetik at nengoelako. **Juan Luis Zabala**

Izan zitekeen, bai, baina ene barrenak maitasunezko gutunketa zela esaten zidan, eta **goganbehar** horrek iltze baten antzera zulatzen zizkidan bihotz-buruak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Morala oso aparte ez ote dabilen: **goganbehar** horrexek harrapatu nau. **Iñaki Seguro**

Nire eta haien arteko begirada-trukatze bakoitzarekin, tximistatxo bat horra, txiki-txiki baina atzemeteko modukoa, mesfidantzaz eta **goganbeharrez** oratua. **Juan Garzia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **goganbehar** (3)

## **goganbehartsu** izond goganbehartzeko joera duena, erraz goganbehartzen dena. ik irudikor.

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxeokandre **goganbehartsua**, gazte festazale txoriburua. **Jose Morales**

Larri, begiratu iheskorrekin, ibilera **goganbehartsuarekin** dabilen bat ikusten duenean, haren atzetik doa. **Gotzon Garate**

Goiztiriaren argitasun **goganbehartsua** sartu zen lurrezko patioetik. **Juan Garzia**

Eta **goganbehartsu** nintzen, bada, oker ari ote nintzen. **Joan Mari Irigoien**

## **goganbehartu**, goganbehar(tu), goganbehartzen 1 da/du ad susmatu; goganbeharra sumatu.

Nire arrisku sena lo zegoen, nonbait, **goganbehartu** beharreen harrotu bainintzen: "azkenik, nonbait ohardua erredakzioan duten pagotkaz". **Aingeru Epaltza**

**Goganbehartuta** nengoan, berriak entzunda, orduan bezain sinesgaitz agertuko ez ote zen Potzolo. **Aingeru Epaltza**

Ordutik, tradizioari buruzko ikuspegi etxezuloegiek bezainbat **goganbehartzen** naute kanpoederregiek, tradizioa ez baita oinordekotzan ematen zaigun zerbait, lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. **Anjel Lertxundi**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Nire xalotasun **goganbehartuari** zor zaizkion desenkusak eta ordainbideak egungo egunean nik hartzen ditudala. **Jon Muñoz**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**goganbeharturik** eta (3)

## **gogape** iz gogoa, gogamena.

Begiak itsuturik datzanaren **gogapean** pizten diren irudi eroen makulua. **Iñaki Seguro**

Ixildu bai, baina hor nonbait beti gelditzen da, **gogapean** bezala, boz bat dioena: [...]. **Iñaki Seguro**

Nola -pentsatzen duzu **gogapetik**- batere ez baino hobe den betiere xeoxe, ba hortxe segitzen duzu goma-puska lehor bati koxk eta koxk. **Iñaki Seguro**

## **gogapen** iz pentsamendua, gogoeta.

Aditzea adimenarena bezala, **gogapenak** gogoarenak dira. **Jenaro Garate**

Bere aitaren gaineko **gogapenak**. **Juan Garzia**

Berak egitez eta **gogapenez** egindako bekatu guztiak. **Askoren artean**

Sendotu egin ohi dira **gogapen** bakoitzean, hitz bakoitzean eta ekintza bakoitzean, denik eta txikiena izanik ere duten langintza. **Joan Mari Lekuona**

Ez dago hizkuntzarik hori adieraz dezakeenik, **gogapen** guztien gainetik dagoenez, gizakien eta aingeruen adimendu guztiaren gainetik, zeruko eta lurreko sorkari guztiaren gainetik. **Joan Mari Lekuona**

## **gogara 1** adlag (norbaitek) atsegin edo gogoko duen erara.

Pianoforte pianoari hasieran eman zitzaion izena dela, klabea ez bezala **gogara** jo zitekeelako, nahi zenean piano, ahul alegia, eta nahi zenean forte. Eta arnasa hartu ere kamera geldian bezala egiten zuen, nahiz eta etenaldirik gabe, **gogara** nolabait esan. **Bernardo Atxaga**

Hari entzutea Beethovenen bederatzigarren sinfonia entzutea baino **gogarago** nuen nik. **Gotzon Garate**

### 2 (-en atzikiaren eskuinean)

Horrez gainera, neure **gogara** aztertzen ahal nuen halatan begitarte xarmant hura, malkoen lilura ahaltsuaz are ederragotua. **Jon Muñoz**

Etorri nigana beldurrik gabe nahi duzun guztietan eta alde egin nigandik askatasun osoz, zeure **gogara**. **Askoren artean**

Mutilaren oharkabea, bere **gogara** begietsi du Leirek. **Aingeru Epaltza**

Presondegian, nonbait, oso bere **gogara** sentitu zen, behingoz ongi eta bakean bere buruarekin. **Fernando Rey**

Sasi, lahar eta zakardietan basurdea bere **gogara** bizi da. **Gotzon Garate**

Bere lagunek taldeko buru hautatu zuten, gastuak bere **gogara** egin zitza. **Askoren artean**

Ingalaterran, alabek maiz hausten dute legea eta beren **gogara** ezkontzen dira, gurasoei aholku eskatu gabe. **Iñaki Iñurrieta**

Legegileak irainduaren **gogara** uzten baitzuen ordaina jasotzea edo ez jasotzea. **Iñaki Iñurrieta**

Nork bere egoitza alda dezake, norberaren **gogara**. **Andres Urrutia**

### 3 gogarako izlag

Joan diren gabonotan jendearen **gogarako** kolorea gorria izan da. **Gotzon Garate**

Sortaldeko Asian zakurkia oso **gogarakoa** dute. **Gotzon Garate**

### 4 gogara egon

Iduritu zitzaidan ezen osaba Joanikot **gogara** zegoela, eta aita ez hainbertze, nahiz eta desgogara ere ez zegoen. **Joan Mari Irigoien**

Eta presuna herabeti hura are bere **gogarago** egon zedin, nihaurk ere hura bezain durduzaturik nirudien. **Jon Muñoz**

Bere **gogarenik** zegoenean etorri zitzaion heriotza ate joka Erramuni, amets zuen herrixkara bizitzera joan berri zela. **Imanol Zurutuza**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

baino **gogarago** (4); **bere gogara** (35); **bere gogarenik** (3); **beren gogara** (17); **beren gogara ibiltzen** (3); **eta beren gogara** (3); **eta gogara** (4); **eta neure gogara** (3); **etsaien gogara** (3); **ezin gogarago** (9); **gogara erabil** (4); **gogara eta** (4); **gogara ibiltzen** (5); **gogara nengoan** (6); **gogara sentitzen** (3); **neure gogara** (17); **nire gogara** (3); **zeure gogara** (10)

## gogarazle izond gogarazten duena.

Neure burua aurkeztu, eta dantza **gogarazleari** ekin nion, baina hark tupustean esan zidan: [...]. **Juan Garzia**

## gogarte iz pentsatzea, zerbait gogoan erabiltzea edo hausnartzea.

Haren gaixotasunaren berri izan zuenean, otoitz egiten hasi zen haren alde; eta **gogarte** -otoitzean debozioz eskatzen zion Jainkoari gorputzeko osasuna bihur ziezaiola anai Jakobori, honen arimarentzat onena hori baldin bazen. **Askoren artean**

Bere **gogartearen** eta burutazioen menpean. **Ibon Uribarri**

Halako zerbait zuen Mikelek **gogartean**. **Unai Iturriaga**

## gogartetxe iz gogojardun etxea.

Loiolako **Gogartetxean** iraganen da aurtengo Gogoeta Astea, abuztuaren 29tik irailaren 2ra. **Herria**

## gogartu, gogar(tu), gogartzen du ad gogoan erabili, hausnartu.

Baina egiazko amodioak ez du halatan meditatzeraz eta **gogartzera** uzten: sentimenduen bidez geure pentsamenduetarik digu gogoa bertzeratzen. **Jon Muñoz**

## gogatsu ik gogotsu 2.

## gogatu, goga, gogatzten du ad norbaiten borondatea zerbait egitera etorri edo erakarri; norbaitek gogoko ez zuen iritzi bat onartzea lortu. ik **persuaditu**.

Oso erraza izan zen Dolores **gogatzea**. **Juan Garzia**

Populuaren beharren gainean hitzaspertu bat izatera heldu zèn apaiz batek bertan **gogatu** zuen monasterioko bizimoldean igurika zezan bere askapena. **Juan Garzia**

Historia bat, alegia, pertsuasio-indar nahikoa izango duena lankideak **gogatzeko**. **Juan Garzia**

Karmen geratu zen nirekin, gainerakoekin batera joateko ni **gogatu** nahian. **Inazio Mujika Iraola**

Nik ez nuela bera **gogatuko**, esan nion nik, baina ezta berak ere ni. **Inazio Mujika Iraola**

Jatorrizkoarekiko baliokidetasunaz, berriz, epai bezate jakintsu astitsuek: ni, irakurleak **gogatzearekin** konformatzen naiz. **Juan Garzia**

Bere kastiitatea frogabidean jartzearen, emakume burges bati erregutu zion bere alaba **gogatzeko** beraren ondoan biluzgorririk ohera zedin. **Juan Garzia**

Hori gauza "jakina" da, eta ez du merezi hemen luzamenduetan ibiltzea gardenak diren kontuekin, zeren hala izanik, baten batek gauza hauek beste gisa batera ikus balitza ere, ez baikintezke gai izango hitzaren poderioz, luzapenetan ibilita ere, kontrakoaz **gogatzeko**. **Pello Salaburu**

## gogatze iz norbaiten borondatea zerbait egitera etorri edo erakartzea; norbaitek gogoko ez zuen iritzi bat onartzea lortzea.

**Gogatze** hutsa baino zertxobait gehiago eskatu beharra zeukatela konturatu ziren, azkenean, matematikariak. **Jon Muñoz**

**Gogatzeak** ez du zalantza erabat balogabetzen. **Jon Muñoz**

## gogo (20.842 agerraldi, 287 liburu eta 4.563 artikulutan; ETCn 112.730 agerraldi) 1 iz giza buru-ahalmenen egoitza edo iturburutzat hartzen den zera. ik **arima**.

Munduaren deskripzio serio batek (zientziarenak, esaterako) ez luke **gogoa** munduaren osagaien artean onartu behar. **Askoren artean**

Beroa energia zinetikoarekin identifikatzen den moduan, **gogoa** garunaren egoera fisiko-kimikoekin identifikatu behar da. **Askoren artean**

Horiek horrela, **gogoa** oinarri fisikoetan bakarrik gauzatzen dela aitortu arren, badago ezberdintasun bat **gogoa** eta burmuinaren artean: **gogoaren** deskribapena ez da burmuinaren deskribapena eta, adibidez, min izatea ez da soilki egoera neuronal jakin batean egotea. **Askoren artean**

Argi dago **gogoa** ez dagoela gorputzaren "barruan", itsasontzian kapitaina dagoen eran, **gogoak** ez baitu ez lekurik, ez formarik, ez tamainarik. **Askoren artean**

Eta **gogoak** bezala, irudimenak ere ez du oztoporik. **Berria - Kultura**

Zerura nindoan berriz, **gogo** nahiz gorputz. **Aingeru Epaltza**

Gorputza motel eta **gogoa** auzoan. **Aingeru Epaltza**

- " **Gogoak** bizi gaitu" ala "nor bere zoroak bizi du". **Iñaki Iñurrieta**

Eta nortasun bat, beren historia edo mitoak, beren izpiritu edo **gogoa** (Volksgeist), askatasun egarria, eskubide kolektiboak, autodeterminazioa... **Iñaki Segurola**

Eskualde eta inguru berean **gogo** bakoitzak guttiz gauza ezberdinak pentsatzen dituela. **Xabier Amuriza**

Zerura nindoan berriz, **gogo** nahiz gorputz. **Aingeru Epaltza**

**Gogoa** munduko gauzetatik erabat askatua eta aldendua zeukanez. **Askoren artean**

Sormena Gogolentzat obsesioa izan zen bere bizitza literarioan; eta obsesio horrek **gogoa** jan zion pittinka. **Jose Morales**

**Gogoa** erabat hartua zidan, sorgindua ninduen. **Josu Zabaleta**

Gorputza indarge, **gogoa** etsimenak gorturik. **Josu Zabaleta**

Manilov, **gogoa** zeharo nahasirik eta gorri-gorri jarririk, baiezko keinuak egiten hasi zen buruaz. **Jose Morales**

Holako garaipen ttipiak biziki premiatsuak dira bakartasunean irauteko, **gogoa** erne gordetzeko eta burua xut atxikitzeko. **Filipe Bidart**

Hara-hona ibiltzen gara, sudurra jasorik eta **gogoa** erne. **Josu Zabaleta**

**Gogoa** tabakotik barreiatu nahirik, egun berriarekin etorkizun ziren nekeen neurria hartzeari ekin nion, sukaldeko kadiran jarria. **Aingeru Epaltza**

Kontua da pentsamendu horiek hartuta nuela **gogoa**. **Ramon Saizarboritza**

Niri **gogoa** Gasteizera, Dabidengana joan zait. **Patxi Zubizarreta**

Hala ere, igarri-igarrian dago Rakelek **gogoa** beste nonbait duela. **Patxi Zubizarreta**

Noraren **gogoa** guttiz urrundua zegoen, ordea, Van Eystar senar-emazteen kezka, neke eta trenpuetatik. **Anjel Lertxundi**

Lehen tomo hori lurrikara baten antzekoa izan zen, bortizki inarrosi zuen errusiarren **gogoa**. **Jose Morales**

Estasiak begietan eztanda egin eta gozamen gardenezko olatuek zeharkatu zuten bere **gogoaren** zola. **Anton Garikano**

Mugimenduaren hasiera bihotzean sortzen dela eta **gogoaren** nahimenetik datorrela lehenik, handik zabaltzen dela gorputz osoan eta lohadarretan zehar. **Xabier Amuriza**

Eta barru begiaz bere **gogoaren** parte ilunean amamak herrira esnea saltzeko erabiltzen zuen karroa baserrira itzultzen ikusi zuen. **Joseba Sarrionandia**

**Gogoaren** eredu konputazionala. **Askoren artean**  
Bazirudien hango proportzio ezak kolokan jartzen zuela bere **gogoko** harmonia. ik gogoko. **Anton Garikano**

## 2 (izenondoekin)

Horrek areago sumintzen du abiatu ezinik dagoen bidaiari dohakabearen **gogo** haserrea. **Jose Morales**

Nire **gogo** elbarrituaren azpi-direktorioren batean. **Aingeru Epaltza**

Bazeuden hamar urteko aristokratat, **gogo** makal, begi urdin eta begirada galdukoak. **Xabier Olarra**

Izan ere, **gogo** biziko jendeak, bere soilean bakartzera egiten baitu, eta **gogo** ahul eta zurikoak, jende oldearen zurrunbiloan bere burua babestera. **Patziku Perurena**

Heriotzaren hurbiltasuna sumatzen duenaren **gogo** eroria. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

**Gogo** edo adimen kolektibo baten adierazpen masibo eta homogeen baten azpitik. **Xabier Arregi**

Euskal **gogo** betiko eta berezkoaren arabera **Iñaki Seguro**

## 3 (desira, nahi edo asmoen egoitza edo iturburu gisa)

Nolako kemena eta **gogoa** behar den zuk bezala atsegin guztiak gozatzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Beltzarana zenez gero, beraren **gogo** guztia zuri batekin ezkontzea zen. **Gotzon Garate**

Hiltzeko **gogo** sor bat. **Iñaki Seguro**

Ez **gogo**, ez gura, ez gale, ez egarri eta ez gose den diru-gosea. **Iñaki Seguro**

Biziaren izerdia eta ongari bakarra **gogoa** da, bizitzeko gogoa. **Iñaki Seguro**

Handik lekutzeko gero eta **gogo** handiagoa nuen. **Aingeru Epaltza**

Jainkoen **gogo** ezkutuaren zantzu bila. **Xabier Amuriza**

**Gogoak** indarrekin batera ihes egiten dio eta bakarrik uzten du "ez nago ezertarako, ez nago inorentzat" pentsamenduz. **Sonia Gonzalez**

**Gogoak** estropezu egiten du zurrunbiloan, eta obsesioan erortzen da. **Bernardo Atxaga**

Edo **gogorik** eza. **Lourdes Oñederra**

Denboraren buruan bakartasunean bizi dena ez da gehiago gai harremanetan jartzeko beste norbaitekin, ez da gai, ez du **gogorik** ere, eta arrunt uzkur bilakatzen da. **Filipe Bidart**

Aldu eta telebistaren aurrean sofán eserita egon besterik egiteko **gogorik** gabe. **Juan Kruz Igerabide**

-Fortuna Major -erantzun zion Harry **gogorik** gabe. **Iñaki Mendiguren**

**Gogorik** ez dagoenean hartu egin behar izaten da, txikitan erakutsi zigutenez. **Iñaki Seguro**

Ezta **gogorik** ere. **Jesus Mari Mendizabal**

**Gogorik** gabeko barre ergel bat ezpainetatik zintzilik dutela. **Iñaki Seguro**

## 4 (-tzeko, -rako atzizkiekin)

Harekin hitz egiteko **gogo** ero bat sartu zitzaidan. **Josu Zabaleta**

Kotxearen atzealdeko kokara igotzeko **gogo** bizia erakusten zuela ikusirik. **Jose Morales**

**-Gogo** handia nuen zu ezagutzeko. **Alberto Ladron Arana**

Arriskatu... ondo atera zaien bakarrak hitz egiten dute arriskuaren alde, gainontzekoei berriro probatzeko **gogo** gutxi gelditzen zaie! **Pako Aristi**

Izorratzeko **gogo** hutsa, nire aldetik. **Aingeru Epaltza**

Lan berrian hasteko **gogoa** du, zehatz nolakoa izango den ez dakien arren. **Lourdes Oñederra**

Barre egiteko **gogoa** nuen, eta negar egiteko beharra. **Josu Zabaleta**

Nik uste liburu idazteko **gogoa** aspalditik zeukala -esan zidan Mary Anne-, Ameriketara etorri zenetik, gutxienez. **Bernardo Atxaga**

Tragu bat hartzeko krixton **gogoa** zaukaat. **Pablo Sastre**

Une batez beste ezertaz arduratu gabe jostatzeko sekulako **gogoa** duen neska bat. **Josu Zabaleta**

Gero gela begiratzeko **gogoa** etorri zitzaidan, eta alboka etzan nintzen. **Josu Zabaleta**

Gauzak behar bezala txukun eta zehatz azaltzeko **gogoa** ere kendu zion. **Ramon Saizarbitoria**

Hura guztia norbaiti adierazteko **gogoa** sentitu zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Baina hara joateko **gogoa** uxatu dit itsasontzietarako zegoen ilara luzeak. **Patxi Zubizarreta**

Haur bati, deus galdetzeko **gogoa** egin baino lehen, esplikazio mordo bat eman ohi zaio. **Iñaki Seguro**

Kanturako **gogoa** galdu eta letra hilari ederretsitako belaualdientzat. **Iñaki Seguro**

Zuk hala uste baduzu ere, ez ditut erosi nahi haien premia dudalako, horretarako **gogoa** dudalako baizik. **Jose Morales**

Gauza berriak asmatzeko **gogoak** akuilatzen dik mundua, gizona, bestela zerk? **Anjel Lertxundi**

Algaraka hasteko **gogoak** hartu nau, hala egingo nuen zuzendaria mintzeko beldurrik izan ez banu. **Koldo Izagirre**

Ezertarako **gogorik** gabe irten ala etxean geratu ezin erabakirik. **Josu Zabaleta**

Ezertarako **gogorik** eta deusen pozik ez dagoenean. **Iñaki Seguro**

Ez nuen errietarako **gogorik**. **Aingeru Epaltza**

Beroak, hala aitortu zuten guztiak, lanerako **gogorik** gabe uzten omen zituen. **Bernardo Atxaga**

Ez duzu edateko **gogorik**. **Lourdes Oñederra**

Ez nuen jateko **gogorik** batere. **Txillardegi**

Nik, ordea, batere **gogorik** ez hartaz hitz egiteko. **Joxe Austin Arrieta**

Baina ez nuen batere horretarako **gogorik**. **Janbattitt Dirassar**

Eta gainera ez nuen inolako **gogorik** alde egiteko. **Joxan Elozegi**

Hantxetan, bidea hain erraza izanez, erdi lasterka abiatzeko **gogoa** hartzen nau, baina zuhurtzia nagusi zait! **Piarres Aintziart**

Adelari buruzko zurrumuru gaizto gehiagorik entzuteko **gogorik** ez neukalako. **Juan Kruz Igerabide**

Ez, ez zeukala kartetan egiteko **gogorik**, kafe bat. **Koldo Izagirre**

Ez zeukala musika entzuteko **gogorik** ere. **Bernardo Atxaga**

## 5 (oroimenaren egoitza edo iturburu gisa)

Gorde dezazuela **gogoan** horretaz gomendatu genizuena. **Askoren artean**

**Gogoan** ongi iltzatuta geratuak zitzaizkion hitz tolesdurarik gabeak. **Imanol Zurutuza**

Eta nik ere **gogoan** pasatzen ditut neure arbasoak. **Iñaki Seguro**

Nik betaurreko lodi-handiek maskaratu eta liburu bat [...] besapean zeramala atxikiko dut beti **gogoan**. **Aingeru Epaltza**

Bazen eleberrri mardul haren hasiera aldean esaldi bat, berari betiko **gogoan** atxikia geratu zitzaiona. **Imanol Zurutuza**

Den-denek ere **gogoan** ekarritakoa eraman zuten itzulbidean: ahozkotasanak ez zuela literaturarekin zerikusirik. **Bernardo Atxaga**

Galdera bat berritu zitzaidan **gogoan**: "Zergatik hil du bere burua?". **Bernardo Atxaga**

Une horretan gauza batek jo ninduen **gogoan**. **Josu Zabaleta**

Isildu egin da Jose Mari, bere buruaz beste egin zuenarena **gogoan**. **Edorta Jimenez**

Munduko urre guztiaren truke ere ez zirela hara hurbilduko, pasatu zituzten miseria eta neke ikaragarriak **gogoan**. **Ramon Saizarbitoria**

Egun osoa ene haurrak **gogoan** iragan dut. **Piarres Aintziart**



Eta orain, horiek hola **gogoan** denbora pasa, kilometro bat bederen egin dut! [Piarres Aintziart](#)

Beti Maddalen **gogoan** . [Janbattiti Dirassar](#)

Txomini bere amatxi heldu zaió **gogora**, Jackie Graxiz mintzo delarik. ik beherago 17. [Eneko Bidegain](#)

Nola atera, orduan, **gogotik** kanpoko ustezko mundura? ik beherago 18. [Askoren artean](#)

**Gogotik** atzendua nuen aspaldiko gertaera hori. [Josu Zabaleta](#)

Eta aintzina ibilki ere, **gogoz** eta bihotzez beti gazte... ik gogoz. [Herria](#)

Jatorriz, **gogoz** eta xedez nor bere ukulukoak izan ginen beti. [Aingeru Epaltza](#)

Zorionekoak **gogoz** behartsu direnak. [Joan Mari Lekuona](#)

Hitzez nahiz **gogoz** otoitz egiteko edozein modu. [Patxi Altuna](#)

Ahozko nahiz **gogozko** otoitzez. [Patxi Altuna](#)

## 6 (gogo onez eta kidekoetan)

Ximurra ez zen **gogo** onez hartaratu. [Aingeru Epaltza](#)

Beste anaiek **gogo** onez hartu zuten aitak proposatu ziena. [Askoren artean](#)

Eta egin bezate hori bihotz eta **gogo** garbiz. [Askoren artean](#)

Lehen ministroak, orduan, Estatu Batuei gerra deklaratzeko proposatzen du, eta **gogo** batez onartzen da, bozkarío, proposamena. [Juan Garzia](#)

Goibel zihoazen Jainkoaren aginduen bidean, eta beren betebeharrak **gogo** txarrez egiten zituzten. [Askoren artean](#)

Errespetu santu batek hartuko zaitu, eta erranen duzu **gogo** beroz: "Horra nire bihotzaren araberako gizona." ik gogobero. [Jon Muñoz](#)

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joga egiteak nire **gogo**-gorputzei ekarriko zizkien onurez. [Aingeru Epaltza](#)

Ez dugu beraz zeren lotsa, gizakiaren **gogo**-bihotzetan bizirik baitirau oraino zuzentasun goseak. [Piarres Xarriton](#)

Ettxera itzuliko da **gogo**-bihotza baketurik. [Piarres Aintziart](#)

Hortik jakin dezakezu, beraz, berririo esanda, **gogo**-arimen izaera erabat hazi niminoz osatua dela, ez baitie, alde egitean, gorputzei batere pisurik kentzen. [Xabier Amuriza](#)

Beste **gogo**-egoerak nire esperientziatik at daude. [Askoren artean](#)

Hala ere, itxurazko **gogo**-bake hark ez zidan luzaro iraun. [Alberto Ladrón Arana](#)

Sultanaren aurrean izan zuen **gogo**-sendotasuna, hitz egiteko barne indarra. [Askoren artean](#)

Bere burua zerbaiten erruduntzat jotzeko **gogo**-zabaltasunik gabe. [Jose Morales](#)

Begi haiek atzera eragiten zioten eta desafio egiten zioten: haietan ez zegoen pasiorik, ez zegoen **gogo**-bahitzerik. [Irene Aldasoro](#)

Gai honekiko idazlearen **gogo**-uzkurtasuna. [Iñaki Mendiguren](#)

**Gogo** bulta batek harrapatu ninduen orduan tupustean. [Joxan Elosegí](#)

Frantziskoren buruargitasuna eta **gogo**-iraupena. [Askoren artean](#)

Alabaren barkamen-hitz otzanek ere ez zuten **gogo**-abaildura hartatik egunetan aterako. [Anjel Lertxundi](#)

Gainez egindako osasun eta bizi-indar batek ekarritako **gogo**-ixuri bat. [Iñaki Segurola](#)

**Gogo**-eskuila batek ezabatzen zituen zikinkeriaaren azken arrastoak. [Joxan Elosegí](#)

Haatik, ez natzaizu **gogo**-ilun jarriko. [Joan Mari Irigoien](#)

Etsia harturik, **gogo**-erorita eta gaixorik. [Jose Morales](#)

Segur nongoen ezen napolitarraren hitzek **gogo**-hozturik baizik ez zezaketela utz. [Joan Mari Irigoien](#)

Ostera kalean, **gogo**-nahasirik, etxerantz hartu zuen. [Anjel Lertxundi](#)

Denbora luzez egon zen irakurtzen, betazalik jaso gabe eta orriari orri, Hester Prynne haundunaren oinaze isilekin **gogo**-hunkiturik. [Anjel Lertxundi](#)

Ez zuen bizitzeko **gogo**-izpirik ere. [Jose Morales](#)

Zer ardura din hiril-esan zuen aitak, gai hartaz hitz egiteko **gogo** falta nabarmenez. [Anjel Lertxundi](#)

Agentziara etorri aitzin igarri nion **gogo** eza. [Aingeru Epaltza](#)

Orainaldia bizitzeko ezinbesteko jarreratzat jotzen zuen ezertarako **gogo**-ez hura: ez zitzaion bere baitan bildu, gorde eta zara-zara desariltzea besterik gelditzen. [Anjel Lertxundi](#)

Eginbide hori beterik, ene **gogo**-irrikak berririo dira Frantziarantz aihertzen, eta hartakotz berorren baimen eta grazia dut apalki eskatzen. [Juan Garzia](#)

## 8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenondo balioaz)

Aurrez inoiz saiatu gabeko abentura **gogo**-pizgarria zen hura. [Juan Garzia](#)

Jarrera **gogo**-biluzi horrek haustura asko sor zezake literatur lantegiko kide bat baino gehiagoren psikologian. [Anjel Lertxundi](#)

Melodia bihotz-altxagarriak bilatzeko, beharbada -nork daki?- baita ideia **gogo**-altxagarriak ere. [Oskar Arana](#)

Ingurua **gogo**-pizgarria zen, eta txandaka lapur istorioak kontatzea erabaki zuten. hain ezaguna, **gogo**-asegarria eta sinplista den diskurtso hori. [Xabier Olarra](#)

Guztiz **gogo**-mingarri zaidak atzematea nola morrosko ileordedun nabarmen batek jo eta txiki-txiki egina uzten duen pasarte zirrargarri bat, belarriak zartatuz beheko mailakoei. [Juan Garzia](#)

Leihotik begiratze hutsa ez zaió **gogo**-betegarri, begiak Goizueta aldera joaten baitzaizkio. [Anjel Lertxundi](#)

Erantzunak asko dira: **gogo** betekorik, ordea, ez. [Anjel Lertxundi](#)

Beste nonbaitetik zetorkien **gogo**-ernegarria. [Iñaki Iñurrieta](#)

## 9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oi, giza **gogo** errukarriak; oi, bihotz itsuak! [Xabier Amuriza](#)

Esan dezagun orduan gogo-orde, gogotzako edo gezur-**gogo** ren bat asmatu eta bizi ez, baina bixi, esistitu edo, orain itsuki diotenez, biziraun egiten dela. [Iñaki Segurola](#)

"Heziketa sexualak" duen helburua ezkontza egunera arte sexu-**gogo** oro itotzea da. [Juan Martin Elempuru / Bego Montorio](#)

Herri-**gogoaren** itotzailea zen despotismoa. [Juan Martin Elempuru](#)

"Aitak" Batasuna esan nahi du, zeinetan antzekotasun-**gogoa** baretzen baita eta itzaltzen izateko grina oro. [Joan Mari Lekuona](#)

Ahotsean iseka-**gogoa** igartzen zitzaioela, esan zuen: [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

Garbaitzen ikasle garaiko gorabeheren narrazioak gaztetako idazle-**gogoa** berritua diolako. [Anjel Lertxundi](#)

Orobat, barne-berotasunak eta adiskidetasun-**gogoak** gorantz bultzatzen dute. [Joan Mari Lekuona](#)

Aitak amari eta niri zigun maitasun isila [...] amaren bizi-**gogoa**, Albertoren bihotza eta gaztetasuna. [Juan Kruz Igerabide](#)

Horri Jan-**gogoa** deitzen zaió, eta hilkortasunaren hondamen eta ustelkeriari gailentzen zaió. [Xabier Olarra](#)

Negar **gogoa** neukan, amini bat galerna zeharkatuz, portura akitua iristen den marinelaren pare. [Itxaro Borda](#)

## 10 bere gogora

Nork bere **gogora** sailka ditzake koloreak. ik gogara 1. [Bernardo Atxaga](#)

Gopalek, baina, ez zuen bere **gogorako** neskatxarik aurkitu. ik gogara 3. [Gotzon Garate](#)

## 11 gogotik ik gogotik; ik beherago 27.

## 12 gogo aldarte



**Gogo** -aldarterik gabe, dibaldarrik gabe. Joxan Elozegi

La città è un stato d'animo (hira **gogo** -aldarte bat da) dio Mario Soldati. Anjel Lertxundi

Izan ere, idazleak adierazi zuenez, umore ona da gizartearen apain jantzi daitekeen trajerik egokiena eta **gogo-aldartearen** egoera osasuntsu bat bezala har genezake.

Berria - Euskal Herria

Egoera hartan, idazteko **gogo aldarterik** hobereanean nengoelarik ere, ez zitzaidan hitzik etortzen. Ramon Saizarbitoria

**Gogo-egoera** eta burmuin-egoera partikularren arteko identitatea onartzen badu ere, bien arteko identitate orokorra ez du onartzen. Askoren artean

## 12a gogo-bahiturik/bahituta adlag

D'Arcy jauna -esan zion Mary Janek-, oso gaizki egin duzu horrela eteten, denok **gogo-bahiturik** geundelarik zuri entzuten. Irene Aldasoro

Ez du **gogo bahituta** geratzerik berak sorturiko soinuen xarma gozoaren altoan, ez baitu horrelakorik sortzen. Jose Morales

## 12b gogo bahitze ik estasi.

Begi haiek atzera eragiten zioten eta desafio egiten zioten: haietan ez zegoen pasiorik, ez zegoen **gogo-bahitzerik**. Irene Aldasoro

## 13 gogo egoera (orobat gogoegoera g.er.)

Besteon **gogo** -egoerak nire esperientziatik at daude. Askoren artean

Bestalde, Franz Brentano-k [...] intenzionalitatea **gogoegoeren** berezko ezaugarria dela erakutsi zuen. Askoren artean

Mundua **gogo-egoeren** multzoa da. Xabier Olarra

Zail egiten zait haren **gogo-egoerari** antz ematen, ematen baitu gogobetetasun itun baten eta bere buruaren ohartasun artega eta ezeroso baten artean dabilela. Oskar Arana

Bestelako **gogo egoera** batean egonez gero izango nuen kemenik haietako leize batean murgilduz nire miseriak behingoa bukarazteko; baina koldarretan koldarrena nintzen ni une hartan. Koro Navarro

## 14 gogo gabe (orobat gogogabe) adlag gogorik gabe. ik gogogabe.

**Gogo gabe** eta bihotz nahigabetuz etzaten zela eta heriotzari begira biziari bertan jareiten ziola. Xabier Amuriza

Zeren adimen eta **gogo gabe**, arimaren ezin zatik ezin baitu unetxo batez ere lohadarretan egon. Xabier Amuriza

-Biba Bakunin, bai... -esan nuen **gogo gabe**. Inazio Mujika Iraola

-Lehenago ahaztuko nuke zerua gure gainean dagoela eta lurra gure azpian -erantzun zion mutilak **gogo gabe** bezala. Felipe Juaristi

Etexera iritsi nintzenetik, **gogogabe** bezala aritu zitzaidan Sara. Joan Mari Irigoien

## 14b gogo gaiztoz

Harry jabetu zen zein atakatan zegoen Bette, eta bere baitatik konponbiderik ezin eskaini zuenez gero, **gogo gaiztoz** eman zion baiezkua dibortzioari, espetxetik ateratakoan haren aita hilko zuela zin eginez une oro. Oskar Arana

Florent haren uste berean zegoen, lanean ez zela **gogo gaiztoz** jardun behar, alegia. Karlos Zabala

Ez zen inolaz ere **gogo gaiztoz** musukatuko zukeen emakume horietakoa. Ibon Uribarri

Emakumea nagiki eta bekozko ilunez altxatu zen, **gogo gaiztoz** begiratu zion bere begi margotuekin, eta oso zakar jiratu zuen berarenganantz distirarik gabe-ko aurpegi zurbila. Jose Morales

-Igo beharko zenuke ikustera -gehitu nuen, **gogo gaiztoz**. Monika Etxebarria

## 15 gogo izan (beste aditz baten osagarri gisa)

Neska nahieran ikuskatu **gogo** nuen, anaiaren altzora itzultzen zelarik. Aingeru Epaltza

Eta honekin bururatzen dut Eskolio honetan egin **gogo** nuena. Piarres Xarriton

Urtetan erran **gogo** nizkion guztiak etorri baitzitzaizkidan oldarka gogora. Aingeru Epaltza

Ordain eskasa, idatzi **gogo** nuen erreportaia luze eta txundigarriaren aldean. Aingeru Epaltza

Gertaerak geldo, nag, zimel, egokitu egiten dira eman **gogo** diedan ordena zorrotzera. Monika Etxebarria

Ez bainuen nehorri mintzatu **gogo**. Jon Muñoz

-Nik ez diot arima deabruari saldu **gogo**. Elena Touyarou

-Haiei begira pixkatean egotea aski, zoriotsu izateko **gogo** denak alde egiteko lotsa pixkat duen edonori. Iñaki Segurola

-Gauzak ez ziren berak **gogo** zuen bezala joan. Gotzon Garate

## 16 gogo jardun<sup>1</sup> (orobat gogojardun) pl otoitz eta penitentzia egun batzuek osatzen duten erlijio praktika, apaiz baten zuzendaritzapean eta taldean egiten dena.

Esperientzia guztiz berri bat ere ezagutu genuen Eskolapioetako lehen ikasturte hartan: euskara txukunean **gogo** -jardunak deritzenak, ejertzizio espiritualak alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Aditzea dut, garai bateko **gogo** -jardunak zorrotzak, estuak, ikaragarriak izaten zirela, barru-barruraino beldurra sartu eta ikara batean edukitzeko pentsatuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hil honen lehenengoetan **Gogo** Jardunak izan nituen. Edorta Jimenez

Izan ere, adin batetik gorako gutako nork ez ditu noizbait **gogojardunak** egin? Patxi Altuna

Baldin **gogojardunak** ematen ari denak hartzen ari dena ikusten badu goibeldua eta zirikatu, ez bedi izan honekin zakar eta gozakaitz, baizik samur eta bigun. Patxi Altuna

**Gogojardun** -egileari adinak, gorputzaldiak eta eguraldiak laguntzen dioten neurrian, egingo ditu egunero bost jardun edo gutxiago. Patxi Altuna

Hiru arrazoigatik izaten ditugu batik bat lehorraldiak: lehenengoa da epelak, alferreak edo zabarrak garelako geure **gogojardunetan**, eta horrela geure hutsengatik alde egiten du gugandik espirituko pozaldiak. Patxi Altuna

- **Gogojardunak** liburua zer den. Patxi Altuna

Badakizu zer irakurri dudan? Loiolaren **Gogo** -jardunak. Monika Etxebarria

## 17 gogo jardun<sup>2</sup> (orobat gogojardun) gogoaren jarduna.

Baina bere ariketa intelektual eta **gogo** jardun guztiak alferrekoak izan dira. Jon Alonso

Bere gogoeta, gogo eta gogorapenezko **gogojarduna** da. Jenaro Garate

Hausterren **gogo-jardun** bereziak. Iñaki Iñurrieta

## 18 -tzeko gogoak egon

Giltzadunak zelako muturra jarria duen ikusteko **gogoak** nago, baina abokatuaren behakoari eutsi behar diot. Koldo Izagirre

Ni **gogoak** amorratzen nago orratz eta orrazi ibiltzea maite duen mediku hori neure aurrean edukitzeko. Koldo Izagirre

## 19 gogoak eman nahi izan.

Hartzazu eta edan **gogoak** ematen dizun guztia. Askoren artean

Hitzetik hortzera botatzen ditu, etorri ahala, **gogoak** ematen dizkion guztiak. Iñaki Iñurrieta

Orduan, **gogoak** ematen dien guztia egitea zilegi baitzaie, galdukeria mota orotan murgildurik, gaiztakeriari ematen diote gogo biziz beren burua. Eta atzo bertan aske nindunan, **gogoak** ematen zidana egin nezakenan. Askoren artean

**Gogoak** eman, eta han doa; unea iritsirik, alferrik dira azti-igarpenak eta zori-asturuak. Juan Garzia

## 20 gogoan eduki

Zer esan zion, hori ez dauka **gogoan**. Edorta Jimenez

Orduetik **gogoan** neukan bulegen baina gaitziz dotoreagoa zen oraino, aferak ongi zihozkien seinale. Xabier Olarra  
Etxerakoan, Grateful Deaden CDak jarri nituen autoan, kontzertuko giroa eta oroitzapena ahalik eta luzaroen **gogoan** eduki zitzen. Xabier Olarra  
Sortetxea, Heraitze, herria, Baigura, jendeak eta gauzak, denak hemen dauzkat **gogoan**, Sahagúneko bakardadean ene gana etorriak. Piarres Aintziart

## 21 gogoan erabili

**Gogoan** darabil, interes handirik gabe, aurki hil behar dudala. Juan Garzia  
**Gogoan** nerabilen asmoa xumea zen. Juan Garzia  
Ez dakit zer generabilen **gogoan** egun haietan. Koro Navarro  
Hartara, autoz nindoan, neure urdail barkaria zer estatuzarretan zigortu behar nuen **gogoan** nerabilela. Aingeru Epaltza  
Osaba Juanek, beraz, gertaera hura zerabilen **gogoan**. Bernardo Atxaga  
Atalasea agertu emakumeak iduritzenago zuen etxeakoandre lanpetua, nik **gogoan** erabili bezalako sorgin, igarle edo belagilea baino. Aingeru Epaltza  
Hori nerabilen **gogoan** ur ertzean nenbilela. Josu Zabaleta

## 22 gogoan hartu gogoratu; kontuan hartu.

Bai, ene seme, **har** itzazu **gogoan** nire irakaspenak eta ez itzazu inoiz ahaztu. Jose Antonio Mujika  
**Har** dezagun **gogoan**, bada, izenburuan dakarren baieztapena: [...]. Josu Zabaleta  
**Gogoan** hartu behar da, garai hartan bazirela kataroena bezalako heresiak. Askoren artean  
Karrika bilatu eta harainoko bidea **hartu** nuen **gogoan**. Alberto Ladrón Arana  
**-Gogoan** hartuko dut -agindu nion. Bernardo Atxaga  
Aumeric Picaud jaunagandik ere, irainak bakarrik hartu ditugu **gogoan**, baina, badira gauza gehiago haintzat hartzekoak. Patziku Perurena  
Beste predikarien sermoiak hitzez hitz **hartzin** ditut **gogoan**; Frantziskok jaulkitzen dituenek, ordea, ihes egiten didate. Askoren artean  
Oso **gogoan** hartu behar da, beraz, pertzepzioaren elementuak [...] ez direla inoiz bakanka gertatzen. Josu Zabaleta  
Eta aitaren aholkuak **gogoan** **hartu** izan balitu, irten ere ez zen egingo. Patxi Zubizarreta  
Narrazio mitikoak **hartzin** ditut **gogoan**, nire gizarteko jendearen bizitza esplikatzeko baitute. Bernardo Atxaga  
**Gogoan hartzin** hasten gara orduan zer pentsatuko zuten gurekin bertan egon izan balira. Joxan Elozegi  
Dendetako seinaleak ere **gogoan** **hartu** zituen, nahiz eta berarentzat letra ziriliko ulertezinak izan. Xabier Olarra

## 23 gogoan ibili

Lau urte lehenagoko harako Mertxe harekikoa zebilkidan **gogoan**. Aingeru Epaltza  
Miserable honi zortzi mila liberak zebilkidan **gogoan**. Matías Múgica  
Jakirik ezinbestean ibili ohi zitzaizkiola **gogoan** bueltaka halako pentsamendu, kezka eta galderak, gaixoei maizegi gertatu ohi zaienez. Imanol Zurutuza  
Ez dabilkit **gogoan** inolako gaixotasun larririk; pentsatu nahi dudana pentsatzeko nahikoa zait gripe batekin. Bernardo Atxaga

## 24 gogoan izan

**Gogoan** du nork, noiz, nola, zer esan zuen. Xabier Olarra  
**Gogoan** izan behar dugu hizkuntza eten gabe aldatzen dela. Lourdes Oñederra  
Garai horietatik lainoa baizik ez dudala **gogoan**. Aingeru Epaltza  
**Gogoan** genuen nola Virgil etengabe kexatu zen distira gehiegiaz, are egun nahiko hits eta zero estalikoetan. Xabier Olarra  
-Zu baino ez du **gogoan**, Dolores. Juan Garzia  
**Gogoan** duzu non diren? Xabier Olarra  
-**Gogoan** al duzu zer gertatu zen atzo zure etxean? Josu Zabaleta  
**Gogoan** du Teok, hori bai, giltzaren bila joan behar izan zuela, nork-eta berak. Edorta Jimenez  
Hemengo beste lagun batzuk ditu **gogoan**. Edorta Jimenez  
Oso **gogoan** zuen nola tumore bat aurkitu zioten buruan. Imanol Zurutuza  
Ondo **gogoan** ditut, besteren artean, Coelius Secundus Curio italiar noblearen De Amplitudine Beati Regni Dei, San Agustinen Jainkoaren hiria lan handia, eta Tertulianoren De Carne Christi. Koro Navarro  
"Dena edo ezer ez" **gogoan** zukeenaren irabazia "dena eta ezer ez" da. Iñaki Seguro  
Haren egoera eroria eta tamalgarría deitoratzen nuelarik, **gogoan** izaten nuen luzaroen maite izan ninduela. Koro Navarro  
**Gogoan** izatekoa, elkarte honek egin digun azken ekarpena. Patziku Perurena  
Mila aldiz **gogoan** izandakoa nuen **gogoan**. Fernando Rey

## 25 gogora ekarri

Irudi bat dakarkio larritasunak **gogora**, nondik ez dakiela: Hidra, bederatzir buruko herensugea. Imanol Zurutuza  
Esan ditudan azken hitzek Patxi ekarri didate **gogora**. Patxi Zubizarreta  
Zer ekartzen du **gogora** pasarte horrek? Patziku Perurena  
-Zer ekartzen dizu **gogora**? Xabier Olarra  
Denborarekin, joko hark, Amerika **gogora** ekartzearenak, ustekabeko norabidea hartu zuen don Pedrorentzat. Bernardo Atxaga  
Ekar dezagun **gogora**, labur bada ere, Bazinen tesia: [...]. Josu Zabaleta  
Ezin zuen **gogora** ekarri nolako itxura zuen. Lopez de Arana  
Amona ekarri nuen **gogora**, nik ezagutzen nuen emakumea. Jon Muñoz  
Joyceren Ulises-en hasiera ekarri nion **gogora** Monikari. Joxean Agirre  
Memoz oroitzeak, haren aurpegi mindua **gogora** ekartzeak, goibeldu egiten zuen. Fernando Rey  
Lehenengo partean zenbait egia ekartzen da **gogora**, sofrizten duten guztiei kontsolamendu bete eta eraginkorra ekar diezaikeena. Joan Mari Lekuona

## 26 gogora etorri/jin

**Gogora** datorkit orain Baudelairek bere koadernoetan idatzi zuena. Bernardo Atxaga  
Eñauten aurpegia datorkizu **gogora**. Sonia Gonzalez  
Guyanako itsasbazterrek zetozkion **gogora**, zeharkaldiko eguraldi ona. Karlos Zabala  
Zirkora joan ziren egun hura etorri zaio **gogora**. Jokin Muñoz  
Agirrek berak esandakoa etorri zitzaidan **gogora**. Edorta Jimenez  
Hautzaroko eta nerabazaroko oroitzapenak etorri zitzaizkidan trumilka **gogora** ondorengo egunetan. Juan Luis Zabala  
Ez espero zitzakeenak, ez lagunei kontatutako pasadizoekin lotuak, baizik eta halabeharrez bere **gogora** etorriak. Bernardo Atxaga  
Gizona ganoraz saiatzen zen eta nik, bitartean, **gogora** etortzen zitzaizkidan astakeria guztiak esaten nizkion. Juan Martin Elexpuru  
Orduan etorriko zaizkit **gogora** ene ametsaren erro sakon eta eztiak. Betti Zubiburuk errana jin zitzaion **gogora**: Zer dakite gutaz Parisen? Piarres Aintziart  
-Nik ez zaitut maite -izan zen **gogora** jin zitzaion erantzun bakarra. Elena Touyrou

## 27 gogotik kendu

Anaiaren azken hitzak... egunaz eta gauaz ez ditut **gogotik kentzen** ahal. Baina Xazamanek ezin baitzuen bere emaztearen azpikeria eta traizioa **gogotik kendu**, egunetik egunera zurbilago eta argalago zegoen. Daniel Landart  
Halere, emeki emeki maitatuko du hainbestearino non ez dezakeen **gogotik ken**. Herria

## 28 gogoz kontra ik gogoz 8.

## 29 gogoz kontrako ik gogoz 9.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

Mantelaren nire zailtasunak, zure imputasailen gainean arin-arin eraginez. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**  
Emakumearen aurpegi izerditsuari herabetasun bozkariotsua zerion, mazela latzen **gogortasunaren** leungarri. **Aingeru Epaltza**

Epaila zorrotz baten **gogortasuna**. **Juan Martin Elexpuru**

Auzitegi honen **gogortasuna**, edo ankerkeria, hobeto esanda, hain zen handia, non heriotza-zigorrera kondenatzen baitzen garizumako baraua hausten zuen edozein sajoniari. **Juan Martin Elexpuru**

Gobernuaren **gogortasunaz**. **Iñaki Iñurrieta**

Napoleon III.aren inperioa satirizatu zuen, kartzelaren **gogortasuna** salatu, apaizen hipokrisia agerrarazi. **Karlos Zabala**

Portuko zamaketariak, bizitzak zaildutako gizonak, **gogortasunera** ohitutako gizonak. **Felipe Juaristi**

## 2 (hitz elkartuetan)

Eronka muga-mugan zegoela erantzun arrakastatsua eragiten duen **gogortasun**-mailaren eta porrota ekartzen duen maila handiagoaren artean. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duen **gogortasun** (3); **eta gogortasun** (8); **eta gogortasuna** (13); **gogortasun bat** (3); **gogortasun eta** (7); **gogortasun hori** (4); **gogortasuna azpimarratu** (4); **gogortasuna edo** (3); **gogortasuna eta** (11); **gogortasuna izan** (3); **gogortasunak eta** (3); **haren gogortasuna** (3); **lanaren gogortasuna** (3); **zigorraren gogortasuna** (3); **zigorren gogortasuna** (3); **zuen gogortasuna** (3)

## gogortu, gogor(tu), gogortzen 1 ad/du ad gogor edo gogorrigo bihurtu, gogortasuna hartu edo eman.

Neguan, hotzak likido den guztia **gogortu** duenean. **Karlos Zabala**

Alkandoraren paparrekoka almidoiz ondo **gogorturik**. **Jose Morales**

Gominaz **gogortutako** ileak, motz-motzak, atzeraka orraztuak. **Anitton Olano**

Haren aurpegi zurbila, eta haren hortz zuriak oxta-oxta agertzen zirela heriotza ubelduak **gogorturiko** ezpain moreen artetik. **Juan Garzia**

Eta ondoren, [burdina] bigunduta eta gurituta dagoenean ur hotzetan hozten bada, berritua **gogortu** eta hasieran zuen kalitate hartara itzultzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Bere etxeko ate aurrean andre judu zahar bat omen zegoen hotzak **gogortuta**. **Josu Zabaleta**

Geldi egoteak hezurak **gogortuko** zizkiolakoan. **Joxemari Urteaga**

Orduan zilborraren kontra bere zakil sendoa **gogortzen** nabaritu nuen. **Aitor Arana**

Itsasoak zaildu eta **gogortuko** hau...! **Joan Mari Irigoien**

-Bazakiat **-gogortu** zitzaion begitartea. **Aingeru Epaltza**

Catherinek **gogortu** egin zuen aurpegia. **Iñaki Zabaleta**

Asmo itsu horrek **gogortu** eta zikoiztu egin zuen azkenerako, errukigabe bihurtu zen bere buruarentzat zein besteentzat. **Karlos Zabala**

Gorrotok **gogortzen** zion izpiritua. **Itxaro Borda**

Horregatik izaten da gero eta handiagoa zigorrak **gogortzeko** premia. **Juan Martin Elexpuru**

Gerla **gogortzen** ari zen. **Eneko Bidegain**

Nire sexua taupadaka zebilen guztiz erotuta, baginako sarreraraino jaitsi nuen dardaragailua eta ferekatzen hasi biribil txikiak eginez, eta taupadak **gogortu** ahala, sartuz joan nintzen. **Juan Martin Elexpuru**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Hormazko geruza **gogortuaren** azpian. **Karlos Zabala**

Haren eskuetako azalean zartadura sakon eta **gogortuak** ageri dira. **Oskar Arana**

Ahoan ezin edukizko karkaxa lodi **gogortu** baten pare dela sentituz. **Iñaki Segurola**

On egin dio ur honek nire beso handitu eta **gogortuari**. **Koldo Izagirre**

Odolera ohitutako anima **gogortuetatik**. **Juan Martin Elexpuru**

Infernuko esklabo **gogortua** nintzen ordurako. **Matías Múgica**

-Xafila zabaleko sable kako bat eskuan, arma zuri damaskinatu horietako bat, Karxiko eta Hissarreko armagin entzute handikoei **gogor**-malgutua. **Karlos Zabala**

## 3 bihotz-gogortu

Baina egia hutsa zena ipuintzat hartu zuten, **bihotz-gogortu** egin ziren eta ez zioten kasurik egin nahi izan. **Askoren artean**

Hainbestearaino **bihotz-gogortu** ziren, ezen bata bestearen inbidia izaten hasi baitziren, elkar hasererrazten eta albokoa baino gehiago izan nahian. **Askoren artean**

Jainkoak nahi duenari dio erruki eta nahi duena uzten du **bihotz-gogortzen**. **Elizen arteko biblia**

Has hadi esker ona agertzen, kondenaren berri eman ezinaz ez din-eta **bihotz-gogortzeko** eskubiderik ematen! **Anjel Lertxundi**

## 4 gogortuxe gogor xamar.

Giltzurrunak **gogortuxe** zeuzkanez berak gerria makurtzeko. **Juan Garzia**

## 5 gogortzenago

Bat ohitu egiten da gauzak geroz eta gogorrigo bihur daitezen; harrizteari uzten dio batek, gogor baino gogorrigo zena are eta **gogortzenago** dela ikusteaz. **Oskar Arana**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

araudia **gogortu** (3); **asko gogortu** (8); **asko gogortu zen** (3); **baldintzak gogortu** (8); **baldintzak gogortu egin** (4); **bat gogortu** (4); **begirada gogortu** (3); **bizi baldintzak gogortu** (3); **defentsa gogortu** (11); **defentsa gogortu zuen** (7); **egoera gogortu** (3); **ekintzak gogortu** (5); **erabat gogortu** (4); **erasoaldia gogortu** (3); **ere gogortu** (5); **errepresioa gogortu** (3); **eta gogortu** (14); **eta gogortu egin** (6); **eta gogortuak** (3); **ez gogortu** (4); **ez gogortu bihotzak** (4); **gogortu baino** (3); **gogortu baino lehen** (3); **gogortu bihotzak** (4); **gogortu da** (6); **gogortu dela** (7); **gogortu dira** (3); **gogortu du** (5); **gogortu duela** (3); **gogortu egin** (81); **gogortu egin da** (4); **gogortu egin dela** (6); **gogortu egin dira** (11); **gogortu egin ditu** (8); **gogortu egin du** (6); **gogortu egin dute** (4); **gogortu egin zait** (4); **gogortu egin zen** (8); **gogortu egin ziren** (4); **gogortu egin zitzaion** (5); **gogortu egin zuen** (3); **gogortu eginen** (4); **gogortu eginen dituztela** (4); **gogortu egingo** (13); **gogortu egingo dira** (3); **gogortu egiten** (27); **gogortu egiten da** (6); **gogortu egiten dira** (5); **gogortu egiten zitzaion** (3); **gogortu eta** (18); **gogortu nahi** (5); **gogortu ondoren** (3); **gogortu zen** (7); **gogortu ziren** (4); **gogortu zituen** (4); **gogortu zituenetik** (3); **gogortu zitzaion** (4); **gogortu zuen** (17); **gogortu zuten** (9); **gogortu zuten etapa** (3); **izaera gogortu** (3); **izugarri gogortu** (4); **jarrera gogortu** (5); **legea gogortu** (4); **nabarmen gogortu** (4); **neurriak gogortu** (11); **neurriak gogortu zituenetik** (3); **partida gogortu** (5); **politika gogortu** (4); **protesta ekintzak gogortu** (3); **zigorrak gogortu** (7)

**baldintzak gogortuko** (3); **borroka gogortzeko** (3); **eta gogortuko** (4); **eta gogortutako** (3); **borroka gogortzea** (6); **eta gogortzeko** (3); **gogortuko da** (5); **gogortuko dira** (4); **gogortuko direla** (3); **gogortuko ditu** (4); **gogortuko dituzte** (4); **gogortuko dituztela** (4); **gogortuko dute** (4); **gogortuta eta** (3); **gogortuta ohean** (3); **gogortzea erabaki** (4); **gogortzea eta** (5); **gogortzearen alde** (3); **gogortzeko aukera** (6); **gogortzeko deia** (5); **gogortzeko deia egin** (3); **gogortzeko prest** (3); **gorputza gogortuta** (3); **gorputza gogortuta ohean** (3); **kontrako borroka gogortzeko** (3); **mobilizazioak gogortuko** (4); **mobilizazioak gogortzeko** (3); **neurriak gogortzeko** (4); **protestak gogortuko** (5); **zigorrak gogortuko** (3); **zigorrak gogortzea** (9); **zigorrak gogortzeko** (7); **zigorren gogortzea** (3)

**behakoa gogortzen** (3); **ere gogortzen** (3); **eta gogortzen** (5); **gogortzen ari** (24); **gogortzen ari den** (4); **gogortzen ari dira** (4); **gogortzen ari direla** (3); **gogortzen ari zen** (5); **gogortzen ditu** (3); **gogortzen du** (6); **gogortzen eta** (6); **gogortzen hasi** (5); **gogortzen hasten** (3); **gogortzen zituen** (3); **gogortzen zitzaioa** (3); **gogortzen zuela** (3); **gorputza gogortzen** (3); **immunitate sistema gogortzen** (3); **neurriak gogortzen** (3); **nola gogortzen** (3); **sistema gogortzen** (3); **sistema gogortzen du** (3)

## gogortxo 1 izond gogor samar.

Izkribuaren tankera **gogortxo** zen: gerlan geundela, ia-ia izterraz sendaturik nengoenez, besterik gabe men egitea zegokidala. **Txillardegi**

Hasiera **gogortxo** izan bazitzaion ere, diru irabazten hasi zen. **Gotzón Garate**

-Barkatuko didan **gogortxo** hitz egin badinat, baina..., neska, nire onetik ateratzen naun. **Anitton Olano**



## 2 gogortxo egin zaio ad ik gogor 14.

**Gogortxo** egiten zait ulertzea hori, garai honetan. **Pello Salaburu**

## gogortzaile 1 iz gogortzen duena.

Eta izotz gotorra, uren **gogortzaile** handi eta ibai irrikatsuen nonahiko oztopo. **Xabier Amuriza**

## 2 ile-gogortzailea.

Eta ilajea [...] gibelaldera orraztua zuen eta **gogortzailez** oratua. **Aingeru Epaltza**

## 3 ile-gogortzaile ilea gogortzeko produktua.

Ile-**gogortzailea** emana zuen; ileko artesia xuxen-xuxen egina. **Jon Muñoz**

Dutxan sartzen da ile-**gogortzailea** kentzeko. **Antton Olano**

Bere burua, ile-**gogortzailez** igurtzia. **Josu Zabaleta**

Kotoizko galtza lasai batzuk jantzi eta makillajea eta ile-**gogortzailea** kentzen ditu. **Antton Olano**

## gogortze iz gogor edo gogorrigo bihurtzea, gogortasuna hartzea edo ematea.

Bat ohitu egiten da gauzen **gogortze** honetara, eta ez zara harritzen mingarritasunaren muturrera iritsi zarela uste duzunean mingarritasun oraindik are mingarriagoa jasateko gauza zarela ohartzen zarenean. **Berria - Kultura**

Orok erakutsiz badugula ez uko egin nahi eta **gogortze** bat, etsimenduari amor emanen ez diona baina bai xutitu eta aintzinaldea lehen edukitzeko gogoia. **Herria**

1980ko hamarraldiaren bukaeraz geroztiko diru-politiken **gogortzeak**. **Koro Navarro**

Justxen koren aldekoen jarrera **gogortze** berri honek. **Berria - Mundua**

## gogorxeago ik gogor 11.

## gogorxko izond gogortxo.

Emaizta **gogorxkoa** Baionesentzat. **Herria**

Sarrerako hitzez duda nuen, hala ere; **gogorxkoak**, akaso. **Aingeru Epaltza**

-**Gogorxko** atzokoa, ezta? **Aingeru Epaltza**

## gogotik 1 adlag zinez, gogoz.

Beren atea **gogotik** idekiz eta ongi etorri hoberena eginez erromeseri. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Azken igoera honek zangoak pisutu dizkit eta **gogotik** etzan eta luzatu naiz, segidan, aterpeko ohe goxoan. **Piarres Aintziart**

**Gogotik** erran nion baietz. **Janbattitt Dirassar**

Kafe bero bat har nezake **gogotik**, baina ez dut ez kaferik, ez azukrerik, ez fitsik. **Filipe Bidart**

Ederki gozatzen ginen orduan zurekin, zure haserrezko hitz frijitu haiek **gogotik** aditzen. **Iñaki Segurola**

Normahirekin aritzen naiz **gogotik** solasean. **Janbattitt Dirassar**

Ontsa ari ziren lanean, eta, iduriz, **gogotik**. **Marzel Etxehandi**

Eskertu nion **gogotik**, herabe xamar baina pozik. **Joxe Austin Arrieta**

Basoek basoei klink eta **gogotik** hasi gara jaten. **Piarres Aintziart**

**Gogotik** afaldu dut, pozik nago. **Koldo Izagirre**

Harryk **gogotik** edan zuen. **Iñaki Mendiguren**

Ahoa zabaldu eta **gogotik** egiten zuen barre. Barrez hasi ziren **gogotik**, eta negar egin du komedianteak, negar egin du **gogotik**. **Jose Morales**

**Gogotik** ahalegindu arren. **Jose Morales**

-Esnatu egingo ditut eta **gogotik** astindu gainera, bai horixe! **Koro Navarro**

**Gogotik** eusten dio itxaropenari. **Imanol Zurutuza**

Arnasa **gogotik** hartuz. **Joxemari Urteaga**

Pedalei **gogotik** eraginez. **Josu Zabaleta**

Tentetnikovek **gogotik** ekin zion etxaldea gobernatzeari eta zuzentzeari. **Jose Morales**

Bizitzari **gogotik** heltzen diotenak gustatzen zaizkidak niri! **Jesus Mari Mendizabal**

**Gogotik** kantuz ari ziren. **Michel Oronoz**

Eta Xoxan gizonak sartzen ziren **gogotik** musean aritzeko, eta zenbait aldiz goizalde artio! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eta gero haren ipurdiaren kontra igurtzitzen nintzen, **gogotik** gustatzen zitzaion. **Karlos Zabala**

-Aitortu beharra dago **gogotik** ikasi duzula berpiztu zinenetik. **Juan Luis Zabala**

Jarraiki nintzaion biziki **gogotik**, alde batetik ikastea laket nuelakotz, [...] bestetik Francisco jauna maite nuelakotz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 2 erruz, ugari.

Hori ere ernegatu da **gogotik** ordea. **Koro Navarro**

Eta gainera, teñlatuan euria **gogotik** ari. **Piarres Aintziart**

Kanpoaldean elurra **gogotik** ari zuela. **Patxi Zubizarreta**

Itsusitu bai, **gogotik**. **Koldo Zuazo**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arizan dira **gogotik** (3); arras **gogotik** (10); arras **gogotik** hasi (4); bai **gogotik** (3); baina **gogotik** (8); bat **gogotik** (3); berdin **gogotik** (4); bere **gogotik** (5); berriz **gogotik** (4); beti **gogotik** (5); bezain **gogotik** (4); biak **gogotik** (3); biziki **gogotik** (8); da **gogotik** (4); dago **gogotik** (3); denak **gogotik** (12); denek **gogotik** (4); dira **gogotik** (9); du **gogotik** (13); du **gogotik** eta (3); dut **gogotik** (10); dut **gogotik** kendu (3); dute **gogotik** (4); egin du **gogotik** (3); egin genuen **gogotik** (3); egin zuen **gogotik** (4); elurra **gogotik** (4); elurra **gogotik** ari (3); ere berdin **gogotik** (3); ere **gogotik** (33); ere **gogotik** ari (3); ere **gogotik** egin (6); eta **gogotik** (85); eta **gogotik** ari (4); eta **gogotik** egin (3); eta zoin **gogotik** (3); euria **gogotik** (10); euria **gogotik** ari (6); ez dut **gogotik** (3); ez **gogotik** (4); ez zuen **gogotik** (3); ezin **gogotik** (3); genuen **gogotik** (4); ginituen **gogotik** (3)

**gogotik** ahalegindu (19); **gogotik** ahalegindu arren (3); **gogotik** ahalegindu zen (6); **gogotik** ahalegindu ziren (5); **gogotik** ahalegintzen (3); **gogotik** ahalegintzen zen (3); **gogotik** ahora (3); **gogotik** alde (3); **gogotik** ari (49); **gogotik** ari dira (5); **gogotik** ari zen (4); **gogotik** aritu (4); **gogotik** aritzen (3); **gogotik** ariz (6); **gogotik** arizan (17); **gogotik** arizan dira (10); **gogotik** arizanik (3); **gogotik** at (3); **gogotik** aztertu (3); **gogotik** barre (5); **gogotik** barre egiten (3); **gogotik** edan (7); **gogotik** egin (42); **gogotik** egin behar (10); **gogotik** egin beharko (5); **gogotik** egin dugu (3); **gogotik** egin du (3); **gogotik** egin zuen (3); **gogotik** egin zuten (4); **gogotik** eginen (4); **gogotik** egingo (7); **gogotik** egiten (17); **gogotik** egiten du (3); **gogotik** ekin (5); **gogotik** eman (6); **gogotik** erantzun (3); **gogotik** eskertu (3);



**gogotik eta** (23); **gogotik ezabatu** (3); **gogotik ezin** (4); **gogotik hartu** (3); **gogotik har** (9); **gogotik hartuko** (9); **gogotik hartuz** (3); **gogotik hartzen** (3); **gogotik hasi** (9); **gogotik hasi da** (3); **gogotik hasiak** (6); **gogotik hasiak ziren** (3); **gogotik ikasten** (3); **gogotik ikus** (3); **gogotik ikusten** (4); **gogotik jaten** (4); **gogotik jin** (4); **gogotik jiten** (3); **gogotik jo** (3); **gogotik jokatu** (3); **gogotik jotzen** (3); **gogotik kanpoko** (9); **gogotik kantatu** (3); **gogotik kantuz** (7); **gogotik kendu** (18); **gogotik kendu ezinik** (5); **gogotik lan** (16); **gogotik lan egin** (11); **gogotik lanean** (3); **gogotik lotu** (4); **gogotik lotuak** (4); **gogotik maite** (3); **gogotik onartu** (6); **gogotik onartzen** (3); **gogotik ordaintzen** (4); **gogotik ospatu** (5); **gogotik parte** (15); **gogotik parte hartu** (5); **gogotik parte hartuko** (3); **gogotik parte hartzen** (5); **gogotik saiatu** (20); **gogotik saiatu arren** (5); **gogotik saiatu zen** (6); **gogotik saiatzten** (6); **gogotik txalotu** (7); **gogotik txalotu zuten** (3); **gogotik uzten** (3); **gogotik zabaldu** (3)

**guztiak gogotik** (4); **hain gogotik** (6); **hori gogotik** (4); **horretan gogotik** (3); **jendea gogotik** (3); **jendea gogotik kantuz** (3); **jo gogotik** (3); **lana gogotik** (11); **lana gogotik egin** (4); **lana gogotik egiten** (4); **lau pilotariak gogotik** (7); **nik gogotik** (5); **nintzen gogotik** (3); **nire gogotik** (6); **nuen gogotik** (4); **pilotariak gogotik** (7); **pilotariak gogotik ari** (3); **sarak gogotik** (3); **untsa gogotik** (4); **zen gogotik** (4); **zinez gogotik** (3); **zinez gogotik ari** (3); **zion gogotik** (3); **zoin gogotik** (4); **zuen gogotik** (21); **zuten gogotik** (3)

## gogotsu 1 izond gogoz betea.

Gutxiengo **gogotsu**, buruargi eta eragin handiko batekin. **Iñaki Mendiguren**

Xehetasun bakoitzari hain arreta **gogotsu** eta zorrotza jartzea. **Xabier Olarra**

Fisikari, eta, xuxenago, astrofisikari prestu eta **gogotsua** zen bera. **Juan Garzia**

Sartu zen bera ere batzorde horretan, eta kiderik **gogotsuenetako** bat izan zen. **Jose Morales**

## • 2 (predikatu gisa; orobat gogotsu)

Jainkoa maitatzera eta **gogotsu** zerbitzatzera. **Askoren artean**

-Asko dakizu Hogsmeaderi buruz? -galdetu zion Hermionek **gogotsu**-. **Iñaki Mendiguren**

Estatu Batuetan, zeregin publikoetarako hautagaiek herri xehearen zuhurtzia, bertuteak eta boterea **gogotsu** azaltzen dituzten lekua. **Xabier Olarra**

Sergiok eta Leirek, astean zehar fakultateko zereginetan **gogotsu** aritu ondoren, elkarrekin biltzeari ekin zioten larunbat eta igande arratsaldetan, inoiz huts egin gabe.

**Josexo Azkona**

Eta **gogotsu** nindoan eta sinetsirik nengoen ezen Jainkoak gidatuko zituela gure urratsak. **Joan Mari Irigoien**

Ez du batere **gogotsu** lan egiten, egia esan. **Harkaitz Cano**

Ahal duen guztietan sotana erantzi eta pilotari **gogotsu** ekinez. **Edorta Jimenez**

Partida borrokatu izan da hau, lau pilotariak **gogotsu** arizan dira partida guzian. **Herria**

Kantuz ari zen, **gogotsu**, janaria hozten ari zela ahantzirik. **Elena Touyarou**

Frantziarren handitasunen alde zerbait egiteko **gogotsu** beti. **Koldo Izagirre**

Zenbat eta okerrago aurkitu, **gogotsuago** jotzen dute erlijiora. **Xabier Amuriza**

Bisitariak gogoz hartu zuen gonbidapena, eta are **gogotsuago** onartu zidan autoa gidatzeko eskaintza. **Edorta Jimenez**

Inoiz baino **gogotsuago** irribarre eginez. **Iñaki Mendiguren**

Nik, ordea, sekula baino **gogotsuago** eutsi nahi bizitza honi. **Joxe Austin Arrieta**

Eta berak jan zuela haietarik **gogotsuen**. **Edorta Jimenez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baina gogotsu** (15); **baina gogotsu dago** (3); **bezain gogotsu** (7); **egiteko gogotsu** (5); **ere gogotsu** (5); **eta gogotsu** (55); **eta gogotsu ekin** (3); **eta gogotsu gaude** (3); **eta lanean gogotsu** (3)

**gogotsu agertu** (7); **gogotsu agertu dira** (4); **gogotsu ari** (6); **gogotsu ariko** (3); **gogotsu aritu** (10); **gogotsu aritu zen** (6); **gogotsu aritzen** (3); **gogotsu atera** (3); **gogotsu atera zen** (3); **gogotsu azaldu** (3); **gogotsu baina** (3); **gogotsu dabil** (3); **gogotsu dago** (20); **gogotsu daude** (14); **gogotsu daudela** (5); **gogotsu dira** (3); **gogotsu egin** (4); **gogotsu egiten** (3); **gogotsu egongo** (3); **gogotsu ekin** (17); **gogotsu ekin zion** (8); **gogotsu ekin zioten** (3); **gogotsu ekingo** (6); **gogotsu ekingo dio** (3); **gogotsu erantzun** (3); **gogotsu eta** (31); **gogotsu etorri** (3); **gogotsu etorriko** (3); **gogotsu gaude** (17); **gogotsu hartu** (7); **gogotsu hasi** (7); **gogotsu hasi zuen** (4); **gogotsu irten** (3); **gogotsu itzuli** (3); **gogotsu jokatu** (3); **gogotsu kantxaratu** (3); **gogotsu nago** (16); **gogotsu zegoen** (4); **gogotsu zelairatu** (5)

**hain gogotsu** (10); **hasteko gogotsu** (3); **hermionek gogotsu** (4); **jokalariak gogotsu** (6); **lanean gogotsu** (5); **lanean hasteko gogotsu** (3); **lehen minututik gogotsu** (3); **minututik gogotsu** (4); **oso gogotsu** (16); **zuen gogotsu** (3)

**baino gogotsuago** (23); **baino gogotsuago eta** (4); **baino gogotsuago ikusten** (3); **eta gogotsuago** (7); **gero eta gogotsuago** (4); **gogotsua da** (3); **gogotsuago aritzen** (3); **gogotsuago ekin** (3); **gogotsuago eta** (5); **gogotsuago eta alaiago** (4); **gogotsuago ikusten** (3); **inoiz baino gogotsuago** (10)

## gogotxartu, gogotxar(tu), gogotxartzen 1 da/du ad nahigabetu, gaitzitu.

**Gogotxartu** ninduen nes karen aierukadak: bakardadea omen nire tristeziaren iturri, bere irudiko. **Joxe Austin Arrieta**

Beste batean **gogotxartuko** nindukeenak lasaitu egiten nau. **Anjel Lertxundi**

**Gogotxartu** eta zakartu egin ohi nau horrek. presori gertatu ohi zaionez, **gogotxartuta** eta kezkatuta sentitzen delako kartzelaz aldatzen duten bakoitzean. **Joxean Agirre**

-Ez da izan hizka-mizkarik -esan zuen Gabrieleke **gogotxarturik**. **Irene Aldasoro**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Goseak zegoen, zeren eta, bi taberna-mutil **gogotxarturi** ekarrarazi zizkien galleta batzuk kenduta, ezer jan gabe baitzegoen gosariatz geroztik. **Irene Aldasoro**

## gogoz 1 adlag zinez, gogotik.

Jakina, lana da barrandan ibiltzea, baina nik **gogoz** egiten dut... **Aingeru Epaltza**

Ez da dudarik **gogoz** emaiten zuela bertzek asmatu zutena. **Herria**

**Gogoz** amastu nuen gaueko aire hotz garbia, Maupassantek **gogoz** onartu zuen egitarau gogor hori, eta zinez bete ere, bete zuen. **Alberto Ladrón Arana**

**Gogoz** ari dira laurak jotzen, bidaiaren nekea musikaz uxatu nahian. **Felipe Juaristi**

Denek **gogoz** irakurri dute. **Patziku Perurena**

Haren hitzaldia osorik aditu zutenek **gogoz** egin zuten barre. **Edorta Jimenez**

Ordurako gustura ari zen hura ere eta **gogoz** saiatzen zen. **Karlos Zabala**

Hassanek, **gogoz** saiatuta ere, ez zuen inon lanik aurkitzen. **Jon Arretxe**

"Wi-nni-peg-wi-nni-peg-wi-nni-peg", zioten orduan ere, baina kementsu, **gogoz**. **Bernardo Atxaga**

Eta atseginez eta **gogoz** egingo zukeen San Petersburgen jatekoa. **Edorta Jimenez**

Lagunari uzten dizkio bere esku gurixtoak, eta gizonak grinaz eta **gogoz** igurzten ditu. **Monika Etxebarria**

-Ez daiteke -esan nion **gogoz**-. **Monika Etxebarria**

Atera hurbildu nintzen, bihotza **gogoz** taupadaka. **Josu Zabaleta**

**Gogoz** baino **gogozago** libertzten naiz miseria horiekin. **Jon Muñoz**

## 2 (-tzeko atzikiaren eskuinean) desiraz.

Nabaria zen zerbait esateko **gogoz** zegoela. **Anjel Lertxundi**

Jakin-minez eta ikasteko **gogoz** beteriko haurra. **Juan Kruz Igerabide**

Ezpatia zorrotik atera, eta bere semeak akabatuzeko **gogoz** irten zen gelatik. **Patxi Zubizarreta**

Neu ere zerbait jateko **gogoz** nengoen. **Anjel Lertxundi**

### 3 (bestelakoetan)

Hiruren aurrean zutik zegoen Demba, amorrux arnaska, mehatxu-egarriz dardarka, hilketa-**gogoz** irakiten, baina halere ezinduta, eskas, denen irrigarri. **Anton Garikano**  
Gazteturik ikusten nuen, bizi-**gogoz** beterik, nerabe bat bezala. **Juan Kruz Igerabide**

### 4 (-en atzikiaren eskuinean) borondatez.

Eta ez noski nire **gogoz**, zeuk hala eskaturik baizik. **Karlos Linazasoro**

Eta gu geure **gogoz** karga-min horien azpira amilduak. **Iñaki Seguro**

Herr Piper hura batere interesatzen ez niri, bere **gogoz** eta konbentziturik Ekialdeko Alemanian bizi den tipo bat, izan ere... **Joxe Austin Arrieta**

Gomitarik ez ukanik ere, "Demoak" beren **gogoz** hurbildu dira aurkezpen horretara. **Herria**

Gurasoek euren **gogoz** ematen al dizkiete seme-alabak bitartekariei? **Berría - Gaiak**

Gogoz kontra dutzatzen edo bainatzen ginen orduan, baina gaur geure **gogoz** uzten diogu bidea zabalik garbiketa antiseptikoari, garbiaren garbitu-behar paranoikoari.  
**Iñaki Seguro**

### 5 buruz.

Arnasaldi bakoitzean **gogoz** (buruz) egin behar da otoitz. **Patxi Altuna**

Han eta hemen aditzen hasiak ziren iraultzako kantuak **gogoz** ikastera bortxatuko ote zituzten? **Elena Touyarou**

**Gogoz** bazekien Rousseau-ren Le contrat social obrako ahapaldi bat atera zion. **Elena Touyarou**

Eusebiok, gainera, alemanen mugimendu guziak **gogoz** ikasiak zituen. **Eneko Bidegain**

### 6 gogozko izlag borondatezkoa.

Eman dezagun mila direla inork behartu gabeko eta **gogozko** nire irakurleak. Haurdunaldia **gogozkoa** denean, hori eta gehiago jasateko prestatzen gara, prestatzen dugu geure burua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gogozko** tokian maldarik ez delakoan. **Pello Salaburu**

· Han ikusi nuen nekearen nekez biziaz etsi dutenen sarraski higuigarri beren **gogozko** hura. **Josu Zabaleta**

Osabaren **gogozko** itxialdi hura. **Juan Garzia**

### 7 gogoz bestera (orobat gogoz beste g.er.) adlag gogoz kontra.

Baietz erantzun zion, latz, **gogoz** bestera. **Karlos Zabala**

Ziurrenik ere bertan behera utziko zuen dena, gogoz zein **gogoz** bestera. **Juan Garzia**

Zakuari atzeko aldeak eusten zegoen lagunak txanda eskatu zion, eta **gogoz** bestera luzatu zituen besoak alboetara. **Josu Landa**

Kontakizun honek aspaldi izan zuen hasiera eta **gogoz** bestera narama. **Joseba Urteaga**

Zantarkeriak **gogoz** bestera eta konpultsiboki botatzea (koprolalia). **Xabier Olarra**

**Gogoz** beste hitz egin zuen Elizabethek: [...]. **Anjel Lertxundi**

### 8 gogoz kontra adlag gogoak agintzen duenaren kontra.

Eta beti itzultzen naiz haietara, **gogoz kontra** bada ere. **Josu Zabaleta**

Aski asperturik nengoen **gogoz kontra** onartutako lanaz. **Aingeru Epaltza**

Umeek **gogoz kontra** joateko itxurak egin zituzten. **Julen Gabiria**

Aurpegiaren ezagun zuen **gogoz kontra** ari zela. **Inazio Mujika Iraola**

Faroletako argiak gaua indarrez eta **gogoz kontra** etorrarazi balu bezala. **Matías Múgica**

Zeren hemen gogorik gabe edo **gogoz kontra** gauza asko egin daitezke, baina bizi inolaz ere ez. **Iñaki Seguro**

·Berorrek erraza du -erantzun zion emakumeak-, bai neure gogoz bai **gogoz kontra** lor dezake hori. **Patxi Zubizarreta**

**Gogoz kontra** egiten nuena, aldiz, egin baino gehiago jasan egiten nuela ikusten nuen. **Imanol Unzurrunzaga**

· Baina, jauna, zure **gogoz kontra** bada ere, norbaitentzat idazten duzu. **Monika Etxebarria**

Bi bider hartu ninduen, hala ere, loak, nire **gogoz kontra**, segundo batzuetan. **Josu Zabaleta**

· Hortik aurrerakoak Brown jaunaren guztiz **gogoz kontrara** gertatu ziren **Karlos Linazasoro**

### 9 gogoz kontrako izlag

lhesi nenbilela ohartu naiz, **gogoz kontrako** bidea egiten. **Jon Arretxe**

**Gogoz kontrako** ibilera nekatua zekarren. **Anjel Lertxundi**

**Gogoz kontrako** aginduren bat. **Alberto Ladron Arana**

Bonenfanti doktorea isildu zen, eta **gogoz kontrako** ahotsez jarraitu zuen gero: [...]. **Josu Zabaleta**

Ez da bortxaketa, ez zehazki, baina **gogoz kontrakoa** edozelan ere, barren-barreneraino **gogoz kontrakoa**. **Oskar Arana**

Borondatezko bezeroak urritzen hasiak omen zituan eta **gogoz kontrakoak** bilatzeari lotu omen zitzaioan. **Aingeru Epaltza**

Sentimendu **gogoz kontrako** eta ezezagun batek. **Jon Muñoz**

Ez bada amore eman edertasunak sortu eta bertuteak justifikatzen duen sentimendu **gogoz kontrako** bati. **Jon Muñoz**

Eguneko uneetatik **gogoz kontrakoena** izan zen. **Josu Landa**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

alde egiteko gogoz (4); aritzeko gogoz (6); aurre egiteko gogoz (4); bai gogoz (6); baina gogoz (10); bat gogoz (10); bat gogoz kontra (6); bere gogoz (47); bere gogoz kontra (13); beren gogoz (9); bihotzez eta gogoz (4); bizi gogoz (4); da gogoz (6); edo gogoz (10); egiteko gogoz (43); emateko gogoz (9); entzuteko gogoz (4); erakusteko gogoz (7); ere gogoz (10); esateko gogoz (6); eta gogoz (112); eta gogoz gainezka (6); eta gogoz kontra (17); euren gogoz (7); ez gogoz (5); ezagutzeko gogoz (4); geure gogoz (5)

gogoz ari (9); gogoz barre (4); gogoz behartsu (9); gogoz behartsu direnak (5); gogoz beste (4); gogoz bestera (15); gogoz beterik (5); gogoz dago (22); gogoz dagoela (5); gogoz daude (5); gogoz daudela (5); gogoz dira (5); gogoz egin (13); gogoz egingo (7); gogoz egiten (5); gogoz egongo (4); gogoz ekin (12); gogoz ekin zioten (4); gogoz ekingo (5); gogoz ere (9); gogoz eta (63); gogoz eta bihotzez (4); gogoz eta ilusioz (7); gogoz gainezka (20); gogoz gaude (9); gogoz gaudela (4); gogoz geratu (7); gogoz hartu (13); gogoz hartu zuen (4); gogoz hartuko (6); gogoz hasi (5); gogoz heldu (5); gogoz heltzen (4); gogoz ikusten (7); gogoz ikusten dut (4); gogoz irten (4); gogoz itzuli (7); gogoz itzuli da (4); gogoz jardun (4); gogoz jokatu (5); gogoz kontra (231); gogoz kontra bada (10); gogoz kontra baina (8); gogoz kontra bazen (16); gogoz kontra egiten (4); gogoz kontra eraman (5); gogoz kontra ere (4); gogoz kontra izan (4); gogoz kontrako (23); gogoz kontrakoa (4); gogoz lan (5); gogoz nago (11); gogoz nengoen (7); gogoz onartu (6); gogoz onartuko (4); gogoz salatzen (5); gogoz zegoela (4); gogoz zegoen (9); gogoz zeuden (5)

hain gogoz (6); hartzeko gogoz (10); hasteko gogoz (14); hitz egiteko gogoz (5); ikusteko gogoz (10); irabazteko gogoz (5); itzultzeko gogoz (11); jakiteko gogoz (5); jarraitzeko gogoz (7); jartzeko gogoz (5); jateko gogoz (5); jendea gogoz (5); joateko gogoz (4); jokatzeko gogoz (14); nahiz eta gogoz (5); neure gogoz (10); nik gogoz (4); nire gogoz (7); nire gogoz kontra (6); oso gogoz (4); sartzeko gogoz (6); taldea gogoz (5); uzteko gogoz (4); zeure gogoz (4); zuen gogoz (11)

## gogozkatu, gogozka, gogozkatzen du ad ipar gogoeta egin.

Txokok ez zekien gehiago zer **gogozka**. **Itxaro Borda**

Ahantzea gauza estimagarria zen, **gogozkatu** zuen Jessicak, baina horretan ere heina zaintzekoa zen. **Itxaro Borda**

Altzairuz eta bitraz eraikitako aterpean gaitzeko oihartzuna hautematen zela **gogozkatu** zuen Edmeak. **Itxaro Borda**

Bil Xokoa eta Abotia alkarteak aspalditik **gogozkatzen** badira bertularitzaren berpizteko Xiberoran. **Herria**

Xiberotar 17 laborari **gogozkatzen** ari dira gaznategi baten eraikitzeko Muskildin. **Herria**

## **gogozkatze** iz gogoeta egitea.

**Gogozkatze** ürria izan enetako. Herria

"BASABÜRÜA" ikastolako buraso eta andereñoak, gure Alozeko egoitzen porrokatzearen ondotik, **gogozkatze** zorbait agertü nahi güntüke. Herria

## **gohain** iz goragalea, nazka.

Ordezkarı xıfrituari, **gohaina** zerion kopetan behera. Itxaro Borda

**Gohaina** hazterainoko paranoia. Itxaro Borda

Dutxaren ondotik Frantxuaren gorputzeko usainak **gohaina** hazi zion. Itxaro Borda

Sentitzen nuen amodio behialako oxka patetikoaren heinak **gohainez** itoa uzten ninduela. Itxaro Borda

### 2 adlag goitika; nardaturik.

**Gohain** eta goitika ari nintzelako. Itxaro Borda

Mirail baten aitzinean plantatu nintzen, ikusten nuenaz **gohain**, galdezka hargatik: zergatik ez zen Roslin Institutuko laborategian, ardiaren ordez, behi bat klonatu? Itxaro Borda

Ingurukoek lanean, **gohain** neuzkan metodologia eraginkorren tinkatzeko hitzorduetan, erosketetan, denetan, hits eta hets harrapatu ninduten. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gohain eta** (3)

## **gohainditu**, gohaindi, gohainditzen da ad nardatu, nazkatu.

Aitortu behar dut Napoleon-ez **gohainditua** naizela. Herria

Bada asetzekoa, **gohainditzekoa** ere. Herria

Behar den bezala **gohainditzeko** RTL-ek eskaintzen ditu larunbatetan "Derrick" eta "Le Renard". Herria

## **gohaindura** iz ipar goragalea, nazka.

Gura genuen jatekoaren presentzia, higuigarri gertatuko zaigu, eta, hori da, Nazka eta **Gohaindura** deitzen duguna. Piarres Xarriton

Hango hutsaldiaren ondotik **gohaindura** sendi zuen, eta nazka berdın. Elena Touyarou

Halako **gohaindura** bat ematen zidan. Daniel Landart

Orduan hasiko baitzaizkio asperrak, nazkak, **gohaindurak** eta...loa galtzeak. Herria

## **gohaingarri** izond ipar gohaindura eragiten duena.

Perfume eta salboin merkeen usain **gohaingarria**, besapeetarik jauki kabala izerdi nazkagarria. Itxaro Borda

Salatari **gohaingarri** horietarik zitekeela konbentzituak. Itxaro Borda

Jendearen jasan ahalmena hausteraino eramaten zuen amodioaren ideia **gohaingarri** zitzaidan bat-batean. Itxaro Borda

## **gohatsu** izond ipar sargoritsua.

Borobilean daudela [ardiak] euri bezpera sapa eta **gohatsuetan**. Itxaro Borda

## **goi** 1 izond garaia, altua.

Mendi txit **goi** baten tontorrera joan zen zubitik oso urruti. Askoren artean

Muino **goi** baten tontorrean. Koldo Izagirre

Txoriak adar **goi** batean pausatu eta desagertu egiten baitziren bistatik. Felipe Juaristi

Politika, arte, literatura, zientzia eta teologiako postu **goi** gehienak bereganatu zituzten. Xabier Olarra

Kostako puntu **goietan** zenbait gotorleku eraiki zituzten, egun suntsituak. Koldo Izagirre

Hegazti harrapari batzuk aireratu dira bakarrik, eta zeru **goietan** galdu. Karlos Zabala

Eta, albistek zeru **goietatik** jausiko ez zaizkigunez. Karlos Zabala

Oso hasiera **goi**-landua atera zait, aukeran landuegia. Javi Cillero

### 2 (adizlagun gisa) gora, goian.

Aizkora **goi** jasotzen zuela ikusi nuelarik. Edorta Jimenez

-Odol tentsioa **goi**, oso **goi**. Edorta Jimenez

Edontzia Edontzia **goi** eta burua atzerantz barrez lehertu zorian den mutilak. Edorta Jimenez

Euria **goi** eta behe ari bazuen ere. Anjel Lertxundi

Izan ere, zoritxarreko herria dun hau; **goi** eta behe zoritxarra dariona. Juan Garzia

### • 3 iz goialdea.

**Go**i ilunera begira gindoazen. Joseba Sarrionandia

**Go**i horietan, goizeko haizeak azoka esnatu berrien hats bortitzak eta ustel usainak aienatzen zituen. Karlos Zabala

Kamioi altu bat zen, sei gurpilekoa, eta tu egin geniezaiekeen **goi** hartatik aldamentetik igarotzen zitzaizkigun autoei. Koro Navarro

Teilatu maila batetik bestera pasatu eta **goi** guztian zehar ibiltzen uzten zutenak. Karlos Zabala

Abuztuaren erdialdera **goi** historikoa jo zuen petrolioaren prezioak. ik beherago 151. Berria - Ekonomia

Begira, azkenik, **goi** eta behe besarkaturik, lur osoa hartzen duen zeru horri. Xabier Amuriza

**Go**i eta behe, bi erpinak bateratuz. Pello Zabala

Jainkoak **goia** eta behea egin baitzituena, zerua eta lurra, aberatsak eta pobreak, eta maila horiek ezin dira nahastu. Joan Mari Irigoien

Han **goietan** jαιο eta Ega izenekoan hiltzen (?) den ugaldeari. Iñaki Segurola

Elorria loretan, artaldeak **goietan**. Pello Zabala

Batean beheari eta bestean **goiari** begira. Joan Mari Irigoien

### 4 zerua.

**Goi** urdinean zopilotreak erortzen. **Joseba Sarrionandia**

Frantzia aldetik datorrena, frantzi-iparra deitzen zaion hori, **goia** lainoz garbitu, eta giro lehor hotza ekarri. **Pello Zabala**

Odei motzez osoro illundu da **goia**. **Pello Zabala**

Hegazkinak **goia** hartu zuenean Stoneham gaineko laino arrosak ikusi nituen. **Bernardo Atxaga**

Baina badakizu, barrio batetik atera denak, **goia** irabazi duenak ez du aitortzen handik datorrenik. **Pako Aristi**

Eta **goietan**, urdin orbangabea. **Pello Zabala**

**Goietan** izarren argiak ageri ziren. **Karlos Zabala**

Pentsu dut, **Goiko** artzain onak xoko bat atxiki duela Laurentxo langilearentzat. **Herria**

## 5 (deklinabide atzizkiez; **goian**)

Eguzkia **goian** dago -esan zion Legolasek-. **Agustin Otsoa**

**Goian** bada tranpaltxo bat, normalean eskailera-buru deituko dioguna. **Josu Zabaleta**

**Goian** aipatu diren bi argi puntuak. **Josu Zabaleta**

Etxeak bi leiho baizik ez zituen **goian**, eta bakarra, sukaldekoa, behean. **Bernardo Atxaga**

Ez zen zaila izan leihatilara iristea, ez baitzegoen oso **goian**. **Juan Kruz Igerabide**

Han **goian**, ezpondaren goialdean gelditu zen. **Joxe Austin Arrieta**

Gaztelako erregearen bandera zeraman mastaren **goian**. **Felipe Juaristi**

Zentroa hain erdian edo **goian** ez zegoen garaian. Hatzak mugitzen ditu **goian-behean**, teklak edo -bere kasuan botoiak- aurkitu nahian. ik behe-rago 153. **Iñaki Seguro**

## 6 (deklinabide atzizkiez; **goiko**)

Handik hara, gora egin behar, **goiko** Paris hartaraino. ik goiko. **Karlos Zabala**

**Goiko** atsoa eskaileretatik behera zetorren momentuan. **Sonia Gonzalez**

**Goiko** esakunea garrantzi handikoa da. **Ibon Uribarri**

Alde egiten ikusi zaitut **goiko** leihotik. **Joxemari Iturralde**

**Goiko** ezpaina ez zitzaion ikusten. **Koro Navarro**

Gero, Frantziaren zerbitzuari aitzindari ospetsu bilakaturik, Estatuaren **goiko** mailetara gazterik igan zen. **Piarres Xarriton**

Azken orrialdearen **goiko** aldean, Miss Venezuelari buruzko artikulu bat zetorren. **Bernardo Atxaga**

Eta **goiko** bere gelara erretiratu da. **Txillardegi**

Etxe hutsaren **goiko** geletatik. **Anton Garikano**

Einsteinek mahaiko **goiko** tiradera ireki eta xake-joko bat atera zuen. **Fernando Morillo**

Gerora, nerbio-sistemaren **"goiko"** eta "beheko" mailen doktrina berriek mugiturik, **goikoek** behekoak inhibititu eta behartzen baitzituzten, antza, zera adierazi zuen: [...].

**Xabier Olarra**

· Gauza bera gertatu ohi da beheko naturarekin, **goikoarekin** erkatuz gero. **Joan Mari Lekuona**

Orri hau hutsik entregatzen badiot neure **goikoari**, gozoa jarriko zait... **Agurtzane Juanena**

Posta etxea, polizia-bulegoak eta gobernuaren egoitza abandonaturik zeuden **goikoen** aginduz. **Karlos Zabala**

## 6a (deklinabide atzizkiez; **goitik**)

Orduan mintzo bat etorri zitzaion **goitik**, esanez: [...]. **Askoren artean**

**Goitik** datorren euritik babesteko. **Josu Zabaleta**

**Goitik** hartutako argazki bat zen. **Jokin Muñoz**

Arretari eustekotan, **goitik** dabilen eta goian bukatzen den doinua premiazkoa zaio nonbait. **Andoni Egaña**

Agindua **goitik** zetorrela. **Inazio Mujika Iraola**

**Goitik** inposatutako proiektua zela. **Edurne Elizondo**

**Goitik** hasi eta beheraino zikindu zen balearen odolaz. **Fernando Rey**

## 7 goi administratzaile

Korsikan izendatu **goi**-administratzaile eta polizia zenbaitek. **Itxaro Borda**

## 8 goi administrazio

Mugaz bi aldetako **goi** administrazioek ez dute horrelako proposamenik onartu. **Herria**

Gure eskolatan hutsuneak badaude, baina hutsunerik handienak **goi administrazioek** ipintzen dituztenak dira. **Berria - Euskal Herria**

## 9 goi agerkunde

Kristautasunak sinesten duen Jainkoaren **goi**-agerkudeari. Horretarako erabili izan den filosofiak hasieratik toki bat gordetzen dio **goiagerkudeari** eta horrek gizakiarengan sorrarazten duen fedearen erantzunari. **Askoren artean**

Kant du gogoan, baina polemikoagoa da **"goi-agerkudeari** zor fedea", bera berriz, "agerkunde filosofikoa" deritzanaren alde ageri da. **Askoren artean**

## 10 goi agerpen

Aurrez azaldua baitzion, **goi-agerpen** santuen bidez, gerora gertatuko zena. **Askoren artean**

Bere baitan erabat bildurik, **goi-agerpen** honen misterioa sakontzera jarri zen. **Askoren artean**

**Goi-agerpen** batek eraginda igo nintzen. **Elizen arteko biblia**

San Frantziskok **goi-agerpenez** jakin zuen Jainkoak bidaliak zirela. **Askoren artean**

## 11 goi agintari

Kateko gainerako saltzaile guztien eta **goi**-agintari guztien aurrean. **Joxan Elozegi**

Terraza haietan emirraren gortea kokatuko zen, eta, haren ondoan, khan aliatuak, khanerrietako **goi** agintariak eta Turkestango subiranoen haremak. Den-dena bat etorri zela Armadako **goi** agintariak, beren medikuen aholkuz, han Lisboan egiteko agindu zutenarekin. **Karlos Zabala**

Kubako **goi**-agintariak eskua itsu-lapikoan sartu nahi dute; denek. **Edorta Jimenez**

## 12 goi agintaritza

Hiriburu txiki eta jendez gainezka dagoen hori ez da **goi**-agintaritza militarreko kuartelaren iruditik urrun. **Edorta Jimenez**

Direktorioko **goi**-agintaritzako beste zenbait kiderekin batera. Kubako Armadako **Goi** Agintaritzako buruaren semea. **Edorta Jimenez**

Edozein gezur transmitituko zuten **Goi** Agintaritzara, hoguei mila tonakoa hondoratu zutela, auskalo. **Koldo Izagirre**

Han zeuden batzarturik komandante bat eta bere **goi** agintaritza. **Xabier Aranburu**

## 13 goi aginte

1937ko apirilaren 25ean, igandea, Von Fichthofen, Vigon eta Velardi **goi-aginteko** militarrek Burgosen bildu ziren. **Edorta Jimenez**

Adibidez, **goi** aginteei muzin egiteak dakarren heriotza bortitza. **Berria - Kultura**

## 14 goi ahalmen

**Goi**-ahalmenetan, bereziki arrazonamenduan. **Joan Mari Lekuona**

Bihotza jaso, bere **goi**-ahalmenak aurkitu, Jainkoaren presentzia barruan kontenplatu. Logika orokorra ezagutzaren **goi**-ahalmenen sailkaketarekin zuzenki bat datorren plan baten ganean eraikitzen da. **Ibon Uribarri**



Bada beste testigantza bat **goi**-ahalmenetan, borondatean, maitasunean dagoena. Joan Mari Lekuona

## 15 goi aldapa

Belasoro **goi** aldapa handikoak. Patziku Perurena

## 16 goi aleman

Antzinako **goi** alemanaren aldi osoan. Isabel Arrigain

Antzinako **goi** alemanez, lehen elementua ez zen aditz elementua, izen bat baizik. Isabel Arrigain

Antzinako **goi** alemanezko idazkietan. Isabel Arrigain

Horrelako bikoteak ditugu erdiko **goi** alemanez: [...]. Isabel Arrigain

## 18 goi altxatze

Jainkozko **goi**-altxatze eta estasi-aldietan. Askoren artean

## 19 goi apal

Liburutegiko **goi** apaletara begira geratu zen Enrike. Iñaki Iñurrieta

## 20 goi apez

Sermolariak, diakonoak, fraideak, hadjiak, **goi**-apezak, muazinak, brahmanak. Xabier Olarra

## 21 goi ardura ik probidentzia.

Eta Jaungoikoaren **goi**-ardurak ez du horregatik desohorerik nozituko, bidegabekoak justiziaz tratatzen dituelako. Imanol Unzurrunzaga

## 22 goi arduradun

Irakeko Barne Ministerioko **goi** arduradun bat eta haren bi bizkartzain hil zituen atzo erresistentziak Bagdaden.

Saddam Hussein eta haren aginteko beste **goi** arduradunak. Berria - Mundua

Gutunak saileko **goi** arduradun baten sinadura darama. Pello Salaburu

IBMk duela zenbait urte enpresako **goi** arduradunen artean egindako ikerketa batek. Txema Ramirez de la Piscina

Etikanik gabeko portaera honek krisi larria eragin zuen NYT kazetan [...]: bost **goi** arduradunek dimisioa eman zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Geneak dira, garbi, animaliairen eraikuntzan **goi**-arduradun. Juan Garzia

## 23 goi argi

Une hartan, **goi**-argiaren eraginagatik-edo, oilarrak berde-berdea zirudien. Joan Mari Irigoien

ik goiargi.

## 24 goi argibide

Gure arbasoek Justinianoren Bilduma idoro zutenean, halako **goi** argibidea izan zuten. Andres Urrutia

## 25 goi arima

Gizaki bikain hura, **goi**-arima hura, zen [...] tortura-leku hartako lehendakaria, infernu hartako maisu nagusia. Joxan Elosegi

## 26 goi aristokrazia

Errusiako **goi** aristokraziako kidea nintzen: printzea, Krapotkin bat. Matías Múgica

## 27 goi arnasa (orobat goiarnasa)

Galleoren liburuen artean ediren zuela osabak bere arimaren hatsa eta **goi**-arnasa. Joan Mari Irigoien

Lehen begiratura, Jainkoaren pareko izate hori gizakion betiko amets edo **goi**-arnasa izan da, eta da. Karlos Linazasoro

**Goianasak** basoan zabiltzala jo bazaitu, Bitoriano Gandiagarena egin dezakezu: adar mardul bat hartu, eta lurlean idatzi, ahal duzun bezain laster hara itzuliko zaren esperantzan, paper eta guzti. Joxerra Garzia

Egizue otoitz, Kiribilaren izpirituak gure buruzagi bedeinkatua zorionaren **goi** arnasaz bete dezan. Joxan Elosegi

Ezkontideek izadiaren **goi** arnas gozoei men egin eta harrokeriazko aurreiritzien aurka borrokatu behar ez duten une horretan bertan. Andres Urrutia

**Goi** arnasaren hatsak berriro epelduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer nolako hizkera arrunt, galdu, **goi**-arnasik gabea darion bertso sorta osoari. Anjel Lertxundi

## 28 goi asmo (orobat goiasmo; ik goiasmotsu)

Eta, Jeanne sutzarrean erre zutenean, Gillesen itxaropen eta **goi**-asmo guztiak bertan behera joan ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Famariak gabea ez ezik baita **goi** asmoetatik urrun ibilitakoa ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Horra bi esalditan nire **goi**-asmoak porroskaturik, nire balizko harrotasunak lurrarekin berdindurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Borreroarentzat, sinestun den aldetik, Jesukristo gurutziltzatzea litzateke **goi**-asmorik ederrena. Karlos Linazasoro

Aspaldiko **goiasmoa**, giputxena, kastillano garbi izan nahiarena. Patziku Perurena

## 29 goi atmosfera

Berez, **goi** atmosferan dago [ozonoa]. Berria - Gaiak

1980 eta 2000 urteen artean **goi** atmosferako ozono geruza %3 mehetu zen. Berria - Gaiak

Lurreko **goi** atmosferan agertu ohi diren argiak ikertu dituzte adituek. Berria - Gaiak

## 30 goi auzitegi

Londresko **GoI** Auzitegian Ingalaterrako Bankuaren aurkako epaiketa hasi zen atzo. Fernando Ruiz Piñeiro epailea izendatu zuten EAeko **GoI** Auzitegiko buru joan den otsailean. Berria - Ekonomia

Norvegiako **GoI** Auzitegiak ebatzi zuen [...]. Lille hiriko **GoI** Auzitegiak Cofidiseko txirindulariaren helegitea ezetsi du. Berria - Ekonomia

## 31 goi auzo

Omskeko **goi** auzoa gotorleku antzekoa bihurtu zuten. Gero eta gehiago estutzen ari zen hiria **goi** auzoaren setioa. Karlos Zabala

## 32 goi batzorde

Hezkuntzako **goi** batzordea kontra. Herria

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako **GoI** Batzordeko arduradun Louise Arbourrek.

Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuentzako **GoI** Batzordeak.

Israelgo Palestinarren **GoI** Batzordeak Nazaretoko etxeetan zapi beltzak jartzeko eskatu zien herritarrei. Berria - Mundua

## 33 goi-behe pl

Jaitsi egin zituzten beren biolinak, eta geldi geratu ziren, ordurako salaren **goi**-beheak hartuak zituen doinua entzuten. Felipe Juaristi

Mudejar itxurako ornamentazio geometriko eder batek hartzen zituen azalaren lau aldeak eta bizkarraren **goi**-beheak. Anjel Lertxundi

Handia da mundua, mugarik gabea, haren **goi-beheak** neurririk gabeak. Elizen arteko biblia

## 34 goi bilera

1998ko maiatzaren hasieran Bruselan "euroaren **goi bilera**" izenekoa egin zen. Iñaki Heras

Lurraren **Goi Bilera** deituan hartutako akordio guztiak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1992an Rio de Janeiroko **Goi bilera**n onartutako dokumentuek balio handia dute gaur egun ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Johannesburgeko hurrengo **goi bilera**n benetako protagonista izango zen Gizarte Foroa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde



**Goi bileraren** emaitzak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizarte Garapenerako Mundu Mailako **Goi Bilerak**, 1995 eko martxoan Kopenhagen eginak, gizarte garapenaren eta gizateriaren ongizatearen garrantzia azpimarratzen zuen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mexikoko Monterrey hirian Ameriketako **Goi Bileran** bildu diren 34 herrialdeetako agintari politikoak. Berria - Mundua

## 35 goi bilkura

Ondoren, **goi** bilkurako gai nagusiaie ekingo diete. Miarritzeko **goi** bilkuran, funtsezko eskubideen karta onartu zen. Berria - Mundua

Mundu guziko ekonomia gogoan, **goi-bilkura** bat egina izan da Suisan, eta horren kontrakoa izan dena nolazpait Hego-Ameriketara, Porto Alegre hirian. Herria

## 36 goi bizitza

Errusiara **goi**-bizitzara gidatzeko. Jose Morales

Zeina **goi** bizitzarekin konparatuz heriotza baita. Imanol Unzuurrungaga

## 37 goi bulego

Eta zuk kargu ezin hobea jasoko duzu, edozein **goi**-bulegoko buruarena baino hobea. Jose Morales

## 38 goi burgesia

Maria Kristina erreginak udako egoitza Donostian finkatu zuen, eta gortearen presentziak **goi burgesiako** hiritarren gorte ugaria erakartzen zuen hiriak. Askoren artean

## 39 goi buru (ETCn 39 agerraldi; orobat goiburua) goi buruzagia.

Armadako **goi**-buruek antolatutako jaialdian. Felipe Juaristi

Erresumako **goiburua** bildu ez gaitu ba! -segitu zuen bisirrak. Patxi Zubizarreta

Gotzaiak eta Elizako **goi** buru zenbait. Errepublikaren **goi**-buru militarrek ez ziren Brigada Basco-Pirenaica delakoak fio. Edorta Jimenez

Condor legioaren **goi**-buruaren idazkia zehatza da, hotza bezain. Edorta Jimenez

Filmak **goi**-buruegan izandako eraginaz landa, Ernest Hemingwayk afariaren kalitatea aipatuko du. Kubako agintaritzaren militarrean **goi** buruetakoak zirenei tiroka eraso zieten haiek. Edorta Jimenez

## 40 goi buruzagi (ETCn 103 agerraldi)

Errusiako Armadako hainbat **goi buruzagi** kargutik kendu ditu Errusiako presidente Vladimir Putinek, tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea. Berria - Mundua

Europako Batasuneko **goi** buruzagiak Bruselan bildu ziren ostegun eta ostiralean. Berria - Mundua

Al Kaedako **goi** buruzagi bat inguratu zuten atzo Hego Waziristanen. Berria - Mundua

**Goi buruzagi** erlijioso sunita batek. Berria - Mundua

## 41 goi buruzagitza

Hots, **goi**-buruzagitza aginduak kubatarrei helarazi eta betearaziko dizkiena izango da. Denen **goi-buruzagitza** Estatu Batuetako Navyren Itsaso-Mugaldeetako komandantearengan izango delarik. Edorta Jimenez

## 42 goi denboraldi

Jende askok **goi** denboraldian egiten du lan, hoteletan edo turismoarekin lotutako beste jardueran batzuetan. Berria - Mundua

## 43 goi dignatario

**Goi** dignatarioei emandako arrain goitizen haiek. Karlos Zabala

## 44 goi duintasun

Penitentzia xumearen bidez **goi** duintasuna berreskuratzen duena. Imanol Unzuurrungaga

## 45 goi energia

Helburu horrekin, mundu osoan egiten diren **goi**-energien inguruko esperimentu guztiak kontrolatu nahian dabilta azken urteetan. Fernando Morillo

## 46 Goi Erdi Aro

Ikaslearen ahotsa nekez heltzen zitzaion, baina hala eta guztiz ere **Goi** Erdi Aroaz, Drang nach Osten-az, eta golde mota ezberdinez hitz egin ahal izan zuten. Iban Zaldúa

Gazteluak baziren non nahi, eta **Goi** Erdi Aroan gerla leku horien jaunek erromesei zerga gaitzak inposatzen zizkieten. Piarres Aintziart

Baldin eta **Goi Erdi** Aro urrunean ere, egun bezala, etsai mairuaren kontra den-dena zilegi izan ez balitz... Martin Anso

## 47 goi eremu

Orain, eguzkiak dirdira egiten du **goi** eremuetan irudi iheskorak eratuz. Javi Cillero

## 48 goi erpin

Karpako **goi** erpinek zerurantz bideratzen dute arima guztien energia. Berria - Kultura

## 49 goi erregistro

Fraseatze txukuna, ziur **goi** eta behe erregistroan, epelago agian erdikoan. Berria - Kultura

Torres-ek, zuzentasunez eta garbi jo zituen bai **goi** erregistroko pasarte zailak zein beheko lerro lirikoak ere. Berria - Kultura

## 50 goi errendimendu

Goiak jo zuen supituan behea, itsasoa harrotu eta **goibelagotu** egin zen arratsaldea. **Hasier Etxebarria**

## goibelaldi iz zerbait edo norbait goibel dagoen aldia.

Baina, eguraldi hemengoa, gure azal honetakoa nola portatuko ote den? hori, auskalo! Batean **goibelaldia**, bestean txurialdia. **Pello Zabala**

Etxera itzultzean, ordea, berriro hartu zuen **goibelaldiak**. **Joan Mari Irigoien**

Zerikusiren bat izan behar zuen azken aldiko **goibelaldi** horrekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Atzeraldia, moteltzea, finantza merkatuen **goibelaldi** orokorra, langabeziaren areagotzea. **Iñaki Heras**

Gizonaren loak egunaren **goibelaldia** zuen abaro. **Anjel Lertxundi**

## goibelalditxo iz goibelaldi txikia.

Bizpahiru orduko **goibelalditxoaren** ostean, eguerdirako zeru urdin fuerte distiratsu garbi horietakoa utzi zuen aldenez alde. **Pello Zabala**

## goibeldu, goibel(du), goibeltzen 1 da/du ad goibel jarri, goibel bihurtu. ik ilundu; tristatu.

Ilunabarra **goibeltzen** eta iluntzen zihoan neurrian, euri xeheak egin zigun bere seigarren bisita. **Pello Zabala**

Tristatu, **goibeldu** egin zen eguraldia, bat-batean. **Joxemari Urteaga**

Zerua erabat **goibelduta** zegoela konturatu nintzen. **Bernardo Atxaga**

Gertatutakoaz **goibeldurik**. **Hasier Etxebarria**

Ni erdi-txantxetan ari nintzaion, baina kamareroa **goibeldu** egin zen kontu harekin. **Bernardo Atxaga**

Eguberrik **goibeltzen** nauen bezala alaitzen nau Pazkoak. **Joxan Elozegi**

Min horrek bihotza **goibeldu** zidan. **Imanol Unzurrunzaga**

Bera ez zuela **goibeltzen** hanka galdu izanak. **Inazio Mujika Iraola**

Baina Harry Dursleytarrekin itzuli beharrak **goibeltzen** zuen gehien. **Iñaki Mendiguren**

Bat-batean, hitz horrek izpiritu guztia berotzen eta denbora berean **goibeltzen** zidan. **Daniel Landart**

"Zer du ederrik abesti triste honek? -pentsatzen zuen Platonovek-, are gehiago **goibeltzen** dik arima." Oroitzapen ilunek **goibeldu** zioten bekokia. **Jose Morales**

-Nik ez dut **goibeldu** nahi, nik erne ibil dadin nahi dut! -erantzun zion Weasley jaunak-. **Iñaki Mendiguren**

Damuz beterik betetzen dut ankerki **goibelduko** zaituen berri bat zuri emateko eginkizun tristeia. **Jon Muñoz**

Karbono monoxidoak **goibeldutako** fatxadak. **Unai Iturriaga**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Egelenari ere gogoratuko zitzaion ateraldi zuzenagorik gure gogo **goibelduari** argi pixka bat eranstekotan. **Aingeru Epaltza**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bihotza goibeldu** (4); **eta goibeldu** (3); **eta goibeltzen** (4); **ez goibeldu** (4); **goibeldu egin** (15); **goibeldu egin zen** (6); **goibeldu egin zuen** (3); **goibeldu egiten** (7); **goibeldu zitzaion** (3)

## **goibeldura** iz lunpea; ilunpea.

Galerna aurreko **goibelduran** estiborreko seinaleak argitu balu bezala gorritu zen Huck. Koldo Izagirre

Anak berak arindu zidan irabazitakoa galdu gabe nola jokatu asmatzeko lana: haren irriñoak istant bat lehenagoko **goibeldura** ahantzaraztea zuen helburu garbia. Aingeru Epaltza

Erakusteko euskaldunen elkartasuna eta borrokak, **goibeldurak** eta amodioak... Herria

Parton ospetsuaren K7a andeatzeak ematen zidan **goibelduraz** gain. Itxaro Borda

Bob Marleyren ahots etenak Laura Paussiniren **goibeldurak** baino gehiago irauenen duela musikaren historian. Pako Aristi

## **goibelkiro** adlag goibeltasunez.

Haien zenturiaburuak Fossa zuen izena, eta arraro, absurdu eta **goibelkiro** irrieragingarri ere bada, orduko egoera kontuan harturik, hura [...] gerra-hilerri galdu batean ehortzirik egotea, eta ni, berriz, hementxe, bizirik eta hainbestean kalterik jasan gabe, historia hau idazten. Juan Garzia

## **goibelkor** izond goibeltzeko joera duena.

Kristautasun hits, **goibelkorraren** aldean, euskal espiritu jentila baikor alaia da, gerran zein lanean. Joxe Azurmendi

## **goibeltasun 1** iz goibela denaren nolakotasuna.

Hegoaldeko lautadak eta basamortu mugarik gabeetako eguzkia zituzten solasgai, haien aipamenak eguraldiaren **goibeltasuna** arinduko zielakoan-edo. Anjel Lertxundi

Bidaia bat egitea hainbat probintzian barrena; agian, **goibeltasuna** sendatuko zidak horrek. Jose Morales

**Goibeltasun** izugarri eta itxaropenik gabearen har aseezina bihotzaren alboan kiribildu zitzaion. Jose Morales

Gogoaren **goibeltasun** irtenbide gabea. Koro Navarro

Parean den mendi ilun handia **goibeltasunez** inguratua da. Aurelia Arkotxa

**Goibeltasunez** busti-busti eginda dagoen tristura latz eta ilun baten istorioa. Pako Aristi

Gizonak **goibeltasunez** josi irri bat egin zion. Elena Touyarou

Zanpez eraso nauen haizeak eta ere eremu honek sortarazi **goibeltasunak** uzkurto naute, kasik izitu. Piarres Aintziart

Nire denborako lehen hilotzak ikusi nituen orduan, puzturik eta moreturik, bi gazte eta mutikoa, ni baino zaharxeagoa, eta **goibeltasunaren** doinua haragi-haragian txertatu zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

### 2 (hitz elkartuetan)

Burumakur eta eskuak gabardinako poltsikoetan sartuta, **goibeltasun** nota hits bat jartzen zuten Argiaren Hiriko espaloi jendetsuetan. Alberto Ladron Arana

Baina kontakizun haiek entzuteak halako **goibeltasun** sentazioa sortzen du gugan. Berria - Kultura

Usher Etxearen ahalmen **goibeltasun**-eragilea aldatzeko. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta goibeltasun (7); halako goibeltasun (3)**

## **goibeltsu 1** izond goibeltasunez betea.

Sarritan izana naiz Père-Lachaise-n, [...] eta ez zait inondik ere leku **goibeltsua** iruditzen. Ramon Saizarbitoria

### 2 hodeitsua.

Hegoaldeko paisaje eguzkitsuetatik atera eta "ingeles herri **goibeltsu**" batean utzi baitzuten, bakarrik, iparreko lainoetan, zaharkinen artean. Koro Navarro

Aldiz gauekoak, zeru izartsu edo **goibeltsu**, hilargi xuri edo euri, ez ditiagu huts egiten. Michel Oronoz

## **goibeltxo** izond adkor goibel samarra.

Niretzat, berriz, mendira zakurrik gabe joatea **goibeltxo** da. Gotzon Garate

## **goiburu**<sup>1</sup> 1 iz esakune helburuduna. ik **ikurriz**.

Harako liberté, egalité, fraternité **goiburua**. Andrés Urrutia

Sabino Aranaren "herrialde bakoitzak bere literatura euskalkia" **goiburua** izan zen oraingo honetan hauspoa. Koldo Zuazo

Borreroak atsoitz edo **goiburu** bat asmatu zuen, sukaldean zintzilik daukana: "Ez izan beldur borreroari, zeure buruari baizik". Karlos Linazasoro

Travenen jantziak soinean zituela ibiltzen omen zen haren esaldi famatuena errepikatuz, ideario anarkistaren **goiburuak** aldarrikatuz. Joxean Agirre

"Moldatzen ikasi beharra dago gauzak ikusi gabe", eman zuen abisua Heisenbergekin aspaldi; itsuen elkarte bateko **goiburua** dirudi, eta halaxe da, ikusi gabe etsitzen ikasitako fisikoena da. Iñaki Segurola

### 2 izenburua

Izan ere, gutunaren **goiburuan** dio: kristau guztiei: erlijioso, kleriko eta laiko... Askoren artean

Emazteak arretaz erreparatu zion gutunazalaren goiko ertzetako batean ageri zen **goiburu** ofizialari, eta berehala ohartu zen zirkulazio-isun bat zela barrukoa. Josetxo Azkona

Gainontzekoek Gazte!!! **goiburuaz** hasten ziren panfletoz estali zuten bulegoa. Iban Zaldúa

Erregutzen diat, beraz, niregana etor hadila bulegora, **goiburuan** datorren helbidera. Eskarne Mujika

V. kapituluaren **goiburua**. Xabier Etxabe

Izenburua eta ataletako **goiburuak**. Askoren artean

· Tirana, tiraniaren hiriburua edo antzeko **goiburua** izango du erakusketak. Edorta Jimenez

Dantza pantailan **goiburupean**, dantzari buruzko zortzi dokumental emango dituzte. Berria - Kultura

### 3 helburua.

Anarkismoa zen arazo guztientzako askabidea, anarkismoa izango zen aurrerantzean nire **goiburu** eta ideologia. Xabier Mendiguren Elizegi

Iduriz Michelcok biziaren **goiburua**, ideala, bertze nunbait ezartzen zuen. Michel Oronoz

Gorespen publikoa **goiburu** duen gizartea; gaitzespen publikoaren bidez zigortzen duen gizartea. Askoren artean

### 4 goiko burua.

Nire adarrak astindu bat jo zuen, eta lasien **goiburuak** bizi-bizi hurbildu zitzaizkidan, zuhaitz adaburu berdeak bailiran. Koro Navarro

## 5 goiburupean goiburuaren azpian.

Berriro gerta ez dadin **goiburupean**, milaka eta milaka pertsona bildu ziren atzo arratsaldean.

Torturarik ez! **goiburupean** egitarau zabala prestatu du Santurtziko Torturaren Kontrako Taldeak.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
du goiburu (4); goiburu gisa (3); izango du goiburu (3)

goiburu<sup>2</sup> ik goi 39.

## goiburuko iz idazpurua.

Euskal-Erria aldizkariko lehen zenbakian (1880ko uztailakoa) bat aurkitzen dugu, eta geroztik ohiko bihurtu ziren aldizkari horretako orrietan, Somaketa edo Asmaketa **goiburuko** zutela. **Iñaki Arranz**

## goien (orobat goihen g.er.) 1 izond goren.

Busturiako lur **goienetan** barrena abiatu zirenetik. **Joanes Urkixo**

Eguzkia zeru **goienean** dago. **Jose Morales**

Maiestatearen eskuinaldean eseria dago zeru **goienetan**. **Askoren artean**

Serafin bat ikusi zuen zeru **goienetik** jaisten. **Askoren artean**

Zeru **Goienetako** Arkitekto Nagusia. **Jon Alonso**

Ikusten irudia zer denbora laburrean jausten den eter **goienetik** lur barrenera? **Xabier Amuriza**

Pasatuz beheko errejistroetatik **goienetaraino**, akatsik gabe. **Berria - Kultura**

Bere helmuga **goiena** gizakia izan arren. **Jenaro Garate**

Zerua da **goiena**, lurra behekoena. **Joan Mari Lekuona**

Robespierrek inposatu zuen "Etre suprême"edo Izaki **Goienaren** besta ospatu zuten ziburutarrak arras guti izan ziren. **Elena Touyarou**

Ez zen dohaina, axolagabetasun **goiena** baizik, nortasun falta erabatekoa. **Karlos Zabala**

### • 2 izlag

Ekintza estetiko baten **goien** gradua. **Koldo Izagirre**

Gure gixonkasta ohoratzen eta bere **goien** graduraino goititzen duen ezaugarritzat. **Iñaki Segurola**

Bitxia eta berezia da nehon berezirik bada, eta **goien** gradura eramaten du Pasaiaiko etxeen ezaugarri bikoitza. **Koldo Izagirre**

Bush seme hupatu delarik **goien** alkira, berriz agertu da Wolfowitz eta bereziki irailaren 11-aren ondotik. **Herria**

**Goihen** edo goren lekuan zelakotz. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Larunbat 20an **Goien** mailekoak Landesetan (Saubusse) bi partida 5 orenetan. **Herria**

Bi apez gazte dira (34 urte) Frantziarar jinek beren erlisioneko itxiduen aintzinzatzeko bat dretxo katolikoan, bertzea Biblian Tolosako **goihen** eskolan. **Herria**

### • 3 iz goien alde.

Hala ere, **goienera** jasotzeko balio dute. **Joan Mari Lekuona**

Emakume bat zegoen eskaileraren lehen mailadiaren ia **goienean** zutik, ilunpetan hura ere. **Irene Aldasoro**

Eta segidan azken eguzki-errainua etxe **goienetan**. **Joxe Austin Arrieta**

Artoa bere **goienera** eta ilargia bere lodienara heldu arte. **Anton Garikano**

### 4 goienen goiena.

Hemen dago gauzarik **goienena**, ezerk gainditzen ez duena. **Joan Mari Lekuona**

Dohainik bikainenak eta **goienenak**. **Joan Mari Lekuona**

### 5 goien-goien

**Goien-goieneko** subiranoa, gauza guztien gainekoa, bere mendekoen bizitzak eta ondasunak bere erara erabiltzen dituena. **Karlos Zabala**

**Goien-goieneko** zoriontasunez. **Joan Mari Lekuona**

### 6 goiena jo/lortu

Uste izanez **goiena** jo dutela, egoera bikainean daudela. Baina, **goiena** lortu zuenean, haren hegaletako luma artean ezkutatutako birigarroak egin zuela oraindik ere gorago. **Joan Mari Lekuona**

### 7 goieneko/goiengo izlag

**Goieneko** alde horietara. **Pello Zabala**

**Goieneko** mailara jasorik. **Joan Mari Lekuona**

Hantxe zegoen Joselu, eskailerako **goieneko** mailan jesarrita. **Josu Landa**

Egiaren **goieneko** mailara iritsi nahi dutenek. **Joan Mari Lekuona**

Kontenplazioaren **goieneko** gailurretara igo zen. **Askoren artean**

Maila hau, hala ere, oso urruti dago **goieneko** hartatik. **Joan Mari Lekuona**

Edozein mailatan datzala, behenekoan, **goienekoan**, erdikoan. **Joan Mari Lekuona**

Parabolaren **goiengo** puntuan. **Harkaitz Cano**

**Goiegooa** ez da gainditua izan, Pasai San Pedrokoek beti bere daukate, duela bederatzirte irabazirik 20 minuta eta zortzi segunduz eginik hiru joan-jinak. **Herria**

Tolosan, 44 grado itzalean, aro ikertzaleek hori daukate **goiengo** bezala. **Herria**

Hango maiatzeko **goiengo** 33 gradu da, Bilbokoa baino 2 gradu apalago. **Pello Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
zeru goienetan (4); zeru goienetik (7)

## goiendu, goien(du), goientzen da ad

Vressac saiatu zen azkenik senarra kanpora joana zen une batez baliatzen bizkondesari arratsean otoi arren adituko ote zion galdegiteko: orduantxe **goiendu** zen bizkondesa. **Jon Muñoz**

## goiera iz garaiera, goibehea.

Eguzkiaren **goiera** neurtzeko atondu nuen astrolabioa, horrexetarako da-eta. **Edorta Jimenez**

Esparruaren beste muturrean, **goiera** neurtzeko gailu bat dago zutik. **Rafa Egiguren**

Haiek bai harmaila malkartsuak, zabaleraz eta **goieraz** juxtu behar lukeenaren alderantziz eginak, edonori amasa itotzeko ere. **Joxe Austin Arrieta**

Hemen 2.000 metroko **goieran**, Mexikon 4.000koan. **Joxe Austin Arrieta**

-Ba al dakik zenbateko **goiera** duan? **Rafa Egiguren**

Zubia egitera zihoazen, bi **goieratik** batera hasita, hauek ibaiaren alde honetatik, haiek bestetik. **Pako Aristi**

## goierritar izond/iz Goierrikoa, Goierri dagokiona; Goierriko herritarra.

Udaletxeko atarian ere ez zen agertu, bilera bukatu zenutenean larunbat triste hartako eguerdi gris **goierritarrean**. **Lourdes Oñederra**

Aipatu dudan beste errefuxiatu bat, **goierritarra** izan behar duena. **Agurtzane Juanena**

**Goierritarrak** Sakanakoekin batzen zirenean. **Koldo Zuazo**

Begi berdeak zituen **goierritar** hari. **Lourdes Oñederra**

Arrazoi horregatik, ordiziar, **goierritar** eta herritar orori AHTren aurkako ekimenetan parte hartzeko dei egiten diegu. **Berria - Euskal Herria**

Txalotzekoa da **goierritarren** lana. **Berria - Kirola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eskalatzaile goierritarrak** (3); **goierritarra eta** (3); **goierritarra k** (3)

## goikalde ik goialde.

## goiko 1 izond garaia.

Beren erpin **goikoa** difuminaturik horixkatuta... Eta hain da **Goikoa**! **Pello Zabala**

## 2 (G larriz) Jainkoa.

Zorakeria zela nire bizitza bezalako huskeriaz arduratzea, **Goikoaren** ahalmenen erakusgarri hain zoragarria ikusteko aukera izanik. **Koro Navarro**

## goilare ik koilara.

## goimendi ik goi 116.

## goimendizale iz mendigoizalea.

Ondotik Robert Larrandaburu **goimendizale** larraintarrarekin mintzatu ahal izan gira goxoki. **Herria**

## goitar (orobat goitiar) izond goikoa, goiari dagokiona.

Neurriz gaineke sentimenduak: amodiorik **goitarrena** eta gorrotorik beltzena. **Alberto Ladron Arana**

Utopia, barne-askatasuna eta "kontzientzia **goitarragoa**" bilatuz. **Xabier Olarra**

Musika zirraragarria, **goitarra** eta, aldi berean, indartsua... bortitza. **Alberto Ladron Arana**

Ezin ulertu ohi du gizon arruntak, ni bezalako gizaseme **goitiarrik** bizi daitekeenik mundu anker honetan. **Hasier Etxeberria**

Arimaren kemenik **goitiarrenak**. **Joan Mari Lekuona**

Baneukala helburu **goitiar** bat, baneukala norabide bat. **Hasier Etxeberria**

Bestela ezin adierazizko nazka batek hartzen baitit bihotza, ez bere nazkak, nazka **goitarrago** batek baizik, nazka handiago, arbuizatzaileago batek. **Josu Zabaleta**

Sorreraz, **goitiarra** baita, zerutiarra, bere zuztarrak ez baitira lurrarekin zikintzen, altu daude; baina, hala ere, jana eta elikadura, hazgai eta azkarri guztiak lurretik hartzen ditu, zuhaitza medio, hori bai. **Pello Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**goitar batek** (4)

## goitasun iz goia denaren nolakotasuna.

Eguzkiak iresten eta jasotzen dituen bezala zokoetako ezetasunak, era berean Jainkoak, bere **goitasunetik**, izpiritua Beregana erakartzen du. **Joan Mari Lekuona**

Beren **goitasunak** berak herriaren ergelkeria arruntaren maila baino goragoko bakartasunean bakantzen dituen buru argi guztiak. **Josu Zabaleta**

Ez dakigun gerta **goitasuna** behekoen artean bilatzeagatik, goikoen orde behokoekin gu gelditzea. **Imanol Unzurrunzaga**

Itxura izugarri haren erruduna ez zen horrenbeste aurpegi iharra, edo begi beltz irtenak, bere batatxo berdexka hura baizik; izan ere, abitu marroi luzea kenduta, gorputza ez ezik bere lehengo duintasun eta **goitasuna** ere biluzi egin zizkiotela ematen zuen, erlijio-gizonaren aurazko itzala galduta gizaki soil, zahar eta gupidagarri bihurturik.

**Xabier Mendiguren Elizegi**

Oi **goitasun** miragarria eta beheratze harrigarria! **Askoren artean**

Behin, anai Junipero jainera handiz meza entzuten ari zen bitartean, espirituzko **goitasunak** hartua geratu zen luzaro. **Askoren artean**

Halako **goitasun** aire batez. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zure goitasuna** (3)

## goiti adlag gora. (ik. beheko konbinatorian goiti adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adigaiatz goiti (5); ahoz goiti (7); alorraz goiti (5); astelehenetik goiti (6); astetik goiti (6); azkarki goiti (7); azkenaz goiti (10); bat goiti (17); bat goiti beheiti (9); batean goiti (8); batetik goiti (11); batez goiti (5); batzu goiti (5); bazkaltiarrez goiti (5); beheiti goiti (7); behitrik goiti (6); berriz goiti (11); beti goiti (23); beti goiti ari (7); bi orenetarik goiti (5); burua goiti (17); burua goiti beheiti (9); da hemendik goiti (10); du goiti (5); dute goiti (5)

eguerditik goiti (7); ehun milaz goiti (9); ehunez goiti (25); erdiatarik goiti (24); erditarik goiti (5); ere goiti (6); eskaileretan goiti (11); esperientziaren mugez goiti (8); eta erdiatarik goiti (24); eta goiti (25); eta hemendik goiti (6); etarik goiti (138); etatik goiti (10); eterdiatarik goiti (9); etik goiti (16); euroz goiti (9); ez goiti (13); gaurtik goiti (6); gerritik goiti (7)

goiti abiatu (10); goiti ari (65); goiti ari da (6); goiti ari dira (6); goiti beheiti (109); goiti beheiti higitzen (7); goiti beheitiak (19); goiti beheitez (8); goiti beste (5); goiti bildu (17); goiti bildu da (9); goiti bildu dira (5); goiti botatzeko (6); goiti botatzeko gogoa (5); goiti buruz (5); goiti doa (19); goiti doala (8); goiti doan (10); goiti doaz (5); goiti doazen (7); goiti duten (7); goiti egin (35); goiti egin du (8); goiti eginen (7); goiti egiteko (13); goiti egiten (13); goiti eta (97); goiti eta beheiti (39); goiti ez (14); goiti hain (8); goiti hain segur (5); goiti hasiko (7); goiti hedatzen (5); goiti heldu (5); goiti hil (6); goiti hiru (6); goiti iraganen (8); goiti izan (10); goiti izanen (11); goiti izanen da (5); goiti jasotzen (5); goiti joan (23); goiti joateko (6); goiti ziren (6); goiti zoazte (5); guti goiti (7); guti goiti beheiti (7)

handik goiti (62); hemendik goiti (149); hortik goiti (13); huntarik goiti (13); huntarik goiti eta (6); ibaian goiti (8); irailetik goiti (15); jendez goiti (8); lagunez goiti (21); lagunez goiti bildu (7); langilez goiti (5); larunbat huntarik goiti (5); larunbatetik goiti (9); larunbatetik goiti eta (5); lau ehunez goiti (6); maldan goiti (6); mendetik goiti (6); mendian goiti (5); mila jendez goiti (5); milaz goiti (40); millunez goiti (8); mugaz goiti (8); mugez goiti (14); orenetarik goiti (69); oroz goiti (10); ortzegunetik goiti (5); ortziraletik goiti (7); patarra goiti (7); petik goiti (7); poxi bat goiti (7); tarik goiti (17); tik goiti (20); urtariletik goiti (12); urtatsetik goiti (5); urtetarik goiti (15); urtetik goiti (30); urtez goiti (20); urtez goiti duten (6); zergak goiti (5)

eta goitiago (6); urtez goitikako (6); urtez goitikakoak (3)

goitiar ik goitar.

## goitiarazi, goitiaraz, goitiarazten du ad goitizera behartu,

Haren burua miko bat **goitiaraztera** entseatu zara, baina horretarako ere ez du indarrik. **Xabier Montoia**

## goitibeheiti (ETCn 17 agerraldi; orobat goitibehiti g.er. eta goiti(-)beheiti ETCn 423 agerraldi) 1 adlag gorabehera.

Parraxal lehorren bat **goitibeheiti**, hortzak erakutsiko dizkiogu elkarri, kortesiak agintzen duen lege berrira, han edo hemen elkarrekin topo egitean. **Patziku Perurena**

Janzkera **goiti-beheiti**, hogeii urte lehenagokoak izan zitezkeen, beren hartan harri bihurtuak. **Aingeru Epaltza**

Denbora poxi bat **goiti-beheiti**, lan asurti zerbait kausituko zuela orobat. **Janbattitt Dirassar**

### • 2 iz pl gorabeherak.

Bidea patartsu, bere **goitibeheiti** etengabekoekin. **Piarres Aintziart**

Baina bizpahiru kilometroz edo bidearen **goiti beheitiek** olatu uhinduaren goxoarekin eramaten gintuzten. **Piarres Aintziart**

Laneko **goiti-beheitiak**. **Aingeru Epaltza**

Zenbait urte geroago, Parisko Gortean antzerki lan bat ikusiko nuen lehen aldiz, eta orduan, arizaleen jardunak, haien bozaren **goiti-beheitiek** bereziki, gogora ekarriko zidaten Zalgizeren irakurraldia. **Aingeru Epaltza**

### 3 gutxi goitibeheiti gutxi gorabehera.

Eta gauza bera gertatzen da beste animaliekin ere, gene motetan denak, gutxi **goiti beheiti**, denak bat baikatoz. **Pello Salaburu**

Badira diosalak galderen ordeko baizik ez direnak, eta ordukoa garbi zegoen: "nor deabru zaitut eta nora demonio zoazkit?", guti **goiti-beheiti**. **Aingeru Epaltza**

Gutxi **goitibeheiti** orain bi mila urte. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

goiti beheiti (109); goiti beheiti higitzen (7); goiti beheitiak (19); goiti beheitez (8)

## goitibeheitika adlag gora eta behera.

Eta hortxe ehunen bat metrotara edo, airatu eginen zaizu, eta bospasei hegaldi kiribil egin **goitibeheitika**, bere lumaje xuribeltx gorrixka erakutsiz. **Patziku Perurena**

## goitibehera iz aldapan behera joateko gostailua, hiru gurpleko orgatxo modukoa.

Aratsaldean, 5etan, **goitibehera** lehiaketa. **Herria**

## goitika 1 adlag oka eginez.

**Goitika** hasi nintzen. Etxeko horman ukalondoaz bermaturik **goitika** ari zara. **Xabier Montoia**

Zorionez **goitika** bota zuen geroxeago. **Gotzon Garate**

Goizeko ordu txikietan **goitika** eta behetika Lekuineko gaztea larri. **Berria - Kirola**

**Goitika** bukatzen zuen, gontzatarik ateratzeaz, prozac pastilla bat ematen zioten arte. **Itxaro Borda**

Sumendiaren kraterrak sugar azao bat iraitzen zuen **goitika**. **Juan Garzia**

Minutu bat geroago, sudurpean odol negar mehe bat zuela itzuli zen, hats **goitika**. **Aingeru Epaltza**

### • 2 iz goitika egitea; goitika egiten dena. ik goitiko; gorako; oka.

Eramaten dituzten zaurituen odol **goitika** bakoitzak. **Monika Etxebarria**

**Goitikaren** mikatza nabari duzu aho-sabaian. **Goitikaz** beteriko ohe batean esnatzean bezain higuindurik sentitzen nintzen. **Xabier Montoia**

### 3 goitika egin oka egin.

**Goitika** egiteko gogoa nuen. **Monika Etxebarria**

Goizeko ordu txikietan **goitika** eta behetika Lekuineko gaztea larri. **Berria - Kirola**

Moketa gainean ez **goitika** egiteko erregutu zidan dermatologoak. **Joxan Eloseg**

### 4 goitika eragin oka eginarazi.

Ikusi zerbait **goitika** eragin dizula. **Xabier Montoia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta goitika (7); goitika ari (3); goitika egin (4); goitika egiteko (6); goitika egiteko gogoa (4)

## goitikarazi, goitikaraz, goitikarazten du ad goitikatzer behartu.



## **goitkatu**, goitika(tu), goitikatzen du ad goitika egin, goitika bota.

Ur berde nazkarria **goitkatu** nuen gorpu gozogatzearen gainean. **Karlos Linazasoro**

Ke beltza **goitikatzen** zuen arratseko airera. **Agustín Otsoa**

Mendiak **goitikatutako** suzko uholdeak iparraldeko eta mendebaldeko aldapetan behera amildu ziren. **Agustín Otsoa**

Zer **goitkatu** zuen zeru goienak? **Karlos Linazasoro**

## **goitikin** iz oka, goitika, gorakoa.

**Goitikinez** eta gorotzez tindatu gela hertsian. **Itxaro Borda**

**Goitikin** eta kaka meta lehortuen artean. **Itxaro Borda**

Sammath Naurek lurrin eta kezko txurruta bota zuen, konoaren albo arrakalatu eta, uholde geldo eta gorgarria osatuz, **goitikin** eskerga eta gorria amildu zen mendiaren mendebaldeko aldapan behera. **Agustín Otsoa**

## **goitiko** iz oka, goitika, gorakoa.

Gizendu ere egin nintzela suma zitekeen, ez horrenbeste ordea, abortuaren ondoren argaldu egin bainintzen, ugaldu ziren **goitiko** poderioz. **Joxan Elosegí**

Eta hala, bainugelako zoria, dutxako manparak, bideta eta, baita ispilua bera ere, den-dena, **goitikoaz** zipriztindurik utzi zuen. **Jose txo Azkona**

**Goitiko** batean hustu zen eliza. **Koldo Izagirre**

## **goitikoka** adlag oka eginez, goitika.

Kolpe batean hurrupatuak, goragaleak **goitikoka** hastekotan eman ninduen. **Aingeru Epaltza**

## **goitinahi** iz goragalea.

Kolera agerraldi masiboak, beherakoa, **goitinahia** eta giltzurrunetan harriak [...] ur kutsatua hartzeagatik. **Berria - Mundua**

Ezin nuen urdaiazpiko ogitartekoa jan, **goitinahia** eragiten zidan eta. **Joxan Elosegí**

## **goititu**, goiti(tu), goititzen 1 da/du ad goratu, gora egin.

Ikusiz urak zirurikan ari zirela **goititzen**, joan zen gaineko estaiara. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Kristinaren mintzoa maila batez **goititu** zen xamurtasunaren eskalan. **Aingeru Epaltza**

Begiak **goititu** zituen, etorri eske-edo. **Aingeru Epaltza**

Burua **goititu** nuen paperetatik. **Aingeru Epaltza**

Kristinak besoak **goititu** zituen. **Aingeru Epaltza**

Anselmori galdetu zion, baina honek sorbaldak **goititu** zituen besterik gabe. **Joxemari Iturralde**

Jakako lepoak **goititu** nituen. **Aingeru Epaltza**

Ahotsa **goititu** zuen. **Aingeru Epaltza**

Mendian arima **goititu** egiten da, bihotza osatu. **Koldo Izagirre**

Sartze honetan, haur kopurua 14etatik 38tara **goititu** da. **Herria**

Batek prezioa **goititu** nahiz, besteak apalarazi, ez zen errex akomeatzea edo adostea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Inflazioa **goitituz** eta interes-tasak oso gora bultzatuz. **Koro Navarro**

Urte sari hori ehuneko hamazazpian **goititua** dugu. **Herria**

Haurren kopurua oxka batez **goititu** da aurten. **Herria**

Behi haragiaren saltzeak % 18ez **goititu**. **Herria**

Saltegi handien afera xifrea % 2-**ez goititu** da. **Herria**

Batek zion 5 punduz **goititu** zela eza eta, egun berean beste batek agertzen zuen 4 punduz behehitu zela eza. **Herria**

Gure gixonkasta oharatzen eta bere goien graduraino **goititzen** duen ezaugarritzat. **Iñaki Segurola**

· Plaza hori, orai den bezala, "Zaharrer-Segi" pilota batzorde berriak, **goititu** zian, 1924ean. **Michel Oronoz**

## **2** (era burutua izenondo gisa)

Portuko garabi **goitituenetik** eroritako xafra ebakitzaila. salgaien produkzio **goitituak** nork erositako izan zezan. **Koldo Izagirre**

Patrikako erlojuaren ordua unibertsitateko ordulariaren biribil **goitituarenarekin** alderatu ondoren. **Josu Zabaleta**

Orduan eskaleak hezur-mami ditiagu, eta monarkak eta heroi **goitituak** eskaleen itzal huts. **Juan Garzia**

### **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batez goititu** (4); **begiak goititu** (3); **burua goititu** (7); **ez goititu** (4); **ezpata goititu** (3); **goititu da** (8); **goititu dira** (4); **goititu dituzte** (3); **goititu eta** (5); **goititu nituen** (7); **goititu nuen** (10); **goititu zituen** (7); **goititu zitzaion** (3); **goititu zuen** (10); **goititzen ari** (3); **goititzen da** (3); **goititzen zen** (3); **kopurua goititu** (3); **kopurua goitituz** (3); **sorbaldak goititu** (5)

## **goititze** iz goratzea, gora egitea.

Alokairuen **goititze** taigabearen eta bizilagun gero eta zaharragoen aienatze naturalaren bortxaz. **Aingeru Epaltza**

Berriketan langile andana bat greban jarria izana da, soldaten **goititzea** eskatuz. **Herria**

Manifestaldi jendetsuak izan dira 35 orren legea begiratu behar dela eta irabazien **goititze** on bat ardietsi. **Herria**

Petrola beti goiti doala, galdea ere gisa hartakoa delakotz, eta oraino **goititze** pizkorrago bat izaiten ahal helduden udazkenean... **Herria**

## **goitzen** iz izengoitia.

-Manuel Sarasa Gonzalez, **goitizenez** "Manolo Potzolo", **goitizenez** "Kalpar-latz", **goitizenez** "Sagarroi", gutartean diagu berriz, eta ezetz jakin zertan. **Aingeru Epaltza**

Ezizena esaten diote batzuek beste batzuek **goitizena**, izengoitia edo gaitzizena esaten diotenari. **Iñigo Aranbarri**

Van Daan andrearen maite **goitizena**. **Josu Zabaleta**

**Goitzen** eta gaitzizenetara emanak gara gu denok. **Edorta Jimenez**

**Goitzen** atsegina zen, gizon zintzo batena zirudien. **Bernardo Atxaga**

Burla-izen eta **goitzen** sentitu bainuen betidanik Golubtxik izen hori. **Matias Múgica**

Leungarri eta **goitzenik** gabe aipatzen zuen gaitza, astrozitoma gaizto bat nuen. **Imanol Zurutuza**

Olagarro jarriko zion **goitizena** emazteak eritasunari, haren ankerkeria eramangarriago egite aldera. **Imanol Zurutuza**

Hortik Herbeheretarren mendia **goitizena**. **Berria - Kirola**

Moskuko egunkari batek Burdinazko **andrea** goitizena jarri zion. **Berria - Mundua**

Josefinak ez zuen bere senarrari ematen genion **goitizena** maite. **Aingeru Epaltza**

**Goitizenez** ezagutzen ditugun bertsolariak. **Andoni Egaña**

Martaren **goitizena** zen, aspaldi erabiltzen ez bazuen ere. **Harkaitz Cano**

Ziotenez, hogeit bat **goitzen** desberdin erabili zituen bizitzan zehar. **Joxean Agirre**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere goitizena** (3); **eta goitzen** (3); **goitzen bat** (5); **goitzen hori** (5); **goitizena hartu** (3); **goitizena jarri** (7); **goitizena jarri zioten** (3); **goitizena zuen** (4); **goitizenez ezagutzen** (3); **goitizenez manolo** (5); **goitizenez manolo potzolo** (5); **goitizenez sagarroi** (5); **maite goitizena** (3)

## goitizendun izond izengoitia duena.

Proporzioan, **goitizendunak** ziren abizendunak baino gehiago. **Andoni Egaña**

## goitsu izond gora, garaia.

Mendian altxaturiko etxe **goitsu** baten lorio beltzaren itzalpean eman zituen lehen egunak. **Juan Garzia**

Emakumea **goitsu**, itun eta isil bilakatu zen, atariaren eta esklaboen antzera. **Juan Garzia**

Sutsuki goretsi zuen bakartasuna, gizabanakoaren pentsamendurik **goitsuenak** elikatzen dituela adieraziz. **Jose Morales**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**etxe goitsu** (3)

## goitu, goi(tu), goitzen 1 da/du ad gainditu.

Lehen harremanean solaskidearena baino goragoko maila bat zeuretzeta edo zeureztat irabaztea komeni da: ezarian irabazi, hala ere, onez onean, hura uxatu edo eta nabarmenegi **goitu** gabe. **Juan Garzia**

Izuerditan hasi zen gero eta gorriago, **goitu** egin zitzaizkion odolak eta tunpalahara erori zen pultsuak saltatuta. **Koldo Izagirre**

Bide horren egiteko lau oren behar da, ttoko-ttoko ebitzez, eta 770 metrako petigora bat **goitzekoa** da, gogorrena ürrentzean delarik. **Herria**

### 2 goititu.

Harrizko karratu handia lurrezko hesi batek **goitua**, oraindik ere zutik han eta hemen, belarrak estalia. **Koldo Izagirre**

## goitxago adlag ipar apur bat goizago.

Ez hain aspaldi oraino, antxuaren sasoina **goitxago** hasten zen, martxoko San Josepetan berdin. **Herria**

Ikertzaile batzuen ustez, **goitxago** edo berantxago, gripa mota horrek hunkiko gitu. **Herria**

Gisa guziz, **goitxago** edo berantxago, berriz gertatuko zela asteazken arratsalde euritsu bat eta orduan xarmanki izanen zela, pilota bera jinen zela punperat. **Janbattitt Dirassar**

Pariserat: Batera-ren xedetan da ere **goitxago** edo berantxago "martxa" baten muntatzea Pariserat, bere aldarrikapenak hobeki entzun-arazteko menturan. **Herria**

Iduriz, baluke beraz, **goitxago** edo berantxago, RPR alderdian berriz barne izaiteko moldea. **Herria**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**goitxago edo berantxago** (22)

## goiune iz une goia.

Askorentzat bidaia honetako **goiunea** izan daitekeen San Petersburgerako bidean. **Edorta Jimenez**

**Goiune** horren ostean sentitzen zutenaz. **Joxemari Iturralde**

## goiz<sup>1</sup> adlag egunaren lehen orduetan; ordu edo garai ohikoa edo seinalatua baino lehen. (ikus beheko konbinatorian goiz adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

### 1 goiz ala berandu (4 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean)

**Goiz ala berandu** Varela kapitainaren hiltzaileak hutsegite bat egingo du. **Jon Muñoz**

Eta, egia esan, **goiz ala berandu** beti jasotzen zuen. **Xabier Montoia**

### 2 goiz ala berant (13 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan) goiz ala berandu.

**-Goiz ala berant**, denek ikasten diagu. **Aingeru Epaltza**

Eta badakit, **goiz ala berant** aitortu beharko diodala. **Daniel Landart**

### 3 goiz edo berandu (32 agerraldi, 19 liburu eta 10 artikulutan)

Nortasunaren gidagailua okertuta badu, pertsona batek nahi eta ez, **goiz edo berandu**, bazterra joko du. **Gotzon Garate**

Eta guk bagenekien, ordurako, era batean zein bestean, **goiz edo berandu**, zuzen-zuzen eroriko ginela. **Joseba Sarrionandia**

Batzuetan, beldurrak hartzen ninduen, **goiz edo berandu**, astakeria zerbaite eginen nuela. **Daniel Landart**

### 4 goiz edo berant (48 agerraldi, 14 liburu eta 19 artikulutan) goiz edo berandu.

Holako beroen ondotik, **goiz edo berant** ortziak jiten direla eta frangotan ortzi bortitzak. **Herria**

Denen den, **goiz edo berant** azaraz beldu zuten trenkentu. [Elena Touyarou](#)

Nazio berantiar horien eta gu bezalako herri xumeen aldia ere, **goiz edo berant**, etorriko dela noizbait. [Piarres Xarriton](#)

Abuztuko larunbat horretan ere banekien **goiz edo berant** neska izanen nuela buruz buru. [Aingeru Epaltza](#)

-Ni segur naiz **goiz edo berant** hori gertatuko dela. [Janbattitt Dirassar](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aski goiz** (88); **aski goiz etortzea** (4); **aski goiz jakin** (7); **atzo goiz** (7); **bihar goiz** (11); **bihar goiz jaiki** (4); **biharamunean goiz** (5); **goiz abiatu** (8); **goiz afaldu** (5); **goiz ala berandu** (4); **goiz ala berant** (13); **goiz alde egin** (4); **goiz altxatu** (6); **goiz arte** (8); **goiz atera** (8); **goiz da** (86); **goiz da jakiteko** (4); **goiz da oraindik** (16); **goiz deitu** (4); **goiz edo berandu** (33); **goiz edo berant** (50); **goiz egin** (7); **goiz esnatu** (20); **goiz esnatu zen** (6); **goiz etorri** (8); **goiz etorriko** (4); **goiz etortzea** (4); **goiz etxeraten** (4); **goiz hasi** (12); **goiz hasten** (11); **goiz ikusi** (4); **goiz iritsi** (6); **goiz irten** (10); **goiz irten zen** (4); **goiz itzuli** (5); **goiz izan** (7); **goiz izango** (4); **goiz jaiki** (96); **goiz jaiki zen** (16); **goiz jaikirik** (12); **goiz jaikita** (9); **goiz jaikitzea** (5); **goiz jaikitzen** (20); **goiz jaikitzen zen** (7); **goiz jakin** (7); **goiz jaikirik** (6); **goiz joan** (15); **goiz joan zen** (4); **goiz joango** (4); **goiz joaten** (7); **goiz oheratu** (9); **goiz samar** (20); **goiz xamar** (4); **goiz zela** (6); **goiz zen** (16); **goiz zen oraindik** (4)

**egiteko goizegi** (6); **esateko goizegi** (9); **esateko goizegi dela** (7); **gero eta goizago** (11); **goizago edo beranduago** (6); **goizago hasi** (4); **goizago hasten** (4); **goizago jaiki** (4); **goizago jaikitzen** (4); **goizean oso goiz** (4); **goizegi da oraindik** (10); **goizegi dela esan** (5); **goizegi galdu** (4); **goizegi heldu** (5); **goizegi hll** (4); **goizegi iritsi** (11); **goizegi izan** (4); **goizegi zen** (16); **hain goiz** (68); **horren goiz** (16); **inoiz baino goizago** (6); **jakiteko goizegi** (4); **jin aski goiz** (5); **nahiko goiz** (5); **neguko goiz** (13); **nintzen goiz** (9); **non goiz** (4); **nuen goiz** (8); **ohi baino goizago** (8); **oraindik goiz da** (22); **oraindik goiz dela** (6); **oraindik goizegi** (8); **oraindik goizegi da** (4); **oso goiz** (88); **oso goiz da** (9); **oso goiz esnatu** (5); **oso goiz hasten** (8); **oso goiz jaiki** (5); **sobera goiz** (4)

## goiz<sup>2</sup> 1 iz egunsentitik eguerdira arteko denbora bitartea.

Berari eskainitako ogiak jarriko ditugu etengabe eta eguneroko, **goiz** eta arratsalde. **Goiz** hartan iratzarri zenean egun bat baizik ez zitzaion geratzen. [Elizen arteko biblia](#)

**Goiz** horietan, are maiteago ditiat neure barazkiak. [Karlos Zabala](#)

**Goiz** batzuk eman zituen hartan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Horregatik estimatzen dira tamaina altuenean sasoi honetako **goiz** garbi gardenak. [Pello Zabala](#)

Ez diat **goiz** osoa hirekin galtzeko. [Aingeru Epaltza](#)

Neguko **goiz** batez, Frantzisko ikusi zuen otoitzean, jantzi zarpailez estalia eta hotzez dardarka. [Askoren artean](#)

Egunsentia; **goiza**; eguerdia eta gaua, beti berak. [Juan Garzia](#)

**Goiza** argitzean. [Edorta Jimenez](#)

**Goiza** ongi zabaldu eta gero. [Pello Zabala](#)

**Goiza** baino lehen atera zituzten musikariak txalupa beltz batean, alemanen ezkutuan. [Felipe Juaristi](#)

Baina **goiza** hurbil zen eta luze gabe esnatuko ziren. [Fernando Rey](#)

-Nire herrian "**goiza**" gosaria hartu eta hasten da... [Ramuntxo Etxeberri](#)

**Goizaren** lehen argia hoteleko kortina lodia zerrikituetatik sartzen hasia zen. [Lourdes Oñederra](#)

**Goiza** oskarbi zen. [Elena Touyarou](#)

Abenduaren zortziko **goiza** zen. [Juan Garzia](#)

Jardinean eserita eman du **goiza**. [Joseba Sarrionandia](#)

Goazen beste aldera, **goizik** hotzenetara. [Pello Zabala](#)

Kristinak haiekin egiten zituen **goizak**, arratsaldeak eta kasik ere gauak. [Aingeru Epaltza](#)

Arratsaldea ere **goiza** bezain luze baitzetorkion, noski, erizaindegian zain zeuzkan barneko gaixoak zirela eta. [Xabier Olarra](#)

Tarte batean lo kuluxka bat egin dugu, **goizaren** eta arratsaldearen artean. [Koro Navarro](#)

Oilar gazte bat kukurrukuka ari da, **goizari** deika. [Mirentxu Larrañaga](#)

**Goizaz** geroztik euri xehea ari zuen arren, hiri osoa ikusi dut. [Koldo Izagirre](#)

Gaur **goizaz** geroztik. [Jesus Mari Mendizabal](#)

## 2 (leku-denborazko atzizkiekin)

Atzo **goizean** gauza polit bat gertatu zitzaidan. [Josu Zabaleta](#)

Hurrengo **goizean**, hatz gorritzek eguna zabaldu zutenean. [Juan Kruz Igerabide](#)

**Goizean**, eliza baten bila goaz. [Marzel Etxehandi](#)

**Goizean** jaikitzean, hilik aurkitu zuten arkumetxoak. [Askoren artean](#)

Galdegiten dit ea ibiltokira aterako naizen **goizean**. [Filipe Bidart](#)

Lisa **goizeko** eguzki bainua hartzen ari zen garaian. [Karlos Zabala](#)

**Goizeko** lehen ordu oskarbitu horien ostean. [Pello Zabala](#)

Eta mahats aldaka zenbaitek [...] beren hosto jori zabalak **goizeko** eguzki goxoan hain nagiki etzaten dituzte non [...]. [Piarres Aintziart](#)

**Goizeko** hozkirria barruraino sartu zitzaion. [Karlos Zabala](#)

Maurice Thorez abenidako larunbat **goizeko** merkatuan. [Itxaro Borda](#)

**Goizeko** lehendabiziko hegazkinean joango nintzela. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bi ateraldi horiek, **goizekoa** eta arratsaldekoa. [Filipe Bidart](#)

Ostiral **goizekoa** etapa gogorra da. [Berria - Kirola](#)

Terrorismoaren arazoa ez da atzo **goizekoa**. [Berria - Harian](#)

Nork zekien **goizetan**, begiak zilar eta idor ohetik ateratzean, egunak zer ekarriko zion? [Itxaro Borda](#)

**Goizetan**, Adela goizean goiz jaikitzen zen etxaldezainarekin kontuak egiteko. [Fernando Rey](#)

Bai, larunbat **goizetan**. [Oskar Arana](#)

Astelehen **goizetako** aurpegi ilun haiek. [Daniel Landart](#)

Kolore guztia bueltatu zaio **goizetik** hona. [Koldo Biguri](#)

**Goizetik** arratserraino mintzatzeko amaren altzoan ikasi nuen mintzaira miresgarria. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Oihuka aritzen zen **goizetik** gaua arte. [Koro Navarro](#)

Zerk hakar hemengo aldi hain **goizetik**? [Juan Garzia](#)

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itxia zegoen, astelehen **goiza** izaki, merkataritza ohi denez. [Aingeru Epaltza](#)

Biharamun **goiza** arte. [Aingeru Epaltza](#)

Hemendik goiti, 3 larunbat aratsez, Euskal Telebixtak grabatuko du Isturitzeko meza hori, biharamun **goizarekin**, Euskal Telebixtan zabaldua izanen dena. [Herria](#)

Eguberri-**goiza** hotz eta zuri iritsi zen. [Iñaki Mendiguren](#)

Alfer-**goizak** Ttipirekin mintzatzeko astia ere eman zidan. [Aingeru Epaltza](#)

Biharamun **goizean** esnatzean. [Iñaki Mendiguren](#)

Erregeen bezpera **goizean**. [Pello Zabala](#)

San Joan **goizean**. [Pello Zabala](#)

Amak **goizean** berean trijitutako hirugihar zerra lodia [Aingeru Epaltza](#)

#### 4 (ordua adierazteko) gauerdira aguerdira arteko eguerdia eguerdia. ik goizero.

**Goizeko** ordu bata zen. **Josu Zabaleta**

**Goizeko** 01:35etan bidalia zen mezua. **Fernando Morillo**

Elkarrizketa hori **goizeko** ordu bietan gertatu zen. **Karlos Zabala**

**Goizeko** 3etan jadanik mugimenduak ikusi dira, polizia anitz Baionako karriketan, walkie talkie-ekin mintzo. **Berria - Euskal Herria**

**Goizeko** lauretan-edo. **Txillardegi**

Iratzargailua **goizeko** bostak eta erdietan ezarria nuen. **Piarres Aintziart**

**Goizeko** ordu txikitzen, giltzak ahaztuta, etorkinen batek bizilagunak esnatzea atezain automatikoa jo eta jo. **Iban Zaldua**

Arratseko zortzietatik **goizeko** seietera bitartean. **Josu Zabaleta**

**Goizeko** zazpiak aldera hasi eta eguerdian bukatu. **Xabier Etxabe**

Jadanik **goizeko** bederatzia eta ni ez oraino prest! **Piarres Aintziart**

Maiatzak 21, ostirala: Eztabaida mintegiak **goizeko** 9:30etatik 13:30etara. **Berria - Euskal Herria**

Gaur **goizeko** hamarrek eta hamazazpian telegrafiatu ahal izan diot nire lehengusinari dekretuaren testu osoa. **Karlos Zabala**

Bihar, **goizeko** hamabietan ingelesezko azterketa dauka. **Pako Aristi**

#### 5 goiz giro (orobat goizgiro)

**Goiz-giro** freskoa, ezta? -oihu egin zion Gus McNielek. Etorriko da, lasai, **goizgiro** frexko baten ostean, aspaldiko eguzki hura, fanfarrokeria handirik gabe, umil samar, baina hori bai, distiraz, ahulezia disimulatuz, eta erreka-laino nagienak esnatuz eta harrotuz, mendi hegaletan gora bidaliz, uxatuz... ez du hutsik egiten. **Lopez de Arana**

**Goizgiro** ezin hobea egiten zuen, eta artean apenas zuten zentzurik bide ertzean ikus zitezkeen HEAT KILLS seinaleek. **Patxi Zubizarreta**

**Goiz giro** ederra eta bidean zikloperik ez. **Joxean Sagatzizabal**

#### 6 goiz goizetik

**Goiz goizetik** lekuak beteak ziren. **Herria**

Aitak zakur-umorea izaten zuen **goiz-goizetik**. **Fernando Rey**

Bezperan ere **goiz-goizetik** abiatuak ziren. **Aingeru Epaltza**

Horixe egingo duk bihar **goiz-goizetik**. **Juan Garzia**

**Goiz goizetik**, hamar minutuero posta kuxara jaisten nintzen. **Ramon Saizarbitoria**

#### 7 goiz oilanda (orobat goizoilanda)

Sinbologia berberari eutsiz, **goizoilanda**, deitu izan zaio, mutiletan gaxterik hasten den neskatoari, edo martxoko oilar gorri nahiz oilar gangar gorri berriz, gaxterik neskazale nabarmentzen den mutilari. **Patziku Perurena**

Eta gure **goizoilandak**, "pottotobero" samarren fama izaki, berriz, auzo herrietan! **Patziku Perurena**

Hemeretzi urteko **goiz-oilanda** bat halako traste baten jabe bazen, ni ere izanen nintzen hura hainbat. **Aingeru Epaltza**

#### 8 goiz oroz ik goizero.

Domesantore **goiz oroz** horra zeigün meza handiaren erraitera eta hilerrietan otoitzegitera. **Herria**

Aitak, igande **goiz oroz**, Nona Mãlia ikustera eramaten ninduen txangoz. **Juan Garzia**

#### 9 goiz txinta

Errezelo haiek guztiak Julian Deereren begi estrabikoetan loratzen ziren, udako **goiztxinta** ederretan ihintza loratzen den bezain galant eta ostenezin. **Karlos Linazasoro**

#### 10 goizean goiz

Abraham **goizean goiz** jaiki zen hurrengo egunean. **Jose Antonio Mujika**

Sagu madarikatuak gaur ere **goizean goiz** esnatu nau. **Harkaitz Cano**

Hurrengo egunean, **goizean goiz** irten zen etxetik, garbiketak eta beste lantxoak egitera. **Eskarne Mujika**

Artolak **goizean goiz** alde egin zuen, eta ez genuen joaten ikusi. **Inazio Mujika Iraola**

Bihar **goizean goiz** altxatu beharra daukat. **Lopez de Arana**

Erabaki genuen biharamunean, **goizean goiz**, apaiz bat ekarriko niola. **Ramon Saizarbitoria**

18an, larunbata, Pariseko trenan hartu nuen **goizean goiz**. **Joseba Urteaga**

#### 11 goizean goizetik goizean goiz.

Leon, margotzeko guztiak hartuta, **goizean goizetik** desagertzen zen etxetik eta ez zen itzultzen iluntzeraino. **Hasier Etxeberria**

Nik, ostera, latzak hartzen ditiat, izan ere **goizean goizetik** lan eta lan ibiltzen bainaiz uztapean. **Patxi Zubizarreta**

**Goizean goizetik** gaueko azken orduak arte kexuak eta kexuak. **Josu Zabaleta**

#### 12 goizean goizik goizean goiz.

**Goizean goizik**, 7 ore[ne]tan, 180 bat jende hurbilduak ziren 20 kilometroko ibilaldiaren egiteko. **Herria**

Biharamun **goizean goizik**, hauxe esan baitzidan Oskotz komandanteak: [...]. **Txillardegi**

Badoa zurezko kaiari buruz, bihar **goizean goizik** ikasleekin erabili behar dituen ontziei urrundik behakoren bat emateko. **Aurelia Arkotxa**

Bihar naiz partitzen ahizparenganat eta **goizean goizik**! **Janbattitt Dirassar**

Datorren ikasturtean ez duzu **goizean goizik** atera beharko errepidera. **Bernardo Atxaga**

#### 13 goizetik arrats (orobat g. arats)

**Goizetik** arrats, kantari. **Daniel Landart**

Lan eta lan, **goizetik** arrats ostatura zetozkion jendeak haia-haia zerbitzaten. **Itxaro Borda**

Mendi horietan beretan aste guzia, igandetan salbu, **goizetik arrats** han zabiltzan oihaletako langileak. **Herria**

**Goizetik arats**, eta aratsetan ere oraino, zernahi lasterkari, jende frango bestalde bazterretik sustatzaile! **Herria**

#### 14 goizetik gauera<sup>1</sup>

**Goizetik gauera** ezer egiten ez denean, egunak luze dira. **Josu Zabaleta**

**Goizetik gauera**, etengabe duxatzaten nintzen: gorroto dut izerdia, gaixorik zaudela ematen baitu. **Joxe Austin Arrieta**

Zin dagizuet ez dudala nik neure burua **goizetik gauera** bilobekin jolasean ikusten. **Arantxa Iturbe**

Gogor famako ikastetxe batean **goizetik gauera** sartuta egon behar banuen ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

#### 15 goizetik gauera<sup>2</sup> denbora laburrean.

Oso errotuta zeuden frantseseko moldeak, eta ezin **goizetik gauera** aldatu haietara ohituta zeuden begiak. **Koldo Zuazo**

Orain dela gutxi arte, Ameriketara joaten ziren euskaldunek **goizetik gauera** ahazten zuten beren jatorria, eta ura urarekin bezala nahasten ziren Uruguay, Argentina edo Venezuelako gizartean. **Bernardo Atxaga**

**Goizetik gauera** eraiki herrian bada ospitale izendatu duten etxe bat. **Xabier Montoia**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abuztuko goiz (6); astearte goiz (4); asteazken goiz (4); astelehen goiz (19); astelehen goiz huntan (5); atzo goizean goiz (5); bihar goizean goiz (14); biharamunean goizean goiz (7); goiz argi (17); goiz argiak (8); goiz argitsu (4); goiz aro (7); goiz askotan (4); goiz bat igaro (6); goiz batean (184); goiz bateko (5); goiz baten (5); goiz batez (134); goiz batez esnatu (6); goiz batzuetan (12); goiz berean (12); goiz eder (17); goiz eder batean (4); goiz eder batez (5); goiz ederra (5);



goiz eguzkitsu (6); goiz epele (5); goiz erdia (4); goiz arratsalde (4); goiz arratsalde (4); goiz auritsu (8); goiz euritsu (8); goiz garbi (4); goiz goizean (12); goiz goizkoa (5); goiz goizetik (66); goiz goizik (9); goiz gorri (11); goiz gris (4); goiz guzia (5); goiz guzian (4); goiz guziez (4); goiz guziz (30); goiz gutzia (8); goiz gutzian (13); goiz haietako (5); goiz haietako batean (4); goiz hartako (18); goiz hartan (306); goiz hartan berean (10); goiz hartan bertan (26); goiz hartatik (5); goiz hartaz (4); goiz honetan (42); goiz horretan (37); goiz horretan bertan (8); goiz hortako (5); goiz hortan (8); goiz hotz (9); goiz huntan (20); goiz hura (20); goiz ondarrerat (4); goiz oroz (5); goiz oso (4); goiz osoa (46); goiz osoa eman (7); goiz osoan (67); goiz partean (29); goiz parteko (7)

halako goiz (4); hurrengo goiz (4); hurrengo goizean goiz (7); igande goiz (47); igande goiz batean (10); igande goiz batez (6); igande goiz hartan (9); larunbat goiz (25); larunbat goiz huntan (6); neguko goiz (13); ostegun goiz (6); ostiral goiz (6); udaberri goiz (6); udaberriko goiz (8); udako goiz (8); udako goiz batean (4); urriko goiz (5); urtarrileko goiz (4)

astelehen goiza (10); biharamun goiza (8); biharamun goiza arte (4); goiza arte (23); goiza baino lehen (4); goiza da (8); goiza zen (15); goizak aurrera egin (4); hurrengo goiza (10); hurrengo goiza arte (8); igande goiza (17); igande goizarekin (11); larunbat goiza (11); larunbat goizarekin (13)

gaur goizaz geroztik (5); goizaz gero (5); goizaz geroztik (11)

astearte goizean (42); asteazken goizean (22); astelehen goizean (83); atzo goizean (781); atzo goizean bertan (15); atzo goizean egindako (15); atzo goizean eginiko (4); atzo goizean gertatu (4); atzo goizean goiz (5); atzo goizean hasi (7); atzo goizean hil (4); atzo goizean iritsi (8); atzo goizean izandako (6); atzo goizean jaioa (4); bihamon goizean (4); bihar goizean (182); bihar goizean bertan (4); bihar goizean goiz (14); bihar goizean ikusiko (4); biharamun goizean (206); biharamunean goizean goiz (7); egun goizean (7); egunero goizean (4); gaur goizean (461); gaur goizean abiatuko (7); gaur goizean agertu (4); gaur goizean bertan (9); gaur goizean egingo (5)

**bere golkoan** (5); **bere golkorako** (22); **berea golkoan** (3); **bihotza golkoan** (5); **bihotza golkotik** (4); **bizkaiko golko** (6); **bizkaiko golkoa** (3); **bizkaiko golkoan** (31); **bizkaiko golkoko** (15); **eta bizkaiko golkoko** (4); **eta golkoak** (3); **eta golkoko** (4); **golkoan eta** (4); **golkoko gerla** (5); **golkoko gerra** (4); **golkoko gerrako** (8); **golkoko gerran** (11); **golkoko gerraren** (11); **golkoko gerraren ondoren** (3); **golkoko gerratik** (3); **golkoko gerraz** (6); **golkoko gerraz geroztik** (5); **golkoko ii** (3); **golkoko korronteko** (3); **golkoko lehen** (4); **golkoko sindromea** (3); **golkoko ur** (4); **golkorako gorde** (3); **ia bere golkorako** (3); **mexiko golkoan** (3); **mexikoko golkoan** (9); **mexikoko golkoko** (6); **neure golkorako** (10); **nire golkorako** (8); **nuen nire golkorako** (6); **persiako golkoan** (4); **persiako golkoko** (3); **persiar golkoko** (7)

## golkoztsu izond golko asko dagoena.

Gipuzkoa aldeko txoko **golkoztsu** horretan. Pello Zabala

## golkoztxo iz golko txikia.

1878an, pazzo garaia omen orduan, egundoko galernak jo omen zuen Kantauriko itsas-bazterrean, Gipuzkoako **golkoztxoan** batik bat. Pello Zabala

Donostian, berriro diot, Kontxako itxas-**golkoztxo** hori. Pello Zabala

Donostiako **golkoztxo** edo itsas txoko horretatik. Pello Zabala

## golpe ik kolpe.

## goma 1 iz gai garden likatsua, zenbait zuhaitzen azalari dariena. iklekeda.

Zer dakizu zuk **gomari** buruz?... Lopez de Arana

Gaur goizteko egunkarietan ikusi al duzku **gomaren** merkataritzari buruz idatzi dudan artikulu polita? Lopez de Arana

Gure gizonak lehenbizi Schkopau-n jarduna zen lanean, **gomaren** teknologian trebatzeko. Juan Garzia

**Gomaz** estaliriko bi kobre-hari. Juan Garzia

## 2 gomazko zerrenda edo hari modukoa.

Galtzontziloetako **goma**. Unai Elorriaga

Atzera begiratzen du, gero hatz artean darabilen **gomari**. Anjel Lertxundi

**Goma** batez bildutako ile luzea zeraman hura. Joxemari Iturralde

Tiragoma patrikatik atera, sardea gidatu, **gomak** luzatu, dispartatu... Joan Mari Irigoien

**Goma** korapilatu batez itxitako kutxatxo metalikoak. Josu Landa

Eta karpeta darama besapean, **goma** bat apurtuta duen karpeta. Harkaitz Cano

Belus beltzeko **goma** harekin eutsitako galtzerdi zuri haien barrenean. Fernando Rey

Estetoskopio hautsiaren **gomak** lepotik kendu eta luzatu egin zenizkion. Koldo Izagirre

Kutxatxoak zuloak zituen arnabiderako, eta **goma** elastikoak inguru osoan. Mirentxu Larrañaga

### 3 ezabagoma.

Nire koaderno borroiz beteak, nire **goma** eta boligrafoak antolatu nituen. **Joseba Sarrionandia**

Bi arkatz, bi **goma**, eta bi orri. **Jon Muñoz**

Lapitza eta **goma, goma** eta lapitza. **Joan Mari Irigoien**

### 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Buruan **goma**-xingola zuri bat jarrita. **Fernando Rey**

Zikin-zikina mahaia, paper azal mehez, **goma**-aparrez, kafe koilarez eta gatz eta piperbeltzeko zorroz beteak. **Koro Navarro**

Sabela ireki eta metro eta erdiko **goma** zerranda atera zioten, hesteetan itsatsirik eta kiribildurik. **Gotzon Garate**

Argazkiak pikorra ikusgarria, ekaia agerian zuten euskarritan eginez, "**goma** bikromato" famatu haietan, adibidez. **Josu Zabaleta**

### 5 (hitz elkartuetan bigarren gisa)

Azpilgo zabortegietako batean gurril-**gomak** erretzen ari dira. **Joan Mari Irigoien**

Kanoak behar zuen tarte zehatz hura mantentzeko, gurril-**gomazko** defentsak sobera behartu gabe. **Koldo Izagirre**

Ardo zahato eta zahagiak, zakuak eta bizikleta **gomak**. **Josu Zabaleta**

Haien aurpegiak zimirurik daudela, begiei erretxina lodi eta aranondo-**goma** dariela. **Juan Garzia**

### 6 (zoruaz mintzatuz)

Aurtengo **goma gaineko** Euskadiko Sokatira Txapelketako lehen jardunaldia. **Berria - Kirola**

Zortziko ohiko talde berriak sortzeko zailtasunak antzeman ondoren ekin zioten lauko txapelketak antolatzeari, eta horretan dihardu Euskadiko Herri Kirol Federakuntzak sokatira taldeekin batera, bai **goma gainean** bai lurrean. **Berria - Kirola**

Iaz baino bi aste lehenago hasiko da **goma gaineko** ohiko Euskal Herriko Txapelketa, bihar, Laudion.

Hurrengo txapelketa Euskadiko lur gaineko izar, eta espero dezagun ez izatea **goma gainekoan** izan diren arazoak. Bestalde, **goma gaineko** Nafarroako Txapelketa gaur hasiko da Sunbillako pilotalekuan. **Berria - Kirola**

Joan den asteburuan hasi da **goma gaineko** sasoiak Lauko Euskadiko Txapelketarekin. **Berria - Kirola**

Atzo hasi zen **goma gaineko** Euskadiko Txapelketa gizonen sailean, 600 kiloko lehen jardunaldia jokatu.

### 7 (mastekatzekoa)

Hortxe segitzen duzu **goma**-puska lehor bati koxk eta koxk, harik-eta nazka-nazka egin eta, ahoan ezin edukizko karkaxa lodi gogortu baten pare dela sentituz, ahotik kanpora bota duzun arte. **Iñaki Seguro**

Hiru barra mastekatzeko **goma**, hogeita bost zentimoko lau txanpon. **Oskar Arana**

### 8 gomazko

Evans jauna **gomazko** gauzen saltzailea zen, **gomazko** jostailuak, **gomazko** xiringak eta **gomazko** alfonbra txikiak saltzen zituen. **Koro Navarro**

Epailea **gomazko** arrantza-bota luzeak jantzita hurbildu zen. **Hasier Etxeberria**

**Gomazko** eskularruak zituen zirujau bat. **Joseba Urteaga**

**Gomazko** lokarriek korapilo berriak zituzten. **Harkaitz Cano**

"Bir" delako hori **gomazko** zerranda bat zen, gaixo zegoen behatzari estu-estu lotzen zitzaiona behatza ubeltzen zen arte. **Fernando Rey**

**Gomazkoa** zen pilota eta gardena, eta **gomazko** suge bat zeukan barruan, kiribilduta. **Unai Elorriaga**

Estu eta zakar heltzen zion zigorrari, izerdiz betetzen zuen eta **gomazko** ezpata bat balitz bezala astintzen. **Koro Navarro**

Game Boyaren **gomazko** botoiak sakatu ditu. **Eider Rodriguez**

Denbora pixka bat behar izan zuten **gomazko** beso hezurgabe hura mahukara sartzeko. **Iñaki Mendiguren**

Almond Roca batzuk Maryrentzat, eta **gomazko** goxokiak umeentzat. **Koro Navarro**

**Gomazko** gurrildun atoi handi bat, kamioiei lotzen zaizkien horietakoa. **Urtzi Urrutikoetxea**

Iraunkorrak ziruditen **gomazko** zoladun zapata lokarriak. **Urtzi Urrutikoetxea**

### 9 goma arabiar

**Goma** arabiarra baizik ez da, lagunak mandatu bat. **Aingeru Epaltza**

Burdin tanogalatoz, **goma** arabiarrez eta urez osatutako konposatu bat. **Xabier Olarra**

### 10 goma-dos/goma-2 dinamita plastikoa.

Titadyne eta **Goma 2** ECO produktu beraren, dinamitaren, bi marka dira. **Berria - Mundua**

Autoan ezkutaturik zeuden **goma -2** kilogramo haien eztanda. **Iban Zaldua**

Hamahiru lehergailuak **Goma Dos** Eco dinamitzat osatuta zeuden. **Berria - Harian**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaitu zen goma (3); aurtengo goma gaineko (4); da goma (5); da goma gaineko (4); eta goma (12); eta gomazko (20); eta gomazko pilotak (4); eta gomazko pilotekin (3); eta nire gomazko (3); goma arinarekin (16); goma bat (3); goma batez (4); goma eta (5); goma gainean (8); goma gaineko (39); goma gaineko euskadiko (13); goma gaineko euskal (3); goma gaineko lauko (4); goma gaineko nafarroako (6); goma gainekoan (3); goma hutsarekin (4); gomazko eskularruak (3); gomazko pilota (20); gomazko pilota bat (6); gomazko pilotak (15); gomazko pilotak eta (4); gomazko pilotarekin (6); gomazko pilotaz (4); gomazko pilotekin (7); gomazko zapatak (3); hasi zen goma (3); nire gomazko (6); palantxan goma (8); palantxan goma arinarekin (7); paleta goma (3); paleta gomaz (10); paleta gomaz emakumezkoak (4); paleta gomazko (3); pilota goma (5); pilota goma hutsarekin (4); zen goma (6); zen goma gaineko (6)

## gomatxo iz goma txikia.

**Gomatxo** bat ibiltzen du beti hatz lodiaren gerrian, eta hari tira eta askatu dator. **Anjel Lertxundi**

Diru aldetik ez zegoen arazorik, hainbat libra eman baitzioten **gomatxo** batean bilduta. **Joxemari Iturralde**

Etxeratu eta tresnatxo guztiak prestatu nituen: koilaratxoak, **gomatxoak**, kandelatxoak, zigarreta-ahokoa... dena prest. **Sonia Gonzalez**

## gomaztatu izond ile-gogortzailea duena.

Ile **gomaztatu** eta traje garbiko gizon haietako bati. **Juan Martin Elexpuru**

## gomendagaitz izond gomendagarria ez dena.

Zerritegi ustel hura jende **gomendagaitzen** ohizko biltegia zen. **Elena Touyrou**

Hiriko toki **gomendagaitzak** bisitatzen hasi zen: Bertako portu inguruko karrikatxoak, Gaztelu Berriko soldadueria ibili ohi zen zerritegiak, Baiona Tipiko hegoaldeko harresi ondoak. **Elena Touyrou**

## gomendagarri izond gomendatua izatea merezi duena.

Oso liburuxka **gomendagarria** argitaratu du. **Martin Anso**  
Liburu **gomendagarri** honetan aipatzen direnak. **Pello Salaburu**  
Hego Ameriketan kolonialismoak egindako kaltearen kronika **gomendagarria**. **Iñaki Heras**  
Oinarrian ikuspegi ekologikoa duen ekonomiako eskuliburu benetan **gomendagarria**. **Iñaki Heras**  
Ez zen gauza **gomendagarria** batere egun antzu horietan sortzea, zoritxarra zekarkeelako. **Pello Salaburu**  
Gure amaren iritzian liburu hura ez zen oso **gomendagarria** Margotentzat. **Josu Zabaleta**  
Orduan **gomendagarria** da hitz horrekin eskuabalegi ez jokatzeko. **Ibon Uribarri**  
Ez dut uste neskatxak limurtzeko oso metodo **gomendagarria** denik. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
· Terapia ez-**gomendagarria**, alegia. **Unai Iturriaga**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**batere gomendagarria** (3); **da gomendagarria** (4); **ere gomendagarria** (3); **gomendagarria da** (29); **gutziz gomendagarria** (5); **gutziz gomendagarria da** (3); **liburu gomendagarria** (3); **liburu gomendagarria da** (3); **oso gomendagarria** (3)

## gomendarazi, gomendaraz, gomendarazten du *ad* gomendatzera behartu.

Halaber, **gomendarazi** gaitzazu biziki zeure ahizpei. **Askoren artean**  
Eta ni eta nire alabak biziki **gomendarazi** gaitzazu Kristogan zeure alabei. **Askoren artean**

## gomendatu (*ETCn 8.329 agerraldi*), gomenda, gomendatzen 1 du *ad* norbaiti norbait edo zerbait aipatu edo adierazi, aintzakotzat har dezan. ik **artamendatu**.

Lehen legeak, beraz, jatorrizko genero ezberdinen anizkuntasunaren gehiegikeria saihesten du eta homogeneotasuna **gomendatzen** du. **Ibon Uribarri**  
Biziki **gomendatzen** diot artikulu hori ahoskeraren jabekuntza interesatzen zaionari. **Lourdes Oñederra**  
Lehenak zer egin behar den **gomendatzen** digu, baldin eta zoriona lortu nahi badugu. **Ibon Uribarri**  
Hurrengo eguna arte itxaroteko **gomendatu** zidan. **Josu Zabaleta**  
Ez joateko **gomendatu** didate. **Edorta Jimenez**  
-Ez al dizute ezkontzeko **gomendatu**? **Koldo Izagirre**  
**Gomendatzen** dugu sei egunez ez gasnatzea horien esnea. **Herria**  
Hala egitea **gomendatzen** dizut. **Antton Olano**  
Nik uste nian hire baitan fida nintekeela eta horregatik **gomendatu** hindudan zainketa komiteari. **Elena Touyarou**  
Han sinpletasuna ohoratzen da, pobretasuna goraiatzeko, apaltasuna **gomendatzen**. **Askoren artean**  
Txanponaren beste aldeari erreparatzea **gomendatzen** da, ez balizko alde teknikoari, baizik eta politikoiari. **Iñaki Heras**  
Ingurune hartarik iragan behar zuten guztiei -neskatxei batik bat- **gomendatzen** zitzaaien ezen ibil zitezela kontuz eta egin ziezaiotela otoitz san Migel arkanjeluari. **Joan Mari Irigoien**

### 2 agindu, gomendio utzi.

Izan ere, ez zen sekula Ebanjelioaren entzule gor izan, baizik eta entzundakoa bere oroimen harrigarriari **gomendatuz**, arreta osoz hitzez hitz betetzen ahalegintzen zen. **Askoren artean**  
Frantziskok Liburu Santuetan aditua zen Spirako Zesareo anaiari **gomendatu** ziola, "berak hitz xumez idatzirikoa Erregela Ebanjelioko hitzez janzteko eginkizuna". **Askoren artean**  
Maitasunez hartu zuen kardinal santu hark **gomendatu** zioten artaldea. **Askoren artean**  
Jauna, zuri **gomendatzen** dizut orain arte nire esku utzi duzun familia hau. **Askoren artean**  
Zeuri **gomendatu** zaizun artalde osoaren aita eta jaun baitzara. **Askoren artean**  
**Gomendatu** zitzaion presoaren zorigaitzetik askatu zuen. **Askoren artean**

### • 3 zaio *ad*

Bihotz-bihotzez eta negar-malkoz Jainkoari **gomendatzen** zitzaion, bere erruki txit santuagatik lagun ziezaion. **Askoren artean**  
Zuen otoitzei **gomendatzen** natzaie. **Askoren artean**  
Egunean eguneko sainduari **gomendatzen** hasten zitzaizkiola. **Joan Mari Irigoien**  
Bere zentzumenen erabileran Kristo gure Jaunaren antzeko izan nahi duena, **gomenda** bekio Jainko handiari prestamen-otoitzean, eta esan beza agurmaria bat edo Gure Aita bat, zentzumenak banaka gogoratu ondoren. **Patxi Altuna**  
· Badakigu zer zen onura batengatik nork bere bura inori **gomendatzea**. **Iñaki Iñurrieta**  
Ezin zuen hitz egin, baina bihotzean Frantzisko dohatsuari **gomendatu** zion debozioz bere burua. **Askoren artean**

### 4 (era burutua izenondo gisa)

Lo-ordu kopuru **gomendatura** iristen ez diren horietakoa haiz hi ere? **Harkaitz Cano**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bat gomendatu** (6); **bera gomendatu** (3); **berak gomendatu** (4); **berari gomendatu** (3); **biziki gomendatu** (3); **egitea gomendatu** (7); **egiteko gomendatu** (3); **ere gomendatu** (3); **eta gomendatu** (3); **gomendatu die** (8); **gomendatu diete** (5); **gomendatu dio** (7); **gomendatu diote** (3); **gomendatu dit** (6); **gomendatu du** (16); **gomendatu dute** (17); **gomendatu ere** (4); **gomendatu eta** (5); **gomendatu zidan** (11); **gomendatu zien** (19); **gomendatu zieten** (3); **gomendatu zigun** (3); **gomendatu ziola** (4); **gomendatu zion** (37); **gomendatu zion bere** (3); **gomendatu zioten** (14); **gomendatu zituen** (3); **gomendatu zitzaion** (6); **gomendatu zuen** (27); **gomendatu zuten** (9); **gomendatuko nioke** (9); **gomendatuko nizuke** (3); **hark gomendatu** (3); **hartzeko gomendatu** (9); **hartzeko gomendatu** (4); **hori gomendatu** (3); **ibiltzeko gomendatu** (3); **izatea gomendatu** (3); **joateko gomendatu** (3); **uzteko gomendatu** (6)

**biziki gomendatzen** (3); **burua gomendatzen** (3); **egitea gomendatzen** (8); **egiteko gomendatzen** (3); **ematea gomendatzen** (3); **erabiltzeko gomendatzen** (3); **erabiltzeko gomendatzen dute** (3); **ere gomendatzen** (3); **ezartzea gomendatzen** (4); **gomendatzen da** (4); **gomendatzen die** (4); **gomendatzen diet** (4); **gomendatzen digu** (4); **gomendatzen dio** (5); **gomendatzen dizuet** (4); **gomendatzen dizut** (16); **gomendatzen du** (16); **gomendatzen duen** (3); **gomendatzen dugu** (5); **gomendatzen dute** (16); **gomendatzen zale** (3); **gomendatzen zion** (6); **gomendatzen zizkien** (3); **gomendatzen zuen** (9); **hartzeko gomendatzen** (3); **irakurtzea gomendatzen** (3); **joatea gomendatzen** (3)

## gomendatzaile *iz* gomendatzen duen pertsona.

Finkielkrauten **gomendatzaile** euskaldunek. **Joxe Azurmendi**

## gomendio 1 *iz* gomendatzea; gomendatzen dena.

Elizaren arauak eta agintarien **gomendioak** gaitzat harturik. **Patxi Altuna**  
Adiskidearen **gomendioak** jarraituz. **Itxaro Borda**  
Gidariak errespetatzeko **gomendioa** egin zigun arren, errukirik gabe zapaltzen genituen hilarriak. **Ramon Saizarbitoria**

Bolognako Adierazpenak sei **gomendio** egin zizkien unibertsitateetako eta gobernatuak kideei. **Berria - Euskal Herria**

Haur jaioberria harengandik aparte edukitzeko **gomendioa** egin zuten sendagileek. **Joxan Elozegi**

Israelgo Auzitegi Gorenak balok ez erabiltzeko **gomendioa** egin zion Armadari duela bi urte. **Berria - Mundua**

Gutuna berehala igortzeko **gomendioa** eman ziola. **Jon Muñoz**

Negoziaketa errazteaz gain, auziak gainditzeko **gomendioak** eskainiko ditu. **Berria - Euskal Herria**

Udalak ez zuen **gomendioa** onartu. **Berria - Euskal Herria**

Euskalkien erabileraz Euskaltzaindiak egin arauak eta **gomendioak** bete beharrekoak dira. **Berria - Euskal Herria**

Tortura eragozteko **gomendioak** aintzat hartzeko. **Berria - Euskal Herria**

Mamitsua da eta **gomendio** zehatzak proposatzen ditu, erakunde guztientzat. **Berria - Euskal Herria**

Nafarroako araudia Europak zehaztutako **gomendioetara** eta arauetara egokituko dela. **Berria - Euskal Herria**

Poesia liburuak osorik irakurtzeko, hona nire **gomendioa**: hasi bukaeratik, azken orrialdetik lehenbizikora. **Berria - Kultura**

Emeki-emeki ostatuko bezeroak arimaz bezainbat gorputzez zerbitzatzen hasi zen, nagusiaren **gomendioz**. **Itxaro Borda**

Okendoren **gomendioz** nindoala izkiriatu nuen. **Edorta Jimenez**

Egoitza hartako jabearentzat **gomendiozko** gutun bat neraman. **Josu Zabaleta**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atxilotuek polizia etxeetan maiz jasotzen dituzten tratu txarrei aurre egiteko **gomendio** sorta jasotzen duen txostena aurkeztu zuen. Herriko apezak izenpetu zion **gomendio** gutuna.

## 3 ordena militar baten lurraldea.

Antzina Thorenc-eko lurraldea gobernatzen zuen behinlako Tenpleko ordenaren **gomendio**-buru baten egoitza. **Josu Zabaleta**

**Gomendio** egoitzaren aurrez aurre, haranaren beste aldean, baina hura baino beherago, bada jendea bizi den gaztelu bat. **Josu Zabaleta**

## 4 -en gomendio-en ardurapean, -en babespean.

Mariñela auzoguneko ama-eskolaren aldean, herriak Luma elkartearen **gomendio** utzi etxe ttipi batean. **Herria**

Libro utzia izan da baina Baionako auzitegiaren **gomendio** egon behar du afera alde bat xuritu arte. **Herria**

Gobernuak deliberatu zuen [buhami horiek] denak igorriko zirela beraz Ipar-Ameriketarat, Frantziaren **gomendio** zen Louisiane eskualderat. **Herria**

Ez zenuen ahantziko haur hori zure eskariz hartu nuela neure **gomendio**. **Jon Muñoz**

Paper horiek zure **gomendio** utzirik, uste dut, andrea, gutun horietan zerikusia duten presunak zerbitzen ditudala paper horiek presuna horiei berei emanez bezain ongi.

**Jon Muñoz**

Volanges andreak Rosemonde andrearen **gomendio** utzi zituen gutunekin osatu dugu bilduma hau. **Jon Muñoz**

Nire Griselle zuhurtziagabea zure **gomendio** uzten dizut. **Ramon Etxezarreta**

## 5 -en gomendiotan-en gomendio.

Noelia haren **gomendioan** utzi zuen, pentsatuz Varela hori itxuraz zen bezain gizon zintzoa zela. **Jon Muñoz**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bost gomendio** (3); **eta gomendio** (10); **gomendio bat** (12); **gomendio bat egin** (3); **gomendio batzuk** (3); **gomendio egin** (8); **gomendio egin zizkien** (3); **gomendio eman** (6); **gomendio eman ditu** (3); **gomendio eta** (5); **gomendio gutuna** (5); **gomendio hau** (3); **gomendio hori** (6); **gomendio horiek** (5); **gomendio orokor** (3); **gomendio sorta** (4); **gomendio utzi** (5); **gomendio zehatzak** (3); **hainbat gomendio** (13); **hainbat gomendio egin** (4); **hainbat gomendio eman** (3); **zenbat gomendio** (3); **zer gomendio** (3); **zure gomendio** (3)

**azken gomendioak** (6); **bovenen gomendioak** (3); **egindako gomendioak** (5); **eginiko gomendioak** (6); **emandako gomendioak** (9); **eta gomendioak** (11); **gomendioak aintzat** (3); **gomendioak bete** (5); **gomendioak betetzeko** (3); **gomendioak egiten** (3); **gomendioak eman** (8); **gomendioak ematen** (3); **gomendioak ere** (7); **gomendioak eta** (7); **gomendioak ez** (4); **gomendioak jarraituz** (5); **gomendioak jasotzen** (3); **kontalariaren gomendioak** (3); **van bovenen gomendioak** (3); **z gomendioak** (3)

**baten gomendioari** (3); **baten gomendioari jarraiki** (3); **eta gomendioen** (4); **gomendioan utzi** (3); **gomendioan utzi zuen** (3); **gomendioari jarraiki** (5); **gomendioen artean** (6); **gomendiorik eman** (3); **gomendiozko gutun** (4); **gomendiozko gutun bat** (3); **gomendiozko gutuna** (3); **gomendiozko karta** (7); **gomendiozko karta bat** (3)

## gomina iz ile-gogortzailea.

Eta **gomina** ematen zuen, gainera, atzeraka orrazteko. **Antton Olano**

Bibote beltza eta **gomina** emana, eta ileordea dituela. **Monika Etxebarria**

**Gominaz** gogortutako ileak. **Antton Olano**

Larrua, piercing-a, **gomina** buruan... **Antton Olano**

## gominadun izond gomina duena.

Errabino batek, bibote txiki bat eta bere ile **gominadunarekin** ondo ematen zuen koloreko txanoa zeramatzanak, hilaren gorazarrea egin zuen, ingelesez. **Koro Navarro**

## gominatu izond gomina eman zaiona. ik gominaztatu.

Idun jasoko polo beixaren gainetik galtzen zaio adats kirru **gominatua**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Hirietan, jendeak arimarik gabeko gauzei begiratzan die, intentziorik gabeko eremuie: ipurdi bati, eskote bati, jaka bitxiari, adats **gominatuari**, eskaparateei, semaforoei.

**Pako Aristi**

## gominaztatu izond gomina eman zaiona. ik gominatu.

Buru gaineko mataza **gominaztatu**. **Aingeru Epaltza**

Ile **gominaztatu**an tangelo itxura ematen zioten onda batzuk zituen eginak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## gominola iz goxoki mastekagarria.

Mutikoak litxarrerria pila bat aipatu zion: erregaliza, melaza, **gominolak**, azukre hautsa. **Karlos Zabala**

**Gominola**-pakete handi samarra imajinatzen zuen eta, **gominolen** artean, txokolate zati batzuk. **Unai Elorriaga**

**Gominola** asko jaten direnean. **Unai Elorriaga**

Di-da baten irentsi nituen telebista aurreko mahaixoan zeuden **gominola** guztiak. **Jon Arretxe**

## gomit (gomit(a) ETCn 2.085 agerraldi; orobat, komit eta kumit g.er.) 1 iz gonbita. ik gonbit.



Gobernu buruari **gomita** . Herria

Ezteien eguna berexia, **gomita** guziak eginak. Janbattitt Dirassar

Nere **gomita** egin dautzuetalarik, gogoz eta bihotzez egin dut. Herria

**Gomitak** igorri genituen beste block-etara, apez polonesei ere. Marzel Etxehandi

**Gomita** deneri zabaldua da... Herria

B.-ko buruzagiek ere ukan dutela egun hortan parte hartzeko **gomita** . Herria

Baietz ihardetsi zidan **gomita** hori ene ahotik atera orduko. Janbattitt Dirassar

Kabaladun ala ez, orori **komita** hedatua zauzue. Herria

Etxe denetan izana dugu **gomit** hori eta gazte horiek nahi lukete jakin zenbat jende bilduko den eta hortako galdetua zuten izenen emaita urriaren 10 eko. Herria

Ehun bat lagun nunbeitan bildu da larunbat aratsean trinketeko salan, Otxaldetarrak elkarte berriaren **gomitari** ihardetsirik. Herria

Igorri dugu ikastolako haur batek egindako marrazkia **gomit** bezala. Herria

Afariaren sustatzailea eta **gomit** txartelaren egilea. Juan Garzia

## 2 gonbidatua.

Hautetsi abertzaleen elkarteak antolatutako ekitaldi horretara **gomita** guziak etorri dira : Didier Borotra, B.A. Herria

Arrats hortan **gomita** guzieren eskaini liburuxkan Michel Noblia lehendakari ordeak zion: [...]. Herria

Mintzaldi hau Ortzaizeko Ikastolako pedagogia taldeak antolatua zuen eta Mado Jadau psikologoa zen **gomita** . Herria

Gaurko gure gomita, Ezterenzubikoa dugu **sortzez** , Seaskako presidentea, Jean-Louis Maitia. Menane Oxandabaratz

Dominique serora Behautarra bere **gomitekin** "Emaztearen Etchea"ren aintzinean. Herria

## 3 gomit izan gonbidatua izan.

Zikiro jate batetara **gomit** ziren herriko bestetan lanean arizan diren herritarrak. Herria

Astelehen 29an **komit** direla nahi duten guziak, abisatzekotan, eta urririk, *Goizeko Izarrak* eskainiko duen zikiro erre haren jaterak. Herria

Denak **gomit** zirezte memento goxo baten pasatzera. Herria

Aste huntan, bertze lurralde bat zen **gomit** gure kokorat. Herria

Aldi huntan, egun oso baten pasatzera **gomit** ziren Azpeitiara. haurrak **gomit** dira musika tresnak ekartzera (triki, txistu, gitarra...) kantuak alaitzeko. Herria

- Alabainan, Jorge Oteiza, **gomit** dugu. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**denak gomit** (50); **denak gomit dira** (8); **denak gomit ginen** (3); **denak gomit gira** (10); **denak gomit zirezte** (23); **dirak guziak gomit** (7); **dirak guziak gomit** (10); **ere gomit** (5); **ere gomit dira** (3); **gomit baitira** (5); **gomit da** (7); **gomit dira** (131); **gomit dira aratsalde** (3); **gomit dira beren** (4); **gomit dira biltzar** (6); **gomit dira biltzarre** (3); **gomit dira egun** (4); **gomit dira herriko** (3); **gomit direla** (4); **gomit ginen** (6); **gomit gira** (16); **gomit zarete** (4); **gomit ziren** (15); **gomit zirezte** (28); **gomit zirezte** (3); **guziak gomit** (79); **guziak gomit dira** (65); **guziak gomit direla** (3); **herritar guziak gomit** (7); **herritar guziak gomit** (4); **herritar guziak gomit dira** (3); **hortara gomit** (3); **hortara gomit dira** (3); **hortarat gomit** (5); **hortarat gomit dira** (5); **hunat gomit** (4); **hunat gomit dira** (4); **ihiztari guziak gomit** (3); **jendea gomit** (3); **kide guziak gomit** (5); **laborari guziak gomit** (3); **nahiant guziak gomit** (3); **oro gomit** (6); **presuna guziak gomit** (5)

**bat gomita** (3); **da gomita** (5); **dute gomita** (4); **egiteko gomita** (3); **elkarrekin gomita** (4); **ere gomita** (3); **eta gomita** (6); **gaurko gure gomita** (13); **gomita bat** (9); **gomita berezi** (3); **gomita berezi bat** (3); **gomita berezia** (3); **gomita deneri** (8); **gomita deneri zabaldua** (6); **gomita egin** (8); **gomita egin zidan** (3); **gomita egina** (7); **gomita eginik** (3); **gomita egiten** (5); **gomita ez** (4); **gomita igortzen** (3); **gomita igortzen dugu** (3); **gomita izanen** (3); **gomita izanen da** (3); **gomita luzatu** (3); **gomita luzatua** (9); **gomita luzatua da** (7); **gomita nagusiak** (3); **gomita zabal** (3); **gomita zabal bat** (3); **gomita zabaldua** (3); **gomita zabalzen** (3); **gure gomita** (19); **guzieren gomita** (5); **ihiztarien gomita** (3)

**gomitari ihardetsirik** (3); **gomitari ihardetsiz** (3)

## gomitatu, gomita, gomitatzen (*gomit(a) ETCn 2.202 ageraldi; orobat komitatu g.er. eta kumitatu g.er*) 1 du ad gonbidatu.

Behin, afaltzera **gomitatu** nuen baina ez zuen onartu. Daniel Landart

Eta irriño goxo batekin emazteak **gomitatu** zituen barnera. Ramuntxo Etxeberri

Noiz-behinka, inguruetako zaldun izan nahi zuten hamabi urteko mutikoen bere gortera **gomitatzeko** usaia zuen. Aurelia Arkotxa

Ordutik urtero garaztarrak **gomitatuak** ziren Lizarrak muntatzen zien bestara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Gomitatzen** ditu familiako eta adiskide guziak, apezak, fraileak eta soinuariak. Aurelia Arkotxa

Ez dakit Euskal Herriatik nor **gomitatu** zen. Herria

Igandean, aratsaldeko 4-etan, Donapaleuko elizan, 5 kantari andana, Elhea taldeak **gomitaturik** . Herria

## 2 (era burutua izen gisa)

Carlos Zazpigarrenak eta bere etxean zeuzkan **gomitatuak**, eskuzarta luzea jo zuten balkoietatik. Txillardegia

Hautetsi eta **gomitatu** askorekin egin den bilkuran. Herria

**Gomitatuetan** hor ziren ere besteak beste Angeles Iztueta, euskal-gobernukoa, Frantxua Maitia, lurraldeburuaren izenean, [...]. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**auzapezak gomitaturik** (3); **denak gomitatuak** (11); **denak gomitatuak zirezte** (5); **dirak guziak gomitatuak** (3); **elkarrekin gomitaturik** (6); **ere gomitaturik** (3); **eta gomitatu** (6); **eta gomitatuak** (4); **gomitatu asko** (3); **gomitatu ditu** (16); **gomitatu dituzte** (10); **gomitatu du** (6); **gomitatu dute** (11); **gomitatu nahi** (3); **gomitatu ondoan** (3); **gomitatu zituen** (4); **gomitatu zituzten** (5); **gomitatu zuen** (5); **gomitatu da** (7); **gomitatu dela** (3); **gomitatu dute** (6); **gomitatu izan** (6); **gomitatu izan da** (3); **gomitatu zen** (4); **gomitatu zuten** (5); **gomitatuak dira** (27); **gomitatuak dira biltzarre** (3); **gomitatuak dituzte** (3); **gomitatuak gira** (4); **gomitatuak izan** (7); **gomitatuak ziren** (6); **gomitatuak zirezte** (6); **gomitatuak zirezte egun** (3); **gomitatuak zituen** (5); **gomitatuak zituzten** (6); **gomitatuaren artean** (3); **gomitatu du** (4); **guziak gomitatuak** (10); **guziak gomitatuak dira** (9); **ikastolak gomitaturik** (4); **ordezkariak gomitatu** (3)

**baten hartzerat gomitatzen** (3); **batera gomitatzen** (3); **batetara gomitatzen** (3); **beraz gomitatzen** (3); **biltzarrek gomitatzen** (4); **biltzarrek gomitatzen ditu** (3); **denak gomitatzen** (4); **elkarrekin gomitatzen** (3); **euskaltzale guziak gomitatzen** (3); **gogotik gomitatzen** (3); **gomitatzen ditu** (31); **gomitatzen ditugu** (8); **gomitatzen dituzte** (18); **gomitatzen du** (10); **gomitatzen dugu** (4); **gomitatzen dut** (3); **gomitatzen dute** (6); **gomitatzen gaitu** (4); **gomitatzen gaituzte** (5); **gomitatzen zaitut** (9); **gomitatzen zaituzte** (10); **gomitatzen zaituztegu** (6); **gomitatzen zituen** (4); **guziak gomitatzen** (15); **guziak gomitatzen ditugu** (5); **guziak gomitatzen dituzte** (5); **hartzerat gomitatzen** (4); **herritar guziak gomitatzen** (4); **herritarrek gomitatzen** (4); **herritarrek gomitatzen dituzte** (4); **pilotarien biltzarrek gomitatzen** (3)

## gomitatzaille (orobat komitatzaille) izond gonbidatzailea.

Ibailalde elkarte **gomitatzailleko** kidearekin. Herria

Gertatzen dena da gomitatuaren malestruerekin, **gomitatzailleak** agertzen direla bertzea iduria, bati emaztea joaiten zaiola, bertzeari halaber eta, dirudiane, beharko duela pagatu zerga gehiago. Herria

Besteak beste, badakite ere Uztaritzeko erretorek, eta komentuko serora beltzek, beti interesatua eta interesgarri zela Lafitte, hartaz behartzen edo **komitatzaille** zirendako. Herria

## gomitolarri iz goragalea.

**Gomitolarriak** ez du bazterrik zipriztindu arteko onik izango, ondo ezagutzen dut barrena hustu behar gogaikarri hau. Anjel Lertxundi

Liskar eta gehiegikeriek, goragale eta **gomitolarri** itzela eragin dute Bidasoaz honazko lurretan. Hasier Etxeberria

## gomuta 1 iz oroimena.

Eta harrikoan, Ane etorri zitzaion **gomutara**. Unai Iturriaga  
–Nik Txabi ekartzen nian **gomutara**, indarra emoten zidaan. Koldo Izagirre  
Aurreko hilabeteak ekarri zituen **gomutara**. Lutxo Egia  
Livornon ginen, **gomutan** daukat sobietikoek Laika txakurtxoa espaziora bidali zutela zekartela izparringi guztiek. Koldo Izagirre  
**Gomutan** dut, txikitan, amamak Athleticen ereserkia kantatzen zidala. Berria - Kirola  
Gizonaren **gomutan** atxikirik gelditu dira haurretako irudiak... Pablo Sastre  
**Gomutak** biziberritutako jazoerak. Berria - Kultura

## 2 oroitzapena.

-Zozo harroen moduan?, ez daukat horretaz aparteko **gomutarik**. Xabier Amuriza  
Gorpuk kanposantuetako zuloetan hauts bihurtu ahala desagertuz legez doa haien **gomuta**. Edorta Jimenez  
Gerardoren **gomutak**, ostera, ez zuen inoiz abandonatu. Xabier Montoia  
Fikzioa benetako jazoeren **gomutekin** nahastuz joatea. Berria - Kultura  
**Gomutak** azkarregi hasi zitzaizkion burmuinetako autopistetan zehar. Unai Iturriaga  
**Gomutak** uxatzeko modurik arinena mozkortzea zela erabaki zuen. Unai Iturriaga  
Zure **gomutak** ez du luze iraungo nire gogoan. Koldo Izagirre  
Krisitiin-keinu hark Almaren **gomuta** piztuko zidalakoan. Harkaitz Cano  
Buru **gomuta** horietan, begiak igurtzi behar izan ditut, Perti pasatu baita, pausoa baldar baina burua tente, nire ondotik. Anjel Lertxundi  
Ez nintzen bertso galduaren **gomutaz** negar egiten zuen poeta antzua. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etorri zitzaion gomutara** (3); **gomutan daukat** (4)

## gomutagarri izond gogoangarria.

Esperientzia hori are **gomutagarriago** zelan egin dezakegun irakatsi dit. Urtzi Urrutikoetxea  
1819ko Paris, filusen eta petzeroen biltzar hura, diruzalekeriazko lupetza hura, soliltasun **gomutagarritz** margotzen digu. Markos Zapiain  
"Emaztea larrutan erabilia gizona liburu bat irakurtzen jarri zenean sortu zuan", eztiro garratz, **gomutagarri**. Koldo Izagirre

## gomutapen iz oroitzapena.

Memoria gauza hauskorra da eta janarik joandako hainbat momentu galduak dira guztiz, betiko, paper satinatuzko **gomutapenik** ere ez zaio geratzen. Sonia Gonzalez  
Bat-batean ile beltz luzedun neska baten atzealdeak balizko **gomutapenetatik** atera zaitu bortizki. Sonia Gonzalez

## gomutaratu, gomutara(tu), gomutaratzen da/du ad gomutara etorri; gomutara ekarri.

Bezperako irudi guztiak **gomutaratu** zitzaizkion. Unai Iturriaga  
Gure gogoak ezin du, ordea, hura berriro **gomutaratu**. Xabier Amuriza  
Honelako eszenak **gomutaratzean** euria hasi beharko luke. Unai Iturriaga

## gomutarazi, gomutarez, gomutarazten dio ad gomutatzer behartu. ik oroitrazi.

Salvador Puig Antich izenak, ezer **gomutarazten** dizu? Koldo Izagirre  
Bere bizitzaren porrota **gomutarazi** zioten beste behin beira zati txiki haiek. Aritz Gorrotxategi  
Bisitariak maiatzaren hasierako egun odoltsuak **gomutarazi** zizkidan arren, gero gogoaren hegalek lehenagoko egunetara eroan ninduten. Edorta Jimenez

## gomutatu, gomuta(tu), gomutatzen 1 da ad oroitu.

Txortaldiekaz **gomutatzen** nintzan ni, txortaldiekaz! -erantzun besteak. Lutxo Egia  
Baina Olasonekoa ez zen hartaz **gomutatzen**. Koldo Izagirre  
Larrinagako gertaerekin **gomutatzen** zen batez ere. Lutxo Egia  
- **Gomutatuko** zara noski... Koldo Izagirre

### • 2 du ad oroitu.

Ametsetan bezala, oroimenean ere, geure begietatik baino, kanpotik **gomutatzen** dugu bizitakoa, bideoa edo filma balitz bezala. Sonia Gonzalez  
Ate handi pispusua... sartu eta dena ilun, beti ilun **gomutatzen** dut. Sonia Gonzalez  
Zuk, ordea, ez zenuen ezer **gomutatzen**. Aritz Gorrotxategi  
Inor jaten ari dela, **gomuta** beza nola ikusten duen Kristo gure Jauna bere ikasleekin jaten. Patxi Altuna

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gomutatu zen** (3); **gomutatzen duzu** (3); **gomutatzen zuen** (3)

## gona 1 iz gerritik beherako jantzia, zangorik gabea.

Gizon bat eskoziar **gonaz** jantzia. Koro Navarro  
Neska garai bat, larruzko **gona** beltz ezin motzago bat daramana. Oskar Arana  
Larruzko **gona** estua, belaunak eta izterren puxka zabala agerian uzten zizkiona. Aingeru Epaltza  
**Gona** estu nimiñoa janzen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Orrazkera berriak hagitz ongi ematen zion, baita **gona** motzak grazia berezia eransten ere bere izter nahi baino lodixkoagoei. Aingeru Epaltza  
Blusa zabalak eta **gona** tolesdunak. Aingeru Epaltza  
Tonu griseko **gona** izurdun bat jantzirik. Eskarne Mujika  
Gonazpiko fina azpian eta **gona** botoiduna gainean. Karlos Zabala

Pauline, andereño zintzoaren **gona** zurruna jantzita. Karlos Zabala

**Gona**, txit laburra, txit almidoiztatua, dantzari baten **gona** bezala harrotzen zen. Karlos Zabala

Galtza barren zabalez gizonak, **gona** hegaldun kolore anitzekoz emakumeak. Felipe Juaristi

Mentxuk **gonako** zirrikitu batean ezkutatu zuen. Josu Landa

Laneko **gona** eta etxeko botak erantzi eta bere **gonarik** onena ohe gainean jarri zuen. Irene Aldasoro

**Gonaren** gerrikoa askatu. Elena Touyrou

**Gonaren** zerrenda ilunek zerrenda argiak nabarmenduko zituzten. Irene Aldasoro

Alta, ama goizik hil zitzairen eta amamaren **gonetan** hazi ziren mutikoak. Itxaro Borda

Haren **gonen** azpian usteltzen da, emeki, irribarre malenkoniatsu batekin. *ik gonape.* Monika Etxebarria

Merkatu nagusiko semea izan zen, baten eta bestearen **gonen** atzetik zebilen. *ik beherago 5.* Karlos Zabala

Berorri egon bedi ziur ordea ez dudala morroi beztidurarik jantziko, eta are gutxiago **gonazkorik**, berorren sehi izateko ohorea izan ondoren. Jon Muñoz

## 2 (aditzaren objektu gisa)

**Gona** zeraman, bion artean eseri zen. Eider Rodríguez

**Gona** jaso eta algara handitan egiten dute gibelera. Koldo Izagirre

**Gona** altxatua eta orratzez eutsia zikindu ez zedin. Karlos Zabala

Haizeak **gona** altxatzen zienean. Joseba Sarrionandia

Eta buelta hartzean, **gona** harrotzen zait, olatuak eginez neure inguruan. Anjel Lertxundi

Gogaiturik **gonak** beheratu ditu. Gotzon Garate

## 3 (hitz elkartuetan)

Jaka-**gona** multzo beixa. Joxan Elozegi

Justina altxatu egin zen, **gona**-hegala airean erabiliz euritakoa balitz bezala. Felipe Juaristi

Alkarren aurrez-aur egozala, egur-txaria batek ezeutsan bada atsoari **gona**-magala tarrat eginda urratu? Pello Zabala

Erantzun zuk, tabernariaren alaba, **gona**-bueltan enarak ezkututzen dituzun neskata horrek. Felipe Juaristi

· Manchester-**gona** oliba-kolore kanpai-erako bat. Joxe Austin Arrieta

Inguruan, ilunabar berdea, kanpai-**gona** urdinez josia. Joxe Austin Arrieta

Bruno Paulovaren tutu **gonarekin** jantzita. Harkaitz Cano

## 4 irud

Osaba bere aparatua **gonen** azpian sartzen zen, besoa altxa eta seinale bat egiten zuen orkestra bateko zuzendaria iduri, eta berriz gona hartatik ateratzen zen, eta bost minuturen buruan argazkia ekartzen zuen. Fernando Rey

Sukaldean, orain iritsi ezin zen leku batean, tximinia altuaren **gona** zurian, haurren baten eskuak ikatzez margoturiko itsasontzi ttipi bat oharteman nuen. Koldo Izagirre

Gauaren **gonak** inarosten hasi ziren, haserre bizian, temati. Fernando Rey

Beste behin agertu da PP PSEren **gonetatik** ezin askatu. Berria - Harian

## 5 (emakumearen irudi gisa)

Gizasemeak, badakigu, **gona** bat pasatu eta atzetik lasterka. Karlos Zabala

Hik ondo egiten duk, George, **gonetatik** urrun egonda. Lopez de Arana

Azeri zaharra nintzen **gona** kontuetan ordurako. Hasier Etxebarria

Hogeita Bigarren Etorbidean pisu bat hartuko dut alokairuan, lankide batekin batera, eta piano bat izango dugu eta lasai biziko gara, **gona**-konturik gabe. Lopez de Arana

Eta gainera ordurako ohartua zen mutilak atzetik zerabiltzan **gona** eta neska arazoez. Joxemari Iturralde

## 6 azpiko gona

Mansaren azpiko **gona** more argi batekin dantzako jantzi ultramoderno bat egin dut. Josu Zabaleta

Eta azpiko **gonaren** ertz zuria harrapatu zion. Irene Aldasoro

Izterreko eskua azpiko **gonan** gora zihoakion bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Azpiko **gonaren** soka bat. Irene Aldasoro

## 7 gona-barren gonaren azpialdea.

**Gona**-barrenak gerriaren jiran bildurik. Jose Morales

Ez zirela beharrezko, nik; eta **gona**-barrenei gora eraginda, ate aldera egin zuen. Inazio Mujika Iraola

Ez nuen ikusten irudimenak igortzen zidan irudi arretu hura besterik, eta haren lepo makurtu, hesola gaineko esku, eta azpiko **gona**-barren lanpara-argiak sotilki argituak.

Irene Aldasoro

Eta zer aurkituko **gona**-barrenean, eta Katalina sorgin Gezalakoak urkamendian kantatu zituen zeruaren kontrako bertsoak! Anjel Lertxundi

## 8 gona-motx (corpusean gonamotx soilik) izond gona motxa daramana.

Bragatxorik gabe makurtu da neskato **gonamotxa**. Patziku Perurena

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**azpiko gona** (16); **azpiko gona baten** (3); **baina gona** (3); **bere gona** (10); **bere gonarekin** (3); **beren gona** (3); **du gona** (3); **edo gona** (4); **eta gona** (40); **eta gona laburrak** (3); **eta gonak** (6); **eta gonaren** (4); **eta gonari** (3); **gona altxatu** (7); **gona altxatu eta** (3); **gona azpian** (5); **gona azpitik** (6); **gona bat** (10); **gona baten** (7); **gona baten zati** (3); **gona beltz** (3); **gona beltza** (7); **gona estu** (3); **gona estuak** (3); **gona eta** (22); **gona gorri** (6); **gona gorria** (5); **gona jaso** (6); **gona jaso eta** (3); **gona labor** (3); **gona labor eta** (3); **gona laborrak** (5); **gona luze** (4); **gona luzearekin** (3); **gona luzearekin eta** (3); **gona motzak** (3); **gona tolesduna** (4); **gona urdin** (3); **gonak altxatu** (5); **gonak eta** (4); **gonen azpian** (3); **jaka eta gona** (3); **larruzko gona** (3); **neskaren azpiko gona** (3); **zen gona** (3); **zituen gonak** (3); **zuen gona** (9)

## gonada iz sexu guruina, arra nahiz emea, sexu zelulak eta hormonak sortzen dituen.

Arrak gorputzaren nahiko goialdean, aurreneko segmentuetan, dauzka **gonadak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrak bere matxarda erabiltzen du emeari gorputza okerrarazteko eta obulutegia arraren **gonaden** parera eraman dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nerabezaroan, berriz, hipofisiak suspertu egiten ditu **gonada** sexualak. Luis Elberdin

**Gonada** sexuak -obarioak eta testikuluak- eta horiek sortzen dituzten hormonek -estrogenoak eta testosterona- odola, bihotza eta burmuina asaldatzen dizkigute. Luis Elberdin

## gonadotropina iz gonaden jarduera akuilatzen duen hormona.

Haborakak Madrilgo atletismo ekitaldian eman zuen positibo, uztailean, **gonadotropina** hormonarekin. Berria - Kirola

## gonadun izond gona daramana.

Tomasek kuku **gonadunari**. Aingeru Epaltza

gonamotx ik **gona 8**.

**gonape** *iz* gonaren azpia.

Maistraren **gonape** ilunean ez dakit zer ikusi genuela esaten genuen. **Joseba Sarrionandia**  
Baina tira, bizitza guztia aitamen **gonapean** ezin da pasatu. **Joseba Sarrionandia**  
Sen atabiko batek amaren **gonapera** eginarazi zidan ihes. **Aingeru Epaltza**  
Alabak **gonapetik** urrundu ezinik zebiltzan ama batzuk ekarri zituen gogora. **Irene Aldasoro**  
Adrianok **gonapetik** gora eta eskotetik behera sartu zion eskua emazte hartu berriari. **Aritz Gorrotxategi**  
Ez zirela apaizen **gonapetik** ateratzen. **Ramon Saizarbitoria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
**amaren gonapean** (3)

**gonapeko** *iz* azpikogona. ik **gonazpiko**.

Emazteek mantelina daramate, baina ez daramate **gonapekorik**. **Koldo Izagirre**

**gonatxo** *iz* gona txikia.

Tulezko **gonatxo** txuri arina. **Anjel Lertxundi**  
Esku batez **gonatxoari** heldu nion eta besteaz kuleroei tira egin. **Juan Martin Elexpuru**

**gonaxka** (*corpusean gonaska soilik*) *iz* gonatxoa.

Nesken **gonaska** urdin kanpai-erakoak eta buruko painelu zuriak. **Joxe Austin Arrieta**

**gonazale** *izond* emakumezalea.

Apezak pilotari, ehiztari, jokuzale, **gonazale**.. **Patziku Perurena**  
Ryp sukaldaria, Albizu pasaiar **gonazalea**, Cornelius doktorea. **Pablo Sastre**  
Herman Koopman ere nazkagarri bat da, Jopie de Beer bezala, **gonazale** eta neskazale hutsa. **Josu Zabaleta**  
Gure aitona **gonazale** galanta zen. **Jon Muñoz**  
**Gonazale** samarra beharbada. **Irene Aldasoro**  
Baina sobera **gonazalea** da. **Fernando Rey**  
**Gonazale** ospearekin. **Berria - Kultura**

**gonazpiko** *iz* azpikogona. ik **gonapeko**.

**Gonazpiko** fina azpian eta gona botoiduna gainean. **Karlos Zabala**  
Garai hartan **gonazpikoa** janzen genuen oraindik. **Karlos Zabala**  
Janzen ari zen, paparra airean, sekulako sorbaldak ageriz, **gonazpiko** bat hortzen artean. **Karlos Zabala**  
2 **gonazpiko**, bakoitza 0,50 = 1,00. **Josu Zabaleta**

**gonazulo** *izond*

Andre-gixon eta **gonazulo** deitu zieten, eta, jakina denez, gizonetako oso iraingarritzat dauzkate hitz horiek. **Jose Morales**

**gonbi(a)** *iz*

Orduantxe etorri zitzaizalarik **gonbixaren** izen zientifikoa: *escorpaenidae* familiakoa da-. **Edorta Jimenez**  
Faxista bizi-bizial; eta **gonbixa** baino gaiztoagoa. **Edorta Jimenez**

**gonbidaketa** (*agerraldi 1 liburu 1ean; ETCn 2 agerraldi*) *iz* gonbidatzea.

Horrela Jainkoak hasieratik Beraganaino erakartzen du gizakia, **gonbidaketa** egiten diolarik bere baitatik atera dadin eta biluz dadin antzeko ez zaion guztiatik. **Joan Mari Lekuona**

**gonbidapen** (*262 agerraldi 54 liburu eta 138 artikulutan; ETCn 3.322 agerraldi; orobat konbidapen ETCn 14 agerraldi*) *iz* 1 gonbidatzea. ik **gonbit**.

Ala Al-Dinek, ezezkoekin aspertua, onartu egin zuen Mahmuden **gonbidapena**. **Patxi Zubizarreta**  
Ttipik baizik ez zion **gonbidapenari** uko egin, lana estakuru. **Aingeru Epaltza**  
**Gonbidapen** hori Peterri zegoen batez ere zuzenduta. **Julen Gabiria**  
-Eta noizko elkarrekin zerbait hartzeko **gonbidapen** hori? **Aingeru Epaltza**  
Horrenbestez ulertu nuen telefonozko **gonbidapen** berezi harena. **Juan Garzia**  
**Gonbidapenezkoa** nahi zuen keinu erdi lotsati erdi kokina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan)

Familia on guztiek bidualten dituzten **gonbidapen** -karten erantz "PP" jartzen du. **Julen Gabiria**

**Gonbidapen** uholde bat iristen hasi zitzaion Francori. **Xabier Olarra**

**Gonbidapen** -txartela batzuetan, bazkariko menuarena beste batzuetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta **gonbidapen** -orriak bidean dira dagoeneko. **Lopez de Arana**

Badago zer ospatu, esaten ziguten **gonbidapen** -eskutitzean. **Iban Zaldúa**

Lainezek **gonbidapen** keinu azkarra egin die. **Pello Lizarralde**

## 3 gonbidapen txartela.

**Gonbidapenak** banatuta zeudela jadanik. **Bernardo Atxaga**

Lajosen **gonbidapena** sakelan zuela heldu zen Endre. **Ander Irizar**

Zirkular ziklostilatua bat, normalean, irakurri gabe paperontzira botatzen da, baina bat-batean konturatu nintzen hark ez zuela merezi patu komuna: lizentziaturaren hogeita bost urteurrenoko afarirako **gonbidapena** zen. **Juan Garzia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiteko gonbidapena (4); eta gonbidapen (3); gonbidapen bat (3); gonbidapen bati (3); gonbidapen hori (4); gonbidapen txartel (3); gonbidapen txartelak (3); gonbidapena da (6); gonbidapena egin (11); gonbidapena egiten (3); gonbidapena jaso (7); gonbidapena jasoko (3); gonbidapena luzatu (6); gonbidapena onartu (7); gonbidapena zen (4); gonbidapenaren zain (3); gonbidapenari esker (3); gonbidapenik gabe (3); gonbidapenik gabe geratu (3); gonbidapenik jaso (3); hartzeko gonbidapena (10); joateko gonbidapena (4); korritzeko gonbidapena (5); parte hartzeko gonbidapena (9); zuen gonbidapena (3)

## gonbidarazi, gonbidaraz, gonbidarazten du ad gonbidatzera behartu.

Nik ere, horrenbestez, **gonbidaraz** nezake neure burua jendearen etxeetara. **Monika Etxebarria**

Orrialde hau gainditzera **gonbidarazten** ditut honenbestez gogo sentibera guztiak. **Joxan Eloseggi**

## gonbidatu (ETCn 20.753 agerraldiorbat konbidatu ETCn 131 agerraldi), gonbida, gonbidatzen 1 du ad ospakizun, jai edo otordu batean esku hartzeko (norbaiti) esan edo eskatu. ik gomitatu.

Egun batez, bere bisirriari hots egin zion, Samarkandara joan, eta Xazaman jauregira **gonbida** zezan. **Patxi Zubizarreta**

**Gonbida** al zaitzaket zerbait edatera? **Oskar Arana**

Neska xarmantak bazkaltzera **gonbidatu** zuen Bakbaka. **Patxi Zubizarreta**

-Autoa gidatzeko gai bazara bazkaltzen **gonbidatzen** zaitut. **Edorta Jimenez**

Erokeria bat egitera **gonbidatuko** zaitut. **Oskar Arana**

Haren ahoa nire begietara hurbildu zuen, eta ezpainen islari ondo erreparatzera **gonbidatu** ninduen. **Juan Garzia**

-Jar zaitez **-gonbidatu** zuen osabak, zizeiluan libro zen lekua seinalatuz. **Elena Touyaru**

Benetan eskerzten dizut ni **gonbidatu** izana. **Fernando Rey**

Bilbon izan da egunotan, EHGAMek **gonbidatuta**. **Berria - Euskal Herria**

Tabernariak **gonbidatutako** patxarana hartu eta buila egin dugu. **Xabier Etxabe**

## 2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Segidan, beste afaltiar **gonbidatuak** nor bere etxera egin zuten. **Joan Mari Irigoien**

Bikote **gonbidatua** bakarrik geratu orduko, emazteak kontu hartu dio senarrari: [...]. **Joxerra Garzia**

Bakarlariek, orkestra **gonbidatuak**, eta Miramongo eguerdiek osatuko dute programazioa. **Berria - Kultura**

Irakasle **gonbidatu** gisa. **Berria - Euskal Herria**

**Gonbidatu**en txaloen artean. **Eduarne Elizondo**

Smithers andrearen festako **gonbidatuak** arrazoi zuten: [...]. **Fernando Rey**

Ni bere ohorezko **gonbidatua** izatea nahi zuela. **Fernando Rey**

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen **gonbidatu** nagusia. **Berria - Euskal Herria**

Intelektual usteko **gonbidatuak**. **Hasier Etxebarria**

Gaurko honetan **gonbidatu** berezia daukagu gurekin, idazle bat. **Jon Arretxe**

Eta jakirik gustagarrienak eta ardorik finenak dastatu bitartean, maiteminak jo zuen **gonbidatua**. **Patxi Zubizarreta**

Hogei urte ziren **gonbidaturik** hartzen ez zutela etxean. **Xabier Olarra**

Emmanuel ez baitzegoen **gonbidatu**en zerrendan. **Joan Mari Irigoien**

Dabid **gonbidatu**entzako gelan topatu nuen, atea zabalik eta lo. **Patxi Zubizarreta**

Funtsezkoena ahaztu duzu, **gonbidatu** jauna. **Karlos Linazasoro**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aditu gonbidatu (3); afaltzera gonbidatu (24); afaltzera gonbidatu ninduen (3); afaltzera gonbidatu zuen (5); aldiz gonbidatu (3); bat egitera gonbidatu (4); bat ematera gonbidatu (3); bat ere gonbidatu (4); bat gonbidatu (5); bat hartzera gonbidatu (7); batera gonbidatu (19); batzuk gonbidatu (3); bazkaltzera gonbidatu (19); bazkaltzera gonbidatu zuen (7); bere etxera gonbidatu (13); bere gonbidatu (3); berekin joatera gonbidatu (3); beroa hartzera gonbidatu (3); beste gonbidatu (4); biok gonbidatu (3); da gonbidatu (3); du gonbidatu (3); edatera gonbidatu (5); edatera gonbidatu zuen (3); egitera gonbidatu (29); egitera gonbidatu zituen (7); egitera gonbidatu zuen (5); egotera gonbidatu (3); ekitaldira gonbidatu (4); ematera gonbidatu (5); ere gonbidatu (21); ere gonbidatu zuten (5); esertzera gonbidatu (13); esertzera gonbidatu zuen (5); eta bazkaltzera gonbidatu (4); eta gonbidatu (18); eta gonbidatu ere (3); etortzera gonbidatu (4); etxeak gonbidatu (4); etxeak gonbidatu ditu (4); etxera gonbidatu (35); etxera gonbidatu ninduen (4); etxera gonbidatu nuen (3); etxera gonbidatu zuen (7); ez du gonbidatu (3); ez gintuzten gonbidatu (3); ez zuen gonbidatu (3); ezkontzara gonbidatu (3); festa batera gonbidatu (3); gintuzten gonbidatu (3); gonbida ezazu (3)

Infernuetara erortzean, igoera handi baten esperantza sortzen zaigu, eguneroko bizitzan **gorabehera** etengabean ohituak gaude eta. **Juan Kruz Igerabide**

Petroliorearen prezioaren **gorabeherak** berehalakoan eragiten diote munduko ekonomia eta finantza-orekari. Zoriaren **gorabeherak** eta bizitzaren nahigabeak horrela pairaturik. **Koro Navarro**

Lisak patxadatsu zaintzen zuen andrea, umorean **gorabeherarik** izan gabe. **Karlos Zabala**

Garuna oxigenorik gabe eta karbono dioxidoz pozoiturik, **gorabeherak** eta itzalaldiak izaten zituen Virgilen kontzientziak. **Xabier Olarra**

Hurbiletik edo urrunetik ikustean, erdi-ekzutaturik edo leku eta ikuspegi batetik edo bestetik begiratzeko [objektuei] gertatzen zitzaizkien **gorabeherak** ikasten. **Xabier Olarra**

Ni ez nintzen konturatu, ordea -harik eta kantaten, Goldberg Bariazioen eta Magnificataren kasetak eraman nizkion arte-, adimen aldetik zituen mugara orokorrak **gorabehera**, Martinek bazuela adimen musikal bat, Bachen musikaren egitura-arauez jabetzeko modukoa. **Xabier Olarra**

Haren zentzumen-sistema, nahiz eta sentiberatasun gutxiagok eta gehiegik **gorabehera** bortitzak izan, egonkorxeago bihurtzen hasi zen.Truke-tasen **gorabehera** handien ondorioz, salgaien nazioarteko prezioak etengabe aldatzen dira. **Xabier Olarra**

Markagailuaren **gorabeherak**: 0-3; 0-8; 0-10; 5-10; 7-10; [...]. **Berria - Kirola**

## 2 kontua, arazoa, gertaera.

Eguneroko bizitzako **gorabehera** guztietan. **Xabier Olarra**

Eguneroko **gorabeheraz** mintzatzen zen haiekin. **Jose Morales**

**Gorabehera** arrunt samarrei buruz mintzatu ginen. **Joxean Agirre**

Erraza da, baita bat amnesikoa ez bada ere, garaiko **gorabeheren** kontua galtzea, gaixo kronikoentzako erietxeetako pabilioi ahaztuetan. **Xabier Olarra**

Handik bost minutura Peter eta Pim itzuli ziren, elurra baino zuriago, eta gertatu zitzaizkien **gorabeherak** kontatu zizkiguten. **Josu Zabaleta**

Batailaren **gorabeheretan** luzatzen da gero Laurent liburuan. **Edorta Jimenez**

Zenbat eta handiagoa delituaren basatikeria eta **gorabeheren** sinesgaiztasuna, orduan eta txikiagoa testiguen sinesgarritasuna. **Juan Martin Elexpuru**

Azaldu nion, bada, itsasoko **gorabeheretan** banekiela zer edo zer. **Edorta Jimenez**

Luzaro aritu zitzaion hodia marrazten, anatomiako **gorabehera** guztiak azaltzen. **Xabier Olarra**

Geografiaren eta historiaren **gorabeherak**. **Koro Navarro**

Edozein **gorabehera** estetikiton gertatu ohi den bezala, Oteizaren aldarria ere polisemikoa zen, interpretazioa askotarikoa. **Anjel Lertxundi**

Gertatu, ordea, agente baten ekintza ezusteko baten **gorabeheran** gertatzen da guztia. **Juan Garzia**

Hipnositik espasmora pasatu zen minutu baten **gorabeheran**. **Karlos Linazasoro**

Kakotx baten **gorabehera** izango da gehienera ere. **Andoni Egaña**

Egun baten **gorabehera** ez da ezer, gizona, hartu atseden. **Harkaitz Cano**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ulertu ezinezko nerbio **gorabeherak** izaten ditu. **Josu Zabaleta**

Objektuak aztertzen, haien itxura-**gorabehera** harrigarriak ikasten. **Xabier Olarra**

Ezin nion pasio bana-banakorik imajinatu, ezin lot nezakeen diru-kezkak edo politika-sestrak edo moda-**gorabeherak** bezalako arreta mundutiarrekin. **Anjel Lertxundi**

Napoleonen aholkulari errimean lege **gorabeheretan**. **Andres Urrutia**

Halako bizi-**gorabeherarik** oroitzeko nik ez dut hil beharrik. **Juan Garzia**

#### 4 garrantzia.

Euskal Herriaren independentzia txit **gorabehera** handiko gaia da. **Gorabehera** handiko kontua ote zen, haien emazteentzat, gizona kulturaren edo folkloreaken euskarri izatea? **Iñaki Seguro**

**Gorabehera** handiko zeregin baterako omen da. **Antton Olano**

#### • 5 post (izen sintagma mugatuaren eskuinean) aipatzen dena kontuan hartu gabe edo hala ere.

"Bibiliako istorioak", beren erlijiozko balioa **gorabehera**, folklore bihurtu ziren. **Iñaki Mendiguren**

Makillajea **gorabehera**, Ruth Prynnek ezin zuen neke-aurpegia ezkutatu. **Lopez de Arana**

Adina **gorabehera** aguretua ematen zuen gizon argal bat. **Edorta Jimenez**

Euren izen-deiturak **gorabehera**, ondarrutar peto-petoak dira. **Koldo Zuazo**

Labankadak **gorabehera**, ustezko itsuak ez zuen amore ematen, eta halako batean lepotik heldu zion Gorkari, ezin gogorrago heldu ere. **Patxi Iturritegi**

Inflexio ziklikoak **gorabehera**, nazioartekoturiko ekoizpenak munduko BPGean duen pisua (%9 1998an, eta %5 1985ean) handituz joango da. **Koro Navarro**

Estherrek, Adelak eta Luisek, ordea, [...] ordua **gorabehera**, aurrera egin dute. **Patxi Zubizarreta**

Data du bere pertsonaia kuttuna, androide bat, bere soraiotasuna **gorabehera**, gizaki izatearen jakin-mina eta inbidia sentitzen dituen. **Xabier Olarra**

Ni ez nintzen konturatu, ordea [...] adimen aldetik zituen muga orokorrak **gorabehera**, Martinek bazuela adimen musikal bat, Bachen musikaren egitura-arauz jabetzeko modukoa. **Xabier Olarra**

Natura izenekoa (fisiko kuantikoen natura adibidez, eta berek aitortzen dutenez) lausoa eta zehazgabea da bere baitan, fisikoaren arrazoibideak eta ikuspegiak **gorabehera**. **Iñaki Seguro**

Gizonaren irudia nahiko iraunkorra da beti, ilearen kolorea bezala, argitasunaren eta islen aldaketak **gorabehera**. **Josu Zabaleta**

#### 6 gutxi gorabehera

-Laurogei, gutxi **gorabehera**. **Jose Morales**

-Non da, gutxi **gorabehera**? **Lopez de Arana**

Hori esan nion gutxi **gorabehera**. **Ramon Saizarbitoria**

Gure galaxia gutxi **gorabehera** segundoko bostehun kilometroko abiaduran mugitzen dela. **Juan Garzia**

Sei aurpegiko dado batekin egindako 6 milioi jokalditan gutxi **gorabehera** milioi bat aldiz batekoa agertzea. **Joxe Austin Arrieta**

Mende bateko epean gutxi **gorabehera**, 1430-1540 urteen artean. **Koro Navarro**

-Nik, gutxi **gorabehera** bederen, bazekiat zertan ibiliko naizen, eta zeinekin, eta nola. **Txillardeggi**

Eta, bestalde, gutxi **gorabehera** ere ez nekien zenbat denborarako genuen; ezta, zehazkiago, elkarrekin afaltzekoak ote ginen ere. **Ramon Saizarbitoria**

#### 7 gutxi gorabeherako izlag

Gutxi **gorabeherako** uniformetasuna. **Iñaki Mendiguren**

Ibiltzen hasi berriak gara, baina baditugu oinarriak, eta baita gutxi **gorabeherako** helburuak ere. **Koldo Zuazo**

Imajinatu marigorringo txiki eta beltz bat eta samuaren gutxi **gorabeherako** irudia izango duzu. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Gutxi **gorabeherako** itzulpen egokitu. **Lourdes Oñederra**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adina gorabehera (4); ahalegin guztiak gorabehera (5); ahalegina gorabehera (4); arazoak gorabehera (4); bat gorabehera (9); bat gutxi gorabehera (5); baten gorabehera (5); batzuk gorabehera (13); beste hainbat gorabehera (4); bizitzako gorabehera (5); gorabehera asko (20); gorabehera asko izan (9); gorabehera askorekin (8); gorabehera askoren (7); gorabehera askoren ondoren (4); gorabehera bat (13); gorabehera batzuen (5); gorabehera batzuk (21); gorabehera batzuk ere (4); gorabehera batzuk izan (5); gorabehera dezente (5); gorabehera gehiegi (4); gorabehera gutxi (5); gorabehera gutzia (9); gorabehera guztiak (24); gorabehera guztiekin (4); gorabehera guztien (10); gorabehera guztien berri (4); gorabehera guztietan (5); gorabehera handiak (46); gorabehera handiak izan (20); gorabehera handiekin (4); gorabehera handiko (15); gorabehera handirik (15); gorabehera handirik gabeko (4); gorabehera politikoa (5); gorabehera txiki (4); gorabehera txikiak (4); gorabehera ugari (12); gorabehera ugari izan (7); gorabeherak gorabehera (7); guti gorabehera (9); gutti gorabehera (4); gutxi gorabehera (623); hainbat gorabehera (13); hainbeste gorabehera (4); hau gorabehera (4); hori gorabehera (14); horiek gorabehera (10); hura gorabehera (8); iritziak gorabehera (5); izandako gorabehera (4); izpirituen gorabehera (4); zenbait gorabehera (6)

bizitzako gorabeherak (8); bizitzaren gorabeherak (8); burtsaren gorabeherak (4); gorabeherak aipatzen (4); gorabeherak argitzeko (4); gorabeherak azaltzen (8); gorabeherak azertu (5); gorabeherak bizi (4); gorabeherak ditu (8); gorabeherak egon (4); gorabeherak gorabehera (7); gorabeherak izan (29); gorabeherak izan dira (4); gorabeherak izan ditu (6); gorabeherak izango (4); gorabeherak izaten (8); gorabeherak kontatu (11); gorabeherak kontatzen (23); gorabeherak kontatzen ditu (10); gorabeherarik gabe (13); gorabeherarik gabea (5); gorabeherarik gabeko (8); gorabeherarik izan (6); gorabeheraz betetako (7); gutxi gorabeherako (27); inguruko gorabeherak (16); inolako gorabeherarik (7); izandako gorabeherak (7); markagailuaren gorabeherak (6); markagailuko gorabeherak (30); prezioen gorabeherak (4)

gora behera askorekin (5); gora behera frango (7); gora behera handiak (4); gora beherak aipatu (10); gora beherak dira (4); gora beherak ditu (3); gora beherak iragan (3); gora beheren berri (6); guti gora behera (8); gutti gora behera (13); gutxi gora behera (60); herriko gora behera (3); izpirituen gora behera (4); jazo gora beherak (9); urteko gora behera (4); urteko gora beherak (38); urteko gora beheren (9); zenbait gora behera (3)

ekonomiaren gora beheretan (5); politikaren gora beheretan (3)

#### gorabeheraka (orobat gora beheraka) adlag gora eta beheraka.

Hortik ageri da, kanpoko kausek, modu askotara, inarosten gaituztela eta, kontrako haizeek darabilatzaten itsasoko uhinak bezala, **gorabeheraka** gabiltzala. **Piarres Xarriton**

Ezkerretik eskuinera **gora beheraka** doan lerroa marraztuko du. **Joseba Sarrionandia**

Judua hizketan ari zelarik, zigarroa **gorabeheraka** zerabilen bere ezpainen artean. **Lopez de Arana**

**Gora beheraka** mugitzen zaio popa. **Joseba Sarrionandia**

#### gorabeheraketa (orobat gora-beheraketa) iz ipar

**Gorabeheraketak**, edo barraderak. **Herria**

Igandean jokatu dira **Gorabeheraketak** aratsaldeko 4etan haste: Iholdin, Aiherra, Bidarrin, Hazparne-Zelaian. **Herria**

**Gorabeheraketak** jokatu dituztela aldiz amaturrek, Baionatipiko lehiaketa ere hor. **Herria**

Lehena salbu da baina bigarrenarentzat orai mailaz **gora-beheraketak** **Herria**

#### gorabeherati izond gora eta behera dabilena.

Bizimodu berri horretarako, neure buru **gorabeherati** honetaz gain, nire trabarik handiena Hans Lauer zen. **Hasier Etxeberria**

#### gorabeheratsu (orobat gora beheratsu) izond gora eta behera askokoa.

Iribarre egiterakoan bere hortz horiak eta **gorabeheratsuak** erakutsiz. **Lopez de Arana**

Paisajeak mendien erliebe **gorabeheratsuak** galdtu, eta basamortuaren ordeka monotonoa eskuratu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Prozesua dinamikoa izango da, **gora beheratsua**, baina helmuga jakina izango du. **Berria - Harian**

ibilbide **gorabeheratsua** behar du Somarribak, aldapa gogorren bat duena. Berria - Kirola

Denboraldi **gora-beheratsu** samarra osatu du. negoziazio luze eta **gora-beheratsu** batzuen ostean. Berria - Kirola

Haren arnasa **gorabeheratsua** zela nabaritu nuen, amets artean balego bezala. Juan Garzia

Haren nortasuna hain **gorabeheratsua** izaki, elkarren kontrako ezaugarriak hain ugariak eta nabariak izaki, atsekabe ugari aurkitu zituen, ezinbestez, zerbitzuan. Jose Morales

Bidaia luze eta **gorabeheratsu** baten ostean. Patxi Zubizarreta

Nire esperientziaren arabera, bakarrik bizitzea bikotean bizitzea bezain nekeza eta **gorabeheratsua** da. Patxi Zubizarreta

Urtea, 1947ko urte **gorabeheratsua**, amaitzekotan zen. Edorta Jimenez

Emaizta **gora beheratsuak** Hormadik. Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **gorabeheratsu** (3); eta **gorabeheratsua** (7); eta **gorabeheratsua izango** (3); eta **gorabeheratsuen** (3); etapa **gorabeheratsua** (3); etapa **gorabeheratsuan** (3); **gorabeheratsu ari** (4); **gorabeheratsu ari da** (4); **gorabeheratsu batean** (4); **gorabeheratsu eta** (3); **gorabeheratsu samarra** (4); **gorabeheratsu samarra izan** (3); **gorabeheratsua da** (12); **gorabeheratsua egin** (5); **gorabeheratsua egiten** (4); **gorabeheratsua egiten ari** (3); **gorabeheratsua izan** (20); **gorabeheratsua izan zen** (5); **gorabeheratsua izango** (4); **gorabeheratsua izango dela** (3); **gorabeheratsua izaten** (3); **gorabeheratsua zen** (3); **gorabeheratsuagoa da** (3); **gorabeheratsuak izan** (5); **harreman gorabeheratsua** (3); **hasiera gorabeheratsua** (3); **ibilbide gorabeheratsua** (7); **ibilbide gorabeheratsuak** (3); **ibilbidea gorabeheratsua** (3); **luze eta gorabeheratsu** (3); **nahiko gorabeheratsua** (5); **oso gorabeheratsua** (3); **patu gorabeheratsua** (3)

## gorabeheratxo *iz* gorabehera txikia.

Test berezi batek [...] makulako edema kistiko txiki bat agerrarazi zuen, baina horrek ez zezakeen noski ekarri halako **gorabeheratxo** harrigarririk. Xabier Olarra

Bazekien, hutsaren hurrengo **gorabeheratxoren** batekin, zein datatan transmigratzen zuen arima batek maila apalagoko izakietara. Josu Zabaleta

Euskara eta Euskal Herriaren zera hori fede kontu hutsa da lautik hirutan, ideien munduko **gorabeheratxo** hutsal bat: ez luke behar, baina halaxe da. Iñaki Segurola

## gorabide *iz* gorako bidea.

Sumatu bezala, makina bat soka aldatu behar izan dugu **gorabidean**. Xabier Montoia

Pilotatxoan **gorabideak** berdin jarraitzen du. Josu Zabaleta

Hark bere **gorabide** politikoa hain emankor izan zaion aurpegikera. Xabier Olarra

Aitoren seme euskaldun bat, bere **gorabidea** Espainiako erregearen zerbitzuan ikusten zuena. Berria - Kultura

Espainiako Historiari buruzko liburu mardul bat (*Compendio historial* izenez ezaguna) argitaratu zuen Anberesen, eta hortik aurrera hasi zen bere **gorabidea**, erregearen kronista izendatua izan arte 1592an. Berria - Kultura

Haien gizarte-estatusa oraindik apala zen, baina poltsa zeukaten eta **gorabidean** zeuden. Iñaki Mendiguren

Egongo zela-eta negoziio hura **gorabidean** jartzeko moduren bat. Bernardo Atxaga

## gorabilla *iz* Erdi Aroko luzera neurria.

Ertaroan "**gorabilla**" izeneko soka erabiltzen omen zen luzera handiko neurriak hartzeko. Patziku Perurena

Zazpi estadu zituen **gorabillak**, eta zazpi oin estaduak. Patziku Perurena

## goragailu *iz* bozgorailua.

Ardien joare herotsarekin batera, **goragailuetarik** ekaitz ari zen haizearena entzun zen handik laster, bigarren poetaren aldia iragarritz. Itxaro Borda

Sozietateko eskandalutxo baten **goragailuak** are gehiago potentziatua. Joxe Azurmendi

## goragale *iz* oka egiteko, larriak botatzeko gogo.

Gero, **goragale** bortitzak jota, botaka hasi nintzen urdailak mina eman arte. Alberto Ladron Arana

Zorabioek hartu zuten, **goragalea** etorri zitzaion. Karlos Zabala

**Goragalea** duzu. Eider Rodriguez

Tabernako kiratsak **goragalea** ematen dik. Pedro Alberdi

Filmeko emakume hotz kalkulatzaille haiekin lotze hark **goragalea** eman zidan. Anjel Lertxundi

Ronek beste **goragale** handi bat izan zuen eta bare gehiago erori zitzaizkion bularrean behera. Iñaki Mendiguren

Hala ere, ez zitzaidan **goragalea** kendu. Xabier Mendiguren Elizegi

Burua laztandu dit, eta laztana dela-eta eztarrian zerbait itotzen zitzaidala nabaritu dut gaur lehenengoz; ez ziren malkoak, **goragale** antzeko zerbait baino. Urtzi Urrutikoetxea

Urdailleko **goragalea** lokietaraino igotzen zitzaiola. Karlos Zabala

Neure buruak nazka ematen zidan, **goragalea** eragiterainoko higuina. Alberto Ladron Arana

Farmazian Hepatoum eman zidaten, **goragalea** areagotu zidan likido lodi eta berde bat. Joseba Urteaga

**Goragalez** bazegoen ere. Anjel Lertxundi

Goizero, esnatzen nintzenean, uste nuen **goragalea** joana zela, baina une horretan bertan olatu maltzur bat bezala iristen sentitzen nuen. Joseba Urteaga

Eta deus argi formulatu gabe, existentziaren gakoa aurkitu nuela ulertu nuen, nire **goragaleen**, neure bizitzaren beraren gakoa. Monika Etxebarria

**Goragalezko** zorabio jarraitu batean, itomenezko indar ikaragarri batean. Karlos Zabala

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da **goragalea** (4); eta **goragalea** (11); eta **goragalea sentitu** (3); eta **goragaleak** (5); **goragalea eman** (3); **goragalea ematen** (7); **goragalea ematen dit** (4); **goragalea eragiten** (4); **goragalea eta** (7); **goragalea etorri** (9); **goragalea etorri zitzaion** (5); **goragalea izan** (3); **goragalea sentitu** (9); **goragalea sentitu dut** (4); **goragalea sentitu nuen** (3); **nuen goragalea** (3); **paul sartreren goragalea** (3); **sartreren goragalea** (4)

## goragalegarri *izond* goragalea ematen duena.

Kirats **goragalegarria** duten zurubi estu, zikin, ilunek eramango zaituzte kaiolak diruditen geletara. Gotzon Garate

## goragaletu, goragale(tu), goragaletzen da *ad* goragalea izan.

Lotsatu baino areago esango nuke, bihotzondoraino mindu, zornatu, **goragaletu**. Txillardegia  
Hurrengo bera zelakoan, Paul D **goragaletu..** baina ez zuen ezer bota. Anton Garikano

## goragarri *izond* goratua izan dadin merezi duena. ikgoresgarri.

Euskal Herrian idaztea **goragarria** da eta batzuetan hutsalki goratzen da horregatik. Ana Urkiza

Oso **goragarria** zen hori. Anton Garikano

Bigarren, argudiatu ere egin dezakezu horrek bultzatu zituela emakumeak trebezia ez oso **goragarriak** garatzera, plantak egitea, alegia. Karlos Zabala

Benetan **goragarria**, hark hartu zuen erabakia, galduta ia hilik zegoen Zalduneria Ordena, berriro piztu eta, munduari bihurtzeko erabakia. Patxi Ezkiaga

## goragotu, gorago(tu), goragotzen du *ad* gorago ezarri.

Horiekin berekin badakikezu orain, irakurlea, zer mailetarat **goragotzen** zakiten solasa astearte eguerdi heietan pisu hortako gizonek. Herria

## goragune (*orobat gorune*) iz gorago dagoen gunea.

Estepa hartan **goragune** bakar bat ere ez zen ageri bistara. Karlos Zabala

Mutila bat-batean behaztopatu eta erori egin zen **goragune** batetik beheiti. Gotzon Garate

Krisiak badaude, egia da, **goruneak**, eta bai gorabeherak ere, baina ez gara ohartzen, eta ez gara gauza **gorune** horiek segundo arduragabeetatik bereizteko. Matias Múgica

## gorail ik gorraik.

## goraintzi *iz* norbaiti, aurrean ez dagoen baten partetik, edo aurrean ez dagoen batentzat, ematen zaizkion diosalak. ik eskumuin.

**Goraintziak** eman nire partetik Rosemonde andreari. Jon Muñoz

Nire lagunen bat ikusten badok, emon **goraintziak**. Unai Iturriaga

Lehengo batean zuretzat eman zizkidan **goraintziak** Sudurrek, gure lagun zaharrak. Hasier Etxeberria

Aita Santua ikustean emon biezazki hari nire **goraintziak**. Edorta Jimenez

Neskak Hüsoren partetik **goraintziak** eman eta gero. Fernando Rey

Onarzkitzu ene errespetuzko **goraintziak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Goraintziak** ekarri dizkiot bere lehengo eskolierren partez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Iragan ibikoitzean izan da gaztain jate bat euskaldun presoen berriño batzuen jakiteko, laguntza ekartzeko etxeko eta adixkideri, artetan **goraintzi** helarazteko.gastuetan parte hartzeko. Herria

Duela pare bat hilabete jaso nuen Iñakiren gutuna, **goraintziak** bidaltzen dizkizu. Unai Iturriaga

Itzulia egiten baitu iguzkiak / Bihar hel ditozetela gure **goraintziak**. Michel Oronoz

Anartean izan ditzala guzien **goraintziak**. Herria

Errakozu Aitari gu denen **goraintzi**. Herria

**Goraintziak** Mireni. Xabier Etxabe

**Goraintziak** nire partetik Florrie-ri. Koro Navarro

Nire **goraintzirik** minenak lagun denei. Edorta Jimenez

Nire **goraintzirik** maitagarrienak. Ramon Etxezarreta

**Goraintziak** Kongotik. Joxean Agirre

Otoitz horien ondotik doluminezko **goraintziak** guk ere. Herria

Bidaia on, Jamattit, eta **goraintzi** hango laguner! Herria

Anartean **goraintzi**, bertsuzale eta irakurle. Herria

Doluminak dolu horrek hunkitzen dituen guzieri, gure **goraintziarekin**. Herria

**Goraintziekin** laster etxeratu dadila. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anartean goraintziak (3); eman goraintziak (4); eta goraintzi (8); eta goraintziak (15); goraintzi bero (3); goraintzi beroenak (5); goraintzi eta (5); goraintziak bidaltzen (5); goraintziak deneri (4); goraintziak eman (11); goraintziak eman eta (3); goraintziak ere (4); goraintziak eta (5); goraintziak hango (3); goraintziak nire (8); goraintziak nire partetik (4); goraintziekin laster (5); gure goraintziak (9); gure goraintziekin (13); gure goraintziekin laster (4); guzien goraintziak (3); nire goraintzirik (3)

## goraipagarri *izond* goraipatua izatea merezi duena.

Poema haien alderdirik **goraipagarriena**. Juan Luis Zabala

Leonardo da Vinci-k [...] "margolanik **goraipagarriena** erreproduzitutako gauzarekin antzik handiena duena" dela idatzi zuen. Bernardo Atxaga

Laguntzaile **goraipagarrienetan**, Eusko Jaurilaritza (16.000 euro) eta Udalbiltza (12.000 euro). Herria

Elkartasunezko urrats **goraipagarria**! Herria

## goraipaldi *iz* goraipamena.

"Aberastasun handiagorik!" eta antzeko **goraipaldiak**. Pako Aristi

Zer du bada zuhaitz horrek hain arrarorik gisa hortako **goraipaldiak** ukaiteko? Herria

## goraipamen *iz* goraipatzea.

Errektore jaunak **goraipamen** handia egin zuela hartaz. Josu Zabaleta

Jabeak bere morroiaren **goraipamen** sutuena egin zion. Josu Zabaleta

Egin dezagun gizon ospetsuen **goraipamena**, gure arbasoena, belaunez belaun. Elizen arteko biblia



Emakumearen sentimantalunakoen **goraipamenak** poetiko bat. Berria - Kultura  
Inoiz ez da nire ahotik birakorik aterata, eta ezta Haren kontrako kezarik ere, laudorioak eta **goraipamenak** besterik ez. Karlos Zabala  
Berak ere prest zeuden zuzenketarako eta horrek, giza espirituaren izaera ikusirik, **goraipamenak** merezi ditu. Iñaki Iñurieta  
Harkaitz Canori buruzko **goraipamenetan** ere bat etorri ginen hirurok. Juan Luis Zabala  
Frantziako Akademiako jaunei egindako gutuna, Vaubango Mariskalaren **goraipamenaz**. Jon Muñoz  
Laudorio eta **goraipamenezko** hitzak. Santiago Iruretagoiena  
Erruki itxaropena eta **goraipamen** egarria. Anton Garikano

## goraipatu *(ETCn 8.484 agerraldi)*, goraipa, goraipatzen **1** du *ad* norbait edo zerbait miresgarria edo guztiz aintzat hartzekoa dela adierazi; horrela ohoratu. ik **goretsi**; **goratu**; **laudatu**.

Haren andrea **goraipatzen** hasi nintzen, emakume aparta izango zela esan nion, hura bezalako gizon bat erakartzeko. Karlos Zabala  
Itzultzerakoan, Jainkoa **goraipatuz** eta goretisz zetozen, "ona baita, haren maitasuna betikoa baita" esanez. Eta ukabilak erabili dituzte elkarren kontra; **goraipatu** egin dute nire izena, eta iraindu. Elizen arteko biblia  
Jean Haritschelhar-ek aldiz berriki zendu den Pierre Duny-Petre "euskaltzale eta abertzale suharra" du **goraipatu**. Herria  
Espero bezala, bestearen lanak **goraipatze**ti arbuiztazera pasatu ziren biok ala biok ere. Josetxo Azkona  
Errusiako Estatuaz hitz egin zuen, handizka, eta sutuki **goraipatu** zuen lurraldearen zabalak. Jose Morales  
Eta ez dut sekulan aski **goraipatuko** Bestaberri tipi, bakarra Euskal Herri guzian eta hain pollita. Herria  
Xuxen da haatik euskal kantua, gure kantua, **goraipa** dezagun, munduko ederrena balitz bezala. Herria  
Ezin gorago **goraipatzen** zituen gure yiddish antzezlan merkeak. Koro Navarro  
Epekeria gaitzetsi izan dut pasioa gartsu **goraipatuz**, eta orain txori doilor bilakaturik nengoen. Eider Rodriguez  
Erich Frommek hitz bikainez **goraipatzen** du maitasunaren eragina. Jenaro Garate  
Doktoreak ardoak aukeratzeko gustu ona **goraipatu** zionean. Bego Montorio  
Real Madrileko zaleen jarrera ere **goraipatu** dute, norgehiagoka amaitu zenean Eibarko jokalariei eskaintako txaloengatik. Berria - Kirola  
Maisu lantzat **goraipatu** zuen lan berria. Josu Zabaleta  
Gogoan zeukan inoiz ez zuela hura aurrez aurre **goraipatzerik** izan. Anton Garikano  
**Goraiatzekoak** ere Josette Dacostaren azken lanak formaletik abstrakzioerantz baidoatzi, kolore ederrak egokituz. Herria  
Begira: haien lurraldetik kanpo, elkar gorrotatuko dute beharbada, baina elkar **goraipatzen** dute denbora guztian. Karlos Zabala  
Zeren, Harroa deitzen ohi dugu, bere burua gehiegi **goraipatzen** duena. Piarres Xarriton  
Aski ozen **goraipatzen** baitu obrak berak bere burua. Xabier Mendiguren Elizegi

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Eta bere azken urteetako zirimola horrek intelektual konprometituaren ospea gehitu zion bere idazle irudi gorrotatu bezain **goraipatuari**. Karlos Zabala  
Sustrai **goraipatuak**, pedegree urgulutsuak. Itxaro Borda  
Uso dilistazaleak, uso **goraipatuak**, omenduak eta sarituak. Hasier Etxeberria  
Gaur egun ere taldearen bi disko **goraipatuenetakoak** dira. Berria - Harian  
Artikulu ezagun eta arrazoiz **goraipatu** horretan, egileak hauxe esan zuen, argi eta garbi, *Syntactic Structures* buruz: [...]. Itziar Laka

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalegina goraipatu (5); ahalegina goraipatu zuen (3); apustua goraipatu (3); balioa goraipatu (4); berria goraipatu (3); beti goraipatu (3); bezala goraipatu (3); dela goraipatu (4); dela goraipatu du (3); dezagun eta goraipatu (11); du goraipatu (4); egindako lana goraipatu (15); eginiko lana goraipatu (4); ere goraipatu (20); ere goraipatu du (3); ere goraipatu egin (3); ere goraipatu zuen (6); eredia goraipatu (3); eredia goraipatu du (3); eta goraipa (3); eta goraipatu (56); eta goraipatu menderen (43); goraipa zaitzatala (5)  
goraipatu behar (4); goraipatu da (5); goraipatu ditu (10); goraipatu dituzte (3); goraipatu du (57); goraipatu duen (3); goraipatu dute (28); goraipatu egin (25); goraipatu egin du (8); goraipatu egin zuen (12); goraipatu egiten (7); goraipatu egiten du (3); goraipatu eta (22); goraipatu izan (6); goraipatu izan dira (3); goraipatu menderen (43); goraipatu menderen mendetan (43); goraipatu nahi (7); goraipatu nahi izan (5); goraipatu zituen (33); goraipatu zituen eta (3); goraipatu zituzten (3); goraipatu zuen (125); goraipatu zuen atzo (6); goraipatu zuten (33); goraipatu zuten atzo (3)  
balira bezala goraipatuko (3); bezala goraipatuko (3); bezala goraipatuko balitzaizkio (3); eta goraipatua (5); eta goraipatua menderen (4); goraipatua eta (3); goraipatua izan (5); goraipatua menderen (4); goraipatua menderen mendetan (4); goraipatuko balitzaizkio (3); goraipatuko du (3); goraipatuko dute (3); goraipatuz eta (4); goretsi eta goraipatu (32); goretzia eta goraipatua (4); guztiek goraipatu (4); hori goraipatu (4); ibilbidea goraipatu (4); izana goraipatu (8); jarduera goraipatu (3); jarrera goraipatu (3); k goraipatu (3); lana ere goraipatu (4); lana goraipatu (62); lana goraipatu du (8); lana goraipatu dute (6); lana goraipatu eta (3); lana goraipatu zuen (34); lana goraipatu zuten (4); sutuki goraipatu (4); taldearen lana goraipatu (3)  
asko goraipatzen (3); bezala goraipatzen (3); bikaina goraipatzen (3); denek goraipatzen (3); edertasuna goraipatzen (3); eta goraipatzen (3); goraipatzea leporatzeko (3); goraipatzeaz gain (3); goraipatzeako eta (4); goraipatzeako modukoa (6); goraipatzeako modukoa da (4); goraipatzen ari (4); goraipatzen da (5); goraipatzen ditu (5); goraipatzen du (22); goraipatzen duen (5); goraipatzen duena (4); goraipatzen dute (12); goraipatzen duten (3); goraipatzen eta (6); goraipatzen hasi (3); goraipatzen zituen (8); goraipatzen zituzten (4); goraipatzen zuen (14); goraipatzen zuten (9); guztietan goraipatzen (3); hainbeste goraipatzen (4); lana goraipatzen (6); terrorismoa goraipatzea (5)

## goraipatzaile *(orobat goraipatzaile)* iz goraipatzen duen pertsona.

Konturatu gabe bera izan zela senarraren **goraipatzaile**. Anton Garikano  
Manuel zagon pertsularien **goraipatzaile** bakarra. Herria  
Aditzen forma neutroaz gain, forma **goraipatzaile** bat dagoela, nagusia aipatzeko [...] eta forma apaltzaile bat dagoela, norberaren ikuspuntua adierazteko nagusiaren aurrean. Ibon Uribarri  
Burdeostik, Paristik eta Nizatik igorritako telegrama **goraipatzaile** franko. Pello Zabala

## goraipu iz goraipamena.

Hurrengo udaberrian eman zen argitara kritika ingelesa eta estatubatuarren **goraipuen** artean. Ramon Etxezarreta

## gorakada *(428 agerraldi, 26 liburu eta 262 artikulutan; ETCn 5.359 agerraldi)* **1** iz goraldia.

Horra adrenalinarekin **gorakadak** eta hara biraoak gora zerurantz. Edorta Jimenez  
Zuhaitz-izerdiaren **gorakada** udaberrian. Joxan Elozegi  
Nazio-estatuaren indarraren **gorakada** izan zen aldaketa nagusietako bat. Koro Navarro  
Asiaren **gorakadak**, ikusi denez, oso lotura estua du nazioarteko trukeetan izan duen sarbide dinamikoarekin. Koro Navarro  
Inflazioaren **gorakada** izugarria. Koro Navarro  
Pasarterik hoberenak alkoholaren **gorakada** sentitutako anean idatzitakoak zirela. Matías Mujika  
Anorexiak eta bulimiak **gorakada** nabarmena izan dute 1960tik. Berria - Euskal Herria

Prezioen **gorakada** kontuan izanik. **Iñaki Heras**  
Enpleguaren hazkuntza moteldu ahala, afiliazioen **gorakada** ere moteldu da. **Berria - Ekonomia**  
Aropa eta oinetakoen prezioek berebiziko **gorakada** izan dute. **Berria - Ekonomia**  
%5,67ko **gorakada** izan dugu. **Berria - Ekonomia**  
Dolarraren aldean, Europako diruak %7ko **gorakada** izan du urte hasieratik. **Berria - Ekonomia**  
Ondasun eta zerbitzu produktzioak izandako **gorakadaz**. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
Bordeleko Gironidins delakoek segitzen dute beren **gorakada** Sochaux-ren kontra irabaziz. **Herria**  
Orduan hasten da haien **gorakada** eta Europa zaharraren beherakada. **Herria**

## 2 (izenondoekin)

Iraupen luzeko langabeziaren **gorakada** kezkarriak. **Koro Navarro**  
Igoeraren arrazoi nagusia, ekonomiaren **gorakada** nabarmena izan da. **Berria - Ekonomia**  
Munduko ekoizpenean duten ehuneko globalaren **gorakada** ikusgarrian. **Koro Navarro**  
Alemaniaren batasunaren ondorio nagusia [...] gobernu federalaren gastuen eta kontsumoaren eta soldaten **gorakada** handia izan ziren. Inflazioaren **gorakada** izugarria. **Koro Navarro**

## 3 (hitz elkartuetan)

Liberalismoaren **gorakada** garaia izan zen. **Iñaki Heras**  
Gaur egun, aginduak sistema informatikoaren bidez gurutzatzen dira (nahiz eta urduritasuna nagusitzen denean, **gorakada** edo beherakada aldietan, behin baino gehiagotan oihuka aritu). **Iñaki Heras**  
- Garapen-bideko eskualdeen industria **gorakada** horri. **Koro Navarro**  
XX. mendearen bigarren erdialdean zehar pauso izugarri handiz hazi den mundu ekonomia ikusten dute, ez ordea produktio **gorakada** horietarako inolako aukerarik ez duen pertsona kopuru itzela. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aurtengo gorakada** (4); **bat bateko gorakada** (3); **bateko gorakada** (3); **behin betiko gorakada** (3); **bere gorakada** (4); **betiko gorakada** (3); **da gorakada** (3); **duen gorakada** (4); **ere gorakada** (4); **estudiantesen gorakada** (3); **eta gorakada** (6)

**gorakada dela** (3); **gorakada edo** (3); **gorakada egin** (5); **gorakada ekarri** (3); **gorakada eragin** (4); **gorakada ere** (4); **gorakada eta** (10); **gorakada ez** (3); **gorakada gelditu** (3); **gorakada handia** (14); **gorakada handia izan** (7); **gorakada hori** (11); **gorakada horrek** (4); **gorakada izan** (18); **gorakada izan du** (3); **gorakada izan zuen** (4); **gorakada kontuan** (3); **gorakada nabarmena** (7); **gorakada nabarmena izan** (5); **gorakada polita** (3); **gorakada polita izan** (3)

**gorakadak eta** (7); **gorakadak ez** (3); **gorakadari eta** (3); **indarraren gorakada** (3); **inflazioaren gorakada** (4); **izan duen gorakada** (3); **izandako gorakada** (3); **prezioaren gorakada** (3); **prezioen gorakada** (15); **prezioen gorakadak** (7); **taldeak gorakada** (4); **tauren gorakada** (6)

## gorakatu, goraka(tu), gorakutzen da/du *ad* goratu.

Eta aire beroa **gorakatzean**, han goiko hotza jaisten da beherantza. **Pello Zabala**  
Hodei puska hori, goialdetik gandortzen joango da, beroak gero eta torre-laino eta hodei motroilo lotsagabeagoak putzen eta **gorakutzen** dituela. **Pello Zabala**

## goraketa iz goratzea.

Bai goitik beherako bidea, bai ingurabideak eta bai sabelak eta ur-**goraketak** metodo honekin egin baitaitezke. **Santiago Iruretagoiena**  
Orkortasun enpirikoa, beraz, kasu gehienetan balio duenetik kasu denetan balio duenera egiten den baliotasunaren hautazko **goraketa** da. **Ibon Uribarri**

## goraki *adlag* ahots ozenez, aho betean.

Hainbat orri pasatu ondoan **goraki** irakurri zuen. Iriz lehertu zen **goraki**, balentria bikainaz espantuka. **Aingeru Epaltza**  
Hots argiz, nirekiko ahoskatu nuen **goraki**: [...]. **Itxaro Borda**  
-Zer da hau? -galdetu nion **goraki** anaiari. **Txillardegi**  
-Menturaz beste nonbait zendu zen... -pentsatu zuen erretoreak, **goraki**. **Elena Touyarou**  
Itzul zaitetz zeure gelara!, agindu dit **goraki**. **Anjel Lertxundi**  
Gero **goraki**, hitzak lehenik, oihuak gero. **Michel Oronoz**  
**Goraki** negar egiten ikusi eta entzun zuten. **Askoren artean**  
Oihu egin nion, ahal bezain **goraki**. **Joxe Austin Arrieta**  
Ostatuko jende guztia hizketan ari zen, eta nahiko **goraki**. **Fernando Rey**  
Ez da berantegi bertze Herriko Etxek ere beren ez-adostasuna **goraki** adieraz dezaten. **Herria**  
**Goraki** salatu du Leiak 2x2 bide horren proiektua. **Herria**  
Elizako plaza mukurru bete batean, **goraki** aldarrikatu du euskal nortasunaren zaintzearen baitezpadakotasuna. **Herria**  
Enpresa haundiek onartu dute Aubry legea eta **goraki** diote ez dutela lege berria aplikatuko. **Herria**  
Ariel Sharon judu lehen minixtoak erran du **goraki** ez direla hobendunak gaztigurik gabe egonen. **Herria**  
Holakorik ez baita frantses Lege Nagusian, nik erraiten dut **goraki**: Europari Bai! **Herria**  
Laudatuz haatik, eta **goraki**, Hegoaldeko adiskideak, HERRIA-ren laguntzaille leial eta zintzoak. **Herria**  
Orduan agerian eta **goraki** ariko da predikatzen, jendeen baitan sustatu nahiz lehengo fede azkar hura. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**du goraki** (3); **dute goraki** (5); **ere goraki** (4); **esan zuen goraki** (10); **eta goraki** (21); **goraki erran** (6); **goraki esan** (6); **goraki esan zuen** (4); **goraki eta** (17); **goraki eta fermuki** (3); **goraki ez** (3); **goraki hitz** (3); **goraki irakurri** (3); **goraki kantari** (6); **goraki kantari taldeak** (3); **goraki salatu** (6); **goraki salatzen** (6); **goraki salatzen du** (3); **goraki taldea** (5); **goraki taldeak** (6); **kontzertua goraki** (3); **zen goraki** (3); **zuen goraki** (16)

## gorako iz oka.

Hanoiko ospitalean Hegaztien gripearen sintomak sukar altua, **gorakoak**, odol presio baxua... zituzten bederatz lagun artatu zituztela jakinarazi zuten larunbatean hango medikuek. **Berria - Gaiak**

Poliomielitikaren hasierako sintomak nekea, sukarra, buruko mina, **gorakoak**, zurruntasuna eta lepoko eta gorputz adarretako mina izan ohi dira eta, 200 gaixotatik batek betiko paralisia garatzen du. Malariaren sintoma nagusiak hotzikarak, sukarra, buruko mina, giharretako mina, eta **gorakoak**. **Berria - Gaiak**

Azken bi asteetan ez du sukarrik izan eta ezutla eta **gorakoak** ere desagertu egin dira. **Berria - Gaiak**

## gorakor izond gorakorra.

Eukaliptus **gorakoien** puntak inarrosiz. **Itxaro Borda**

Lurrean herrestatzen ikasia zuten, horma **gorakoiak** gainditzen, lohian ihalozka lerratzen. **Itxaro Borda**

Egoitza **gorakoien** artetik jadanik distiratzten zuen ilargia. **Itxaro Borda**

Otsabidetik Arbiderako bide biluziko lautada **gorakoian**, **Itxaro Borda**

## gorakor izond gora egiteko joera duena.

Ilara **gorakorra** izan dadin "n" baldintzatutik "m"-ra ("l", "k", "i", eta abar), halaber, beherakorra "n" baldintzatik "o" baldintzatura ("p", "q", "r", eta abar). **Ibon Uribarri**

Eta bere apararren gisako karrera **gorakorra** jarraitzeko aukera guztiak zapuztu zituela Cesarren nahi gabeko heriotzak. **Harkaitz Cano**

Laburbilduz, urteko minimo berri bat eta tentsio **gorakorra**. **Berria - Ekonomia**

Joera **gorakorra** zekarten gure indizeek. **Berria - Ekonomia**

## goralarri iz goragalea.

Ez ahal zuen hori esatea amaitu, lehen **goralarria** etorri zitzaion, eta ahuspez jarri behar izan zuen komunzulora begira. **Iñaki Iñurrieta**

**Goralarria** sortzen du metro barruan egiten duen beroak. **Eider Rodriguez**

Gaixotu egiten ninduen, **goralarria** eragiten zidan. **Oskar Arana**

## goraldi (83 agerraldi, 21 liburu eta 20 artikulutan; ETCn 872 agerraldi) iz gora egitea; gora eta behera ari daitekeen zerbaiten) goranzko aldia. ik gorakada.

Burbuila **goraldi** hori, zorabiozko gelditasunean. ur **goraldiaren** sasoiaren lokatza lodia pilatzen baitzen ibai ertz hartan. **Karlos Zabala**

Betiko eramango baititu bestela itsasoak berriro, segur aski, hurrengo **goraldian**. Ahots sarkor haien **goraldiak** eta beheraldiak entzunda. **Imanol Zurutuza**

Afalondoko **goraldian**, izarretara jaurtitako espaziontziko gidakide sentitzen nintzen. **Aingeru Epaltza**

Stephenekin bidaiatzean, bizitzean [...] konturatu nintzen zein ahula zen psikologia aldetik, eta zer-nolako **goraldi** eta beheraldiak izaten zituen. **Xabier Olarra**

80ko hamarkadan euskal zinemak **goraldia** izan zuen, baina egun deus gutxi geratu da gorakada hartatik. **Berria - Kultura**

Antikomunismoaren **goraldian**. **Edorta Jimenez**

ELAk, berriz, %0,49 egin zuen gora, baina, esan bezala, iaz ez zuen lortu **goraldiari** eustea. **Berria - Ekonomia**

Zibilizazioen **goraldi** eta erorikoaren mugimendu zikliko eta errepikatua. **Iñaki Mendiguren**

Erromaren **goraldiak** Greziaren gainbehera ekarri zuen. **Berria - Kirola**

Horrek zerikusia handia izango zuen mundu osoko jarduerak ondorengo urteetan izan zuen **goraldian**. **Koro Navarro**

**Goraldiak**, ondikotz, lipar bat baizik ez zuen irau. **Aingeru Epaltza**

Merkataritzaren **goraldiarekin**, italiar merkatarien ekimenez, findu egin ziren finantza-teknikak. **Koro Navarro**

Merkataritza-kapitalismoaren lehen **goraldi** hau bat-batean eten zen XIV. mendearen erdian. **Koro Navarro**

Labur esateko, ziklo ekonomiko batean honako fase hauek bereiz daitezke: **goraldia**, gailurra, atzeraldia edo gainbehera, depresioa edo hondoa eta susperraldia. **Iñaki Heras**

Mendebaldeko jarduera ekonomikoaren txandakako **goraldi** eta beheraldi horiek. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Atenasen bat-bateko **goraldi** distiratsuan. **Iñaki Mendiguren**

Estatubatuar dibisaren **goraldi** ikusgarria. **Koro Navarro**

**Goraldi** ekonomikoaren urteetan. **Iñaki Heras**

Lauzprobost urteko **goraldi** ekonomiko baten atzean beheraldi ekonomiko etorri ohi zen. **Iñaki Heras**

Burtsako kotizazioen batbateko **goraldiak** eta mailegu federales eskaintzen zituzten errenta handiek erakarrik. **Koro Navarro**

Mendebaldeko jarduera ekonomikoaren txandakako **goraldi** eta beheraldi horiek. **Iñaki Mendiguren**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur bazterreko alderdi garaia batera igo zen, eragozpen handiz, ur **goraldiaren** sasoiaren lokatza lodia pilatzen baitzen ibai ertz hartan. **Karlos Zabala**

Beherantz begiratzen baldin badut, berriro aurkitzen dut, niregan ongi zentratuta, burbuila **goraldi** hori, zorabiozko gelditasunean. **Josu Zabaleta**

Nire aldetik, Greenpeaceen basogintza egoki eta osasuntsu baten aldeko kanpainari atxiki natzaionean, ez da izan sentimendu **goraldi** aparteko baten sukarra. **Pello Zabala**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**goraldi eta** (6); **goraldi hori** (3); **goraldia izan** (5); **goraldiak eta** (3)

## goraldu, goral, goraltzen du ad goratu.

Amodioaren morboa **goraldu** eta aldarrikatu dutenak poetak izan baitira, Platon buru dutela erromantizismoarekin gailurra jo arte. **Patziku Perurena**

**Goraltzen** bazaituzte joko duzu nola-hala behea. **Anton Garikano**

Senarraren hitzek / neska gazteei ohi zaizkien lore laztanez / **goraltzen** zuten emaztearen beherakada. **Pako Aristi**

Eman biezazu Jainkoak beti **goraldua** izatea eta beraren ondasunak hartzea. **Elizen arteko biblia**

## goralmen iz goratzea.

Desiratuz Jainkoak bete dezala bere aintza eta **goralmena** bere esku utzitako jendeen ongarri eta kontsolagarri. **Joan Mari Lekuona**

## goralpen iz goratzea.

Santu bati buruz egin ote liteke **goralpen** handiagorik? **Joan Mari Lekuona**

Buenos Aires alegiazko baten **goralpen** demagogikoari. horrekin batera, bere damaren **goralpena** egingo dio. **Juan Garzia**

-Bai, Indiatik etortzen diren usapalek zutaz **goralpenak** egiten dizkirate. **Gotzon Garate**

Orduetik ospatu zen, 335tik aurrera, Jerusalemen bertan, Gurutzearen Aurkikuntza, eta, handik mende pare batera, Erroma aldera zabaldu zen, *Gurutze Santuaren* **Goralpen** izenarekin. **Pello Zabala**

# goraltxatu, goraltxa, goraltxatzen du *ad* goratu; goraipatu.

Urruntzen gaituen gosea; **goraltxatzen** gaituen gosea; egunak eramangarri egiten dizkiguna, eta berriro egun arruntetara ilusio berriz beterik gakartzana, horixe da literatura.

**Pako Aristi**

Beren musika aire eta kantu xaramela ederrekin bi talde horiek gain gainerik **goraltxatu** dute meza eder hori. **Herria**

Apal zaitezte zeuek ere, berak **goraltxa** zaitzaten. **Askoren artean**

Zu goretsi zintuen lehenik, zu **goraltxatu**, hitz hauekin: Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, berena dute-eta zeruetako erreinua. **Askoren artean**

Kanpoan gaindi, Murruaeneari hurbil, karrika zolan agertzen da Maia Kurutxeten hiru laukiko margolana, landare bizkorra ixurtzen eta **goraltxatzen** duela... **Herria**

Hiru egun barru, faraoiak **goraltxatu** egingo zaitu eta lehengo karguan jarriko. **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**goraltxatu dute** (4); **goraltxatzeko eta** (3); **goraltxatzeko hor** (3)

# goraltxatzaile *izond* goraltxatzen duena.

**Goraltxatzaile** zirelarik EMAK-HOREko korala, musikari eta Bestaberriko gazteak. **Herria**

# goramen *iz* goratzea.

Nahiz eta baztertua izate hau bere iritzi eta desiraren ikuspuntutik **goramenik** handiena izan Jainkoaren eta gizonen aurrean. **Askoren artean**

# goranahi (*robat gora(-)nahi*) 1 *iz* gora egiteko nahia.

Hala ere, uhinek laster galtzen dute beren gora-**nahia**, eta akiturik etzaten dira hondartzan. **Anjel Lertxundi**

## 2 handinahia, handitasunaren irrika bizia.

Zuzentasuna defenditzen dutela diote, baina beren **goranahia** baizik ez dute defenditzen. **Elena Touyarou**

Bere bizitza eman zion alderdiari, baina itzalean geldituz beti, inolako **goranahirik** gabea baitzen, apala, umila eta eskuzabala. **Fernando Rey**

Orobat, epelduxeak ziren garai bateko **gora nahiak**. **Aingeru Epaltza**

Beraz, harrigarria dirudien arren, bere-berea du apaltasunak bihotzaren **goranahia**; bihotzak beherantz egitea, berriz, handikeria da. **Imanol Unzurrunzaga**

Ama Handiaren erlijioa, basakeria latza eta **goranahi** espiritualua era bitrix nahasten zituena. **Iñaki Mendiguren**

Ibiliak egiten zituen munduaren lohikerietan barrena, bihotza **gora-nahiez** beterik, amodio unibertsalez gainezkatu. **Patxi Zubizarreta**

## 3 goragalea.

Dulzineagana hurbildu nintzenezan [...] baratxuri gordin usaina zeriokeen; hara, zorabioa eta **gora-nahia** eman zidaan. **Patxi Ezkiaga**

## • 4 *izond* handinahia, handizalea dena.

Keinuak, entzuleriari mintzatzeko manera, boteredunen aire hura, eskuan dituen ttanttoak ongi ezagutzen dituen gizon **goranahiaren** ezaugarriak ziren. **Elena Touyarou**

Harrokeria **goranahi** zitalaren irrika. **Imanol Unzurrunzaga**

Nik, bederen, ez nuen neska **gora-nahia** hain errukarri egiten. **Aingeru Epaltza**

## 5 *goranahiko izlag*

**Goranahiko** tontoez ari naiz hemen bereziki, hots, tonto-harroz. **Iñaki Segurola**

Era honetako gizon batek, **goranahikoa** bada, zain du mende guztietako loria; filosofoa bada, bere hiritarren bedeinkazioak kontsolatuko du aginpide ezetik, nahiz eta haien esker txarrak behin baino gehiagotan erasan. **Juan Martin Elexpuru**

# gorantz (*robat gorantza g.er.*) 1 *adlag* goiko alderantz.

**Gorantz** begiratu dut, ea hegaxabalen bat ikusten dudan. **Mirentxu Larrañaga**

**Gorantza** abiatu aurretik gehienok txabola itxurako komunetik igaro gara. **Patxi Zubizarreta**

Zuhaitzen gainetik **gorantz** jo eta aldendu egin zen. **Mirentxu Larrañaga**

Besoeti **gorantz** eraginez. **Oskar Arana**

Belaunaldi batetik bestera igarotzea **-gorantz** doa bata, beherantz bestea; "erregea hil da, gora erregea"- ez da hilketa sinbolikoarekin loturarik ez duen zerbait. **Joxan Elozegi**

Gonzalez gutxika-gutxika **gorantza** doan pilotaria da. **Berria - Kirola**

**Gorantz** doan eskari horri erantzuteko gero eta nabarmenago kontsumitu behar da baliabideen oinarria. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Egunez pilatu den beroak, erradiazioz ospa egiten du **gorantza**, antizikloiaren sabaietara. **Pello Zabala**

Geraldek, bere edontzia hartu, **gorantz** altxatu eta adi-adi so egin. **Mirentxu Larrañaga**

Arches-eko elefanteen itxura duten haizak **gorantza** altxatzen dira irlak bailiran. **Patxi Zubizarreta**

Arrain hila, gizon garailea bezalaxe, **gorantza** erortzen da. **Iñaki Segurola**

Oinetakoaren muturra **gorantz** okertuta dago. **Oskar Arana**

Erreserbak **gorantza** berrikusten dira eta "hazkunde jarraitu baten irudi sendoa ematen dute". **Berria - Ekonomia**

Orgaren gainaldean ur-ontzi baten espainak ateratzen ziren metro erdi **gorantz**. **Elizen arteko biblia**

Hatzaz **gorantz** keinu egin zidaan, gogoan diat. **Mirentxu Larrañaga**

Eta han manta-erdian jarria zutela Santxo, **gorantz** jaurtika hasi ziren, harekin jolasean inauteritako txakurraekin bezala. **Patxi Ezkiaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegia gorantz** (3); **baina gorantz** (4); **bat gorantz** (8); **begiak gorantz** (4); **begiratu zuen gorantz** (3); **behetik gorantz** (11); **berriro gorantz** (6); **besoak gorantz** (4); **bidea gorantz** (3); **burua gorantz** (6); **da gorantz** (3); **du gorantz** (5); **egin zuen gorantz** (4); **egin zuten gorantz** (3); **ere gorantz** (16); **ere gorantz egin** (5); **errepidea gorantz** (3); **eskuak gorantz** (4); **eta gorantz** (45); **eta gorantz abiatu** (7); **eta gorantz begiratu** (3); **eta gorantz egin** (5); **eta gorantz egiteko** (3); **eta gorantz egiten** (3); **etengabe gorantz** (4); **euroa gorantz** (3); **euroak gorantz** (5); **euroak gorantz egin** (3); **ez gorantz** (5); **gero gorantz** (4)

**gorantz abiatu** (16); **gorantz abiatu nintzen** (3); **gorantz abiatu ziren** (3); **gorantz altxatzen** (3); **gorantz ari** (5); **gorantz begira** (14); **gorantz begiratu** (31); **gorantz begiratu dut** (3); **gorantz begiratu eta** (5); **gorantz begiratu nuen** (3); **gorantz begiratu zuen** (10); **gorantz begiratu zuten** (5); **gorantz bultzatu** (5); **gorantz bultzatzen** (4); **gorantz dator** (3); **gorantz doa** (19); **gorantz doala** (10); **gorantz doan** (3); **gorantz edo** (4); **gorantz edo beherantz** (4); **gorantz egin** (74); **gorantz egin behar** (3); **gorantz egin du** (21); **gorantz egin duela** (3); **gorantz egin eta** (4); **gorantz egin zuten** (18); **gorantz egingo** (8); **gorantz egitea** (3); **gorantz egiteko** (21); **gorantz egiten** (37); **gorantz egiten ari** (4); **gorantz egiten du** (4); **gorantz egiten hasi** (3); **gorantz egiten zuten** (5); **gorantz egiten zuten** (3); **gorantz eraman** (3); **gorantz eta** (12); **gorantz eta beherantz** (4); **gorantz hasi** (9); **gorantz hasi naiz** (3); **gorantz hedatzen** (3); **gorantz igo** (7); **gorantz igo zen** (3); **gorantz igotzen** (4); **gorantz jarraitu** (5); **gorantz jarraituko** (4); **gorantz jarraitzen** (10); **gorantz jarraitzen du** (8); **gorantz jaso** (6); **gorantz jasotzen** (4); **gorantz jo** (4); **gorantz joan** (8); **gorantz joan zen** (5); **gorantz luzatuta** (3); **gorantz mugitu** (3); **gorantz zihoan** (3); **gorantz zihoazela** (3)

**heldu eta gorantz** (3); **itsasoa gorantz** (3); **kea gorantz** (3); **kopuruak gorantz** (3); **kopuruak gorantz egin** (3); **lepoa gorantz** (3); **muturra gorantz** (3); **pixkanaka gorantz** (6); **pixkanaka gorantz egin** (3); **prezioa gorantz** (3); **prezioak gorantz** (6); **taldea gorantz** (4); **zuen gorantz** (13); **zuten gorantz** (4)

## gorantza 1 iz gora egitea.

Analfabetismoaren beherakadarekin eta ikasketen **gorantzarekin** batera indioen bizimodua hobetuz doa. Gotzon Garate

Holako zenbat mito, euskaltasun arkaiko birjin baten **gorantzan**. Patziku Perurena

Negu euritsu baten ondoko maiatz-hilean gaude, eta ikusgarria da lurrak dakarren **gorantza**-nahia. Pako Aristi

**Gorantza** leunean kale hertsia ireki, zuhaitz ederrak ezker eta eskuin; eta Ondarrondo pasealekuaz harantz, itsaso urdina. Txillardeggi

## 2 goraipamena.

Nork dauka etorria, bere talentuan erditu eta argituriko hainbeste ondasun utzi zigunak merezi dituen **gorantzak** kantatzeko? Xabier Amuriza

Holako zenbat mito, euskaltasun arkaiko birjin **baten gorantzan**. Patziku Perurena

## 3 ik gorantz.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baten gorantzan** (3); **eta gorantza** (3); **gorantza egin** (4)

## gorantzaka *adlag* goraka.

Harrapatu du hondoa: laster dukegu **gorantzaka**. Pello Zabala

## goranzko (*orobat gorantzako g.er.*) 1 izlag goiko alderanzkoa.

Fionn zuhaitzen artean sartu zen eta **goranzko** ibarrera abiatu zen. Joanes Urkixo

Galbidea behearanzko pendiz arina da; onbidea, aldiz, **goranzko** aldapa neketsua. Berria - Ekonomia

Aurten txapeldunordeak izan dira, eta **gorantzako** bidea hartua dutela berretsi dute. Berria - Kirola

Behetik **goranzko** begiradak. Berria - Kultura

Hnuen ahoa ferratuta, asmoak **gordean**, kulpa edo errukia baztertuta. Anjel Lertxundi

Gaineratekoan, Nabarrenkoxetik isil-misilka atera zen mutikoa izenez baizik ez zen Garrüze **gordean** utzi zuen bera. Aingeru Epaltza

## 2 ezkutuan, isilean. ik **gordeka**.

Elipsia esaldiaren zati bat **gordean** uztea da. Andoni Egaña

Dena esan nien, ezer **gordean** utzi gabe. Anjel Lertxundi

Begira begira, horren **gordean** ondutako mami xuri trinkotu horri. Patziku Perurena

Ez dakizkit, ez derrazket **gordean** zeutzanak... Aurelia Arkotxa

Handik Londonera joan ginen trenez erdi **gordean**. Koldo Izagirre

-Sekretuak ezingo dira bada betiko **gordean** eduki -onartu zidan gizonak. Jon Muñoz

Lantainako alaba nobleak, ongi **gordean** zeukan, ustez, bere pekatua. Patziku Perurena

Adimenez eskasa iruditzen zait, edo, behinik behin, hain **gordean** du adimena, non nik ezin izan baitiot atzeman. Jon Muñoz

## 3 (-en atzikiarenean eskuinean)

Baina gero denek ekartzen dizkidate, besteen **gordean**, aurkitzen dituzten pieza bitxienak. Koldo Izagirre

Guardiaren bistatik nahikoa urrutira iritsi zirenean, lasterka hasi ziren, makurtuta, eta adarren **gordean** egoten saiatuz. Josu Zabaleta

## 4 **galdu-gordean**<sup>1</sup> (*ETCn 31 agerraldi; orobat **galdugordean** ETCn 2 agerraldi*) Galtzeko zorian. ik **galzori 2**.

Negozia **galdugordean** zegoela eta hondoa jotzerat zihoala. Joan Mari Irigoien

Koroaren bila abiatu bezain fite geratu ginen bidean trabaturik eta gibelaturik, ez koroarik eta ez biktoria loriosik, esperantza guztiak pipizaturik eta geure biziak ere **galdugordean**. Joan Mari Irigoien

Beste batzuek, ordea, **galdu-gordean** bezala edukitzen dute beren emetasuna, eta askoz ere beranduago, [...] hasten dira luzatzen eta liraintzen, ia molde transparenteak hartzeraino. Joxean Agirre

**Galdu-gordean** zeukan hitzen bat mihiratu zaiolako berak ere uste ez zuela. Andoni Egaña

## 5 **galdu-gordean**<sup>2</sup> nora ezean.

Hegaztiak eta piztiak **galdu-gordean** aldentzen ziren, kirats bortitzari ihesi. Xabier Amuriza

## 6 **gorde-gordean**

Tentu handiz, gorde-**gordean**, sorbaldatik heldurik, bizirik baleude bezala, oinak mugiarazten zizkiela. Karlos Linazasoro

## 7 **isil/ixil-gordean adlag**

Ezkutuan eta isil-**gordean** ibili behar izan gabe. Joan Mari Irigoien

Koronelari arrainak **isil-gordean** arrantzatzen edo sagarrak lapurtzen ez genbiltzanean [...]. Mirentxu Larrañaga

Ixil-**gordean**, ezkutuan, ezinean, jende prestuen begiratu gaiztoaren pean. Iñaki Segurola

Jendeak ahapeka eta isil-**gordean** darabiltzan hizpide eta esamesak. Felipe Juaristi

Ikuskizun bihurtzen baititu isil-**gordean** eraman beharrekoak ere. Joan Mari Irigoien

"Loti ederren" etxe hartara **isil-gordean** etortzen ziren agureen artean. Ibon Uribarri

Bertan gelditu zelarik, ingurumarietara begiratu zuen **isil-gordean**. Patxi Zubizarreta

Jende hori gutzia kokatu zelarik, Aita Sainduak agindu zien Nicastroko gotzainari eta aitzineko kondeari joateko gela **isil-gordean** zegoen Toledoko Artzapezpikuaren bila. Piarres Xarriton

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**erdi gordean** (3); **eta gordean** (6); **eta isil gordean** (5); **galdu gordean** (5); **gordean edo** (3); **gordean eduki** (9); **gordean eta** (4); **gordean utzi** (4); **isil gordean** (32); **ondo gordean** (3)

## gordearazi, gordearaz, gordearazten du *ad* gordetzera behartu.

Ibilgailua posta etxean **gordearazi** zuten, zaldiak segituan erdiesteko kezkarik gabe. Karlos Zabala

Leku berezi bat **gordearazi** zuen berarentzat soinu-kontrolaren ondoan, akustika hobereana zen aldean. Xabier Olarra

Pobretasun santua gordetzen eta besteei **gordearazten**. Askoren artean

Baina nire baitan dudan halako barne harrotasun horrek, nire lanbideak berez dakarren harrotasuna nonbait, ia neure gogoz kontra halako gizatasun bat **gordearazten** zidan. Josu Zabaleta

## gordegailu (*10 agerraldi, liburu 1ean eta 9 artikulutan; ETCn 12 agerraldi*) *iz ipar gordelekua*. ik **gordailu**.

Zure bihotzaren zolako **gordegailu** zerbaitetan atxikia bazenu bezala. Janbattitt Dirassar

Eiheralarreko etxe batean, polizak kausitu du ETA erakundearen **gordegailu** bat eta ez entraalekoa. Herria

Jakin denaren arabera, zazpi **gordegailu** atxemanak izan dira, "Zuloak" deitzen dituzten horietarik, batzu lurpez eginak. Herria

Biriaturko mugazubitik hurbil, guardek haxix tornu bat ederra atxeman dute eta sesitu ingles auto batean, gidariaren jartoki gibelean espresuki muntatu bi **gordegailutan** zena. Herria

## gordegia (*orobat **gordagia** eta **gordagi***) *iz gordelekua, ezkutalekua*.

Saddam Hussein bildu dute Irakiako **gordagia** batean. Axurien **gordagia** galdu zuten osoki, lau ahariak hilik eta terpea kiskalita. Berria - Euskal Herria

Eskailera hertsu batetik jautsi ziren kontrabandoko salgaien **gordagia** zen zuloraino. Elena Touyarou

1993an, Bidarten, Peio Faganten etxean, arma **gordegi** eta fabrika handi bat aurkitu zuten, ordu arteko handiena, polizia iturrien arabera. Berria - Euskal Herria

Goio bere **gordegitik** jagi eta irten zenerako Harriandiko bunker zaharreko aterpean eserita zeuden denak. Joseba Sarrionandia

# gordeguna (ETCn 3 agerraldi; corpusean gordeune soilik) iz gordelekua.

Horregatik, gune sakratu eta santutegietan altsumak zirkuluan landatzen zituzten, **gordeune** modura, sakratugunetarako. Pello Zabala

## gordeka (167 agerraldi, 61 liburu eta 25 artikulutan; ETCn 576 agerraldi) 1 adlag ezkutuan, isilean. ik gordean; gordezka.

Ihes zebilen ere Itsasuko apez bat, Ameriketara ibilia, Artzamendi mendian **gordeka**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Gordeka** gauaz ekarri zuten mandoz gorputza Tuteratik Orreagara eta Santa Maria elizan lurpean ezarri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Maiana **gordeka** bataiatu zuten igande hartan agertu zen ezustean Bittor. Itxaro Borda

Nahiz eta gure artean faltu anitz baden, txoria eho eta eskua **gordeka** ari dena. Itxaro Borda

Lapurdi osoan ez da aurkituko meza **gordeka** ematen duen apez ukoegile bakar bat. Elena Touyarou

Landan zehar ikusi dut lasterka, laugarren solairuan, jauna, zuhaitzen artean **gordeka**. Iñaki Mendiguren

Beste batzuk gaixoren bat ikustera etortzen ziren, arineketa, isilean, ezkutuan, ia **gordeka**. Urtzi Urrutikoetxea

Erreroko Mariasun eta Tobeneko Gema eta Jesusmarirekin maiz zapoka edo **gordeka** jolasten nuen. Gotzon Garate

### 2 ager-gordeka adlag

Nik leku batean uste nuena, beti besteren batetik agertzen zitzaidan, belar tartetik lepoa luxatuz, ager **gordeka**: "Ai aluxa, hor al hintzenan, hor!". Patziku Perurena

Handik, amildegiaren behearean, ibaia ager-**gordeka** bistatu dudanean. Patxi Zubizarreta

### 3 gorde-agerka adlag

Hitz jolasguratuak elkarrekin gertatzen dira jendeen aho-mihitan, elkar igurzten dute, adiskidetz eta haserretuz orobat, **gorde**-agerka betiere, elkarretaratuz eta elkarretarik partituz etengabe, badoaz eta badatoz. Iñaki Segurola

### 4 gorde-gordeka adlag

Abenduan Jose Ramon Aiestaranek barrerorri batzuk eraman zituen moilan harrapaturiko katua goxo maneatzeko; urtarrilean Torrontegi hoteleko emakume aberats batek Elegantes erre zuen **gorde-gordeka**. Lutxo Egia

### 5 isil-gordeka adlag

Beste ehizaldi bat antolatuko dugu, eta, gau erdian, isil-**gordeka** eta mozorroturik itzuliko gara jauregira. Patxi Zubizarreta

Zaratarik atera gabe, **isil-gordeka**, begi logaletsuekin bazter guztiak arakatuz. Jose Morales

Gizon batek baino gehiagok isil-**gordeka** kontatu dit ez lukeela inolaz ere atzetik hartuko. Karlos Zabala

Era guztietako sorginkeriak daude, inor isil-**gordeka** sar ez dadin. Iñaki Mendiguren

Ibilian jarraitu zuen, jakitun Abas atzealdean **isil-gordeka** zetorkiola. Patxi Zubizarreta

Hiriko kale ilunetan isil-**gordeka** zihola. Patxi Zubizarreta

Isil-**gordeka** izan gabe ere ahalik eta hots gutxien atereaz. Ramon Saizarbitoria

### 6 kuku-gordeka adlag ezkutuka.

Hastapenean haren balentriak kondatzen zizkidan, mendian gaindi nola ibiltzen zen alemanekin "kuku-**gordeka**". Eguzkia kuku-**gordeka** ari zen hodeien artetik, eta aire mehe batek belar hezearen usaina ekartzen zien. Eneko Bidegain

Rakelen dendara kuku-**gordeka** hurbildu, eta han inguruka ibili zen, deitu, ez deitu, sartu, ez sartu, zalantza balu bezala. Patxi Zubizarreta

Gauak eta egunak ordez, herioaren kuku-**gordeka** eta mehatxupean higatu nituen. Itxaro Borda

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean **gordeka** (4); edo **gordeka** (3); erdi **gordeka** (3); eta **gordeka** (3); eta isil **gordeka** (5); **gordeka** ari (4); **gordeka** bezala (7); **gordeka** bizi (6); **gordeka** eta (7); **gordeka** gaztelutik (3); **gordeka** ibili (6); **gordeka** joan (3); **gordeka** sartzen (3); **isil gordeka** (51); **isil gordeka** gaztelutik (3); **isil gordeka** ibili (3); **kuku gordeka** (12); **zen gordeka** (3)

## gordekeria iz gordetze gaitzesgarria.

Hitz eta pitz eta batere **gordekeriarik** gabe jardun zuten. Irene Aldasoro

Aldiz, berari zegozkionetan, isil-**gordekeria** setatia zuen bertzeen gaineko jakin-gose ezin-asearen gehigarria. Aingeru Epaltza

## gordeketa 1 iz gordetzea.

Izadiko substantziaren kantitate osoaren **gordeketa**. Ibon Uribarri

Eta, ezin baihuen gehiago jasan horrenbeste korrika-saio, horrenbeste **gordeketa** -jolas, horrenbeste miseria, ni hiltzea erabaki, eta goiz horretan eskuek huts egiten ditek, hara. Xabier Olarra

### 2 gordeketa adlag

Tximeletak **gordeketa**; inurriak kolunpioetan; zizareak txirristan. Joxerra Garzia

Ez daukat motiborik **gordeketa** ibiltzeko. Anton Garikano

Dendetan, **gordeketa**, kaniketan, txantxibirian. Arantxa Iturbe

## gordekin iz gordetgia.

Dena dela, 4.000 milioi upeleko **gordekina** du Nazioarteko Energia Agentziak. Berria - Ekonomia

Kontsumitzaile Elkartearen aburuz, osterara, hamar aste bizirauteko adina **gordekin** zeukan Katmandu. Berria - Mundua

Eta, bere bultzaldia agortu ondoren, gai izango ote ziren energia psikikoaren **gordekin** ezkuturen bat ateratzeko sorkuntzako egintza errepikatuz? Iñaki Mendiguren

## gordelari iz gordetzailea.

Onartarazi nien guztiei utz nintzabela manu haren **gordelari**, eta manu hura betetzeko edo ez betetzeko jaun eta jabe halaber, neska horren geroztikako jokabidearen merezimenduz nik jujatuko nuelakoan. Jon Muñoz

## gordeleku (402 agerraldi, 115 liburu eta 42 artikulutan; ETCn 1.793 agerraldi) 1 iz gordetzeko lekua, ezkutalekua.

Bizikleta **gordelekuaren** aurretik nindoan. Josu Zabaleta

Baleen azken **gordelekuetaraino**. Herria

Hantxe zegoen Iruaingo **gordelekuan** ezkutututa egondako amerikanoa. Bernardo Atxaga



Untxi erraldoi baten **gordelekua** ematen zuen. **Iñaki Mendiguren**

Hor daude piztien **gordelekuak**, zuloak, habiak. **Iñaki Segurola**

Hogeita hamar ordu egon nintzen **gordelekuan** sartuta. **Bernardo Atxaga**

Non utzi beharko genituen 10.000 panfletoak barruan geneuzkan kideek jaso zituzaten, eta Bilbon izango genuen **gordelekuaren** helbidea. **Bernardo Atxaga**

Gaitzaren sorburuak amore eman eta gorputz ustelduaren humore mingotsa bere **gordelekura** itzultzen denean. **Xabier Amuriza**

Harrezkero, kobazulo hura, begirada orotatik urruti, haien maitasun bileren **gordeleku** bihurtu zen. erresistentziak mendia baitzuen **gordeleku**. **Martin Anso**

Artea da, diote zenbaitek, libertatearen eta sormenaren azken **gordelekua**. **Piarres Aintziart**

**Gordeleku** ezkutuak jasoarazi zituen zulo berri sakabanatueta. **Ramon Saizarbitoria**

## 2 gordetzeko lekua, babeslekua.

'Portu eta **gordeleku** ona izan da beti,' esanen du marinel batek. **Joseba Sarrionandia**

Alarma adarrek denok **gordelekuetara** jo genezan dei egiten zutenean. **Edorta Jimenez**

**Gordeleku** antiaereoetara egin zutela korrika oihuka negarrez. **Lutxo Egia**

**Gordelekuen** babesaren bila. **Edorta Jimenez**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arma gordeleku** (3); **arma gordelekuak** (3); **azken gordelekua** (4); **bere gordelekuan** (6); **bere gordelekuetatik** (5); **bere gordelekura** (3); **bere gordelekutik** (9); **bere gordelekutik atera** (3); **beren gordelekuan** (4); **beren gordelekuetatik** (6); **beren gordelekutik** (3); **eta gordeleku** (12); **gordeleku bat** (6); **gordeleku eta** (7); **gordeleku hartan** (5); **gordeleku izan** (5); **gordelekuaren berri** (3); **gordelekuetatik atera** (4); **gordelekuetatik ateratzen** (3); **gordelekutik atera** (10); **haizea bere gordelekuetatik** (3); **haren gordelekua** (4); **hilezkorren gordelekua** (3); **iruaingo gordelekuaren** (3); **izuen gordelekuetan barrena** (4); **zuen gordelekua** (4)

## gordetegi (25 agerraldi, 15 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 169 agerraldi) 1 iz gordetzeko lekua, biltegia.

Gotorlekua, oso goiz, min-leku bihurtu zen, presoen **gordetegi**, presoen galdutegi beraz, presoen kantutegi. **Felipe Juaristi**

Konturatu baitira sofistak, hitza bera, egiaren **gordetegi** sokratikoa baino gehiago, boterea dela giza auzietan. **Askoren artean**

Bertako langileek haren berri jakin gabe atera baitzuten txalupa hori **gordetegitik**. **Koro Navarro**

Eliza dotore samarra, zaldalearen **gordetegi** bilakatu. **Koldo Izagirre**

Txaluparen lema ordea gabarra **gordetegian** dago. **Koro Navarro**

Behera egin zuen lurra ia ukitzerraino, eta lumak, gorputzaren zamak beren **gordetegitik** aterarazirik, hegan barreiatu ziren gelako zoko-bazter guztietara. disekzio-salaren

**gordetegia** zegoen patiora jaisteko eskaileretatik igarotzean. **Jose Morales**

**Gordetegi** bat izaten du, gasolina-tankeari konektatua, eta, beste muturrean, metalezko disko malgu bat, atzera eta aurrera mugitzen dena. **Irene Aldasoro**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egun akabo erudizioa, gaur egun **gordetegi**-sistema elektronikoak jabetu dira oroimenaz. **Karlos Zabala**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zitzu bizian atera baitzen botila-**gordetegitik** kanpora. **Felipe Juaristi**

Operazio honetan, arma **gordetegi** bat ere aurkitua izan zela zehaztu zuen eledu honak. **Berria - Mundua**

Saint-Jean- de-Maurienneko dinamita **gordetegian** (Bretainia) lehergailuak lapurtu nahi zituelako. **Berria - Euskal Herria**

Txaluparen lema ordea gabarra **gordetegian** dago. **Koro Navarro**

Coculim kondeen jauregiko atari neoklasikoa, horiek ere Mascarenhas familiakoak ziren, burdin **gordetegia**, horretan bukatu ziren handitasunak. **Jon Alonso**

## gordetoki (agerraldi 1, liburu 1ean; ETCn 2 agerraldi) iz gordetzeko lekua, babeslekua. ik gordeleku 2.

Ahuntzak ikusi nituen saltoka eta trote, **gordetoki** bila. **Pello Zabala**

## gordetzaile pred/iz gordetzen duena.

Aldi berean **gordetzaile** eta berritzaile dira, beraz, bazter hizkerak. **Koldo Zuazo**

Leku berezia, nagusia, betetzen dute gauzek beraien **gordetzailearen** irudimenean. **Joxan Elosegi**

Bere herriaren musika tradizio aberatsaren **gordetzaile** nagusia ez ezik, Dick Gaughan (Leith, 1948), langileriaren kantuen igorle handienetako bihurtu da. **Berria -**

**Kultura**

Ebanjelio santuaren **gordetzaile** deituak. **Askoren artean**

Egunkaria SAK hartzeko zituenak eta zorrak lehenbailehen likidatzeko legezko **gordetzaile** bat izendatzeko eskatu zioten epaileari. **Berria - Euskal Herria**

Azkueren jarraitzaile, miresle, lan biltzaile, oroimen **gordetzaile** eta biografia egile. **Berria - Kultura**

Informazioa aukeraturako pertsonaren (sekretu-**gordetzailearen**) barruan ezkututzen da. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**pottertarren sekretu gordetzailea** (3); **sekretu gordetzaile** (5); **sekretu gordetzailea** (4)

## gordetze iz toki estalian jartzea.

Exterako behar zena banatu ondoren, haren ardurapean gelditzen zen bezero fijoen salmenta, diru **gordetze** eta banaketa. **Joxemari Urteaga**

Datu-**gordetze** edo apurka emate honetan, iritsi da garaia Sarasola familiaz eta Itsasondoko arbelaz hitz egiteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## gordeune ik gordegune.

## gordezale izond gordetzeko joera duena.

Tipi eskola-emaile, Ttipi isil-**gordezale**, Ttipi sekretu-ebasle. **Aingeru Epaltza**

## gordezka (11 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 30 agerraldi) adlag ipar gordeka.

Eta orduan nehorik ez du jakinen zonbat eri handi lokartuak izanen diren betikotz, gauaz eta **gordezka**, eman pikura baten ondotik. **Herria**

Ez zen haizu, baina presoak beti moldatzen ziren **gordezka** zigarreta baten erretzeko. **Eneko Bidegain**

## gordiano

### 1 **korapilo gordiano** izond gordiar korapiloa.

Uste dut, gure arazoaren korapilo **gordianoa** hementxe daukagula. **Joxe Azurmendi**

## gordiar

### 1 **gordiar korapilo** (orobat **korapilo gordiar**) izlag kontu erabat zaila, koska ia gaindiezina.

Baina horren guztiaren **gordiar** korapiloa ulertzeko, ikusi behar da kontsumo gizartea berehalakoaren kulturaren eritimoan mugitzen dela, ingurumenarekin lotutako kontuek epe luzeako konponbideak behar dituzten oso gai sakonak planteatzen dituzten bitartean. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Erantzun baten zain zeuden, korapilo **gordiarren** beste muturra nik emateko zain. **Eider Rodriguez**

## gordin 1 izond egosi edo erre gabea.

Patata **gordinak** edo apio bihotzak hozkatzeraz. Ia mastekatu gabe irentsi zuen azenario **gordinak** urdaila urratzen zion. **Karlos Zabala**

Eskua baratxuri **gordinez** igurztea. **Joxerra Garzia**

Zorua dena garbantzuz **gordinez** beteaz zagok. **Koldo Izagirre**

Haragi **gordina** ematen zioat jateko. **Jose Morales**

Xingarren eta okela **gordinen** erdian. **Karlos Zabala**

Platerkada bat gibel **gordin** eskatu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Janari **gordinak** bakarrik jaten zituen. **Askoren artean**

Olio **gordina** eta ozpina. **Edorta Jimenez**

### 2 tratatu gabea.

Tea, kafea, jutea, kautxua, opioa eta kotoi **gordina**, ingeles fabriketarako. **Koro Navarro**

Katherinek atorramotz ile-**gordin** bat zeraman. **Juan Garzia**

Lebita horixka zuen, Errusiako seda **gordinezkoa**. **Matias Múgica**

Adreilu erreak nahiz **gordinak** dauden lekuetan ere. **Santiago Iruretagoiena**

Petrolio **gordinaren** prezioaren aldaketek buruz. **Koro Navarro**

Inork ez dio jantzi zaharrari oihala **gordinezko** adabakirik josten. **Elizen arteko biblia**

Porlan **gordinezko** maila batzuk itzalean galtzen ziren. **Juan Garzia**

### 3 (pertsonak) sasoi onekoa, zahartzaroaren seinalerik ez duena.

Hogeita bi urte edo gehiagoko mutil **gordina** zen, ederra. **Karlos Zabala**

Gizon argal horiek gizon **gordinak** dira. **Karlos Zabala**

Gizabanako **gordin** eta osasuntsuek bakarrik egiten duten irri ozen horrekin. **Jose Morales**

Izabarekin batere konfiantzarik ez izan arren, nire osaba **gordinarekin** nahi nuena egiteko boterea nuela. **Karlos Zabala**

Goethe atsegin dut, hala ere; larru-jole handia izan zen, eta agure **gordina** bihurtu zen zahartu zelarik. **Karlos Zabala**

Oraindik ere gizon **gordina** zegoena hola bukatzea ere... **Xabier Mendiguren Elizegi**

· Bere lau haurretatik hiru seme alaba galtzea adin **gordinean**. **Herria**

Bulta txar baten ondorioz, Jainkoak bereganatu du oraino adin **gordinean**, 52 urtetan. **Herria**

### 4 (hitzak eta kidekoak)

Isilarazi egiten zuen hitz **gordinez** kasik. **Karlos Zabala**

Egia erran, gazte ginelarik baginazkien orain nasaiki entzuten diren hitz **gordinak**, bainan ez ginituen erraiten jende helduen aitzinean. **Herria**

Gainerako gizonetzkoen gaitzespen **gordinei** jaramonik egin gabe. **Jose Morales**

Ordu arte sekula ez baitzen idatzi Errusiako gizartearen hain kritika zorrotz, **gordin** eta mingarririk. **Jose Morales**

Ez dago lau hitzetan arrazoi **gordinagorik** esaterik. **Iñaki Segurola**

Birao **gordin** bat atera zaio marinelari: -Jainkorotz! **Anjel Lertxundi**

### 5 (eguraldiari eta kidekoei dagozkienak)

Egia al da, aurtengoa, aspaldiko negurik gogorrena eta **gordinena** izan dela? **Pello Zabala**

Hotz **gordinenetara** ohituta. **Pello Zabala**

Eguraldi **gordinak** uxaturik. **Pello Zabala**

Nortea, Norteko haizea, hotza eta lehorra den haize **gordin** minari deitzen zaio Basaburu aldean. **Patziku Perurena**

Bero **gordin** batek kiskaltzen ditu eguerdiko orduak. **Koldo Izagirre**

### 6 (sexuari-edo dagozkienak)

Ipurmasailena ez zen aipamenik **gordinena**. **Ramon Saizarbitoria**

Filmetan ez duzu eszena **gordinik** ikusiko. **Gotzon Garate**

Nekazarien pasadizo xelebrea eta txiste **gordinak**. **Alberto Ladrón Arana**

Irain lizun **gordinenak** jaurtikiz emakumeari. **Anjel Lertxundi**

Maite-jolasetan, musu batean, besarkada batean, txantxa **gordin** batean ezer txarrik ez ikustea. **Josu Zabaleta**

Ostatuko pantailan, larru **jotze** gordinezko bideo haragitsuak. **Itxaro Borda**

Baina gertatzen da funtsezkoa dela hitz **gordin** edo zikinak esatea atseginarekin hordialdian. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Barre egiten dugu txiste hori dela-eta, eta orduan nik beste bat kontatzen diot, **gordinxeagoa**. **Koro Navarro**

### 7 (bestelakoak)

Esanen didazue ur **gordina** eta arrea dakarrela; ez dela mehe eta gardena. **Patziku Perurena**

Lur **gordina** zuen zoru, goian adarrak nahas-mahas. **Juan Garzia**

Haren ahots **gordinak** labana baten modura ebaki zuen isiltasuna. **Anjel Lertxundi**

Gizonaren irri **gordinak**, uxkailtzear, bagoia bete zuen. **Itxaro Borda**

Geltokietako argi **gordina** trenan gelditzen denean. **Ramon Saizarbitoria**

Egiarik beteena, **gordinenak** eta aintzakotzat hartzekoenak. **Iñaki Segurola**

Eskua ukitzeko desio bortitza, Imanolen eskua ukitzeko gogo **gordina** sentitu zenuen. **Lourdes Oñederra**

Zaharron ezinaren errealtate **gordina**. **Anjel Lertxundi**

Bere iraganerako kantu-garbiteta **gordina** dago liburu osoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Lagunarteko hizkeran erabiltzen diren erdarakada **gordinak** saihestu egiten dira hizkeran jasoan. **Koldo Zuazo**  
Zurrumbilo zaratatsua isaltasun **gordin** bihurtu zen. **Hasier Etxeberria**  
Hemengoek zure ekintza gero txalotuko zuten, gero eta isilean, zinismorik **gordinenaz**. **Koldo Izagirre**  
Diodan heriotza hori sinesteko edo irensteko, heriotza egosi egin behar da lehenbizi, zeren heriotza **gordina** ez baita inongo ahotan sartzen. **Iñaki Segurola**  
Palestinaren eta Israelen arteko gatazka **gordinean** girotu du [filma]. **Iñigo Aranbarri**  
Brooklyngo alderdi ilunenei begiratzen dien eleberri **gordin** galtzailez bete: prostitutak, drogaren menpekoak, trabestiak, bortxatzaileak... **Berria - Kultura**  
Xehetasun **gordinen** artean, torturari ihes egiteko leiho batetik nola egin zuen salto kontatzen zuen. **Hasier Etxeberria**  
Konkista militarren metodo **gordinera** itzultzea. **Iñaki Mendiguren**  
Neoliberalismo **gordinak**, Sombart-ek zioen bezala, gizakia bizitzaren zentro izatetik aldendu zuen. **Iñaki Heras**  
Kaleratze **gordinik** ez du aurreikusten, baina bai, ordea, langileak alde aurretik erretiratzea, lana utzi nahi dutenak diruz saritzea, eta beharginak ontziola batetik bestera eramatea. **Berria - Ekonomia**  
Anitz merkatari eta itsas kapitainek ekarria zuten uhartetik lehorrera metal **gordin** zein landuzko kargamendurik. **Juan Garzia**

## 8 (kopuruak)

Euskal Autonomia Erkidegoko BPG edo Barne Produktu **Gordinaren** hazkundera. **Iñaki Heras**  
Gizaki bakoitzaren errenta erreala (alegia, Nazio Produktu **Gordina** per capita, baina erosketan ahalmenaren arabera parekatuta). **Iñaki Heras**  
Errenta Nazional **Gordinaren** %1,24. **Berria - Ekonomia**  
Nafarroako Balio Erantsi **Gordina** EBkoaren %108,13 da eta %107,77 EAEkoa. **Berria - Ekonomia**  
Kapitalen irtenaldi **gordinen** batuketa, edo, bestela esanda, atzerrian egindako inbertsioen multzoa. **Koro Navarro**  
Euskadiko Kutxak aurten 116,1 milioi euroko irabazi **gordinak** lortzea espero du. **Berria - Ekonomia**  
Nafarroako batez besteko soldata **gordina**. **Berria - Ekonomia**  
Oren **gordina** 7,4 euro ordaintzen dio enpresak gutieneko soldata duen bati. **Berria - Harian**  
0,326 euroko dibidendu **gordina**. iaz 389 milioi dolar **gordin** irabazi zituen. **Berria - Ekonomia**  
Familien batez besteko errenta erabilgarri **gordinaren** %86,6ra iritsi da zorra. **Berria - Ekonomia**  
Xifre hori **gordina**, legezko kenketak egin aitzinekoa. **Herria**  
Horrela, balio **gordin** batetik balio garbi batera igarotzean, produkzio prozesuan gastatzen den kapital-stockaren zatia hartzen da kontuan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**  
· Ezagutza zientifikoaren (fisikoaren) eite sinbolikoa agerian jarri, Duhemek egitate **gordina** eta egitate zientifikoa bereizten ditu. **Askoren artean**  
Hazkunde mugimenduak eta jaiotzen tasa **gordina**. **Pello Salaburu**

## 9 (adizlagun gisa) ik gordiniki.

**Gordin** mintzatzea erabaki nuen, leuneriak eta zurikeriak mintzatzea baino hobe zelakoan. **Joan Mari Irigoien**  
Hori bai gauzak argi eta **gordin** esateko modua. **Sonia Gonzalez**  
Hipokresia ez daki hain **gordin** intziri egiten. **Karlos Linazasoro**  
·Utzi bakean! -esan zuen Fuhrmann doktoreak **gordin**, eta bere egunkaria irakurtzen jarraitu zuen. **Anton Garikano**  
Berak zakar eta **gordin** ihardetsi zidan ez zegokidala niri goi--irakasleak kritikatzeara. **Juan Garzia**  
Bernizen kontuan, izan ere, oraindik, barkatzeko hain **gordin** esatea, analfabeto hutsa nintzen. **Juan Garzia**  
Badaki-eta apirilak noizbehinka **gordin** portatzen ere. **Pello Zabala**  
Barkatuko didazue **gordinegi** mintzo naizela uste baduzue, baina esan behar dut *cocuyo* horren morfologiak antzekotasun nabarmenak dituela emakumearen organo sexualekin. **Jon Alonso**

## 10 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Baina badirudi, sasoi honetan, neguaren **gordinak** badakiela beratzen ere. **Pello Zabala**  
Heriotzaren **gordina** egosi arteko onik ez izatea. **Iñaki Segurola**  
Pasadizo txikiak albo batera utzi, pertsonaien eta istorioaren **gordinari** bide emateko. **Berria - Kultura**  
Itzuli egin zen gorputzaren **gordinena** erakutsiz. **Koldo Izagirre**

## 11 **gordinean** leungaririk gabe, gozagarrikerik gabe. ik gordiniki.

Etxebizitzaren arazoa **gordinean** dugularik, nola uztartu bizitegi baten beharra eta laborantxaren geroaren segurtamena? **Herria**  
Kalean ibili eta ikerketak **gordinean** egitea, zuzenean, tartean paper-mendirik eduki gabe. **Fernando Morillo**  
Boterearen logika, **gordinean**. **Eduarne Elizondo**  
· Gure begietako kamerek, eszena bere **gordinean** jaso ezinik, geldotu beste biderik izan ez balute bezala. **Anjel Lertxundi**  
Gaur egungo gizarte egitura honetan herriko hizkera bere **gordinean** erabiltzea baino egokiago gerta daiteke honen eta batuaren tarteko bat moldatzea. **Koldo Zuazo**

## 12 **gordin-gordin**

Izadiaren emaitza hutsa, **gordin-gordina**. **Juan Garzia**  
Bere garaian hiru seme-alaba hazitako emakumea, oraindik ere **gordin-gordina**, bizitzaren lorean esango nuke nik. **Patxi Iturritegi**  
Gerraoste **gordin-gordineko** urte haietan. **Juan Garzia**  
Baita hotz **gordin-gordineko** goiz albetan eta leihoak izotz-geruza lodi batek estalita zeuden egunetan ere. **Anjel Lertxundi**  
· Ordua arte nola edo hala ez ikusiarena egitea lortu bazuen ere, **gordin-gordin** agertu zitzaion bat-batean gaixotasunaren larritasuna. **Imanol Zurutuza**  
Ez zen, ez, nolananahiko galdera, baina **gordin-gordin** sortu zitzaion Ruche jaunari. **Jon Muñoz**  
Antzerki-lan bat idatzi zuen Lizardik, *Ezkondutza ezin zitekean mutilla* izenburu esanguratsua duena eta adierazi dugun arazoa **gordin-gordin** azaltzen duena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 13 **gordin-gordinik**

Batere zalantzarik gabe erantzun nion nik egia, **gordin-gordinik**: [...]. **Hasier Etxeberria**  
Horixe da denbora, denbora **gordin-gordinik**, geldiro etortzen da existentziara, haren esperoan egonaztzen gaitu, eta etortzen denean, nahigabetu egiten gara ohartzen garelarako bertan zegoela aspalditik. **Monika Etxebarria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain gordin (10); birao gordin (3); errealtate gordin (9); errealtate gordin eta (3); eta gordin (25); euro gordin (15); gizon gordin (3); gordin adierazi (3); gordin azaltzen (3); gordin baino (4); gordin bat (16); gordin batek (5); gordin batekin (3); gordin baten (5); gordin esan (3); gordin esanda (4); gordin esatea (4); gordin eta (44); gordin eta garden (3); gordin gaitasunaren (3); gordin gaitasunaren eta (3); gordin gordin (14); gordin gordinean (3); gordin gordinik (3); gordin hark (3); gordin horiek (5); gordin hura (3); gordin mintzatu (3); gordin mintzatu zen (3); gordin samar (3); hain gordin (12); haize gordin (3); hitz gordin (9); hitz gordin bat (3); horren gordin (4); hotz gordin (4); irudi gordin (3); istorio gordin (4); modu gordin (3); negu gordin (3); petrolio gordin (5); txantxa gordin (3); zakar eta gordin (3)  
baina egia gordina (3); barne produktu gordina (72); bezain gordina (5); egia gordina (13); egoera gordina (5); eraketa gordina (3); errealtate gordina (33); errealtate gordina (4); eta gordina (15); euro gordina (4); euroko soldata gordina (4); gizon gordina (4); gordina agertzen (3); gordina aurten (3); gordina baino (5); gordina bihurtu (3); gordina bpg (16); gordina da (16); gordina dago (3); gordina du (3); gordina dute (3); gordina egin (5); gordina egiten (6); gordina eta (11); gordina izan (3); gordina jaten (3); gordina zela (3); gordina zen (5); gordina zuen (3); haragi gordina (6); hotz gordina (5); hotz gordina egiten (4); kapital eraketa gordina (3); mahats gordina (3); nazio produktu gordina (4); produktu gordina (76); produktu gordina aurten (3); produktu gordina bpg (16); rock gordina (3); soldata gordina (8); tasa gordina (4)  
ahots gordinak (4); are gordinagoa (4); baino gordinagoa (6); barne produktu gordinak (13); barne produktu gordinaren (118); errealtate gordinaren (7); errealtate gordinari (3); errenta gordinaren (4); eta gordinagoa (5); eta gordinagoak (4); eta gordinak (5); euroko irabazi gordinak (3); gero eta gordinagoa (3); gordinagoa da

(4); **gordinagoa izan** (3); **gordinak bpg** (5); **gordinak dira** (4); **gordinak eta** (5); **gordinak ez** (5); **gordinak izan** (4); **gordinaren bpg** (13); **gordinaren ehuneko** (4); **hitz gordinak** (8); **irabazi gordinak** (4); **oso gordinak** (3); **petrolio gordinaren** (9); **produktu gordinak** (13); **produktu gordinak bpg** (5); **produktu gordinaren** (119); **produktu gordinaren bpg** (13); **produktu gordinaren ehuneko** (4); **soldata gordinaren** (5)

**adin gordinean** (8); **barne produktu gordinean** (6); **bere gordinean** (14); **errealitate gordinean** (3); **errealitate gordinera** (3); **euro gordineko** (3); **gordin gordinean** (3); **gordin gordinik** (3); **gordinean ematen** (3); **gordinean eta** (3); **gordinegia da** (4); **gordinen bat** (5); **gordinik edo** (3); **gordinik ez** (4); **gordinik jaten** (5); **hitz gordinez** (4); **hitz gordinik** (3); **modu gordinean** (5); **negu gordineko** (3); **okela gordinen** (3); **produktu gordinean** (6)

## gordindu, gordin(du), gordintzen da/du *ad* gordin edo gordinago bihurtu.

Haatik, negoziazioek huts egin eta gatazka berriz **gordindu** zen. Berria - Harian  
Su-etenaren amaieran, egoera politikoa **gordintzen** ari zenean Elkarri-k bake ekimen bati ekin zion. Berria - Harian  
Bi komunitateen arteko harremanen ezegonkortasuna antisemitismoa **gordintzeak** erakutsi zuen. Iñaki Mendiguren  
On Camilloren eta gorrien arteko harremanak oso **gordinduta** zeuden eta liskar usaina zegoen airean. Koldo Biguri  
Negua **gordindutakoan**, supazterrean, zenbat kontu esan ote ziren gure baserrietan Pello Zabala

## gordinik 1 *adlag* egosi edo erre gabe.

Fruitua berriz, infusioak eginez, berehalaxe hartuta igurtziz, edota **gordinik** janez. Patziku Perurena  
Jakiak **gordinik** jatea da onena eta, ezin bada, egostea. Berria - Euskal Herria  
Surik ezaz, ardikia **gordinik**. Koldo Izagirre  
Eta **gordinik** edo egosirik deus jan gabe, oso osorik erreta jan bedi. Patziku Perurena  
Protagonistek patata-tortilla jaten ahal dute, edo arraina **gordinik**, edo pilula energetikoen nahasketa. Jon Alonso  
Telebistan ez da **gordinik** ezer eskaintzen. Pako Aristi

### 2 *hed*

Lehen aldia da lanetik kanpo elkar ikusiko dutena, ke eta musikaren adulteraziorik gabe, **gordinik**. Eider Rodriguez

### 3 *gordin-gordinik*

Batere zalantzarik gabe erantzun nion nik egia, **gordin-gordinik**: [...]. Hasier Etxeberria  
Horixe da denbora, denbora **gordin-gordinik**, geldiro etortzen da existentziara, haren esperoan egonarazten gaitu, eta etortzen denean, nahigabetu egiten gara ohartzen garelako bertan zegoela aspalditik. Monika Etxebarria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gordin gordinik** (3); **gordinik jaten** (5)

## gordinkeria *iz* gordintasun gaitzesgarria.

Siberiako eguraldiaren laztasun eta **gordinkeriar** aurpegi emateko prest. Karlos Zabala  
**Gordinkeria** hori zurituko duenik ez dago. J.M. Olaizola "Txiliku"  
Eta Lecœur andreak **gordinkeria** bat bota eta barre egin zuten biekin. Karlos Zabala  
Gizon bat bidali nioan guztiaren berri azaltzera, baina **gordinkeria** bat erantzun zian. Jose Morales  
Segidan datorrenak, ordea, lotsa bera gorritzerainokoa du **gordinkeria**. Anjel Lertxundi  
Gure artean, **gordinkeria** larritzat hartuko litzatekeela funtzionario bat beste bati horrela mintzatzea. Jose Morales  
**Gordinkeria** ez da batere bere estiloa, eta badu modua hizkuntza bortxatu gabe sexu harremanak, plazerra eta, bereziki, horien misterio, behar eta nahia idurikatzeke. Janbattitt Dirassar  
Hark oso gustuko baitzuten apaizen eta mojen istorioak eta sakristiako **gordinkeriak**. Karlos Zabala  
Barre zangoka, nork **gordinkeria** lizunagoa esaten ari ziren gizonak. Anjel Lertxundi  
Ibiltari bakartia agertu eta hura han galduta ez dabilela antzeman orduko, hor hasiko da prostituta bat goxotasunak esaten, hurrengoa **gordinkerietan**. Pako Aristi

## gordinki *adlag* leungarririk gabe, gozagarririk gabe; gogorki, zakarki.

Egia osoa, egia mina, ez da bakarrik jateko moduko platera; ez da nork bere buruari **gordinki** esatekoa ere. Iñaki Segurola  
Inork ez baitzuen uste izan bahiketa hain **gordinki** amai zitekeenik. Hasier Etxeberria  
Ziur zegoen Pizkor komandokoak bakarrik izan zitezkeela hain **gordinki** aritutakoak. Hasier Etxeberria  
Aitorpen honek marka guztiak hausten ditu, eta ezin **gordinkiago** erakusten alaitasun mamituaren barrengo harra: "Erran behar dut gogorki sofrizten hasi orduko, 11 urte nituela, irriparre bat ezpainetan kokatua bezala nabilala". Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gordinki salatzen** (3)

## gordintasun 1 *iz* gordina denaren nolakotasuna.

Hotz gordina egiten zuen, baina ez dut uste ohartu ere egiten nintzenik ez hotzaz ez **gordintasunaz**. Anjel Lertxundi  
Sasoian dagoenak uste baitu egiaren jabe dela, baina gaixoari erdizkako egiaren itxurapean ezkutatu beharra daukala, egia osoaren **gordintasuna** zer edo zer gozatze aldera. Imanol Zurutuza  
Baina azken bertsioetan, bat-batean, gurina zartaginean bezala urtzen da galerianoaren lehen bertsioetako **gordintasun** guztia. Anjel Lertxundi  
Xabier Leteren kantuaeren bertsio oso gordina egin dugulako, orduko **gordintasuna** berreskuratu nahian. Berria - Kultura

### 2 *egite* edo esate gordina.

Ez haut beldurtu nahi, baina kontatu didaan horrekin guztiarekin, ez harritu hire osaba gehiago ez ikustea, barkatu **gordintasuna**. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere gordintasun** (6); **bere gordintasun guztian** (3); **bere gordintasun osoan** (3); **bere gordintasunean** (9); **gordintasun osoan** (6)

## gordintxo *izond* gordin samarra.

Vladimir izena **gordintxo** egiten zitzaidala gu bizi ginen parajerako, eta ardura ez bazion, lagatzeko haurrari Bladi deitzen Vladimirren orde. Hasier Etxeberria

## **gordinxko** (*orobat **gordinsko***) 1 *izond adkor* gordintxo.

Andereñoak gogoeta egin zuen, ez ote zuen hobe handik altzatzea eta elkarriketa **gordinxko** hura amaitzea. **Anton Garikano**  
Gure sortzaileen bizitzaren amaierako zati **gordinxko** hori. **Joxan Elozegi**

## 2 (adizlagun gisa)

**Gordinxko** dabil eguraldia. **Pello Zabala**  
Borrokarako oraindik **gordinsko** nengoela-ta, Irungo setiaketara bidaliko ote ninduten, ez ninduten, ibili bide ziren zalantzan goikoak. **Txillardegí**

## **gore** *izond odolaren eta biolentziaren erakuskeria* egiten duena.

Irakasleak euskal literaturaren berrirakurtzeari buruzko zerbait esan du orduan, inork ulertu ez dion zerbait antologia **gore** bati buruz, eta karioak airean atera da gelatik.  
**Iñigo Aranbarri**

## **goren** 1 *izond* garaiena dena. ik *goien*.

Mendi **gorenetan**. **Xabier Amuriza**  
"Zeru gorenearan egon dadila!", bai, lur honetan egin duen ongiaren sari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Eguzkia oihan debekatuaren atzean sartzen ari zen, zuhaitzen adar **gorenak** urreztatuz. **Iñaki Mendiguren**  
Gazteluaren solairu **gorenearantz** zihozten isil-misilka... **Iñaki Mendiguren**  
Baina erdiko tronuari, **gorenari**, zutoihal zabala egokitu zitzaion. **Agustin Otsoa**  
Logika horren lorpenik **gorena** Russellen eta Whitehead-en *Principia Mathematica* obra da. **Askoren artean**  
Eboluzionismoaren unerik **gorenearan**. **Askoren artean**  
Petrolio, preziorik **gorenearan**. **Berria - Ekonomia**  
Harridura sor lezake ikasketen arloan teologiak maila **gorena** gordetzen zuela jakiteak. **Askoren artean**  
Santutasunaren maila **gorenera** iritsirik. **Askoren artean**  
Giza arrazak izandako zorion-puntu **gorena**. **Iñaki Mendiguren**  
Bizitzeko eskubidea da giza eskubide **gorena**. **Berria - Euskal Herria**  
Frantziako intelektual **gorenetakoa** da bera, modernoetan modernoa. **Hasier Etxeberria**  
Indiar guztiak gobernu-postu **gorenetatik** baztertzean. **Iñaki Mendiguren**  
Kapitaina zen kuartel txikiko kargu **gorena**. **Karlos Linazasoro**  
Hiriko funtzionario **gorenak**. **Jose Morales**  
Irakeko xiiten erlijio-buru **goren** Ali Sistani aiatola nagusiak.  
Buruazagi **gorenaren** agindupeko 27 batailoiek. **Txillardegí**  
Khan **goren** izendatu zuten 1206an. **Karlos Zabala**  
Organismo **gorenen** geneak. **Juan Garzia**  
Sobiet **Goreneko** Presidiumgo lehendakari izan zen. **Bernardo Atxaga**  
Hala dute erabaki inongo Agintaritza **Gorenearan**. **Koldo Izagirre**  
Gorte **Gorenak** itxiarazi zuen, ilegalki irekia izan baitzen. **Ramuntxo Etxeberri**  
Paueko prokuradore nagusiak aintzina pusatzen du afera hori Pariseko dei-gorte **gorenearat**. **Herria**  
Letoniako Kontseilu **Gorenak** (Legebiltzarra) 'de jure' independentzia aldarrikatu zuen. **Berria - Mundua**  
Espainiako Kirol Kontseilu **Gorenaren** jarrerak ez du inolako lege babesik. **Berria - Kirola**  
Kirol Diziplinako Batzorde **Gorenera** jo zuen Osasunak.  
Veveyko Biltzar **Gorenaren** eskabideari uko egin ziola egia zen. **Txillardegí**

## 2 prestutasunean, bikaintasunean eta kidekoetan garaiena dena.

Lord hitza batzuetan Izaki **Gorenaren** titulu gisa ere erabiltzen da. **Xabier Olarra**  
Agur, jaun **goren** hori! **Juan Garzia**  
Gizakiaren zorion **gorena**. **Piarres Xarriton**  
Indar **goren**, mistiko batek gidatuta bezala. **Alberto Ladron Arana**  
Bertuteari jarraitzen zaizkionen ongi **gorena**. **Piarres Xarriton**  
Izpirituaren bertuterik **gorena** Jainkoaren ezagutza da. **Piarres Xarriton**  
Jainkoaren izaerari dagokiola adimen **gorenaren** eta nahimen librearen jabe izatea. **Piarres Xarriton**  
Errealitateak, baita garratzenak ere, orrialde literario **gorenen** plagioa ematen du askotan. **Anjel Lertxundi**  
Ezagutza maila horretan gauzak ezagutzen dituen, giza betegintzarre **gorenera** heltzen da. **Piarres Xarriton**  
Politika gizakiaren helburu **gorenen** zientzia da. **Askoren artean**  
Etika homerikoa etika aristokratikoa da, aristos edo **gorenen** artean nagusitu zen "izateko arau-multzoa". **Askoren artean**  
Errektore jaun txit **gorena**: A.L.E. ikaslea nauzu, [...]. **Anjel Lertxundi**

## 3 (dagokion izenaren ezkerrean)

**Goren** puntutik gertu zeudela. **Jon Alonso**  
Beha Niloko **goren** aldeetako marka-gizonak. **Iñaki Mendiguren**  
Perfekzioaren **goren** maila adierazi nahi zuen hitz horrekin. **Jose Morales**  
Bere **goren** gradura loratua zelarik Erroma. **Juan Garzia**

## 4 (dagokion izenik gabe)

Izpirituak uler dezakeen **gorena** Jainkoa da. **Piarres Xarriton**  
Eskolastika Garaiaren sistema zientifikoaren garatze bikaina, Santo Tomas Akinokoaren Suma handietan **gorena** jo zuena. **Juan Mari Lekuona**  
Arratsak **gorena** joa zuen. **Anjel Lertxundi**  
Honela aritu ziren solasean eguzkia **gorenera** iritsi arte. **Agustin Otsoa**  
Igarpenaren ikasgela iparreko dorrearen **gorenean** dago. *ik beherago* 6. **Iñaki Mendiguren**  
Une haietan, berriro ere uhinaren **gorenean**, hutsaren hurrengo iruditzen zitzaidan neure herrera, eta orobat garai bateko zoritxarrak. **Juan Kruz Igerabide**  
Isilune bat egin du bere suminduraren **gorenean**. **Patxi Zubizarreta**

## 5 **Gorena mug** Auzitegi Gorena. ik *beherago* 13.



Alabaina, Huertakare egoki irizti zion **Gorenari** azalpenak eskatzea. **Berria - Euskal Herria**

**Gorenaren** autoa zerbitzu juridikoen esku utzi du Mahaiak. **Berria - Euskal Herria**

## 6 *gorenean adlag* puntu gorenean.

**Gorenean** izanik sondaia edo gogo-iritzietan, ainiiz apaldua da orai. **Herria**

Kanpaina **gorenean** izanen da otsailaren 12an, larunbatarekin, euskal irratiek zabalduko duten "Irrat'6" sailarekin. **Herria**

Bere 71 urterekin, talendua eta arrakasta beti **gorenean** ditu. **Herria**

Agorrilean doi-doia sartuak gira eta jadanik aditzen dugu sasoina **gorenean** dugula edo hala izanen segurik zorbait egunen buruko... **Herria**

Erregetza **gorenean** zegoela. **Piarres Aintziart**

## 7 *goreneko*<sup>1</sup> ik beherago 10.

Maila **goreneko** taxoiek ez dituztela klaseak adierazten, indibiduok baizik. **Askoren artean**

Gizakiek afektuaren eraginez desiratzen duten **goreneko** ongia. **Piarres Xarriton**

Sergio Vieira de Mello brasildarra batasun horren **goreneko** komisario zena. **Herria**

**Goreneko** kalitatea, beheereneko salneurriak... **Lopez de Arana**

Inperialismoa, kapitalismoaren **goreneko** aldia. **Koro Navarro**

Izaera jator eta **gorenekoa** zen Kritias. **Askoren artean**

## 8 *Goreneko*<sup>2</sup>/*Gorengo* Jainkoa.

Eta Hennek zioenez, berak eta **Gorenekoak** oso harreman onak omen zituzten. **Koro Navarro**

Halako batean hilak esnatuko dira, baina haien sekretuak **Gorenekoak** eta Haren epaiak gordeta edukiko dituzte belaualdi gutzientz amaia arte. **Koro Navarro**

**Gorengoaren** graziaz eta borondatez, **Askoren artean**

## 9 *gorenen* (superlatiboaren superlatiboa)

Bata Kristorena, zeina gure kapitain eta jaun **gorenena** den; bestea Luziferrena, gure giza naturaren etsai minarena. **Patxi Altuna**

Maisutasunaren mailarik **gorenena** lortzera. **Santiago Iruretagoiena**

Arimaren ahalmenik **gorenenak**. **Joan Mari Lekuona**

Munduko poemarik **gorenenak** ere ez zuen lortuko tristurak eta amorratioak, beren kolore ilunez, nire barruan marratzutako koadroa edertzea. **Anjel Lertxundi**

Eta hau bera esan daiteke aingeru **gorenenaz** ere. **Joan Mari Lekuona**

Nahiz eta ikusiz leihatila zein barna sartua den hormaren sakonenean eta **gorenean**. **Filipe Bidart**

Jainkoaz esan daitezkeen hitzik **gorenenekin**. **Joan Mari Lekuona**

## 10 *gorengo izlag* gorenekoa.

Emakumea ama izateko jaioa zela, amatasuna zelarik hain zuzen, **gorengo** loria eta xede bakarra harentzat. **Josetxo Azkona**

Epaiketari bere buruarentzat **gorengo** zigorra eskatu zuen Rolando Cubelak. **Edorta Jimenez**

Rufino Arrola ez zan **gorengoa** baino bajuago ibiltekoa. **Xabier Amuriza**

On egiazko eta **gorengoarekin** bat egiten. **Askoren artean**

Goi-**gorengo** mahai planifikatzaile batetik begiratu ezker. **Iñaki Segurola**

## 11 *gorenik*<sup>1</sup> *adlag* gorakienik, ozenkienik.

Gehienik Loria gose direnak, mintzo direla **gorenik** haren abusuaz eta munduaren hutsakeriaz. **Piarres Xarriton**

Sudur ahotsez, ahal duten **gorenik** kantatzen dute hiru haurrek, gutzietz entzun dezaten. **Gotzon Garate**

## 12 *gorenik*<sup>2</sup> *adlag* garaienik, altuenik.

Putreak omen dira, hegazti guzien artean, **gorenik** hegan egiten dutenak. **Patziku Perurena**

## 13 *Auzitegi Gorena mug*

Espainiako Auzitegi **Gorenak**. **Berria - Euskal Herria**

Argentinako Auzitegi **Gorenak** erabaki beharko du Bonadioren epaia berretsi edo ez.

Salako sei magistratuek, eta Auzitegi **Gorenaren** erabakia babestu dute. **Berria - Euskal Herria**

Helegitea aztertu duen Auzitegi **Goreneko** epaimahaikideetako bat. **Berria - Euskal Herria**

Auzitegi **Goreneko** Epaile Nagusiaren bidez. **Xabier Olarra**

Kanadako **Auzitegi** Gorenaren irizpideen arabera. **Berria - Euskal Herria**

Justizia Auzitegi **Gorena** aldatu zuen iragan abenduan Lucio Gutierrez presidentek. **Berria - Harian**

## 14 *goren-goren*

Everest mendia da mundu guziko **goren-gorena**. **Herria**

**Goren-gorenean**, aurrez aurre, bi harriztar erraldoi, bata zutik, bestea belarretan etzana. **Josu Zabaleta**

**Goren-gorenera** iristeko behar den punch hori. **Andoni Egaña**

**Goren-gorenaz**, aspaldiko ezagun bat buruaz agurtzen zuen. **Elena Touyarou**

Hermione **goren-goreneko** kristala seinatzen ari zen. **Iñaki Mendiguren**

Kalitate **goren-gorenekoak** dira aurtengo ikastaldiak. **Herria**

Mendi hori, Everest famatuaren ondoan, munduko **goren-gorenatarik** da. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintari goren (18); armadako agintari goren (3); armadaren buruzagi goren (3); auzitegi goren (5); bere goren gradura (3); botere goren (5); buruzagi goren (24); goren gorenean (13); goren goreneko (5); goren gradua (3); goren graduak (3); goren graduko (3); goren gradura (7); goren gradura iritsi (3); goren maila (4); goren mailako (28); goren mailako partida (3); goren mailako partidak (3); goren mailakoa (5); goren mailara (4); goren puntuan (4); goren puntuan (4); indar goren (4); inteligentzia goren (11); inteligentzia goren baten (5); inteligentzia goren gisa (3); irango agintari goren (4); izaki goren (7); jainko goren (6); jaun goren (7); jaun goren hori (3); kausa goren (8); kausa goren gisa (3); mail goren (3); oinarri goren (6); oinarri goren gisa (3); ongi goren (4); sortzaile goren (3); tentsioa goren gorenean (3); txit goren (5); xiiten buruzagi goren (3)

adierazpen goren (3); agintari goren (5); agintaritza goren (4); alerta goren (3); arduradun goren (4); arrazoi goren (3); auzitegi goren (36); baldintza goren (5); bertute goren (5); betegintzarre goren (3); botere goren (66); botere goren administrazio (4); botere goren daukanaren (6); botere goren duenaren (4); botere goren duenari (3); botere goren eman (5); buruzagi goren (8); errealitate goren (8); esakune goren (4); espainiako auzitegi goren (3); gaitz goren (4); goiko eta goren (3); goren jainkoaren ezagutza (3); gutzit goren (5); helburu goren (3); izaki goren (4); izate goren (3); jakinduria goren (3); jaun goren (4); jaun txit goren (4); justizia auzitegi goren (3); kargu goren (4); kirol kontseilu goren (4); kirol kontseilu goren (10); lege goren (4); maila goren (26); mailarik goren (7); mendi goren (4); oinarri esakune goren (4); on goren (5); ongi goren (29); organo goren (4); pobretasun txit goren (3); podiumeko maila goren (3); puntu goren (13); punturik goren (6); rada goren (3); sari goren (5); txit goren (9); une goren (13)

abetako auzitegi goren (5); agintari gorenak (17); arduradun gorenak (5); auzitegi gorenak (476); auzitegi gorenak balio gabetutako (3); auzitegi gorenak berretsi (11); auzitegi gorenak ebatzi (6); auzitegi gorenak erabaki (7); auzitegi gorenak hartutako (9); auzitegi gorenak kaleratutako (3); batzorde gorenak (3); belgikako auzitegi gorenak (7); botere gorenak (3); buruzagi gorenak (3); dio auzitegi gorenak (3); eaeo auzitegi gorenak (4); ebatzi du gorenak (3); egin du gorenak (3); epaitegi gorenak (10); erakunde gorenak (5); espainiako auzitegi gorenak (122); flordako auzitegi gorenak (4); frantziako auzitegi gorenak (10); gizarteko jende gorenak (3); gorte gorenak (9); gutzit gorenak (5); helburu gorenak (4); israelgo auzitegi gorenak (24); jende gorenak (4); justizia auzitegi gorenak (10); kaliforniako auzitegi gorenak (4); kirol kontseilu gorenak (13); kontseilu gorenak (25); londresko auzitegi gorenak (5); magistraturako kontseilu gorenak (4); maisu gorenak (3); massachusettsko auzitegi gorenak (4); mexikoko auzitegi gorenak (10); ongi gorenak (3); organo gorenak (3); turkiako auzitegi gorenak (5); txileko auzitegi gorenak (7); ukrainako auzitegi gorenak (7)

agintari gorenaren (7); auzitegi gorenaren (101); auzitegi gorenaren arabera (3); auzitegi gorenaren aurrean (11); auzitegi gorenaren ebazpenaren (3); auzitegi gorenaren epaia (6); auzitegi gorenaren epaiak (3); auzitegi gorenaren erabakia (10); auzitegi gorenaren erabakiak (4); auzitegi gorenari (20); botere gorenaren (9);

## gorra *iz* txanoa, burukoa.

Duncan Campbell pelotero beltza, egurrezko batea eskuetan gogor eutsirik, **gorra** berdea buruan. Joseba Sarrionandia

## gorrail *(25 agerraldi, 12 liburu eta 1 artikulutan; ETCn 449 agerraldi; orobat gorail 2 agerraldi artikulatu 1ean; ETCn 2 agerraldi) izond* gorrixka.

Leinu garbirik gabeko txakur **gorrail** bat zen, sasikoa, jipoitu-itxura uzkurrekoa. Juan Garzia  
Makila **gorrail**, lerdin, hazta tipiko bat. Michel Oronoz  
Kasinoaren barnean, aitzinatu ziren: lurrean, moketa **gorraila** edo ubel ilun kolorekoa zela iduritu zitzaien. Ramuntxo Etxeberri  
Sasien erdian, bidexka **gorraila**, bakardade ezti batean, segitzen dut egun. Piarres Aintziart  
Teilatu gorri, murru-pareta xuri, leiho gehienak ere **gorrail**, berde edo gaztain-kolore. Daniel Landart  
Bat xuri eta **goraila**, eta bertzea **gorail** ilunagoa. Herria  
Harroka **gorrail** alimalea hor dago. Piarres Aintziart  
Lur **gorrailezko** bidean. Piarres Aintziart  
Titi zuri puntta-**gorrail** haiek besarkatu eta pixka bat milikatu nituelarik. Daniel Landart  
Egia erran Bardeetako eki errautsekin batera, mortu **gorrailetara** ohituago nintzen. Itxaro Borda  
Mizpira makila bezain gogor zeukan abar **gorraila** aluan basaki sartu zion. Itxaro Borda  
Parrastada **gorrail** batean bere biziaren odol guztiaz korrok egin, eta lurreko hilezkortasunaren lozorrora bildu zen. Juan Garzia

## gorraildu, gorrail(du), gorraitzen da/du *ad* kolore gorraila hartu edo eman, gorrail bihurtu.

Eguzkiak gozo jotzen zuen hilerriko paretan, baratzeetan, udazkenak **gorraitzen** hasiak zituen hostoetan. Koldo Izagirre

## gorraize *iz* gortasun arina.

Otxotorenak **gorraize** pixka bat zuen. Fernando Morillo  
Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, solas barren-huts kaka-esplikatzailearekin eta hitzekiko **gorraizearekin**, hau da, esanari esanahia gailentzen ikustearekin. Iñaki Segurola  
Orduan meditazioa ez pentsatzea da!: **gorraize** oso-oso eta ikuste bete-betea. Iñaki Segurola

## gorraizetu, gorraize(tu), gorraizetzen da *ad* arinki gortu.

Alboan nuen gizaseme **gorraizetu** samartzen hasiari bere estasi-une propialari buruz itaundu nion. Karlos Linazasoro

## gorraiztar *izond/iz* Gorraizkoa, Gorraitzi dagokiona; Gorraitzeko herritarra.

Itzoiko Catalina Etxandik, **gorraiztar** anai-arreben amak. Eduarne Elizondo  
Itzoiko etxe batean **Gorraiztarrek** bizi ziren, Koordinakundeko zutabeetako bat izandakoak, eta, ondoko etxean, Dani Untziti solidario ezaguna. Berria - Euskal Herria  
**Gorraiztarrek** ekainaren 16an utzi zuten herria. Eduarne Elizondo

## gorrantz *izond* gorrixka.

Bere zaldi **gorrantz** dotore apainduan, mantoiez ongi baino hobeki estalia. Patziku Perurena  
Eta haren sandaliek zer graziarekin duten harrotzen bideko lur **gorrantza**, ur-keta doalarik! Aurelia Arkotxa

# gorrazaraz izond gorrazaren duena.

Nola izan guraso umezurtzen alaba, lanera beharturiko esklaboen, giza espezieetik ez nahi izan diren eta munduko isiltasun **gorrazarazleak** luzaroan isilarazi dituen gizakien alaba? **Joxan Elozegi**

## gorrasta (8 agerraldi, 3 liburu eta 4 artikulutan; ETCn 29 agerraldi; orobat **gorraxta** agerraldi 1 artikulua 1ean; ETCn 7 agerraldi) izond gorrixka.

Behi **gorrastak** eta betroin eta "comtoise" arrazako zaldiak hazten dituzte. **Herria**  
Krisantemo txuriak, moreak, horiak eta **gorrastak**. **Daniel Landart**  
Badakite ere gizonak izarbel hori **gorrasta** dela, burdinki herdoilduzkoa, hots. **Herria**  
Kaparen tarratada horrek ene estomakan tatuaje **gorrasta** bat ikustera uzten du. **Juan Garzia**  
Arian-arian jabetuz joan nintzen ezker aldeko gizon **gorrastari** Twirl zeritzola. **Juan Garzia**

## gorrastatu, gorrasta(tu), gorrastatzen da ad kolore gorrasta hartu edo eman, gorrasta bihurtu.

Gure erakaslearen sotana zimurtua edo **gorrastatua** ote zen ala ez. **Herria**

## gorreri iz entzumenaren ahultze edo erabateko galtzea. ik gortasun.

Etzekoparek **gorreria** du eta ikastolan ikasi zuen. **Berria - Euskal Herria**  
Geroz eta **gorreria** handiagoa du Paolok. **Joxemari Urteaga**  
Umeak **gorreria** zeukala, eta oraindik gorra zegoela pentsatzen zuen maistra Jonesek. **Anton Garikano**  
Hirurogeita hamabost urte inguruan dabilen gizon bat, **gorrieriak** joa. **Josu Zabaleta**  
**Gorreriak** ez zion sekula erasan haren hitz egiteko gaitasunari. **Jon Muñoz**  
Perrettek lehenago adoptatu izan balu Max, haren **gorreria** zuzenduz ahal izango zuen agian, edo hobetu, behinik behin. **Jon Muñoz**  
Gerrako eztanek eragin duten gaitzik arruntena **gorreria** da. **Edorta Jimenez**  
**Gorreria** motak ere badaude, hala ere: lehen esandako **gorreria** iraunkorra, eta partzialak eta noizean behingoak. **Berria - Gaiak**  
Zentzumen-organoetako akatsen ondorio izan ohi dira gehienetan **gorreria** eta itsutasuna, ez zentzumenoi dagozkien garuneko eremuetako akatsenak. **Irene Aldasoro**  
85 dezibeliotik aurrerako soinuk jasan behar dituztenek **gorreria** sentsorial progresiboa garatzeko arrisku handia dute. **Berria - Gaiak**  
**Gorreria** goiztiarrak eta keinu-hizkera erabiltzeak, berriz, berrantolaketak erabatekoak ekar ditzakeela garunean, ikusmena lantzerantz birmoldatzen baitira entzumen-kortexeko alde handiak. **Xabier Olarra**  
Ikusten? Ezetz esaten du! Izugarria, jauna, benetan izugarria (kopeta joko du) honen **gorreria**, honen buru **gorreria**! **Josu Zabaleta**  
Potzolozen **gorreria** selektiboa: sekula ez nire punttak entzuten. **Aingeru Epaltza**  
Badakizu jendeak **gorreria** daukala gorrira. **Koldo Izagirre**  
Nerbio-**gorreria** duen jende askori lagundu dio koklea artifizialak. **Irene Aldasoro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **gorreria** (3)

## gorri 1 izond/iz odolaren, mitxoletaren kolorekoa, ostadarraren lehen zerrendako kolorekoa.

Ardo **gorri** nafarra. **Pello Zabala**  
Garagardo **beltz** eta gorria eramaten zieten gizonazkoei eta gaseosa emakumezkoiei. **Irene Aldasoro**  
Arrosa **gorrizko** sortak bidali nizkien damatxo haiei guztiei. **Matias Múgica**  
Nafarrak gurutzeeekin eta eskapularioekin zetozela denak, txapel **gorriekin** eta arma pilo batekin. **Joseba Sarrionandia**  
Txapel **gorri** borladunekin. **Txillardegi**  
Bandera **gorri** zuri urdina txopan. **Koldo Izagirre**  
Harri **gorrizko** horma amaiezinezkoan. **Felipe Juaristi**  
Partida gogorra izan omen da, hiru xartel hori eta bi **gorriekin**. **Herria**  
2001ean planeta **gorria** bidalitako Mars Odissey ontziak. **Berria - Gaiak**  
Arbeleko marra **gorri** eta urdinak. **Joxerra Garzia**  
Marra zuriaren azpian beste bat **gorria**, **gorririk** minena, **gorririk** gogorrena, pintatu zuen, fina hura ere. **ik gorrimin**. **Felipe Juaristi**  
Legaltasunaren eta ilegaltasunaren arteko marra **gorria**. **Itxaro Borda**  
54ko Plymouth **gorri** bat erosi zuten 325 dolarretan. **Koro Navarro**  
Eskuin aldeko argi **gorri** keinukaria piztu zuen. **Xabier Montoia**  
Joxe Aberasturik ez zuen indiar **gorrien** paradisu hartan deus ere sinesten. **Joan Mari Irigoien**  
Masaila **gorri** marduletan eta begi urdin izukaitzetan. **Irene Aldasoro**  
Intziri bat entzun zen, hutsaren hurrengoa: izpi **gorri** bat basoko airean. **Bernardo Atxaga**  
Gutzira bederatziraino, zortzi **gorri** eta beltz bat, kristalezko ontzi handi baten barruan bueltaka. **Patxi Iturritegi**  
**Gorritz** jantzita zeuden gehienak. **Berria - Mundua**  
**Gorri** horiek? Amapolak. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Irenek hirugarren aldiz harrotu zuen ile **gorri** luzea. **ik ilegorri**. **Fernando Morillo**  
Haren ile **gorri** urrezatuaren distira hedatu zen hilobitik. **Ramon Saizarbitoria**  
Sastraka eta arto **gorri** batzuren artean. **Josu Zabaleta**  
Luisek Zeilantik ekarritako te **gorria**. **Aritz Gorrotxategi**  
Tabako **gorri** amerikarra. **Aingeru Epaltza**  
"Beltza ala **gorria?**", galdetu du Josetxok estanko atarian. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Beltza, gaztaina eta **gorria** ere pipatua naiz, baina zuria ez. **Koldo Izagirre**  
Beti zakur **gorri** batekin batera eta bestera ibiltzen zena. **Pako Aristi**  
Urrea oro har **gorri** izan baita gure usarioan. **Patziku Perurena**  
Zerrenda **gorrikoak** batez ere, eta politikoak bereziki. **Xabier Montoia**  
Brigada **Gorriak** betiko desagertu ziren Italiatik. **ik beherago** 8. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Armada **Gorria** Berlinen sartu zenean. **Berria - Harian**

Gurutze **gorria** ere laguntza eskaintzen hasi zen atzo. **Berria - Mundua**

## 2 (predikatu gisa)

Ez baitakigu zer den **gorria**, zer beltza, zer zuria, dakiguna da odola **gorria** dela, gehienetan, ikatza beltza, elurra zuria, baina odolak ez du zehazten gorritasuna, ez ikatzak beltzasuna, ez elurrak zuritasuna. **Felipe Juaristi**

Hagrid agertu zen, begiak **gorri** eta putzuta zituela. **Iñaki Mendiguren**

Semaforoak beti **gorri** harrapatzen zituen. **Iñaki Iñurrieta**

Sarale-metak eguzki-argitan **gorri**. **Joxe Austin Arrieta**

Aurpegiak **gorri**, elea xuhur, ez du aspaldi helduak direla. **Piarres Aintziart**

Lotsaz **gorri** dut beti aurpegia. *ik* lotsagorritu. **Askoren artean**

Apal, serio, sudurtoa **gorri**. **Fernando Rey**

Begira eguzkia zein **gorri** dagoen. **Josu Zabaleta**

## 3 (kolore-rekin; ik beherago 12)

Urrutiko su baten kolore **gorri** eta anbarra goratzen. **Fernando Rey**

Kolore **gorri**, okre, marroiak ziren nagusi. **Iñaki Iñurrieta**

Automobil txiki, zahar, kolore **gorri** oso higatua zuen bat gure ondoan gelditu zen. **Jon Muñoz**

Bere ipurmasaila kolore-**gorriak** ikusten nituen. **Juan Martin Elexpuru**

Jokalari kolore **gorriak**, mahaiaren gainean makurturik, zeharka zelatatzen du, jauzi egiteko prest. **Monika Etxebarria**

Biloak hori eta koloreak **gorri**, Gucci zakuak eskuetan. **Itxaro Borda**

**Gorri** kolorekoa, gainean aspa orlegia margotua zuen. **Joanes Urkixo**

Poltsa **gorri** koloreko batean bidali zenion. **Lourdes Oñederra**

Ez nekarren jantzita ezer **gorri** kolorekorik. **Joxemari Iturralde**

- **Gorri** bizi koloreko batzuk ordea... **Patxi Iturritegi**

- Hantxe ikusi baitut urrunetik ere (ezpain-barretako **gorri** kolore) patioan. **Joxe Austin Arrieta**

## 4 larria, gogorra, handia.

Gerrak urraturiko herrialde osoaren salbamena hantxe zegoela oharturik, Mikel Strogoff grina **gorri** batek astindu zuen. **Karlos Zabala**

Baina plazan zeuden gizonetzuei erreparatu izan balie, haien aurpegian irakurriko zukeen, beltzasunaz gainera, haserre **gorria**. **Felipe Juaristi**

Naziorik aurreratuenetan ere istilu **gorriak** sortzen dituzte arratoiek. **Gotzon Garate**

Hitzak jaten zituela mintzatzean; pentsatzeko ere arazo **gorriak** zituela. **Josetxo Azkona**

Ulisesi bekaizkeria izugarria nion, inbidia **gorria**. **Hasier Etxeberria**

Pixka bat jan dut, ez gosez, baizik eta gose **gorria** aitzintzekotan. **Piarres Aintziart**

Katez lotutako gizon bat du, miseria **gorria**, tortura eta etorkizunik beltzena duena aurrean. **Juan Martin Elexpuru**

Giriei min emateko behar **gorria** sentitzen nuelako. **Txillardegi**

Sarara itzultzeko presa **gorria** zuen. **Elena Touyarou**

Hirurak arrisku **gorrian** gaude. **Elena Touyarou**

Bere buruaren kontzientzia hartzeak lotsa **gorritan** utzi zuen Gabriel bat-batean. **Irene Aldasoro**

Adiskide baten premia **gorria** nuen. **Itxaro Borda**

Premia ordu **gorri** hartan. **Koldo Zuazo**

Hogeiatar urtez ikara **gorrian** eduki omen zian ingurumari hau guzia. **Patziku Perurena**

Agintariak bertan larrialdi **gorri** egoera ezarri zuten atzo. **Berria - Mundua**

Diru eskasia gero eta **gorriagoa** zen. **Iñaki Iñurrieta**

Ez giza maila apala, ez pobretasun **gorria**, ez ziren oztopo. **Askoren artean**

Goritasun **gorria** motorren kapotan... **Joxe Austin Arrieta**

Nik uste dut hau dena injustizia **gorria** izan dela, eta Egunkaria-ren itxiera guztiz ulertezina da. **Berria - Harian**

Negu **gorrian** goseak hil ez zitezen. **Askoren artean**

Lauhazka **gorrian** zeraman diligentzia. **Koldo Izagirre**

Greba bere **gorriean** zegoelarik, hainbat ekintza eginak ziren elkarrekin biak. **Xabier Montoia**

Metensikosisista baten bizkarrak sekula inoiz hartu duen beroturik **gorriena** eman zion. **Josu Zabaleta**

## 5 soila, biluzia. ik beherago 27.

Halako moldez non baitzirudien ezen mendi **gorri** bat zegoen lekuan baso ezin abartsuago bat sortu zela... **Joan Mari Irigoien**

Gure azpian, **gorri**, basamortua. **Joxe Austin Arrieta**

Joab nire buruzagia eta haren zerbitzariak lur **gorrian** etzaten dira. **Jose Antonio Mujika**

Lur **gorrian** oinatz bat ageri da, eskuineko oin batek utzia. **Pello Lizarralde**

Somorrostroko lur **gorrietan** zabartutako euskaldun haietako bat. **Iñaki Segurola**

Ez aste **gorrian**, ez igandeetan, ez eta beste jaiegunetan ere. **Joan Mari Irigoien**

Elizaren egutegian, astegunak, igandea ez gainerakoak, denak feria ziren, festabako, astegun **gorri** edo astegun buruzuri. **Pello Zabala**

Hainbestenarekin, neska larri, buru-**gorri** batek deitu zuen Maddalen. **Janbattitt Dirassar**

Kale **gorrian** lo egiten dutenek. **Gotzon Garate**

Gustuko genuen gauetz paseatzera joan eta kale **gorrian** lizunkerietan aritzea. **Karlos Zabala**

Orain, kale-lan **gorrian** zebilen, hasberri baten gisan. **Aingeru Epaltza**

Brasilgo mugalde latzean nostalgiaren eraso sarriak jasan behar izan nituen; ez hala Londreseko labirinto **gorrian**, hainbeste gauza eman zidan hirian. **Juan Garzia**

Kanpora, atzerri **gorrira**. **Felipe Juaristi**

Objektu bat, gertakari bat, bat-batean, ageri **gorrian** ipintzen du argi ezohiko batek. **Juan Garzia**

- Edo oti eta matxinsalto izurritea Kalagurri aldean, laino beltz baten gisa, ortu eta soro, mahasti eta belardi, dena **gorri** utzi omen zuen. **Pello Zabala**

## 6 ik beherago 28 eta 29.

Besoetan urduri kulunkatzen zituzten haur **gorrienarekin** lehian. **Alberto Ladron Arana**

Emakumezkoen alboan izatearren joan naiz, ni neu ere edozein nerabe **gorriren** pare. **Edorta Jimenez**

Gazteegia haiz, **gorriegi** hago, eta oraindino mundua daukak ikusteko eta ikasteko. **Edorta Jimenez**

## 7 (meteorologian)

Eguraldi gorri garbia ala **berdotz** umel trixtea. **Pello Zabala**

Haize petralari nahiz hotz **gorriari** kasurik eman gabe. **Xabier Montoia**

Kanpoan ekaitza **gorria** zen. **Itxaro Borda**

Hatsa mila puskatan ebakitzen duen haize **gorri** batek. **Iñaki Segurola**

Nafarro aldetik datorren ipar **gorri** sarkor txorrotx horrek. **Pello Zabala**

· Tupustean eton ingon etenik gabe pasatu baitzen adoleszentziaren behe-lainoetatik helduaroaren egurats **gorri**. **Fernando Rey**

## 8 ezkertiarra.

Idazle ausart, abertzale eta **gorri** bat, Maiakovski bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Donibane Lohitzuneko *La Nivelle* aldizkari "**gorrian**". **Pablo Sastre**

Chaho liberal **gorriak**. **Koldo Izagirre**

Ohartua naiz proletarioon artean bakar batek ere ez duzuela halako triparik. -Eta gaineratu zuen, niri begira-: **Gorri** baten eta kapitalista baten arteko aldea zorro handia da. **Fernando Rey**

**Gorri** hori ez zela zure etxean sartuko. **Alberto Barandiaren**

Baina gure frantses pentsalari, kazetari, irakasle, apezpiku, diputatu xuri ala **gorrien** gogoak ez dira hainbat aldatu. **Piarres Xarriton**

Bestenaz ere esneketaria "**gorria**" omen baitzen, jendeak hala zioen segurik, eta ene aita adiz "xuria". **Janbattitt Dirassar**

'**Gorriak** dira hiltzaileak!' errepikatzen zen hala ere. **Joseba Sarrionandia**

Ezker muturreko **gorriek**. **Koldo Biguri**

**Gorri**-separatisten izutik ihesi zihoala. **Inazio Mujika Iraola**

Horrek agintetik kenduko du Schroeder eta **aliantza** gorri-berdearen amaiera ekarriko. **Berria - Harian**

Gora Euskadi **gorria**! **Juan Kruz Igerabide**

## 9 (erkaketetan)

Aurpegia erremolatxa bezain **gorri**. **Lopez de Arana**

Tomate azala bezain **gorri** zeukan matrail buelta. **Unai Iturriaga**

Tomatea bezain **gorri**, haren iritzian, mugurdia bezain **gorri**, nirean. **Joxe Austin Arrieta**

Masailak sagarra bezain **gorri** / sosik batere gabe... **Karlos Zabala**

Ahotsa zilarrarena baino biziagoa eta ilea sua baino **gorriagoa** zituela. **Felipe Juaristi**

Ortzia bera odol isuri berria bezain **gorri** ageri zitzaigun. **Edorta Jimenez**

Ilintia baino **gorriago** jarriz. **Josu Zabaleta**

Nire tximista distiratsua hondoratuko dik horien ontzia itsaso ardoa bezain **gorrian**. **Juan Kruz Igerabide**

## 10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zerrenda **gorri**-berdea soinean jaka grisaren gainean. **Felipe Juaristi**

Lagunarteko partidat bat jokatzeko, elastiko zuri-**gorri**-berdearekin. **Joan Mari Irigoien**

Oihal zabal **gorri**-more haiek. **Karlos Zabala**

Hodeien **gorri**-laranja bizia. **Iñaki Iñurrieta**

· Trapa zuri-**gorri** batean. **Aingeru Epaltza**

Guneka, bidea arre-**gorria**, ez baldin badu gorringoaren margoa. **Piarres Aintziart**

Poternako baratzea argizatzen zuen zeru ubel-**gorria** altxatu zuen soa. **Itxaro Borda**

Zeru more-**gorri** haren ñirñirra. **Lopez de Arana**

## 11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Adriana Gentile, Mantuako emakume adats-**gorri** batek. **Felipe Juaristi**

Bizar-**gorria** zen. **Felipe Juaristi**

Tikia zen, sudur-**gorria**. **Fernando Rey**

Emakume gazte musu-**gorri** morez jantziriko bat sartu zen gelan. **Irene Aldasoro**

Zaindari txano-**gorri** eta txamarra-urdinen kasernatxoaren aurretik. **Txillardegi**

Oilar gandor-**gorri** bat duk. **Andoni Egaña**

Inguruak mirazkatu zituen eta ez zuen nehongo gizon azal **gorriren** aztarnarik nabaritu. **Itxaro Borda**

## • 12 iz kolore gorria.

Marrubiaren **gorria** distiratsu azaldu zen argira. **Felipe Juaristi**

Lehen egun hartan bezain liluragarri ikusten zaitut: begien distira, [...] besoen zuria, masailen **gorria**, aurpegiaren obaloea, bularren gordea... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bagoiak adreiluen **gorri** bizikoak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Eta fabrikara heldu orduko ulertuko duzu uraren **gorria** odola dela. **Joseba Sarrionandia**

Dama gazte bat, bere ezpainen **gorria** gainbegiratzeko ari. **Joxe Austin Arrieta**

Ezpainen **gorri** pittin bat jarri eta hatz txikiak ondo banatuz desagerrarazi ditu tolestura gehienak. **Eider Rodriguez**

Haren masailetak **gorria** eta rimmela izan ziren, inolaz ere, nire lehen makillajerako erabili nituen tresnak. **Joxan Elozegi**

Baina oroitzen ez zeukan zuhaitzetako **gorri** udazkentsuaren garrik. **Anjel Lertxundi**

## 13 ardo gorria.

Eta botila bete **gorri** etortzen da handik puska luzera. **Koldo Izagirre**

**Gorri** nafarra eskatu dio euskaraz zerbitzari beltzari. **Sonia Gonzalez**

Eta ekarri nafar **gorri** gehiago ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Tripa ondo estututa bakarrik irensten genuen **gorri** merke hura, behin eta berriro. **Alberto Barandiaren**

**Gorritik** eskaini dit. **Koldo Izagirre**

## 14 gorri beltz (orobat gorribeltz g.er.)

Tanta borobil nabarmen bat, **gorri**-beltza. **Aingeru Epaltza**

Hiri erdira itzuli naiz: bi erromes plazako iturri ederrean ari dira edan eta edan, eta aurpegi **gorribeltzak** ureztatzen. **Piarres Aintziart**

Haren atzetik hamabi zaldi **gorri-beltzak** zihoazen, seinakako ilaretan, sei orain eta sei gero. **Felipe Juaristi**

Lauki **gorri-beltzezko** artilezko tapaki bat. **Anjel Lertxundi**

Bestela, biziaren gezagarriak, **gorri-beltzen** zurigarriak, xikiñaren garbigarriak... **Iñaki Segurola**

· Organizazioko kapela **gorri**-beltza eman nion, eta pistolatza handi bat. **Inazio Mujika Iraola**

Egoitzan zeuden bandera **gorri-beltz** guztiak hartu eta hagatan biltzen hasteko, Donostiara eraman behar genituela eta. **Inazio Mujika Iraola**

Denak ginen sindikatu **gorri**-beltzekoak, komunista jator samar batzuk ere bagenituen tarteko. **Koldo Izagirre**

Gora Euskadi **Gorribeltza** idatzi genuela. **Berria - Kultura**

## 15 gorri-belztu

Aurpegia, egungo eguzkiak **gorri**-belztua. **Piarres Aintziart**

Bisaia **gorri** belztua dauka erdi etzana den pottoloak. **Piarres Aintziart**

## 16 gorri bizi (orobat gorribizi g.er.)

Zapi **gorri** bizi bana zeramatela lepoan. **Koldo Biguri**

Poltsa **gorri** bizi hura. **Urtzi Urrutikoetxea**

Soineak kolore **gorri** berriz kariaz ageriko zen nire azala argazkian. **Joxan Elosegi**  
Baziren haizetako barbarinak ere, [...] akuarioko arrainen kolore **gorri** bizikoak. **Karlos Zabala**  
Espainak **gorri** biziz margotuta zeuzkan. **Oskar Arana**  
Itzultzean paper bat zekarren, noizbait **gorribizi** izana; orain, berriz, arrosakolore, mehea, koadrikulatua. **Juan Garzia**

## 17 gorri-gorri

Beste batzuetan, arrosa **gorri**-gorriak ziren, bihotz odoltsuen antzekoak. **Karlos Zabala**  
Goiok ilea **gorri** gorria du. **Joseba Sarrionandia**  
Begiak **gorri-gorri** zituen. **Iñaki Mendiguren**  
Arratsalde batean aurpegia **gorri-gorri** zuela etorri zen aitarekin hitz egitera. **Josu Zabaleta**  
Masailak **gorri-gorri** zeuzkan. **Lopez de Arana**  
Ron **gorri-gorri** jarri zen. **Iñaki Mendiguren**  
Nekeagatik eta suaren beroagatik **gorri-gorri** eginda. **Askoren artean**  
Bukatu zenean **gorri-gorri** eginda zituen begiak. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Sagarondo adar batetik zintzilik segitzen zuen mutilak **gorri-gorri**. **Felipe Juaristi**  
Lotsaz **gorri-gorri** eginda. **Iñaki Mendiguren**  
Nire mihi arrainak ustelak!... -oihu egin zuen arrain saltzaileak, aurpegia **gorri-gorri**. **Karlos Zabala**  
Bakarrik eztabaidak **gorri-gorri** zeudenean jaultkitzen zuen esaldiren bat. **Karlos Zabala**  
Alor guztiak **gorri-gorri** uzten ari omen zen zoritxarreko moxorroen erasana. **Pello Zabala**  
1911n "rari nantes" klubean hartu nuen parte, eta Po ibaira bota dut neure burua negu **gorri-gorrian**. **Fernando Rey**

## 18 gorri-hori

Bere ile gorri-**horiaren** erroetaraino. **Lopez de Arana**  
Izar gorri-**horia** zuen marrekiko uniformea jantzarazi zieten. **Pablo Sastre**  
Balkoietan eta leihoetan zintzilikatutako bandera gorri-**horiak**. **Txillardeggi**  
Karlsten etxeetako balkoi leihoetan bandera gorri-**horiak** agertu ziren. **Joseba Sarrionandia**

## 19 gorri ilun (orobat gorrilun g.er.)

Lubisen etxeko teilatua, gorria, **gorri** iluna. **Bernardo Atxaga**  
Oxford tankerako zapata **gorri** ilunak. **Lopez de Arana**  
Behi **gorri**-ilun batzuk barreiatzen ziren hara-hona. **Karlos Zabala**  
Baina hemen ere balea hilen hondakinak izango dira, odolezko gandu **gorrilunak** barreiatutik eta ur urdinarekin nahasturik. **Joseba Sarrionandia**  
Kolore **gorri** iluneko galtza estuekin. **Bernardo Atxaga**

## 20 gorri-ilundu

Bi aste pasatu eta gero, garo eta irak (edo iratzeak) **gorri**-iluntzen hasitakoan. **Pello Zabala**

## 21 gorri-kolore izond

Biolin **gorri**-kolore eta gerezi usainekoa. **Felipe Juaristi**

## 22 gorriak eta bi

**Gorriak eta bi** bizi izan zituen erregimen komunistaren pean. **Gorriak eta bi** kostata egin zion aurre aurkezleen joko itxuraz inozoari. **Karlos Linazasoro**  
Nazien menpean ere **gorriak eta bi** ikusi zituzten ukrainarrek. **Berria - Mundua**  
Laster emango diote Jexuxi etxeratzeko agindua: **gorriak eta bi** ikusi zituen baina, azkenean, gaua pasa zuen eta geroztik onera egin du poliki-poliki. **Xabier Etxabe**

## 23 gorriak ikusarazi

Ene!, **gorriak** ikusarazi zizkidak gizon malapartatu horrek! **Jose Morales**  
**-Gorriak** ere ikusarazi zenizkion lau egunetan lo egin ezinik eduki zenuenean. **Joxemari Urteaga**  
**Gorriak** ikusarazten hizkien bele horiei. **Aingeru Epaltza**

## 24 gorriak ikusi

Jateko harrapatu egin behar, ordea, eta **gorriak** ikusi nituen behin. **Patziku Perurena**  
Hire Ramirezek eta berarekin zegoen bertze gorilak **gorriak** ikusiko ditiztek Epaitegian. **Aingeru Epaltza**  
Norbait begitan hartzen badute, **gorriak** ikusi beharko ditu. **Gotzon Garate**  
**Gorriak** ikusi zituela justiziaren zerbitzuan aritzeagatik. **Jose Morales**  
Itsaso zakarra zegoenez, **gorriak** eta beltzak ikusi zituzten. **Fernando Rey**  
**Gorriak** eta beltzak ikusiak dituzte zur gogorra maneiatzeko. **Aingeru Epaltza**

## 25 gorriak jasan

Eta **gorriak** jasaten ari ziren tenperatura jaitsiera haren kariaz. **Karlos Zabala**

## 26 gorriak pasatu

Ene amak ere **gorriak** pasatu izan zituen. Gestapoaren eta SSen kontrolekin. -Bai, agudoago batez ere, baina **gorriak** pasa beharko hitzke hotzarengatik zein elurrarengatik. **Eneko Bidegain**

## 27 gorriak adlag biluzik.

**Gorriak** bezala geratu nintzen Ritaren bat-bateko urruntzearekin, **gorriak** eta elbarri mundu guztiaren aurrean. **Hasier Etxeberria**

## 28 ezpainetako gorri

**Ezpainetako gorri** biziak handiagotzen zion irribarra. **Jokin Muñoz**  
Ezpainetako **gorri** hiperdotoreak salduak nituen eskupetik eta dardara batean bizi nintzen, harrapatuko ninduten beldur. **Joxan Elosegi**  
*Rouge baiser* zeritzan haren **ezpainetako gorriari**. **Joxan Elosegi**  
Han, aho-uhinak **ezpainetako gorri**z marrazten zihardutelarik euren aurpegietan, loezinaren inguruan zeukaten eskarmentua alderatu zuten. **Mirentxu Larrañaga**

## 29 hanka-gorri (orobat hankagorri) izond hankak gorriak dituen. ik hankagorri.

Hiru egun igaro zitzaizkigun aurreraka eta atzeraka, lur zingiratsua baitzen, eta lainotsua oso, ez inor ez ezer ikusteke, noizean behin zikoinak, kurriloak, flamenko **hanka-gorriak** izan ezik. **Felipe Juaristi**  
Errekaren bihurgune batera, zeinaren ertzean astiro baitzebilan martin mokogorri **hankagorri** bat -hegazti bat, alegia, ez gizaki bat-. **Jose Morales**  
**Hanka gorriak** lokatzaren gainean pausatutik izanik ere, badirudi begi-arimak gora jasorik, ikusi ezinezko jainko batekin mintzatzen ari direla. **Gotzon Garate**

## 30 ume gorri ik umegorri.

### hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

alfonbra gorri (5); ardo gorri (10); argi gorri (29); argi gorri bat (8); arrats gorri (11); arrosa gorri (13); arrosa gorri bat (5); aurpegi gorri (9); aurpegia gorri (30); aurpegia gorri gorri (21); auto gorri (11); auto gorri bat (5); bandera gorri (19); begi gorri (10); begiak gorri gorri (12); behi gorri (5); bezain gorri (27); bihotz gorri (12); biluz gorri (5); buru gorri (6); distira gorri (9); ere gorri (7); esku gorri (5); eta gorri (61); eta gorri bat (5); eta gorri gorri (6); ezpain gorri (6); ezpainak gorri (5); gandor gorri (5); gerriko gorri (5); globulu gorri (12); gogor gorri (11); gogor gorri berdearen (7); goiz gorri (11); gona gorri (6)



**gorri ageri** (11); **gorri azoguneko** (7); **gorri azoguneko besta** (6); **gorri bana** (5); **gorri bat** (185); **gorri bat** (ikusi) (6); **gorri batean** (25); **gorri batek** (23); **gorri batekin** (19); **gorri baten** (26); **gorri baten gainean** (7); **gorri batetik** (5); **gorri batez** (17); **gorri batzuk** (19); **gorri beltz** (9); **gorri beltza** (13); **gorri beltzak** (5); **gorri berde** (6); **gorri berdea** (7); **gorri berdeak** (6); **gorri berdearen** (8); **gorri bihurtzen** (5); **gorri bizi** (17); **gorri bizi bat** (5); **gorri bizia** (10); **gorri biziak** (5); **gorri biziz** (6); **gorri eder** (10); **gorri edo** (11); **gorri egin** (7); **gorri eginda** (23); **gorri eta** (191); **gorri eta berde** (7); **gorri eta gorrimina** (10); **gorri eta gorrimez** (15); **gorri eta hori** (5); **gorri eta urre** (5); **gorri gehiago** (7); **gorri gorri** (187); **gorri gorri egin** (5); **gorri gorri eginda** (21); **gorri gorri eta** (7); **gorri gorri jarri** (29); **gorri gorri jartzen** (14); **gorri gorri zegoen** (10); **gorri gorri zuela** (5); **gorri gorria** (36); **gorri gorriak** (16); **gorri guztiak** (5); **gorri haiek** (14); **gorri handi** (13); **gorri handi bat** (7); **gorri handia** (5); **gorri handiak** (7); **gorri haren** (5); **gorri hori** (22); **gorri horiak** (5); **gorri hura** (10); **gorri ikusten** (6); **gorri ilun** (15); **gorri ilun bat** (6); **gorri iluna** (11); **gorri ilunak** (7); **gorri jarri** (44); **gorri jarri zen** (23); **gorri jartzen** (18); **gorri kolorea** (5); **gorri koloreko** (7); **gorri laranja** (5); **gorri sentsazioa** (6); **gorri ta** (8); **gorri ta beltzez** (5); **gorri urdina** (5); **gorri utzi** (5); **gorri zegoen** (18); **gorri zeuzkan** (6); **gorri zituen** (5); **gorri zuela** (6); **gorri zuzena** (5)

**gurutze gorri** (9); **haragi gorri** (6); **hari gorri** (9); **harri gorri** (7); **hori eta gorri** (5); **hosto gorri** (7); **ibai gorri** (6); **ile gorri** (34); **ilea gorri** (5); **indiar gorri** (19); **indiar gorri haiek** (5); **kandela gorri** (5); **kapa gorri** (5); **kapela gorri** (7); **kolore gorri** (25); **koloreak gorri** (5); **kurutze gorri** (13); **kurutze gorri azoguneko** (7); **lore gorri** (9); **lore gorri eta** (5); **lotsaz gorri** (14); **lur gorri** (8); **mantxa gorri** (6); **margo gorri** (5); **marra gorri** (11); **masail gorri** (8); **masailak gorri** (19); **masailak gorri gorri** (10); **musu gorri** (7); **musua gorri** (5); **odol gorri** (8); **orban gorri** (12); **poltsa gorri** (5); **puntu gorri** (5); **sagar gorri** (8); **semaforoa gorri** (8); **soineko gorri** (10); **su gorri** (5); **tatxa gorri** (6); **txartel gorri** (16); **txartel gorri zuzena** (5); **zapi gorri** (18); **zapi gorri bat** (9); **zerrenda gorri** (5); **zuri gorri** (37)

**alarma gorria** (19); **alarma gorria piztu** (10); **alerta gorria** (12); **alerta gorria ezarri** (6); **alfonbra gorria** (7); **ardo gorria** (8); **argi gorria** (45); **argi gorria piztu** (13); **armada gorria** (9); **aurpegi gorria** (6); **bandera gorria** (14); **behar gorria** (42); **beltza gorria** (9); **bere ile gorri** (7); **bezain gorria** (7); **bezain gorria zen** (5); **bizar gorria** (6); **bufanda gorria** (8); **deabru gorria** (5); **edo gorria** (6); **elastiko gorria** (7); **elastiko zuri gorri** (11); **eskasia gorria** (5); **gorria** (33); **gerla gorria** (9); **gona gorria** (5); **gorri gorria** (36); **gorria atera** (27); **gorria atera zion** (6); **gorria atera zitoen** (9); **gorria ateratzen** (5); **gorria baino** (10); **gorria da** (24); **gorria dela** (5); **gorria du** (8); **gorria dute** (6); **gorria edo** (5); **gorria eman** (5); **gorria ematen** (7); **gorria erakutsi** (8); **gorria ere** (13); **gorria eta** (112); **gorria eta beltza** (5); **gorria eta berdea** (7); **gorria eta urdina** (7); **gorria ez** (13); **gorria ez da** (5); **gorria ezarri** (8); **gorria ikusi** (25); **gorria ikusi zuen** (11); **gorria ikusten** (5); **gorria izan** (16); **gorria izaten** (5); **gorria jantzi** (7); **gorria jantzita** (6); **gorria jarri** (9); **gorria piztu** (26); **gorria piztu da** (5); **gorria zela** (5); **gorria zen** (35); **gorria zeraman** (9); **gorria zuen** (13); **gurutze gorria** (26); **gurutze gorria eta** (7); **haragi gorri** (6); **hari gorria** (6); **haserre gorria** (6); **hiruki gorria** (5); **ilargi gorria** (6); **ile gorria** (23); **ipar gorria** (7); **itsaso gorria** (17); **izar gorria** (7); **jertse gorria** (5); **kale gorria** (7); **koaderno gorria** (8); **kolore gorria** (22); **kurutze gorria** (17); **lerro gorria** (7); **linterna gorria** (10); **miseria gorria** (9); **negu gorria** (8); **odol gorri** (5); **odolaren gorria** (5); **pintura gorria** (5); **plaza gorria** (7); **premia gorria** (12); **sudur gorria** (5); **talde zuri gorria** (26); **txapel gorria** (11); **txartel gorria** (85); **txartel gorria atera** (20); **txartel gorria erakutsi** (5); **txartel gorria ikusi** (16); **urre gorria** (7); **zango gorria** (5); **zapi gorria** (8); **zerrenda gorria** (6); **zuri gorria** (61)

**are gorriago** (5); **argi gorriak** (20); **armada gorriak** (6); **baina gorriak** (6); **baino gorriago** (9); **bandera gorriak** (7); **begi gorriak** (8); **behar gorriak** (6); **brigada gorriak** (5); **dio gorriak** (12); **dit gorriak** (5); **entrenatzaile zuri gorriak** (5); **ere gorriak** (11); **eta gorriak** (37); **eta gorriak ikusi** (6); **eta gurutze gorriak** (9); **eta negu gorriak** (5); **ezpain gorriak** (6); **fruitu gorriak** (6); **galtza gorriak** (6); **globulu gorriak** (18); **gorri gorriak** (16); **gorriak ageri** (6); **gorriak atzo** (7); **gorriak baino** (5); **gorriak bere** (8); **gorriak dira** (12); **gorriak ere** (7); **gorriak eta** (77); **gorriak eta beltzak** (18); **gorriak eta bi** (8); **gorriak ez** (21); **gorriak ikusi** (93); **gorriak ikusi beharko** (6); **gorriak ikusi ditu** (8); **gorriak ikusi zituen** (36); **gorriak ikusi zituzten** (7); **gorriak ikusiko** (26); **gorriak ikusiko ditu** (8); **gorriak ikusita** (6); **gorriak ikusten** (24); **gorriak ikusten ari** (9); **gorriak izan** (7); **gorriak taldeak** (5); **gorriak ziren** (17); **gorriak zituen** (8); **gurutze gorriak** (66); **hori gorriak** (6); **ilargi gorriak** (19); **indiar gorriak** (7); **istilu gorriak** (8); **kasaka gorriak** (5); **krabelin gorriak** (6); **kurutze gorriak** (8); **letra gorriak** (7); **lore gorriak** (8); **nazioarteko gurutze gorriak** (9); **negu gorriak** (34); **oliba gorriak** (5); **talde zuri gorriak** (55); **teknikari zuri gorriak** (6); **txapel gorriak** (5); **txartel gorriak** (8); **zapi gorriak** (5); **zenbaki gorriak** (13); **ziren zuri gorriak** (6); **zuen gorriak** (7); **zuri gorriak** (123)

**arrisku gorrian** (8); **bakardade gorrian** (6); **behar gorrian** (47); **behar gorrian diren** (5); **biluz gorrian** (7); **borrokaren gorrian** (5); **eta kale gorrian** (6); **gorrian bizi** (33); **gorrian da** (5); **gorrian dago** (5); **gorrian dira** (6); **gorrian diren** (5); **gorrian eta** (11); **gorrian gaude** (6); **gorrian geratuko** (6); **gorrian jarri** (6); **gorrian lo** (6); **gorrian lo egiten** (5); **gorrian sartu** (12); **gorrian ura** (6); **gorrian ura egon** (6); **gorrian utzi** (10); **gorrian zegoen** (7); **gurutze gorrian** (5); **haserre gorrian** (14); **haserre gorrian** (10); **ikara gorrian** (5); **itsaso gorrian** (26); **kale gorrian** (89); **kale gorrian bizi** (13); **kale gorrian geratuko** (5); **kale gorrian lo** (5); **kale gorrian utzi** (6); **negu gorrian** (5); **larru gorrian** (17); **lur gorrian** (13); **miseria gorrian** (35); **miseria gorrian bizi** (6); **negu gorrian** (19); **planeta gorrian** (20); **planeta gorrian ura** (6); **plaza gorrian** (6); **pobrezia gorrian** (8); **premia gorrian** (23); **talde zuri gorrian** (17); **zerrenda gorrian** (5); **zuri gorrian** (20)

**argi gorriaren** (6); **armada gorriaren** (5); **elastiko zuri gorriarekin** (9); **eta gurutze gorriaren** (10); **gorriarekin batera** (5); **gorriaren arabera** (7); **gorriaren erdian** (6); **gorriaren eta** (8); **gorriaren gainean** (22); **gorriaren nazioarteko** (28); **gorriaren nazioarteko batzordeak** (18); **gorriaren nazioarteko batzordearen** (5); **gorriari begira** (7); **gorriari eta** (5); **gurutze gorriaren** (65); **gurutze gorriaren nazioarteko** (28); **gurutze gorriari** (8); **haragi gorriaren** (5); **ilargi gorriaren** (5); **itsaso gorriaren** (9); **kurutze gorriaren** (7); **lur gorriaren** (9); **lur gorriaren gainean** (9); **planeta gorriaren** (7); **talde zuri gorriarekin** (12); **talde zuri gorriaren** (18); **talde zuri gorriari** (5); **zuri gorriarekin** (23); **zuri gorriaren** (23); **zuri gorriari** (7)

**armada gorriko** (5); **brigada gorriek** (5); **brigada gorrien** (5); **brigada gorrietako** (13); **dute zuri gorriek** (9); **eta gorriek** (7); **eta gorrien** (9); **eta zuri gorriek** (6); **globulu gorrien** (5); **gorriek ez** (8); **gorriekin eta** (6); **gorrien alde** (6); **gorrien artean** (10); **gorrien eta** (9); **gorrien gainean** (6); **gorriko eta** (6); **gorriko nazioarteko** (10); **gurutze gorriko** (62); **gurutze gorriko nazioarteko** (9); **ilargi gorriko** (10); **indiar gorrien** (7); **itsaso gorriko** (13); **jokalari zuri gorriek** (7); **negu gorriko** (7); **planeta gorriko** (12); **talde zuri gorriko** (32); **zale zuri gorriek** (5); **zelula gorriek** (5); **zuri gorriek** (83); **zuri gorriek ez** (5); **zuri gorrien** (34); **zuri gorrientzat** (7); **zuri gorriko** (34); **zuten zuri gorriek** (7)

**adreilu gorriz** (5); **adreilu gorritzko** (6); **argi gorriz** (5); **behar gorritan** (5); **belus gorriz** (6); **eta gorriz** (34); **gorrira iritsi** (5); **gorritik berdera** (5); **gorriz betetako** (7); **gorriz edo** (6); **gorriz egina** (5); **gorriz egindako** (6); **gorriz eta** (29); **gorriz eta beltzez** (5); **gorriz idatzita** (5); **gorriz idatzitako** (12); **gorriz jositako** (5); **gorriz margotu** (5); **gorriz pintaturik** (6); **gorriz pintatutako** (5); **gorriz tindatu** (7); **gorriz tindaturik** (5); **gorriz tindaturiko** (9); **gorriz tindaturiko ahari** (6); **gorriz tindatutako** (5); **gorriz tindatzen** (5); **harri gorriz** (5); **haserre gorritan** (5); **itsaso gorrira** (9); **itsaso gorriraino** (5); **itsaso gorrirantz** (5); **itsaso gorritik** (11); **kale gorrira** (15); **kolore gorriz** (7); **larru gorritan** (19); **larru gorritzko** (6); **letra gorriz** (9); **pintura gorriz** (7); **planeta gorrira** (12); **tinta gorriz** (10); **urre gorritzko** (8); **zuri gorriz** (6)

## gorriagotu, gorriago(tu), gorriagotzen da *ad* gorriago bihurtu.

Hodeiak doi-doi gorritzen hasi ziren azpialdetik, **gorriagotzen**; gartu egin ziren, kotoi odoldu bihurtu.      Iñaki Iñurrieta

Transparentzien makinako argiak aurpegia argitu, eta apur bat **gorriagotu** zion Maxi ilajea.      Jon Muñoz

## gorrialdi iz gorritzea.

Bat-bateko **gorrialdiak** harrapatu zizkidan matrailak, herabea bainintzen, eta aztoraturik sumatu nuen odola zainetan bizkor.      Hasier Etxeberria

## gorriarazi, gorriaraz, gorriarazten du *ad* gorritzera behartu.

Gero esaldi batzuk etorri zitzaizkion, bero bañadak balira bezala belarrietara, aurpegia **gorriaraziz**.      Felipe Juaristi

Istantño bat iraun zuen; aski neska gaztea ile puntaraino **gorriarazteko** eta hizketan segitzera ez menturatzeko.      Elena Touyrou

Landutako gezur horrek koloreak **gorriarazi** zizkion.      Karlos Zabala

**Gorriarazi** egin nauk, kexatu zitzaidan, eta hire laguna ere bai.      Xabier Montoia

### gorribeltz ik gorri 14.

### gorribizi ik gorri 16.

## gorribizitu, gorribizi, gorribizitzen da *ad* kolore gorri bizia hartu.

Amorrua eman zidan, amaieran, edozer nahi izanez gero bere etxera lasai deitzeko esan zidanean txartel bat luzatuz, aspaldiko partez masailak **gorribizitu** egin zitzaizkidalako, neskatxa nerabe bati bere maitasun platonikoak kaixo zozo bat esaten dionean bezala.      Jasone Osoro

## gorridun izlag gorrikoa.

Mutil galant bat irten zen, ilargi betearen parekoa, bibote sarriekikoa eta masail **gorriduna**.      Patxi Zubizarreta

[Perroketa] moko eta xango **gorridunak**. Euskal usuarioan neskatxa "zangosagar **gorridunak"** bide ziren ederrenak.      Patziku Perurena

Alkandora lauki **gorriduna** jantzi beharko du-eta.      Pako Aristi

Lizunkeria kutsua zuten gaueko taberna ilun eta argi-**gorridun** haiei.      J.M. Olaizola "Txiliku"

Alkandora **gorridunen** 1000 boluntarioko indar batekin.      Iñaki Mendiguren

Ni ez nintzen motots **gorridun** neskatxa hartaz maitemindu. **Joxe Austin Arrieta**  
Egun batean bufanda **gorridun** ijitoa azaldu zen berriro dendan. **Jasone Osoro**

## gorridura iz gorritzea.

Izarrak gero eta gutiago ageri ziren eta aski laster, **gorridura** batek berotu zuen gauaren iluna. **Eneko Bidegain**

Lotsa ote **gorridura** horren errudun? ziurrenik bai. **Berria - Kirola**

Gelatik jaitsi eta taldearengana iritsi nintzenean, Ubanberen eta Opinen arteko borroka ez zela hain arina konturatu nintzen; biek ala biek ere **gorridurak** zeuzkatela aurpegian. **Bernardo Atxaga**

## gorrigune ik gorriune.

## gorrikara (8 agerraldi, 8 liburutan; ETCn 79 agerraldi) izond gorrixka.

Transparenzien makinako argiak aurpegia argitu, eta apur bat **gorriagotu** zion Maxi ilajea. **Jon Muñoz**

Kareharri **gorrikaraz** egindako eraikin arlosteen etxabeetan. **Mirentxu Larrañaga**

Esku biak praken patriketan, ile-motots **gorrikara** sorbaldan behera. **Joxe Austin Arrieta**

Zoparen barruan, haragi beltz edo **gorrikara** baten zatiak zeuden, ugari. **Juan Kruz Igerabide**

Farolen argi **gorrikara**. **Iñigo Aranbarri**

Ispilu inguruko bonbilla ugarien argitasun **gorrikarak** dantza egiten du Kattalinen tutu-jantzian. **Anjel Lertxundi**

Etxe kiskaliek goratzen duten lamara **gorrikara**. **Karlos Linazasoro**

Arrain haien begi biziaren eta zakatz oraindik odoltsuen erdian, arraia handi bat ageri zen, **gorrikara**, orban ilunez pintarratua. **Karlos Zabala**

Bere masaila lodietako **gorrikara** erabat zurbildu zitzaion. **Harkaitz Cano**

## gorrilun ik gorri 19.

## gorrimin (orobat gorri min g.er.) iz gorri bizia.

Zure ezpainak, zinta **gorrimin**, mintzaira gozokoak. **Elizen arteko biblia**

Haren hatz luze eta zuri-zuriak, azazkal **gorriminez** hornituak. **Alberto Ladron Arana**

Belus **gorriminezko** errezelek. **Ibon Uribarri**

Aulkiek, errezelek, alfonbrak, sofa eta mahai gaineko estalkiek kolore **gorrimina** zuten, eta tonu nagusi hark halako giro dekadentea ematen zion gelari. Bisigu sendoak **gorrimin** puntu batez tindatzen ziren. **Anjel Lertxundi**

**Gorrimin** biziago batek hartu zituen izuzko irudi odoltsuak. **Koro Navarro**

Artilezko soinekoak daramatzate, kolore garbikoak denak, **gorrimin**, urdinmin, berdemin kolorekoak. **Felipe Juaristi**

Noizbait **gorrimin** izandako etxe arrosakolore luze hura. **Juan Garzia**

Ezpainen **gorriminaren** leuntasuna. **Lopez de Arana**

Zer ote eta zer pote! -lehertu da azkenean Gojenola, ohiko xuri-gorritik gorri huts, **gorri** min, gorri ubelera pasatuz-. **Iñaki Iñurrieta**

Belus **gorriminean** islatzen zen argi lausoa neskatzaoren ahoraino sartzen zen. **Ibon Uribarri**

Uniforme **gorrimin** eskarlata-kolore hura jantzita ikusten baninduen. **Mirentxu Larrañaga**

Kortina ere egin zuen, lihozkoa, more, gorri eta **gorriminez** tindatua. **Elizen arteko biblia**

Zure gainestalkiak Elixaharteetako purpura eta **gorriminezko** oihalez. **Elizen arteko biblia**

Apaindu mantuaren barreneko ertza purpura more, gorri eta **gorriminezko** granadez. **Elizen arteko biblia**

Belus **gorriminezko** errezelek. **Ibon Uribarri**

-"Letra **gorrimina**, Nathaniel Hawthorne"! **Anjel Lertxundi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belus **gorriminezko** (3); eta **gorrimina** (11); eta **gorrimina eta** (7); eta **gorriminez** (19); eta **gorriminez eta** (11); eta **gorriminezko** (3); **gorri eta gorrimina** (10); **gorri eta gorriminez** (15); **gorrimin bat** (7); **gorrimin baten** (3); **gorrimin eskarlata** (4); **gorrimin eta** (6); **gorrimina eta** (11); **gorrimina eta ixipua** (3); **gorrimina eta liho** (7); **gorriminez eta** (12); **gorriminez eta liho** (11); **letra gorrimina** (5); **letra gorriminaren** (4); **purpura gorrimina** (5); **purpura gorrimina eta** (4); **uniforme gorrimin** (4); **uniforme gorrimin eskarlata** (4)

## gorrimindu, gorrimin(du), gorrimintzen da ad kolore gorrimina hartu, gorrimin-kolore bihurtu.

Ibili eta ibili, ekialdean zerua poxi bat **gorrimindu** den arte ez dizuete atsedean hartzeko baimenik eman. **Xabier Montoia**

Gerritik behera zetazko galtza **gorriminduak** jantzita, eskuan bakoitzak lantza bana zekarrela. **Felipe Juaristi**

Tunelerantz egin ahala, ezpata ikusezin batek ebakia sakontzen du poliki Igeldo eta Santa Klararen artean, eta zauriaren arrosa argia **gorriminduz**, odolduz doa. **Iñaki Iñurrieta**

## gorrina iz laboreen gaitza.

Patatek dituzten gaitxotasunak zehazten jostatzen gara, eta minbizia, baztanga eta **gorrina** txandaka dituztela deliberatu dugu. **Josu Zabaleta**

Bada lanbro-lainoaren euri txiker temosoa eta irautea gustatzen zaiona, umela eta **gorrina** besterik kalterako ekartzen ez duena. **Pello Zabala**

## gorrindol iz purpura.

Errezelen eta ate-oihalen brokatuak, izur bikain-bikainekoak, **gorrindolez** koloretzatuturik zeuden. **Karlos Zabala**

Bi ezpata lore sorta **gorrindolen** artean. **Karlos Zabala**

## gorringo 1 iz arrautzaren barneko gai gorrixka.

Oilo salda arroltze **gorringo** eta ogi xigortuekin. **Elena Touyarou**  
Gainaldeko eskola libratuz, koilaratxoa sartu zuen oraindik lurruna zerion **gorringo** bigunean. **Joxemari Urteaga**  
Oskolez, zuringo eta **gorringo** likaz erabat zikindurik. **Gorringoz**, arrozaz eta haragi xehatuz egindako pastela. **Josetxo Azkona**  
Arrautza **gorringo** bat hautsi zitzaion zartaginera botatzean. **Iñaki Zabaleta**  
Beste batzuetan arrautza **gorringotan** edo ezitan bustiko zuen "pintzel mutturra". **Pako Aristi**  
Guneka, bidea arre-gorria, ez baldin badu **gorringoaren** marga. **Piarres Aintziari**

## 2 gorringo pare bat eduki

**Gorringo** pare bat eduki behar dira horrela, armarik gabe, piztiari aurre egiteko! **Joanes Urkixo**

## gorrista izond gorrirka.

Egunaren hasierari bere kolore **gorristak** emanez. **J.M. Olaizola "Txiliku"**  
Botticellik ile hori-**gorrista** -ilegorri deituko zioten lehengo zaharrek, bereizketa handiagoetan sartu gabe- margotu zion Venusi. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

## gorritasun iz gorria denaren nolakotasuna.

Ez baitakigu zer den gorria, zer beltza, zer zuria, dakiguna da odola gorria dela, gehienetan, ikatza beltza, elurra zuria, baina odolak ez du zehazten **gorritasuna**, ez ikatzak belztasuna, ez elurak zuritasuna. **Felipe Juaristi**  
Masailetan sagarren **gorritasuna** zuen. **Lopez de Arana**  
Azalak, tenkaturik, adreiluaren **gorritasuna** zeukan. **Karlos Zabala**  
Lehentxeago aurpegira igo zitzaion **gorritasuna**. **Irene Aldasoro**  
Haseretik ahalkera mudatu zaio **gorritasuna**. **Koldo Izagirre**  
Uhertzen ari zen itsas marraren gaineko **gorritasuna**. **Koldo Izagirre**  
Badu masail **gorritasun** eta begirada urrun bat, gutako edozein hankazgoratzeko modukoa. **Hasier Etxeberria**

## gorritiar izond/iz Gorritikoa, Gorritiri dagokiona; Gorritiko herritarra.

Julio Soto **gorritiarra** eta Eneko Lazkoz etxarri-aranaztarra. **Herria**

## gorritu, gorri(tu), gorritzen 1 da/du ad kolore gorria hartu edo eman, gorri bihurtu.

Harry **gorritu** egin zen. **Iñaki Mendiguren**  
Zainetaraino **gorritu** da. **Monika Etxebarria**  
Kopetaraino **gorritu** zen Periko Beitia. **Koldo Izagirre**  
Holohan jauna oso **gorritu** eta aztoratu zen. **Irene Aldasoro**  
Barregura ematen du nola **gorritzen** den. **Josu Zabaleta**  
Landare guztiak **gorritzen** dira udazkena iristean edo estresatzen direnean. **Berria - Gaiak**  
Halako lotsa esplikaezin batek **gorritu** zizkidan masailak. *ik* lotsagorritu. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Su biziak larruazala **gorritzen** zien. **Karlos Zabala**  
Ezpainak **gorritzeko** lapitzez pintaturik. **Joseba Sarrionandia**  
Odol zurbilaz **gorrituriko** ezpainetan. **Monika Etxebarria**  
Ilea harroki orraztua, ezpainak distiratsuki **gorrituak**. **Iñaki Zabaleta**  
Andreaak kotxe dotoreen txokoen ezkutatzan ziren, aurpegia hotzak **gorriturik**. **Xabier Olarra**  
Neskari koloreak **gorritu** zitzaizkion, pozez, eta agur keinu bat egin zion berak ere. **Josu Zabaleta**  
Ni korridorean nongoen iristen zenerako eta, iristen zenean, koloreak **gorritzen** zitzaizkidan -beti jakin dut koloreak **gorritzen** nahierara-. **Karlos Zabala**  
Bidegurutze batean semaforoa bat-batean **gorritzean**. **Aingeru Epaltza**  
Chandler Txikik lotsaz **gorriturik** sentitu zituen masailak, eta lanpararen argitatik urrundu zen. *ik* lotsagorritu. **Irene Aldasoro**  
Mahaian eserita zegoen, baso ardoz **gorrituen** artean. **Josu Zabaleta**  
Ilunbean hilak mustupilka eroriak ikusten dira, lurra eta belarra odolez **gorrituak**. **Michel Oronoz**  
Zigarreta puntak ikusten ziren ilunean **gorrituak**. **Ramuntxo Etxeberri**  
Begiak lasai aurpegi hotzez **gorrituxean**. **Karlos Zabala**  
Hats-handitua, mazelak are hanpatzenago eta **gorritzenago** zitzaizkion. **Aingeru Epaltza**  
Segidan datorrenak, ordea, lotsa bera **gorritzerainokoa** du gordinkeria: [...]. **Anjel Lertxundi**

## 2 soldu.

Eta 1407an, oti berde edo matxinsalto handi horien izurrite berri latz batek Valentzia aldea **gorritu** zuen. **Pello Zabala**

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Aurpegi **gorritu** eta errearen gainera. **Josu Zabaleta**  
Bere begi **gorritu** eta negartiak. **Xabier Mendiguren Elizegi**  
Baina Noraren aurpegi zurbila ikusi zuen, markesaren masaila **gorrituen** ordez. **Anjel Lertxundi**  
Haien titiburu **gorrituak** gogor-gogorrek ageri ziren. **Karlos Zabala**

## 4 (era burutua izen gisa)

Eta metalak sudurrean eragindako **gorrituetan** egingo zizun gero txera. **Koldo Izagirre**  
Baxoerdia ahorratu zuen aurpegieraren **gorritua** areagotzearekin batera. **Josu Landa**  
Zuk balakatzen zenizkidan betaurrekoen **gorrituak**? **Koldo Izagirre**

## 5 gorrituxe gogortu xamar.

Aldagelara itzuli zenean, masailak **gorrituxeak** zituen Kearney andreak. **Irene Aldasoro**

## 6 ahalke-gorritu lotsagorritu.

**Ahalke gorritzen** naiz neure sentimenduez, eta ez sentimendu horiek sortu dituenaz. **Jon Muñoz**  
Hots, bizkonde, **ahalke gorritu** zaitetz zuhaur, eta zator zeure onera. **Jon Muñoz**  
**Ahalke gorritzen** naiz lagunartean, eta dardaratzen bakardadean. **Jon Muñoz**  
Ohartu bainintzen bertze emakumeei behatzen zietenean, ez zirela **ahalke gorritzen**. **Jon Muñoz**  
Gainerako guztiak den bezanbategi, ez dut uste esku seguragoetan jar nezakeenik suntsitua ez izatea agian axola zaidan baina neurritz gain baliatzeak **ahalke gorrituko**

nindukeen gordailurik. **Ahalke gorriturik** naukanak **Jon Muñoz**

## 7 aurpegi-gorritu

Mentalki are urren naski: alabaina, Lukatxukai ikur, behialako mundu menperatu, kutsatu, **gosaiotu** eta baztertua irudikatzen nuen, oihar neuzkan marraka xumeetan berme. **Itxaro Borda**

## gosal ik gosari 2.

## gosalarazi, gosalaraz, gosalarazten dio *ad* gosaltzera behartu.

Etxean, hura duxatu bitartean nik gosaldu, Unairi **gosalarazi** eta oheak janzten nituen jaiegun batzuetan. **Aingeru Epaltza**

## gosalurre iz gosaldu baino lehenagoko denbora bitartea.

**Gosalurreko** eta afalondoko gosea. **Anton Garikano**

**Gosalurretik** jaiki eta han joaten zen pintatzera. **Anton Garikano**

## gosaldu, gosaltzen 1 du-da *ad* gosaria hartu. ik askaldu.

Bakarrik **gosalduko** zuen Lafayette-n, kafea, opilak eta gurin gozoa. **Lopez de Arana**

**-Gosalduko** al dugu nonbait? -galdetu diot. berak izaki kale-kantoiko tabernan aurreneko bezeroak, bapo ere bapo **gosaldu** zuten. **Jon Muñoz**

Amarenean **gosaldua** nintzen, baita oparo **gosaldu** ere. **Aingeru Epaltza**

Elkarrekin **gosaldu** ondoan. **Aingeru Epaltza**

Bi adiskideak mahaian jarri ziren **gosaltzen**. **Iñaki Zabaleta**

Goiz batez, baptistarekin **gosaltzen** ari nazela, horra non esertzen zaigun Sabeth gure mahaira. **Joxe Austin Arrieta**

Jaten hasten garen egunean gaztanberarekin **gosaldu** nahi du. **Jokin Urain**

Ostataturik daudenek esnea izanen dute **gosaltzeko**. **Aingeru Epaltza**

Goizeko 7:30ean **gosaldu** dut, zerealdun hiru jogurt eta kamamila bat. **Berria - Kirola**

Kendu arropa zikin horiek eta **gosaldu** ezazu zerbait... -esan zuen-. **Jon Maia**

Erle-jelea hartu behar zenuke **gosaltzeko**. **Anjel Lertxundi**

Jantzi eta goiz jaitsi zen **gosaltzera**. **Iñaki Mendiguren**

Amak **gosaltzera** deitu arte itxarongo dugu. **Iñaki Mendiguren**

**Gosaltzeko** arropa eta esnea izaten dira. **Gotzon Garate**

**Gosaltzeko** ordua izango zela pentsatu zuen Harryk. **Iñaki Mendiguren**

**Gosaltzeko** saltxitza batzuk hozkailutik hartu, eta Four Rouses botila bat zabaldu zuen. **Koro Navarro**

**Gosaldu** zuten mahaia garbituta zegoen. **Jon Muñoz**

Tomek **gosaldu** osteko zigarroa pizten du. **Oskar Arana**

### • 2 du *ad* gosaltzen hartu.

Ongi hornitutako arrautza pare **gosaltzea**. **Josu Landa**

Hemendik ez bazara joaten kronometroa **gosalduko** duzu. **Jon Maia**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bapo gosaldu** (4); **batean gosaldu** (3); **elkarrekin gosaldu** (4); **eta gosaldu** (12); **etxean gosaldu** (3); **gosaldu al** (3); **gosaldu baino** (4); **gosaldu baino lehen** (3); **gosaldu bitartean** (8); **gosaldu du** (3); **gosaldu dugu** (3); **gosaldu dut** (4); **gosaldu ere** (7); **gosaldu ere egin** (5); **gosaldu eta** (29); **gosaldu eta gero** (7); **gosaldu gabe** (12); **gosaldu nahi** (6); **gosaldu nuen** (4); **gosaldu ondoren** (26); **gosaldu zuen** (5); **gosaldu zuten** (3)

**elkarrekin gosaltzen** (6); **eta gosaltzeko** (4); **eta gosaltzera** (7); **gainean gosaltzen** (5); **gosaltzeko ordua** (7); **gosaltzeko ordua da** (3); **gosaltzeko orduan** (8); **gosaltzen ari** (43); **gosaltzen ari dira** (4); **gosaltzen ari ginela** (10); **gosaltzen ari ginen** (3); **gosaltzen ari zen** (6); **gosaltzen ari zirela** (4); **gosaltzen ari ziren** (3); **gosaltzen dugu** (3); **gosaltzen dute** (4); **gosaltzen zuen** (5); **gosaltzen zuten** (5); **gosaltzera eta** (4); **gosaltzera jaitsi** (10); **gosaltzera jaitsi zen** (3); **gosaltzera joan** (5); **harry gosaltzera** (3); **piano gainean gosaltzen** (4)

## gosalondo (*orobat gosari ondo g.er.*) iz gosariari jarraitzen zaion denbora.

Biharamunean guztiak joan ziren, **gosalondoan**. **Joan Mari Irigoien**

Egunero bezala **gosalondoan** izango diagu Oskotz komandantearen bisita. **Txillardegi**

**Gosalondoan** eman genuen paseo ez oso luzean, Margaritak 18 hotel, 10 pizzeria eta berrogeiren bat klub zenbatu zituen. **Bernardo Atxaga**

**Gosari ondoko** hamaiketakoa. **Berria - Kirola**

## gosalordua (*orobat gosari ordu g.er.*) iz gosaltzeko ordua, gosaltzen den ordua.

**Gosalorduan** elkar agurtu eta ez dute gehiago hitz egiten. **Oskar Arana**

**Gosalorduan** Mai triste zela oroitzen nintzen. **Itxaro Borda**

McGonagall andereñoak beste zerbait ere iragarri zien **gosalorduan**. **Iñaki Mendiguren**

**Gosalorduan** joaten nintzen, dena bezeroz beteta zegoenean. **Bernardo Atxaga**

**Gosari** -ordua igarota zen apopilo-etxean. **Irene Aldasoro**

## gosaloste iz gosalondoa.

**Gosalostean**, klinikara abiatzen da. **Oskar Arana**

**Gosalostean**, bazkalostean eta afalostean. **Berria - Kirola**

## gosaltiar iz gosaltzera biltzen diren lagunetako bakoitza.

Etxeakoandrearengana jiratu ziren hiru **gosaltiarren** begiradak. **Anjel Lertxundi**

Bi **gosaltiarren** aulkien artean, agiriz betetako eskumaleta marroi bat zegoen ongi zaindurik. **Aitor Arana**

# gosari 1 iz goizean den otordua, eguneko lehena. ikaskari; hamarretako; hamaiketako.

**Gosaria** prest zagok. **Aingeru Epaltza**

**Gosariak** prestatzera. **Iñaki Zabaleta**

-Ekarriko al diguzue **gosaria**, mesedez? **Josu Zabaleta**

Etzeko emakumeak **gosaria** zerbitzatzon bitartean. **Ibon Uribarri**

Hoteleko kafetegian **gosari** apartak zerbitzatzon ditizte. **Iban Zaldúa**

-Eta **gosaria** emango al didate? **Agustín Otsoa**

Belarria jarrita, **gosaria** banatzen hasiak direla jabetu zara. **Rafa Egiguren**

**Gosari** hau oso goxoa dago. **Iñaki Zabaleta**

**Gosari** handi bat eginik, Nestoren zaldirik eta gurdirik onenetan abiatu zen Telemako. **Juan Kruz Igerabide**

**Gosari** jan berriaren energiak bizkortuta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gosaria** amaitu zutenean. **Joxemari Iturralde**

**Gosaria** bukatzen duzunean, joan zaitezke. **Iñaki Mendiguren**

Pattarra baino **gosari** mardulagoaren eske datozenei. **Pako Aristi**

**Gosaria..** eta hamaiketako. **Berria - Kirola**

**Gosarian**, zuku edo fruitu zonbeit ere behar litaizkularik baitezpada jan. **Herria**

Sukaldean **gosarirako** kafea prestatu eta leihora itzuli naiz. **Joseba Sarrionandia**

**Gosariko** katiluaren ondoan. **Irene Aldasoro**

Mary neskameak **gosariko** ontziak nola jasotzen zituen begira zegoen. **Irene Aldasoro**

**Gosaritzat** xorigariz egin ogi-zopak esne beroarekin jateko. **Elena Touyarou**

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat gosál)

Baina **gosari garaian** ere lanean aritu da. **Berria - Kirola**

Begiraleen **gosari** garaia da. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gosal** garaian egunean zehar egin beharreko lanez mintzatuko dira. **Iñaki Zabaleta**

Plateraz estalirik zegoen **gosari**-gelako mahaia. **Irene Aldasoro**

**Gosal** mahaiko bere aspaldiko txokoan. **Anton Garikano**

Bi dolarreko **gosari**-barkaria, *brunch*, erretiluan zuela. **Iñaki Zabaleta**

Aginduak etorri zitzaizkion Josebari jangelatik eta **gosari** platerak prestatzeari ekin zion. **Iñaki Zabaleta**

**Gosari**-ontzien erretilua sukaldera eraman zuen. **Anjel Lertxundi**

Hurrengo egunean preso **gosari**-ekarlea behartu ez dezaten zuk utzitako kuxidadea garbitzera. **Koldo Izagirre**

**Gosari**-hitzaldira, berriz, politiko ugari hurbildu zen. **Berria - Euskal Herria**

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goizean goizetik bertso **gosariak**. **Berria - Harian**

## 4 gosaritan gosaltzen.

Afalosteian oheratu egingo ziren, amodioa egingo zuten eta biharamunean Rekekox inoiz baino miserableago sentituko zuten bere burua **gosaritan**. **Joxemari Iturralde**

**Gosaritan** har zezakeen gauzarik txarrena. **Iñaki Mendiguren**

**Gosaritan** ez dugu beste esametsik. **Koldo Izagirre**

Eta **gosaritan** jarraitu zuen. **Ander Irizar**

## 5 gosaritarako gosaltzeko.

Goizetan, 5etan, **gosaritarako**, ogi xerra ttipi bat emaiten zieten. **Eneko Bidegain**

-Jimmy, uste al duzugu egokia dela eskalopea jatea **gosaritarako**? **Lopez de Arana**

Saltxitxa beroak **gosaritarako** erosten. **Karlos Zabala**

**Gosaritarako**, zuku, gaileta pare bat, eta segurantziazko hitzak. **Joxe Austin Arrieta**

Kafe hutsa eta **gosaritarako** zerealak. **Oskar Arana**

Horregatik bidaltzen dizuet **gosaritarako** pakete hau. **Jokin Urain**

-Nahi dudana bezala deitzen diot, pixurrin halakoa [...] eta kaka zahar hau bihar **gosaritarako** jan ezazu. **Oskar Arana**

## 6 bigarren gosari

Bigarren **gosariko** galeper txitxiburduntziei ekin aurretik. **Josu Zabaleta**

Bigarren **gosaria** ematen ari zirela nabaritu duenean. **Koldo Izagirre**

Azken urteetan "fianbre-xerra on bat" eskuratu zuena egunero bere bigarren **gosarirako**. **Anton Garikano**

## 7 gosari lege gosaria, berezeki ez oso oparoa. ik beherago 8.

Han **gosari** legea egin zuten ordu erditxo batean. **Karlos Zabala**

Lauki urdineko paineluz batutako pardela **gosari legearekin**. **Joxemari Urteaga**

Gero, **gosari legean**, kafesnea prestatu zuen, **Joxemari Iturralde**

## 8 gosari pasara/pasa, gosaria, berezeki ez oso oparoa. ik gorago 7.

**Gosari pasara** ona egin du aita Estanisek, eta jaiki egin da. **Pako Aristi**

Ondoko kafetegi batera joan da **gosari-pasara** egitera. **Patxi Iturrategi**

Goizero, berriz, nik **gosari-pasa** egiteko hartzen nuen tartetxoa baliaturik, nire gela garbitzen zuen. **Anjel Lertxundi**

Burtsa-etxean zain zituen adiskideak eta sozio lagunak, eta haiekin **gosari pasa** egin, berma-letrak sinatu eta, salgairen bat merke aurkituz gero, hura erosteko asmoa zuen.

**Felipe Juaristi**

## 9 gosaria hartu

Gran Viako kafetegi dotore batean hartzen zuten **gosaria**. **Sonia Gonzalez**

Marivale-tarrek **gosaria** hartzen ari ziren argi elektrikoaren pean. **Lopez de Arana**

Dutxatu, orraztu, jantzi, **gosaria** hartu. **Sonia Gonzalez**

Han hartzen zuten **gosaria**, antza. **Matías Múgica**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta gosari (7); eta gosaria (11); gosari eder (3); gosari eder bat (3); gosari informatiboan (3); gosari legea (3); gosari on (3); gosari oparo (3); gosari oparoa (4); gosaria amaitu (4); gosaria bukatu (4); gosaria egin (3); gosaria ekarri (3); gosaria eta (5); gosaria eta afaria (3); gosaria ohera (3); gosaria presaka (3); gosaria prestatu (3); gosaria prestatzeko (3); gosaria prestatzen (9); gosaria zerbitzatzon (4); gosariarekin batera (6); zuten gosaria (5); zuten gosaria (3)

## gose 1 iz jateko beharra edo nahia.

Ostatu batean sartu naiz, egarri eta **gose** gorrian bainaiz. **Piarres Aintziart**

Gerra ondoren **gosea** handia izan zen bazter guztietan, eta Irinbeltzagan ere bai, noski. **Pako Aristi**

Bularrak taupadak jotzen zizkidan, eta sekulako **gosea** nuen. **Josu Zabaleta**

Lehen baino ere **gose** gehiagorekin jaikitzen ziren mahaitik. **Josu Zabaleta**

Lo gutxi egiten badugu, leptina gutxiago jariatuko dugu eta ondorioz, **gose** gehiago izango dugu. **Berria - Gaiak**

Indioek, beharbada **gosea** kentzeko, betel mastekatzen dute. **Gotzon Garate**

Agian gizon hark **gosea** arintzen lagunduko zidan. **Jon Arretxe**

Hartu etxekoan **gosea** asetzeko behar duzuen garia eta joan zeuon etxera. **Jose Antonio Mujika**

Herrietan harrapatzen zuten guztiarekin berdintzen zuten **gosea**. **Martin Anso**

Baina orain **gosea** nagusitu zait. **Piarres Aintziart**

**Goseak** behartzen nau hau egitera. **Lopez de Arana**

Negu honetan **gosea** jasanen dugu. **Elena Touyarou**

**Gosea** pizten ari zitzaiola sentitzen zuen. **Karlos Zabala**

**Goseak** eta miseriak eraginik. **Gotzon Garate**

Brasilen 45 miliun biztanle **goseak** jotzen baititu. **Herria**

**Goseak** jotako jendeak, enplegatu apalek. **Karlos Zabala**

Bi-biak gerra ostean **gosea** pasatakoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Berari limosnaz emandako janari pixka batekin marinela luzaroan libratu zituela **gose**tik eta heriotza-arriskutik. **Askoren artean**

Ez zuen **goserik**. **Janbattitt Dirassar**

ik goserik.

Ez **goseak** ez inolako atsekabek ez zituela aldenduko hitzemandako pobretasun santutik. **Askoren artean**

**Goseak** gorputza higatzen du, baina kuraia ere, bai eta arima, itsusterainoan. **Marzel Etxehandi**

Ramo-k, nekearen, **gosearen** eta hotzaren eraginez, ez zuen behar bezala arazoitzen. **Juan Kruz Igerabide**

**Gosearen** zimikoak sabelean kosk egiten zionean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gosearen** aldean txarra da egarria. **Iñigo Aranbarri**

Ez da **gosea** bezalakorik gogoaren akulatzeko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

**Gosearen** Aurkako Ekintza gobernuz kanpoko erakundeak. **Berria - Gaiak**

## 2 irud/hed

Zaldiak gose bakarra dizu, gizakiak ordea **gose** klase ase gaitz asko. **Patziku Perurena**

Baina eskolaren eragin mugatzailea urruntzen zenean, sentsazio gogorren **gose** izaten hasten nintzen berriro. **Irene Aldasoro**

Boterearen **gosea** dela Historiaren higiarazlea. **Michel Oronoz**

Diruketa horrek Txinako mafia erakundearen **gosea** piztu zuen. **Ramuntxo Etxeberri**

Janari espiritualaren **gose** asegabeak. **Iñaki Mendiguren**

Oroimena da urrun dabilenaren **gosea** zertxobait ase dezakeen jaki bakarra. **Pako Aristi**

Literatura ere gose bat dela iruditzen zait, baina beste eskaera batzuk dituen **gosea**; bizitzaren arrunkeetatik urrun dabilenaren **gosea** da literatura. **Pako Aristi**

Zein **gose** ase nahi ote du eta zein egarri hautsi apaiztu nahi duen gazte batek. **Anjel Lertxundi**

## 3 (izenondoekin)

**Gose** handia jasaten ari ziren eta jadanik jende asko goseak hila zen. **Elizen arteko biblia**

Inon ez bezalako helburua neukan bertan, neure **gose** nagusia asetzeaz gain, sinbolikoki, beste hamaika **gose** txikiago baina egiazko ere aseko bainituenaldi berean Burtaren leherketarekin. **Hasier Etxeberria**

Hango jendearen **gose** beltza asetzeko. **Jokin Urain**

Pixka bat jan dut, ez gosez, baizik eta **gose** gorria aitzintzekotan. **Piarres Aintziart**

Ni neroni, **gose** sabelekoagatik baino gehiago arimakoagatik bada ere, belekumeak jana nago. **Patziku Perurena**

Gailena izateaz gainera, matematikan aritzeko **gose** ase zina du. **Jon Muñoz**

Liburuz ase-ase, tenturik gabeko **gose** zorrotzez segitzen nuen, hala ere, liburuak irensten. **Juan Garzia**

Alta, betidanik kurios eta **gose** errabiata izan da gizona mundu honetatik joan direnekin lotura baten sortzeko eta atxikitzeko. **Michel Oronoz**

Leher eginak, **gose** hamikatuak, hor jakin ginuen menia izenpetu zutela Frantziak eta Alemaniak. **Michel Oronoz**

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gose** sentipen gogaikarria. **Urtzi Urrutikoetxea**

Haien ondoren, ordea, zazpi **gose**-urte etorriko dira. **Jose Antonio Mujika**

Zoritar-egunetan ez dute porrot egingo, **gose**-egunetan asebetekak izango dira. **Elizen arteko biblia**

Absolutuaren **gose**-egarria, gizadi berri baten amets utziezina... **Askoren artean**

Konformidatezko hiritar bertango eta bakezkoa, galdu-usterik eta deusen **gose**-egarririk gabea. **Iñaki Segurola**

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurrera gosea bidaliko dut; ez ogi-**gosea**, eta ez ur-egarria, Jaunaren hitza entzuteko gose-egarria baizik. **Elizen arteko biblia**

Orain izango nuen nire liburu-**gosea** berdintzeko aukera. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Arerio hori diru-**gosea** zen, aberastasunak irabazi eta gordetzeko gehiegizko grina. **Askoren artean**

Ez gura, ez gale, ez egarri eta ez gose den diru-**gosea**. **Iñaki Segurola**

Gorde sasijainko-zalekeria den diru-**gose**tik, diru-**gosea** ez baita diruz aseko. **Askoren artean**

Dirua ez ezik, irabazi-**gosea** ere bai. **Askoren artean**

Eta ezin izan zuen bere jakin-**gosea** ezkutatu. **Patxi Zubizarreta**

Potzolo jakin-**goseago** ageri zen orain. **Aingeru Epaltza**

Bakartasuna, larru-**gosea**. **Itxaro Borda**

Ene mendeku **gosea** ase zezakeena. **Joan Mari Irigoien**

Gurina baino bigunago du ahoa, baina borroka-**gose** bihotza. **Elizen arteko biblia**

Jendearen izua eta ezintasuna mendeku-**gose** bilakatu zen Junkerrek Burgos aldera hartu zutenean. **Koldo Izagirre**

Zorion **gose** hori Jaungoikoak bakarrik ase diezaioke. **Imanol Unzurrunzaga**

Erruki **gose** asezin honek. **Anton Garikano**

Pippin eta Merryren albiste-**gose** asegaitza apaltzeko. **Agustin Otsa**

Eta ulertu-behar eta jakin-behar horrek, fede-**gose** horrek hitzen maitemin gordina zapuzten du. **Iñaki Segurola**

Zibilizazio Helenikoak, horrelako krisalida erlijiosorik ez zuenez, gero eta erlijio-**gose** handiagoa zuen. **Iñaki Mendiguren**

Lehenbiziko koilarakadak ahorratu orduko, zakur-**gose** batek hartu ninduen. **Alberto Ladron Arana**

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Bekaizia, zikoitza, diru-**gosea**, maltzurra. [Karlos Linazasoro](#)  
Berez, betidanik izan zen diru-**gose** samarra. [Patxi Zubizarreta](#)  
Gizon-emakume odol-**gose** haiek guztiak maradikatu nituen. [Joan Mari Irigoien](#)  
Requessens y Zuñiga gizon malapartatu eta odol-**gose** hura. [Felipe Juaristi](#)  
Jende anker odol-**goseen** bizitoki. [Felipe Juaristi](#)  
Frantziako XVIII. mendeko moja haragi-**gose** haiei. [Karlos Zabala](#)  
Bidea moztuko zieagu puta gizon-**gose** horiei. [Koro Navarro](#)  
Gaixoaren oihuek katu baten marmar fereka-**goseen** antza hartu zuten. [Anjel Lertxundi](#)

## • 7 izond gose dena.

Zuk ez dautazu debekatuko jende **gose** horri jatera emaita. [Marzel Etxehandi](#)  
Lehoi **goseen** erpe eta atzaparretarat. [Joan Mari Irigoien](#)  
Zakur **gosea** ibiltari. [Gotzon Garate](#)  
Zakur **goseak** okela amets. [Gotzon Garate](#)  
Zerri **goseak** ezkurra amets. [Joxerra Garzia](#)  
Herri **goseak** gezurra amets. [Joxerra Garzia](#)  
Otso **gose** sabel-uzkur bat bainintzen. [Joan Mari Irigoien](#)  
Euli **gose** batek baino txaplata inkakorrago bati ekin dio. [Anjel Lertxundi](#)  
Begi **goseak** ziren, justizia amets; begi minduak ziren [...]. [Felipe Juaristi](#)  
Bere burua ispiluek biderkatua, argiek agerkatua eta begi **goseek** bilztua ikusi zuen. [Juan Garzia](#)

## 8 (adizlagun gisa)

Gainera, **gose** eta egarri, hotzak eta jantzirik gabe, atsekabe eta larrialdi asko jasaten zituzten. [Askoren artean](#)  
**Gose** bezain egarri, edo alderantziz, laster ohartzen naiz, eskuin, Bar León idazkiari. [Piarres Aintziart](#)  
Harro zegoen Fructuoso ekintza hartaz, eta antzeko ekintzen **gose** agertzen zen beti. [Inazio Mujika Iraola](#)

## 9 goseak (egon, iritsi, hil...) goserik (egon, iritsi, hil...)

**Goseak** daude janaria bukatutakoan, baina hotza nolabait aienatu zaie, zaldi-estalkien azpian. [Felipe Juaristi](#)  
Ez nengoen jada ikaratu; haserre eta **goseak** nengoen. [Koro Navarro](#)  
Hotzak eta **goseak** geunden, Piamonteko partisanorik desarmatuenak ginen, eta ziur aski prestatugabeenak ere bai. [Juan Garzia](#)  
Negu gorrian **goseak** hil ez zitezen. [Askoren artean](#)  
**Goseak** hiltzen nago. [Askoren artean](#)  
**Goseak** amorratzen zegoela. [Iñaki Mendiguren](#)  
Agureak **goseak** akabatzen, neska gazteak amodioaren esturak urraturik. [Josu Zabaleta](#)  
Ogiak eta arrainak biderkatu zituela jendea **goseak** ikusi zuenean. [Pello Salaburu](#)  
Ez zitzaion axola **goseak** ibili beharragatik. [Koldo Izagirre](#)  
Gaur egun Kuban jendea **goseak** bizi dela. [Jon Muñoz](#)  
Jaten gaizki ematen zion eta maiz **goseak** oheratzen zen. [Gotzon Garate](#)  
Toki bakarti batera iritsi ziren, bideko nekeagatik lehertuta eta **goseak**. **Goseak** eta bakarrik sentitu zen. [Askoren artean](#)  
Eguna argitzean, **goseak** eta sabela hutsik, bideari ekin zioten berriro. [Askoren artean](#)  
Horien artean haur asko ikus liteke, ezbehar gorrian, **goseak** eta erdi larrugorri. [Gotzon Garate](#)  
· Beti **gose** -egarriak egoteko. [Iñaki Segurola](#)  
· Parkean ibili, haize ona hartu eta hirugarren egunean Muti **gose** -goseak zegoen. [Gotzon Garate](#)

## 10 gosez adlag goserik.

Laster egarri edo **gosez** hilko gara. [Joanes Urkixo](#)  
Nahiago zuten berehala itozteko arriskuari aurre egin, haitz hartan poliki-poliki **gosez** hiltzea baino. [Karlos Zabala](#)  
Neguan itobeharrean eta **gosez** akabatzen iristen nintzen sarritan eskolatik. [Joseba Urteaga](#)  
Lazeriaz, nekez, **gosez** horditurik zegoen. [Karlos Zabala](#)  
Pixka bat jan dut, ez **gosez**, baizik eta gose gorria aitzintzekotan. [Piarres Aintziart](#)  
800 milioi pertsona **gosez**, Elikaduraren Munduko Egunean. [Berría - Gaiak](#)  
· (osagai batekin) Piztiak harrapakinari bezala so egiten zion mendeku **gosez**. [Karlos Zabala](#)  
Zerbitzaria ez zen harrotzen bere bihotzean, ez zuen bilatzen handiuste **gosez** inori atsegin ematerik ere. [Askoren artean](#)  
Adiskideren bati mesederen bat egiten dion lagun jatorrak ez du dena delako mesede hori ordain-**gosez** egiten. [Joxerra Garzia](#)  
Etxeko sukaldean jarri ginen irratia entzun **gosez** etxetar denok. [Pako Aristi](#)  
Ilustrazioaren ortodoxiak ito egiten zituelako eta, beraz, debekatzeko zitzaien askatasun pertsonalaren **gosez** bizi zirelako? [Bernardo Atxaga](#)

## 11 gosezko izlag

Ehortzi nahi balute bezala bere **gosezko** hilzorian janari haiek guztiak gainera jausirik. [Karlos Zabala](#)  
Ez da segur harritzeko beraz orain aski baitute nonbait agertzea garzatar eta inguru hurbiletako hogoita sei abeslariak, horien inguruan errespetu eta entzun-**gosezko** ixiltasun baten ontzeko. [Herria](#)

## 12 gose egon

Okaztagarri da **gose dagoenari** kentzea. [Eneko Bidegain](#)  
Berri **gose dago**, berri on gose alegia. [Aingeru Epaltza](#)  
Gaur, gizon-emakumeen barrenak **gose dauden** garaian, telebistak osatzen du horiei denbora nola pasa asmatzeko falta zaien imajinarioaren lekua. [Pako Aristi](#)

## 13 gose greba

Zuk, zenbat **gose** greba egin dituzu? [Koldo Izagirre](#)  
Gandhi, Indiako independentzia zalea, bere enegarren **gose** greba egiten ari da. [Josu Zabaleta](#)  
Lekeitioko presoak otsailaren 2an hasi zuen **gose** greba. [Berría - Euskal Herria](#)  
**Gose** greba abiatu zuten hiru etorkinek bertan behera utzi zuten baraualdia. [Berría - Mundua](#)  
Anjel Pikabea presoak maiatzaren 18an ekin zion **gose** grebari. [Berría - Euskal Herria](#)  
Atzo bete zituzten 24 egun **gose** greban. [Berría - Euskal Herria](#)  
Beñat Sansebastian bidartar presoak ere **gose** greban jarri da, Lilleko presondegian. [Herria](#)  
**Gose** greban jarraituko dutela jakinarazi dute sei presoek. [Berría - Euskal Herria](#)  
1.500 palestinar **gose** greban dira, kartzelako baldintzen aurka protestan. [Berría - Mundua](#)  
Joan den asteko astelehenerik **gose** greba mugagabeen daude. [Berría - Euskal Herria](#)  
Txilen inoiz egin den **gose** grebarik luzeena amaitu zuten herenegun iluntzean indultua emateko eskatzen duten preso politikoek.  
Belgikan **gose** greban zegoen Diego Ugarte euskal presoak. [Berría - Euskal Herria](#)



Julen Atxurrak gauerdian utzi behar zuten **gose** greba. **Berria - Euskal Herria**

**Gose** grebarik luzeenetik irten berria den presoarendako. **Koldo Izagirre**

Elurrak **gose** grebara kondenuatu dituen hegaztiei. **Gose** eta egarri greban hasiko gara gaurko afaririk bertatik... **Koldo Izagirre**

## 14 gose grebalari

Juliani ondo gogoratzen zitzaion nola egoten ziren **gose** grebalariak lo-zakuetan sartuta. **Pedro Alberdi**

Gatazkaren konponbidean «izan behar duten partaidetza» aldarrikatu dute **gose** grebalariek. **Berria - Euskal Herria**

IU-EBk eta Eguztik elkartzasuna adierazi diete **gose** grebalariei. **Berria - Euskal Herria**

**Gose** grebalarien egoerak egunetik egunera egiten du okerrera. **Berria - Harian**

## 15 gose grebaldi

Albaceteko kartzelako euskal presoek bertan behera utzi dute **gose** grebaldia. **Berria - Euskal Herria**

Behin kartzelara bueltaturikoan preso kataluniarrak **gose grebaldiarekin** jarraitzea erabaki zuten. **Berria - Euskal Herria**

## 16 gose izan

Bidaia luzearen ostean **gose** nintzen. **Urtzi Urrutikoetxea**

Komunzki, jan ondoan, **gose** ginen. **Marzel Etxehandi**

Sarri, afaltzean, badakit jatekoa ona izanen dela, hain naiz **gose**. **Marzel Etxehandi**

-Ez zarete **gose**? -galdetu zuen Léak. **Jon Muñoz**

-Oso **gose** naiz! **Joseba Urteaga**

Borda batean **gose** ziren otsoek inguraturik igaro zuten gau izugarria. **Pablo Sastre**

Lehen **gose** zinen horrek garirik onena duzu orain janari. **Askoren artean**

**Gose** denari zeure ogitik ematen badiozu. **Askoren artean**

Uste baino **goseago** zarete, haatik. **Xabier Montoia**

Badirudi biok ere elkarren gorputzen **gose** gara, eta gose horrek ez duela amaierarik. **Patxi Zubizarreta**

Odol **gose** ziren denak. **Julen Gabiria**

Plazer-**gose** den arraren ametsa, irrika, hantustea, berekoikeria, bekaitza, mendekua, grina guztiak gordetzen dituk giza arimaren gauean. **Xabier Olarra**

Ez zen kalapita **gose** eta gainera, gizona nora ote zihoan jakin minez zegoen. **Elena Touyarou**

## 17 gose (eta) egarri izan

Esbertu egin zuten Irisarriren eskaintza, **gose eta egarri** baitziren. **Felipe Juaristi**

Dastatu zaitut eta **gose**-egarri naiz; ukitu nauzu eta zure bakeak sugarretan nauka. **Imanol Unzurrunzaga**

Zuzentasunaren **gose**-egarri direnak. **Patxi Altuna**

**Gose eta egarri**, hotzak eta jantzirik gabe. **Elizen arteko biblia**

## 18 gosearen gosez

Tripa zorriak zituen **gosearen gosez**. **Fernando Rey**

Azkenean, **gosearen gosez**, nagusiak jan egin zituzten [zakurrak]. **Gotzon Garate**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abiatutako gose (4); atxurrak gose (4); atzo gose (6); atzo gose greban (5); baina gose (5); bat gose (4); batek gose (7); batek gose greba (4); beste gose (5); beste gose greba (5); beti gose (7); bigarren gose (4); bost gose (4); da gose (13); da gose greba (5); daramatzate gose (6); daramatzate gose greban (6); dauden gose (4); den gose (5); dira gose (11); diren gose (4); diru gose (20); ditu gose (5); dituzte gose (8); dituzte gose greban (6); du gose (8); du gose greba (5); duen gose (6); duen gose greba (4); dute gose (12); dute gose greba (4); dute gose greban (5); egindako gose (4); egun daramatzate gose (6); egun gose (6); egun gose greban (6); eguneko gose (16); eguneko gose greba (9); eguneko gose grebaren (5); ere gose (15); ere gose greban (4); eta gose (58); eta gose greba (7); eta gose grebak (4); eta gose greban (6); euskal presoak gose (9); euskal presoek gose (6); ez dira gose (4); ez naiz gose (10); ez nintzen gose (5); garaipen gose (8); gaur gose (4); gaur gose greban (4)

gose bada (5); gose bat (4); gose da (12); gose denak (5); gose denari (12); gose dira (11); gose diren (9); gose direnak (6); gose edo (5); gose egarri (7); gose egarriak (6); gose egarriak (6); gose eta (60); gose eta egarri (39); gose gara (4)

gose greba (313); gose greba abiatu (13); gose greba bat (10); gose greba bertan (8); gose greba egin (20); gose greba egingo (4); gose greba egiteari (5); gose greba egiten (16); gose greba eta (6); gose greba hasi (45); gose greba hasiko (6); gose greba mugagabea (9); gose greba utzi (17); gose greba uztako (4); gose grebak (28); gose grebalariek (9); gose grebalariei (6); gose grebalariek (8); gose grebalarien (5); gose greban (215); gose greban da (4); gose greban dago (13); gose greban daude (12); gose greban dauden (17); gose greban dira (7); gose greban egon (5); gose greban eta (6); gose greban hasi (8); gose greban hil (4); gose greban jarraituko (4); gose greban jarraitzen (4); gose greban jarri (6); gose greban parte (6); gose grebarekin (8); gose grebaren (34); gose grebaren bidez (4); gose grebaren ondorioz (9); gose grebari (42); gose grebari ekin (22); gose grebarik (5)

gose handia (8); gose handiagoa (6); gose hori (7); gose horrek (4); gose hura (4); gose izan (9); gose izango (4); gose naiz (13); gose nintzen (17); gose urte (6); gose zen (13); gose ziren (13)

hain gose (6); hasi zuen gose (11); hasitako gose (14); hasitako gose greba (7); iparragirrek gose (5); iparragirrek gose eta (5); jakin gose (12); langileek gose (4); langilek gose (5); mendeku gose (8); mugagabe gose (4); mugagabe gose greba (4); naiz gose (12); ni gose (4); nintzen gose (6); nuen gose (4); odol gose (6); oso gose (5); palestinarrek gose (4); preso palestinarrek gose (4); presoak gose (4); presoak gose (20); presoak gose greba (7); presoak gose greban (8); presoek gose (15); presoek gose greba (11); utzi zuen gose (4); zazpi gose (6); zen gose (11); zen gose greba (4); zioten gose (4); ziren gose (7); zituen gose (4); zuen gose (29); zuen gose greba (17); zuten gose (13); zuten gose greba (9)

bere gosea (4); boterearen gosea (5); da gosea (7); diru gosea (26); eta gosea (45); eta gosea ere (4); eta goseagatik (4); garaipen gosea (11); gosea ase (4); gosea asetzeko (10); gosea baino (8); gosea da (7); gosea edo (5); gosea ere (22); gosea eta (43); gosea eta egarria (11); gosea eta hotza (4); gosea ez (15); gosea ez da (7); gosea kendu (5); gosea kentzeko (9); gosea kentzen (4); gosea nagusitu (4); gosea piztu (8); gosea zen (4); honetan gosea (4); jakin gosea (6); mendeku gosea (21); pobrezia eta gosea (5); zuen gosea (6)

baina goseak (8); botere goseak (4); diru goseak (24); ditu goseak (4); edo goseak (8); eta diru goseak (4); eta goseak (44); eta goseak hilko (5); goseak akabatuko (4); goseak akabatzen (21); goseak akabatzen nago (7); goseak amorratzen (32); goseak amorratzen nago (4); goseak amorratzen nengoen (6); goseak bultzaturik (4); goseak bultzatuta (5); goseak daude (4); goseak egoten (5); goseak egoten nintzen (4); goseak eraginda (7); goseak eta (51); goseak eta egarriak (8); goseak ez (15); goseak hamikatua (4); goseak hil (20); goseak hila (4); goseak hilik (6); goseak hilko (22); goseak hiltzea (5); goseak hiltzeko (8); goseak hiltzeko zorian (4); goseak hiltzen (39); goseak hiltzen ari (4); goseak hiltzera (6); goseak jota (10); goseak jotako (4); goseak nengoen (4); goseak zegoen (9); goseak zeuden (4); hotzak eta goseak (4); jendea goseak (7); mendeku goseak (7); ni goseak (4); pertsona goseak (4)

batere goserik (5); diru gosearen (6); eta gosearen (9); eta goseari (4); eta goserik (4); ez goserik (6); gosearen aurka (4); gosearen aurkako (8); gosearen eta (4); gosearen gosez (9); gosearen jakin (18); gosearen jakin gosez (18); gosearen jakin gosez (18); gosearen kontrako (9); gosearen ondorioz (4); goserik ez (22); goserik gabe (6); jakin gosearen (19); jakin gosearen jakin (18); jakin goseari (4); jakin gosez (19); mendeku goserik (4); munduko gosearen (4)

diru gose (9); eta gosez (12); garaipen gosez (5); gosearen gosez (9); gosez akabatzen (4); gosez bizi (4); gosez edo (4); gosez eta (25); gosez eta egarri (7); gosez eta izurritz (5); gosez hil (16); gosez hil ziren (4); gosez hilko (11); gosez hiltzea (6); gosez hiltzen (42); gosez hiltzen ari (8); gosez hiltzen ziren (4); jakin gosez (8); jendea gosez (5); jendea gosez hiltzen (4); mendeku gosez (13); pilota gosez (4); sexu gosez (4); umeak gosez (4)

## gosebera izond gose dena, gose izateko joera duena. ik gose 7.

Berehala jakin zuen Antoniak zein **gosebera** izan zitekeen. Laster eman dit pota saman, **gosebera**, bularrak itsatsiz nire aurka. **Urtzi Urrutikoetxea**

## gosedun izond/iz gose dena.

Janaria helburu ez duen irrika gaitza da, istant batzuk baizik ez du irauten, eta bet-betan baretzen da **gosedunak** unean unean gogoko duen edaria imajinatu orduko.

**Matias Mujika**

-Ze agintariak ere, aginte **gosedun** izanda ere maitagogo dira eta maitale azaltzea nahi dute herriaren aurrean. **Jenaro Garate**

## gosegabetu, gosegabe(tu), gosegabetzen da/du *ad* goserik gabe gertatu.

Super batean bidailagunekin erosketak egin, egin ditut, baina guztiz **gosegabetu** naiz [...] Karmeloren mezua topatu dudanean. **Patxi Zubizarreta**

Eta horrek guztiak erabat gogogabetzen **gosegabetzen** nau, korapilo batek sabela etengabe estutuko balit bezala. **Patxi Zubizarreta**

Ni **gosegabetua** nengoela aitzakiatu, eta furgonetara hurbildu naiz. **Patxi Zubizarreta**

Aladin bihozminak joa eta **gosegabetua** itzuli zen etxera. **Patxi Zubizarreta**

## gosegarri *izond* gosea pizten duena.

Jaki nagusirako aperitif **gosegarria**. **Joxerra Garzia**

## gosekil *izond* *adkor* gosetia, goseak hila.

Katu **gosekila** dirudik. **Eskarne Mujika**

Apustuetako bakar batean honetan bezain ziur egon izan banintz, orain ez nintzen horrelako **gosekila** izango! **Urtzi Urrutikoetxea**

Diruzale aseezina zen, gizon zakarra, bi anaiak **gosekilak** balira bezala hartu zituen. **Karlos Zabala**

Arrotza (xeno delakoa) lipar batez bederen fluor bizi-bizi, **gosekilarekin** konbinatzea. **Juan Garzia**

Zuen **gosekil** itxura ikusi nuenean. **Jon Arretxe**

## gosemindu *izond* oso gose dena.

Orduantxe gertatu baitzen Ejiptoko eta Siriako uzta alea zekarten itsasontziak elkarren aurkako haizeek jota, ez hara ez honara, ekaizpean gelditu izana, Bizantioko jendaila

**goseminduaren** haserre eta etsipena sortuz. **Patziku Perurena**

## gosepasatu *izond* *adkor* oso gose dena.

Taldetik kanpora otso zakur **gosepasatua** bezalaxe. **Anton Garikano**

## goserik *adlag* gose dela.

**Goserik** geunden; hotzak jangura xorroxten zigan. **Marzel Etxehandi**

**Goserik** daudenean, itsas hondotik irteten zaie kantua; pozik daudenean, berriz, olatu gain apartsuetatik... **Anjel Lertxundi**

Ondorioz bi miliar jende badira aintzina **goserik** edo erdi-**goserik** daudenak...! **Herria**

Oraino **goserik** atera zen bere ganbaratik eta kontzentrazio kanpamenduko plaza handiaren erdi erdian bertze guziekin lerroan ezarri. **Eneko Bidegain**

Ipar koreako populua **goserik** daukala herri hortako presidentak zion Urtatsez Bush jaunak. **Herria**

Ibilaldi luzearen ondoren nekatuta eta **goserik**, leku bakarti batean gelditu ziren. **Askoren artean**

## gosete *iz* gose denbora.

1227an, Gregorio eta Frederiko II.aren arteko gatazka bitartean, **gosete** larria izan zen Italia osoan. Mundu guztian **gosete** handia izango zela adierazi zuen. **Askoren artean**

**Gosetea** latza zen Kanaan lurraldean. **Elizen arteko biblia**

**Gosetea** gero eta latzagoa zen Egipton. **Jose Antonio Mujika**

Sudango **gosetea** areagotu egingo da datozen sei hilabeteetan. **Berria - Gaiak**

Zazpi urteko **gosetea** bidailiko baitu Jaunak lurralde honetara. **Elizen arteko biblia**

Bi urte dirau **goseteak** lurralde osoan eta datozen bost urteetan ere ez da hazirik ereingo, ez uztarik bilduko. **Elizen arteko biblia**

Faraoiak izan zuen amets hari esker lortu zuen gizon hark Egipto **gosetetik** salbatzea. **Xabier Aranburu**

**Gosetean** heriotzatik gordeko zaitu, gerratean ezpatatik. **Elizen arteko biblia**

Beste **gosete** bat ere izan zen lurralde hartan. **Elizen arteko biblia**

Bera hil ondoren etorriko zen **gosetea** iragarri zuen. **Askoren artean**

Alde guztietara zabaldu zen **gosetearen** zigorra. **Askoren artean**

**Gosete** Handian (1845-1850) milioi bat irlandar hil zirenean. **Berria - Harian**

**Gosete** -urteak iritsi aurretik. **Elizen arteko biblia**

Ez dute axola mikorik munduak jasaiten duen **goseteaz**. **Herria**

**Gosete** eta izurrite arrisku handiak daude herrialdean. **Berria - Mundua**

Munduko **Gosetearen** Erakundeak. **Herria**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **gosetea** (4); eta **goseteak** (5); eta **gosetean** (3); **gosete handia** (9); **gosetea ekarri** (3); **gosetea izan** (7); **gosetea izan zen** (7); **goseteak eta** (4); **gosetearen kontra** (4); **munduko gosetearen** (3); **zen gosetea** (5)

## goseti 1 *izond* gose dena, gosea.

Ez zen ezer entzuten, txori hoztu eta **goseti** baten hegaldia agian. **Itxaro Borda**

Gustatzen zitzaidan ipurdi-mazela oparo haiek ene sabelpe **gosetiaren** jo-mugatatzat sentitzea. **Itxaro Borda**

Begira nengokien arren, saldoka ateratzen ziren arratoiak, presaka, begi **gosetiez**, haragiaren usainak erakarrita. **Koro Navarro**

Txilardien gainean eltxo **gosetien** hodeiak dantzan ari ziren biraka. kapitala ase ezinezko piztia **gosetia** da, zenbat eta gehiago jan, orduan eta gehiago nahi duena.

**Agustin Otsoa**

Geroxeago, baina, beldurra hazten eta hazten joanen zitzaion, minbizi **goseti** bat bezala bere barrenak karraskatzen. **Alberto Ladron Arana**

## 2 (adizlagun gisa)

Umearen ezpainek titi puntak bilatzen zituzten **goseti**, arrakastarik gabe. **Itxaro Borda**

Herriko plazan kateme bustiak **goseti** bilatzen zituen serial killer baten balizko presentzia imajinatu nuen. **Itxaro Borda**

Eta amuari helduko dio, itxaropentsu eta **goseti**. **Agustin Otsoa**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gose**ti baten (3)

## gose

**gose**(tu), **gose**zten 1 da *ad* goserik gertatu.

Gaztea jateke batera joan beharrean, pasteldendara joaten da **gose**zten denean. **Matías Múgica**

Oso **gose**tu naiz. **Karlos Linazasoro**

Eta **gose**zen zirenean, talo haietan igurzten zutela makinak koipeztatzeke grasa. **Hasier Etxeberria**

**Gose**tuko direnentzat, izanen da ere talo eta xingar. **Herria**

**Gose**tua zen, eta arrain frijituaren usainak urdaila intzirika utzi zion. **Elena Touyarou**

**Gose**turik zegoen eta gauza asko zituen esateko. **Lopez de Arana**

Ez da batere arraroa; kobazulotik **gose**tuta ateratzen dira animaliak. **Berria - Harian**

**Gose**tzeko denborarik gabe ailegatuko dira Passo Furciara. **Berria - Kirola**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Bera asebate ondoren ere, ezin du eraman bere anaia **gose**tuek jatea. **Askoren artean**

Ez zuen inork jan, ezta animalia **gose**tuek ere. **Askoren artean**

Zakur **gose**tua. **Gotzon Garate**

Maistra eder bat ekarri eta esan baligute bezala, [...] bat-batean biluztuko zitzaigula gure begi harritu eta **gose**tuen aurrean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 3 mendeku-gose

Eta Justizia absolutuaren bila dabilena mendeku-**gose**zen da. **Matías Múgica**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gose**tuta (3); **gose**tu bat (5); **gose**tu baten (3); **gose**tu egin (6); **gose**tu egin zen (4); **gose**tu eta (3); **gose**tu zen (3)

## gose

**gose**to 1 *izond adkor* gose

Ezta **gose**to eta ergel horietakoa ere. **Eskarne Mujika**

Eta ni kabinetako **gose**toak baino beroago, neskatxa hauen botetan gora miazkatzeke irrikaz. **Urtzi Urrutikoeetxea**

## 2 (adizlagun gisa)

Eta barre egiten dut, ikustean afari-lagunak **gose**to makurtzen direla, beren jaioterriko soro mehar horietan neronek tiroz akabatu dudan erbi gisatuaren gainean. **Eskarne Mujika**

## gos

**gos**na *iz* lumazko ohea.

Apar zurizko hodei ibiltari, sakon, arin bat ari zen jaisten inguruan, hotsik gabe, eta aparrezko **gos**na lodi gor baten azpian ehorzten zituen geldiro-geldiro. **Josu Zabaleta**

## gos

**gos**natxo *iz* gosna txikia.

Bigungarrien azpian desagerturik zegoen etzan-aulki batean eseri nintzen, eta lumazko **gos**natxo sedaz jantzi horiek eusten, biltzen, jasotzen nindutela iruditu zitzaidan, nire gorputzaren forma eta lekua altzari horretan lehendik markatuak baleude bezala. **Josu Zabaleta**

## gos

**gos**pel *iz* Estatu Batuetako beltzen erlijiozko musika-mota.

50eko hamarkadan **gos**pela eta Rhythm&blues-a uztartzu bide berriari ekin zion. **Berria - Kultura**

Gero **gos**pel piska bat. **Harkaitz Cano**

Countrytik **gos**peletik baino gehiago daukaten kantuak. **Edorta Jimenez**

**Gos**pel doinuaz beteko da Kursaal. **Berria - Kultura**

Horietako gehienak **gos**pel kantuak izango dira. **Berria - Kultura**

Mavis Staples **gos**pel abeslariak. **Berria - Kultura**

Miarritzen, Jondoni Martine elizan, kontzertua **gos**pel gisako kantuekin. **Herria**

Bihar eta etzi ere izango dira **Gos**pel kontzertuak Donostian. **Berria - Kultura**

Baionan, **Gos**pel gaua Santesprietako elizan.. **Herria**

Aratsaldeko 5etan Goswing **gos**pel taldea kantari. **Herria**

Gabonetako **Gos**pel Kontzertuen 6. aldiaren itxiera ekitaldi gisa, emanaldi berezia antolatu dute gaurko. **Berria - Kultura**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta gos**pel (4); **gabonetako gos**pel (3); **gabonetako gos**pel kontzertuen (3); **gos**pel kantuak (3); **gos**pel kontzertuen (6); **gos**pela eta (3)

## gos

**gos**ta

### 1 *gos*ta izan, *gos*tako da *ad ipar* kostatu.

Hiru egun besta eta nolako bestak! Bi miliun euro **gos**ta omen direnak! **Herria**

Obrek 900.000 euro nunbeitan **gos**ta dute. **Herria**

Gostako Portua ainitz **gos**ta dela bainan ainitz ekartzen ere duela herriari, **gos**ta den baino aise gehiago denen buru. **Herria**

Obrak **gos**ta direla 80 miliun, erditsua Baionako hiriaren gain, ez baita guti... **Herria**

Galdetzea ez da deus **gos**ta. **Elena Touyarou**

Joanttori hainbeste nahasmenduren erdian hori izan zitekeela sinistea **gos**ta zitzaion. **Elena Touyarou**

Etsamina bakar bat mila euro **gos**tako da. **Herria**

Bost miliun euro **gos**tako da denetarat. **Herria**

Tresneria horren alokatzeak 250 euro eta 300 euroren artean **gos**tako du. **Herria**

### 2 *gos*taia ik *gos*tatu 2.

Zubi hori 1937an bururatu da lau urte lanen buruan, ordukotz 35 miliun dolar **gos**taia da. **Herria**

Baitezpadakoa ote da tresna horren erreplikatzeara, jakinki eta hamar milioi euro **gostaia** dela Paueko egitura berria? Herria

Hor dago Luhosoko ikuskizun gela hori, hainbeste **gostaia** eta hainbat oihartzun onekoa. Herria

### 3 **gostarik** kostata.

Aski **gostarik** sartu golaren ondotik. Berria - Kirola

Behar-beharrezko puskak aski **gostarik** bilduak. Marzel Etxehandi

Irabazi du Titinek baina ederki **gostarik** Eibarren. Herria

Ontsa **gostarik** bildu esperientzia batek azkarturik. Marzel Etxehandi

Ainitz **gostarik**, zernahi obra badutela ja akulatua. Herria

Ezcurra II Irujo 40-34, **gostarik**. Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ainitz gosta** (6); **deus gosta** (4); **euro gosta** (11); **euro gostaia** (3); **euroz goiti gosta** (4); **gehiago gosta** (6); **goiti gosta** (4); **gosta behar** (4); **gosta da** (4); **gosta dela** (5); **gosta den** (4); **gosta dira** (10); **gosta ere** (5); **gosta gabe** (4); **gosta izan** (3); **gosta zaio** (7); **gostaia da** (5); **gostaia gosta** (28); **gostaia gosta** (28); **gostaia gosta** (3); **gostaia gosta** (3); **gostarik gosta** (5); **miliun euro gosta** (3); **obrak gosta** (7); **obrak gosta dira** (5); **sobera gosta** (3)

**ainitz gostako** (3); **ederki gostarik** (7); **euro gostako** (32); **euro gostako da** (23); **gostako da** (35); **gostako dela** (6); **gostako den** (5); **gostako dena** (5); **gostako dira** (16); **gostarik ere** (3); **gostarik gosta** (5); **hori gostako** (5); **hori gostako da** (3); **horiek gostako** (5); **libera gostako** (3); **mila euro gostako** (3); **milioi euro gostako** (4); **obrak gostako** (4); **obrak gostako dira** (4); **ondo gostarik** (6); **ontsa gostarik** (7); **sobera gostako** (5); **zenbat gostako** (3); **zer gostako** (4); **zer gostako den** (3); **zonbat gostako** (3)

**ainitz gostatzen** (9); **ainitz gostatzen dela** (3); **bat gostatzen** (4); **euro gostatzen** (7); **euro gostatzen da** (3); **gostatzen da** (13); **gostatzen dela** (6); **gostatzen dela eta** (3); **gostatzen dena** (4); **gostatzen dira** (4); **gostatzen ere** (4); **gostatzen zaion** (3); **gostatzen zitzaion** (3); **sobera gostatzen** (5)

## gostaprezio *iz ipar* kostu prezioa.

Ale bakotxa **gosta** prezioan salgai da, 3 euro xoiletan. Herria

**Gosta** prezioa: 20 Euro. Herria

## gostasari *iz ipar* kostu saria.

**Gostasari** hori orai artinokoak baino haundiagokoa dute Errusian, baina ez haatik Amerikanoenarekin parekatzeko hainekoa. Herria

Ondotik, nork edo nork bezpera horien kaseta bat nahi balu, Euskal Kultur erakundearen eskuratzeko ahalago du, **gosta-**sarian. Herria

## gostatu, gosta(tu), gostatzen 1 *ipar* kostatu.

Obrek 440 miliun euro **gostatu** dute. Herria

Zenbat **gostatu** zaion auzapezak daki. Herria

Ezen nork ez daki garraiatzeak biziki **gostatzen** direla? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alta, Rugby mundutik aparte egotea, zernahi **gostatzen** zitzaidan. Daniel Landart

Nahiago dute beren lurretan denetarik poxi bat egin, etxeko doia, kanpotik sobera gauza ekarraz gabe, hain dira **gostatzen**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laboraria ez da kario **gostatzen**: 20 libera pagatu ogian libera bakar bat **gostatzen** da garia. Herria

Obra ederra segur, 637.000 euro **gostatzen** dena. Herria

Itsu-zakur batek haatik ainitz **gostatzen** du: 18.000 euro, hazte eta hezte lan guziak konduan hartuz. Herria

### 2 **gostaia gosta** kostarik kosta.

**Gostaia gosta**, kanpalekuan egon behar zen hori baizik ez zitekeen izan barne hartako guzien gutzia bizia. Marzel Etxehandi

Segurtatuz ahal guziak eginen direla, **gostaia gosta**, gaitz ilun horren kontra. Herria

Capellaneak ere hau ereman, **gostaia gosta**. Herria

Batzutan guti aski baita **gostaia gosta** eraikitakoa purruskarazteko. Herria

**Gostaia gosta** ereman du segurarrak eta bigarren mailean egonen da Apeztegia nafarra. Herria

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gostaia gosta** (28); **gostaia gosta** (3)

**ainitz gostatzen** (9); **ainitz gostatzen dela** (3); **euro gostatzen** (7); **euro gostatzen da** (3); **gostatzen da** (13); **gostatzen dela** (6); **gostatzen dena** (4); **gostatzen dira** (4); **gostatzen zaion** (3); **gostatzen zitzaion** (3); **sobera gostatzen** (5)

## gostu ik gustu.

## gota 1 *iz* tanta-hezueria.

Zainak, orduan, handituarekin puztuta, luzean uzkurto egiten dira, eta hala, artritisa edo **gota** bezalako gaitzak sortzen zaizkie gizakiei. Santiago Iruretagoiena

Erdi itsu, eta **gotak** eta erreumak jota. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

### 2 (arkitekturan) tanta.

Batzuetan izan ditzake mutuluak erlaitzetan eta **gotak** arkitraebetan, estilo doriarrean bezala. Santiago Iruretagoiena

Teniaren azpian eta triglifoen parez pare zintzilik geratzen diren **goten** luzera moduluren seiren batekoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Triglifoekin bertikalean jarrita eta metopen erdian paratuta, bide edo tarteen lerrokatuak eta **goten** ilarak markatuko dira. Santiago Iruretagoiena

## gotaindar (*orobat gotaintar*) *izond/iz* Gotainekoa, Gotaineri dagokiona; Gotaineko herritarra.

Claude Arhanegoiti ene **gotaindar** koinatuak. Txillardegi

Eta **gotaindar** senitartekoak, areago. Txillardegi

Gisèle Lougarot **gotaindarrak** "A l'ombre des passeurs" libürüa aurkeztü dü. Herria

Mezatarra joan gara hiru **gotaintarrok**. Txillardegi

## gotele *iz* paretak margotzeko pintura, tanta txikien tankerako erliebea duena.

Ziegako pareta **gotelez** margotua ziren, eta ez dakit zergatik, baina marrazkiak ikusten nituen, mugitu egiten ziren. **Berria - Euskal Herria**  
**Gotelea** imitatzen zuen paper margotua. **Iban Zaldua**  
Pareta **gotele** purpuraz tindatua. **Aingeru Epaltza**

## gotiko 1 Europan XII. mendetik Berpizkundea arte arkitekturan hedatu zen estiloari dagokiona.

Beherean ate **gotiko** batek hausten du murrua. **Piarres Aintziart**  
Arku zorrotzak, leiho **gotikoak** eta harritzko armarriz zahar bat desagertu zirela. **Edurne Elizondo**  
Eliza **gotiko** baten klaustroa. **Karlos Linazasoro**  
Eliza itxurako eraikin **gotiko** bat. **Ramon Saizarbitoria**  
Rua zaharreko alderdi **gotikoa**. **Txillardegi**  
Orbaitz, adibidez, arkitektura zibil **gotikoaren** adibide nabarmena zen. **Edurne Elizondo**  
Badakigu eliza egile arraroak zirela frantses harginak eta Ipar Espainian anitz eraiki zituztela **gotiko** estiloan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 2 (inprimatze kontuetan)

Letrakera **gotikozko** Wicliif Biblia. **Juan Garzia**  
Barruko papera hizki **gotikoz** idatzia. **Koldo Biguri**  
Kuarta **gotikoko** liburu bereziki bitxi eta jakingarri baten irakurraldi arretatsuan. **Koro Navarro**  
Freistellung vom Wehrdienst oharra, letra **gotiko** urdinetan. ozta-ozta antzematen ziren aurrealde zabalean sei leiho **gotikoak**, binaka hiru bikotetan paratuak. **Anjel Lertxundi**

## 3 (literaturan)

Dekoratu erromantiko hori ez da bakarrik literatura **gotikoaren** oroitzapena. **Koro Navarro**  
Galizian girotutako beldurrezko istorio **gotikoa** kontatzen du. **Berria - Kultura**  
Oskar Santosek istorio **gotiko-**fantastikoa osatu du *El soñador*-en. **Berria - Kultura**

## • 4 iz godoen hizkuntza.

Esaterako, ez zuten inolako beldurrik **gotikoa** aipatzeko, besterik gabe, germanikoari buruz hitz egin behar zutenean. **gotikoa** gainerako dialekto germanikoak baino lehenagokoa zelako; era horretara, **gotikoa**, germanikoaren lekua bereturik, prototipo bihurtzen zen, hau da, beste dialektoen sorburu. **Isabel Arrigain**  
Indoeuropar i-ak iraungo du **gotizkozko** [...] -en, baldintza hau betetzen bada: [...]. **Isabel Arrigain**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eliza gotiko** (7); **gotiko bat** (9); **letra gotiko** (3)

## gotor (ETCn 1.841 agerraldi) 1 izond gogorra, sendoa.

Ur bazterrean iristean harri **gotor** bat hartu zuen, bere zakutxoan eman, eta uretara erorarazi zuen. **Elena Touyarou**  
Antzigar izoztua eta izotz **gotorra**. **Xabier Amuriza**  
Tximiniak, leihoak eta ispiluak burdinsare **gotorrak** zituzten. **Josu Zabaleta**  
Liburu **gotor** horrek baditu 637 orrialde eta erregeen zerranda luzea agertzen digu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**  
Kate batekin eta kandadu **gotor** batekin itxia zegoen. **Fernando Rey**  
Amoniako lurrin **gotor** batek bota zuen atzeraka. **Hasier Etxeberria**  
Zaflako **gotorrak**, arropak, eskolako tresneria eta tresna **gotorrago** batzu (bizikleta, ordenagailu, fotokopiagailu...) dira bildu. **Herria**  
Enpresa **gotorrek**, prezioak hautsiz, kalitu nahi baitzituzten tiki guztiak... **Daniel Landart**  
Han-hemenka, mahaia zeuden kalean bertan zabaldurik, intxaurrekin, xaboiarekin eta xaboiaren antzeko **gozopiltxoekin**. **Gozopiltxoak** egiteko horretan oso ongi moldatzen bainaiz une honetan. **Jose Morales**

## gozopoto 1 *iz* *adkor* gehiegizko gozoa.

Zinismoaren kontra, **gozopotoa**. **Berria - Kultura**

### • 2 (izenongo gisa)

Taldeak kantu-emanaldi **gozopoto** horietako bat eskaini behar omen du Dontsu Etxeko harreragelan. **Anjel Lertxundi**

## gozoro (*ETCn 131 agerraldi*; *orobat gozaro ETCn 7 agerraldi*) *adlag* gozoki. ik **goxoro**.

Eguzkitan **gozoro** dagoen horko sugegorri erdi hil hori. **Anjel Lertxundi**

**Gozoro** hitz egiten zion, ama baten antzera. **Karlos Zabala**

Ahoa **gozoro** hezitzen duen atsegin hori. **Iñaki Seguro**

Gaur eromenak berak ere lasai egin dezake lo kulturaren altzoan **gozoro** etzanik. **Iñaki Seguro**

Aldi gozoa esan dut, zenbait espirituk ez daukatenean arima astindua eta lasaiki eta **gozoro** baliatzen direnean bere ahalmen naturalez. Patxadan **gozoro** egositako eltzetik urrun. **Patxi Altuna**

**Gozoro** eta arrenka agindu zion hegazti txoiari alde egiteko eta Jauna goren jarraitzeko. **Askoren artean**

Ez zuten ulertu bera ez beste gizon baten besoetan zetzala, lo, zoriontsu eta **gozoro**. **Patxi Zubizarreta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artera gozoro** (3); **artera gozoro sartu** (3); **eta gozoro** (7); **eta gozoro erre** (3); **gozoro erre** (3); **gozoro hitz** (3); **gozoro hitz egiten** (3); **gozoro sartu** (3); **moteldu eta gozoro** (3)

## gozotasun 1 *iz* gozoa denaren nolakotasuna. ik **goxotasun**; **eztitasun**; **gozokeria**.

[Azukrea] giza klase baten goitasunaren ikur ez ezik, **gozotasunarena** ere baitzen. **Felipe Juaristi**

Zer den ur freskoaren **gozotasuna**, udan bereziki. **Michel Oronoz**

Ardo horrek **gozotasun** gutzia galduko luke erriaren ahoko mikaztasunarekin. **Joan Mari Lekuona**

Airearen **gozotasun** epelak. **Josu Zabaleta**

Eguraldiaren **gozotasunaz** bustirik. **Felipe Juaristi**

Lilaren larruaren **gozotasuna** falta zuela, haren xerka partitu zen. **Itxaro Borda**

Lisaren **gozotasun** hunkigarriak harrapatu zuen berriz ere. Karlos Zabala  
Sentipen bera nagusitu zait guztietan, **gozotasun** akigarri bat. Josu Zabaleta  
Denak musen **gozotasunez** zipriztindurik. Xabier Amuriza  
Zu zara gure **gozotasun** guztia. Askoren artean  
Ohe atorra jantzita, oinak artile kizkurrezko alfonbraren **gozotasunean**. Karlos Zabala  
-Urdanga halakoa! -oihu egin zuen, **gozotasuna** alde batera utzita-. Karlos Zabala  
Jainkotasunaren samurtasun eta **gozotasun** mugagabea. Patxi Altuna  
**Gozotasunez** begiratu zidan. Koro Navarro  
Senideok, norbait hutsegiteren batean aurkituko bazenute, zuek, Espiritua duzuenok, saia zaitezte halakoa **gozotasunez** zentzarazten. Elizen arteko biblia  
Ezerezaren **gozotasun** hutsalean murgiltzekoa. Mirentxu Larrañaga  
Landu gabeko mahastia ere Jaunaren usain gozoa hedatzen zuten kimuak ematen hasi zen eta, **gozotasunezko** loreak sortuz, ohore eta ontasunezko fruituak eman zituen.  
Askoren artean

## 2 pl

Bizitzako **gozotasun** guztiei uko egitea geure borondatez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio  
Despotismoak une horretan dastatzera ematen dituen **gozotasun** esanezinak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 3 (hitz elkartuetan)

Gerezi beltzek ematen dioten aldibereko garraztasun eta **gozotasun** puntu hori estimatzen diote silesiarrek. Anjel Lertxundi  
Sekulako arima-**gozotasuna** eta Espiritu Santuaren kontsolazioa sentitu zuen. Askoren artean  
Ohearen haur **gozotasuna**. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **gozotasun** (14); eta **gozotasuna** (3); eta **gozotasunez** (6); **gozotasun bat** (4); **gozotasun eta** (7); **gozotasun handi** (3); **gozotasun handia** (5); **gozotasun handiz** (5); **gozotasun hori** (3); **gozotasun hura** (3); **gozotasuna eta** (11); **gozotasunez bete** (3); **gozotasunez eta** (3); **hain gozotasun** (5); **hain gozotasun handia** (3); **haren gozotasuna** (3); **kontenplazioaren gozotasuna** (3); **zuen gozotasun** (3)

## gozotegi iz gozoki denda. ik pasteleria.

Eta **gozotegira** joan ginen hirurok, nire gozokirik gogokoena erostera: kremazko bonba. Juan Kruz Igerabide  
Downes's **gozotegian** sartu zen. Irene Aldasoro  
Biok beheko auzoko **gozotegian** txokolate beroa hartzen ari ginela. Juan Kruz Igerabide  
**Gozotegiko** zorro zuri bat zabaldu zuen. Koro Navarro  
**Gozotegi** bateko erakusleihoa hautsi eta pastelak jaten. Xabier Mendiguren Elizegi  
Ardandegietatik ateratzen ziren likore hatsak, okindegi eta **gozotegietako** putz beroak. Karlos Zabala  
**Gozotegi** -labetik, laneko arropaz, Kako luzea atera zen. Pablo Sastre  
Kafetegi-**gozotegi** honen antzeko lekuetan. Jon Arretxe

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gozotegi batean** (3)

## gozotu, gozo(tu), gozotzen da ad gozo bihurtu. ik gozatu.

Gero euren lursail maitean laborantza berriak probatzen joan ziren eta ikusten nola basa fruituak **gozotzen** ziren. Xabier Amuriza

## gozozale izond gauza gozozale dena.

Jaki zehatz baten dastatzaile **gozozaleari**. Imanol Unzurrunzaga  
Mutiko **gozozale** batek dozena erdi bat meloi mozolori egiten dion sarrera bezalakoa baita nire nagusiak ehun gizon armaturik egiten diena. Patxi Ezkiaga  
Jakina da aristokratak oso **gozozaleak** direla eta goxoki guztiak berentzat gordetzen dituztela. Bernardo Atxaga  
Baina bihurria ere bai, bizkorra eta batez ere triperoa eta **gozozalea**. Pablo Sastre  
Beren **gozozale** gosearen irrikak. Karlos Zabala

## gozozaletu izond gozozale bihurtu dena.

Gutxienez astean behin bisitatzen zuen maistra Jones, nahikoa bizkorturik mahaspasazko ogi bat egiteko Denver **gozozaletuarentzat**. Anton Garikano

## gr iz gramo-ren sinbologia.

Olaizola II.ak eta Ruben Belokik 104 eta 105'7 **gr** bitarteko hiru pilota banatu zituzten saskitik. Berria - Kirola  
Errioxarrak eta Zubirikoak 104'9, 105'1 eta 105'9 **gr** pisatzen duten hiru pilota aukeratu zituzten, horietatik bi larrua itzulita dutenatarikoak. Berria - Ekonomia

## graba iz legarra.

Ibaien ahotan bere baitarik formatzen den harri kozkor edo **grabazko** mihiak mugatzen duen eremu akuatikoa begiratuari. Aurelia Arkotxa  
Berrikitan pintatu bateliku mehar gorri bazter beltzekoa hondartzako **grabaren** gainean zutik pausatua. Aurelia Arkotxa

## grabadora (22 agerraldi, 2 liburutan) iz grabagailua.

Elkarrizketarako **grabadora** prestatzen ari zenean. Unai Elorriaga  
Ordenagailua eta **grabadora** zituelako bertan. Unai Elorriaga

## grabagailu (104 agerraldi, 21 liburu eta 16 artikulutan; ETCn 950 agerraldi) 1 iz hotsak eta irudiak grabatzeko gailua.

**Grabagailuan** hartutako hitzak airean hedatu orduko. Javi Cillero  
Garraioa errazteko, disko-jogailuaren ordez **grabagailua** aukeratu zuen. Oinez itzuli nintzen, koaderno eta **grabagailua** besapean hartuta. Bego Montorio  
**Grabagailua** prestatzen hasi nintzen, kasetea atzera eramanez. Aingeru Epaltza  
**Grabagailua** piztu eta libreta bildu zuen mahai gainetik. Aingeru Epaltza  
**Grabagailua** abian zelako marka. Aingeru Epaltza  
Kulturako erredaktoreak **grabagailu** bati eragiten zion aitzin eta gibel, elkarrizketa bat papereratzin ari. Aingeru Epaltza  
Zortzi pistako **grabagailu** digital bat. Unai Iturriaga  
Telefonora lotzeko **grabagailua**. Bego Montorio

## 2 (hitz elkartuetan)

Nire besapeko **grabagailu** -libretei behakoa egin zien, mesfidati. Aingeru Epaltza  
- Carlos da mezu **grabagailu** bat dudala dakien pertsona bakarra. Bego Montorio

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **grabagailua** (6); **grabagailu bat** (4); **grabagailua eta** (7); **grabagailua piztu** (6); **grabagailua piztu eta** (3); **jonek grabagailua** (3)

## grabaketa (108 agerraldi, 14 liburu eta 68 artikulutan; ETCn 2.552 agerraldi) iz grabatzea; grabatu dena. ik grabazio.

**Grabaketak** egiten jarraitu zuen. Unai Elorriaga  
Preso islamdarrei egiten zitzaizkien **grabaketak** birrindu egiten zituzten PPren agintaldian itzultzaile faltagatik. Iñigo Aranbarri  
Telebista palentziarrean ikusi ditugu **grabaketa** horren irudiak. Jokin Urain  
Jobim-en zuzeneko emanaldiaren **grabaketa** amaitu zen arte. Joxemari Iturralde  
Biltze eta **grabaketa** lan itzela. Berria - Kultura  
Mikrorik, **grabaketa** mahairik, soinu egokitzekorik eta beste teknika lagungaririk ez zegoen garaietara. Berria - Kultura  
Entzuketak, bideo-**grabaketak** etxe miaketak, kondenuatu gabeko fitxategi genetikoak. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **grabaketa** (5); **filmaren grabaketa** (3); **grabaketa bat** (3); **grabaketa horiek** (4)

## grabatu, graba, grabatzen 1 du ad gai gogor batean lanabes puntadun batez marraztu. ikirarri.

Nire aiton-amonak uste dute zura **grabatzen** ikastera joaten naizela. Josu Zabaleta  
Agiri hau brontzezko oholetan **grabatzea** eta santutegiko esparruan agerian jartzea erabaki zuten. Elizen arteko biblia  
[Asurbanipalen bilduma] ez baitzen erraz irarria izan buztin bigunean, harri gogorrean nekez **grabatua** baizik. Iñaki Mendiguren  
Txukun **grabatu** kobreen dilin-dalan etengabea. Itxaro Borda  
Baxuerliebeak **grabatzeko** estilo sumerikoaren berpizkundea. Iñaki Mendiguren  
Metalezko pieza bat, gainazal leuna **grabatuta** zuena. Iñaki Iñurrieta  
Ikurrina **grabatua** duen txiskero bat atera du. Jokin Muñoz  
Labanaz zertxobait **grabatu** nuen aitonaren mahaietan eta, agur esan gabe, etxera etorri nintzen atzera. Jesus Mari Mendizabal  
"Biba Luzaide" **grabatu** zuen nabala batekin Estatu Batuetako baso handi bateko lertxun lerdin batean. Pello Salaburu

## 2 irud

Gutun guztiak memorian **grabaturik** utzi zituen. Bego Montorio  
Ez zen beharrezkoa, ordea, oroimenean **grabatzen** zuen guztia ulertzea. Jon Muñoz  
Oihu zakar hura **grabaturik** gelditu zen Noraren buruan. Anjel Lertxundi  
Enrike IV.a hil eta hiru hilabetera, artean haren lorratzak bere menpeko izandakoan bihotzetan **grabatuta** zeudelarik. Juan Martin Elexpuru  
Beste mutilen aurpegirik ez dudala inoiz edukiko harena bezala nire gogoan **grabaturik**. Josu Zabaleta  
Atea ireki zion emakumearen aurpegian **grabaturik** izularria ikusi zuen. Juan Garzia  
Amodioaren sutan **grabatuak**. Imanol Unzurrunzaga

## 3 disko batean edo euskarri magnetiko batean hotsak edo irudiak ezarri.

Mezua **graba** zezan eskatzeko. Bego Montorio  
Joana Blairekin **grabatutako** elkarrizketa. Antton Olano  
Inoiz ez du diskorik **grabatu**. Pako Aristi  
Eibarrera ere jo zuten **grabatzera**, Arrate irratiara. Iñigo Aranbarri  
**Grabatzeko** tresnekin arazoak izan genituen. Iñigo Aranbarri  
Gizona soinujolea, emazteak poltsa barruan eramaten zuen magnetofonia piezak **grabatzeko**. Pako Aristi  
Ideiak etorri ahala bota eta magnetofonoan **grabatu**. Iñaki Iñurrieta  
Han **grabatuko** zion zinta bat Pepe Andoainek. Koldo Izagirre  
Hirugarren etxean **grabatutako** zinta hartu zuen gero. Unai Elorriaga  
Kontzertua zuzenean **grabatu** zuten, giroa jaso nahian. Berria - Kultura  
Lau musikariek birako zuzenekoak **grabatu** eta disko bat kaleratuko dute. Berria - Kultura  
Kamera ezkutu batekin **grabatzen**. Patxi Iturritegi  
Zine kamara batek eszena filtro gorri **grabatua** balu bezala. Sonia Gonzalez  
Telebistarako film bat **grabatzen** ari ziren. Iban Zaldúa  
Bideo batean **grabatuta** gelditu zen gertatutako guztia. Eduarne Elizondo  
Mugerre hautatua izana zen alabaina iganderoko meza aurkezteko Euskal Telebistan eta hiru igandez **grabatu** dute hemen bere emanaldia. Herria  
Telebistako estudioan, goizean **grabatutako** irudiekin lanean. Anjel Lertxundi  
Telesaio aurrez **grabatu**en asmakuntza. Harkaitz Cano  
Filmeko irudia argazki-irudia da; bideo-irudia, aldiz, euskarri magnetikoan egoten da **grabatuta**. Josu Zabaleta  
Filmeko irudia kolpe batetik **grabatzen** da; bideo-irudia, berriz, elkarren gainean dauden lerro horizontalak bata bestearen ondoren aztertzen dituen eskaneatze elektronikoz erregistratzen da. Josu Zabaleta  
Telefonotik zuzenean **grabatzeko** aparatu bat erosi nuen. Ramon Saizarbitoria

## 4 (era burutua izen izen gisa) gainalde batean formak grabatzeko antzea eta teknika.

Arista bizkaitarrak hainbat diziplina landu ditu bere bizitza luze eta emankorrean; askotarikoak, gainera: **pintura**, grabatua, collage-a, argazkilaritza, arkitektura, zinema...  
Berria - Kultura

**Grabatuaren** teknikan sakonduz. Berria - Kultura

**Grabatu** edo litografia erakusketek. Bernardo Atxaga

## 5 teknika horrekin eginiko lana.

Zurgin lanaz egindako **grabatu** bat. **Grabatu** zuri-beltz batean. Jon Muñoz

Austerlitz eta Marengo-ko bi **grabatu** koloreztatu. Koldo Izagirre

Zeramikazko **grabatuak** zituztenak. Jon Muñoz

**Grabatuetan** irudikatutik zeudenak ziren. Monika Etxebarria

Proiektore batek argituriko **grabatu** klasikoak. Anjel Lertxundi

Ikusirik jarraian Holbein gaztearen herio-dantzako **grabatuak**. Margolanei eta **grabatu**ei begiratzeko eran nabarmentzen baitira ikusleen arteko aldeak. Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**abestiak grabatu** (3); **aurretik grabatu** (3); **bartzelonan grabatu** (3); **bat ere grabatu** (4); **bat grabatu** (19); **bat grabatu zuen** (7); **batean grabatu** (4); **batera grabatu** (3); **batzuk grabatu** (3); **bertan grabatu** (6); **bi disko grabatu** (4); **bi grabatu** (5); **bitartean grabatu** (4); **diska grabatu** (4); **disko bat grabatu** (7); **disko grabatu** (21); **disko grabatu ditu** (9); **disko grabatu zituen** (7); **diskoa grabatu** (23); **diskoa grabatu aurretik** (3); **diskoa grabatu zuenetik** (5); **diskoak grabatu** (9); **diskoak grabatu ditu** (3); **diskorik grabatu** (12); **diskorik grabatu ez** (3); **diskorik grabatu gabe** (3); **elkarrekin grabatu** (3); **ere grabatu** (9); **estudioan grabatu** (20); **estudioan grabatu du** (7); **estudioan grabatu dute** (7); **estudioan grabatu zituzten** (4); **eta grabatu** (15); **etxean grabatu** (3); **ezer grabatu** (4); **gabe grabatu** (3); **garate estudioan grabatu** (3)

**grabatu ahal** (5); **grabatu ahal izan** (3); **grabatu aurretik** (4); **grabatu bat** (12); **grabatu behar** (9); **grabatu berri** (3); **grabatu berria** (4); **grabatu dira** (4); **grabatu ditu** (42); **grabatu ditu orain** (3); **grabatu ditu taldeak** (3); **grabatu dituen** (6); **grabatu ditugu** (6); **grabatu dituzte** (13); **grabatu du** (52); **grabatu du diskoa** (6); **grabatu duen** (6); **grabatu dute** (38); **grabatu dute beren** (3); **grabatu dute diskoa** (7); **grabatu duten** (4); **grabatu duzu** (3); **grabatu edo** (4); **grabatu egin** (10); **grabatu egingo** (5); **grabatu egiten** (4); **grabatu eta** (36); **grabatu ez** (9); **grabatu gabe** (8); **grabatu gabeko** (6); **grabatu genituen** (5); **grabatu genuen** (7); **grabatu horiek** (3); **grabatu nahia** (7); **grabatu nuen** (5); **grabatu ondoren** (3); **grabatu ostean** (5); **grabatu salgai** (3); **grabatu salgai jarriko** (3); **grabatu zen** (5); **grabatu zituen** (41); **grabatu zituzten** (21); **grabatu zuela** (4); **grabatu zuen** (51); **grabatu zuena** (3); **grabatu zuenetik** (5); **grabatu zuten** (44)

**guztia grabatu** (4); **han grabatu** (5); **herrian grabatu** (3); **hiru disko grabatu** (4); **kabuz grabatu** (3); **kantu grabatu** (5); **kantua grabatu** (4); **kantuak grabatu** (9); **kantuak grabatu zituen** (3); **kasa grabatu** (3); **katarain estudioan grabatu** (3); **lana grabatu** (5); **maketa bat grabatu** (3); **musikariekin grabatu** (3); **teknikariak grabatu** (4); **urtean grabatu** (3); **zuen grabatu** (3); **zuzenean grabatu** (7)

**baten grabatua** (3); **ditu grabatuak** (3); **ere grabatuak** (3); **eta grabatua** (5); **eta grabatuak** (5); **grabatua dute** (3); **grabatua eta** (6); **grabatua izan** (5); **grabatuak eta** (10); **grabatuak izan** (3); **grabatuak zituen** (3); **velascoren grabatua** (4)

**bat grabatuko** (9); **bat grabatuko du** (4); **disko bat grabatuko** (7); **grabatuko du** (14); **grabatuko dugu** (4); **grabatuko dute** (4)

**aurretik grabatutako** (5); **bigarren etxean grabatutako** (3); **blairekin grabatutako** (4); **blairekin grabatutako elkarrizketa** (4); **dalmaurekin grabatutako** (3); **dalmaurekin grabatutako elkarrizketa** (3); **dani dalmaurekin grabatutako** (3); **estudioan grabaturiko** (4); **estudioan grabaturiko zortzigarrena** (3); **etxean grabatutako** (5); **euskarrion grabaturiko** (3); **grabaturik utzi** (5); **grabaturiko zortzigarrena** (3); **grabatuta gelditu** (3); **grabatuta geratu** (3); **grabatuta utzi** (3); **grabatutako bideo** (3); **grabatutako disko** (5); **grabatutako diskoa** (4); **grabatutako diskoak** (4); **grabatutako elkarrizketa** (8); **grabatutako kantuak** (3); **grabatutako zinta** (4); **grabatuz gero** (3); **joana blairekin grabatutako** (4); **taldearekin grabatutako** (3); **zuzenean grabaturiko** (3); **zuzenean grabatutako** (8); **zuzenean grabatutako diskoa** (3)

**bat grabatzea** (8); **bat grabatzeko** (18); **bat grabatzeko asmoa** (3); **bat grabatzeko aukera** (4); **bideoan grabatzeko** (3); **bideoz grabatzeko** (3); **disko bat grabatzea** (5); **disko bat grabatzeko** (10); **diskoa grabatzeko** (16); **diskoa grabatzeko aukera** (3); **diskoak grabatzeko** (3); **grabatzeko** (3); **grabatzeari ekin** (3); **grabatzeko asmoa** (10); **grabatzeko asmoa zuen** (3); **grabatzeko asmorik** (3); **grabatzeko aukera** (13); **grabatzeko eskatu** (3); **grabatzeko eta** (5); **grabatzeko ideia** (3); **grabatzeko orduan** (4); **telebistaz grabatzeko** (3); **zuzenean grabatzeko** (3)

**bat grabatzen** (9); **bat grabatzen ari** (7); **baten grabatzen** (3); **berria grabatzen** (4); **berria grabatzen ari** (3); **bideoan grabatzen** (4); **da grabatzen** (4); **dena grabatzen** (3); **dira grabatzen** (3); **disko bat grabatzen** (3); **disko berria grabatzen** (4); **diskoa grabatzen** (9); **diskoa grabatzen hasi** (3); **diskoak grabatzen** (6); **eta grabatzen** (6); **filma grabatzen** (3); **grabatzen ari** (37); **grabatzen ari da** (8); **grabatzen ari dira** (4); **grabatzen ari zen** (3); **grabatzen ari ziren** (3); **grabatzen ditu** (4); **grabatzen duen** (3); **grabatzen dute** (5); **grabatzen eta** (6); **grabatzen hasi** (7); **grabatzen hasiko** (4); **grabatzen nuen** (3); **grabatzen zuen** (3); **grabatzera sartu** (3); **hasi ziren grabatzen** (3); **ziren grabatzen** (3)

## grabatugintza iz grabatuak egiteko jarduera.

Demagun egunean sumatutakoak laburbiltzeko ahaleginak gidatzen duela Klararen **grabatugintza**. Iñaki Iñurrieta

Artistak **grabatugintzan** egin zuen lehen lan serioa izan zen *Le Repas Frugal*. Berria - Kultura

## grabatutxo iz tamaina txikiko grabatua.

Gogoan dut gure etxeko amonaren logelan zegoen **grabatutxoa**. Pello Zabala

## grabatzaile 1 izond/iz grabatuak egiten dituen.

Eta?, berriro ikusi al duzu neska **grabatzaile** hori? Iñaki Iñurrieta

Gabriel Ramos Uranga margolari eta **grabatzailearen** artelan bilduma oparoa. Berria - Kultura

Blake bera ere **grabatzailea** zen, ez dakit dakizun. Iñaki Iñurrieta

Akuafortearen teknika hobetu zuen eta eragin handia ukan zuen geroko **grabatzaileetan**. Koldo Izagirre

## 2 hotsak eta irudiak grabatzen dituen pertsona.

Dokumental bat eginez bideo eta soinu-**grabatzaile** batekin. Pako Aristi

Harekin dozena bat urtez **grabatzaile** jardun zuen; bere grabatueterako naturaren, industriaren edo garaiko artisten lanen motiboak erabili zituen. Pablo Sastre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eta grabatzaile** (3)

## grabatze iz gai gogor batean lanabes puntadun batez marraztea.

**Grabatze** jardunetik, hain zuzen, inporta dena unea da, **grabatzen** ari deneko unea. Iñaki Iñurrieta

Bazegoen lotura bat, kausa-efektuzkoa, paseoetan behatutakoaren eta **grabatze** saioen emaitzen artean. Iñaki Iñurrieta

Beren inkestean egiten ari zirelarik, argazki, marrazki, **grabatze**, neurketa eta abar, teknika berri guziak baliatuz. Michel Oronoz

## grabazio (349 agerraldi, 25 liburu eta 193 artikulutan; ETCn 5.670 agerraldi ) 1 iz grabatzea; grabatu dena. ik grabaketa.

Lanean hasi beharko zuela, **grabazioak** transkribatzen, besteak beste. Unai Elorriaga

Ken ezazu hori **grabaziotik**. Karlos Zabala

**Grabazioa** gordeta daukat, oraindik ere, Sony zinta gorri-beltz zahar horietako batean. Iban Zaldúa

Etxean dudan **grabazioaren** kopia bat egin diat gero Mikeli emateko. Xabier Etxabe

Gerra aurrean, baziren Etxezakortari eta Manuel Gelatxori arbelezko diskoetan Regal etxeak gramolarako eginiko **grabazioak**. Iñigo Aranbarri

Oillagorra elkartean egindako arkume jan batekin ordaindu zitzaizen magnetofoiaren egindako **grabazio** hura. Iñigo Aranbarri

Irratiko kontroletik deitzen zidan **grabaziotarako** beti pronto zegoen nire lagunak. Pello Zabala

Euskal hiztunei azken berrogei urteotan egin zaizkien **grabazioak** digitalizatu dituzte. Berria - Kultura

Ben Websterren **grabazio** zahar bat. Bernardo Atxaga

Egitaraua, kantuaren letra, **grabazioaren** irudiak. Iñigo Aranbarri

Esquerdian, esnatu naizenean, irratia entzuten ari nintzela **grabazio** bat jarri dute. Pako Aristi

**Grabazio** piratak kontatu gabe, noski. Patxi Iturritegi

## 2 (hitz elkartuetan)

Bai hotza eta zentzu gutxikoa egiten zitzaidala **grabazio** lan hori. Pello Zabala

Punta-puntako **grabazio** -estudioa; sekulako kontsola, palanka eta argitxo pila batekin; magnetofono sorta bat; proiektagailu bat; oihalez estaliak hormak; zoruaren gainean, moketa. Jon Muñoz

- Bazuela garai haietako emanaldi baten bideo- **grabazio** zahar bat. Iban Zaldúa

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baina grabazioak** (4); **baten grabazioa** (7); **berriaren grabazioa** (3); **disko berriaren grabazioa** (3); **diskoaren grabazio** (4); **diskoaren grabazio prozesua** (3); **diskoaren grabazioa** (5); **diskoaren grabazioan** (4); **egindako grabazio** (4); **egindako grabazioa** (3); **egindako grabazioak** (8); **eta grabazio** (3); **eta grabazioak** (3); **eta grabazioan** (3); **grabazio bat** (8); **grabazio batean** (7); **grabazio baten** (4); **grabazio egin** (5); **grabazio egin ditu** (4); **grabazio prozesua** (3); **grabazio zahar** (5); **grabazioa egin** (4); **grabazioa ez** (4); **grabazioak egin** (4); **grabazioak egitera** (3); **grabazioak ere** (4); **grabazioaren hasiera** (3); **hainbat grabazio** (6); **hainbat grabazio egin** (3); **zituen grabazioak** (3)

## grabaziotxo *iz adkor* grabazioa.

Eta honela, presiorik gabe, kantua jotzen hasi ginen lasai-lasai, **grabaziotxo** bat egin, hura entzun, eta berehala ikusi genuen bertan bazegoela Hiru Truku-ren estiloa eta area. Berria - Kultura

## grabe 1 *izond* larria.

Oso **grabea** duk gero arma zerbitzua horrela uztea. Iñaki Iñurrieta

Araza sobera **grabea** baitzen. Daniel Landart

Beren misioaren seriotasunaz jabeturik, afera biziki **grabe** baten epaitzera abian balire bezala. Filipe Bidart

Maitemintzea bezain **grabea** duk poemak egiten hastea. J.M. Olaizola "Txiliku"

400 milioi ume eta andre kutsadura horren azpian bizi dira, eritasun **grabeak** hartzeko arrisku handiarekin. Pello Salaburu

## 2 apala.

Esatariaren ahots **grabea** gero: [...]. Anjel Lertxundi

Didjeridua, jatorrian, termitek zulatutako eukaliptoeko enbor huts bat da, eta zulotik putz eginda soinu **grabe** bat sortzen du. Berria - Kultura

Erregistro **grabe** eta erdikoetan. Berria - Kultura

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**grabea da** (3); **oso grabea** (3)

## grabetasun *iz* larritasuna; seriotasuna.

Finezia handiz jokatu zuten dramatikoak izan zitezkeen solasa eta delirio une batzuekin irriari bide eman, gaiaren **grabetasuna** nehoiz saihestu gabe, baina atmosfera gozoa sortuz. Herria

Gutun hura, inoiz idatzi dizuten gutunik ederrena, hitzen arkitekturan, sentimenduen **grabetasunean**. Eider Rodriguez

## grabido *izond* zamatua.

"Utero **grabidoa**" zegoen idatzita. Joseba Urteaga

"**Grabido**" hitza irakurtzen nuen lehenbiziko aldia zen, ez nuen atsegin. Joseba Urteaga

## grabioi *iz* \*\*

Epaiketei buruz datorrena ondo uler dadin, esango dut kondearen, **grabioiaren** eta zenturioiaren betebeharrak berberak zirela. Iñaki Iñurrieta

Baina normahik zuelarik ere jurisdikzioa -erregeak, kondeak, **grabioiak**, zenturioiak, jaunek, elizgizonek-, inoiz ez zuten bakarrik epaitzen. Iñaki Iñurrieta

## grabitate 1 *iz* lurra gorputzetan eragiten duen erakar-indarra.

**Grabitatearen** legeen aurkako erronka. Xabier Olarra

**Grabitatearen** indarraren kontra odola birika-erpinera -hamabost zentimetro inguruko distantzia bertikala- eramateko. *ik beherago* 3. Irene Aldasoro

Bihotzaren ponpaketaren eta **grabitatearen** eraginaren konbinazioari esker iristen da odola oinetara. Irene Aldasoro

Giza gorputzaren **grabitate** espezifikoa. Koro Navarro

Bertikala [...] **grabitatearen** eta zutiko egoeraren noranzkoa da. Gauzak bertikalean erortzen ikusten ditugu, alde batetik, eta **grabitatea** geure gorputzetik igarotzen ere sentitzen dugu, gainera. Josu Zabaleta

Gorputzen **grabitatea** ez dela pisu-kopuruaren araberakoa izaten. Santiago Iruretagoiena

Zenbateko indarra behar den bala erraldoi barne-huts bat Lurraren **grabitate** ateratzeko. Karlos Zabala

Elektromagnetismoaren eta **grabitatearen** arteko harreman matematikoa aurkitu nahian. Berria - Harian

**Grabitaterik** gabeko ingurunera. Berria - Gaiak

Zero **grabitatea**, zero dentsitatea. Berria - Kultura

- Horiek Neptunoren **grabitatearen** eraginez harrapatutako asteroideak izan daitezke. Berria - Gaiak

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **grabitorio**.

**Grabitate** legeetatik askatu beharra dago. Berria - Kultura

Egunerokotasun astunaren **grabitate** esparrutik kanpo. Joan Mari Irigoien

**Grabitate-uhinak** antzemateko gai den ontzia eraikiko du ESAK. Berria - Gaiak

Uhin elektromagnetikoak ez bezala, **grabitate-uhinak** oso ahulak dira. Berria - Gaiak

Tristura, osteria, oso astuna da, **grabitate** legearen konplizea da. Joseba Sarrionandia

**Grabitate** -azelarazioaren ahalik eta zehatzen kalkulaztea eta hura numero zehatz batez ematea. Joan Mari Irigoien



**Grabitate** ezaren grabitate sentituko buruan Martak. **Harkaitz Cano**  
Espaziontzietan **grabitate** faltagatik edalontzietatik ihes egindako isurkariak bezala. **Mikel Hernandez Abaitua**

### 3 grabitate indar

Leku horietan sateliteak ia ez dira mugitzen, Lurraren eta Eguzkiaren **grabitate** indarrak leku berean mantentzen dituelako. **Berria - Gaiak**

Eredu Estandarra **grabitate** indarrarekin bateratzea zen Albert Einsteinek bete gabe utzi zuen ametsa. **Berria - Gaiak**

**Grabitate** indarra garaituz gero. **Joan Mari Irigoien**

Baina politikoki baturiko azpi-kontinente baten **grabitate** -indarra azkenean aski indartsua gertatu zen britainiar Indiako gobernu zentralaren egoitza Kalkutatik Delhira eramateko. **Iñaki Mendiguren**

**Grabitate** -indarraren antzekoa da gure ongizateari tiraka ari dena. **Juan Martin Elexpuru**

### 4 grabitate zentro

Gorputzaren **grabitate zentroa** ezari-ezarian desplazatzen da higidura emearekin batera. **Iñaki Iñurrieta**

Zentro geometrikoa, ikusmeneko **"grabitate-zentroa"**, konposizioaren bigarren mailako zentroak. **Josu Zabaleta**

Seigarren menderako Irlanda argi eta garbi kristautasunaren **grabitate-zentroa** zen Mendebaldean. **Iñaki Mendiguren**

Mundu-ekonomia kapitalistaren **grabitate-zentroa** lekuz aldatuz joan da. **Koro Navarro**

Europako **grabitate-zentroaren** lekualdatzea. **Koro Navarro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta grabitatearen** (5); **grabitate espezifiko** (5); **grabitate indarra** (8); **grabitate indarraren** (5); **grabitate uhinak** (5); **grabitate zentroa** (18); **grabiterik gabeko** (3)

## grabitorio *izond* grabitatearena, grabitateari dagokiona. ik **grabitate 2.**

Lurraren eremu **grabitorioan**. **Patxi Iturritegi**

## grabitatu, grabita, grabitatzen du *ad* zerbaiten inguruan higitu.

Beste batzuetan barbaroak izaten dira, zibilizazio batetik, zinetarantz **grabitazen** baitute beraiek, moralki alienatuak: beste era batera esanda, kanpo-proletalgo bat. **Iñaki Mendiguren**

## grabitazio *iz* gorputzen eta bereziki argizagien arteko elkar erakarmen unibertsala.

Bertikaltasuna, batez ere, gure esperientziak, **grabitazioaren** bidez, bertatik ematen digun datu bat da. **Josu Zabaleta**

**Grabitazioaren** aldaketen neurketak. **Joseba Sarrionandia**

Newton, **grabitazioaren** sekretua bereganatu zuenean [...]. **Fernando Morillo**

Newton-en **grabitazio** unibertsalaren printzipioaren sendotasuna. **Iñaki Heras**

Gertaera hori [...] izarrei hobeto zegokien erregulartasun batez errepikatzen zen, **grabitaziozko** gertaera bat balitz bezala. **Josu Zabaleta**

Azelerazio eta **grabitazioaren** artean nolabaiteko erlaziorik bazela egiaztatu zuen fisikari alemaniarrek. **Berria - Gaiak**

### 2 (hitz elkartuetan) ik **grabitazional.**

Ontzia Lur planetaren eta Marteren **grabitazio-eremuez** baliatuko da kometara iristeko behar adina indar hartzeko. **Berria - Gaiak**

**Grabitazio** -asuntu bat. **Joxe Austin Arrieta**

## grabitazional *izond* grabitazioarena, grabitazioari dagokiona. ik **grabitazio 2.**

Mekanika **grabitazionala** ere ez zen. **Fernando Morillo**

Egunerokotasunaren indar **grabitazionalari** esker. **Joan Mari Irigoien**

## gradazio *iz* mailaketa.

Gauzak progresiboki gertatzen joan ziren, monotonia itsuan, poliki-poliki, **gradazio** logiko baten barnean. **Karlos Linazasoro**

Edo eskola hastean erabil bedi tokiko hizkera, tokiko hizkera batua, nahiz **gradazio** batean gero eta gehiago erabiliiko den batua. **Pello Salaburu**

**Gradazio** moduko bat aurkitzen dugu hiru deituren artean: goardiano-kustodio-ministro. **Askoren artean**

## gradiente *iz* tasun fisiko baten aldaketaren zenbatekoa norabide jakin bateko bi punturen artean.

Zenbat eta presio- **gradiente**a pikoagoa izan, orduan eta haize latzagoa. **Pello Zabala**

HOM gene sail horrek **gradiente** bat ezartzen du animalien aurre-atze ardatzean zehar. **Juan Garzia**

Oroitzapen horiei dagokienez, ez zegoen eten zorrotz bat, baizik eta denbora- **gradiente** bat, eta, hala, 1966 eta 1967ko gertaerak osorik zeuzkan gogoan, 1968 eta 1969koak partez edo tarteka, eta 1970etik aurrerakoak, berriz, ia erabat ahaztuak. **Xabier Olarra**

Ehunduren erretina gainerako proiektzioak irudi-ehunduraren aldakuntza progresibo bat erakusten du: teknikoki **gradiente** deitu ohi zaiona, hain zuzen. **Josu Zabaleta**

Aldaera hauetan garrantzizkoenetako bat argiztapen- **gradiente**a da, gainazal batek bere kurbaturaren eraginez izaten duen argiztapen-aldaera progresiboa. **Josu Zabaleta**

Aurrerantz mugitzen garenean (autoz, esate baterako) ikuspen-eremuaren aldaketa etengabeak halako fluxu gisako bat eragiten digu erretinan, aldakuntza- **gradiente** jarraitu bat. **Josu Zabaleta**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gradiente bat** (3)

## gradina *iz*

Bestalde, ikusle kopurua emendatu nahi dute hagen gibelego partetan **gradinak** ezarriz. **Herria**

## gradu (*ETCn 13.818* agerraldi; *orobat grado ETCn 459* agerraldi) **1** iz maila.

Gizonaren duintasunari, bere nazionalitate, bere arraza, bere erlijio, bere sexu, bere **graduaren** gaitetik zor zaion errespetua. Piarres Xarriton

Eta gizakiaren goren **gradua**, jakina, gizaki modernoa da. Joxerra Garzia

Lehen **gradu**ko lehengusu-lehengusinen arteko ezkontzen debekuak ere jatorri berbera du. Iñaki Iñurrieta

Lehen **gradu**ko zartadura bat da, eta sendagileen kontrolpean dago. Berria - Kirola

Sudurrean bigarren **gradu**ko izotzu arinak ditu, eta eskuetan ez du sentimenik. Berria - Kirola

'Zakur hauek argiak dira, gainera,' dio Arantxak, 'gradu bat baino ez zaie falta pertsona izateko'. Joseba Sarrionandia

Oharraren ondorio zuzena ateratzeko ez zen bigarren **gradu**ko logikarik behar. Bernardo Atxaga

Ihes egitea lehen **gradu**ko falta da, espetxe arauen arabera, eta 45 eguneko zigorra jaso dezake. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkatuetan)

Eta zeremonien kate nahasi honetan, handienetik tikienera, agerienetik gordeenera, **gradu** kontua besterik ez doa. Patziku Perurena

**Gradu** kontua izango da, beharbada, baina nik behintzat argi eta garbi daukat alde dagoela batetik bestera. Joxerra Garzia

- Nolabaiteko onarpen **gradu**ko adierazten du horrek epigonoen aldetik. Juan Garzia

Frankoen artean hiritar-**gradu**ko bakarra zegoela. Juan Martin Elexpuru

Herritarren erdiari giza **gradua** ukatzen dioten sasi-festetan Tximino imitatzaile **gradutik** ez da pasa amerikarra. Joxerra Garzia

Erabateko oklusioari dagokion irekidura **graduarekin**. Isabel Arrigain

Heldutasun-**gradu**ko hori ere iritsi genuen, urtebeteko atzerapenarekin bada ere. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (armadan) ik graduazio.

**Gradu**ko militarrez horniturik daude hartan enplegatutakoak. Karlos Zabala

Militarrak iritsi zitezkeen eta **gradurik** gorenera iritsi zen. Edorta Jimenez

14-eko gerla egin zuen burutik buru, **gradoz** beti goiti joanez eta zortzi ohorezko aipamen ardietsiz. Herria

Helduentzat kurtsuak antolatzen dituela euskaraz jabetzeko, sei **gradu**ko desberdinetan. Herria

Santiago anaia, berriz, ikasle izan arren, Komandante **gradura** iritsia zen, omen. Txillardeggi

Utziko dut alde batera zer egin duen armadan eta nola hupatu den jeneral **gradora**. Herria

## 4 (unibertsitatean)

**Gradu**ko ikastaroak gaur egungo karreraren antzekoak izango dira, baina hiru urtekoak. Berria - Harian

Gainera, orain arte alde handia izan da **gradu**ko eta graduondoko ikasketen artean. Berria - Euskal Herria

Doktore **gradua** lortu ondoren. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Osunako unibertsitatean hartua dut irakasle **gradua**. *ik beherago* 10. Patxi Ezkiaga

## 5 (espetxeetan)

85 preso 2. **gradutik** 1. **gradura** pasatu zituzten. Berria - Euskal Herria

Manu Azkarate presoari hirugarren **gradua** ematea erabaki du Javier Gomez Bermudez Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraleko epaileak.

Hirugarren **gradurik** ez nuela nahi erran nion. Edurne Elizondo

Gelditzen zaion espetxe zigorra hirugarren **graduan** betetzea. Berria - Euskal Herria

Gainera, hirugarren **gradua** ezartzen zaio presoari. Berria - Euskal Herria

## 6 angelu zuzenaren 90ena.

Hirurogei-laurogei **gradu**ko arkuak osatuz. Karlos Zabala

Ostertzari buruz berrogeita bost bat **gradu**ko angeluan makurtua. Koro Navarro

Izotz eta harkaitz zorrotzez osatutako terreno mistotik ibili eta gero, zenbait unetan %55-60 **gradu**ko makurduraz, hego-bizkarrera ailegatu nintzen. Josetxo Azkona

Hego latitudeko hamalaugarren **gradu**ko inguruan. Iñaki Iñurrieta

Ipar latitudeko laugarren **graduraino** eta longitudeko hamabosgarrenaren iritsi balira. Iñaki Iñurrieta

Ipar latitudearen 80 **gradutan** nago. Joxean Agirre

Septentrioaren aldera hirurogei **gradu**ko eta minutu batzuetako alturan. Aurelia Arkotxa

Iparorratzaren **graduak** izan daitezkeela bururatu zaidak oraintxe bertan. Bernardo Atxaga

2,5 metroko zabalera du bideak eta 90 **gradu**ko bihurgune itxi bi. Berria - Kirola

- 365 **gradu**ko bira egin dugu, Frankismotik hasi eta Frankismora itzuli garelako. Berria - Euskal Herria

Euskararen normalizaziorako politikan «180 **gradu**ko aldaketa» egitea exijitu zion IU-NEBk Nafarroako Gobernuari. Berria - Euskal Herria

## 7 neurri eskala bat banatzen den zatietako bakoitza. (tenperaturan)

Beruna 335 **graduan** urtzen da. Monika Etxebarria

Uraren tenperatura **gradu**ko bat igotzeko behar den beroa. Irene Aldasoro

3.015 **gradu** Kelvin, beraz, 2.741,84 °C (**gradu**ko zentigrado) dira. Fernando Morillo

102 F **gradu**ko tenperaturarekin. Joseba Sarrionandia

Tenperatura zero **gradu**koa, eguraldia hotza eta gardena. Joseba Sarrionandia

Elurra eta izotza, emezortzi **gradu**ko uts azpitik, eta antxe gau eta egun. Xabier Etxabe

Itsasoko uraren tenperatura 2 **gradu**koa izanena da, zeropetik. Joseba Sarrionandia

Hango tenperatura ez da zero **gradutik** behin ere altxatzen. Bernardo Atxaga

Gau osoan eduki gintuen kanpoan zutik, hogueiren bat **gradu**ko zeropean, hor nonbait. Koldo Izagirre

Maiz ikusi dinat Siberiako estepetan tenperatura zero azpitik berrogei **gradu**ko erortzen! Karlos Zabala

Hogei **gradutik** gorako tenperatura. Berria - Euskal Herria

Hogoita bat-garren mende hau bururatu baino lehen, [Lurra] gutienetik **grado**ko batez berotuko dela aintzina, beharbada bizpahiruez, batzuek diotelarik bost **gradoko** berotzea ere gertatzen ahal litakeela. Herria

Laugarren egunean, kalentura ia 40 **gradu**koa izango du eta beldurtu egingo zara. Joseba Sarrionandia

- Horrek **graduren** batez epeldu zuen erakutsi nahi nion hoztasuna. Aingeru Epaltza

## 8 (zenbakiz neurtzen diren bestelakoetan)

Gure ardoa, hamazortzi **gradu**koa, Mañerutik iritsi berria zen. Edorta Jimenez

Sagarnok ez du sei **gradu**ko alkohol pasatzen. Herria

Ez edozein trago gainera, **gradu**ko alkoholikoan gorantz samar zihoazen edarietak baizik. Joxemari Iturralde

2,3 **gradu**ko lurrikara gertatu zen atzo arratsaldean Nagoren. Berria - Euskal Herria

4,5 **gradu**ko lur mugimendu batek Nafarroa astindu du. Berria - Euskal Herria

Urria: Richter eskalan 4,5 **gradu**koa, Iruñean. Berria - Euskal Herria

Richter eskalako 3,8 **gradu**ko lur mugimendu bat izan da Lizoainen. Berria - Euskal Herria

## 9 gradu areto unibertsitateetan-eta, gradua hartzen den aretoa.

**Gradu**ko aretoa sartutakoan. Berria - Euskal Herria

Horixe bera egiaziak zuten Miriamek **Gradu** Aretoa botoak hartzeko ipinitako mahaiari. **Berria - Euskal Herria**  
EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko **Gradu**- Aretoa. **Berria - Euskal Herria**

## 10 **gradua(k) hartu** irakaskuntza titulu jakin bat, bereziki doktorearena, lortu. ik **graduatu 2**.

Oregongo Unibertsitatean **gradua** hartu ondoren, 1924ean San Franciscoran joan zen bizitzera eta publizista lanak egin zituen. **Ramon Etxezarreta**

Gizon eskolatua zen hau eta Siguenzan **graduak** hartua. **Patxi Ezkiaga**

Betor bere bizibideko **graduak** hartzeko eguna eta ordua, betor borroka-eguna alegia, eta hantxe ipiniko diote kasko gainean borla, hari-xortaz egina. **Patxi Ezkiaga**

Osunan **graduak** hartua, alde egin ezazu nire aurretik. **Patxi Ezkiaga**

- Horratx, nonahiko jendaje arrotzak, [...] "vecino" **gradua hartzeko** bete behar zuten baldintzetako bat: gutxienez hamairu azaburuko baratzea ukan. **Patziku Perurena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arte**an hiritar **gradu** (5); **baino bi gradu** (3); **bat gradu** (9); **berrogei gradu** (7); **beste gradu** (5); **bi gradu** (12); **bizpahiru gradu** (6); **bost gradu** (10); **da gradu** (4); **eta gradu** (14); **gradu aldaketak** (4); **gradu aretoa** (5); **gradu artean** (3); **gradu arteko** (3); **gradu baino** (13); **gradu baino gehiago** (5); **gradu bakarra** (5); **gradu bakarra zegoela** (3); **gradu bakarrik** (3); **gradu bat** (20); **gradu bat zeropetik** (3); **gradu batean** (5); **gradu batean bai** (3); **gradu batekoa** (4); **gradu baten** (5); **gradu batez** (3); **gradu daude** (4); **gradu egiten** (4); **gradu eta** (19); **gradu eta graduondoko** (3); **gradu eta minutu** (3); **gradu gehiago** (4); **gradu gutxiago** (4); **gradu handiagoan** (3); **gradu handiagoan edo** (3); **gradu harrapatu** (5); **gradu igo** (4); **gradu ikasketak** (3); **gradu inguru** (5); **gradu inguruko** (7); **gradu inguruko temperatura** (3); **gradu izan** (5); **gradu izan zituen** (3); **gradu jaitsi** (3); **gradu markatzen** (5); **gradu ondoko** (6); **gradu titulua** (4); **gradu zero** (12); **gradu zero azpitik** (11); **gradu zeropetik** (5); **gradu zeuden** (3); **hamabi gradu** (4); **hamaika gradu** (3); **hamar gradu** (9); **hamar gradu zero** (3); **hemezortzi gradu** (3); **hiritar gradu** (5); **hiritar gradu bakarra** (4); **hiru gradu** (6); **hogei gradu** (6); **hogeita hamar gradu** (5); **lau gradu** (5); **maila eta gradu** (5); **orokortasun gradu** (3); **temperatura gradu** (6); **zazpi gradu** (7)

**bere gradua** (3); **bigarren graduan** (4); **doktore gradua** (5); **eta graduak** (4); **eta graduan** (3); **galindori hirugarren gradua** (3); **goren gradua** (3); **goren graduan** (3); **gradua eman** (4); **gradua ematea** (6); **gradua eskuratzeko** (3); **gradua lortu** (5); **gradua lortzeko** (4); **gradua onartu** (3); **graduak eta** (5); **graduak ez** (3); **graduak hartua** (3); **graduan izan** (3); **hirugarren gradua** (31); **hirugarren gradua eman** (3); **hirugarren gradua ematea** (5); **hirugarren gradua eskuratzeko** (3); **hirugarren gradua onartu** (3); **hirugarren graduan** (13); **lehen gradua** (5); **lehen graduan** (5); **lehenengo gradua** (3); **ohiari hirugarren gradua** (3); **teniente gradua** (3); **zigorra hirugarren graduan** (3)

**bi gradu** (3); **bigarren gradu** (7); **bost gradu** (4); **goren gradu** (3); **gradu** (3); **gradu angelu** (3); **gradu** (4); **gradu beroa** (3); **gradu bira** (4); **gradu hozberoa** (3); **gradu indarra** (3); **gradu indarra izan** (3); **gradu lur** (3); **gradu lurrikara** (18); **gradu lurrikara gertatu** (3); **gradu lurrikara izan** (8); **gradu lurrikaran** (3); **gradu magnitudea** (3); **gradu moduluan** (3); **gradu mugimendua** (3); **gradu temperatura** (8); **gradu temperaturan** (5); **gradu temperaturarekin** (5); **gradu da** (10); **gradu dela** (6); **gradu izan** (9); **gradu izan zen** (6); **gradu izanzen** (3); **hamar gradu** (4); **hiru gradu** (3); **lau gradu** (3); **laurogei gradu** (4); **lehen gradu** (11); **lehen gradu moduluan** (3); **zero gradu** (3)

**bere goren gradura** (3); **goren gradura** (7); **goren gradura iritsi** (3); **gradura igo** (3); **gradura iritsi** (9); **gradura iritsi zen** (5); **gradura jaitsi** (7); **gradura pasatu** (5); **gradura pasatu dituzte** (3); **graduraino iritsi** (3); **graduraino jaitsi** (3); **graduraino jaitziko** (3); **gradurako eta** (3); **graduren alde** (3); **gradutik behera** (3); **gradutik gora** (8); **gradutik gorako** (8); **hamar gradutik** (3); **lehen gradura** (5); **lehenengo gradura** (3); **zero gradutik** (4)

**eta grado** (4); **grado handiko** (5); **grado itzalean** (3)

## gradual *izond* mailaz mailakoa.

Munduaren aldaketa ez dela **graduala** izan: Obaba bezalako leku ez printzipaletan behintzat gutxiago aldatu zirela gauzak Jesusen jaiotzatik telebista azaldu arte -bi mila urteetan- telebistaz geroko berrogeita hamarretan baino. **Bernardo Atxaga**

## gradualista *izond* gradualtasunaren aldekoa.

Ikuspegi **gradualistaren** eta "jauzilaria"ren arteko eztabaidak luzaroan iraun zuten. **Askoren artean**

## gradualitate (*ETCn 6 agerraldi*) iz gradualtasuna.

Prozesuaren **gradualitatea** onartuta. **Berria - Euskal Herria**

## gradualki *adlag* mailaz maila, mailaka.

Plastikaren azterkizuna ez baita, izan ere, elementu diskretuz, etenez erazten diren sistemak, *continuum* bat baizik, progresiboki, **gradualki** aldatuz doazen elementuak baizik. **Josu Zabaleta**

Mailaka, **gradualki**, helduen ahoskeran gertatzen ez diren bilakabideak mugatuz joaten gara. **Lourdes Oñederra**

Handik aurrera, eta **gradualki**, Brown jaunaren anatomiako hainbat atal joan zen aldatzen, guztiz beste gizon bat bilakatzeraino. **Karlos Linazasoro**

Urtarriletik martxora itxiko duela, **gradualki**, Soralezuko fabrika. **Berria - Ekonomia**

## gradualtasun (*ETCn 8 agerraldi*) iz graduala denaren nolakotasuna. ik gradualitate.

[Zeinu plastikoaren] **gradualtasuna** eta haren materialtasuna bereiztea. **Josu Zabaleta**

## graduatu, gradua, graduatzen 1 du *ad* zerbaiti gradu egokia edo dagokion gradua eman.

Ongi **graduaturik** baldin badago, puntu gorri hori da balak joko duen leku zehatza. **Pako Aristi**

Termometro eta manometroen koadranteak ez zeuden **graduaturik**: kolorezko zeinu konbentzional batzuk besterik ez zeramaten. **Juan Garzia**

Termostatoa 800°C-ra **graduaturik**. **Juan Garzia**

### • 2 da *ad* ikasketa-titulu jakin ba lortu; bereziki, doktorearena. ik **gradu 10**.

EEBBetara itzulita Harvard Unibertsitatean **graduatu** zen 1916an. **Lopez de Arana**

Sendagileak behartuta daude ikasketak egitera eta **graduatzera**. **Iñaki Iñurrieta**

Hogeita hamahiru urterekin ikasgai bat gainditzea falta zuten **graduatzeko**: gogokoen zuena, hain zuzen. **Juan Garzia**

Angie O'Connor-ek, urte pare bat lehenago komunikabideetan **graduatu** unibertsitatean. **Iñaki Zabaleta**

- Gazteak eskoletarik **graduatzan** diren zeremonia berezietan. **Herria**

### 3 (era burutua izenondo gisa)

Betaurreko beltz **graduatu**en artetik. **Aingeru Epaltza**

### 4 (era burutua izen gisa)

Massachusetts Institute of Technology (MIT) unibertsitatetik atera diren **graduatuak** hartuko bagenitu. **Pello Salaburu**

George Mason Unibertsitateko **Graduatuentzako** Hezkuntza Eskolako dekanoa. Harvardeko Hezkuntza **Graduatu** Eskolan. **Berria - Gaiak**

50 urteko etxeko andreak lehen titulua lortu zuen: eskola **graduatu**a. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eskola graduatu**a (4); **graduatu zen** (6)

# graduazio 1 iz graduatzea, gradua hartzea.

Kontuan hartzen da zenbat ikaslek egiten dituzten ikasketak kalkulaturako urteetan (egiazko **graduazio** tasa) **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

## 2 betaurrekoetan eta, zuzentze gradua.

**Graduaziorik** gabeko betaurreko beltzak jantzen zituen. **Lutxo Egia**

## 3 (militarrena) gradua, maila.

Hor segitzeko berarena baino **graduazioa** handiagoa behar zen. **Edorta Jimenez**

Soldadu gutxi batzuk baino ez nituen ikusi, **graduazio** ertainekoak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Militar **graduazioan** gora eginez, Alderdi Komunistaren aupadaz beti ere. **Edorta Jimenez**

## 4 gradazioa, mailakatzea.

Idazlanen artean badagoelako egon **graduazio** nabarmen bat. **Askoren artean**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**graduazio tasa** (3); **graduaziorik gabeko** (3)

# gradudun iz gradua hartu duena.

Handik lau urtera armada utzi zuenean, **gradudunez** beherako zenbait kreditu eskuratu zituen Chicagoko De Paul unibertsitatean. **Oskar Arana**

**Gradudunentzako** eskola utzi eta New Yorkera itzuli zenez geroztik. **Oskar Arana**

Tom eta bere **gradudun** -ikasketetako lagun pare batek. **Oskar Arana**

**Gradudun** titulurik gabeko gaxte bat nintzen orduan. **Oskar Arana**

# graduondo 1 iz gradua hartu ondoko ikasketak

Hiru **urte** gradurako eta bi **urte** graduondorako. **Berria - Euskal Herria**

## 2 graduondoko<sup>1</sup> izond gradua hartu ondokoa

Gainera, orain arte alde handia izan da gradu eta **graduondoko** ikasketen artean. **Berria - Euskal Herria**

Abenduan argitaratuko dira graduko eta **graduondoko** titulazioei buruzko aginduak. **Berria - Euskal Herria**

## 3 graduondoko<sup>2</sup> iz gradua hartu ondoko ikasketa

Bi ikasketa maila nagusi izango dira: bata, gradua eta bestea, **graduondokoa**. **Berria - Euskal Herria**

**Graduondokoek** edo masterrek garrantzia handia hartuko dute. **Berria - Harian**

Ekonomia eta Ingurumen Kudeaketa **graduondokoa** egin zuen Erresuma Batuan. **Berria - Euskal Herria**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta graduondoko** (6); **gradu eta graduondoko** (3); **graduondoko ikasketen** (5); **graduondoko titulu** (3)

# grafema iz hizkuntza sistema grafiko bateko banako txikiena eta zatiezina.

Orain arte ez da sekula soinu horiendako **grafema** berezirik asmatu, **Koldo Zuazo**

# grafeno iz

Errusia eta Erresuma Batuko zientzialari talde batek asmatu du eta **grafeno** izena eman dio.

**Grafenoa** erabilita gai sendo, malgu eta egonkorrak sortzea egongo dela gaineratu zuten atzo. **Berria - Gaiak**

# graffiti ik grafiti.

# grafia iz hots edo hitz bat adierazten den ikurra edo ikur multzoa. ikidazkera.

Baina **grafiaren** eta ebakeraren arteko harmonia horrek ez du irauten. **Isabel Arrigain**

Frantses **grafian** dago idatzita ate gainean, Café. **Lourdes Oñederra**

Erdal **grafiaz** ageri da, Urquiza. **Iñigo Aranbarri**

**Grafia** arrotzez transkribatu dituzte gure izenak. **Iñigo Aranbarri**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erdal grafiaz** (4); **grafia eta** (3); **grafiaren eta ebakeraren** (3)

# grafika iz irudikapen grafikoa. ik grafiko 3.

Oteizak **grafika** eta idatziak asko zaindu zituen. **Berria - Kultura**

Segidan idatzi zuena erakutsi zidan, eta sukar-**grafika** zirudien marradun paper moduko batean irakurri nuen: "Kewischtjerd". **Urtzi Urrutikoetxea**

# grafikagintza iz arte grafikoak.

Bizkaiko **grafikagintzan** aritzen diren 3.200 langileen egoera latza gizarteratu zuten. **Berria - Ekonomia**

Datozen hiru ostiraletarako grebara deitu dituzte sindikatuek Bizkaiko **grafikagintzako** 3.200 langileak. **Berria - Ekonomia**

Gipuzkoako **grafikagintza** sektorean. **Berria - Ekonomia**

Gipuzkoako **grafikagintzako** hitzarmena. **Berria - Ekonomia**

Metalgintzan, **grafikagintzan** eta zeramikan ere gatazka bidean dagoela uste du. **Berria - Ekonomia**

## grafiko 1 *izond* lerroen edo irudien bidez irudikatzen dena.

Hitzen irudi **grafikoa** gauza iraunkor eta sendotzat daukagu. **Isabel Arrigain**

Elementu **grafiko** soilak, irudi "abstraktuetan" batez ere berebiziko garrantzia dutenak. **Josu Zabaleta**

Hots bakun bakoitza ikur **grafiko** bakar batez dago irudikatua. **Isabel Arrigain**

Material **grafikoa** (argazkiak, koadroak, estatistikak, diagramak, etab). **Askoren artean**

Diseinu **grafikoko** espezialista batek. **Aingeru Epaltza**

Pinturaren eta diseinu **grafikoaren** arteko «elkarrizketa». **Berria - Kultura**

Gipuzkoako arte **grafikoetako** langileak. **Berria - Ekonomia**

Arkitektura, arte **grafiko** eta musika laborategiak. **Berria - Kultura**

Aldanondok «adibide **grafikotzat**» hartu du hori espetxearen egoera deskribatzeko. **Berria - Harian**

Sistema eragile libre osoak dauzkagu, baita interfaze **grafiko** libreak ere. **Berria - Gaiak**

## 2 kazetari eta kidekoen mintzatuz. argazkiekin-eta lan egiten duena; irudiez osatua.

Lehenengo ilaretan hautagaiak, alderdietako kideak eta kazetari **grafikoak** zeuden. **Berria - Euskal Herria**

Egunero banda marraztu bat argitaratzen zuen umoregile **grafiko** batek. **Iñigo Aranbarri**

Rame diseinatzaile **grafikoa** da, Ramalakoa. **Berria - Mundua**

Alfonso erreportaria **grafikoan** loraldiaren garaian bizi izan zen. **Berria - Kultura**

Edozein liburutegitan ikusten dira helduentzako eleberri **grafikoak**, ingelesez comic book deitzen direnak. **Berria - Kultura**

## • 3 iz irudikapen grafikoa.

**Grafiko** bat, hazkunde-kurba bat, adin-piramide bat, banaketa-hodei bat enuntziatuak dira. **Xabier Arregi**

Datuak, **grafikoak** eta erreferentziak aurkezten zehatza izan. **Askoren artean**

**Grafiko** funtzionalak -ez soilik apaingarriak-. **Askoren artean**

Garuneko ikusmen-aldeetako jarduera erakusten duten **grafikoek** erakutsiak. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte grafikoa (3); arte grafikoetako (9); diseinu grafikoa (8); diseinu grafikoaren (4); eta diseinu grafikoa (3); gipuzkoako arte grafikoetako (8); grafiko bat (4); grafiko eta (7); grafikoak eta (5); grafikoaren multzoa (3); ikur grafiko (4); ikur grafikoa (3); irudi grafikoa (3); lan grafikoa (3); obra grafikoa (3)

## grafikoki *adlag* era grafikoan, lerro eta irudien bidez.

Asko aberastu da azken urteotan espektrogrametan xehetasunak **grafikoki** adierazteko gaitasuna. **Lourdes Oñederra**

Heriotza **grafikoki** irudikatu zuten, munstro nuklearra hiltzaile bihurtuta. **Berria - Euskal Herria**

Ikur fonetikoak dira ahoskeraren transkripzioan hotsak **grafikoki** islatzeko erabiltzen direnak. **Lourdes Oñederra**

Egoera mugatuko gramatika "egoera-diagrama" bezala itxura daiteke **grafikoki**. **Itziar Laka**

Kalkula eta irudika ezazue **grafikoki**. **Joxerra Garzia**

## grafismo *iz* idazkera sistema baten ikurren multzoa.

**Grafismoan** trebatzeko eta idazkera menperatzeko, bi liburu berri badauzkagu ere ikasle ttipientzat: "Grafismoa" eta "Idazkera", frantsesezko "La classe maternelle" sailetik itzuliak. **Herria**

## 2 adierazpen grafiko mota.

Taulerrena, Eckhartena bezala, lehorragoa baitzen, eta Susorena irudimenera eta **grafismo** bapikatuetara isuriagoa. **Joan Mari Lekuona**

Keinuaren **grafismoa** izeneko korrantean. **Berria - Kultura**

## 3 diseinu grafikoa.

**Grafismoa** ere interesatzen zait; bere teknika dauka eta, arlo profesionaletik begiraturatuta, askoz ere irtenbide gehiago eskaintzen ditu. **Berria - Kultura**

## grafista *iz* diseinu grafikoan aritzen den pertsona.

Orain galdatzen ditugu beste bi lan postu, joan den urteko biltzar nagusiaz geroztik, **grafista** bat eta argitalpen buru bat. **Herria**

## grafitero (2 agerraldi artikulu 1ean; ETCn 11 agerraldi) *iz* adkor grafitigilea.

**Grafiteroak** bandalo edo traukiltzat jotzen gaituzte. **Berria - Kultura**

**Grafitero** profesionalak ere badaudela gogorarazi dute Omek eta Boscok. **Berria - Kultura**

## grafiti (47 agerraldi, 7 liburu eta 23 artikulutan; ETCn 811 agerraldi; orobat graffiti 50 agerraldi, 24 liburu eta 9 artikulutan; ETCn 409 agerraldi) *iz* hormetan eginiko marrazki edo idazkuna. ik **grafito** 2.

Martin megadendan ikusgai da urriaren 31 arte Claude Billès margolariaren "Margo eta **grafitiak**" erakusketa. **Herria**

Londres, Mosku edota New Yorkeko kaleetako **grafitien** eta hip-hop kulturaren ereduak egongo dira ikusgai. **Berria - Kultura**

**Grafititren** bat pintatuz eta barrikadaren bati su emanez. **Joan Mari Irigoien**

**Grafitiak** egiteko lantegian parte hartzeko aukera izango da. **Berria - Euskal Herria**

Ezin hasiko gara espraiak xahutzen sekulako **grafitia** egiteko. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hori dio zutik dagoen Berlingo harresi zatian idatzitako **grafiti** batek. **Berria - Mundua**

Beste batzuetan, berriz, zailago gertatzen da **grafitiaren** jatorri ideologikoa zein den antzematen. **Joxerra Garzia**

Oroitu dut, ezezkoa eman eta, biharamunean, eskolako horma batean "Rakel, afeitare" **grafiti** mingarria agertu zela. **Patxi Zubizarreta**

Alik "Turkoak hill!" **grafitien** azpian ezagutu zuen Mehmet. **Pablo Sastre**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

11:00etan **grafiti** erraldoiak egingo dira. **Berria - Euskal Herria**





# gramatika 1 iz hizkuntza jakin baten osagaien (hotsen, formen, joskeren) azterketa eta azalpena. ikhizkuntzalaritza.

Hizkuntza baten **gramatika** sistema konplexua da, bere atalen artean lotura asko eta askotarikoak dituena. [Itziar Laka](#)

H hizkuntzaren **gramatika** bat, funtsean, Hren teoria bat da. [Itziar Laka](#)

Nola eraiki daiteke **gramatika** bat? [Itziar Laka](#)

Horrela, **gramatikak** hitzunen jokabidea islatzen du, eurek ere perpaus berrien kopuru amaigabea sor eta uler dezaketelako. [Itziar Laka](#)

Osagai-egiturazko **gramatikek**. [Itziar Laka](#)

[S, F] motako **gramatika** batean. [Xabier Arregi](#)

**Gramatika** formaldatzailaren berezko ezaugarri batzuk. [Itziar Laka](#)

Ingelesaren **gramatikako** erregelak biltzen ditugu hemen. [Itziar Laka](#)

Latin-**gramatika** batean. [Xabier Arregi](#)

Augustin Xahoren **gramatika** (1836), Arxurena (1852), Intxausperena (1858), Gèzerena (1873)... [Koldo Zuazo](#)

**Gramatiken** ebaluaketa-prozedura bat. [Itziar Laka](#)

Historia naturala eta **Gramatika** orokorra elkarren artean kontrajartzen direla karaktere naturalen teoria bat eta konbentziozko zeinuen teoria bat kontrajartzen diren legez.

[Xabier Arregi](#)

Ingelesaren eta alemanaren **gramatika** historikoari eta abarri buruz. [Isabel Arrigain](#)

**Gramatikako** liburua nirekin neraman trenean errepasatzeko. [Jesus Mari Mendizabal](#)

**Gramatikako** irakasgai tristean bezala gertatzen zen hemen ere. [Josu Zabaleta](#)

Eta **gramatikazko** lezioak hartzeko ilusioz gogoberotzen den haurra. [Josu Zabaleta](#)

## 2 hed

Hizkuntzalaritza estatikoari, hau da, hizkuntza egoera baten deskribapenari, **gramatika** esan diezaiokegu, "xakearen **gramatika**", "Burtsaren **gramatika**" eta abarreko adierazpenetan aurki dezakegun zentzu zehatz eta gainera ohikoan. [Isabel Arrigain](#)

"Zergatik ez fantasiaren **gramatika** bat?", galdetu zuen Novalisek. [Bernardo Atxaga](#)

Borrokaren **gramatika** komuna lortu behar dugu. [Berria - Harian](#)

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik gramatikal.

Hitzegi eta **gramatika**-liburuak eskura izatea komeni da. [Askoren artean](#)

Estrukturalismoaren esparruan egindako **gramatika**-lanak. [Itziar Laka](#)

**Gramatika** akatsik sekula ez, baina ez zuen "euskaraz" hitz egiten. [Joxean Sagatzizabal](#)

Lehen tomoak **gramatika** gaiak aztertzen ditu. [Herria](#)

**Gramatika**-egituraren teoria bat garatzeko. [Itziar Laka](#)

Osagai-egiturazko **gramatika**-eredua. [Itziar Laka](#)

**Gramatika**-teoriaren azalpen-ahalmenerako urratsa. [Itziar Laka](#)

**Gramatika** sistemaren oinarri gisa. [Isabel Arrigain](#)

**Gramatika**-kategoria bereko hitz eta morfema asko. [Itziar Laka](#)

Hurrengo hitzaren aukera mugatzen duten **gramatika**-murrizketak. [Itziar Laka](#)

**Gramatika** aldaketak faktore horien eraginpean daude; **gramatika** gertaerek, beti, pentsamendua ukitzen dute alde batetik edo bestetik. [Isabel Arrigain](#)

Bilakaerak erabat banatzen ditu jatorrian **gramatika** mailan elkarturik zeuden bi termino. [Isabel Arrigain](#)

**Gramatika** loturen laxotzea. [Isabel Arrigain](#)

**Gramatika** dualitate bat da. [Isabel Arrigain](#)

**Gramatika** organismoaren gainean. [Isabel Arrigain](#)

**Gramatika**-arazoren bati buruzko azterbide semantikoak. [Itziar Laka](#)

**Gramatika**-deskribapenaren oinarriak. [Itziar Laka](#)

**Gramatika** Batzordea sortu zen Euskaltzaindiaren barruan. [Koldo Zuazo](#)

## 4 gramatika konparatibo/konparatu/konparatzaile

Hori izan zen gramatika **konparatibo** edo "**gramatika konparatua**" ren hastapena. **Gramatika konparatuaren** hasierako denbora horietan, filologiak fidakaitzasunez begiratzen zien zientzia berri horren aurrerakuntzei. [Isabel Arrigain](#)

Indoeuropeoaren **gramatika konparatua**, aurreko hizkuntza bat hipotetikoki berreraiki nahi duenean, eskumenean dituen datuez baliatzen da; erkaketa, **gramatika konparatuarentzat**, iragana berregiteko bitarte bat baizik ez da. [Isabel Arrigain](#)

Gramatika **konparatzailearen** sortzaileen aurrekoak. [Xabier Arregi](#)

Gramatika **konparatzailearen** historia egitea zen hizkuntzen seme-alabatasunari eta ahaidegoari buruzko alde aurretiko -Boppen eta Rasken aurretiko- arrastoa berraurkitzea. [Xabier Arregi](#)

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina gramatika (5); baten gramatika (4); bere gramatika (5); da gramatika (8); daiteke gramatika (4); daiteke gramatika bat (4); duen gramatika (3); dugu gramatika (5); duten gramatika (3); edo gramatika (5); egiturazko gramatika (6); egoera mugatuko gramatika (5); eraiki daiteke gramatika (4); erako gramatika (5); eta gramatika (43); eta gramatika eta (4); euskal gramatika (11); euskaltzaindiko gramatika (6); euskaltzaindiko gramatika batzordeko (3); euskararen gramatika (4); ez gramatika (3); f erako gramatika (5); f motako gramatika (4)

gramatika aldetik (6); gramatika askoz (3); gramatika bat (24); gramatika batean (7); gramatika batek (8); gramatika baten (6); gramatika batzordean (4); gramatika batzordeko (7); gramatika batzordeko kidea (3); gramatika edo (7); gramatika egitura (3); gramatika egituraren (6); gramatika eredu (5); gramatika eruedua (4); gramatika eta (24); gramatika eta hitzegi (4); gramatika ezin (3); gramatika gertaera (3); gramatika hau (3); gramatika historikoa (6); gramatika hori (4); gramatika kategoria (4); gramatika konparatua (3); gramatika konparatuaren (3); gramatika liburua (4); gramatika orokorra (12); gramatika orokorrek (4); gramatika orokorren (3); gramatika orokorrean (3); gramatika sistema (3); gramatika teoriaren (3); gramatika zuzena (3)

hizkuntza baten gramatika (3); hizkuntzaren gramatika (6); hiztegi eta gramatika (4); honelako gramatika (3); horiek gramatika (3); ingelesaren gramatika (8); lehen gramatika (6); motako gramatika (4); motako gramatika batean (3); mugatuko gramatika (5); osagai egiturazko gramatika (6)

bere gramatikan (3); edozein gramatikak (3); eta gramatikak (4); gramatikak eta (3); gramatikak ez (4); gramatikak guztiz (3); ingelesaren gramatikako (3); ko gramatikan (3)

duten gramatiken (3); eta gramatikaren (5); eta gramatikari (3); euskal gramatikaren (4); f gramatiken (3); gramatikaren atal (6); gramatikaren atal bat (3); gramatikaren bukaerako (3); gramatikari eta (4); gramatiken artean aukera (3); gramatiken aurkitze (3); gramatiken ebaluaketa (6); gramatiken ebaluaketa prozedura (5)

## gramatikagintza iz gramatikak egitea.

Markov-prozesuen araberako hizkuntzaren ikusmolde hau ezin dela onartu, **gramatikagintzan** behintzat. [Itziar Laka](#)

## gramatikal izond gramatikarena, gramatikari dagokiona. ik gramatika 3.

Garrantzitsuena ez da arau **gramatikala**, komunikatiboa baizik. Berria - Euskal Herria

Egitura **gramatikalaren** sorkuntzan aurrera egiteko. Itziar Laka

Hurrenkera **gramatikalak** hurrenkera ez-**gramatikaletatik** bereizteko irizpidea. Itziar Laka

Izenda ditzagun erregelok "formaldatze **gramatikalak**". Itziar Laka

Fonema-hurrenkera **gramatikalen** deskribapena. Itziar Laka

(4) perpausean subjektu **gramatikala** "beltza" da. Askoren artean

Fenomeno fonetikoarekin batere zer ikusirik izango ez duten **dualitate** gramatikalak eta sinkronikoak izango dira. Isabel Arrigain

Aberrazio **gramatikalen** antologietan agertzeko modukoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta **gramatikalak** (3); ez **gramatikalak** (3); **formaldatze gramatikalak** (3); **gramatikal guztiak** (4); **gramatikala eta** (3); **gramatikala kontzeptua** (6); **gramatikalak aurkituko** (3); **gramatikalak dira** (4); **gramatikalak diren** (3); **gramatikalak ez** (3); **gramatikalen taldea** (8); **hurrenkera gramatikalak** (4); **kategoria gramatikal** (3); **perpaus gramatikal** (4); **perpaus gramatikala** (4); **perpaus gramatikalak** (10); **perpaus gramatikalen** (13); **perpaus gramatikalen taldea** (6)

**gramatikalizatu**, gramatikaliza, gramatikalizatzen du *ad* gramatikal bihurtu.

Ikusmolde enpirikoa **"gramatikalizatze"** joera hori are gehiago indartu da Vasarely-ren eta beste zenbaiten idatzietan Josu Zabaleta

**gramatikalki** *adlag* era gramatikalean, gramatikaren arabera.

Teoria honek, fisikoki izan litezkeen konposatu guztiak sortzen dituela esan daiteke, gramatikak, **gramatikalki** izan litezkeen esaldiak sortzen dituen legez. Itziar Laka

**gramatikaltasun** *iz* gramatikala izateko nolakotasuna.

**Gramatikaltasunaren** eredu estatistiko batean. Itziar Laka

Hiztunen erantzunetan oinarritutako **gramatikaltasun** -irizpideak eratzeko urratsak. Itziar Laka

**"Gramatikaltasun** -mailen" ideia garatzea. Itziar Laka

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gramatikaltasun mailen** (5); **gramatikaltasun mailen ideia** (4)

**gramatikari** (*ETCn 114 agerraldi*; *orobat gramatikolari ETCn 27 agerraldi*) gramatika azterketak egiten dituen pertsona.

Informazio handia biltzen du hiztegiak, eta filologoek, **gramatikariak**, fonetikaz arduratuta daudenean, idazleek edo etimologiazaleek estimatuko dute. Berria - Harian

**Gramatikariak** metodo batera zein bestera joko dute, talde linguistiko bakoitzaren joera nagusiaren arabera. Isabel Arrigain

**Gramatikariaren** tresna horiei. Isabel Arrigain

**Gramatikariak** hizkuntzari buruzko intuizio zuzen bati men egin diotela. Itziar Laka

XVI. eta XVII. mendetako frantses **gramatikariak**. Isabel Arrigain

**Gramatikariak**, hizkuntza egoera jakin bat historiak esku hartu gabe ikertzean [...]. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**don justo gramatikaria** (5); **don justo gramatikariak** (4)

**gramatikatxo** *iz* gramatika laburra.

Gogora datorkio halako batean erosi zuen euskararen **gramatikatxo** hura. Edorta Jimenez

**gramatiko** *izond* gramatikala.

Plurala, "gu" a, jende honek biziki gorrotatzen duen elementu **gramatikoa** da inondik ere. Joxe Azurmendi

• **2 iz** gramatikalaria.

Nahiago nuke askoz ere **gramatiko** gutxiago eta gure hizkuntza normal-normal erabiltzen duen jende gehiago bagenu. Berria - Kultura

Arkitekto batek, izan ere, ezin du eta ez du **gramatikoa** izan behar. Santiago Iruretagoiena

**gramatikoki** *adlag* gramatikalki.

Eta polizia dator esaldia **gramatikoki** zuzena bada ere, neutroegia ere bada polizia gehiegitan ikusten duenarentzat. Iñigo Aranbarri

**gramo** (*orobat grama g.er.*) **1 iz** neurri sistema hamartarreko pisu unitatea, 4 °C-ko ur destilatuzko zentimetro kubo baten pisuaren baliokidea.

Hartu zituen morroiak sei **gramoko** urrezko eraztuna eta ehun **gramo** baino gehiago zuten urrezko bi eskumuturreko. Elizen arteko biblia

Nagorek Jesus Mari osabarekin aukeratu zituen pilotak; 106,1 eta 106,8 **gramokoak**. Berria - Kirola

Harri aleak neurtzen ibili ziren, eta asko omen ziren zentimetro mordoxka zutenak, eta pisatu ere bai 160 **gramotik** gora. Pello Zabala

Behar ziren presentatu tiket batzu zeintan markatuak baitziren jateko bakoitzetik zenbat **gramoren** dretxoa zinuen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bulgariako tabakoa, ehun **gramorengatik** 14 florin eskatzen dituzte! Josu Zabaleta

Ba horiek denek ama ere salduko luketelako **gramo** laurden batengatik, horrexegatik. Patxi Iturritegi

**Gramoko** 0,24 kaloria da airearen bero espezifikoa. Irene Aldasoro

Edandako hogeita hamar **gramo** alkoholeko, hirurehun **gramo** gernu gehiago produzitzen da. Irene Aldasoro

**Gramo** inguruko erretilua ere, intsentsuz betea. Elizen arteko biblia

**2** (zenbaketetan, neurtzen denaren ezkerrean)

Bakoitzak bost **gramo** zilar eman zuen. Elizen arteko biblia

**Gramo** bat azukre pisatu nuen, platinozko arragoan [...] su emateko. Juan Garzia

Hiru **gramo** gatz. Irene Aldasoro

Hamar **gramo** bromo hari. Juan Garzia

Denbora berean, bideko jatekoak banatzen dauzkigute: 1 200 **grama** ogi, 16 lur-sagar. Michel Oronoz

Eta patrikan hamar **gramo** haxixekin. Pako Aristi

Analisis aintzat hartzeko modukoa izan zedin, gutxienez **gramo** erdi material behar zen. Juan Garzia

Egunean 180 **gramo** kloral hartu arren. Ramon Saizarbitoria

Aski zela 20 **gramo** gatz litro bat uretan nahastea. Hasier Etxeberria

Kilogramo bat urek hirurehun eta hirurogeita hamar **gramo** baizik ez du pisatzen han!. Josu Zabaleta

- Afari eder bat eta pare bat **gramo**, finetik. Iñaki Segurola

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat **gramo** (5); bost **gramo** (7); ehun **gramo** (7); **gramo arin** (3); **gramo artekoak** (3); **gramo baino** (6); **gramo baino gehiago** (3); **gramo bat** (7); **gramo batzuk** (4); **gramo eta** (4); **gramo eta erdi** (3); **gramo gatz** (5); **gramo gurin** (3); **gramo inguru** (8); **gramo ingurukoa** (3); **gramoko beste** (3); **gramoko bi** (13); **gramoko bi eta** (3); **gramoko bi pilota** (6); **gramoko hiru** (4); **gramoko hiru pilota** (3); **gramoko pilota** (4); **gramoko pilotak** (46); **gramoko pilotak aukeratu** (29); **gramoko pilotak baztertu** (4); **gramoko pilotak hautatu** (6); **gramokoa delarik** (3); **gramokoak aukeratu** (3); **gramokoak aukeratu zituen** (3); **gramokoak hain** (3); **gramokoak hain zuzen** (3); **gramotik gora** (3); **hamar gramoko** (18); **hamar gramoko arin** (3); **hamar gramokoa** (3); **hamar gramokoa delarik** (3); **hiru gramoko** (3); **hogeita hamar gramoko** (10); **txanpona hamar gramokoa** (3)

## gramofono iz diskoetan grabaturiko hotsa berremateko tresna. ik fonografo.

**Gramofono** bat *Secondhand Rose* jotzen ari zen. Lopez de Arana

**Gramofono** zaharreko orratzak jauzi tiki bat egin zuen. Alberto Ladron Arana

Aurretik utzitako diskoak hartuta, egongelako **gramofonoan** ipini nituen. Alberto Ladron Arana

Zur distiratsuzko **gramofono** garesti baina zahar batek. Alberto Ladron Arana

**Gramofonoari** giltza emateko eskatzen zion eta azalean erreturatu zuen diskoak jartzeko esaten zion. Bego Montorio

**Gramofono** elektrikoaren bozgorailuak. Alberto Ladron Arana

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gramofono bat** (6); **gramofono baten** (3)

## gramoka izond gramotan.

**Gramoka** azaltzen da beti, edo gramoko laurdenka. Bernardo Atxaga

## gramola iz gramofomoa.

**Gramola** bateko orratzaren krakatekoak entzun ziren segidan. Anjel Lertxundi

Herio-dantzaren festan **gramolaz** emandako musika saltariak. Anjel Lertxundi

Txakur otzana **gramolaren** aurrean, adi. Iñigo Aranbarri

Gerra aurrean, baziren Etxezakortari eta Manuel Gelatxori arbelezko diskoetan Regal etxeak **gramolarako** eginiko grabazioak. Iñigo Aranbarri

Generalisimoaren plazan **gramolak** oraindino dantzara zekartzan gazteak. Josu Landa

## gramotxo iz adkor gramoa.

Txaplik bere postutxoaz zabaldu eta lortu zuen **gramotxo** batzuk saltzea. Unai Iturriaga

## granada 1 iz eztanda egiten duen jaurtigaia, lehergarri batez hornitua.

Laurehun **granadak** egin zuten eztanda bost egun eta gauz monastegiaren harresi gora eta gotorren kontra. Txillardeggi

Gure boluntario bat harrapatu du **granada** batek. Txillardeggi

Pareta batzuk **granadek** txikituak zeuden. Fernando Rey

Taliban batek gorputzean zeraman **granada** bat leherrarazi zuenean zauritu ziren hamar biktima hauek. Berria - Mundua

Nola jaurti zizkieten **granadak** jeepa erabat txikitu eta kiskali zuten arte. Jokin Muñoz

4-5 **granada** (2 fosforozko, 2-3 su-emaile). Pablo Sastre

Nork bere harri - **granada**- mordoxka ondoan zuela. Jokin Muñoz

### 2 (hitz elkartuetan)

**Granada** -jaurtigailu bat eskuan zuela. Jon Alonso

Botila tiki huts bat atxiki nuen, braul!, eta aldi berean neure orpoetan biratu **granada** -jaurtizaille baten plantan. Aingeru Epaltza

- Bere ontzia hortxe atondu duela, uhin biko irratiaz, berrogeita hamarreko metrailadore biz, esku- **granadez** eta bonba galant batekin. Edorta Jimenez

Mortero- **granada** batek inguruan eztanda egin ostean. Edorta Jimenez

### 3 mingrana.

**Granada** aleak azukrearekin prestatuak zituen. Patxi Zubizarreta

Laster **granada** platerkada batekin etorri zitzairen. Patxi Zubizarreta

Zuk prestatu al zenituen **granadak** ? Patxi Zubizarreta

Masailak anemonak bezalakoak, aurpegia sagarraren antzekoa, ezpainak ardoaren modukoak, bularraldea **granaden** parekoa. Patxi Zubizarreta

Xehetasunik adierazgarriena zen, emakumearen edertasun malenkoniatsuaz aparte, **granadari** azal zati bat falta zitzaiola. Ramon Saizarbitoria

### 4 granada arbola

Orain noizean behin haize kirriak **granada** -arbolen adarrak astintzen zituen. Juan Garzia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edo **granada** (3); **esku granada** (3); **eta granada** (9); **eta granada bat** (3); **eta granadak** (7); **eta granadaz** (5); **granada bat** (17); **granada bat jaurti** (3); **granada bat leherrarazi** (3); **granada batek** (12); **granada baten** (3); **granada eta** (10); **granada fruitu** (5); **granada jaurtigailuak** (5); **granada jaurtigailuak eta** (3); **granadak bota** (6); **granadak bota eta** (4); **granadak eta** (7); **granadak jaurti** (5); **granadaz eraso** (4); **zuen granada** (3)

# granadar *(orobat granadatar) izlag/iz* Granadako, Granadari dagokiona; Granadako herritarra.

Angel Ganivet, Unamunoren adiskide **granadar** iluna. **Patziku Perurena**

Kontsidera ditzagun katalanen argimen eta ohiturak, valentziarrenak, murtziar, **granadar**, andaluziar, extremadurar, portugaldar, galego, asturiar, montañes, bizkaitar, nafar eta aragoiarrenak. **Askoren artean**

Eta No siempre prehto erantzuten omen zion **granadatarrak** Bonapartetarrari. **Txillardeg**

## granadari *iz* granadaz armaturiko soldadua.

Beruneko soldadutxoen bilduma txikia zeukan -husarrak, **granadariak**, korazariak...-. **Iban Zaldua**

## granadina *iz* granada zukua.

Tabernan diabolomenta edo **granadina** bat erosten die, gero oiloak lapurtzera joango dira. **Pablo Sastre**

Gorri-gorriak dira, **granadina** behintzat badaukate... auskalo beste zeren artean. **Pako Aristi**

## granadondo *iz* granada arbola.

Augustinek **granadondo** bat zaintzen zuen han lurrontzi batean. **Karlos Zabala**

**Granadondoko** lore irekiek beste insignia odoltsuen antza zuten. **Karlos Zabala**

**Granadondoaren** kimuak sartaldeko eguzkiaren urrezko hautsean blai ageri ziren. **Karlos Zabala**

Zergatik atera gintuzun Egiptotik, leku negargarri honetara ekartzeko, non landarik ez dagoen, ez eta pikondorik, mahatsondorik edo **granadondorik**, eta non edateko ura ere falta den? **Jose Antonio Mujika**

## granate 1 *izond* gorri iluna.

Mokasin **granateak** jantzita. **Unai Elorriaga**

Zu ez zauden sofa **granatean**. **Eider Rodríguez**

Intxaur beltza zen, bizkarralde jaso-ederrarekin, eta belus **granatearekin** tapizaturiko ipurdikoan kutxatxo bat zeukan. **Pako Aristi**

Larruzko karpeta **granatea** atera zuen. **Aingeru Epaltza**

Seat 1450 **granate** hura. **Iban Zaldua**

Kolore **granateko** girmaldez apaindurik. **Aritz Gorrotxategi**

## • 2 *iz* mea leun eta oso gogorra, aluminioaren eta burdinaren silikato batek osatua, eskuarki gorri iluna dena eta harribitxizat hartzen dena.

Bitxi bikain eta fina zen, topaziozko, **granatezko** eta kristal landuzko zatitxoak urrezko kate mehe batez loturik egina, eta ziur egon nintzen dotore emango zuela Rachelen lepo lerdenean. **Oskar Arana**

Gerrikoa urrezkoa zen, urre eta **granatezkoa**. **Agustin Otsoa**

## 3 (hitz elkartuetan)

**Granate** koloreko errezel baten gainean zabaltzen ari den aurpegi fin hori begiesteko. **Monika Etxebarria**

## granito 1 *iz* harri gogorra, kuartzoz, feldespatoz eta mikaz osatua.

**Granitoaren** eta marmolaren handioskeria. **Juan Garzia**

Euskarri haiek inguratzen zituzten **granito** sendozko hormetako batek osatzen zuen atzealdea. **Koro Navarro**

Hemen, **granitozko** amildegia altuak, ertz berezi-berezikoak. **Karlos Zabala**

**Granitozko** harriaren idatziak dira hitz horiek. **Edorta Jimenez**

Ihes egin zuten marmolezko gurutze eta **granitozko** aingeruen artean. **Koldo Izagirre**

Mauthausengo harrobian **granitoa** ateratzen ari behar izan genuen. **Koldo Izagirre**

Ikusten nituen kimuak udaberriaren hazten, **granitoaren** barnean mika distiratsen. **Juan Garzia**

Zimbaweko **granito** beltzeko zortzi kubok osatzen dute eskultura. **Berria - Kultura**

## 2 (erkaketetan)

**Granitoa** bezain astuna. **Juan Garzia**

Baina zerrarik ez, pikotxik ez, deus ez azal hari erasotzeko, hotzaren hotzaz **granitoa** baino gogorrago bihurturiko gain hura apurtzeko. **Karlos Zabala**

## granja *iz* baserria, etxaldea, landetxea.

Baserriak **granja** bihurtu ditugu, edo txalet, edo nekazal-turismoko hotelak. **Pako Aristi**

Nere gurasoek **granja** txiki bat erosi zuten Oregongo Hegoaldean. **Ramon Etxezarreta**

**Granjako** txerriek buruhausteak eta horrelakoak izaten dituztela. **Pablo Sastre**

**Granjako** janaria konpletoagoa duk. **Pablo Sastre**

Oilo gehienak **granjatak** kaiolatan daude, lumak botatzen eta arrautzak errun eta errun. **Pello Zabala**

## grano *iz* pikorta.

Kokotsean **grano** bat ageri zuen, eta beste masailan orina. **Bernardo Atxaga**

Bera konturatzen da umeari atera zaion **granoaz**. **Arantxa Iturbe**

Areago: ez zen ageri han ez ospelik, ez erredura edo garatorik, ez negal, baba, kalentura, pustula, zimur, kailu, orbain edo **granorik**. **Bernardo Atxaga**

## 2 alea.

40 eguneko euriteen ondoren, uzta **granorik** batere gabe dena zopa eginda galdu zen. **Pello Zabala**



## granotsu *izond* pikortsua.

-"Granotsu" esatea ahaztu zaizu -xuxurlatu zion Peevesek belarri ondoan.

Iñaki Mendiguren

## granotxo *iz* pikortatxoa.

Kokotseko **granotxo** bat lehertu nahian.

Iñaki Mendiguren

## granuja *iz* pikaroa, frikuna.

**Granujak**, ezergabeak, jertseko boxeolariak eta portuko zamaketariak Jake Wolfen ostatuan pilatzen ziren.

Pablo Sastre

## granulazio *iz* pikortatzea.

Sinobialaren hantura kronikoak giltzadura-kartilagoa **granulazio** ehunez ordeztzen du, eta luzarora artikulazioak deformatu egiten dira.

Berria - Gaiak

## granuloma *iz* granulazio ehunek eraturiko tumorea.

Lertzoa kentzera, eta agian baita **granuloma** bat edo beste ere; minik ez, baina masailetan halako taupada moduko batzuk sentitzen ditut.

Joxe Austin Arrieta

## granuloso *izond* pikortsua.

Ekiialdera egin zuen bidaian harrapatu zuen Frantziskok gaitza -trakoma edo "konjuntibitis **granuloso**"-, azkenerako itsu utziko zuena.

Askoren artean

## granulozito *iz* pikorrek dituen leukozittoa.

Proteina arrotzek (bakterioek, esate baterako) gorputza inbaditzen duten guztietan, **granulozitoak**, mobilizatu, eta gertalekura abiatzen dira prestu.

Irene Aldasoro

## grapa (*ETCn 81 agerraldi*) *iz* metalezko pieza, muturrak 90º-tan dituen, gauzak elkarri itsasteko erabiltzen dena.

Oriak elkartu eta **grapaz** josteko.

Xabier Mendiguren Elizegi

Kopeta-hezurra atzera berriz lotzeko erabilitako titaniozko **grapak**.

Imanol Zurutuza

## grapagailu *iz* grapak itsasteko gailua.

Guztia amaitu ondoren, bestalde, **grapagailu** bat eta hiru bolaluma falta zirela konturatu ziren.

Iban Zaldua

## grapatu, grapa(tu), grapatzen **1 du ad** grapekin josi.

**Grapatu** egiten dizute eta heste mehearekin lotu.

Berria - Euskal Herria

Oinazeari buruzko hausnarketa horman **grapatutako** giza tximeletan irudikatua.

Berria - Kultura

Bisitariak era simple batez **grapaturiko** lau folio luzatu zizkidan atea zabaldu ahalean

Jose txo Azkona

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Orrialde **grapatu** batzuk atera zituen karpetatik.

Iban Zaldua

## grappa *iz* uxualezko italiar edaria.

**Grappa** bat eskatu, eta poema baten zirriborroa saiatzen hasiko da.

Anjel Lertxundi

**Grappa** bat hartu dut Piazza San Carloko terraza batean.

Anjel Lertxundi

Afari onari **grappa** hobeago batek segitu dio.

Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**grappa bat** (4)

## grasa *iz* koipea.

**Grasa** kentzeko amoniakoa duen garbikari bat erabiltzen dugun bakoitzean.

J.M. Olaizola "Txiliiku"

Eta gosetzen zirenean, talo haietan igurzten zutela makinak koipeztatzeko **grasa**.

Hasier Etxeberria

Mandiokaren **grasa**.

Joxean Agirre

Motor eta **grasa** usaina.

Berria - Kultura

## gratifikante *izond* atsegin emailea.

Niretzat literatura **gratifikantea** da.

Berria - Kultura

Ez zen sobera **gratifikantea**, baina jende zaharra zaintzea baino alaitsuagoa behintzat bai, eta, gainerat, hobekixeago ordaindua.

Jose Angel Irigaray

## gratinatu, gratina, gratinatzen **du ad** sukaldaritzan, jaki baten gaina erre azal urrekara bat lortu arte.

Labearren gainaldeak edo sutondoak betetzen zituen funtzio zenbait sopleteak beteko ditu (karamelatzea, xigortzea, **gratinatzea**, etc.): bistan denez, ehun pintxo kraskatsu batera jantokira eraman edo torrada bakar bat gorritu behar denean labeko gratinagailua baino eraginkorragoa da eskuko tresna hori.

Edorta Agirre

## gratis *adlag* doan, urririk.

Et da, alabaina, erraten ahal **gratis**, urririk, egiten dela, Kontzilioaren gogara, *ad mentem Concilii*, zerbait hartzen delarik, nahi bezain onak omen diren obrentzat. **Piarres Xarriton**

Maitagogo gara, maitasun bihurtzekotan Jaungoikoaren graziaz - **gratis** -. **Jenaro Garate**

Meza emango dizut / **gratis** ta debalde. **Iñaki Arranz**

## gratuitate *iz* doakotasuna.

Graziatzko existentzia da berea, **gratuitatean** eta esker onean finkatua: on guztia eta on guztien iturri den Jainkoari esker onez itzuli behar zaio dena. **Askoren artean**

## gratuito *izond* funsgabea.

Irain **gratuito** andana, pertsonalizatua, batere kontrasterik gabea. **Karlos Linazasoro**

## grazia 1 *iz* kristau erlijioan, Jainkoak gizakiari ematen dion laguntza naturaz gainekoa, ongia egiteko eta Zerua iristeko gai egiten duena.

Testuinguru ezberdinetan aipatzen du Frantziskok **grazia** edo Jainkoaren ekimena: elkar maitatzeko **grazia** (1 Er 9,11), isilik egoteko **grazia** (1 Er 11,2), lanerako **grazia** (2 Er 5,1), Ofizioa egiteko **grazia** (OrG 43)... **Askoren artean**

**Graziaren** eta askatasunaren artean ezinbestekoa den elkar ekintzaren jakitun izan zen Agustin beti. **Imanol Unzurrunzaga**

Etor bedi zure erreinua: / izan zaitetz errege guregan **graziaren** bidez. **Askoren artean**

Jaunak nahi dezala guri bere **grazia** ematea. **Joan Mari Lekuona**

Hiri **grazia** bat, jainkozko dohain bat iruditzen zitzaiana, ez zuan xalotasuna besterik. **Xabier Olarra**

Eskaiozu Jainkoari eman diezadala jakinduriatz eta egonarriz eramateko **grazia**. **Joan Mari Lekuona**

**Grazia** eskatzea bekatuak ezagutzeko eta nardatzeko. **Patxi Altuna**

Zeruko **grazia** estualdian babes eta lagun duzuela. **Juan Garzia**

Gure Eliza Ama Santaren **grazian** eta miseriakordian hartu baitzaituzte. **Juan Garzia**

Oraindik bizi garenetatik inor ez dago Jainkoaren **grazian**. **Juan Garzia**

## 2 faborea; inginahia; emaitza, dohaina.

Sena ez da Jainkoaren **grazia** bat. **Berria - Kultura**

Ez ote dakit **grazia** gehiago erdiesten duela aitagandik seme galduak, itzuli delarik, sekula alde egin ez duen semeak baino? **Jon Muñoz**

Jaun handi bat, jaun peto bat, zigorra eta **grazia** bere esku dituen. **Matías Múgica**

Liburutegi bat sortzeak edo unibertsitate bat hornitzeak, diotenez, damundunari min latzagoa eta iraupen luzeagokoa ematen dio labanak eta burdina goriak baino, eta horregatik **grazia** lortzeko bide ziurragoa da. **Xabier Olarra**

Egidazu **grazia** zuretzat baizik ez bizitzeko. **Herria**

-Beraz, egunen batean egia osoa esateko **grazia** egingo didazu. **Ramon Saizarbitoria**

Baina badut **grazia** bat zuri eskatu nahi dutana. **Michel Oronoz**

Azken tiroaren **grazia** egingo zidan. **Koldo Izagirre**

**Graziatzko** lege bat eskatuko diotela Karlos erregeari libertatea eman diezadan. **Bernardo Atxaga**

2004ko uztailaren 29an **graziatzko** helegitea eskatu zioten herriek Frantziako Gobernuari. **Berria - Euskal Herria**

## 3 atsegin izateko eta bereziki barre eragiteko dohaina.

Argeliako kabiliar herrietako sinbologian ere, eperrak neskatzaren edertasuna eta **grazia** adierazten du. **Patziku Perurena**

**Grazia** guztiak, edertasun guztiak, handitasun guztiak dauzka itsasoak. **Koldo Izagirre**

Badia honek ez du **grazia** bat bera ere eskas. **Koldo Izagirre**

Triestek **grazia** iheskor bat du. **Berria - Kultura**

Hori da **grazia**, hori, gauzak kontatzeko! **Patziku Perurena**

Harrigarria benetan, euskal irudimenak haizea pintatzekoan izan duen **grazia**. **Patziku Perurena**

Hortxe zegok bada **grazia**. **Iñaki Iñurrieta**

Haurtzaroko eta gaztaroko gertaerak kontatu zizkigun, batzuk **grazia** handikoak. **Juan Kruz Igerabide**

**Graziak** egiteko umorez zeundenean. **Lourdes Oñederra**

Somniferoak botikatatz hartzeak **grazia** daukala bururatzten zaizu. **Lourdes Oñederra**

**Graziarekin** mugituz gero. **Joxean Agirre**

**Grazia** askorik gabe balantzaka zihoan. **Josu Zabaleta**

Neska guztiz eder, eder baino gehiago, adoragarri, polit bezain **graziatz** bete, xarmagarri, on batez maitemintzen da. **Josu Zabaleta**

-Edertasuna hitz ederrez finkatua, mintzairaren **graziatz** haragizatua bezala. **Piarres Aintziart**

## 4 izena.

Joxe diat nik **grazia**. **Pello Lizarralde**

Agian Azeri Jauna du **grazia?** **Anjel Lertxundi**

Nola deitzen den galdetu dionean, Joaquín Lizarraga duela **grazia** erantzun dio ikasleak. **Iñigo Aranbarri**

Baionan jaioa da, judu familia baten baitan, izenak salatzen duen moduan, Israel baita gizonaren **grazia**. **Edorta Jimenez**

## 5 grazia egin

**Grazia** egin zidan erantzunak. **Iñaki Segurola**

Hasieran Monikaren akatsek ere **grazia** egiten zidaten. **Joxean Agirre**

Berari **grazia** egiten zioten edo gustatu egiten zitzaion zure esaldiek jendeari **grazia** egitea. **Lourdes Oñederra**

Batak besteari **grazia** egin nahian. **Lourdes Oñederra**

-Haurroi **grazia** handia egiten zigun Adelaren gure hizkuntza mintzatzeko moduak. **Juan Kruz Igerabide**

Bere buruzagiei ez bide zien **grazia** handirik egin proposamenak. **Joxean Agirre**

Ez du halako **graziarik** egiten. **Arantxa Iturbe**

Neskari ez dio batere **graziarik** egin mila aldiz entzun duen txiste txarrak. **Patxi Iturritegi**

Uleritzen nuen, baina ez zidan **grazia** zipitzik ere egiten. **Harkaitz Cano**

Gauzak halaxe dira eta ez dit **grazia** putarik egiten. **Iñaki Segurola**

## 6 grazia egoera

Bi mutikoek **grazia** -egoera batean zirela sentitzen zuten, izendatze egoera batean, giza bizitzak ezagutzen diren zoragarri batean.

Xabier Olarra

**Grazia** -egoera horrek jainkoen oparia alferrik galdu gabe irauten duen arterainokoa dela oharitzen ez dena.

Xabier Olarra

## 7 grazia izan

Bestela ez luke **graziarik**. Andoni Egaña

Honek ez du ez **graziarik**, ez ezer... Xabier Mendiguren Elizegi

Askatasun honek, gizakiaren arraitasunaz eta zeruaren handitasunaz nahaste, badu bere **grazia**. Koldo Izagirre

**Grazia** badudala erantzun dit, eta begi politak ditudala. Josu Zabaleta

Ingelesez ez baitu batere **graziarik**. Karlos Zabala

-Zerk du halako **grazia**, Jenny? Anton Garikano

Asko gustatzen zitzaizkidan, **grazia** handia zuten. Pako Aristi

Pizzeriak, orokorki, gustukoak nituen: **grazia** berezia bazuten. Daniel Landart

Ez omen zitezkeen behintzat itzuli zuten **grazia** galdu gabe. Anjel Lertxundi

Agintzeak duen **grazia** bakarra besteek obeditzea dela. Pako Aristi

## 8 graziako tiroa azken tiroa, erremateko tiroa

Tenienteak **graziako tiroa** jo zion. Edorta Jimenez

**Graziako tiroa** eman diete ondoren, eta niri ematera datorrenak "ez dago hemen eta!" esan du. Bernardo Atxaga

Ni neu hasi nintzen nire pistolarekin, **graziako tiroa** eman behar nuen harekin. Koldo Izagirre

## 9 Hiru Graziak

-Esan du Hiru **Graziak** garela, izeba Julia -esan zion Mary Janek. Irene Aldasoro

Venus, Baco edota Hiru **Graziak** azaltzen -azaleratzen- zuten osasun eta edertasun erabatekoa. Bernardo Atxaga

Adan, Eba, Hiru **Graziak** eta beste biluzi batzuen aurretik paseatzeari ekin nion ostera. Bernardo Atxaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aparteko grazia** (4); **ateraldiak grazia** (3); **aurrean grazia** (3); **badu bere grazia** (4); **baina grazia** (9); **baino grazia** (3); **baten grazia** (3); **begien aurrean grazia** (3); **benetako grazia** (9); **beraren grazia** (3); **bere grazia** (36); **beren grazia** (3); **beste grazia** (5); **beste grazia bat** (5); **biezazkizute grazia** (8); **biezazkizute grazia eta** (8); **biezazkizute grazia** (3); **da grazia** (3); **dena grazia** (3); **dit grazia** (4); **dohain eta grazia** (3); **du bere grazia** (3); **du grazia** (8); **du grazia bat** (4); **duen grazia** (6); **duzun grazia** (4); **egiteko grazia** (3); **eman biezazkizute grazia** (8); **eman biezazkizute grazia** (3); **ere grazia** (6); **espiritu santuaren grazia** (3); **eta bere grazia** (3); **eta grazia** (69); **eta grazia egin** (3); **eta grazia handia** (3); **eta grazia handikoa** (3); **eta grazia morcillo** (5); **eta jainkoaren grazia** (4); **eta zer grazia** (3); **ez dit grazia** (4); **ez du grazia** (4); **ez zion grazia** (5)

**grazia bakarra** (3); **grazia bat** (22); **grazia bat bera** (3); **grazia bere** (4); **grazia berezi** (11); **grazia berezi bat** (6); **grazia berezia** (15); **grazia da** (3); **grazia duen** (3); **grazia egin** (45); **grazia egin dio** (5); **grazia egin dit** (3); **grazia egin zidan** (9); **grazia egin zion** (9); **grazia egingo** (8); **grazia egingen** (41); **grazia egingen dio** (8); **grazia egiten dit** (4); **grazia egiten zidaten** (3); **grazia egiten zion** (3); **grazia eman** (10); **grazia emateko** (3); **grazia ere** (3); **grazia eskatzea** (4); **grazia eskatzen** (3); **grazia eta** (49); **grazia eta bakea** (15); **grazia eta laguntza** (3); **grazia ez** (4); **grazia gehiago** (4); **grazia guztia** (8); **grazia guztiak** (4); **grazia guztien** (3); **grazia handia** (24); **grazia handia egin** (4); **grazia handia egiten** (8); **grazia handiagoa** (4); **grazia handikoa** (8); **grazia handirik** (17); **grazia handirik egin** (8); **grazia handirik egiten** (3); **grazia handiz** (13); **grazia hau** (10); **grazia hori** (8); **grazia horren** (4); **grazia hutsez** (4); **grazia iheskor** (8); **grazia iheskor bat** (4); **grazia iheskor horren** (4); **grazia izan** (4); **grazia lagun** (12); **grazia lortu** (4); **grazia morcillo** (5); **grazia pixka** (3); **grazia pixka bat** (3); **grazia ugari** (5); **grazia ugariagoz** (3); **grazia zeukan** (3); **grazia zuek** (3); **grazia zuek guztiokin** (3); **grazia zuekin** (8)

**gure jaunaren grazia** (8); **gure jaunari grazia** (3); **hain grazia** (3); **halako grazia** (11); **halako grazia berezi** (3); **haren grazia** (6); **horrek grazia** (3); **izateko grazia** (3); **jainkoaren grazia** (34); **jainkoaren grazia eta** (4); **jainkoaren grazia lagun** (4); **jaunaren grazia** (15); **jaunaren grazia zuekin** (5); **jaunari grazia** (5); **jendeari grazia** (3); **kintana eta grazia** (6); **lanerako grazia** (3); **nire benetako grazia** (4); **nire grazia** (5); **niri grazia** (4); **nolako grazia** (4); **santuaren grazia** (4); **triestek grazia** (4); **triestek grazia iheskor** (4); **zer grazia** (11); **zeruko grazia** (3); **zion grazia** (6); **zion grazia handirik** (3); **zuen grazia** (6); **zure grazia** (5)

**eta graziak** (3); **eta grazian** (3); **eta graziaren** (12); **eta graziari** (5); **eta graziari esker** (4); **graziak eraginda** (3); **graziak eta** (8); **graziako tiroa** (4); **grazian eta** (3); **graziaren arabera** (3); **graziaren bat** (3); **graziaren bidez** (7); **graziaren espiritua** (3); **graziaren eta** (5); **graziaren jabe** (3); **graziaren laguntzaz** (4); **graziari esker** (19); **graziari eta** (4); **haren graziari** (4); **hiru graziak** (4); **jainko graziaren** (5); **jainkoaren graziak** (12); **jainkoaren graziaren** (7); **jainkoaren graziarekin** (4); **jainkoaren graziaren** (9); **jainkoaren graziari** (6); **jainkoaren graziari esker** (3); **jaungoikoaren graziaren** (3); **zeruko graziaren** (4)

**batere graziarik** (29); **batere graziarik egin** (10); **batere graziarik egiten** (6); **bere graziak** (8); **dio batere graziarik** (3); **du batere graziarik** (5); **du graziarik** (4); **espiritu santuaren graziak** (4); **eta graziarik** (5); **eta graziak** (22); **ez du graziarik** (4); **ez zion graziarik** (3); **graziarik egin** (17); **graziarik egingo** (4); **graziarik egiten** (18); **graziarik ez** (6); **graziarik gabe** (4); **graziak bete** (5); **graziak betea** (14); **graziak beteriko** (5); **graziak eta** (19); **graziak jainkoaren** (3); **inolako graziarik** (4); **jainkoaren graziak** (21); **jainkoaren graziak eta** (5); **kopuruz eta graziak** (4); **mendekuaren graziak** (10); **santuaren graziak** (4); **zion batere graziarik** (4); **zion graziarik** (4)

## grazialdi iz graziazko aldia.

Bere **grazialdia** amaitu da ia; aurki orratzaren trantzea igaro beharko du. Oskar Arana

## graziatsu izond graziaz betea.

Karlos gure errege **graziatsuaren** adiskide nauzu. Juan Garzia

Ezagun zen Krapotkin printzeak bere esku sendo **graziatsua** hedatua zuela nire gainean. Matías Múgica

## graziatu, grazia(tu), graziatzen du ad graziaz hornitu.

Beste batzu azken puntan **graziatuak** izan dira. Herria

## grazios 1 izond grazia duena.

Mutil "zirtzil" eta neskatz **grazios** haiek. Herria

Korazta arabiarra zeukan, begi almendratuak, eta munduko tentetasunik **graziosena**. Koldo Izagirre

## 2 goakoa.

Xerbitxari bolondres batzuen xerbitzu **graziosa** prezatu dute denek. Herria

## grazioso izond grazia duena.

Txistulariak eta txülulari hirukoteak, dantzarien xilintxa **graziosoak**. Itxaro Borda

Ñoñostiar **grazioso** alu hura. Jokin Muñoz

Hik uste duk oso **grazioso** haizela, baina batzuetan babo hutsa besterik ez haiz. Patxi Iturritegi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**oso grazioso** (3)

**greba** (2017) *agerraldi, 73 liburua eta 1119 artikulua*; *ETCn 33.654 agerraldi* 1 iz langile talde batek, lansari boheak edo zernahi onura lortzeko egiten duen lan etete borondatezkoa. ik **lanuzte**; **huelga**.

**Greba** da langileen aukera nagusia. **Lopez de Arana**

**Greba** ez dea bada gerla sozial bateko ekintza seinatuena? **Itxaro Borda**

Asturiasko meatzarien **grebarekiko** elkartzunez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Langileen **greba** eta geldialdiak baliatuz. **Harkaitz Cano**

Besalariek eta gainontzeko langileek **greba** egin zuten uztaren erdi-erdian. **Koldo Biguri**

Gogoan dut egun beteko **greba** egin zutela biharamunean obrako beste langileek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Langile gehienek **grebaren** alde egitea goraipatu zuen. **Berria - Ekonomia**

**Greba** babesten ez duten langileek euren jarrera azaltzeko, prentsaurrekoa egingo dute lantegian. **Berria - Ekonomia**

Montañesaren **greba** gutxieneko zerbitzuak bete gabe hasi da. **Berria - Ekonomia**

Beasaingo CAFen izandako **greba** baten ondorioz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Greba** bat gertatuz gero, aurrez utako dirua azkar xahutu ohi da langilearen etxean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

15 eguneko **greba** iragarri zutela zehaztu zuen CCOOko ordezkariak. **Berria - Ekonomia**

Gremioen Federazioak **grebarako** deia egin zuenean. **Fernando Rey**

Haren enpresako langileak **greba** luze batean sarturik zeudela. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Greba** ateratzen bada, Itxaso, joango al gaitun arratsaldea elkarrekin pasatzera? **Pako Aristi**

Langileek **grebara** jo zuten. **Edorta Jimenez**

Aktore guztiak **grebara** doaz -azaldu zuen-. **Fernando Rey**

-Nor sartuko da **greba** batean hiru mila dolar irabazita astean? **Fernando Rey**

**-Greba** egin behar dituk irabazteko, bestela ez egin **grebarik**. **Pedro Alberdi**

Hemengo langile guztiak **greban** direlako. **Itxaro Borda**

Ontzitegi nagusiko milaka langile **greban** egon ziren luzaro. **Bernardo Atxaga**

Jakinarazi dute **grebari** eutsiko diotela «ganorazko akordioa egin arte». **Berria - Ekonomia**

**Greba** irau zuen azken bost asteetan. **Itxaro Borda**

Litekeena da **greba** bertan behera uztea. **Berria - Ekonomia**

Kicible agerkeri banaketa enpresako langilek **greba** gelditu dute. **Herria**

Negoziatuko badute **greba** eteteko exijitu diete aseguru etxeek garabi gidariei. **Berria - Ekonomia**

Garbitu barik dagoena eskoletako gurasoek eta kiroldegietako elkarrekin garbitzea proposatu du, **greba** zapuzteko asmoz. **Berria - Ekonomia**

Munduko edozein **grebak** porrot egitea lor dezakegu, baina ez aktoreenak. **Fernando Rey**

Erosketa ahalmena atxikitzeko erretiratuek egindako **greba**. **Iñaki Heras**

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estibadoreen eta garabizaleen **greba** mugagabeak bete-bete harrapatu zuen *Amenofis II.a* ontzia. **Harkaitz Cano**

Bukaeran, **greba** orokorrerako deia egin zuten. **Koldo Biguri**

**Greba** orokorraren aldekoak: 22. **Pako Aristi**

Diktadurari egin zaion lehen **greba** nagusia izan da. **Edorta Jimenez**

Garabi enpresena lanuzte tekniko dela eta **greba** arruntekin zer ikusirik ez daukala. **Berria - Ekonomia**

1977ko **greba** basatia. **Iban Zaldúa**

1962an Etxebarriko Bandak laminazio fabrikari-eta egindako **greba** gogorren ondorioz. **Jokin Urain**

Kaien **greba** entzutsua puskatu zuten 1898an. **Monika Etxebarria**

Dena izorratu zidak **greba** aluak. **Xabier Montoia**

Unibertsitateko **greba** batean. **Juan Garzia**

Antzinako **greba** eta protesta erak zaharkituta geratzen ari zaizkigunean. **Harkaitz Cano**

Euskal presoen aldeko **greba** orokorrerako deia erantzunez. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Egun beteko **greba** egin zutela biharamunean obrako beste langileek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Sei hilabeteko **grebak** paralizatu zuen Palestina. **Pablo Sastre**

Beasaingo CAFen izandako **greba** baten ondorioz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oihartzun eta indar handiko **grebak** antolatuta ziren. **Koldo Zuazo**

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Basauriko garbitzaileen **greba** batzordeko kideei. **Berria - Ekonomia**

Nobliaren aldekoen ustez, horrela, **greba** mugimendua «zigortu» nahi izan da. **Berria - Euskal Herria**

Eraikuntzako langileek zortzigarren **greba** eguna izan zuten atzo Gipuzkoan. **Berria - Ekonomia**

**Greba** -gau batez. **Felipe Juaristi**

**Greba** -deialdiak asanbladetan-eta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Greba** eskubidearen aurkako neurri bat. **Berria - Ekonomia**

**Greba** kutxaren ordaintak ere %121 handitu ditu sindikatuak. **Berria - Ekonomia**

**Greba** zurrumurruek zebiltzan lantegian. **Juan Garzia**

Duela 19 egun **greba** dinamika indartzea erabaki zuten. **Berria - Ekonomia**

Azkoitian 1920an ateratako **greba** panfleto baten arabera. **Iñigo Aranbarri**

Lantegiko sarrerak **greba** -zutoinez blokatuko eta nagusia gurekin atxikiko dugu. **Itxaro Borda**

**Greba** -apurtzaile moduan agertzen den irakasle gizajoak. **Koldo Biguri**

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Errasti higie **greban** dago, zigor ziegatik atera dezatela eskatzeko. **Berria - Euskal Herria**

Gose, egarri eta botika **greba** abiatu zuen orduan preso tolosarrak. *ik beherago 4 eta 5*. Albaceteko presoek komunikazio **greba** hasi dute. **Berria - Euskal Herria**

## 5 egarri greba

Hiru eguneko **egarri greba** egin ostean. **Berria - Euskal Herria**

Gose eta egarri **greban** hasiko gara gaurko afaritik bertatik. **Koldo Izagirre**

Gose **eta egarri** greban jarri da Gradignan herriko presondegiak. **Herria**

Iparragirrek gose eta **egarri grebari** eutsi zion. **Berria - Euskal Herria**

## 6 gose greba

Zuk, zenbat **gose** greba egin dituzu? **Koldo Izagirre**

Gandhi, Indiako independentzia zalea, bere enegarren **gose** greba egiten ari da. **Josu Zabaleta**

Lekeitioko presoak otsailaren 2an hasi zuten **gose** greba. **Berria - Euskal Herria**

**Gose** greba abiatu zuten hiru etortzinek bertan behera zuten baraualdia. Berria - Mundua

Anjel Pikabea presoak maiatzaren 18an ekin zion **gose** grebari. Berria - Euskal Herria

Atzo bete zituzten 24 egun **gose** greban. Berria - Euskal Herria

Beñat Sansebastian bidartar presoa ere **gose** greban jarri da, Lilleko presondegian. Herria

**Gose** greban jarraituko dutela jakinarazi dute sei presoek. Berria - Euskal Herria

1.500 palestinar **gose** greban dira, kartzelako baldintzen aurka protestan. Berria - Mundua

Joan den asteko astelehenetik **gose** greba mugagaben daude. Berria - Euskal Herria

**da** hegazti gripena (4); **da** hegaztien gripena (7); **donostia** hegazti gripena (6); **eta** hegazti gripena (3); **gizakiaren** gripe (3); **gripe** arrunta (7); **gripe** arruntaren (5); **gripe** asko (3); **gripe** espainiarra (4); **gripe** izurri (3); **gripe** izurriak (4); **gripe** kasu (3); **gripe** kasuak (7); **gripe** pandemia (4); **hegazti gripe** (7); **hegaztien gripe** (4); **zen** gripe (4)

**gripena** agertu (4); **gripena** agertzen (4); **gripena** asian (3); **gripena** beste (4); **gripena** dela (3); **gripena** duela (3); **gripena** eragiten (5); **gripena** europar (4); **gripena** europar zabaltzeko (4); **gripena** ez (4); **gripena** gaitza (5); **gripena** gaitzak (6); **gripena** gaitzak jotako (4); **gripena** harrapatu (3); **gripena** indonesiar (3); **gripena** izan (5); **gripena** kutsatutako (3); **gripena** mundu (4); **gripena** thailandiar (3); **gripena** zabaltzea (3); **gripena** zuela (7); **gripena** zuen (5); **gripena** zutela (3)

**hegazti gripena** (125); **hegazti gripena** agertzen (4); **hegazti gripena** gaitza (3); **hegazti gripena** gaitzak (4); **hegazti gripena** indonesiar (3); **hegazti gripena** zuela (3); **hegaztien gripena** (99); **hegaztien gripena** kutsatutako (3); **hegaztien gripena** thailandiar (3); **hegaztien gripena** zabaltzea (3); **osasuna** hegaztien gripena (3); **zuten** hegazti gripena (3)

**da** hegazti gripeak (6); **da** hegaztien gripeak (4); **dira** hegazti gripeak (4); **ditu** hegazti gripeak (4); **donostia** hegazti gripeak (3); **du** hegaztien gripeak (3); **gripena** beste (3); **gripena** eragin (3); **gripena** hil (6); **gripena** jota (55); **gripena** jota baitago (3); **gripena** jota dago (8); **gripena** jota egon (3); **gripena** jota hil (6); **gripena** jotako (12); **hegazti gripeak** hil (6); **hegazti gripeak** jota (10); **hegazti gripeak** jotako (5); **hegaztien gripeak** (50); **hegaztien gripeak** beste (3); **hegaztien gripeak** jota (20); **hegaztien gripeak** jotako (4); **vietnamen** hegaztien gripeak (4)

**atzo** hegazti gripearen (4); **da** hegazti gripearen (5); **da** hegaztien gripearen (5); **dira** hegazti gripearen (3); **donostia** hegazti gripearen (7); **du** hegazti gripearen (3); **dute** hegazti gripearen (5); **eta** hegazti gripearen (4); **eta** hegaztien gripearen (3); **hegazti gripearekin** (5); **hegaztien gripearekin** (4)

**gripearen** aldaera (7); **gripearen** aurka (10); **gripearen** aurkako (19); **gripearen** aurkako txertoa (6); **gripearen** aurkako txertoak (3); **gripearen** beste (4); **gripearen** birus (9); **gripearen** birus aldaera (4); **gripearen** birusa (24); **gripearen** birusa atzeman (4); **gripearen** birusak (5); **gripearen** birusarekin (3); **gripearen** birusaren (8); **gripearen** birusik (3); **gripearen** eraginez (3); **gripearen** gainean (4); **gripearen** gaineko (4); **gripearen** giza aldaera (5); **gripearen** giza aldaerak (9); **gripearen** giza aldaeraren (4); **gripearen** inguruan (7); **gripearen** inguruko (6); **gripearen** kasuak (4); **gripearen** kontrako (18); **gripearen** kontrako txertoa (4); **gripearen** ondorioz (12); **gripearen** ondorioz hildako (3); **gripearen** pandemia (4); **gripearen** sintomak (5)

**hegazti gripearen** (122); **hegazti gripearen** aldaera (4); **hegazti gripearen** aurka (6); **hegazti gripearen** aurkako (5); **hegazti gripearen** birusa (5); **hegazti gripearen** birusaren (4); **hegazti gripearen** birusik (3); **hegazti gripearen** gainean (4); **hegazti gripearen** giza (16); **hegazti gripearen** inguruan (6); **hegazti gripearen** inguruko (3); **hegazti gripearen** kasuak (4); **hegazti gripearen** kontrako (5); **hegazti gripearen** ondorioz (7); **hegaztiari** gripearen (3); **hegaztien gripearen** (76); **hegaztien gripearen** aurkako (3); **hegaztien gripearen** birus (5); **hegaztien gripearen** birusa (16); **hegaztien gripearen** birusak (3); **hegaztien gripearen** birusaren (4); **hegaztien gripearen** giza (7); **hegaztien gripearen** kontrako (4); **hegaztien gripearen** ondorioz (5); **ohiko** gripearen (7)

**gripeari** aurre (12); **gripeari** aurre egiteko (12); **gripeari** buruz (3); **gripeari** buruzko (4); **gripeaz** jotako (3); **griperik** ez (3); **hegazti gripeari** (14); **hegazti gripeari** aurre (7); **hegazti gripeari** buruzko (3); **hegazti griperik** (9); **hegaztien gripeari** (10); **hegaztien gripeari** aurre (4); **hegaztien gripeaz** (8); **hegaztien gripeaz** jotako (3); **hegaztien griperik** (3)

**gripa** kasu (3); **gripa** tzar (6); **gripa** tzar hori (3); **oiloen gripa** (10); **oiloetako gripa** (4)

## gripealdi iz gripe bolada.

Neguko solstizioan gauza bera egin beharko genuke urteroko **gripealdia** uxatzeko. Patziku Perurena

## gris (ETCn 8.037 agerraldi) 1 izond beltzaren eta zuriaren arteko kolorekoa.

Aspaldiko tristezia bat sumatu nuen Albertoren begi **grisetan**. Iban Zaldua

Dudan egon ziren haren begi **grisak**. Harkaitz Cano

Soineko **gris** botoiduna. Fernando Rey

Neguko argi ahula, errautsez zipritzinduriko argi **grisa**, txori **grisak** bezain argi **grisa**. Felipe Juaristi

Dirdira **grisei** begira nago. Monika Etxebarria

Haren ile-xerlo **gris** izurtuak. Lopez de Arana

Antxeta zikin-**grisak**. Koro Navarro

Ibaiaren ur **gris** zikinaren zirimolak. Ramuntxo Etxeberri

Pony **gris** tantotu gizen bat. Iñaki Mendiguren

Paper pintatuaren **gris** lausoaren gainean. Karlos Zabala

Betiko **gris** arbelkara du gaur ere zeruak. Anjel Lertxundi

Eta urdina, berriz, **gris** argiaren itxura hitsa hartzeraino zen marguldua. Xabier Olarra

Zurezko etxe **gris** ilun baten aurrean gelditu zen kalesa. Jose Morales

**Gris** monokromoa. Josu Zabaleta

Marra **gris** eta arrosekiko tapaki batean. Zeru **griseko** egunetan. Lopez de Arana

Langaren atzetik beroki **griseko** SS bat etorri zitzaigun. Alberto Ladron Arana

Urteek higaturiko harri **grisezko** eraikina. Agustin Otsoa

**Grisen** eskalan. Xabier Olarra

Gauza guztiak **grisaren** gamako koloreetakoak baitziren. Xabier Olarra

[Hodeiak] zeru ertzean pilatzen zirenean, itsasoan behintzat, **grisera** jotzen bazuten. Ramon Saizarbitoria

Oso dotore jantzita zegoen, **grisez** goitiki behera, zetazko alkandora eta gorbatarekin. Bernardo Atxaga

## 2 (predikatu gisa)

Aurpegi guztiak **grisak** eta hitsak ziren. Agustin Otsoa

Erdiraino iluna izaten da, **grisa**, edo urdina, edo orlegia. Lander Garro

Emakumeen begitarreak zimurtuak eta **grisak** ziren. Lopez de Arana

Izan ere, **grisak** baititut hortzak. Ramon Saizarbitoria

Zeruak **gris** zirauen. Agustin Otsoa

## 3 irud gailentzen ez dena, inondik ere interesgarria ez dena.

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, [...] administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, aberats okitua, burokrata **grisaa**. Jose Morales

Pertsona **grisaren** traza hartu dio Robertok, batetik bestera alde handirik ez dagoen exekutiboetako bat. Urtzi Urrutikoetxea

Behere-mailetako auzotan osatzen dituzten jokalarri **gris** anonimo haietako bat. Juan Mari Irigoien

Bai, esan ezak atentatuek hire errutina **grisetik** ateratzen hautela. Jokin Muñoz

· Errealitatea kaxkartuz joan zen, funtzionariotzaren **grisak** tindatu zituen ezari-ezarian bazterrak. Iñaki Iñurrieta

Aurrera, inertiaren **gris** hutsez egin zuelako sentipenak eraso zion. Fernando Morillo

## 4 (kolore-rekin)

Kolore **gris** eta nabarrez nahasiriko argitasun motela. Monika Etxebarria

Kaperetan kolore **grisa** zen nagusi, hautsez beteriko leiho batzuen argia gorabehera. Karlos Zabala

Ikusten dudala halako herri isil batean, euri egun bateko kolore **grisetan**, emakume elbarri bat. Josu Zabaleta

Uhin-luzera guztiak neurri berean zurgatzen dituzten gainazalak kolore **griseko** agertzen dira. Josu Zabaleta

Zeruak kolore **gris** hausgara hartu zuela iruditu zitzaion. Agustin Otsoa

Kolore **gris** leun-leunekoa. Karlos Zabala

Kolore **griseko** etxebizitza handiek. Aritz Gorrotxategi

Burdinaren kolore **grisekoak**. Karlos Zabala

Ur hegazti kolore brontze-**grisekoak**. Karlos Zabala

**Gris** -perla koloreko azal berbera. Iban Zaldua

Jantzien **gris** -gorri koloreek adierazten zuten Irlandako klan printzipalenetako bateko kidea zela. Joanes Urkixo

**Gris koloreko** eraso bortitz bikoitza. Berria - Kultura

**Gris kolore** ia metalikoduna. Iban Zaldua

**Gris kolorekoa** da, eta oso txikia iruditu zait. Iban Zaldua

## 5 (erkaketekan)

Begiak itsasoa bezain **grisak** zituen. Agustin Otsoa

Itsasoa bezain **grisak** ziren begi haien begirada gogorra eta gupidagabea zen. Agustin Otsoa

[Mendiak] mamuak bezain **gris** eta ilun. Agustin Otsoa

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondo bat osatzen)

Gizon gazte ile-**gris** bat. Irene Aldasoro

Barrura sartutakoan, askotariko zakurrak ikusi zituzten [...]: arre-gorrixkak, beltzak izpil zurixkekin, zuriak orban gaztinkara argiekin, zuriak orban gorri-beltzekin, zuriak orban arre-gorrixkekin, belarri-beltzak, belarri-**grisak**... Jose Morales

Ile-**grisa** eta aurpegi-grisa zen. Koro Navarro

## • 7 iz kolore grisa.

**Grisa** ere bazuen nahastuta bere gorputz eta hanka beltzetan. Iñaki Mendiguren

Goizean goizeko **grisean**, basoko eguerdiko itzal korapilatuetan. Koro Navarro

Kamareroari azken aldiz begiratu gabe, abiatu zara kaleko **griser**. Eider Rodriguez

Eta loreen zurbilak eta hostoen **grisak** bat hartu zuten. Anton Garikano

Han egon banintz bezala imaginatu ditzaket, hotzaren eta **grisaren** aurka aliaturik. Eider Rodriguez

Argitasuna irudikatzen duten irudiak dira horiek, eta **gris** -eskala zabal bat erabiltzen dute. Josu Zabaleta

Kolore-eskala (beltza - **gris** mailak - zuria). Josu Zabaleta

## 8 diktadura garaiko Espainiako *Policía Armada*ko kidea.

Polizia bat daukat zaintzaile, **grisa**, leihoreen ostein. Agurtzane Juanena

Zerbait esan die **grisei**, eta atea ireki didate. Agurtzane Juanena

Korridorean dagoen **grisari** manta bat eskatu baitio. Agurtzane Juanena

Itxialdia, gose-greba, ke-poteak eta **grisen** karga... Iban Zaldua

## 9 beltz-gris

Beren soingaineko marra-txiki beltz-**grisezkoez** estalirik. Karlos Zabala

Tonu **beltz grisen** gainean. Berria - Kultura

## 10 berde-gris

Agure handi berde-**gris** hori, besaulkian zegoena, buruzagi bat zen. bere begi berde-**grisak** etsipenez dirdai egiten zuten. Monika Etxebarria

Horma berde-**grisean** gaizki eskegita. Lopez de Arana

Dibisio nazien suge berde-**grisa** Milango eta Turingo kaleetan barrena. Juan Garzia

Felpa berde-**grisezko** kanape batean. Matías Múgica

## 11 gaztain-gris

Ilea ez du erabat beltza, areago da errauts-kolore, grisa, edo gaztain-**grisa**. Joxe Austin Arrieta

## 12 gris-beltz (*corpusean grisbeltz soilik*)

Barruko ilunpe **grisbeltzetik**, leihoko argitasunaren kontra Joseba Sarrionandia

## 13 gris-berde

Uniformea **gris** -berdea zuan, Wehrmacht. Josu Zabaleta

## 14 gris-berdexka

Haien forma **gris berdexkak** trinkotzen ziren. Karlos Zabala

[Begiak] ez dira ilunak, nik beti halakoxeak zirela uste izan arren, pasaportearen hala jartzen duelako noski, baizik eta **gris** -berdeskak. Joxe Austin Arrieta

Estadioak zirriborro **gris** -berdexka ematen baitzuen. Iñaki Mendiguren

## 15 gris-gris

Morroi jator bat, **gris-gris** eta arrunt-arrunta. Juan Garzia

## 16 gris-horixka

Batzuek eta besteek aurpegi **gris** -horixka berdintsua daukate. Pablo Sastre

## 17 gris marengo oso gris iluna.

Trajearen gris **marengo** bat zetorkion ezpain gaineko bibote bikainarekin. soinean zeraman traje gris **marengo** hura. Joxemari Urteaga

## 18 gris-more

Kono **gris** -moreak. Lopez de Arana

## 19 gris-perla izond

Mary Ann, berriz, soineko gris **perla** batekin. Udako jantzi gris **perla** zeraman, udako zilar distiran bildua iduri. Bernardo Atxaga

Soingaineko argiegia soinean, kopalet gris **perla** buruan. Matías Múgica

· Gris-**perla** koloreko azal berbera, marrazki berbera, izenburu eta egile berbera. Iban Zaldua

## 20 gris-urdin

Ñabardura **gris-urdin** amaigabeen tirabira lausoan. **Anjel Lertxundi**

Laboratorioko ate **gris urdina**. **Aurelia Arkotxa**

Uniforme **gris**-urdinez jantzirik, hiruzpalau guarda ari ziren elkarrekin alaiki mintzaten. **Ramuntxo Etxeberri**

## 21 gris-zuri

**Gris**-zuri marrazten ziren mendien gainean, zerua zohardi zegoen. **Josu Zabaleta**

Gazteluaren masa **gris**-zurixka izan genuen bertatik bertara. **Alberto Ladron Arana**

## 22 more-gris

Haren ezpain more-**grisak**. **Lopez de Arana**

## 23 zuri-gris

Siberiar huski txakur zuri-**gris** horietako bat. **Anjel Lertxundi**

Non bi behor ikusi baitzituzten, bata zuri-**grisa** eta bestea gaztainakara argia. **Jose Morales**

Denak dauka errautsaren tonu zuri-**grisa**. **Koldo Izagirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**argi gris** (4); **aurpegi gris** (3); **auto gris** (3); **begi gris** (15); **bere begi gris** (4); **beroki gris** (4); **bezain gris** (6); **bibote gris** (3); **bola gris** (3); **dena gris** (3); **eguraldi gris** (3); **eraikin gris** (3); **eta gris** (14); **eta jaka gris** (3); **etxe gris** (7); **gizon gris** (3); **goiz gris** (4); **gris argi** (3); **gris argia** (5); **gris bat** (46); **gris batean** (8); **gris batek** (4); **gris baten** (13); **gris baten gainean** (3); **gris batez** (4); **gris eta** (60); **gris hartan** (3); **gris honetan** (3); **gris hori** (3); **gris hura** (7); **gris ilun** (7); **gris iluna** (8); **gris ilunak** (3); **gris koloreko** (3); **gris kolorekoa** (3); **gris lodia** (3); **gris perla** (6); **gris zikin** (4); **hodei gris** (4); **ile gris** (10); **jaka gris** (4); **jantzi gris** (4); **jertse gris** (3); **juan gris** (4); **kolore gris** (9); **laino gris** (5); **mantal gris** (4); **mantal gris bat** (3); **perla gris** (4); **soineko gris** (5); **traje gris** (9); **zahar gris** (3); **zeru gris** (4); **zodiak gris** (4)

**argi grisa** (4); **aurpegi grisa** (3); **balea grisa** (3); **dena grisa** (3); **ere grisa** (3); **eta grisa** (22); **eta grisa zuen** (3); **gai grisa** (3); **grisa agertu** (3); **grisa baino** (4); **grisa da** (5); **grisa ere** (3); **grisa eta** (24); **grisa eta beltza** (3); **grisa ikusi** (3); **grisa izan** (11); **grisa izan zen** (7); **grisa soinean** (4); **grisa zen** (16); **grisa zuen** (7); **jaka grisa** (4); **jertse grisa** (3); **kapa grisa** (5); **kolore grisa** (6); **nahiko grisa** (3); **partida grisa** (4); **pintura grisa** (3); **sira grisa** (3); **soineko grisa** (3)

**argi grisa** (4); **aurpegi grisa** (3); **balea grisa** (3); **begi grisak** (18); **begi grisak eta** (4); **begi grisak zituen** (3); **begiak grisak** (5); **dena grisa** (3); **edo grisak** (3); **ere grisa** (3); **eta galtza grisak** (3); **eta grisa** (22); **eta grisa zuen** (3); **eta grisak** (11); **eta grisaren** (4); **gai grisa** (3); **galtza grisak** (8); **grisa agertu** (3); **grisa baino** (4); **grisa da** (5); **grisa ere** (3); **grisa eta** (24); **grisa eta beltza** (3); **grisa ikusi** (3); **grisa izan** (11); **grisa izan zen** (7); **grisa soinean** (4); **grisa zen** (16); **grisa zuen** (7); **grisak dira** (5); **grisak ere** (3); **grisak eta** (17); **grisak ziren** (5); **grisak zituen** (8); **grisaren artean** (3); **grisaren azpian** (6); **grisaren gainean** (4); **ile grisak** (3); **irudi grisak** (3); **jaka grisa** (4); **jertse grisa** (3); **kapa grisa** (5); **kolore grisa** (6); **nahiko grisa** (3); **otso grisak** (3); **partida grisa** (4); **pintura grisa** (3); **sira grisa** (3); **soineko grisa** (3); **zeru grisaren** (10); **zeru grisaren azpian** (3)

**argi grisean** (3); **begi grisek** (4); **begi grisetan** (5); **bizar griseko** (4); **griseko gizon** (4); **grisen eskalan** (3); **grisez eta** (3); **grisez jantzitako** (6); **harri grisezko** (4); **kolore griseko** (6); **traje grisez** (5); **traje grisez jantzitako** (3); **zeru grisean** (3); **zoru grisean** (3)

## grisail izond grisaxka.

Ile-adatsa alde batera apartatu zuenean, Isabelleren loki inguruan zain **grisail** baten bor-borra nabaritu zuen Jon Mirandek gelako ilunpean. **Harkaitz Cano**

## grisatu, grisa(tu), grisatzen du ad gristu.

Eguzki jartze lelaran izpiek Sena ibaia **grisatzen** zuten. **Iñaki Zabaleta**

Zeruertz urruna, hodei erraldoiek beltzerantz larri **grisatuta**. **Josu Landa**

## grisaxka (orobat grisaska g.er.) 1 izond grisaren antzekoa, griserantz jotzen duena. ik griskara.

Aurpegi gorri karratua zuen eta bibote **grisaxka**. **Irene Aldasoro**

Espaloi luze **grisaxkak**. **Karlos Zabala**

Iraulki orgen profil **grisaxka** handiek. **Karlos Zabala**

Gorgorotheko zelai beldurgarrietara, ostera, argi **grisaxka** besterik ez zen iristen. **Agustin Otsoa**

Zuhaitzek euren adar more argiak hedatzen zituzten zeru **grisaxkarantz**. **Lopez de Arana**

Aurretik buru-soila zen, baina ile hori-**grisaxka** zuen buruaren atzealdean. **Koro Navarro**

Gobernazio ministerioko paper **grisaxkan**. **Javi Cillero**

Zerua garbi eta **grisaxka** zegoen. **Iñaki Mendiguren**

## 2 berde-grisaxka

Berde **grisaxkez** orbandutako kobre gorriaren antzekoak. **Karlos Zabala**

Murgilduta baitzegoen logale berde **grisaska** batean. **Anton Garikano**

## 3 urdin-grisaxka

Metal urdin-**grisaxka** astuna. **Xabier Olarra**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**berde grisaska** (3)

## grisaxkatu, grisaxka, grisaxkatzen (corpusean grisaskatu soilik) da/du ad grisaxka bihurtu.

Ninietako beltza **grisaxkatu** eta, sekula inori hitzik esan gabe, bazterren bat bilatzen zuen urjentziak, malkoen lasaitua sentitzeko. **Hasier Etxeberria**

## grisbeltz ik gris 12.

## grisdun izond grisekoa.

Itsasbater berdea, zuhaitzez eta etxe handi zuri teilatu **grisdunez** betea. **Lopez de Arana**

## grisela iz burdin hari paraleloz osaturiko tresna giderduna, janariak suan prestatzeko erabiltzen dena. ikparrilla.

Enbor txiki bat, argizari eta zerrautsezkoa, **griselan** erretzen ari zen. **Koro Navarro**

Gero, mahaian eseri eta hanburrak, atun-entsaladak eta **griselan** berotutako gaztazko sandwichak eskatu genituen. **Oskar Arana**



## griseztatu, grisezta, griseztatzen da *ad* gristu.

Kanpoaldean goiz artikoa **griseztatzen** ari zen egunsentiarekin batera. **Lopez de Arana**

## grisgune ik grisune.

## griskara 1 *izond* grisaxka.

Anbarrean finkatutako esne **griskara** hori baizik ez dago. **Josu Zabaleta**

Belo **griskarez** estalitako emakumeak. **Pablo Sastre**

## 2 *beltz-griskara*

Makurra da, gero, beltz **griskara** hori, pilaka botatako pildazko beltz hori. **Josu Zabaleta**

## grisola *iz* abere barrabila.

Txitoak, **grisolak** eta urdaia, maiatzeko mahaira. **Pello Zabala**

## gristasun 1 *iz* grisa denaren nolakotasuna.

Arboletako hosto berdeek hausten zuten **gristasuna**. **Itxaro Borda**

Euriaren eta haizearen **gristasun** etsia. Egun ilunetan neguko **gristasunaren** zemaia irudikatzen da hiriaren teilatuan. **Itxaro Borda**

Begirada galduta hormako zuri-**gristasunean..** **Jon Arretxe**

## 2 *irud*

**Gristasun** ukiezin batean gertatzen da, oinpean ezer gabe, inguruan ezer gabe, ikuslerik gabe, auparik gabe, aintzarik gabe. **Joseba Sarrionandia**

Hizkera periodistikoaren ustezko bizitasunaren kolorea baizik ez nion erantsi, Tipi txostengile saiatauren estilo zurrin eta sinoptikoaren **gristasuna** itxurapaindu beharrez.

**Aingeru Epaltza**

Hitzek **gristasunarekin** bat egiten zutelako. **Fernando Rey**

Personaien bakardadeak eta inkomunikazioak bat egiten dute gizartearen **gristasun** orokorrarekin. **Berria - Kultura**

## gristatu, grista(tu), gristatzen da *ad* gristu.

Une hartatik, begia **gristatu** egin zitzaion, hits eta goibel zirudien. **Xabier Olarra**

## gristu, gris(tu), gristen da/du *ad* kolore grisa hartu edo eman, gris bihurtu.

Erraustak betazalak **gristen** zizkidan. **Itxaro Borda**

Herioa leitzen zuen aurpegi horaildu eta **gristuetako** matela edo kopetetako arroiletan. **Itxaro Borda**

Kapela ere, itxuraz, **gristuta** zegoen. **Koro Navarro**

Nikotinak **gristutako** paretak. **Harkaitz Cano**

Biloak **gristiak** dituztenak barne. **Herria**

## grisu *iz* ikatz meetan sortzen den gasa, airearekin nahastean eztanda gogorrek eragiten dituen.

Eguraldia epeldu baino lehen hil zen zure aita, lan egiten zuen meategiko galeria bateko **grisuak** zapart eginda. **Anjel Lertxundi**

Asturias aldekoak segur aski: **grisu** -leherketa bat eta hildakoak, silikosia, zulo barruko ilunpea eta klaustrofobia... **Xabier Mendiguren Elizegi**

## grisune (*orobat grisgune*)*iz* gun e grisa.

Aldeetako **grisune** guztiak ezabatu zituen Ruche jaunak, eta bertikal bat marratu erpinetik oinarriaren erdiraino. **Jon Muñoz**

Hainbeste zenbaki zeuden idatzita non **grisuneak** osatzen zituzten horman. **Bernardo Atxaga**

Haren ile marroi argiak tarteka **grisguneak** ere bazituen. **Iñaki Mendiguren**

## groenlandiar *izlag/iz* Groenlandiakoa, Groenlandiari dagokiona; Groenlandiako bizanlea.

Leik Erikson idazle **groenlandiarrak** emandako hitzaldia. **Groenlandiarrak** ados ez dauden arren. **Bernardo Atxaga**

Irakurri, **groenlandiarrok** ! **Bernardo Atxaga**

## groenlandiera *iz* Groenlandiako hizkuntza.

Danieraz Grønland; **groenlandieraz**, Kalaallit Nunaat. **Bernardo Atxaga**

## grog 1 *iz* edari beroa, osagai gisa ur azukreduna, limoia, koinaka, rona eta kidekoak dituen.

Charvetek aristokrata deitzen zion Clémenceri, barrez, **grog** bat hartzen zuelako. **Karlos Zabala**

Clémencek bere **grog**-a astiro-astiro prestatzeari ekin zion; ur beroa limoiaren gainera isuri zuen, limoia koilara kolpez zanpatzen zuen bitartean, gero azukrea bota eta, azkenik, rona hornitu zion, botilari kontu eginez, arauzko edontzi txikiaren neurria ez gainditzeko. **Karlos Zabala**

Goiputza atzerantz ematen zuen trenkadaren kontra, eta bere **gropa** zurrupada txikiz edaten zuen, solaskideei begira. **Karlos Zabala**

## 2 (hiz elkartuetan)

Bere **grog** edontzia hartzea gustatzen zaiona eta gonazale samarra beharbada, eta kirolari ona. **Irene Aldasoro**

Clémencek, azken biribilkia gorde eta gero, **grog** zurrut bat edan zuen edontzitik. **Karlos Zabala**

## grosier *izond* gisagabea, oiesa.

Agertu dizut nolakoa zen aita bere menekoekin, **grosier** eta deskortes, hertsu eta itxekin, eta erran ere dizut ezen arras bertzelakoa zela haren jokabidea, bera baino handiagoak edo aberatsagoak zituenean bistari. Joan Mari Irigoien

## grosierki *adlag* oieski, gisagabeki.

Bat-batean, beltzuritik betargirat egiten zuela eta haren ezpainek irri zuri bat erakusten zutela, erran zuen, **grosierki** eta deskorteski: [...]. Joan Mari Irigoien

## grosso modo *adlag* oro har, gutxi gorabehera.

Euforia eta paniko zikloen iraupena, grosso **modo**, jendeak bere azken hondamendia ahazteko behar duen denbora aldiaren araberakoa izan da. Iñaki Heras  
Neo-formalismo horrek testu artistikoak beren testuinguru formal eta estilistiko zehatzaren definizio xehe baten bidez interpretatzeko metodologia bat esan nahi du, grosso **modo**. Josu Zabaleta

Erantzunak, joeraz joera, honela labur genitzake grosso **modo**: [...]. Askoren artean

## grotesko *izond* irrigarria, isekagarria.

Eguneroko bizitzaren elementu **groteskoen** estetikan. Fernando Rey

Gertaera **grotesko** eta irriemangarriek, dena dela, ez diote gizatasun izpirik ere kentzen historiari. Fernando Rey

Burua oraindik ere txotxongilo **grotesko** batek bezala zintzilika zuela. Iñaki Mendiguren

**Groteskoa** zen berak Tansley jaunaz zeukan ideia. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**grotesko** eta (3); **grotesko samarra** (3)

## groteskotasun *iz* groteskoa denaren nolakotasuna.

Gazteria honek buru egiten zion gehiengoaren gustu onari, eta **groteskotasuna** bilatzen zuen. Koldo Izagirre

## grua *iz* garabia.

Kamioi, kontainer eta **grua** artean. Bernardo Atxaga

Hiru **grua** geneuzkan aurrean, kolore hori bizikoak. Bernardo Atxaga

Bera bizi izandako txalet hura **grua** apurtzaileei entregatu nahi ezean. Bernardo Atxaga

Pieza erraldoi bat zerabilen hortik hara **gruak**. Pablo Sastre

**Gruaz** autoa daraman udal-tzainaren argudiaketa. Andoni Egaña

Pieza erraldoi bat zerabilen hortik hara **gruak**. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**grua** eta (4)

## gruyere *iz* gazta mota bat.

Hats atsituen kakofonia zen hura, ore egosi, **gruyere** eta bola gazten astuntasun bigunetatik olivetaren erpin alkalinoetara. Karlos Zabala

## gu 1 *izord* pluraleko lehen pertsonaren izenordaina, hitz egiten ari direnak adierazten dituena. ik**geu**. (*ikus beheko konbinatorian gu izenordainaren agerraldi maizkoenak*).

### 2 (izen gisa) *iz* ik ni 2.

Plurala, **"gu" a**, jende honek biziki gorrotatzen duen elementu gramatikoa da inondik ere. Joxe Azurmendi

Dena dela, antropologo kritikoa batzuek (J. Clifford, Cl. Geertz) formulazio bortitzak eskuratu dizkiete horrela **"Gu"aren** (kasuan, euskaldunaren) ukatzaileei, batzuen eskuetatik besteenera logikak zentzua arras aldatu badu ere. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**bai gu** (10); **baikara gu** (10); **baina gu** (152); **baina gu ere** (16); **baina gu ez** (32); **baita gu** (8); **batek gu** (8); **da eta gu** (10); **da gu** (56); **dela gu** (8); **dira gu** (22); **du gu** (16); **dut gu** (10); **dute gu** (17); **edo gu** (13); **ere gu** (26); **eta gu** (638); **eta gu baino** (8); **eta gu biok** (23); **eta gu ere** (44); **eta gu ez** (20); **eta gu geu** (13); **eta gu guztiok** (16); **eta gu haren** (8); **eta gu hemen** (19); **ez dira gu** (9); **ez gara gu** (19); **ez gu** (37); **gaitu gu** (21); **gaituk gu** (11); **gara gu** (161); **gara gu ere** (17); **garela gu** (10); **gaude gu** (29); **gauden gu** (11); **gero gu** (8); **geunden gu** (15); **ginen gu** (78); **ginen gu ere** (9); **gintuen gu** (10); **gintuzten gu** (9); **gira gu** (15); **goaz gu** (12); **goazen gu** (8); **gora gu** (15)

**gu aldiz** (8); **gu ari** (10); **gu bagoaz** (11); **gu bai** (13); **gu baino** (177); **gu baino askoz** (12); **gu baino gehiago** (14); **gu baitan** (8); **gu bakarrik** (19); **gu bere** (8); **gu berriro** (9); **gu berriz** (9); **gu bertan** (8); **gu beste** (15); **gu beti** (37); **gu bezain** (17); **gu bezala** (76); **gu bezalako** (57); **gu bezalakoa** (8); **gu bezalaxe** (10); **gu biak** (12); **gu biok** (184); **gu biok bakarrik** (10); **gu biok elkarrekin** (8); **gu bion** (113); **gu bion artean** (46); **gu bion arteko** (32); **gu bion artekoa** (11); **gu biontzat** (8); **gu bizi** (24); **gu bizi garen** (9); **gu bizirik** (10); **gu denak** (16); **gu denen** (18); **gu denok** (35); **gu ere** (367); **gu ere bai** (21); **gu ere ez** (9); **gu eta** (71); **gu eta gure** (28)

**gu ez** (257); **gu ez gaituk** (15); **gu ez gara** (93); **gu ez garela** (13); **gu ez gaude** (29); **gu ez ginen** (15); **gu gabe** (18); **gu gara** (81); **gu garela** (12); **gu garelako** (8); **gu garen** (12); **gu gauden** (14); **gu gera** (11); **gu geu** (106); **gu geu ere** (20); **gu geu gara** (11); **gu geunden** (25); **gu geure** (16); **gu ginela** (8); **gu ginen** (17); **gu gira** (12); **gu gure** (8); **gu guzien** (24); **gu guztiok** (76); **gu guztion** (36); **gu guztiontzat** (8); **gu han** (20); **gu hara** (14); **gu haren** (15); **gu hemen** (72); **gu hemen gaude** (8); **gu hirurok** (27); **gu hiruron** (9); **gu hor** (11); **gu ikustera** (17); **gu iritsi** (10); **gu izan** (25); **gu izango** (13); **gu jende** (8); **gu laguntzeko** (8); **gu lasai** (11); **gu ondo** (11); **gu ongi** (8); **gu orain** (14); **gu oso** (18); **gu prest** (25); **gu prest gaude** (15); **gu salbatzeko** (8)

**haiek gu** (13); **hemen gu** (27); **hemen gu biok** (13); **hona hemen gu** (16); **horiek gu** (11); **nor gara gu** (15); **orain gu** (8); **orduan gu** (9); **zen gu** (31); **zer gara gu** (12); **zeren gu** (11); **ziren gu** (15); **zuen gu** (20)

**bai guk** (13); **baina guk** (283); **baina guk ere** (16); **baina guk ez** (37); **baizik eta guk** (8); **bat guk** (9); **behar dugu guk** (18); **bezala guk** (8); **da eta guk** (8); **da guk** (90); **dela guk** (13); **den guk** (9); **diagu guk** (14); **diegu guk** (8); **diogu guk** (33); **dira guk** (13); **ditugu guk** (31); **du guk** (25); **dugu guk** (186); **dugu guk ere** (21); **dugun guk** (9); **dute eta guk** (8); **dute guk** (11); **ea guk** (10); **edo guk** (14); **egin genuen guk** (9); **ere guk** (27); **eta ez guk** (16); **eta guk** (831); **eta guk ere** (61); **eta guk ez** (52); **eta guk geuk** (16); **eta guk gure** (10); **eta guk hemen** (8); **eta guk hori** (10); **eta guk zer** (8); **ez da guk** (16); **ez dugu guk** (22); **ez guk** (59); **genion guk** (14); **genituen guk** (11); **genuen guk** (82); **genuen guk ere** (8); **genuke guk** (13); **gero guk** (8)

**guk aldiz** (22); **guk argi** (25); **guk argi eta** (8); **guk asko** (8); **guk asmatu** (8); **guk badakigu** (30); **guk badugu** (9); **guk bagenekien** (18); **guk bai** (13); **guk baietz** (8); **guk baino** (88); **guk baino askoz** (9); **guk baino gehiago** (19); **guk baino hobeto** (8); **guk bakarrik** (27); **guk behar** (12); **guk behintzat** (11); **guk beste** (21); **guk beti** (47); **guk beti esan** (9); **guk bezala** (37); **guk bi** (18); **guk biok** (51); **guk bizi** (15); **guk dakigula** (12); **guk dena** (11); **guk denok** (19); **guk dugu** (8); **guk dugun** (8); **guk egin** (51); **guk egindako** (13); **guk egiten** (35); **guk egiten dugun** (14); **guk eman** (14); **guk entzun** (8); **guk erabaki** (14); **guk erantzun** (10); **guk ere** (497); **guk ere badugu** (9); **guk ere bai** (22); **guk ere ez** (27); **guk ere geure** (11); **guk ere gure** (20); **guk esan** (19); **guk esaten** (21); **guk eskatzen** (14); **guk espero** (9); **guk eta** (25); **guk euskal**







# guadalupetarrek izond/iz Guadalupekoa, Guadalupeko dagokiona; Guadalupeko herritarra.

**Guadalupetarrek** aspaldian ez dituzte aintzat hartzen bozen emaitzak. **Berria - Mundua**

## guagua iz Kuban eta, autobusa.

Baina askotan eramango zuen moto kaskarren baten sidekarrean, **guaguan** bestela, edo boniatoz beteriko kamioiaren bolketan. **Pako Aristi**

Baina bukatu zuenean, eta **guaguaren** atek ireki, han omen zegoen Nancy kontrabaxua jaisten laguntzeko prest. **Pako Aristi**

## guai (orobat guay g.er.) 1 izond/iz superra.

Biba Vanessa!, eta biba jende **guaia**! **Iñaki Seguro**

Literatura, artea, eta azken batean, garbi esateko, mundu **guaia** goitik behera ezagutzen zuen. **Unai Iturriaga**

Finan, etxe **guai** bat. **Unai Iturriaga**

Ukittu **guay** hori eman gabe. **Jokin Muñoz**

**Guaia** gara, eta nazka ematen digu sub-jende normalak. **Iñaki Seguro**

Askok txarrerako hartzen dute guai kontu hori, eta plantta hutsa dela, eta berdintsu diola **guaia** izan, edo mixiolaria, pijoa, abertzalea edo beste edozer gauza, eta **guaien** artean ere idiota askotxo dagoela, beste edozein giza mordoxkatan bezalaxe. **Iñaki Seguro**

**Guaia** -ez "jatorra"- eta euskarazko jende natuala izatea oso zaila da, azpekoitiarra edo ondarrutarra ez denarentzat, eta hau, dakienak badaki eta ez dakienak ez dauka erremediorik. **Iñaki Seguro**

Nahiko jarrera artifizial eta behartuak hartzen baikenituen denok ere, **guai**, jator eta moderno agertu nahian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bikilak ez du bere burua beti eta nonahi obligazioz iraultzaile **guai** izatera behartzen. **Markos Zapiain**

**Guaietan guaiena** hi bahaiz, zorionak, baina[...]. **Urtzi Urrutikoeetxea**

**Guai** zegoen gizona izatea ere. **Lander Garro**

-Ze **guay** txakurra izatea bizilagun! **Jon Arretxe**

## 2 (hitz elkartuetan)

Hor ez gara ari **guai** -jendeaz edo jende guaiaz; hor **guaibanakoaz** ari gara, edo **guai** -jendeaz baina banaka harturik. **Iñaki Seguro**

Askok txarrerako hartzen dute **guai** kontu hori. **Iñaki Seguro**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jende guaia** (3)

## guaiaba (orobat guayaba) iz guaiabondoaren fruitua, arrautza itxurakoa, mamitsua eta urrintsua.

Patatak, aguakateak, **guaiabak**, mangoak, bananak, eta bertze mila tuberkulu eta fruitu. Kafea eta **guaiabak** daude gosaltzeko. **Joan Mari Irigoien**

**Guaiabak** barru gorrikoak gustatzen zaizkit eta halakoak daude. **Joseba Sarrionandia**

Yucarekin eta **guayaba** zukuarekin. **Pako Aristi**

**Guaia** garauak haginaren artean nabaritzen. **Joseba Sarrionandia**

Edateko zerbait eskatu genuen, **guayabako** likorea. **Aritz Gorrotxategi**

Gogoan ditu berorrek seminarioan geneuzkan Txinako **guaiabak**? **Juan Garzia**

## guaiako iz Ameriketaz hazten den zuhaitz edo zuhiakxa.

Eta desagertze zorian diren **guaiako**en eta ornitorrinko mokourdinaren babesle naizen aldetik. **Iñigo Aranbarri**

Fracastoro-ren tratatuan agertzen dena, eta eriri **guaiakoa** hartzea kontseilatzen ziona: **guaiako** -ura ahotik, batetik, eta lurrunezko bainuak, bertzetik. **Joan Mari Irigoien**

Eta hala hasiko naizela ni **guaiako** -ura eta **guaiako** -bainuak hartzen. **Joan Mari Irigoien**

## guaibanako ik guai 2.

## guaikeria iz Egintza guai gaitzesgarria.

Edozer **guaikeria**, hutxakeria edo umekeria gatzbakorekin izugarri emoxionatzen dena. **Iñaki Seguro**

## guaitatu ik goaitatu.

## guajira iz kubatar nekazarien herri kanta.

**Guajirak** eta boleroak, Compay Segundoren omenez. **Berria - Kultura**

## guajiro iz kubatar nekazaria.

Nire uste partikularrean, zimarroiak **guajiroak** (nekazariak) baino hobeto bizi ginen. **Pablo Sastre**

Beso zauritua beso-euskarrian, **guajiro** kapela buruan eta bizar polito hazia, gerrillari peto-peto ageri da Rolando Cubela orduko argazkietan. **Edorta Jimenez**

Gure tropek ez daukate **guajiroen** laguntzarik, eta uharte osoa hartuko bagenu ere Habana zaila jarri zaigu, ezinezkoa ez esatearren. **Koldo Izagirre**

## guakamaio iz amerikar hegaztia, papagaiaren antzekoa, isats luzea eta oso kolore biziko lumak dituena.

Dela bi egunez behin lehoiek-eta antilope bat edo bertze akabatzen dutela, dela **guakamaioak** harat-honat hegan dabilzala gelditu gabe, dela untxiak hamaikotxo kume egin dituela bart arratsean, ez duk judu presturik Eternalaren agindua doitasunez bete dezakeenik. **Josetxo Azkona**



## guakamole *iz* aguakatez, tipulaz, tomatez eta abarrez prestatzen den entsalada.

Rosarioren eta Efrainen etxera abiatu gara atzo Josebarri agindu zioten **guakamolea** jasotzera. **Bernardo Atxaga**

## guanabana *iz* amerikar fruitua, txirimoiaren antzekoa.

Eta nik, halako batean, nigar egiteari utzi, eta emazteki indiar batek **guanabana** -ura zerbitzatu zigun. **Joan Mari Irigoien**

## guanako *iz* llamaren familiako ugaztuna, Hego Amerikan bizi dena.

Onak **guanakoak** harrapatzea ohituta zeuden eta, **guanako** gorri handiak desagertu zirenean, **guanako** zuriak harrapatzen zituzten. **Guanako** larru zati bat besterik janzen ez zuten sasoiatik hasita. **Joseba Sarrionandia**

## guanina *iz* azido nukleikoen oinarri den basea.

ADNaren osagai nagusiak lau dira: adenina, **guanina**, zitosina eta timina. **Berria - Gaiak**

## guante *(12 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 59 agerraldi; orobat goante 9 agerraldi, 6 liburutan; ETCn 50 agerraldi eta gante g.er.) 1 iz* eskularria.

Ibili hadi **guanterik** gabe... **Pablo Sastre**

Leihora jo nuenean Ubanbe eta Opin ikusi nituen galtza motxetan eta benetako boxeo **goanteekin** jantzita, eta Lubis, Pantxo, bikiak, Sebastian eta zerrategiko hiru basomutil borrokalarien inguruan. **Bernardo Atxaga**

**Goantea** erantzi eta atzamar mamiak erretratu makinaren parte metalikoan itsatsiko zaizkizu. **Joseba Sarrionandia**

**Goantearen** behatz okertua. **Anton Garikano**

Estatuaren atzaparrek zingorrek segitzen dute zetazko **ganteen** azpian. **Joxe Azurmendi**

### 2 (hitz elkartuetan)

Mosketari-**guante** zuriak jantzitako eskuak luzatzen zituen zeru aldera. **Fernando Rey**

## guantedun *izond* guantea jantzia duena.

Esku **guantedunak** zeru aldera altxatuta. **Fernando Rey**

## guantegile *iz* guanteak egiten dituen pertsona.

Eskularri eta **guantegileek**. **Pello Zabala**

## guanterra *iz* eskularrien kutxa.

Atea irekitzean eskularriak atera zituen **guanteratik**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Hor daukazu mapa, **guanteran**. **Iban Zaldua**

## quantxe *iz* Kanariar uharteetako antzinako biztanlea.

Orain dela ez dakit zenbat mende desagertutako **quantxeei**. **Bernardo Atxaga**

Hormetako margolanek **quantxeen** historiako eta bizitzako uneak irudikatu nahi zituzten. **Bernardo Atxaga**

## guapa *(orobat goapa g.er.) izond* emakumezkoz mintzatuz, aurpegiera ederrekoa.

Neska **guapa** batekin. **Pablo Sastre**

Apa. Ze **guapa** zauden! **Pablo Sastre**

-Oso **guapa** zaude -esan dio Asuni taberna barrura sartu bitartean. **Paddy Rekalde**

**Guapa** ikusten haut. **Iban Zaldua**

Behin ere ez zaitut hain **guapa** ikusi. **Bernardo Atxaga**

Niri **goapa** zarella iruditzen zait. **Josu Zabaleta**

Higuingarri zaizu zure burua eta behartzen duzu aitortzera **guapa** dela, emakume ederra dela Elisabeth. **Lourdes Oñederra**

Adinean oso **guapa** dagoen emakume bat. **Pako Aristi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**guapa zaude** (5); **hain guapa** (4); **hain guapa zaude** (3); **oso guapa** (3)

## guapo *(orobat goapo) izond* pertsonaz (batez ere gizonezkoaz) mintzatuz, aurpegiera ederrekoa. **ikguapa**.

Aktore gazte eta **guapo** baten aurrean. **Jasone Osoro**

Eskolako mutilik **guapoena** konkistatu zuen. **Jasone Osoro**

Protagonista denak ez dira altuak eta **guapoak** izaten. **Berria - Hariari**

Esplikatu nion baietz, **guapoa** zela, baina maritxua, **guapoa** baina maritxua zen karrerista ospetsu bat bezala. **Pello Lizarralde**

**Guapoa** ez ezik majoa ere bazen Pantxo. **Jasone Osoro**

**Guapo** askoa zunan, izan ere. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zeinen **guapo** zegoen! **Jasone Osoro**

Geroz eta **guapoagoa** ikusten nuen. **Jasone Osoro**

Fernando, **guapoena**, Eusko Jauriartzako zuzendariorde izatera heldu zen. **Iban Zaldúa**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**altua eta guapoa** (3); **eta guapoa** (7); **guapoa eta** (3); **guapoa zela** (5); **oso goapoa** (3); **oso guapoa** (3)

## guarani 1 *izlag/iz* Paraguain eta inguruan bizi den indiar herri batekoa.

Paraguay aldeko **guarani** kulturari beti su izan dio. **Herria**

Hango **guarani** indianoen aintzinean. **Herria**

**Guarani** indigenei. **Berria - Gaiak**

Etxe-orratzen auzoa hasten zen bihurgunean, Salvador parkeko lorategi zabalak, eskulanak saltzen zituzten **guaraniak**. **Aritz Gorrotategi**

Aimarak, kitxuak, txikitaoak eta **guaraniak**: aurreneko aldiz presidenteak izango gara. **Berria - Harian**

### • 2 *iz* guaranien hizkuntza.

**Guarani** hizkuntzan idatzi izan ditu kantu, poema eta ipuin andana gaitza. **Herria**

Frantsesera itzultzerat L'harmattan argitaletxearentzat harek **guaraniz** idatzi ipuinak. **Herria**

Mendebete baino lehen ebatzi ahal izan zen zein hizkuntza zen: **guaraniaren** dialekto samoiedo-lituaniar bat, arabiera klasikoaren zenbait molde zerabiltzana. **Juan Garzia**

## guarapita *iz*

Ardoa, rona, **guarapita** gozoak *-parchita* delako fruituaren zukua ronarekin nahastuta-, Honduraseko puruak... **Pako Aristi**

## guarda (*orobat goarda*) 1 *iz* zaintzailea, zaindaria. ik **guardia**.

Uztarizetik igorri **guardek** mendiko pasabide ohizkoetara zeramaten bideak zaintzen zituzten. **Elena Touyarou**

Baioneta esku artean tinki zeukaten bi **guardak** zaindurik. **Elena Touyarou**

**Guarden** sarjentuarekin mintzatzea eskatu zuen. erretore etxeko **guarda** batekin mintzatzen ikusi zuela. **Elena Touyarou**

- **Guardak**, niregana! -oihukatu zuen militarrek. **Elena Touyarou**

Beraren inguruokoa, **guarda** eta gudu-taldeak, alde guztietara sakabanatuko ditut. **Elizen arteko biblia**

Bat-banaka aholotu eta estekatu genituen erreleboko **guardak**. **Koldo Izagirre**

Aduanako **guardak**, ura goitituz bezala, loturik egon ziren luzaz ondo hortan zutik zeuden burdin batzueri. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Mike Wilson nauzu, baso handiegi honetako **guarda** bakarra. **Joxemari Urteaga**

Diosmil azaldu zen, portuko **guarden** burua. **Koldo Izagirre**

**Guardak**, armak eskuetan, tenpluaren eskuinaldetik ezkeralderaino jarri ziren **Elizen arteko biblia**

### 2 (hitz elkartuetan)

Ateak itxi eta ireki eta gauean **guarda** lanak egitea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

- Gaueko txandan egondako seguritate **guarda** bat. **Iñaki Zabaleta**

### 3 *ipar* mugazaina.

Lafittek berak salatutik: aita **guarda** zuela, hain xuxen Baigorri sortua. **Herria**

Bariatuko mugazubian **guardek** 29 kilo kokaina atxeman dituzte. **Herria**

Joseph Tricot **guarda**, Arnegiko zubian hil zutena gau batez, 1809-an... **Herria**

Bariatuko mугan, **guardek** miatu dute aleman autobus bat mugaz haindirat ari zena. **Herria**

### 4 *ainingeru* **guardako**

Aingeru **Guardakoaren** egunean. **Pello Zabala**

Aingeru **Guardakoak** guarda gaitzala. **Pello Zabala**

Beste batean Oma agertu zitzaidan, nire aingeru **guardakoa** balitz bezala. **Josu Zabaleta**

- Erromantikoeak disidentziaren eredutzat zeukaten artearen deabru **guardakoari**. **Anjel Lertxundi**

### 5 *guarda* **aldi**

Mardoakeori buruzko pasartea aurkitu zuen: nola jakinarazi zion Mardoakeok erregeari bi funtzionario haiek, beren **guardaaldia** egin bitartean, Artaxerxes erregea hiltzeko asmotan ibili zirela. **Elizen arteko biblia**

### 6 *guarda* **etxe** (*orobat guardetxe*)

Txakurraren zaunkak **guarda-etxea** bertan zuela erakutsi zioten. **Guarda**-etxeko ateari bultza egitean irekita aurkitu zuen. **Joxemari Urteaga**

Donostiako Urgull mendiko **guardetxean**. **Berria - Kultura**

### 7 *guarda* **nazional** Guardia Nazionala.

**Guarda** nazionalako soldaduen bilketa. **Elena Touyarou**

Nehor ez zen azaldu **Guarda** Nazionalen izena emateko. **Elena Touyarou**

### 8 *guarda* **postu**

Neure **guardapostuan** egongo naiz, neure dorrean zutik, Jaunak zer esaten didan zain, nire kexari zer erantzuten ote dion zain. **Elizen arteko biblia**

Sendotu **guardapostuak**, ugaritu zaintzaileak. **Elizen arteko biblia**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aingeru guardako** (12); **aingeru guardako egunean** (3); **aingeru guardakoa** (12); **aingeru guardakoaren**, (4); **baso guarda** (12); **baso guardak** (11); **baso guardaren** (4); **baso guarden** (4); **baso guarden ezaugarri** (4); **estatuko baso guarden** (3); **eta guarda** (8); **eta guardak** (5); **guarda bat** (5); **guarda baten** (3); **guarda ere** (3); **guarda** (3); **guarda etxeko** (3); **guarda nazional** (3); **guarda nazionalak** (3); **guarda nazionalez** (3); **guarda zuen** (3); **guardak geldituz arazi** (4); **guarden ezaugarri** (4); **guarden ezaugarri nahastezina** (3); **nire aingeru guardakoa** (6); **zegoen guarda** (3); **zen baso guarda** (3); **zuen guardak** (3)

## guardaburu *iz* garden burua. ik **guardiaburu**.

Ondoren, Nebuzaradan **guardaburuak** erbestera egin zituen hirian geldituak ziren bizilagunak. **Elizen arteko biblia**

Ariok, erregearen **guardaburuak**, prest zegoen jakitunak hiltzen hasteko. **Elizen arteko biblia**

Atxilotu egin zituen **guardaburuaren** etxeko kartzelan ezarritik. **Elizen arteko biblia**

Judas apaizburu eta tenpluko **guardaburuengana** joan zen. **Elizen arteko biblia**

Nebuzaradan errege-**guardaburuak** askatu eta bere ardurapean hartu ondoren. **Elizen arteko biblia**

## guardaleku iz

Hemen nago, Jauna, egun osoan neure tokian, eta gauz ere neure **guardalekuan** erne. **Elizen arteko biblia**

## guardamarina iz itsas armadan sartzeko ikasketak egiten ari den soldadoa.

Lehen jaunartzerako jantziak ziruditen **guardamarina** haietarik batek largabistaren kanoian hartu gintuen. **Koldo Izagirre**

## guardasol (ETCn 282 agerraldi; cf aterki ETCn 1.904 agerraldi) 1 iz aterkia.

Hobe duzu **guardasola** hartu. **Lourdes Oñederra**  
Gristasunaren erdian **guardasola** ireki nahian. **Lourdes Oñederra**  
Euritik babesteko **guardasolarekin** kotxeraino nola lagundu zuen. **Joxemari Urteaga**  
Euriteetan, serio-serio paseatzen ziren, zirtzila zerion **guardasol** ikaragarri handi baten azpian. **Karlos Zabala**  
Grisez jantzitako zerbitzari batek eutsi zion **guardasola**. **Joxemari Urteaga**  
Horregatik zaindari izendatu zuten aterki saltzaile eta **guardasol** konpontzaile txorroskillero haiek. **Pello Zabala**  
Eguraldi ederra egiten dauenean **guardasola** eskainten deusue eta eguraldi txarragaz, ostera, kendu. **Lutxo Egia**  
Hostoak **guardasol** modura irekitzen zituen palmondoa. **Fernando Rey**

### 2 eguzkitakoa.

Kale janzkeran, emakume asko eta asko, hamaika koloretako **guardasolak** eskutan zeramatzelarik; eta hondar gogor eta bustiko alderdian plaia nabartuz, alfer itxuran denak. **Txillardegi**

Ostean, non dira gure egungo baporeen lurrinak, non gure telebistako sukaldarien sugarrak, non gure **guardasolen** eguzkiak? **Iñigo Aranbarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)  
**guardasolaren azpian** (3)

## guardatu, guarda(tu), guardatzen du ad gorde.

Aingeru Guardakoak **guarda** gaitzala. **Pello Zabala**  
Beste besangatxoa Santa Barbara aldera, trumoi eta tximist guztietatik **guarda** zitzan. **Pello Zabala**  
Jainkoak **guarda**, jauna. **Juan Garzia**  
-Alak **goarda**! **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)  
**jainkoak guarda** (6)

## guardatzaile iz zaintzailea.

-Erreginak bertzerik manatu bitartean, ni naiz Erresumako legearen **guardatzailea** Amikuzen. **Aingeru Epaltza**

## guardetxe ik guarda 6.

## guardia (2833 agerraldi, 145 liburu eta 830 artikulutan; ETCn 25.601 agerraldi; orobat goardia 69 agerraldi, 19 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 658 agerraldi) 1 iz zaintzaletza talde bateko kide den persona armaduna. ikguarda.

Elurra bezala hurbildu ziren inkisidorearen **guardiak**. **Joan Mari Irigoien**  
Enperadorearen **guardiak** bere herriaren izena esan zuen. **Xabier Olarra**  
Erregeren **guardiakoek** nahi zutena egin dute. *ik beherago 2.* **Aingeru Epaltza**  
Erregeren mosketariak ere harat-honat dabilta eta halaber **guardia** suitzar eta eskoziarrak. **Aingeru Epaltza**  
Frantziako erregeren **guardien** konpagnetako mertzenario suitzar edo eskoziarren artean ere ez dut halako diziplinarik ezagutu. **Aingeru Epaltza**  
Zaldizko **guardia** errepublikarrak babestua. **Itxaro Borda**  
Lasai gindoazen, **guardia** ibiltarikoak ez baitziren hain paraje urrutietaraino ausartzen. **Anjel Lertxundi**  
Gazzolako polizia-etxetik ateratako bi **guardiarekin**. **Koldo Biguri**  
Muga inguruan **guardiak** atzetik agertu ziren, "alto"ka lehenbizi eta tiroka ondoren. **Joxemari Urteaga**  
Azken kontrola, sargiako **guardiak** eginik, eta beste zorte bati buruz, lur berri batzuei buruz atera ginen. **Marzel Etxehandi**  
Bobie ontziaren pasabidean ere **guardia** ipini zuten, eta ontziaren eta lehorraren arteko komunikazio oro debekatu. **Jokin Urain**  
Geldiarazi zituztela zigarro bila zebiltzan aduanako **guardiek**. **Fernando Rey**  
Ateko **guardiaren** ahotsa ezagutu nuen. **Edorta Jimenez**  
Eskerrak gaueko **guardia** agertu zen. **Gotzon Garate**  
-Zer jazotzen da hemen, **guardia**, zer da iskanbila hau? **Koldo Izagirre**

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagi gisa)

Errege-**guardiak** abisua jaso zuela adieraziz. **Julen Gabiria**  
Hala bada, jeinu eta itsas **guardia** guztiak, eta mirabeak, eta erraldoiak, eta denak, oraingoan hautagai ederrenaren bila abiatu ziren. **Patxi Zubizarreta**  
Pedro-surplus zomorria, Troussaillon trafiko-**guardia**, barrena zirkulazio **guardiak** eta argiak saihestuz ibili. **Edorta Jimenez**

### 3 zaintzaletza talde edo erakunde armaduna.

Irango **Guardia** Iraultzaileko komandante izan zen. **Berria - Harian**  
Saddam Hussein presidentaren **guardiako buruzagia** izan zena. **Herria**  
Errusian **Goardia** Gorriaren uniformea eramaten duten emakumeak. **Matías Múgica**

Ellenek jantzi berri eskoziar bat zeukan, **Goardia** Beltzekoa. **Lopez de Arana**

**Goardia** Indigenako 7.000 kidek. **Berria - Mundua**

**Goardia** Inperialako teniente haren, gorrotatzen nuen eta Lutezia nik baino lehen besarkatu zuen nire anaiorde gorrotagarri haren lehengusua. **Matias Múgica**

**Guardia** presidentzialeko militar talde batek. **Berria - Mundua**

Veneziaiko Finantza **Guardiak** (Italia) 4.713 pertsona salatu ditu, ustez ustelkerian aritzeagatik. **Berria - Gaiak**

#### 4 zaintza.

-Gaur ez dut **guardiarik** -esan zuen Melek-. **Koro Navarro**

Gaur ere **guardia** tokatu al zaik? -egin zion ongi etorria Xerealek. **Iñaki Iñurrieta**

Prest zegoen kuarteleko **guardiak** egiteko. **Iñaki Iñurrieta**

Atoiontziko **guardia** amaituta, arratsaldeko seietan. **Koldo Izagirre**

Egungentiko **guardia** -aldaketaren orduan. **Jose Antonio Mujika**

Beste **guardi** txanda bat egiteko aski denbora igaro baitzen. **Edorta Jimenez**

Preso-zelaiko **guardia** -lekuak miatzera joan da. **Edorta Jimenez**

**Guardia** postu batetik bestera zihoan seinalehotsa. **Fernando Rey**

Zegaren gainean zegoen antzinako **guardia** -gela abandonatuan. **Fernando Rey**

Aduanaburu egiten zuena berlinaraino hurbildu, eskua lokira eraman, eta **guardia** -jarreran zurrundu zen. **Anjel Lertxundi**

#### 5 **guardiako** zaintzaletza egiten duena, zerbitzu batean zaintzaldian dagoena.

Bucciok baimendua eskatu ziola **guardiako** ofizialari. **Joan Mari Irigoien**

Atean zegoen **guardiako** soldadua presentziak. **Elena Touyarou**

**Guardiako** espetxezainak [...] kolpetxo suspergarri batzuk eman zizkion buruan. **Jose Morales**

**Guardiako** erreketekak zetozela oharatu ginenean. **Joseba Sarrionandia**

Gerrako ontzietan gaztiguak emateko **guardiako** marinelek erabiltzen zuten metalezko ziztu luzexka. **Koldo Izagirre**

Jeneralaren laguntzaile bat edo **guardiako** funtzionario bat sartu zen harrera-gelan. **Jose Morales**

Emakumea izaki **guardiako** medikua. **Aingeru Epaltza**

**Guardiako** abokatuak kontatu zidak. **Harkaitz Cano**

Atxilotu zuen pertsona **guardiako** epailearen esku utzi zuen, atzo goizean, Ertzaintzak. **Berria - Euskal Herria**

Bilboko **guardiako** epaitegian aurkeztu zuen bere burua. **Berria - Euskal Herria**

Noizetik noizera, **guardiako** zaindarien deia darra errepikatzen zen postuz postu. **Karlos Zabala**

Bazekiten preso bat zela, mediku frantses bat, **guardiako**. **Marzel Etxehandi**

'Nor dabil?' galdetzen zuen **guardiakoak**. **Joseba Sarrionandia**

-**Guardiako** farmazia bat bilatu eta eska ezak. **Aingeru Epaltza**

- Aitak enperadorearen **guardiako** kapitain-uniformea zeukan soinean. **Xabier Olarra**

Enperadorearen **guardiako**en kapa zuri bat zeukan jantzita. **Xabier Olarra**

Manuel Irujoren **guardiako** buru ohi Jesus Galindezek. *ik* guardiaburu. **Edorta Jimenez**

#### 6 **guardian** zaintzailletzan, zaintzaldian.

**Guardian** dagoen zaindari bat. **Juan Garzia**

**Guardian** zeuden bortz lagunak. **Joan Mari Irigoien**

Atean **guardian** zegoenari agur militarra eginez. **Juan Kruz Igerabide**

Beharrian **guardian** zegoen miliziano-bikoteari paperak erakutsi, eta gora igotzeko esan ziguten. **Inazio Mujika Iraola**

Pasabidera irtengo ziren, eta han **guardian** gelditutako apaizen batek deskubrituko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaixorik zegoen eta **guardian** geratzen zen kanpamentuan, Nagoen lekutik mugitzeko ikara daukat, norbait utziko zuten **guardian** eta xagutxo bat bezala harrapatuko naute, **Joseba Sarrionandia**

#### 7 **guardia aldi** guardia egiten den aldia.

Eta agindu zuen **guardia** -aldiak kontu handiz egiteko. **Askoren artean**

Gaueko **guardiaaldian** telegrafistari gonak altxatu eta ipurdian geltokiko zigiluak jarri zizkiola. **Fernando Rey**

#### 8 **guardia egin** zaintzaldia egin.

Burdin hesien beste aldean, bi soldadu **guardia** egiten, cetmeak eskuetan. **Iñaki Iñurrieta**

**Guardia** egiten zeuden guardia zibilak sarrerako atetzarra irekitzen ari ziren. **Pedro Alberdi**

Ordua iristen denean bi zelatari jarriko ditugu **guardia** egin dezaten. **Josu Zabaleta**

Karlistek **guardia** egiten diote Arbolari, ze, horixe, arbolaz egurra egin nahi izan dute falangistek. **Edorta Jimenez**

Hainbat hirritako usantzaren arabera, **guardia** egiterat joan behar izan zuela. **Joan Mari Irigoien**

Gure buruak identifikatzeko agindu zigun bertan **guardia** egiten ari zen soldaduak. **Anjel Lertxundi**

"Christine" ontzi aitzinean **guardia** egiten zuten soldaduak. **Elena Touyarou**

#### 9 **Guardia Nazionale** ik **guarda** 7.

**Guardia** Nazionaleko soldadu saldoa topatu zuten. **Elena Touyarou**

Behar izanez gero, oraindik baditugu Armadako **Guardia** Nazionaleko eta Aire **Guardia** Nazionaleko 300.000 soldadu baino gehiago. **Berria - Harian**

Bagdad eskualdeko **Guardia** Nazionaleko agintariordea hiltzen ere saiatu ziren. **Berria - Mundua**

Polizia eta **Guardia** nazional irakiarraren aurka atzo gertatutako erasoetatik odoltsuena. **Berria - Mundua**

Chavez presidentea hiltzea eta Armadaren eta **Guardia** Nazionalaren arteko liskarrak piztea.

Brian Lawson, Nevadako **Guardia** Nazionaleko pilotua eta suteen kontrako taldekidea hegazkin istripuan hil da. **Javi Cillero**

- Eztandak **Goardia** Nazional bat hil eta beste hamar pertsona zauritu zituen.

12 polizia hil dira, eta bost **goardia** nazional zauritu. **Berria - Mundua**

#### 10 **guardia zibil** (*orobat **guardiazibil** g.er.*) Guardia Zibileko kidea.

**Guardia zibilen** jeep berdeak hasi ziren herrian gora eta behera patruilan. **Joseba Sarrionandia**

**Guardiazibiletako** lotinatan bat hurbildu zitzaidan pasaporte itzultzeko. **Koldo Izagirre**

Trafikoko **guardia zibil** bat hil zutela hantxe ondoan, Billabonan. **Bernardo Atxaga**

Bera parean **Guardia Zibilak** jarrita zeukan errepede kontrola ikusi zuenean. **Harkaitz Cano**

#### 11 **Guardia Zibil**

Itaitzen eta inguruan **Guardia Zibilaren** zaintzapean bizi izan dira herritarrak urteetan. **Eduarne Elizondo**

Furzaingoak **Guardia Zibila** izan zuen lagun, eta kazetari ez zieten utzi herrira hurbiltzen. **Eduarne Elizondo**

Trafikoko **Guardia Zibilak** jakinarazi duenez. **Berria - Euskal Herria**

**Guardia zibilaren** Trafiko Sailak. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako **Guardia Zibilaren** mendiko erreserba taldeak. **Berria - Euskal Herria**

Agoizko **Guardia Zibilaren** kuartelera eraman zituzten solidarioak. **Edurne Elizondo**

**Guardia Zibilaren** komandantzia. **Unai Iturriaga**

**Guardia zibil** konpainia oso bat. **Joseba Sarrionandia**

Diligentziak geldialdia zeukan bihurgunearen ondoan **Guardia Zibil** talde batekin hitz egiten ari zen. **Jon Maia**

## 12 *guardiako farmazia* txandako farmazia.

-Guardiako **farmazia** bat bilatu eta eska ezak. **Aingeru Epaltza**

## 13 *ohorezko guardia*

Ohorezko **Guardiako** soldaduei. **Pako Aristi**

Bera zaintzen duen Ohorezko **Guardiak** inor ez jotzeko agindua du. **Pako Aristi**

Führerraren ohorezko **guardiak** dira, bikainenat bikainenak. **Alberto Ladron Arana**

Handik hurbil, Feldherrnhalleko monumentu ikusgarria zegoen, SSetako ohorezko **guardia** talde batek zainduta. **Alberto Ladron Arana**

## 14 *zinpeko guardia*

Zinpeko **guardia** zegoen, atea zaintzen. **Berria - Euskal Herria**

Zinpeko bi **guardia** ailegatu ziren obrara. **Edurne Elizondo**

Akusazioa zinpeko **guardia** bahitzeagatik egin zen, eta ez kableak mozteagatik. **Berria - Euskal Herria**

**Zinpeko guardiak** gogor ari ziren bezeroetako baten kontra. **Iñigo Aranbarri**

Zinpeko **guardien** azalpen idatzietan oinarritzen baita txostena. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

astean **guardia** (5); atxilotu du **guardia** (5); atxilotu zituen **guardia** (14); atxilotu zuen **guardia** (29); atxilotu zuten **guardia** (10); atzo **guardia** (7); atzo **guardia** zibilak (6); baina **guardia** (13); baina **guardia** zibilak (7); bat **guardia** (7); beste **guardia** (8); bi **guardia** (53); bi **guardia** nazional (6); bi **guardia** zibil (15); bi **guardia** zibilak (5); bi **guardia** zibilek (7); bi **guardia** zibilen (11); bilbo **guardia** (12); bilbo **guardia** zibilak (10); bilbon **guardia** (5); bost **guardia** (9); bost **guardia** zibil (6); da **guardia** (10); die **guardia** (6); dio **guardia** (12); dio **guardia** zibilak (7); dira **guardia** (6); ditu **guardia** (15); ditu **guardia** zibilak (13); donostia **guardia** (6); du **guardia** (18); du **guardia** zibilak (15); dute **guardia** (12); edo **guardia** (14); egin zuen **guardia** (7); egunetan **guardia** (5); ere **guardia** (8); esan zuen **guardia** (5); espainiako **guardia** (44); espainiako **guardia** zibilak (29); espainiako **guardia** zibilaren (5); eta **guardia** (231); eta **guardia** zibil (7); eta **guardia** zibila (20); eta **guardia** zibilak (73); eta **guardia** zibilaren (40); eta **guardia** zibilari (12); eta **guardia** zibilek (16); eta **guardia** zibilen (22); ez **guardia** (8); galindo **guardia** (11); galindo **guardia** zibileko (11)

**guardia** alaiaren (6); **guardia** bat (6); **guardia** batek (7); **guardia** buruak (6); **guardia** civil (8); **guardia** egin (5); **guardia** egiten (11); **guardia** haiek (5); **guardia** nazional (19); **guardia** nazionala (10); **guardia** nazionalak (26); **guardia** nazionalaren (20); **guardia** nazionalean (6); **guardia** nazionalako (44); **guardia** nazionalako hiru (6); **guardia** zibil (172); **guardia** zibil bat (30); **guardia** zibil batek (13); **guardia** zibil baten (9); **guardia** zibil eta (15); **guardia** zibil hil (11); **guardia** zibila (132); **guardia** zibila eta (16); **guardia** zibilak (771); **guardia** zibilak atxilotu (16); **guardia** zibilak atxilotutako (12); **guardia** zibilak atzo (9); **guardia** zibilak bere (5); **guardia** zibilak beste (8); **guardia** zibilak bi (8); **guardia** zibilak bilbon (9); **guardia** zibilak bizkaian (6); **guardia** zibilak egin (5); **guardia** zibilak egindako (12); **guardia** zibilak eta (42); **guardia** zibilak euskal (7); **guardia** zibilak ez (8); **guardia** zibilak haren (5); **guardia** zibilak herenegun (5); **guardia** zibilak hil (8); **guardia** zibilak izan (5); **guardia** zibilak jakinarazi (5)

**guardia** zibilarekin (17); **guardia** zibilaren (362); **guardia** zibilaren arabera (10); **guardia** zibilaren aurrean (11); **guardia** zibilaren egoitzan (13); **guardia** zibilaren eguna (6); **guardia** zibilaren esku (33); **guardia** zibilaren eskuetan (9); **guardia** zibilaren eta (16); **guardia** zibilaren informazio (10); **guardia** zibilaren kontrol (5); **guardia** zibilaren kuartel (8); **guardia** zibilaren kuartela (5); **guardia** zibilaren kuartelean (9); **guardia** zibilaren kuartelera (5); **guardia** zibilaren txostenak (6); **guardia** zibilaren zaintzapean (6); **guardia** zibilari (58); **guardia** zibilari eta (9); **guardia** zibilei (29); **guardia** zibilek (219); **guardia** zibilek eta (11); **guardia** zibilek poltsa (6); **guardia** zibilek torturatu (10); **guardia** zibilekin (7); **guardia** zibileko (55); **guardia** zibileko jeneral (17); **guardia** zibilen (116); **guardia** zibilen aurrean (5); **guardia** zibilen esku (8); **guardia** zibilen eta (5); **guardia** zibilez (6); **guardia** zibilik (8)

**hartan** **guardia** (7); hiru **guardia** (14); irakeko **guardia** (54); irakeko **guardia** nazionalak (11); irakeko **guardia** nazionalaren (7); irakeko **guardia** nazionalako (27); jantzitako **guardia** (7); la **guardia** (6); lau **guardia** (16); lau **guardia** zibil (7); lau **guardia** zibilek (5); miatu zuten **guardia** (5); polizia eta **guardia** (14); poliziak eta **guardia** (32); poliziaren eta **guardia** (7); poliziarari eta **guardia** (7); polizien eta **guardia** (6); rodriguez galindo **guardia** (11); trafikoko **guardia** (5); zegoen **guardia** (5); zein **guardia** (6); zen **guardia** (15); zien **guardia** (8); zien **guardia** zibilei (5); zinpeko **guardia** (6); zion **guardia** (5); ziren **guardia** (21); ziren **guardia** zibilak (11); zituen **guardia** (33); zituen **guardia** zibilak (27); zituzten **guardia** (17); zituzten **guardia** zibilek (13); zuen **guardia** (82); zuen **guardia** zibilak (67); zuten **guardia** (34); zuten **guardia** zibilek (22)

enperadorearen **guardiak** (8); enperadorearen **guardiako** (5); enperadorearen **guardiaren** (9); enperadorearen **guardiaren** semeak (8); eta **guardiak** (10); eta **guardiako** (7); **guardiak** ere (5); **guardiak** ikusi (5); **guardiako** ehizatarien (5); **guardiaren** semeak (8); ofizio **sainduko** **guardiak** (5)

## **guardiaburu** (*orobat goardiaburu eta guardia buru*) iz guardien burua. ik **guardaburu**.

**Guardia buru** zirudienak kriselua goratu eta, ezpata punta bihotzaren parean jartzen ziola [...]. **Joan Mari Irigoien**

Faraoiaren funtzionario eta **goardiaburu** zenari. **Jose Antonio Mujika**

Bazen han gurekin gazte hebertar bat, **goardiaburuaren** esklaboa. **Jose Antonio Mujika**

## **guardiatu**, guardia(tu), guardiatzen du *ad* zaindu.

Osaba Joanikot zen, bada, ene bozkarioaren iturria, **guardiatzen** ninduen guardiarekin zetorrena. **Joan Mari Irigoien**

Moduak eta moldeak zaindu eta **guardiatu** beharra zegoela. **Joan Mari Irigoien**

## guardiazibil ik **guardia 10**.

## guarnizio ik **goarnizio**.

## guarnizionero iz uhalgilea.

Bawtryko gure gizona zelagilea zen, edo nahi baduzue uhalgilea edo **guarnizioneroa** -hiru berba horiez ezaguna baita langintza hori-. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

## guash ik **gouach**.

## **guateke** iz gazte jendearen etxe festa.

**Guatekeak** egiten ziren orduan. **Lourdes Oñederra**

Felix Montadoren etxean antolatzen ziren jaialdi eta **guatekeetan**. **Aritz Gorrotxategi**

Motorrean eraman omen zuen Luisek neska bat etxera **guateke** baten ondoren. **Lourdes Oñederra**

## **guatemalar** (ETCn **114** agerraldi; orobat **gautemaldar** ETCn **8** agerraldi, eta **guatemaltar** ETCn **6** agerraldi) izlag/iz



## Guatemalakoia, Guatemalaleari dagokiona; Guatemalako herritarra.

[Laguntzak] handik etorri **guatemaltar** gazteeri eskainiak zaizkiotenak. **Herria**

Monterroso izeneko idazle **guatemalar** bat. **Jose txo Azkona**

Marco Augusto Quiroa artista **guatemalarra** zendu da. **Berria - Kultura**

Hala ere, baikor ageri da **guatemalarra**. **Berria - Euskal Herria**

## guatxi *interj adkor oso ongi.*

**-Guatxi**, neska. **Patxi Iturritegi**

A, **guatxi**! **Jesus Mari Mendizabal**

## gubia *iz zurgintzako lanabesa.*

Zurginak, berriz, erreglaz neurtu, arkatzez eta konpasez marraztu eta **gubiaz** lantzen du. **Elizen arteko biblia**

## gubil *iz zizel txikia.*

Gero, arrain ederrak zetozen, bakarka jarriak, zumezko erretilu banatan: izokina, zilar landua iduri, ezkatatak metal leunduan **gubilez** joka eginda dauzkana. **Karlos Zabala**

## guda *(480 agerraldi, 93 liburu eta 117 artikulutan; ETCn 7.796 agerraldi) 1 iz gerra.*

Bake hura, ordea, edozein **guda** baino okerragoa zen. **Askoren artean**

Beste zeregin batzuetan ipini zituzten prisioneroak **guda** amaitu ondoren. **Jokin Urain**

Txinatar-japoniar **gudaren** berri jakitera egin zuten bidaiaren kontakizuna. **Edorta Jimenez**

Eta hau gezurra balitz, baita beste hauek ere halaxe izango lirateke: Hektor eta Akiles alegia, eta Troiako **guda**, eta Frantziako hamabi Pareak, eta Ingalaterrako Artur. **Patxi Ezkiaga**

Europako **Guda** Nagusiaren aurreko urteetako giroan. **Edorta Jimenez**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ukazioa, **guda** estrategia eta etengabeko eraso pairatzen ari gara euskaldunok. **Berria - Euskal Herria**

Maxime Weygand delakoak buru egiten zuen **guda** -misioren bitartez. -Isildu zaitez, Santxo lagun -Don Kijotek erantzun- **guda** -gauzak beste edozer baino aldakorragoak dira-eta. **Edorta Jimenez**

Nik, Marko Flaminio Rufo-k, Erromatar legioetarik bateko **guda** -tribunoak. **Juan Garzia**

Bere **guda** -mutilekin batera erasoan sartu zen haien lurraldean. **Askoren artean**

Jostun lanetarako ez ziren haiek garai egokienak, **guda** oste idorrean, gutxi baitziren soineko berrietarako kezka zutenak. **Jon Maia**

Solferinoko **guda** -eremuko lubaki batean. **Anjel Lertxundi**

Hiru mila biztanle inguruko, eskualdeko burua zen eta, beraz, **guda** -plaza garrantzitsua. **Jon Maia**

**Guda** lerroak non zeuden eztabaidan ari ginen. **Josu Zabaleta**

Urteroko **guda** -deiak. **Patxi Ezkiaga**

Mikel Strogoffek pirata tatariarren **guda** garrasia ezagutu du, ahuspez etzanda jartzeko agintzen diena. **Karlos Zabala**

**Guda** -harrapakin gisa. **Iban Zaldua**

Kartagoarren **guda** -elefanteak. **Iban Zaldua**

Hondonan, urperatutako **guda** -galeoi baten popa. **Fernando Morillo**

**Guda** kanpaina, bestalde, gaizki joan zen emirrentzat eta haren aliatuentzat. **Karlos Zabala**

Tommiek **guda** -jokoan. **Koldo Izagirre**

Aztigintzak zirela edota auzi haserreak, **guda** borrokak, norgehiagokak, zauriak, maite-moduak, maiteminak, erasoak eta ezinezko itxuragabekeriak. **Patxi Ezkiaga**

Gure lehen kontzertua da, lehen **guda** dantza! **Unai Iturriaga**

### 3 guda lagun *(ETCn 2 agerraldi; corpusean gudalagun soilik)*

Aitaren **gudalagunak** ditut gogoan. **Javi Cillero**

### 4 guda oin gudu lerroa. ik fronte.

-Bihar ez dago Solluberik -esan zigun **guda-oinetan** izan osteko haietako batean-. **Edorta Jimenez**

**Guda-oinetan** tiro egiteko zen norbait geratzen zen artean eustea zen geratzen zitzaiguna. **Edorta Jimenez**

**Guda-oinean** ongi zihoan aurrerabidea, orratzek zulatutako AEBetako kartografian barrena. **Harkaitz Cano**

**Guda oinean** hegazkin bat tximista batean igarotzen denean, alemaniarra da ziur. **Josu Zabaleta**

### 5 guda talde *(orobat gudatalde)*

Prévan jauna preso dago bere **guda** taldeko komandantearen manuz. **Jon Muñoz**

Gure **gudataldeko** lerrotan sartuko da betiko. **Askoren artean**

Tartean Mungia izeneko **guda** -taldea edo batailoia zegoen. **Edorta Jimenez**

### 6 guda zaldun *(corpusean gudazaldun soilik)*

Hogei **gudazaldun** joan ziren sarkinen osteetara. **Juan Garzia**

### 7 guda zelai *(orobat gudazelai) ik gudu 12.*

Zureek dagoeneko hartua dute posizioa **gudazelaian** haien zain. **Pedro Alberdi**

Sollube ingurutako **guda** -zelaietara. **Edorta Jimenez**

**Guda zelaian** hiltzea merezi du soldadu ausartak! **Karlos Zabala**

Nire atzealdean zeuden lagunak **guda zelaian** bezala zabaldu ziren fronte bat osatu arte. **Iñaki Zabaleta**

Nire lana **guda** zelaian zegoen. **Jon Maia**

### 8 guda zibil gerra zibila.

**Guda** zibilean girotuko duen eleberriko pertsonaia nagusietako batzuk. **Edorta Jimenez**

Espainiako **Guda** Zibilean Ernest Hemingwayk espioitza jardun duela emanik. **Edorta Jimenez**

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko guda (3); aurkako guda (3); bere guda (3); espainiako guda (5); espainiako guda zibilean (3); eta guda (9); guda borrokan (3); guda eta (6); guda gizon (3); guda oinean (4); guda oinetan (3); guda zelaian (5); guda zibila (3); guda zibilaren (3); guda zibilean (8); guda eragindako (3)

## gudagizon *(orobat guda gizon)* iz armada erakundeko kidea dena.

Espainiar **gudagizonen** izpiritu zorrotzak goritutako epopeia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

**Gudagizon** guztiak joan eta inguratu ezazue hiria. **Jose Antonio Mujika**

Beraz, zertarako eroan lehorreko **guda gizonik** ontzi barruan? **Edorta Jimenez**

## gudaketa iz gudua.

Jurramendin egun haietantxe gertatutakoa ezaguturik, **gudaketaren** eta dominaren arteko loturarik ez nuen inondik ere ikusten. **Txillardegi**

## gudalagun ik guda 3.

## gudalburu iz buruzagi militarra. ik gudariburu.

Gotorleku hau hartzeko prestatzen ari dira, Timoteo **gudalburu** dutela. **Elizen arteko biblia**

Naaman Siriako erregearen **gudalburu** nagusia zen. **Elizen arteko biblia**

Kristoren gudarostearen **gudalburu** on bezala. **Askoren artean**

Eta hartara buruzagi tatariarrek **gudalburu** ikaragarria galduko zuen. **Karlos Zabala**

Oinezko eta zalditeriaren **gudalburuak**. **Elizen arteko biblia**

Emirraren **gudalburua** zetorrela. **Karlos Zabala**

Bere gudari, ofizial, **gudalburu**, ezkutari eta bere gurditeria eta zalditeriaren arduradun egin zituen. **Elizen arteko biblia**

**Gudalburu** izatera heldu ziren. **Elizen arteko biblia**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **gudalburu** (5); eta **gudalburuak** (3); eta **gudalburuek** (5); **gudalburu eta** (9); **gudalburu nagusi** (3); **gudalburu nagusia** (5); **gudalburu zen** (3); **gudalburuak eta** (3); **gudalburuak ez** (3); **gudalburuetako bat** (3); **ziren gudalburuak** (3)

## gudaldi iz gerra batean, bi gudarosteren arteko gudu edo borroka. ikgudualdi.

**Gudaldien** ikusteko gordeka pasatuak ziren mutiko batzuen oihu sutsuek. **Elena Touyarou**

Aurreko **gudaldian** doixtarren laguntza eduki zuten guri zafraldiak emateko. **Koldo Izagirre**

Aitonaren argazki hura, **gudaldiko** uniformeak jantzita zuela, txanoarekin, bizarrarekin... **Jon Muñoz**

Dagoberto erregearen **gudaldi** edo espedizioak ziren, Vascones delakoek kontra. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gudaldiko uniformeak jantzita** (3)

## gudaleku iz guda gertatzen den lekua. ik gumatoki.

Faxisten ontziak **gudalekura** agertu ziren. **Edorta Jimenez**

Arrola aipatu nahi dut ene lehenbiziko **gudalekua** izan baitzen... **Michel Oronoz**

Nire barnean zegoela **gudaleku** benetakoa. **Hasier Etxeberria**

## gudaloste *(ETCn 112 agerraldi)* iz armada. ik gudaroste.

Bake hori egitean bazeuzkala Erregek lau armada, haietarik bakar batekin ez baitzen gudukatzera ausartuko luthertiarren **gudaloste** osoa. **Piarres Xarriton**

Nik setatsu bihurtuko dut Faraoa eta eraso egingo dizue; eta orduan nik neure ahalmena erakutsiko dut, Faraoa eta haren **gudalostea** azpiratuz. **Jose Antonio Mujika**

Faraoiak, orduan, gudugardia prestatzari eta **gudalostea** bildu zuen: sei ehun gudugurdi berezi eta Egiptoko gainerako gudugurdi guztiak, gudalburuen gidaritzapean. **Jose Antonio Mujika**

1940ko udaminean, gure aitzinekoek sekulakotz garaiak eta suntsituak omen zituzten les Boches aleman salbaiak etxen genituen, Frantziako **gudaloste** garaitzezinari berrogei egunez nagusiturik. **Piarres Xarriton**

**Gudaloste** errepublikarren igarotzea debeketzen zen espreski. **Txillardegi**

Eta bidera irten zitzairen **gudaloste** handi eta indartsuarekin. **Jose Antonio Mujika**

**Gudaloste** handien abangoardia hauek. **Anton Garikano**

Bihozkadak idatziz inozokeria defendatzen duen **gudaloste** baten aurka borrokatzen den gaiteroa. **Pako Aristi**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **gudaloste** (3); **gudaloste osoa** (3)

## gudaontzi *(orobat gudontzi)* iz gerraontzia.

Ontzidia, bederatziko **guda**-ontziz dago osatua. Horra itsasoa, eta hara han **gudaontzi** bat, herritarren artean protesta-mugimendu biziak sortarazi dituena. **Edorta Jimenez**

Aurora itsasontzia ikusi nahi dut, **gudaontzia**, eta hara zelan iritsi galdetu diet. **Edorta Jimenez**

Kubertara ginenerako, beste hiru **gudontzi** hurbildu ziren, azkena minatzailea zen. **Koldo Izagirre**

Hantxe ikus zitezkeen Bilbo blokeaturik zeukaten **gudontziak**. **Edorta Jimenez**

## gudaontzidi *(corpusean gudontzidi soilik)* iz

Euzkadiko **Gudontzidia** osatzeko bakailaotako bouak hartu ziren. **Edorta Jimenez**

Bera lako komandanteak behar genituen Euzko **Gudontzidian**. **Koldo Izagirre**

# gudari 1 iz gerra lanbideztat zuen pertsona; gerra egiten duen pertsona. ik soldadu.

Armada bereko **gudari** ziren biak. Juan Garzia

Baina **gudari** batek jaurtiki zuen gezia itsu-itsuan eta Israelgo erregea zauritu zuen bular-oskolaren junturartetik. Elizen arteko biblia

Zabulonen leinuko berrogeita hamar mila **gudari** trebe. Elizen arteko biblia

Berrogei mila **gudari** armatu igaro ziren Jaunaren aurretik. Elizen arteko biblia

Errepublikar **gudariak** Bordele eskualdekoak ziren gutiz gehienak. Elena Touyarou

Baduk haurride bila gertuago jotzen duenik, ETako **gudariengana** esate baterako. Juan Luis Zabala

## 2 1936ko gerran, Eusko Gudarosteko soldadua.

Frontetik atsedean bila zetozen **gudariak** eta milizianoek etxeak betetzen zituzten. Edorta Jimenez

Faxisten hegazkinen erasoak eta **gudarien** mugimenduak irudikatzen. Juan Luis Zabala

Itxarkundia batailoiko **gudaria**. Xabier Mendiguren Elizegi

**Gudarien** buru egiten zuenak, orduan, gelditzeko agindu zien bere mutileri, Saseta **gudarien** metrailadore-batailoiko kaperaua izandako Andres Untzain. Inazio Mujika Iraola

Derion fusilatzen zituzten Larrinagako **gudariei**. Koldo Izagirre

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Gudari** ale gutxi batzuk ere sartu ziren, beren fusil zaharrak eskuetan. Inazio Mujika Iraola

Fabriketako armak banatzen eta **gudari** batailoiak antolatzen ari ziren. Joseba Sarrionandia

**Gudari**-saila bi aldeetatik hurbildu zitzaizen juduei, turutak joz. Elizen arteko biblia

Etzinda! -aldarri egin nuen, **gudari** ikasketan erakutsi ziguten moduan-. Edorta Jimenez

Filistearrek, berriz, **gudari** -toki bat zuten Belenen. Elizen arteko biblia

Hiru haiek, filistearren **gudari** -tokira sartu, Belengo atean dagoen urtegitik ura atera eta Davidi eraman zioten. Elizen arteko biblia

Gazteek **gudari** -jantzi ederrak zeramatzaten. Elizen arteko biblia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nazio **gudari** kementsuentzat ekarri beharko den aguardientari buruz. Elena Touyarou

Horrela, judu-**gudariak** onik heldu ziren Judeara. Elizen arteko biblia

Kastako euskal basa-**gudari** kementsuei. Txillardeggi

## 4a (izenondo gisa) gerrarako joera duena.

Nola ikusi behar da hilketa estatu **gudari** eta errepublikar batean? Oso arrisksua litzateke ekintza hori laidoztea edo zigortzea, zalantzarik gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 5 gudari talde

Hainbeste sufritzen duen populu baten **gudari** -talde aurrerakoenak gaztigatzea. Itxaro Borda

Injustua da, hondarrean, hainbeste sufritzen duen populu baten **gudari-talde** aurrerakoenak gaztigatzea. Itxaro Borda

Desfile, guardia aldaketa, erretreta eta era horretako beste **gudari taldeen** mugimenduez. Askoren artean

Hona hemen milako eta ehuneko **gudari** -taldeen buruzagi eta ofizialen zerrenda. Elizen arteko biblia

Plutarkok miresmenez hitz egiten digu maitale eta maitatuen **gudari** -taldeez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Irujok berehala **gudari** -taldeko bat izendatu, eta haiekin joateko, Ondarretako kartzelara. Inazio Mujika Iraola

## 6 sasi-gudari gerrilaria.

Hain hunkigarria den "Le chant des partisans", sasi-**gudarien** kantua. Herria

Frantziak galdu zuelarik Alemanen kontra eta, emeki emeki, sortu zelarik "sasi-**gudarien**" armada. Herria

Israeltiarrek suntsitu dituzte Libanoko lurretan sasi-**gudari** batzuk ezarri muntadurak. Herria

IRA-ko sasi-**gudariak**. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baina gudari** (3); **bere gudari** (15); **bere gudari taldeekin** (8); **beren gudari** (4); **berrogei mila gudari** (3); **beste gudari** (5); **da bere gudari** (4); **daviden gudari** (4); **denak gudari** (4); **duten gudari** (3); **ehuneko gudari** (3); **ehuneko gudari taldeen** (3); **eta ehuneko gudari** (3); **eta gudari** (33); **eta gudari taldeak** (3); **euskal gudari** (4); **ez gudari** (3); **filistearren gudari** (6); **filistearren gudari tokira** (3)

**gudari adoretzu** (9); **gudari adoretzuak** (5); **gudari adoretzuen** (4); **gudari ausart** (9); **gudari ausarta** (3); **gudari ausartak** (7); **gudari bat** (12); **gudari batek** (13); **gudari baten** (3); **gudari bati** (3); **gudari batzuk** (6); **gudari eguna** (13); **gudari eguna dela** (6); **gudari egunaren** (3); **gudari egunean** (4); **gudari eguneko** (3); **gudari eta** (12); **gudari gazte** (4); **gudari guztiak** (7); **gudari guztiei** (3); **gudari guztiak** (4); **gudari guztiak ihes** (3); **gudari haiek** (3); **gudari hil** (3); **gudari indartsu** (3); **gudari multxo** (4); **gudari multxo batzu** (3); **gudari ohien** (5); **gudari oinezko** (3); **gudari sail** (3); **gudari talde** (37); **gudari talde bat** (12); **gudari talde biltzen** (3); **gudari talde handi** (4); **gudari taldea** (15); **gudari taldeak** (34); **gudari taldeari** (3); **gudari taldeek** (3); **gudari taldeekin** (9); **gudari taldeen** (10); **gudari taldeka** (4); **gudari toki** (3); **gudari tokira** (3); **gudari trebe** (3); **gudari zaharra** (4); **gudari zaharraren** (4); **gudari zaharraren gerra** (4); **gudari ziren** (5)

**hamar gudari** (4); **hamar mila gudari** (5); **haren gudari** (14); **haren gudari taldeak** (12); **hiritetako gudari** (3); **hiru gudari** (12); **hiru gudari talde** (3); **hogei mila gudari** (5); **hogeita hamar gudari** (3); **israeldar gudari** (3); **laurehun mila gudari** (3); **mila gudari** (32); **mila gudari ausart** (4); **mila gudari oinezko** (3); **mila gudari ziren** (3); **nuen gudari** (3); **oinezko gudari** (3); **sasi gudari** (7); **sasi gudari batzuk** (3); **zen bere gudari** (4); **ziren gudari** (3); **zitzen gudari** (6); **zuen gudari** (6); **zuten gudari** (11)

**bere gudariak** (3); **eta eusko gudariak** (5); **eta gudaria** (4); **eta gudariak** (10); **euskal gudariak** (3); **euskaldun gudariak** (3); **eusko gudariak** (35); **eusko gudariak abestu** (4); **eusko gudariak abestuz** (4); **eusko gudariak kantatu** (3); **euzko gudariak** (4); **gainerako gudariak** (4); **gudaria da** (3); **gudaria eta** (3); **gudariak abestu** (4); **gudariak abestu zuten** (3); **gudariak abestuz** (4); **gudariak bere** (3); **gudariak eta** (11); **gudariak ez** (4); **gudariak gara** (3); **gudariak kantatu** (3); **gure gudariak** (3); **israeldar gudariak** (3); **sasi gudariak** (3); **ziren gudariak** (7)

## gudariburu iz gudari talde baten burua. ik gudaiburu.

Handik pixka batera, **gudariburuak** esan zigun berak ez zuela ezer ikusi. Inazio Mujika Iraola

Chamil Bassaev deitu txetxeniar **gudari buru** batek bere gain hartu du ukaldi hori. Herria

## gudaritxo iz adkor gudaria.

Erreserbako **gudaritxo** zahar bat, sagu bat bezala izutua. Juan Garzia

-Ongi **gudaritxo**, ez jarri horrela. Harkaitz Cano

-Ez dakizu zertaz ari garen, **gudaritxo**? Harkaitz Cano

## gudaritza iz soldadutza.

Aitona **gudaritzan** ibilitakoa zela esaten zuen beti Jontxuk. Xabier Mendiguren Elizegi

# gudaroste (ETCn 3.426 agerraldi; orobat **gudaloste** ETCn 112 agerraldi) 1 iz armada.

**Gudarosteko** agintariak. **Edorta Jimenez**

Lehen batailak zinezko destorbak izan ziren frantziar **gudarosteentzat** eta Paris mehatxatua zen. **Elena Touyarou**

"Chasseurs Basques" **gudarostekoak**. **Elena Touyarou**

Feofar Khanen **gudarostearen** abangoardia aurreratu ahala. **Karlos Zabala**

Frantses Errepublikak sortu berriaren Konbentzioko **gudarosteak** etorri ziren, ia segida-segidan, Napoleonen **gudaroste** inperialak. **Askoren artean**

**Gudaroste** karlistaren setioan gertatu zen dena. **Askoren artean**

Hungaria alemaniar **gudarosteek** okupatu dute. **Josu Zabaleta**

Derrigorez eraman zuen **gudaroste** frankistak, herriko beste gazte askoren moduan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Kristoren **gudarosteko** buruzagi izango zinela. **Askoren artean**

Ez zuen beldurrik izan gure etsaien **gudarostera** joateko. **Askoren artean**

**Gudaloste** baten gisa irten ziren israeldarrak Egiptotik. **Jose Antonio Mujika**

## 2 guda taldea.

Bere hogeitamar gizoneko **gudarostea** atzetik duela. **Patziku Perurena**

## 3 (hitz elkartuetan)

**Gudaroste** buru den Dwight Eisenhower jeneralaren hitzaldia. **Josu Zabaleta**

Damieta hiria inguratzan zuen kristau **gudarostearen** hondamendia. **Askoren artean**

Ingelesek etengabe darabilte beren hegazkin **gudarostea**. **Josu Zabaleta**

## 4 **Euzko Gudaroste** 1936ko gerran borrokatu zen euskal armada.

Euzko **Gudarostean** borrokatu nintzen. Loiolan ari ziren Euzko **Gudarostea** antolatzen. **Inazio Mujika Iraola**

Euzko **Gudarostearen** iskilu eta munizioen egoera zetorkion gogora Agirrerri martxoko hartan. **Edorta Jimenez**

Euzko **Gudarosteak** Santoñan bere burua entregatu izana. **Edorta Jimenez**

Euzko **Gudarostean** kaperauen saila osatzeko. **Edorta Jimenez**

**Gudarosteko** intendentzia komandantea, 1937ko ekainean faxistek fusilatua. **Juan Luis Zabala**

Eusko Itsas **Gudarostean** jardun zuten bouetan. **Koldo Izagirre**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bere gudaroste** (16); **bere gudaroste osoa** (4); **bere gudaroste osoarekin** (6); **du gudaroste** (3); **eta gudaroste** (19); **eta gudaroste osoa** (5); **euzko gudaroste** (4); **ez du gudaroste** (3); **gudaroste baten** (8); **gudaroste baten gisa** (3); **gudaroste eta** (3); **gudaroste handi** (15); **gudaroste handi batekin** (9); **gudaroste handia** (11); **gudaroste handiak** (3); **gudaroste handiarekin** (7); **gudaroste hori** (4); **gudaroste indartsua** (3); **gudaroste izugarria** (4); **gudaroste osoa** (31); **gudaroste osoa bildu** (4); **gudaroste osoa bildurik** (4); **gudaroste osoak** (5); **gudaroste osoarekin** (12); **zen bere gudaroste** (4); **zen gudaroste** (3); **zeure gudaroste** (4)

**beraren gudarostea** (3); **bere gudarostea** (19); **beronen gudarostea** (3); **erregearen gudarostea** (3); **eta beronen gudarostea** (3); **eta gudarostea** (8); **etsaien gudarostea** (4); **euzko gudarostea** (3); **faraoiaren gudarostea** (3); **fillistearren gudarostea** (3); **frantses gudarostea** (3); **gizoneko gudarostea** (3); **gudarostea bildu** (6); **gudarostea eta** (11); **gudarostea eta zurea** (3); **gudarostea osatzeko** (3); **gudarostea osatzeko gai** (3); **israelgo gudarostea** (4); **israelgo gudarostea osatzeko** (3); **nire gudarostea** (3); **nire gudarostea eta** (3); **zen gudarostea** (3); **zuen bere gudarostea** (3); **zuen gudarostea** (7)

**arturren gudarostean** (3); **babiloniar gudarosteak** (4); **bere gudarostearekin** (19); **bere gudarosteari** (5); **bere gudarosteko** (5); **beren gudarosteekin** (3); **beronen gudarosteak** (3); **bi gudarosteek** (4); **erregearen gudarosteak** (3); **eta beronen gudarosteak** (3); **eusko gudarosteko** (4); **euzko gudarostean** (3); **euzko gudarosteko** (8); **gudarostearekin gudura** (3); **gudarosteen jainkoaren** (3); **gudarosteen jainkoaren izenean** (3); **gudarosteko buruzagiak** (4); **gudarosteko kapitain** (3); **gudarosteko komandante** (3); **gudarosteko ofizialak** (3); **gure gudarostearekin** (3); **gure gudarostearekin gudura** (3); **siriar gudarosteak** (3)

## gudarosteratu, gudarostera(tu), gudarosteratzen da/du *ad* gudarostean sartu edo sarrarazi.

Eskualdeko Zuzendaritzari aberriaren defentsarako gizonik ez zutela **gudarosteratu** gaztigitzeko kinka larrian. **Elena Touyarou**

Udaletxeak eraiki "Aberriaren aldea" izeneko monolito ondoan ezarria izan zen **gudarosteratzeko** mahaira. **Elena Touyarou**

## gudatalde ik **guda** 4.

## gudate *iz* gudaldia.

Asko erabili zuten kanpainan zehar, eta matxurak izan zituen Matxitxakoko **gudatean** (1937-III-05). **Edorta Jimenez**

## gudatoki *iz* guda gertatzen den lekua. ik **gudaleku**.

Eusko Aberriaren alde zuzena garestia izan dela, eta hamabi mila gaztek eman dutela bizia **gudatokitian**. **Berria - Kultura**

Oraingo otoizlekuak **gudatokiak** ziren berdin, ordu haietan, biolentzia sakratua baitzen eta sakratua bera bortizkeriaren sortzaile. **Piarres Aintziart**

**Guda-tokitietatik** urrun zeuden herrietan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## gudatsu *izond*

Irauliaren erdian, Napoleonen barealdi **gudatsua**. **Andres Urrutia**

## gudazaldun ik **guda** 6.

## gudazale *izond* gerrazalea.

"Cara al sol con la camisa nueva" bihurtu zen, inperio berri bat sortu nahi zutenen ereserki **gudazalea**. Etika **gudazale** eta, teoriari behintzat, askatasunaren etikaren arteko lehia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## gudazelai ik **guda** 7.

## gudroi *(orobat gudroin eta gudron ) iz ipar galipota.*

'Seven eleven' saltegi baten hizki berde handiek **gudroi** bustiaren ispiluan dirdiratzen ziren. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Lehengo bidexkak **gudroinezko** bideekin zabaldu dituzte. [Eneko Bidegain](#)

Zuraren artatzeko tinduak eta **gudronezko** estali bereziek erretzean ke beltz eta irriskutsua bota du. [Herria](#)

## gudroinatu *(orobat gudronatu) izond ipar galipota-geruza batez estalia.*

Bide mota guzietarik aurkitzen da: **gudronatua**, legarrestatua, lauzatua, zimentatua, lur hutsa, estreka eta xendera. [Herria](#)

Errege-bide **gudroinatuan** sartu zirelarik. [Aurelia Arkotxa](#)

Bide hau, denean **gudronatua**, gehienez lasaia, oto gutik hartzen dutena. [Herria](#)

## gudroinatze *iz ipar galipota-geruza batez estaltzea.*

Gero, aterbe, eta kanpoko eremuaren **gudronatzearen** aldia izan da. [Herria](#)

## gudroineztatu *izond ipar gudroinatua, galipota-geruza batez estalia.*

Huna nun gaur egun xutitzen diren hogoi bat alimaleko eraikuntza-aterpe burdinezkoak, bide zabal eta **gudroneztatuak** heien artean. [Herria](#)

## gudu *(ETCn 9.249) 1 iz armazko borrokaldia. ik guduka<sup>1</sup>; bataila.*

Gudaroste iraultzailearen aurka borrokatu zen Valmy-ko **guduan**. [Jon Muñoz](#)

Waterloo-ko **guduaren** ondoren. [Iñaki Mendiguren](#)

Nondik datorrela uste duzue ba, Beotibarko **guduaren** ospea? [Andoni Egaña](#)

San Juan Crisóstomo ontzian frantsesen kontrako **gudua**, Trafalgarrekoa, irabazi arte. [Ramon Saizarbitoria](#)

Lehendabizi nederlanderatik ingelesera Nelsonen azkeneko **guduari** buruzko paragrafo bat itzuli dut. [Josu Zabaleta](#)

Maria Cristina hotelean izan ziren matxinatuen kontrako **gudu** gogorrenak. [Inazio Mujika Iraola](#)

Gerlako **guduetan** gazteek behar zuten aitzinean izan, aldiz zaharragoak gibelean emaiten zituzten. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Aurrez aurreko **gudu** haietan galdu omen zuen Beñardok ere bere zangoa, esku-bonba batek eramana airean. [Inazio Mujika Iraola](#)

Japoniarren kontra **guduan** ari zirela. [Gotzon Garate](#)

Soldadu ausartak eta **guduan** zailduak baitziren. [Felipe Juaristi](#)

### 2 (biren artekoa)

Zure iloba jaunak fin gaitz egin du Danceney jaun zaldunarekin gaur goizean buruz buru egin **guduan**. [Jon Muñoz](#)

### 3 irud

Itsaslariek haizeekin hasi **gudua** burutzea. [Xabier Amuriza](#)

Bereziki urduri zegoela iruditu zitzaidan [...] ariman misteriozko **guduren** bat gertatu izan balitzaio bezala edo. [Josu Zabaleta](#)

'Badakizu minbiziarekiko **gudua** zaila dela, operazio militar konplikatuak antolatu behar dituzu. [Joseba Sarrionandia](#)

### 4 leihaketa.

Bi kantarien arteko **gudua**. [Michel Oronoz](#)

1935eko San Sebastian egunez, Bertso- **Guduaren** ostean. [Iñigo Aranbarri](#)

### 5 guda, gerra.

36ko **gudua** piztu aurretik. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Frantzia eta Espainiaren arteko **gudua** ene denboran jadanik hasia zen, Jaun marexala. [Michel Oronoz](#)

Erljijo **gudu** historiko bati azkena ematen diolako. [Markos Zapiain](#)

Petaín marexalak 1940ko ekainean **gudu** -gelditzea galdegin ondoan. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Gerla labor baten ondotik (opio-aren **gudua**) txinatarrek bidea libro behar izan zuten utzi ingeles "debruei". [Ramuntxo Etxeberri](#)

"Vietnameko **gudua**", Joan Baez, Woodstock, Jimmy Hendricks... eta abar...? [Ramuntxo Etxeberri](#)

Erabateko **gudu** atomikoa izango balitz, ugaztun guztiak galduko lirateke, bat bakarra izan ezik: arratoia. [Gotzon Garate](#)

### 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agintarietan zuhurrena eta **gudu** -buruzagietan miretsiena. [Jose Antonio Mujika](#)

**Gudu** -egunean, gure soldaduak borrokarako prestatzen ari zirela entzunik. [Askoren artean](#)

Gerra edo **gudu** -hotsik / ez zen mundu osoan entzuten. [Iñaki Mendiguren](#)

**Gudu** kutsu hori biribiltzeko, erakusketako panelak lantza moduko makiletan daude jarririk. [Berria - Kultura](#)

Judu eta kristauen arteko **gudu** -tokian. [Iñaki Mendiguren](#)

Haren **gudu** -eremua laborategia zen. [Juan Garzia](#)

Zergatik engainatu nauzu eta nire alabak **gudu** -gatibu bezala ekarri? [Jose Antonio Mujika](#)

Garaiko europar **gudu** -taktikak. [Iñaki Mendiguren](#)

**Gudu** estrategia psikologikoak baliatuz. [Markos Zapiain](#)

Fusil eta kanoi eta gainerako **gudu** -tramankulu haiek. [Karlos Linazasoro](#)

Filistearrek Afeken zituzten bilduak beren gudari-taldeak; israeldarrek, berriz, Izreelen dagoen iturri ondoan ezarri zituzten **gudu** -etxolak. [Elizen arteko biblia](#)

Zer da **gudu** -zarata hori? [Juan Garzia](#)

Turkoen **gudu** bertsoak; armeniarren eliza otoitzak. [Felipe Juaristi](#)

### 7(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bera eta zekartzan mutilak, itsas **guduetan** zailduak denak. [Felipe Juaristi](#)

Boeing eta Airbus enpresen arteko merkataritza- **guduan**. [Koro Navarro](#)

### 8 gudu gurdi *(ETCn 118 agerraldi; orobat gudugurdi ETCn 4 agerraldi) gudu orga.*

Salomonek mila eta lauhun **gudu-gurdi** eta hamabi mila zaldi inguratu eta hirietako gudari-tokietara eraman zituen. [Elizen arteko biblia](#)

Mila **gudu-gurdi**, zazpi mila zaldizko eta hogeita mila oinezko atzeman zizkion Davidek. [Elizen arteko biblia](#)



Faraoiak, orduan, **gudugordia** presteara eta gualostea bildu zuten. Jose Antonio Mujika  
Begira, hor dator etsaia hodeia bezala, **gudu-gurdiak** haize erauntsia bezala, zaldiak arranoak baino arinago. Elizen arteko biblia  
**Gudu-gurdiak** eta gurdikoak irauliko ditut, eta zaldiak eta zaldizkoak eroriko dira, batak bestea ezpatatz jota. Elizen arteko biblia

## 9 gudu lagun (orobat gudulagun g.er.)

Ezagunak zituen hamarrak, **gudu-lagunak** baitziren, azken erasoan galdutzat joak denak. Felipe Juaristi  
**Gudulagun** ohiak. Oskar Arana

Juduei adiskide, **gudu-lagun** eta senide esaten zietela erromatarrek. Elizen arteko biblia

## 10 gudu lerro (ETCn 43 agerraldi; orobat gudulerro ETCn 4 agerraldi) ik fronte; guda 4.

Irunen ibilia zela, **gudu** -lerroari eutsi nahian. Inazio Mujika Iraola  
Tiro-hotsak hasi dira **gudu-lerro** osoan zehar, metrailadoreak eta fusilak tiroka, obusak eta bonbak jaurtika. Mirentxu Larrañaga  
Somme inguruko **gudu-lerroaz** haraindira jaitsita. Mirentxu Larrañaga  
**Gudulerrotan** antolatuta ziren, filistearren aurrez aurre. Jose Antonio Mujika  
Beizamatik barrera igo ginen **gudu-lerroaraino**. Inazio Mujika Iraola  
Biharamun iluntzean, **gudu-lerroarantz** igo gara. Mirentxu Larrañaga  
Tinko gelditu eta deiadar egin zien israeldar **gudu-lerrokoiei**, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

## 10a gudu oin gudu lerroa. ik fronte.

Kontraeraso bat izan zela jakin nuen, eta atzera eginarazi zietela alemaniarrei, eta berritoki armaz hartu zituztela gure **gudu-oineko** lubakiak. Mirentxu Larrañaga

## 11 gudu orga (ETCn 12 agerraldi) guduetan erabiltzen den orga. ik gorago 8.

1916an asmatu zuten **gudu** orga. Pello Salaburu

## 12 gudu zelai (ETCn 125 agerraldi; orobat guduzelai ETCn 32 agerraldi) gudua gertatzen den zelaia. ik guda 6.

Andaluziako **gudu** -zelaietan. Iñaki Mendiguren  
Ez zen **guduzelaian** hil, ordea, sukar gaizto batzuek jota baizik. Xabier Olarra  
Bizirik geratu ziren bando batekoak zein besteak erretiratu egin ziren, **gudu** -zelaia hilez beterik utzita. Martin Anso  
**Gudu** -zelaian bertan, Errolanek belauna eskaini dio Ferraguti, burukitzat erabil dezan. Martin Anso  
**gudu** -zelaian bertan egindako 4 erreportaje liburua. Bego Montorio  
Ausardia ez da **gudu** -zelaietan soilik erakusten. Fernando Morillo

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiskide eta **gudu** (3); **arteko gudu** (3); **aurkako gudu** (3); **bai eta gudu** (3); **bere gudu** (21); **bere gudu gurdi** (3); **bere gudu gurdian** (4); **bere gudu gurdira** (5); **beren gudu** (3); **beste gudu** (3); **bi gudu** (3); **burdinazko gudu** (3); **burdinazko gudu gurdiak** (3); **connall ehun gudu** (4); **da gudu** (6); **davidi gudu** (3); **davidi gudu irtenaldi** (3); **ehun gudu** (6); **erregea bere gudu** (3); **eta gudu** (50); **eta gudu gurdi** (4); **eta gudu gurdiak** (8); **eta gudu lagun** (6); **ezarri zituzten gudu** (3)  
**gudu bat** (6); **gudu eta** (5); **gudu etxolak** (4); **gudu gurdi** (38); **gudu gurdi batek** (4); **gudu gurdi beren** (3); **gudu gurdi eta** (13); **gudu gurdia** (7); **gudu gurdiak** (25); **gudu gurdiak eta** (10); **gudu gurdian** (5); **gudu gurdien** (6); **gudu gurdietan** (4); **gudu gurdira** (6); **gudu gurdira igo** (3); **gudu gurditeriaren** (4); **gudu gurdiz** (4); **gudu harrapakin** (3); **gudu harrapakintzat** (3); **gudu hartan** (3); **gudu hortan** (3); **gudu indarrak** (3); **gudu irrintzia** (3); **gudu irtenaldi** (5); **gudu irtenaldi guztietan** (3); **gudu lagun** (8); **gudu lagun izateko** (3); **gudu lerro** (3); **gudu lerroa** (4); **gudu lerroa** (5); **gudu lerroarantz** (4); **gudu lerrotan** (13); **gudu lerrotan antolatuta** (4); **gudu lerrotan jarririk** (3); **gudu oihuak** (3); **gudu talde** (7); **gudu taldea** (4); **gudu taldeak** (5); **gudu taldeari** (4); **gudu tresna** (4); **gudu tresna** (4); **gudu zelai** (5); **gudu zelaia** (7); **gudu zelaian** (8); **gudu zelaietako** (3); **gudu zelaia** (7); **gudu zelaia** (7); **gudu zigorra** (4)  
**gure gudu** (6); **haren gudu** (3); **mila gudu** (3); **mila gudu gurdi** (3); **zaldi eta gudu** (5); **zaldiak eta gudu** (3); **zen gudu** (3); **zenbakidun gudu** (3); **zenbakidun gudu zigorra** (3); **zion davidi gudu** (3); **zituzten gudu** (3); **zituzten gudu etxolak** (3); **zuen gudu** (6); **zuten gudu** (3)  
**arteko gudua** (3); **ekin zioten guduari** (3); **erregeek guduari** (3); **erregeek guduari ekin** (3); **eskuak gudurako** (4); **eta gudua** (3); **eta guduak** (6); **eta guduaren** (7); **eta guduaren** (3); **eta gudurako** (8); **euskadi guduaren** (3); **gudua eta** (3); **gudua ez** (3); **gudua hasi** (5); **gudua izan** (3); **guduak eta** (6); **guduak ez** (3); **guduaren hil** (6); **guduari ekin** (6); **gudurako gai** (4); **gudurako prest** (6); **guduren bat** (3); **gudutik ihesi** (3); **gure gudarostearrekin gudura** (3); **izan zen gudua** (4); **kontrako gudua** (4); **kontrako guduaren** (5); **orreagako gudua** (4); **zen gudua** (6); **zioten guduari** (3); **ziren gudurako** (4)

## gudualdi iz gerra batean, bi gudarosten arteko gudu edo borroka. ik gudaldi.

Frankoen kontrako **gudualdi** haietarik. Joan Mari Irigoien  
Antiokoren bigarren **gudualdia** Egipton. Elizen arteko biblia  
Tolstoiren arabera, ez da inolako bat etortzerik gertakarien eta gizakien nahiaren artean; kasurako, Errusiako **gudualdian** borrokek hartzen zuten bidearen eta Napoleon eta Kutuzov buruzagien ahaleginen artean. Juan Garzia  
Gure aitzinekoek, bereziki ingeles gerratean, **gudualdi** ospetsu eta egun sinalatu guztietan, gehienbat oinez aritzen ziren. Patziku Perurena  
· [Bakea] bi **gudu** aldien arteko trikimailu aldia. Xabier Olarra

## gudugintza iz gerragintza.

Abokatuek auzigintza eta legegintza, jeneralek burruka eta **gudugintza**. Xabier Amuriza

## gudugurdi ik gudu 8.

## guduka<sup>1</sup> iz gudua, bataila.

Araben kontrako gerla edo errekonkistan Santiagok lagundu zituela giristinoak, bereziki Clavijo-ko **gudukan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
1521. urtean Noainen, Iruñea ondoan, izan zen **guduka** edo bataila famatu bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren  
Frantziaratu zelarik ehun egunen buruan galdu zuen Waterloo-ko **gudukan**. Herria  
Hain zuzen Monte Cassino-n, Italian, **guduka** gogorra ari zen orduan berean. Marzel Etxehandi  
Denek ordea familien arteko **gudukak** eta odol mendekuak agertzen dizkirate. Itxaro Borda  
Bagdad hiriburuko Sadr City auzune xiitan ere **gudukak** gertatu ziren. Berria - Mundua  
**Guduka** bortitzak izan ziren atzo Kerbala, Najaf eta Nassiriá hirien inguruetan. Berria - Mundua  
AEBetako Armadak bozgoragailuz agindu baitziren atzo Najafeko herritarrei **guduka** guneeetatik aldentzeko. Berria - Mundua

## 2 hed

Eta hortan bukatu da lauen arteko **guduka**: bi irabazle (Sorhuet-Ezcurra II eta Carricart-Heguiabehere). Herria  
Finala xoragarri bat jokatu da Donostiako Atano IIIan, ezin sinetsizko **guduka** eta tantoak eginez lau pilotariak ere, galtzaleak barne. Herria

## 3 gudukan gudukatuz, borrokatzen.

Hiru hilabete lehenago Frantziak Austriari eta Prusiari gerla deklaratu ziela, eta ordukotzat, iparraldean eta ekialdean **gudukan** hasiak zirela. hala izatera, errusiarrek eta tatarriak karriketari ariko ziren **gudukan**. Elena Touyaru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko guduka** (5); **arteko gudukak** (5); **da guduka** (3); **guduka bat** (4); **guduka batean** (3); **guduka edo** (3); **guduka hauek** (7); **guduka hauez** (3); **guduka hauez gain** (3); **gudukak gertatu** (3); **gudukak gertatu ziren** (3); **kontrako guduka** (4); **zen guduka** (3)

## guduka<sup>2</sup> *adlag* gudukan, gudukatuz.

Bai oinaztua zerutik jausita, bai gizonek, oihanean **guduka**, etsaiei beldurra sartzeko. Xabier Amuriza

## gudukada *iz* gudualdia.

Hemen **gudukada** ginuen Amerikano eta Euskal Herriaren artean. Herria

Nola departamenduko prefetak nahi duen **gudukada** bat ereman herrietako gertakarietan, bide segurtamenean. Herria

Irisarriko Ospitalean, aratsaldeko 4etan, mintzaldi : "Orriako **gudukada**". Herria

## gudukaldi *iz* gudualdia.

Koalizio militarreko 20 soldaduk bizia galdu dute **gudukaldi** hauetan. Berria - Mundua

Haatik, apur bat bareagoa izan zen atzoko eguna, ostirale gauean, hilerriaren inguruetan, **gudukaldi** bat gertatu eta lau leherketa entzun baziren ere. Berria - Mundua

Bizarbeltz **gudukaldian** hil, eta lotinantak agindu zuen burua moztu eta trinket-mastaren puntan lotu zezatela. Juan Garzia

**Gudukaldia** luzatzen hasten zela-ta, beste tren batean, eta Tolosatik oraingoan, bidalitako errefortzu liberalak iritsi dituk. Txillardegi

## gudukari *iz* gudularia.

FLNC: **Gudukarien** Batasunak aldarrikatutako su-etena. Berria - Mundua

Kurdistango Peshmerga **gudukariak**. Berria - Mundua

Txetxenien Errusiako Armadaren kontra borroka gogorra daramaten **gudukari** independentistetatik batek, Abdul Ualidek. Berria - Mundua

Falujan dauden **gudukari** atzeritarren errenditzea lortzea. Berria - Mundua

Basoran, Nasirian eta Samauan, berriz, **gudukari** xiitek morteroz eraso zieten okupazio indarrei. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**finc gudukarien** (12); **finc gudukarien batasunak** (4); **gudukarien batasuna** (3); **gudukarien batasuneko** (3)

## gudukatsu *izond* gudukaz betea.

alabek gurasoi (5); beraian gurasoi (5); beraian gurasoi eman (3); bere gurasoi (5); beren gurasoi (8); diete gurasoi (8); dituzten gurasoi (4); duten gurasoi (3); eskatu die gurasoi (3); eta beren gurasoi (3); eta gurasoi (27); eta zuen gurasoi (5); ez die gurasoi (3)

gurasoei agindu (3); gurasoei buruz (3); gurasoei dirua (3); gurasoei eman (11); gurasoei eman nien (3); gurasoei eman zenien (4); gurasoei ere (10); gurasoei esan (5); gurasoei eta (17); gurasoei euren (4); gurasoei ez (8); gurasoei laguntzen (3); gurasoei zer (3); gurasoei zin (4); gurasoei zin eginez (3)

gure gurasoi (8); gure gurasoi eman (3); haurren gurasoi (5); neure gurasoi (6); nien gurasoi (6); nire gurasoi (20); seme alabek gurasoi (5); zien gurasoi (6); zieten gurasoi (4); zuen gurasoi (11); zuen gurasoi zin (3); zure gurasoi (6)

baina gurasoek (11); batean gurasoek (3); bere gurasoek (29); bere gurasoek ez (3); beren gurasoek (9); bidali zuten gurasoek (3); da gurasoek (7); dezaketek gurasoek (3); didate gurasoek (3); diote gurasoek (3); dira gurasoek (3); dituzten gurasoek (3); du gurasoek (3); dumonten gurasoek (3); dute gurasoek (22); duten gurasoek (5); edo gurasoek (3); egin zuten gurasoek (4); emakumearen gurasoek (3); esan zuten gurasoek (3); eta bere gurasoek (3); eta gurasoek (70); eta gurasoek ere (4); eta gurasoek eta (3); eta gurasoek ez (8); eta zure gurasoek (3); euren gurasoek (5); ez eta gurasoek (3)

gurasoek alaba (4); gurasoek askotan (3); gurasoek auto (3); gurasoek auto istripua (3); gurasoek badakite (3); gurasoek baino (4); gurasoek berek (3); gurasoek beren (12); gurasoek beste (3); gurasoek bezala (4); gurasoek egindako (3); gurasoek elkar (3); gurasoek eman (3); gurasoek erabaki (5); gurasoek ere (36); gurasoek ere antzeko (3); gurasoek ere ez (5); gurasoek esan (6); gurasoek eskola (6); gurasoek eta (40); gurasoek eta irakasleek (3); gurasoek euren (9); gurasoek euren seme (3); gurasoek ez (73); gurasoek ez dakite (5); gurasoek ez dute (14); gurasoek ez ninduten (3); gurasoek ez ziguten (4); gurasoek ez zutela (4); gurasoek ez zuten (13)

gurasoek ezagutu (6); gurasoek ezagutu ez (3); gurasoek ezin (8); gurasoek ezin dute (3); gurasoek frantzisko (4); gurasoek gero (3); gurasoek gero eta (3); gurasoek goi (3); gurasoek goi mailako (3); gurasoek hala (5); gurasoek hartuko (3); gurasoek haurra (3); gurasoek haurrak (4); gurasoek haurrei (3); gurasoek ikusi (3); gurasoek izan (6); gurasoek jakin (5); gurasoek nahi (9); gurasoek nahi duten (6); gurasoek onartu (3); gurasoek ordaindu (3); gurasoek ordaintzen (3); gurasoek oso (3); gurasoek salaketa (4); gurasoek salaketa ezarri (3); gurasoek seme (15); gurasoek seme alabei (5); gurasoek seme alaben (5); gurasoek semea (5); gurasoek umeak (4); gurasoek uste (3); gurasoek utzi (3)

gure gurasoek (36); gure gurasoek ez (3); haien gurasoek (5); haren gurasoek (12); haurren gurasoek (3); ikasleen gurasoek (5); irakasle eta gurasoek (7); irakasleek eta gurasoek (3); jokin zeberioaren gurasoek (5); nahi gurasoek (3); neskaren gurasoek (7); ninduten gurasoek (3); nire gurasoek (35); presoaren gurasoek (8); salatu zuten gurasoek (3); umeen gurasoek (3); zeberioaren gurasoek (5); zidaten gurasoek (6); zioten gurasoek (6); zituzten gurasoek (4); zuen gurasoek (13); zure gurasoek (12); zuten bere gurasoek (4); zuten gurasoek (33); zuten gure gurasoek (5)

bere gurasoekin (12); beren gurasoekin (4); du gurasoekin (3); duten gurasoekin (3); eta bere gurasoekin (4); eta gurasoekin (10); gurasoekiko harremanak (4); gurasoekin batera (8); gurasoekin bizi (9); gurasoekin egin (3); gurasoekin eta (10); gurasoekin etorri (3); gurasoekin hitz (10); gurasoekin hitz egin (5); gurasoekin izan (5); gure gurasoekin (3); ziren gurasoekin (3)

akusatuen gurasoen (3); alabak gurasoen (3); baina gurasoen (5); bere gurasoen (36); bere gurasoen etxean (4); bere gurasoen etxera (4); bereko gurasoen (3); beren gurasoen (9); da gurasoen (8); didaten gurasoen (3); didaten gurasoen gaiztakeria (3); dira gurasoen (4); du gurasoen (10); dugu gurasoen (3); dut gurasoen (3); dute gurasoen (8); duten gurasoen (6); duten haurren gurasoen (3); edo gurasoen (11); edo gurasoen larderia (3); ene gurasoen (4); ere gurasoen (9); eta gurasoen (76); eta gurasoen artean (3); eta gurasoen arteko (11); eta gurasoen etxean (3); eta gurasoen etxera (3); euren gurasoen (3); euskal herriko gurasoen (6); ez nuen gurasoen (3); gipuzkoako gurasoen (3); gorroto didaten gurasoen (3)

gurasoen aldetik (7); gurasoen arabera (4); gurasoen ardura (6); gurasoen ardura kontratuaren (3); gurasoen arreta (3); gurasoen artean (16); gurasoen arteko (26); gurasoen arteko harremana (5); gurasoen arteko lotura (3); gurasoen aurrean (10); gurasoen autoa (3); gurasoen babesa (3); gurasoen baimena (9); gurasoen baimena behar (4); gurasoen baimena beharko (3); gurasoen baimenik (9); gurasoen baimenik gabe (9); gurasoen beldurrez (4); gurasoen bisita (3); gurasoen bizitza (3); gurasoen egitekoa (3); gurasoen elkartea (10); gurasoen elkarteak (17); gurasoen elkarteak ehige (3); gurasoen elkartean (3); gurasoen elkarteek (11); gurasoen elkarteko (15); gurasoen elkarteko kide (4); gurasoen elkarteko kideak (3); gurasoen esana (3); gurasoen esanetan (7); gurasoen esku (3); gurasoen eskutik (4)

gurasoen eta (33); gurasoen eta seme (12); gurasoen etxe (4); gurasoen etxea (27); gurasoen etxea hustea (3); gurasoen etxea miatu (4); gurasoen etxean (42); gurasoen etxean bizi (7); gurasoen etxeko (11); gurasoen etxera (29); gurasoen etxera itzuli (5); gurasoen etxetik (18); gurasoen etxetik alde (5); gurasoen etxetik atera (3); gurasoen gaiztakeria (8); gurasoen gaiztakeria ondorengoan (4); gurasoen gaiztakeria semean (3); gurasoen gelan (3); gurasoen herrira (3); gurasoen hilobian (3); gurasoen iritzia (3); gurasoen jainkoa (4); gurasoen kasuan (3); gurasoen kontra (3); gurasoen larderia (3); gurasoen larderia eskasagatik (3); gurasoen maila (4); gurasoen maila sozioekonomiko (3); gurasoen ondoan (8); gurasoen ordezkariek (4); gurasoen parte (4); gurasoen parte hartzea (4); gurasoen semeak (3); gurasoen ustez (8)

gurasoena ere (3); gure gurasoen (23); haien gurasoen (3); haren gurasoen (6); haurren gurasoen (5); herriko gurasoen (6); herriko ikasleen gurasoen (12); ikasleen gurasoen (17); ikasleen gurasoen elkarteak (5); ikasleen gurasoen elkarteko (5); ikasleen gurasoen maila (3); irakasleen eta gurasoen (3); izan gurasoen (4); izan gurasoen beldurrez (3); nahi izan gurasoen (3); neure gurasoen (4); nire gurasoen (16); nituen gurasoen (3); nuen gurasoen (5); presoaren gurasoen (3); publikoetako gurasoen (3); publikoko gurasoen (4); seme alabak gurasoen (3); sexu bereko gurasoen (3); zen gurasoen (8); zeuen gurasoen (3); ziren gurasoen (6); zuen gurasoen (8); zure gurasoen (5); zuten gurasoen (9)

bai gurasoentzat (3); bat gurasok (3); beren gurasoengandik (3); eta gurasoengana (3); eta gurasoengandik (3); eta gurasoentzat (4); eta gurasoentzat ere (3); gurasoenean bizi (4); gurasoenera itzuli (4); gurasoenera itzuli nintzen (3); gurasoenera joan (3); gurasoengana itzuli (3); gurasoengana itzuli zen (3); gurasoengandik hartutako (3); gurasoengandik ikasi (3); gurasoengandik jaso (4); gurasoengandik jasotako (8); gurasoengandik jasotzen (3); gurasoengandik seme (3); gurasoentzako gida (3); gurasoentzat ere (5); gurasoetako bat (4); gurasoetako batek (11); gurasok ez (3); gure gurasoengandik (4); zenbait gurasok (6)

## gurasokeria iz goikoak edo nagusiak behekoenganako agertzen duen babeskeria jarrera. ikpaternalismo.

Errukiz, **gurasokeria** nabarmenez begiratzen diegu gu ez bezalako izan edo gugandik urruti daudenei.  Joxerra Garzia

Ondotxo dakit zenbateraino petralak izan litezkeen gurasoak, eta beti saiatu naiz **gurasokeria** saihesten. **Gurasokeriazko** baietza.  Joxerra Garzia

Fabrika zaharra: Agnellitarren **gurasokeriak** eta langileen izerdiak koipeztutako makinak.  Anjel Lertxundi

Zer ikasten nuen eta antzeko **gurasokeriak** galdetu zizkidaten.  Koldo Izagirre

Orain, **gurasokerian** topatu nahi dugu indarra.  Iñigo Aranbarri

## gurasotasun iz guraso izateko nolakotasuna.

**Gurasotasun**- ikerketa libreki egiteko eskubidea.  Berria - Euskal Herria

**Gurasotasun** eta filiazio-harremana.  Iñaki Mendiguren

Hainbeste psikologia, **gurasotasun** arduratsu eta puñeta merke.  Patxi Iturritegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurasotasun eta filiazio** (4)

## gurasotu, guraso(tu), gurasotzen (*corpusean ez dago; ETCn 11 agerraldi*) 1 da ad guraso bihurtu. ik aitamatu.

Adibidez arruntagoa da gizonen artean umeak izan bai, baina **gurasotu** ez den jendea.  ETC-literatura, saiakera

Hogeita hamarrek ondo beteta zituztela **gurasotu**, Errebaleko etxea ordaintzen amaitu zutenean.  ETC-literatura, saiakera

**Gurasotu** zen, eta bere haurren haurrak ikustea ere eman zitzaion.  ETC-literatura, saiakera

Aingerurik ez zen agertzen Mendiburuko ohantze berrian, aldiz Paristik jin zitzaien berri zorionsua: Irene eta Gildo **gurasotu** zirela, eta ñiñia Pierre deitu zutela.  ETC-literatura, saiakera

Lagun taldean batzuk **gurasotu** zirenetik gero eta urriagoak izaten dira halako enkontruak, eta adiskide (ia) guztiak biltzeko modu bakarra hitzordua bazkari baten inguruan antolatzea da.  ETC-literatura, saiakera

Bere burua askatasun, berdintasun eta senidetasun zaindari unibertsal duen Frantzian, berriz, jendetak ikusi ditugu sexu bereko bikoteak ezkontzearen eta **gurasotzearen** aurka? lehen ministro sozialista ohiak barne?; edo iritzi publiko zabal bat migratzaileak hamaika gaitzen errudun egiten, lependarrek ez ezik, egungo lehen ministro sozialistak haizatuta.  ETC-prentsa

Orain, berriz, 2010etik honako hamarkadari begira jarri eta esan behar da 80ko hamarkadan jaiotako belaunaldi hura kalean dagoela, **gurasotzen** ari dira, lan mundura sartzen: ETB izan dute, euskara batua, testuliburuak, euskararen aldeko praktika, euskaldunberriak dira asko, errazago kontsumitzen dituzte gaztelaniazko produktuak euskarazkoak baino .  ETC-prentsa

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Laranja: Gasteizko Alde Zaharretik Salburura bizitzera etorri zinetenean, ordurako **gurasotuak**, ez zegoen semaforo hori.  ETC-prentsa

Rock&Roll izar **gurasotua** .  ETC-prentsa

Itziar Arantza Iñaki Elizbarrutiaren Eskolan On Ramon Narbaizarekin, eta honekin mendian, eta honek eraginik Andoni Urrestarazu Umandiren euskarazko eskoletan ibilitako

## gurasotza iz gurasotasuna.

Ezta ikusi gaituen izpiritu ere; ezta semetza ez **gurasotza**, ezta guri edo existitzen direnetako batzuei ezaguna zaien beste edozer gauza ere. **Joan Mari Lekuona**

## gurata 1 *adlag* nahita.

Kutxilloa ateratzen zuen eta kutxillo horrekin, **gurata** edo gura gabe, koltxoa urratu eta koltxoiaren barruan ehun errealeko billeteak topatzen genituen. **Harkaitz Cano**

Ez zenuen **gurata** egin, haatik, edonork botatzen du purrustadaren bat noiz edo behin. **Javi Cillero**

Ezta ailitak **gurata** prestatu balu ere. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Ideien historia egiten denean **gurata** gogoan ditugun gaien, sinesmenen eta errepresentazioen ugaritasuna. **Xabier Arregi**

**Gurata** ere ez dute horiek gauza onik! esan zuten. **Joseba Sarrionandia**

## 2 *guratako izlag* nahitako.

Eurentzat hutsunea, ahantzura, hutsegitea litzatekeena, niretzat baztertzea izango da, **guratakoa** eta metodikoa. **Xabier Arregi**

## gurbe iz gurbe arbolaren fruitua, udare txikiaren itxurakoa.

Handik luzarora gabe, **gurbe** -pattarra ekarri zuten mahaira; Nozdriovek esan zuenez, esnegainaren ahogozo berdin-berdina zuen, baina -harrigarria- destilatu gabeko vodka zakarraren usain ikaragarria zerion. **Jose Morales**

## gurbil *izond* txukuna.

Mattina emazte prunta, **gurbila** eta garbia zen. **Itxaro Borda**

Banekien gizon gazte **gurbil** eta erotik serioa zela. **Daniel Landart**

Rafa gaztaroan zen mutiko zintzo, zuzen eta **gurbilaz** oroitu zen Sebas. **Itxaro Borda**

Maialen Echavarriaren margolan **gurbil** maitagarriak. **Herria**

## gurbildu, gurbil(du), gurbiltzen da/du *ad* txukundu.

Ahal moldean **gurbildu**, boten lokarriak estekatu, eta bizkar-zorroak eta armak bildu dituzue. **Xabier Montoia**

Gure misionest berriak beren Larresoroko etxearen antolatzen eta **gurbiltzen** ari zirelarik, Hazparnen saltzeko gertatu zen hek behar bezalako etxe bat. **Xipri Arbelbide**

## gurbilki *adlag* txukun.

Apezak urrezko kaliza bezain **gurbilki** gorde nezakeen altxorren desagertzea orduan biziki deitoratzen nuen. **Itxaro Borda**

## gurbiltasun iz txukuntasuna.

Osasuna eta **gurbiltasuna** aipatu dituzte. **Xabier Montoia**

**Gurbiltasunaren** legeak utzi zidan bezain laster, laboratoriora limurtu nintzen. **Juan Garzia**

## gurbitz 1 iz txilarraren antzeko zuhaixka, hosto txiki eta iraunkorak, eta marrubiaren antzeko fruitu gorri eta jateko onak dituen (*Arbutus unedo*).

Eta neguan heltzen eta purpura kolorez tindatzen ikusten dituzun **gurbitzak**. **Xabier Amuriza**

Udalak, gainera, Madriren hildako pertsona bakoitzeko 192 **gurbitz** landatuko dituela iragarri zuen Alfonso Alonso hiriko alkateak. **Berria - Harian**

## 2 garangorria, gurbitzaren fruitua.

Saria, ezkurak eta **gurbitzak** edo madari hautatuak. **Xabier Amuriza**

## gurdi (*ETCn 4.258 agerraldi; orobat burdi ETCn 52 agerraldi*) 1 iz baserritarren orga.

Orgak eta **gurdiak**, kotxeak eta karrozak. **Joan Mari Irigoien**

Ortuzainen **gurdiak** Paris aldera igotzen ari ziren. **Karlos Zabala**

Itzain batzuek urez beterik zeuden upela batzuk ekarri zituzten hainbat **gurditan**. **Joan Mari Irigoien**

Familia baserritik kalera **gurdi** gainean jaisten zela jardun zitzaigun kontatzen. **Xabier Etxabe**

Zabu egin eta **gurdiaren** endaitzari nola oratzen zion ikusi zuen laborariak. **Karlos Zabala**

**Gurdiaren** gurpila abatzetaraino sartu zitzaizkion lokatzetan. **Karlos Zabala**

**Gurdiaren** atzeko ohola altxaturik. **Karlos Zabala**

**Gurdiaren** kartolak egiteko balio zuten hesitto horiek. **Pello Zabala**

**Gurdiaren** atzealdea betetzen zuten arbi pilen artean. **Karlos Zabala**

Aurreko **gurdi**en ipurtaldearen kontra. **Karlos Zabala**

Bere burua **gurdiaren** astinaldi moteletara jarri besterik ez zuen egin behar. **Karlos Zabala**

Idiak ustzariarekin mantso zeudela, belarra **gurdietara** kargatzen. **Joseba Sarrionandia**

Ezin zara hemen geratu, **gurdiren** batek azpian hartuko zaitu. **Karlos Zabala**

Mugazainek **gurdi**en miaketan ziharduten. **Karlos Zabala**

**Gurdi**ei loturiko abereen errenkada amaigabeak. **Karlos Zabala**

**Gurdi**a kotxetegira daramadan bitartean. **Karlos Zabala**

Mezulariarekin batera **gurdi**en zihoalarik. **Jose Morales**

Traktorearen **gurdi** gainean nengoan. **Joxean Sagatzizabal**

## 2 (izenondoekin)

Kamioietan, autoetan, orgetan, **gurdi** aukidunetan, haur, koltxoi eta sukalego tresnen nahaste bat. Josu Zabaleta

Ez dirudi, ordea, orga edo **gurdi** perriduna baino zaharragoa izan denik, gurpil gabeko lorketa kontua. Patziku Perurena

Bi gurpileko **gurdi** txiki luze batzuen aurrean. Karlos Zabala

Bankudun **gurdi** karrankariak aldirietarantz abiatzen ziren. Karlos Zabala

**Gurdi** kirrinkarien gidariek garrasi egiten zigitela. Irene Aldasoro

- Eligio Pereisson, **gurdi** neska-mutikoz bete baten gainean zutik. Josu Zabaleta

### 3 orga.

Bi zalditako **gurdi** dotore batean eraman gintuzten Gernikara. Txillardegi

Parte-hartzaileek 12 itzuli eman behar zizkieten zalditegiari, lau zaldik tiratutako bi gurpileko **gurdian**. Berria - Kirola

Zer ote da ostatuaren borta aitzinean dagoen **gurdi** luze berdez margotu gaur? Koldo Izagirre

Posta-mutila hil, mandoak eraman, **gurdia** hustu eta bidaiariak atrakatu dituzten ohoen batzuek. Koldo Izagirre

Telega izenekoa **gurdi** hutsa da, lau gurpilekoa, estali gabea eta zurezkoa oso-osorik. Karlos Zabala

**Gurdiaren** estalkia haize bolada batek erraz eraman zezakeen airean. Karlos Zabala

Merkantzi tren batek esnezalearen **gurdia** harrapatu zuen. Lopez de Arana

Faraoiaren **gurdiak**, zaldunak eta gudaloste osoa. Jose Antonio Mujika

Hilkutxa **gurdi** handi batean jarri zuten, alboan Rohango Zaldizkoak eta aurrean Zutoihala zituela. Agustin Otsoa

Zerraldoa hirugarren klaseko **gurdi** apaindegabeko batean kargatu zuten. Koldo Biguri

Atzeraxeago orkestinaren **gurdia** zihonan. Josu Zabaleta

**Gurdi** eskegiaren beheko plataforman zegoen automobilari. Josu Landa

Eta azkenik, santutasunaren maila gorenera iritsirik, suzko **gurdian** zerura eramana. Askoren artean

### 4 gurdi betearen edukia. ik **gurdikada**.

Hartu **gurdi bete** musu, eta erreparatu zure leihoan paratzen den txori horri, ni neu bainaiz, zu zelatatzen, zu zaintzen. Lander Garro

**Gurdi bete** lan. Berria - Kirola

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kopel **gurdi** gidariak Henneren etxea erosi zien haren alabei, eta ukuilu bat egin zuen. Bazekien **gurdi** zaldi urreziak ez dutela ezer saihesten bidean. Koro Navarro

Ostatuko **gurdi** -atetik zaldi-kotxe txiki eta nahikoa polit bat sartu zen. Jose Morales

**Gurdi** -ardatzaren jabeak. Anjel Lertxundi

Plazako habe bati loturiko **gurdi** -gurpil baten gainean ezartzen zituzten eta hiltzen uzten. Felipe Juaristi

Bakar bat zegoen bere **gurdi** -haga gora. Txillardegi

Ikara die **gurdi** hots kirrinkariei. Karlos Linazasoro

Bide hartan, ondoko bideetan, aurrean zein atzean, **gurdi** kirrinka urrunek antzeko ilarak iragartzen zituzten. Karlos Zabala

**Gurdi** ilara gelditu, eta ahots lodi batzuen mintzoa entzun zuten. Karlos Zabala

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Posta- **gurdia** da. Koldo Izagirre

Garraio- **gurdi** lakatzak. Jose Morales

Garai hartan, zama- **gurdiak** iristen ziren, are hilean bat ere. Xabier Olarra

Lo, berriz, idi- **gurdietan**. Urtzi Urrutikoetxea

Sakonduretan karranka egiten duten idi **gurdiak**. Koldo Izagirre

Maleta- **gurdia** bultzatzen. Lourdes Oñederra

"Aitatxoren" ordenuz Sivakumar eskolara joaten hasi zen, elbarri- **gurditxo** batean. Gotzon Garate

Simaur **gurdi** batean ezkatutu izan balitz ez zuten berehala harrapatuko, esan zidan amak. Harkaitz Cano

Ni hantxe bakarrik hartintzar- **gurdian** utzita. Joxe Austin Arrieta

Herri osoa ibili zen kanoi- **gurdi** baten gainean ipinitako zerraldoaren atzetik. Koldo Biguri

30 tanke eta **gerra**-gurdi blindatuekin. Berria - Mundua

Jarraitzen diote haren garaipen- **gurdiani**. Jose Morales

Beti joango duk buhame **gurdi** baten aurretik. Karlos Zabala

Arreo- **gurdi** bat Zarautzen, Bigarren Mundu Gerraren hondarren gainetik... Iñigo Aranbarri

### 7 gurdi zesto (*corpusean gurdizesto soilik*)

Zenbat saski eta otarre klase, eta astozesto eta **gurdizesto**, eta zenbat lera, are, bostortz edo goldetikiren karela... Patziku Perurena

### 8 gurdia idien aurrean/aurretik jarri

Baina ez dezagun **gurdia** idien aurrean jarri, eta geldi gaitezen erromatarren garaian. Bernardo Atxaga

Hau da, **gurdia** idien aurrean jartzeko joera dugu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Gurdia** idien aurretik jartzea bezalakoa baitzen halako erabaki bat hartzea. Joan Mari Irigoien

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere gudu gurdi (3); den gurdi (3); eta gudu gurdi (4); eta gurdi (15); gerra gurdi (4); gudu gurdi (38); gudu gurdi batek (4); gudu gurdi beren (3); gudu gurdi eta (13); gurdi ardatza (3); gurdi ardatzaren (4); gurdi armatu (4); gurdi atetik (3); gurdi bat (33); gurdi bat sartu (3); gurdi batean (20); gurdi batek (7); gurdi batek zilarrezko (3); gurdi baten (10); gurdi batera (3); gurdi beren (3); gurdi beren zaldiekin (3); gurdi bete (3); gurdi eta (41); gurdi eta guzti (5); gurdi eta zaldunak (3); gurdi eta zaldunen (3); gurdi gainean (15); gurdi handi (3); gurdi hura (3); gurdi kooperatiba (4); gurdi txiki (3); haien gurdi (3); mila gudu gurdi (3); ostatuko gurdi (3); ostatuko gurdi atetik (3); suzko gurdi (6); suzko gurdi bat (3); zebilen gurdi (3); ziren gurdi (5); zuen gurdi (4); zuen suzko gurdi (3)

bere gudu gurdian (4); bere gudu gurdira (5); burdinazko gudu gurdia (3); eta gudu gurdia (8); eta gurdia (8); eta gurdiak (8); eta gurdia (6); eta gurdietan (4); faraoiaren gurdiak (3); gudu gurdia (7); gudu gurdiak (25); gudu gurdiak eta (10); gudu gurdian (5); gudu gurdien (6); gudu gurdietan (4); gudu gurdira (6); gudu gurdira igo (3); gudu gurdiz (4); gurdia bete (3); gurdia eta (4); gurdia hartu (3); gurdia idien (3); gurdiak eta (20); gurdiak eta zaldiek (4); gurdiak iristen (3); gurdiak iristen ziren (3); gurdian eta (3); gurdiani tiraka (3); gurdien gurpilak (4); gurdira igo (7); gurdira igo eta (3); gurdiren bat (4); gurditik jaitsi (5); gurditik jaitsi eta (3); suzko gurdian (3); zen gurdia (3)

## gurdibide iz gurdiak ibiltzen diren bidea.

**Gurdibide** batera baztertua, Seat 1430 bat ikusi genuen. Juan Kruz Igerabide

Bertara daraman **gurdibidea** hartu nuen aldapa erdian. Koldo Izagirre

Eta haiek, **gurdibide** erdian makala bezain altu ikusi zutenean, erbien modura atera ziren ihesi, beren tresnak hartuta. Koldo Biguri

**Gurdibidea**, alboetako bi hesiak amaitzen ziren tokian, miseria bezain gorriko zabaldu batean bukatzen zen. Koldo Biguri

## gurdigile iz gurdiak egiten dituen eskulangilea.

Horra hor, esaterako, Mikheiev **gurdigilea!**, kotxe baleztadunak bakarrik egiten zituen, sendoa eta luzerakoak, eta ez ordu bete soilik irauten duten Moskuko kotxe kaxkar horiek bezalakoak. Jose Morales

Mikheiev oso **gurdigile** ona da. Jose Morales

Bigarrenaren arkuo giltzarrian biztanlearen lanbideko ezaugarriak zeuden zizelkatuak, gurpil bat **gurdigile** batenean, aizkora bat egurketariarenean. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mikheiev gurdigilea** (3)

## **gurdigintza** *iz* gurdiak egiten dituenaren jarduera.

Ibilgailu hau ere ez da **gurdigintzaren** azken-azken aurrerapena. Karlos Zabala

Ateak, azkenean zabaldurik, **gurdigintzaren** emaitza kaskar hura irentsi zuen. Jose Morales

## **gurdika** *adlag* kopuru banakoa gurdia dela; kopuru handitan.

Handiustekoak, milioiak **gurdika** mugitzen dituzten futbol liga nagusien ordezkariak, batere saririk gabe. Berria - Kirola

## **gurdikada** *iz* gurdi betearen edukia. ik **gurdi 3**.

Gau batean **gurdikada** bat ongarri bota zioten apaizetxe aurrean. Koldo Biguri

**Gurdikada** garia eta hamar errubloko billete bat eskatzen dizute. Jose Morales

Belar-ondureekin azken jornada edo **gurdikada** etxeratzean. Pello Zabala

**Gurdikada** mardulak igortzen hasi zen, eta ez belarrez betetakoak soilik. Agustin Otxoa

**Gurdikada** bete bizkotxo hotz. Anton Garikano

Gutxien jaso zuenak hamar **gurdikada** bildu zituen. Jose Antonio Mujika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurdikada bat** (5)

## **gurdiratu**, gurdira(tu), gurdiratzen du *ad* gurdira eraman.

Erosketak egiterakoan beti gauza merkeenak **gurdiratu** beharrea, oliba hezurbakoak, gazta zaporeko saltxitxak edo kartoizkoak ez ziruditen gailetak aukeratzeko. Jon Arretxe

## **gurditeria** *iz* gurdi multzoa.

Menperatu egin zuen Arfaksaden gudaroste osoa, bai eta zalditeria eta **gurditeria** ere. Elizen arteko biblia

Bere **gurditeria** eta zalditeriaren arduradun egin zituen. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gudu gurditeriaren** (4); **gurditeria eta** (3)

## **gurditxo** *iz* gurdi txikia. ik **gurdixka**.

Goizero, **gurditxo** itxi batzuk, kaxa formakoak, zinkez estaliak eta arnasbidez beteak, sukalde handien ateetan gelditu eta jatetxe, enbaxada eta ministerioetako hondakinak jasotzen dituzte nahas-mahasean. Karlos Zabala

Bi **gurditxo** dabilta izozkiak saltzen, txirrina joz. Pako Aristi

Libre zeukan eskuaz **gurditxo** tolesgarri bat herrestan zeramala. Lopez de Arana

Hiruren artean **gurditxo** batera kargatu eta herritik kanpoko leizezulo batean botatzera joan ziren. Koldo Biguri

Erosketen **gurditxoa** ia puntaraino beterik zeukatela coca-cola botilaz. Joxemari Iturralde

Batzuetan supermerkatuetako **gurditxo** horietako bat erabiltzen du. Iñaki Zabaleta

**Gurditorantz** begiratu du Asunek, eta Asier imajinatu du, goxo-goxo lo. Iban Zaldua

Hanka hilak **gurditxo**en barra artean trabatuta geratzen ziren, eta **gurditxoak** labeetik itzultzen zirenean txakurrak ere, bitik behin, gainean etortzen ziren, belztuta, keinu izugarri batekin. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurditxo bat** (3)

## **gurditzar** *iz* gurdi handia.

Arraina zetorren, **gurditzarrak** pasatzen ziren bata bestearen ondotik. Karlos Zabala

**Gurditzar** batzuk trostan iritsi, eta Vallée merkatuaren espaloi bat oztopatu zuten zeharo. Karlos Zabala

Saski hutsak **gurditzarretan** nola kargatzen zituzten ikustera. Karlos Zabala

Barrikada sendoa aurkitu zuten aurrez aurre, iraulitako **gurditzar** zaharrez osaturikoa. Agustin Otxoa

## **gurdixka** *iz* gurditxoa.

Ehun neska-mutil haien atzetik Pekingo printzea etorri zen, Tu-Mu guztiz ahalduna, ehun morroiki bultzaturiko **gurdixka** baten gainean eserita. Felipe Juaristi

## **gurdizain** 1 *iz* gurdia daramana, gurdi-gidaria.

**Gurdizainak** logaleturik zihoazen, zaldien bridak eskumuturretan. Karlos Zabala



Bixkor zetozen, nahiz **gurdizainak**, gau oso bateko lanak ahiturik, beren jarlekuan erdi lo zeuden, uhalak eskuan, uhalak ere lokaturik, antza. **Matías Múgica**

**Gurdizainen** oihuak eta zartailu kolpeak ugaltzen ziren. **Karlos Zabala**

## 2 (erkaketetan)

Aingeruak bezain polita eta **gurdizainak** bezain zarpaila. **Karlos Zabala**

Biraoak ahoan **gurdizain** baten moduan. **Karlos Zabala**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **gurdizainak** (6)

## gurdizale *iz* gurdizaina.

Alferrikakoak zirela diligentzia eta **gurdizale** guztien makakorroak. **Bernardo Atxaga**

Esnatutako **gurdizaleen** biraoen erdian. **Karlos Zabala**

## gureganarazi, gureganaraz, gureganarazten du *ad* gureganatzera behartu.

**Gureganarazi** duzu! **Monika Etxebarria**

## gureganatu, guregana(tu), gureganatzen (*orobat gure ganatu g. er.*) da/du *ad* guregana ekarri, gure egin, gure bihurtu. ik **gutaratu**; **guretu**.

**Gureganatu** zirenean, tenienteak badaezpadako irribarra zekarren. **Bernardo Atxaga**

Zutitu eta **gureganatu** zitzaigun, kopa eta guzti. **Aingeru Epaltza**

Atzerriko ikasleak **gureganatzeko** argumentu gisa. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Nola moldatu ginen euskaldunok erromatarrek utzitako egutegira eta nola **gureganatu** genituen haiek eskainitako hitzak gure hiztegian. **Pello Salaburu**

Euskara nahi genuen **gureganatu**, denonganatu hobeki esan, guk bai baikenuen dagoeneko **gureganatua**. **Pello Salaburu**

Gehiago txundituko ditugu arrotzak gure obra bat haien erdarara itzularaziaz haien erdaratik hamar **gureganatuaz** baino. **Anjel Lertxundi**

Sineste horren bitartez orain arte ulertezina zen egia bat **gureganatu** eta interpretatzen ahal dugu. **Xabier Olarra**

Jendearen arreta **gureganatuko** dugu. **Berria - Kirola**

Zureak gogotik guretzen ditugu, zure erran molde bereziak gogoan hartu nahiz, zure mihitan bizi den lapurtera **gure ganatzeko** asmoarekin. **Herria**

## gureganatze *iz* guregana ekartzea, gure egitea, gure bihurtzea.

Geroratze taktiko horri esker irabazitako denbora foru lege baten **gureganatze** alferrean xahutzea. **Aingeru Epaltza**

## guren 1 *izond* goren, bikaina.

Gauza **gurenak** irakasten ditudalako eta gogoa erlijioen korapilo estuetatik askatzen saiatzen naizelako. **Xabier Amuriza**

Zer ari naiz esaten, ene Jaungoiko, ene bizi, ene atsegin **guren**, edota zertan dihardu ari denak zutaz ari denean? Izen **gureneko** Atenasek eman zien lehenen hazi gari emaila hilkor gizajoei. **Imanol Unzurrunzaga**

Demokrito **gurenaren** iritzi gurgarriak dioena. **Xabier Amuriza**

## 2 santua.

Pedro **guren** hau ez da Apostoluen nagusia, Apirilaren 29-koa baizik. **Pello Zabala**

Unzko San Martin herrian, Nafarro aldean, eztarrian mokaduren bat tratatuaz gero, Blas **guren**, aintzin edo gibel omen ziotsaten. **Pello Zabala**

Nabarnizen [...] eskola-maisu Imolan eta Brujasen obispu izandako Kasiano **guren** eskolako patroia zan. **Pello Zabala**

## 3 (deiki gisa)

Zuk, aita, egiaren asmatzaile horrek, zuk damaizkiguzu agindu aitatiarrak, eta zure liburuetan, oi **guren**, erleek baso loretsuetan dena zurgatzen duten bezala, guk ere urrezko hitzak bazkatzen ditugu. **Xabier Amuriza**

## gurenda *iz goi* garaipena.

**Gurenda** gurea izango dela sinetsita. **Txillardegi**

## gurendu, guren(du), gurentzen du *ad* hazi.

Diru-irabaziak urtez urte berretzen eta **gurentzen** zituela. **Joan Mari Irigoien**

## guretar *pred/iz* gure familiakoa, artekoa edo aldekoa dena. **ikgutar**.

Haren laguna, ordea, konfiantzako gizona da, **guretarra**. **Jose Antonio Mujika**

-Aita, **guretar** bat hil dute -erantzun zidan-. **Elizen arteko biblia**

**Guretarrek** ilunpea eta isiltasuna dituzte gogoko... **Iñaki Mendiguren**

**Guretarretako** zazpiti emana diot lehenago emaztetzat, eta denak hil ziren harekin elkartera zihoazen gauean. **Jose Antonio Mujika**

## guretartu *izond* guretar bihurtua.

Hungariar **guretartuez**. **Patziku Perurena**

## guretasun *iz* gure izateko nolakotasuna.

Nazioartekotasunak euskal izatearen hondamena zekarrela, **guretasuna** erdaldundu nahi zutela jainkogabeek. **Koldo Izagirre**

## guretu (ETCn 42 agerraldi), gure(tu), guretzen du *ad* gure egin, gure bihurtu. ik **geuretu**; **gureganatu**.

Lehenik Antton Alkhat, Armendaritzen sortua izana gatik **guretua** daukagu, Maider Irigoin Hazpandarrarekin. Herria

Gaurko egunean hitz horiek **guretuak** dauzkagu eta eskualde hortarik beraz gure hiztegia aberastu da. Herria

Beti erne egon behar dugu, **guretuen** segurtatzeko. Herria

Zureak gogotik **guretzen** ditugu, zure erran molde bereziak gogoan hartu nahiz, zure mihitan bizi den lapurtera gure ganatzeko asmoarekin. Herria

## gurgarri *izond* gurtua izan dadin merezi duena. ik **agurgarri**.

Demokrito gurenaren iritzi **gurgarriak** dioena. Xabier Amuriza

Zure eskuetan uzten dut nire burua, zure nahikunde **gurgarrian** bai denboran eta bai eternitatean. Joan Mari Lekuona

Ikusi duzue nola jokutzen duen Jainkoaren ontasun guztiz **gurgarriak** bere arima aukeratuekin! Joan Mari Lekuona

Gorputz bizi, jainkozko eta **gurgarria**. Joan Mari Lekuona

## gurguilu *iz* xaramela (?).

Abesteko teknika handia erakutsi zuen, baita edertasuna adierazteko musikaltasuna ere: **gurguiluak**, filadoak, fraseatze txukuna, ziur goi eta behe erregistroan, epelago agian erdikoan. Berria - Kultura

**Gurguilu** eta melismetan. Berria - Kultura

## gurgur 1 *iz* sabelaren hotsa.

Herminiok, **gurgur** eta kurrinkak ateratzen zituen, eztarriarekin baino gehiago sabelarekin hitz egiten baitzuen. Jasone Osoro

### 2 *gurgur hots*

Eta ia ezin genituen kontrolatu gure urdailen **gurgur** hotsak. Josu Zabaleta

Urak **gurgurrotsa** egiten zuen txaluparen hondoan, non hiru edo lau berdelek gora eta behera eragiten zioten isatsari, beren buruak estaltzeko aski ez zen ur putzu batean. Anton Garikano

## gurguratu, gurgura, gurguratzen du *ad* marmarka esan.

-Ametsetan nabil oraindik! **-gurguratu** zuen-. Agustin Otsoa

## gurgurika *adlag* marmarikatuz.

Euriak danba-danba jotzen zuen zurezko teilatua, eta ur-xirripak **gurgurika** isurtzen ziren behean jarritako upel batera. Jose Morales

## gurgurio *iz* garauetan bizi diren *Bruchidae* eta *Gurculionidae* familietako hainbat intsektu koleopterori ematen zaien izena..

Palentziatik hurbil, apaiz batek mandioa zuen alea gordetzeko, baina urtero **gurgurioz**, aleari erasotzen dion zomorroz, betetzen zitzaion, bere kaltetan. Askoren artean

Beste edozein orientaziok **gurgurioa** eta bestelako zomorroak sortzen ditu, alea hondatzen dutenak. Santiago Iruretagoiena

## gurgurrots ik **gurgur 2**.

## guri 1 *izond* leuna, biguna, samurra.

Uztail hondarreko eguzkiaren ferekan, belar **guriak** lekua kendu dio han arroka gorriari. Aingeru Epaltza

Belartza **gurietan**. Xabier Amuriza

Lepoalde zuri eta **guria** bistaritzen zitzaiola. Unai Iturriaga

Masail **guriko** kupido txiki batzuk ageri ziren. Karlos Zabala

Goizuetan, jeneralean ardia baino larrixegoa eta haragi gehiagokoa, baina oso nekez, orain bezala, bildoski **guria**. Patziku Perurena

Zekor **guri** eta gizen bat aukeraturik. Elizen arteko biblia

Liburuaren azal **guria** haztatzen segitu zuen. Edorta Jimenez

Joxemarik eta Mikelek burusi eta kuxin **guriak** zabaldu zituzten lurrean. Aitor Arana

Zalutasun zabarez bota zuen gorputza kotxeko bigungarri **gurien** gainera. Jose Morales

Matalaz mehe eta **guriagia**. Eneko Bidegain

Sade Adou, gure ametsetako emakumea, egur **gurian** tailaturiko jainkosa. Eider Rodriguez

Hunkiari dagozkionak Gogorrrak dira edo **Guriak**, Latzak edo Leunak, eta horrela. Piarres Xarriton

### 2 *irud*

Desarra gozo baten gisara eragin zidan haren larru-azalaren uki **guriak** blusa baporetzuaren ehun mehearen azpian. Aingeru Epaltza

Zakur bat zeure ondotik igarotzerakoan, begiratu **guria** egiten al diozu? Gotzon Garate

Oihukatu nuen boz **guri eta** amoltsuz [...]. Jon Muñoz

### 3 *mardula*.

Lodia baino gehiago, gizona zen, borobila, **guria**. Bernardo Atxaga

Ene! zelako jainkosa-bularrak, zelako izter leun eta **guriak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Txupa kenduta bular **guriak** nabari zaizkio, ez handiak ere, baina bai ongi biribilduak, dardara zaluxkoak. Pako Aristi

-Ba nik nahiago handi-handiak eta guri-**guriak**. Jon Arretxe

Katu eta txakur lodi-lodiak baizik ez zituen ferekatzen, bizkar biribil **guriak** bihotzeko poza ematen zioten. Karlos Zabala

Jan-uztea jakietan, gehiegikeria uzteko, bitara eduki daiteke: bata, jaki lodiak jaten ohituz; bestea, **guriak** badira, gutxika janez. Patxi Altuna

Itxaropenaren ezitia dastaka, geroaren jaki gozo eta **guriak** amets, Maastricht deitzen den hirira iritsi zen. Felipe Juaristi

Azaloreen mami zuri **guriak** ernamuntzen ziren. Karlos Zabala

Uztail hondarreko eguzkiaren ferekan, belar **guriak** lekua kendu dio han arroka gorriari. Aingeru Epaltza

Noeren uholdeak lur **guria** eraman baitzuen eta mendia larrutua utzi. Aurelia Arkotxa

Lur **gurietatik** urrun / izango duk etxea, / zeruko ihintzetik aparte! Jose Antonio Mujika

## 4 (adizlagun gisa)

**Guriago** jokaturik bertzeekin. Jon Muñoz

## 5 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Hari ene gogoaren argia / Ezpainen gozoa / Bularren **guria**. Michel Oronoz

## 6 (erkaketetan)

Gero arkume izter gazitu bat, gozokia bezain **guria**. Josu Zabaleta

## 7 *guri-guri* izond

Haren hatsa haizearen hatsa zen, eta haren azala, berriz, guri-**guria** zen, haur jaioberri batena iduri. Joan Mari Irigoien

Joan omen zen behin harengana Donostiako jauntxo bat, familia karlistakoa, ojalatero deitzen zituztenetakoa, potzolo-potzoloa eta **guri-guria**. Koro Navarro

Ikatz guri-**guria** zaukak horrek hanka artean, ikatz guri-**guria**, zera! Juan Kruz Igerabide

Aurpegiko azala, berriz, esnetsu eta **guri-guri** omen du, urteotan guztiotan eguzkiak jo ez duelako. Gotzon Garate

## 7a (adizlagun gisa)

Izarapean batzen ninduengoxo-goxo, **guri-guri**, kontu kontari lokartu artepasatzen ziren ordu bi, Txanogorritxo zein txerrikoakedota Edurne Zuri. Berria - Kultura

## 8 *guri-guria* *adlag* guri-guri.

Berriz eseri zen guri-**guria**, bere besaulkiaren gainean bermatua. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**guri guri** (4); **guri guria** (7) janari guriz (3)

## gurikeria iz atseginetara gehiegi ematea, bigunkeria.

Haurren **gurikerian** hazteak. Herría

Zail gertatuko litzaideake tea eta kafea prestatzerakoan bideratzen nuen **gurikeria** azaltzea. Joxan Elo segi

## guriki 1 *adlag* guritasunez.

Eta erraiten zuen, ezteki eta **guriki**: [...]. Joan Mari Irigoien

## 2 gurikeriaz.

Begia garratza, nekez, bortizki jokatu behar izan duenarena, ez goxotasunean, ez **guriki**. Hainbestetaraino nun bilakatzen baitziren gazte horiek zailtasun eta trebezia haundiko putiko gogor, berdin aintzinean **guriki** haziak izanak ziren hiritarki batzu ere. Michel Oronoz

## gurin 1 iz esne gaina joaz edo irabiatuaz egiten den gai koipetsua, sukaldaritzan-eta erabiltzen dena.

Lecœur andrea, urtebete lehenago alargundua eta azokan **gurina**, gazta eta arrautzak saltzen zituena. Karlos Zabala

Bihartik aurrera ez da ez koiperik, ez **gurinik**, ez marginararik izango. Josu Zabaleta

Koipe zikin hura **gurina** baino apur bat merkeago saldu zien, negozio ederra borobilduz. Hasier Etxeberria

**Gurina** kendu gabeko esne kopuru berezi bat erosi dugu. Josu Zabaleta

Normandiako **gurinek**, oihalez bildurik, sabel ziriborroak ziruditen, eskultore batek egin eta zapi bustiak gainera botata estali izan balitu bezala. Karlos Zabala

Nik beti ehun gramo **gurin** besterik ez dut erosten. Fernando Rey

Baina azken bertsoetan, bat-batean, **gurina** zartaginean bezala urtzen da galerianoaren lehen bertsoetako gordintasun guztia. Anjel Lertxundi

Alemanak [...] labana bat **gurinean** bezala sartzen ari ziren errusiar ordokietan barrena. Juan Garzia

Kafea, opilak eta **gurin** gozoa. Lopez de Arana

**Gurin** horrekin gozokiren bat egiteko asmoa dugu. Josu Zabaleta

Varsovia xerretan moztzen zuten **gurina**. Koro Navarro

Mutilak **gurina** zabaldu zuen opilean eta siropa bota zuen gainean. Koro Navarro

Ogi xerrak **gurinarekin** igurtzita. Pablo Sastre

Amak txokolate beroa eta ogi xigortu **gurinez** igurtzia prestatzen zizkigun. Juan Kruz Igerabide

**Gurinezko** bola handia, horixka. Iñaki Zabaleta

Goizero hartzen ditut kafea eta **gurinezko** gaileta danimarkarrak. Harkaitz Cano

Jolas garaian **gurinezko** gozopilak eskaini nizkien irakasleei eta ikaskideei. Josu Zabaleta

**Gurina** arintzeko prozedura berriari buruzko xehetasunekin. Joxan Elo segi

Orain Halleren aurpegia **-gurinaren** prentsaren eta ontziaren artean- handitzen ari zen. Anton Garikano

## 2 irud

**Gurinezko** besoa neukala ematen zuen. Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Librako **gurin** ogien ondoan. Karlos Zabala

Saltokiko bi erakusmahaien gainean, atzealdean, sekulako **gurin** pilak zeuden, lerro-lerro jarriak. Karlos Zabala

Janariaren **gurin**-usainaren eta aiztoek, sardexkek eta platerrek eragindako txilin-hotsen artean. Lopez de Arana

Setio egoera jarri dute, eta **gurin** kupoi bat gutxiago eman behar diete denei. Josu Zabaleta

Bi dorre tzar ageri ziren zeru **gurin**-kolorearen erdian. Anjel Lertxundi

**Gurin** saltzailea satora jaitsi zen berriro. Karlos Zabala

Isil-isilik edan zuten **gurin**-garagardoa, harik eta Harryk barruan bueltaka zerabilen zerbait aipatu zuen arte. Iñaki Mendiguren

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kakao-**gurinak** isuritako usaina. Lopez de Arana

Kakahuete-**gurinezko** hiru izozki handi erosi zituen. Iñaki Mendiguren

## 5 gantza.

Balea hilen **gurina** urtarazten zuten eta ondoriozko olio dupeletan ezarririk, altxorrekin Europako bidea hartzen zuten. Herría

## 6 *gurin ontzi*

Jezteko txabolan biak, **gurin** -ontziaren ondoan pikotxean. **Anton Garikano**  
Upel txikiak, aluminiozko **gurin** -ontziak. **Joxan Elozegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bat **gurin** (3); eta **gurin** (8); eta **gurina** (24); eta **gurinak** (3); eta **gurinarekin** (3); eta **gurinaren** (3); eta **gurinetan** (3); **gramo gurin** (3); **gurin eta** (3); **gurin garagardo** (7); **gurin garagardoa** (6); **gurin gehiago** (3); **gurin libra** (4); **gurin libra baten** (3); **gurin ontziaren** (3); **gurin ontziaren ondoan** (3); **gurin saltzailea** (3); **gurin saltzaileak** (7); **gurina baino** (3); **gurina ere** (4); **gurina eta** (13); **gurina zabaldu** (3); **gurinaren pabiloian** (3); **gurinetan bezala** (3); **gurinez eta** (6); **gurinez igurtzi** (3); **gurinik ez** (3); **ogia eta gurina** (12)

## gurindu, gurin(du), gurintzen du *ad* gurinezatu.

Demagun gainerako begiraleek Koipemari deitzen duten begiralea datorkidala eskua **gurinduta** eta aurpegi irriberez... **Anjel Lertxundi**

## gurindun *izond* gurina duena.

Tostada **gurindunak** prestatzen ari zen ama. **Aingeru Epaltza**

## gurineztatu, gurinezta, gurineztatzen 1 du *ad* gurinez hornitu.

Fudgek opil bat **gurineztatu** zuen eta Harryren aldera bultza egin zion platerari. **Iñaki Mendiguren**

Ogia ebaki eta **gurineztatzen** hasi zenean. **Iñaki Mendiguren**

### 2 (era burutua izenondo gisa)

Une batez badirudi xerra **gurineztatu** bat, galleta blaituak, edozer txerrikeria botako dietela neskek mutilei, mendeku gisa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gizonik goxoenaren aurpegi **gurineztatuak**. **Anton Garikano**

## gurintsu 1 *izond* koipetsua; gantzatsua.

Zure behatzen aztarnak dakarzkielako ez paper **gurintsurik** bota eta ez inorekin hitz egin. **Itxaro Borda**

Haren sabel **gurintsua**, haren izter borobilak. **Itxaro Borda**

Hormona sintetikoak zein abere irinez hazi urde **gurintsuak**. **Itxaro Borda**

### 2 *irud*

Irri lodi eta **gurintsuz** lehertu ziren biak. **Itxaro Borda**

### 3 mamitsua.

Salda mehe eta lursagar **gurintsuz** bazkaltzen ziren. **Itxaro Borda**

## gurintxo *iz* gongoila.

Cécile andereñoa, harakinaren alaba, behin ere ezkonduko ez dena masailpeko **gurintxoak** hanpatuak dituelako. **Karlos Zabala**

## guritasun 1 *iz* guria denaren nolakotasuna.

Tentuz aztertu zuen sorbaldan haren azalaren **guritasuna**. **Unai Iturriaga**

Munduko hortzik ederrenak ditu, eta halako **guritasun** bat nabaritzen zaio gerri eta aldaketan, emakume jarrerak hartzeko duen ohituragatik, seguruen. **Juan Martin Elxepuru / Bego Montorio**

Batzuen ahotsak badu halako **guritasun** berezi bat, jarki ezin zaiona, jateko gozoak diren gauzen ahogozoa. **Josu Zabaleta**

Jainkoak eman diezazkizula zeruko ihintza eta lurreko **guritasuna**, ogi-ardotan oparotasuna. **Elizen arteko biblia**

### 2 une guria.

Ikus dezala bere gorputza: **guritasunak**, axal zurixkaren azpiko zain urdinek, tripako buzkantzek hartutako gorputz bat. **Antton Olano**

## guritsu *izond* guri-guria.

-Ilehori **guritsu** batekin ez bada, ez zaiala...? -buruari eragin zion-. **Jose Morales**

## guritu, guri(tu), guritzen du *ad* guri bihurtu, bigundu.

[Burdina] bigunduta eta **gurituta** dagoenean ur hotzetan hozten bada, berriro gogortu eta hasieran zuen kalitate hartara itzultzen da. **Santiago Iruretagoiena**

Lege hori dela sobera garratza eta sobera gogorra, behar dela beraz poxi bat malgutu eta **guritu**. **Herria**

Itxuraz joritu eta **guritu** da egungo amaren zortea, baina itxuraz bakarrik aintzina: dirua eta diruari lotuak zaizkion laguntzak etortzearekin amari, bai-eta orobat bestelako estekak eta esklabotasun berri batzu ere. **Herria**

Boza apur bat eztitzen eta **guritzen** zuela. **Joan Mari Irigoien**

Lantuan aritzen zen gozoki eske, nahiz handitzen eta **guritzen** ari zen egunetik egunera. **Anton Garikano**

Orduan eztitzen da aita hori, gogoa ematzen eta **guritzen** zaio. **Xipri Arbelbide**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**  
eta **guritzen** (3)

## gurkeria *iz* gurpena.

Haiek **gurkeria** sakon eta errespetuzkoekin agurtu baitzituzten. **Agustin Otsoa**

**Gurkeria** batez buelta erdia egin eta etxera itzuli zen. **Agustin Otsoa**

Hiru bider makurtu zen **gurkeria** sakonak eginez. **Agustin Otsoa**

# gurleku iz gurtze lekua.

Musulmanen **gurleku** guztien inguruan polizia zaintza sendotzea erabaki zuen. Berria - Mundua  
Nigeriako ekialdeko **gurleku** batean. Berria - Mundua

## gurma iz gandua.

**Gurma** lodian egin zuen Bolton kapitainak Ziburutik Bilborakoa. Koldo Izagirre  
Zeinen arrotz bikote haiek gure inguruan dantzan, ametsetakoak iduri, **gurma** zarratuen lauso ikusten nituen. Koldo Izagirre  
Moilak bagoiak garabiak ontziak **gurma** itsugarriaren ezkatutako dituen lanbroa ageri da Uliamendin behera eta bokalean barrena. Koldo Izagirre  
Gerra ez da amaitu, motorrak *full ahead* emanda dator guregana herri mozkor ustel zabarraren historia haragi gose Gernika birritan suntsitzera Vladimir bide bazterretan sakailatzera, eta ni **gurman** zarratzen ari den errealtateetik urrun eta urrunduz noa, zorabioan Koldo Izagirre

## 2 irud/hed

Begiak itxiko ditut, etorkizuneko ostertzetako **gurma** eta lanbroak ez ikusteko. Joseba Sarrionandia

## gurpil (ETCn 9.960 agerraldi; orobat kurpil ETCn 35 agerraldi) 1 iz atal biribila eta laua, loditasun txikikoa, ardatz bati buruz biratzen dena. (ibilgailuetan)

**Gurpiletako** izpiak elkarrekin nahasten dira biribilki oroberdin batean. *ik beherago* 12. Jose Morales  
**Gurpil** -begiko euskarria askatu eta gero, bizikletaren aurreko **gurpila** bere urkilatik atera eta etxera eraman zuen. Koldo Biguri  
**Gurpilak** uztai berria zeukan. Jose Morales  
Inguru-uztai goriak jartzen zizkieten orgen **gurpilei**. Juan Garzia  
Bagoien **gurpil** txikien txilioa. Karlos Zabala  
Bi **gurpileko** gurdi txiki luze batzuen aurrean gelditu zen. Karlos Zabala  
Kamioi altu bat zen, sei **gurpilekoa**. Koro Navarro  
Makina horiek, gainera, behar izanez gero, zortzi **gurpilen** gainean ibil daitezke. Santiago Iruretagoiena  
Lau **gurpiletako** trakzioari esker. Xabier Olarra  
Trakzio-kateek **gurpil** koskadunak hartu eta karranka egiten zuten. Lopez de Arana  
**Gurpilek** kurrinka egiten zuten, bideko hartxintxarrak birrinduz. Karlos Zabala  
Norbaiten autoaren **gurpilak** zulaturik agertzen baziren. Xabier Montoia  
Aulkiko **gurpilei** eragin nien, Angelaren hanka luzeen ibilera arinarekin lehian. Alberto Ladron Arana  
Sojournerren zalgurdi **gurpil** -handia. Anton Garikano  
Sloane Square geltokian hil zen, bere burua metroko **gurpiletara** botata. Julen Gabiria

## 2 (makinetan)

Beste soka bat garabiko **gurpilaren** bigarren ildoan sarturik. Edorta Jimenez  
Ilearen ertz bat erlojuaren **gurpilean** kateatuta geratu zitzaion. Unai Elorriaga  
[Erlujo mekaniko batean] pieza eta **gurpil** bakoitzaren funtzioa ezagutzeko desmontatu egin behar dela. Esteban Antxustegi  
**Gurpil**, palanka eta malgukien konbinazio injeniotsuak. Xabier Olarra  
Tramankulu haiek guztiek, beren **gurpil** eta biraderekin, [...]. Karlos Zabala  
Egundoko makinaren baten ametsa gogora etorri zitzaion berriz ere, haren **gurpilak**, burdinagak, balantzinak ikusi uste zituen galдарaren azpian, ikatz gorien purpura lausoak argiturik. Karlos Zabala

## 3 (ubideetan)

Errota mugitzen zuen **gurpilaren** paletan trabatu zen. Askoren artean  
Ur errotaren **gurpilak** bezala. Felipe Juaristi  
Ibaiak **gurpilak** eta pegarrak birarazten dituen bezala. Xabier Amuriza

## 4 (ontzietan)

Steam-boataren **gurpil** indartsuek bere pala artikulatuz ura astintzen. Karlos Zabala  
**Gurpil** -baporearen asmakuntzan. Iñaki Mendiguren

## 5 (bestelakoak)

Mastak etzanak, lemako **gurpilik** ez... Koldo Izagirre  
Orduan ez zen oraindik ikusten eguzkiaren **gurpil** argitsurik hegan. Xabier Amuriza  
Irratiaren **gurpilari** itzulia eman eta airean isiltasuna zabaldu zen. Lander Garro  
Han ibiliko baitziren bere adiskideak neskekin **Gurpil** Eroan bunbuluka edo Mamuaren Trenean zitzu bizian eskeletoen tunelera sartzen. Koro Navarro  
**Gurpilekiko** maleta kokatzen. Patxi Zubizarreta

## 6 irud

Egunen **gurpil** hartan. Bernardo Atxaga  
Egunez egun, sasoiaren **gurpilean**. Pello Zabala  
Leihotik aldendu eta telebista piztu nuen, arreta pantailan jarri eta nire pentsamenduen **gurpila** gelditzeko. Bernardo Atxaga  
Ez baitaki hainbat gai desatsegin baztertu eta bizitzaren **gurpil** gozoari lotuta ibiltzen. Bernardo Atxaga  
Halaxe bizi nintzen: asterik aste, bizikletarenak edo trenarenak baino polikiago jiratzen zen **gurpil** batean. Bernardo Atxaga  
Alderantzizko logika baten **gurpilak** ibilarazten duela jokabide hori. Anjel Lertxundi  
Enperadorearen etxe pertsonala gobernu inperialaren **gurpilaren** ardatz zen. Iñaki Mendiguren  
Nire lantokia iraultza teknologikoaren **gurpilari** uztartu zitzaionetik honat. Aingeru Epaltza

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auzoko beste bat, Velosolex erdi bizikletarekin, **gurpil** -uztaiak lurra ia ukituan zeramatzala, hain baitzen handi eta gizona... Juan Kruz Igerabide  
Koadroa pintatu, **gurpil** -zorro eta estalki berriak ipini, eta orobat galgak. Juan Kruz Igerabide  
Autoen **gurpil** azalekin abarkak egiten hasi zen. Iñigo Aranbarri  
Azpilgo zabortegietako batean **gurpil** -gomak erretzen ari dira. Joan Mari Irigoien  
Kanoak behar zuen tarte zehatz hura mantentzeko, **gurpil** -gomazko defentsak sobera behartu gabe. Koldo Izagirre  
**Gurpil** abatzen motelgailuak lastoz bete zituzten. Karlos Zabala  
Ez **gurpil** arrasto sakonak, ez basatzak. Karlos Zabala  
Zalgurdi baten **gurpil** -hotsa entzun zen. Jose Morales  
Ekitaldi bakarrean funtsezkoena erakutsi zidan, lantegia zen antzezlekua maneiatzen zuten **gurpil** -bide gordeak, eta pertsonaia nagusien paperak. Juan Garzia



**Gurpil** -patinetan ibiltzen haren aurrean. Joxan Elosemi

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kale izkinan katu hil bat zegoelako, kamioi **gurpilen** batek jo eta bertan zapaldua. Joseba Sarrionandia

Goi-goian bezalaxe gindoazen, lasai samar eta lurreratze-**gurpilik** gabe. Joxe Austin Arrieta

Eta **ur-gurpileko** txirriken zarata. Juan Garzia

Giza-**gurpilera** heldurik, aldean eraman ohi zuen arma kendu eta kapatazari eman zion. Juan Garzia

## 9 tortura tresna.

Bidelapurrei, beso-hankak hautsi ondoren, **gurpila** ematen zitzaien; plazako habe bati loturiko gurdi-**gurpil** baten gainean ezartzen zituzten eta hiltzen uzten, heriotza luzera kondentatuz. Felipe Juaristi

Tortura tresna mehatxagarria begitandu zitzaidan, une batetik bestera jiraka hasiko zen Erdi Aroko **gurpil** hezur-birrintzailea. Merkatarari hugonote hau **gurpilean** hil zuten bere semea erailtzearen akusaziopean, inolako froga sinesgarririk gabe. Harkaizt Cano

Demagun bi nazio daudela; batean, delituen mailako zigorrik handiena betiko esklabotza da; bestean, **gurpila**. Juan Martin Elexpuru

Irizpide honi jarraituz kondenatu zuten Juan Calas **gurpilera**. Juan Martin Elexpuru

Gauza jakina baita, ehundaka oinaze-urte basatiren ondoren, **gurpilak** lehenago espetxeak adina izutzen duela. Juan Martin Elexpuru

## 10 alfer gurpil gurpil zoroa.

**Alfer-gurpil** behin eta berrirokoan itzulika gabiltza. Juan Garzia

## 11 gurpil aulki (orobat gurpilaulki g.er.) aulki gurpilduna.

**Gurpil** -aulkian eserita geldi zegoela. Xabier Olarra

**Gurpil** -aulkian atera dute ospitaleetik, ez baitu aski indar bildu oraindik. Imanol Zurutuza

**Gurpil** -aulkitik lurrera jaitsi eta xake liburua zabaldu nuen. Alberto Ladron Arana

**Gurpil** -aulkian zebilen haur isil begi-zabal hari. Alberto Ladron Arana

**Gurpil** -aulkiko bizkaraldeak. Alberto Ladron Arana

**Gurpil** -aulkiaren **ardatzena**. Alberto Ladron Arana

**Gurpilaulki** tolestua nasatik kubertara altxatzeko. Joseba Sarrionandia

Edwin ontzi gainetik **gurpilaulki** ergonomikoan dabilela. Joseba Sarrionandia

## 11a gurpil ero

Alferrik egin omen nuen korrika emakumearen bila, nik neuk martxan jarria nuen heriotzaren **gurpil eroa** geratu nahirik. Joxean Agirre

Denborari erronka jotzea ez da ohikoa negozio honetan, emaitzen uholdeak gainezka egiten baitu zaleen pazientzia, eta **gurpil eroan** murgiltzen dira kirol proiektuak.

Berria - Kirola

Lehiakorra izateko merkatura inolako neurririk gabe jotzea izan da futbolaren bekatu nagusia, eta emaitzek agintzen dutenez, galtzaileak salerosketen **gurpil eroan** sartu dira. Berria - Harian

Coney Hondartzaz gogoratzen zen, han ibiliko baitziren bere adiskideak neskekin **Gurpil Eroan** bunbuluka edo Mamuaren Trenean ziztu bizian eskeletoen tunelera sartzen. Koro Navarro

## 12 gurpil izpi

Zalgurdien **gurpil** -izpietan. Koldo Biguri

Itzainaren aginduetara egurrezko **gurpil izpiak** makal asko birarazten zituzten idien atzean Pako Aristi

## 13 gurpil zoro (ETCn 552 agerraldi; orobat gurpilzoro ETCn 4 agerraldi) bi gauza, bata bestearen kausa edo esplikazioa izatean datzan argudioa edo egoera.

**Gurpil zoroa** dun, komprimatuak hartzen ez baditut memoria galtzen dinat, eta memoria galtzen badut hartu behar ditudala ahazten zaidan. Joxemari Iturralde

Beraz, "analitikotasuna", "esanahia" eta "definizioa" **gurpil zoro** batean nahasita dauden kontzeptu ilunak dira. Askoren artean

**Gurpil zoro** batean preso gaude. Ana Urkiza

Saminezko eta erresuminezko **gurpil zoro** bat izan zen hura dena. Josu Zabaleta

**Gurpil zoro** batean gertatu nahi ez badugu. Ibon Uribarri

Ragnar Nurkse-k [...] deskribatu zuen pobretasunaren **gurpil zoroa**. Koro Navarro

Bortizkeriaren **gurpil zoroa** geldiarazteko. Berria - Mundua

Askatasun sintaktikoaren **gurpil zoroan** gero eta barrenduago. Iñaki Iñurrieta

Elikadura munduan ere **gurpil zoroan** biraka gabiltza: gehien kontsumitzen diren produktuak dira, azkenean, gehien gustatzen zaizkigunak. Edorta Agirre

Zenbait doktorek eta nazio batzuek ez dute hiru aldiz baino onartzen **gurpilzoro** gaizto hau. Juan Martin Elexpuru

Jazarpen eta umiliazio gertakari berdintsuak errepikatzen dira soin eta gogo berrietan, labirintotik irten ezinean dabilen **gurpil zoroa** balitz bezala denbora. Jokin Urain

## 14 sorgin gurpil gurpil zoroa.

Amerikar gizartea bihurtu den sorgin-**gurpila** ezin hobeto azaltzen zuen imajina zela pentsatu genuen Jackek eta biok. Iban Zaldúa

Dena aurrera egitea duk, eta zenbat eta handiago hobe beti, dirua etengabe mugitzeko sorgin-**gurpil** zoro zentzugabe batean. Juan Luis Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baden gurpil** (3); **bi gurpil** (6); **da gurpil** (3); **den gurpil** (3); **eta gurpil** (22); **gurpil aulki** (9); **gurpil aulki batean** (4); **gurpil aulkia** (6); **gurpil aulkian** (21); **gurpil aulkiaren** (4); **gurpil aulkiari** (4); **gurpil aulkietan** (3); **gurpil bat** (24); **gurpil baten** (13); **gurpil baten gainean** (3); **gurpil eroan** (3); **gurpil eta** (4); **gurpil gabeko** (3); **gurpil gainean** (5); **gurpil handi** (5); **gurpil handi bat** (3); **gurpil handia** (3); **gurpil handiak** (3); **gurpil horiek** (3); **gurpil uztaiak** (3); **gurpil zoro** (18); **gurpil zoro batean** (7); **gurpil zoroa** (11); **gurpil zoroan** (12); **lau gurpil** (3); **utzitako gurpil** (3); **utzitako gurpil aulkian** (3); **zen gurpil** (5)

**atzeko gurpila** (4); **atzeko gurpilak** (3); **aurreko gurpila** (5); **autoaren gurpilak** (5); **autoetako gurpilak** (3); **autoetako gurpilak zulatu** (3); **baden gurpila** (3); **bizikletaren gurpilak** (5); **denboraren gurpilak** (4); **eta gurpilak** (8); **gurdien gurpilak** (4); **gurpila da** (3); **gurpila ez** (4); **gurpila ez zen** (3); **gurpila lehertu** (4); **gurpila zulatu** (11); **gurpilak bezala** (4); **gurpilak ere** (9); **gurpilak eta** (8); **gurpilak ez** (3); **gurpilak zulatu** (11); **gurpilak zulatuko** (3); **haren gurpila** (4); **lau gurpilak** (4)

**baden gurpilek** (3); **bi gurpileko** (9); **bi gurpilen** (5); **bi gurpilen gainean** (4); **egunen gurpilean** (6); **eta gurpilaren** (3); **eta gurpilen** (6); **gurpilarekin batera** (3); **gurpilaren kanpoko** (3); **gurpilari eutsi** (3); **gurpilari itsatsi** (5); **gurpilari itsatsita** (3); **gurpilei eragin** (3); **gurpilek ere** (3); **gurpilek kirrinka** (3); **gurpilek kirrinka egiten** (3); **gurpilen artean** (3); **gurpilen azpian** (5); **gurpilen gainean** (8); **gurpilen kirrinka** (3); **gurpilen zarata** (3); **gurpilera itsatsi** (5); **gurpilera itsatsi zen** (3); **haren gurpilari** (4); **hegazkinaren gurpilek** (3); **lau gurpileko** (9); **lau gurpilen** (3)

## gurpilaulki ik gurpil 11.

## gurpildun izond gurpila duena; gurpilak dituena.

Gizona maleta **gurpildunari** tiraka, emakumea inguru ezezagunari begira. Imanol Zurutuza

Aitaren guda lagunak ditut gogoan, Divisióneko kideak, aulki **gurpildunetan** neska gazteak gozaraziz. *ik* gurpil 7. Javi Cillero

Ikusiz eserleku **gurpildunak**, elbarrituak eta alargunak. Koro Navarro

Patin **gurpildunetan** inguratu zen neska batek. Joxan Elosemi

Zangorik gabeko elbarri bat mugitzen zen ohol **gurpildun** baten gainean. Koro Navarro

Bazter batean zegoen, ohe **gurpildun** batean etzanda. **Koro Navarro**  
Aulki bat baztertu eta nire traste **gurpilduna** taularen parean jarri nuen. **Alberto Ladron Arana**  
Ariete **gurpilduna** ere erabiltzen zuen, eta idatzita utzi zituen horri buruzko kalkuluak. **Santiago Iruretagoiena**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aulki gurpildun** (7); **aulki gurpildun batean** (3); **aulki gurpilduna** (33); **aulki gurpildunari** (4); **aulki gurpildunean** (21); **aulki gurpildunean tentetu** (4); **aulki gurpildunetan** (3); **aulki gurpildunetik** (5); **bere aulki gurpildunean** (4); **eta gurpildun** (4); **gurpildun aulkian** (11); **gurpildun batean** (5); **gurpildunean tentetu** (4); **jaunak aulki gurpilduna** (8); **jaunaren aulki gurpilduna** (4)

## gurpilkor *izond* gurpila bezala aritzeko joera duena.

Honela denbora **gurpilkorrak** gauzen zoria aldatzen du. **Xabier Amuriza**

## gurpiltxo *iz* gurpil txikia.

Garabi-besoak, goi muturrean eskegita, ildo biko **gurpiltxo** zeukan. **Edorta Jimenez**

Leihoan gurpilak, **gurpiltxoak**, erloju orratzak eta erloju koadranteak zeuden, beste ezertan ez zen ezagun hura erlojugile baten etxea zela. **Matías Múgica**

Matematikari eta filosofoak hobetu zuen kalkuluak egiteko **gurpiltxoak** behar zituen paskalina hura. **Pello Salaburu**

**Gurpiltxoak** bezalakoak ziren otoitzak. **Bernardo Atxaga**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurpiltxo**en **gainean** (3)

## gurpilizoro ik **gurpil** 13.

## gurrarazi, gurraraz, gurrarazten (*corpusean ez dago; ETCn agerraldi 1*) du *ad* gurtzera behartu. ik **adorarazi**.

Jainkoentzako ohorerik ere ez zuen utzi, bere burua **gurrarazten** baitzien flaminei eta abadeei, tenpluetan eta jainkozko irudietan. **ETC-literatura, saiakera**

## gurtaga *iz* gurdian, zamari eusteko, ezartzen den haga.

Hiltzea lasai onartuko zuketen gizatalde hauek [...] topatu bezala onartzen dituzte eginbeharrak, eta ahaleginetan konpontzen dute hiru mojak, hiltzeko mehatxupean zeuden hamabi haurtxo, Jainkoak daki maitagarrien ipuinetakoz zein babeslekutara joateko, Jainkoak daki zein erromeriatarako, pilatu dituzten gurdi zaharraren **gurtaga**. **Josu Zabaleta**

## gurtarrasto *iz* gurdiak bideak uzten duen arrastoa.

Automobilak airean zetozen Dublin aldera, Naas Roadeko **gurtarrastoa** berun-aleak bezala zuzen-zuzen labaintzen zirela. **Irene Aldasoro**

## gurtesi 1 *iz* gurdiaren aldamenetan jartzen diren oholak.

Eskuak **gurtesietan** ipinita, ontziaren mugimendu bihurriek eusten zien, baina gurdia gero eta gehiago makurtzen ari zen enbutuaren erdira. **Karlos Zabala**

### 2 (kamioietan)

Armak eta munizioak kamioian kargatu, bandera gorri-beltzak **gurtesian** ezker-eskuin sokaz nolabait kateatu, [...]. **Inazio Mujika Iraola**

Nahikoa barre egin zuten gure kamioiaren **gurtesian** idatzita zegoena irakurrita. **Inazio Mujika Iraola**

## gurtetxe 1 *iz* gurdian, gurpilez gainerako egitura.

Gurpilak, ardatzak, ziriak, **gurtetxea**, endaitzak, den-denak inguruetakoz zuhaitzekin eginak dira. **Karlos Zabala**

Ardatzak ziriek baizik ez zeuden itsatsirik **gurtetxean**. **Karlos Zabala**

Haietako bi zaldiaien saihetsetan lotu zituzten, zaldia ibai azalean urpera gabe eduki zezaten, eta beste bi kibitkaren endaitzetan ipini, gurpilen artean, **gurtetxearen** flotazio marrari eusteko. **Karlos Zabala**

### 2 (kamioietan)

Armak eta munizioak kamioian kargatu, [...] tankea gasolinaz bete, eta nor kabinan joan eta nor **gurtetxean**, aurreneko liskarra. **Inazio Mujika Iraola**

Trasteak jaso, eta kamioiaren **gurtetxera** igo zen. **Inazio Mujika Iraola**

Bidegurutze baten ondoan gerarazi nuen kamioia, eta **gurtetxetik** jaitsi zen Fructuosoa. **Inazio Mujika Iraola**

Atzera **gurtetxera** igo, eta kolpe pare bat jo zuen kabinan. **Inazio Mujika Iraola**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurtetxera** igo (3)

## gurtu (*ETCn 1.815 agerraldi*), gur(tu), gurtzen 1 du *ad* Jainkoari, edo jainkotzat edo santutzat hartzen denari, erlijiozko gorazarrea egin. ik **gur egin**; **jauretsi**; **adoratu**.

Sidondarren jainkosa zen Astarte **gurtu** zuen; bai eta amondarren sasijainko nardagarria zen Milkom ere. **Elizen arteko biblia**

Ezin zuen ulertu Jainkoa nonahi **gur** ez zitekeenik. **Iñaki Iñurrieta**

Baina sermoilariak eta jesuitak ez dute esan: **Gurtu** ditzagun jainko arrotzak. **Juan Martin Elexpuru**

Jaunak galarazi ziena egin baitzuten: idoloak **gurtu**. **Elizen arteko biblia**

Egiazko Jainko bakarra **gurtzen** duen gizarte batean. **Iñaki Mendiguren**

Hara iritsita, Jaunaren izena **gurtu** zuen. **Jose Antonio Mujika**

Eta hau guztia emango diat, ahuspez **gurtzen** banauk. **Patxi Altuna**

Badaude belauniko jarri eta **gurtzera** bultzatzen gaituzten edertasunak. **Joxean Agirre**

- Benedikatua zure jakituria, ere Jainko, gizonere emakumeak **gurtu** behar ingandu baitu. Patxi Zubizarreta

## • 2 da *ad* (norbait) lurrerantz makurtu.

Erregeak ere ohoratzen zuen, eta egunero joaten zitzaion aurrean **gurtzera**. Jose Antonio Mujika

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arrotzak gurtu** (4); **ere gurtu** (5); **ere gurtu ohi** (3); **eta gurtu** (15); **eta gurtu egin** (4); **eta gurtu egiten** (3); **eta jauna gurtu** (5); **gurtu behar** (4); **gurtu beharko** (6); **gurtu beharko dituzue** (3); **gurtu beharko genukeela** (3); **gurtu egin** (11); **gurtu egin zuten** (8); **gurtu egiten** (10); **gurtu eta** (14); **gurtu eta zerbitzatu** (3); **gurtu ez** (4); **gurtu nahi** (7); **gurtu ohi** (5); **gurtu ondoren** (3); **gurtu zituzten** (10); **gurtu zuen** (21); **gurtu zuen bertan** (3); **gurtu zuten** (11); **idoloak gurtu** (6); **idoloak gurtu zituzten** (3); **irudia gurtu** (5); **jainko arrotzak gurtu** (4); **jainkoa gurtu** (14); **jainkoa gurtu zuen** (3); **jainkoa gurtu zuten** (4); **jainkoak gurtu** (3); **jauna gurtu** (13); **jauna gurtu zuen** (8); **jauna gurtu zuten** (3); **nola gurtu** (3); **sasijainkoak gurtu** (4); **sasijainkoak gurtu zituzten** (4)

**ahozpezturik gurtzen** (4); **arrotzak gurtuz** (4); **arrotzak gurtzen** (4); **bat gurtzen** (4); **beste jainkorik gurtuko** (3); **eta gurtuz** (3); **eta gurtzen** (3); **eta gurtzera** (3); **gurtuko dute** (5); **gurtuko duzue** (5); **gurtzeko eta** (4); **gurtzen ari** (4); **gurtzen dituzten** (5); **gurtzen duen** (7); **gurtzen duena** (3); **gurtzen dugu** (3); **gurtzen dut** (6); **gurtzen dute** (4); **gurtzen duten** (6); **gurtzen eta** (4); **gurtzen ez** (5); **gurtzen zituzten** (3); **gurtzen zuen** (8); **gurtzen zuten** (9); **gurtzera eta** (4); **gurtzera joaten** (12); **herriari ni gurtzera** (10); **honetan gurtuko** (3); **idoloak gurtuz** (4); **irudia gurtzeko** (3); **israelen jainkoa gurtzen** (8); **jainko arrotzak gurtuz** (4); **jainko arrotzak gurtzen** (4); **jainkoa gurtzen** (14); **jainkoa gurtu zuen** (5); **jainkorik gurtuko** (3); **jauna gurtzeko** (4); **jauna gurtzen** (3); **jauna gurtzera** (17); **jaungoikoa gurtzen** (4); **ni gurtzera** (10); **ni gurtzera joaten** (10); **zerbitzatzuz eta gurtuz** (3)

## gurtugai iz gurtzaren gaia. ik gurtzagai.

Gere **gurtugai** kutunen aldaretxoan baitzeukan Drakulari buruzko guztia, Coppolaren filma ere barne. Anjel Lertxundi

## gurtza iz gurtzea.

Isis eta Osirisen **gurtza**, bizitza espiritual egipziakoan hain paper erabakigarria jokatu zuena. Iñaki Mendiguren

Jaungoikoaren egiazko **gurtza**. Imanol Unzuurrungaga

Frantziskoren otoitza gorespen, **gurtza** eta esker oneko otoitza da gehienbat. Askoren artean

Bada himno bat, viktoriar **gurtza**-lekuetan oso ezaguna. Iñaki Mendiguren

*ik* gurleku.

Irudi-**gurtzari** buruzko liskarrean. Iñaki Mendiguren

Nire zibilizazioa Gizonaren **gurtzan** oinarritzen da, norbanakoen bitartez. Josu Zabaleta

Barrokismoa, dekadentismoa, formaren **gurtza** aratz-irazi bezain fanatikoa. Juan Garzia

Kulturismoa eta gorputzaren **gurtza**. Patxi Iturritegi

Urtero igo ohi zen Elkana bere herritik Xilora, Jaun ahalguztidunari **gurtza** egin eta opariak eskaintzera. Elizen arteko biblia

Horrela, zuen seme-alabek eragotzi egingo liekete gureei Jaunari **gurtza** ematea. Elizen arteko biblia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**en gurtza** (3); **ezta gurtzarik** (3); **ezta gurtzarik eman** (3); **gurtza atzeritarra** (6); **gurtza eta** (4); **gurtzarik eman ere** (3); **isisen gurtza** (3); **osirisen gurtza** (3); **zibelesen gurtza** (4)

## gurtzagai iz gurtzeko gaia.

Eta jendeak, obraren xarmaz liluratutik, **gurtzagai** hartu zuen lehentxeago gizaki huts bezala ohoratzen zuena. Elizen arteko biblia

## gurtzaile 1 iz gurtzen duena.

Baina, Hirutasunaren **gurtzailea** zenez, hiru lekukotasunen baieztapena nahi zuen. Askoren artean

Jainkoaren kantari eta **gurtzailea**. Askoren artean

Arrazoi jainkosaren **gurtzaile** amorratua. Juan Garzia

Jainkoaren giza **gurtzaileen** aniztasuna. Iñaki Mendiguren

Sasijainkoen **gurtzaileek** jainkozaletasuna bertan behera uzten dute. Elizen arteko biblia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Israeldarrak idolo-**gurtzaile**. Elizen arteko biblia

Beste hizkera judu-italiar batzuetan bada "khalto" adjektiboa, "argizari-jale" zentzuan justu, batez ere kristau irudi **gurtzailea** izendatzeko erabilia. Juan Garzia

Lausengari urre-**gurtzailea**. Xabier Olarra

## gurtze iz Jainkoari, edo jainkotzat edo santutzat hartzen denari, erlijiozko gorazarrea egitea.

Bigarren tribuan ahaztu egin zitzaian sua egiteko modua, eta tresnak bakarrik gorde zituzten, **gurtze**-objektu gisa. Jon Arretxe

Beste erlijioek katolikoan **gurtze** lekuak erabiltzearen kontra dagoela ere esan zuen. Berria - Gaiak

*ik* gurleku.

Eguzkiaren **gurtze** hori. Pello Salaburu

Errealitatearen **gurtze** patologikotik. Iñaki Segurola

Eta badirudi oihal zabal gorri-more haiek maiztasun mistikoaren sugarretan erretzen ari direla barnekoitasun hartan, ilunpeetako **gurtze** mutu hartan. Karlos Zabala

AEPre **gurtze** isilpeko hori zela bere amodio-bizitza guztia uhe horretan. Oskar Arana

## guru 1 iz maisu edo nagusi espiritual hindua.

Santu bat da, **guru** bat, jenio bat. Xabier Olarra

Astebetean emana zuen bere **guruarekin**, erlijio maisu-arekin. Gotzon Garate

## 2 hed

80ko urteetako **guruak** eta garai hartako psikoterapeuta pop haiek. Berria - Gaiak

**Guru** sos-harrapatzaileen baten eskutik aztikerian. Aingeru Epaltza

Arima espainolaren **guruak** benerezio handienaz gurtzeko. Joxe Azurmendi

Kraftwerk, musika elektronikoaren **guru**a. Berria - Kultura

Hainbestean ikusiko nuen neure burua sexuaren **guru** edo bilakatua; ez, ordea, bakterioen sexuarena. Juan Garzia

Cahiers du Cinema aldizkari **guru**-ek. Berria - Harian

## guruin 1 *iz* abereen gorputzeko organoa, gairen bat jariatzeko betekizuna duena.

Off-eko ahots orojakileak azaldu zigun gure **guruinek** (zer ote zen hori) substantzia berezi batzuk jariatzen zituztela, gure hazkundera eta aldaketak eragiten zituztenak.

Xabier Mendiguren Elizegi

**Guruin** pituitarioak isurtzen duen melatonina. **Berria - Gaiak**

**Guruin** endokrinokoak hormonak sortu eta odolean isurtzen ditu. **Berria - Gaiak**

Hiperplasia onbera, berriz, **guruin** prostatikoaren handitze fisiologikoari deitzen zaio. odolezko izerdiari buruzko kontuek ez dute oinarririk, izatez, nahiz eta **guruin** apokrinoko izerdi gorria jariatzen duten hipopotamoetan, eta, oso gutxitan, gizakietan. **Irene Aldasoro**

Funtsean, klon bat da, hots, bilduma bat, hainbat motatako zelulena: gihar, nerbio, **guruin** eta abarretakoak. **Juan Garzia**

### 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gihar-, nerbio-, **guruin-**, bihotz-zelulak, besteak beste. **Juan Garzia**

Haurren eta nerabeen hazkuntza **guruin-hormona** batzuk kontrolatzen dute eta horiek, lo dauden bitartean, aktibatu egiten ditu iluntasunak. **Berria - Gaiak**

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tximeleta emearen usain-**guruina** ukitu duen paper puska bat ere eraginkorra da xede bererako. **Irene Aldasoro**

Saguak hiru zelula mota garatu ditu: ilekoak, azalekoak eta bilgor **guruinekoak**. **Berria - Gaiak**

Pankreatari eta izerdi **guruinei** erasaten dien gaitza da. **Berria - Gaiak**

Tiroide **guruinak** hormona tiroideoak sor ditzan. **Berria - Gaiak**

Masturbaldi baten ondoren, hazi-**guruinak** handitu egiten dira eta azkenean likido bat isurtzen dute. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Garunaren eta sexu-**guruinen** arteko labirintoetan? **Xabier Mendiguren Elizegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta guruin** (4); **izerdi guruin** (3); **izerdi guruinak** (3); **izerdi guruinen** (3)

## guruintxo *iz* guruin txikiak.

Bazekien betazalen azpian dauden **guruintxo** mugimendu partikular batetik datozela negarrak. **Juan Garzia**

Haren ustetan, delako **guruintxo** garunaren erdian zintzilik dago. Izpiritua edo Pentsamendua garunaren parte jakin bati, hots, pineala deitu **guruintxoari** datzekiola bereziki. **Piarres Xarriton**

## gurutzabide *iz* gurutzatzeko bidea.

Garapen Kontseilua ez dea debate eta ideien **gurutzabidea**? **Herria**

## gurutzada (*ETCn 1.719 agerraldi; orobat kurutzada ETCn 13 agerraldi*) *iz* Erdi Aroan kristauak Jesusen hilobia eta Leku santuak mahometarren mendetik askatzeko egin zuten gerra joanaldia. ik **gurutzaldi**.

Albitar edo kataroen aurkako **gurutzada** odoltsua. **Askoren artean**

Islamaren aurkako **gurutzadak** gori-gori zeudenean. **Askoren artean**

Lehen **Gurutzadaren** garaian. **lñaki Mendiguren**

**Gurutzadaren** predikari eta gero Hildesheimgo gotzain izan zen Spirako Konrado maisuaren teologia ikasle izan zen. **Askoren artean**

**Gurutzadara** joateko bere promesa. **Askoren artean**

Alabaina, Saramagok, ostera ere eskuzabal, Elizaren aurkako bere **gurutzada** gogorra gorabehera, kristauen sinbologiatik onargarri zaiona darabil. **Markos Zapiain**

Alfabetatzeko **gurutzada** nazionalak analfabetismoa %52tik %12ra baino gutxiagora jaitsi zuen. **Berria - Mundua**

Hartzten ditut agintarien gomendiotzat **gurutzada** -buldak eta beste induljentziak. **Patxi Altuna**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkako gurutzada** (10); **bere gurutzada** (3); **eta gurutzadak** (3); **gurutzadaren bulda** (4); **kontrako gurutzada** (5); **lehen gurutzada** (3)

## gurutzadari *izond* gurutzatua.

Gurutzaden eta zaldun **gurutzadariak** eurrez hiltzearen ondorioz, ordena dominikar berri eta berritzailearen komentuak, eta hemen zehatzago esateko lekaike dominikarrenak, jadanik xiii. mendearen erdi aldetik nobizia umezurtzez eta goi- eta behe-nobleziako alarguntzez hornitu ziren aurretik zeuden komentuak betez eta beste asko sortzera behartuz. **Joan Mari Lekuona**

## gurutzagarri *izond* gurutza daitekeena.

Gure artean ez bada ere puntu hori biziki aipatzen ordu da oroitzea Italiako Bolonian Europako estatu guzi-guziek hitzeman zutela urte hortatik hara emanen dituzten diploma guziak eta beraz ikasgaiak **gurutzagarri** izan behar direla, Baionan, Pauen, Bordalen, Madriren, Parisen edo Erroman, denek balio bera izanen dutela eta horri buruz egina da lege berria. **Herria**

## gurutzaketa 1 *iz* gurutzatzea.

Ez dute elkarren bizimoduaren **gurutzaketa** horren berri izan, ezta izango ere. **Edorta Jimenez**

Hizkuntza ezberdinen zehaztagabeko **gurutzaketa** batean. Ildo horretarik nolabait **gurutzaketa** ez nuela hain urrun nabaritzen nuen. **Xabier Arregi**

Ekoi-zpenaren teoria orokor baten eta enuntziatuaren azterketa generatiboaren arteko **gurutzaketa** gunea. **Xabier Arregi**

Gizon-emakume zoragarriak benetan, beltzen eta espainiarren arteko **gurutzaketa**. **Joxe Austin Arrieta**

Anai-arreben arteko edo gurasoen eta seme-alaben arteko **gurutzaketak** saihesteko, ez baitira egoki giza espeziean. **Juan Garzia**

Naturalista batek bi landareren **gurutzaketa** lekusakeen bezala. **Isabel Arrigain**

Karakterere batzuen aldea duten organismoen arteko **gurutzaketaz**. **Juan Garzia**

Ezagutzen du makinistak jagolebako **gurutzaketa** hau. **Pako Aristi**

### 2 (hitz elkartuetan)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko gurutzaketa** (3)

## gurutzaldi 1 iz gurutzada.

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadearen erreakzio lehergarriak, [...] **gurutzaldietan** aurkitu zuen adierazpidea. **Iñaki Mendiguren**

Mutila urruti, kristautasunaren aldeko **gurutzaldian** tiro botatzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

## 2 gurutzebidea.

Orduan plazaratu ziren gazteek ere jasan behar izan zuten beren **gurutzaldia**. **Andoni Egaña**

## gurutzamen (orobat kurutzamen) iz gurutzatzea.

Beste **gurutzamenik** ez badaiteke izan gu bien artean, etsi bat hartuko dudala eta zuk galdatu "liburuari" lotuko naizela. **Janbattitt Dirassar**

Zergatik bada Euskal Herriko eta Munduko musikien nahasketa edo **kurutzamen** hori? **Herria**

Izan dadila ere populuen **gurutzamen-**gune. **Herria**

## gurutzamendu (orobat kurutzamendu) iz gurutzatzea.

Topaketa hauetan anitz ikusiko dira arte desberdinen **gurutzamenduak**. **Herria**

**Gurutzamendu** genetiko aberasgarrien obratzeko. **Itxaro Borda**

Populuen **gurutzamenduekin**, hizkuntzak ere nahasten dira. **Herria**

Egia erran, azken urte hautan, Ezpeletak ospe handirekin agerrarazi du mundurat, bederen Euskal Herriari, harremanak eta **kurutzamenduak** josiz Xinatarrekin. **Herria**

Geroztik izan dira beste **kurutzamendu** mota batzuk, hala nola kirola taldeen eta ikastegiaren artean, hango gazteak Donibanera jinez eta donibandarrak hara joanez. **Angel**

Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Irudi-**gurutzamenduak**, irudi-trukeak eta irudi-emaitez geroz eta sarriago gertatzen dira. **Josu Zabaleta**

## gurutzarazi, gurutzaraz, gurutzarazten (orobat kurutzarazi) du ad gurutzatza behartu.

Gela zabal-zabalak arin **gurutzarazten** dituzten kriskitin-hots horietakoa. **Koro Navarro**

Sasoin hobereenetarik delakotz azarora, sobera berorik gabe oraino eta nola Argentinan "Semana nacional vasca" egiten duten orduan, pesta horrekin batean **kurutzarazten** dugu gure itzulia. **Herria**

## gurutzatu<sup>1</sup>, gurutza, gurutzatzen (orobat kruzatu g.er., kurutzatu g.er. eta kuruzatu g.er.) 1 du ad bi gauza bata bestearen gainean gurutze itxura egiten dutela jarri.

Besoak mahai gainean **gurutzaturik** zituen, eta zuzen begiratzen zidan. **Ramon Saizarbitoria**

Besoak aurpegiaren aurrean **gurutzatuta**. **Ramon Saizarbitoria**

Beso biak bular gainean **gurutzatuta**. **Patxi Iturritegi**

Traje argi eta nabarmenez zegoen jantzita, zango luzeak **gurutzaturik** eserita. **Ramon Saizarbitoria**

Bi semeen gainean eskuak **gurutzatzearen** keinua. **Askoren artean**

Betilun eta isil, geldi-geldi eta beso-**gurutzaturik**. **Koldo Biguri**

Hatzak **gurutzatu** ditut. **Harkaitz Cano**

Mahai-tresnak platerean **gurutzatu** ondoren. **Ramon Saizarbitoria**

Irazkia eta bilbea **gurutzatzen** dituen bezala ehuleak ehunean. **Piarres Xarriton**

"Hamaika bider madarikaturiko gerra" haren ostean Bitoriano Ormaetxea, Juan Duñabeitia eta Jesus Galindezen bizitzetako hariak leku eta denbora jakin batean **gurutzatu** izan dira. **Edorta Jimenez**

## 2 alderik alde igaro; bereziki, bide, lerro batean zehar igaro.

Jendeak trenbideak **gurutza** ez ditzan. **Irene Aldasoro**

Paradis kalea **gurutzatu** dut. **Monika Etxebarria**

Peatonak denbora gutxi duelako **kruzatzeko** kalea... **Pablo Sastre**

Trenaren zubia **gurutzatuz** Charing Cross-etik Trafalgar square-ra heldu ginen. **Ramon Saizarbitoria**

Carlos Zazpigarrenak muga **gurutzatu** baino lehenago. **Txillardegi**

Marylebone **gurutzatu** genuen gero, Regent's Park-en sartzeko. **Ramon Saizarbitoria**

Ur lasterra bortxaz eta jauzika zihoan aitzina, uharra irudi, ibaia **gurutzatzea** erabat zailduz. **Karlos Zabala**

Ubideak, putza luzetara **gurutzatuz**, irtenbide bat egina zuen beste muturrean. **Koro Navarro**

Heinkel 51 batek ibarra **gurutzatu** zuen eskuinetik, Intxorta gainetik. **Ramon Saizarbitoria**

Atlantiko berrogeitalau aldiz **gurutzatu** omen zuen tolosar menturazale, pilotazale eta poeta hura. **Patziku Perurena**

Pertsonaia zenbait binaka aterako dira liburuan zehar, paraleloki denbora eta lekuak **gurutzatuz**. **Berria - Kultura**

## 3 hitzez, begiradez... mintzatzuz, trukatu.

Ez genuen hitz bat ere gehiago **gurutzatu**. **Iban Zaldúa**

Menendezek begirada esanguratsu bat **gurutzatu** zuen laguntzailearekin eta. **Aritz Gorrotxategi**

Hire aitaren behako argia eta irriño ezta **gurutzatzen** ditiat noiztenka. **Herria**

Begirada **gurutzatu** genuen une batean. **Inazio Mujika Iraola**

Halako esperimientuatarako, beharrezkoa da animalia mutanteak bilatzea, haiek ugaltzea, askotariko konbinazioz **gurutzatzea**. **Juan Garzia**

Harrika hiltzen zituzten, berriz, adulterioa, estuproa, sodomia, bestialidadea praktikatzen zutenak [...] batik bat moroa edo judioa kristau batekin **gurutzatzean**. **Patziku Perurena**

Bi joera horiek **gurutzatzetik** sortutako arazo filosofiko nagusia -ordukoa eta egungoa-, unibertsalen arazoa deitutakoa da. **Askoren artean**

Eredu desberdinetako ikerketak elkarren artean **gurutzatuz** eman direla azken datuak. **Pello Salaburu**

Astean hiru egunez, egunean hiru orenez **gurutzatzen** dituzte batzuen eta besteen esperientziak. **Herria**

## 4 ipar (norbaitekin) topo egin; harremana izan.



Maddalen erreletoaren burua plastikozko pegarrak dahaneko urez betetzen laguntzen nion. **Itxaro Borda**  
Karrika isil isila zegoen, ordu arte ez zuten nehor **kurutzatu**. **Michel Oronoz**  
Besta zenbaitetan **gurutzatzen** eta agurtzen zuen, baina harreman guti zeukan harekin. **Eneko Bidegain**  
Bere bizian molde hain berezian sartu gizon gazte hura laster berriz **gurutzatuko** zuelako segurtamenari. **Elena Touyarou**  
Ez, baina doi-doi **gurutzatu** dut hala ere! **Itxaro Borda**  
Aspaldikoa **gurutzatua** ez nuen kide baten autoan nenbilen. **Itxaro Borda**  
Emma ezagutu arte eta Emmarekin batera haren adiskide zenbait, ez nintzen batere **gurutzatzen** jende eskolatuekin. **Daniel Landart**  
Germaine ostatu batean **gurutzatu** zuen eta hutsik kometitua gabe, harekin ezkondu zen Balantsun Jainkoaren fedean. **Itxaro Borda**  
Behin hegazkinez egin bidaia aspergarri batean **gurutzatu** anderearen soaren sakonak burua panpalaharatu zidan. **Itxaro Borda**

## • 5 da ad albotik igaro, aurkako norabidean joanez.

Ezaguna egiten zaidan bizardun batekin **gurutzatzen** naiz irteerakoan. **Mikel Hernandez Abaitua**  
Zubira bitartean Lainez ez da inorekin **gurutzatu**. **Pello Lizarralde**  
Kalean askotan **gurutzatzen** ziren arren, inoiz ez zion aurpegira begiratzen. **Ramon Saizarbitoria**  
Vine Streeten **gurutzatzen** zaizun lehenbiziko pertsonari ere galdetzen ahal diozu. **Fernando Rey**  
Ohiturazko hitzak kalean elkarrekin **gurutzatzean**. **Ramon Saizarbitoria**  
-Erbi bat, gure bidean **gurutzatu** dena! -erantzun zion Nikolasek. **Karlos Zabala**  
Kalekak estuak ziren, bi asto saskidun ozta-ozta **gurutzatzeko** modukoak. **Bernardo Atxaga**  
Euren konplexutasuna aletzeko, euren baitan **gurutzatzen** diren hitzak bakartzeko. **Xabier Arregi**  
-Orain gure patuak **gurutzatu** egin dituk -esan zuen Aragornek. **Agustin Otsa**  
Halako batean Mikelen begirada eta nirea **gurutzatu** dira. **Iban Zaldua**  
Hemen gabiltzan gutako askoren bizitzak puntu batean edo bestean **gurutzatu** egiten dira, momentu bateko informazioa hurrengoari lotzen zaio... **Pako Aristi**

## 6 (era burutua izenondo gisa)

Begirada **gurutzatuak**, aldaka kulunkariak. **Lopez de Arana**  
Gizonezko asko zegoen burua brillantiaz orraztuta eta jaka urdin **gurutzatuez** jantzita. **Ramon Saizarbitoria**  
Milaka gurutze, milaka hilobi-harri agertu ziren, denak lerro zuzen eta **gurutzatueta** paratuak. **Iñaki Zabaleta**  
Truke **gurutzatu** garrantzia. **Koro Navarro**  
Buruari txano beltz bat zeraman burezurrarekin eta bernahezur **gurutzatuekin**. **Fernando Rey**  
Mirespen edo bekaizkeriazko begiraden su **gurutzatu**. **Urtzi Urrutikoetxea**  
Europarrek bestalde, 25 herriek bat eginik, ez dituzte onartu Bruxelles-ko komisioreak OGM hazi **kurutzatu** alde eginak zituen hautuak. **Herria**  
Belauneko aurrealdeko lotailu **gurutzatua** bihurritu zuen. **Berria - Kirola**

## 7 hitz gurutzatu p/

Hitz **gurutzatuak** edo egiten ari nintzena utzi, eta hurbildu egiten nintzaion. **Ramon Saizarbitoria**  
Sukaldera joan nintzen hitz **gurutzatuak** egitera. **Ramon Saizarbitoria**  
Agian egunkariko hitz **gurutzatuak** egiteko. **Imanol Zurutuza**  
Hitz **gurutzatuak** egin nahi zituela esan zidan. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**airean gurutzatu** (3); **aldiz gurutzatu** (4); **atea gurutzatu** (5); **azpian gurutzatu** (3); **bat gurutzatu** (26); **bat gurutzatu zen** (4); **bat gurutzatu zuen** (3); **bat gurutzatu zuten** (3); **batean gurutzatu** (4); **batek gurutzatu** (7); **batek gurutzatu du** (3); **batek gurutzatu zuen** (3); **batekin gurutzatu** (6); **batzuk gurutzatu** (4); **begirada gurutzatu** (3); **begiradak gurutzatu** (9); **begiradak gurutzatu egiten** (3); **besoak gurutzatu** (29); **besoak gurutzatu ditu** (4); **besoak gurutzatu eta** (6); **besoak gurutzatu zituen** (13); **bidea gurutzatu** (4); **bideak gurutzatu** (3); **bidean gurutzatu** (8); **bular gainean gurutzatu** (4); **elkar gurutzatu** (7); **ere gurutzatu** (5); **errepidea gurutzatu** (7); **eskuak gurutzatu** (6); **eskuak gurutzatu zituen** (3); **eta besoak gurutzatu** (8); **eta gurutzatu** (3); **eta hankak gurutzatu** (3); **gainean gurutzatu** (11); **gainean gurutzatu eta** (3); **gainean gurutzatu zituen** (3); **gehiago gurutzatu** (3); **gurutzatu aurretik** (3)  
**gurutzatu baino** (3); **gurutzatu behar** (14); **gurutzatu bezain** (4); **gurutzatu bezain laster** (4); **gurutzatu bi** (3); **gurutzatu da** (5); **gurutzatu dira** (7); **gurutzatu ditu** (7); **gurutzatu ditu eta** (3); **gurutzatu ditut** (6); **gurutzatu dituzte** (5); **gurutzatu du** (13); **gurutzatu dugu** (4); **gurutzatu dut** (10); **gurutzatu egin** (9); **gurutzatu egiten** (9); **gurutzatu egiten dira** (4); **gurutzatu eta** (79); **gurutzatu eta gero** (4); **gurutzatu ez** (4); **gurutzatu gabe** (10); **gurutzatu genuen** (10); **gurutzatu ginen** (7); **gurutzatu izan** (4); **gurutzatu nahi** (3); **gurutzatu nuen** (16); **gurutzatu ondoren** (11); **gurutzatu orduko** (3); **gurutzatu ote** (3); **gurutzatu zen** (17); **gurutzatu ziren** (23); **gurutzatu zituen** (38); **gurutzatu zituen eskuak** (3); **gurutzatu zituen eta** (3); **gurutzatu zituzten** (16); **gurutzatu zitzaidan** (3); **gurutzatu zuen** (52); **gurutzatu zuen eta** (3); **gurutzatu zuenean** (3); **gurutzatu zuten** (24); **gurutzatu zuten kalea** (3)  
**gutxi gurutzatu** (5); **gutxi gurutzatu ziren** (3); **hankak gurutzatu** (6); **hankak gurutzatu zituen** (3); **harekin gurutzatu** (3); **hitzik gurutzatu** (4); **ibaia gurutzatu** (3); **inorekin gurutzatu** (3); **kalea gurutzatu** (17); **kalea gurutzatu eta** (3); **kalea gurutzatu zuen** (4); **muga gurutzatu** (7); **osoa gurutzatu** (4); **patioa gurutzatu** (4); **presaka gurutzatu** (3); **soa gurutzatu** (4); **trabes gutxi gurutzatu** (3); **zubia gurutzatu** (8); **zubia gurutzatu eta** (4)  
**bat gurutzatuta** (6); **bat gurutzatuta geratu** (4); **batekin gurutzatzen** (3); **berriz gurutzatuko** (3); **besoak gurutzaturik** (18); **besoak gurutzatuta** (41); **besoak gurutzatuta eta** (4); **besoak gurutzatuta geratu** (3); **besoak gurutzatuz** (3); **bular gainean gurutzatuta** (3); **desberdin gurutzatuko** (3); **dira gurutzatuko** (3); **errepidean gurutzatuta** (7); **errepidean gurutzatuta geratu** (3); **eskuak gurutzaturik** (3); **eskuak gurutzatuta** (4); **eskuak gurutzatuz** (4); **eta besoak gurutzaturik** (3); **eta besoak gurutzatuta** (4); **gainean gurutzatuak** (3); **gainean gurutzaturik** (6); **gainean gurutzatuta** (7); **gurutzatuak dira** (3); **gurutzatuak edo** (3); **gurutzatuak eta** (10); **gurutzatuko dira** (6); **gurutzatuko diren** (3); **gurutzatuko ditu** (3); **gurutzatuko ziren** (3); **gurutzatuta eta** (5); **gurutzatuta gelditu** (3); **gurutzatuta geratu** (11); **gurutzatuta geratu zen** (8); **gurutzatuta zegoen** (3); **gurutzatuta zituela** (3); **hankak gurutzaturik** (6); **hankak gurutzatuta** (5); **hitz gurutzatuak** (10); **inbertsio gurutzatuak** (4); **inbertsio gurutzatu** (4); **kamioi bat gurutzatuta** (5); **zangoak gurutzaturik** (5); **zangoak gurutzatuta** (3); **zuzeneko inbertsio gurutzatuak** (3)  
**bat gurutzatzen** (6); **batean gurutzatzen** (3); **batek gurutzatzen** (4); **batekin gurutzatzen** (4); **bidea gurutzatzen** (7); **bidea gurutzatzen ari** (3); **bidean gurutzatzen** (5); **elkar gurutzatzen** (5); **elkarrekin gurutzatzen** (7); **errepidea gurutzatzen** (9); **errepidea gurutzatzen ari** (6); **eta gurutzatzen** (3); **etengabe gurutzatzen** (3); **gurutzatzeko parada** (4); **gurutzatzen ari** (20); **gurutzatzen ari zela** (5); **gurutzatzen ari zen** (3); **gurutzatzen ari zirela** (3); **gurutzatzen ari zirela** (3); **gurutzatzen da** (5); **gurutzatzen den** (4); **gurutzatzen den lekuan** (3); **gurutzatzen dira** (17); **gurutzatzen diren** (20); **gurutzatzen dituen** (5); **gurutzatzen du** (11); **gurutzatzen duen** (5); **gurutzatzen dute** (5); **gurutzatzen eta** (4); **gurutzatzen ez** (5); **gurutzatzen hasi** (6); **gurutzatzen hasi zen** (3); **gurutzatzen ikusi** (3); **gurutzatzen naiz** (3); **gurutzatzen nituen** (4); **gurutzatzen nuen** (5); **gurutzatzen zen** (5); **gurutzatzen zirela** (3); **gurutzatzen ziren** (24); **gurutzatzen zituzten** (5); **gurutzatzen zuen** (16); **gurutzatzen zuten** (10); **haren gurutzatzeko** (3); **kalea gurutzatzeko** (4); **kalea gurutzatzen** (7); **kalean gurutzatzen** (4); **nirekin gurutzatzen** (3); **noiz gurutzatzen** (3); **plaza gurutzatzen** (3); **trenbidea gurutzatzen** (3); **trenbidea gurutzatzen hasi** (3)

## gurutzatu<sup>2</sup> iz gurutzada batean parte hartu zuen gudaria. ikgurutzadun 2.

**Gurutzatuak** hiria setiatu izan zuten garaian. **Askoren artean**  
**Gurutzatuak** 1204an Konstantinopla hartu ondoren. **Koro Navarro**  
Saladinoren ahaleginek, eta haren aurretik eta ondoren Islamaren aldeko beste batzuek, **gurutzatu** frankoak kanporatu zituzten Siriatik. **Iñaki Mendiguren**  
**Gurutzatuak** eta aurkari musulmanek puntu komun asko zuten. **Iñaki Mendiguren**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**gurutzatu baten** (3); **gurutzatu batzuk** (3); **gurutzatuak ez** (5); **gurutzatuak portugaldarrei** (7); **gurutzatuak portugaldarrei lagundu** (3); **gurutzatuaren armada** (3)

## gurutzatze (orobat kurutzatze g.er.) 1 iz gurutze jartzea; trukatzea. ik gurutzaketa; gurutzamendu.

Gauzen eta hitzen arteko **gurutzatze** huts eta soila. **Xabier Arregi**  
Alabaina, ez dadila inor liluratu **gurutzatze** honekin. **Xabier Arregi**

Belaualdien **gurutzatze** bat. Herria  
Euskalki bakoitzak egin baitu bere ohantzea mendiz inguratutik zegoen lurralde batean. **kurutzatze** gutirekin auzo ibarrekin, ez baitzen oraingo errextasunik kurritzeko harat eta hunat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Iduri du orain elgarren arteko **kurutzatze** edo trukaketa horiek naturalkiago egiten direla bi eskola hauien artean. Herria

Biziak eta heriotzak gauak eta egunak ere ez daukaten etengabeko **gurutzatze** bat daukate elkarrekin. Iñaki Segurola

## 2 (hitz elkartuetan)

Interpositibotasunen nahasketa da, non mugak eta **gurutzatze** -puntuak ezin diren bat-batean finkatu. Xabier Arregi

Soniarekin solasean ari zela izandako begirada **gurutzatze** bat izan zen. Fernando Morillo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurutzatze bat** (3)

## **gurutze** (ETCn 14.520 agerraldi; orobat **kurutze** ETCn 730 agerraldi eta **kurutz** ETCn 40 agerraldi) 1 iz lurrean finkaturiko habe batez eta zeharka ezartzen zaion ohol batez osatutako urkabea; bereziki, Jesukristo hil zena.

Eta hainbeste lan, gose, egarri, bero eta hotz, irain eta laidoren ondoren **gurutzean** hiitzeko. Patxi Altuna

Sinboloen sinbolo, **gurutzean** iltzatutako Semearen heriotza. Bernardo Atxaga

**Gurutzean** altxatu zutenetik hil arte. **Gurutzetik** Josek eta Nikodemok eraitsi zuten. Patxi Altuna

Jesusen **Gurutzeko** Heriotzaren misterio horrek. Pello Zabala

Kristoren **gurutzarean** zur puska bat gordetzen duen erlikia. Joan Mari Irigoien

Ze hona ni hemen, Kristo **gurutzean** legez, lapurrez inguratua. Edorta Jimenez

## 2 Kristo hil zena irudikatzen duen urkabea.

Bazen plaza bat arras pollita, harrizko **gurutze** handi bat erdian. Janbattitt Dirassar

Aldarearen aitzinean, Kristo **kurutze** barroko batean dilindan dago. Piarres Aintziart

On Camillo **Gurutzearen** azpian belaunikatzera joan zen. Koldo Biguri

Ostiral Santuz **gurutzea** gurtzera joatekoan. Pello Zabala

**Gurutze** zahar hau batzuek ukuilura, abereen artera, eramaten omen zuten, aziendak gaitzetatik libre izan zitezen. Pello Zabala

Elorri horrekin egin **gurutzeak** soroetan eta ateburuetan ipintzeko. Pello Zabala

Nolako ikara meza jendailak zerraldoa **gurutzerik** gabe generamalak hilerrira. Koldo Izagirre

Gaillurreko **gurutzea** dakusat, zuri, dizdizari, baina bakarti oso. Joxe Austin Arrieta

**Gurutzearen** izenean gizagaixoak sutara kondenatzeko gai dena. Edorta Jimenez

Eskuarekin airean **gurutzea** eginez *Ego te absolvo* esateko. Edorta Jimenez

Belarritako turkesadunak zeramatzan belarrietan, **gurutze** txiki bat lepoan. Karlos Zabala

Bonbardaketetan hildakoei abadeek bekokian **gurutzea** egiten zieten. Edorta Jimenez

Erleak babesteko, Erramu egunean bedeinkatutako sahatsezko **gurutzea** ipintzen da erlauntzean. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 3 lau beso berdineko irudia.

Ezkerreko motorra zen matxura zuena; helize bat, **gurutze** geldi bat irudi, zero oskarbian: horixe zen dena. Joxe Austin Arrieta

Baina, ez hori bakarrik, gure ikurriñan ere, **gurutze** gurutzatua, goitik behera eta aldenik alde zuri doanarekin batera, hor daukagu, lau kantoietatik zeharka datorren beste **gurutze** berdea: San Andresena da hori. Pello Zabala

Oso gutxi dira inguru honetan [elizak] **gurutze** greziar eran eginak, lau beso berdinekin... Xabier Mendiguren Elizegi

## 4 (dominetan)

Haren bular zabalaren gainean **gurutze** batek eta hiruzpalau dominak egiten zuten dirdai. Karlos Zabala

Dominak: lehen mailako Burdinazko **Gurutzea**, Verdunen irabazia. Alberto Ladron Arana

Espainiako Gobernuak Carlos III.aren Ordenaren **Gurutze** Handia izeneko domina jarriko dio gaur Nicolas Sarkozy Frantziako Barne ministroari.

Santa Anaren ordenako **gurutzea** zeraman lepoan. Jose Morales

Isabel Katolikoaren **Gurutzea**. Iban Zaldúa

Calatravako **gurutzea** zuen gizon printzipal hari. Joan Mari Irigoien

Lehen mailako Burdinazko **Gurutzea**, Zaldunen **Gurutzea** Haritz Hostoekin. Koldo Izagirre

## 5 (ikurra)

Kristoren **gurutzarean** ikurraz markaturiko arma militarrez. Askoren artean

Liburutegiko zenbait liburu **gurutze** gorri batez markaturik daude. Monika Etxebarria

**Gurutze** txikiz seinalatutakoak. Felipe Juaristi

Ezin zenuenean erantzun, orduan **gurutze** bat jarri behar zenuen. Julen Gabiria

Mapako **gurutze** bat erakutsi zion bere aitari. Ramuntxo Etxeberri

## 6 (kaleen artean; ik behegera 20)

Hortaz, eraman nazazu Lexington eta 47.aren arteko **gurutzera**. Bernardo Atxaga

Gero eta izutuago Ashbury eta Frederick kaleen **gurutzean** sortutako kidesasuna galduko genuelakoan. Bernardo Atxaga

## 7 (elizen egituran)

Ezin konta ahal eliza eta monasterio daude [...] beren kupula, gopoil eta **gurutzeekin**. Jose Morales

Elizak [...] XVI. mendeko **gurutze** -ganga galdu zuen, interes faltagatik, herria abandonatu zutelako. Edurne Elizondo

## 8 pairatu behar den nekea.

Bere buruari uko egin dionak, [...] ez du inoiz ere **gurutzerik** eta sofrikizunik izango, berarentzat, izan ere, dena gozamina izango da, atsegina eta bihotzeko poza. Joan Mari Lekuona

Euskalduntasunaren **gurutzea** ekartzearekin aski lan baditek bai! Itxaro Borda

**Gurutze** hori egokitu zitzaion, niri bere samurraldien pairatzea egokitu zaidan moldean. Xabier Montoia

Berriz galdetu behar ea minik ematen nion, ez nekiela pentsatu behar zuen, hura **gurutzea**, eta ni bero-bero. Karlos Zabala

Gizon handi ororen atzean omen dagoen emakume handiak horixe du, hain zuzen, **gurutzea**: atzean egotea. Joxerra Garzia

## 9 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaineko bi **gurutze** -besoetan, azkenik, hiru hitz hauek: "Dios, Patria, Rey". Txillardeggi

Goratu ere elizaren egonaldiak, erromeriak, barkapenak, **gurutze** -buldak eta elizetako argizari piztuak. Patxi Altuna

Haren enborraz hiru **gurutze** -irudi egiteko aginduko dute faxistek. Edorta Jimenez

**Gurutze** oihan hartan burdinezko beltzak eta harrizko grisak gailentzen dira. Pello Lizarralde

-Eleutheropulos doktorea oraintxe izan berri da -dio-, ez omen da, bere uestez, **gurutze** -sugegorria izan... Joxe Austin Arrieta

Moriko erakunde erlijioso bat, **Gurutze** -eramaileen Ordenakoa. Askoren artean Okupatzaileek Horthy bera behartu zuten dimisioa ematera eta Ferenc Szálásren Gezi: **Gurutzeak** jarri zituzten agintean. Urtzi Urrutikoetxea

## 10 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Suplizio- **gurutzeak** zaintzen zituztèn soldaduek. Juan Garzia

Zain eta zain, baina lau helize- **gurutze** haiek zirkinik ez. Joxe Austin Arrieta

Mapak eraman eta haize- **gurutze** guztietan kontsultatzen dituzten arren, ezin izango lukete lurralde hori halako jarraibideekin topatu. Julen Gabiria

## 11 (besoak, eskuak, hankak) **gurutze** adlag gurutzaturik.

Besoak papoan **gurutze**, ezkaratzeko bortan azaldu zen. Itxaro Borda

Betaurrekoen gainetik begiratu zenuenean pintxe barria topatu zenuen besoak **gurutze** aspertu plantan. Koldo Izagirre

Azalduko didazu zer den GMBH hori? -galdetu zidan nire gainekoak besoak **gurutze** jarriz. Joxan Elozegi

-Uste duzu telebistakoak, ezer jakin izan balute, besoak **gurutze** geratuko zirela? Anjel Lertxundi

Ez baitzen, hurbiltzekorik ere, bi besoak **kurutze** egoitekoa, kondua egin zituen eta behar zen lekura helarazi, ordaindua izaiteko gisan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Itsasontzia irlarik irla zihonan, eta nik, eskuak **gurutze** egon gabe, hamaika salerosketa egin nuen. Patxi Zubizarreta

Paulinek begiak zabal-zabalik entzuten zuen, bi eskuak **gurutze**, elizan ohi bezala. Karlos Zabala

Hantxe eseri zen Willem, leihoaren parez pare eta hankak **gurutze**. Anjel Lertxundi

## 11 **gurutzean** adlag gurutzaturik.

Mihimen gotorenak **gurutzean** jarri zituen, zare zolaren oinarria osatzeko. Itxaro Borda

Burdina zorrotzak gora begira, burdina zorrotzak elkaturik **gurutzean**. Felipe Juaristi

Anartean Joanes, deus ez bailitzan, bere paralitiko aukiarren eremuan, eskuak **gurutzean**, soa hodeietan. Itxaro Borda

## 12 **Gurutze Berde**

Eta bakarrik bizi zenez, **Gurutze Berdeak** batu eta ospitalera eroan zuen, eta bertan hil zen. Edorta Jimenez

Water Aid erakundeak, Nazioarteko **Gurutze** Berdeak eta Oxfamek salatu dute. Berria - Gaiak

## 12a **gurutze bide** (ETCn 497 agerraldi; orobat **gurutzebide** ETCn 188 agerraldi eta **kurutzebide** ETCn 5 agerraldi) 1 iz Jesukristoren Nekaldia irudikatzen duten hamalau gurutze edo laukiz seinalatutako bidea edo ibilbidea; oinaezko bidea. ik kalbario.

Kalbarioko **gurutze-bidearekin** egiten duen parekatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Indian haur askorentzat haurtzaroa nahigabezko **gurutzebidea** da. Gotzon Garate

Debeku izanen da Trinketeko Omordia **gurutze bidetik** plazarako bide zatia, 3 asterendako, 16tik goiti elizako lanen gatik. Herria

**Gurutzebidetik** alde egiteko, ez zuen emazteak irtenbiderik. Gotzon Garate

Ondikotz, ostatuz ostatuko ene **gurutze bidea** jarraitu nuen mater dolorosa baten maneran. Itxaro Borda

Bertze nornahirentzat **gurutze-bide** dorpea litzatekeena, arrosa-bide zaio ustezko eroari. Xabier Montoia

Ondikotz, ostatuz ostatuko ene **gurutze bidea** jarraitu nuen mater dolorosa baten maneran. Itxaro Borda

Bizirik atera zen istripitik, baina **gurutze-bidea** ez zen han bukatu. Xabier Etxabe

Guretzat denborapasa eta josteta hutsa besterik izan ez dena -hasi zait xuxurlaka-, Olgarentzat benetako sofrikarioa eta **gurutze bidea** gertatu da. Patxi Zubizarreta

Erlojupekoak dira bere **gurutze-bidea**, ez baita ondo moldatzen. Berria - Kirola

Eta Paxkal erdian, zer egin ez dakiela; bidegurutzeara **gurutzebide** bihurtzen zaio, sofrikario latz, oinaez gorri. Daniel Landart

## 12b *ipar* bidegurutzeara.

Sekulako mugimendua ikusten dut pasabide eta **kurutzebide** guztietan, funtzionario eta preso-langileak, auxi-ak, harathunatka, xinaurri langileak iduri. Filipe Bidart

Bi kilometro honela eta errepidean nabil, berriz, San Mamederako **kurutzebidean**. Piarres Aintziart

## 13 **gurutze egin**

**Hatz** erakusleaz ezpainetan gurutze eginez, mihiaz bertze egiteko agindu zigan. Aingeru Epaltza

## 14 **gurutze gamatu** lau besoak ukondotuak dituen gurutzeara.

Hindu tenpluetan **gurutze** gamatuak harritu egingo zaitu pittin bat. Gotzon Garate

Nik ezabagaitz matrikulatzen ditiat Espainiako oxtabena guztietako nazi guztien besoak **gurutze** gamatuarekin. Koldo Izagirre

**Gurutze** gamatuak nonahi, soldadu armatuak portuan barreiaturik. Harkaitz Cano

· Aleman soldaduek bazuten bandera gorri luze bat, "gama"-dun **gurutzearekilakoa**, alimaleko haga batetik dilindan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 15 **Gurutze Gorri** nazioarteko erakundea, gerran zaurituei-eta laguntzeko helburua duena.

Irujo anaiak, berriz, **Gurutze** Gorriaren bidez egindako truke baten bidez salbatu zituzten. Edorta Jimenez

**Gurutze** Gorriko ikur bat zeraman sakelan. Joxan Elozegi

**Gurutze** Gorriko erizainek lanean segitu zuten. Felipe Juaristi

Holandako **Gurutze** Gorriko zuzendariak. Joxan Elozegi

Nazioarteko **Gurutze** Gorriko ordezkari ingeles bat. Koldo Izagirre

**Gurutze** Gorriak atarian jarri duen sorospen-postura. Iban Zaldúa

Amerikarrek eta **Gurutze** Gorrikoek egunero banatzen zuten bazka higuinarrak. Alberto Ladron Arana

## 16 **gurutze ontzi** (orobat **gurutzeontzi**) iz korazatuak baino artilleria gutxiago duen baina hura baino lasterragoa den gerraontzia.

Enperadorearen izenean neure burua hil, nire hegazkina **gurutze**-ontzi amerikar baten kontra jo. Joxan Elozegi

Horixe berori galdatu zion gure Zerbitzuak Ciscar **gurutzeontziko** komandanteari. Edorta Jimenez

-Königsberg **gurutzeontzia** zelakoan nago -esan nion-. Edorta Jimenez

## 17 **gurutze santuaren** (*seinale*) gurutzearen seinalea.

Bere neska lagun katolikoak bezala belaunikatu eta **gurutze santuaren** seinalea ere egiten zuen. Joxe Austin Arrieta

Egin zuen haren gain **gurutze santuaren** seinalea bere esku santu zaurituekin. Askoren artean

· **Gurutze** santuaren handi bat egin zuen. Josu Zabaleta

Jakina denez, larritasunean edozeinek duelako **"gurutze santuaren"** eginez bataiatzeko ahalasuna. Ramon Saizarbitoria

## 17 **gurutze zilar** zilarrezko gurutzeara.

Lehen auzoa **gurutze** zilarra zetxikala, apeza bi bereterrekin. Itxaro Borda

**Gurutze** zilarra eroaten zuen lehen auzoaren hatzetarik. Itxaro Borda

## 18 **gurutzearen seinale** eskuin eskua bekokitik bularrera eta eskuineko besaburutik ezkerrekora eramanez egiten dena.

**Gurutzearen** seinalea eta aitaren egin zuen eliza nagusiko atearen paretik pasatzean. Zein gauza ikaragarriak esaten dituzun! -esan zuen andre zaharrak, **gurutzearen** seinalea eginez. Juan Garzia

Goian bego marmarikatuta zuen, Mikek **gurutzearen** seinalea zegien artean, Desert Inneko ostatuko barran telebistari begira zeudela. Itxaro Borda

**Gurutzearen** seinalea zuen bitartean, lau soldadu uhin hiru soldadu plantatu ziren. **Itxaro Borda**

**Gurutzearen** seinaleaz uxatu zuen. **Xabier Olarra**

**Gurutzearen** seinalea ogi gainean, meza, Pazkoa. **Joseba Urteaga**

**Gurutzearen** seinalea egin zuten airean. **Josu Zabaleta**

Hathorne epaileak **gurutzearen** seinale azkarra egin zuen eguerdi hartan hamabigarren aldiz. **Anjel Lertxundi**

## 19 kale/karrika gurutze

Hurrengo kale **gurutzean** zein norabide hartu pentsatzeari ekin zion. **Pedro Alberdi**

Elkarrekin joan dira espaloian barrera hurrengo karrika **gurutzeraino**. **Pello Lizarralde**

## 20 puntu-gurutze (*corpusean puntu kurutze soilik*) brodatu mota arrunta, x formako puntadak erabiltzen direna.

Hastapenean, 1917 inguruan, bere lehen kuadroak kanbasean «puntu kurutzez» **brodarazi** zituen, lehen ofizialea ama izan zuelarik. **Berria - Kultura**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**atzo gurutze** (4); **baina gurutze** (3); **bere gurutze** (5); **beren gurutze** (3); **besoak gurutze** (17); **besoak gurutze modura** (5); **beste gurutze** (4); **bide gurutze** (7); **burdinazko gurutze** (3); **da gurutze** (4); **den gurutze** (3); **die gurutze** (3); **ditu gurutze** (5); **dituzte gurutze** (3); **donostian gurutze** (4); **donostian gurutze izagirre** (4); **du gurutze** (23); **du gurutze gorriak** (3); **du gurutze gorriko** (3); **du gurutze izagirre** (9); **dute gurutze** (9); **dute gurutze izagirre** (7); **edo gurutze** (3); **egurrezko gurutze** (3); **eta gurutze** (61); **eta gurutze bat** (6); **eta gurutze gorriak** (9); **eta gurutze gorriaren** (10); **eta gurutze gorriko** (3); **euskadiko gurutze** (3); **gainean gurutze** (5)

**gurutze astunaren** (4); **gurutze auzoan** (5); **gurutze bat** (53); **gurutze bat egiten** (3); **gurutze bat ikusi** (3); **gurutze bat jarri** (5); **gurutze bat zegoen** (3); **gurutze batean** (6); **gurutze batek** (4); **gurutze baten** (4); **gurutze batez** (3); **gurutze beitia** (4); **gurutze beitia eta** (3); **gurutze bide** (6); **gurutze bidea** (39); **gurutze bidea izan** (4); **gurutze bidearen** (3); **gurutze eramailen** (3); **gurutze eta** (11); **gurutze gorri** (9); **gurutze gorri batez** (3); **gurutze gorria** (26); **gurutze gorria eta** (7); **gurutze gorriak** (66); **gurutze gorriak atzo** (3); **gurutze gorriaren** (5); **gurutze gorriaren** (65); **gurutze gorriaren arabera** (4); **gurutze gorriaren nazioarteko** (28); **gurutze gorriari** (8); **gurutze gorriko** (62); **gurutze gorriko eta** (3); **gurutze gorriko kideak** (3); **gurutze gorriko nazioarteko** (9); **gurutze gorrikoak** (4); **gurutze gorrikoek** (3); **gurutze gorrira** (3); **gurutze handi** (9); **gurutze handi bat** (8); **gurutze handia** (4); **gurutze handiak** (3); **gurutze hau** (3); **gurutze hori** (5); **gurutze hura** (3); **gurutze irizar** (3); **gurutze izagirre** (122); **gurutze jauregi** (3); **gurutze modura** (16); **gurutze modura eskuak** (3); **gurutze modura zabalduak** (3); **gurutze santua** (9); **gurutze santuaren** (31); **gurutze santuaren gorapen** (4); **gurutze santuaren seinalea** (8); **gurutze santuaz** (5); **gurutze santuaz mundua** (5); **gurutze sugedorria** (3); **gurutze txiki** (4); **gurutze txiki bat** (3)

**hankak gurutze** (3); **haren gurutze** (4); **hiru gurutze** (3); **kristauen gurutze** (3); **kristauen gurutze handiak** (3); **marmolezko gurutze** (3); **nazioarteko gurutze** (16); **nazioarteko gurutze gorriak** (9); **nazioarteko gurutze gorriari** (3); **ostean gurutze** (3); **salatu du gurutze** (4); **santa gurutze** (14); **santa gurutze auzoan** (4); **urrezko gurutze** (7); **urrezko gurutze bat** (4); **zen gurutze** (3); **zeure gurutze** (5); **zeure gurutze santuaz** (5); **zilarrezko gurutze** (5); **zuen atzo gurutze** (4); **zuen gurutze** (8); **zurezko gurutze** (3)

**abaden gurutzea** (3); **alde gurutzean** (3); **bere gurutzea** (18); **bere gurutzea hartu** (9); **bide gurutzea** (3); **bide gurutzean** (4); **burdinazko gurutzea** (3); **duzu gurutzea** (4); **duzu gurutzea zure** (3); **egurrezko gurutzeak** (3); **eta gurutzea** (9); **eta gurutzeak** (4); **eta gurutzean** (14); **gurutzea egin** (3); **gurutzea eginez** (3); **gurutzea eraman** (6); **gurutzea eraman behar** (3); **gurutzea eramatera** (4); **gurutzea ere** (4); **gurutzea eta** (16); **gurutzea eta jarrai** (5); **gurutzea hartu** (12); **gurutzea hartu eta** (11); **gurutzea ikusi** (4); **gurutzea zure** (4); **gurutzeak ere** (3); **gurutzeak eta** (5); **gurutzean eta** (3); **gurutzean hil** (10); **gurutzean hildako** (3); **gurutzean jarri** (5); **gurutzean jarri zituen** (3); **gurutzean josi** (5); **gurutzean josteko** (3); **gurutzean zintzilik** (5); **Jesus gurutzean** (3); **Jesusen gurutzea** (3); **kristo gurutzean** (9); **kristo gurutzean hil** (4); **kristoren gurutzea** (8); **mendiko gurutzea** (3); **nahi duzu gurutzea** (3); **urrezko gurutzea** (3); **zeraman gurutzea** (3); **zuen gurutzea** (3)

**bera ere gurutzearen** (3); **beraren gain gurutzearen** (3); **damiango gurutzearen** (3); **damiango gurutzearen aurrean** (3); **donibane gurutzekoaren** (4); **ere gurutzearen** (4); **ere gurutzearen aurrean** (3); **eta gurutzearen** (12); **eta gurutzearen seinalea** (3); **eta gurutzeari** (3); **eta gurutzeko** (5); **frantziskok gurutzearen** (3); **frantziskok gurutzearen seinalea** (3); **gain gurutzearen** (7); **gain gurutzearen seinalea** (7); **gainean gurutzearen** (14); **gainean gurutzearen seinalea** (14); **gure jaunaren gurutzeaz** (4); **gurutzearen aintza** (3); **gurutzearen aitzinean** (3); **gurutzearen aurrean** (9); **gurutzearen aurrean otoitza** (3); **gurutzearen aurrean otoitzean** (3); **gurutzearen azpian** (3); **gurutzearen eta** (4); **gurutzearen gainean** (5); **gurutzearen ikurra** (3); **gurutzearen inguruan** (3); **gurutzearen misterio** (3); **gurutzearen misterioa** (3); **gurutzearen ondoan** (5); **gurutzearen seinalea** (72); **gurutzearen seinalea egin** (24); **gurutzearen seinalea eginez** (12); **gurutzearen seinalea egiten** (3); **gurutzearen seinaleaz** (4); **gurutzeaz baizik** (3); **gurutzeaz izan** (4); **gurutzeaz izan ezik** (4); **gurutzeko heriotzaren** (3); **gurutzeko tituluz** (3); **gurtzera hori** (4); **gurtzeren bat** (4); **gurtzeren bat aurkitzen** (3); **gurtzerik gabe** (3); **gurtzetik jaitsi** (4); **gurtzetik jaitsi berria** (3); **jaunaren gurutzearen** (3); **jaunaren gurutzeaz** (8); **jaunaren gurutzeaz baizik** (3); **jaunaren gurutzeaz izan** (4); **joan gurutzekoa** (4); **kristoren gurutzearen** (17); **kristoren gurutzeko** (3); **san damiango gurutzearen** (3); **san joan gurutzekoa** (4); **zuen gurutzearen** (9); **zure gain gurutzearen** (3)

**gurutzebidea ez** (3); **gurutzebidea ez da** (3)

## gurutzebide ik gurutze 12a.

## gurutzedun (*orobat kurutzedun*) 1 izond gurutzea duena.

Erramu bedeinkatuz egindako ezpaltxo **gurutzedunak**. **Pello Zabala**

### • 2 iz gurutzatua.

Gaztelako estatu nagusiak, [...] erabili dituen **gurutzedunen**, konkistatzaileen ala gobernadoreen balentriak balentria, ez da behin ere heldu izan bere inguruko lurralde guztien biltzera. **Piarres Xarriton**

**Kurutzedunak** 1.099 an Jerusalemen sartu ondoan. **Herria**

*· irud/hed* Ez dugu oraino ahantzia haren osaba ona, Martin Lekuona apezka fusilatu zutela beste euskaldun apez batzu bezala, Espainol **kurutzedunek** Hernaniko hilerrietan. **Herria**

Izan zen lehenik Abou Hafo Al-Masri deitu brigaden salaketa bat, ziona beren gain hartzen zutela egintza hori Europako **Kurutzedunen** Batasuna deitzen zuten baten kontra. **Herria**

## gurutzedura iz Eliza batean, habearte nagusia eta hura zeharkatzen duena gurutzatzen diren gunea. ikgurutzeria.

Eta handik, **gurutzeduraren** gainera orratz erraldoian zehar, zuzenean Zerura bidaltzen zela berriro. **Alberto Ladron Arana**

## gurutzefika (*orobat kurutzefika*) iz Jesukristo gurutziltzatuaren irudia duen gurutzea. ik santokristo.

Britaniako elizbarrutian **gurutzefikak** buruz behera jarriak omen zituzten. **Juan Garzia**

Elizako urrezko **kurutzefika**, kalitza eta aldire gainera beste gauza batzuk utziak zituen sakristauaren eskuetan. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eskolako **Kurutzefika**. **Herria**

## gurutzefikarazi, gurutzefikaraz, gurutzefikarazten du ad gurutzefikatzeraz behartu.

Golgota mendian bere burua **gurutzefikarazten** duen jaingo batena. **Juan Garzia**

## gurutzefikatu, gurutzefika, gurutzefikatzen (*orobat kurutzefikatu*) 1 du ad gurutziltzatu.

Ni **gurutzefikatzen** naute orain, nire eskuak, nire zangoak. **Koldo Izagirre**

Irlandan **kurutzefikatu** dutela gazte bat, beribil bat ebatsi zuelakotz. **Herria**

Egian sinesten duelakotz **gurutzefikatua** dena eta anaian amodioz bizia ematen duena. **Herria**

Bi gizonen hilotzak, barrabilak ahoan trebes, egurrean **gurutzefikatuak** kausitu zituzten. **Itxaro Borda**

Akidura erraldoiak lur lohitsuari **gurutzefikatua**. **Itxaro Borda**

Egia erran, azken aldian Tuzididaren zazpigarren liburuan duda-mudaz **gurutzefikatua** harrapatu zaitut. **Itxaro Borda**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Jesus **gurutzefikatuaren** zurezko begi pareak Etxarterenak gatibatu zituen. **Itxaro Borda**

Salbatzaile izan Jesus **kurutzefikatuarekin**, otoitzeko gizonak izan, gizon guziak maitatu eta Jainkoaren erreinua zerbitzatu. **Herria**

Kalbario mendiaren iduriko muino bat, non baitago Kristo **gurutzefikatua**. Eta orain, Joanes, zin egin behar diagu, **gurutzefikatuaren** aitzinean, eskua elkarri emanik eta odolak nahasturik, ezen ez dugula batak bertzea salatuko. **Joan Mari Irigoien**

Ostirale sailduz, **Gurutzefikatuaren** saihestetik jaio zela Jesusen gorputz misteriozkoa. **Piarres Xarriton**

Kristoren beso mehe eta luzeek, gorputz hilaren pisuak itzetatik ateratzekotan balire bezala, **Kurutzefikatuaren** hauskortasuna gehitzen dute. **Piarres Aintziart**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurutzefikatuaren aitzinean** (3)

## gurutzefikatzaile iz gurutzefikatzen duena.

Deitoragarritasun, gaitzesgarrikeria, **gurutzefikatzaile**, itsasbazterreratu, mendigoizaletasun... **Iñaki Arranz**

## gurutzefikatze iz gurutziltzatzea.

Ez dut uste, **gurutzefikatze** ostiral arratsalde hartan Jesus Kristok nik haina sofritu zuenik... **Itxaro Borda**

## gurutzegramam (ETCn 304 agerraldi) iz hitz gurutzatuak.

**Gurutzegramen** koadernotxoa atera nuen mahaira. adituztat nuen ene burua **gurutzegramam** kontuetan. **Joxemari Iturralde**

Metroko aulki laranja eta horietan **gurutzegramak** egiten. **Harkaitz Cano**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gurutzegramam bat** (4)

## gurutzeontzi ik gurutze 16.

## gurutzeria iz eliza batean, habearte nagusia eta hura zeharkatzen duena gurutzatzen diren gunea. ikgurutzadura.

Lehenengo gunearen sarrera basilikaren iparraldeko **gurutzerian** kokatua dago. **Berria - Kultura**

Mirarik, Alex imitatuz, **gurutzeria** -ganga miatu zuen, zer ikusiko. **Fernando Morillo**

## gurutzetto iz gurutzetxoa.

Heriotza Gorriaren Txantxoa ipuinaren lehen orrialdean arkatzez egindako **gurutzetto** bat ikusi nuen. **Alberto Ladron Arana**

## gurutzetxo (orobat kurutzetxo) iz gurutze txikia.

Arrautza bakoitzari ikatz zatiño batekin **gurutzetxoa** kontuz margotzen. **Pello Zabala**

Arrautza denak ikatzez **kurutzetxoa** eginda jarri behar dira; eta bat Purgatorioko animei opa izaten zaie, animentzat eskean dabilenari emanez. **Pello Zabala**

Santakruzetako erramu-**gurutzetxo** bedeinkatu. **Pello Zabala**

Zoldak dena estaltzen zuen, belus urdina, belarritakoak, **gurutzetxoa**. **Karlos Zabala**

Izotzak handitutako eskuetan zeraman **gurutzetxo** zuriaren inguruan. **Josu Zabaleta**

## gurutzetatu izond gurutzez hornitua.

Urduritu eta are beldurtu ere egiten ninduen Ernioko gailur **gurutzetatuan** aurki nezakeenaz pentsatzeak. **Juan Luis Zabala**

## gurutzifikarazi ik gurutzefikarazi.

## gurutziltzatu, gurutziltza(tu), gurutziltzatzen 1 du ad gurutzean iltzatu edo josi.

Bi lapurren artean **gurutziltzatu** zuten. **Patxi Altuna**

Eta esnatu ez banintz, habe batzuetan **gurutziltzatuko** ninduten! **Patxi Zubizarreta**

-Bihar **gurutziltzatuko** zaituzte. **Patxi Zubizarreta**

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Atzeko hormatik Jesukristo **gurutziltzatuaren** irudiak so egiten zigun. **Joseba Sarrionandia**

Bere burua **Gurutziltzatuaren** besoetan eskaintzea. **Askoren artean**

**Gurutziltzatu** gaixo bat naiz ni ere. **Joxan Elosegi**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere burua gurutziltzatuaren** (3); **burua gurutziltzatuaren** (3); **burua gurutziltzatuaren besoetan** (3); **eta gurutziltzatu** (8); **eta gurutziltzatuaren** (4); **gizon gurutziltzatu** (3); **gurutziltza zezaten** (3); **gurutziltzatu eta** (5); **gurutziltzatu zituzten** (3); **gurutziltzatu zuten** (5); **gurutziltzatu agertu** (3); **gurutziltzatuaren besoetan** (3); **gurutziltzatuaren irudi** (6); **gurutziltzatuaren irudia** (5); **jaun gurutziltzatuaren** (4); **Jesu kristo gurutziltzatu** (4); **Jesu kristo gurutziltzatuaren** (4); **Jesukristo gurutziltzatuaren** (3); **Jesu gurutziltzatu** (3); **Jesu gurutziltzatu** (4); **Jesu gurutziltzatuaren** (5); **kristo gurutziltzatu** (3); **kristo gurutziltzatu** (11); **kristo gurutziltzatuarekin** (3); **kristo gurutziltzatuaren** (10); **kristorekin gurutziltzatu** (3)



## gurutziltzea iz gurutzean iltzean edo jostea.

Beren arteko baten **gurutziltzea** mendekatzeko irritsez. **Juan Garzia**

Eta amaiera delako maite dut, hain zuzen ere, **gurutziltzea**. **Joxan Elozegi**

## gurutzontzi ik gurutzeontzi.

## gurutzari iz gurutzadetan borrotatzen den gudaria.

Gurutzean hildako fundatzaile baketsu absolutu bat hasieran, mende batzuk gero gerra santuak eta "Jainkoak nahi du!" **gurutzari** gurutzez armatuen sarraskiak. **Joxe Azurmendi**

### 2 irud

**Kazeta** -gurutzari batzuek lagundua. **Joxe Azurmendi**

## gustagarri izond gustatzeko modukoa, atsegingarria.

Gozoenak ez dakit, baina zinez **gustagarriak** ziren patatak. **Edorta Jimenez**

Gorputzarentzat **gustagarri** ziren janariak ematen zizkiotenean, ezer gutxi jaten zuen. **Askoren artean**

Jakirik **gustagarrienak** eta ardorik finenak dastatu bitartean. **Patxi Zubizarreta**

Edateko **gustagarria** dela iturri honetako ura. **Santiago Iruretagoiena**

Gorputzari zegokionez, ezpainak zitzaizkidan batez ere **gustagarri**. **Ramon Saizarbitoria**

Irakur ezazu liburu hau [...] eta ikusiko duzu **gustagarri** ez ezik, jakingarri ere gertatuko zaizula. **Jose Antonio Mujika**

Hizkuntzarekin jolas eginez, zerbaít **gustagarria** sortzea, norberarentzat eta jirako entzuleentzat. **Andoni Egaña**

Une honetan behintzat lagunak ez dira oso **gustagarriak**. **Koro Navarro**

Pilota partida **gustagarria** hastean. **Herria**

Hala da beti **gustagarri** dela itsasoaren zilarrezko dirdira iguzki pean. **Herria**

Entzunago, **gustagarriago**. **Gotzon Garate**

Egeari Safok duen dena gustatzen zaio; begiak zaizkio, ordea, **gustagarrien**. **Felipe Juaristi**

Horrela egon ginen, orduak eta orduak, gorroto **gustagarri** batean lotuta. **Matías Múgica**

Behartsuentzat eta ez- **gustagarri** direnentzat. **Joan Mari Lekuona**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arras gustagarri** (5); **gustagarri egiten** (4); **gustagarri izan** (5); **partida gustagarri** (7); **partida gustagarri bat** (4)

**arras gustagarria** (7); **beti da gustagarria** (3); **gustagarria egin** (5); **gustagarria egin daukute** (3); **gustagarria izan** (9); **gustagarria izan da** (7); **oso gustagarria** (5); **partida gustagarria** (20); **partida gustagarria egin** (5); **pilota partida gustagarria** (3)

**oso gustagarriak** (5); **partida gustagarriak** (3)

## gustamen iz dastamena.

Sentsazioaren kalitateari beti enpirikoa besterik ez da eta ezin da inolaz ere a priori errepresentatu (adibidez, koloreak, **gustamena**, eta abar). **Ibon Uribarri**

Zeren koloreak, **gustamena**, eta abar, gauzen antolaera ez, baina gure subjektuaren aldaketa soil gisa kontsideratzen baitira bidezki, hots, gizaki ezberdinetan ere ezberdinak izan daitezkeen aldaketa gisa. **Ibon Uribarri**

## gustamolde iz gustua.

Ea Jauna egiaz bilatzen zuten, edota beren **gustamoldeak**. **Joan Mari Lekuona**

Ohartuki eta berariz beren **gustamoldeak** bilatzen dituzte, beren etekina, beren erosotasuna, atsegina eta onura barruan eta kanpoan. **Joan Mari Lekuona**

## gustarazi, gustaraz, gustarazten du ad atseginarazi.

Bi oren ezbaian irau du partida hunek eta ainitz **gustarazi** ere Donapaleurat igandean etorria zen jendeketa ederra. **Herria**

Gero dute gaina hartu besteek, tantoak bat bestearen ondotik eginez baina jendea **gustaraziz** beti. **Herria**

Burgaintzi taldeak jendea biziki **gustarazi**, denak loriatuak jaldi baitira memento on bat pasaturik. **Herria**

**Gustaraztea** gustatzen zaio, ahal guzietz ari da. **Herria**

## gustatu (ETCn 45.344 agerraldi), gusta, gustatzen 1 zaio ad atsegin edo laketa izan, gogoko izan.

Loreak **gustatzen** zaizkit, baina fruituak gehiago. **Bernardo Atxaga**

Zer, **gustatzen** zaizu kafea? **Javi Cillero**

Amari **gustatzen** zitzaion idazle bat. **Fernando Rey**

"Ez zait **gustatzen** etxe hau!", esaten zuen gure amak. **Fernando Rey**

Gehien **gustatzen** zaidan soinekoa zuen jantzita. **Juan Martín Elexpuru**

Niri musika izugarri **gustatzen** zait. **Bernardo Atxaga**

**Gustatu** egiten zaizu ispiluko irudia. **Lourdes Oñederra**

Niri ez zaizkit **gustatzen** komunistak!. **Fernando Rey**

-Zuri... neskak **gustatzen** zaizkizu, ezta? **Unai Iturriaga**

Askok **gustatzen** zitzaidan Barbara. **Ramon Saizarbitoria**

**Gustatu** Alex **gustatzen** zaidan. **Fernando Morillo**

Harengan **gustatzen** ez zitzaiona hertsikeria hura zen. **Anton Garikano**

Eurei ez zaie hau asko **gustatzen**. **Sonia Gonzalez**

Gero eta gutxiago **gustatzen** zaizkit jai handiak. **Lopez de Arana**

-Jesus, zenbat **gustatzen** zaidan hau! -esan zuen Rayk. **Koro Navarro**

-Halaxe **gustatzen** niri! -esan zuen jakinak. **Matías Mujika**

Gozo-puntu egokia du, **gustatuko** zaizu. **Anjel Lertxundi**

Behin, haren ohe gainean etzanik aurkitu ninduen eta hori ez zitzaion batere **gustatu**. **Daniel Landart**

Apaiz gazte eta modernoa zen, itxura onekoa, Adelari **gusta** zekiokoen gizona. **Juan Kruz Igerabide**

Denoi **gustatu** izan baitzaigu txikitari mundua ezkutareku batetik begiratzea. **Joxean Agirre**

Gero, badakik, hura **gustatu**, eta bata bestearen ondotik. **Joan Mari Irigoien**

Mozorrotzea **gustatzen** zaio. **Josu Zabaleta**

**Gustatuko** litzaidake eskolara joan beharrik ez izatea. **Josu Zabaleta**

Ondo dakit zer **gustatzen** zaien. **Juan Martin Elexpuru**

**Gustatuko** litzaidake jakitea noiz gertatu zen. **Harkaitz Cano**

Baina gogotik **gustatu** zitzaidan atzetik larrua jotzen hasi zitzaidanean. **Karlos Zabala**

Hauskorra den edozer **gustatzera** behartuta ez gaude. **Arantxa Iturbe**

**Gustatu** edo **gustatu** ez, nekazariei beren hizkuntzan egin behar zitzaion. **Inazio Mujika Iraola**

Berarekin hitzartu nuen zita [...] batere **gustatu** ez lvyri: basatia, egoista, gizamunstroa, zeharo bihozgabeta ei nintzen, esan zidanez. **Joxe Austin Arrieta**

## • 2 da *ad* atsegindu.

Urte berean sortuak ginelakoz ezkontzara gonbidatu ninduen [...] aitzinetik banekien ez nintzela **gustatuko** eta hala-hala gertatu! **Daniel Landart**

Edozelan ere ez zen zaila Auschwitzeko aurpegi haiek ulertzea: esan dezaket ni ere laster **gustatu** naizela Buchenwaldez. **Urtzi Urrutikoetxea**

## 3 sexualki-edo erakarria gertatu.

Hain segur ere, zakur zorri zu bati bezala eginen genion ihes, Charly hartaz **gustatu** ez balitz. **Aingeru Epaltza**

Maite garaztar gazteaz **gustatua** banintz egiazki, ene bihotz barneko berotasunetik gehixago beharko niola erakutsi, berak ez zuela orobat besterik igurikatzen... **Janbattitt Dirassar**

Itziar izeneko batek bota zun: Emengo ze neskakin **gustatzen** zera? **Xabier Mendiguren Elizegi**

Naikoa nun esatea erriko neska batekin **gustatzen** naizela, edo alako zerbait. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Halako zurekin **gustatzen** da -esaten zidan lotsagabe halakoren lagunak, ikusten ninduen bakoitzean. **Iñigo Aranbarri**

## 3 *gustatua/gustatuta/gustaturik egon* sexualki-edo erakarria egon.

Ez dakin zeinen **gustatuta** nagoen hirekin, nolako gogoia dudan. **Juan Garzia**

-Titimotz horrekin **gustatua** hago! **Koldo Izagirre**

Ba ni ez nago zukin **gustatuta**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez nuen ulertzen zer arraio ikusten zion Julio txepel hari, inguruan iraultzaile lerdan askoak edukita, eta haietako asko Adelaz nabarmen **gustaturik**, gustatzeko moduko emakume pertxenta zen eta. **Juan Kruz Igerabide**

-Ederki **gustatua** gelditu hintzen, iazko udan ezagutu huelarik. **Aingeru Epaltza**

-Forma horren estilo eta berrietasunarekin **gustatuta**, eredu hori bera erabiliz egin omen zituen koloma batzuk korintiarren artean. **Santiago Iruretagoiena**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ainitz **gustatu** (6); arras **gustatu** (10); asko **gustatu** (106); batere **gustatu ez** (6); bereziki **gustatu** (6); beti **gustatu** (33); beti **gustatu izan** (22); betidanik **gustatu** (12); betidanik **gustatu izan** (7); biziki **gustatu** (13); erantzuna **gustatu** (5); ez zitzaidan **gustatu** (17); gehien **gustatu** (14); gehien **gustatu zitzaidana** (3); gehienik **gustatu** (3); **gustatu da jendea** (3); **gustatu dela** (5); **gustatu dira** (7); **gustatu edo ez** (18); **gustatu izandu** (4); **gustatu izango** (3); **gustatu zitzaidan** (64); **gustatu zitzaion** (66); gutxi **gustatu** (5); hainbeste **gustatu** (15); hitzak **gustatu** (3); ideia **gustatu** (5); ikaragarri **gustatu** (9); izugarri **gustatu** (29); jendea **gustatu** (8); jendea **gustatu da** (4); jendea **gustatu dela** (3); jendeari **gustatu** (3); zinez **gustatu** (5)

arras **gustatua** (5)

amari **gustatuko** (3); asko **gustatuko** (20); askori **gustatuko** (3); bat egitea **gustatuko** (3); benetan **gustatuko** (3); bizitzea **gustatuko** (3); edukitzea **gustatuko** (7); edukitzea **gustatuko litzaidake** (3); egin izana **gustatuko** (4); egitea **gustatuko** (23); egitea **gustatuko litzaidake** (9); egotea **gustatuko** (9); esatea **gustatuko litzaidake** (3); eortzea **gustatuko litzaidake** (3); ezagutzea **gustatuko** (3); gehiago egitea **gustatuko** (3); gehiago **gustatuko** (3); gehiegi **gustatuko** (3); **gustatuko litzaidake** jakitea (5); **gustatuko litzaidakek** jakitea (4); **gustatuko litzaidakek** egitea (3); **gustatuko litzaidakek** (8); **gustatuko litzaidakek** (16); hartzea **gustatuko** (3); hastea **gustatuko litzaidake** (3); idaztea **gustatuko** (3); ikaragarri **gustatuko** (8); ikastea **gustatuko litzaidakek** (3); ikustea **gustatuko** (13); ikustea **gustatuko litzaidake** (5); izatea **gustatuko** (33); izatea **gustatuko litzaidake** (14); izugarri **gustatuko** (9); jakitea **gustatuko** (7); jarraitzea **gustatuko** (9); jarraitzea **gustatuko litzaidake** (5); joatea **gustatuko** (4); jokatzera **gustatuko** (7); nola **gustatuko litzaidakek** (7); zenbat **gustatuko litzaidakek** (5)

agintzea **gustatzen** (3); ainitz **gustatzen** (5); aritzea **gustatzen** (5); asko **gustatzen** (201); ateratzea **gustatzen** (3); azaltzea **gustatzen** (4); bakarrik egotea **gustatzen** (3); barre egitea **gustatzen** (3); begiratzea **gustatzen** (4); bereziki **gustatzen** (4); beti **gustatzen** (3); biziki **gustatzen** (7); deitzea **gustatzen** (4); edatea **gustatzen** (4); edukitzea **gustatzen** (9); emakumeak **gustatzen** (6); ematea **gustatzen** (3); entzutea **gustatzen** (6); erabiltzea **gustatzen** (3); erakustea **gustatzen** (6); esatea **gustatzen** (10); esatea ikaragarri **gustatzen** (3); euskara **gustatzen** (3); filmak **gustatzen** (3); futbol asko **gustatzen** (3); futbola **gustatzen** (5); gazteak **gustatzen** (3); gizonak **gustatzen** (4); gogotik **gustatzen** (9); hitz egitea **gustatzen** (10); ibiltzea **gustatzen** (25); ikaragarri **gustatzen** (28); ikustea **gustatzen** (15); irakurtzea **gustatzen** (4); izatea **gustatzen** (9); izena **gustatzen** (3); izugarri **gustatzen** (10); jakitea **gustatzen** (3); jasotzea **gustatzen** (3); jatea **gustatzen** (3); jendea **gustatzen** (3); jendeari **gustatzen** (4); joatea **gustatzen** (10); jokatzera **gustatzen** (10); jokoa **gustatzen** (3); jolasak **gustatzen** (3); jolastea **gustatzen** (3); jostatzea **gustatzen** (3); jotzea **gustatzen** (4); lan egitea **gustatzen** (4); lana **gustatzen** (4); larregi **gustatzen** (3); laztantzea **gustatzen** (4); liburuak **gustatzen** (5); marraztea **gustatzen** (3); mozorrotzea **gustatzen** (3); musika **gustatzen** (8); nabarmentzea **gustatzen** (3); nola **gustatzen zaidan** (6); oso **gustatzen** (3); pasatzea **gustatzen** (5); pentsatzea **gustatzen** (4); pilota **gustatzen** (3); sartzea **gustatzen** (3); uztea **gustatzen** (3); zenbat **gustatzen zaidan** (3); zer **gustatzen zaidan** (11); zinema **gustatzen** (4); zinez **gustatzen** (3)

## gustu (5305 agerraldi, 262 liburu eta 1852 artikulutan; ETCn 7.421 agerraldi; orobat **gostu** 618 agerraldi, 9 liburu eta 477 artikulutan, ETCn 2.093 agerraldi, eta **gusto** 121 agerraldi, 29 liburu eta 28 artikulutan; ETCn 1.132 agerraldi) 1 iz atsegina.

Janean eta edanean hartzen dugun atsegina, gosea edo egardia daukaguneari; etzateko **gustua** nekatur dagoenarentzat. **Joan Mari Lekuona**

**Gustu** osoz freskatuko dizut zure ganbarako memoria hori. **Pello Zabala**

**Gustu** handiz ikusiko zaitu handik bueltan. **Fernando Rey**

Normalean **gustuz** hartzen du ur-xirriparen ingurua. **Pello Zabala**

Berez atsegina denaren **gustua** sublimatu, garaitu edo kanporatu beharra dago. **Joan Mari Lekuona**

Bere **gustura** eraikitako fantasiazko mundu bat. **Julen Gabiria**

ik beherago 9. **Askoren artean**

## 2 dasta.

Badira beste kualitate batzuk (Lockerren bigarrenak: kolorea, usaina, **gustua**, etab.). **Askoren artean**

**Gustu** goxoa omen du eta okela samurra bide da. **Gotzon Garate**

Egiazko porruaren egiazko **gostua**! **Herria**

Iturriari, ilargiaren gorabeherekin **gustuz** aldatzen den horietakoa baita, batzuetan ustel usaina omen dario. **Pako Aristi**

**Gustua** kentzen zio... **Irene Aldasoro**

[Gisuak] belarrari eta beste bazka guzietan **gustu** ona emaiten diela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Kasik egun guziz berriak onak ziren, eta jatekoari **gustu** hobea emaiten zioten. **Marzel Etxehandi**

Ez dutela kaka guzietan **gustu** berbera. **Iñaki Segurola**

Debekuaren gatzak ematen zion bere **gustua** festa koxkor hari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Beraz gerlak eta gerla ondoak utzi digute oroitzen txar frango eta orobat **gustu** kirets bat. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

## 3 zaletasuna edo.

Bakoitzak bere **gustuak** ditu, eta denontzako **gustuak** daude. [Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio](#)

**Gustua** eta dirua ez doaz beti loturik, nonbait. [Sonia Gonzalez](#)

Januariari buruzko **gustuak** adibidez. [Karlos Linazasoro](#)

Biok ginen literaturazaleak eta biok geneukan erlijio eta filosofia gaietarako **gustua**. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Anaiari frogatzeko norbait nintzela eta arrazoi ukan zuela ni baitan sortarazirik kirolarentzat neukan **gustua**. [Daniel Landart](#)

Gero, gogoz kontra, kafesnea hartzen hasi zen, emakumeen **gustueta** makurtu izan balitz bezala. [Joseba Urteaga](#)

Hortako goxoa kantatzera **gostu** duenak badaki norat jin larunbatean. [Herria](#)

#### 4 edertasuna-edo sumatzeko gaitasuna.

Noizean behin haren liburuak irakurtzen nituen, buruargia zen arras, **gustu** onekoa, erudizio handi-handikoa. [Karlos Zabala](#)

Haren soinekoa **gustu** onekoa zen, modaren arabera. [Jose Morales](#)

Oso txukun eta **gustu** onez orrazturik. [Jose Morales](#)

Hark baino **gustu** hobea dinagu. [Karlos Zabala](#)

Banekien-eta ergelkeria bat esaten ari nintzela, eta **gustu** txarrekoa gainera. [Ramon Saizarbitoria](#)

Oso **gustu** txarreko txantxa izan zen. [Patxi Zubizarreta](#)

**Gustu** lodiko pasadizo barregarriak, hildakoen istorioak eta gonapeko gorabeherak kontatzen aritu omen ziren haren hiletan. [Josu Zabaleta](#)

Altzariak, agintari klase berriaren **gustura**, klasikoak. [Ramon Saizarbitoria](#)

Orduko **gustuaren** arabera apaintzeko. [Jose Morales](#)

Neure literatur **gustua** hobetuko zen tarte hartan. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

**Gostuz** idatzitako eleberria, **gostuz** ere irakurtuko dena. [Herria](#)

#### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egoista hutsa omen bainintzen, zakarra, **gustu**-kontuan barbaroa. [Joxe Austin Arrieta](#)

Kolorea baitzuen berak **gustu**-irizpide, bost axola alderdi teknikoa. [Joxe Austin Arrieta](#)

#### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gasolio **gustuko** arrainak Banan-banan dastatu zituzten eliza-**gustuko** masustak. [Anton Garikano](#)

Azken tantara arte edan zuen ura, botika-**gustua** hartu arren. mahats zukuzko botila bat, ardo **gustu** pixka bat duena. [Anton Garikano](#)

Denak du hemen arrain **gustua**, are patatek berek. [Juan Garzia](#)

Denaden, bazuen bere bixi **gustua** zenbait aldiz HERRIAK, bereziki Lafitten lehen urte aldeño batez. [Herria](#)

Bortzazko ezkontzek badute beti halako kirets **gostu** bat. [Herria](#)

Pozoin **gustu** bat baduela. [Michel Oronoz](#)

Saderen sexu-**gustuak** eta jokoera libertino neurrigabeak ulertu nahi badira. [Juan Martín Elexpuru / Bego Montorio](#)

#### 7 **gustuan** gustura.

**Gustuan** nintzen lehenbizikoz hainbat egunetan. [Aingeru Epaltza](#)

Pentsaketa ari naizenean, koskan edo arrangura bereziki, burua apal nabil edo bestenez, **gostuan** naizelarik, soa zuhaitzen puntan daukat, ez baldin badut hedoietan galdua. [Piarres Aintziart](#)

Bidea idekirik holaxe gazteek, dugun erran arras **gostuan** ezarri gaituela beste lau helduen lasaitasunak. [Herria](#)

Untsa gordea **gostuan** bizi zela Frantziatik urrun... [Herria](#)

Ondartzak behar direla garbi garbiak atxiki jendea **gostuan** mainatzeko gisan. [Herria](#)

Nihaur jaitsiko naiz **gustuan**. [Janbattitt Dirassar](#)

-Ez dut Parisetik nehor ekarriko, zaude **gustuan** ama... [Janbattitt Dirassar](#)

-Zaude **gustuan**, Baiona ez da urrun, eta otoan gira. [Marzel Etxehandi](#)

Hark, baietz, bai, **gustuan** jar zedin. [Eneko Bidegain](#)

· -Alta, gain hartan, buruz buru, **gustuanago** izanzen ahal ginen, ez duzu uste? [Janbattitt Dirassar](#)

· Xan ez zen bere **gustuan**. [Elena Touyrou](#)

· lheslariak aterbetuko ditugu, **gostu gustuan**. [Eneko Bidegain](#)

#### 8 **gustuko izond** ik beherago 15.

Bihozgabatu egiten naiz **gustuko** neska bat aurrean dudanean. [Jon Muñoz](#)

Ez zutela batere **gustuko** lana. [Pello Zabala](#)

Material harekin gero geure **gustuko** irudiak sortzeko. [Patxi Zubizarreta](#)

Bakoitzak bere **gostuko** kirola egiteko. [Herria](#)

Bere **gustuko** neskak "Danger"en egongo dira. [Pako Aristi](#)

Aurren aurrenik zeure **gustuko** gaietara jotzea gomendatuko nizuke. [Patziku Perurena](#)

Xarlesen **gustuko** metro edo postako ofizio horiek. [Itxaro Borda](#)

Erantzuna ez zen aitaren **gustukoa** gertatuko. [Anjel Lertxundi](#)

Bere rock talde eta pieza **gustukoenez** hizketan. [Xabier Olarra](#)

Ezagun zuen leiho ondoko aulki huraxe zuela lekuri **gustukoena**. [Harkaitz Cano](#)

Txeikiako garagardo ospetsutik litroak edaten zituen bere taberna **gustukoenean**. [Fernando Rey](#)

· Irakurlearen **gustuko** izango direlakoan. [Jose Antonio Mujika](#)

Hurrengo erabiltzailearen **gustuko** ez direlako. [Josu Zabaleta](#)

Bainan Jospin-en "pizte" hori ez da denen **gostukoa**. [Herria](#)

-Zure jokamoldea oso **gostukoa** zait. [Patxi Zubizarreta](#)

#### 9 (-en) **gustuko** (-en) iritzian.

Ene **gustuko**, amodioak du beste zernahik baino gehiago gizon baten bizia bezitzen eta argitzen. [Janbattitt Dirassar](#)

-Nekez, ene **gustuko**. [Janbattitt Dirassar](#)

Ene **gustuko** aise ari dira kolegio horretan, pedagogia integratua dela estakuru. [Itxaro Borda](#)

Bronchite-a joan zitzaidan primaderako lehen eguzkiekin, nahiz-eta sasoina mokorra eta berankorra izan gure **gustuko**. [Marzel Etxehandi](#)

Batzuen **gostuko** hori sozialixten jukutria bat bezala izanki jokoaren nolazpait nahasteko... [Herria](#)

Zonbat jende bilduz orotaratz? bost ehun mila edo gehixago langile sindikatan arabera, hiru ehun mila ez arras polizaren **gostuko**. [Herria](#)

Bozka-legea kanbiatua izaiten ahal litake beraz bainan askoren **gostuko** arras okerki. [Herria](#)

Sobera lardería, frangoren **gostuko**. [Herria](#)

#### 10 **gustura** gogara.

Bertan goxo egin duzu, **gustura** zaude kaka artean. [Karlos Linazasoro](#)

Norma Lúciak **gustura** entzuten zituen haien esapide lotsagabeak. [Karlos Zabala](#)

**Gustura** barre egin dut, eta **gustura** barre egiten sentitu dut nire ondoan Stevenson. [Harkaitz Cano](#)

Imajinatu dezakez nola egiten duten, baina **gustura** ikusiko nuke. **Karlos Zabala**

Egin dutana, gogotik eta **gosturat** egin dut. **Herría**

**Gustura** joko nitek trago bat haren osasunera, arranopola! **Lopez de Arana**

Batak emandakoa **gustura** hartzen zuen besteak. **Anton Garikano**

Neskak **gustura** hartu zuen gizonaren eskaintza eskuzabala. **Koro Navarro**

Ez dira horrenbestez denak **gustura** geratzen, protestaldi bati ekiten diotenak ere izaten dira. **Bernardo Atxaga**

Pozik eta **gustura** sentitzen zen oso. **Juan Garzia**

Ez zuen oso **gustura** hartu Julenen laguntza eskea. **Fernando Morillo**

**Gustura** asko entzungo nuke zuri buruzko zerbait. **Agustin Otsoa**

Ez noa, ordea, oso **gustura**; premiak behartzen nau. **Agustin Otsoa**

Arras **gostura** zirela hola salatu digute gure Jean Leon, Martzel eta Anttonek. **Herría**

Bizarra kendu gabe ez naiz batere **gustura** sentitzen. **Joxe Austin Arrieta**

**Gustura** asko hasiko nintzateke neu ere urrumak egiten. **Koro Navarro**

**Gustura** asko! **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nagusia ondoan badu, **gusturago**. **Gotzon Garate**

**Gustura** baino **gusturago** zegoen bere senarraren eta bere alabaren artean. **Karlos Zabala**

Ni **gustura**, deus bisitatu beharrik ez-eta. **Joxe Austin Arrieta**

**Gustura** gainera. **Juan Luis Zabala**

## 11 (-en) **gusturako** (-en) iritzian.

Baina ez dute, nere **gusturako**, pesimismorik edertzen. **Iñaki Segurola**

Ivyren **gusturako**, ordea, zoragarri ei zegoen. **Joxe Austin Arrieta**

Eta hori, kritiko xume honen **gusturako**, ezin onetsia da. **Iñaki Segurola**

Oso liburu interesgarria da, baina emakumeen historia gehiegi dakartza, nire **gusturako**. **Josu Zabaleta**

Larru eta korbata eta Loewe gehiegi nire **gusturako**. **Iban Zaldua**

Gero, otordua arin-arin bukatu -arinegi beti ere Harry Blounten **gusturako**, jale metodikoa izanik-, postatik irten, eta aurrera. **Karlos Zabala**

Baina Joek ankerregi borrokatzen zuen gazteago eta beldurtiago ginenon **gusturako**. **Irene Aldasoro**

## 12 **gustu(a) eman**

**Gustua** ematen zion besteen berriketa entzuteak. **Josu Landa**

Egia esan, **gustua** ematen du zuei eszena hauek agintzeak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Baina neskak dantzan hasi zirenean, hain zituan arinak eta dotoreak, **gustua** ematen zian beraiei begira egotea. **Pako Aristi**

Etsaiari **gustu** ez emate hutsagatik. **Hasier Etxeberria**

Azukreak beti balioko zuen hari **gustu** emateko. **Anton Garikano**

## 13 (norbaiten) **gustua egin**

Maite zuen jendearen **gustua** egitea, denena eta bakoitzarena. **Joxan Elozegi**

Esaera duk emakume ezkonduak gizonaren **gustua** egin behar duela. **Juan Kruz Igerabide**

Abildade aparta duzu zure **gustua** eginez besteak saritzen dituzula sinesteko. **Anjel Lertxundi**

Denen **gustua** nola egin? **Herría**

Badakit hitz hunekin ez dudala denen **gustua** egiten. **Herría**

## 14 **gustu(a) hartu**

Ibiltzen batere **gusturik** hartzen ez duten eta zapata pare bat baino ez daukaten atso gaixoek. **Juan Garzia**

Arraina [...] bikain askoa zegoen, baina nik batere **gusturik** hartu ez, ez dakit zer demontre gertatzen zitzaidan. **Joxe Austin Arrieta**

Garateneko jendeak **gostu hartu** du partida huntan, hau ez izanik ere mailez gorenen artekoa. **Herría**

Nik ere harekin eginak nituen artzaingoko lehen ikasketak [...] artzain etolari biziki **gostu hartu** nion haren konpainian. **Herría**

Horiek oro negu bizitxo hunen ahanzteko eta bizizari bere **gostua hartzeko**. **Herría**

## 15 **gustuko izan**<sup>1</sup> (norbaitek zerbait)

**Gustuko** zuen bere ganbara, neskatxa gela hura. **Karlos Zabala**

**Gustuko** ditu aitak paseoak. **Jokin Muñoz**

Ez ditiat oso **gustuko** liburuak: jakin beharreko guztia ikasia nauk dagoeneko. **Alberto Ladron Arana**

Galatinatik bi xerra nahi izan zituen; **gustuko** zuen. **Karlos Zabala**

Baina ez zuen **gustuko** bere aberastasunaren jatorriaz hitz egitea. **Karlos Zabala**

**Gustuko** dut, noizean behin eta pertsona egokiek, odaliskarena egitea, emakumeek badakite zertaz ari naizen, zoragarria da. **Karlos Zabala**

Oso **gustukoa** dut euria nik. **Eskarne Mujika**

Arras **gostukoa** omen zuten joko hori. **Herría**

Izugarri **gustukoa** bainuen mekanika. **Juan Kruz Igerabide**

Fikzioa biziki **gustukoa** dut. **Berría - Kultura**

Ez du batere **gustuko**, giroa ez du **gustuko**, jendea ez du **gustuko**, zerbizaria ez du **gustuko**.. **Sonia Gonzalez**

Ea Madril **gustukoa** al nuen galdetu zidan. **Ramon Saizarbitoria**

**Gustukoa** nuen eszena hura gogoan erabiltzea. **Karlos Zabala**

Ez dugu batere **gustuko** agintariak, politikariak edo unibertsitate kanpoko inork ere eskua sartzeari unibertsitatean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Jendearen batere **gustukoa** ez zen zerga proiektu bat. **Karlos Zabala**

Italiarrek hain **gustukoa** zuten Luna ia borobilari. **Bernardo Atxaga**

Holako ideia ez zen segur denen **gustukoa**. **Michel Oronoz**

Liburuei begira eta **gustukoen** genituen pasarteak gogoratzen. **Lander Garro**

Ze jateko duzu **gustukoena**? **Iñaki Segurola**

**Gustukoena** jendea neke latzetan lanean aritzen zen tokietara joatea izaten zuen. **Fernando Rey**

## 16 **gustuko izan**<sup>2</sup> (norbaitek beste norbait)

Ez al naiz zure **gustukoa**? **Fernando Rey**

Tipoa ez nuen oso **gustuko**, baina Monaren laguna baldin bazen, agoantatu beharra nuen. **Fernando Rey**

Ez dut **gustukoa** Hearst jauna. **Fernando Rey**

Jonek ez zuen **gustuko** Ane bide horretatik hasten zenean. **Unai Iturriaga**

**Gustuko** ditut lotsatiak. **Eskarne Mujika**

**Gustuko** ditudan poetak behin eta berriz irakurtzen ditut. **Harkaitz Cano**





# gutaratu, gutara(tu), gutaratzen da *ad* gureganatu.

Potiko galanta **gutaratu** zen, haserre eta larderiatsu. **Itxaro Borda**

## gutariko *izlag* gure arteko. ik **gutarte 2**.

Horra gizakia **gutariko** bat bihurtua, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzan aditua. **Jose Antonio Mujika**

**Gutariko** inork ez ditu ukatuko hilobia zeure hilarentzat. **Jose Antonio Mujika**

**Gutariko** gehienok, azken finean, ez baikinen denbora-pasako bidaiari. **Joxe Austin Arrieta**

**Gutariko** zenbait burugabek ilargiari aurpegia emanez lo egin zuen. **Juan Garzia**

**Gutariko** asko ondo bizi gara, seguru samarra den sistema batean. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Eta gainera ihesgin bakoitzeko **gutariko** hamar fusilatzen zitiztean denon aitzinean, zentzagarri... **Koldo Izagirre**

Geneen konbinatoria infinitu horrek bilakatzen du **gutariko** bakoitza munduan bakarra. **Juan Garzia**

Memoria pixka bat eta amnesia dosi handitan: horra **gutariko** bakoitzaren historia. **Anjel Lertxundi**

Lege horrek **gutariko** bakoitzaren eskubideak urratzen ditu. **Berria - Euskal Herria**

**Gutariko** bat zara ala izaki ulergaitz eta doilorra? **Berria - Mundua**

Ez zakiagu **gutarikoa** den ala ingelesa. **Edorta Jimenez**

**Gutarikoa** zen, baina bera zen. **Koldo Izagirre**

## gutarrismo *iz adkor* gutartasuna.

Intolerantziak, gogor-irteerak, irmotasunak, **gutarrismo** eriak, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, [...] norekin eta kastillanoekin dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak. **Iñaki Segurola**

## gutarte

### 1 *gutartean* gure artean.

Eliza dorrearen azpian alha ziren errepublikazaleen eta erregezaleen arteko liskarren oihartzunak, edo **gutartean** zebiltzan frantseszealeen eta euskaltzaleen eztabaidak.

**Piarres Xarriton**

Hor daude beraz lehian, **gutartean**, giza eskubideak eta herri eskubideak. **Piarres Xarriton**

### 2 *gutarteko izlag* gure arteko. ik **gutariko**.

**Gutarteko** batailetan sortu zauriak sendatzen dira denborarekin. **Piarres Xarriton**

Nire emaztearekikoak **gutarteko** adiskidetasuna urratzera etorriko ez zirela segurtatuta. **Aingeru Epaltza**

Otoitz bat **gutarteko** hurrengo hilarentzat. **Itxaro Borda**

Zuria eta beltza, eguna eta gaua, ura eta ardoa... bi horien arteko kontrakotasun kasik erabatekoak [...] malgutasuna eta bizitasuna eransten zizkioten **gutartekoari**.

**Aingeru Epaltza**

### 3 *gutartera* gure artera.

Giro iluna izana gatik, ez gituela ahanzten, nahi zuen etorkizunari fidel dagola, eta **gutartera** berriz etorriko dela. **Michel Oronoz**

**Gutartera** itzuli eta "Agentzia" paratzea horren guztiaren ondorio zuzena baizik ez zen izan. **Aingeru Epaltza**

## gutartu, gutar(tu), gutartzen du *ad* gutar bihurtu.

Eta hemen gabiltza denok elkarrekin zuri-zuri, haurridetasun eri batean itoak, guk geuk gure geurekikoa **gutartuz** eta geuretartzakotuz: horretarainoxe exkaxtu gaitu Etsaiak, edo etsai bat izan beharrak. **Iñaki Segurola**

## gutasun *iz* gu izateko nolakotasuna.

Eta ez al zen **gutasun** bakar hori jende primitibo, ilunpetar, ezjakin eta bakartuenaren ezaugarrietarik bat? **Iñaki Segurola**

**Gutasun** Bakar baten aitortle eta sortzaile. **Iñaki Segurola**

## gutiuste ik **gutxiuste**.

## gutixia *iz adkor* gutizia.

Kafea, kaoba, kokoa, rona, tabakoa eta beste **gutixia** asko. **Bernardo Atxaga**

Hemengo **gutixiak** ahogozatuz. **Xabier Montoia**

Baina, Gotainera baino lehenago, azkeneko **gutixia** gisa, Donibanera egin nuen bisita. **Txillardeggi**

## gutizia (*ETCn 2.396 agerraldi; orobat kutixi ETCn 76 agerraldi, kutixia g.er. eta kutizia g.er.*) 1 *iz* nahi bizia, guraria; zerbait izateko edo zerbaitez jabetzeko desira gehiegizkoa.

Ez zuen nahi nehor topatu; ez zuen mintzatzeko **gutiziarik**. Kolpez, haren ikustera joateko **gutiziak** hartu ninduen. **Elena Touyrou**

Gauetz, Haiat Al-Nufus printzesarekin berriketan ari zela, olibak jateko **gutizia** egin zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Patuaren **gutizia** bitxiren bati esker. **Ander Irizar**

Bizi deno gizonak badu liberearen **gutizia**, bizitzeko gosea bezain azkar. **Michel Oronoz**

Ekialde Hurbilean, azkenik, balizko petrolio-baliabide ustiari gabeek europarren **gutizia** eragin zuten, eta baita amerikarrena ere. **Koro Navarro**

Pobretasun santuak garaitzen ditu **gutizia** eta diru-gosea eta mundu honetako ardurak. **Askoren artean**

Prometheoren **gutiziak** zorigaitza bere baitan dauka. **Piarres Aintziart**

**Gutizia** aseezinak eta beldurak bultzaturik. **Agustín Otsoa**

Juliaren nagusiaren semea zen Oscar, **gutizia** gutziak asetzerara ohitua zegoen gaztea. **Jasone Osoro**

Manex Gohienetxe zenak bukatutik gabe utzitako Euskal Herriko historiaren bosgarren liburua **gutizia** berezia piztu du. **Berria - Harian**

Urduri, zain zegoen, irrikan, Memok bere **gutizia** noiz idieraziko. [Fernando Rey](#)

Koipezko salbaina erabiltzea, berriz, **gutizia** huts zen niretzat. [Edorta Jimenez](#)

**Gutizia** nuen, baina saiheski ogi-arrautzetatuak pisuegiak dira arratsean jateko... [Karlos Zabala](#)

**Gutizia** baduk, luze solastuko gaituk horretaz, baina hurrengo batean, inporta ez bazaik. [Aingeru Epaltza](#)

Betidaniko **gutizia** izan zuen oiloak edukitzea. [Bego Montorio](#)

Auto berria saldu eta auto berri-berriaren jabe egiten zena eraman behar zen auto berri-berri-berria erosteko **gutizia** edukitzera. [Iñaki Segurola](#)

## 2 (sexuarekioa)

Zein eskubideren izenean salbueti duzue emakumea gizonen **gutizien** zerbitzari itsu izatetik, naturak hala eskatzen badio? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Ohean gizonetzkoen **gutiziak** asetzeko. [Pako Aristi](#)

Laztan iheskorrak esku eta masailan, **gutiziak** irristatzen dituzten berbak. [Sonia Gonzalez](#)

Nire bezeroek hagitz **gutizia** bitxiak zituztela, naturaren erabat kontrako ideiak alegia. [Joxan Elozegi](#)

Mutil hura agure bizartzuriaren plazererako zela, haren **gutizia** bat baino ez. [Patxi Zubizarreta](#)

## 3 gauza gutiziatua.

Lupe biluzten ikusten zenuen, Lupe zure gainean dantzari, zeure azpian preso, lau hankan jarritako zakur, zu haren ahoan, zeu haren **gutiziak** zurrupatzen... [Hasier Etxeberria](#)

Bizitza osoko aurrezkiak -hogeita hemezortzi dolar- xahutu zituzten **gutiziak** jaten eta beren burua apaintzen xingola eta oihalekin. [Anton Garikano](#)

Remelluri edan eta sukaldeko **kutixia** haiek gutziak jaten genituen bitartean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

## 4 (hitz elkartuetan)

Gero **gutizia** -denda batean freskagarri txiki bat hartu, eta ondoren kalea gurutzatu zuen. [Anton Garikano](#)

Ez zuen armadan sartzeko **gutizia** izpirik. [Elena Touyarou](#)

- Ez dago arrazoirik ohe- **gutizi** bat mahai- **gutizi** bat baino bitxiagotzat jotzeko. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Lehenik aberastasun- **gutiziaz** tentatu behar dituztela. [Patxi Altuna](#)

## 5 gutiziazko izlag

Prestatu genien merienda goxoa, **gutiziazkoa**, guraritsua. [Karlos Linazasoro](#)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**goiti egiteko gutizia** (3); **gutizia arkitektonikoa** (3); **gutizia izan** (3); **gutizia politikoa** (3); **gutizia sartu** (3); **gutizia zuen** (3); **nahia eta gutizia** (4); **nire gutizia** (5); **sartzeko gutizia** (3)

**gutiziaren betetzeko** (3)

## gutziagarri *izond* gutiziatua izatea merezi duena, desiragarria.

Airea usain **gutziagarriz** dago betea. [Oskar Arana](#)

Ez dut uste gizonetzko japoniarrean zortea ere askoz **gutziagarrigoa** denik. [Joxan Elozegi](#)

Azkarregi, halako jaki **gutziagarriz** behar bezala gozatzeko. [Anjel Lertxundi](#)

Merkatu **gutziagarri** batean sartu gabe geratu nahi ez badute. [Koro Navarro](#)

Antzerkigile ingelesaren lanak zuzendari eta aktoreen **gutziagarri** dira garai, toki eta testuinguru gutzietan. [Berria - Kultura](#)

Anaia Tomasek asmatzen zituen irtenaldiak edonori **gutziagarri** gertatuko litzaizkiokela esango nuke. [Pedro Alberdi](#)

## gutziatsu *izond* gutiziatzera makurtua; zerbaiten gutizia duena; gutizia adierazten duena. ikgutizios.

Ezpainen lerro lizunean, [...] edo burukoari atxikitzeo era **gutziatsuan** ohartu nintzen emakumea gailendu zitzaiola erabat neskarri. [Joxean Agirre](#)

Distira gorri arraro bat zegoen orain haren begi **gutziatsuetan**. [Iñaki Mendiguren](#)

Gizon esklaboak gizon libreak baino **gutziatsuagoak** dira, lizunagoak, ankerragoak. [Juan Martin Elexpuru](#)

Gerra-jaun **gutziatsuak**. [Iñaki Mendiguren](#)

Patuaren esku **gutziatsuetan** utziz gero sor zitekeen bertsolaririk, baina ez zegoen jarraipena erabat ziurtaturik. [Andoni Egaña](#)

Nazio **gutziatsu** baina langile baten gainera erortzen bada, legeen indarra alferrik galduko da, azpikeria eta amarru txiki mordo baten artean. [Juan Martin Elexpuru](#)

Garai batean oparo eta distratsua zen, baina orain goseak joa, zin-hausle, gezurti, iruzurti, lapur, **gutziatsu**, miserable eta ezjakin zen hiria. [Iñaki Mendiguren](#)

Teleskopiotik behatzea zen ene orduko gutzia **gutziatsua**. [Joan Mari Irigoien](#)

## gutiziatu, gutizia(tu), gutiziatzen (*ETCn 426 agerraldi; orobat kutixiatu g.er.*) 1 du *ad* biziki desiratu; desiratu.

